

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

BBV Fundazioa

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

HISTORIAREN AZTERKETA I

ARNOLD J. TOYNBEE

Historiaren azterketa I



Jatorrizko izenburua:
A Study of History
Euskaratzailea: Iñaki Mendiguren
Berrikuslea: Jose Urrutikoetxea
Hitzaurregilea: J. J. Carreras Ares

Lehen argitalpena: 2000ko maiatzean

© Itzulpenarena: Iñaki Mendiguren
© Klasikoak, 2000
© Robert Somervell, Mary Brautaset eta Lawrence Toynbee
Oxford University Press
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2000-IV-18

ISBN: 84-88303-31-9 (Obra osoarena)
ISBN: 84-88303-32-7 (Lehenengo liburuarena)
Lege gordailua: BI.-1048-00

Fotokonposaketa: ABA, O.E.
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HISTORIAREN AZTERKETA I

ARNOLD J. TOYNBEE

I-VI liburukien laburpena

D.C. Somervell-ek egina

Doloris

Sopitam recreant volnera viva animam.

Anon.

HISTORIAREN AZTERKETA Royal Institute of International Affairs delakoaren babespean argitaratua da.

Royal Institute of International Affairs ez da erakunde ofizial bat, ezta politikoa ere, eta 1920an sortu zen nazioarteko gaien azterketa zientifikoa bultzatu eta errazteko.

Institutuak, berez, eta bere arauengatik, ezin du adierazi inolako iritzirik nazioarteko arazoen edozein alderdiri buruz; beraz, lan honetan adierazitako iritzia soil-soilik egilearenak dira.

HITZAURREA

A Study of History-ren lehen lerroek diotenez, historialariaren eginkizuna bere garaiko eta tokiko joera nagusien mende dago, eta Toynbeek, esandakoa bere buruari ezarriz, beti azpimarratu zuen «1889an eta Ingalaterran jaio izanaren esanahia»¹. Berak idatzi zue-
nez, Ingalaterrako klase ertain dirudunetako garaikide gehienak beza-
la, konfiantza eta segurtasunezko gaztaroa izan zuen, eta garai harta-
tik biziki gogoratzen zituen Victoria erregina Indiako enperatrizaren
diamantezko ezteiak, 1897an ospatuak, gero historialari izango zenak
8 urte zituenen. Orduan, dio azkenean Toynbeek, inork gutxik uste
zuen Mendebaldekoaz gain beste zibilizaziorik zegoenik, eta zibiliza-
zio hau gainbehera joateko arriskuan egon zitekeenik; gehienek aurre-
rapenean sinesten jarraitzen zuten. Segurtasun-sentimendu hau are
sendoagoa zen, autoreak bezala, Oxford-ekoa bezalako unibertsitate-
etan heziketa humanista grekolatindarra hartu zutenengan, mundu
klasikoaren egoitza espiritualean babesteko aukera ematen baitzien:
«orduan historia niretzat Grezia eta Erromako historia zen, eta Erdi
Aroko historia eta modernoa epilogo inkongruente hutsak ziren»².
Ondorioz, Toynbee gazteak bere garaiko historia jakin gabe edota
gutxietsiz bukatu zituen ikasketak 1911n, eta oinez Grezian zehar egin
zuen bederatzi hilabeteko ibilaldian herrixketako tabernetan ohartu
zen Balkanetako herriak kezkatzen zituzten arazoez, berak inoiz haus-
nargai izan gabeko arazoez: ingelesen nazioarteko politika edo gerra-

ren aukera European. Hau da Toynbeek «nire bigarren heziketa greziarra» esaten duena, nazioarteko arazoak ezagutzen hastea, gero haue-tara emango zuelarik bizitza osoa. Halaber, lehenengo aldiz bidaia hartan igaro zitzaion burutik ideia bat: bera bizi zeneko mundua beste batzuk bezain hauskor eta igarokorra izan zitekeela. Zehatz esanda, 1912ko martxoaren 19ko ilunabarrean izan zen; Kretaren ekialdeko muturrean veneziar hiri barroko baten hondakinei beha zegoela, britainiar inperioak ere desagerturiko veneziarraren patu berbera izan zezakeela pentsatu zuen³.

1914ko abuztuan, Toynbeeren munduak biraketa dramatikoa eman zuen. Historialariak beti gogoan izan zuen data hura, «Britainia Handiaren historian ikaragarritzko haustura eragin zuena, agian askoz haustura handiagoa bi gerrak jasan dituzten beste nazioek jasandakoa baino. 1914ko abuztua arte, Britainia Handiak ia mende bat zeraman inolako gerrarik gabe, benetan pairatu zuen azkena 1815eko ekainaren 18an Waterloon bukatu baitzen, eta Toynbeeren belaunaldiko eskola-curriculum-ean «historiaren bukaera» ere Waterloo zen⁴. Haren lehen erreakzioa Tuzidides-engan babestea izan zen, eta hau irakurtzeari ez dio utziko ondorengo lau urte beldurgarrietan. Toynbeek usteko du historialari greziarra Peloponesoko gerraren hasieran bezalatsu zegoela bera orain, hots, nazioarteko harreman-sistemak porrot eginda eta senide arteko gerra baten aurrean. Bigarren unean, bere erreakzioak koloka jarraziko dio bere historialari miretsienetako batek Mendebaldeko zibilizazioaren patuari buruz ateratako ondorioa: Gibbon-ek 1788an argitaratu zuen *The History of the Decline and Fall of the Roman Empire*, eta bertan aurrerapenean duen konfiantza ilustratuak ukarazi egiten dio Europako zibilizazio modernoak inoiz antzeko amaierarik izan dezakeenik. Zati autobiografikoe-tan ohikoa duen dramatismoaz, Toynbeek honela dio: «niretzat erabat ustekabea zen hondamendiak, non ari baitzen erortzen nire mundu osoa, bat-batean begiak ireki zizkidan egia ikusteko. Oinaztargiak bezala utzi ninduen zorabiatua, eta egonkortasun handiko mundu bateko hiritar pribilegiatu nintzen ilusio zaharra tximistak jota bezala suntsitu zidan; ordudanik beste era batera begiratu nion munduari eta ordu arte nik lañoki uste izan nuen bezalako mundua ez zela egiazta-tu nuen»⁵. Toynbee, beste europar asko legez, ohartua zen, Valery-k esan bezala, «zibilizazioak hilkorrek garela», horrela aurreko gerra-

osteko belaunaldi ezkorrearekin bat eginez⁶. Guztiei aurrea hartuta Oswald Spengler zebilen, 1911ko uztailean Agadir aurrean alemaniar kanoïaren pasadizoa zela eta, hari bururatu baitzitzaion mundu-gerra bat «berehalako krisi historikoaren ezinbesteko kanpo-forma» gisa, historiaren zati hau «ezin daitekeelarik erabat argitu aurrez ez bada historia unibertsalaren sekretua aurkitu»⁷.

1920ko udan Namier irakasleak *Mendebaldearen Gainbehera* liburuaren ale bat eman zion Toynbeeri, eta honek orrialde haietan bere proiektua ikusi zuen berretsita, hots, historiaren ikuspegi euro-zentrikoa eta estatal hutsa gaingitu eta, bere munduaren krisiaren argitan, zibilizazioen sorrera eta desagitearen arazoa aztertzea, aldi berean, higuinargiak gertatu zitzaizkiolarik Spenglerren irrazionalismo eta determinismo zurrinak⁸. Uda hartan bertan, «buruan *Study*-ren lehen ideiak mugitzen hasita zituela», huts egin zuen proiektu bat zirriboratu zuen, eta behin betiko egitura urtebete geroago asmatu zuen, Istanbultik Londresera Orient Express-en zihoala. Ustekabean, «koadernoaren orri-erdi batean hamabiren bat izenburu idatzi zituen, geroke liburuaren zati nagusien izenburuak izango zirenak»⁹. Orduan Toynbee Ingalaterrara itzultzzen ari zen, *Manchester Guardian*-en kazetari gisa gerra greko-turkiarraren berri Anatoliatik ematen jardun eta gero.

Hain zuzen ere, 1914a baino lehen Arnold Joseph Toynbee Jr. lizentziatu gaztearen etorkizunak Britainia Handiarenak berarenak bezain segurua ematen zuen, gutxienez. 1911n kalifikazio gorenekin graduatua, Greziara egindako bidaiatik itzultzean jada Greziako historiako irakasle zen Oxford-eko Balliol College-n, eta azterlan klasikoetan aditurik ospetsuena zen Gilbert Murray irakaslearen alabarekin ezkondu zen. Gerrak borrokalaria bihurtu zuen Toynbee, baina Foreign Office-ko propaganda-frontean, familiako lagunek eta sendagileen ziurtagiri faltsu batek mobilizazioari ihes egiteko aukera eman baitzitoten¹⁰. Beti izan zuen gogoan gerrak murrizturiko belaunaldi batekoa zela, «1915-1916tik beti arraro sentitu naiz bizirik jarraitzeagatik», esan zuen 77 urte betetzean¹¹. Hortik sortu zitzaion bakezaletasun handia: «1914an konbentzitu nintzen gerra ez zela ez erakunde errespetagarria ez bekatu arina, krimen beldurgarria baizik»¹². Versaillesko bake-negoiazioetan ingeles ordezkaritzaren aholkulari izan zen. Geroago, Alemaniaren aurrean baketze-politikaren aldeko

sutsua izan zen, eta 1936an, Hitler-ekin elkarrizketa pertsonala izan ondoren, aitortu zuen berak sinesten zuela, orduan ingeles askok bezala, Hitlerren bake eta adiskidetasun-asmoen zintzotasunean¹³. 1919an Londresko Unibertsitatean azterlan bizantziar eta greko modernoko fundazio pribatu baten katedra izan zuen, baina hari uko egin behar izan zion 1924an, Ekialde Hurbilean turkiarren aurka greziarrek egingako basakerien kazeta-kronikak idazteagatik. Probidentziala izan zen orduan Royal Institute of International Affairs-eko zuzendaritza eskaintzea; hau, Nazioen Elkartearen inguruan nazioarteko ordena berreraikitzeke ardura zuten liberalek New Yorken sorturiko erakunde angloamerikar baten Londresko filiala zen. Geroxeago Nazioarteko Historiako irakasle izendatu zuten Londresko Unibertsitatean. Toynbee, ordu arte historia grekoari buruzko lanengatik bakarrik ezaguna bazen, aurrerantzean hogeitaz nazioarteko politikaren urteko laburpenaren zuzendari eta idazle gisa ezagutuko da; «Survey of International Affairs» ospetsu hau, Royal Institute-k argitaratua, 1925ean hasi ziren ateratzen, eta gaur egun orainaldiaren historia gisa ezagutzen den generoaren aurrekari izan zen.

Nazioarteko bizitza politiko asaldatuaren azterketak konbentzitu zuen Toynbee Europako krisiaz, berak, antzinako historian aditua zen aldetik, 1914tik susmatzen zuelarik kontinentearen historiak bazuela nolabaiteko paralelismoa mundu grekoerromatarraren historiarekin¹⁴. Bazituen honela lanean hasteko ideiak, 1927tik aurrera ekin ziolarik honi; orduan normalizatu zen *Survey*-ren argitalpena eta astia izan zuen zibilizazio ezagun guztiei buruz eskura zitekeen bibliografiaren irakurketan buru-belarri sartzeko. Azterketa konparatuaren proiektua gauzatu nahi zuen, Spenglerrek baino eremu zabala goa hartuz, metodo enpirikoagoarekin, eta autore alemanak egin bide zituen orokortze edo gehiegikeriak saihestuz.

1934an, hamar urteko azterlanen ondoren, Toynbeek bere bizitzako lanaren, *A Study of History*-ren, lehen hiru liburukiak eman zituen argitara, hogeitaz urte geroago bukatu zuelarik lana. Eginkizuna erabat handinahikoa zen: ezagutzen ziren zibilizazio guztien taxonomia bat eta horien sorrera eta hazkundearen azalpena egitea. Hala ere, egilearen hasierako galdera zientifikoa baino areago existentziala zen: bere zibilizazioaren, Mendebaldeko zibilizazioaren, patua; eta 1914ko abuztuan sortu zitzaion galdera hau dramatikoki planteatzen zitzaion

orain Bigarren Mundu Gerraren bezperan. Horregatik, erantzuna hurrengo hiru liburukietan emango du Toynbeek 1939an; hauek zibilizazioen kolapsoaz eta desintegrazioaz dihardute, eta Italia Abisinian sartzen denetik Bigarren Mundu Gerra eragingo duen Poloniaren aurkako erasora bitarteko atsekabealdian idatzi zituen. Hortik dator azken erantzunaren tonu melodramatikoa, Jainkoari erregutzen diolarik «espíritu apal eta bihotz-damuz, berriro ere atzera diezagula gure gizartearen gain dagoen epaia»¹⁵.

Lehenengo hiru liburukien aurrean izandako erreakzioek, aurkakoak izan arren, ez zeukaten zertan kezkatu Toynbee, oso urriak baitziren: ezer berririk aurkitzen ez omen zuen historialari batena, eta eginkizuna, batez ere, gizagainekoa zela iruditzen omen zitzaion historialari soziologo batena¹⁶. Hurrengo hiru liburukien aipamena egiteko, eta garaia kontuan izanda, itsasoz bestaldeko kulturaren soziologo batek bakarrik izan zuen behar hainbat lasaitasun: errusiar jatorriko Sorokin amerikarrak, eta hau, hala komeni zitzaiolako, Toynbeeren aurka jarri zen hasieratik¹⁷. Gainerantzean, historialaria ez zegoen egoera animiko onenean, gerra-urteetan tragedia pertsonalak ere izan baitzituen: 1939ko otsailean ama hil zitzaion eta hilabete geroago bere buruaz beste egin zuen bere bi semeetako batek; geroago, ezkontzak porrot egin zion berari. Horregatik, gerra ez zen haren lanean zazpi urteko etenaldia bakarrik izan, zerbait gehiago ere bai; gero lanari berriro heldu zionean esan zuenez, haustura gertatu bazen bera sortutako gizartean, baita haren bizitza pertsonalean ere¹⁸.

Egoera hartan, pixkanaka itzuli egin zen ikasle-garaian galdu zuen federa, eta ia Erromako elizara konbertituriko ingelesen zerrenda bitxian sartzeko zorian ere egon zen¹⁹. Honek guztiak eragina izan zuen historia unibertsalaz zuen ikuspegiaren egiturari, eta hau garbi ikusi zen Oxford-eko Sheldonian Theater-en 1940ko maiatzean, Dunkerkeko erretiradaren hilean, eman zuen hitzaldian. Toynbeeren-tzat, orduan, erlijioa karroza bat bezala zen, zibilizazioen aldizkako gainbeheran zerurantz igotzen zela ematen zuena: «the continuous upward movement of religion... served and promoted by the cyclic movement of civilizations round the cycle of birth, death, birth». Normala denez, kristautasuna irabazian ateratzen zen ikuspegi-aldaketarekin, jakindurian eta esperientzian zuen hazkundera Mendebaldeko zibilizazioaren berehalako hondamendiaren kontrapisu kontsola-

garria baitzen²⁰. Historiaren ikuspegi berri honek adoreturik eta gerraren gogortasunaren aurrean, Toynbeeren bakezaletasun sakonak pribatuan zera esatera eramán zuen, hobe izan zitekeela Hitlerren aurrean amore ematea halako bortizkeria eta suntsiketarekin jarraitzea baino: «munduak gero eta beharrezkoagoa du bateratze politikoa —esan zien lagunei—, horregatik, eta hori lortzearen, agian hobe litzateke tiraniarik ankerrenaren mende jartzeko prezioa ordaintzea»²¹. Toynbeeren aldartea suspertuz joan zen Estatu Batuak gerran sartu zirenetik eta berriro geroan itxaropena izaten hasi zen. 1946an beste bake-konferentzia batean izan zen, Pariskoan, eta gainera urte berean bigarren ezkontza zoriontsua izan zuen Royal Institute of Affairs-en lankide zuen Veronica Marjorie Boulter-ekin, eliza anglikanoko artzain baten alabarekin.

Gerra bukatuta, Toynbeerentzako ospea eta ezagutza iritsi ziren, ordu arte argitaratutako bere *Study*-ren sei liburukien *Laburpenak* milioika irakurle izan baitzituen; *Laburpena* C.D. Somervell-ek egin zuen 1946an eta izugarritzko arrakasta izan zuen salmenta aldetik; beronentzako hitzaurrea ari zara irakurtzen orain. Laburtze-lanak Toynbeeren onespina izan zuen eta irakurleen esker ona, horrela ez baitzuten milaka orrialde eta erudiziozko eranskin asko irakurri beharrik. Baina jatorrizkoari gertatzen zaion bezalaxe, Somervell-en laburpenari ere Toynbeek esana aplikatu dakioke, hots, idazkiak beren garaiko semeak direla. *Laburpena* historialariaren argudioen sintesi bikaina da, bai, baina baditu Bigarren Mundu Gerrako garaileen artean nagusitu zen giro espiritual itxaropentsuari egindako amore-emateak. Honela, 1939ko jatorrizkoaren pasarte ilunak —non eguneroko izugarrikeria eta hondamendiez eta, iraganeko esperientzia beldurgarrien argitan, etorkizunaren beldurraz hitz egiten baita— 1946ko testuan ordeztuta geratzen dira eta itxaropena azaltzen da «estatu unibertsalaren onurak lortzeko bere madarikazio hilgarririk gabe», «herri askeen itun aske bat, elkarrekin batasunean bizitzeko»²². *Laburpenaren* testuan egindako idazkera-aldaketak mesedegarri izan ziren N.B.E.ren sorrerako urteetan Toynbeeren lana onartzeko, historialariak hitzaldi-sorta arrakastatsua eman zuelarik Estatu Batuetan.

Toynbeerekiko interesak iraun egin zuen hurrengo urteetan batez ere herrialde anglosaxoietan, prentsan ia klimax histerikora iri-

tsi zelarik 1954ko udazkenean, gerra hotzean murgilduta espekulazio asko egiten baitzen historialari ingelesaren azterlan handiaren bukaerako liburukietan espero zen mezuaz²³. Mezu hori, lehenengo *Study*-ren azken lau liburukietan iritsi zen eta hiru urte geroago bakar batean agertutako laburpenean, berriro ere Somervell saiatuari esker. Zazpigarren liburukitik aurrera, elizak gizarte-mota nagusitzat jotzen dituelarik, Toynbeek 1940an iragarritakoa gertatzen da: «paperen alderantzikatzea»; elizak protagonista bihurtuta, zibilizazioak eliza horiei ematen dieten zerbitzuaren arabera epaitzen dira, eta Toynbee 1954an irakurtzen dutenek hartzen duten mezua hau da: beren zibilizazioak existitzeko duen justifikazio bakarra lau erlijio nagusiek munduan topagunea izan dezaten interregno bat eskaintzea dela. Ondorioa, historia ziklikoa izan ordez lineala izatea, «arimek mundu honetatik igarotzean gero eta aukera espiritual gehiago izan dezaten»²⁴. Baina Somervell-en laburpenak diluitu egiten du lanaren tonu gero eta biziago eta pertsonalagoa, eta bere benetako ondorioa saihesten du, hau ez baita *Laburpenean* dioen bezala liburua zergatik eta nola idatzi duen, beste zerbait oso desberdina baizik²⁵. *Study*-ren azken orrialdeetan, Toynbeek iraganaldi historikoarekin izandako komunio bat-bateko eta liluragarrien zazpi esperientziak kontatzen ditu; hauetako azkena, Londresko Victoria Station inguruan, gogo-argialdi bat izan zen, denboraren joana beregan atzeman zuelarik. Historialariaren prosa hartarako ezgai sumatzen zuelarik, testu bibliko eta poetiko luzeak transkribatzen ditu Salmoetatik eta Asisko San Frantziskoren Laudes Creaturarum-etik, baita bere lehen emazte Rosalind Murray-ren testuak ere. Eta azkenik, etsenpluaren bidez predikatuz, hiru orrialde osotan gizadiaren erlijiozko etorkizunerako otoitz-ereduak eskaintzen ditu, hainbat kredotako santuak, birjinak, apostoluak, filosofoak eta misiolariak elkartuz. Etorkizuneko santuen elkartasunaren hizkuntza zerutiarraren giza bertsioa, Toynbeek dioenez, Fra Angelico-ren Ikuspen Dohatsua da, Londresko National Gallery-n dagoena; horregatik, *Study*-ren azken lerroak Londresen datatuta daude, 1951ko ekainaren 15ean, arratsaldeko seiak eta hogeian, arratsalde hartan Fra Angelicoren Ikuspen Dohatsuaren koardoa berriro miretsi ondoren²⁶.

Study-ren azken liburukiak argitaratzeak Toynbeeri buruzko idatzi asko sortarazi zuen, eta 70eko urteetan, gutxitzen hastean,

berrehun baino gehiago ziren. Inork ezin zuen aintzat hartu gabe utzi; izan ere, bazuen desberdintasun bat aurreko gerraostean historialari eta soziologo gehienek bazter utzi zuten Spengler-en aldean: aztertzaile ingelesa ez zen unibertsitario frustratu bat idazle arrakastatsu bilakaturik, erabat alderantziz baizik: Toynbee Londresko Unibertsitateko irakasle ospetsua zen, gerrarteko argitalpenik serioenetako baten zuzendaria eta nazioarteko histori biltzarretan partaide zena²⁷; haren obra bat-batean milaka irakurlerentzat gizadiaren iraganaldi osoa ulertu eta orainaldian orientatzeko beharrezko giltza historiko bilakatu zen.

1936an, Huizinga holandar historialari handiak zera esana zuen: «Gure zibilizazioa da bere iragantzat munduaren iragana daukan lehenengoa, eta gure historia da mundu-historia den lehenengoa»²⁸, baina historiografiak urte asko samar behar izan zituen baieztapen horren ondorio teoriko eta praktikoak ateratzeko, eta Toynbeeren bezalako lan batek —zibilizazioen mundu-historia konparatuaren generokoak— aukera gutxi zuen ongi hartua izateko: kasurik onenean goiztiartzat joa izango zen, eta okerrenean ezinezkotzat. Gainera, halako eginkizun titanikoa nagusi zen metodologia positibistaren aurka zihoan, ezaguera historikoaren berezitasun-printzipioaren aurka zihoalako; zeren eta Toynbeek zibilizazio bakoitzaren historiaren banakotasun errepikaezinari zegozkion printzipioak eta legeak aurkitu zituela uste omen zuen.

Historiografia profesionalaren batez besteko iritzia urte haietan ongien ordezkatzeko duen idazlea, zalantzarik gabe, Pieter Geyl holandar irakaslea da; hau izan zen itzal kritikoa 1946tik aurrera *Study*-ren hurrengo liburukiak argitaratzean. Hasteko, Geyl-ek Toynbeeren proiektua deskalifikatu zuen: orokortzearen eta sinopsi konparatzailearen erabilera errefusatu zuen, historian eragiten duten faktoreen «infinite complexity and intangibility»ren aurkakoa baita; halaber, uko egin zion zibilizazio nagusiak «intelligible fields of historical study» hartzeari ere. Onartu arren *Study*-k «undeniable grandeur» bat eta «very striking idea» asko dituela, ez du ekarpen zientifiko gisa onartu nahi: «c'est magnifique, mais ce n'est pas l'histoire», eta Toynbee «He is no historian. He is a prophet» esaten zuen. Lehenengo unetik, Geyl Toynbeeren praxisaren xehetasunezko akats eta hutsegite tekniko guztien kritikari zorrotz bihurtu zen, praxis hori Spengler-

ena baino «essentially no less irrational and aprioristic» baitzen. Salaketen zerrendan gertakarien itxuraldatze edo aukeraketa dago bere argudiobideetara egokitzeko, frogatu gabeko tesiak datu bezala erabiliak, konparazioetan anakronismoa, analogia eta metaforen erabilera bidegabekoa, batzuetan barregarri uzten dituelarik historialari ingelesaren bizipen pertsonalak ere²⁹. Geyl-en kritika gehienak berretsi egiten dituzte aldizkari profesional nagusietan argitaratutako aipamenetan, batez ere azken lau liburukiak argitaratu ondoren, Trevor-Roper, A. J. P. Taylor eta L. Stone-ren artikuluak agertzen direnean³⁰. Amaiera gisa, 1956an *English Historical Review* ospetsuan, bere editoreetako batek, Edinburgh-en historiako irakasle zen Richard Pares-ek, uste du, meritu guztiak onartu arren, *Study* «gradiose failure» bat dela, «a monument of uncontrolled ingenuity». Toynbee, batez ere, *Survey*-ko liburukien egile gisa gogoratuko da, hauek ematen baitiote ospea historialari profesional gisa, eta hauek erabili egingo dira bere *Study* inork irakurtzen ez duenean ere; era berean Mommsen bizirik bada gure artean bere *Römisches Staatsrecht* eta bere *Corpus Inscriptiorum Latinarum*-ei esker da, eta ez bere *Römische Geschichte*-ri esker³¹.

Baina dena ez zen deskalifikazio edo zentsura izan. Zenbait historialarik, xehetasun edo metodozko kritika logikoak gorabehera, printzipiozko adostasuna azaldu zuten proiektuaren izaerarekiko eta tesi nagusiekiko. Horiek historialari kontserbadore aleman edo ingelesak izan ziren, batez ere, nolabait ere kultur morfologian eta orientabide idealistan interesa zutenak, Frantziako Annalen eskolaren eta marxismoaren gorakadarekin ezeroso zeudenak, eta autore ingelesaren espiritualismoarekin animatuta sentitzen zirenak, haietako batek esan zuen bezala, Toynbeek berreskuratu egin baitzuen «naturgaindiko dimentsioa historia ikusteko»³². Toynbeeri kritika sakonak egitekotan hemen, bere armekin egiten zitzaizkion; adibidez, Christopher Dawson-ek, Oxforden historiako irakasle katoliko zenak, garai hartan ospe handikoak, honela laburtzen zuen *Study*-ren balorazioa: «Dr Toynbee has been guided in his immense task by two parallel motives; first by the Hellenic philosophic quest for a theoria —a synoptic vision of the whole course of human civilization—, and secondly by the Hebraic prophetic mission to justify the ways of God to man and to find a religious solution to the riddle of history and the problems of

modern civilization»; lehenengoak sinplifikazioaren arriskua zekarren berekin; bigarrenak jainko-probidentziaren misterioetan sartu nahia, Dawson bezalako agustindar konbentzitu batentzat egin zitekeen salaketa txarrena, ziur aski³³.

Kulturaz interesaturiko soziologoek saila geratzen da; hauek Toynbeerena bezalako lanarekiko abegitasun handiagoa izatea espero zitekeen, baina aurkakoa gertatu zen. Hasieran izan zen erreakzio positiborik, H. Becker-ena adibidez, honek *Study* kulturaren soziologia historikoaren hasiera itxaropentsutzat jo zuen³⁴. Baina joera nagusia bestelakoa izan zen. Hemen Geyl-en papera Harry E. Barnes-ek jokatu zuen, orduko soziologia historikoaren ordezkarietako batek, New Yorkeko New School for Social Research-ekoak. Barnes erruki-gabea izan zen, soziologo amerikararentzat Toynbeek Amerikan zuen ospe eta gurtzak irrazionaltasun eta mistizismoaren arriskua zekarren Social Science-arentzat. Kritikatzen hasita, izenburutik hasi zen: «in the first place, despite this title, it is not really a history at all, or ‘a study of history’. It is literally... a ‘Theodicy’»³⁵. Barnes-en arabera, Toynbeeren espiritismo eskatologikoak faktore arrazional eta materialak gutxiestera eramaten zuen eta gizarte-zientziak ez ezagutzeak ezgaitu egiten zuen kontzeptualizaziorako, haren lana zentzu honetan Max Weber, Durkheim edota Sorokin-ena baino askoz apalagoa zelarik. Labur esanda, soziologo amerikararentzat kristau-epopeia bat zen, baina ez historia zientifikoa, ezta soziologia ere, baizik eta «Orosius and Augustine in Modern Dress»³⁶.

Labur esanda, inork ez zion Toynbeeri ukatu bere jakintza zabala eta bere ahalegin izugarria, baina, kristau-jarrerako historialariak alde batera, kritikak gehiago izan ziren gorespenak baino, nahiz eta guztiak ez izan Geyl bezain gogorrak edo Barnes bezain zorrotzak. Toynbeek guztia jaso zuen eta zazpi urtez «kanoikadaz inguratuta» egon ondoren, berak esan bezala, *Reconsiderations* delako liburuki batean erantzutea erabaki zuen³⁷.

Guztiei eta fronte guztietan erantzun nahiak testu nahasia sortu zuen, errepikapenez betea eta irakurgaitza, baina historialari ingelesaren psikologia oso ongi adierazten zuena. Horregatik, normala da Somervell-ek halako liburu bat laburtzeari ez ekitea, nahiz eta interesgarria izan eta *Reconsiderations* horiek *Study*-ren XI. liburuki gisa aurkeztu jendeari³⁸.

Hasteko, Toynbeek erreparorik gabe aitortzen du bere kritika-riei esker jakin duela zer den eredu bat gizarte-zientzietan; konturatu da *Study*-ren lehenengo liburukietan zibilizazio helenikoa zibilizazio ororen garapena irudikatzen duen eredu bakartzat erabili zuela, eta halaber ulertu du errealtatea eredu horretan sartzen ez denean, eredua aldatu egin behar dela³⁹. Azken hau gertatzen zen zibilizazio egipziakoarekin, Toynbeeren arabera, estatu unibertsal batekin hasten baita bukatu ordez, zibilizazio helenikoa bezala. Egiptoar prozesua deskribatzeko, historialariak orain pentsatzen du egokiagoa dela K.a. II. mendeko historiografia klasiko txinatarren arabera eredu bat; honek zibilizazio nagusi baten historia «inperio handien» —hau da, estatu unibertsalen— denboraldien segidatzat hartzen du, sakanaketako beste batzuekin txandakatuz. Eredu siniko hau zibilizazio nagusien berant aldiatarako ere hobe da, baina ez aurreko aldiatarako. Erudiziozko zehaztasun luzeen ondoren, erabilerarik handieneko eredua mistoa izango litzatekeela ondorioztatzen du Toynbeek: heleniko-sinikoa⁴⁰. Gainera, *Reconsiderations*-etan eredu berri bitxi bat proposatzen da, judua, Diasporan oinarrituz eraikia, eta etorkizuneko gizarte-egituraren paradigma izango litzatekeena: hiri handi bihurturiko mundu batean, harremanak ez auzokoen artean, baizik eta arlo metropolitartan kokatu eta barreiaturiko gutxiengoaren artean ezarriko direnekoa, erlijiozko eta beste mota bateko lokarritzatuak»⁴¹.

Zehazkiago, *Reconsiderations*-en kapitulu batean, autoreak zibilizazioen bere sailkapena zuzentzen du, «Re-Survey of Civilisations» egiten du, hemen zehatz-mehatz ikusi ezin dugun lana⁴². Garrantzitsuena, lehenengo, kategoriarik kritikatuenetako bat desagertzea da, zibilizazio geraraziena (Arrested Civilisations), eta erabat garatuei dagokienez (Full-blown Civilizations), sorreraren arabera zatiketa bigarren mailara igarotzen da eta horren ordez zibilizazio burujabeak eta zibilizazio sateliteak hartzen ditu (errusiarrak, adibidez, bizantziarraren satelite bihurtzen da eta gero Mendebaldekoarena). Berrikuste-lan honetan zibilizazio batzuk desagertu egiten direnez, zibilizazio nagusi eta burujabeen kopurua hamahirura murrizten da, *Study*-ren lehen liburukian baino dezente gutxiago (nahiz eta Toynbeek kritika guztien aurka eutsi egiten dion adituentzat ezinezkoena denari, zibilizazio siriakoari, alegia).

Toynbeek uste du bere lanaren akatsik garrantzitsuena kultur egitura bereizgarri edo «estiloei» jaramon gutxi egin izana dela, baita ekonomia eta teknologiari ere, eta halako ironia pixka batez onartzen du hau hobeto egin zuela Spenglerrek eta ontzeko asmoa hartzen du. Gainerantzean, sutsu egiten du bere metodoaren alde, erreparorik gabe onartuz bere sisteman badela «zulo» bat enpiria eta metahistoriaren artean, baina zulo horrek ez duela sistema baliogabetzen, baizik eta alderantziz, «study of human affairs» delakoa noizbait osatu beharra dagoela arrazoiak harago dagoenaz...⁴³.

Hirurogeiko urteetatik aurrera Toynbeeren sineskizunak erradikalizatu egin ziren, eta, beraz, ez da erraza azkenean zer pentsatu zuen jakitea, Somervell-en *Laburpena*-ren orrialdeetara mugatzen bagara. Atsekabeturik bizi zen mehatxu atomikoarekin, Mendebaldeko zibilizazioaren materialismoa errefusatzeko zuen eta inoiz ez zuen gerra hotzaren ideologia bereganatu. Jada 1952an, Europa berriro armatzen ari zenean eta Indotxinan eta Korean gerrak zirela, BBCn hitzaldi batzuk eman zituen, munduaren mendebaldartze-prozesua kritikatzeko, eta honek lehen kritikak sortarazi zizkion prentsan derrotista eta traïdoretzat jo zutelarik⁴⁴. Baina hasiera bakarrik zen; 1962an historialariak Amerikari bere jatorriekiko leialtasunik eza aurpegiratu zion, zeren eta amerikarrak izan baitziren 1775ean mundu-iraultza bat abiarazi zutenak, honen azken gertakariak 1917ko Errusiakoa, 1960ko Kubakoa eta gero Sharpevilletik Aljeriarainoko afrikar iraultza izan zirelarik. Bitartean, Gerra hotzeko Estatu Batuak Erroma berri bilakatuta zeuden, Erroma inperialak bezala, «beti aberatsak babesten dituztelarik behartsuen aurka beren eraginpean erortzen diren herrialde guztietan», beren iraultza inspiratu zuen kristautasunaren espirituari uko eginez⁴⁵. 1964tik aurrera, amerikarrek Vietnamen izandako esku-hartzeaz, uste du «amerikarrek Gurutzaldiko heroitzat daukatela beren burua munduko demokrazia kapitalistaren alde eta tirania komunistaren aurka» eta honek are gehiago gaizkoatzen ditu gauzak, Toynbeeren arabera; vietnamiarrak Erroma berriak suntsitzeko arriskuan daude, eta Estatu Batuek izan dezaketen garaipenak nazio hau «bere buruarentzat eta munduaren gainerakoarentzat arriskutsuena» bihurtuko du eta militarismoaren mende jartzea ekarriko du⁴⁶. Distentsio-urteek ez zuten Toynbee baikorrago bihurtu; multipolaritatea gerra hotzeko unerik txarrenetako bipolaritatea bezain arriskutsua

ez zela onartu arren; arrazoi askorengatik, eta orain ekologikoengatik ere bai, jarraitzen zuen pentsatzen ezinbesteko dilema estatu unibertsala ala zibilizazioaren hondamendia zela. Hala ere, jada ez zuen sinesten *Study*-n sumaturiko aukeran —hots, historian beste zenbait alditan gertaturikoaz bestela, estatu unibertsalera akordio askearen bidez eta egitura federalarekin iristeko aukera zegoela—, hau ezinezkoa baitzen munduaren ibilbidea ikusita. Hil ondoren argitaratutako idazkian etorkizuna beltz ageri da: aberatsen gutizia eta behartsuen kopurua, nazioarteko anarkia dira arriskurik handienak, eta beharrezko batasun politikoa bidezko zigor gisa iritsiko da lehenengo mundu-diktadura totalitario eta oso gogor baten eskutik, eta aurkako erreazioaren ondoren bigarren diktadura bat etorriko da, bigunxeagoa eta, beraz, iraunkorragoa. Nahiz eta, une batez, historialariari ez zaion ezinezkoa iruditzen «bat-bateko aldaketa gizakien bihotzean eta erlijiozko iraultza», ezartzen ari den errealitatea oso bestelakoa da, diktadura-zikloaren errepikapena da bi alditan, honelakoa izan zelarik estatu unibertsalaren eraketa Japoniaren, Txinaren eta Erromaren historian. Honela, ezkortasunak bultzaturik, historia errepikatzen duen historia baino ez du ikusten autoreak; askapen-itxaropen bakarra «erlijio berri bat» onartzea iruditzen zaio, sintoismoan agertzen den panteismoa, monoteismo judaikoari eta aurrerapen zientifikoan fedea izateari uko eginez⁴⁷.

Toynbeek zioen liburuak pasa egiten direla idazten dituztenen garaia pasatzen den bezala, baina gogoeta malenkoniatsu honi bere lanak jarraipena izango zuen itxaropena eransten zion⁴⁸. Hala ere, Toynbeek ez zuen ez dizipulurik ez jarraitzailerik izan, eta haren historia konparatu handiaz arduratzen den edonork egiaztatuko du, 1975ean hil ondoren, gero eta gutxiago aipatu dela haren izena, ia erabat desagertu arte. Hau ezin da interpretatu *Study*-ren esanahia bere garaiko atsekabe eta ondoezaren ispilu izatera mugatuz, nahiz eta orduko beste autore batzuekin, Spengler eta Sorokinekin, partekatzen duen dimentsio hau ere beti kontuan izan behar den Toynbee irakurtzerakoan. Beste zerbait ere bazegoen, bi aldetatik behintzat haren lana zirikada metodologiko osasungarria izan baitzen urte haietako historiografia ingelesarentzat⁴⁹. Lehenik, *Study*-n kontziente eta sistematikoki teorizatzen delako, oinarri enpiriko batetik abiatu nahirik eta horretara joz kontrola zertzeko. Eta, bigarren, prozedura horrek berme

gisa balio zuelako historiaren nazio-esparru estatala eta Europako zibilizazioari emandako monopolioa apurtzeko. Beste kontu bat da Toynbeek kontzeptu zehazgabeegiak edo tautologikoak erabiltzea, edo erakunde historiko gehiegizkoak eta gutxi bereiziaz, Mendebaldeko zibilizazioaren kontzeptua bezalakoak, eta, batez ere, trszendentziarekiko kezka historian, pertsonalki oso bidezkoa, azken zentzua santuen elkartasunean aurkitzera eraman zuena. Honek esplikatzen du historialari ingelesek eta kontinental gehienek errefusatzearaz gain, Amerikako social scientist-ek ere gauza bera egitea. Bestalde, gerrarteko frantziar berritzaileek, gero Annalen Eskola eta Bigarren Mundu Gerraren ondoren nagusi izango zenak, joera marxistako historiografia alde batera utzita, zera uste zuten, Lucien Febvre labur esan zuen bezala: «Ce que A Study of History nous apporte de louable n'a pas grand'chose de neuf pour nous. Et ce qu'il nous apporte de neuf ne vaut pas grand'chose pour nous»; eta ondorioztatzen zuen Ingalaterran agian Toynbeeren ahotsa nabarmenduko dela besteen artean, baina Frantzian beste askoren arteko bat gehiago dela⁵⁰.

Zenbait urte geroago izan zitekeen Toynbeeren ordua, soziologia historiko amerikarrarekin eta bere «Big Structures, Large Process, Huge Comparisons»ekin. Baina historialari ingelesa ez zen agertzen eskola honen inspiratzaileen artean, Max Weber edo Carl Marx bezala, bere garaian Toynbeek baztertu zituen autoreak. Soziologo hauen begietara, Toynbeeren ikuspegi zabal hori sinesgarria izateko suposatzen behar zen zibilizazio bat «erakunde autosufiziente eta koherentea zela, zibilizazio bakoitza funtsezko balore-sistema baten inguruan antolatzen dela, eta zibilizazio jakin bateko jendeak pixkanaka agortu egiten dituela balore-sistema horren aukerak, eta baloreak agortzeak eraldaketak eragiten dituela zibilizazioen alderdi guztietan»⁵¹. Egungo soziologia historikoak ez du onartzen zibilizazioen ikuspegi global hau eta bere helburuak konparazioz askoz apalagoak dira, baina, hala ere, aitortzen du Toynbeeren lanak duen balioa, batzuen ustez bere erara jarraipena ematen baitio gure mendean Vico, Comte edo Spencer-i dagokienez tradizioari.

Berlingo harresiaren eraisketak eta sozialismo errealearen eta kapitalismoaren arteko gatazka sistemikoaren bukaerak autore batzuegan suspertu egin du Toynbeeren lanarekiko interesa, bai nazioarteko harremanei dagokienean, baita zibilizazioen arteko harre-

manei dagokien guztian ere, haren *Study*-tik lege edo orokortze enpirikoak ateratzeko ahalegin eztabaidagarriak egin dituztelarik⁵². Ezin da ahaztu ere *Study* zenbat erabiltzen duen oso modan dagoen teoria batek, «zibilizazioen talka» delakoak alegia⁵³. Baina agian omenaldirik zintzoena ez zaio Toynbeeren lanari egin, haren asmoari baizik. Zeren eta postmodernismoak historialari ingelesaren lan handiari jaramon handirik egin ez badio ere, bere genealogian sartu baitu, ez soilik hitza asmatzeagatik —dirudienez, Toynbee izan zen denbora postmodernoaz hitz egin zuen lehenengoa—, baita kultura eta balore desberdinen bizikidetasunagatik eta bestearen diskurtsoa ulertzeko ahaleginagatik⁵⁴ gure garaia ezaugarritu zuelako ere. Omenaldi hau atsegin izango zukeen Toynbee gentleman liberal eta sentiberak.

Autorea bizi zela kritikari batzuek iragarri zuten hogeiei edo hogeita hamar urtera inork ez zuela *Study of History* irakurriko. Ez zuten asmatu. Baliteke gaur egun lan hori irakurtzera bultzatzen gaituzten arrazoiak iraganean ez bezalakoak izatea⁵⁵, baina irakurri egiten da oraindik ere eta, Toynbeeren bibli idazkeraz baliatuz, irakurri egiten da «gutariko bakoitzak bere jatorrizko hizkuntzan»⁵⁶. Orain, *Laburpena*-ren itzulpenen zerrenda luzean euskara ere sartu da.

J. J. Carreras Ares
Zaragozako Unibertsitatea

Oharrak

- ¹ Adibidez, Toynbee 1957, III, 318. or.
- ² Toynbee 1969, 113. or.
- ³ Toynbee 1969, 37-42. orr.
- ⁴ Toynbee 1969, 52. or.
- ⁵ Tuzidides-i buruzko testurik hungigarriena, Toynbee 1948, 7-8. orr.; Gibbon-i buruzkoa, Toynbee 1969, 206-208. orr.
- ⁶ Valery 1924, 19 eta hurr. M. Nacci 1966, 115-117. orr.
- ⁷ Spengler 1918, I, 78. or.
- ⁸ Toynbeek geroago adierazi zue-
nez, orduan kezkatu egin zen, bere
buruari galdetuz ea Spenglerrek ez
ote zien jada erantzun berak artean
egin ere egin gabeko galderei.
Toynbee 1948, 10. or.
- ⁹ Toynbee 1969, 108. or.
- ¹⁰ McNeil 1989, 65-68, 74. orr.
- ¹¹ Toynbee 1969, 127. or.
- ¹² Toynbee 1969, 209. or.
- ¹³ McNeil 1989, 173-174. orr.
- ¹⁴ Toynbee 1948, 99 eta hur.; Cf.
Toynbee 1957, III, 318 eta hur.
- ¹⁵ Toynbee 1939, VI, 321. Cf.
Toynbee 1946, II, 283. or.
- ¹⁶ Lucien Febvre-k egindako aipa-
menaz (1936) aurrerago hitz egingo
dugu; Postan-ena, 1936.
- ¹⁷ Sorokin, 1940, Toynbeeren lehia-
kide zen kulturen interpretazioan,
bere sekulako *Social and Cultural
Dynamics* lanarekin, Boston, 1937-
1941, 4 lib., Cf. Sorokin 1950.
- ¹⁸ Toynbee 1954, VII, 4. or.
- ¹⁹ Toynbee 1969, 152-153. orr.
- ²⁰ Toynbee 1948, 235-237. orr. Cf.
Toynbee 1957, II, 424-425. orr.
- ²¹ McNeil 1989, 174. or.
- ²² Toynbee 1939, VI, 329-331. orr.
eta 1946, II, 278 eta hur.
- ²³ Anderle 1958b, 159 eta hur.
- ²⁴ Toynbee 1957, II, 417-418 eta III,
427. or.
- ²⁵ Alderatu Toynbee 1954, X, 122-
144. orr. eta Toynbee 1957, III, 315-
332. orr.
- ²⁶ Toynbee 1954, X, 142-144. orr.
- ²⁷ Toynbeeren partaidetzaz historia-
ko Biltzarretan, ikus Erdman 1987,
109 eta 296 eta hur.
- ²⁸ Barraclough-en aipatua, 1980,
246. or.
- ²⁹ Geyl 1955, 171, 128, 113, 171,
157, 177. orr.
- ³⁰ Adibidez, Hampl 1952 eta
Lefebvre 1949. Trevor-Roper, A. J.
Taylor-ek egindako aipamenak,

beste batzuekin batera, *Toynbee and History*-n aurkitzen dira, 1954; gainera, Stone 1954.

³¹ Pares 1956, 262-272. orr.

³² Erdman 1951, 235. or.; baita G. Stadtmüller-ek 1950ean eta Vogt-ek 1961ean egindako aipamen sutsuak ere. Espainian harrera 1948-1949ko hitzaldiekin Ortega y Gasset-en 1960. Toynbeeren erantzuna, 1964, baita Frutos ere, 1960. Vicens Vives-ek historialari ingelesarekin izandako posta-trukearen berri G. Pasamar irakasleak eman dit; edonola ere, «haren goi-mailako metodo historiakoari» egindako gorespenak, baita *Destino*-n 1949ko martxoaren 19an azaldutako aipamena ere, historialari katalana Frantziako Annalen eskolara konbertitu aurrekoak dira, Cf. *Epistolari de Jauma Vicens Vives*, Josep Clara et ali.-k argitaratua, Girona, 1998, II, 493 eta hur.

³³ Dawson 1955, 155. or.

³⁴ Becker 1940, 510, 559. orr.

³⁵ Barnes 1947, 485. or.

³⁶ Barnes 1948a, 718-727. orr.; baita Barnes 1948b, 107-112. orr.

³⁷ Toynbee 1961. *Study*-ren osagarri gisa, A. Toynbeek eta Edward D. Myers-ek *Historical Atlas and Gazetteer* bat argitaratu zuten gainera, Oxford 1959.

³⁸ *Reconsiderations* horretako berri-tasunak autoreak berak sartu zituen laburpen berri batean, Jane Caplan-en laguntzaz idatzia; Toynbee 1972.

³⁹ Toynbee 1961, 170-209. orr. Arrazoiketa, Max Weber gogoraraz lezakeena, nahiz eta Toynbeek ez

ezagutu autore hau, A.L. Kroeber kultur antropologoaren ikasle izan zen Philip Bagby-ren lanean oinarritzen da: *Culture and History. Prolegomena to the Comparative Study of Civilizations*. Londres, 1958, 201 eta hur.

⁴⁰ Toynbee 1961, 180 eta hur.

⁴¹ Toynbee 1961, 209-217. orr.

⁴² Toynbee 1961, 546-561. orr.

⁴³ Toynbee 1961, 279, 639, 649 eta hur.

⁴⁴ Toynbee 1953.

⁴⁵ Toynbee 1962, 92-93. orr.

⁴⁶ Toynbee 1969, 265-267, 243. orr. Historialariarentzat, 1968an munduan zeuden 125 estatu subiranoetatik, bakearentzat bi arriskutsuenak Estatu Batuak eta Israel ziren, honek Palestinarekiko zuen politika behin eta berriro salatu zuelarik (237).

⁴⁷ Toynbee 1976, 188, 224-225, 257, 317-318. orr.

⁴⁸ Toynbee 1961, 2. or.

⁴⁹ Garai hartan hau bereziki azpimarratu zuen Barraclough-ek 1957, 14 eta hur., eta gero Anderle-k 1958a.

⁵⁰ Febvre 1936, 143, 137. orr.

⁵¹ Tilly 1984, 123. or., baina baita 83. or.

⁵² Pellicani, Chakrabarti Pasic eta beste batzuk Peñas Esteban-en 1997, 30-33. orr.

⁵³ Huntington 1996.

⁵⁴ Young 1997, 75. or.; Owens 1997, 172. or.

⁵⁵ Barker 1982, 299. or.

⁵⁶ Apostoluen Eginak 2, 8.

Toynbee-ren lan apaituak

A Study of History, I-III, Oxford, 1934, (itzul. Buenos Aires, 1951-1953).

A Study of History, IV-VI, Oxford, 1939, (itzul. Buenos Aires, 1955-1959).

A Study of History. Abridgement of volumes I-VI. D. C. Somervell-ek egina, Oxford, 1946 (itzul. Madril, 1970).

Civilization on Trial. Oxford, 1948, (itzul. Buenos Aires, 1949).

The World and the West. Oxford, 1953, (itzul. Madril, 1955).

A Study of History, VII-X, Oxford, 1954, (itzul. Buenos Aires, 1960-1962).

An Historian's Approach to Religion. Oxford, 1956, (itzul. Buenos Aires, 1958).

A Study of History. Abridgement of volumes VII-X. D. C. Somervell-ek egina, Oxford, 1957, (itzul. Madril, 1970).

Reconsiderations. Oxford, 1961.

America and the World Revolution. Oxford, 1962, (itzul. Buenos Aires, 1963).

«*Sobre una interpretación de Ortega y Gasset*», *Revista de Occidente*, ekaina, 1964, 536-537. orr.

Experiences, Oxford, 1969, (itzul. Buenos Aires, 1972).

A Study of History, Jane Caplan-ekin lankidetzan, Oxford, 1972, (itzul. Bartzelona, 1975).

Choose Life, Daisaku Ikeda-rekin, Oxford, 1976, (itzul. Buenos Aires, 1980).

Toynbeeren idazlanen bibliografia osoa, bere Historiaren Azterketa bukatu artekoa: *A Bibliography of the Works in English of Arnold Toynbee*, 1910-1954, Monica Popper-ek bildua eta Institute of International Affairs-ek argitaratua, London, 1955.

Bibliografia

- ANDERLE, O. F.: «Theoretische Geschichte», *Historisches Zeitschrift*, 185 (1958)a, 1-54. orr.
- ANDERLE, O. F.: «Die Toynbee Kritik», *Saeculum*, IX (1958)b, 1989, 259. or.
- BARKER, J.: *The Super-Historians. Makers of our Past*. New York, 1982.
- BARNES, H. E.: «A Study of History», *American Sociological Review*, XII (1947), 480-486. orr.
- BARNES, H. E.: «Arnold Joseph Toynbee: Orosius and Augustine in Modern Dress», *An Introduction to the History of Sociology*-n, ed. E. H. Barnes, Chicago, 1948a, 717-736. orr.
- BARNES, H. E.: *Historical Sociology*, New York, 1948b, (berrinpr. New York, 1984).
- BARRACLOUGH, G.: *History in a Changing World*, Oxford, 1955 (itzul. Madril, 1959).
- BARRACLOUGH, G.: *Tendances actuelles de l'histoire*, Paris, 1980.
- BECKER, H.: «Historical Sociology»; H. E. Barnes eta H.
- BECKER: *Contemporary Social Theory*, New York, 1940, 491-560. orr.
- BREISACH, E.: *Historiography*, Chicago, 1994.
- DAWSON, Ch.: «The Place of Civilization in History», *International Affairs*, 31 (1955), 149-158. orr. (itzul. *Dinámica de la Historia*-n, Buenos Aires, 1962, 344-355. orr.)
- ERDMANN, K.D.: «Toynbee, eine Zwischenbilanz», *Archiv für Kulturgeschichte*, 33 (1951), 174-250. orr.
- FEBVRE, L.: «De Spengler à Toynbee. Quelques philosophies contemporaines opportunistes de l'histoire», *Revue de Métaphysique et de Morale*-n, 43 (1936), 375-602. orr. (gure aipua: *Combats pour l'histoire*, Paris, 1953, 119-146. orr.)
- FRUTOS, E.: *Toynbee a través de Ortega y Ortega mismo*, Zaragoza, 1960.
- GEYL, P.: *Debates with Historians*, Haga, 1955.
- HAMPL, F.: «Grundsätzliches zum Werk A. J. Toynbees», *Historische Zeitschrift*, 173 (1952), 449-466. orr.
- HERMAN, A.: *The Idea of Decline in Western History*, New York, 1997.

L'HISTOIRE ET SES INTERPRETATIONS. Entretiens autour de Arnold Toynbee sous la direction de Raymond Aron. Paris, 1961.

HUNTINGTON, S. P.: *The Clash of Civilizations*, New York, 1996, (Itzul. Barcelona, 1997).

LEFEBVRE, G.: «A Study of History de A. J. Toynbee», *Revue Historique*, 1949, 109-113. orr.

MCNEIL, W.: *Arnold Toynbee: A Life*, Oxford, 1989.

NACCI, M.: «The Present as Nightmare: Cultural Pessimism among European Intellectuals», *The Intellectual Revolt against Liberal Democracy-n*, ed. Z. Sternhell, Jerusalem, 1997, 105-130. orr.

ORTEGA Y GASSET, J.: *Una interpretación de la Historia Universal*, Madril, 1960.

OWENS, C.: «Der Diskurs der Anderen, Feministinnen und Postmoderne», *Postmoderne-n*, ed. A. Huyssen eta K. R. Scherpe, Hamburg, 1997, 172-195. orr.

PARES, R.: «Toynbee, a Study of History», *The English Historical Review*, 72 (1956), 256-272. orr.

POSTAN, M. M.: «A Study of History», *Sociological Review*, 28 (1936), 50-63. orr.

PEÑAS ESTEBAN, F. J.: *Occidentalización, fin de la Guerra Fría y relaciones internacionales*, Madril, 1997.

SOROKIN, P. A.: «Toynbee's Philosophy of History», *Journal of Modern History*, 12 (1940), 95-126. orr.

SOROKIN, P. A.: *Social Philosophies of an Age of Crisis*, Boston, 1950, (itzul. Madril, 1954).

SPENGLER, O.: *Der Untergang des Abendlandes*, München, 1918-1922, 2 lib., (gure aipua itzul. Madril, 1943-1945, 3 lib.)

STADMUELLER, G.: «Toynbees Bild der Menschheitsgeschichte», *Saeculum*, I (1950), 165-195. orr.

STONE, L.: «Historical Consequences and Happy Families», *The Spectator*, London, 1954.10.29.

TILLY, CH.: *Big Structures, Large Processes, Huge Comparisons*, New York, 1984, (gure aipua itzul. Madril, 1991).

TOYNBEE AND HISTORY: Ed. M. F. Ashley, Boston, 1956.

VOGT, J.: *Wege zum historischen Universum. Von Ranke bis Toynbee*, Stuttgart, 1961, (itzul. Madril, 1971).

WALSH, W.H.: *An introduction to Philosophie of History*, London, 1967 (itzul. Mexiko, 1983)

YOUNG, R.: «White mythologies: writing History and the West», *The Postmodern History Reader-n*, ed. K. Jenkins, London, 1997, 75 hur.

EGILEAREN HITZAURREA

D.C. Somervellek bere ondorengo oharrean azaltzen du nola iritsi zen nire lanaren lehen sei liburukien laburpen hau egitera. Nik horretaz ezer jakin aurretik, hainbat galdera iritsi zitzaidan, bereziki Estatu Batuetatik, ea ba ote zegoen inolako aukerarik liburuki hauen laburpena argitaratzeko, lanaren gainerakoa argitaratu ahal izan bitartean —orain ezinbestean hasieran espero baino askoz gehiago atzeratua gerrarengatik. Eskari honen indarra sentitua nuen nik, baina ez nekien nola gauzatu (erabat hartua baininduten gerrako lanek), harik eta arazoa modurik zoriontsuenean konpondu zen arte Somervellek bidalitako gutun baten bidez, berak egina laburpen bat bazela esaten baitzidan.

Somervellek bere laburpena bidali zidanean, lau urte baino gehiago ziren IV-VI liburukiak argitaratu zirela eta bederatzi baino gehiago I-III liburukiak argitaratu zirela. Idazlearentzat argitaratzeak beti du, nire ustez, idazten ari zen bitartean bere bizitzako parte zen lana gorputz arrotz bihurtzeko ondorioa; eta kasu honetan 1939-1945eko gerra, egoera eta okupazioan berekin ekarri zituen aldaketekin, nire lanaren eta neure artean ere sartua zen (IV-VI liburukiak gerra piztu baino berrogeita bat egun lehenago argitaratu ziren). Somervellen laburpena lantzen ari nintzela, gai izan naiz, beraz, —neure hitzak gordetzen trebetasun handia izan duen arren— laburpena nirea ez zen beste eskuren batek idatzitako liburu berri bat bailitzan

irakurtzeko. Orain erabat neure egin dut irakurri ahala hizkera han-hemenka berreginez (Somervellen onarpen adeitsuaz), baina laburpena ez dut lerroz lerro jatorrizkoarekin alderatu, eta erabaki dut inola ere ez sartzea Somervellek kanpoan utzitako pasarterik, uste dudalako autorea bera ez dela ziur aski epailerik onena erabakitzeko bere lanean zer den ezinbestekoa eta zer ez.

Laburpen trebearen egileak ikaragarri zerbitzu baliotsua egiten dio autoreari, honek berak erraz egin ezin duena, eta jatorrizko testua ezagutu ondoren beste hau irakurtzen dutenak, ziur nago, bat etorriko direla nirekin Somervellen literatur lana benetan trebea izan dela. Gai izan da liburuaren argumentuari eusteko, gehienetan jatorrizko hitzekin aurkezteko eta aldi berean sei liburuki bakar batera laburtzeko. Nik neuk ekin banio zeregin honi, ez nago ziur bete ahal izango nuenik.

Nahiz eta Somervellek bere laburpena, autorearentzat izan zitekeen bezain arina, berrikusteko lan txikiagoa egin duen, beste bi urte igaro dira honetan hasi nintzenetik. Hainbat aste eta hilabetez utzi behar izan dut neure ondoan ukitu ere egin gabe. Atzerapen hauek gerra-lanak behartuta izan dira; baina lanaren gainerakoa burutzeko oharrak onik eta osorik daude, Atzerri Harremanetako Kontseiluak ongi gordeta New York-en (Munich-eko astean bidali nizkion postaz Kontseiluko idazkari betearazle den Mallory jaunari, adeitasunez arduratu zelarik beraiek zaintzeaz), eta bizirik gauden bitartean bada-go itxaropena norberaren lana bukatzeko. Ez da arrazoirik txikienetako Somervelli eskerturik egoteko, dagoeneko argitaratu den obraren liburukien laburpena lantzeko prozesu honek oraindik idazteke ditudanetara neure burua zuzentzen lagundu baitit.

Halaber, pozgarria da niretzat laburpen hau, obraren bertsio osoa bezalaxe, Oxford University Press-ek argitaratzea, eta Aurkibidea V.M. Boulter andereñoak egitea, dagoeneko irakurleek beroni zor dizkiotelarik I-III eta IV-VI liburukien aurkibideak ere.

Arnold J. Toynbee. 1946

LABURTZAILEAREN OHARRA

Toynbeeren *Historiaren Azterketa*-k argumentu bakar etengabea aurkezten du gizadiaren esperientzia historikoaren izaera eta egiturari dagokionez zibilizazioak deituriko gizarte-espezieen lehen agerpenetik, eta argumentu hori giza historiatik —egungo historialarietara— giza historia ezagun zaien neurrian— bere luze-zabalera osoan ateratako hainbat adibideri esker argitzen da eta, materialaren izaerak uzten duen neurrian, «frogatzen» da etapa bakoitzean. Adibide hauek batzuk zehaztasun handiz landuta daude. Horrelakoa izanik liburua, laburtzailearen zeregina oso sinplea da funtsean, hots, oso-osorik gordetzea argumentua, baina adierazpen laburtuan, eta neurriren batean murriztea adibideen kopurua eta, askoz neurri handiagoan, horien azalpenaren zehaztasuna.

Uste dut laburpen honek egoki aurkezten duela Toynbeeren histori filosofia, oraindik bukatu gabeko bere lanaren sei liburuki argitaratuetan agertzen den neurrian. Ez balitz horrela izango, Toynbeek ez zuen, noski, argitaratzea onartuko. Baina nik asko sentituko nuke jatorrizko obraren ordezkotzat asegarri erabatekotzat hartuko balitz. «Helburu praktikoetarako» ordezkotzat egokia da agian; atseginerako, ziur aski, ez; zeren eta jatorrizkoaren xarmaren zati handi bat adibideen patxadazko luzeran baitago. Uste dut obra handia bakarrik dela estetikoki gaiaren handitasunari dagokiona. Jatorrizkoaren benetako esaldi eta paragrafoak hain neurri handian erabili ditudanez, ez

naiz laburpen hau aspergarri gertatzeko beldur, baina era berean ziurnago jatorrizkoa askoz liluragarriagoa gertatuko dela.

Laburpen hau neure entretenimendurako egin nuen, Toynbeek jakin gabe eta argitaratzeko batere asmorik gabe. Denbora pasatzeko era atsegina iruditzen zitzaidan. Bukatu nuenean bakarrik eman nion Toynbeeri honen berri eta bere esku utzi nuen inoiz zerbaitetarako erabili nahi baldin bazuen. Honela sortua izanik, tarteka neure adibide txikiren bat sartzeko baimena hartu nuen, jatorrizko lanean aurkitzen ez dena. Azken batean, idatzita dago: «Ez diozu muturrekorik ipiniko gari-jotzen ari den idiari». Nire eskusartze hauek txikiak dira luzeraz eta are txikiagoak garrantziari dagokionez. Nire testu osoa Toynbeek kontu handiz berrikusi duenez eta eranskin horiei ere, gainerako guztiarekin, bere *imprimatur*-a eman dienez, ez dago hemen edo orrialdebarreneko oharren bidez adierazi beharrik zein diren. Soil-soilik aipatu ditut lan hau jatorrizkoarekin alderatuz eranskin horiek aurkitzen dituen irakurle arretatsuak pentsa ez dezan laburpenaren jokoa ez dela araurik zorrotzenen arabera egin. Bizpahiru tokitan esaldi gutxi bana-ka batzuk ere sartu ditugu, Toynbee jaunak edo nik neuk, jatorrizko lana argitaratuz geroztiko gertakariei begira. Baina, oro har, lehen hiru liburukiak 1933an eta besteak 1939an argitaratu zirela ikusita, harri-garria da honelako zein lan gutxi egin behar izan den.

«Sintesia», bigarren liburukiaren azken aldera agertzen dena, egia esateko, laburpenaren laburpena da. «Berezko zerbait» bezala irakurrita erabat digerigaitza gerta daiteke, baina erabilgarri gerta daiteke bidean zehar erreferentzi puntu bezala. Egia esateko, nolabaiteko «Eduki Taula» da, eta hasieran ez jartzeko arrazoi bakarra zera da, gauzaki handi eta itsusia izango litzatekeela margo-lanaren aurrean.

D.C. Somervell

SARRERA

I. AZTERKETA HISTORIKOAREN UNITATEA

Normalean historialariek argitu egiten dituzte zuzendu baino gehiago eurak bizi eta lanean ari direneko komunitateen ideiak, eta ustez buruaski den nazio-estatu subiranoaren azken mendeetako, eta batez ere azken belaunaldiotako, garapenak azterketa historikoaren eremu normaltzat nazioak aukeratzera eraman ditu historialariak. Baina European nazio edo nazio-estatu bakar batek ere ez du historia-rik berez bakarrik esplikatzen denik. Estaturen batek hori izatekotan, Britainia Handia litzateke hori. Egia esan, ez bada aurkitzen Britainia Handia (edo, antzinako garaietan, Ingalaterra) azterketa historikoaren eremu ulergarri bat dela berez, ziur ondoriozta dezakegu Europako beste ezein nazio-estatu modernok ez duela proba gaindituko.

Hortaz, ulergarria ote da historia ingelesa bere horretan hartuta? Bakar ote dezakegu Ingalaterrako barne-historia bere kanpo-erlazioetatik? Egin badezakegu, bigarren mailako garrantzia ote dute hondarreko kanpo-erlazio hauek? Eta hauek aztertzerakoan, berriz, atzerriko eragina Ingalaterran txikia dela aurkituko ote dugu, berak munduko beste alde batzuetan izandakoaren ondoan? Galdera hauek guztiek baiezkotza erantzuna hartzen badute, agian bidezkoa izan daiteke ondorioztatzea, Ingalaterraren erreferentziarik gabe beste historia batzuk ulertzea ezinezkoa gerta litekeen bitartean, posible dela gutxi gorabehera historia ingelesa ulertzea munduko beste alde batzuen erreferentziarik gabe. Arazo hauek planteatzeko erarik egokiena gure

pentsamendua historia ingelesaren bidean atzerantz bidali eta atal nagusiak gogoratzea da. Alderantzizko ordenan, hauek izan litezke atal horiek:

a) industri sistemaren ezarpena ekonomian (hemezortzigarren mendearen azken laurdenetik);

b) gobernu parlamentario erantzulearen ezarpena (hamazazpi-garren mendearen azken laurdenetik);

c) itsasoz bestaldeko hedapena (hamaseigarren mendearen hirugarren laurdenean pirateriarekin hasi eta pixkanaka mundu-mailako kanpo-merkataritza garatuz, kolonia tropikalak eskuratuz eta itsasoz bestaldean klima epeleko herrialdeetan ingeles hizkuntzako komunitate berriak ezarriz);

d) Erreforma (hamaseigarren mendearen bigarren laurdenetik);

e) Errenazimentua, mugimenduaren alde politiko eta ekonomi-koak nahiz artistiko eta intelektualak barne direla (hamabosgarren mendearen azken laurdenetik);

f) sistema feudalaren ezarpena (hamaikagarren mendetik);

g) ingelesen konbertsioa Heroi Aroa deiturikoaren erlijiotik Mendebaldeko kristautasunera (seigarren mendearen azken urteetatik).

Gaur egunekotik atzerantz historia ingelesaren bilakaera orokorrari egin diogun begiratu labur honek badirudi zera erakusten duela: zenbat eta atzerago begiratu, orduan eta gutxiago aurkitzen dugula buruaskitasun edo bakartzearen frogarik. Konbertsioa, Ingalaterrako historian benetan gauza guztien hasiera izan zena, horren antitesi zuzena izan zen; barbaroen dozena-erdi komunitate bakartu, jaiotzen ari zen Mendebaldeko Gizarte baten ongizate komunean batu zituen ekintza izan zen. Sistema feudalari dagokionez, Vinogradoff-ek bikain erakutsi du horren haziak erneta zeudela Ingalaterrako lurrian normandiarren konkista baino lehen. Halaz guztiz, ernetze hori kanpo-faktore batek ere suspertu zuen, daniarren inbasioek, alegia; inbasio hauek eskandinaviar Völkerwanderung-aren¹ —aldi berean Frantzian ere antzeko hazkundea suspertzen ari zenaren— parte izan ziren eta normandiarren konkistak, zalantzarik gabe, bizkor helarazi zuen uzta. Errenazimentuari dagokionez, bere kultur nahiz politika-aldean, mundu osoak onartzen du Ipar Italiatik

bizi-arnasaldi bat izan zela. Ipar Italian humanismoa, absolutismoa eta botere-oreka ez balira miniaturan landu izan —landaretxoak mintegi babestu batean bezala— gutxi gorabehera 1275etik 1475era bitarteko bi mendeetan, sekula ez ziren landatuko Alpeez iparraldera 1475etik aurrera. Erreforma, berriz, ez zen bereziki ingeles fenomenoa izan, baizik eta Ipar-mendebaldeko Europaren mugimendu orokorra izan zen Hegoaldetik emantzipatzeko, non Mendebaldeko Mediterraneoak jadanik hilda eta desagerturik zeuden munduetan baitzeukan begia jarrita. Erreformen, Ingalaterrak ez zuen ekimenik izan, ezta itsasertz atlantikoko nazio europarren artean itsasoz bestaldeko mundu berrien saria lortzeko izan zen lehian ere. Berandu samar etorriak bezala irabazi zuen sari hori, eremu hartan bera baino lehen zeuden botereekin zenbait borroka egin ondoren.

Azken bi atalak geratzen dira aztertzeke: parlamentu-sistemen eta industri sistemaren sorrerak; erakunde hauek Ingalaterran bertan garatu eta gero handik munduko beste alde batzuetara zabalduakotzat hartzen dira. Baina adituek ez dute erabat onartzen ikuspegi hau. Parlamentu-sistemari buruz, honela dio lord Actonek: «Historia orokorra nazionalak ez diren baizik eta kausa zabalagoetatik datozen indarren mende dago, noski. Monarkia modernoaren igoera Frantzian, Ingalaterran izandako antzeko mugimenduaren parte da. Borboiek eta estuardotarrek lege berari obeditu zioten baina emaitza desberdinekin». Beste era batera esanda, parlamentu-sistema, bertako emaitza Ingalaterran, Ingalaterrakoa bakarrik ez, baizik eta aldi berean Ingalaterran eta Frantzian eragiten zuen indar baten emaitza zen.

Ingalaterrako Industri Iraultzaren sorreraz ezin dira aipatu aditu handiagoak Mr. eta Mrs. Hammond baino. Beren *The Rise of Modern Industry* liburuaren hitzaurrean agertzen duten ikuspegia zera da, Industri Iraultza Ingalaterran beste inon baino lehen sortzea ongien esplikatzeko duen faktorea Ingalaterrak hemezortzigarren mendeko munduan zuen kokapen orokorra da: bere kokagune geografikoa Atlantikoari buruz eta bere kokapen politikoa Europako botere-orekari buruz. Badirudi, beraz, britainiar historia nazionala sekula ez dela izan, eta ia ziur sekula ez dela izango, «azterketa historikoaren eremu ulergarria» bakartuta; eta hau egia bada Britainia Handiari buruz, ziur egia izan behar *a fortiori* beste edozein nazio-estaturi buruz.

Historia ingelesaren gure azterketa laburrak, emaitza negatiboa izan duen arren, arrasto bat eman digu. Historia ingelesaren bidean atzera bota dugun begiradan gure arretagai izandako atalak benetakoak ziren kontaketa-aren batean edo bestean, baina kontaketa hori gizarte zabalagoren baten historia zen eta Britainia Handia gizarte horren zati bat bakarrik, eta esperientziak, berriz, Britainia Handiaren ondoren beste nazio batzuek ere parte hartzen zuten esperientziak ziren. Hain zuzen, badirudi «azterketa-eremu ulergarria», Britainia Handiak ordezkatzeko duen espezieko komunitate-kopuru bat daukan gizartea dela —ez Britainia Handia bera bakarrik, baita Frantzia eta Espainia, Herbehereak, Eskandinaviako herrialdeak, etab. ere—, eta aipatu dugun Actonen pasarteak parte hauen eta osotasun haren arteko erlazioa adierazten du.

Diharduten indarrak ez dira nazionalak, kausa zabalagoetatik datozenak baizik; parteetako bakoitzean eragiten dute eta ez dira ulergarriak beren jardura partzialean, ez bada behintzat ikuspegi orokorrik hartzen gizarte osoan duten jardueraz. Parte desberdinetan eragin desberdina du kausa orokor berberak, bakoitzak bere erara erreakzionatzen eta bere ekarpena egiten duelako kausa horrek berorrek abian jartzen dituen indarren aurrean. Esan dezakegu gizarte batek bere bizitzan zehar problema-segida bati aurre egiten diola eta kide bakoitzak bere kasa konpondu behar izaten duela ahalik eta ongien. Problema bakoitzaren agerpena erronka da proba gogor bat jasateko, eta proba hauetan zehar gizarteko kideak beren artean desberdintzen dira pixkanaka. Hasieratik azkeneraino, ezinezkoa da proba partikular batean kide partikular baten portaeraren esanahia hautematea, bere lagunen antzeko portaera —edo desberdina— nolabait kontuan hartu gabe eta segidako probak gizarte osoaren bizitzako gertaera-sailtzat hartu gabe.

Gertaera historikoak interpretatzeko metodo hau argiago gera daiteke adibide zehatz batekin: Antzinako Greziako hiri-estatuek K.a. 725etik 325era bitarteko lau mendeetan izandako historiatik harturiko adibidea da.

Garai hura hasi eta laster, gizartea —bere osagai zituen estatu haiek guztiak— arazo baten aurrean aurkitu zen: biztanleriaren presioa bizitzeko baliabideen gain; garai hartan herri helenikoek itxuraz barne-kontsumorako ziren baliabide haiek beren lurraldean era asko-

tako nekazaritza-produktuak landuz lortzen zituzten ia erabat. Krisia etorri zenean, estatu bakoitzak bere erara egin zion aurre.

Batzuek, Korintok eta Kaltzisek adibidez, itsasoz bestaldean nekazaritzako lurraldeak harrapatu eta kolonizatzen erabili zituzten soberako biztanleak: Sizilian, Hegoaldeko Italian, Trazian eta beste alde batzuetan. Honela sorturiko greziar koloniek Gizarte Helenikoaren eremu geografikoa zabaldu baino ez zuten egin, haren izaera aldatu gabe. Bestalde, zenbait estatuk beren bizimodua aldatzea eskatzen zuten konponbideak bilatu zituzten.

Espartak, adibidez, auzoko greziar hurbilenei eraso egin eta haiek konkistatuz asetu zuen bere hiritarren lur-gosea. Ondorioz, bere tamainako auzo-herriein behin eta berririo gerra setatiak eginez soilik lortu zituen Espartak lur gehigarriak. Egoera honi aurre egin ahal izateko Espartako gobernariak goitik beheraino militarizatu behar izan zuten bertako bizitza, eta hau hasierako zenbait gizarte-erakunde berrindartuz eta egokituz egin zuten; hainbat greziar komunitaterentzat komunak izandako erakunde haiek, une hartan desagertzeko zorian zeuden Espartan nahiz beste alde batzuetan.

Biztanleriaren arazoaren aurrean Atenasek beste era batera erreakzionatu zuen. Bere nekazaritza-ekoizpena esportaziorako espezializatu zuen, manufakturak egiten ere hasi zen esportatzeko, eta gero bere erakunde politikoak garatu zituen aginte politikoaren bidezko zati bat ekonomi berrikuntza hauek sortarazitako klase berriei emateko. Beste era batera esanda, Atenasko gobernariak iraultza ekonomiko eta politikoa arrakastaz gauzatuz urrundu zuten gizarte-iraultza; eta beraiei ere eragiten zien neurrian arazo komunari konponbide hau aurkituz, bide batez aurrera egiteko bide berria zabaldu zuten Gizarte Heleniko osoarentzat. Hau da Periklesek esan nahi zuena, bere hiriko ondasun materialen krisialdia zela-eta, berau «Helasen hezibide» zela esaten zuenean.

Ikuspegi honetatik —bere eremutzat ez Atenas edo Esparta edo Korinto edo Kaltzis, baizik eta Gizarte Heleniko osoa hartzen duen ikuspegitik— gai gara ulertzeko bai hainbat komunitateren historiaren esanahia K.a. 725-325 denboraldian, baita aldi honetatik ondorengorako trantsizioaren esanahia ere. Honela galdera batzuei —azterketa-eremu ulergarriaren bila Kaltzis, Korinto, Esparta edo Atenasen historia bakartuta aztertuz gero erantzun ulergarririk ez zuten galderei—

erantzuten zaie. Ikuspuntu honetatik zera bakarrik ohartu zitekeen: Kaltzis eta Korintoren historia nolabait ere normala izan zen bitartean, Esparta eta Atenasen historia arautik aldendu egiten zela norabide desberdinetan. Ezin zen argitu nola gertatu zen desbideratze hau eta historialariak mugaturik zeuden iradokitzaera Esparta eta Atenaskoak jadanik desberdinak zirela beste greziarren aldean, berezko ezaugarri bereziak zituztelako historia helenikoaren egunsentian. Honek esan nahi zuen Esparta eta Atenasen bilakaera zera postulaturik argitzen zela: han ez zela batere bilakaerarik izan eta Greziako bi herri hauek historiaren hasieran bukaeran bezain bereziak zirela. Hipotesi hau, ordea, kontraesanean dago frogaturiko gertaerekin. Espartari dagokionez, adibidez, Atenasko Arkeologi Eskola Britainiarrak zuzenduriko indusketek argi eta garbi frogatu dute K.a. seigarren mendearen erdialdea arte Espartako bizitza ez zela oso desberdina izan gainerako greziar komunitateen aldean. Atenasen ezaugarri bereziak ere —aro helenistikoa delako garaian mundu heleniko osoari pasatu zizkionak (Espartak ez bezala, honen bilakaera berezia bide itsua izan baitzen)— lorturiko ezaugarriak izan ziren, eta hauen sorrera ikuspuntu orokor batetik bakarrik atzeman daiteke. Gauza bera gertatzen da Venezia, Milan, Genoa eta Ipar Italiako beste hiri batzuen arteko desberdintzearekin Erdi Aroa delakoan, baita Frantzia, Espainia, Herbehereak, Britainia Handia eta Mendebaldeko beste nazio-estatu batzuen arteko desberdintzearekin geroago ere. Zatiak ulertu ahal izateko, lehenik osotasunari jarri behar diogu arreta, osotasun hau baita bere horretan ulergarri den azterketa-eremua.

Baina zer dira «osotasun» hauek, azterketa-eremu ulergarriak osatzen dituztenak, eta nola aurkituko ditugu berorien espazio- eta denbora-mugak? Itzul gaitezen berriro historia ingelesaren atal nagusiez egin dugun laburpena eta ikus dezagun zein den eremu ulergarri hori osatzen duen osotasun zabalagoa, zeinen zati baita historia ingelesa.

Geure azken atalari —industri sistemaren ezarpenari— heltzen badiogu, berak auresuposatzen duen azterketa-eremu ulergarriaren zabalera geografikoa mundu-mailakoa dela aurkitzen dugu. Ingalaterrako Industri Iraultza argitu ahal izateko, kontuan hartu behar ditugu ez bakarrik Mendebaldeko Europako ekonomi baldintzak, baita Afrika Tropikal, Amerika, Errusia, India eta Ekialde

Urrunekoak ere. Hala ere, parlamentu-sistemara itzuli eta, hori egitean, ekonomiaren mailatik politikarenera igarotzen garenean, gure aukera murriztu egiten da. Lord Actonek esan bezala, Frantzia eta Ingalaterran «borboiek eta estuardotarrek obeditu zuten legea» ez zegoen indarrean romanovtarrentzat Errusian edo osmanliarrentzat Turkian edo timurtarrentzat Hindustanen edo mantxuentzat Txinan edo tokugawatarrentzat Japonian. Beste herrialde hauen historia politikoak ezin dira argitu era berean. Muga baten kontra topo egiten dugu hemen. «Borboiek eta estuardotarrek obeditu zuten legearen» aplikazioa Mendebaldeko Europako beste herrialdeetara eta Mendebaldeko Europako kolonizatzaileek itsasoz bestaldean landaturiko komunitate berrietara hedatu zen, baina haren agintea ez zen joan Errusia eta Turkiaren mendebaldeko mugez harantzago. Lerro horren ekialdera beste lege politiko batzuei obeditzen zieten garai hartan eta beste ondorio batzuekin.

Atzera egin eta historia ingelesaren lehen ataletara joaten bagara gure zerrendan, ohartuko gara itsasoz bestaldeko hedapena mugatuta zegoela ez bakarrik Mendebaldeko Europara, baita ia erabat Atlantikoan itsasertza duten herrialdeetara ere. Erreformaren eta Errenazimentuaren historia aztertzean, ezer galdu gabe bazter ditza-kegu Errusia eta Turkiako erlijio eta kulturaren bilakaerak. Mendebaldeko Europako sistema feudala ez zegoen kausalki lotua garai bereko komunitate bizantziar eta islamikoetan aurkitzen ziren bezalako fenomeno feudalei.

Azkenik, Mendebaldeko kristautasunera ingelesek egindako konbertsioak gizarte batean onartu gintuen beste batzuetako kide izateko aukera galtzearen truke. 664an izan zen Whitby-ko Sinodora arte, ingelesak «zerrenda zeltikoko Mendebalde Urruneko kristautasunera» konbertituak izan zitezkeen; eta Agustinen misioak azkenean huts egin izan balu, ingelesek, galestar eta irlandarrekin batera, beste kristau-eliza bat sortu ahal izango zuketzen Erromarekiko elkartetik kanpo: Kristandadearen Ekialde Urruneko zerrendan nestoriotarren mundua bezain egiazko *alter orbis* bat. Geroago, Atlantikoko itsasertzean arabiar musulmanak agertu zirenean, Britainiar uharteetan Mendebalde Urruneko kristau hauek Abisinia edo Erdialdeko Asiako kristauak bezain osorik gal zezaketen harremana Europako kontinente-ko erlijoiokideekin. Gerta zitekeen Islamera konbertitzea ere,

Erdialdeko Ekialdea arabiarren agindupean jarri zenean monofisita eta nestoriotar askok egin zuten bezala. Iradokitako alternatiba hauek bazter litezke fantastikotzat jota, baina hauetaz hausnartzeak balio du gogorarazteko 597ko konbertsioak Mendebaldeko Kristandadearekin bat egin gintuen bitartean, ez gintuela bat egin gizadi osoarekin, bai-zik eta aldi berean zatiketa-lerro sakona ipini zuela gure — Mendebaldeko kristau garen aldetik— eta beste erlijio-elkarte batzuen jarraitzaileen artean.

Historia ingelesaren atalen bigarren berrikuspen honek bitarteko bat eman digu Britainia Handia barne-hartzen duen gizartearen zeharkako ebaketa espazialak egiteko hainbat datatan, gizarte hori «azterketa historikoaren eremu ulergarria» delarik Britainia Handiari dagokionez. Zeharkako ebaketa horiek egiterakoan, gizarte-bizitzako zenbait maila bereizi beharko ditugu: ekonomikoa, politikoa eta kulturala, nabaria baita jadanik gizarte honen espazio-hedapena nabarmen aldatzen dela aztergai hartzen dugun mailaren arabera. Gaur egun, eta ekonomiaren mailan, Britainia Handia bere baitan hartzen duen gizartea Lurrean bizigarri eta nabigagarri den eremu osora zabal daiteke aldi berean, zalantzarik gabe. Era berean, maila politikoa gizarte honek gaur egun mundu-mailako izaera duela ia aurrekoa bezain garbi dago. Hala ere, kultur mailara igarotzen garenean, Britainia Handia barne-hartzen duen gizartearen egungo hedapen geografikoa askoz txikiagoa dela ikusten da. Funtsean, Mendebaldeko Europan, Amerikan eta Hegoaldeko itsasoetan herri katoliko eta protestanteek hartzen dituzten herrialdeetara mugaturik dago. Gizarte honetan Errusiako literatura, Txinako pintura eta Indiako erlijioa bezalako kultur elementuek zenbait eragin exotiko utzi dituzten arren, eta gure gizarteak beste gizarte batzuetan —kristau ortodoxo eta ekialdeko, musulman, hindu eta Ekialde Urruneko herrietan, adibidez— kultur eragin askoz sendagoak utzi dituen arren, egia da hauek guztiak guri dagokigun kultur mundutik kanpo daudela.

Lehenagoko garaietan zeharkako ebaketa gehiago egiten dugun neurrian, ohartzen gara aztertzen ari garen gizartearen muga geografikoak estutu egiten direla gero eta gehiago hiru mailetan. 1675. urtearen inguruan egindako zeharkako ebaketan, ekonomiaren mailan agian estutze hori oso handia ez bada ere (merkataritzaren hedapenera mugatu eta bere bolumena eta edukia alde batera uzten baditugu,

behintzat), maila politikoan mugak uzurtu egiten dira, gaur egun kultur mailan dauden mugekin bat etortzeraino gutxi gorabehera. 1475aren inguruko zeharkako ebaketan, eremuko itsasoz bestaldeko zatiak berdin desagertzen dira hiru mailetan, eta plano ekonomikoan ere mugak uzurtu egiten dira, hauek ere gutxi gorabehera bat etortzeraino kultur planokoekin; maila hau orain Mendebaldeko eta Erdialdeko Europara mugatua dago, Mediterraneoaren ekialdeko itsasertzetan bizkor desagiten ari den aurrelari-taldean kate bat izan ezik. Zeharkako ebaketa primitibo batean, 775. urte ingurukoan, are gehiago uzurtzen dira mugak hiru mailetan. Data hartan gure gizartearen eremua Karlomagnoren agindupeko lurak zirenetara mugaturik dago ia, Erromatar Inperioak Britainia Handian zituen «ondorengo estatu» ingelesekin batera. Muga hauetatik kanpo, Iberiar penintsula ia guztia Kalifaldi Arabiar Musulmanaren agindupean dago garai hartan; Europaren iparraldea eta ipar-ekialdea, konbertitu gabeko barbaroen esku; Britainiar uharteen ipar-mendebaldeko zerrendak «Mendebalde Urruneko» kristauak dauzkate; eta Hego Italia bizantziarren agindupean dago.

Gizarte honi, zeinen espazio-mugak aztertzen aritu baikara, dei diezaiozun Mendebaldeko Kristandadea; eta berari buruz gogoan dugun irudia izen bat aurkituz fokatu bezain laster, garai bereko munduan zituen kontraparteen irudi eta izenak ere fokatu egiten dira haren ondoan, batez ere kultur mailan finkatzen badugu arreta. Maila honekin, egungo munduan geurearen espezie bereko beste lau gizarte bizi bereiz ditzakegu, zailentzarik gabe:

I) Gizarte Kristau Ortodoxoa, Hego-ekialdeko Europan eta Errusian;

II) Gizarte Islamikoa, bere gunea zona lehorrean duena: Ipar Afrika eta Erdialdeko Ekialdean zehar Atlantikotik Txinako Harresi Handiaren kanpoalderaino luzatzen da diagonalen;

III) Hindu Gizartea, Indiako azpikontinente tropikalean;

IV) Ekialde Urruneko Gizartea, eskualde subtropikal eta epeletan, zona lehorrean eta Ozeano Barearen artean.

Azterketa zehatzagoa eginez, orain desagertuta dauden antzeko gizartearen erlikia fosilak diruditen bi sail ere bereiz ditzakegu: batean Armenia, Mesopotamia, Egipto eta Abisiniako kristau mono-

fisitak, Kurdistango kristau nestoriotarrak eta Malabarko nestoriotar ohiak sartzen dira, baita juduak eta parsiak ere; eta bigarrenean, Tibet eta Mongoliako mahayaniar budista lamaistak eta Zeilan, Birmania, Thailandia eta Kanbodiako hinayaniar budistak, baita Indiako jainak ere.

Interesgarria da ohartzea, K.a. 775eko zeharkako ebaketara itzultzen bagara, mundu-mapako gizarteen kopurua eta identitatea ia gaur egungo bera dela. Funtsean espezie honetako gizarteen mundu-mapak aldaketarik gabe iraun du gure Mendebaldeko Gizartea lehenengoz sortu zenetik. Bizirik irauteko borrokan Mendebaldeak hormaren kontra jarri ditu bere garaikideak eta bere eragin ekonomiko eta politikoaren sareetan nahastu ditu, baina oraindik ez ditu beraien kultura bereizgarriez gabetu. Presio gogorra jasan arren, arimak eurenak dituztela esan dezakete oraindik.

Argudiaketaren ondorioa, orain arte zertutakoaren arabera behintzat, bi motako harremanen artean bereizketa zorrotza egin beharra da: gizarte baten beraren barneko komunitateen artekoak eta gizarte desberdinen artekoak.

Eta orain, gure Mendebaldeko Gizarteak espazioan duen hedapena aztertu ondoren, denboran duen hedapena hartu behar dugu kontuan; eta berehala topo egiten dugu gauza batekin: ezin dugula jakin berorren etorkizuna; eta mugapen honek asko murrizten du gizarte partikular honen —edo existitzen den beste edozein gizarteren— azterketak gizarte horiei dagokien espeziearen izaeraz eman dezakeen argitasuna. Gure Mendebaldeko Gizartearen hastapenak aztertuz konformatu beharko dugu.

Verdunگو itunaren bidez 843an Karlomagnoren agindupeko lurak bere hiru biloben artean banatu zirenean, Lotariok, zaharrena zenez, aitonaren bi hiriburuak —Akisgran eta Erroma— bereganatzea lortu zuen, eta hauek lur-zerrenda jarrai batez loturik egon zitezen, zati bat eman zitzaion Lotariori; zati hau Tiber eta Po ibai-ahoetatik Rhinen ahorraino zihoan Mendebaldeko Europan zehar. Lotarioren zatia geografia historikoaren bitxikeriatzat hartzen da normalean; halaz guztiz, hiru anaia karolinjioek arrazoiz pentsatzen zuten zati hori garrantzi bereziko eskualdea zela gure Mendebaldeko munduan. Edozelakoa izanik ere etorkizuna, iragan bikaina zuen atzean.

Lotariok eta bere aitonak Akisgranetik Erromaraino agindu zuten «erromatar enperadore» tituluarekin, eta Erromatik Alpeetan zehar Akisgraneraino (eta aurrerantz Akisgranetik Mantxako kanalean zehar erromatar harresiraino) luzatzen zen lerroa, ordurako desagertuta zegoen Erromatar Inperioaren gotorleku nagusietakoa izan zen garai batean. Erromatik Alpeetan zehar ipar-mendebalderantz komunikazio-lerro bat ezarri, Rhinen ezkerreko ertzean muga militarra ipiniz eta Hego Ingalaterra beretuta muga horren ezkerreko aldea babestuz, erromatarrek moztu eta inperioari erantsi zioten Alpeez bestaldeko Europa kontinentalaren muturra; inperioa, alde honetan izan ezik, Mediterraneoan arrora mugatua zegoen, batez ere. Honela, Lotarijain sartutako lerro hori Erromatar Inperioaren egitura geografikoan sartu zen Lotarioren garaia baino lehen, honen ondoren Mendebaldeko Gizartearenean sartu zen bezalaxe, baina lerro honen egiturazko funtzioa ez zen berdina izan Erromatar Inperioarentzat eta ondorengo Mendebaldeko Gizartearentzat. Erromatar Inperioan muga izan zen; gure Mendebaldeko Gizartean oinarri-lerroa izango zen, bere bi aldeetara eta norabide guztietan hedatzeko. Tarteko loaldi sakonak iraun bitartean (K.o. 375-675 inguruan), Erromatar Inperioa desegin eta kaosetik pixkanaka gure Mendebaldeko Gizartea sortu artean, gizarte zaharraren albotik saihetsezur bat kendu eta espezie bereko izaki berri baten bizkarrezur bihurtu zuten.

Argi dago orain gure Mendebaldeko Gizartearen bizitzan atzera eginez gero 775etik harantzago, bera ez den beste zerbaiten forma aurkitzen hasten garela, Erromatar Inperioaren eta inperio horri zegokion gizartearen forma. Erakuts daiteke, halaber, Mendebaldeko historiari lehenagoko gizarte haren historiara bidaltzen gaituen edozein elementuk oso funtzio desberdinak izan ditzakeela bi elkartze desberdin hauetan.

Lotarioren zatia Mendebaldeko Gizartearen oinarri-lerro bilakatu zen, Elizak, erromatar mugarantz igoz, barbaroak aurkitu baitzuten han, muga, «inorena ez zen lurretik» presio egiten eta azkenean gizarte berri bat sortarazi baitzuen. Beraz, Mendebaldeko Gizartearen historialariak puntu horretatik abiatuz sustraiak iraganean bilatzean, Elizaren eta barbaroen historian jarriko du bere arreta, eta posible gertatuko zaio bi historia horiei atzera jarraitzea, K.a.ko azken bi mendetako ekonomi, gizarte- eta politika-iraultzetaraino, hauetara bultzatu

zuelarik Gizarte Greko-erromatarra II. Gerra Punikoaren astinaldi handiak. Zergatik luzatu ote zuen Erromak beso luze bat ipar-mendebalderantz eta bere inperiora bildu Alpeez bestaldeko Europaren mendebaldeko izkina? Kartagorekin zeukan hil ala biziko borrokak norabide horretara bultzatu zuelako. Behin Alpeak igaro ondoren, zergatik geratu zen Rhinen? Augustoren aroan bere bizitasuna iraungi zitzaio-lako, gerra eta iraultza nekagarrietan bi mende eman ondoren. Azkenean, zergatik lortu zuten barbaroek sartzea? Gizarte zibilizatua-goia den eta hain zibilizatua ez den beste baten artean mugak aurrera egiteari uzten diorean, balantza ez delako oreka egonkorrean gelditzen, baizik eta, denbora igaro ahala, gizarte atzeratuenaren aldera makurtzen delako. Barbaroak mugan zehar sartu zirenean, zergatik aurkitu zuten Eliza beste aldean? Materialki, Bigarren Gerra Punikoaren ondorengo ekonomi eta gizarte-iraultzek esklabu-kopuru handiak ekarri zituztelako Ekialdeko mundutik Mendebaldeko eremu suntsituetara lan egitera, eta Ekialdeko langileen migrazio behartu honen ondoren, Ekialdeko erlijioak sartu zirelako baketsu Gizarte Greko-erromatarrean. Espiritualki, erlijio hauek, «beste munduan» salbazio pertsonala aginduz, lugorriak aurkitu zituztelako langai «gutxiengo menderatzailearen» arimetan, gutxiengo honek huts egin zuelarik mundu honetan Gizarte Greko-erromatarren ondasunak salbatzerakoan.

Historia greko-erromatarrean adituari, bestalde, kristauak nahiz barbaroak biak agertuko litzaizkioke hanpa arrotz bateko izaki bezala: Gizarte Greko-erromatar (edo hitz egokiagoa erabiliz, Heleniko) horrek bere azken fasean zituen barne- eta kanpo-proletalgoa², berak deituko lituzkeen bezala. Esango luke kultura helenikoa-ren maisu handiek —Marko Aurelioganaino, hau barne— ia ez daki-tela badirenik ere. Kristau-eliza eta barbaroen gudu-taldeak gaitz morbidotzat diagnostikatuko lituzke, Bigarren Gerra Punikoak haren gorpuzkera etengabe hondatu ondoren bakarrik Gizarte Helenikoaren gorputzean agertuak.

Ikerketa honek gai egin gaitu gure Mendebaldeko Gizarteak denboran atzerantz izandako hedapenari buruz ondorio positibo bat ateratzeko. Gizarte horren bizitza, bere baitako edozein naziorena baino luzexeagoa izanik ere, ez da izan berak ordezkatzen duen espeziearen existentzia bezain luzea. Bere historiari atzera hastapeneta-rai-

no jarraituz, beste gizarte baten azken fasearekin topo egiten dugu, eta honen hastapenak, noski, askoz atzerago daude iraganean. Historiaren jarraitasuna, onarturiko esaldi bat erabiltzearen, ez da gizabanako baten bizitzak erakusten duen jarraitasuna bezalakoa. Areago da segidako belaunaldien bizitzaz osaturiko jarraitasun bat, eta gure Mendebaldeko Gizartea erlazionaturik dago Gizarte Helenikoarekin, haurrak gurasoarekiko duen erlazioarekin konparatzeko moduan (konparazio egokia baina akastuna erabiliz).

Kapitulu honetako argudiaketa onartzen bada, ados egon behar azterketa historikoaren unitate ulergarria ez dela nazio-estatua, ezta (eskalaren beste muturrean) gizadia ere osotasun bezala, giza talde bat baizik, guk gizarte deitu duguna. Horrelako bost gizarte aurkitu ditugu gaur egun bizirik, gizarte hil eta desagertuen hainbat froga fosildurekin batera; eta, gizarte bizi horietako baten —alegia, geurearen— jaiotzaren gorabeherak aztertzerakoan, oso ohargarri den beste gizarte baten heriotza-ohearekin topo egin dugu, eta seme-alabak gurasoe-kin bezalako erlazioan dago gurea harekin, hitz batean esateko, haren «filiala» da gure gizartea. Hurrengo kapituluan, mota horretako gizarte-teen zerrenda osoa egiten saiatuko gara, planeta honetan izan direla dakigunena behintzat, baita elkarren artean zer-nolako erlazioan dauden adierazten ere.

II. ZIBILIZAZIOEN KONPARAZIOZKO AZTERKETA

Dagoeneko aurkitu dugu geure Mendebaldeko Gizartea (edo Zibilizazioa) aurreko baten filiala dela. Espezie bereko gizarte gehiagoren bila jarraitzeko metodo normala beste adibideak hartu — Kristau Ortodoxoa, Islamikoa, Hindua eta Ekialde Urrunekoa— eta hauentzat ere «gurasorik» aurki ote genezakeen ikustea da. Baina ikerketa honi ekin aurretik, zeren bila gabiltzan argitu behar dugu: beste era batera esanda, zein diren gurasotasun- eta filialtasun-ezaugarriak, baliozko frogatzat hartu behar ditugunak. Hain zuzen, erlazio horren zein adierazgarri aurkitu dugu geure gizarteak Gizarte Helenikoarekiko duen filiazio-kasuan?

Fenomeno hauetako lehena *estatu unibertsala*³ zen (Erromatar Inperioa), Gizarte Heleniko osoa komunitate politiko bakar batean gorpuztu zuelarik historia helenikoaren azken fasean. Fenomeno hau harrigarria da, oso desberdina baita Erromatar Inperioa sortu aurretik Gizarte Helenikoaren zatiketak sortutako toki-estatuaren aniztasunaren aldean, eta era berean oso desberdina gure Mendebaldeko Gizartearen zatiketak gaur arte sortu dituen toki-estatuaren aniztasunaren aldean. Gainera, Erromatar Inperioak bere aurre-aurretik *arazoaldia* izan zuela aurkitzen dugu, gutxienez Bigarren Gerra Punikoraino iristen dena; garai hartan Gizarte Helenikoa ez zen jadanik sortzaile, eta beheraldian zegoen argi eta garbi; Erromatar Inperioa ezartzeak aldi batez geldiarazi egin zuen beheraldi hori, baina azkenean gaitz senda-

ezin baten sintoma zela frogatu zen eta Gizarte Helenikoa suntsitu zuen eta berekin batera Erromatar Inperioa. Bestalde, Erromatar Inperioaren erorikoari nolabaiteko *interregnoak* jarraitu zion, Gizarte Helenikoa desagertu eta Mendebaldeko Gizartea sortu bitartean.

Interregno hau bi erakunderen jarduerak betetzen du, eta erakunde horiek dira: Kristau *Eliza*, Erromatar Inperioaren barruan sortua eta honen ondoren ere bizirik iraun zuena; eta ondorengo zenbait estatu iragankor, Inperioa egondako lurraldean ezarriak, Inperioaren mugez harantzagotik —«inorena ez zen lurretik»— barbaroen *Völkerwanderung* delakoaz sortuak. Bi indar hauek Gizarte Helenikoko *barne-proletalgo* eta *kanpo-proletalgo*-tzat deskribatu ditugu jadanik. Gainerako guztian desberdindu arren, biak bat datoz Gizarte Helenikoko *gutxiengo menderatzaileagandik* apartatzean, bidea galdu eta gidatzeari utzita zeuden gizarte zaharreko klase gidariengandik, alegia. Izan ere, Inperioa erori eta Elizak bizirik iraun zuen, Elizak buruzagitza eman eta leialtasuna bereganatu zuelako, Inperioak bata nahiz bestea egiten luzaroan huts egin zuen bitartean. Honela Eliza, hiltzen ari zen gizartetik bizirik zirauena, umetoki bilakatu zen eta bere garaian bertatik jaio zen berria.

Zer parte izan ote zuen gure gizartearen filiazioan interregnoaren beste ezaugarriak, *Völkerwanderung*-ak alegia, non kanpo-proletalgoa uholdea bezala etorri baitzen gizarte zaharraren mugez harantzagotik: germaniarrak eta eslaviarrak Ipar Europako oihanetatik, sarmaziarrak eta hunoak eurasiar estepatik, sarrazenoak arabiar penintsulatik, berberek Atlas eta Saharatik, hauen ondorengo estatu iragankorrek Elizarekin partekatu zutelarik historiaren agertokia interregno edo *aro heroikoak* iraun bitartean? Elizaren aldean, horien ekarpena negatiboa eta hutsaren hurrengo izan zen. Ia guztiak desagertu ziren indarkeriaz interregnoa bukatu baino lehen. Bandalok eta ostrogodoak Erromatar Inperioaren beraren kontraerasoek menderatu zituzten. Erromatar sugarraren azken distiraldi konbultsiboa aski izan zen sits kaskar hauek errauts bihurtzeko. Beste batzuek anaiarteko borroketan jo zuten behea: bisigodoek, adibidez, lehen kolpea frankoengandik hartu zuten eta *coup de grâce* delakoa arabiarrengandik. Existitzeagatik borroka ismaelita honetan bizirik gelditu ziren apurrrak erremediorik gabe galbideratu ziren eta gero alferrak bezala begetatu, botere sortzailearen ezinbesteko hazia zeukaten indar poli-

tiko berriek desagertarazi arte. Honela, merovingiar eta lonbardiarrak dinastia bazter utzi zituzten Karlomagnoren Inperioaren arkitektoek. Erromatar Inperioaren «ondorengo estatu» barbaro guztien artetik bi bakarrik dira Europa Modernoko nazio-estatuaren artean ondorengo linealak dituztenak: Karlomagnoren Austrasia Frankoa eta Alfredoren Wessex.

Honela, Völkerwanderung-a eta bere emaitza iragankorrak Mendebaldeko Gizarteak Helenikoarekiko duen filiazioaren adierazle dira, Eliza eta Inperioa bezala; baina, Inperioa bezala eta Eliza ez bezala, adierazle dira eta ez ezer gehiago. Sintomen azterketatik kausen azterketara itzultzen garenean zera aurkitzen dugu: Eliza iraganekoa bezainbat etorkizunekoa zen bitartean, ondorengo estatu barbaroak, Inperioa bezala, iraganekoak zirela erabat. Haien jaiotza Inperioaren erorikoaren beste aurpegia baino ez zen, eta eroriko hark haiena ere iragartzen zuen ezinbestean.

Barbaroek gure Mendebaldeko Gizartera egindako ekarpenaren balioespen apal honek txunditu egingo zituzkeen gure Mendebaldeko azken belaunaldiko historialariak (Freeman bezalakoak), hauen iritziz, tribu teutonikoek «inorena ez zen lurretik» ekarri bide zituzten autogobernu-erakundearen garapena baitzen gobernu parlamentario erantzulearen erakundea. Baina erakunde teutoniko primitibo hauek, existitu baldin baziren, erakunde garatu gabeak ziren, gizaki primitiboaren ezaugarriak ia garai eta leku guztietan, eta, ziren bezalakoak izanik, ez ziren Völkerwanderung-a baino luzeago bizi izan. Armada barbaroen buruzagiak abenturazale militarrek ziren eta ondorengo estatuaren konstituzioa, bere garaian Erromatar Inperioarena bezalaxe, despotismoa zen iraultzak bigundua. Despotismo barbaro hauetako azkena, guk erakunde parlamentarioak deitzen ditugun horiek pixkanaka sortarazi zituen garapen berriaren benetako hasiera baino hainbat mende lehenago desagertuta zegoen.

Barbaroek gure Mendebaldeko Gizartearen bizitzara egindako ekarpenaz zabaldua dagoen gehiegizko balioespena sasisineskizun baten ondorio izan daiteke neurri batean, gizarte-aurrerapena arrazaren berezko zenbait tasunen bidez argitu behar izatearen ondorio, alegia. Zientzia fisikoa argitaratzen ari zen fenomenoekiko geuzurrezko analogiak eraman zituen gure Mendebaldeko azken belaunaldiko historialariak arrazak «elementu» kimikotzat hartzera, eta

beraien gurutzaketa «erreakzio» kimikotzat, aurrez mugiezintasuna eta gelditasuna zeuden lekuan ezkutuko energiak askatu eta eferbeszentzia eta aldaketa eragiten zituen. Historialariek beren burua engainatu zuten uste izanez «odol berria sartzeak» —horrela deskribatzen zuten metaforikoki barbaroen sarraldiaren arraza-efektua— argi zitzakeela askoz geroago Mendebaldeko Gizartearen historia osatu duten bizi- eta hazkunde-agerpenak. Barbaro haiek «arraza garbiko» konkistatzaileak zirela eman zen aditzera, haien odolak oraindik ere indartzen eta bikaintzen zituelarik ustezko ondorengoen gorputzak.

Egia esateko, barbaroak ez ziren izan gure espirituzko izatearen autoreak. Beren igaroaldia sentiarazi zuten Gizarte Helenikoa hil zenean bertan zeudelako, baina ezin dute heriotza-kolpea eman izanagatik saria ere errebindikatu. Agertokira iritsi zirenerako, Gizarte Helenikoa jadanik hiltzen ari zen aurreko mendeetako arazoaldian bere buruari egindako zauriengatik. Sarraskiaz elikatzen diren sai hutsak izan ziren, edo gorpuan arrastaka dabiltzan harrak. Haien aro heroikoa historia helenikoaren epilogo da, ez gurearen preludea.

Honela, hiru faktore dira gizarte zaharretik berrirako trantsizioa markatzen dutenak: estatu unibertsal bat, gizarte zaharraren azken etapa; eliza bat, gizarte zaharrean garatua eta, bere aldetik, berria gararazten ari zena; eta aro heroiko barbaro baten sarraldi kaotikoa. Faktore hauetatik bigarrena da garrantzitsua eta hirugarrena gutxienekoa.

Gizarte Helenikoaren eta Mendebaldekoaren arteko «gurasotasun eta filialtasunaren» beste sintoma bat ere ohar daiteke, ahaidetutako beste gizarte batzuk aurkitzeko ahaleginak egiten jarraitu aurretik: alegia, gizarte berriaren sehaska edo sorlekuaren aldaketa bere aurrekoaren sorlekutik. Gizarte zaharraren muga bat, jadanik aztertutako kasuan, berriaren erdigune bihurtzen dela aurkitu dugu; eta beste kasu batzuetan ere prest egon behar dugu antzeko lekualdaketatarako.

Gizarte Kristau Ortodoxoa. Gizarte honen jatorrien azterketak ez dio ezer erantsiko espezieko espezimenen gure zerrendari, argi baitago gure Mendebaldeko Gizartearekin batera Gizarte Helenikoaren kimu bikia dela, bere lekualdaketa geografikoa ipar-ekialderantz izan delarik eta ez ipar-mendebalderantz. Bere sehaska edo sorlekua Anatolia bizantziarrean zuela, Gizarte Islamikoaren hedapen aurkako-

agatik mende askotan oztopatua egon ondoren, azkenaldian hedapen zabala izan zuen iparraldera eta ekialdera Errusian eta Siberian zehar, mundu islamikoaren aldamenetik, Ekialde Urrunarekin topo egin arte. Mendebaldeko Kristandadearen eta Ortodoxoaren bereiztea bi gizarte banatutan, haien krisalida komunak —Eliza Katolikoak— bi gorputzetan jasandako zisman aurki daiteke: Erromako Eliza Katolikoa eta Eliza Ortodoxoa. Zismak hiru mende baino gehiago behar izan zituen gauzatzeko, zortzigarren mendeko eztabaida ikonoklastikoarekin hasi eta teologi puntu bati buruzko azken hausturarekin amaitu arte 1054an. Bitartean, azkar desberdintzen ari ziren gizarteetako elizek sakon kontrajarritako izaera politikoak berenganatu zituzten. Eliza Katolikoa mendebaldean Erdi Aroko aitasantutzaren aginpide independentearen mendean zentralizatzen ari zen bitartean, Eliza Ortodoxoa bizantziar estatuaren departamendu otzana bihurtu zen.

Gizarte Iraniko eta Arabikoa eta Gizarte Siriakoa. Aztertu behar dugun hurrengo gizarte bizia Islama da; eta Gizarte Islamikoaren hondoa arakatzen dugunean, estatu unibertsal bat aurkitzen dugu, eliza unibertsal bat eta Völkerwanderung bat, Mendebaldeko Kristandadearen eta Ortodoxoaren hondo komunean daudenen berdin-berdinak ez direnak, baina bai analogoak, zalantzarik gabe. Estatu unibertsal islamikoa «Bagdadeko Abbastar Kalifaldia» da⁴. Eliza unibertsala Islama bera, noski. Kalifaldia erori zenean, haren agindupeko lurretan indarrez sartu zen Völkerwanderung-a eurasiar estepako nomada turkiar eta mongolena zen, Ipar Afrikako nomada berbereena eta arabiar penintsulako arabiar nomadena. Völkerwanderung honek betetako interregnoak K.o. 975 eta 1275 arteko hiru mendeak hartu zituen gutxi gorabehera, eta azken data hori Gizarte Islamikoaren hasieratzat har daiteke, gaur egungo munduan aurkitzen dugun bezala.

Orain arte dena argi dago, baina gehiago ikertuz arazoekin topo egiten dugu. Lehen, Gizarte Islamikoaren aurrekoa (oraindik identifikatu gabea) ez da kimu bakar baten guraso, bikiena baizik, eta alde honetatik Gizarte Helenikoak guraso bezala egindakoaren antza du. Biki-parearen jokabidea, ordea, oso desberdina izan da; zeren eta, Mendebaldeko Gizartea eta Ortodoxoa elkarren ondoan mila urte baino gehiago bizi izan diren bitartean, identifikatu nahian ari garen guraso-gizarte horren kimuetako batek irentsi eta bereganatu egin bai-

tzuen bestea. Gizarte Islamiko biki hauek Iranikoa eta Arabikoa deituko ditugu.

Identifikatu gabeko gizartearen kimuen arteko bereiztea ez zen izan erlijio-arazoa, Gizarte Helenikoaren kimuen arteko zisma izan zen bezala; zeren eta, Islama sunnien eta xiien sektetan banatu bazen ere, Kristau Eliza katoliko eta ortodoxoen artean banatu zen bezala, erlijio-zisma hau Islamen sekula ez zen bat etorri ezein etapatan Gizarte Islamiko-iraniko eta Islamiko-arabikoaren arteko zatiketarekin, nahiz eta zismak azkenean hautsi egin zuen Gizarte Islamiko-iranikoa, kristau-aroko hamaseigarren mendearen lehen laurdenean Islamaren xii-sekta Pertsian nagusitu zenean. Honela xiismoa Gizarte Islamiko-iranikoaren ardatz nagusiaren erdi-erdian ezarri zen (Afganistandik Anatoliaraino doana ekialde eta mendebalderantz), eta sunnismoa mundu iranikoaren bi muturretan alde bietan utzi zuen nagusi, baita herrialde arabikoetan ere hegoaldera eta mendebaldera.

Gizarte Islamiko pare gure kristau-gizarte parearekin alderatzen dugunean, ikusten dugu pertso-turkiar edo iraniar zona dei genezakeen horretan sorturiko Gizarte Islamikoak baduela nolabaiteko antza gure Mendebaldeko Gizartearena, eta arabiar zona dei genezakeen hartan sorturiko beste gizarteak, berriz, baduela nolabaiteko antza Kristandade Ortodoxoarena. Adibidez, Bagdadeko Kalifaldia-
ren arimak, kristau-aroko hamahirugarren mendean mamelukoek Kairon deituak, Erromatar Inperioaren arima oroitarazten digu, honi Leon Isauriarrak dei egin ziolarik Konstantinoplan zortzigarren mendean. Mamelukoen eraikuntza politikoa, Leonena bezala, apal, eraginkor eta iraunkorragoa izan zen hurbileko iraniar zonan ezarritako Timur-en Inperioaren aldean: hau egitura zabal, lauso eta iragankorra izan zen, Mendebaldean Karlomagnoren Inperioa bezala agertu eta desagertu zena. Bestalde, arabiar zonan kultura garraiatu zuen hizkuntza klasikoa arabiera bera izan zen, «Bagdadeko Abbastar Kalifaldian» kultur hizkuntza izana. Iraniar zonan kultura berriak garraiatzaile berria aurkitu zuen beretzat pertsieran: arabieran txertatuz landua izan zen hizkuntza, latina grezieran txertatuz landua izan zen bezalaxe. Azkenik, arabiar zonako Gizarte Islamikoa iraniar zonako Gizarte Islamikoak konkistatu eta bereganatzeak, hamaseigarren mendean gertatu zenak, Mendebaldeko Kristandadeak Kristandade Ortodoxoari gurutzadetan egindako erasoaldian izan zuen parekoa.

Eraso hau Konstantinoplaren aurkako Laugarren Gurutzadaren desbi-deraketarekin K.o. 1204an burutu zenean, bazirudien une batez Kristandade Ortodoxoa iraunkorki konkistatu eta bereganatuko zuela bere ahizpa zen gizarteak; patu hau jasan zuen Gizarte Arabikoak hiru bat mende geroago, Selim I.a otomandar padisha-k mamelukoen agin-tea eraitsi eta K.o. 1517an «Kairoko Abbastar Kalifaldia» suntsitu zuenean.

Orain arazoari heldu behar diogu: zein zen indentifikatu gabeko gizartea, non Bagdadeko Abbastar Kalifaldiak markatu bai-tzuen azken agerraldia, Erromatar Inperioak Gizarte Helenikoan markatu zuenaren antzekoa? Abbastar Kalifalditik atzerantz joaten bagara historian, aurkituko ote dugu Gizarte Helenikoaren azkenau-rreko agerraldi gisa aurkitzen dugun arazoaldiaren antzeko fenome-norik?

Erantzuna ezezkoa da. Bagdadeko Abbastar Kalifaldiaren atze-an, Damaskoko Omeiatar Kalifaldia aurkitzen dugu, eta honen atzean mila urteko sarraldi helenikoa: K.a. laugarren mendearen bigarren erdian Mazedoniako Alexandroren ibilketarekin hasi zen, Greziako seleukotarren monarkiarekin Sirian, Ponpeioren kanpaineekin eta erro-matar konkistarekin jarraitu zuen, eta hasierako Islamaren gerrariiek Kristo ondorengo zazpigarren mendean hartu zuten ekialdeko *erre-bantxarekin* bukatu zen. Lehenengo arabiar musulmanen konkista hondagarriek, historiaren erritmoan, antistrofikoki Alexandroren kon-kista hondagarriei erantzun zietela ematen du. Hauek bezalaxe, mun-duaren aurpegia aldatu zuten dozena-erdi urtetan; baina ezin ezagu-tzeko moduan aldatu orde, *more Macedonica*, garai batean izandakoa ezagutzeko modura itzuliz aldatu zuten. Mazedoniar konkistak Akemenestar Inperioa (hots, Zioren eta ondorengoan Pertsiar Inperioa) haustean helenismoaren haziari lurra prestatu zion bezala, era berean arabiar konkistak omeiatarrei zabaldu zien bidea, eta haien ondoren abbastarrei, Akemenestar Inperioaren parekide zen estatu unibertsal bat eraikitzeko. Inperio baten mapa bestearenaren gainean jartzen badugu, harritu egingo gaitu zein zehazki datozen bat bien mugak; eta konturatuko gara bat-etortze hori ez dela geografikoa bakarrik, eta administrazio-metodoetara ere hedatzen dela, baita gizarte- eta espiritu-bizitzako fenomeno barnekoagoetara ere. Abbastar Kalifaldiaren funtzio historikoa adierazteko esan dezakegu

Akemenestar Inperioa lehengoratu eta jarraitzea izan zela: kanpo-
-indar baten eraginez hautsitako egitura politikoa lehengoratu eta atze-
rriko eraso batek etendako gizarte-bizitzari jarraipena ematea. Abbastar Kalifaldia estatu unibertsalaren jarraipentzat har daiteke, hura izan baitzen oraindik indentifikatu gabeko gure gizartearen bizi-
tzako azken fasea, honela horren bila mila urtez atzera egin behar delarik.

Orain Akemenestar Inperioaren hurbileko aurrekariak aztertu behar ditugu, Abbastar Kalifaldiaren aurrekarietan ezin aurkitu izan genuen fenomenoaren bila: hau da, arazoaldi bat, historia helenikoan Erromatar Inperioa ezarri aurre-aurretxoan izandako aldiaren antzekoa.

Akemenestar Inperioaren eta Erromatar Inperioaren sorreren arteko antzekotasun orokorra nabaria da. Xehetasunezko desberdintasun nagusia zera da: Estatu unibertsal helenikoa, aurreko arazoaldietan suntsiketaren agente nagusi izandako estatutik bertatik garatu zela; Akemenestar Inperioaren sorreran, ordea, Erromak jokaturiko paper suntsitzailea eta eraikitzailea hainbat estatuk jokatu zituzten. Rol suntsitzailea Asiriak jokatu zuen; baina Asiriak, berak zigorturiko gizartean estatu unibertsal bat ezarriz bere lana osatzeko zorian zegoela, bere burua suntsitu zuen militarismoaren gehiegikeriagatik. Amaiera handia baina lehentxeago, protagonista dramatikoki eraitsi zuten (K.a. 610) eta haren rola ordu arte paper txikia jokaturiko aktore batek hartu zuen ustekabea. Akemenestarrek bildu zuten asiriarrek ereindako uzta; hala ere, jokalaria bat beste batek ordezkatzek ez zuen aldatu argumentuaren izaera.

Honela bereizi dugularik gure arazoaldia, agian orain identifikatu ahal izango dugu azkenean bila gabiltzan gizartea. Negatiboki, esan genezake ez zela asiriarrena zen hura bera. Asiriarrek, historia luze eta nahasi honetan geroagoko etapa batean mazedoniarrek bezala, etorri eta joandako sartzaile bezala jokatu zuten beren papera. Identifikatu gabeko gure gizartean, Akemenestar Inperioaren mende baturik zegoenean, Asiriak sartutako kultur elementuen kanporatze baketsuaren prozesua aurkitzen dugu, akadiera eta idazkera kuneiformearen ordeztu aramear hizkuntza eta alfabetoa pixkanaka sartzeko prozesua.

Asiriarrek eurek ere, beren azken egunetan, aramear alfabetoa erabili zuten pergaminoan idazteko, buztin-xaflatxoetan inprimatzen

edo harrian inskribatzen zuten idazkera kuneiforme tradizionalaren osagarri gisa. Aramear alfabetoa erabili zutenean, pentsatzekoa da aramear hizkuntza ere erabiliko zutela. Edonola ere, asiriarrak estatua eta haren ondoren bizitza laburra izan zuen Neobabiloniar Inperioa (hau da, Nakukodonosor-en inperioa) suntsitu ostean, aramear alfabetoak eta hizkuntzak aurrera egin zuten etengabe, K.a. azken mendean akadiera eta idazkera kuneiformea desagertu ziren arte Mesopotamiako beren sorlekutik.

Pareko aldaketa aurki daiteke iranieraren historian, bat-batean iluntasunetik sortu zelarik «mediar eta pertsiarren» hizkuntza bezala, Akemenestar Inperioan agintzen zuten herriena, alegia. Bere idazkerarik garatu gabeko hizkuntzan (iraniera edo pertsiera zaharrean) erregistroak egiteko arazoaren aurrean, pertsiarrek idazkera kuneiformea hartu zuten harriko inskripzioetarako, eta aramera pergaminoko erregistroetarako, baina aramear idazkerak iraun zuen bizirik pertsieraren hedabide bezala.

Egia esateko, bi kultur elementu, bat Siriakoa eta bestea Irangoa, ari ziren garai berean finkatzen eta aldi berean beren artean estu elkartzen. Akemenestar Inperioa ezarri aurreko arazoaldiaren bukaeratik, aramear konkistatuak beren konkistatzaile asiriarrak liltzatzen hasi zirenetik, prozesua etengabea izan zen. Lehenagoko etapa batean aurkitu nahi badugu, erlijioaren ispiluan begira dezakegu eta ohartuko gara arazoaldi berak inspirazio bera sortu zuela Irango Zaratustra profetarengan, eta Israel eta Judako profeta garai-kideengan. Oro har, aramear edo siriarrak elementua iraniarra baino eragingarriagotzat har daiteke, eta, arazoaldien atzean begiratu bat egiten badugu, iraniarrak elementua desagertu egiten da eta gizarte bat begiztatzen dugu Sirian, Salomon erregearen eta haren garaikide Hiram erregearen belaunaldian, orduantxe Ozeano Atlantikoa eta Indikoa aurkitzen ari zena eta jadanik alfabetoa ere aurkitua zuena. Azkenean identifikatu dugu gizartea, zeinen filialak baitziren Gizarte Islamiko bikiak (gero batean konbinatuak), eta Gizarte Siriakoa deituko diogu.

Identifikazio honen argitan begira diezaiozun berriro Islamari, eliza unibertsal honen bidez iritsi baitzen luzarora gure Gizarte Siriakoa Gizarte Iraniko eta Arabikoarekin ahaideturik egotera. Desberdintasun interesgarria ikusten dugu orain Islamaren eta kris-

tautasunaren garapenaren artean. Esan dugu sortzeko ahalmenaren haziak kristautasunean ez zuela jatorri helenikoa, atzerritarra baizik (egia esateko, jatorri siriakoa, orain identifika dezakegun bezala). Bestalde, esan dezakegu Islamaren hazi sortzailea ez zela Gizarte Siriakotik kanpokoa, bertan jaioa baizik. Fundatzaileak, Mahomak, lehenik judaismotik —erlijio siriakoa puru-puruan— atera zuen inspirazioa eta bigarren mailan nestorianismotik, kristautasun-forma bat, non elementu siriakoak lortua baitzuen nagusitasuna elementu helenikoaren gain. Jakina, eliza unibertsal bat bezalako erakunde handi bat ez da inoiz «odolgarbia», gizarte bakar batetikoa, izaten. Kristautasunean elementu helenikoak aurkitzen ditugu, misteriozko erlijio heleniko eta filosofia helenikotik ateratakoak. Antzeratsu, baina askoz neurri txikiagoan, Islamean ere aurkitzen ditugu eragin helenikoak. Oro har hitz eginez, hala ere, kristautasuna bere papera-
ren jokaleku zuen gizarteaz kanpoko hazitik sorturiko eliza unibertsal bat da; Islama, berriaz, bertako hazitik sortua.

Azkenik, gizarte filial iraniko eta arabikoen sorlekuek guraso zuten Gizarte Siriakoaren sorlekutik izandako desplazamendu-mailak neur ditzakegu. Gizarte Islamiko-iranikoaren oinarri-lerroak, Anatoliatik Indiaraino, desplazamendu handia erakusten du. Bestalde, Gizarte Islamiko-arabikoaren sorlekuak Sirian eta Egipton Gizarte Siriakoaren eremu osoa hartzen du, eta desplazamendua txiki samarra da.

Gizarte Indikoa. Aztertu behar dugun hurrengo gizarte bizia Hindua da, eta hemen ere aurkitzen ditugu atzean, horizonteaz harantzago, lehenago gizarte bat izan zelako seinale tipikoak. Estatu unibertsala kasu honetan Gupta Inperioa da (*circa* K.o. 375-475). Eliza unibertsala hinduismoa da, budismoa kanporatu eta ordezkatzuz Gupta-aroan Indian nagusitasuna lortu zuena, budismoa zazpi bat mendez nagusi izan ondoren bi erlijioen sehaska komuna izandako azpikontinentean. Gupta Inperioa erortzean gain hartu zion Völkerwanderung-a eurasiar estepako hunoengandik etorri zen, aldi berean Erromatar Inperioari eraso egiten ari zirelarik. Haien ekintzek eta Gupta Inperioaren ondorengo estatuen bizitzak hartzen duten interregnoa K.o. 475-775 artekoa da gutxi gorabehera. Orduz geroztik hasi zen Hindu Gizartea sortzen, oraindik bizi dena. Sankara, hindu-filosofiaren aita, K.o. 800. urte inguruan loratu zen.

Atzerago jotzen badugu gizarte zaharragoaren bila, zeinen filiala baitzen Hindu Gizartea, eskala txikiagoan baina Gizarte Siriakoaren bilaketa zaildu zigun fenomeno bera aurkitzen dugu, sarraldi helenikoa, alegia. Indian sarraldi heleniko hau ez zen hasi Alexandroren kanpaina bezain goiz, honek Indiako kulturen izandako eraginari dagokionez ez zuelarik ondorio iraunkorrik izan. Benetako sarraldi helenikoa Indian Demetrioren, Baktriako errege greziarraren, sarraldiarekin hasten da, K.a. 183-182 inguruan, eta partzialki helenizaturiko azken artotzaren suntsiketarekin bukatzen da K.o. 390ean, hau har daitekeelarik Gupta Inperioaren ezarpenaren gutxi gorabeherako datatzat. Gizarte Siriakoaren arrastoan jarri gintuzten lerroei jarraituz, Indian bilatu behar dugu, Asiako hego-mendebaldean egin genuen bezala, estatu unibertsal preheleniko bat, haren jarraipen post-helenikotzat hartu ahal izateko Gupta Inperioa, eta kasu honetan Mauriarren Inperioan aurkitzen dugu hori, K.a. 323an Txandraguptak ezarria, hurrengo mendean Asoka enperadorearen erregealdiak ospetsu eginga eta Pushyamitra usurpatzaileak K.a. 185ean desagertarazia. Inperio honen atzean arazoaldia aurkitzen dugu, toki-estatuaren arteko gerra suntsigarriez josia, eta bere iraunaldian Sidarta Gautama Budaren bizitza barne-hartzen duena. Gautamaren bizitza eta bizitzarekiko jarrera dira frogarik garbiena hari zegokion gizartea garai hartan bide txarrean zegoela erakusteko; eta frogak hau berretsi egiten du haren garaikide eta jainismoaren sortzaile izan zen Mahaviraren bizitzak eta ikuspegiak, baita Indian belaunaldi bereko ziren beste batzuen bizitzak ere, mundu honetatik aldendu eta aszetismoaren bidez beste baterako bidea aurkitu nahian baitzebiltzan. Honen guztiaren hondorik, arazoaldi honen atzean, hazkundealdia sumatzen dugu, bere aztarna Vedetan utzi duena. Eta horrela identifikatu dugu Hindu Gizartearen guraso den gizartea; dei dezagun Indikoa. Gizarte Indikoaren sorlekua Indus eta Goi Gangesen haranetan aurkitzen zen, eta handik zabaldu zen azpikontinente osora. Hortaz, haren kokapen geografikoa aurrekoarenaren berdina da ia.

Gizarte Sinikoa. Geratzen den gizarte bizi bakarraren oinarria daukagu aztertzeke, sorlekua Ekialde Urrunean duen gizarte batena. Hemen estatu unibertsala Tsin eta Han dinastien inperioa da, K.a. 221ean ezarria. Eliza unibertsala mahayana da, budismoaren aldaera bat, bere bidea Han Inperioan egin zuena, honela gaur egungo Ekialde

Urruneko Gizartearen krisalida bilakatuz. Estatu unibertsalaren erori ondorengo Völkerwanderung-a eurasiar estepako nomadengandik etorri zen, hauek K.o. 300. urte inguruan inbaditu zutelarik Han Inperioaren lurraldea, nahiz eta Han Inperioak berak bide egina zion interregno bati ehun urte baino lehenago. Han Inperioaren aurrekarietara jotzen badugu, garbi markaturiko arazoaldia aurkitzen dugu, Txinako historian *chan kwo* «estatu borrokalarien (aldia)» bezala eza-gutzen dena, eta Konfuzio K.a. 479an hil ondorengo bi mende eta erdiak hartzen dituen. Aro honen bi ezaugarriek —gobernu-arte suizidak eta bizitza praktikoen filosofiara zuzenduriko adimen-bizitasunak— historia helenikoaren denboraldi bat gogorarazten dute: estoizismoa sortu zuen Zenon-en garaiaren eta arazoaldi helenikoa bukarazi zuen Aktiumgo guduaren bitarteko denboraldia. Hala ere, kasu honetan, beste hartan bezala, arazoaldiko azken mende hauek lehentxeago hasitako desantolaketaren gailurra baino ez ziren izan. Konfuzio-osteko aroan iraungi zen militarismoarenugarra jadanik piztuta zegoen Konfuziok giza arazoei neurria hartu baino lehen. Filosofo haren mundu-jakintzak eta haren garaikide zen Lao Tse-ren beste munduko kietismoak frogatzen dute biak ohartu zirela, beren gizartearen historian, hazkundealdia atzera gelditu zela jadanik. Zer izen emango diogu gizarte hari, zeinen iraganari Konfuziok begirunez so egiten baitzion, Lao Tsek bizkarra ematen zion bitartean, Kristauk Suntsiduraren Hiritik⁵ irteterakoan bezala? Agian egokia litzateke gizarte honi Sinikoa deitzea.

Mahayanak —eliza honen bidez iritsi zen Gizarte Sinikoa Ekialde Urruneko egungo Gizartearen guraso izatera— Kristau Elizaren antza du, eta Islamaren eta hinduismoaren antzik ez, puntu honetan: bera sortu zuen bizi-hazia ez zen gero bere papera jokatu zuen gizartean bertan sortua, beste nonbaitetik etorria baizik. Dirudienez, mahayana lurralde indikoetan sortu zen, Baktriako greziar erregeen eta haien ondorengo erdihelenikoen, Kusan-en, mende zeuden lurraldeetan, eta zalantzarik gabe Tarim arroko Kusan probintzietan zegoen sustraitua, non Kusanak aurreko Han dinastiaren ondorengoak izan baitziren, ondorengo Han dinastiak probintzia hauek berriro konkistatu eta beretu baino lehen. Ate honetatik sartu zen mahayana mundu sinikoan eta gero proletalgo sinikoak bere premietara egokitu zuen.

Gizarte Sinikoaren sorlekua ibai Horiaren arroa izan zen, eta handik zabaldu zen Yangzi-ren arrora. Bi arro hauek Ekialde Urruneko Gizartearen sorlekuan sartuta zeuden, hego-mendebalderantz hedatu zelarik Txinako kostan zehar, baita ipar-ekialderantz ere, Korea eta Japoniara.

«*Fosilak*» (ikus 43-44. orr.). Gizarte bizien filiazioak ikertuz orain arte lorturiko informazioak gai egingo gaitu «fosilak» bereizteko eta hasieran zein gizartetakoak izan ziren esateko, orain desagertuta dauden arren. Juduak eta parsiak Gizarte Siriakoaren fosilak dira, mundu siriakoan izandako sarraldi helenikoaren aurretiko gizartekoak. Kristau monofisita eta nestoriotarrak Gizarte Siriakoak sarraldi helenikoaren aurka izandako erreakzioaren erlikiak dira, jatorriz erlijio siriako bat izandakoaren helenizazioaren aurka elkarren segidako eta aldizkako protestak. Indiako jainak eta Zeilan, Birmania, Thailandia eta Kanbodiako hinayaniar budistak Mauriar Inperioaren garaiko Gizarte Indikoko fosilak dira, mundu indikoan sarraldi helenikoa izan baino lehenagokoak. Tibet eta Mongoliako budista mahayaniar lamaistak nestoriotarrei dagozkie. Hauek mahayaniar budismoak jatorrizko forma indikotik geroagoko formara —eragin heleniko eta siriakoez moldeaturikora— izan zuen itxuraldaketaren kontra arrakastarik gabeko erreakzioa adierazten dute, azkenean forma hone-tan bereganatu zuelarik Gizarte Sinikoak.

Fosil hauetako bakar batek ere ez digu arrastorik ematen gure gizarte-zerrendari ezer gehitzeko, baina gure baliabideak ez daude agortuta. Joan gaitezke atzerago iraganean eta espezimen bizien gurasotzat identifikatu ditugun gizarteetako batzuentzat «gurasoak» aurkitu.

Gizarte Minoikoa. Gizarte Helenikoaren atzean argi eta garbi sumatzen dira aurrez beste gizarte bat izandako seinaleak. Estatu unibertsala itsas inperioa da, Kretako base batetik Egeo itsasoaren kontrolean oinarritua, eta honek izen bat utzi zuen greziar tradizioan —«Minosen talasokrazia» (itsas agintea)—, baita marka lurrazalean ere, Knosos eta Festos-en oraintsu hondeaturiko jauregien goren geruzetan. Estatu unibertsal honen ondorengo Völkerwanderung-a, poesia tradizionalaren alkimiak oso transmutatua, greziar literaturako monumenturik zaharrenak diren *Iliadan* eta *Odisean* ikus daiteke, eta halaber zerbait sumatzen dugu —zalantzarik gabe, gertaera historikoen

antz handiagoko zerbait erakusten digute— Egiptoko hemezortzigarren, hemeretzigarren eta hogeigarren dinastien garaiko erregistro ofizialetan. Badirudi Völkerwanderung hau Egeoko europar *hinterland*-etik barbaroek —akeoek eta antzekoek— egindako oldarraldiarekin hasi zela, itsasorantz jo eta Kretako talasokrazia bere elementuan menderatu zutelarik. Haien lanaren froga arkeologikoa Kretako jauregien suntsiketa da, arkeologoek «Beranduko Minoikoa II» deitzen duten aroaren bukaerakoa. Mugimendua giza uholde moduko batez burutu zen eta orduan Egeoko herriek, garaile eta garaituak era berean, Hatiren (hititen) Inperioa zanpatu zuten Anatolian, eta eraso egin zioten Egiptoko «Inperio Berriari», baina ezin izan zuten desegin. Adituen arabera, Knossos-en suntsiketa K.a. 1400 inguruan gertatu zen eta Egiptoko erregistroetan oinarrituz esan dezakegu «giza uholdea» K.a. 1230 eta 1190 bitartean izan zela. Honela, K.a. 1425-1125 bitartean jar genezake interregno hau.

Gizarte zaharrago honen historia aurkitu nahian ari garenean, oztopo egiten digu Kretako idazkera irakurtzeko dugun ezintasunak, baina arkeologi frogek aditzera ematen dutenez, Kretan garaturiko zibilizazio material bat bat-batean hedatu zen Egeo itsasoan zehar Argolidan barrura K.a. hamazazpigarren mendean eta puntu hartatik pixkanaka Grezia kontinentalaren beste alde batzuetara zabaldu zen ondorengo bi mendeetan. Halaber, bada frogarik Kretako zibilizazioa lehenago Neolitiko-aroan ere bazela esateko. Gizarte honi Minoikoa deituko diogu.

Baina bidezkoa ote zaigu Gizarte Minoikoa eta Helenikoa elkarren ahaidetzat hartzea, Gizarte Helenikoa eta Mendebaldekoa bezala edo identifikatu ditugun beste gizarte «guraso» eta «filialak» bezala? Beste kasu hauetan bi gizarteen arteko lotura soziala eliza unibertsal bat izan da, gizarte zaharreko barne-proletalgoak sortua eta gero krisalidaren zeregina bete duena, bere barruan eratu baita gizarte berria. Baina ez dago ezer minoikorik panhelenismoaren adierazpide nagusian, olinpiar panteoian, alegia. Panteoi honek bere forma klasikoa Homeroren poema epikoetan hartu zuen, eta hemen barbaroen irudira egindako jainkoak ikusten ditugu, mundu minoikoaren gain jaitsiak bera suntsitu zuen Völkerwanderung-ean. Zeus gerra-jaun akeoa da, Olinpon usurpatzaile gisa erreinatzen duena, bere aurreko Kronos indarrez ordeztu eta unibertsoaren hondarrak banatu dituen,

urak eta lurra bere anaia Poseidon eta Hadesi emanez eta zerua bereztzat gordez. Panteoi hau akeoa eta postminoikoa da erabat. Erlijio minoikoaren isla bat ezin dugu ikusi gabeturiko jainkoetan ere, zeren eta Kronos eta Titan-ak Zeus eta honen gerra-taldearen izate-maila berekoak baitira. Honek barbaro teutoniko gehienek, Erromatar Inperioan beraien sarraldiak hasi baino lehen, bazter utzi zuten erlijioa gogorarazten digu: Eskandinaviako ahaideek gorde eta findu zuten erlijioa, baina hauek ere beren Völkerwanderung-ean («iparraldekoen» sarraldietan) baztertu zutena bospasei mende geroago. Gizarte Minoikoan barbaroen jende-oldea gainera etorri zenean eliza unibertsalaren antzeko zerbait baldin bazegoen, kristautasuna Odin eta Thor-en kultuarekiko bezain desberdina izango zen hura ere olinpiarren kultuaren aldean.

Izan al zen horrelakorik? Gai honetan jakitunik handiena denaren iritziz, badira baiezekoaren aldeko adierazgarri txiki batzuk:

«Kretako kultu zaharraren datuak irakurri ahal izan diren neurrian, ikus dezakegu ez bakarrik nagusi den muin espiritualak, baita azken bi mila urteotan ekialdeko erlijioei —iraniar, kristau eta islamikoari— atxikitakoak mugitu dituen fedearen antzeko zerbait ere haren jarraitzaileengan. Espiritu dogmatikoa inplikatzan du gurtzailearengan, ikuspegi helenikotik oso aldendua... Oro har, antzinako greziarren erlijioarekin alderatuz, muin espiritualagoa zuela esan daiteke. Beste alde batetik, eragin pertsonalagoa zuen. ‘Nestor-en Eraztunean’, non birsortzearen ikurrak haren buru gainean ikusten diren krisalida eta tximeleta eran, berak (jainkosak) bere gurtzaileei hilobiz harantzago bizia emateko ahalmena du argi eta garbi. Bera gurtzaileengandik oso hurbil dago... Bere seme-alabak hilobiz harantzago ere zaintzen zituen... Greziar erlijioak bere misterioak zituen, baina bi sexuetako greziar jainkoak, gutxi gorabehera parean zeudenak, ez zeuden inola ere kultu minoikoaren aztarnek adierazten duten bezain harreman pertsonal estuan. Haien arteko banaketa, famili eta klan-liskarrek markatua, beraien forma eta atributu-aniztasuna bezain nabarmena zen. Honi kontrajarrita, mundu minoikoan, etengabe agertzen da berririo jainkosa nagusia dirudiena... Konklusio orokorra zera da, oso monoteista zen kultu baten aurrean gaudela, eta bertan jainkotasunaren forma femeninoak hartzen zuela leku nagusia»⁶.

Bada gai honi buruzko daturik tradizio helenikoan ere. Kretan «Zeus» bati buruzko kondaira gorde zuten greziarrek, baina benetan ezin izan jainko bera Olinpoko Zeus eta hura. Kretako Zeus hau ez da gerra-talde baten buruzagia, agertokira erabat hazia eta guztiz armatua datorrena bere erresuma indarrez hartzeko. Haurtxo jaio berria bezala agertzen da. Arte minoikoan agertzen den haurra bezalakoxea da agian, Jainko Amak eutsia gurtu dezaten. Eta ez da jaio bakarrik egiten... hil ere bai! Haren jaiotza eta heriotza, Dionisosen jaiotzan eta heriotzan berregin ote ziren, Traziako jainko honekin identifikatzera iritsi zelarik Eleusisko misterioetako jainkoa? Grezia Klasikoko misterioak, murgildutako gizarte baten erlijiotik bizirik geratutakoak ote ziren, sorginkeria Europa Modernoan bezala?

Kristandadeak lur jo izan balu bikingoekin —hauen agintepean eroriz eta hauek bere federa konbertitzea lortu gabe—, meza gizarte berri baten lurrazpian mende askotan misterioski emana imajina dezakegu, erlijio nagusia Ases (Aesir)-en kultua izango zelarik. Imajina dezakegu gizarte berri hau, erabat garatuta, Eskandinaviako barbaroen erlijioan satisfakziorik aurkitu ezinik eta gizarte berria pausaturik zegoeneko lurrean bizitza espiritualaren ogi bila. Gose espiritual horrekin, erlijio zaharrago baten gerakina kanpora bota ordeztu —gure Mendebaldeko Gizarteak sorginkeria, Elizaren arreta bereganatu zuenean, kanporatu zuen bezala— berraurkitu egin zitekeen altxor ezkutua bailitzan; eta erlijio-jeinuren batek ase egin zitzakeen bere garaiko premiak finlandiar eta magiar jatorriko orgia barbaro berriekin murgildutako kristau-erritoaren konbinazio exotikoa eginez.

Analogia honen gainean mundu helenikoaren benetako erlijio-historia berregin genezake: Eleusisko misterio zahar eta tradizionalen suspertzea eta orfismoaren asmakuntza —Nilssonen arabera, «erlijio espekulatiboa, erlijio-jeinuren batek sortua»— Traziako Dionisosen orgien eta Kretako Zeusen jaiotza eta heriotzaren misterio minoikoen arteko sinkretismotik. Zalantzarik gabe, bai Eleusisko misterioek eta bai Eliza Orfikoak, behar zuen baina olinpiarren kultuan aurkitu ezin zuen euskarri espiritualak eman zioten Gizarte Helenikoari aro klasikoan, beste mundu bateko espiritua, arazoaldian aurkitzea esperoko genukeena bezalakoa, barne-proletalgoek beheraldian sorturiko eliza unibertsalen ezaugarritzat jotzen dugun espiritua.

Analogia hauetan oinarrituz, ez da amets hutsa misterioetan eta orfismoan eliza unibertsal minoiko baten arima sumatzea. Halaz guztiz, espekulazio hau egia izatea gertatuta ere (eta hau zalantzan jartzen da liburu honetan geroagoko pasarte batean, orfismoaren jatorriak aztertzen direnean⁷⁾), horrek nekez emango liguke eskubiderik Gizarte Helenikoa benetan bere aurrekoaren filialtzat hartzeko. Zeren eta, zergatik beharko luke eliza honek hilen artetik altxatu, aurrez ez balute hil behintzat? Eta nor izango zen horren hiltzaile mundu minoikoa azpian hartu zuten barbaroak izan ezik? Akeo hiltzaile eta «hiri-lapurren» panteoia beretzat hartzean, Gizarte Helenikoak bere gurasotzat aldarrikatu zituen adopzioz. Ezin zuen bere burua Gizarte Minoikoaren filialtzat hartu, akeoen erruduntasun odoltsua bere gain hartu eta bere burua parrizidatzat aldarrikatu gabe.

Gizarte Siriakoaren oinarri itzultzen bagara orain, Gizarte Helenikoaren oinarrian aurkiturikoa aurkituko dugu: estatu unibertsala eta Völkerwanderung-a, historia minoikoaren azken ataletan agertzen diren berberak. Völkerwanderung postminoikoaren azken asaldura sustraigabeko jende-olde ibiltari batena izan zen bizileku berrien bila, iparraldetiko barbaroen, dorioak deritzanen, azken etorrialdi oldartsuak nahasian harat-honat eramanean. Egiptotik bidaliak, errefuxiatu hauetako batzuk Egiptoar Inperioaren ipar-ekialdeko kostan ezarri ziren eta guk Itun Zaharreko narrazioetako filistear bezala ezagutzen ditugu. Han mundu minoikotik joandako filistear errefuxiatuek hebrear nomadekin topo egin zuten, hauek Arabian «inorena ez zen lurretik» Egiptoko siriar kolonietara sartuak zirelarik. Iparralderago, Libanoko mendi-lerroak muga jarri zion aramear nomaden aldebereko infiltrazioari eta babesa eman zien kostako feniziarrei, filistearren eragina jasan eta bizirik irauten moldatu zirenei. Elementu hauetatik, asaldura bukatu zenean, gizarte berri bat sortu zen, Siriakoa.

Gizarte Siriakoa espezieko kide zaharragoren batekin ahaideturik egon bazen, Minoikoarekin egon zen, eta hau Helenikoa Minoikoarekin ahaidetuta egon zen maila berean, ez gehiago eta ez gutxiago. Gizarte Siriakoak Minoikotik jasotako herentzia bat alfabetoa izan zitekeen (baina ez da gauza ziurra); beste bat, itsasaldi luzeak egiteko zaletasuna.

Lehen begiratuan harrigarria gertatzen da Gizarte Siriakoa Minoikotik etortzea. Lehenago espero zitekeen Gizarte Siriakoaren

atzeko estatu unibertsala Egiptoko «Inperio Berria» izatea eta juduen monoteismoa Akenaton-en monoteismoaren berpiztea izatea; baina datuak kontra daude. Halaber, ez dago daturik iradokitzeke Gizarte Siriakoa ondorengo hauek ordezkaturiko gizartearen filiala izan zela: Hatiren (hititen) Inperioak Anatolian, eta Ur-eko sumertar dinastiak eta honen ondorengo Babiloniako amorriten dinastiak; oraintxe aztertuko ditugu gizarte hauek.

Gizarte Sumerikoa. Gizarte Indikoaren oinarrietara itzultzen garenean, harritzen gaituen lehen gauza Veden erlijioak, olinpiarren kultuak bezala, barbaroen artean Völkerwanderung batean sortutako arrastoak izatea da, eta ez izatea gain behera doan gizarteko barne-proletalgoak arazoaldian sorturiko erlijioaren batere bereizgarririk.

Kasu honetan, barbaroak Indiako ipar-mendebaldean historia indikoaren egunsentian agertzen diren arioak ziren, hain zuzen ere Egeoa historia helenikoaren egunsentian akeoak agertzen diren bezalaxe. Gizarte Helenikoak Minoikoarekin zuen erlazioaren analogiaz, Gizarte Indikoaren atzean estatu unibertsalen bat aurkitzea espero beharko genuke, bere mugaz harantzago «inorena ez zen lur batekin», non arioen arbasoak egongo ziren kanpo-proletalgo bezala bizitzen, estatu unibertsala erortzeak han sartzeko aukera eman arte. Identifika ote daiteke estatu unibertsal hori eta «inorena ez zen lur hori» aurkitu? Agian lortuko dugu galdera hauei erantzutea aurrez beste bi galdera eginez: Nondik aurkitu zuten arioek Indiako bidea? Eta, erdigune beretik abiatuz, iritsi ote zen haietako inor beste helmugaren batera?

Arioek hizkuntza indoeuropar bat hitz egiten zuten; eta hizkuntz talde honen banaketa historikoak —talde bat European eta beste Indian eta Iranen— erakusten du arioak eurasiar estepatik sartuko zirela Indiara, ondorengo askok jarraituriko bideetan aurrera, turkiar inbaditzaileak barne: Mahmud Gaznakoa hamaikagarren mendean eta Baber, Mughal (Mogolen) Inperioaren sortzailea, gure aroko hamaiegarren mendean. Nolanahi ere, turkiarren sakabanaketa aztertzen dugunean, haietako batzuk hego-ekialderantz Indiara joan zirela aurkitzen dugu eta beste batzuk hego-mendebalderantz, Anatolia eta Siriara. Mahmud Gaznakoaren garaikide izan ziren, adibidez, seleukotar turkiarren inbasioak, gure Mendebaldeko Gizartearen gurutzada-kontraerasoa eragin zutenak. Antzinako Egiptoko erregistroek frogatzen dutenez, K.a. 2000-1500 bitartean arioek, turkiarrak hiru mila

urte geroago sartu ziren lekura eurasiar estepatik indarrez sartzean, turkiarrei aurrea hartu zieten ondorengo sakabanaketan. Batzuek, indiar iturrietatik dakigunaren arabera, Indian sartu ziren bitartean, beste batzuek Iran, Irak, Siria eta azkenik Egipto hartu zituzten azpian, eta azken honetan K.a. hamazazpigarren mendean gerra-jaun barbaroen agintea ezarri zuten Egiptoko historian hikso izenez ezagutzen direnek.

Zerk eragin zuen arioen Völkerwanderung-a? Beste hau galde-tuz erantzun diezaiokegu: Zerk eragin zuen turkiarren Völkerwan-derung-a? Azken galdera honen erantzuna erregistro historikoak ematen du: Abbastar Kalifaldia erortzeak; eta turkiarrak bi norabideetan barreiatu ziren, hiltzen ari zen Abbastar Inperioaren gorputzak harra-pakina eskaini zielako bai bere sorlekuetan bai Indus haranean urrutiko dependentsian. Azalpen honek ematen al digu arrastorik arioen sakabanatzea ulertzeko? Ematen digu, bai; zeren eta, Hego-mende-baldeko Asiaren mapa politikoari begiratzen badiogu K.a. 2000-1900 inguruan, estatu unibertsal batek okupatua aurkitzen dugu, eta hau, Bagdadeko Kaliferria bezala, Irakeko hiriburu batetik gobernatua zegoen, bere lurraldeak norabide berberetan hedatzen zirelarik erdi-gune beretik.

Estatu unibertsal hori Sumer eta Akadeko Inperioa zen, Ur-ko Ur-Engur sumertarrak K.a. *circa* 2298an ezarria eta Hamurabi amon-ritak K.a. *circa* 1947an berrezarria. Hamurabi hil ondoren inperioa erori egin zen eta arioen Völkerwanderung-aldia etorri zen gero. Ez dago frogaz zuzenik esateko Sumer eta Akadeko Inperioa Indiaraino hedatu zela, baina aukera hori iradokitzen du oraintsu Indus haranean lurpetik atera den kulturak (lehenengo arakatu diren bi lekuetan K.a. *circa* 3250etik *circa* 2750era datatua), eta kultura hau estu lotua zegoen Irakeko sumertarrenarekin.

Identifika al dezakegu gizarte hori, zeinen historian izan bai-zen estatu unibertsal Sumer eta Akadeko Inperioa? Inperio honen aurrekariak aztertuz, arazoaldi baten frogak aurkitzen ditugu, bertan Sargon Agadekoa, akadiaz militarista, figura nabarmena izan zelarik. Atzerago hazkunde- eta sorkuntza-aldia aurkitzen dugu, Ur-en berriki egindako indusketek argitu duten aldia. Ez dakigu K.a. laugarren milurtekoan barrura edo harantzago noraino iristen zen aro hau. Orain identifikaturiko gizarteari Sumerikoa dei dakioko.

Gizarte Hitita eta Babilonikoa. Gizarte Sumerikoa identifikatu ondoren, beste bi identifikatzeari ekin diezaiokegu, baina oraingoan ez beranduagokotik goizagokora joanez, alderantziz baizik.

Zibilizazio Sumerikoa Anatoliako penintsularen ekialdera hedatu zen, gero Kapadozia deitutakora. Arkeologoen Kapadozian aurkitutako buztinezko xaflatxoek, idazkera kuneiformean inprimatuta negozio-agiriak dituztenek, frogatzen dute hori. Hamurabi hil ondoren, estatu unibertsal sumerikoak lur jo zuenean, ipar-mendebaldetik etorritako barbaroen hartu zituzten Kapadoziako probintziak, eta K.a. 1750 inguruan, alde hartan ondorengo estatu nagusiko gobernari zen Mursil I Hatiko erregeak inbaditu eta arpilatu zuen Babilonia bera. Inbaditzaileak erretiratu egin ziren beren harrapakinarekin eta beste barbaro batzuek, Irango kasitek, beren agintea ezarri zuten Iraken, sei mende iraun zuelarik. Hati Inperioa Gizarte Hitita baten gune izatera iritsi zen; berari buruz dugun ezagutza osagabea, Egiptoko errege-estatik datorkigu batez ere, herrialde harekin hititak gerran egon baitziren etengabe Tutmosis III.ak (K.a. 1480-1450) egiptoarren agintea Siriara zabaldu ondoren. Dagoeneko aipatu dugu Kretako Inperioa azpiratu zuen Völkerwanderung berak suntsitu zuela Inperio Hitita. Badirudi hititek sumertarren igartze-sistema bereganatu zutela, baina erlijioa berena izan zuten, baita idazkera piktografikoa ere, zeinetan bost hizkuntza hitita desberdin erregistratu baitziren gutxienez.

Beste gizarte bat, hau ere Sumerikoaren ahaide, agertu zen argitara K.a. hamabosgarren mendeko egiptoar errege-estaten bidez, Gizarte Sumerikoaren sorlekuetan: Babilonian, non kasiten aginteak K.a. hamabigarren menderaino iraun baitzuen, Asirian eta Elamen. Beranduko gizarte honek lurralde sumerikoan izandako erakundeek alde askotatik hain antz handia dutenez aurreko Gizarte Sumerikoan izandakoa, zalantzazkoa da gizarte berezitat hartu behar den ala Sumerikoaren epilogotzat. Hala ere, dudaren onura emango diogu eta Gizarte Babilonikoa deituko diogu. Bere azken fasean, K.a. zazpigarren mendean, gizarte honek latz sufritu zuen ehun urteko gerran, bere baitan zertua, Babiloniaren eta asiriarren aginte militarren artean. Gizarte Babilonikoak bizirik iraun zuen Asiria suntsitu ondoren hirurogeita hamar urtez, eta azkenean Ziroren Akemenestar Inperioko estatu unibertsalak irentsi zuen. Hirurogeita hamar urteotan Nabukodonosorren erreinaldia eta juduen «Babiloniako gati-
bual-

dia» gertatu ziren, eta hauei zerutik etorritako askatzailea iruditu zitzaien Ziro.

Gizarte Egipziakoa. Garrantzi handiko gizarte hau Niloren beheko haranean sortu zen K.a. laugarren milurtekoan eta kristau-aroa bosgarren mendean desagertu zen, gure Mendebaldeko Gizarteak orain arte iraun duena baino hiru aldiz gehiago iraun ondoren, hasieratik bukaeraraino. «Gurasorik» ez zuen izan, eta ondorengorik ere ez; ez dago gizarte bizirik hura bere arbasotzat har dezakeenik. Bilatu zuen eta harrian aurkitu zuen hilezkortasuna da arrakastarik handienekoa. Litekeena da piramideek, ia bost mila urtez egileen existentziaren lekuko bizigabe izan direnak, oraindik ere ehundaka mila urtetan irautea etorkizunean. Ez da pentsaezina gizakia bera baino luzeago iraun eta beraien mezua irakurtzeko giza adimenik geratuko ez den munduan ere, haiek «Abraham izan baino lehen, ni naiz» aldarrikatuz jarraitzea.

Itzelezko hilobi piramidal hauek, ordea, era batera baino gehiagotan tipifikatzen dute Gizarte Egipziakoaren historia. Lau mila urte baino gehiagoko existentzia ematen diogu gizarte honi, baina denboraldi horren erdia Gizarte Egipziakoa ez zen erakunde bizia izan, hildakoa baizik, baina lurperatu gabea. Historia egipziakoaren erdia baino gehiago epilogorraldoia da.

Historia horri jarraitzen badiogu, ohartuko gara bere bizialdiaren laurdena baino gehixeago hazkundealdia izan zuela. Kemena agertu zuen, lehenik benetan ikaragarria zen ingurune fisikoa menderatzen —hasieran Niloren beheko haranean eta deltan zeuden eta giza-kiari bizitzen uzten ez zioten baso-zingirak garbitu, lehortu eta lantzen—; gero, kemen hori gehituz joan zen mundu egipziakoaren batasun politiko goiztiarrean Dinastiaurreko Aroa delakoaren bukaeran eta laugarren dinastiako lan material zoragarrietan iritsi zen gailurrea. Dinastia honek puntu gorena markatzen du Gizarte Egipziakoaren ezaugarri diren lorpenetan: giza lanaren koordinazioa injinerutzako zeregin handietan, zingirak berreskuratzetik hasi eta piramideen eraikuntzaraino doazenak. Politika-administrazioan eta artean ere maila gorena lortu zen. Erlijioaren arloan ere, non jakinduria sufrimendutik sortu ohi baita, «piramide-testuek» zera erakusten dute: aro honek ikusi zuela halaber bi erlijio-mugimenduen —Eguzkiaren eta Osirisen kultuen— arteko elkarrekintzaren sorrera, aurkakotasuna eta lehen

etapa, Gizarte Egipziakoa beheraldian sartu ondoren iritsi zirelarik beren heldutasunera.

Une gorena igaro eta beheraldia hasi zen bosgarren dinastiatik seigarrenerako trantsizioan, *circa* K.a. 2424an, eta puntu honetan has- ten gara gu beheraldiaren sintoma ezagunak ikusten, beste gizarte batzuen historian agertu izan zaizkigun ordenan. Erresuma egipziako batuaren hausturak —elkarren aurka etengabe gerran zeuden hainbat estatu txikitan hautsi ere— arazoaldiaren marka nahastezina darama. Arazoaldi egipziakoari, K.a. 2070 inguruan, estatu unibertsal batek jarraitu zion, Tebasko bertako dinastiak sortua eta hamabigarren dinastiak finkatua, *circa* K.a. 2000-1788an. Hamabigarren dinastiaren ondoren, estatu unibertsalak behea jo zuen, eta ondorengo interregno- ak bere Völkerwanderung-a ekarri zuen hiksoen inbasioarekin.

Hemen gizarte honen bukaera ikus genezake, beraz. Gure ohiko azterketa-prozedurari jarraitu bagenio eta kristau-aroko bosga- rren mendetik atzerantz egin izan bagenu lan, ziur aski puntu honetan gelditu eta esango genukeen: «Kristoren ondorengo bosgarren men- deko azken hanka-arrasto deseginkorretatik, hogeita bat mendez, atze- rantz jarraitu diogu historia egipziakoari, eta Völkerwanderung-arekin topo egin dugu estatu unibertsalaren atzetik. Gizarte Egipziakoari bere sorbururaino jarraitu diogu eta bere hastapenez harantzago aurre- ragoko gizarte baten azken muturra begiztatu dugu, ‘Nilotikoa’ deitu- ko duguna».

Uko egingo diogu bide hori hartzeari, zeren eta, orain gure ikerketa aurrerantz egiten badugu, ez baitugu aurkituko gizarte berri bat, zerbait oso desberdina baizik. «Ondorengo estatu» barbaroa erai- tsi egin zuten; hiksoak kanporatu; eta estatu unibertsala, Tebasen zuen hiriburuarekin, berriro ezarri, ohartuki eta berariaz.

Berrezartze hau izan zen, gure oraingo ikuspuntutik, historia egipziakoan gertaera esanguratsu bakarra (porrot egin zuen Akenatonen iraultza izan ezik) K.a. hamaseigarren mendearen eta K.o. bosgarrenaren artean. Estatu unibertsal honen iraunaldiak, behin eta berriro eraitsia eta berriro ezarria, bi milurteko hauek osorik har- tzen ditu. Ez dago gizarte berririk. Gizarte Egipziakoaren erlijio-his- toria aztertzen badugu, ohartuko gara han ere, interregnoaren ondo- ren, aurreko beheraldiko gutxiengo menderatzaileagandik hartutako erlijioa gailendu zela. Hala ere, ez zen borrokarik gabe gailendu, eta

lehenengo bere maila ziurtatu zuen eliza unibertsal batekin —aurreko beheraldian barne-proletalgo egipziakoak Osirisen erlijiotik abiatuz sorturiko elizarekin— adostasunera iritsiz.

Osirisen erlijio hau Deltatik etorri zen, ez Goi Egiptotik, non egin baitzen Gizarte Egipziakoaren historia politikoa. Egiptoko erlijio-historiaren hari nagusia izaera lurtar eta lurpetarra —landarediaren espiritua, txandaka lur gainean azaldu eta azpian desagertzen dena— duen jainko honen eta Zeruko eguzki jainkoaren arteko lehia da, eta teologi gatazka hau bi kultuak sortu ziren gizarteko bi zatien arteko gatazka politiko eta sozialari lotua zegoen, eta beronen adierazpen teologikoa zen, izan ere. Ra eguzki jainkoaren kultua Heliopoliseko apaizeriak kontrolatzen zuen, eta faraoiaren irudira pentsatua zegoen Ra, Osirisen kultua erlijio herrikoa zen bitartean. Estatu-eliza ezarriaren eta erlijio herrikoiairen arteko gatazka zen, azken honek banako sineslea erakartzen zuelarik.

Beren jatorrizko forman bi erlijioen arteko desberdintasun erabakigarria hil ostean bakoitzak bere jarraitzaileei eskaintzen zien etorkizunean zegoen. Osirisek lurpeko mundu itzaltsuan gobernatzen zituen hildako jendetzak. Rak heriotzatik erosten eta zerura jasotzen zituen bizirik bere jarraitzaileak zerbait ordainduta. Baina apoteosi hau prezioa ordain zezaketenentzat zen, eta prezioa etengabe igotzen zen, azkenean eguzki-hilezkortasuna faroiaren eta bere gorteko zenbait kideren —zeinen hilkezkortasun-ekipamenduan parte hartzea erabakia baitzuen hark— monopolio izatera iritsi zen arte. Piramide Handiak arkitektura-bikaintasunaren bidez hilezkortasun pertsonala ziurtatzeko ahaleginaren monumentuak dira.

Bitartean aurrera egiten zuen Osirisen erlijioak. Hark eskaintzen zuen hilezkortasuna agian gauza gutxi izango zen Raren zeruan egotearen aldean, baina masek espero zezaketen kontsolamendu bakkarra zen, bizitza honetan zapalkuntza suntsitzailearen mende baitzeuden nagusiei betiko zoriona ziurtatzeko. Gizarte Egipziakoa banatzen ari zen gutxiengo menderatzailearen eta barne-proletalgoaren artean. Arrisku honen aurrean, Heliopoliseko apaizak Osiris kaltegabeko bihurtzen saiatu ziren hura bazkide eginez, baina transakzio honetan Osirisek arrakasta izan zuen eta berak eman baino gehiago hartu zuen. Faraoiaren eguzki-kultuan sartu zenean, apoteosiaren eguzki-erritoa gizadi osoarentzat harrapatu zuen. Erlijio-sinkretismo honen monu-

mentua Hildakoen Liburua delakoa da —«Edonorentzako hilezkortasun-gida»—, eta hau nagusi izan zen Gizarte Egipziakoaren erlijio-bizitzan «epilogoko» bi milurtekoetan. Rak piramideak baino gehiago zuzentasuna eskatzen zuelako ideia nagusitu zen, eta Osiris epaile gisa agertzen da lurpean, Lurrean izandako bizitzaren arabera bakoitza merezi duen destinora esleituz.

Hemen, estatu unibertsal egipziakoaren azpian, barne-proletalgoak sorturiko eliza unibertsal baten ezaugarriak sumatzen ditugu. Zein izango zen Osirisen eliza honen etorkizuna, Egiptoko estatu unibertsal egipziakoa ez balute berriro ezarri? Bihurtuko ote zen gizarte berri baten krisalida? Lehenik eta behin, hiksoak erakartzen ikustea esperoko genukeen, Kristau Elizak barbaroak erakarri zituen bezalaxe. Baina ez zuen hori egin; hiksoenganako gorrotoak gutxiengo menderatzailearen erlijio hilarekin berezkoa ez zen batasunera eraman zuen, eta prozesu honetan Osirisen erlijioa galbideratu eta degradatu egin zen. Berriro ere hilezkortasuna salgai jarri zen, nahiz eta prezioa ez zen orain piramide bat, baizik eta testu gutxi batzuk papirozko erroiluan. Suposa dezakegu negozio horretan, beste batzuetan bezala, artikulu merke bat irabazi-marjina txikiarekin saldoan ekoizteak irabazirik onenak eman zizkiola manufakturatzaileari. Honela, K.a. hamaseigarren mendean egindako «berrezarkuntza» estatu unibertsala birgaitzea baino zerbait gehiago izan zen; Osirisen Elizaren ehun biziak eta hiltorian zegoen Gizarte Egipziakoaren ehun hilak masa bakar batean nahastu ziren: gizarte-zementu modukoa, desegiteko bi milurteko behar izan zituena.

Gizarte Egipziako berrezarria bizirik gabe zegoelako froga onena, heriotzatik altxatzeko egin zen ahalegin bakarraren erabateko porrota izan zen. Oraingoan gizon bat, Akenaton faraoia saiatu zen bat-bateko keinuz erlijio-kreaziozko ekintza errepikatzen, aspaldi iragandako arazoaldiko mendeetan barne-proletalgoak sorturiko Osirisen Elizak alferrik egin zuena. Jeinuaren jeinuz, Akenatonek Jainkoaren eta gizakiaren, biziaren eta naturaren ideia berria sortu zuen, eta arte eta poesia berrian adierazi zuen hori; baina hildako gizarteak ezin dira honela biziarazi. Haren porrotak frogatzen du bidezkoa zaigula historia egipziakoaren gizarte-fenomenoak K.a. hamaseigarren mendetik aurrera epilogotzat hartzea, eta ez gizarte berri baten sehaskatik hilobirainoko historiatzat.

Andetar, Yucatandar, Mexikar eta Maien Gizarteak. Espainiar konkistatzaileak iritsi aurretik, hemen aipaturiko lau gizarteak dauzka Amerikak. Perun Andetar Gizarteak jadanik lortua zuen estatu unibertsalaren egoera —Inka Inperioa— 1530ean Pizarrok suntsitu zuenean. Mexikar Gizartea antzeko egoerara iristen ari zen, predestinaturiko estatu unibertsala Azteka Inperioa zelarik. Cortes-en espedizio garaian Tlaxcala-ko hiri-estatua zen garrantzi pixka batekin gelditzen zen botere independente bakarra, eta ondorioz tlaxkaltekek Cortes lagundu zuten. Yucatandar Gizartea Yucatanango penintsulan Mexikar Gizarteak bereganatu zuen lauhun bat urte lehenago. Mexikar eta Yucatandar gizarteak biak ziren lehenagoko gizarte baten, Maien Gizartearen, filialak, eta badirudi honek lortua zuela aurrekoek baino zibilizazio goragoko eta gizatiarragoa. Bukaera bizkor eta misterio-tsua izan zuen K.o. zazpigarren mendean, eta bere izatearen aztarna gisa hiri handien hondarrak utzi zizkigun euriz blai eginda Yucatanen dauden oihanetan. Gizarte hau astronomian nabarmendu zen, eta helburu praktikoeekin kronologi sistema bihurtu zuen, oso zehatza bere kalkuluetan. Cortesek Mexikon aurkituriko erlijio-errito beldurgarriak, badirudi maien erlijio zaharraren bertsio zirela, zabarki barbarizatuak.

Honela, gure ikerketak hemeretzi gizarte eman dizkigu, gehienak guraso edo filial bezala beren arteko batekin edo gehiagorekin ahaidetuak: alegia, Mendebaldekoa, Ortodoxoa, Iranikoa, Arabikoa (azken bi hauek Islamikoan baturik daude orain), Hindua, Ekialde Urrunekoa, Helenikoa, Siriakoa, Indikoa, Sinikoa, Minoikoa, Sumerikoa, Hitita, Babilonikoa, Egipziakoa, Andetarra, Mexikarra, Yucatandarra eta Maiena. Zalantzan egon gara Babilonikoari Sumerikotik aparteko izatea aitortzeko, eta beste pareetako batzuk agian gizarte bakuntzat hartu ahal izango lirateke, «epilogo» batekin Egipziakoarekiko analogiaz. Baina errespetatu egingo ditugu horien banakotasunak, bestela jokatzeko arrazoi onik aurkitu arte. Izan ere, ziur aski desiragarria izango da Gizarte Kristau Ortodoxoa, Bizantziar Ortodoxo eta Errusiar Ortodoxo gizarteetan banatzea, eta Ekialde Urrunekoa Txinatar eta Korear-japoniar gizarteetan artean. Honek gure kopurua hogeita batera igoaraziko luke. Azalpen gehiago eta gure prozeduren defentsa hurrengo kapitulurako utziko ditugu.

III. GIZARTEEN KONPARAGARRITASUNA

1.

Zibilizazioak eta gizarte primitiboak

Gure hogeita bat gizarteen konparaketa sistematikoari ekin aurretik, haxe baita liburu honen helburua, *a limine* egin litezkeen eragozpenei aurre egin behar diegu. Proposatzen dugun prozeduraren aurkako lehen argudioa eta sinpleena honela planteatu daiteke: «Gizarte hauek ez dute ezaugarri komunik guztiak ‘azterketa-eremu ulergarriak’ izatea besterik, eta ezaugarri honek, hain zehazgabea eta orokorra denez, ezin du balio praktikorik izan».

Erantzuna da «azterketa-eremu ulergarri» diren gizarteak genero bat direla eta horren barruan gure hogeita bat ordezkariak espezie partikular bat osatzen dutela. Espezie honetako gizarteei normalean zibilizazio deitzen zaie, gizarte primitiboetatik bereizteko, hauek ere «azterketa-eremu ulergarriak» baitira, eta genero honen barruan beste espezie bat, egia esateko, *beste espeziea* osatzen dute. Gure hogeita bat gizarteek, beraz, ezaugarri berezi bat izan behar dute komun: beraiek bakarrik egotea zibilizazio-prozesuan.

Bi espezieen arteko beste diferentzia bat berehala sortzen da bere kabuz. Zibilizazio ezagunen kopurua txikia da. Gizarte primitibo ezagunen kopurua askoz handiagoa. 1915ean Mendebaldeko hiru antropologok, gizarte primitiboen azterketa konparatiboa egin nahi zutelarik eta informazio egokia zeukatenetara mugatuz, 650en bat erregistratu zituzten, gehienak gaur egun bizirik daudenak. Ezinezkoa

da lehen gizakia gizatasunera iritsi zenetik —duela 300.000 urte agian— munduan izan diren eta izateari utzi dioten gizarte primitiboen kopuruaz ideiarik egitea, baina kopuruari dagokionez nabarmena da gizarte primitiboen nagusitasun ikaragarria zibilizazioen aldean.

Banako dimentsioei dagokienez ere, ia aurrekoa bezain handia da zibilizazioen nagusitasuna gizarte primitiboen gainean. Gizarte primitiboak, asko izanda ere, bizialdi labur samarrekoak dira, geografi esparru estu samarretara mugatuak eta gizaki-kopuru txiki samarrak hartzen dituztenak. Gaur egun bizirik dauden bost zibilizazioetako kideen errolda, bizi izan diren mende-kopuru txikian, egin ahal izango bagenu, litekeena da ohartzea gure Leviatanetako bakoitzak, banaka, gizaki gehiago izan dituela, gizarte primitibo guztiek batera giza arraza sortu zenetik bildu dituztenak baino. Hala ere, gu ez gara giza-banakoak aztertzen ari, gizarteak baizik, eta gure helbururako datu esanguratsua zera da, zibilizazio-prozesuan izan diren gizarteen kopurua, dakigun neurrian behintzat, konparatiboki txikia dela.

2.

«Zibilizazio-batasunaren» ideia okerra

Gure hogeita bat gizarte konparagarritasunaren aurkako bigarren argudioa lehenengoaren kontrakoa da. Alegia, ez daudela horrelako gizarte-espezieen hogeita bat ordezkari desberdin, zibilizazio bakarra baizik: geurea.

Zibilizazio-batasunaren tesi hau ideia okerra da, eta honetara beren gizarte-ingurunearen eraginak eraman ditu Mendebaldeko historialari modernoak. Ezaugarri honek nahastarazten ditu: garai modernoetan, gure Mendebaldeko Zibilizazioak mundu osoaren inguruan bota du bere ekonomi sistemaren sarea, eta Mendebaldeko oinarriaren gainean egindako ekonomi batasun honi batasun politikoak jarraitu dio oinarri beraren gainean, eta ia lehena bezain urruti joan da; zeren eta, Mendebaldeko armada eta gobernuen konkistak ez izan arren Mendebaldeko industriari eta teknikarien konkistak bezain zabal eta sakonak, hala ere egia baita mundu garaikideko

estatu guztiak jatorria Mendebaldean duen sistema politiko bakar baten osagai direla.

Gauza harrigarriak dira hauek, baina zibilizazio-batasunaren frogatzat hartzea azaleko ikuspegia da. Ekonomia eta politikaren mapak orain mendebaldar bihurtu diren arren, kulturaren mapak gure Mendebaldeko Gizarteak konkista ekonomiko eta politikoaren lasterketari ekin aurretik bezalakoa izaten jarraitzen du funtsean. Kultur mailan oraindik garbi daude, ikusteko begiak dituztenentzat, Mendebaldekoak ez diren lau zibilizazio bizien ezaugarriak. Baina askok ez dituzte begi horiek; eta horien ikuspegia ingelesezko «natives» hitzaren eta Mendebaldeko beste hizkuntza batzuetan baliokide diren hitzen erabilerak argitzen du.

Guk, mendebaldarrok, jendeari «native» (bertako) deitzen diogunean, zeharbidez kultur kolorea hartzen dugu haietaz dugun pertzepziotik. Aurrean topatzea gertatzen zaigunean herrialde hura betetzen duten basapiztiazat hartzen ditugu, tokian tokiko flora eta faunaren parte balira bezala eta ez gureak bezalako grinak dituzten gizakiak. Haiek «bertakotzat» jotzen ditugun bitartean, sarraskitu egin ditzakegu edo, gaur egun litekeenagoa, hezi eta zintzoki sinetsi (ez erabat oker agian) arraza hobetzen ari garela; baina ez gara haiek ulertzen hasten.

Hala ere, arlo materialean Mendebaldeko Zibilizazioak mundu-mailan izandako arrakastari zor zaizkion ilusioak alde batera, «histori batasunari» buruzko ideia okerrak —zibilizazio-korronte bakarra dagoela, geurea alegia, eta beste guztiak beraren adar edota basamortuko hareetan galduak diren ustea barne— hiru sustrai izan ditzake: ilusio egozentrikoa, «Ekialde aldagaitzaren» ilusioa eta aurrerapenaren ilusioa, hau zuzen-zuzen aitzinera doan mugimendua bailitzan.

Ilusio egozentrikoari dagokionez, aski berezkoa da eta esan beharreko guztia da gu, mendebaldarrok, ez garela izan beraren biktimak bakarrik. Juduek ez «herri *aukeratu bat*», baizik eta «herri *aukeratua*» zirelako ilusioa pairatu zuten. Guk «bertakoak» deitzen ditugunak, haiek «jentilak» deitu zituzten, eta greziarrek «barbaroak». Baina egozentrismoaren lorerik finena agian K.o. 1793an Txinako enperadore filosofoak, Chien Lung-ek, britainiar mandatugile bati aurkezturiko gutuna da, bere nagusi George III.a erregeari eman ziezaion:

«Zu, oi Errege, itsaso askoren mugaz harantzago bizi zara; hala ere, gure zibilizazioaren onuretan parte hartzeko desira apalak bultzaturik, misio bat bidali duzu adeitasunez zure oroitzatxostena ekartzeko... Aztertu dut txosten hori; erabilitako benazko hitzek apaltasun begirunetsua adierazten dute zure aldetik, oso goresgarri dena...

«Zure erreguari dagokionez, alegia, zure nazionalismo bat bidaltzea nire Zerutar Gortean kreditatu eta zure herrialdeak Txinarekin duen merkataritzaz arduratzeko, eskabide hau nire Dinastiaren usadio guztien aurkakoa da eta ezin da ziur aski kontuan hartu... Baieztatzen duzu gure Zerutar Dinastiarenganako duzun begiruneak gure zibilizazioa zeureganatzeko desiraz betetzen zaituela; baina, gure zeremoniak eta lege-kodeak zuenen aldean hain desberdinak direnez, zuk bidalitakoa gure zibilizazioaren hastapenak lortzeko gai izango balitz ere, ziur aski ezingo zenituzke gure manierak eta ohi-turak zeure lurralde arrotzera aldatu. Beraz, bidalitakoa oso trebea izatea gertatuta ere, ezer ez litzateke irabaziko horrekin.

«Mundu zabala menderatuz, helburu bakarra baino ez dut bis-tan; alegia, ezin hobeki gobernatzea eta Estatuaren eginbeharrak betetzea. Gauza arraro eta garestiak ez zaizkit interesatzen. Berorrek bidalitako eskuerakutsiak, oi Errege, onartzeko agindua eman badut, urrutitik bidaltzera bultzatu zaituen espirituaren begirunez bakarrik izan da. Gure Dinastiaren bertute handientsua Zerupeko herrialde orotan sartu da, eta nazio guztietako erregeek beren opari garestiak eskaini dizkigute lehorretik eta itsasoz. Zure enbaxadoreak berak ikus dezakeen bezala, gauza guztiak dauzkagu hemen. Ez diet baliorik egozten gauza arraro edo bitxiei, eta ez daukat zure herrialdeko manufakturen premiarik»⁸.

Mezu hau bidali eta ondorengo mendean Chien Lung-en herri-tarren harrotasunak zenbait ezbehar jasan zuen. Harrotasunaren ohiko patua da.

«Ekialde aldagaitzaren» ilusioa azterketa serioan oinarritu gabeko herri-ilusio bat dela hain nabaria denez, bere kausak ikertzeak ez du interes edo garrantzi handirik. Agian honetan datza horren zer-gatia: «Ekialdea», testuinguru honetan Egiptotik Txinarainoko guztia alegia, garai batean Mendebaldea baino askoz aurreratuago egon zen eta orain badirudi askoz atzeratuago dagoela; ergo, gu mugitzen ari

ginen bitartean, hura geldi egongo zen. Partikularkiago, gogoan izan behar dugu «Ekialdeko» antzinako historiaren atal ezagun bakarra mendebaldar arruntarentzat Itun Zaharreko narrazioetan egon ohi zela. Mendebaldeko bidaiari modernoek ikusi zutenean, txundituta eta atseginez, Arabiako basamortuan Jordaniaz bestaldeko muga gaur egun egiten den bizimodua puntuz puntu bat zetorrela Hasiera liburuan kontatzen den patriarken bizimoduarekin, Ekialdearen izaera aldagaitzak frogatua zirudien. Baina bidaiari haiek aurkitu zutena ez zen «Ekialde aldagaitza», Arabiako estepa aldagaitza baizik. Estepan ingurune fisikoa hain kapataz gogorra denez gizakientzat, hauen moldatzeko gaitasuna oso muga estuetara murrizten da. Garai guztietan bizimodu zurrun eta mudagaitza ezartzen die bertan bizitzera ausartzen diren gizaki guztiei. Hori «Ekialde aldagaitzaren» frogatzat hartzea umekeria da. Adibidez, Mendebaldeko munduan badira Alpeetan turismoaren inbasio modernoak ukitu ez dituen haran batzuk, eta hango biztanleak arbasoak Abrahamen egunetan bezalaxe bizi dira. Aurrekoa bezain zentzu gutxikoa litzateke honetatik «Mendebalde aldagaitzaren» aldeko argudio bat ateratzea.

Aurrerapenaren ilusioa, zuzen-zuzenean aitzinera doan zerbait bailitzan, giza adimenak bere jarduera guztietan gehiegi sinplifikatzeko erakusten duen joeraren adibidea da. Gure historialariek beren «periodizazioetan» serie bakar batean jartzen dituzte periodoak mutur batetik besteraino, banbu-kanaberaren sekzioak bi juntura artean bezala, edota kirten luzagarriaren sekzioak bezala, honen muturrean jartzen duelarik tximini-garbitzaile modernoak kedarra kentzeko erratza. Gure historialari modernoek heredatu duten erratz-kirtenean bi juntura bakarrik zeuden hasieran: «antzinakoa» eta «moderno», zehazki ez bada ere gutxi gorabehera Itun Zaharrarekin eta Itun Berriarekin bat zetozenak, baita K.a eta K.o. data-konputu bikoitzarekin ere. Denbora historikoaren dikotomia hau Gizarte Helenikoko barne-proletalgoak zuen ikuspegiaren erlikia da; proletalگو honek gutxiengo menderatzaile helenikoarekiko bere alienazio-zentzua adierazten zuen, araubide heleniko zaharraren eta Kristau Elizarenaren artean erabateko antitesia eginez; eta, honela, gure hogeita bat gizarteetako bakar batetik besterako trantsizioa giza historia osoaren puntu erabakigarritzat hartzeko ilusio egozentrikoaren mende erori zen (guregan baino askoz desenkusagarriagoa haiengan, jakite mugatua zutelako)⁹.

Denborak aurrera egin ahala, gure historialariei komenigarri iruditu zaie beren erratz-kirten teleskopikoa luzatzea hirugarren sekzioa erantsiz, «Erdi Arokoa» deitu dutena beste bien artean sartu dutelako. Baina «antzinako» eta «modernoaren» arteko zatiketak historia helenikoaren eta Mendebaldekoaren arteko haustura adierazten duen bitartean, «Erdi Arokoa» eta «modernoaren» arteko zatiketak Mendebaldeko historiaren atal batetik beste baterako trantsizioa bakarrik adierazten du. «Antzinakoa + Erdi Arokoa + moderno» formula okerra da; izan beharko luke «helenikoa + Mendebaldekoa (Erdi Arokoa + Modernoa)». Baina hau ere ez da zehatza, zeren eta, Mendebaldeko historiaren atal-zatiketa aparteko «periodo» batez oharatzen badugu, zergatik ukatu ohore bera besteei? Ez dago justifikaziorik garrantzi handiagoa emateko 1475 inguruan egindako zatiketari 1075 inguruan egindakoari baino, eta arrazoi sendoak daude duela gutxi atal berri batera igaro garela uste izateko, honen hastapenak 1875 inguruan jar daitezkeelarik. Hortaz, hona hemen zer daukagun:

Mendebaldekoa I («Goiz Erdi Aroa»), 675-1075.

Mendebaldekoa II («Berant Erdi Aroa»), 1075-1475.

Mendebaldekoa III («Moderno»), 1475-1875.

Mendebaldekoa IV («Postmoderno»?), 1875-?

Baina urrundu egin gara arazotik, alegia, historia helenikoa eta Mendebaldekoa Historiarekin berarekin —«antzinako eta modernoarekin», nahiago bada— berdintzea txokokeria eta lotsagabekeria hutsa izan dela. Geografo batek «Mundu Geografia» izenburuarekin liburu bat egin, eta gero, guk zabaltzerakoan, oso-osorik Mediterraneo arroari eta Europari buruzkoa izatea bezalaxe da.

Bada histori batasunaren beste kontzeptu bat oso bestelakoa, orain arte eztabaidaturiko herri- eta tradizio-irudipenekin bat datorrena liburu honen tesiari buruzko desadostasunean. Hemen ez gaude azokako idolo baten aurrean, antropologiaren teorizazio modernoaren emaitza baten aurrean baizik: zabalkunde-teoriari buruz ari gara, G. Elliot Smith-en *The Ancient Egyptians and the Origins of Civilization* eta W.H. Perry-ren *The Children of the Sun: a Study in the Early History of Civilisation* liburuetan agertzen den bezala. Idazle hauek zentzu berezi batean sinesten dute «zibilizazio-batasunean»: ez atzo-

ko edo biharko gertaera —Mendebaldeko Zibilizazio bat eta bakarren mundu-mailako zabalkundeak zertu duena— balitz bezala, baizik eta duela milaka urte Zibilizazio Egipziakoaren zabalkundearekin zerturiko gertaera bezala; kontua da berau dela hildako zibilizazio bakanetako bat, inolako «ondorengorik» egotzi ez dioguna. Horiek uste dute Gizarte Egipziakoa dela kasu bat eta bakarra, non zibilizazioa bezalako zerbaite bere kasa sortu den, kanpotiko laguntzarik gabe. Beste zibilizazio-adierazpen guztiak Egiptotik datoz, Amerikakoak barne, eta pentsatu behar da eragin egipziakoak Hawaii eta Bazko uhartearen bidez iritsi zirela hara.

Noski, egia da gizarte batek beste bati teknika, gaitasun, erakunde eta ideia asko —alfabetotik, josteko Singer makinetaraino— komunikatzeko erabilitako metodoa dela zabalkundea. Zabalkundeari zor zaio Ekialde Urruneko te edariaren egungo nonahikotasuna, Arabiako kafe edariarena, Erdialdeko Amerikako kakao edariarena, Amazoniako kautxu materialarena, Erdialdeko Amerikako tabakoa erretzeko praktikarena, gure txelinetan agertzen den kalkulu hamabitarren sumetar praktikarena, agian jatorriz Hindustangoa den zenbakikuntza arabikoarena eta abarrena. Baina errifleak erdigune batek —non asmatu baitzuten behin, eta behin bakarrik— zabalkunde bidez bere nonahikotasuna lortu izanak ez du frogatzen uztai eta geziak beren nonahikotasun goiztiarra era berean lortu zutenik. Hortik ez da ondorioztatzen ere, ehundegi mekanikoa Manchesterretik zabaldu zelako mundu osora, metalurgiaren teknika ere sorburu bakar bati atxiki behar zaionik. Kasu honetan erabat bestelako bideetik doaz frogak.

Baina, materialismo modernoaren nozio okerrak gorabehera, ezein kasutan ere zibilizazioak ez dira horrelako adreiluz eraikitzen; ez dira josteko makinaz eta tabakoz eta erriflez eraikitzen, ezta alfabetoz eta zenbakikuntzaz ere. Merkataritzarentzat munduko gauzarik errazena da Mendebaldeko teknika berri bat esportatzea. Mendebaldeko poeta edo santu batentzat askoz ere zailagoa da bere arimako gar espirituala Mendebaldekoa ez den arima batean piztea. Zabalkundeari zor zaiona ezagututa ere, beharrezkoa da jatorrizko sormenak giza historian jokatu duen papera azpimarratzea, eta gogoratu behar dugu jatorrizko sormenaren txinparta edo hazia sugar edo lore bezala bizitzako edozein adierazpenetan ager daitekeela natura-

ren uniformitate-printzipioari jarraituz. Gutxienez difusionisten sorbalda gainean *onus probandi*-a jartzeraino iritsi gaitezke, zabalkundekak edozein giza lorpenen meritua bereganatzeko eskubiderik duen ala ez argitu gabe dagoen kasuetan.

«Zalantza gutxi dago», idatzi zuen Freeman-ek 1873an, «bizi-tza zibilizatuaren funtsezko asmakuntza asko behin eta berriro asmatu izan direla, urrutiko garai eta lekuetan, zenbait nazio gizarte-aurrerapenaren puntu berezi batzuetara iritsi direnean, non asmakuntza horiek beharrezko gertatu baitziren lehenik. Honela, inprimategia elkarren arteko loturarik gabe asmatu zuten Txinan eta Erdi Aroko Europan; eta ongi jakina da funtsean prozesu bertsua erabiltzen zutela Antzinako Erroman hainbat helburutarako, nahiz eta inork ez zuen egin normalean xede apalagoetarako erabiltzen zen prozesua liburugintzan erabiltzeko urrats handia. Inprimategiarekin gertatu zena idazketarekin ere gertatu zela pentsa daiteke, eta beste adibide bat oso bestelako arte batetik ere har genezake. Egipto, Grezia, Italia, Britainiar uharteetako lehen eraikinen gerakinak eta Erdialdeko Amerikako hiri hondatuak konparatuz, ez dago zalantzarik arkuaren eta kupularen asmakuntza handiak behin baino gehiagotan egin izan direla giza artearen historian... Ez dugu zalantzan jarri beharrik bizi-tza zibilizatuko arterik sinple eta funtsezkoenetako asko —errota erabiltzea, uztaita erabiltzea, zaldia hezitzea, kanoak barrutik hustutzea— behin eta berriro aurkitu izan direla urrutiko denbora eta lekuetan... Gauza bera politika-erakundeekin ere. Erakunde berberak agertzen dira etengabe elkarrengandik oso urruti, erakunde horien eskea egiten zuten zirkunstantziak elkarrengandik oso urrutiko denbora eta lekuetan sortu zirelako soilik»¹⁰.

Antropologo moderno batek ere ideia bera adierazten du:

«Gizakiaren ideia eta praktiken antzekotasuna giza garunaren egiturak eta ondorioz haren adimenaren izaerak alde guztietan duen antzekotasunari zor zaio, batez ere. Organo fisikoa, giza historiaren etapa ezagun guztietan, bere eraketan eta nerbio-prozesuetan funtsean berdina izan denez, ondorioz adimenak baditu ezaugarri, ahalmen eta ekintza-metodo unibertsal batzuk... Garunaren lanaren antzekotasun hau hemeretzigarren mendeko Darwin eta Russell Wallace-ren adimenetan ikusten da, datu berberekin lan eginez, aldi berean iritsi baitziren eboluzioaren teoriara; eta horri zor zaio garai berean asma-

kuntza edo aurkikuntza berari buruzko lehentasun-erreklamazio ugari izatea ere. Arrazaren adimen komunaren antzeko eragiketek —beren datuetan zatikatuagoak, beren ahalmenetan garatu gabeagoak eta beren emaitzetan zehazgabeagoak— argitzen dute totemismoa, exogamia eta garbikuntza-errito ugari bezalako sineskizun eta erakundeak azaltzea ezin banatuago dauden munduko zati eta herrietan»¹¹.

3.

Zibilizazioen konparagarritasunaren alde

Azterketa konparatiboaren gure planarekin bateraezinak diren bi eragozpen aztertu ditugu orain: alde batetik, gure hogeita bat gizar-teek ez dutela ezaugarri komunik, «azterketa historikoaren eremu ulergarriak» izateaz gain; beste aldetik, «zibilizazio-batasunak» bakar batera murrizten duela itxuraz dagoen zibilizazio-aniztasuna. Halaz guztiz, gure kritikariek, eragozpen horiei eman dizkiegun erantzunak onartuta ere, puntu honetan aurka jarri eta ukatu egin dezakete gure hogeita bat zibilizazioak konparagarri direnik, garaikideak ez direla argudiatuz. Horietako zazpi oraindik bizirik daude; hamalau desagertuta, eta hauetako hiru gutxienez —Egipziakoa, Sumerikoa eta Minoikoa— «historiaren egunsentiraino» iristen dira. Hiru hauek, eta beste batzuk agian, «denbora historikoaren» tarte osoak banatzen ditu kronologikoki zibilizazio bizietatik.

Erantzuna da denbora erlatiboa dela eta sei mila urte baino gutxiagoko tarte —lehenengo zibilizazio ezagunen sorreratik gure egunak artekoa—, gure azterketaren helburuetarako, denbora-eskala egokian neurtu behar dela, hots, zibilizazioen beren denbora-tartearen arabera. Nolanahi ere, zibilizazioen erlazioak denboran aztertu ditugunean, edozein kasutan ere aurkitu dugun segidako belaunaldien kopururik handiena hirukoa izan da, eta kasu bakoitzean hiru hauek, beren artean, gure sei mila urteko tarte baino gehiago hartzen dute, serie bakoitzeko azken muturra oraindik bizirik dagoen zibilizazio bat baita.

Zibilizazioak aztertzerakoan aurkitu dugun segidako belaunaldien kopurua inoiz hirukoa baino handiagoa ez izateak esan nahi du

espezie hau oso gaztea dela bere denbora-eskalaren arabera. Gainera, bere adin absolutua gaur arte oso laburra da, gizarte primitiboetan senide duen espeziearenaren aldean, hau gizakiaren adin berekoa baita, eta, beraz, batez besteko kalkulua eginez, hirurehun mila urtez existitu da. Esan beharrik ez dago zibilizazio batzuk «historiaren egunsentiraino» iristen direla, zeren eta guk historia deitzen duguna gizarte «zibilizatu» bateko gizakiaren historia baita, baina historiatzat gizakiak Lurrean izandako bizialdi osoa hartzen badugu, ohartuko gara zibilizazio-sortzaile izan den denbora ez dela inola ere giza historiaren garaikide eta honen ehuneko bi bakarrik hartzen duela, giza-diaren bizialdiaren berrogeita hamarrena. Beraz, gure zibilizazioei onar dakieke gure helbururako behar hainbat garaikide izatea elkarren artean.

Berriro ere gure kritikariek, denbora-tarteari buruzko argudioa alde batera utzita, uka lezakete zibilizazioen konparagarritasuna berauen balio-desberdintasunetan oinarrituz. Zibilizaziotzat hartu izan diren gehienak hain baliogabeturik, hain «inzibilizatuta» daudenez, hauen esperientzien eta «benetako» (noski, geurea bezalako) zibilizazioen esperientzien artean paralelismoak ezartzea, ez ote da adimen-energia alferrik galtze hutsa? Puntu honetan iritzirik ez zertzeko eskatuko diogu irakurleari, eskatu nahi dizkiogun adimen-ahaleginetatik zer iriteten den ikus dezan arte. Bitartean gogora diezaio-gun balioa, denbora bezala, kontzeptu erlatiboa dela; gure hogeita bat gizarte horiek guztiek maila ona lortu dutela, gizarte primitiboekin parekatuta; eta horiek guztiak, edozein ideal estandarren aurka neurtuta, ideal horretatik hain urruti gelditzen direnez, ez daudela besteei harriak botatzeko egoeran.

Egia esateko, guk uste dugu gure hogeita bat gizarteak filosofikoki garaikidetzat eta filosofikoki baliokidetzat hartu beharko lirakeela hipotetikoki.

Eta azkenik, kritikariek, honaino gurekin bat etorri direla uste izanda ere, zibilizazioen historiak gertaera historiko mordoak baino ez direla esateko bidea hartuko dute agian; gertaera historiko bakoitza bakarra dela berez; eta historia ez dela errepikatzen.

Erantzuna zera da, gertaera bakoitza, gizaki bakoitza bezala, bakarra den bitartean eta, beraz, konparaezina alde batzuetatik, bere klaseko kide izan daiteke beste alde batzuetatik eta, ondorioz, konpa-

ragarria klase horretako beste kide batzuekin, sailkapen horren barruan sartzen den neurrian. Bi gorputz bizi, animalia edo landare, ez dira zehatz-mehatz berdinak izaten, baina honek ez ditu fisiologia, biologia, botanika, zoologia eta etnologiaren zientziak baliogabetzen. Giza adimenak oraindik ere iheskor eta desberdinaragoak dira, baina onartzen diogu psikologiari izan eta jarduteko eskubidea, gaur arteko bere lorpenen balioaz oso iritzi desberdinak izan arren. Halaber, onartzen dugu gizarte primitiboen azterketa konparatiboa antropologiaren titulupean. Antropologia espezie primitiboekin egiten ari dena bezalako zerbait, gizarte-espezie «zibilizatuentzat» egiten saiatzea proposatzen dugu guk.

Baina gure jarrera garbiago ikusiko da kapitulu honen azken atalean.

4.

Historia, zientzia eta fikzioa

Hiru metodo desberdin daude gure pentsamenduaren objektuak, eta hauen artean giza bizitzako fenomenoak, ikusi eta aurkezteko. Lehena «gertaerak» egiaztatzea eta erregistratzea da; bigarrena, egiaztaturiko gertaeren azterketa konparatiboaren bidez, «lege» orokorrak ateratzea; hirugarrena, gertaeren birsortze artistikoa, «fikzio» eran. Normalean onarturik dago gertaerak egiaztatu eta erregistratzea historiaren teknika dela, eta teknika honen esparruko fenomenoak zibilizazioen gizarte-fenomenoak direla; baita lege orokorrak atera eta formulatzea zientziaren teknika dela eta, giza bizitzaren azterketan, antropologia dela zientzia, eta teknika zientifikoaren eremuko fenomenoak gizarte primitiboen gizarte-fenomenoak direla; eta azkenik, drama eta eleberraren teknika fikzioa dela, eta teknika honen eremuko fenomenoak gizakien harreman pertsonalak direla. Hau guztia, funtsean, Aristotelesen lanetan aurkitzen da.

Hala ere, hiru tekniken banaketa hiru azterketa-sailen artean, ez da uste zitekeen bezain hermetikoa. Historia, adibidez, ez da arduratzen giza bizitzako gertaera guztien erregistroaz. Alde batera uzten

ditu gizarte primitiboetan gizarte-bizitzako gertaerak, antropologiak hortik ateratzen dituelarik bere «legeak»; eta gizabanakoen bizitzako gertaerak biografiaren esku uzten ditu, nahiz eta, erregistratzea merezi izateko behar hainbat interesgarri eta garrantzizkoak diren banako bizitza ia guztiak ez diren gizarte primitiboetan bizi izan, baizik eta zibilizazio-prozesuan dauden gizarte horietakoren batean edo bestean, konbentzionalki historiaren eremutzat hartu izan direnetan. Honela, Historia giza bizitzako gertaera batzuez arduratzen da, baina ez guztiez; eta, bestalde, gertaerak erregistratzeaz gain, Historiak fikzioeta-
ra ere jotzen du eta legez ere baliatzen da.

Historia, drama eta eleberria bezala, mitologiatik sortzen da, gauzak ulertzeko eta adierazteko forma primitiboa, non —haurrei kontatzen zaizkien maitagarrien ipuinetan edo pertsona heldu sofistikatuak amesturiko ametsetan bezala— marraztu gabe uzten baita gertatuaren eta fikzioaren arteko marra. Adibidez, *Iliada*-ri buruz esan izan da historia bailitzan irakurtzen hasten den edonork fikzioz josirik aurkituko duela, baina, era berean, fikzioa bailitzan irakurtzen hasten denak historiaz beterik topatuko duela. Historia guztiek *Iliada*-ren antza dute neurri batean, hots, ezin dutela erabat baztertu fikzioaren osagaia. Gertaerak aukeratu, antolatu eta aurkezte hutsa ere fikzioaren eremuko teknika da, eta herri-iritzia zuzen dago azpimarratzen duenean historialaria ezin dela «handia» izan, artista handia ere ez bada; eta Gibbon-ak eta Macaulay-ak historialari handiagoak direla «Dryasdust»ak baino («hautsa bezain lehorra» esan nahi duen izen hau sir Walter Scott-ek asmatu zuen, eta bera ere historialari handiagoa izan zen eleberri batzuetan bere «historietako» edozeinetan baino), azken hauek ez dutelarik egin beren *confrère* inspiratuagoen okerrik gertaerei buruz. Edozein kasutan ere, histori narrazioan ia ezinezkoa da bi lerro jarraian idaztea fikziozko pertsonifikazioak sartu gabe: «Ingalaterra», «Frantzia», «Alderdi Kontserbadorea», «Eliza», «Prentsa» edo «iritzi publikoa». Tuzidides-ek¹² pertsonaia «historikoa» dramatizatu zituen «fikziozko» mintzaldi eta elkarriketak haien ahotan jarritz, baina haren *oratio recta*, biziagoa bada ere, ez da *oratio obliqua* landua baino fikziozkoagoa, non modernoek iritzi publikoaren argazki konposatuak aurkezten baitituzte.

Bestalde, Historiak bere zerbitzura hartu ditu zenbait zientzia laguntzaile, ez gizarte primitiboez, baizik eta zibilizazioez, lege oro-

korrak formulatzen dituztenak: adib., ekonomia, zientzia politikoa eta soziologia.

Gure argudiaketarako beharrezkoa ez izan arren, froga genezake, Historiak zientzia eta fikzioari loturiko teknikak erabiltzen dituen bezalaxe, zientzia eta fikzioa ere ez direla inolaz mugatzen ustez beraien teknikak izan behar luketenetara. Zientzia guztiak igarotzen dira beraiei irekitako jarduera bakarra gertaerak ziurtatu eta erregistratzea den fase batetik, eta antropologi zientzia fase horretatik irteten baino ez da ari. Azkenik, dramak eta eleberriak ez dituzte harreman pertsonalei buruz fikzioak aurkezten, ez behintzat erabateko fikzioak eta fikzioak soilik. Horrela egingo balute, emaitza —Aristotelesen goraiipamena merezi orde, zeinek «Historia baino egiazkoago eta filosofikoagoa zela» esan baitzuen— fantasia zentzugabe eta jasanezinezkoz osatua egongo litzateke. Literatur obra bati fikzio-lana deitzen diogunean, zera bakarrik esan nahi dugu: pertsonaiak ezin direla identifikatu hezur-haragizko pertsonekin, ezta obrako gorabeherak benetan zerturiko gertaera partikularrekin ere. Egia esateko, lan horrek fikziozko lehen plano pertsonal bat duela esan nahi dugu; eta, atzealde edo hondoa benetako gizarte-gertaerez osaturik dagoela aipatzen ez badugu, hau hain nabaria izanik, jakintzat ematen dugulako da. Izan ere, fikzio-lan onari egin diezaiokegun goraiipamen handiena «bizitza bezain egiazkoa» dela eta «autoreak giza izaeraren ezaguerak sakona erakusten duela» esatea da. Are zehazkiago esanda: eleberria Yorkshireko kotoi-manufakturatzaile den fikziozko familia batez ari bada, autorea goraiatzeko esango genuke nabari dela sakonki ezagutzen dituen West Riding-eko lantegi-hiriak.

Halaz guztiz, Aristotelesen Historiaren tekniken, zientziaren eta fikzioaren artean egindako bereizketak oraindik balio du oro har, eta hori horrela zergatik den teknika horiek berrirori aztertzen baditugu ikusiko dugu agian, zeren eta kopuru desberdinetak «datuekin» jarduteko gaitasunean beren artean desberdinak direla ohartuko baikara. Gertaera partikularrak egiaztatu eta erregistratzea da egin litekeen guztia datu gutxi dauden azterketa-eremuan. Legeak atera eta formulatzea egingarria eta beharrezkoa da, datuak ugariegi direnean sailkatzeko, baina ez ugariegi aztertzeko. Fikzio deituriko sorkuntza eta adierazpen artistikoa da erabil daitekeen edo erabiltzea merezi duen teknika bakarra datuak zenbatezinak direnean. Hemen, hiru tek-

niken artean bezala, berezko desberdintasun bat daukagu maila koantitatiboan. Teknikak datu-kopuru desberdinez jarduteko baliagarritasunean desberdintzen dira. Bereizi ote dezakegu dagokion desberdintasunik gure hiru azterketa-eremuetan benetan agertzen diren datu-kopuruetan?

Harreman pertsonalen azterketari ekinez, hau fikzioaren eremua delarik, berehala ikusten dugu gizabanako gutxi dagoela, guk biografia deitzen dugun gertaera pertsonal partikularren erregistro horretan sartzeko bezain harreman pertsonal interesgarri eta garrantzizkoak dituenik. Salbuespen bakan hauekin, harreman pertsonalen arloan giza bizitzaren aztertzaile direnak unibertsalki ezagun diren esperientzien adibide ugariaren aurrean aurkitzen dira. Hauen erregistro osoa egiteko ideia bera zentzugabea da. Hauen «legeen» edozein formulazio jasangaitz izateko bezain aspergarri edo gordina izango litzateke. Egoera horretan, datuak ezin dira era esanguratsuan adierazi, infinituaren intuizioa era finituan ematen duen moduren batean izan ezik; eta modu hori fikzioa da.

Harreman pertsonalen azterketan normalean fikzioaren teknika zergatik erabiltzen den jakiteko azalpen partzial bat gutxienez aurkitu dugularik termino koantitatiboetan, ikus dezagun orain ea aurkitzen dugun antzeko azalpenik gizarte primitiboen azterketan legeak ateratzeko teknika eta zibilizazioen azterketan gertaerak aurkitzeko teknika normalean erabiltzeko.

Ohartu beharreko lehen puntua, beste bi azterketa hauek giza harremanei buruzkoak izatea da, baina ez famili edo pertsona-mailako harremanei buruzkoak, hauek gizon, emakume edo haur ororen zuzeneko esperientziaren barruan sartzen direlarik. Gizakien gizarte-harremanak kontaktu pertsonalen irispide posibleaz harantzago hedatzen dira, eta harreman inpertsonal hauei erakunde deituriko gizarte-mekanismoen bidez eusten zaie. Erakunderik gabe ez litzateke gizarterik izango. Hain zuzen ere, gizarteak eurak mota goreneko erakundeak baino ez dira. Gizarteen azterketa eta erakundezko harremanen azterketa gauza bat eta bera dira.

Berehala ohartzen gara jende arteko erakunde-harremanen aztertzaileek aurrean duten datu-kopurua askoz txikiagoa dela jendearen harreman pertsonalen aztertzaileek aurrean duten kopurua baino. Gainera, ikusten dugu gizarte primitiboen azterketarako garrantzizko-

ak diren erakunde-harreman erregistratuen kopurua askoz handiagoa izango dela gizarte «zibilizatuen» azterketarako garrantzizkoak direnen kopurua baino, zeren eta, gizarte primitibo ezagunen kopurua 650etik gorakoa den bitartean, zibilizazio-prozesuan dauden gizarteek egin dugun ikerketak gehienez ere hogeita bat identifikatzeko gai egin baikaitu. Baina 650 adibide, fikzioa erabiltzeko beharretik urruti egonda ere, aski dira aztertzailea lege-formulazioan has dadin zilegitzeko. Bestalde, dozena-pare bat adibide bakarrik ezagutzen direnean, fenomeno horren aztertzaileak adoregabe geratzen dira gertaeren sailkapena baino zerbait gehiago egiteko; eta, ikusi dugun bezala, etapa honetan gelditu da gaur arte «Historia».

Lehen begiratuan paradoxa ematen du zibilizazio-aztertzaileek beren esku duten datu-kopurua desegokiro txikia dela esatea, gure historialari modernoak kexatu egiten baitira gainezka egiten dielako materialen masak. Baina, hala ere, egia da goren mailako gertaerak, «azterketa-eremu ulergarria», histori *unitate konparagarriak*, desegokiro gutxi direla teknika zientifikoa erabiltzeko, eta legeak atera eta formulatzeko. Halaz guztiz, eta arriskua geure gain hartuta, saiatzera ausartuko gara, eta emaitzak liburu honen gainerakoan agertuko dira.

II. ZIBILIZAZIOEN SORRERAK

IV. ARAZOA ETA NOLA EZ KONPONDU

1.

Arazoaren planteamendua

Zibilizazio-prozesuan dauden gizarteak zergatik eta nola sortu diren planteatu bezain laster, ohartzen gara mota honetako hogeita bat gizarteko gure zerrenda, arazo honi dagokionez, bi taldetan banatzen dela. Gure gizarteetako hamabost espezie bereko aurrekoen filialak dira. Hauetatik banaka batzuek hain filiazio estua dutenez, eztabaidagai izan daiteke horien aparteko banakotasuna; aldi berean, eskalaren beste muturrean banaka batzuek hain afiliazio lasaia dutenez, filiazio-hitzean inplikaturiko metafora baliteke gehiegizkoa iruditzea. Baina utz dezagun hau. Gutxi-asko filiazioa duten hamabostak talde batean daude, eta, guk bereiz genezakeen neurrian, bizitza primitibotik zuzenean irtendako seiak beste batean. Gure arreta sei hauen sorrerara zuzentzea proposatzen dugu orain. Egipziakoa, Sumerikoa, Minoikoa, Sinikoa, Maiena eta Andetarra dira.

Zein da funtsezko desberdintasuna gizarte primitiboen eta goragokoen artean? Ez da erakunderik eduki ala ez edukitzea, zeren eta erakundeak gizabanakoen arteko harreman inpertsonalen ibilgailu baitira, zeinetan gizarte guztiek duten beren existentzia, gizarte primitiboetako txikiena ere gizabanakoaren zuzeneko lotura pertsonalen zirkulu estuan baino oinarri zabalagoko zerbaiten gainean eraikia dagoelako. Erakundeak «gizarteak» genero osoaren atributuak dira eta, beraz, bi espezien propietate komunak. Gizarte primitiboek beren erakundeak dituzte —nekazaritzaren urteko zikloaren erlijioa; tote-

mismoa eta exogamia; tabuak, inimizazioak eta adin-klaseak; bizitzako etapa batzuetan, sexuen banaketa aparteko egonleku komunalean— eta erakunde hauetako batzuk zibilizazioen ezaugarri direnak bezain landuak eta finak dira benetan.

Zibilizazioak ez dira gizarte primitiboetatik lan-banaketatik ere bereizten, zeren eta lan-banaketaren hastapenak behintzat gizarte primitiboen bizitzan ere bereizten baititugu. Erregeak, aztiak, forjariak eta koblakariak «espezialistak» dira guztiak, nahiz eta Hefesto —kondaira helenikoko forjaria— herrena izateak eta Homero —kondaira helenikoko poeta— itsua izateak aditzera ematen duten espezializazioa anormala dela gizarte primitiboetan eta «gizon osoak» edo «trebe eta iaioak» izateko gaitasunik ez dutenengana mugatzeko egokia.

Zibilizazioen eta, *guk ezagutzen ditugun bezala* (*caveat-a* garrantzitsua dela ikusiko da), gizarte primitiboen arteko funtsezko desberdintasun bat mimesi edo imitazioak harturiko norabidea da. Mimesia gizarte-bizitza ororen ezaugarri generikoa da. Bere jarduna gizarte primitiboetan nahiz zibilizazioetan ikusten da, gizarte-jardueraz guztietan: film-izarren estiloaz bere ahizpa apalagoek egiten duten imitazioetik gorantz. Hala ere, norabide desberdinetan eragiten du bi gizarte-motetan. Gizarte primitiboetan, ezagutzen ditugun bezala, mimesia belaunaldi zaharrenerantz zuzentzen da, eta hildako arbasoengana, hauek ikustezin —baina ez sumaezin— daudelarik bizi diren zaharren atzean, berauen ospea sendotuz. Mimesia honela atzerantz iraganaldira zuzentzen den gizarte batean, usadioak agintzen du eta gizartea geldirik geratzen da. Bestalde, zibilizazio-prozesuan dauden gizarteetan, mimesia pertsona sortzaileengana zuzentzen da, jarraitzaileak izaten dituztelarik aitzindari direlako. Horrelako gizarteetan, «usadioaren moldea», Walter Bagehot-ek bere *Physics and Politics* liburuan deitu zuen bezala, hautsi egiten da eta gizartea mugimendu dinamikoan izaten da, aldaketa- eta hazkunde-prozesuan.

Baina geure buruari galdetzen badiogu gizarte primitiboen eta goragokoen arteko desberdintasun hau iraunkorra eta funtsezkoa ote den, ezetz erantzun behar dugu; zeren eta, gizarte primitiboak egoera estatikoan bakarrik ezagutzen baditugu, beren historiako azken faseetan soilik egindako zuzeneko behaketaz ezagutzen ditugulako baita hori. Halaz guztiz, zuzeneko behaketa falta bazaigu ere, arrazoibideak adierazten digu gizarte primitiboen historian izango zirela lehen-

go beste garai batzuk, zeinetan gizarte horiek orain arte ezein gizarte «zibilizatu» mugitu den baino dinamikotasun handiagoz mugituko baitziren. Esan dugu gizarte primitiboak giza arraza bezain zaharrak direla, baina, egokiago esanda, zaharragoak direla esan beharko genuen. Nolabaiteko gizarte- eta erakunde-bizitza gizaki ez diren goi-ugaztun batzuen artean ere aurkitzen da, eta garbi dago gizakia ez zela gizatasunera iritsiko gizarte-ingurunean izan ezik. Azpizizakia gizaki bihurtze hau, guk ezagutzen ez dugun egoeran gizarte primitiboan itzalpean gertatua, aldaketa sakonagoa eta urrats handiagoa izan zen hazkundera, zibilizazioaren itzalpean gizakiak oraindik lortu duen edozein aurrerapen baino.

Gizarte primitiboak, zuzeneko behaketaz ezagutzen ditugun bezala, mendi-hegaleko irtenune batean, amildegia azpian eta amildegia goian, lozorroan dagoen jendearen antzeko izan litezke; zibilizazioak loti horien lagunen antzeko izan litezke, oraintxe zutitu eta labarrean gora igotzen hasi direnak; gu, berriz, behatzaileen antzeko izan gitezke, geure ikuspegia irtenunera eta goiko amildegia barrerako maldara mugatua dugunak eta talde osoko partaideak jarrera eta posizio horietan zeuden mementoan agertokira iritsiak. Lehen begiratuan bi multzoen artean erabateko bereizketa egiteko joera izan dezakegu, igokariak atletak bailiran txalotuz eta etzanda daudenak elbarriak bezala baztertuz; baina bigarren pentsaldian zuhurragoa irudituko zaigu iritzirik ez ematea.

Izan ere, etzanda daudenak ezin dira benetan elbarriak izan, ezinezkoa baita amildegia ertzean jaioak izatea, eta ez beste inoren baizik eta beren giza giharrek eraman dituzte beheko amildegian gora atsedengune horretaraino. Bestalde, mementoan igotzen ari diren lagunek oraintxe utzi dute irtenune hori eta goiko pendiza igotzen hasi dira; eta, hurrengo irtenunea bistan ez dagoenez, ez dakigu zein altu dagoen edo zein neketsua izan daitekeen hurrengo aldapa. Dakigun gauza bakarra da ezinezkoa dela gelditu eta atsedean hartzea hurrengo irtenunera iritsi baino lehen, nonahi dagoela ere. Honela, oraingo igokari bakoitzaren indarra, trebetasuna eta ausardia ebaluatu ahal izango bagenitu, ezingo genuke epaitu horietako inork ba ote duen aukerarik goiko irtenunera iristeko, berorien oraingo ahaleginaren helburu den irtenunera. Hala ere, egon gaitezke ziur horietako batzuek sekula ez dutela lortuko. Eta ikusten dugu, orain neke handiz igotzen ari den

bakoitzeko, beste bi (gure gizarte desagertuak) erori direla irtenunera, porrot eginda.

Huts egin dugu geure ikerketaren berehalako xedea —hots, gizarte primitiboen eta zibilizazioen artean desberdintasun-puntu iraunkor eta funtsezkoa— aurkitzen, baina bide batez argitasunen bat lortu dugu oraingo bilaketa honen azken helburuaz: zibilizazioen sorreren izaeraz. Gizarte primitiboak zibilizazio bihurtzetik hasita, hau egoera estatikotik jarduera dinamikorako trantsizioa dela aurkitu dugu; eta formula bera ona dela ohartuko gara, sortzeko ahalmena galdu duten eta aurretik baziren zibilizazioetako gutxiengo menderatzaileengandik banatzen diren barne-proletalgoen bidez zibilizazioen sorrera azaltzeko. Gutxiengo menderatzaile horiek estatikoak dira definizioz; zeren eta, hazkundean zegoen zibilizazio bateko gutxiengo sortzailea desintegratzen ari den zibilizazio bateko gutxiengo menderatzaile izateraino endekatu edo atrofiatu dela esatea, gizarte hori jarduera dinamikotik egoera estatikora erori dela esateko beste era bat baino ez da. Egoera estatiko honen aurka proletalgoaren banakuntza erreakzio dinamikoa da; eta honen argitan zera ikus dezakegu, gutxiengo menderatzaileagandik proletalgoa bereiztean zibilizazio berri bat sortzen dela gizarte batek egoera estatikotik jarduera dinamikora egiten duen trantsizioaren bidez, gizarte primitibotik zibilizazio bat sorrarazten duen mutazioan bezalaxe, hain zuzen. Zibilizazio guztien sorrerak —ahaidetu eta ahaidetu gabeenak berdintsu— Smuts jeneralaren esaldiaz deskriba daitezke: «Gizadia berriro ere abiatu da».

Estatikoaren eta dinamikoaren, mugimendu eta pausa eta mugimenduaren txandakako erritmo hau garai askotako behatzaile askok funtsezko gauzatzat jo dute unibertsoaren izaeran. Beren irudi oparoetan Gizarte Sinikoko jakitunek Yin eta Yang bezala deskribatu dituzte txandakatze hauek: Yin estatikoa eta Yang dinamikoa. Yin adierazten duen izaera sinikoaren muina badirudi Eguzkia ezkutatzen duten hodei beltz kiribilatuen irudi dela, eta Yang adierazten duen izaeraren muina badirudi hodei gabeko eguzki-diskoaren irudi dela, bere errainuak botatzen. Txinako formulan Yin aipatzen da beti lehenengo eta, gure ikuspegitik, ikusten dugu gure askaziak, giza izaera primitiboaren «irtenunera» duela 300.000 urte iritsi zelarik, denboraldi honen ehuneko laurogeita hemezortzi bertan eman duela pausatuta,

zibilizazioaren Yang-jardueran sartu aurretik. Bere bulkadaz giza bizitza berriro abiarazi duen faktore positiboa bilatu behar dugu orain, zernahi delarik ere hori. Eta lehenik bi ibilbide arakatuko ditugu, bideitsuak gertatuko direnak.

2.

Arraza

Argi dirudi faktore positibo hori, azken 6.000 urteotan gizadiaren zati bat «irtenuneko» gizarte primitiboen Yin-egoeratik «labarreko» zibilizazioen Yang-egoerara eraman duena, trantsizioa egin zuten gizakien tasun bereziren batean bilatu behar dela, edo trantsizioa gauzatu zeneko ingurunearen ezaugarri bereziren batean, edo bien arteko elkarrekintzan. Lehenik, faktore horietako bata edo besteak, bere horretan hartuta, bila ari garena ematen ote digun aztertuko dugu. Zibilizazioen sorrerak, egotzi ote geniezazkieke arraza bereziren baten edo batzuen bertuteei?

Arraza, gizaki-multzo partikularretan tasun bereizgarri eta heredagarriren bat dagoela adierazteko erabiltzen den terminoa da. Hemen guri axola zaizkigun ustezko arraza-ezaugarriak nolakotasun psikiko edo espiritual bereizgarriak dira, zenbait gizartetan berezkoizat hartzen direnak. Psikologia, orde, eta gizarte-psikologia bereziki, oraindik haurtzaroan dagoen ikasadarra da; eta arrazari buruzko orain arteko eztabaida guztiak, arraza zibilizazio-sortzaile den faktoretzat aurkezten denean, uste baten mende daude, hots, korrelazioa dagoela tasun psikiko baliotsuen eta zenbait ezaugarri fisiko nabariaren artean.

Mendebaldean arraza-teorien aldekoek gehien azpimarratzen duten ezaugarri fisikoa kolorea da. Jakina, pentsa daiteke nagusitasun espiritual eta mentala nolabait ere loturik —eta, beraz, positiboki korrelazioan— daudela azaleko pigmentazioaren gabezia konparatiboarekin, nahiz eta biologikoki nekeza dirudien honek. Hala ere, zibilizazioaren arraza-teoriarik ezagunenetakoa *homo leucodermaticus*-aren aldaera xantotriko, glaukopiari, dolikozefaloa¹³ goresten duena

da; batzuek «iparraldeko gizakia» deitzen dute eta Nietzschek «piztia ilehoria»; eta merezi du azoka teutonikoko idolo honen sinestamenduak aztertzea.

Iparraldeko gizakia lehen-lehenik Frantziako aristokrata batek, Gobineauko kondeak, goretzi zuen hemeretzigarren mendearen hasieran, eta «piztia horia» idolatratzea Frantziako Iraultzatik sortu ziren eztabaidetako gorabehera bat izan zen. Frantziako noblezia ondasunez gabetzen, erbesteratzen edo gilotinatzten ari zirenean, iraultza-alderdiko pedanteek, beren garaiko gertaerak era «klasikoan» aurkeztu arte sekula pozik ez zeudenek, zera aldarrikatu zuten: galiarrak, hamalau mendeko mendetasunaren ondoren, beren konkistatzaile frankoei atzera eragiten ari zirela ilunpeetara Rhinez bestaldera, handik etorri zirelarik Völkerwanderung-ean, eta berriro Galiako lurraldeaz jabetzen ari zirela, barbaroen usurpazio luzea gorabehera, sekula ez baitzion beraiena izateari utzi.

Zentzugabekeria horri Gobineauk bere baitako zentzugabekeria handiagoz erantzun zion. «Onartzen dut zuen identifikazioa» erantzun zien, hain zuzen. «Demagun Frantziako herri xehea galiarren-gandik datorrela, eta aristokrazia frankoengandik; bi arrazak askazi garbikoak direla; eta korrelazio zehatz eta iraunkorra dagoela beraien ezaugarri fisikoen eta psikikoen artean. Benetan uste duzue galiarrek zibilizazioa ordezkatzan dutela eta frankoek basakeria? Nondik etorri zen zuen galiarrek lorturiko zibilizazioa? Erromatik. Eta zerk egin zuen Erroma handi izatea? Ba, nire zain frankoetan dabilen iparraldeko odolaren isurketa primitiboak. Lehen erromatarrak —baita lehen greziarrak, Homeroren akeoak ere— konkistatzaile ilehoriak ziren, iparralde indargarritik jaitsi eta Mediterraneo motelgarrian zeuden bertako ahulagoen gain agintea ezarri zutenak. Hala ere, luzarora haien odola diluitu egin zen eta arraza ahuldu; haien botere eta aintzak behera egin zuen. Garaia zen konkistatzaile ilehorien beste salbamentalde bat iparraldetik jaisteko eta zibilizazioaren pultsua berriro tau-paka jartzeko, eta hauen artean frankoak zeuden».

Horra hor Gobineauaren kontaketa barregarria gertaera-sail bati buruz, jadanik guk ere oso bestela erabili ditugunak lehenik Zibilizazio Helenikoaren eta gero Mendebaldeko Zibilizazioaren jatorriak zirriborratzerakoan. Haren *jeu d'esprit* politikoa onegarriago bihurtu zuen garaiko aurkikuntza batek, Gobineau bizkor ibili zelarik

hartaz probetxu ateratzeko. Aurkikuntza hori hauxe izan zen: Europako hizkuntza bizi ia gehienak, grekoa eta latina bezalaxe, eta Pertsia eta Ipar Indiako hizkuntza biziak, iraniera klasikoa eta sanskrito klasikoa bezalaxe, elkarren ahaide zirela hizkuntz familia zabal baten kide bezala. Zuzen ondorioztatu zen existitu behar izan zuela hasierako hizkuntza «ario» edo «indo-europar» bat, handik etorriak zirelarik familiako kide ezagun guztiak. Oker ondorioztatu zen enbor bereko hizkuntza horiek erabiltzen zituzten herriak fisikoki erlazionaturik zeudela hizkuntzak zeuden maila berean, eta guztiak arraza «ario» edo «indo-europar» primitibo batetik zetozela, eta hura, konkistatuz eta konkistatzeko, sorlekutik ekialde eta mendebaldera, iparralde eta hegoaldera zabaldu zela; arraza hark sortarazi zuen Zaratustra eta Budaren jeinu erlijiosoa, Greziaren jeinu artistikoa, Erromaren jeinu politikoa eta —gailur gorena— gu geu, hain bikainak! Arranopola, arraza honi zor zitzaizkion giza zibilizazioaren lorpen gehientsuenak!

Frantziar bizkorrak altzarazitako erbiari zango astuneko germaniar hizkuntzalariak jarraitu zioten; haiek indo-europar hitza hobetu eta indo-germaniar bihurtu zuten, eta irudikaturiko arraza honen sorlekua Prusiako erregearen agindupeko lurretan jarri zuten. 1914-18ko gerra hasi baino lehentxeago, Houston Stewart Chamberlain-ek, Alemaniaz maitemindu zen ingeles honek, *The Foundations of the Nineteenth Century* liburua idatzi zuen, eta bertan Dante eta Jesu Kristo erantsi zizkion indo-germaniarren zerrendari.

Iparramerikarrek ere erabili zuten «Ipar Europako gizakia». 1914aren aurretik mende-laurden batez izandako hego-europarren inmigrazio izugarriaz ikaraturik, Madison Grant eta Lothrop Stoddard idazleek, besteak beste, inmigrazioa murriztea eskatu zuten, bide bakarra iruditzen baitzitzaien, ez iparramerikarren gizarte-ereduak gordetzeko, Ipar Europako arrazaren amerikar adarraren garbitasuna gordetzeko baizik.

Britainiar doktrina israelita era bereko teoria da, baina terminologia desberdina erabiltzen du, eta teologia bitxia irudikaturiko historiaren euskarri.

Bitxia da ohartzea, gure zibilizazioko arraza-propagandistek espiritu-nagusitasunaren markatzat larruazal argiak azpimarratzen dituzten bitartean, europarra beste arraza batzuen gainetik eta ipa-

rreuoparrak beste europar batzuen gainetik jarritz, japoniarrek proba fisiko desberdina erabiltzen dutela. Gertatzen da japoniarren gorputzak oso ilegabeak direla, eta beren iparraldeko uhartean oso itxura desberdineko komunitate primitibo bat daukate auzoko, «aino iletua» deitua, batez besteko europarraren antzeko itxura fisikoa duena. Oso era naturalean, beraz, ilegabetasuna espiritu-nagusitasunarekin elkartzen dute japoniarrek, eta, haien errebindikazioa larruazal argien nagusitasunaren aldeko gure alegatua bezain oinarrigabea izan daitekeen arren, gaingiroki onargarriagoa da, zeren eta gizaki ilegabea, bere ilegabetasunagatik, nolabait ere urrutirago dago bere lehengusu tximinoagandik.

Etnologoez, gizaki zuriak tipo fisikoen, buru luze eta biribilen, azal argi eta ilunen eta gainerako guztiaren arabera sailkatzean, hiru «arraza» zuri nagusi bereizi dituzte, iparraldekoa, alpetarra eta mediterranearra deitu dituztenak. Balio lezakeenerako, arraza horietako bakoitzak ekarpen positiboa zenbat zibilizaziori egin dion kalkulatu dugu. Iparraldekoek lau zibilizaziori, agian bosti, egin diote beren ekarpena: Indikoari, Helenikoari, Mendebaldekoari, Errusiar Kristau Ortodoxoari eta ziur aski Hititari. Alpetarren ekarpena jaso dutenak zazpi izan dira, ziur aski bederatzi: Sumerikoa, Hitita, Helenikoa, Mendebaldekoa, Kristau Ortodoxoaren errusiar kimua eta gorputz nagusia, Iranikoa eta ziur aski Egipziakoa eta Minoikoa. Mediterranearren ekarpena jasotakoak hamar dira: Egipziakoa, Sumerikoa, Minoikoa, Siriakoa, Helenikoa, Mendebaldekoa, Kristau Ortodoxoaren gorputz nagusia, Iranikoa, Arabikoa eta Babilonikoa. Giza arrazaren beste zatiketei buruz, beltzaranak (hemen Indiako dravidiar herriak eta Indonesiako malaysiarrak sartzen dira) bitan utzi du bere ekarpena: Indikoan eta Hinduan. Arraza horiaren ekarpena jasotakoak hiru izan dira: Sinikoa eta Ekialde Urruneko bi zibilizazioak, hots, Txinako gorputz nagusia eta japoniar kimua. Amerikako arraza gorria da, noski, bertako lau zibilizazioetara ekarpena egin duen bakarra. Arraza beltzak dira ezein zibilizaziori ekarpen positiborik egin ez dioten bakarrak... orain arte. Arraza zuriak doaz buruan, baina gogoratu behar da herri zuri askok beltzek bezain ekarpen txikia egin diotela edozein zibilizaziori. Zerbait positiboa ateratzen bada sailkapen honetatik zera da: gure zibilizazioen erdiak arraza baten baino gehiagoren ekarpenetan oinarriturik daudela. Mendebaldekoak eta

Helenikoak hiru ekarle ditu bakoitzak, eta arraza horia, beltzarana eta gorria berauen «sub-arrazetan» sailkatuko balira, arraza zuriaren iparraldeko, alpetar eta mediterranear zatiketak bezala, ziur aski ekarle anitz izango genituzke gure zibilizazio guztientzako. Azpi-banaketa hauek zer balio duten eta historikoki eta sozialki inoiz herri bereziak adierazi ote dituzten ala ez beste arazo bat da; gai hau erabat iluna da.

Baina nahikoa esan dugu, munduaren alde batean eta gero bestean duela sei mila urte ingurutik hona Yin-etik Yang-erako, estatikotik dinamikorako trantsizioaren kausa eta egilea arraza nagusiago bat izan delako teoria baztertzea justifikatzeko.

3.

Ingurunea

Mendebaldeko buru modernoek historian arraza-faktorea azpimarratu dute, eta gehiegi azpimarratu ere, gure Mendebaldeko Gizartea mundu osora hedatu delako azken lau mendeotan. Hedapen honek Mendebaldeko herriak harremanetan jarri zituen —eta sarri ez harreman adiskidetsutan— beraiek bezalakoak ez ziren herriekin, ez kulturaz, ezta fisikoz ere; eta goi-mailako eta behe-mailako biologi tipoen nozioa zen, hain zuzen, harreman horietatik sortzea espero zitekeena, batez ere hemeretzigarren mendean, Charles Darwin eta beste zientzi ikertzaile batzuen lanagatik Mendebaldeko buruak biologiaz kontzientziaturik zirenean.

Antzinako greziarrak ere hedatu ziren, merkataritza eta kolonizazioaren bidez, beren inguruko mundura, baina askoz mundu txikiagoa zen hura, kultur aniztasun handikoa baina ez tipo fisikoen aniztasun handikoa. Egiptoarra eta eszitiarra beren bizimoduan egon zitezkeen oso urruti elkarrengandik eta beraien greziar behatzaileagandik (Herodotogandik, adibidez), baina fisikoz ez zuten harekiko Mendebaldeko Afrikako beltzak eta Amerikako gizaki gorriak europarrarekiko zuten bezalako desberdintasun ikaragarriak. Beraz, normalea zen greziarrek inguruan oharturiko kultur desberdintasunak azaltzeko beste faktoreren bat bilatzea, ezaugarri fisikoen herentzia

biologikoaz bestelakoa, arraza adibidez. Desberdintasunen azalpena geografi habitat, lurzoru eta klima-desberdintasunetan aurkitu zuten¹⁴.

Bada *Eguratsaren, uraren eta kokapenaren eragina* delako tratatu bat, K.a. bosgarren mendekoa eta Hipokratesen Medikuntza Eskolan bildutako lanen artean jaso dagoena; greziarrek gai honetaz zuten ikuspegia argitzen du. Han, adibidez, honako hau irakurtzen dugu:

«Giza fisionomiak honela sailka daitezke: ongi zuhaitzu eta ongi ureztaturiko mendi tipoa, lur mehe eta urgabeko tipoa, zelai zingiratsuaren tipoa, ongi garbitu eta ongi drenaturiko behe-lurren tipoa... Menditsu eta harritsu izanik, ongi ureztaturik eta oso altu egonik, urtaroen artean klima-aldaketa handiak dituzten herrialdeetako biztanleek gorputz sendokoak izatera joko dute, ausardia eta iraunkortasunera egokituak... Haran sargoritsuak, zelai zingiratsuz estaliak, haize hotzak baino gehiago beroak izan eta ur epela edaten dutenak, ordean, ez dira gorpuzkera sendokoak edo argalak izango, baizik eta mozkoak, haragitsuak eta ilebeltzak, aurpegiko larruazal ilunekoak argikoak baino gehiago, eta bilisa baino flema gutxiago dutenak beren gorpuzkeran. Haien izaeran ausardia eta iraunkortasuna ez dira jaiotzatikoak maila berean, baina sortarazi ahal izango zaizkie erakundeetan laguntzaz... Herrialde malkartsu, haizetsu, ongi ureztatu eta altitude handikoetako biztanleak gorpuzkera sendokoak izango dira, banakotasunik gabeak, koldarkeria eta mantsotasunerako joera arin batekin beren izaeran... Kasurik gehienetan, giza gorputza eta izaera herrialdeko naturaren arabera aldatzen dela ikusiko duzu»¹⁵.

Baina «ingurunearen teoriari» buruzko argibide heleniko kutunenak, Behe Niloko haranean bizitzeak egiptoarren fisiko, izaera eta erakundeetan duen ondorioaren eta eurasiar estepetan bizitzeak eszietarren fisiko, izaera eta erakundeetan duen ondorioaren arteko aldeak eman zituen.

Arrazaren teoria eta ingurunearen teoria biak saiatzen dira gizadiko zenbait zatiren portaera psikikoan (intelektualean eta espiritualean) eta jardunean oharturiko aniztasuna argitzen; eta horretarako uste dute aniztasun psikiko hau era finkoan eta iraunkorrean korrelazioan dagoela —efektuak kausarekiko duen erlazioan— naturan arlo ez-psikikoan oharturiko aniztasunaren zenbait elementure-

kin. Arrazaren teoriak giza fisikoaren aniztasunean aurkitzen du kausa desberdintzailea; ingurunearen teoriak, gizarteek bizi dituzten klima- eta geografi baldintza desberdinetan. Bi teorioren funtsa bi aldagai-sailen arteko korrelazioa da, kasu batean izaera eta fisikoa, bestean izaera eta ingurunea, eta korrelazio hau finkoa eta iraunkorra dela frogatu behar da, bertan oinarrituriko teoriak ongi ezarriko badi-ra. Proba honen arabera arrazaren teoriak porrot egiten duela ikusi dugu jadanik, eta orain ingurunearen teoria, hain zentzugabea izan gabe ere, askoz urrutirago ez doala ikusiko dugu. Teoria helenikoa bere bi adibide kutunenetan aztertu behar dugu, eurasiar estepa eta Nilo ibarra. Lurrazalean beste eremu batzuk aurkitu behar ditugu, geografi eta klima aldetik bi eskualde horietako bakoitzaren antzekoak. Hauetan guztietan agertzen badira herriak, beren izaera eta erakundeetan, kasu batean eszitiarren antzeko eta bestean egiptoarren antzeko direnak, ingurunearen teoria justifikatuta geratuko da; bestela, berriz, baztertuta.

Har dezagun lehenik eurasiar estepa: eremu zabal horretatik hego-mendebaldeko muturra bakarrik ezagutzen zuten greziarrek. Ondoan afrasiar estepa jar diezaiokegu, Arabiatik Ipar Afrikan zehar hedatzen dena. Eurasiar eta afrasiar estepen antzekotasunari ba al dagokio bi eremu horietan bakoitzean sorturiko gizartearen arteko antzekotasunik? Erantzuna baiezkoa da. Bietan sortu da nomadismoa, eta nomadismo horretan ageri diren antzekotasun eta desberdintasunak —azken hauek etxekoturiko animalietan, adibidez— bi eremuen arteko antzekotasun eta desberdintasunen aurrean aurkitzea espero litezkeenak dira, hain zuzen. Baina proba gehiagoren arabera, korrelazioak huts egiten du; zeren eta, nomada-gizarteentzako ingurunea eskaintzen duten munduko beste alde batzuek —Ipar Amerikako belardi, Venezuelako *llano*, Argentinako *panpa* eta Australiako larretokiek— nomada-gizarterik ez dutela sortu aurkitzen baitugu. Gaitasuna ezin zaie zalantzan jarri, garai modernoetan gure Mendebaldeko Gizartearen enpresa-ekimenak sortu baititu; eta Mendebaldeko abeltzain aitzindariak —iparramerikar *cowboy*, hegoamerikar gautxo eta australiar behizainek—, eremu huts horiek berenganatu eta belaunaldi gutxi batzuetan eduki dituztenek, aurrera sartzen ari ziren golde eta errotaren abangoardian, gizadiaren irudimena liluratu dute, eszitiar, tatariar eta arabiarrek bezain arrakasta handiz.

Amerika eta Australiako estepen ahalbideak benetan ahaltsuak izan behar, nomada-tradiziorik gabeko eta lehenengoz sortu zenetik nekarizaritza eta manufakturetatik bizi izandako gizarte baten aitzindariak, belaunaldi batez bakarrik bada ere, nomada bihurtu ahal izateko. Gauzarik ohargarriena zera da, Mendebaldeko lehen esploratzaileek han aurkitu zituzten herriak sekula ez zituela beraien inguruneak nomadismora bultzatu, ez zutelarik nomada-paradisu haienezako erabilera hoberik aurkitu ehizarako lurtzat hartzea baino.

Ondoren, Behe Niloko ibarraren antzeko eremuak aztertuz probatzen badugu teoria, gure esperientzia berdina izango da.

Behe Niloko ibarra, nolabait esateko, anomalia bat da afrasiar estepako paisaia. Egiptok inguruko eremu zabalak duen klima lehor bera du, baina abantaila paregabea du, ur eta alubioi-hornidura agortezina, euri askoko eremu batean, estepako mugez harantzago, sortzen den ibai handiak ekarria. Zibilizazio Egiptiakoaren sortzaileek gizarte bat sortzeko erabili zuten abantaila hori, beraien alde bietara zegoen nomadismoarekin ikaragarritzko kontrastean. Hortaz, Nilok Egipton eskaintzen duen ingurune berezi hori ote da Zibilizazio Egiptiakoaren sorrera eragin zuen ezaugarri positiboa? Tesi hau ezartzeko, ingurune nilotikoaren antzekoa duten beste alde guztietan, eta harekin loturarik gabe, antzeko zibilizazio bat sortu dela frogatu behar dugu.

Teoriak gainditzen du proba beharrezko baldintzak betetzen dituen inguruko eremu batean, hau da, Eufrates eta Tigrisen beheko ibarrean. Hemen antzeko egoera fisikoa eta antzeko gizartea, Sumerikoa, aurkitzen ditugu. Baina porrot egiten du askoz txikiagoa baina antzekoa den Jordan ibarrean, sekula zibilizazio baten egonleku izan gabea. Ziur aski porrot egiten du Indus ibarrean ere, Indus kultura jada eginda hara sumertar kolonizatzaileek eraman zutelako ustean zuzen bagabiltza, behintzat. Behe Ganges-en ibarra baztertu egin behar da probatik hezeegia eta tropikalegia delako eta Behe Yangzi eta Behe Mississippi-ren ibarrak hezeegi eta epelegiak direlako, baina kritikaririk zorrotzenak ere ezin du ukatu Egiptok eta Mesopotamiak eskainitako ingurune-baldintzak Rio Grande eta Colorado ibaien ibarretan ere eskaintzen direla Estatu Batuetan. Europako kolonizatzaile modernoaren eskupean, Atlantikoaz bestaldetik berekin ekarritako baliabideez hornituta, Amerikako ibai hauek Nilok eta Eufratesek

injineru egipziako eta sumerikoentzat zertutako mirariak zertu dituzte. Baina magia hau Coloradok edo Rio Grandek inoiz ez dio erakutsi beste nonbait ikasia zuelako jadanik aditua ez zen jendeari.

Froga hauen aurrean, ingurunearen faktorea ezin da izan «ibai»-zibilizazioa sortarazi zuen faktore positiboa; eta ondorio hau berretsi egingo dugu zibilizazioak leku batean sortu baina beste batean sortu ez dituzten beste ingurune batzuei begiratu bat emanez.

Andetar Zibilizazioa goi-ordoki batean sortu zen, eta bere arrakasta kontraste bizian zegoen beheko amazoniar oihanetan ezkutaturiko basakeriarekin. Beraz, goi-ordokia izan al zen arrazoa Andetar Gizarteak aurrea har ziezaien auzoko basatiei? Ideia hau onartu aurretik, begiratu bat eman behar diegu Afrikako latitude ekuatorial berdinei, non Ekialdeko Afrikako goi-lurrak Kongo arroko oihanen ertzean baitaude. Ohartuko gara Afrikan goi-ordokiak ez zuela ibar handiko oihan tropikalek baino gizarte «zibilizatu» gehiago sortu.

Antzeratsu, Zibilizazio Minoikoa barne-itsaso bateko uharte-sortan sortu zela ikusten dugu, Mediterraneoko klimaren bedeinkazioarekin; baina antzeko inguruneak ez zuen uhartedi-motako beste zibilizaziorik sortu Japoniako barne-itsasoaren inguruan. Japoniak sekula ez zuen sortarazi zibilizazio burujaberik, baizik eta Txinaren barrualdean sorturiko zibilizazio kontinental baten kimuak hartu zuen hura.

Zibilizazio Sinikoa Ibai Horiaren kimu bailitzan agertzen da batzuetan, Ibai Horiaren ibarrean sortzea gertatu baitzen; baina Danubioren ibarrak, klima eta lurzoru, lautada eta mendiei dagokie-nez eraketa berdintsua izanik, ez zuen antzeko zibilizaziorik sortu.

Maien Zibilizazioa Guatemala eta Britainiar Hondurasko euri-te eta landaretza tropikalaren erdian sortu zen, baina horrelako zibilizaziorik sekula ez zen basatasunetik irten antzeko egoeran Amazonasen eta Kongon. Egia da bi ibai-arro hauek ekuatorean zangalatraba dauden bitartean, maien sorlekua hamabost gradura dagoe-la iparraldera. Hamabosgarren latitude-paraleloari jarraitzen badiogu munduaren beste alderaino, Angkor Wat-eko hondakin ikaragarrieekin topo egingo dugu Kanbodiako eurite eta landaretza tropikalaren erdian. Konparagarriak ote dira hauek maien Copan eta Ixkun hiri hondatuekin? Arkeologi frogek erakusten dute Angkor Wat-ek adie-

razten duen zibilizazioa ez zela Kanbodian bertan sortua, baizik eta Indian sorturiko Hindu Zibilizazioaren kimu bat zela.

Jarrai geniezaioke gai honi aurrerago, baina agian nahikoa esan dugu irakurlea konbentzitzeko ez arraza eta ez ingurunea —bere horretan hartuta— ez direla azken sei mila urteotan gizadia gizarte primitiboaren mailako pausaldi estatikotik atera eta zibilizazioaren bilaketa gorabeheratsuan abiarazi duen faktore positiboa. Edozein kasutan ere, ez arrazak ez inguruneak, orain arte aztertu bezala, ez du eskaini, edo ez dirudi eskain dezakeenik, giza historiako trantsizio handi hau leku berezi batzuetan eta gainera data berezi batzuetan zergatik gertatu zen ulertzeko inolako argibiderik.

V. ERRONKA ETA ERANTZUNA

1.

Mitologiazko arrastoa

Zibilizazioen sorreraren faktore positiboaren bila orain arte egin dugun ikerketan zientzia fisiko modernoaren eskola klasikoaren taktikak erabili ditugu. Termino abstraktuetan pentsatu dugu eta indar bizigabeen —arraza eta ingurunearen— jokoarekin esperimentatu dugu. Orain, maniobra hauek irteera gabeko puntura eramán gaituzte-nean, gelditu eta hausnar genezake ea gure porrotak ez ote diren metodo-akatsen batek eraginak. Joan zen garai bateko espirituaren eragin maltzuraren mendeán, «falazia apatetikoa» deituko dugunaren bikti-ma izan gara agian. Ruskin-ek gauza bizigabeak irudimen handiz biziáz hornitzeko «falazia patetikoaren» kontra ohartarazi zituen irakurleak; baina era berean beharrezkoa zaigu alderantzizko hutsegitearen aurrean erne egotea, hots, izaki bizien azterketa den pentsamendu historikoari natura bizigabea aztertze-ko asmatu-riko metodo zientifiko-a aplikatzea. Enigma argitzeko gure azken ahaleginean, jarrai die-zaio- gun Platonen gidaritzari eta proba dezagun bide alternatiboa. Mementoz itxi ditzagun begiak zientzi formu- len aurrean eta zabaldu belarriak mitologi hizkerari.

Garbi dago zibilizazioen sorrerak ez badira biologi faktore edo geografi ingurunearen emaitza, bakoitza bere aldetik jardunda, horien arteko nolabaiteko elkarrekintzaren emaitza izan behar dutela. Beste era batera esanda, identifikatu nahian ari garen faktorea ez da zerbait bakuna anitza baizik, ez entitate bat, erlazio bat baizik. Aukera dugu

erlazio hori bi indar ez-gizatiarren arteko elkarrekintzat hartzeko edo gizagaineko bi pertsonaiaren topaketatzat. Zuzen ditzagun gure adimenak bi ikusmolde hauetako bigarrenera. Beharbada horrek argirantz eramango gaitu.

Gizagaineko bi pertsonaiaren arteko topaketa giza irudimenak asmatu dituen dramarik handienetako batzuen argumentua da. Jahve eta sugearen arteko topaketa, gizakiaren erortze-istorioaren argumentua da Hasiera liburuan; antagonista berberen arteko bigarren topaketa, arima siriakoen gero eta jakinduria handiagoz antzaldatua, Itun Berriko argumentua da, berrerospenaren istorioa kontatzen duena; Jaunaren eta Satanen arteko topaketa Job liburuaren argumentua da; Jaunaren eta Mefistofelesen arteko topaketa Goeteren *Fausto*-ren argumentua da; jainkoen eta demonioen arteko topaketa Eskandinaviako *Voluspa*-ren argumentua da; Artemisa eta Afroditen arteko topaketa Euripidesen *Hipolito*-ren argumentua da.

Argumentu beraren beste bertsio bat, Birjinaren eta bere Haurraren Aitaren arteko topaketaren mitoa da, nonahikoa eta beti errepikatzen dena, «irudi funtsezkoa», inoiz bat izan bada. Mito honek pertsonaiek dagozkien paperak mila jokaleku desberdinetan antzestu dituzte deitura askoren azpian: Danae eta Urrezko Euria; Europa eta Zezena; Semele —Lur Zauritua— eta Zeus Zerua —oinaztarria jaurtitzen duena—; Kreusa eta Apolo Euripidesen *Ion*-en; Psike eta Cupido; Gretchen eta Fausto. Gaia antzaldatua Deikundean agertzen da berriro. Gure egunotan Mendebaldean planeta-sistemaren sorrerari buruzko astronomoen azken hitza bezala agertu da berriro mito aldakor hau, ondorengo *credo*-ak aitortzen duen bezala:

«Sinesten dugu... duela bi mila milioi urte inguru... bigarren izar bat, itsu-itsuan espazioan noraezean zebilela, Eguzkira asko hurbiltzea gertatu zela. Eguzkiak eta ilargiak lurrian mareak eragiten dituzten bezala, bigarren izar honek ere mareak sortuko zituen eguzkiaren gainazalean. Baina haiek oso desberdinak izango ziren ilargiaren masa txikiak gure ozeanoetan eragiten dituen marea kaskarren aldean; egundoko marea-uhina ibiliko zen Eguzkiaren gainazalean, azkenean izugarrizko altuerako mendia eratuz, perturbazioaren kausa hurbildu ahala gero eta gorago altxatuz. Eta, bigarren izarra urruntzen hasi aurretik, marearen bultzada hain indartsua zenez, mendi hau zatitu egin zen eta bere zatitxoak barreiatu zituen, uhinaren gailurrak

zipriztindu egiten duen bezalaxe. Ordudanik zatitxo hauek zirkulatzen ibili dira beren aita eguzkiaren inguruan. Planetak dira, handi eta txikiak, gure Lurra horietako bat izanik»¹⁶.

Honelaxe irtetzen da berriro astronomo matematikoaren ahotik, kalkulu konplexu guztiak egin ondoren, jainkosa eguzkiaren eta bere bahitzailearen arteko topaketaren mitoa, hain ipuin ezaguna naturako haur ezjakinen ahotan.

Nola sortu ziren aztertzen ari garen zibilizazioen kausalitatean dualtasun honek izandako presentzia eta indarra Mendebaldeko arkeologo moderno batek ere onartzen ditu; honen azterlanak ingurunean arreta jartzen hasi eta bizitzako misterioaren intuizioaz bukatzen dira:

«Ingurunea... ez da erabateko kausazioa kulturaren eraketan... Zalantzarik gabe, faktore bakun ikusgarriena da... Baina bada oraindik faktore mugagaitz bat, argi esanda ongien x izenda daitekeena, kantitate ezezaguna, psikologi mailakoa nonbait... X ez bada faktorerik ikusgarriena arazo honetan, garrantzitsuena behintzat bada, patuz zamatuen»¹⁷.

Historiaren azterketa honetan gizagaineko topaketaren gai errepikakor hau ezarrita gelditu da jadanik. Aurreko pasarte batean esan dugu «gizarte batek bere bizitzan zehar problema-segida bati aurre egiten diola» eta «problema bakoitzaren agerpena erronka dela proba gogor bat jasateko».

Saia gaitezen hain testuinguru desberdinetan eta hain era anitzetan errepikatzen den istorio edo drama honen argumentua aztertzen.

Bi ezaugarri orokorretatik has gaitezke: gertaera bakan eta batzuetan bakarra bailitzan hartzen da topaketa; eta ondorio oso zabalak ditu naturaren ohiko martxan egiten duen arrailaren zabaltasunarekiko proportzioan.

Mitologia helenikoaren mundu errazean ere —non jainkoek gizakien alabak, ederrak zirenak, ikusi eta hauetako hainbesterekin nahi zutena egiten zutelako haien biktimak katalogo poetikoetan sailkatu eta erakusten baitziren—, halako gorabeherak beti izan ziren gertaera harrigarriak eta heroien jaiotzan bukatzen ziren beti. Topaketaren bi parteak gizagainekoak diren argumentuaren bertsioetan, biziki nabarmentzen dira gertaeraren bakantasuna eta garrantzi

handia. Job liburuan, «Behin batean, Jaunaren aurrera aurkeztu ziren beraren zeruko zerbitzariak, eta han zen Satan ere» esaten denean, ezohiko okasiotzat hartzen da, noski; eta gauza bera Jaunaren eta Mefistofelesen arteko topaketa ere, «Hitzaurrea Zeruan» delakoan (Job liburuaren hasierak iradokia, noski), horrekin hasten delarik ekintza Goetheren *Fausto*-n. Bi drama hauetan, zeruko topaketaren ondorioak ikaragarriak dira lurrean. Joben eta Faustoren proba pertsonalek, fikzioaren intuiziozko hizkeran, gizadiaren proba mugagabeki anitza adierazten dute; eta, teologiaren hizkeran, ondorio zabal berberak agertzen dira Hasiera liburuan eta Itun Berrian deskribatzen diren gizagaineko topaketen ondoren. Adam eta Eva Edengo baratze-tik kanporatzea, Jahve eta sugearen arteko topaketaren ondoren dato-rrena, gizakiaren erortze bera da; Kristoren nekaldia Itun Berrian, gizakiaren berrerospena baino ez da. Bi eguzkiren arteko topaketatik gure planeta-sistema sortzea ere, astronomo modernoak irudikatu bezala, «ia imajinaezina den urritasunezko gertaera dela» adierazten du aditu berak.

Kasu guztietan istorioa Yin-egoera beteginean hasten da. Fausto betegina da jakintzan; Job betegina da ontasun eta oparotasu-nean; Adam eta Eva beteginak dira errugabetasun eta naturaltasunean; birjinak —Gretchen, Danae eta gainerakoak— beteginak dira garbita-sun eta edertasunean. Astronomoaren unibertsoan eguzkiak, orbita beteginean, akatsgabe eta osorik egiten du bere bidea. Yin honela osa-turik dagoenean, prest dago Yang-era pasatzeko. Baina zerk pasaraz-ten du? Definizioz bere erara betegina den egoeraren aldaketa kanpo-tik datorren bulkada edo motibo batek bakarrik abiaraz dezake. Egoera oreka fisikoak bezala ulertzen badugu, beste izar bat sartu behar dugu. Egoera dohatsutasun psikiko edo *nirvana* bezala hartuta, beste aktore bat ekarri behar dugu agertokira: kritikari bat, zalantzak sortu eta buruari berriro pentsaraziko diona; kontrario bat, samina edo atsekabea edo beldurra edo antipatia eraginez bihotzari berriro sentia-raziko diona. Hau da sugearen zeregina Hasiera liburuan, Satanena Job liburuan, Mefistofelesena *Fausto*-n, Lokirena Eskandinaviako mitologian, jainkozko maitaleena birjin-mitoetan.

Zientzi hizkeran, esan genezake sartzten den faktorearen zere-gina bere hartzailea, aldakuntza sortzailerik indartsuenak eragiteko, ongien kalkulaturiko estimuluz hornitzea dela. Mitologia eta teologia-

ren hizkeran, Yin-egoera betegina Yang-jarduera berrira pasarazten duen bulkada edo zioa deabrua Jainkoaren unibertsoan sartzetik etortzen da. Gertaera mitologi irudi hauekin deskribatzen da ongien, azalpena termino logikoetan ematean sortzen den kontraesanak ez baititu irudi horiek oztopatzen. Logikaz, Jainkoaren unibertsoa betegina bada, ezin da deaburik izan handik kanpo, baina deabrua inon baldin bada, berak hondatu behar duen perfekzioa ez da jadanik erabatekoa izango, deabruaren existentziagatik beragatik, alegia. Kontraesan logiko hau, logikoki konpontzerik ez dagoena, intuitiboki gainditzen da poetaren eta profetaren irudietan; hauek Jainko ahalguztidun bati ematen diote aintza, eta hala ere jakintzat ematen dute bi muga erabagarriren mende dagoela Jainko hori.

Lehen mugapena da Hark, dagoeneko sortua duenaren perfekzioan, ezin duela aukerarik aurkitu gehiago sortzeko. Jainkoa traszendetizat hartzen bada, sortze-lanak beti izan ziren bezain aintzatsuak dira, baina ezin dira «loriatik loriara aldatu». Bigarren mugapena Jainkoaren ahalmenean zera da, beste sortze-lan baterako aukera eskaintzen zaionean kanpotik, ezin duela hartu baizik egin. Deabruak erronka egiten dionean, ezin dio uko egin erronka onartzeari. Jainkoa beharturik dago kinka larria onartzera, zeren eta errefusatzea bere izareri uko egin eta Jainko izateari utzita bakarrik egin bailezake.

Honela, Jainkoa ez bada ahalguztiduna termino logikoetan, mitologikoki garaitezina ote da, hala ere? Beharturik badago deabruaren erronka hartzea, beharturik ote dago ondorengo gudua irabaztera ere? Euripidesen *Hipolito*-n, non Jainkoaren partea Artemisak jokatzen baitu eta deabruarena Afrodita, Artemisa, borroka baztertzeo gai ez izateaz gain, galtzera predestinatua ere badago. Olinpiarren arteko harremanak anarkikoak dira eta Artemisak egunen batean Afroditen kontura berak deabruaren papera jokatuko duela pentsatuz bakarrik kontsola dezake bere burua epilogoan. Emaizta ez da sortzea, suntsitzea baizik. Eskandinaviar bertsioan suntsipena da, halaber, Ragnarök-en emaitza —«jainkoak eta demonioak hiltzaile eta hildako direnean»—, nahiz eta *Voluspa*-ren autorearen jeinu apartak bere Sibilaren ikusmenari iluntasuna zularazten dion, harantzago dagoen egunsenti berriaren argia begiesteko. Bestalde, argumentuaren beste bertsio batean, erronkaren derrigorrezko onarpenaren ondorengo borrokak ez du tiroketaren itxura hartzen, non deabruak lehen tiroa

bota eta ezinbestean hil behar baitu bere gizona, baizik eta apostu batena hartzen du, itxuraz deabrua galtzera behartuta dagoena. Apostuaren *motibo* hau bi lan klasikotan agertzen da: Job liburuan eta Goetheren *Fausto*-n.

Puntu hau Goetheren draman azaltzen da garbien. Jaunak Mefistofelesekin apostua onartu ondoren zeruan, baldintzak Lurrean hitzartzen dira, Mefistofeles eta Faustoren artean, honelaxe:

Fausto.- Erosotasuna eta bakea! Ez, ez! Horrelakorik ez niretzat. Ez dut horrelakorik eskatzen, ez bilatzen. Inoiz nagikeriaren ohean etzan eta atsedean hartzen badut, une horretan bertan etzan eta atsedean har dezadala betiko. Zuk, faltsukeriaz eta lausenguz, auto-atseginetako irribarretara eta lasaitasunera engainatzen nauczula? Etor bedi, eta ongi etorria, azken bizi-eguna. Hauxe izango da gure apostua.

Mefistof.- Konforme.

*Fausto.- Konforme, diot: itxi dezagun berehala tratua. Inoiz denbora hain bare joaten bada nire espiritua ahanzturan lasaituz eta trantze atsegin horretan geldituko banintz eta une zoriontsua bere joanean goretsiko banu nirekin gera dadin aginduz... orduan gogotsu onartuko dut hiltzea*¹⁸.

Hitzarmen mitiko honek zibilizazioen sorreraren arazoarekin duen lotura argitzeko, Fausto, apostua egiten duen mementoan, irtenunetik altxatu den «loti iratzarri» haietako batekin identifikatu behar da; irtenune horretan egon dira dorpeki etzanda eta amildegiko labarrean gora hasi dira igotzen. Gure konparazioaren hizkeran, zera esaten ari da Fausto: «Irtenune honetatik alde egin eta hurrengo irtenunearen bila amildegian gora igotzea erabaki dut. Honetan ahalegintzean jabetzen naiz atzera uzten ari naizela segurtasuna. Hala ere, lortzeko aukeragatik, onartu egingo dut erori eta suntsitzeko arriskua».

Goethek kontaturiko istorioan, heriotza-arrisku eta porrot etsigarritzko probaren ondoren, azkenean arrakasta du igokari beldurga-

beak, eta amildegia igotzea lortzen du garaile. Itun Berrian bukaera bera ematen zaio, antagonista-pare beraren arteko bigarren topaketaren errebeldazioaren bidez, Jahve eta sugearen arteko borrokari, hau, Hasiera liburuan jatorrizko bertsioan, Artemisa eta Afroditen arteko borroka *Hipolito*-n bezala amaitua baitzen.

Job, *Fausto* eta Itun Berrian era berean iradokitzen da, baita garbi aitortu ere, apustua ezin duela deabruak irabazi; deabruak, Jainkoaren lanean esku sartzean, ezin diola porrot eragin, lagundu baizik, Jainkoaren helburuari, eta honek egoeraren jabe izaten jarraitzen duela beti, deabruari bere burua urkatzeko soka emanez. Hortaz, ziria sartu al diote deabruari? Ezin zuela galdu jakinda onartu al zuen Jainkoak apustua? Gogorra litzateke hori esatea; egia balitz, iruzurra izango litzateke tratu osoa. Benetakoa ez zen topaketak ezin topaketa baten ondorioak eragin: Yin Yang-era pasatzea eragiten duen ondorio kosmiko zabala. Agian honetan datza azalpena: deabruak eskaintzen duen eta Jainkoak onartzen duen apustuak Jainkoaren kreazioaren zati bat, baina ez guztia, hartzen du eta, beraz, zati hori jartzen du benetako arriskuan. Zati hori benetan dago jokoan; eta, osotasuna ez dagoen arren, pentsa daiteke zatiak izan ditzakeen aukera eta aldakuntzek ez dutela osotasuna ukitu gabe utziko. Mitologiaren hizkeran, deabruak Jainkoaren sorkarietako bat tentatzen duenean, Jainkoak mundua birstortzeko aukera ematen dio bere buruari. Deabruaren esku-hartzeak, arrakasta izan nahiz huts egin arazo zehatz horretan —eta edozer gerta daiteke—, Yin-etik Yang-erako trantsizioa gauzatu du, Jainkoa desiratzen ari zena.

Giza protagonistaren paperari dagokionez, sufritzea da horren ezaugarria dramaren antzezpen guztietan, berdin dio papera jokatzeko duena Jesus edo Job edo Fausto edo Adam eta Eva izan. Adam eta Evaren koadroa Edengo baratzean Yin-egoeraren oroitzapena da, gizaki primitiboa ekonomiaren janari-bilketako fasean iritsi zelarik egoera hartara, Lurreko beste flora eta faunaren gainean bere agintea ezarri ondoren. Ongiaren eta gaizkiaren jakinduriaren arbolatik jateko tentazioari erantzunez, Erortzeak, lorturiko integrazio hau baztertu eta beste diferentziazio batera ausartzeko erronkaren onarpena sinbolizatzen du, honetatik integrazio berri bat sor daitekeelarik edo ez. Paradisutik mundu desatsegin batera kanporatzea, non emakumea minez erdituko baita eta gizonak bekokiko izerdiaz jango baitu ogia,

Sugearen erronka onartzeak ekarri duen proba da. Ondoren Adam eta Evaren artean izandako sexu-harremana gizarte-sorkuntzazko ekintza da. Bi semeren jaiotza da haren emaitza, sortzen ari diren bi zibilizazioen ordezkari direnak: Abel artzaina eta Kain laboraria.

Gure belaunaldian, giza bizitzaren ingurune fisikoaren aztertzailerik ospetsuen eta orijinaletako batek istorio bera kontatzen digu bere erara:

«Duela mende asko larrugorritan, etxerik eta surik gabe zegoen basati-talde batek bere zonalde beroko bizileku epeletik abiatu eta iparralderantz jo zuen etengabe, udaberriaren hasieratik udaren bukaera arte. Beti epela zen lurraldetik irten zirela ez ziren batere ohartu irailean gauean hozkirri desatsegina sentitzen hasi ziren arte. Egunetik egunera okerrera egin zuen egoerak. Zergatia ez zekitenez, batera eta bestera ibili ziren ihesi. Batzuk hegoaldera joan ziren, baina gutxi batzuk bakarrik itzuli ziren hasierako bizilekura. Han bizi-modu zaharrari ekin zioten, eta haien ondorengoak basati hezigabeak dira gaur arte. Beste norabide batzuk hartu zituztenak guztiak desagertu ziren, taldetxo bat izan ezik. Aire sarkorrari ezin ziotela ihes egin oharturik, talde honetako kideek giza ahalmen gorena erabili zuten: asmamen kontzientea. Batzuk lurra zulatuz saiatu ziren babesa aurkitzen, beste batzuek adarrak eta hostoak bildu zituzten etxolak eta ohe epelak egiteko, eta beste batzuek ehizaturiko piztien larruazaletan bildu zituzten beren gorputzak. Laster basati haiek urratsik handienetakoak eman zituzten zibilizaziorantz. Larrugorritan zeudenak jantzi-ta zeuden; etxerik gabeak, babestuta; aurreikusten ez zutenek haragia lehortzen eta gordetzen ikasi zuten, hurrekin batera, negurako; eta azkenik sua egiteko antzea aurkitu zuten epel egoteko era bezala. Honela iraun zuten bizirik hasieran galdurik zeudela uste zuten lekuan. Eta ingurune gogor hartara egokitze prozesuan, pauso izugarriak emanez egin zuten aurrera, tropiko aldeko gizadi-zatia oso atzera utzita»¹⁹.

Halaber, aditu klasiko batek honela aldatzen du istorioa gure garaiko zientzi terminologiara:

«Aurrerapenaren paradoxa da..., premia baldin bada askakuntzaren ama, tema izatea beste gurasoa, hots, baldintza gogorretan ere bizitzen jarraitzeko erabakia eta ez galerak moztu eta bizimodua errazagoa den lekura alde egitea. Ez zen ustekabekoa izan zibiliza-

zioa, guk ezagutzen dugun bezala, Glaziar Aro laukoitzaren bereizgarri den klima, flora eta faunaren goraldi eta beheraldi hartan hastea. Zuhaitz-baldintzak desagertu zirenean ozta-ozta 'libratu' ziren primatreek beren nagusitasunari eutsi zioten natur legearen zerbitzarien artean, baina uko egin zioten izadia konkistatzeari. Beste batzuk erabat garaitu eta gizaki bilakatu ziren: babesteko zuhaitzik ez zegoen lekuan jarraitu zutenak, fruiturik heltzen ez zenean haragiarekin 'mol-datu' zirenak, eguzkiari jarraitu ordez suak eta jantziak egin zituztenak; haitzuloak gotortu eta gazteak trebatu zituztenak eta hain zentzugabea zirudien mundu baten zentzuzkotasuna errebindikatu zutenak»²⁰.

Beraz, giza protagonistaren probaren lehen etapa Yin-etik Yang-erako trantsizioa da egintza dinamiko baten bidez —Aurkariaren tentaziopean Jainkoaren sorkariak egina—, egintza honek Jainkoa bera gai egiten duelarik bere jarduera sortzaileari berrekiteko. Baina aurrerapen hau ordaindu beharra dago; eta ez da Jainkoa, Jainkoaren zerbitzaria —giza ereilea— baizik, prezioa ordaintzen duena. Azkenik, gorabehera askoren ondoren, garaile jasankorrak balio du aitzindari izateko. Giza protagonistak jainko-draman ez du bakarrik Jainkoa zerbitzatzen beroni kreazioa berritzeko aukera eman ez, baita lagun hurkoak ere beste batzuei jarraibidea erakutsiz.

2.

Mitoa arazoari aplikatua

Aurreikusi ezinezko faktorea

Mitologiaren argitan lortu dugu erronka eta erantzunen izaeraz gehiago jakitea. Kreazioa topaketa baten ondorioa dela ikustera iritsi gara, eta hasiera, elkarrekin zaren emaitza. Itzul gaitezen orain geure berehalako bilaketara: azken sei mila urteotan gizadiaren zati bat «usadioaren integraziotik zibilizazioaren diferentziaziora» eraman duen faktore positiboaren ikerketara. Berrikus ditzagun gure hogeita

bat zibilizazioen jatorriak, proba enpirikoaren bidez, ziurtatu ahal izateko ea «erronka eta erantzunaren» ideiak hobeto erantzuten dion bila gabiltzan faktoreari arraza eta ingurunearen hipotesiek baino, hauek dagoeneko pisuan jarri eta eskas aurkitu baititugu.

Ikerketa berri honetan oraindik ere arduratuko gara arraza eta inguruneaz, baina argi berri batez begiratuko diegu. Ez gara jadanik zibilizazioen hasieraren kausa bakunen baten bila arituko, beti eta edonon ondorio berdina eragiten duela froga daitekeen horietako baten bila. Jadanik ez gara harrituko, zibilizazio-produkzioan, arraza berak eta ingurune berak emankor ematen badu kasu batean eta agor beste batean. Izan ere, jadanik ez dugu egingo izadiaren uniformitatearen zientzi postulatu, orain arte geure arazoaz zientzi terminoetan zuzen egin duguna, indar bizigabeen jokoaren funtzio bat bezala pentsatzen genuen neurrian. Orain prest egongo gara aitortzeko, arraza-eta ingurune-datu guztiak eta zientifikoki formula daitezkeen beste datu batzuk zehazki ezagutuko bagenitu ere, ez ginatekeela gai izango datu horiek adierazten dituzten indarren arteko elkarrekintzaren emaitza auresateko, aditu militar batek ere ezin auresan dezakeen bezala gudu edo kanpaina baten emaitza bi estatu nagusi etsaien antolaketa eta baliabideen «barne-ezagutzagatik», ezta bridgean adituak ere jokaldi baten emaitza esku bakoitzeko karta guztien antzeko ezagutzagatik.

Bi analogia hauetan «barne-ezagutza» ez da aski hori daukanak inolako zehaztasun edo ziurtasunez emaitzak auresateko, ez baita erabateko ezagutza izatea bezala. Bada gauza bat ongien informaturiko begiralearentzat ere ezezagun izaten jarraituko duena, borrokalarien edo jokalarien euren ezagutzaz harantzago baitago; eta terminorik garrantzitsuena da ustezko kalkulataileak ebatzi beharreko ekuaizioan. Faktore ezezagun hau aktoreen erreakzioa da, proba benetan iristen denean. Bulkada psikologiko hauek, berez pisaezin eta neurtezinak eta beraz zientifikoki kalkulaezinak aurrez, arazoa benetan erabakitzen duten indarrak berak dira, topaketa gertatzen denean. Eta horregatik jeinu militarrik handienek berek ere elementu kalkulaezin bat onartu izan dute beren arrakastetan. Erljiozale izanez gero, beren garaipenak Jainkoari egotzi izan dizkiote, Cromwell-ek bezala; superstizioso soilik izanez gero, beren «izarraren» eraginari, Napoleonek bezala.

Zibilizazio Egipziakoaren sorrera

Aurreko kapituluan inguruneaz jardun genuenean, ingurunea faktore estatikoa dela suposatu genuen, ingurunearen teoriaren autore helenikoek berez suposatu zuten bezala; are zehazkiago, denbora «historikoaren» mugen barnean afrasiar estepak eta Nilo ibarrak aurkezturiko egoera fisikoa gaur diren bezalakoak izan direla beti, baita orain dela hogeita lau mende, greziarrek haiei buruzko teoriak ehundu zituztenean, ziren bezalakoak ere. Baina, egia esateko, badakigu hau ez zela horrela izan.

«Ipar Europa Harz-eraino izotzez estalia eta Alpeen eta Pirinioen gailurretan glaziarrek zeuden bitartean, Artikoko goi-presioak hegoalderantz desbideratzen zituen Atlantikoko ekaitzak. Gaur egun Erdialdeko Europa zeharkatzen duten zikloiek orduan Mediterraneo arroaren eta Ipar Sahararen gainetik igaro eta aurrera jarraitzen zuten, Libanok lehortu gabe, Mesopotamia eta Arabian zehar Pertsia eta Indiaraino. Sahara idorrek eurijasa erregularra izaten zuen, eta ekialderago euriteak gaur egun baino ugariagoak izateaz gain, urte osoan banatuak ere baziren, negura mugatuta egon ordez...

«Ipar Afrikan, Arabian, Pertsian eta Indus ibarrean baso txiki eta sabanak aurkitzea esperoko genuke, gaur egun Mediterraneo iparrean aurkitzen diren bezalakoak... Mamuta, errinozero iletua eta elur-oreina Frantzian eta Hego Ingalaterran kimaketan zebiltzan bitartean, gaur egun Rhodesiako Zambezen aurkitzen den fauna zegoen Ipar Afrikan...

«Ipar Afrikako eta Hego Asiako belardi atsegingarriak Europako estepa izoztuak bezain trinko jendeztatuak zeuden, noski, eta zentzuzkoa da sumatzea ingurune mesedegarri eta benetan bizkorgarri honetan gizakiak aurrerapen handiagoak egingo zituela izotzez inguraturiko iparraldean baino»²¹.

Baina Glaziar Aroa bukatu ondoren, gure afrasiar eremua aldaketa fisiko sakona jasaten hasi zen lehorketaren bidean; eta aldi berean bi zibilizazio edo gehiago sortu ziren, aurrez, gainerako mundu jendeztatu osoan bezala, paleolito-ordenako gizarte primitiboak baka-rrik egon ziren eremuan. Gure arkeologoek Afrasiaren lehorketa erronkatzat hartzera animatzen gaituzte, hari emandako erantzunak izan zirelarik zibilizazio hauen sorrerak.

«Iraultza handiaren bezperan aurkitzen gara orain, eta las-ter, abere etxekotu eta laboregintzari esker, beren janari-horniduraren jabe diren gizakiak aurkituko ditugu. Ezinbestekoa dirudi iraultza hau iparraldeko glaziarren urtzeak eragindako krisiarekin lotzea, eta ondorioz Europa gainean Artikoko goi-presioek izandako uzkuetzearekin eta Atlantikoko euriteek Hego Mediterraneo aldetik gaur egun Erdialdeko Europan zehar duten bidera desbide-ratzearekin.

«Gertaera honek aurreko belardietako biztanleen buruargita-suna benetan proban jarriko zuen maila gorenean...

«Europako glaziarrek uzkuritu eta Atlantikoko zikloi-kateak iparraldera egin ondorengo lehorketa gero eta handiagoaren aurrean, hiru alternatiba zeuzkaten hura pairatzen zuten herri ehiztariek: Iparraldera edo hegoaldera mugitzea beren harrapakinarekin, ohitu-rik zeuden klima-kateari jarraituz; zeuden lekuan bertan geratzea bizimodu kaskarra eginez, lehorteia jasaten zuen ehizaz baliatuz; edota —sorlekutik alde egin gabe betiere— beren buruak ingurunearen gutiziekiko mendetasunetik askatzea abereak etxekotu eta nekazaritza eginez»²².

Kinka hartan, beren habitata edo bizimodua aldatu ez zutenek desagertpenaren zigorra ordaindu zuten, lehorketaren erronkari erantzuten huts egiteagatik. Bizimodua aldatuz eta ehiztari izatetik artzain izatera igaroz beren habitata aldatzea saihestu zutenak afrasiar estepa-ko nomada bilakatu ziren. Haien lorpen eta patuak liburu honen beste zati batean eskatuko du gure arreta. Bizimodua aldatu ordez habitata aldatzea erabaki zutenak, zikloi-kateak iparraldera egin zuenean bera-ri jarraituz lehorteia saihestu zuten komunitateak, beste erronka baten aurrean jarri ziren, horretarako asmorik gabe: iparraldeko urtaro hotzaren erronka zen, desagertu ez zirenei erantzun sortzaile berria eskatu ziena; hegoaldera montzoi-kateraino joanez lehorteari ihes egin zioten komunitateak, berriz, tropikoetako klima-monotoniaren mende gelditu ziren lozorroan. Bosgarren eta azkenik, izan ziren komunitateak lehortearen erronkari habitata, baita bizimodua ere, aldatuz erantzun ziotenak, eta erreakzio bikoitz arraro hau izan zen zibilizazio Egiptiako eta Sumerikoa sortu zituen egintza dinamikoa, desagertzen ari ziren afrasiar belardietako gizarte primitiboetako batzuegandik abiatuz.

Komunitate sortzaile hauen bizimoduan izandako aldaketa erabateko eraldaketa izan zen, jaki-biltzaile eta ehiztari izatetik laborari izatera. Beren habitatean izandako aldaketa, txikia izan zen distantziari dagokionez, baina handia atzera utzitako belardien eta orain bizilekua ezarria zuten ingurune fisiko berriaren arteko izaera-desberdintasuna neurtzen bada. Niloren behe-ibarraren gain dauden belardiak Libiako basamortu bihurtu zirenean eta Eufrates eta Tigrisen behe-ibarraren gain dauden belardiak Rub al-Khali eta Dasht-i-Lut bihurtu zirenean, aitzindari heroiko haiek —ausardiak edo etsipenak bultzaturik— ibar-hondoetako zingira oihantsuetan sartu ziren, aurrez gizakia sekula izan gabeko lekuetan, eta haien egingtza dinamikoak Egiptoko lurralde eta Xinearko lurralde bihurtuko zituen. Auzokoei, gorago deskribaturiko ibilbide alternatiboak hartu zituztenei, beste hauen abentura eginkizun etsigarria irudituko zitzaien; zeren eta iragan aroan, orain afrasiar estepa bihurtzen hasia zen eremua lur-paradisu izan zenean, Nilo eta Mesopotamiako zingira oihantsua basa eremu babesgabe eta itxuraz zeharkaezina izan baitzen. Azkenean, aintzindariak inoiz izan zezaketen itxaropenik handiena baino arrakasta handiagoa izan zuen abenturak. Gizakiaren lanak mendeen hartu zuen izadiaren grina; aintzira oihantsu itxuragabea dikeek, zangek eta lursailek antolatatu zuten. Egipto eta Xinearko lurraldeak berreskuratu egin zituzten basa eremutik eta Gizarte Egipziakoak eta Sumerikoak beren abentura handiei ekin zieten.

Behe Niloren ibarra, nora jaitsi baitziren gure aitzindariak, ez zen bakarrik oso desberdina gaur egun —hirurogei mendez egindako lan trebeak bere marka utzi ondoren— ikusten dugun ibarraren aldean; gainera, birmoldaketa gizakiak naturari utzi izan balio gaur egun izango zatekeena bezain desberdina zen ia. Konparatiboki garai berandu samarretan, Antzinako eta Erdi Erresumaren garaietan —hau da, aitzindarien garaia baino milurteko batzuk geroago— hipopotamoak, krokodiloak eta hainbat basa hegazti —horietako batere ez da orain Lehen Urjauziaz behetik aurkitzen— gauza arruntak ziren behe-ibarrean, garai hartatik gorde diren eskultura eta pinturen lekukotasunak frogatzen duen bezala. Hegazti eta animaliei buruz egia dena, egia da landaretzaz ere. Lehorketa hasia zen arren, artean Egipton baziren euriteak eta urpetutako padura zen delta. Baliteke delta gaineko Behe Nilo, Sudango ekuatore-probintzian dagoen Bahr-al-Jabal-eko Goi

Niloko lurraldearen antzekoa izatea egun haietan, eta delta bera No aintziraren inguruko eskualdearen antzekoa izatea, bertan nahasten dituztelarik urak Bahr-al-Jabal eta Bahr-al-Ghazal-ek. Ondorengoa herrialde triste horren egungo deskribapena da:

«Bahr-al-Jabal-en paisaia Sudd (kanabera-pila) eskualdean egiten duen bidean ezin monotonoagoa da. Ez dago batere ibaiertzik toki bakartu gutxi batzuetan izan ezik, ezta ur-ertzean muino baten antzeko ezer ere. Zingira kanaberatsuak hainbat kilometrotan alde bietara. Tarteka sakonera gutxiko aintzirek hausten dute zingiren hedadura. Aintzira hauen gainazala zentimetro batzuk bakarrik dago ibaiko ur-maila baino gorago beheren dagoenean, eta metro erdiko ur-goraldiak azpian hartzen ditu oso urrutiraino. Zingira hauek uretako landaretza trinkoz estaliak daude, norabide guztietan zerumugarantz...

«Eskualde honetan guztian, Bor eta No aintziraren artean batez ere, oso arraroa da giza bizitzaren arrastorik ikustea... Eskualde osoak duen hondamen-itxura hitzek ezin dute adierazi. Ikusi egin behar da ulertzeko»²³.

Jendeztatu gabe dago inguruan bizi den jendea ez dagoelako, hemen eta orain, aukera latz baten aurrean, Zibilizazio Egiptiakoaren gurasoak duela sei mila urte Behe Niloren ibar-ertzetan finkatu zirenean egon ziren bezala—: Sudd alde desatseginean murgildu ala arbasoen habitatari heldu, lurreko paradisu izateari utzi eta bizitzeko basamortu babesgabe bihurtzeko prozesuan zegoenean. Gure adituak zuzen badaude beren ustean, orain Sudango Sudd ertzean, egun Libiako basamortu den aldean, bizi den jende honen arbasoek aurrez aurre topo egin zuten Zibilizazio Egiptiakoaren sortzaileekin, haiek garrantzi handiko aukera eginez lehorketaren erronkari erantzun ziotenean. Garai hartan, irudi luke dinka eta shilluk modernoek arbasoek auzoko heroikoengandik aldendu behar izan zutela eta eragozpen txikieneko bideari jarraitu ziotela hegoaldera erretiratuz, aldatu gabe beren bizimodua bizitzen jarrai zezaketelako, ohiturik zeudenekoarekiko neurri batean berdina zen ingurune fisikoan. Sudan tropikalean ezarri ziren, eurite ekuatorialak iristen ziren aldean, eta ondorengoek gaur arte iraun dute han, aspaldiko arbasoen bizimodu berbera eginez. Bizileku berrian emigratzaile nagi eta handinahirik gabeko haiek beren arimek nahi zutena aurkitu zuten.

«Gaur egun Goi Nilon itxuraz, altueraz, garezurren proportzioz, hizkuntzaz eta janzeraz egiptoar zaharrenen antzeko jendea bizi da. Azti euri-egileen edo duela gutxira arte erritoz hiltzen zituzten jainkozko erregeen gobernupean daude, eta tribuak klan totemikoetan daude antolaturik... Benetan ematen du Goi Niloko tribu hauen artean gizarte-garapena gelditu egin dela egiptoarrek beren historia hasi aurretik igaro zuten fase batean. Museo bizia daukagu han, hango erakusgaiek osatu eta bizitu egiten dituztelarik historiaurreko arasa gure bildumetan»²⁴.

Nilo arroaren zati bateko lehengo egoeraren eta beste zati bateko egungo egoeraren arteko paralelotasunak zenbait espekulazio egitera bultzatzen du. Demagun Nilo arroko biztanleei sekula ez zitzaie la agertu lehorketaren erronka, egungo baldintzetan eurite ekuatorialen irispidetik kanpo dauden alde haietan: kasu horretan, delta eta Niloren behe-ibarra izadiaren jatorrizko egoeran geratuko ote ziren? Sortuko ote zen inoiz Zibilizazio Egipziakoa? Oraindik segituko ote zuen jende honek Behe Niloren ibar basatiaren ertzean kuzkurtuta, gaur egun shilluk eta dinkak Bahr-al-Jabal-en ertzean kuzkurtuta dauden bezala? Eta bada oraindik beste espekulazio-bide bat, ez iragana-ri baizik eta etorkizunari dagokiona. Gogora dezagun unibertsoa, edo geure planetako, edo bizitzako, edo baita *genus homo*-ren ere, denbora-eskalan sei mila urteko tarte batean garrantzirik gabeko tarte dela. Demagun beste erronka bat —Behe Niloren ibarreko biztanleei atzo, Glaziar Aroaren bukaeran, agertu zitzaiena bezain ikaragarria— agertzen zaiela Goi Niloren arroko biztanleei bihar: ba al da arrazoirik pentsatzeko ez direla gai lehengoa bezain egintza dinamikorik batez erantzuteko, honek ere ondorio sortzaileak eduki ahal izango lituzkeelarik?

Ez daukagu eskatu beharrik shilluk eta dinken erronka hipotetiko hau Zibilizazio Egipziakoaren gurasoei agertu zitzaienaren mota berekoa izatea. Imajina dezagun erronka ez datorrela ingurune fisiko-
tik giza ingurunetik baizik, ez klima-aldaketatik, zibilizazio arrotzen baten sarralditik baizik. Ez al zaie benetan erronka hau berau aurkeztu geure begien aurrean Afrika tropikaleko biztanle primitiboei gure Mendebaldeko Zibilizazioaren eraginagatik? Zibilizazio hau, gure belaunaldian, Lur gainean den beste edozein zibilizazioaren aurrean eta existitzen den gizarte primitibo ororen aurrean Mefistofelesen paper

mitikoa jokatzeko ari den giza eragile bat da. Erronka oso berria da oraindik eta ezin dugu aurreikusi erronka jasandako gizarteek emango dioten azken erantzuna. Zera bakarrik esan dezakezu, erronkari erantzuten gurasoek porrot egiteak ez lituzkeela seme-alabak ordua iristen zaienean beste erronka baten aurrean huts egitera eramango.

Zibilizazio Sumerikoaren sorrera

Labur aztertuko dugu arazo hau, zeren eta hemen Zibilizazio Egiptziakoaren gurasoek topatu zuten erronka berdina eta mota bereko erantzuna baitauezkagu. Afasiaren lehortzeak era berean bulatzatu zituen Zibilizazio Sumerikoaren gurasoak Tigris eta Eufratesen behe-ibarreko aintzira oihantzuarekin borrokatzeri eta Xinearko lurralde bihurtzeri. Bi sorrera hauen alde materialak ia bat datoz. Sorturiko bi zibilizazioen ezaugarri espiritualek, erlijioak, arteak, baita gizarte-bizitzak ere, askoz antz txikiagoa dute; honek ere erakusten du, gure azterlanen eremuan, ezin dela uste izan *a priori* kausa berdinek ondorio berdinak eragingo dituztenik.

Zibilizazio Sumerikoaren gurasoek jasandako proba kondaira sumerikoan dago jasota. Marduk jainkoak Tiamat herensugea hiltzeak eta honen gorpuzkinetatik mundua sortzeak jatorrizko basa eremua menderatzea eta urak kanalizatuz eta lurra drenatuz Xinearko lurraldea sortzea esan nahi du. Uholdearen istorioak gizakiaren ausardiak ezarritako oztopoen aurka Izadiaren errebolta kontatzen du. Bertsio biblikoan, juduek Babiloniako uren ondoan eman zuten erbestealdiko literatur herentzian, «Uholdea» hitz ezagun bihurtu da gure Mendebaldeko Gizartean. Arkeologo modernoentzat geratu da kondairaren jatorrizko bertsioa aurkitzea, baita ezohiko larritasuna izan zuen uholde bereziren baten frogazuzena aurkitzea ere uholdeak utzitako buztin-geruza sendoren batean, hau kultura sumerikoaren zenbait egonleku historikotan giza bizitzak utzitako lehen eta azken geruzen artean dagoelarik.

Tigris eta Eufratesen arroak, Niloren arroak bezala, «museo» bat du gure behaketarako: bertan gizakiak eraldaturiko basa eremuan izadi bizigabeak duen itxura normala azter dezakegu, eremu horretan lehen aitzindari sumerikoek izandako bizimoduarekin batera. Mesopotamian, ordea, museo hau ez da aurkitzen, Nilo arroan bezala, ibaian gora joanda. Pertsiar golkoaren buruan delta berrian dago, seni-

de diren korronteek bat-egiteaz eratua, ez bakarrik Zibilizazio Sumerikoaren sorreraz geroztiko garaietan, baita haren desagertzeaz eta haren ondorengo izan zen Babilonikoaren desagertzeaz geroztiko garaietan ere. Zingira hauek, azken bi edo hiru mila urteotan pixkanaka sortu direnak, jatorrizko egoeran iraun dute gaur egun arte, ez delako gizarterik agertokian azaldu haietaz nagusitzeko gogoz. Han bizi den zingira-jendeak ingurune hartara era pasiboan moldatzen ikasi du, beraien ezizenak, «palmipedoak» —britainiar soldaduek 1914-18ko gerran aurkitu zituztenean jarritako izena— adierazten duen bezala, baina sekula ez diote ekin Zibilizazio Sumerikoaren gurasoek duela bost edo sei mila urte inguru antzeko lurraldean egin zuten lanari, zingirak ubide- eta lursail-sare bihurtzeari, alegia.

Zibilizazio Sinikoaren sorrera

Ondoren ibai Horiaren behe-ibarrean Zibilizazio Sinikoaren sorrera aztertzen badugu, izadi fisikoaren erronkari emandako giza erantzun bat aurkituko dugu, agian Bi Ibaiena eta Nilorena baino latzagoa izan zen erronkari emana. Garai batean gizakiak Zibilizazio Sinikoaren sehaska bihurtu zuen basa eremuan, zingira eta sastraka eta uholdearen proba tenperaturaren probak eramaten zuen gorenera, urtaroen arabera udako beroaren muturretik neguko hotzaren muturrera aldatzen baitzen. Ez dirudi Zibilizazio Sinikoaren gurasoak arrazaz desberdinak zirenik hegoaldeko eta hego-mendebaldeko eskualde zabalean —Ibai Horitik Brahmaputra-ra eta Tibeteko goi-ordokitik Txinako itsasora bitarteko horretan— zeuden herrien aldean. Asko zabaldutako arraza hartako kide batzuek zibilizazio bat sortu baldin bazuten gainerakoek kulturalki antzu jarraitzen zuten bitartean, arrazoia zera izan daiteke: sortzeko ahalmena, guztiengan antzera zegoena, kide partikular horiengan, eta horiengan bakarrik, piztu zela, besteek jasan ez zuten erronkaren bati aurre egin behar izan ziotelako. Erronka horren izaera zehatza finkaezina da, gaur egun ezagutzen dugunaren arabera. Baina ziur esan dezakegu Zibilizazio Sinikoaren gurasoek Ibai Horiaren ondoko sorlekuan ez zutela gozatu auzokoena baino ingurune errazago baten abantaila amestu baina engainuzkoez. Izan ere, hegoalderago —Yangzi-ren ibarrean adibidez, zibilizazio hau sortu ez zen lekuan— dauden herri ahaidetuatariko inork ezin izan du bizitzeko hain borroka gogorrik izan.

Maiena eta Andetar Zibilizazioen sorrerak

Maiena Zibilizazioak oihan tropikalaren joritasunaren erronkari erantzun zion.

«Maiena kultura nekazaritzak behe-lur emankorrek konkistatzen ahalbidetu zen, non ahalegin antolatuak bakarrik eutsi baitiezaioke atzera izadiaren joritasunari. Goi-lurretan lurzoruaeren prestaketa erraza da konparatiboki, berezko landaretza urria delako eta ureztapen bidezko kontrolagatik. Behe-lurretan, ordea, zuhaitz handiak moztu behar dira eta azkar hazten den sasitza kemen nekagaitzez hartu behar da mendeana. Baina izadia benetan menderatzen denean, saria biderkatuta itzultzen dio nekazari ausartari. Are gehiago, bada arrazoirik pentsatzeko eremu handietan oihan-estalkia kentzea mesedegarri dela bertan bizi ahal izateko, hosto-erreselaren azpian benetan gogorra den bizitzarako»²⁵.

Erronka honek, Panamako istmoaz iparraldera Maiena Zibilizazioa sortarazi zuenak, ez zuen erantzunik izan istmoaz beste aldean. Hego Amerikan sortu ziren zibilizazioek bi erronka oso desberdini erantzun zieten: Andeatoko goi-ordokikoari eta ondoko Ozeano Barekoari. Goi-ordokian Andetar Zibilizazioaren gurasoen klima gogorraren eta lur etsaiaren erronkak jasan zituzten; kostaldean beroaren eta itsas mailan ia eurgabeko basamortu ekuatorialeko lehortearen erronka izan zuten, basamortu hori arrosa bezala gizakia- ren lanak bakarrik lorarazi ahal izan zuelarik. Kostako zibilizazioaren aitzindariak oasiak egin zituzten basamortuan goi-ordokiaren mende- baldeko malkarretik jaisten ziren ur urriak bildu eta ureztapen bidez ordokiari bizia emanez. Goi-ordokiko aitzindariak mendi-hegalak soro bihurtu zituzten lur urria terrazatan bilduz, berari eusteko lan handia eginez nonahi eraikitako harresi-sistemaren bidez.

Zibilizazio Minoikoaren sorrera

Dagoeneko azaldu dugu ahaiderik gabeko sei zibilizazioetako bosten sorrera ingurune fisikoaren erronkari emandako erantzunak balira bezala. Seigarrena oraindik azterketa honetan aurkitu ez dugun erronka fisikoari emandako erantzuna izan zen: itsasoaren erronkari.

Nondik etorri ziren «Minosko talasokraziaren» aitzindari hauek? Europa, Asia edo Afrikatik? Mapari begiratu bat emateak Europa edo Asiatik etorri zirela iradokiko luke, uharteak askoz hurbi-

lago baitaude kontinente hauetatik Ipar Afrikatik baino; izan ere, urperatutako mendikateen gailurrak dira, historiaurrearen garaietako apurketaren eta uren etorreragatik ez balitz, Anatoliatik Greziaraino etengabe joango liratekeenak. Baina arkeologoen aitoren txundigarriaren eta, aldi berean, ukaezinaren aurrean aurkitzen gara: giza bizitzaren aztarnarik zaharrenak Kretan aurkitzen direla, konparatiboki urruti dagoen uhartea bai Greziatik eta bai Anatoliatik, nahiz eta bietatik hurbilago egon Afrikatik baino. Etnologiak babestu egiten du arkeologiak iradokitakoa; zeren eta ongi ezarritako gauza baitirudi, Egeo aurrean dauden kontinenteetako lehen biztanle ezagunen artean, bazirela benetan bereizketa fisiko batzuk garbi markatuak. Anatolia eta Greziako lehen biztanle ezagunak «buruzabalak» ziren; afasiar belardietako lehen biztanle ezagunak «buruluzeak» ziren; eta Kretan giza fisikoaren erlikiarik zaharrenek badirudi zera adierazten dutela: uhartean lehenik «buruluzeak» izan zirela erabat edota gehienbat, eta «buruzabalak», azkenean nagusitzera iritsi ziren arren, hasieran ez zirela Kretako biztanleen artean batere egon, edota oso gutxi izan zirela. Etnologi frogak honek ondorio hau erakusten du: Egeoko uhartediaren edozein tokitan oina jarri zuten lehen gizakiak afasiar belardien lehorketagatiko etorkinak izan zirela.

Hortaz, dagoeneko aipatu ditugun lehorketari emandako bost erantzunei seigarrena erantsi behar diegu. Zeuden lekuan gelditu eta han desagertu zirenei; zeuden lekuan gelditu eta, dinka eta shilluk-ak bezala, nomada bihurtu zirenei; hegoaldera joan eta beren bizimodu zaharrari eutsi ziotenei; iparraldera joan eta Europako kontinentean nekazari neolitiko izatera iritsi zirenei; aintzira oihantsuetan murgildu eta Zibilizazio Egipziakoa eta Sumerikoa egin zituztenei beste hauek erantsi behar dizkiegu: iparraldera joan eta, ez igarobide erraz samarrrak eskaintzen zituzten eta artean irauteen zuten istmoekin edo bazarren itsasarteekin, baizik eta Mediterraneo irekiaren hutsune beldurgarriarekin topo egitean, azken erronka hau onartu, itsaso zabala zeharkatu eta Zibilizazio Minoikoa sortu zutenak, alegia.

Analisi hau zuzena bada, egia baten adibide berri bat eskaintzen du: hots, zibilizazioen sorreran, erronka eta erantzunen arteko jokoa dela beste guztiak —kasu honetan, hurbiltasuna— baino faktore garrantzitsuagoa. Uhartediaren okupazioan hurbiltasuna izan balitz faktore erabakigarria, orduan kontinente hurbilenetako biztanleak,

Europa eta Asiakoak, izango ziren Egeoko uharteetako lehen okupatzaileak. Uharteetako asko kontinente horietatik «harrikada batera» dauden bitartean, Kreta berrehun miliara dago Afrikako punturik hurbilenetik. Hala ere, Europa eta Asiatik hurbilen dauden uharteak, dirudenez Kreta baino askoz geroagora arte okupatu gabeak, «buruluze-ek» eta «buruzabalek» aldi berean okupatu zituztela ematen du; eta honek iradokitzen du, afrasiarrek Zibilizazio Minoikoaren oinarriak jarri ondoren, beste batzuk sartu zirela haien lanetan, aitzindarien imitazio hutsez edo guk zehazki identifikatu ezin dugun presio edo erronkaren batek behartu zituelako bere garaian erantzun bat ematera, Kretaren lehen afrasiar okupatzaileek are baldintza ikaragarriagoetan jadanik emana zuten erantzun bera.

Zibilizazio Filialen sorrera

«Ahaidetu gabeko» zibilizazioetatik, gizarte primitiboaren Yin-egoetatik sorturikoetatik, geroagoko zibilizazioetara, aurreko «zibilizatuekin» era eta maila askotan ahaideturikoetara igarotzen garenean, begi-bistakoa da hauen kasuan, nahiz eta mailaren bateko erronka fisikoa ere egon hauek estimulatzeko, erronka garrantzizko eta funtsezkoena giza erronka bat izan zela, berauen guraso zen gizartearekiko erlaziotik sortua. Erronka hau inplizitua dago erlazioan bertan, desberdintzearekin hasi eta banakuntzan bukatzen dena. Desberdintzea aurreko zibilizazioaren gorputz barruan gauzatzen da, zibilizazio hura sortzeko ahalmena galtzen hasten denean, ahalmen horren bidez, bere hazkundea, borondatezko leialtasuna sortarazi izan zuelarik garai batean bere gainazalaren azpiko edo mugez harantzagoko jendearen bihotzean. Hau gertatzen denean, zibilizazio gaixoak zigorra ordaintzen du galtzen ari den bizitasunagatik eta desegin egiten da: batetik, gutxiengo menderatzailea, gero eta zapalkuntza handiagoaz agintzen baina jadanik gidatzen ez duena; eta, bestetik, proletalgora (barnekoa eta kanpoko) bere arima propioa duela jabetuz eta bere arimari bizirik eustea erabakiz erronkari erantzuten diona. Gutxiengo menderatzailearen zapaltzeko gogoak banakuntza-gogo sortzen du proletalgoarengan; eta bi gogo hauen arteko gatazkak jarraitu egiten du beherantza doan zibilizazioa erorikora hurbildu bitartean, harik eta, *in articulo mortis* dagoela, azkenean proletalgora askatu egiten den arte, garai batean bere egoitza espirituala izan baina orain presondegi eta azkenik Suntsiduraren Hiri

bihurtu zaion horretatik. Proletalgoaren eta gutxiengo menderatzai-
learen arteko gatazka honetan, hasieratik bukaeraraino gauzatzen
denean, topaketa espiritual dramatiko horietako bat suma dezakegu,
unibertso bizitza udazkeneko gelditasunetik atera eta neguko oina-
zeetan zehar udaberriko altxagarriaraino eramanez sortze-lana berri-
tzen duena. Proletalgoaren banakuntza da egintza dinamikoa, erron-
kari erantzuten diona, beraren bidez gertatzen delarik Yin-etik Yang-
erako aldaketa; eta banaketa dinamiko honetan jaiotzen da zibiliza-
zio «filiala».

Gure zibilizazio filialen sorreran, bereiz ote dezakegu erronka
fisiko bat ere? Bigarren kapituluan ikusi genuen zibilizazio filialak
hainbat mailatan erlazionaturik zeudela beren aurrekoekin geografi
kokalekuaren puntuan. Eskalaren mutur batean Zibilizazio Babilo-
nikoa erabat garatu zen bere aurreko Gizarte Sumerikoaren sorlekuan.
Hemen nekez sar zitekeen erronka fisikorik zibilizazio berriaren
sorreran, salbu, bi zibilizazioen arteko interregnoan, haien sehaska
komuna neurri bateraino hasierako natur egoerara eror zitekeelako
berriro eta neurri horretan ondorengo zibilizazioaren gurasoek har
zezaketelako aurrekoen hasierako lorpena errepikatzeke erronka.

Hala ere, zibilizazio filialak lur berria landu eta bere bizilekua
neurri batean edota osorik aurreko zibilizazioaren eremutik kanpo
ezarri duenean, egongo zen hor ingurune fisiko berri eta menderatu
gabearen erronka. Honela, gure Mendebaldeko Zibilizazioak bere
sorreran Alpeez bestaldeko Europako oihan, euri eta izotzen erronka
jasan behar izan zuen, aurreko Zibilizazio Helenikoak jasan beharrik
izan ez zuena. Zibilizazio Indikoak bere sorreran Ganges ibarreko
oihan tropikal hezeen erronka jasan zuen, bere aurrekoak —
Zibilizazio Sumerikoaren urrutiko probintzia edo baliokideak Indus
ibarrean— jasan beharrik izan ez zuena²⁶. Zibilizazio Hititak bere
sorreran Anatoliako goi-ordokiko erronka jasan zuen, aurreko
Zibilizazio Sumerikoak jasan ez zuena. Zibilizazio Helenikoak bere
sorreran jasan behar izan zuen erronka —itsasoarena, hain zuzen—
aurreko Zibilizazio Minoikoak jasan zuena bera izan zen. Erronka
hau, ordea, erabat berria zen «Minosko talasokraziaren» lehorreko
muga europarrak harantzagoko kanpo-proletalgoarentzat; eta barbaro
kontinental hauek —akeok eta antzekoak— *Völkerwanderung* post-
minoikoan itsasoratu zirenean, Zibilizazio Minoikoaren aitzindariak

eurek ere bere garaian jasan eta garaitu zuten proba bezain handia ari ziren jasaten eta gainditzten.

Amerikan Yucatandar Zibilizazioak bere sorreran Yucatan penintsulako buztin-geruza ur gabe, zuhaitz gabe eta ia lur gabearen erronka jasan zuen, eta Mexikar Zibilizazioak Mexikoko goi-ordokiaren erronka, aurreko Maien Zibilizazioak ez zuelarik topo egin bi erronka horietako ezeinekin.

Oraindik Hindu Zibilizazioa, Ekialde Urrunekoa, Kristau Ortodoxoa, Arabikoa eta Iranikoa gelditzen dira. Ez dirudi inolako erronka fisiko nabarmenik jasan zutenik; zeren eta beraien sorlekuak, Zibilizazio Babilonikoarena bezala, beren aurreko zibilizazioen sorlekuen berdin-berdinak ez izan arren, jadanik menderatuta zeuden zibilizazio hauen edo beste batzuen aldetik. Arrazoirik ikusten genuen, ordea, Kristau Ortodoxo eta Ekialde Urruneko zibilizazioak aspizati-tzeko. Zibilizazio Kristau Ortodoxoaren kimuak Errusian, gure Mendebaldeko Zibilizazioak pairatu behar izan zituenak baino oihan, euri eta izotz latzagoak jasan behar izan zituen; eta Ekialde Urruneko Zibilizazioaren kimuak Korean eta Japonian itsasotiko erronka jasan behar izan zuen, Zibilizazio Sinikoaren aitzindariak aurrean izan zuten edozein erronkaren aldean erabat desberdina.

Erakutsi dugu orain gure zibilizazio filialek, beraien sortzaile izandako aurreko zibilizazioen desintegrazioari zegokion giza erronka kasu guztietan ezinbestean jasan zuten bitartean, kasu batzuetan, baina ez beste batzuetan, ingurune fisikoaren erronka ere jasan zutela, ahaidetu gabeko zibilizazioek topaturiko erronken antzekoa. Gure ikerketaren fase hau osatzeko, galdetu beharko genuke ea ahaidetu gabeko gizarteek, beren erronka fisikoez gain, gizarte primitiboetatik desberdintzeak sortarazitako giza erronka ere jasan ote zuten. Puntu honetan, espero zitekeen bezala, froga historikoak erabat falta zaizkigula bakarrik esan dezakegu. Ongi gerta zitekeen ahaidetu gabeko gure sei zibilizazioek beren sorrera ezkututzen deneko «historiaurreko» iraganaldi hartan giza erronkekin topo egitea, mota aldetik konparagarriak gizarte filialei beren aurrekoeen gutxiengo menderatzailleen tiraniak planteaturiko erronkekin. Baina gai honetan luzatzea hutsean espekulatzea izango litzateke.

VI. ZORITXARRAREN BERTUTEAK²⁷

Azterketa zorrotzagoa

Herri-uste bat ukatu beharrean aurkitu gara, alegia, inguruneak bizi-baldintza anormalki errazak eskaintzen dituenean sortzen direla zibilizazioak, eta justu aurkako ikuspegiaren aldeko argudioa aurreratu dugu. Herri-ikuspegi hori sortzen da Egipziakoa bezalako zibilizazio baten behatzaile modernoak —eta testuinguru honetan antzinako greziarrak gu geu bezain «modernoak» ziren— ziurtzat jotzen duela-ko lurraldea gizakiak egin duen bezalakoa dela eta horrelakoa zela aitzindariak han lehen aldiz eskuak sartu zituztenean ere. Saiatu gara erakusten benetan nolakoa zen Behe Niloren ibarra aitzindariak lehen aldiz han sartu zirenean, horretarako Goi Niloren ibarreko zenbait zatiren irudia eman dugularik, gaur egun diren bezala. Baina agian leku geografikoaren desberdintasun honek erabat konbentzigarria izatea eragotzi dio gure adibideari, eta kapitulu honetan argudioa azpimarratzeko asmoa dugu, zibilizazio batek lehenengo arrakasta izan eta gero leku berean porrot egin dueneko kasuak aipatuz, herrialde hori, Egipto ez bezala, jatorrizko egoerara itzuli delarik.

Erdialdeko Amerika

Kasu ohargarri bat Maien Zibilizazioaren sorlekuaren egungo egoera da. Hemen bikain apainduriko eraikin publiko ikaragarrien hondakinak aurkitzen ditugu, egungo edozein giza bizitzatetik urruti daudenak, oihan tropikalaren barren-barrenean. Oihanak, zenbait boa

hertsatzailek bezala, literalki irentsi egin ditu eta irensten ari da oraindik bere gogara fin ebaki eta doitasunez jarritako harriak bere sustrai eta kiribil bihurriekin altzaraziz. Herrialdearen egungo itxuraren eta Maien Zibilizazioa han egon zenean hark izango zuen itxuraren arteko aldea hain handia denez, ia imajinaezina da. Garai batean, eraikin publiko ikaragarri hauek hiri handi eta jendetsuen bihotzean egongo ziren, eta hiri haiek lur landuzko hedadura zabalen erdian. Giza lorpenen iragankortasuna eta giza desiren harrotasuna bizi-bizi erakusten ditu oihanaren itzulerak, lehenik soroak irentsiz, gero etxeak eta azkenik jauregiak eta tenpluak ere bai. Hala ere, ez da hau Copan edo Tikal edo Palenque-ren egungo egoeratik ikasi behar dugun irakaspenik esanguratsuen. Hondakin horiek are garbiago hitz egiten dute Maien Zibilizazioaren sortzaileek bere garaian ingurune fisikoarekin izan zuten borrokaren bizitasunaz. Bere mendekuan bertan, ahalmen ikaragarriaz agertzen dena, natura tropikalak gizon batzuen adore eta kemenaren testigantza ematen du, gizon haiek, aldi batez bada ere, arrakastaz ihes eragin eta bere lekuan eutsi ziotelarik izadiari.

Zeilan

Zeilango lautada lehorrak nekazaritzarako konkistatzeko balentria latza urtegien eustorma apurtuek eta zoru landarez estaliek oroitazten dute, hauek ikaragarritzko eskalan, hinayanaren filosofia indikora konbertitutako zingalesek garai batean eraiki zituztelarik eskualde menditsuko alde hezean.

«Urtegi horiek nola egin ziren ohartzeko, zerbait jakin behar da Lankako historiaz. Sistemaren azpian datzan ideia sinplea zen, baina bikaina. Urtegi horien eraikitzaile izandako erregeen asmoa hauxe zen: mendietan hain ugari erortzen zen euririk batere ez zela itsasora iritsiko bidean zerga ordaindu gabe gizakiari.

«Zeilango hegualde erdiaren erdigunean eskualde menditsu zabala dago, baina ekialdera eta iparraldera lautada lehorrek milaka milia karratu hartzen dituzte, eta gaur egun oso gutxi jendeztatuak daude. Montzoiaren gailurrean, ekaitzak aurrean eramandako hodei-osteak muinoen aurka norgehiagokan egunez egun lasterka doazenean, bada izadiak egindako marra bat euriek igaro ezin dutena... Puntu batzuetan bi zona horien, bustiaren eta lehorraren, arteko mugalerroa hain mehea denez, milia baten barruan beste eskualde batean

zaudela ematen du... Lerroa itsasotik itsasora doa eta badirudi egonkor dagoela eta gizakiaren jardunak, baso-soiltzeak adibidez, eragin gabe»²⁸.

Hala ere, Zibilizazio Indikoaren misiolariak Zeilanen, montzoiek zigorturiko goi-lurrak lautadei ura eta bizia ematera behartze-ko *tour de force*-a zertu zuten, lautada horiek lehor eta hondamendian egotera behartuta zeuzkalarik izadiak.

«Muinoetako errekek desbideratu egin zituzten eta beraien ura beherago zeuden urtegiatar eraman zuten, haietako batzuek lau mila akreko zabalera zutelarik; eta haietatik ubideak zihoazen muinoetatik urruti zeuden beste urtegi handiago batzuetaraino, eta haietatik are urrutiago zeuden beste batzuetaraino. Eta urtegi handi bakoitzaren eta ubide handi bakoitzaren azpian ehundaka urtegi txiki zegoen, bakoitza herrixka baten gune, eta guztiak, luzarora, mendialde hezetik elikatuta. Horrela, pixkanaka antzinako zingalesek orain hain jende gutxirekin dauden lautada guztiak, edo ia guztiak, konkistatu zituzten»²⁹.

Berez agorrak ziren lautada hauek gizakiak egindako zibilizazioarentzat mantentzeak zein lan gogorra eskatzen zuen, gaur egungo Zeilango paisaiaren bi ezaugarri nagusik erakusten dute: garai batean ureztatu eta jendeztaturiko eremua bere jatorrizko agortasunera itzuli da, eta te, kafe eta kautxo-landatzaile modernoak uhartearen beste erdian daude bilduta, euriak erortzen diren aldean.

Ipar Arabiako basamortua

Gure gaiaren adibide ospetsu eta askotan aipatua Petra eta Palmiraren egungo egoera da; ikuskizun honek saiakera-serie osoak sortarazi ditu historiaren filosofian, Volney-ren *Les Ruines*-etik (1791) aurrera. Zibilizazio Siriakoaren egoitza izandako hauek Maien Zibilizazioaren egoitza izandakoen egoera berean daude gaur egun, nahiz eta haietaz mendekatu den ingurune etsaia afrasiar estepa izan oihan tropikalaren orde. Hondakinek esaten digute tenplu eta atari eta hilobi landu hauek, osorik zeudenean, hiri handien apaingarri izan zirela; eta hemen arkeologiaren froga, arkeologia izanik Maien Zibilizazioaren koadroa osatzeko dugun bide bakarra, berrindartu egingen du erregistro historikoen lekukotasun idatziak. Badakigu Zibilizazio Siriakoaren aitzindariak, hiri hauek basamortutik aterarazi

zituztenak, maisu zirela kondaira siriakoak Moisesi egozten dion azti-kerian.

Azti hauek bazekiten nola atera ura harkaitz lehorretik eta nola aurkitu beren bidea inor ibili gabeko basa eremuan zehar. Beren lehen garaietan, Petra eta Palmira baratze ureztatuen erdian zeuden, oraindik Damasko inguratzen dutenak bezalakoen erdian. Baina Petra eta Palmira ez ziren orduan bizi, Damasko ere gaur egun ez bezalaxe, beren oasi estuetako fruituetatik bakarrik edota batez ere. Haietako aberatsak ez ziren baratzezainak merkatariak baizik, oasi bat beste batekin eta kontinente bat beste batekin komunikatuta zeuzkatenak, bitarteko estepa- eta basamortu-bideetan zehar puntu batetik bestera zegoen karabana-zirkulazio biziaren bidez. Beraien egungo egoerak erakusten du ez bakarrik basamortuak gizakiaren gain izandako azken garaipena, baita gizakiak aurrez basamortuaren gain izandako garai-penaren neurria ere.

Bazko uhartea

Bestelako leku batean antzeko ondorioa atera genezake Polinesiar Zibilizazioaren³⁰ jatorriei dagokienez Bazko uhartearen egungo egoeratik. Bere aurkikuntza modernoaren garaian Ozeano Barearen hego-ekialdeko uharte eszentriko honetan bi arraza bizi ziren: bata hezur-haragizkoa, bestea harrizkoa; dirudienez polinesiar fisikoa zuen herri primitibo bat, eta oso ongi eginiko estatua-herri bat. Belaunaldi hartako biztanle bizidunek ez zeukaten ez halako estatu-tuak zizelkatzeko antzerik, ezta Bazko uhartetik polinesiar artxipelagoan senide zuen hurrengo uharte hurbilenera itsaso zabalean dauden milaka miliak itsastatzeko jakintzarik ere. Europar marinelek aurkitu zuten arte, uhartea bakarturik egona zen munduaren gainerakotik zenbat iraun zuen ez dakigun denboraldi batez. Hala ere, bertako bi herriek, hezur-haragizkoak eta harrizkoak, Palmira edo Copan-go hondakinek bezain garbi aitortzen dute desagertutako iraganaldi bat, oraingoaren aldean oso bestelakoa izango zena.

Gizaki haiek sortu eta estatua haiek zizelkatu polinesiar nabi-gatzaiilek egingo zituzten, garai batean kanoa ireki txakaletan, mapa edo iparrorratzik gabe, beren bidea Ozeano Barean zehar aurkitu zutenek. Eta bidaia hau nekez izan zitekeen abentura bakan bat, errepikatu ez zen zori-kolpe batez ontzikada bat aitzindari Bazko uhartera eka-

rri zuena. Estatuen herria hain baita ugaria, belaunaldi asko beharko ziren hura guztia egiteko. Datu guztiek adierazten dute erregularitasunez eta denboraldi luzean itsastatu zela itsaso zabaleko milaka milia haietan. Azkenean, guk ez dakigun arrazoren batengatik, itsasoa, garai batean gizakiak arrakastaz zeharkatua, itxi egin zen Bazko uhartearen inguruan, basamortua Palmiraren inguruan eta oihana Copanen inguruan itxi ziren bezalaxe. Harrizko gizakiak, Housman-en poemako estatua bezala, harri bezala portatu ziren, baina hezur-haragizko gizakiek belaunaldi bakoitzean gero eta kimu zakar eta gaitasun gabeagoak sortu zituzten.

Bazko uhartearen lekukotasuna kontraesan garbian dago, noski, Mendebaldeko herri-ikuspegiarekin: Hego Itsasoko uharteak lurreko paradisutzat eta hango biztanleak Erorikoaren aurretiko Adam eta Evaren egoeran izadiaren seme-alabatzat hartzen dituen. Ideia oker hau polinesiar ingurunearen zati bat osotzat hartzeak sortzen du. Ingurune fisikoa lehorrak bezalaxe urak osatzen du, eta urak, polinesiarren esku zeuden baliabideak baino hobeak eduki gabe zeharkatzen saiatzen zen edonorentzat, erronka ikaragarria planteatzen zuen. «Itsaso gazi urruntzailearen» erronkari ausardiaz eta arrakastatsu erantzunez, uharteen arteko itsas zirkulazio erregularraren *tour de force*-a zertuz, jarri zuten aitzindariak beren oina lehorreko zatikietan, Ozeano Barearen ur-eremuetan barreiaturik, ia izarrak ortzean bezain sakabanatuta daudenetan.

Ingalaterra Berria

Natur egoerara itzultzearen azterketa hau itxi aurretik, zilegi bekio idazleari bi kasu aipatzea —bata nolabait ere bazterrekoagoa eta bestea erabat nabaria—, bere behaketa pertsonalaren gai izan direnak.

Behin batean Ingalaterra Berrian Connecticut estatuko landa-alde batean bidaian nindoalarik³¹, hutsik zegoen herrixka batera iritsi nintzen: esan zidatenez, ez da ikuskizun arraroa eskualde haietan, baina europarrarentzat harrigarria eta txunditzekoa betiere. Mendepare batez agian, Town Hill-ek —horrela baitzuen izena— oholez eraikitako georgiar eliza izan zuen herri-belardi, landetxe, ortu eta galsoroen erdian. Eliza han zegoen oraindik, antzinako monumentu gisa gordea; baina etxerik ez zen ageri, fruta-arbolak basarbola bihurturik zeuden eta galsoroen arrastorik ez.

Azken ehun urteetan Ingalaterra Berriko haiek beren kopurua-
rekin proportziorik ez zuen papera jokatu zuten Atlantikotik Ozeano
Bareraino Amerikako kontinentearen zabalera osoa izadi basatiari
konkistatzeko; baina aldi berean izadiari herrixka hau berreskuratzen
utzi zioten beren sorlekuaren bihotzean, haien arbasoak agian
berrehun urtez bizi izandako lekuan. Gizakiak bere presioa lasaitu
orduko naturak Town Hill-en bere agintea berriro ezartzeko izan zuen
bizkortasun, erabatekotasun eta abandonuak adierazten dute aurrez
gizakiak zer-nolako ahalegina egin behar izango zuen lur agor hura
menderatzeko. Town Hill-en sartzeak jokoan jarrarazi zuena bezain
kemen handia bakarrik izan zitekeen aski «Mendebaldeko konkistatze-
ko». Hutsik zegoen leku hark argitzen zuen Ohio, Illinois, Colorado
eta Kaliforniako perretxiko-hirien miraria.

Erromako landazabala

Niri Town Hill-ek eragin zidan sentsazioa Tito Liviori
Erromako landazabalak eragin zion, harrituta utzi baitzuen laborari
gerrarien konpainia ikaragarri bat aurrez bizi izanak han, haren
garaian, gurean bezalaxe³², basa eremu gris agorra eta aintzira ber-
dexka sukar-eragilea zen eskualde hartan. Geroagoko basamortu
honek, garai batean latindar eta volsziar aitzindariak herrialde landu
eta jendetsu bihurtu zuten paisaia ezatseginaren jatorrizko egoera era-
kusten zuen berriro; eta Italiako lur gozakaitz honetako orban estuan
sartzeko prozesuan sorturiko indarra izan zen gero mundua konkista-
tu zuen indarra Egiptotik Britainia Handiraino.

Kapua traidorea

Benetan zibilizazioen sorreraren edo beste giza lorpen seina-
latu batzuen gertaleku izan diren zenbait inguruneren izaera aztertu
dugularik, eta beraiek gizakiari eskainitako baldintzak ez errazak
baizik eta guztiz kontrakoak izan zirela aurkitu dugularik, ekin die-
zaiogun orain azterketa osagarriari. Azter ditzagun baldintza errazak
eskaintzen zituzten beste ingurune batzuk eta estudia dezagun ingu-
rune hauek giza bizitzan izan duten eragina. Azterketa honetan saia-
tzean bi egoera desberdin bereizi behar ditugu. Lehena, ingurune
zailean bizi izan ondoren jendea ingurune errazagora sartzen dene-
koa. Bigarrena, jendea ingurune erraz batean bizi denekoa eta, daki-
gun neurrian behintzat, sekula ez dena beste ingurune batean egon

gizakiaurreko arbasoak gizaki bihurtu zirenetik. Beste era batera esanda, ingurune errazak zibilizazio-prozesuan dagoen gizakiarengan eta gizaki primitiboarengan izandako eraginen artean bereizi behar dugu.

Italia klasikoan Erromaren antitesia Kapua izan zen. Kapuako landazabala ezta izan zen gizakiarentzat Erromakoa gogorra izan zen bezainbat; eta, erromatarrak beren lurralde ezatseginetik auzoko guztiak konkistatzeko irten ziren bitartean, Kapuarrak beren sorlekuan gelditu ziren eta auzoko guztiei utzi zieten eurak konkistatzen. Azken konkistatzaile izan zituzten samnitengandik Kapua, berak eskatuta, Erromaren beraren esku-hartzeak askatu zuen; eta gero, Erromaren historiako gerrarik erabakigarrienaren unerik larrienean, Kannasko gudua biharamunean, Kapuak bere ateak Hanibali zabalduz ordaindu zion Erromari. Erroma eta Hanibal biak bat etorri ziren Kapua eskuz aldatzea izan zela gudua onдорiorik garrantzitsuen eta gerrako gertaera erabakigarria agian. Hanibal Kapuara joan zen eta han ezarri zituen neguko kuartelak, ondoren mundu guztiaren itxaropenak zapuztu zituen zerbait gertatu baitzen. Kapuan igarotako negu batek Hanibalen armada hainbestearaino adoregabetu zuenez, sekula ez zen berriro izan garaipen-tresna bera.

Artenbaresen aholkua

Herodotok badu istorio bat oso egokia testuinguru honetan. Artenbares delako bat eta haren lagunak Zirotana etorri ziren irado-kizun honekin:

«'Orain, Zeusek Astiages bere tronutik eraitsi eta agintea pertsiarrei, nazio gisa, eta zuri, jauna, gizabanako gisa, eman dizuenean, zergatik ez dugu orain daukagun lurralde mugatu eta harritsutik alde egiten eta hobe hartzen? Asko daude hurbil eskura eta askoz gehiago urrutirago, eta horien artean aukeratu baizik ez dugu egin behar orain baino zirrara handiagoa eragiteko munduan. Hau politika naturala da herri inperial batentzat, eta sekula ez dugu oraingo baino aukera hoberik izango, gure agintea herrialde zabalen gain ezarria baitago eta Asiako kontinente osoaren gain'.

«Zirot, esana entzunda baina hunkitu gabe zegoelarik, nahi bezala egiteko esan zien eskatzaileei, baina une berean bere aholkua eman zien esanez prestatzeko beren burua orduan zituzten mendekoe-

kin egoera aldatzeko. Herrialde bigunek, esan zien, gizaki bigunak sortzen dituzte beti»³³.

Odisea eta Irteera

Antzinako literatur dokumentuetara itzultzen bagara, Herodotoren Historia baino ere ospetsuagoak direneta, ohartzen gara Ulises inoiz ez zela arrisku handiagoan egon Ziklopearekin eta beste kontrario oldarkor batzuekin, aietasunezko bizitzara dei egin zioten xarmatzaile hauekin baino: Zirzerekin, txerritegian bukatu zen abegitasunaz; Iotojaleekin, haien lurraldean, geroagoko aditu baten arabera, «beti arratsaldea zelarik»; sirenekin, haien ahots xarmangarrien kontra marinelen belarriak argizariz estali eta ondoren bera mastari lotzeko agindu zelarik; eta Kalipsorekin, Penelope baino askoz ederragoa eta jasanezinko kaskarragoa gizon hilkor batentzat laguntzaile gisa.

Irteerako israeldarrei dagokienez, Pentateukoaren apaindura gutxiko idazleek ez zituzten sirenak edo Zirtzeak asmatu haiek galbideratzeko, baina etengabe «Egiptoko haragi-eltzeengatik» hasperenka ari zirela irakurtzen dugu. Beren nahia lortu izan balute, egon gintezke ziur sekula ez zuketela Itun Zaharra sortuko. Zorionez Moises ere Zioren pentsamendu-eskola berekoa zen.

«Egin-nahi-duzuna»tarrak

Kritikari batek bota lezake aipatu berri ditugun adibideak ez direla oso konbentzigarriak. Noski, esango du, bizi-egoera gogorretik errazera eramandako herria «hondatu» egingo da, goseak akabatzen dagoena ikaragarritzko janaldiaz betetzen denean bezala; baina denbora guztian egoera erraza bizi izan dutenengandik espero liteke zerbait ona egitea horrekin. Beraz, lehenago bereizi ditugun bi egoera haietako bigarrenera itzuli behar dugu: ingurune errazean bizi eta sekula, dakigunez behintzat, beste batean egon ez den herriaren egoerara. Kasu honetan trantsizio-faktore nahastailea ezabatu egiten da, eta egoera errazaren ondorioa absolutuan aztertzeko egoeran gaude. Hona hemen horren benetako irudi bat, Nyasalandiakoa, duela mende-erdi Mendebaldeko behatzaile batek ikusi bezala:

«Amaierarik gabeko oihan horietan ezkutatuta, txori-habiak basoan bezala, elkarren beldur eta etsai komun duten esklabuzalearen

beldur, bertoko herrixkak daude; eta han bere sinpletasun garbian bizi da gizaki primitiboa, jantzirik gabe, zibilizaziorik gabe, ikaskuntzarik gabe, erlijiorik gabe... izadiaren benetako seme-alaba, kezka-gabea, arduragabea eta asebeta. Gizaki hau itxuraz oso zoriontsua da; esaterako ez dauka premiarik... Afrikarrari sarri aurpegiratzen zaio alferra izatea, baina hitzak gaizki erabiltzea da hau. Berak ez dauka lanik egin beharrik; hain natura emankorra duela inguruan, funtsgabekoa litzateke lan egitea. Beraz, nagikeria, horrela esaten baitzaio, haren osagai da sudur zapala bezalaxe, eta dortokari bere geldotasunagatik bezain erru gutxi bota dakiok»³⁴.

Charles Kingsleyk —bizimodu neketsuaren adierazle viktoriarak, ipar-ekialdeko haizea hego-mendebaldekoa baino nahiago zutenak— istoriotxo bat idatzi zuen: «Egin-nahi-duzuna-tarren nazio handi eta ospetsuaren historia, Gogorlan-eko herrialdetik irten zirelarik egun osoa juduen harpa jotzen eman nahi zutelako». Ordaindu zuten zigorra gorila bihurtzea izan zen.

Dibertigarria da ikustea poeta helenikoaren eta Mendebaldeko moralista modernoaren jarrera desberdinak «lotojaleekiko». Poeta helenikoarentzat lotojaleak eta Lotolandia izugarri erakargarriak dira, deabruaren tranpa greziar zibilizatzailearen bidean. Kingsleyk, bestalde, britainiarren jarrera modernoa azaltzen du: «egin-nahi-duzuna»tarrak gaitzespen destainagarritz hartzen ditu eta haien erakarpinak ez du batere hunkitzen; eginkizun positiboa iruditzen zaio Britainiar Inperioak beretzea —ez gure onagatik, noski, beraienagatik baizik— eta prakaz eta Bibliaz hornitzea.

Gure kezka, hala ere, ez da onestea edo gaitzestea, ulertzea baizik. Morala Hasiera liburuaren lehen kapituluetan aurkitzen da; Adam eta Eva beren Edengo Lotulandiatik kanporatuak izan ondoren bakarrik hasi ziren haien ondorengoak nekazaritza, metalurgia eta musika-tresnak asmatzen.

VII. INGURUNEAREN ERRONKA

1.

Herrialde gogorren estimulua

Ikerketa-ildoak

Orain ezarri dugu, agian, erraztasuna zibilizazioaren etsai dela-ko egia. Egin ote dezakegu urrats bat aurrerago? Esan ote dezakegu zibilizaziorako estimulua are indartsuagoa izaten dela ingurunea zailagoa den neurrian? Ikus ditzagun proposizio honen aldeko frogak eta gero aurkakoak, ea zer ondorioztatzen den. Ingurune baten zailtasuna eta estimulua *pari passu* hazten direla adierazten duten frogak aurkitzea ez da zaila. Are gehiago, ziur aski nahastuta utziko gaitu bururatuko zaizkigun adibideen ugaritasunak. Adibide hauetako gehienak konparazio-modura agertzen dira. Has gaitezen gure adibideak bi multzotan sailkatzen, konparazio-puntutzat ingurune fisikoa eta giza ingurunea hartuta; eta hausnar dezagun lehenengo ingurune fisikoa-ren multzoa. Hau bi kategoriatan banatzen da: zailtasun-maila desberdinak agertzen dituzten ingurune fisikoen efektu estimulagarrien arteko konparazioak; lurzoru zaharrek eta lurzoru berriek, terrenoaren berezko izaeraz aparte, dituzten ondorio bizkorgarrien arteko konparazioak.

Ibai Horia eta Yangzi

Lehen adibide gisa, hausnar ditzagun Txinako bi ibai handien behe-ibarrek aurkezturiko zailtasun-maila desberdinak. Badirudi gizakiak Ibai Horiaren (Hwang Ho) behe-ibarreko ur-kaosa lehen aldiz bere esku hartu zuenean, ibaia ez zela nabigagarria ezein urtaro-

tan; neguan izoztuta egoten zen edo izotz flotagarritz betea, eta udaberrian izotza urtzean uholde suntsigarriak izaten ziren, behin eta berriro ibaiaren bidea aldatzen zuten ubide berriak irekiz, eta ubide zaharrak junglaz estalitako aintzira bihurtuz. Gaur egun ere, hiru edo lau mila urteko giza ahaleginek aintzirak lehortu eta ibaia ertz batzuen barrura mugatu dutenean, uholdeen ekintza suntsigarria ez da erabat ezabatu. Hain aspaldikoa ez dugun 1852. urtean Behe Hwang Ho-ren ubidea erabat aldatu zen eta itsasora zuen irteera Shantung penintsulako hegoaldetik iparraldera aldatu zen, ehun milia baino gehiagoko distantziara. Bestalde, Yangzi beti nabigagarria izango zen eta honen uholdeak, noizbehinka maila suntsigarriak izan arren, ez dira Ibai Horikoak bezain sarri gertatzen. Gainera, Yangzi ibarrean neguak ez dira hain latzak. Hala ere, Ibai Horian sortu zen Zibilizazio Sinikoa, eta ez Yangzin.

Atika eta Beozia

Grezian sartu edo handik irteten den edozein bidaiari, ez itsasoz baizik eta iparraldeko barrualde kontinentaletik, harrituta gelditzen da halabeharrez Zibilizazio Helenikoaren sorlekua harritsuagoa, «hezurtsuagoa» eta «zailagoa» delako iparraldeko lurraldeak baino, inoiz beren zibilizaziorik sortu gabeak. Hala ere, antzeko aldeak ikusten dira Egeoko esparruan bertan.

Adibidez, Atenastik trenbideari jarraituz egiten bada bidaia, azkenean Salonikan zehar Erdialdeko Europara iristen dena, bidaiaren lehen zatian igarotzen den eskualdeak ezagun zaion paisaiaren alde aurretiko ikuspegia ematen dio Mendebalde edo Erdialdeko europar bidaiariari. Trenak Parnaso mendiaren ekialdeko maldetan gora Egeoa tipikoa den paisaian, pinu mozkote eta buztin-harri koskadunen artean astiro-astiro igotzen orduak eman ondoren, bidaiaria harrituta gelditzen da behe-lurretan sartuta aurkitzen delako, lur-geruza sakoneko muino uhintsuen artean. Jakina, paisaia hau anomalia bat baino ez da; bidaiariak ez du antzekorik berriro ikusiko Nish atzera utzi eta Moravan behera Erdiko Danubiorantz jaitsi arte. Zibilizazio Helenikoaren bizialdian, nola deitu zitzaion aparteko lurralde-zati honi? Beozia; eta buru helenikoetan «beoziar» hitzak oso konnotazio berezia zuen. Hitz horrek *ethos* zarpail, estolido, irudimenik gabeko eta zakarra esan nahi zuen, kultura helenikoan nagusi zen jeinuarekin

bat ez zetorren ethosa. Desakordio hau areagotu egiten zuen, Ziteron mendikatearen atze-atzean eta Parnasoren izkinan buelta emanda, gaur egun trenbideak bere bidea okertzen duen lekuan, Atika egoteak, «Helasko Helas» alegia: herrialde honen ethosa helenismoaren muina zen, eta nota disonante bezala sentiberatasun heleniko normalei erasaten zien ethosa zeukan herrialdearen aurrez aurre zegoen. Alde hori bi esaldi garratzetan gelditu zen laburtuta: «Beoziar urdea» eta «Atikako gatza».

Gure Azterlan honetarako puntu interesgarria zera da: kultur kontraste hau, kontzientzia helenikoa hain biziki hunkitu zuena, geografikoki bat zetorrela ingurune fisikoen kontraste harrigarriarekin. Zeren eta Atika «Helasko Helas» baita bere ariman ez ezik, baita fisikoa ere. Egeoko beste herrialdeen aurrean, hauek harantzagoko eskualdeen aurrean bezalaxe aurkitzen da. Greziara mendebaldetik hurbildu eta Korintoko golkoaren etorbidetik sartzen bazarete, poztu zaitezke zuen begia ohituz joan delako Greziako paisaiara —eder baina ezatseginera—, sakon ebakitako Korintoko kanalaren ertz malakartsuek ikuspegia itxi aurretik. Baina zuen bapora-ontzia Sarosko Golkora irteten denean, berriro ere harrituta geldituko zarete paisaiaren soiltasunagatik, istmoaren bestaldeko paisaiak ez baitzaituzte horretarako erabat prestatu; eta soiltasun hori maila gorenera iristen da Salaminako izkinan bira eman eta begien aurrean Atika zabal-zabal ikusten duzuenean. Atikan, anormalki mehe eta harritsua den lurrian, higadura-prozesua, mendi-hezurrei haragia kendu eta itsasoan sartzen duena, zeini Beozia ihes egin baitio orain arte, jadanik erabatekoa zen Platonen garaian, eta horren deskribapen grafikoa *Kritias* delakoa egin zigun.

Zer egin zuten atenastarrek bere herrialde pobrearekin? Badakigu gauza batzuk egin zituztela, Atenas «Helasen hezibide» bihurtu zutenak. Atikako larretokiak ihartu eta laborantzako lurak alferrik galdu zirenean, hango jendeak, abeltzain eta laboregile zenak —Greziako zeregin nagusiak garai hartan— bere-bereak izandako baliabideetara jo zuen: oliboa landu eta lurpea ustiatzera. Atenearen zuhaitz ederra, bizirik irauteaz gain, loratu ere egin zen harkaitz gorrian. Baina gizakia ezin da oliba-olioz bakarrik bizi. Bere olibondoetatik ogibidea ateratzeko, atenastarrak Atikako olioia Eszitiako alearekin trukatu behar izan zuen. Olioia Eszitiako merkatuan jartzeko,

treskatan sartu eta itsasoz bestaldera bidali behar izan zuen; jarduera hauek Atikako eltzegintza eta itsas merkataritza sortarazi zituzten eta, merkataritzak txanpona eskatzen duenez, baita Atikako zilar-meatzeak ere.

Baina aberastasun hauek ez ziren kultura politiko, artistiko eta intelektualaren ekonomi oinarria baino izan, kultura horrek bihurtu zuelarik Atenas «Helasen hezibide» eta «Atikako gatz» beoziar aberetasunaren antitesi. Politikaren mailan emaitza Atenastar Inperioa izan zen. Artearen mailan, buztingintzaren oparotasunak edertasun-forma berria sortzeko aukera eman zien Atikako ontzi-pintatzaileei, bi mila urte geroago Keats poeta ingelesa liluratu zuena; Atikako oiha-nen desagertzeak, berriz, Atenasko arkitektoak beren lana zuretik harrira aldatzera behartu zituen, horrela Partenoiairen sorrera eraginez.

Bizantzio eta Kaltzedonia

Mundu helenikoaren esparrua zabaltzeak, horren kausak lehen kapituluan aipatu genituelarik (ikus 38-39. orr.), gure gaiaren beste adibide heleniko bat eskaintzen du: bi kolonia greziarren —Kaltzedonia eta Bizantzioren arteko aldea— Marmarako itsasotik Bosfororako sarreran kokatuak biak, lehena Asiako aldean eta bigarrena Europakoan.

Herodotok kontatzen digunez, bi hirien fundaziotik mende bat geroago edo, Megabazo pertsiar gobernariak

«esaldi bat bota zuen Helesponteko greziarren artean betiko ospea eman ziona. Bizantzion entzun zuen kaltzedoniarrek beren hiria bizantziarrek berena baino hamazazpi urte lehenago ezarri zutela; eta hori entzun orduko, esan omen zuen: 'Orduan kaltzedoniarrekitsuak izan behar denbora hartan guztian'. Esan nahi zuenitsuak izango zirela kokalekurik txarrena hautatzeko onena hartzeko aukera zutenean»³⁵.

Baina erraza da gertatu eta gero buruargi izatea, eta Megabazoren garaian (pertsiarrek Grezian indarrez sartu ziren garaian) jadanik agerian zeuden bi hirien destinoak. Kaltzedonia artean beti nahi izan zuena zen: nekazaritza-kolonia arrunta, eta nekazaritzaren ikuspegitik haren kokalekua Bizantziorena baino askoz ere hobea zen, eta da. Bizantziarrak geroago etorri ziren eta geratzen zena hartu zuten. Nekazari-komunitate gisa huts egin zuten, agian Traziako

barbaroen etengabeko erasoen eraginez, batez ere. Baina beren itsas portuan, Urrezko Adarrean, urre-meatze batekin topo egin zuten uste-kabeen; zeren eta, Bosforotik behera datorren ur-lasterra Urrezko Adarrean edozein aldetatik sartu nahi duen edozein itsasontziren aldeko da. Polibiok —K.a. bigarren mendean idazten zuelarik, greziar koloniaren fundaziotik bostehunen bat urtera eta, Konstantinopla bezala, hiriburu ekumeniko-mailara goratua izan baino bostehunen bat urte lehenago— zera dio:

«Bizantziarrek daukaten kokalekua, segurtasunaren nahiz oparotasunaren ikuspegitik, mundu helenikoan dauden leku guztietatik egokiena da itsasoz eta guztietatik erakargarriena lehorrez. Itsasoz, Bizantziok Itsaso Beltzaren irteera erabat kontrolatzen du eta edozein merkataritza-ontzirentzat ezinezkoa da sartu edo irten egitea bizantziarren borondatearen aurka»³⁶.

Hala ere, baliteke Megabazok nekez merezi zuen buruargitasun-ospea irabazi izana bere esaldiarekin. Ezin da zentzuz dudan jarri Bizantzio hartu zuten kolonizatzaileek, hoguei urte lehenago iritsi izan balira, hutsik zegoen Kaltzedoniaren kokalekua hartuko zutela; eta litekeena da, halaber, haien nekazari-ahaleginak traziarren erasoek gutxiago oztopatu izan balituzte, hain prest ez egotea beren kokalekuaren merkataritza-ahalbideak garatzeko.

Israeldarrak, feniziarak eta filistearrak

Historia helenikotik siriakora itzultzen bagara orain, ohartuko gara Sirian sartu ziren populazio-elementu desberdinak, edo Völkerwanderung postminoikoaren garaian han zeudenak, gero bereizi egin zirela erlatiboki beren bizileku gertaturiko eskualdeetako ingurune fisikoaren zailtasun erlatiboarekin proportzio estuan. Ez zuten «Abana eta Pharpar Damaskoko ibaietako» arameoek izan gidaritza Zibilizazio Siriakoaren garapenean; ezta Orontesen kokaturiko beste arameo haiek ere, non askoz geroago greziar seleukotarren dinastiak hiriburua ezarri baitzuen Antiokian; ezta Jordanen ekialdean gelditu ziren Israelgo tribu haiek ere beren «Baxango zezenak» gizentzeko Galaadeko zelai ederretan. Guztietan ohargarriena zera da, mundu siriakoaren nagusitasuna ez zutela gorde Egeotik Siriara —ez barbaro gisa, baizik eta Zibilizazio Minoikoaren oinordeko gisa— etorri ziren eta Karmel mendiaz hegoaldeko portu eta behe-lurren jabetza hartu

zuten errefuxiatu haiek, filistearrek alegia. Herri honen izenak mespretxuzko konnotazioa hartu du, beoziarrenak greziarren artean bezala; eta beoziarrak eta filistearrak pintatu dituzten bezain beltzak ez direla izan eta haietaz dakiguna ia guztiz beraien aurkakoei zor diegula onartzen badugu ere, ez al du honek esan nahi kontrarioek menderatu egin zituztela eta, beraien kontura, ondorengoen arreta begirune-tsua irabazi zutela?

Zibilizazio Siriakoak hiru lorpen handi ditu bere ohoretan. Alfabetoa asmatu zuen; Atlantikoa aurkitu zuen; eta Jainkoaren ideia berezi batera iritsi zen, judaismoak, zoroastrismoak, kristautasunak eta Islamak bere egin dutena, baina era berean erlijio-pentsamendu egipziako, sumeriko, indiko eta helenikoari arrotz gertatzen zaiena. Zein izan ziren lorpen hauetan lagundu zuten komunitate siriakoak?

Alfabetoari dagokionez, benetan ez dakigu. Nahiz eta tradizioz feniziarrei egozten zaien asmakuntza, *izan zitekeen* oinarritzko formaren batean filistearrek mundu minoikotik transmititua; hortaz, gaur egun dakigunaren arabera, alfabetoagatiko ospeak esleitu gabe gelditu beharko du. Pasa gaitezen beste bietara.

Nor ziren itsas bidaiari siriako haiek Mediterraneo osoan zehar Herkulesen zutabeetaraino eta harantzago ere itsastatzera ausartu zirenak? Ez filistearrak, odola minostarra zuten arren; hauek bizkarra eman zioten itsasoari eta borroka galdua zertu zuten Esdrelon eta Sefelako lautada joriak lortzeko eurak baino gogorragoak ziren borrokalarien aurka, Efrain eta Judako lurralde muinotsuko israeldarren aurka, alegia. Atlantikoa Tiro eta Sidongo feniziarrek aurkitu zuten.

Feniziar hauek kanaandarren gerakina ziren, filistear eta hebrearrak iritsi aurretik han zeuden herriak: gertaera hau genealogikoki adierazia dago Hasiera liburuko lehen kapituluetako batean, non irakurtzen dugun Kanaanek (Kamen semea, Noeren semea) «Sidon, lehen semea, ... izan zuela». Bizirik iraun zuten beraien bizilekuak, Siriako kostaren erdialdeko zatian zehar, ez baitziren behar hainbat erakargarriak inbaditzaileentzat. Feniziak, filistearrek bazter utzi zutena, alde nabaria du filistearrak ezarri zireneko Sefelarekin. Kostaren zati honetan ez dago lautada emankorrik; Libanoko katea malkartsu igotzen da itsasotik, hain malkartsu ezen ez baitago lekurik errepide edo trenbideentzat ere. Feniziako hiriak ezin ziren erraz

komunikatu, ezta beren artean ere, itsasoz izan ezik, eta Tiro, haie-
tako ospetsuena, kaioaren habia bezala, uharte harritsu baten gaine-
an dago. Honela, filistearrak —ardiak bezala— oparotasunean larre-
an ari ziren bitartean, feniziarrek, beren itsas horizontea Biblos eta
Egipto arteko kosta-trafiko laburrera mugatua izan zutelarik ordu
arte, orain itsaso zabalera oldartu ziren minostarrak bezala eta
Mendebaldeko Mediterraneon Afrika eta Espainiako kostetan zehar
bigarren bizilekua sortu zuten Zibilizazio Siriakoaren beren bertsioa
egiteko. Kartagok, itsasoz bestaldeko feniziar mundu honen hiri
inperialak, menderatu egin zituen filistearrak berauen lehorreko
gera-eremu hautatuan ere. Filistearren aldezkari militar ospetsuena
Goliat Gad-ekoa izan zen; irudi kaskarra ematen du Hanibal feni-
ziarraren ondoan.

Baina Atlantikoaren aurkikuntza fisikoa, giza bikaintasuna-
ren ezaugarri gisa, monoteismoaren aurkikuntza espiritualak gaindi-
tzen du; eta hau komunitate siriako baten balentria izan zen, *Völkerwanderung*-ak Feniziako kostak baino ere erakarpen txikia-
goko ingurune fisikoan utzia, Efrain eta Judako lurralde muino-
tsuan, alegia. Itxuraz, lur-geruza meheko eta basoz estalitako lurral-
de menditsu honetan inor ez zen bizi izan hebrear nomaden abango-
ardia iritsi zen arte; hebrear haiek Siriako ertzetara baztertuak izan
ziren Ipar Arabiako estepatik, K.a. hamalaugarren mendean eta
gero, Egiptoko «Inperio Berriaren» beheraldiaren ondorengo inte-
rregnoan. Hemen abeltzain nomada izateari utzi eta lurzoru harri-
tsuan laborari sedentario bihurtu ziren eta hemen iluntasunean bizi
izan ziren Zibilizazio Siriakoak bere zenita igaro arte. K.a. bosga-
rren mendea bezain berandu, profeta handi guztiek beren mezua
esana zutenean, Israelen izena bera ere ez zuen ezagutzen Herodotok
eta Israelgo Lurraldea artean Filistearren Lurraldeak estaltzen zuen
Herodotok mundu siriakoaz zuen ikuspegian. «Filistearren
Lurraldeaz» idazten du³⁷, eta Filastina edo Palestina izenarekin gel-
ditu da gaur arte.

Alegia siriako batek kontatzen du behin batean israelarren
Jainkoak jainko batek gizakiari egin diezaiokeen azterketarik zorro-
tzenaz aztertu zuela Israelgo errege bat.

*«Gau hartan Jauna agertu zitzaion ametsetan Salomoni
Gabaonen, eta esan zion: —Eskatu nahi duzuna, eta emanen dizut.*

Salomonek erantzun zion: —Emadazu adimen argia zure herria gobernatzeko, eta ona eta txarra bereizteko... Atsegin izan zuen Jaunak Salomonen eskari hau. Orduan, Jainkoak esan zion Salomoni: —Halako eskaria egin didazulako eta zeuretzat urte asko, aberastasuna edota zeure etsaien heriotza eskatu orde, zuzen gobernatzeko adimena eskatu didazulako, emango dizut eskatu duzuna. Begira, zure aurretik inork izan ez dituen eta zure ondoren ere inork izango ez dituen bezainbateko jakinduria eta adimena damazkizut. Gainera, eskatu ez duzuna ere emango dizut: aberastasuna eta ospea, zure egunotan inongo erregek izango ez duen neurrian»³⁸.

Salomonen hautapenaren alegia Herri Hautatuaren historiaren parabola da. Beren ulermen espiritualaren indarrean israeldarrek gainditu egin zituzten filistearren trebetasun militarra eta feniziarren itsas trebetasuna. Ez zituzten bilatu jentilek bilatu zituzten gauzak, baizik eta Jainkoaren Erreinua bilatu zuten lehenik; eta beste gauza hauek guztiak gehitu egin zitzaizkien. Etsaien biziari dagokionez, filistearrak Israelen esku utzi zituzten. Aberastasunari dagokionez, juduek Tiro eta Kartagoren herentzian parte izan zuten, feniziarrek amestu baino askoz transakzio handiagoak egiteko hauek ezagutu ere egiten ez zituzten kontinenteetan. Bizi luzeari buruz, juduek bizirik jarraitzen dute, herri berezi bera oraindik, feniziarrek eta filistearrek beren nortasuna galdu eta askoz geroago ere. Auzoko siriako zaharrak arragoan erori dira eta birlandu egin dituzte, irudi eta gain-inskripzio berriekin; Israeli, ordea, ez dio batere erasan alkimia honek —Historiak estatu unibertsalen eta eliza unibertsalen arragoetan eta nazioen joan-etorrietan zerturikoak—, gu, jentilok, guztiok harrapatu gaituelarik geure txandan.

Brandenburg eta Renania

Atikatik eta Israeletik Brandenburgera igarotzea bide luzea eta jaitsiera maldatsua dela irudi lezake; baina bere mailan lege beraren adibidea eskaintzen du. Federiko Handiaren jatorrizko aginterria izandako herrialde desatseginean —Brandenburg, Pomerania eta Ekialdeko Prusian— zehar bidaiatzen baduzu, bere pinadi goseti eta landa hondartsuekin, eurasiar estepako eskualde urrutiren batean zehar zoazela pentsatuko duzu agian. Edozein norabidetan irteten

zarela handik —Danimarkako larretoki eta pagadietara, Lituaniako lur beltzetara edo Renaniako mahastietara— herrialde errazago eta atseginagora igarotzen zara. Hala ere, «lur txar» hauek hartu zituzten Erdi Aroko kolonizatzaileen ondorengoek berebiziko papera jokatu dute gure Mendebaldeko Gizartearen historian. Ez bakarrik hemeretzigarren mendean Alemania menderatu zutelako eta hogeigarrenean itzelezko ahalegina eginez gure gizarteari bere estatu unibertsala ematera gidatu zituztelako alemanak. Halaber, hondarretatik laboreak nola atera erakutsi zien prusiarrak auzokoei, ongari artifizialez aberastuta; edo herri oso bat aurrez inoiz ez bezalako gizarte-eraginkortasunaren mailara nola jaso nahitaezko heziketaren sistemaz, baita aurrez ez bezalako gizarte-segurantzaren mailara ere nahitaezko osasun- eta langabezi aseguruaren sistemaz. Agian ez dugu prusiarrak atsegin izango, baina ezin dugu ukatu irakaspen garrantzitsu eta baliotsuak ikasi ditugula harengandik.

Eskozia eta Ingalaterra

Ez dago frogatu beharrik Eskozia Ingalaterra baino lurralde «gogorragoa» dela, ezta ere aztertu beharrik izaera aldetiko desberdintasun nabaria ohiko eskoziarraren —solemne, xuhur, zehatz, iraunkor, zuhur, arduratsu eta ongi heziaren— eta ohiko ingelesaren —kaskarin, xahutzaile, zehazgabe, espasmodiko, arduragabe, aske eta erraz eta liburuetako jakintzan gaizki oinarrituaren artean—. Ohiko konparazio hau ingelesek txantxatatzat hartuko dute agian; gauzarik gehienak hartzen dituzte txantxatatzat; baina eskoziarrek ez. Johnsonek adarra jotzen zion Boswelli, dirudienez sarri errepikatzen zuen *mot*-arekin, alegia, eskoziarrak beti ikusten duen perspektibarik onena Ingalaterrarako bidea dela; eta Johnson jaio aurretik, Ana erreginarene garaiko tipo xeblebre batek esaten zuen, Kainek, eskoziar izan balitz, alderantzizko zigorra izango zuela, eta Lur gainean noraezean ibiltzerara kondenatu ordez, bere etxean egotera zigortuko zutela. Britainiar Inperioaren eraketan eta Eliza eta Estatuko goi-postuetan eskoziarrek beren kopuruarekin proportziorik ez duen eginkizuna bete dutelako herri-susmoa ongi oinarritua dago, zalantzarik gabe. Viktoriar Ingalaterrako parlamentu-gatazka klasikoa askazi garbiko eskoziar baten eta askazi garbiko judu baten artekoa izan zen, eta, Gladstone-ren ondorengoetatik Erresuma Batuko lehen ministro-karguan gaur arte ia erdiak eskoziarrak izan dira³⁹.

Ipar Amerikarengatiko borroka

Gure aztergai honen adibide klasikoa geure Mendebaldeko historian, Ipar Amerikaz nagusitzeko kolonizatzaileen dozena-erdi taldek beren artean izandako lehiaren emaitza da. Lehiaketa honetako garaileak Ingalaterra Berrikoak izan ziren, eta aurreko kapituluan aipatu dugu jadanik tokiko ingurunearen ezohiko zailtasuna, kontinentearen azken jabea suertatu zitzaiena lehenik. Konpara ditzagun orain Ingalaterra Berriko ingurune hau, zeinen espezimen egokia baita Town Hill lekua, eta lehen iparramerikar inguruneak, Ingalaterra Berrikoen lehiakide arrakasta gabeek —holandarrek, frantziarrek, espainiarrek eta Atlantikoaren itsasertzeko hegoaldeko zatian, Virginian bertan eta inguruan ezarritako beste ingeles kolonizatzaileek— topaturikoak.

Hamazazpigarren mendearen erdialdera, talde hauek guztiak Amerikako kontinentearen ertzetan lehen aldiz ezarri zirenean, erraza izango zen barrualdearen jabetzagatik haien artean sortuko zen gatazka iragartzea, baina orduan 1650ean bizirik zegoen eta urrutien ikusten zuen behatzaileak ere, galdetu izan balitzaio, ez zuen asmatuko nor izango zen garailea. Agian izan zezakeen buruargitasuna espainiarrak baztertzeko, nahiz eta bi abantaila nabarmen izan: Mexikoren jabe izatea —Ipar Amerikako eskualde bakarra non sartu baitzen aurretik zibilizazio bat— eta artean Espainiak Europako potentzien artean zuen, baina jada merezi ez zuen ospea. Ken zezakeen Mexiko urruti zegoelako, eta ken zezakeen Espainiaren ospea Europako gerra bukatu berrian (Hogeita Hamar Urteko gerran) Espainiak izandako hutsegiteengatik. «Frantziak», esan zezakeen, «hartuko du Espainiak European izandako nagusitasun militarra, Holandak eta Ingalaterrak, berriz, itsasoan izandako ontzi- eta merkataritza-nagusitasuna. Ipar Amerikagatiko lehia Holanda, Frantzia eta Ingalaterraren artean datza. Motzera begiratuta, badirudi Holandak izan ditzakeela aukerarik onenak. Ingalaterra eta Frantzia baino gehiago da itsasoan, eta Amerikan ubide ezin hobe du barrualdera sartzeko, Hudson ibarra. Baina luzeagora begiratuta, Frantziak ematen du izango dela irabazle. Are ubide bikainagoa du, San Lorentzo, eta bere esku dauka holandarrek aunarazi eta mugiezinik uztea, hauen sorlekuaren kontra bere nagusitasun militar ikaragarria erabiliz. Baina», erants zezakeen, «bi ingeles taldeak ere baztertu ditzaket lasai. Ziur aski hegoaldeko inge-

les kolonizatzaileek, beren lur eta klima on samarrarekin, bizirik iraungo dute enklabe gisa, frantses edo holandarrengatik barrualdetik banatuta, normahik bereganatzen duela ere Mississippi ibarra. Gauza bat dago ziur, hala ere: Ingalaterra Berri soil eta idorrean ezarritako talde txikia beharturik dago desagertzera, holandarrek herrikideengandik bakartuta baitauzkate Hudsonen eta, aldi berean, frantziarrek presiopean San Lorentzotik».

Demagun gure behatzaile alegiazkoa mende-aldaketa ikusteko bezainbat bizitzen dela. 1701ean bere burua zorionduko du frantziarren etorkizuna holandarrena baino gorago jarri zuelako, azken hauek Hudson lehiakide ingelesten esku utzi baitzuten otzanki 1664an. Bitartean frantziarrak San Lorentzon gora igo ziren Aintzira Handietaraino eta lehorretik joanda Mississippiren arroraino. Ibaian behera bokaleraino jaitsia zen La Salle; frantziarren asentamendu berri bat, Louisiana, ezarririk zegoen han; eta hango portuak, Orleans Berriak, etorkizun handia zuen aurrean argi eta garbi. Frantzia eta Ingalaterraren artean, gure behatzaileak ez zukeen iragarritakoa aldatzeko arrazoirik ikusiko. Ingalaterra Berrikoak agian libre zeuden desagertzetik New York eskuratu zutelako, baina hegoaldeko ahaideen etorkizun apal berbera izateko bakarrik. Kontinentearen etorkizunak azkenean erabakia zirudien; frantziarrak izango ziren irabazle.

Emango al diogu geure behatzaileari gizagaineko bizialdia egoera berriro azter dezan 1803. urtean? Ordu arte bizirik eusten badiogu, aitortu beharrean izango da bere buruargitasunak ez duela merezi izan hain bizitza luzea. 1803.aren bukaerarako frantziarren bandera erabat desagertu da Ipar Amerikako mapa politikotik. Badira berrogei urte britainiar koroa dela Kanadaren jabe; Louisiana, berriz, Frantziak Espainiari laga eta berriro bereganatu ondoren, Napoleonek Estatu Batuei saldu berria da, hauxe delarik britainiarren hamahiru kolonietatik irten den botere handi berria.

Urte honetan, 1803an, Estatu Batuek beren poltsikoan dute kontinentea eta iragarkizunaren irispidea murriztagoa da. Aurreikus-
teko gelditzen den gauza bakarra zera da, Estatu Batuetako zein partek bereganatuko duen ondare zabal honen zatirik handiena. Eta, ziur aski, oraingoan ez da hutsegiterik izango. Hegoaldeko estatuak dira garbi Batasunaren jabeak. Begira nola doazen buru Mendebalde ira-
bazteko amerikarren arteko lasterketaren azken txanpan. Virginiako

urrutiko basoetako jendeak sortu du Kentucky, kolonizatzaile ingelesei barrualdera sartzeara eragozteko frantziarrekin luzaroan azpilana egin duten mendikatez mendebaldera ezarri den lehen estatu berria. Kentucky Ohion zehar dago eta Ohiok Mississippira darama. Bitartean Lancashireko irundegi berriek hegoadetar hauei gero eta merkatu zabalagoak eskaintzen dizkie kotoi-uztarentzako, lur eta klimak errazten dietelarik kotoiaren hazkuntza.

«Gure lehengusu yankeeak», esaten du hegoadetarrak 1807an, «oraintxe asmatu du bapore-ontzia gure Mississippin gora etorriko dena, baita gure kotoi-balak kardatu eta garbitzeko makina ere. Beraien ‘yankee-nozioak’ onuragarriago dira guretzat asmatzaile buruargientzat baino».

Gure iragarle urtetsu eta zorigabeak onartu egiten baditu hegoadetarraren igurikapenak, garai hartan dudarik gabe eta zenbait denbora geroago ere hegoadetarraren beraren ebaluazioa zen modu horretan, txotxatuta egon behar derrigorrez. Zeren eta lasterketaren azken txanpa honetan hegoadetarrak erremediorik gabe jasango baitu porrota, holandarrak eta frantziarrak jadanik izan zutena bezain bizkor eta hondagarria.

1865ean jadanik egoera aldatuta dago, ez ezagutzeko moduan, 1807koaren aldean. Mendebaldeaz jabetzeko lasterketan Hegoaldeko plantazio-jabea atzera eta bazterturik utzi du Iparraldeko lehiakideak. Indianan zehar Aintzira Handietarako bidea ia irabazita zuenean eta Missouriren gain (1821) parterik onena bereganatu ostean, argi eta garbi menderatu egin dute Kansasen (1854-60) eta sekula ez da Ozeano Barera iritsi. Ingalaterra Berrikoak dira orain Ozeano Barearen kostaldeko nagusi, Seattletik Los Angeleserainoko guztian. Hegoadetarrak Mississippiko bapore-ontziekin Mendebalde osoa bere ekonomi eta politika-harremanen sistemara erakartzea espero zuen. Baina «yankee-nozioak» ez dira amaitu. Trenbideko lokomotorea etorri da bapore-ontziaren ondoren, eta hegoadetarrari kendu egin dio baporeak inoiz eman ziona baino gehiago; izan ere, Hudson ibarrak eta New Yorkek izan dezaketen balioa, Atlantikotik Mendebaldera sartzeko ate nagusi bezala, trenbidearen aroan eguneratu dute azkenean. Chicagotik New Yorkerainoko trenbide-trafikoa St. Louis-etik Orleans Berrirainoko ibai-trafikoa baino handiagoa da. Kontinente barruko komunikazio-

-bideak aldatu egin dira norabide bertikaletik horizontalera. Ipar-mendebaldea banatu egin da Hegoaldetik eta Ipar-ekialdearekin batu da interes eta sentimenduan.

Egia esateko, ekialdetarrak, garai batean Hegoaldeari ibai-baporea eta kotoiari pildun edo izpiak kentzekoa oparitu zizkionak, orain ipar-mendebaldetarraren bihotza irabazi du opari bikoitzaz: esku batean lokomotorearekin joan zaio eta bestean segatu eta lotzeko makinarekin, eta horrela bi arazoetarako irtenbideak eman dizkio: garraioa eta eskulana. Bi «yankee-nozio» hauen bidez erabaki zen Ipar-mendebaldearen leialtasuna, eta gerra zibila Hegoaldeak galdu zuen borrokan hasi ere egin baino lehen. Hegoaldeak, bere ekonomi ezbeharrak kontraeraso militar batez konpontzeko itxaropenaz armak hartzean, dagoeneko saihestezina zen *débâcle*-a burutu baino ez zuen egin.

Esan daiteke Ipar Amerikako kolonizatzailer-talde guztiek erronka latzak izan zituztela beren inguruneen aldetik. Kanadan ia Artikokoak bezalako neguekin topo egin zuen frantziarrak eta Louisianan Txinako Ibai Horia bezain traidore eta suntsitzailea zen ibai apetatsuarekin, jadanik aipatua sail honetako konparazioetako lehenengoan. Hala ere, dena hartuta —lurra, klima, garraio-erraztasunak eta gainerakoa— ezin da ukatu Ingalaterra Berrikoen jatorrizko egoitza koloniala zela eskualde gogorrena guztien artean. Honela, iparramerikar historiak ondorengo proposamenaren alde hitz egiten du: zenbat eta handiagoa zailtasuna, orduan eta handiagoa estimulua.

2.

Lurzoru berriaren estimulua

Aski konparazio egin dugu zailtasun-maila desberdinak dituzten ingurune fisikoen ondorio estimulagarrien artean. Plantea dezagun orain arazo berbera beste ikuspegi batetik, lurzoru zaharraren eta berriaren ondorio estimulagarriak konparatuz, lurraren berezko izaeratik aparte.

Lur berrietan sartzeak estimulu bezala jokatzeko al du? Galderari baiezko erantzuna ematen zaio Edendik kanporatzeko mitoan eta Egiptotik egindako Irteeraren mitoan. Baratzeko magikotik lan egin beharreko mundura bota zituztenean, Adamek eta Ebak gizaki primitiboaren jaki-bilketaren ekonomia gaintitu eta nekazaritza eta artzaintzaren zibilizazioaren fundatzaileak sortarazi zituzten. Egiptotik egindako Irteeran Zibilizazio Siriakoaren oinarriak jartzen laguntzen duen belaunaldia sortzen dute israeldarrek. Mitoetatik erlijioen historiara itzultzen bagara, intuizio hauek berretsita aurkitzen ditugu. Adibidez, —«Nazaretetik irten ote daiteke ezer onik?» galdetzen dutenen atsekaberako— juduen Mesias «Jentilen Galileako» herrixka ilun hartatik irteten dela aurkitzen dugu, Jesusen jaiotzarako mende bat baino gutxiago falta dela makabeoek juduentzat konkistaturiko lurralde berriaren urrutiko zati batetik. Eta Galileako ziape-ale honen hazkunde geragaitzak juduen atsekabea etsaitasun aktibo bihurtzen duenean, eta hau ez bakarrik Judean bertan, baita judu-*diasporan* ere, fede berria zabaltzen ari direnak «jentilengana itzultzen dira» berariaz eta kristautasunarentzat mundu berriak konkistatzeari ekiten diote makabeoen erresumako mugarik urrutienak baino askoz harantzago dauden lurretan. Budismoaren historian kontu bera aurkitzen dugu, fede indiko honen garaipen erabakigarrienak ez baitira mundu indikoaren lur zaharretan irabazten. Hinayanak lehenik bidea zabalik aurkitzen du Zeilanen, Zibilizazio Indikoaren eranskin koloniala zelarik. Eta mahayanak Punjab probintzia indiko siriakizatu eta helenizatua bereganatuz hasten du gero Ekialde Urrunean izango duen nagusitasunerantz bidaia luze eta bihurgunetsua. Mundu arrotz hauetako lurzoru berrian eman zuten azkenean beren fruitua erlijio-jeinu siriako eta indikoaren adierazpen gorenek, egia honen lekuko: «ez dela profetarik ohoregabe, bere herrialdean eta bere etxean izan ezik».

Gizarte-lege honen proba enpiriko egokia «ahaidetu»-motako zibilizazioek eskaintzen dute, neurri batean beren aurreko zibilizazioek harturiko lurrean sortu baitira eta beste neurri batean zibilizazio ahaidetuek eurek bere kontura hartu duten lurrean. Lur zahar eta berriaren ondorio estimulagarriak zibilizazio «ahaidetu» horietako edozeinen ibilbidea aztertuz egiazta ditzakegu, edozein ildotako lor-

penak gehien bere esparruko zein puntutan nabarmendu diren seinatuz, eta gero puntu horiei dagokien lurra lur zaharra ala berria den aztertuz.

Har dezagun lehenik Hindu Zibilizazioa, eta marka ditzagun hindu-bizimoduan dauden elementu sortzaile berrien bertako iturburuak, batez ere erlijioan, hau izan baita beti Hindu Gizartearen jarduera zentral eta nagusia. Hegoaldean aurkitzen ditugu iturburu horiek. Han eratu ziren hinduismoaren ezaugarri bereizle guztiak: objektu material edo irudiz adierazi eta tenpluetan bizi diren jainkoen gurtza; emoziozko harreman pertsonala gurtzailearen eta berak gurtzen duen jainko partikularren artean; irudi-gurtzaren eta emozionalismoaren sublimazio metafisikoa intelektualki sofistikatutik teologian (Sankara, hindu-teologiaren sortzailea, K.o. 788 aldera jaio zen Malabar-en). Eta Hego India, lurzoru zaharra ala berria zen? Lurzoru berria zen, bere aurreko Gizarte Indikoaren eremuan bere existentziaren azken fasera arte sartu gabea, Mauriar Inperioaren garaira arte alegia, hau izan zelarik haren «estatu unitbertsala» (K.a. 323-185 inguruan).

Gizarte Siriakoak bi gizarte filial sortu zituen, Arabikoa eta Iranikoa, hauetako azkena izan zelarik, ikusi dugun bezala, arrakastatsuen, azkenean «ahizpa» bereganatu zuena. Zein arlotan loratu zen, batez ere, Zibilizazio Iranikoa? Gerran, politikan, arkitekturan eta literaturan izan zituen lorpen handi ia guztiak mundu iranikoaren bi muturretako batean edo bestean egin zituen, Hindostanen edo Anatolian, Mogolen eta Otomandarren inperioetan amaituz hurrenez hurren. Bi lorpen hauen lekua lur berria zen, aurreko Zibilizazio Siriakoaren irispidetik harantzago zegoena, kasu batean Hindu Gizarteari eta bestean Gizarte Kristau Ortodoxoari kendua. Lorpen hauekin alderatuta, Zibilizazio Iranikoaren historia bere erdiko eskualdeetan, Iranen bertan — Zibilizazio Siriakoari kendutako lurzoru zaharrean— adibidez, ia batere garrantzirik gabea izan zen.

Zein eskualdetan erakutsi du kemenik handiena Zibilizazio Kristau Ortodoxoak? Bere historiari begiratu bat emanez gero, ikusten da grabitate-zentro soziala eskualde desberdinetan izan duela garai desberdinetan. Lehen aroan, interregno posthelenikotik irten ondoren, Kristandade Ortodoxoaren bizitza indartsuagoa izan zen

Anatoliako goi-ordokiaren erdialdean eta ipar-ekialdean. Gero, bederatzigarren mendearen erditik aurrera, grabitate-zentroa itsasartearen Asiako aldetik Europakora aldatu zen, eta Gizarte Kristau Ortodoxoaren jatorrizko enberrari dagokionez, Balkanetako penintsulan egon da ordudunik. Garai modernoetan, ordea, eta garrantzi historikoari dagokionez, Kristandade Ortodoxoaren jatorrizko enberrara oso atzera utzi du Errusian sorturiko kimu ahaltsuak.

Hiru eremu hauek, lur zahar ala berritzat hartu behar dira? Errusiaren kasuan galderak ia ez du erantzunik behar. Erdialdeko eta Ipar-ekialdeko Anatoliari dagokionez, lur berria zen benetan Gizarte Kristau Ortodoxoari zegokionez behintzat, nahiz eta bi mila urte lehenago Zibilizazio Hititaren egoitza izana izan. Eremu honen helenizazioa atzeratu egin zen eta beti osagabea izan zen, eta kultura helenikoari egin zion lehen ekarpena, eta agian bakarra, Gizarte Helenikoaren bizitzako azkenaldian egin zuten Kapadoziako Elizako Gurasoek kristau-aroaren laugarren mendean.

Gizarte Kristau Ortodoxoaren gainerako grabitate-zentroa ere, Balkanetako penintsularen barrualdea, lur berria zen, zeren eta, Erromatar Inperioa bizi zela ingurune latindarrean eskualde hau gainestali zuen Zibilizazio Helenikoaren kanpo-geruza mehea suntsitu egin baitzuten, arrastorik utzi gabe, Inperioa desegin ondorengo interregnoan. Hemen suntsipena sakonagoa izan zen Inperioaren mendebaldeko beste edozein probintzian baino, Britainian izan ezik. Probintzietako erromatar kristauak ez zituzten konkistatu bakarrik egin, baita ia erabat desagertarazi ere inbaditzaile barbaro paganoek, eta barbaro hauek bertako kulturaren elementu guztiak hain eraginkorki erauzi zituzten, ezen haien ondorengoek, gurasoek egindako gaiztakeriaz damutu zirenean, kanpotik hazi berria lortu behar izan baitzuten berriro lantzen hasi ahal izateko, hiru mende geroago. Honela, lurra lugorri utzita egon zen hemen, Britainiako lurrak Agustinen misio-garaian utzita egon ziren denboran baino bi aldiz luzeago. Beraz, Zibilizazio Kristau Ortodoxoak bere bigarren grabitate-zentroa ezarri zueneko eskualdea oso denbora gutxi zela basa eremutik *de novo* ateratako lurra zen.

Honela, Gizarte Kristau Ortodoxoa bereziki nabarmendu zeneko hiru eskualdeak lurzoru berri ziren, eta are azpimarragarriagoa da ohartzea Greziak berak, aurreko zibilizazioaren foko distiratsuak, ia

hutsaren hurrengo papera izan zuela Gizarte Kristau Ortodoxoaren historian, harik eta, kristau-aroko hemezortzigarren mendean, Mendebaldeko eraginak mundu kristau ortodoxoan sartzeko bide bihurtu zuen arte.

Historia helenikora itzultzen bagara orain, egin dezagun galdera bera Gizarte Helenikoaren hasierako historian elkarren segidan nagusitasuna izan zuten bi eskualdeei buruz: Egeoko asiar kosta eta Greziako europar penintsula. Lurzoru berrian ala zaharrean loratu ote ziren hauek, aurreko Zibilizazio Minoikoaren ikuspuntutik? Lurzorua lurzoru berria zen hemen ere. Greziako europar penintsulan Zibilizazio Minoikoak, bere hedadurarik zabalenean ere, ez zuen eduki gotorleku-kate bat baino gehiago bere hegoaldeko eta ekialdeko itsas hegian, eta Anatoliako kostan Zibilizazio Minoikoaren presentziaren, edota eraginaren, arrastoak aurkitzen gure arkeologo modernoek hain porrot nabarmena izan dutenez, nekez egotzi dakioke kasualitateari, eta badirudi zera adierazten duela: arrazoiren batengatik, kosta hau ez zela Zibilizazio Minoikoaren eremuan sartu. Alderantziz, Ziklada uharteek, kultura minoikoaren guneetako bat izandakoek, mendeko papera jokatu zuten historia helenikoan, elkarren segidan itsasoan nagusi izan zirenen zerbitzari apal bezala. Are harrigarriagoa da Kretak berak historia helenikoan jokaturiko papera, bera izanik kultura minoikoaren gune lehena eta garrantzitsuena betiere.

Espero zitekeen Kretak eutsiko ziola bere garrantziari ez bakarrik histori arrazoiengatik, kultura minoikoa gailurrera iritsi zen lekua baitzen, baita geografi arrazoiengatik ere. Kreta zen Egeoko artxipelagoan uharterik handiena, besteak baino askoz handiagoa, eta mundu helenikoko itsas bide garrantzitsuenetako biren artean zeharka aurkitzen da. Pireotik Siziliarantz zihoan itsasontzi orok Kretaren mendebaldeko muturraren eta Lakoniaren artetik igaro behar zuen; Pireotik Egiptorantz zihoan itsasontzi orok Kretaren ekialdeko muturraren eta Rodasen artetik igaro behar zuen. Hala ere, Lakoniak eta Rodasek biek historia helenikoan gidari-papera jokatu zuten bitartean, Kreta aparte, ilun eta ezjakin geratu zen hasieratik bukaeraraino. Helas osoa estatu-politikari, artista eta filosofoak sortzen ari zen bitartean, Kretak ez zuen sortu petrikilo, mertzenario eta itsaslapurrak baino ezer ospetsuagorik, eta azkenaldian kretatar esa-

tea beoziar esatea bezala zen greziarrentzat. Izan ere, kretatarrak bere buruari buruzko iritzia hexometro batean utzi zuen, kristau-idazteunen kanonean sarturik gelditu dena. «Herrialde horretako igarle batek, hain zuzen, hauxe esan zuen: Kretatarrak beti gezurti, piztia txar eta tripazain alfer»⁴⁰.

Azkenik, aplika diezaiogun proba bera Ekialde Urruneko Gizarteari, Gizarte Sinikoaren filialari, alegia. Bere eremuko zein puntutan erakutsi du kemenik handiena Ekialde Urruneko Gizarte honek? Japoniakoak eta Kantongoak dira gaur egun berorren ordezkariarik kementsuenak zalantzarik gabe, eta bi herri hauek Ekialde Urruneko historiaren ikuspuntutik berria den lurzorutik sortu dira. Txinaren hego-ekialdeko itsasertza ez zen sartu «guraso» zen Gizarte Sinikoaren eremuan historia sinikoaren beranduko aldi batera arte, eta orduan ere politikaren azaleko mailan bakarrik, Han Inperioaren mugako probintzia gisa. Biztanleek barbaroak izaten jarraitu zuten. Japoniako uhartediari dagokionez, Ekialde Urruneko Zibilizazioaren kimua, kristau-aroko seigarren eta zazpigarren mendeetan Korearen bidez han birlandatua, aurreko kultura baten arrastorik ageri ez zuen lurraldean zabaldu zen. Ekialde Urruneko Zibilizazioaren kimu honek Japoniako lurzoru garbian izandako hazkunde indartsua, Zibilizazio Kristau Ortodoxoaren kimuak —Anatoliako goi-ordokitik ekarri eta Errusiako lur garbian birlandatuak— izan zuen hazkundearekin pareka daiteke.

Egia bada, gure datuek iradoki bezala, lur berriak lur zaharrak baino estimulu handiagoa eskaintzen duela jarduerarako, espero izatekoa litzateke estimulu hori bereziki markatua aurkitzea lur berria lur zaharretik itsas bidaiaz banatua dagoen kasuetan. Itsasosteko kolonizazioaren estimulu berezi hau oso garbi agertzen da Mediterraneoaren historian K.a. azken milurtekoaren lehen erdian (1000-500), mendebaldeko arroa Levanteko hiru zibilizaziotako itsas aitzindariak lehian kolonizatzen ari zirenean. Adibidez, agertzen da fundazio kolonial hauetako bi handienek, Kartago siriakoak eta Sirakusa helenikoak, beren sortzaile izandako hiriak, Tiro eta Korinto hiriak, atzera utzi zituzten mailan. Grezia Handiko kolonia akeoak (Hego Italia eta Sizilia) merkataritza ugariko leku eta pentsamendu-gune distiratsu bilakatu ziren bitartean, haien guraso ziren komunitate akeoak, Peloponesoren iparraldeko kostan zehar, geldi

geratu ziren Zibilizazio Helenikoak bere zenita igaro arte. Antzeratsu, Italiako lokriar epizefiriarrak oso gainditu zituzten Grezian geratutako lokriarrak.

Guztietan kasurik harrigarriena etruskoena da, Mendebaldeko Mediterraneoaren kolonizazioan feniziarrekin eta greziarrekin lehian ari zen hirugarren alderdia. Mendebaldera joandako etruskoak, greziarrak eta feniziarak ez bezala, ez ziren konformatu itsasoa begi-bistan zutela egotearekin, hura zeharkatuz iritsi zirelarik hara. Italiaren mendebaldeko kostatik barrura sartu ziren Apeninoetan eta Pon zehar Alpeen oinetaraino. Etxean gelditu ziren etruskoek, ordea, iluntasunaren nadirra bera lortu zuten, ezezagunak baitira historian eta haien sorlekua zehazki non egon zen ere arrastorik ez dago, nahiz eta Egiptoko dokumentuek adierazten duten jatorrizko etruskoek akeoekin batera Völkerwanderung postminoikoan parte hartu zutela eta operazio-basea Levanteko asiarrak izan zutela nonbait.

Itsasoa zeharkatzearen eragin bizkorgarria goren mailara iristen da agian Völkerwanderung-ean zerturiko itsasosteko migrazioan. Ez dirudi oso ohikoa hori gertatzea. Azterlan honen idazleak gogora ditzakeen kasu bakarrak hauek dira: Völkerwanderung postminoikoan teukriarren, eoliarren, joniarren eta doriarren migrazioa Egeoa zehar Anatoliaren mendebaldeko kostara, eta teukriarren eta filistearrena Siriako kostara; angloen eta jutoen migrazioa Britainiara Völkerwanderung posthelenikoan; ondorengo britoiarren migrazioa Kanalean zehar orduan Britainia izena hartu zuen eskualdera; garai berean irlandar eskotoen migrazioa Argyll-era; eta eskandinaviar bikingoen migrazioa, Erromatar Inperioaren arimari karolinjioek egindako dei hutseginaren ondorengo Völkerwanderung-ean: sei kasu guztira. Hauetatik, filistearren migrazioa konparatiboki antzua gertatu zen, dagoeneko deskribatu ditugun zirkunstantzietan (ikus 137-140. orr.), eta bretoiaren ondorengo historia garrantzirik gabea izan zen, baina itsasoz bestaldeko beste lau migrazioek fenomeno harrigarri batzuk badituzte, askoz ugariagoak diren lehorreko migrazio-kasuetan agertzen ez direnak.

Itsasoz bestaldeko migrazio hauek gauza bakar eta bera dute amankomunean: itsasosteko migrazioan migratzaileen gizarte-aparatua ontziratu egin behar da herrialde zaharreko kostatik aldentu

baino lehen, eta gero berriro deskargatu bidaiaren bukaeran. Mota guztietako aparatuak —pertsonak eta jabetza, teknikak, erakundeak eta ideiak— lege honen mende daude. Itsas bidaia batere jasan ezin duen guztia atzera utzi behar da, eta migratzaileek eramaten dituzten gauza asko —ez objektu materialak bakarrik— piezaka desmuntatuta eraman behar izaten dituzte, eta agian sekula ez dituzte berriro jatorrizko eran muntatuko. Deskargatzen dituztenean, «itsas aldaketa zerbait gozo eta arraro bihurtuz» jasan dutela agertzen da. Itsasosteko migrazio hori Völkerwanderung batean gertatzen denean, erronka handiagoa eta estimulua biziagoa izaten da, erantzuna ematen ari den gizartea ez baita jadanik sozialki progresiboa den gizarte bat (gorago azterturiko greziar eta feniziar kolonizatzaileak bezala), baizik eta oraindik egoera estatikoan dagoena, gizaki primitiboaren azken egoeran, alegia. Völkerwanderung batean, pasibotasun honetatik oldar eta kemenaren bat-bateko paroxismoarako trantsizioak ondorio dinamikoa eragiten du edozein komunitateren bizitzan, baina ondorio hau biziagoa da, noski, migratzaileek itsasontzia hartzen dutenean lur solidoan ibiltzen direnean baino, kasu honetan, itsas bidaiariak bazter utzi behar izaten duen gizarte-aparatuaren zati handi bat berekin eramanez.

«Perspektiba-aldaketa honek (itsasoz bestaldeko bidaiaren ondoren) jainko eta gizakiei buruzko ikuspegi berria sorrarazten du. Tokian tokiko jainkoak, hauen botereak eta gurtzaileen lurraldeak hedadura bera baitzuten, mundua gobernatzen zuen jainko-gorputz korporatibo batek ordezkatu zituen. Middlegarth-en erdigune izandako leku sakratua bere etxe itsusiarekin gora altxatu zuten eta jainko-egoitza bihurtu zuten. Ospetsu bihurturiko mitoak, burujabe ziren jainkoen egintzak kontatzen zituztenak, mitologia poetiko bihurtu zituzten, jainko-saga, bikingoen lehenagoko arraza batek —Homeroren greziarrek— jarraituriko ildo beretik. Erlijio honek jainko berri bat sortarazi zuen: Odin, gizakien gidaria, gudu-zelaietako jauna»⁴¹.

Nolabait ere antzeko eran Irlandatik Ipar Britainiara eskotoek itsasoz bestaldera egindako migrazioak erlijio berri bat sartzeko bidea prestatu zuen. Ez da kasualitatea itsasosteko Dalriada San Kolonboren misiolari-mugimenduaren kuartel nagusi bilakatzea, erdigunea Ionan zuela.

Itsasosteko migrazioaren fenomeno bereizgarrietako bat hainbat arraza-ahaleginen nahastura da, gizarte-aparatuaren lehen pieza baztertu beharrekoa hasierako famili taldea izaten baita. Itsasontzi batek ez du tripulazio bat baino gehiago hartuko, eta segurtasunagatik elkarrekin dabiltzan eta bizileku berrian konbinatzen diren ontziak herri desberdinetakoak izan litezke; oso bestelakoa izaten da lehorreko migrazioen ohiko prozesua, famili talde oso batek bere emakume eta haur eta etxeko gauzaz idi-gurdiak betetzen baititu eta *en masse* mugitzen da barearen abiadan *terra firma*-ren gainean.

Itsasosteko migrazioaren beste fenomeno bereizgarri bat erakunde primitibo baten atrofia da, gizarte-bizitza bereizgabearen adierazpen gorena agian, berau gizarte-kontzientzia argitzaileren baten eraginez, ekonomia, politika, erlijio eta artearen maila banatueta errefraktatu aurretik: ' `ς `μ -en ezarpena eta bere zikloa. Erritual hau bere lorian eskandinaviar munduan ikusi nahi badugu, etxean gelditu ziren eskandinaviarren artean izandako garapena aztertu behar dugu. Kontrastez

«Islandian Maiatzaren Leheneko jokoak, errito-ezkontzak eta gorteiatze-eszenak badirudi nekez jarraitu dutela bizitzen kolonizazio ostein, neurri batean, zalantzarik gabe, kolonizatzaileak bidaiari eta eskolatuen klasekoak zirelako batez ere, eta beste neurri batean base-rri-zeremonia hauek nekazaritzari lotuak zeudelako, ezin zena Islandian jarduera garrantzitsua izan»⁴².

Baina Islandian ere nolabaiteko nekazaritza bazenez, iradokita-ko bi arrazoi horietako lehena hartu behar dugu garrantzitsuentzat.

Aipatu berri dugun lanaren tesia zera da: *Edda Nagusia* delako bilduma islandikoan idatziz jarritako eskandinaviar poemak Eskandinaviako ugalkortasun-drama primitiboan mintzaturiko hitzetatik datozela: sakon erroturiko sustrai lokaletatik moztu eta emigratzaileek itsasontzian berekin eramanez zezaketen erritualeko elementu bakarra. Teoria honen arabera, erritual primitiboa drama bihurtzeko bilakaera gelditu egin zen itsasoz bestaldera migratu zuten eskandinaviarren artean; eta teoria berretsi egiten du historia helenikoan dagoen analogia batek. Zeren eta ongi ezarritako gauza baita, Zibilizazio Helenikoa lehenik itsasosteko Jonian loratu zen arren, drama helenikoa, erritual primitiboetan oinarritua, Greziako penintsulako lur kontinentaletik sortu zela. Upsalako santutegiaren baliokidea Helasen

Dionisosen teatroa izan zen Atenasen. Bestalde, itsasosteko migratzaileek —heleniko, eskandinaviar eta anglo-saxoniarrek— Jonian, Islandian eta Britainian sortu zituzten «Homeroren» poesia epikoa, *Edda*-ak eta *Beowulf*-a.

Saga eta epika buru-premia berri bati erantzuteko sortzen dira, banako pertsonaia kementsuen eta herri-gertaera erabakigarrien kontzientzia berri bati. «Kantu hura, belarrietan berrien gertatzen zaienek laudatzen dute gehien», aitortzen du Homerok. Hala ere, kantu epikoan bada zerbait bere berritasuna baino preziatuagoa, istorioaren berezko giza interesa, alegia. Orainaldiarekiko interesa aro heroikoaren oldarrak eta kemenak iraun bitartean bakarrik izaten da nagusi; baina gizarte-paroxismoa iragankorra izaten da eta, ekaitz baretzen denean, epika eta sagaren zaleek beren garaian bizitza nahikoa zozo bihurtu dela sentitzen dute. Gero, kantu berriak zaharrak baino nahiago izateari uzten diote, eta azken koblakariak, entzuleen umore-aldaketari erantzunez, belaunaldi zaharren ipuinak errepikatzen eta edertzen ditu. Beranduko adin honetan lortu zuen bere literatur gailurra epika eta sagaren arteak; hala ere, indar handiko lan hauek sekula ez ziren sortuko itsasoz bestaldeko migrazioaren probak hasieran eragindako estimuluagatik izan ezik. Formula honetara iritsi gara: «Drama... sorlekuan garatzen da; epika, herri migratzaileen artean»⁴³.

Völkerwanderung-ean zehar itsasosteko migrazioaren probatik ateratzen den beste sorkuntza positiboa ez da literarioa, politikoa baizik. Politika-mota berri hau ez da ahaidetasunean oinarritzen, kontratuan baizik.

Adibiderik ospetsuenak, agian, Anatoliako kostara migratu zuten Greziako nabigatzaileek gero Eolia, Jonia eta Doria bezala eza-gutuko ziren eskualdeetan sorturiko hiri-estatuak izango dira, zeren eta konstituzio-historia helenikoari buruzko dokumentu urriek zera erakusten dutela baitirudi: lege eta tokitasunaren arabera antolamendu-printzipioa, eta ez ohitura eta ahaidetasunaren arabera, itsasoz bestaldeko greziar kolonia hauetan ezarri zela lehenik eta europar Grezian imitatu zutela gero. Itsasoz bestaldean honela sorturiko hiri-estatuetan, politika-antolamendu berriaren «zelulak» ez dira izango ahaideak, ontzi-tripulazioak baizik. Itsasoan lankidetzan jardun ondoren, ozeanoko arriskuen artean «ontzi berean doazenek»

egin ohi duten bezala, era berean sentitzen eta jokatzeko jardungo zuten lehorrean, nekez irabazitako kosta-zerrendaren bat barrualde etsaiaren mehatxuari aurre eginez defendatu behar zutenean. Lehorrean, itsasor- an bezala, laguntasuna ahaidetasuna baino garrantzitsuagoa izango zen, eta konfiantzako eta aukeraturiko buruzagiaren aginduek gain hartuko zieten ohituraren aginduei. Izan ere, tripulazio-multzo bat, itsasoz bestaldean berentzat bizileku berri bat konkistatzeko indarrak elkartuta, berez hiri-estatu bihurtuko zen, tokiko «tributan» antolatua eta hautazko magistraturak gobernatua.

Eskandinaviar Völkerwanderung-era itzultzen bagara, antzera- ko garapen politiko baten hastapenak sumatzen ditugu. Eskandinaviar Zibilizazio abortatua jaio egin balitz Mendebaldeko Europakoak iren- tsi ordez, garai batean Eolia eta Joniako hiri-estatuak jokatu zuten papera Irlandako kostako Ostmen-eko bost hiri-estatuak jokatu ahal izango zuten, edo daniarrek Mertiako konkisten lehorreko muga zaintzeko antolatu zituzten bost hiriek (Lincoln, Stamford, Leicester, Derby eta Nottingham-ek). Baina itsasoz bestaldeko eskandinaviar politikaren loratzerik finena Islandiako errepublika izan zen, itxuraz etorkizun oparorik ez zuen Artikoko uharte baten lurrean eraikia, Faroe uharteetako eskandinaviar *point d'appui* hurbilenetik bostehun miliara.

Angloek eta jutoek Britainiara egin zituzten itsasosteko migra- zioen ondorio politikoei dagokienez, kointzidentzia hutsa baino zer- bait gehiago da agian, itsasoa zeharkatzean ahaide-talde primitiboaren kateak astindu zituzten etorkinek Mendebaldeko historiaren egunsen- tian okupaturiko uharte bat, gero, gure Mendebaldeko Gizarteak aurrerapen politikoan urratsik handienetako batzuk egingo zituen herrialde bihurtzea. Angloen orpoz orpo ibili ziren inbaditzaile daniar eta normandiarrek, ondorengo lorpen politiko ingelesan ospean parte dutenek, askapen-esperientzia bera bizi izan zuten. Horrelako herri- konbinazioak gutxitan bezalako lur ona eskaini zuen politika lantze- ko. Ez da harritzekoa gure Mendebaldeko Gizarteak, Ingalaterran, lehenik «Erregearen Bakea» eta gero gobernu parlamentarioa sortzen arrakasta izatea; Kontinentean, berriz, gure Mendebaldeko garapen politikoa atzeratu egin zen frankoen eta lonbardiarren artean ahaide- taldeak bizirik iraun zuelako, gizarte-zama hartatik ez baitzituen hasieran arindu itsasaldi askatzaileak.

3.

Kolpeen estimulua

Ingurune fisikoaren estimulua aztertu ondoren, azterlanaren zati hau osatzeko giza inguruneen arloa ikertuko dugu era berean. Lehenik bereizketa bat egingo dugu: giza ingurune batzuk beren jarduera-eremu dituzten gizarteez kanpokoak geografikoki, eta beste batzuk geografikoki horiekin nahasturik daudenak. Lehen kategoriak gizarte edo estatuek auzokoengan zerturiko ekintza hartuko du, bi aldeak eremu partikularren okupazio eskusiboa dutela hasten direnean. Horrelako gizarte-harremanetan rol pasiboa jokatzen duten erakundeek ikuspuntutik, aurrean topatzen duten giza ingurunea «kanpoko» edo «arrotza» da. Gure bi kategorietako bigarrenak gizarte-«klase» batek beste batengan zerturiko ekintza hartuko du, bi klaseak elkarrekin eremu berbera okupatzen dutenean, «klase» hitza bere zentzurik zabalenean erabiliz. Kasu honetan erlazioa «barnekoa» edo «etxekoa» da. Barneko giza ingurune hau geroago aztertzeko utzirik, beste banaketa bat egin dezakegu: kanpotiko eraginak bat-bateko kolpearen forma hartzen duenekoa edo etengabeko presioaren forman eragiten duenekoa. Beraz, hiru ikerpuntu ditugu hemen: kanpoko *kolpeak*, kanpoko *presioak* eta barneko *zigorrak*.

Zein da bat-bateko kolpeen ondorioa? Hemen ere balio al du «zenbat eta handiagoa erronka, orduan eta handiagoa estimulua» proposamenak? Berez burura datozkigun lehen aztergaiak honelako kasuak dira: botere militar bat, lehenik auzokoekiko hainbat borrokak estimulatua, eta gero bat-batean kontrario batek menderatua, ordu arte sekula ez zituelarik harekin bere indarrak neurtu. Eskuarki, zer gertatzen da inperiogile hasiberriak honela dramatikorik eraisten dituztenean ibilbidearen erdian? Normalki, erori diren lekuan gelditzen al dira etzanda, Sisera bezala, ala altxatu egiten dira berriro ama lurretik, mitologia helenikoko Anteo erraldoia bezala, erabat indarberriturik? Adibide historikoek adierazten dute azken aukera dela normala.

Adibidez, zein izan izen *Clades Alliensis*-en eragina Erromaren zorian? Veio Etruriako hiriarekin duelu luzean izandako garaipenak azkenean Lazion bere nagusitasuna ezartzeko egoeran

jarri eta bost urtera bakarrik harrapatu zuen hondamendiak. Espero zitekeen erromatar armadaren porrotak Allia-n eta urrutiko barbaroek Erroma bera hartzeak kolpean garbituko zituztela Erromak irabazi berri zituen boterea eta ospea. Horren ordeztu, Erroma hain bizkor suspertu zen galiar hondamenditik, ezen mende-erdi baino lehen prest baitzegoen bere italiar auzokoekin topaketa luze eta gogorragoetan sartzeko benetan arrakastatsu, eta honek Italia osora hedatu zuen haren aginpidea.

Halaber, zer ondorio izan zuen osmanliarren zorian Timur Lenk-ek (Tamerlan-ek) Angorako landan Baiezid Yilderim (Baiazeto sultana) gatibu hartu izanak? Hondamendi honek osmanliarrak harrapatu zituenean, hauek Balkanetako penintsulan Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusiaren konkista osatzeko zorian zeuden. Une erabakigarri hartantxe geratu ziren makalduta, itsasartearen Asiako aldean, Transoxianako tximista batek jota. Espero zitekeen haien osagabeko inperio-eraikinaren apurketa orokorra. Baina benetan ez zen hori gertatu; eta mende-erdi geroago, Mehmet Konkistatzailea gai izan zen Baiezid-en eraikinari azken harria jartzeko Konstantinoplaz jabetu zenean.

Erromaren lehiakide arrakastagabeen historiak erakusten dute erabateko porrotak jarduera onuragarriagora bultzatzen duela komunitatea, nahiz eta gero beste porrot batek, lehenengoan baino erresistentzia setatiagoaren ondoren, huts eragin helburuari. Kartagoren porrotak Lehen Gerra Punikoan Hamilkar Barka estimulatu zuen bere herrialdearentzat Espainian inperio bat konkistatzera, Sizilian galdu berria zuen inperioa baino hobea. Bigarren Gerra Punikoan Hanibalen porrotaren ondoren ere, kartagoarrek bi aldiz txundiarazi zuten mundua beren azken suntsipenaren aurretik igaro zen mende-erdian: lehenik gerrako kalte-ordaina oso bizkor ordaindu eta beren merkataritza-oparotasuna berreskuratu zutelako, eta bigarren, jende guztia, gizon, emakume eta haurrak heroismo handiz borrokatu eta hil zirelako azken guduan. Bestalde, Zinoszefaloson erabateko porrota jasan ondoren bakarrik ahalegindu zen Filipo V.a Mazedoniakoa, ordu arte monarka hutsal samarra, bere herrialdea potentzia indartsu bihurtzen, hain indartsu ezen haren seme Pertseo gai izan baitzen Erromari erronka botatzeko inoren laguntza gabe, eta ia menderatzera iritsi zen, haren erresistentzia setatia azkenean Pidnan hautsi zuten arte.

Mota bereko beste adibide bat, nahiz eta emaitza desberdinekoa, Austriak gerra iraultzaile eta napoleonikoetan izandako bost esku-hartzeek ematen dute. Lehen hiru esku-hartzeek porrota ez ezik, ospea galtzea ere ekarri zioten. Austerlitz-ekoaren ondoren, ordea, borrokarako prestatzen hasi zen. Austerlitz haren Zinoszefalos izan bazen, Wagram haren Pidna izan zen; baina Mazedoniak baino zori hobea izan zuelarik, gai izan zen berriro ere arrakastaz esku hartzeko 1813an.

Are harrigarriagoa da Prusiaren jokaera gerra-ziklo berean. Jenako hondamendian bukatu ziren hamalau urteetan eta berehala etorri ziren errendizioetan, politika hutsal eta lotsagarria zertu zuen aldi berean. Gero, ordea, Eylau-n neguko kanpaina heroikoa gauzatu zuen, eta Tilsit-en ezarritako baldintzen gogortasunak areagotu baino ez zuen egin astinaldiak lehenik sortutako estimulua. Estimulu honek Prusian piztu zuen energia apartekoa izan zen. Prusiako armada ez ezik, Prusiako administrazio- eta hezkuntza-sistemak ere onera ekarri zituen. Izan ere, Prusiako estatua edalontzi aukeratu bihurtu zuen nazionalismo alemanaren ardo berria hartzeko. Stein eta Hardenberg eta Humboldt-en bitartez Bismarck-engana eramán zuen.

Ziklo hau geure garaian errepikatu da, mingarriegia zaigun era ezagunean, komentatu beharrik izateko. 1914-18ko gerran Alemaniaren porrotak eta Frantziak 1923-4an Ruhr arroa hartu zue-nean porrot hura larriagotzeak nazien *revanche* deabruzkoa, nahiz eta arrakastarik gabea, eragin zuen⁴⁴.

Baina kolpe baten eragin bizkorgarriaren adibide klasikoa Helasek oro har, eta Atenasek partikulariki, izan zuten erreakzioa da, Pertsiar Inperioak —estatu unibertsal siriakoak— K.a. 480-479an egindako eraso bortitzaren aurrean. Atenasen susperraldiaren bizitasuna jasandako sufrimenduen laztasunaren proportziozkoa izan zen, zeren eta Beozioako lur-sail emankorrek onik atera ziren bitartean jabe-ek kausa helenikoari egindako traizioagatik eta Lazedemoniako lur emankorrek atenastarren flotaren balentriagatik, Atikako lur kaskarra bi urtarotan jarraian sistematikoki erraustu, Atenas bera ere hartu eta tenpluak suntsitu egin baitzituzten. Atikako bizilagun guztiek irten behar izan zuten herrialdetik eta, errefuxiatu gisa, itsasoa zeharkatu Peloponesoraino; eta Atenasko flotak egoera honetan borrokatu eta irabazi zuen Salaminako gudua. Ez da harritzekoa atenastarren artean

espiritu menderagaitz hau sortu zuen kolpea, gizadiaren historian beren distira, ugaritasun eta aniztasunagatik paregabeak izan diren lorpenen atarikoa izatea. Tenpluen berreraikuntzan, atenastarrentzat beren herrialdearen pizkundearen seinalerik kutunena, Periklesen Atenasek askoz ere bizitasun handiagoa izan zuen 1918 osteko Frantziak baino. Jaurtigaiz eraitsitako Reims-ko katedrala berregin zutenean frantziarrek, pietatez zaharberritu zuten apurtutako harri bakoitza eta ezpalduriko estatua bakoitza. Atenastarrek Hekatonpedona oinarrietaraino erraustua aurkitu zutenean, oinarriak hantxe utzi eta leku berri batean Partenoiara eraiki zuten⁴⁵.

Kolpeen estimulua bere adibiderik nabariena hondamendi militarren aurkako erreakzioetan aurkitzen du, baina adibideak edo non bilatu eta aurki daitezke. Orain mugatu gaitezen kasu goren bakar batera, erlijioaren arloan Apostoluen Eginetan agertzen den batera. Egintza dinamiko hauek, azkenean mundu heleniko osoa kristautasunera irabaziko zutenak, apostoluak espiritualki lur jota zeudenean asmatu zituzten, Maisua miragarriro haien artean berragertu eta oso denbora gutxira haren presentzia pertsonala bat-batean kendu zitzaielako lur jota zeudenean, alegia. Bigarren galera hau gurutziltzatzea bera baino suntsigarriagoa izan zitekeen. Hala ere, kolpearen astuntasunak berak haien arimetan proportziozko erreakzio psikologiko ahaltsua eragin zuen, soineko zuriz jantzitako bi gizonen agerpenean eta Mendekosteko suzko mihien jaitsieran mitologikoki proiektatua. Espiritu Santuaren ahalaz Jesus gurutziltzatu eta desagertuaren jainkotasuna predikatu zieten, judu-herri xeheari ez ezik, baita Sanedrinarri ere, eta hiru mende barru Erromako gobernuak berak amore eman zuen apostoluek beren espiritua mailarik apalenean zuten garaian sorturiko Elizaren aurrean.

4.

Presioen estimulua

Orain, eraginak beste forma bat, kanpoko presio etengabearen forma, hartzen dueneko kasuak aztertu behar ditugu. Geografia poli-

tikoari dagokionez, horrelako presio bat jasaten duten herri, estatu edo hiriak gehienetan «marka» edo mugako probintzien kategoria orokorrean sartzen dira, eta presio-mota partikular hau enpirikoki aztertze-ko biderik onena arriskupeko marka horiek beren komunitateen historian jokaturiko papera aztertzea da, komunitate horien aginterrien barrualdean lurralde babestuagoek jokaturiko paperarekin konparatuz betiere.

Mundu egipziakoan

Zibilizazio Egipziakoaren historian gutxienez hiru okasio erabakigarritan gertaeren norabidea Goi Egiptoko hegoaldean sorturiko potentziek zuzendu zuten; Erresuma Batua fundazioa K.a. 3200 inguruan, estatu unibertsalaren fundazioa K.a. 2070 inguruan, eta honen berrezarpena K.a. 1580 inguruan, estu mugaturiko barruti horretatik zertu ziren; eta, egia esan, inperio egipziakoen hazitegi hau izan zen Nubiako tribuen presiopean zegoen mundu egipziakoaren hegoaldeko marka. Hala ere, historia egipziakoaren geroagoko mar-txan —Inperio Berriaren gainbeheraren eta Kristo ondorengo bosga-rren mendean gertaturiko Gizarte Egipziakoaren behin betiko desa-gertzearen artean igaro ziren azken hamasei mendeetan— aginte poli-tikoa Deltara itzuli zen, Ipar Afrika eta Hego-mendebaldeko Asia aurrez aurre jartzen zituen markara; eta aurreko bi mila urteetan hego-aldeko markara itzultzeko gai izan zen bezain iraunkorki itzuli ere. Honela, mundu egipziakoaren historia politikoa, hasieratik bukaera-raino, botere politikoaren bi poloren arteko tirabira bezala irakur dai-teke, garai bakoitzean hegoaldeko eta iparraldeko markan aurkitzen zirelarik hurrenez hurren. Ez dago barrualdeko puntuetan sorturiko gertaera politiko handien adibiderik.

Eman ote dezakegu arrazoirik azaltzeko zergatik izan zen nagusi hegoaldeko markaren eragina historia egipziakoaren iraunaldi-ko lehen erdian eta iparraldeko markarena bigarren erdian? Badirudi arrazoa hau izan litekeela: nubiarren konkista militarren eta kultur asimilazioaren ondoren Tutmosis I.aren garaian (K.a. 1557-1505 inguruan), hegoaldeko markan zegoen presioa ahuldu edo desagertu egin zen bitartean, garai berean edo geroxeago Libiako eta Hego-men-debaldeko Asiako erresumetako barbaroen presioa biziki areagotu zen Deltan. Honela, historia politiko egipziakoan mugako probintzien era-

gina handiagoa izan zen erdialdeko probintziena baino, eta, gainera, denbora jakin batean mehatxatuena izan zen markak zertu zuen eragin nagusia.

Mundu iranikoan

Oso egoera desberdinetan emaitza bera agertzen dute bi turkiar herriren historia kontrajarriek; herri horiek osmanliarrak eta karamanliarrak ziren, bakoitzak Anatoliaren zati bat hartzen zuen, eta Anatolia zen mundu iranikoak Mendebaldean zuen bastioi aurreratua kristau-aroko hamalagarren mendean.

Bi turkiar komunitate hauek Anatoliako sultanerri seljuktarren «ondorengo estatuak» ziren; sultanerri hau turkiar potentzia musulman bat zen, hamaikagarren mendean, Gurutzadak hasi baino lehentxeago, turkiar abenturari seljuktarrek Anatolian ezarria; hauek mundu honetarako eta hurrengorako beren buruak hornitu zituzten, Dar-al-Islam-en mugak Kristandade Ortodoxoaren kontura zabalduz. Sultanerri hau kristau-aroko hamahirugarren mendean desegin zenean, bazirudien seljuktarren oinordeko guztien artean karamanliarrek zutela etorkizunik ederrena eta osmanliarrek kaskarrena. Karamanliarrek lehengo seljuktarren agindupeko lurraldearen muina Quoniyah (Konieh, Iconium) hiriburuarekin batera heredatu zuten bitartean, osmanliarrak gainazalaren zati baten jabe aurkitu ziren.

Egia esan, osmanliarrek estatu seljuktarraren gerakinak hartu zituzten, azkena etorriak zirelako eta egoera apalean iritsiak. Haien eponimoa, Osman, Ertogrul baten semea zen, izenik gabeko errefuxiatu-talde baten buruzagia, giza naufragioaren zatitxo garrantzi gabea, eurasiar esteparen bihotzetik Gizarte Iranikoaren ipar-ekialdeko marketara salto egin zuenean uhin mongolaren talka ikaragarriak Dar-al-Islam-en muturrik urrutienetara jaurtikia. Osmanliarren guraso ziren errefuxiatu hauei azken anatoliar seljuktarrak Anatoliako goi-ordokiko ipar-mendebaldeko ertzean lur-zerrenda bat eman zien, non seljuktarren lurraldeak mugakide baitziren Bizantziar Inperioak oraindik Marmara itsasoaren asiar ertzetan zeuzkan lurraldeekin: arrisku-pekoso posizioa, egoki asko *Sultan Önü* deitua, sultanaren gudu-frontea. Baliteke osmanliar hauek karamanliarren zori onaren inbidia izatea, baina eskekoek ez dute aukeratzetik. Osmanek onartu egin zuen bere zatia eta mugak zabaltzeari ekin zion bere auzoko kristau ortodoxoen

kontura, lehen helburutzat Bursa bizantziar hiria hartu zuelarik. Bursa bereganatzeko bederatzi urte behar izan zituen (K.o. 1317-26), baina osmanliarrek zuzen deitu dute beren burua haren izenaz, Osman izan baitzen Otomandar Inperioaren benetako sortzailea.

Bursa erori zenetik hogeita hamar urtera, osmanliarrek jarria zuten hanka Dardanelotako europar itsasertzean, eta European egin zuten beren aberastasuna. Izan ere, mende beraren bukaera baino lehen konkistatuak zituzten karamanliarrak eta Anatoliako beste komunitate turkiar batzuk ezkerreko eskuaz, aldi berean serbiar, greziar eta bulgariarrak menderatzen ari zirelarik eskuinekoaz.

Horrelakoa izan zen muga politikoaren estimulua, zeren eta historiaren aurreko aroaren azterketak erakusten baitu ez zegoela heroiak hazteko nolakotasun berezirik osmanliarrek Anatolian zuten hasierako operazio-basearen ingurune geografikoan —zoritxarrean eta, ongi merezita, ahazturik zeuden karamanliarrekin kontrastatuz gero— Önü sultana kapitulu honetako lehen sekzioko arlora eramateko modukorik, behintzat. Kristau-aroko hamaikagarren mendeko hirugarren laurdenean seljuktar turkiarrek egindako sarraldiaren aurreko garaia itzultzen bagara —arteana Anatolia Ekialdeko Erromatar Inperioaren mugen barruan zegoenean—, zera aurkitzen dugu: gero karamanliarrek harturiko lurraldea ia bat zetorrela Anatoliar Armada Gorputzaren barruti izandakoarekin, hau kristautasun ortodoxoaren historiako lehen aroan nagusi izan zelarik Ekialdeko Erromatar Armadako gorputzen artean. Beste hitz batzuetan esanda, Qoniyah-ko barrutian karamanliarren aurreko izan ziren ekialdeko erromatarrek eduki zuten Anatolian, geroago Önü sultanaren osmanliar okupatzaileek eduki zuten nagusitasuna; eta arrazoa sinplea da. Lehen garai hartan Qoniyah barrutia Ekialdeko Erromatar Inperioaren muga-probintzia bat izana zen Arabiar Kaliferriaren *vis-à-vis*, gero osmanliarrek harturiko lurraldea garai hartan barrualdeko posizioaren iluntasun erosoaz gozatzen ari zen bitartean.

Errusiako Kristandade Ortodoxoan

Hemen, beste edonon bezala, hainbat markaren gaineko zenbait kanpo-presioren indar erlatiboak intentsitatez aldatu ahala, marka batean eta gero bestean, elkarren segidan, gizartearen bizitasunak kontzentratzera egin duela aurkitzen dugu. Zibilizazio Kristau

Ortodoxoak, Konstantinoplatik Itsaso Beltzean zehar eta eurasiar estepan zehar hasieran birlandatu zuten garaian, lehenengo erroak bota zituen Errusiako eskualdea Dnieper-en goi-arroa izan zen. Handik, hamabigarren mendean, Volgaren goi-arroa aldatu zuten muga-gizonak, mugak norabide hartan ari baitziren zabaltzen ipar-ekialdeko oihanetako finlandiar pagano primitiboen bizkar. Laster, ordea, bizitasunaren egoitza Behe Dnieper-era erretiratu zen, eurasiar estepako nomaden presio zanpagarriarekin topo eginez. Presio hau, Batu Khan mongolak K.o. 1237an zertu zuen kanpainaren emaitza gisa errusiarreri bat-batean ezarria, sekulakoa eta luzea izan zen; eta interesgarria da ohartzea, kasu honetan beste batzuetan bezala, ezohiko gogortasuneko erronkak bereziki orijinal eta sortzailea zen erantzuna sortarazi zuela.

Erantzun hau bizimodu berri baten eta gizarte-antolamendu berri baten bilakaera bera izan zen: historian lehen aldiz gizarte sedentario bat gaitu zuen ez bakarrik eurasiar nomaden aurka tinko bereari eusteko, ez bakarrik espedizio iragankorren bidez zigortzeko, baita lurralde nomadaren konkista iraunkorra egiteko eta paisaiaren itxura aldatzeko ere, nomaden larretokiak laborarien soro bihurtuz eta haien kanpamentu mugigarrien ordeztu herrixka iraunkorrak jarritz. Aurrekaririk gabeko balentria hau egin zuten kosakoak Errusiako Kristandade Ortodoxoko muga-jendea zen, eurasiar nomaden (Batu Khanen «Urrezko Hordaren») aurkako muga-gerraren sutegian tentatua eta ingudean forjatua ondorengo bi mendeetan. Ospetsu bihurtu dituen izena —kosakoak— beren etsaiei zor diete; turkierazko hitza *qazaq* besterik ez da eta bere «legezko» jaun nomadaren aginpidea onartzeari uko egiten dion legegabea esan nahi du⁴⁶. Urruti barreiatutako kosakoen komunitateak —Errusian 1917ko Iraultza Komunistak suntsitu zituen mementoan—, Asian zehar Don-etik Ussuriraino mailakaturik zeudenak, ama-komunitate bakar baten ondorengoak ziren guztiak, Dnieper-eko kosakoen ondorengoak, alegia.

Jatorrizko kosako hauek anaidi militar erdimonastiko bat ziren, espartarren anaidi helenikoaren eta gurutzatuen zaldun-ordenaren antzekoa zenbait puntutan. Nomaden aurka tregoarik gabeko gerra zertzeko metodoetan oihartu ziren, zibilizazio batek arrakastaz borrokatu behar badu barbaroen kontra, haienak ez bezalako arma eta baliabideez egin behar diela borroka. Mendebaldeko inperiogile moderno-

ek kontrario primitiboak berauen aurka industrialismoaren baliabide hobeak erabiliz menderatu dituzten bezala, kosakoek horrelaxe menderatu zituzten nomadak nekazaritzaren baliabide hobeez baliatuz. Eta Mendebaldeko gerragintza modernoak nomadei beren lurreen ezintasun militarra ekarri dien bezala —trenbide, automobil eta hegazkinak bezalako bitartekoez haien mugigarritasuna gaindituz—, era berean kosakoek ezintasun militarra ekarri zieten nomadei beren eran ibaiez jabetuz, estepako natur elementu bakarra nomaden kontrolpean ez zegoena eta beraien aurka jarri zena alde jarri beharrean. Zaldun nomadentzat ibaiak oztopo ikaragarriak eta garraiorako balio-gabeak ziren bitartean, errusiar nekazari eta egurgilea trebea zen nabigazioan. Hortaz, kosakoek, zaldiz ibiltzeko artean kontrario nomadekin lehiatzen ikasi bitartean, ez zuten ahaztu ontzi-zain izatea, eta azkenean ontziz, eta ez zaldi gainean, irabazi zuten Eurasia menderatzeko bidea. Dnieperretik Don-era igaro ziren eta Donetik Volgara. Hemendik, 1586an, Volga eta Obi arteko ur-muga zeharkatu zuten eta 1638rako Siberiako ur-bideak arakatzuz Ozeano Barearen kostetara iritsi ziren Okhotsk-eko itsasoan.

Hego-ekialdean nomaden presioaren aurrean kosakoek beren garaipen-erreakzioa honela erakutsi zuten mende berean, beste muga bat bilakatu zen kanpo-presioaren hartzaile nagusi eta errusiar bizitasunaren gune garrantzitsuenak. Kristau-aroko hamazazpigarren mende, Errusiak, bere historian lehen aldiz, Mendebaldeko munduaren presio ikaragarria sentitu zuen. Poloniako armada batek Mosku hartu zuen bi urtez (1610-12), eta geroxeago Gustavo Adolforen Suediak Baltikotik banatu zuen Errusia, bera jabetu baitzen itsaso haren ekialdeko kosta osoaz, Finlandiatik Poloniaren iparraldeko mugaraino, garai hartan Rigatik milia gutxitara igarotzen zena. Baina mendea bukatu berri zela Pedro Handiak erantzun egin zion Mendebaldeko presio honi K.o. 1703an, suediarrei birkonkistaturiko lurraldean, Petersburgo fundatuz eta Baltikoko uretan Errusiako itsas armada baten bandera zabalduz, Mendebaldeko estiloan.

Mendebaldeko munduan barbaro kontinentalen aurka

Geure Mendebaldeko Zibilizazioaren historiara igarotzen garenean, hasieran, eta ez naturaren kontra, kanpoko presiorik handiena ekialdeko, edo lehorreko, mugan sentitu zela aurkitzen dugu,

Erdialdeko Europako barbaroen aurka. Muga hau arrakastaz defenditzeaz gain, atzera ere eragin zioten etengabe barbaroak agertokitik desagertu ziren arte. Geroztik gure Mendebaldeko Zibilizazioak ekialdeko mugetan ez zituen jada barbaroak izan, zibilizazio lehiakideak baizik. Orain guri ardura zaiguna zera da, mugako presioaren ondorio estimulagarrien adibideak ateratzea historia-aldi honen lehen zatitik bakarrik.

Mendebaldeko historiaren lehen fasean, barbaro kontinentalen presioaren eragin estimulagarria gizarte-egitura berri baten sorreran azaldu zen, artean erdibarroa zen frankoen printzerrian. Merovingioen erregimena, non gorpuztu baitzen hasieran frankoen printzerria, erromatar iraganera begira egon zen, baina ondorengo karolinjioen erregimenak etorkizunera begiratu zuen; zeren eta, bide batez, Erromatar Inperioaren espirituari dei egin bazion ere, bizidunei beren zeregina betetzen laguntzeko bakarrik deitzen zitzaion espirituari —«*Debout les morts!*» oihuaren espirituan—. Eta frankoen agintepeko zein aldetan ordezkatu zituzten karolinjio bizi eta positiboek merovingio erori eta *fainéant*-ak? Ez barrualdean, mugan baizik; ez Neustrian (gutxi gorabehera Ipar Frantziari dagokiona), antzinako erromatar kulturak emankorturiko eta barbaroen sarraldietatik babesturiko lurrian, baizik eta Austrasian (Renanian), erromatarren muga zeharkatzen zuen eta Ipar Europako oihaneko saxoniarren eta eurasiar estepako abaroen etengabeko erasoen mende zegoen lurraldean. Kanpoko presio honen estimuluaren neurria Karlomagnoren lorpenek ematen dute, haren hemezortzi kanpaina saxoniarrek, abaroen deuseztatzeak eta «Karolinjiar Errenazimentuak», kultur eta adimen-kemenaren lehen adierazpenetako bat gure Mendebaldeko munduan.

Presioaren estimuluaren aurrean austrasiar erreakzio honen ondoren erorikoa etorri zen berriro. Hortaz, horren ondoren saxoniar erreakzioa aurkitzen dugu, bi mende igaro baino lehen Oton I.aren ibilketan burutu zena. Karlomagnoren ibilketaren arrakasta iraunkorra, saxoniar barbaroen agindupeko lurrak Mendebaldeko Kristandadean sartzea izan zen; baina arrakasta honen beronen bidez prestatu zuen muga lekuz aldatzeko bidea, eta honekin estimulua ere bai, bere Austrasia garaitetik Saxonia konkistatura. Karlomagnoren garaian Austrasian eragin zuen erreakzio berbera eragin zuen Otonen

garaian estimulu berberak Saxonian. Otonek vendoak suntsitu zituen, Karlomagnok saxoniarrek suntsitu zituen bezala, eta gero Mendebaldeko Kristandadearen mugak etengabe bultzatu zituzten ekialderantzago.

Hamahirugarren eta hamalagarren mendeetan, geratzen ziren azken barbaro kontinentalak mendebaldar bihurtzeko eginkizuna ez zen jadanik herentziazko monarken zuzendaritzapean egin —zeinek, Karlomagnok eta Otonek bezala, titulu erromatar inperiala hartu baitzuten— baizik eta bi erakunde berriren bidez: hiri-estatua eta ordena monastiko militarra. Hansako hiriek eta zaldun teutonikoek, bien artean, aurreratu egin zituzten Mendebaldeko Kristandadearen mugak Oderretik Dvinaraino. Hau izan zen azken eraso hainbat mendetako gatazkan; zeren eta hamalagarren mendea bukatu baino lehen barbaro kontinentalak, segidako hiru zibilizazioen —Minoikoaren, Helenikoaren eta Mendebaldekoaren— mugetan hiru mila urtez preso egiten jardundakoak, garbitu egin baitzituzten lurberatik. K.o. 1400 inguruan Mendebaldeko Kristandadea eta Kristandade Ortodoxoa, garai batean elkarrengandik erabat bakartuak kontinentean bien arteko barbaro-taldeengatik, mugakide izatera iritsi ziren, kontinente osoan Adriatikotik Artikoraino doan lerroan zehar.

Interesgarria da ohartzea nola, aurrera egiten zuen zibilizazioaren eta atzera egiten zuen barbarotasunaren arteko muga mugigarri honetan, Oton I.ak Karlomagnoren zeregina hartu zuen garaitik iraunkorra bilakatu zen presioaren norabidea alderantzikatu ondoren, estimuluaren transferentzia progresiboa izan zen, Mendebaldeko kontrerasoak aurrera egin ahala. Adibidez, Oton I.ak vendoak menderatu ondoren Saxoniako dukerriak jasan zuen eklipsea, Karlomagnok saxoniarrek menderatu ondoren Austrasiak bi mende lehenago jasadakoa bezalakoa izan zen. Saxoniak K.o. 1024an galdu zuen hegemonia eta hirurogei urte geroago zatitu egin zen. Baina saxoniar dinastiaren ondorengo dinastia inperiala ez zen ekialderago sortu aurreratzeko ari zen muga, saxoniar dinastia karolinjioen muga ekialdera sortu zen bezala. Aitzitik, frankoen dinastia eta inperial titulua eraman zuten ondorengo dinastia guztiak —Hohenstaufen, Luxenburgo eta Habsburgo— Rhin ibaiaren adarretako batean edo bestean sortu ziren. Orain urruti zegoen mugak ez zien bere estimulua eman ondorengo dinastia inperial hauei, eta ez dugu harritu behar hamaikagarren men-

dearen azken zatitik aurrera aginte inperialak etengabe behera egin zuela aurkitzeagatik, banako enperadore batzuen bikaintasuna gorabehera, Federiko Bizargorriarena adibidez.

Hala ere, Karlomagnok berpizturiko inperioak bizirik iraun zuen —itzal baten itzala, dudarik gabe, «ez Santu, ez Erromatar, ez Inperio»— eta berriro ezinbesteko papera jokatu zuen Mendebaldeko Gizartearen bizitza politikoan. Bizitasuna berreskuratzea honi zor dio: Erdi Aroaren bukaera aldera, zenbait konponketa eta ezusteko dinastikoren ondorioz, Habsburgoko Renaniar Etxea ezarri zuten Austrian, non denbora igaro ahala muga-ardura berriak hartu baitzituen bere gain eta aldi berean hauek berekin ekarritako estimulu berriari erantzun baitzion. Gai honi ekin behar diogu orain.

Mendebaldeko munduan Otomandar Inperioaren aurka

Turkiar otomanoen eragina Mendebaldeko munduan, osmanliarren eta Hungariaren arteko ehun urteko gerrarekin hasi zen benetan, Hungariako Erdi Aroko erresuma Mohacz-eko guduan (K.o. 1526) desagertu zenean bukatu zelarik gerra. Hungaria, Joan Hunyadi eta bere seme Matias Korvinoren gidaritzapean borrokatuz, osmanliarrek ordu arte aurkitutako kontrariorik setatiena izan zen. Baina bi borrokalarien indarren arteko desberdintasuna hain handia zenez, eta Hungaria berrindarturik egon arren 1490etik aurrera Bohemiarekin batzeagatik, ahalegin hura Hungariaren indarra baino handiagoa gertatu zen. Azken emaitza Mohacz-eko gudua izan zen; eta tamaina hartako hondamendiak bakarrik sortu ahal izan zuen behar hainbat eragin psikologiko Hungariaren gerakinak Bohemia eta Austriarekin batasun estu eta iraunkorra eratzeke, 1440tik Austrian agintean egondako Habsburgo dinastiaren mende. Batasun honek ia laurehun urte iraun zuen, eta 1918an, lau mende lehenago Mohacz-en kolpe dinamikoa eman zuen otomandar potentziaren azken suntsipena gertatu zen urte berean bakarrik desegin zen.

Egia esan, Habsburgotarren danubiar monarkiaren zoriak sortu zen mementotik potentzia etsaiarenari jarraitu zion, zeinen presioak sortarazi baitzuen. Danubiar monarkiaren aro heroikoa kronologikoki bat etorri zen Mendebaldeko munduak otomandarren presioa gogorkien sentitu zuen denboraldiarekin. Aro heroiko hau 1529an otomandarrek Vienari arrakastarik gabe egin zioten lehen setioarekin eman

daiteke hasitzat, eta 1682-3an bigarren setioarekin eman bukatutzat. Bi proba nagusi hauetan, Mendebaldeko munduak otomandarren erasoari jarri zion erresistentzia etsian Austriako hiriburuak jokaturiko papera, 1914-18ko gerran alemanen erasoari frantziarrek jarritako erresistentzian Verdun-ek jokaturiko papera bezalakoxea izan zen. Vienaren bi setioak puntu erabakigarriak dira otomandarren historia militarrean. Lehenengoaren porrotak geldiarazi egin zuen otomandar konkistaren marea, Danubioko ibarrean gora igoa azken mendean, eta mapak erakusten du, askok nekez sinetsiko dutena egiaztatu gabe, Viena bide-erdi baino urrutirago dagoela Konstantinoplatik Doverreko itsasartera. Bigarren setioaren porrotaren ondoren erorialdia izan zen, eta gero jarraitu egin zuen, pausaldi eta fluktuazio guztiak gorabehera, turkiar muga 1529tik 1683ra egon zen Vienaren hego-ekialdeko inguruetatik Adrianopolisen ipar-mendebaldeko inguruetara atzeratu arte.

Hala ere, Otomandar Inperioaren galera ez zen Habsburgotarren danubiar monarkiaren irabazi bilakatu, honen aro heroikoak ez baitzuen Otomandar Inperioaren beheraldiak baino gehiago iraun. Otomandar potentziaren kolapsoak, Hego-ekialdeko Europan alorra zabalik utzi zuelarik beste indar batzuek har zezaten, aldi berean danubiar monarkia askatu zuen ordu arte estimulatu zuen presiopetik. Danubiar monarkiak beheraldian jarraitu zion potentziari, zeinen kolpeek eman baitzioten hasieran bizia, eta azkenean Otomandar Inperioaren patu bera izan zuen.

Hemeretzigarren mendean Austriar Inperioari begiratu bat ematen badiogu, garai bateko osmanliar mehatxatzailea «Europako gaixo» bilakatu zelarik, orain desabantaila bikoitza ari zela pairatzen ohartuko gara. Aro honetan ez zen jadanik mugako estatu bat; nazioz gaindiko bere antolamendua, hamaseigarren eta hamazazpigarren mendeetako otomandar erronkaren aurrean erantzun eraginkorra zela frogatua, oztopo bihurtua zen hemeretzigarren mendeko goiburu nazionalista berrientzat. Habsburgotarren monarkiak nazionalismoaren ildotik maparen berrikuspen saihestezina eragozteko ahaleginetan eman zuen bere bizialdiko azken mendea, guztiak ere porrot egitera behaturiko ahaleginak. Alemaniaren gaineko hegemoniari eta Italian lurraldea izateari uko egitearen ordainetan, monarkiak bizitzen jarraitzea lortu zuen Alemaniako Inperio berriaren eta Italiako Erresuma

berriaren ondoan. 1867ko *Ausgleich*⁴⁷ austro-hungariarra eta honen ondorio austro-poloniarra Galitzian onartzean, arrakasta izan zuen bere interesak magiar eta poloniarren nazio-interesekin identifikatzen, baita alemaniar elementuekin ere bere agindupeko lurretan. Baina ez zen, edo ezin izan zen, iritsi errumaniar, txekoslovariak eta jugoslaviarrekin ados jartzera, eta Sarajevo-ko pistola-tiroa bera mapatik ezabatze-ko seinale gertatu zen.

Azkenik, begiratu bat eman diezaiegun «gerra arteko» Austriaren eta «gerra arteko» Turkiaren jarrera kontrajarriari. 1914-18ko gerratik errepublika gisa sortu ziren biak eta garai batean biak elkarren auzoko eta lehiakide bihurtu zituzten inperiorik gabe. Baina hor bukatzen zen antzekotasuna. Austriarrak ziren galtzaileen aldeko bost herrietatik gogorkien jotakoak eta aldi berean otzanenak. Pasiboki onartu zuten ordena berria, etsipenik handienaz eta bai atsekaberik handienaz ere. Aitzitik, bost herrietatik turkiarrek bakarrik hartu zituzten armak berriro, armistiziotik urtebetera baino lehen, potentzia garaileen aurka, eta garaileek ezarri nahi izan zieten bake-itunaren erabateko berrikuspina eskatu zuten arrakastaz. Horrela jokatzean, turkiarrek beren gaztetasuna berritu eta destinoa aldatu zuten. Ez zuten jadanik borroka egiten erortzen ari zen otomandar dinastia baten mende, inperio zabar baten probintzia bat edo besteari eusteko. Beren dinastiak bertan behera utziak zituelarik, berriro ere muga-gerran ari ziren eta, Osman beraien lehen sultana bezala, bere merituegatik aukeraturiko buruzagiari jarraitzen ari ziren, eta hau ez beren sorlekuak zabalago egiteko, beraiei eusteko baizik. In Önu-ko guda-zelaia, non zertu baitzen 1919-22ko gerra greziar-turkiarraren ekintza erabakigarria, jatorrizko ondare hartan datza, azken seljuktarren lehen osmanliarrari esleitu ziona seiehun urte lehenago. Gurpilak emana zuen bira osoa.

Mendebaldeko munduan bere mendebaldeko mugetan

Bere lehen egunetan gure Mendebaldeko Gizarteak presioa sentitu zuen ez bakarrik ekialdeko muga kontinentalean, baita mendebaldeko hiru frontetan ere: «zerrenda zeltikoa» delakoaren presioa Britainiar uharteetan eta Britainian; eskandinaviar bikingoen presioa Britainiar uharteetan eta Europa kontinentalaren Atlantikoko kostan zehar; eta Zibilizazio Siriakoaren presioa, Iberiar penintsularen lehen

konkistatzaile musulmanek egina. Lehenik «zerrenda zeltikoaren» presioaz arituko gara.

Nola liteke Heptarkia delakoko printzerri barbaro primitibo eta iragankorren artean bizitzeagatik izandako borrokaren emaitza gisa gure Mendebaldeko gorputz politikoan bi estatu progresibo eta iraunkor sortzea? Ingalaterra eta Eskoziako erresumek Heptarkia ordezkatzeko prozesuari begiratzen badiogu, ohartuko gara etapa bakoitzean kanpoko presioak aurkezturiko erronkaren bati emandako erantzuna izan dela faktore erabakigarria. Eskoziako Erresumaren sorrera Northumbriako printzerri anglo-saxoniarrari piktoek eta eskotoek planteaturiko erronkaraino atzera daiteke. Eskoziako oraingo hiriburua Edwin Northumbriakoak sortu zuen (beronen izena daramalarik oraindik), Forth-eko estuarioaz harantzago zeuden piktoen aurka eta Strathclyde-ko britoiak kontra Northumbriaren muga-gotorleku izateko. Erronka piktoek eta eskotoek K.o. 954an Edinburgh konkistatu zutenean eta gero Northumbria Lothian guztia beraiei lagatzera behartu zutenean agertu zen. Lagapen honek ondorengo arazoa sortu zuen: Mendebaldeko Kristandadearen marka galdu honek, gordeko ote zuen Mendebaldeko kristau-kultura nahiz eta erregimen politikoa aldatu, ala konkistatzaile zeltikoen «Mendebalde Urruneko» kultura arrotzera makurtuko ote zen? Inola ere makurtu gabe, konkistatzaileak gatibu hartuz erantzun zion Lothianek erronkari, garai batean Grezia konkistatuak Erroma gatibu hartu zuen bezalaxe.

Lurralde konkistatuaren kulturak eskoziar erregeengan hain erakarpen handia zertu zuenez, hauek beren hiriburu bihurtu zuten Edinburgh, eta Lothian beren jaioterri izan balute bezala sentitzera eta jokatzera iritsi ziren, eta Highlands berriz beren aginterriko zati urrun eta arrotza. Ondorioz, Lothian-diko ingeles jatorriko kolonizatzaileek Eskoziaren ekialdeko kosta Moray estuariaraino kolonizatu zuten eta «Highland Line» atzera eramane zuten agintari zeltikoen babespean eta biztanleri zeltikoen kontura, hauek eskoziar erregeen jatorrizko ahaideak zirelarik. Ondorengo izen-transferentzia paradoxiko baina ezinbestekoagatik, «eskoziera» Lothianen mintzaturiko dialekto ingelesa adieraztera iritsi zen, jatorrizko eskotoek mintzaturiko dialekto gaelikoa adierazi ordez. Eskotoek eta piktoek Lothian konkistatu izanaren azken ondorioa ez zen izan Mendebaldeko Kristandadearen ipar-mendebaldeko muga Forth-etik

Tweed-era atzeraraztea, baizik eta aurreraraztea, Britainia Handiko uharte osoa hartzeraino.

Honela, «Heptarkia» ingeleseko printzerrietako baten zati konkistatua egungo Eskoziako Erresumaren gunek bilakatu zen benetan, eta ohargarria da balentria hau egin zuen Northumbriako zatia Tweed eta Forth bitarteko marka izan zela, eta ez barnekoa, Tweed eta Humber artekoa. Bidaiari ilustraturen batek hamargarren mendean Northumbria bisitatu izan balu, Lothian eskotoei eta piktoei lagatzeko bezperan, ziur aski esango zukeen Edinburghek ez zuela etorkizun handirik eta Northumbriako hiriren batek estatu «zibilizatu» baten hiriburu iraunkor bilakatu behar bazuen, York izango zela hiri hori. Ipar Britainia Handiko lautada goldagarri handienaren erdian kokatua, York izana zen jadanik erromatar probintzia baten militargunea eta Elizaren egoitza metropolitana, eta asko ez zela «Danelaw»ko eskandinaviar erresuma iragankorraren hiriburu izatera iritsia zen. Baina Danelaw-a Wessex-ko erregearen mende jarria zen 920an; ordudanik York Ingalaterrako probintzia hiri baten mailara jaitsi zen; eta gaur egun ezerk ez du gogorarazten garai batean helburu handiagoaren gai izan zela, konderri ingelesten artean Yorkshirek duen ezohiko tamainak izan ezik.

Humber-en hegoaldean zeuden printzerri heptarkikoetatik, zeinek hartuko zuen gidaritza eta gero Ingalaterrako Erresumaren gunek bihurtu? Konturatzen gara kristau-aroa zortzigarren menderako lehiakide nagusiak ez zirela kontinentetik hurbilen zeuden printzerriak, Mertzia eta Wessex baizik, biak Gales eta Kornualleseko zelta menderagaitzengandiko muga-estimuluaren eraginpean egonak zirelarik. Halaber, borroka honen lehen erasoan, Mertzia buru jarri zela konturatzen gara. Mertiako Offa erregeak Wessexeko edozein errege bano botere handiagoa zuen bere garaian, zeren eta Galesen presioa Mertiaren gain indartsuagoa baitzen Kornuallesek Wessexen gain egiten zuena baino. «Mendebaldeko galestarrek» Kornuallesen zertutako erresistentziak Arturoren kondairan oihartzun ahaztezina utzi arren, badirudi erresistentzia hori erraz samar menderatu zutela mendebaldeko saxoniarrek. Bestalde, Mertiak jasan zuen presioaren gogortasuna, filologikoki Mertzia izenak berak baieztan du («marka» *par excellence*) eta arkeologikoki Dee-ren estuariotik Severn-en estuarioraino doan lubeta handiaren aztarnek, Offa-ren Dikea duelarik

izena. Etapa hartan bazirudien etorkizuna ez zegoela Wessexekin Mertziairekin baizik. Bederatzigarren mendean, ordea, «zerrenda zeltikoaren» erronkari Eskandinaviako erronka berri eta askoz handiagoak gain hartu zionean, itxaropen horiek gezurtatuta gelditu ziren. Oraingoan Mertziaak huts egin zuen erantzunean; Wessexek, berriz, Alfredoren gidaritzapean arrakastaz erantzun zuen eta horregatik Ingalaterrako Erresuma historikoaren gun e bilakatu zen.

Mendebaldeko Kristandadearen itsasertz ozeanikoetan eskandinaviarrek egindako presioaren ondorio izan zen ez bakarrik Heptarkiatik abiatuz Ingalaterrako Erresuma Cerdic-en Etxearen agintepean batzea, baita Frantziako Erresumaren eraketa ere Kapetarren Etxearen agintepean, Karlomagnoren inperioaren mendebaldeko zatiaren puska abandonatuetatik abiatuz. Presio honen aurrean Ingalaterrak bere hiriburua ez zuen Winchesterren aurkitu — Wessexeko aurreko hiriburua, mendebaldeko galestarren irispid ean baina eskandinaviarren arriskutik urruti samar zegoena—, Londresen baizik, honek hartu baitzuen bere gain zatirik okerre na, baita agian gudu luzeari norabide erabakigarria eman ere K.o. 895ean, Tamesin gora igotzeko daniar armadaren ahalegina eragotzi zuenean. Antzeratsu, Frantziak ez zuen bere hiriburua Laon —azken karolinjioen egoitza izandako hiria— aurkitu, Parisen baizik, hau borrokarako prest egon zelarik lehen kapetar erregearen aitaren agintepean eta bikingoak ere geldiarazi zituelarik Senan gora igotzerakoan.

Honela Eskandinaviatik etorritako itsas erronkari Mendebaldeko Kristandadeak emandako erantzunak Ingalaterra eta Frantziako erresuma berriak sortarazi zituen. Gainera, lehiakide hauek menderatzeko prozesuan, Frantzia eta Ingalaterrako herriek sistema feudalaren tresna militar eta sozial ahaltsua asmatu zuten, eta ingelesak adierazpide artistikoa ere eman zion beren probaren esperientzia emozionalari poesia epikoaren eztanda berri batean; haren zati bat gorde da *The Lay of the Battle of Maldon* delakoan (Maldon-eko Guduaren Kantua).

Ohartu behar dugu, halaber, Frantziak Normandian ingelesek Lothian-en lorturikoa errepikatu zuela, Normandiako eskandinaviar konkistatzaileak irabazi baitzituen konkistatuen zibilizazioan errekluta izateko. Rollonek eta bere lagunek Karlos Tentela karolinjioarekin Frantziako itsasertz atlantikoan ezarleku iraunkorra ziurtatu zien

hitzarmena egin (K.o. 912) eta mende bat baino geroxeago, haien ondorengoak Mendebaldeko Kristandadearen mugak zabaltzen ari ziren Mediterraneoan Kristandade Ortodoxoaren eta Islamaren kontura, eta Mendebaldeko Kristandadearen erabateko argitasuna —orduan Frantzian dir-dir egiten zuen bezala— zabaltzen ari ziren Ingalaterra eta Eskoziako uharte-erresumetara, ordu arte erditzalean egonak. Fisiologikoki, normandiarrek Ingalaterra konkistatzea bikingo barba-roek aurrez zapuztuta ikusi zituzten gurari bizien azken lorpenzat har daiteke, baina kulturalki horrelako interpretazioa zentzugabekeria hutsa da. Normandiarrek Mendebaldeko Kristandadearen legea Ingalaterran ez suntsitzera baizik eta betetzera etorritzat arbuia zuten beren eskandinaviar iraganaldi paganoa. Hastings-eko zelaian, Taillefer normandiar gerrari-koblakaria kantuz sartu zenean guduan normandiar zaldunen buru, haren ezpainetako hizkuntza ez zen norvegiera, frantsesa baizik, eta kontatzen ari zen istorioa ez zen Sigurd-en saga, *Chanson de Roland* baizik. Mendebaldeko Kristau Zibilizazioak honela liluratu zituenean bere agintepeko lurren eskandinaviar konkistatzaileak, ez da harritzekoa bere garaipenaren gain zigilua jartzeko gai izatea Eskandinaviar Zibilizazio abortatua Eskandinavian bertan ordeztuz. Itzuliko gara gai honetara geroago, zibilizazio «abortatuen» zerrenda egiten dugunean azterketa konparatiboa egiteko.

Azkenerako utzi dugu muga-presioa, denbora aldetik lehenengo izan zena, intentsitatean beste guztiak gainditu zituena eta bere indarrean ikaragarria zirudiena, gure zibilizazioak sehaskan agertzen zuen indar ñimiñoaren kontra neurtuta; egia esan, Gibbon-en iritziz, gure Mendebaldeko Zibilizazioa zibilizazio abortatuen zerrendara bidaltzeko zorian egon zen⁴⁸. Mendebaldeko zibilizazio jaio berriaren aurkako arabiar eraso bortitza gorabehera bat izan zen azken erreakzio siriakoan, bere eremuan izandako sarraldi heleniko luzearen aurka; zeren eta arabiarrek, Islamaren indarraldian beren zereginari heldu ziotenean, ez zuten atsedetik hartu Gizarte Siriakoarentzat berreskuratu arte bere agindupeko lur izandako guzti-guztiak hedadurarik zabalenean. Estatu unibertsal siriakoa —hasieran akemenestarrren pertsiar inperioan gorpuztu zena— arabiar inperio gisa berreraikitzearekin konformatu gabe, Kartago, antzina feniziarren agindupeko lurraldea, berriro konkistatzeari ekin zioten Afrika eta Espainian.

Azken norabide honetan, K.o. 713an, Hamilkar eta Hanibalen urratsei jarraituz, Gibraltarko itsasarte ez ezik, Pirinioak ere zeharkatu zituzten; eta gero, Rodano eta Alpeen gainetik Hanibalek egindako ibilaldia berdindu ez zuten arren, Hanibalek sekula zapaldu gabeko lurretan ibili ziren armak Loiraraino eramane zituztenean.

Tours-eko guduan K.o. 732an Karlomagnoaren aitona agindupean frankoek arabiarrek menderatzea izan da ziur aski historiako gertakari erabakigarrietako bat; zeren eta presio siriakoaren aurrean Mendebaldearen erreakzioa, hain agertu zena, indarrean jarraitu eta intentsitatez areagotu baitzen fronte honetan, eta zazpi edo zortzi mende geroago haren oldarrak Mendebaldeko Kristandadearen portugaldar abangoardia Iberiar penintsulatik kanpo eramane zuen itsasoan aurrera Afrika inguratu eta Goa, Malaka eta Makaoraino, eta gaztelau abangoardia Atlantikoan zehar eramane zuen Mexikoraino eta Ozeano Barean zehar Manilaraino. Iberiar aitzindari hauek zerbitzu paregabea egin zioten Mendebaldeko Kristandadeari. Ordezkatzen zuten gizartearen horizontea zabaldu zuten, eta horrekin agindupeko lurra ere bai potentzialki, munduko lur bizigarri eta itsaso nabigagarri guztiak hartzerantz iritsi arte. Lehen-lehenik iberiar energia honi esker hazi zen Mendebaldeko Kristandadea, parabolako ziape-hazia bezala, «Gizarte Handia» izatera iritsi arte; zuhaitz bat, zeinen adarretara etorri baitira Lurreko nazio guztiak babes hartzera.

Mairuengandiko presioaren estimuluak piztutako kristau-energia iberiar hau gertaera batek baiesten du, hots, energia hau desagertu egin zela mairuek presio egiteari utzi orduko. Hamazazpigarren mende, portugaldar eta gaztelauak beraiek sortutako mundu berrian ordeztu egin zituzten Mendebaldeko Kristandadean Pirinioz bestaldean zeuden sarkinek —holandar, ingeles eta frantsesek—, eta itsasoz bestaldeko porrot hau bat etorri zen denbora-aldeetik etxean estimulu historikoa ezabatzearekin, Penintsulan geratzen ziren «moriskoak» desagertarazi baitzituzten, sarraskitu, kanporatu edo konbertitzera behartuz.

Badirudi, beraz, iberiar marken erlazioa mairuekiko, Habsburgotarren danubiar monarkiak osmanliarrekiko izandakoaren antzekoa dela. Horietako bakoitza kementsu izan zen presioa ere handia izan zen bitartean; eta gero, presioa ahuldu orduko, horietako bakoitza —Espainia, Portugal eta Austria— lasaitzen eta gidaritzat

galtzen hasi zen Mendebaldeko munduan bertan potentzia lehiakideen artean.

5.

Zigorren estimulua

Errementari herrenak eta poetaitsuak

Organismo bizidun bat, organo edo ahalmen partikular baten erabilera galdu duelako, bere espezieko beste kide batzuen aldean zigortua gertatzen denean, gai da erronka honi erantzuteko beste organo edo ahalmenen baten erabileran espezializatuz, bigarren jarduerarlotu honetan lagunekiko abantaila lortu arte, lehenengoan duen eragozpena konpentsatzeko. Itsuak, adibidez, gai izaten dira, ikusmena dutenek normalean izaten dutena baino ukimen finagoa garatzeko. Nolabait ere antzeratsu, aurkitzen dugu —istripuz edo bere egintzaz edo bizi den gizarteko beste kide batzuen egintzaz— gizarte-gorputz batean sozialki zigorturiko talde edo klasea gai izaten dela zenbait jarduerarlotan duen eragozpenaren —edo normalean arlo horietatik kanpo egotearen— erronkari erantzuteko, eta hau bere kementa beste arlo batzuetan kontzentratuz eta hauetan nabarmenduz.

Kasurik sinpleenetik abiatzea komeni da agian: zenbait eragozpen fisikok uzkuritu egiten dituzte pertsona batzuk beren gizarteko ohiko okupazioei jarraitzeko. Gogora dezagun, adibidez, zein egoeratan aurkitzen den herren edo itsua gizarte barbaro batean, non gizonetzko arrunta, beraren beharra denean, gerraria baita. Nola erreakzionatzen du barbaro herrenak? Nahiz eta bere oinek ezin duten gerlara eramane, haren eskuek landu ditzakete armak eta armadurak lagunek eramane eta erabil ditzaten, eta berak esku-trebezia lortzen du, besteak bere mendeko bihurtuz bera besteen mendeko den bezainbatean. Mitologiaren munduan Hefesto (Vulkano) herrenaren edo Weland (Wayland Smith) herrenaren eguneroko eredu bihurtzen da hura. Eta nola erreakzionatzen du barbaro itsuak? Honen egoera okerragoa da, ezin baititu eskuak erabili sutegian; hala ere, erabil ditzake ahotsare-

kin harmonian harpa jotzeko eta erabil dezake burua berak egin ezin dituen balentriei buruz poesia egiteko, nahiz eta bigarren eskutik izan horien berri bere lagunak soldadu-ipuak zabarren bidez. Gerrari barbaroak irrikatzen duen ospe hilezkorrerako bitarteko bihurtzen da:

*Adoretsu eta indartsua heroi-enda bat
Atrides baino lehen borrokatu eta hil zen:
Ez zen Homero bizi; ez zuen kantu sakratuak
haien balentria handirik goretsi:
ilun, inoren negarrik gabe dautza, ezezagun,
gau amaigabearen lainoz estaliak;
ez zen poetarik bizi
argiz loriatzeko haien izenak⁴⁹.*

Esklabotasuna

Ez naturaren istripuz baizik eta giza eskuz ezarritako zigorretan, esklabotasuna izan da nabarien, unibertsalen eta gogorrena. Har dezagun, adibidez, Bigarren Gerra Punikoaren eta Augustoren Pakea ezarri bitarteko bi mende beldurgarri haietan Mediterraneo inguruko herrialde guztietatik esklabo gisa Italiara ekarri zuten etorkin-pilo handiaren jarduna. Etorkin esklabo haiek zelako eragozpenekin hasi zuten bizimodu berria ia imajinaezina da. Haietako batzuk Zibilizazio Helenikoaren kultur ondarearen oinordekoak ziren, eta hauek beren bizitza espiritual eta unibertso material guztia buru gainera erortzen ikusi zuten hiriak arpilatu eta eurak eta euren herrikideak esklabomerkatura eramane zituztenean. Beste batzuek, Gizarte Helenikoaren ekialdeko «barne-proletar gotik» zetozenek, jadanik galdua zuten beren gizarte-ondarea, baina ez esklabotasunak sortzen duen atseka-bezko sufrimendu pertsonalerako gaitasuna. Bazen Grezian esaera zahar bat: «esklabotasun-egunak gizatasunaren erdia kentzen dio gizakiari», eta esaera hau beldurgarriro bete zen Erroman esklabo bihurturiko hiri-proletar goaren degradazioan, ez baitzen ogiz bakarrik bizi «ogiz eta ikuskizunez» (*panem et circenses*) baizik K.a. bigarren mendetik K.o. seigarrenera bitartean, haragi-eltzeek huts egin eta jendea Lur gainetik desagertu zen arte. Bizirik hiltze amaiezin hau esklabotasunaren erronkari erantzuten huts egin izanaren zigorra zen, eta zalantzarik gabe suntsipenaren bide zabala jatorri eta aurrekari desberdin askotako gizaki haiek gehienek egin zuten, historia helenikoa-

ren garairik gaiztoenean *en masse* esklabo bihurtu zituzten eta. Hala ere, batzuek erantzun zioten erronkari eta «onik atera» ziren, era bate-ra edo bestera.

Batzuek nagusien zerbitzuan egin zuten gora eta jabetza handien ardurako administratzaile bilakatu ziren; eta Zesarren ondarea bera, mundu helenikoaren estatu unibertsal bihurtu zenean, Zesarren libertoek jarraitu zuten administratzen. Beste batzuek, nagusiek negozio txikitari jarriek, nagusiak gordetzen utzitako aurrezki bidez eskuratu zuten askatasuna, eta azkenean oparotasun eta ospera iritsi ziren Erromako negozio-munduan. Beste batzuek esklabo izaten jarraitu zuten mundu honetan errege filosofo edo Elizako Guraso izateko beste batean, eta jaiotzaz benetako erromatarrak, Nartzisoren legez kontrako aginpidea edo Trimalzion-en *nouveau-riche* itxurakeria arrazoiz mespretxa zezakeenak, atseginez ohoratuko zukeen Epikteto esklabo herrenaren jakinduria barea, eta aldi berean ezin miresteari utzi esklabo- eta liberto-pilo izengabearen gogo-berotasuna, hauen fedea mendiak mugiarazten baitzituen. Bigarren Gerra Punikoaren eta Konstantinoren konbertsioaren arteko bost mendeetan, Erromako agintariek jopu-fedearen mirari hau beren begi aurrean ikusi zuten gertatzen eta errepikatzen —indar fisikoaren bidez geldiarazteko haien ahaleginak gutxietsiz—, azkenean beraiek ere hartara makurtu ziren arte. Zeren eta etorkin esklaboek, beren etxe eta familia eta jabetzak galdu zituztenek, artean eusten baitzioten beren erlijioari. Greziarrek bakanalak ekarri zituzten, anatoliarrek Zibelesen gurtza («efesioarren Diana», hititar jainkosa, sortu zuen gizartea baino askoz luzeago bizi izan zena), egiptoarrek Isisen gurtza ekarri zuten, babiloniarrek izarren gurtza, iranianek Mitraren gurtza, eta siriarrak kristautasuna. «Siriako Orontesek Tiberrera isuri ditu bere urak», idatzi zuen Juvenal-ek kristau-aroko bigarren mendean; eta ur hauen bateratzeak arazo bat sortarazi zuen, esklaboak nagusiari zion mendetasunaren mugak erakutsi zituena.

Arazoa zen ea barne-proletalgoaren erlijio etorkinak hondatu ote zezakeen Gizarte Helenikoko gutxiengo menderatzailearen berta-ko erlijioa. Behin urek bat egin ondoren, ezinezkoa zen ez nahastea; eta, behin nahastu ondoren, zalantza gutxi zegoen zein korronte nagusituko zen naturari ez bazitzaion aurka egiten artez edo indarrez. Zeren eta mundu helenikoko jainko babesleak jadanik erretiratuta bai-

tzeuden garai batean beren gurtzaileekin bizi izandako elkartasun bizi-emaile estutik, eta bitartean proletalgoaren jainkoek frogaturik baitzuten «babes eta indar, arazoaldian benetako laguntza» zirela beren gurtzaileentzat. Aukera hauen aurrean, Erromako agintariak bi iritziren artean egon ziren bost mendez: erasoari ekin behar ote zioten atzerriko erlijioen aurka ala beren bihotzetan hartuko ote zituzten? Jainko berrietako bakoitzak Erromako gobernari-klasearen zati bat erakartzen zuen: Mitrak soldaduak, Isisek emakumeak, zeruko argizagiek intelektualak, Dionisosek filoheleniarrak eta Zibelesk fetitxegurtzaileak. K.a. 205. urtean, Bigarren Gerra Punikoaren krisian, Erromako senatua bost mende baino geroago Konstantinok kristautasunari egingo zion harrerari aurreratu zitzaion, eta ohore ofizialen artean hartu zuen zerutik eroritako harri edo meteoritoa eta Zibeles jainkosari egotzia, talismana bailitzan Anatoliako Pessinus-etik ekarria. Hogei urte geroago Dioklezianoren kristau-jazarpenari aurreratu zitzaion bakanal helenikoak ezabatuz. Jainkoen gudu amaiezina, esklabo etorkinen eta erromatar nagusien arteko borroka lurtarraren ordezkoa izan zen; eta borroka bikoitz honetan esklaboek eta esklaboen jainkoek irabazi zuten.

Zigorren estimulua arraza-diskriminazioak ere argitzen du Hindu Gizartearen kasta-sistemak adierazten duen bezala. Hemen arraza edo kastak ikusten ditugu, ogibide edo bizibide batetik baztertuak, beste batean arrakasta dutenak. Ipar Amerika modernoko esklabo etorkin beltza, ordea, arraza-diskriminazioaren eta legezko joputzaren zigor bikoitzaren mende egon da, eta gaur egun, eragozpen horietako bigarrena kendu eta laurogei urte geroago, lehena inoiz bezain astuna da koloreko libertoaren gainean. Ez dago hemen luzatu beharrik gure Mendebaldeko munduko —Europa eta Amerikako— esklabo-merkatariek eta esklabo-jabeek arraza beltzari eragindako kalte ikaragarriaz; guk zera ohartu behar dugu —eta paralelismo helenikoaz egindako azterketaren ondoren harridurarik gabe, gainera—: amerikar beltzak itxura guztien arabera, iraunkorki eta era nabarrian, balantza bere kontra okertuta aurkitzean mundu honetan, beste mundu baterantz jo duela kontsolamendu bila.

Badirudi beltzak erantzun erlijiosoa ematen diola gure erronka ikaragarriari, eta, atzerantz begiratuta, konparagarria izan daiteke antzinako erromatar nagusiengandiko erronkari antzina Ekialdean

emandako erantzunarekin. Egia esateko, beltzak ez zuen Afrikatik arbasoen erlijio propiorik ekarri Amerikako herrikide zurien bihotzak lilurtzeko. Haren gizarte-ondare primitiboak hain egitura ahula zenez, gure Mendebaldeko Zibilizazioaren eraginarekin haizetara barreiatu zen, zati gutxi batzuk izan ezik. Honela, espiritualki nahiz fisikoki biluzik iritsi zen Amerika; eta larrialdiaren aurrean ugazabak bazterturiko arropaz estali du biluztasuna. Beltza kristautasunean jatorrizko zenbait esanahi eta balore —Mendebaldeko Kristandadeak luzaroan bazter utziak— berraurkituz egokitu da gizarte-ingurune berrira. Berri Onari espiritu xume eta sentibera zabalduz, Jesus profeta izan zela aurkitu du, mundura etorria ez ahaltsuak beren aulkietan sendotzeko, apala eta otzana goratzeko baizik. Siriako esklabo etorkinek, garai batean kristautasuna erromatar Italiara ekarri zutenek, dagoeneko hilda zegoen erlijio zaharraren ordeztatik bizirik zegoen erlijio berri bat ezartzeko miraria egin zuten. Baliteke esklabo beltz etorkinek, Amerikan kristautasuna aurkitu dutenek, hildakoa biziarazteko mirari handiagoa egin ahal izatea. Beren haur-intuizio espiritualarekin eta emoziozko erlijio-esperientziari bat-bateko adierazpide estetikoak emateko duten jeinuarekin, agian gai izango dira guk beraiei transmituriko kristautasunaren errauts hotz grisak pizteko, beraien bihotzetan jainko-suak berriro dir-dir egin arte. Honela gerta liteke agian kristautasuna bigarren aldiz izatea hiltzazko zibilizazio baten fede bizia. Mirari hau Amerikako eliza beltz batek zertuko balu, gizarte-zigorren erronkari inoiz gizakiak eman dion erantzunik dinamikoena izango litzateke.

Fanariotak, kazanliarrak eta levantetarrak

Komunitate bakar eta bestalde homogeneo baten barnean gutxiengo erlijiosoen gizarte-zigorra hain gertaera ezaguna denez, nekez behar du argibiderik. Mundu guztia jabeturik dago hamazazpigarren mendeko puritano ingelesek horrelako erronkari eman zioten erantzun kementsuaz; nola, sorlekuan gelditu zirenek, lehenengo Komunaren ganbaraz eta gero Cromwell-en Ironside-ez baliatuz, aldatu zuten barrutik kanpora Konstituzio ingelesa, gobernu parlamentarioaz egin genuen esperimentuari behin betiko arrakasta ziurtatuz, eta nola itsasoak zeharkatu zituztenek ezarri zituzten Estatu Batuen oinarriak. Interesgarriagoa da aztertzea hain ezagunak ez diren adibideak, non denominazio pribilegiatu eta zigortuak zibilizazio desberdinetakoak

baitziren, nahiz eta gorputz politiko berean sarturik egon, alderdi nagusiak zerturiko *force majeure* bidez.

Otomandar Inperioan Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusiari fede eta kultura atzerritarra sartzaileek eman zioten estatu unibertsala, Gizarte Kristau Ortodoxoa bere kabuz ezartzeko gai izan ez zena; eta kristau ortodoxoek etxean nagusi izateari utziz ordaindu behar izan zuten beren gizarte-egzaitasuna. Konkistatzaile musulmanek, mundu kristau ortodoxoan *Pax Ottomanica* ezarri eta iraunarazten zutenek, ordainketa eskatu zuten erlijio-diskriminazioaren forman, beren mendeko kristauei ematen zieten zerbitzu politikoagatik; eta hemen, beste edonon bezala, zigorturiko denominazioaren jarraitzaileek mugaturik zeuzkaten jardueretako lanetan aditu bihurtuz erantzun zuten.

Otomandar Inperio zaharrean osmanliar ez zen inork ezin zuen gobernatu edo armarik eraman, eta Inperioko zati handitan lurraren jabetza eta lanketa ere mendeko kristauengandik ugazaba musulmanen eskuetara aldatu ziren. Baldintza hauetan herri kristau ortodoxoak — beren historian lehen eta azken aldiz— elkar ulertzera iritsi ziren, aitortu gabe eta agian ohartuki horretarako asmorik gabe, baina ez, hala ere, eraginkortasun txikiagoz. Orain ezin ziren ibili anaiarteko gerraren denborapasa gogokoenean, ezta lanbide liberaletan sartu ere; beraz, isilean ogibiderik apalenak banatu zituzten beren artean, eta merkatari gisa pixkanaka berriro jarri zuten hanka hiriburu inperialaren harresi barruan, handik Mehmet Konkistatzaileak berariaz eta saldoan kanporatu ondoren. Rumeliako goi-lurretako valakiarrak hirietan ezarri ziren jaki-hornitzaile gisa; uhartedian grezieraz eta Anatoliako Karaman itxian turkieraz mintzo ziren greziarrak maila handiagoko negozioetan hasi ziren; albaniarak igeltsero bilakatu ziren; montenegroarrak zamaketari eta mezulari; bulgariar bukolikoek ere aurkitu zuten bizibidea aldirian, mandazain eta ortuzain-lanak egiten.

Berriro Konstantinopla hartua zuten kristau ortodoxoen artean bazen greziar talde bat, fanariotak deitua, zigorraren erronkak hainbestearinoxe estimulatua, ezen Inperioaren administrazioan eta kontrolean osmanliarren euren benetako partaide eta ordezkotziaz izateraino gora egin zutenak. Fanar-a, handik hartu zuen izena goranahiko famili talde greziar honek, Istanbulen ipar-mendebaldeko izkina zen, otomandar gobernuak hiriburuan bizi ziren mendeko

kristau ortodoxoen esku utzia, ghetto bezala. Hara joan zen patriarka ekumenikoa Santa Sofiako eliza meskita bihurtu ondoren, eta itxuraz etorkizun handirik gabeko erretiratze honetan patriarkatza bihurtu zen merkataritzan arrakasta izandako greziar kristau ortodoxoen bilgune eta tresna. Fanariota hauek bi lorpen berezi zertu zituzten. Eskala handiko merkataria gisa, merkataritza-harremanetan jarri ziren Mendebaldeko munduarekin eta Mendebaldeko manera, ohitura eta hizkuntzak ikasi zituzten. Patriarkatzako negozioen kudeatzailerak gisa, otomandar administrazioaren praktika zabala eta ulerkuntza sakona lortu zituzten, zeren eta, otomandar sistema zaharraren mende, patriarka baitzen bitartekari politiko ofiziala otomandar gobernuaren eta edozein hizkuntza eta probintzian mendeko zituen kristau ortodoxoen artean. Bi lorpen hauek izan ziren fanarioten zoriona, Otomandar Inperioaren eta Mendebaldeko munduaren artean hainbat mendetako gatazkan marea argi eta garbi osmanliarren aurka bihurtu zenean, K.o. 1682-3an Vienako bigarren setio arrakastak gabearen ondoren.

Zori militarrean izandako aldaketa honek arazo ikaragarriak sartu zituen otomandarren estatu-arazoetan. 1683ko ezbeharraren aurretik, osmanliarrak gai izan ziren beti Mendebaldeko potentziekiko harremanak indarraren erabilera hutsez ezartzeko. Beherakada militarra bi arazo berriren aurrean jarri zituen. Orain konferentzi mahaiaren negoziatu behar zuten Mendebaldeko potentziekin, ezin baitzituzten gudu-zelaian menderatu, eta kontuan hartu behar zituzten beren mendeko kristauen sentimenduak, jadanik ez baitzuten ziurtasunik hauei mendean eusteko. Beste era batera esanda, jadanik ezin zuten jardun diplomazialari eta administratzaile treberik gabe; eta beharrezko esperimentuak, osmanliarrek eurek ez zutena, mendekoen artean fanariotek bakarrik zuten. Ondorioz, osmanliarrak behartuta zeuden aurrerakariak ahaztu eta beren erregimenaren printzipioak aldatzera, une aproposan gai ziren fanariotei goiko lau estatu-karguren monopolioa emateko, Otomandar Inperioaren egoera politiko berrian postu erabakigarriak zirenak. Honela kristau-aroko hemezortzigarren mendean fanarioten botere politikoa etengabe areagotu zen, eta ematen zuen Mendebaldeko presioaren emaitza izan zitekeela Inperioa gobernari-klase berri batez hornitzea, arraza eta erlijio-zigorra hainbat mendetan jasandako biktimen artetik ateratako klaseaz, alegia.

Azkenean fanariotek huts egin zuten beren «helburu nabaria» lortzen, zeren eta, hemezortzigarren mendearen bukaera aldera, Mendebaldeko presioa otomandarren gizarte-gorputzean hain indar handikoa zenez, honek izaerak bat-bateko eraldaketa jasan baitzuen. Greziarrak, Mendebaldearekin harreman estuan sartzen Otomandar Inperioaren mendekoetako lehenak izan zirelarik, nazionalismoaren Mendebaldeko birus berriaz kutsatzen ere lehenak izan ziren, Frantziako Iraultzaren shock-aren ondorengo efektu bat, hain zuzen. Frantziako Iraultzaren hasieraren eta greziarren independentzi gerraren artean, greziarrak bi gurari bateraezinen eraginpean egon ziren. Ez zuten baztertua fanarioten nahia osmanliarren ondare osoaren jabe izateko eta Otomandar Inperioari bere hartan eusteko, «jarduneko enpresa» bezala greziarrek kudeatuta; eta aldi berean beren nazio-estatu independente subiranoa ezartzeko nahia izan zuten, hots, greziarra izango zen Grezia, Frantzia frantsesa zen bezala. Bi gurari hauen bateraezintasuna argi eta garbi geratu zen 1821ean, biak aldi berean gauzatzen saiatu zirenean greziarrak.

Otomandar Inperioaz jabetzeko Ypsilantis printze fanariotak Errusiako basetik Pruth zeharkatu zuenean eta Grezia independentea ezartzeko asmoz Pedro Bey Mauromikalis buruzagi maniota Morean zuen mendi-gotorlekutik jaitsi zenean, emaitza aurrez jakina zen konklusioa izan zen. Armetara jotzeak fanarioten gurarien hondamendia ekarri zuen. Mende bat baino luzaroago osmanliarrek euskarritzat izan zuten kanaberak eskua zulatu zien, eta traizio honek sortarazitako amorruak euskarri traidorea puska-puska egitera bultzatu zituen eta kosta ahala kosta beren hanka gainean egotera. Hypsilanti printzearen gerra-ekintzari osmanliarrek emandako erantzuna zera izan zen: fanariotak 1683tik bake-bakean berentzat eraikitzen ari ziren botere-egitura kolpe batean suntsitzea; eta hau izan zen lehen urratsa gertatzen zen otomandar ondaretik turkiarrak ez ziren elementu guztiak erauzteko; prozesu hau 1922an iritsi zen gailurrera gutxiengo kristau ortodoxoa Anatoliatik kanporatu zutenean. Egia esan, greziar nazionalismoaren lehen eztandak turkiar baliokidearen lehen txinparta piztu zuen.

Honela, azken finean, fanariotek huts egin zuten Otomandar Inperioan «partaidetza nagusia» lortzen, beraiei zegokiela ematen zuen arren. Hala ere, arrakastatik oso hurbil egon izanak zigorraren

erronkari zein kementsu erantzun zioten erakusten du. Izan ere, haiek osmanliarrekin izandako harremanen historiak ezin hobeto argitzen du erronka-eta-erantzunaren gizarte-«legea»; eta greziarren eta turkiarren arteko antitesia, hainbeste interes sortu eta hainbeste eztabaida eragin duena, honela bakarrik azal daiteke eta ez bi aldeetako herrieztabaidetan modan egon den arraza- eta erlijio-terminoetan. Turkofiloak eta grekofiloak bat datoz greziar kristauen eta turkiar musulmanen arteko ethosari buruzko desberdintasun historikoak arraza-nolakotasun erauztezin edo erlijio-marka ezabaezinen bati egoztean. Desadostasun bakarra, bi kasuetan faktore ezezagun hauei esleitzen dizkieten gizarte-baloreak alderantzikatzean dute. Grekofiloak berezko bertutea egozten dio greziar odolari eta kristautasun ortodoxoari, eta berezko bizioa turkiar odolari eta Islamari. Turkofiloak alderantzikatu egiten ditu bizioa eta bertutea. Benetan, ordea, bi ikuspegi hauen azpian datzan uste komunaren kontra mintzo dira gertaera ukaezinak.

Ukaezina da, adibidez, arraza fisikoari dagokionez, Erdialdeko Asian Ertogrul-en jarraitzaile turkiarren odola, turkiar modernoaren zainetan dabilena, tindatze infinitesimala baino ez dela. Herri turkiar otomandarra nazio bilakatu da biztanleria kristau ortodoxoa asimilatuz, honen erdian bizi izan direlarik osmanliarrak azken sei mendeetan. Arraza aldetik oso gutxi dago orain bi herrien artean bereizteko.

Honek nahikoa gezurtatzen badu ere greko-turkiar antitesia *a priori*-zko arraza-azalpena, *a priori*-zko erlijio-azalpena ere gezurta genezake beste herri turkiar musulman bati begiratu bat emanez: hau oraindik bizi da, eta luzaroan bizi izan da, ez otomandar turkiarren antzeko egoeran, baizik eta osmanliarren mendeko izan ziren greziar ortodoxoen antzeko egoeran. Volgan bada komunitate turkiar musulman bat, kazanliarrak deitua, zenbait mendez Errusiako gobernu kristau ortodoxoaren mende egona eta erregimen atzerritar honen mende arraza- eta erlijio-zigor ia berdina jasan dituen, osmanliarrek kristau ortodoxoei ezarritakoak bezalakoeak. Eta zer-nolako herri dira kazanliar hauek? Zera irakurtzen dugu:

«Beren neurritasun, zintzotasun, aurrezki eta lanerako gogoetatik bereizten dira... Kazanliar turkiarraren lanbide nagusia merkataritza da... Bere industria nagusia xaboigintza, ehungintza eta irutea da... Oskigile eta gurdizain ona da... Hamaseigarren mendearen

bukaera arte ez zen meskitarik onartu Kazanen eta tatariarrek aparteko auzunean bizitzera behartu zituzten, baina musulmanen nagusitasuna ezarri egin zen pixkanaka»⁵⁰.

Funtsean, tsarren garaian errusiarrek zigorturiko turkiarren deskribapen hau izan liteke Otomandar Inperioaren gorenaldian turkiarrek zigorturiko kristau ortodoxoen deskribapena. Erlijioagatik zigortuak izatearen esperientzia komuna faktore nagusia izan da bi komunitateon garapenean; eta mendeetan zehar esperientzia komun honen aurrean izan duten erreakzio berdin-berdinak «famili antzekotasuna» sortu du beraiengan, kristautasun ortodoxoaren eta Islamaren jatorrizko marken desberdintasuna asko ezabatu duena.

«Famili antzekotasun» honetan partaide dira beste zenbait erlijio-denominaziori atxikiak ere, beren erlijio-sineskizunengatik zigortuak izan direnak eta era berean erantzun dutenak: adibidez, «levantetar» katoliko erromatarrek Otomandar Inperio zaharraren barruan. Levantetarrek, fanariotek bezala, ihes egin ziezaioketen zigorrari beren erlijioa baztertu eta nagusia onartuz. Hala ere, gutxi jarraitu zioten bide honi; horren ordez, fanariotek bezala, edonola ezarritako ezgaikuntzak zabalik uzten zizkien aukera mugatuak aprobetxatzeari ekin zioten, eta horrela jokatzeari bitxia baina oso erakargarria ez den konbinazioa erakutsi zuten: izaera gogorra eta manera adeitsuak, egoera berezi honetan jarritako gizarte-talde guztien ezaugarri dirudiena. Ez zuen batere desberdintasunik ekarri levantetarrek fisikoki Mendebaldeko Kristandadeko herririk gerrarien eta larderiatsuen eta espiritus jasoenetako batetik etorri zitezkeelakoak: Erdi Aroko veneziar eta genoarrak edo frantziar, holandar eta ingeles modernoak. Beren otomandar ghetto giro itogarrian hainbat jatorritako biktimalagunen erantzun berbera eman behar diote erlijio-zigorraren erronkari, edo bestela desagertu.

Beren agintealdiko lehen mendeetan osmanliarrek, Mendebaldeko Kristandadeko herriak —frankoak deitzen zituztenak— levantear ordezkariei bidez bakarrik ezagutzen zituztelarik, uste izan zuten Mendebaldeko Europan bizi ziren guztiak «legerik gabeko enda kaskarragoak» zirela. Esperientzia zabalagoak iritzi hori berrikustera eramanez, eta osmanliarrek bereizketa zorrotza egin zuten «ur gezatako frankoen» eta izenkide ziren «ur gazitako frankoen» artean. «Ur gezatako frankoak» Turkian levantetar giroan jaio eta haziak, eta

levantetar izaera garatuz erantzun zutenak ziren. «Ur gazitako frankoak» etxean frankoen lurraldean jaio eta haziak ziren eta Turkiara heltzaroan, beren izaera jadanik eratua zutela, iritsiak. Turkiarrak txundituta gelditu ziren ohartzean beti beraien ingurunean bizi izandako «ur gezatako frankoengandik» bereizten zituen leize psikologiko handia ez zela agertzen itsasoz bestaldeko frankoekin harremanetan jardun behar zutenean. Geografikoki auzoko eta herrikide zituzten frankoak psikologikoki arrotz gertatzen zitzaizkien bitartean, urrutiko herrialde batetik etorritako frankoak beraien antzeko grinak zeuzkan jendea iruditzen zitzaien. Baina azalpena oso erraza zen benetan. Turkiarrek eta ur gazitako frankoek beraien gizarte-sustraietan antzekotasun handia zegoelako ulertzen zuten elkar. Bakoitza bere etxearen jabe zeneko ingurunean hazia zen. Bestalde, biek zituzten zailtasunak ur gezatako frankoa ulertu edo errespetatzeko, ur gezatako frankoak zituen gizarte-sustraiak arrotz gertatzen baitzitzaizkien biei. Hura ez zen etxeko seme, ghettoke ume baizik; eta bizitza zigortu honek ethos bat garatu zuen harengan, ethos horretatik libre zeudelarik frankoen herrialdean hazitako frankoa eta Turkian hazitako turkiarra.

Juduak

Dagoeneko aipatu ditugu, batere luze aztertu gabe ere, erlijio-diskriminazioaren emaitzak zigorraren biktimak eta hauen egileak gizarte berekoak diren kasuetan, eta puritano ingelesak dira zenbait adibide ezagunetako bat; luzeago aztertu ditugu Otomandar Inperioaren historiako adibideak, non erlijio-diskriminazioaren biktimak eta haien jazarleak zibilizazio desberdinetakoak baitziren. Beste kasu bat geratzen da: erlijio-diskriminazioaren biktimak fosil gisa bakarrik bizi den gizarte desagertu baten ordezkari direnekoa. Fosil horien zerrenda aurreko orrialde batean eman da (ikus 43. or.), eta horietako bakoitzak emango lituzke horrelako zigorraren emaitzen argibideak; baina aipagarriena askogatik ere Gizarte Siriakoaren hondar fosiletako bat da, juduak alegia. Tragedia bukaezin hau aztertzeari ekin aurretik —oraindik ez zaio amaiera ikusten⁵¹—, zera ikus dezakegu: beste hondar siriako batek, parsiek, juduek beste alde batzuetan jokaturiko paper bera jokatu zutela Hindu Gizartearen barruan, gaitasun berbera erakutsiz merkataritzan eta finantzetan; eta beste hondar siriako batek ere, armeniar monofisitak gregoriarrek, paper bertsua jokatu dutela Islamaren munduan.

Zigorpeko juduen nolakotasun bereizgarriak ongi ezagunak dira. Guk hemen aurkitu nahi duguna da ea nolakotasun hauek, normalean uste den bezala, juduen «judaismoari» zor zaizkion, arraza edo erlijio-sektatzat hartuta, ala zigorraren eraginak soilik eraginak ote diren. Jada beste adibide batzuetatik ateratako ondorioek azken ikuspegiaren aldeko aurreiritzira eramán gaitzakete, baina buru-zabal-tasunez planteatuko ditugu probak. Probak bi eratara azter daitezke. Beren erlijioagatik zigortuak direnean juduek erakutsitako ethosa zigorra erabat lasaitu edo desagertutakoan erakutsitakoarekin konpara dezakegu. Halaber, zigortuak diren edo izan diren juduen ethosa zigorraren estimulurik sekula izan ez duten beste judu-komunitate batzuen ethosarekin konpara genezake.

Gaur egun, normalean judutzat hartzen diren eta herri-mailan jentilen buruan beti eta edonon judaismoaren ezaugarritzat jotzen diren berezitasun ongi ezagunak nabarién erakusten dituzten juduak Eki Europako judu askenaziak dira; hauek Errumanian eta ondoko lurraldeetan —Errusiar Inperioko «Juduen Mugak» delakoan sartu ohi zirenetan— juridikoki ez bada ere, moralki behintzat ghettoan eduki izan dituzte kristau-nazio atzeratuek, zeinen artean suertatu zaién egotea. Juduen ethosa ez da hain nabaria Holanda, Britainia Handia, Frantzia eta Estatu Batuetako judu emantzipatuen artean; eta, azken herrialdeotan juduen lege-emantzipazioa gertatu zenetik zein denbora gutxi igaro den eta, ilustratu samarrak diren Mendebaldeko herrialdeetan ere, beraíén emantzipazio morala erabatekoa izatetik zein urruti dagoén kontuan hartzen dugunean, ez dugu gutxietsiko hemen jadanik ageri den ethos-aldaketaren esanahia⁵².

Halaber, ikus dezakegu, Mendebaldeko judu emantzipatuen artean, askenazi-jatorrikoak, Juduen Mugetatik etorriak, oraindik ere «juduago» agertzen direla ethosean sefardiak baino, hauek gure inguruan arraroagoak eta jatorriz Dar-al-Islam-etik etorriak izanik; eta desberdintasun honetaz ohartzeko, bi judu-komunitate hauen historia-ren desberdintasuna gogoratu behar dugu.

Erromatarrek Europan egindako irekitzeaz baliatu eta beren irabaziak Alpeez bestaldeko probintzia erdi barbaroekiko txikizkako merkataritzan egin zituzten juduengandik datoz askenaziak. Erromatar Inperioaren konbertsio eta kolapsoaren garaitik, sufrimendu bikoitza jasan dute askenazi hauek: kristau-elizen fanatismoa eta

barbaroen arrangura. Barbaroak ezin du eraman kanpoko egoiliar bat, aparte bizi eta salerosketa-negozioetatik mozkinak ateratzen dituen, barbaroak berak salerosketarako trebeziarik ez duen bitartean. Sentimendu hauekin jokatzuz, Mendebaldeko kristauek judua zigortu egin dute beraientzat ezinbestekoa izan den bitartean eta kanporatu egin dute bera gabe moldatzeko gai zirela uste izan dutenean. Ondorioz, Mendebaldeko Kristandadearen gorakada eta hedapenarekin batera askenaziek ekialdera joan behar izan dute, Erromatar Inperioak Renanian zituen antzinako marketatik Mendebaldeko Kristandadeak Juduen Mugetan zituen marka modernoetara. Mendebaldeko Kristandadeko barrualde hedakorrean, juduak kanporatuak izan dira herrialde batetik eta bestetik, Mendebaldeko herriak ekonomi eraginkortasunean halako maila batera iritsi direnean —adibidez, Eduardo I.ak (1272-1307) Ingalaterratik kanporatu zituen bezala—; aurreratzen ari zen zerrenda kontinentalean, berriz, barrualdetik bidalitako judu hauek onartu egin dituzte, baita gonbidatu ere, herrialde batean eta bestean, mendebaldar bihurtzeko prozesuaren lehen etapetan, merkataritzan aitzindari izateko, baina zigortu eta azkenean berriro ere kanporatu egin dituzte behin-behineko babesleku horretako ekonomi bizitzan ezinbesteko izateari uztean.

Juduen Mugetan judu askenazien ibilaldi luze hau mendebaldetik ekialdera geldiarazi egin zuten eta martirioa goren mailara iritsi zen; zeren eta hemen, Mendebaldeko Kristandadearen eta Errusiako Kristandade Ortodoxoaren arteko elkargunean, juduak harrapatu eta ehotu egin dituzte goiko eta beheko errotarren artean. Etapa honetan, ekialderantzako ibilaldiaren balentria errepikatu nahi izan zutenean, «Errusia Santuak» bidea itxi zien. Hala ere, askenazientzat zorionez, garai hartan Mendebaldean gidari ziren nazioak —Erdi Aroan juduak kanporatzen lehenak izandakoak— ekonomian eraginkortasun-maila batera iritsiak ziren eta jada ez ziren juduekin ekonomi lehian hasteko beldur; adibidez, Commonwealth garaiko ingelesak, Cromwell-ek (1653-58) berriro onartu zituelarik juduak Ingalaterran. Orduan, juduen emantzipazioa Mendebaldean Juduen Mugetako askenaziei mendebalderantz irteera berria emateko une-unean iritsi zen, haien ekialderantzako joara zaharra «Errusia Santuaren» mendebaldeko mugako hormaren kontra jota baitzegoen. Azken mendean askenazien migrazioaren mareak ekialdetik mendebalderantz egin du atzera:

Juduen Mugetatik Ingalaterrara eta Estatu Batuetara. Aurrekari hauekin, ez da harritzekoa itsasbeherak gure artean utzi dituen askenaziek judu-ethos delakoa beraien erlijioide sefardiek baino nabarmenago erakustea, azken hauek leku atseginagoetan egokitu baitira.

Espainia eta Portugaletik inmigraturiko sefardien artean ikusten dugun «judaismoa», hain nabarmena ez dena, sefardiek Dar-al-Islamen izandako aurrekariak esplikatzen dute. Pertsian eta Erromatar Inperioko probintzietan, azkenaldian arabiarrei egokitu zitzaizkienean, Judu Sakabanatzearen ordezkariak egoera zoriontsu samarrean aurkitu ziren. abbastar Kalifaldian izan zuten estatusa ez zen gaur egun Mendebaldean juduak emantzipatu diren herrialdeetan beroriek dutena baino okerragoa izan. Sefardien hondamendi historikoa Iberiar penintsula pixkanaka mairuengandik Mendebaldeko kristauengana eskualdatzea izan zen, hamabosgarren mendearen bukaeran burutua zegoen aldaketa. Konkistatzaile kristauak hiru aukera eskaini zizkieten: suntsipena, kanporaketa edo konbertsioa. Begira diezaiogun azken bi aukera horietakoren bati esker bizia onik atera zuten penintsulako sefardien geroko egoerari, ondorioz haien ondorengoak bizirik daudelarik gaur egun. Erbesteratzea nahiago izan zutenek Espainia eta Portugal katolikoen arerioen artean aurkitu zuten babes: Holandan, Turkian edo Toskanan⁵³. Turkiara joan zirenak beren babesle osmanliarrek adoretu zituzten Konstantinoplan, Salonikan eta Rumeliako hirigune txikienetan ezartzera, aurrez egondako maila ertaineko hiri-klase greziarraren kanporatzeak edo hondamenak utzitako hutsunea betetzeko. Zirkunstantzia onuragarri hauetan, Otomandar Inperioan errefuxiaturiko sefardiak gai izan ziren merkataritzan espezializatu eta aurrera egiteko ethos askenazia garatzeko prezioa ordaindu beharrik gabe.

Marranoei —duela lau edo bost mende kristau-erlijiora moldatzea onartu zuten iberiar juduei— dagokienez, beraien judu-ezaugarriak lausotu egin dira desagertzeko punturaino. Arrazoi guztiak daude pentsatzeko gaur egun Espainia eta Portugalen judu konbertitu hauen odolaren tindagai bizia dagoela iberiar zainetan, goiko eta erdiko mailako klaseetan, batez ere. Hala ere, Espainia eta Portugaleko goiko eta erdiko mailako klase bizien laginak aurkeztuko balitzaizkio, psikoanalistarik zorrotzenari ere zail gertatuko litzaioke arbaso juduak nork izan zituen detektatzea.

Garai modernoetan, Mendebaldeko judu emantzipatuen arteko multzo batek bere komunitatearen emantzipazioa osatu nahi izan du Mendebaldeko nazio-estatu moderno horietako batez hornituz. Sionisten azken helburua judu-herria zigor-mendeetan eragindako konplexu psikologiko berezitik askatzea da; eta azken helburu honetan sionistak bat datoz judu-pentsaera emantzipatuaren eskola lehiakidearekin. Sionistak bat datoz asimilazionistekin juduei «herri berezi» sentitzea sendatu nahi izatean. Ez datoz bat, ordea, sendabide asimilazionistari buruzko balorazioan, desgokia iruditzen zaie eta.

Asimilazionisten ideala da Holanda, Ingalaterra edo Amerikako judua «judu-erlijio» holandar, ingeles edo amerikar bihurtu behar lukeela. Argudiatzen dute ez dagoela arrazoirik herri ilustratu bateko judu-hiritarra herrialde hartako hiritar erabat gogobete eta asimilatua ez izateko, igandean elizara joan ordez larunbatean sinagogara joaten delako soilik. Honi bi gauza erantzuten dizkiote sionistek. Lehenik esaten dute asimilazionisten sendabidea gai izango balitz ere bere defendatzaileek nahi duten emaitza lortzeko, herrialde ilustratuetan bakarrik aplikatu daitekeela, eta horietako judu-hiritar zoriekoak zati bat baino ez direla munduko juduen artean. Bigarren lekuan argudiatzen dute, baldintzarik mesedegarrienetan ere, judu-arazoa ezin dela konpondu honela, «judu-erlijio» izatea baino zerbait gehiago baita judu izatea. Sionisten begietan, holandar, ingeles edo amerikar bihurtzen saiatzen den judua bere judu-nortasuna moztu ari da, holandar edo aukera dezakeen beste edozein nazionalitate jentil baten nortasun osoa lortzeko inolako itxaropenik gabe. Juduek arrakasta izan behar badute «beste nazio guztiak bezalakoak» izaten, asimilazio-prozesua, hala diote sionistek, nazio-oinarriaren eta ez banakoaren gain zertu behar da. Banako juduek banako ingeles edo holandarren antzeko izateko ahalegin alferria egin ordez, judu-herriak ingeles edo holandar herriaren pareko bihurtu behar du egoitza nazional bat eskuratuz —edo berreskuratuz—, non juduak, ingelesak Ingalaterran bezala, nagusi izango diren beren etxean.

Mugimendu sionista, enpresa praktiko bezala, duela mende-erdi bakarrik sortua izan arren, bere gizarte-filosofia emaitzek justifikatu dute dagoeneko. Palestinako nekazari-kolonia juduetan ghetto haurrak, ia ezagutzeko modurik ere gabe, laborari aitzindari bihurtu dira, eta kolonia jentil baten ezaugarrietako asko dituzte.

Esperimentuaren ezbehar tragikoa herrialde hartan aurrez zeuden arabiar biztanleekin ondo moldatzen porrot egin izana da.

Gutxi ezagutzen diren judu-talde batzuk aipatzea falta da, beren historian urrutiko «gotorlekuetara» erretiratuz zigorrari ihes egin diotenak, han agertzen dituztelarik nekazari gogorren edo menditar basatien ezaugarri guztiak. Horrelakoak dira Yemengo juduak Arabiaren hego-mendebaldeko izkinan, falashak Abisinian, menditar juduak Kaukason eta turkieraz mintzo diren judu-krimchak Krimean.

VIII. ERDIBIDE EGOKIA

1.

Nahikoa eta gehiegi

Iritsi gara orain geure argudio hau burutu dezakegun puntu batera. Zibilizazioak ezohiko zailtasuna duten inguruneetan sortzen direla ziurtatu dugu eta ez ezohiko erraztasuna dutenetan, eta honek eraman gaitu ikertzerara ea ba ote den gizarte-legeren baten kasurik, formula honekin adieraz daitekeenik: «zenbat eta handiagoa erronka, orduan eta handiagoa estimulua». Bost motatako estimuluek eragindako erantzunen azterketa egin dugu —herrialde gogorrak, lurralde berria, kolpeak, presioak eta zigorrak— eta bost arlo hauetan legeak balio duela iradoki du gure ikerketak. Hala ere, baliotasun hori erabatekoa den ala ez erabaki behar dugu oraindik. Erronkaren gogortasuna *ad infinitum* handitzen badugu, lortuko al dugu horregatik estimulua mugagabeki areagotzea eta erantzuna mugagabeki handitzea erronkari arrakastaz aurre egindakoan? Ala puntu batera iritsi eta hura gaingidituz gero gogortasunaren handitzeak emaitzen urritzea ekarriko ote du? Eta puntu horretaz harantzago joaten bagara, iritsiko ote gara beste punturen batera, non, erronka hain gogorra bihurtzen denez, berari arrakastaz erantzuteko aukera desagertu egiten den? Kasu honetan «erronkarik estimulagarriena gogortasun-eskasiaren eta gehiegikeriaren arteko erdibidean aurkitu behar dela» izango litzateke legea.

Ba al da gehiegizko erronkarik? Oraindik ez dugu aurkitu horren adibiderik, eta badira oraindik aipatu gabeko «erronka-eta-

erantzuna» operazioaren muturreko hainbat kasu. Oraindik ez dugu aipatu Veneziaren kasua —aintzira gazi baten ertz lokaztuetan zutabe gaineen eraikitako hiri, Poren lautada emankorrean *terra firma*-n eraikitako hiri guztiei gain hartu diena aberastasun, ahalmen eta aintzan—; ezta Holanda ere, benetan itsasotik salbatu duten herrialdea, baina dagoeneko Ipar Europako lautadan zabalera berdineko beste edozein lurralde-zati baino askoz gehiago nabarmendu dena historian; ezta Suitza ere, bere mendi-karga ikaragarriaz zamatua. Irudi lezake Mendebaldeko Europan hiru lurralde-zati gogorrenak estimulatu egin dituztela biztanleak, Mendebaldeko Kristandadeko edozein herrik jadanik erdietsia duen gizarte-lorpenaren maila gorena erdiestera, ildo desberdinetatik.

Baina badira beste kontsiderazio batzuk. Hiru erronka hauek mailaz oso muturrekoak izan arren, edozein gizarteren ingurunea osatzen duten bi erresumetako batera bakarrik daude irispez mugatuta. Zalantzarik gabe, lurzoru zailaren erronkak dira, baina giza aldetik —kolpeak, presioak eta zigorrak— egoera fisiko horren gogortasuna ez da izan erronka, aringarria baizik; auzokoek jasan behar izan dituzten giza probetatik babestu izan ditu. Venezia bere ertz lokaztuetan, aintzirek Kontinentetik bakartua, atzerritarren okupazio militarrik gabe egon da ia mila urtez (K.o. 810-1797). Holandak ere behin baino gehiagotan onik atera ditu bere gunerak erabakigarriak, bizirik eusten dion mekanismoa denbora batez alderantzikatu eta «dikeak zabalduz». Nolako aldea auzoko dituzten Lonbardiaren eta Flandriaren historiarekin, Europako ohiko bi guda-zelaiak hauek.

Jakina, nahikoa erraza da erronka berezi batzuei erantzuten huts egin duten komunitateen kasuak aipatzea. Horrek ez du ezer frogatzen, zeren eta azkenean garaipenezko erantzuna eragin duten erronka ia guztiek, ikertzen bada, gertatzen da erantzuleak bata bestearen ondoren nahastuta utzi edo menderatu egin dituztela, azkenean, ehungarren edo milagarren deialdian, garailea lehian sartu den arte. Hau da «naturaren oparotasun» nabaria, honen kasu ugari datozelarik gogora.

Adibidez, Ipar Europako oihanen erronka fisikoak benetan geldiarazi egin zuen gizaki primitiboa. Oihaneko zuhaitzak botatzeko tresnarik gabe eta, zuhaitzak kentzeko gai izan balitz ere, azpian zegoen lurzoru emankorra nola landu eta soro bihurtu ez zekienez, gizaki

primitiboak Ipar Europan ihes egin zion oihanari eta duna hondar-tsuetan eta muino buztintsuetan ezarri zen, non aurkitzen baitira orain haien aztarnak trikuharri-eran, sukarri-gordailuetan eta abarretan, baina lur hura ondorengoek «txartzat» jo zuten oihana aizkorapean eraisten hasi zirenean. Gizaki primitiboarentzat oihan epelaren erronka benetan handiagoa zen izozturiko tundrena baino; eta Ipar Amerikan erresistentziarik txikieneko bideak azkenean polorantz eramanean zuen oihanen ipar-zerrendaz harantzago, bere destinoa kultura eskimala sortzen aurkitzeko Zirkulu Artikoaren erronkari erantzunez. Hala ere, gizaki primitiboaren esperientziak ez du frogatzen Ipar Europako oihanaren erronka gehiegizkoa zenik, erantzun eraginkorra emateko giza ahalmenaren gainetik zegoenik, alegia; zeren eta orpo orpo joan zitzaizkien barbaroak gai izan baitziren aztarnaren bat uzteko, agian harremanetan egondako zibilizazioengandik eskuraturiko erreminta eta tekniken laguntzaz, harik eta, bere garaian, Mendebaldekoaren eta Errusiako Zibilizazio Ortodoxoaren aitzindariak «iritsi, ikusi eta konkistatu» zuten arte.

K.a. bigarren mendean, Ipar Europako oihanaren hegoaldeko abangoardia Po ibarrean erromatar aitzindariak menderatu zuten, oroitezinezko garaietatik erromatarren aurrekoei atzera eutsi ondoren. Greziako Polibio historialariak, herrialdea ireki zutenean berehala bisitatu zuenak, kontraste harrigarria erakusten du Erromaren aurreko galiarren bizimodu ez-eraginkor eta txiroaren —haietatik bizirik zeuden azkenek artean bizimodu hura zuten Alpeen barreneko oihan urrutietan— eta Erromak bere esku hartu zituen ondoko barrutietan nagusi ziren merketasun eta oparotasunaren artean. Hemeretzigarren mendearen hasieran antzerako deskribapena egiten zen sarri azalgorrien ahuldadea eta anglo-amerikar aitzindarien bizitasun eztandagarria alderatuz Kentucky edo Ohioko oihan ustiatu gabeetan.

Ingurune fisikotik giza ingurunera itzultzen bagara, gauza bera aurkituko dugu. Erantzule bat menderatu duen erronka bera ez dela menderaezina frogatzen du geroagoko lehiakideren baten erantzun arrakastatsuak.

Kontuan har dezagun, adibidez, Gizarte Helenikoaren eta Ipar Europako barbaroen arteko erlazioa. Presioa elkarrenganakoa zen hemen, bata bestearenganakoa, baina mugatu dezagun geure arreta Gizarte Helenikoak barbaroen gain zertutako presiora. Zibilizazio hau

Kontinentean gero eta barrurago sartu zenean, barbaroen geruza bakoitzak, bata bestearen ondoren, hil ala biziko arazo batekin topo egin zuen. Atzerriko potentzia indartsu honen eraginpean erori eta bere gizarte-egituraren desintegrazioa jasan behar ote zuen, gizarte-gorputz helenikoaren ehunetan asimilatua izateko elikagai bihurtuz? Ala aurre egin behar zion asimilazioari eta, bere erresistentziari esker, Gizarte Helenikoko kanpo-proletalgo setatien sartu, bere garaian gizarte hori «hiltzerakoan bertan egon» eta gorpuarekin asebeteko zelarik? Labur esanda, haratustela izango zen ala saia? Erronka hau zeltei eta teutoiei ere aurkeztu zitzairen txandaka. Zeltek porrot egin zuten borroka luzearen ondoren; gero arrakastaz erantzun zuten teutoiek.

Zelten kolapsoa zirraragarria izan zen, hasiera ona izan eta abantaila ikusgarria lortu baitzuten hasteko. Etruskoek taktikan egin-dako errakuntza batek eman zien abagunea. Mendebaldeko Mediterranea irekitzean lehiakide helenikoen kulturara konbertituri-ko hitita hauek ez zeuden pozik hanka Italiaren mendebaldeko kostan jarri izanarekin; haien aitzindariak beldurgabe sartu ziren barrura Apeninoetan zehar eta harat-honat barreiatsu ziren Poren arroan. Honetan gehiegi baloratu zuten beren indarra, eta zeltak estimulatu zituzten eurak suntsitzera. Emaizta *furor celticus*-a izan zen, bi mende inguruz eutsia eta jende-olde zeltikoak ekarri zituen ez bakarrik Apeninoen gainetik Erromara (K.a. 390eko *Clades Alliensis* delakoan), baita Mazedoniara (K.a. 279-6) eta Greziara eta ekialderantz Anatoliara ere, non beren arrastoa eta izena utzi baitzuten «galaziar-rrak» deiturapean. Hanibalek aliatutzat erabili zituen Po arroko konkistatzaile zeltikoak, baina huts egin zuten, eta *furor celticus*-ak erromatar inperialismoaren erantzuna estimulatu zuen. Haien mendebaldeko *Lebensraum*-ean⁵⁴ Riminitik Rhin eta Tyne-raino, baita ekialdean Danubion eta Hayls-en zituzten ekialdeko aurre-postuetan ere, zeltak desintegratu, irentsi eta azkenean digeritu egin zituen Erromatar Inperioak.

Europako barbarotasunean zegoen geruza zeltikoaren desintegrazio honek geruza teutonikoa, zeltikoaren atzean hurrengo zegoena, erronka beraren aurrean jarri zuen. Nola agertzen ote zitzaizkion teutoien perspektibak Augustoren garaiko historialari bati, zeinek gogoa baitzuen Mariok erabat suntsitutako *furor teutonicus* abortatua eta ikusia baitzuen Zesar kolpe batean Ariovisto teutonikoa Galiatik bota-

tzen? Teutoiek zelten bideari jarraituko ziotela iragarriko zukeen eta ziur aski askoz arazo gutxiago sortuko zutela prozesuan; baina oker egongo zatekeen. Erromatarren muga une batez bakarrik iritsi zen Elbara, berehalaxe Rhin-Danubio lerrora erretiratu eta han gelditzeko; eta zibilizazioaren eta barbarotasunaren arteko muga bat lasai dagoe-nean, denborak beti barbaroen alde jokutzen du. Teutoiak, zeltak ez bezala, kultura helenikoaren erasoen kontra babesturik zeuden, eraso hauek soldaduek, merkatariek nahiz misiolariak egin. Kristau-aroko bosgarren mendean, godoak eta bandaloak Peloponeso errausten ari zirenean eta Erroma zergapean jartzen eta Galia eta Espainia eta Afrika berenganatzen, oso garbi gelditu zen teutoiek arrakasta izan zutela zeltek huts egin zuten lekuan; eta honek frogatzen zuen, azken batean, Zibilizazio Helenikoaren presioa ez zela hain zorrotza, ez behintzat erantzun arrakastatsu bat ezinezko bihurtzeko adinakoa.

Berriro ere, Alexandro Handiaren bidez mundu siriakoan helenismoa sartzeak erronka iraunkorra planteatu zion Gizarte Siriakoari. Altxatuko ote zen ala ez kanpoko zibilizazioaren kontra eta botako ote zuen? Erronka honen aurrean, Gizarte Siriakoak zenbait ahalegin egin zuen erantzuteko, eta ahalegin hauek guztiek ezaugarri komun bat izan zuten. Kasu bakoitzean erreakzio antihelenikoak erlijio-mugimendu bat hartu zuen bere garraiatzailatzat. Hala ere, funtsezko aldea zegoen erreakzio hauetako lehen lauren eta azkenekoaren artean. Erreakzio zoroastroarra, judua, nestoriotarra eta monofisita porrotak izan ziren; erreakzio islamikoa arrakastatsua izan zen.

Erreakzio zoroastroarra eta judua helenismoaren eragina borrokatzeko ahaleginak izan ziren, helenismoa sartu aurretik mundu siriakoan jada baziren erlijioen laguntzaz. Zoroastrismoa indarrean zegoenean, Zibilizazio Siriakoaren ekialdeko eremuko iraniarrak helenismoaren aurka altxatu ziren eta, Alexandroren heriotzatik bi mendera, kanporatu egin zuten Eufratesen ekialdeko eskualde guztitik. Puntu horretan, hala ere, erreakzio zoroastroarra bere mugara iritsi zen eta Erromak Alexandroren konkisten gainerakoa onik atera zuen helenismoarentzat. Makabeoen agintepeko erreakzio juduak ere ez zuen arrakastarik izan, Zibilizazio Siriakoaren mendebaldeko sorlekua askatzeko ahalegin ausartagoan, Mediterranea begi-bistan, barrutik egindako altxamenduaren bidez. Seleukotarren gain lortu zuten mementoko arrakasta Erromak mendekatu zuen. K.o. 66-70eko

erromatar-judu gerra handian, Palestinan zegoen judu-komunitatea lur jota geratu zen, eta hondamenaren gorrotoa, garai batean makabeoek Lurralde Santutik bota zutena, itzuli egin zen Hadrianok Jerusalemgo lekuan Aelia Capitolina-ko erromatar kolonia jarri zuenean.

Erreakzio nestoriotar eta monofisitari dagokienez, txandakako ahaleginak izan ziren kanpoko zibilizazio sarkinak metal heleniko eta siriakoz beretzat forjaturiko arma bat helenismoaren aurka bihurtzeko. Hasierako kristautasunaren erlijio sinkretikoan erlijio-espiritu siriakoa arima helenikoeekin ongi moldatzeko eta siriakoeekin ongi ez moldatzeko punturaino izan zen helenizatu. «Heresia» nestoriotar eta monofisitak kristautasuna deshelenizatzeko ahaleginak izan ziren biak, eta biek huts egin zuten helenismoa sartzearen aurkako erreakzio gisa. Nestorianismoa lotsagarriro bidali zuten ekialderantz Eufratesez harantzago. Monofisismoak bere lurrari eutsi zion Sirian eta Egipton eta Armenian, sekula helenizatu gabeko laborarien bihotzak irabaziz; baina inoiz ezin izan zuen ortodoxiatik eta helenismotik urrundu hiriko harresien barruko gutxiengo menderatzailea.

Heraklio enperadoren garaiko greziar bat, pertsiar sasandarrekin izandako azken indar-neurketan Ekialdeko Erromatar Inperioaren garaipenaren lekuko eta heretiko nestoriotar eta monofisitekin izandako azken indar-neurketan hierarkia kristau ortodoxoaren garaipenaren lekuko izana, traizionatua gerta zitekeen, kristau-aroko 630. urte inguruan, Jainkoari eskerrak ematerakoan, Erroma, katolizismo eta helenismoaren hirutasun lurtarra garaitezin bihurtzeagatik. Hala ere, une hartan bertan helenismoaren aurkako bosgarren erreakzio siriakoa berehalakoa zen. Heraklio enperadoreak berak ezin izan zuen heriotza dastatu harik eta Omar, Mahoma profetaren ondorengoa, bere erresumara etortzen eta eremu siriakoetan Alexandrogandik aurrera izandako helenizatzaile guztien lana, erabat eta betiko, desegiten ikusi zuen arte. Zeren eta Islamak arrakasta izan baitzuen aurrekoek porrot egin zuten lekuan. Mundu siriakotik helenismoaren kanporatzea osatu zuen. Arabiar Kalifaldian estatu unibertsal siriakoa berrezarri zuen, bere zeregina bete baino lehen Alexandrok gupidagabe moztu zuena, pertsiar akemenestarrak menderatu zituenean. Azkenik, Islamak Gizarte Siriakoa eliza unibertsal indigena batez hornitu zuen eta horrekin, animaziorik gabeko mendeen ondoren, gai egin zuen azken arnasa emateko, ziur jakinda ez zela desagertuko kimurik utzi gabe;

Eliza Islamikoa bihurtu zen krisalida, handik irtengo zirelarik bere garaian Zibilizazio Arabiko eta Iraniko berriak.

Aurreko adibideek erakusten dute oraindik ez dugula metodo egokia aurkitu aurrean dugun arazoa tratatzeko, hots, erronka gehiegizkoa izan dela erakusten duen kasu inekiboko bat aurkitzea. Arazoa beste era batera planteatu behar dugu.

2.

Konparazioak hiru terminotan

Arazoaren planteamendu berria

Aurkitu ote genezake ikerketa-metodo alternatiborik emaitza hobeak lortzeko modukorik? Saia gaitezen geure azterketa kontrako muturretik hasten. Orain arte erantzulea menderatu duen erronka batekin hasi izan gara. Has gaitezen orain erronka batek estimulu eraginkorra eman eta erantzun arrakastatsua eragin duen kasuetatik. Aurreko kapituluko hainbat sekziotan mota honetako kasu asko aztertu ditugu eta arrakastazko erantzunaren adibidea kasu paraleloekin alderatu dugu, non talde berak, edo harekin konpara zitekeen batek, arrakasta txikiagoz erantzun baitzion erronka berari edo konparagarriari, erronka gogortasun txikiagokoa izan zenean. Berriro azter ditzagun orain bi terminoren arteko konparazio hauetako batzuk eta ikusi ea gure bi terminoak hirura gehitu ditzakegun.

Kasu bakoitzean bila dezagun hirugarren egoera historiko bat, non erronka ez bigunagoa baizik eta gogorragoa izan den abiapuntutzat hartu dugun egoeran baino. Mota honetako hirugarren termino bat aurkitzen arrakasta izaten badugu, orduan abiapuntutzat izan dugun egoera —erantzun arrakastatsua— erdibidea izango litzaiteke bi muturren artean. Bi mutur hauetan, erronkaren gogortasuna erdian baino txikiagoa eta handiagoa da. Baina erantzunaren arrakastari buruz, zer? Erronka txikiagoa zen egoeran dagoeneko aurkitu dugu erantzuna ere txikiagoa zela. Baina zer hirugarren egoeran, lehen aldiz orain sartzen ari garen honetan? Hemen, erronkaren

gogortasuna goren mailakoa denean, erantzunaren arrakasta ere goren mailakoa dela aurkituko ote dugu? Demagun, aitzitik, zera aurkitzen dugula: erronkaren gogortasuna maila ertainetik gora areagotzeak ez dakarrela berekin erantzunaren arrakasta areagotzea, baizik eta, alderantziz, erantzuna txikiagoa dela. Horrela dela frogatzen bada, erronka eta erantzunaren elkarrekintza «gero eta etekin txikiagoen legearen» mende dagoela aurkituko dugu; eta ondorioztatuko dugu badela maila ertaineko gogortasun bat, non estimulua maila gorenera iristen baita, eta maila horri hobeza deituko diogu, gehie-nezkoaren ordeaz.

Norvegia - Islandia - Groenlandia

Dagoeneko aurkitu dugu Islandian, eta ez Norvegian, Suedian edo Danimarkan lortu zituela Eskandinaviar Zibilizazio abortatuak garaipenik handienak literaturan eta politikan. Lorpen hau estimulu bikoitzari emandako erantzuna izan zen: itsasoz bestaldeko migrazioaren estimulua eta eskandinaviar nabigatzaile hauek atzera utzitakoa baino herrialde hotz eta soilagoaren estimulua. Orain demagun erronka bera errepikatu zela bi aldiz gogorkiago; demagun normandiarrek bostehun milia egin zituztela eta Islandia baino askoz herrialde hotzagoan ezarri zirela, Islandia Norvegia baino hotzagoa den bezalaxe. Tulez harantzagoko Tule honek eragingo ote zuen eskandinaviar komunitate bat Islandiakoa baino bi aldiz bikainagoa izatea literaturan eta politikan? Galdera ez da hipotetikoa, zeren eta postulatu ditugun baldintzak bete egin baitziren benetan eskandinaviar nabigatzaileak Groenlandiara iritsi zirenean. Eta galderaren erantzuna zalantzarik gabea da: Groenlandiaren kolonizazioak porrot egin zuen; milurteko-erdi bat baino gutxiagoan groenlandiarrak poliki-poliki menderatuak izaten hasi ziren beraientzat ere gogorregia zen ingurune fisiko baten aurkako borroka galdu tragikoan.

Dixie - Massachusetts - Maine

Dagoeneko konparatu dugu Ingalaterra Berriko klima latz eta lur harritsuak aurkezturiko erronka fisikoaren gogortasuna, Virginiak eta Karolinek kolonizatzaile britainiar-amerikarrei aurkezturiko erronka bigunagoarekin, eta erakutsi dugu nola, Kontinentea kontrolatzeko borrokan, Ingalaterra Berrikoek hartu zieten aurrea lehiakide guztiei. Noski, Mason eta Dixon lerroa bat dator gutxi gorabehera

erronkarik oneneko eremu baten hegoaldeko mugarekin. Orain geure buruari galdetu behar diogu ea klima-estimulurik handieneko esparru honek ba ote duen beste muga bat iparraldean, eta galdera planteatu orduko ohartzen gara erantzuna baiezkoa dela, noski.

Klima-eremu hobezenaren iparraldeko mugak benetan zatitu egiten du Ingalaterra Berria; zeren eta Ingalaterra Berriaz eta Amerikako historian jokatu duen paperaz hitz egiten dugunean, bere sei estatu txikietako hiru bakarrik baititugu benetan buruan: Massachusetts, Connecticut eta Rhode Island, eta ez New Hampshire, Vermont eta Maine. Massachusetts beti izan da Ipar Amerikako kontinentean ingelesez mintzo diren komunitate gidarietako bat. Hemezortzigarren mendean gidari-papera jokatu zuen britainiarren erregimen kolonialari aurre egiten eta, ordudanik Estatu Batuek ikaragarritzko garapena izan duten arren, Massachusettsek bere posizioari eutsi dio esparru intelektualean eta, neurri bateraino, baita industri eta merkataritza-esparruetan ere. Bestalde, Maine benetan Massachusettsen parte izan arren 1820an aparteko estatu bihurtu zen arte, garrantzirik gabea izan da beti eta museoko pieza bezala irauten du gaur egun: hamazazpigarren mendeko Ingalaterra Berriaren erlikia, egurgin, ontzizain eta ehiztariek populatua. Herrialde gogor bateko seme hauek, beren ogibide urria irabazteko, Ipar Amerikako hirietatik arkadiar estatu honetara oporretan atsegin bila etortzen direnen «gidari»-lana egiten dute orain, hain zuzen Maine beste hiri hauetako asko artean basa eremutik irteten hasi aurretik zena bezalakoxea delako oraindik ere. Aldi berean, Maine gaur egun Amerikar Batasunean aspaldien kolonizaturiko eskualdeetako bat da, baina gutxien urbanizatu eta sofistikatuetakoa.

Nola azaldu daiteke Maine eta Massachusettsen arteko kontraste hau? Esan liteke Ingalaterra Berriko ingurunearen gogortasuna, Massachusettsen egoera hobezonean dagoena, Mainen areagotuta dagoela, giza erantzuna gero eta etekin txikiagoak ematen hasteko mailaraino. Eta oraindik iparralderago eramaten badugu geure ikerketa, berretsi egiten zaigu uste hau. New Brunswick, Nova Scotia eta Prince Edward uhartea Kanadako Dominioan oparotasun eta aurrerapen gutxieneko probintziak dira. Oraindik ere iparralderago, Ternua azken urteotan beharturik aurkitu da bere kabuz irauteko berdintasunik gabeko borroka baztertzera eta Koroaren gobernu kolonialaren era

disimulatu bat onartu du Britainia Handiko laguntzaren ordainetan. Oraindik ere iparralderago, Labradorren, kolonizatzaile nordikoek Groenlandian aurkitu zituztenak bezalako baldintzak aurkitzen ditugu: erronkarik handiena, inola ere ez hobezina eta egiazki «ezin txarragoa» dela esan genezakeena.

Brasil - La Plata - Patagonia

Hego Amerikako itsasertz atlantikoak antzeko fenomenoak ditu, noski. Brasilen, adibidez, nazioko aberastasun, ekipamendu, biztanleria eta kemenaren zatirik handiena lurralde zabal honen zati txiki batean dago bilduta: hego-latitudeko hogeigarren graduaz hegoaldera dagoen zatian. Gainera, Hego Brasil bera kaskarragoa da zibilizazioz hegoalderago —La Plata estuarioaren alde bietan— dauden eskualdeak baino: Uruguayko errepublika eta Buenos Airesko argentinar estatua. Garbi dago, Hego Amerikan itsasertz atlantikoan zehar, ekuatore-sektorea ez dela estimulagarria baizik eta positiboki lasaigarria; baina bada frogarik Rio de la Plata estuarioko klima epel estimulagarriagoa hobezina dela esateko; zeren eta kostari hegoalderago jarraitzen badiogu «presioa» areagotu egiten dela aurkituko baitugu, zalantzarik gabe, baina erantzuna txikitu egiten da Patagoniako lautada idorra zeharkatzen dugunean. Urrutirago joatea aukeratzen badugu are okerragoa ibiliko gara, hozmindurik eta goseak akabaturiko basatien artean aurkituko baikara, ozta-ozta dirautelarik bizirik Tierra del Fuego izotz eta elurren artean.

Galloway - Ulster - Appalacheak

Azter dezagun orain kasu bat, non erronka ez den soilik fisi-koa, neurri batean fisikoa eta neurri batean gizatiarra baizik.

Gaur egun kontraste nabaria dago Ulsterren eta Irlandaren gainerakoaren artean. Hego Irlanda nekazari-herrialde zaharkitu samarra den bitartean, Ulster lantegirik aktiboenetakoa da Mendebaldeko mundu modernoan. Belfast Glasgow, Newcastle, Hamburg edo Detroit-en pareko da, eta ulstertar modernoak eraginkorra izatearen ospea du, oso gizartekoa ez izatearena bezainbat.

Zein erronkari erantzunez bihurtu da ulstertarra orain den bezalakoa? Erronka bikoitzari erantzun dio: Eskoziatik itsasoa zeharkatuz egindako migrazioaren erronkari eta, Ulsterrera iritsi ondoren,

bertako biztanle irlandarrekin izandako borrokaren erronkari, hango-aren jabe aurkitu baitzituen eta kentzeari ekin. Proba bikoitz honek ondorio estimulagarria izan zuen, honela neur daitekeena: Ulsterrek gaur egun duen botere eta aberastasuna, eta Eskozia eta Ingalaterraren arteko mugaren Eskoziako aldean eta «Highland Lerroko» behe-lurretako zerrendan dauden eskualdeen egoera apal samarra konparatuz, hauetatik atera zirelarik hamazazpigarren mendearen hasieran Ulsterreko lehen kolonizatzaile eskoziarrak⁵⁵.

Ulstertar modernoak, hala ere, ez dira itsasoz bestaldean enbor honetatik bizirik gelditzen diren bakarrak; zeren eta Ulsterrera emigratu zuten eskoziar aitzindariak ondorengo «eskoziar-irlandarrak» sortu zituzten, eta hauek hemezortzigarren mendean berriro emigratu zuten Ulsterretik Ipar Amerikara, eta hauek iraun egiten dute gaur egun Appalache mendien gotorlekuan, goi-lurren eskualde bat Amerikar Batasuneko dozena-erdi estatu igarotzen dituen Pennsylvaniatik Georgiaraino. Zein izan zen bigarren landaketa honen ondorioa? Hamazazpigarren mendean Jakobo erregearen mendekoek San Jorgeren kanala zeharkatu zuten eta irlandar basatiekin borrokatu ziren Highland-etar basatiekin borrokatu ordez. Hemezortzigarren mendean haien herenilobek Atlantikoa zeharkatu zuten eta indiarren erasotzaile bihurtu ziren urrutiko amerikar basoetan. Jakina, Amerikako erronka hau Irlandakoa baino handiagoa izan da bere bi alderdietan, fisikoan eta gizatiarrean. Erronka handiagoak erantzun handiagoa eragin ote du? Gaur egun Ulsterreko eta Appalacheetako jendea konparatzen badugu, elkarrengandik banatu zirela bi mende direnean, erantzuna berriro ere ezezkoa dela konturaturako gara. Appalacheetako biztanle modernoak ulstertarra ez gainditzeaz gain, porrot egin du bere lurrari eusten eta maldan behera joan da modurik harrigarrienean. Egia esateko, Appalacheetako «menditarrak» gaur egun ez dira barbaroak baino hobeak. Analfabetismoan eta sorginkerian erori dira berriro. Pobrezia, zikin-keria eta osasun txarra nozitzen dituzte. Mundu Zaharreko azken barbaro zurien —Rif-tar, albaniar, kurdu, pathan eta aino iletsuen— ordezko amerikarrak dira; baina azken hauek antzinako barbarotasu- netik bizirik irauten dutenak diren bitartean, Appalacheetakoez zibilizazioa lortu eta gero galdu duen herri baten ikuskizun malenkoni-koa eskaintzen dute.

Erreakzioak gerraren hondamenari

Ulster-Appalacheen kasuan erronka bietakoa zen, fisikoa eta gizatiarra, baina «gero eta etekin txikiagoen legearen» operazioa hor bezain argi azaltzen da erronka giza mailan bakarrik aurkezten den beste kasu batzuetan. Aztertu, adibidez, gerrako suntsipenak planteatzen duen erronkaren ondorioak. Dagoeneko aipatu ditugu bi kasu, zeinetan mota honetako erronka gogorrek garaipenezko erantzunekin topo egin baitzuten: pertsiar inbasioaren suntsipenari «Helasen hezibide» bihurtuz erantzun zion Atenasek, eta inbasio napoleonikorekin suntsipenari Bismarck-en Alemania bihurtuz erantzun zion Prusiak. Aurkitu ote dezakegu mota honetako erronkarik, gogorregia gertatu denik, zauriak gaizkoatu eta luzera hilgarri gertatu den suntsipenik? Bai.

Hanibalek Italian egindako suntsipena ez zen izan maskaraturiko bedekazioa, hain erregarriak izan ez ziren beste bisita haiek bezala. Hego Italian suntsituriko lur goldagarrien zati bat larretoki bihurtu zen eta beste zati bat mahasti eta olibadi, eta nekazaritza-ekonomia berria, laborantza nahiz abelazkuntzakoa, esklaboen eskulanean oinarritu zen eta ez nekazari librearen eskulanean, garai batean hauek landu zutelarik lurra, Hanibalen soldaduek nekazarien etxetxoak erre eta hutsik utzitako soroetan belar txar eta sasiak sartu aurretik. Aldaketa iraultzaile honek —mantenurako nekazaritzarik handizkako nekazaritzara eta famili nekazaritzarik esklaboen eskulana erabiltzerara— aldi batez gehitu egin zuen, zalantzarik gabe, lurra emandakoaren diru-balioa; baina eragindako gizarte-gaitzen kontrapisua bera astunagoa izan zen: landazabalaren despopulazioa eta nekazari ohien proletalgo txirotua hirietan biltzea. Gaitz hauek legeria bidez geldiarazteko ahaleginak, Hanibal Italiatik atera ondoren hirugarren belau-naldian Grakoek eginak, gaizkoatu baino ez zuen egin erromatar komunitatearen ondoeza, iraultza politikoa azkartuz iraultza ekonomikoa geldiarazi gabe. Gatazka politikoak sutu eta gerra zibila ekarri zuen eta, Tiberio Grakoren tribunoaldia baino ehun urte geroago, erromatarrek onartu egin zuten Augustoren diktadura iraunkorraren ezarketa, arazoen egoera etsigarriarentzat konponbide zorrotza izan zitekeelakoan. Honela, Hanibalek Italian egindako suntsipenak, inola ere erromatarrek estimatu gabe garai batean Xerxesek Atikan egindako suntsipenak atenastarrak estimatu zituen bezala, benetako kol-

pea eman zien eta ez ziren inoiz kolpe hartatik oneratu. Suntsipenaren zigorra, pertsiarren indarrez emanda estimulagarri gertatu zena, hilgarri gertatu zen bizitasun punikoz emanda.

Txinatar erreakzioak emigrazioaren erronkari

Dagoeneko konparatu ditugu hainbat mailatako erronka fisikoak britainiar emigratzaileen zenbait taldetan eragindako ondorioak. Azter dezagun orain txinatar emigratzaileen erreakzioa hainbat mailatako giza erronkaren aurrean. Txinatar coolie-ak britainiar Malaysiara edo Ekialdeko India Holandarretara emigratzen duenean gai da bere zereginarentzat saria lortzeko. Bere familia utzi eta gizarte-ingurune arrotz batean sartzeko gizarte-probari aurre eginez, gizarte-tradizio luzeek ahuldurik eduki duten ekonomi ingurunetik hobetzera estimulatzen duen beste batera aldatzen da, eta aberastu egiten da sarri. Demagun, hala ere, areagotu egiten dugula gizarte-proba, ekonomi abagunearen prezioa, alegia. Demagun, Malaysia edo Indonesiara bidali orde, Australia edo Kaliforniara bidaltzen dugula. «Gizaki zuriaren herrialde» hauetan gure coolie langileak, ametitua izatea lortzen badu, askoz ere gogorragoa den proba jasango du. Lurralde arrotzean bere burua arrotz aurkitzeaz gain, berariazko zigorra jasan beharko du, legeak berak egingo baitu haren aurkako diskriminazioa, lagundu orde, Malaysian egiten duen bezala, non «txinatarren babesle» ofizial bat izendatzen baitu borondate oneko administrazio kolonialak. Gizarte-proba gogorrago honek, proportzioan indartsuagoa den erantzun ekonomikoa eragiten ote du? Ez, eta hori ikusteko aski da txinatarrek Malaysian eta Indonesian lorturiko oparotasun-mailak arraza dohaindu bereko etorkinek Australian eta Kalifornian lorturiko mailarekin konparatzea.

Eslaviarrak - akeoak - teutoiak - zeltak

Ondoren azter dezagun berriro zibilizazioak barbarotasunari planteatzen dion erronka: Europan hainbat barbaro-estraturi hainbat arotan planteatu zaio erronka hau zenbait zibilizazioen irradiazioz garai batean iluna izandako kontinente honen barruan.

Drama hau aztertzen dugunean kasu batek bereganatzen du gure arreta, erronkak aparteko distira duen erantzuna eragin baitu bertan. Zibilizazio Helenikoa da agian inoiz loratu den espezieko lorarik

finena, eta Zibilizazio Minoikoaren erronkari erantzunez sortu zuten Europako barbaroek. Zibilizazio Minoiko itsastarrak hanka Greziako penintsulan jarri zuenean, barrualdeko barbaro akeoak ez zituzten ez suntsitu, ez mendeko bihurtu, ez asimilatu. Horren ordezt, hauek beren identitateari eustea lortu zuten talasokrazia minoikoaren kanpo-proletalgot bihurtuz, borrokatzen ari ziren zibilizazioaren arteak ikasten huts egin gabe. Bere garaian itsasoratu egin ziren, talasokratak menderatu beren elementuan eta ondoriozt Zibilizazio Helenikoaren benetakot guraso bihurtu ziren. Dagoeneko ikusi dugunezt, helenismoaren gurasotasunarekiko akeoen errebindikazioa erlijio-azterketan oinarritzen da, zeren eta olinpiar panteoiko jainkoekt garbi erakusten baitute beren ezaugarrietan akeoen barbarotasunetik datozela; aldi berean mundu minoikotik sorturiko eliza helenikoaren aztarna bakarrak, aurkitzekotan ere, erlijio helenikoaren tenpluko albo-kapera eta kriptetan bakarrik aurkitzen dira: tokian tokiko zenbait kultu, ezkutuko misterio eta kredo esoterikotan.

Estimuluaren neurria helenismoaren distirak ematen du kasu honetan; baina beste era batera ere neur genezake, barbaroen estratu akeo honen zoria beste estratu baten zoriarekin konparatuz; azken hau hain urruti eta babestua zegoen, ezen edozein zibilizazioaren erradiaziotik ia eraginik hartu gabe iraun baitzuen, akeoekt erronka minoikoa hartu eta erantzun distiratsua eman ondorengo bi mila urteetan. Hauek eslaviarrak ziren, Pripet-eko zingiretan bizitzen jarriak, Kontinenteko lur txar hauek erretiratzen ari zen izotz-geruzak gizakiaren esku utzi zituenean. Hemen bizi izan zuten mendez mende Europako barbarotasunaren bizitza primitiboa, eta, Völkerwanderung akeoak hasitako drama heleniko luzea Völkerwanderung teutonikoak bukatu zuenean, bertan zeuden oraindik eslaviar hauek.

Europako barbaroen eguneko ordu berant honetan azkenean eslaviarrak beren gotorlekuetatik bota egin zituzten abaro nomadek, hauek tentatuak izan baitziren beren sorleku zuten eurasiar esteparen mugetatik irtetera, Erromatar Inperioa arpilatu eta hondatzeko teutoien jokoan esku hartu ahal izateko. Nekazari-munduko ingurune arrotzeant, estepan galdutako jende hau bere bizimodu zaharra egoera berrira egokitzen saiatu zen. Estepan abeltzaintzan atera zuten bizimodua abaroekt; inbaditu zituzten lur landuetan abeltzain haiek ohartu ziren bertako azienda egokia giza nekazariak zirela,

eta, beraz, nahikoa zentzuz, gizaki-zain bihurtu ziren. Berriki kon-
kistaturiko larretokiren bat populatzeko auzoko nomaden ganadua
harrapatu ohi zuten bezala, era berean bilatu zuten orain ganaduaren
giza arrazaren bat, beren esku eroritako Erromatar Inperioko pro-
bintzia jendegabeak berriro populatzeko. Eslaviarren aurkitu
zuten nahi zutena, taldeka bildu eta hungariar lautadaren inguruan
zirkulu zabal-zabal batean utzi zituzten, hantxe ezarri zutelarik
beren kanpamentua. Dirudienez, prozesu honen bidez egin zuen
eslaviar tropelaren mendealdeko abangoardiak —egungo txekiar,
eslovakiar eta jugoslaviarren arbasoek— debut berant eta umilaga-
rria historian.

Akeoen eta eslaviarren arteko kontraste honek erakusten du,
gizarte primitibo batentzat, zibilizazioekiko topaketen erronkatik era-
bat babestuta egotea eragozpen larria dela. Egia esan, erronka honek
efektu estimulagarria duela erakusten du bere gogortasuna maila bate-
rainokoa denean. Baina demagun areagotu egiten dugula erronka;
demagun igo egiten dugula Gizarte Minoikoak potentzia handiagoei
irradiatu zien energi maila. Lortuko ote dugu horrela helenismoaren
guraso akeoena baino ere erantzun distiratsuagoa, ala «gero eta etekin
txikiagoen legea» sartuko da berriro jokoan? Puntu honetan ez dauka-
gu hutsean espekulatu beharrik, akeoen eta eslaviarren artean beste
zenbait barbaro-estratu egon baitira, hainbat mailatan hainbat zibiliza-
zioen irradiaziopean egon direnak. Zer gertatu zaie?

Dagoeneko izan dugu Europako barbaroak intentsitate suntsi-
garrizko irradiazioaren mende erori direneko kasu baten berri. Ikusi
dugu zeltak suntsitu edo mendeko bihurtu edo asimilatu egin zituzte-
la azkenean, etruskoen bidez hartu zuten estimulari erantzunez
behin-behineko energi eztanda izan ondoren. Zelten azken porrota
teutoiek eragin helenikoaren aurka tinko eusten izandako arrakasta
erlatiboarekin alderatu dugu. Ohartu gara Europako barbaroen estra-
tu teutonikoak, estratu zeltikoak ez bezala, aurka egin ziola helenis-
moaren eragin desintegratzaileari eta ondorioz teutoiak gai izan zire-
la mundu helenikoko kanpo-proletalgoan beren lekua hartzeko eta
Gizarte Helenikoa bukarazteko, hilzorian *coup de grâce* emanez.
Débâcle zeltikoaren aldean erreakzio teutoniko hau arrakastatsua
izan zen; baina arrakasta teutonikoa akeoenarekin konparatu orduko,
gogora etortzen zaigu teutoiek ez zutela garaipen pirrikoa besterik

izan. Gizarte Helenikoa hil zenean etorri ziren, leku berean beren heriotza-kolpea jasotzeko gizarte hil berriaren oinordeko proletario lehiakideengandik. Arlo honetan garailea ez zen izan gerra-banda teutonikoa, Erromako Eliza Katolikoa baizik, non sartu baitzen Gizarte Helenikoaren barne-proletalgoa. Kristau-aroko zazpigarren mendea bukatu baino lehen, gerra-banda ario edo teutoniko pagano haiek guztiak, erromatar lurretan sartzera ausartu zirenak, katolizismora konbertiturik zeuden edo ez ziren existitzen. Zibilizazio berria, helenikoaren filiala, barne-proletalgoaren bidez zegoen aurrekoarekin ahaidetua eta ez kanpokoaren bidez. Mendebaldeko Kristandadea Eliza Katolikoak sortu zuen funtsean, helenismoa ez bezala, hau barbaro akeoek sortu baitzuten funtsean.

Orain antola dezagun erronka-sail hau gero eta gogortasun handiagoko eskalan. Eslaviarrak oro har erronkatik babestuta egon ziren luzaroan eta argi eta garbi okerrenak izan ziren estimulurik gabe egoteagatik. Akeoek jaso zuten, beren erantzunagatik epaitzekotan, erronka hobezina izan daitekeena. Teutoiek bereari eutsi zioten Zibilizazio Helenikoaren erronkaren aurka, baina gero katolizismoaren erronkak menderatu zituen. Zeltak, Gizarte Helenikoa bere gailurrean aurkiturik —teutoiek ez bezala, hauek gain beheran aurkitu baitzuten— menderatu egin zituen Gizarte honek. Eslaviarrek eta zeltek muturreko egoerak esperimentatu zituzten: immunitate zozoa alde batetik eta bonbardaketa ikaragarria bestetik. Akeoak eta teutoiak «erdibideko» egoeran daude, oraingoan hiru terminoren ordean lau dituen konparazio batean; baina erdibidea esperientzia hobezinaren ikuspegitik akeoena izan zen.

3.

Bi zibilizazio abortatu

Völkerwanderung teutonikoaren «atzegoardia»

Mugatu ote daiteke zehazkiago gero eta etekin txikiagoen legea zein puntutan sartzen den jokoan zibilizazio erradiatzaileen eta euro-

par barbaroen arteko erronka-sailean? Bai, egin daiteke, bai baitira bi adibide oraindik kontuan hartu gabeak: Bata, Erromako Elizaren —gure Mendebaldeko Gizartearen guraso den aldetik— eta «zerrenda zeltikoan» zegoen Mendebalde Urruneko Kristandade abortatuaren arteko gatazka; eta bestea, lehen faseetan zegoen gure Mendebaldeko Gizartearen eta Iparralde Urruneko edo bikingoen Eskandinaviar Gizartearen arteko gatazka. Bi gatazka hauetan antagonista «atzegoardia» barbaro bat zen, beti Erromako agintearen irispidetik kanpo egona eta hiltzorian zegoen Gizarte Helenikoaren gorputzean abangoardia teutonikoa ezpata sartzen ari zen garaian —Gizarte hura sunsitzeko eta, bide batez, bera suntsitua izateko— erreserban egona. Gainera, bi atzegoardia hauek arrakasta-maila bat lortu zuten, akeoen mailara iritsi ez arren, teutoiena baino askoz handiagoa, hauek akeoen ondoren hurrengoak zirelarik egin dugun lau terminoko konparazioan. Akeoek arrakasta izan zuten zibilizazio handi bat egiten, eraso zuten Zibilizazio Minoikoa ordeztu zuena. Abangoardia teutonikoak «denboraldi on» iragankor bat izan zuen suntsipen-orgia atsegingarria, baina ez zuen balio positiboko ezer, edo ia ezer, lortu. Bestalde, Mendebalde Urruneko kristauak eta Iparralde Urruneko bikingoak bakoitza zibilizazio bat sortzeraino iritsi ziren, baina kasu bakoitzean enbrioia hil egin zen gogorregia gertatu zitzaion erronkagatik. Dagoeneko eta inplikazioz behin baino gehiagotan aipatu dugu zibilizazio abortatuen existentzia, gure jatorrizko zerrendan sartu gabeko zibilizazioak, zibilizazio baten funtsa heldutasuna lortzean baitago, eta beste horiek «haur-hilkortasunaren» biktima dira. Gure argudio-bidean horietako bi aztertzeke aukera dugu orain⁵⁶.

Mendebalde Urruneko Kristau Zibilizazio abortatua

Zerrenda zeltikoak modu bere-berean erreakzionatu zuen kristautasunaren aurrean. Arrianismora konbertituriko godoak edo katolizismora konbertituriko anglosaxoniarrak ez bezala, zelta hauek ez zuten erlijio atzerritarra hartu aurkitu zuten bezala. Beren jatorrizko tradizioa apurtzen utzi gabe, moldatu egin zuten beren gizarte-ondare barbarora egokitzeke. «Beste ezein arrazak ez zuen», dio Renanek, «horrelako orijinaltasunik erakutsi kristautasuna bereganatzeko eran». Hau erromatarren gobernupean Britainia Handiko zelta kristautuek izandako erreakzioetan ere ikus genezake beharbada. Ezer gutxi daki-gu haiei buruz, baina badakigu, heresiarka bat sortu zutela, Pelagio,

bere garaiko kristau-mundua asaldatu zuena. Epe luzera pelagianismoa baino garrantzitsuagoa izan zen, hala ere, Pelagioten herrikide eta garaikide izan zen Patrizioten lana, kristautasuna erromatar munduaren mugez harantzago Irlandara eramane zuena.

Itsasosteko Völkerwanderung ingelesa (Britainia Handiaren anglosaxoiar inbasioa), britainiar zeltei kolpe suntsigarria eman ziena, irlandar zelten zori ona izan zen. Ondorioa Irlanda, bertan kristautasunaren hazia erein eta berehala, Mendebaldeko Europako erromatar probintzia zaharretatik banatzea izan zen, non kristau-zibilizazio berri bat ari baitzen garatzen, Erromarantz zuzendua. Banaketa honek ahalbidetu zuen hazkunde goiztiarraren etaparik eratzaileenean «Mendebalde Urruneko Kristau Gizarte» banatu eta desberdin baten enbrioi —muina Irlandan zuena— azaleratzea, Mendebaldeko Kristandade Kontinental jaio berriaren azaleratzearekin batera. Mendebalde Urruneko Kristandade honen orijinaltasuna era berean ageri da bere eliz antolamenduan, bere erritual eta hagiografian, eta bere literatura eta artean.

San Patrizioten misiotik (K.o. 432-61ean data daiteke) ehun urteren buruan, Irlandako Eliza, bere ezaugarriak garatzeaz gain, alde askotatik katolizismo kontinentalaren buru zen. Hau, banaketa-aldia igaro zenean, irlandar misiolari eta jakitunei Britainia Handian eta Kontinentean egin zitzaizen ongi etorriaren berotasunak frogatzen du, baita Irlandako eskoletan sartzeko Britainia Handiko eta Kontinenteko ikasleek erakutsi zuten irrikak ere. Irlandar kultur nagusitasunaren denboraldia Irlandan Clonmacnois-en unibertsitate monastikoa 548an sortu zenetik Ratisbonan St. James irlandar monasterioa 1090ean sortu zen artekoa izan zen. Baina kulturaren transmisio hau ez zen izan uharteko eta kontinenteko Kristandadeen artean harreman-berritzeak ekarri zuen gizarte-ondorio bakarra. Botereagatik borroka izan zen beste ondorio bat. Ea Mendebaldeko Europan etorkizuneko zibilizazioak irlandar ala erromatar enbriotik irten behar zuen eztabaidatzen zen; eta puntu honetan beren kultur nagusitasuna galdu baino askoz lehenago menderatu zituzten irlandarrak.

Borroka zazpigarren mendean iritsi zen bere gailurrera, San Agustin Canterburykoaren eta San Kolunbano Ionakoaren ikasleen arteko lehian Northumbriako angloen konbertsioagatik: haien ordezkariak topaketa dramatikoak izan zuten Whitby-ko sinodoan (K.o. 664)

eta Northumbriako erregeak San Wilfredo Erromako garailearen aldeko erabakia hartu zuen. Erromatar garaipena ia berehala berretsi zen, Teodoro Tarsokoa Kontinentetik etorri zenean Canterburyko artzapezpiku izendatuta, Erromako elizbarruti sistemaren arabera Ingalaterrako Eliza antolatzeraz, metropoli aulkiak Canterburyn eta Yorken ezarriz. Ondorengo mende-erdian, zerrenda zeltikoko komunitate guztiek —piktoek, irlandarrek, galestar eta bretoiek, eta azkenik Ionak berak— onartu egin zituzten erromatar tontsura eta Pazkoaldia kalkulatzeko erromatar metodoa, Whitbyn formalki eztabaidagai izandako puntuak. Baina beste desberdintasun batzuk ez ziren hamaigarren mendera arte erabat desagertu.

Whitbyko sinodoaren garaitik aurrera Mendebalde Urruneko Zibilizazioa bakarturik eta hil beharrean gelditu zen. Irlandak kristauaroko bederatzigarren mendean latz sufritu zuen bikingoek egindako sarraldiekin, Irlandako monasterio bakar batek ere ez baitzion lapurretari ihes egin. Dakigun neurrian, Irlandan idazlan bakar bat ere ez zen latinez idatzi bederatzigarren mendean, nahiz eta aldi hartan bertan Kontinentean errefuxiatutako irlandarren jakinduri maila gorenean egon. Eskandinaviar erronka —literalki Ingalaterra eta Frantzia egin zituen, ingeles eta frantziarrak maila hobezinera estimulatu baitzuten—, bere bakartze berrituan aurkeztu zitzaion Irlandari, hain gogortasun gehiegizko ezzen garaipen pirrikoa bakarrik irabazi ahal izan baitzuen: Brian Boru-k inbaditzaileak menderatu zituen Clontarf-en. Azken kolpea Anjouko Enrike II.a erregeak eman zuen Irlandaren konkista anglo-normandiarra hastean, aita santuaren bedeinkazioarekin, hamaigarren mendearen erdian. Bere zibilizazio berri bat sortu ordez, zerrenda zeltikoko aitzindari espiritualen patua izan zen zergapetuak izatea, sorkuntza independentearen jaiotzatiko eskubidea lapurtzen ari zitzaizkien lehiakideen partetik, hain zuzen. Irlandar jakinduria Mendebaldeko Zibilizazio Kontinentalaren aurrerapenari aplikarazi zitzaion, irlandar jakintsuak —Irlandatik ihesi eskandinaviar erasoaldietatik babestu nahian—, karolinjiar errenazimentuaren zerbitzura jarri zirenean, bertan figurarik handiena, zalantzarik gabe, Joan Eskoto Erigena irlandar helenista, filosofo eta teologoa izan zelarik.

Eskandinaviar Zibilizazio abortatua

Mendebaldeko Zibilizazio berriaren sortzaile izateko pribilegioagatik Erroma eta Irlandaren arteko lehian, ikusi izango da

Erromak ozta-ozta lortu zuela jokaldia irabaztea. Eta jaio berria zen Mendebaldeko Kristandadeak artean bere haurtzaroan zegoen bitartean ekin behar izan zion, atsedenaldirik laburrenaren ondoren, sari beraren bila bigarren borrokari, oraingoan Eskandinavian erreserban egondako Ipar Europako barbaroen atzegoardia teutonikoarekin gatazkan. Aldi honetan are ikaragarriagoak ziren zirkunstantziak. Maila militar nahiz kulturean zertu zen proba, eta lehian zeuden bi aldeak askoz ere indartsuagoak ziren, baita elkarrekiko arrotzagoak ere, bi mende lehenago geroko Mendebaldeko Kristandadearen irlandar eta erromatar enbrioi lehiakideak beren artean izan ziren baino.

Eskandinaviarren eta irlandarren historiak, Mendebaldeko Kristandadearekin nork bere gatazka izan aurretik, paraleloak izan ziren, gero antagonista izango zutenagandik biek bakarraldi bat izan zuten neurrian. Irlandar kristauak bakartuta gelditu ziren anglosaxoniarrak Ingalaterrara sartzean. Kristau-aroko seigarren mendea bukatu baino lehen eskandinaviarrak bakartuta gelditu ziren Erromatar Kristandadetik, eslaviar paganoak tartearri baitziren; hauek lehorrez etorri ziren Baltikoko hegoaldeko kostetan zehar Niemengo lerrotik Elbako lerrora barbaro teutonikoen emigrazioak utzitako hutsunea betetzera, hauek eskualdetik irten egin baitziren Völkerwanderung posthelenikoan inplikaturatik egon zirelako, eskandinaviarrak etxean egon ziren bitartean. Honela irlandarrak bakartuta aurkitu ziren beren lagun kristauengandik eta eskandinaviarrak beren lagun teutoiengandik, tartean barbaroagoak sartu zitzaizkielako. Bazen, ordea, funtsezko desberdintasun bat. Erromatar Inperioaren aurreko irradiazioek, anglosaxoniarraren sarraldia baino lehen, kristautasunaren txinparta piztu zuten irlandarren artean, bakarraldian sugar bihurtu zena; bitartean eskandinaviarrek pagano izaten jarraitu zuten.

Eskandinaviar Völkerwanderung-a, gainerako Völkerwanderung-ak bezala, gizarte barbaro baten erreakzioa izan zen zibilizazioaren eraginaren aurrean, kasu honetan Karlomagnoaren Inperioan gorpuztua. Inperio hau iruzurkeria izan zen, aldi berean arranditsua eta goiztiarra izan zelako. Gainegitura politiko anbiziotsua izan zen, garatu gabeko gizarte- eta ekonomi euskarrien gainean ausarkeriaz metatua; eta honen sendotasun-ezaren adibiderik nabariena Karlomagnok Saxonia konkistatu zueneko *tour de force* delakoa izan zen. Karlomagnok 772an Saxonia Erromatar Kristandadearen altzora

konkista militarrez ekarri nahi izan zuenean, zoritxarrez eten egin zuen sartze baketsuaren politika, aurreko mendean misiolari irlandar eta ingelesek gauzatua, eta Kristandadearen mugak benetan zabaldu zituen, babariarrak, turingiarrak, hessiarrak eta frisiarrak konbertituz. Hogeita hamar urteko frankosaxoniarrak gerraren probak behartu egin zituen jaio berria zen Mendebaldeko Gizartearen ehun ahulak eta, garai batean etruskoen hedapen anbiziotsua Alpeen oinetan geratu zenean, zelten arimetan iratzarri zen *furor barbaricus* berbera sortu zen eskandinaviarren arimetan.

Kristo ondorengo zortzigarren mendetik hamaikara bitartean eskandinaviar hedapenak gaintitu egin zuen K.a. bosgarren mendetik hirugarrenera bitarteko hedapen zeltikoa, zabaleraz nahiz intentsitatez. Mundu helenikoaren bilketa abortatua zeltek egina, bere eskuineko hegala Espainiaren bihotzeraino eta ezkerrekoa Asia Txikiaren bihotzeraino eramane zuena, murriztu egin zuten bikingoen operazioek, eta hauek Kristandade Ortodoxoa mehatxatu zuten, baita Mendebaldeko Kristandadea ere ezkerreko hegala Errusiara eta eskui-nekoa Ipar Amerikara zabalduz. Baina bikingoak Londres, Paris eta Konstantinopla pasatuz Tamesin, Senan eta Bosforon indarrez aurrera egiten saiatu zirenean, bi kristau-zibilizazioak arrisku handiagoan egon ziren, zeltak une batez Erroma eta Mazedoniaz jabetu zirenean Zibilizazio Helenikoa egon zena baino. Berrir ere, Eskandinaviar Zibilizazio abortatua —Islandian garatzen hasia, bere edertasun izoztua kristautasunaren arnas beroak urtu eta zerbait eragabe bihurtu aurretik—, askoz ere aurreratuagoa izan zen bere lorpen nahiz promesetan garatu gabeko kultura zeltikoa baino, berorren aztarnak aurkitu dituztelarik arkeologo modernoek⁵⁷.

Azterlan honetan erabilitako metodoaren izaerari dagokio gertaera historiko berberak testuinguru desberdinetan agertzea. Dagoeneko deskribatu dugu eskandinaviar inbasioek Ingalaterra eta Frantziako herriei planteaturiko erronka, eta ikusi dugu erronkatik garaile atera zirela beren batasuna lortu zutelako eta, are gehiago, eskandinaviar kolonizatzaileak konbertitu eta beren zibilizazioan sarrarazi zituztelako (ikus 172. or.). Era berean, kristau-kultura zeltikoa desagertu ostean, haren semeek Erromatar Kristandadea aberastan lagundu zuten bezala, horrela normandiarrak eraso latindarraren abangoardia bihurtu ziren bi mende geroago. Izan ere, historialari

batek, paradoxa bizi batez, kristauturiko espedizio bikingotzat deskribatu du Lehen Gurutzada. Dagoeneko azaldu dugu Islandiaren esanahia Eskandinaviar Zibilizazio abortatuaren bizimoduan, eta eskandinaviar paganoek akeoen lorpena berdindu izan balute eta, kristautasuna ezkutaraziz, Mendebaldeko Europa osoan beren kultura paganoa Zibilizazio Helenikoaren ondorengo bakartzat eremu hartan ezarri izan balute sortu zitezkeen emaitza arraroez ere espekulatu dugu. Oraindik begiratu bat eman behar diogu Eskandinaviar Zibilizazioaren konkista eta desagerpenari bere sorlekuan.

Konkista hau Karlomagno baztertu zituen taktiketara itzuliz lortu zen. Mendebaldeko Kristandadearen autodefentsa, halaberharrez, bide militarretatik egin zen, baina, Mendebaldeko defentsiba militanteak eskandinaviar ofentsiba militantea geldiarazi orduko, mendebalderrek sartze baketsuaren taktikak hartu zituzten berriro. Mendebaldeko kristau-lurretako kolono eskandinaviarrak konbertitu eta honela jatorrizko leialtasunetik aldenarazi ondoren, Mendebaldeko Kristandadeak taktika berberak aplikatu zizkien sorlekuan gelditu ziren eskandinaviarrei. Eta puntu honetan eskandinaviarren bertuterik nabarienteko batek —hartzeko gaitasun azpimarragarriak— beraiek desegiten lagundu zuen; Mendebaldeko kristau jakintsu garaikide bat ohartu zen ezaugarri horretaz eta txar samarrak diren bi hexametrotan adierazi zuen⁵⁸: «Beraien estandartepean jartzen direnen ohitura eta hizkuntza hartzen dituzte, eta beraz arraza bakarra izaten da emaitza».

Adibidez, bitxia da ohartzea eskandinaviar gobernariak, kristautasunera konbertitu aurretik ere, Karlomagno heroi bihurtu zutela eta beren semei Karlo edo Magno izena jartzeko joera izan zutela. Belaunaldi berean Mendebaldeko Kristandadeko gobernarien artean Mahoma eta Omar bihurtu balira kristau-izen gogokoenak, ziur ondorioztatuko genukeen moda berri honek ez zuela Mendebaldeko Kristandadearentzat gauza onik iragartzen Islamarekiko borrokan.

Errusia, Danimarka eta Norvegiako eskandinaviar erresumetan, kristautasunera konbertitzeko kanpo-egintza formala hiru eskandinaviar printzeren *fiat* arbitrarioak ezarri zion saldoan herriari, hiruak erregetzan garaikide izan zirelarik hamargarren mendearen bukaera aldera. Norvegian aurkakotasun bizia izan zen hasieran, baina Danimarkan eta Errusian itxurazko pasibotasunez onartu zen aldake-

ta. Honela, Eskandinaviar Gizartea konkistatu ez ezik, zatitu ere egin zuten, zeren eta Kristandade Ortodoxoak, bikingoen erasoaldian bere partea jasan zuenak, ondorengo erlijio- eta kultur kontraerasoan ere hartu baitzuen parte.

«Errusiako (eskandinaviar printzerriko) enbaxadore eta merkatariek basoetako idolatria Konstantinoplako superstizio dotorearekin parekatu zuten. Miresmenez begietsia zuten Sta. Sofiako kupula: santu eta martirien pintura biziak, aldareko aberastasunak, apaizen kopurua eta jantziak, zeremonien handitasun eta ordena; txundituta gelditu ziren deboziozko isiltasunaren eta kanta-hots harmoniatsuen txandaketagatik; eta ez zen zaila izan haiei sinestaraztea egunero aingeruen abesbatza bat jaisten zela zerutik kristauen debozioarekin bat egitera»⁵⁹.

Ia berehala Islandiaren konbertsioa etorri zen 1000. urtean, eta kultura islandikoaren bukaeraren hasiera izan zen. Egia da ondorengo jakintsu islandikoak —sagak idatziz jarri, poema eddikoak bildu eta eskandinaviar mitologia, genealogia eta legearen digesto klasikoak egin zituztenak—, kultur ondare kristau nahiz nordikoz hornituak zeudela guztiak ere; konbertitu ondoren ehun eta berrogeita hamar edo berrehun eta berrogeita hamar urte geroago egin zuten beren lana. Baina atzerantz begiratzen zuen jakinduria hau jeinu islandikoaren azken balentria izan zen. Poema homerikoek historia helenikoan jokatutako paperarekin kontrasta genezake. Hauek ere «atzerantz begiratzen zuen jakinduriaren» lana izan ziren, «Homerok» ez baitzien forma literarioa eman inspiratu zituen aro heroikoa igaro zen arte. Baina jeinu helenikoa, epika lortu ondoren, beste arlo batzuetan tamaina bereko lorpen gehiago zertzero igaro zen bitartean, lorpen islandikoa desagertu egin zen bere gailur «homerikoa» K.o. 1150-1250 aldera erdietsi ondoren.

4.

Islamaren eragina Kristandadeetan

Gure ikerlanaren zati hau bukatzeko, ikus dezagun ea Islamak Kristandadeetan izandako eraginak ematen digun dagoeneko irakurle-

ari ezagun zaizkion «hiru terminoko konparazio» horietako beste bat. Jadanik aurkitu dugu beste zerbaiti lotua Islamaren erronkak erantzun ezin hobearekin eragin zuela. Kristau-aroko zortzigarren mendean franko-
ei planteaturiko erronkak hainbat mendetako kontraerasoa sortarazi zuen, eta honek Islamaren jarraitzaileak Iberiar penintsulatik kanpo botatzeaz gain, hasierako helburutik urrutirago joanez, espainiarrak eta portugaldarrak munduko kontinente guztietara eramanez zituen itsaso-
soz gaindi. Kasu honetan ere ikus genezake fenomeno bat, Mendebalde Urruneko eta Eskandinaviar zibilizazioen hondamenak aztertu ditugunean dagoeneko aurkitu duguna. Iberiako kultura musulmana, guztiz erauzia eta desegina izan aurretik, antagonista garailearen onurarako izan zen ustiatua. Espainia musulmaneko jakintsuek Erdi Aroan Mendebaldeko kristau jakintsuek jasotako eraikuntza filosofikoari lagundu zioten horretarako asmorik gabe, eta Aristoteles filosofo helenikoaren lanetako batzuk arabiar itzulpenen bidez iritsi ziren lehenik Mendebaldeko kristau-mundura. Egia da, halaber, «ekialdeko» eragin asko Mendebaldeko kulturara, gurutzatuen Siriako printzerrien bidezko infiltrazioari egotzi izan zaizkionak, Iberia musulmanetik etorri zirela benetan.

Iberia bidez eta Pirinioen gaindik Mendebaldeko Kristandadeari egindako eraso musulmana ez zen benetan ematen zuen bezain ikaragarria izan, fronte honen eta Hego-mendebaldeko Asian zeuden energia islamikoaren iturburuen arteko komunikazio-linearen luzeragatik, eta ez da zaila komunikazio-lineak laburragoak izan eta ondorioz eraso musulmana gogorregia gertatu zitzaiona eskualde bat aurkitzea. Eskualde hau Anatolia da, garai hartan Zibilizazio Kristau Ortodoxoaren gotorleku. Erasoaren lehen fasean arabiar erasotzaileek «Rum» (beraiek horrela deitzen zuten, Erroma alegia) ekintzaz kanpo utzi nahi izan zuten eta, aldi berean, Kristandade Ortodoxoa menderatu, Anatolian zehar hiri inperialari berari eraso eginez. Musulmanek arrakastarik gabe setiatu zuten Konstantinopla 673-7an, eta 717-18an berriro. Bigarren setioak porrot eginda gero ere, bi potentzien arteko muga Tauro mendilerroan aurkitzen zenean, Kristandade Ortodoxoan Anatoliaren agindupean geratzen ziren lurretan musulmanak sartzen ziren erregularlari urtean bi aldiz.

Kristau ortodoxoek bide politikotik erantzun zioten presio honi; eta erantzun honek arrakasta izan zuen epe laburrean, arabia-

rrei arrastoean eustea lortu zuen neurrian. Epe luzera, bestalde, zorigaiztokoa gertatu zen, ondorio kaltegarriak izan baitzituen Kristau Gizarte Ortodoxoaren barne-bizitza eta hazkunderako. Bidea Erromatar Inperioaren «arimari» mundu kristau ortodoxoan Leon Isauriarrak egin zion deia izan zen, balentria bera arrakastarik gabe (eta, beraz, kalterik gabe, gutxi gorabehera) Karlomagno Mendebaldean zertzen saiatu baino bi belaunaldi lehenago. Leon Isauriarraren lorpenaren ondorioz txarrena bizantziar estatuaren handiagotzea izan zen Eliza Ortodoxoaren kontura, eta ondorioz etorri zen Ehun Urteko gerra odoltsua bi aldeon artean: Ekialdeko Erromatar Inperioa eta Patriarkatza alde batean eta Bulgariar Inperioa eta Patriarkatza bestean. Bere buruari egindako zauri hau Gizarte Kristau Ortodoxoaren heriotza izan zen bere jatorrizko eran eta jatorrizko sorlekuan. Gertaera hauek aski dira erakusteko eragin islamikoak Kristandade Ortodoxoari planteaturiko erronka gehiegizkoa izan zela, Mendebaldeko Kristandadeari planteaturikoa ez bezala.

Aurkitu ote genezake kasuren bat, eragin islamikoa estimulgari gertatu ez zena, behar hainbat gogorra izan ez zelako? Bai, emaitzak Abisinian ikusten dira gaur egun ere. Kristau monofisituen komunitatea, Afrikako gotorleku honetan bizirik iraun duena, munduko gizarte-bitxikerietako bat bihurtu da: lehenik, oso-osorik iraun izanagatik, ia erabat bakartuta beste kristau-komunitateengandik, duela hamahiru mende arabiar musulmanek Egipto konkistatu ondorengo denbora guztian; eta bigarren, kultur maila oso apalagatik. Nahiz eta Abisinia kristaua, zalantza batekin, Nazioen Ligan kide izateko onartua izan, desordena eta barbarotasunaren sinonimo bihurtu zen: anarkia feudal eta tribalaren desordena eta esklabotasunaren barbarotasuna. Egia esan, Liberiaz gain, erabateko independentziari eutsi zion Afrikako estatu bakarrak eskaintzen zuen ikuskizuna izan zen agian Afrikaren gainerakoa Europako potentzien artean banatzeko aurki zitekeen justifikaziorik onena.

Hausnarketak erakusten du Abisiniaren berezitasunak —independentziak irautea eta kulturaren gelditasuna— kausa beretik zetozela biak: fosil hau gorderik egon zeneko goi-lurretako gotorlekua erasozina izatetik, alegia. Islamaren uhinak eta gure Mendebaldeko Zibilizazio modernoaren uhin indartsuagoak labarraren barrena jo

dute eta une batean beren gandorraren gain hautsi dira, gailurra inoiz urperatu gabe iraunkorki.

Uhin etsai hauek goi-lurretara okasio gutxi eta laburretan iritsi izan dira. Abisinia musulmanek konkistatzeko arriskuan egon zen hamaseigarren mendearen lehen erdian, Itsaso Gorriaren kostako behelurretan bizi ziren musulmanek suzko armak abisiniarrek baino lehenago hartu zituztenean; baina somaliarrek osmanliarrengandik lorturiko arma modernoak abisiniarren eskuetara iritsi ziren portugesen bidez suntsipenetik libratzeko behar-beharrezko unean. Ondoren, portugaldarrak beren txanda hartu eta gogaikarri gertatzen hasi zirenean abisiniarrak monofisismotik katolizismora konbertitzen saiatuz, kristautasunaren Mendebaldeko bertsioa ezabatu egin zen eta Mendebaldeko bisitari guztiak kanporatu egin zituzten herrialde hartatik 1630eko urteetan, Japonia ere antzerako politika zertzen ari zen garai berean.

Britainiarrek 1868an Abisiniara egindako espedizioa erabateko arrakasta izan zen, baina geroko ondorioz gabe, hamabost urte lehenago Ipar Amerikako itsas armadak egin zuen «Japoniaren irekitzea» ez bezala. Hala ere, «Afrikagatiko lasterketaren» garaian hemeretzigarren mendearen azken urteetan, Europako potentziaren batek heldu behar zion Abisiniari, eta italiarrak saiatu ziren horretan. Portugaldarrek bi mende eta erdi lehenago jokaturiko papera oraingotan frantziarrek jokatu zuten, eta Menelik enperadorea errifle automatikoz hornitu zuten eta gai egin inbaditzaile italiarrari 1896an hondamen ospetsua eragiteko Aduan. Italiarrak —berengan neobarbarotasunaren berariazko lanketak maltzurki sendotuta— are erabakitasun handiagoz kargara itzuli zirenean 1935ean, une batez bazirudien arrakasta izan zutela Abisiniaren antzinako menderagaiztasunari bukaera ematen, baita Mendebaldeko mundu atsekabetuarentzat segurtasun kolektiboaren promesa jaio berriari ere. Baina Etiopiako Italiar Inperioaren aldarrikapenetik lau urtera 1939-45eko gerra orokorrean Mussoliniren esku hartzeak britainiarrak —Nazioen Liga salbatzearen 1935-6an Abisiniari laguntzera etorri ez zirenak— beren larrua salbatzera bultzatu zituen 1941-2an, Abisiniari, guztiaren ondoren, aurreko larrialdietan frantziar eta portugaldarrek eman zioten zerbitzu eskuzabal bera emanez.

Atzerriko lau eraso hauek dira Abisiniak jasan behar izan zituen guztiak kristautasuna hartuz geroztiko hamasei mendeetan, eta

lehen hirurei, edonola ere, azkarregi aurre egin zitzaizen estimulagarriak izateko. Gainerantzean, haren esperientzia hutsa izan da, eta historiarik gabeko nazioa zoriontsu delako esaldia gezurtatzeko balio izan lezake. Haren iraganak bortxakeria txiki baina monotono eta garrantzirik gabeak ditu apatiazko fondoaren kontra, apatia hitzak, jatorrizko grekoan⁶⁰, esperientziaren sufrimenduek zauritu ezina esan nahi du edo, beste hitz batzuetan, haren estimuluarekiko sentiberatasunik eza. 1946an, Haile Selassie enperadorea eta haren ordezkari liberalen taldea egiten ari ziren erreforma-ahalegin adoretuak gorabehera, ikuskizun geratzen zen Abisiniaren aurkako atzerritarren laugarren erasoak aurrekoek baino efektu estimulagarriagorik izango zuen ala ez.

III. ZIBILIZAZIOEN HAZKUNDEAK

IX. ZIBILIZAZIO GERARAZIAK

1.

Polinesiarrak, eskimalak eta nomadak

Azterlan honen aurreko zatian zaila dela onarturik dagoen arazo batekin borrokatu gara: nola sortzen diren zibilizazioak; baina orain aurrean dugun arazoaz, baliteke errazegia dela uste izatea arazotzat hartzea merezi ote duen pentsatzeko. Behin zibilizazio bat jaio ondoren, eta ernamuietan dagoela ez bada moztzen, hau izan baita zibilizazio abortatuak deitu ditugun horien patua, ezin al da horren hazkundera gauza normaltzat jo? Galdera honi erantzuna aurkitzeko erarik onena beste galdera bat egitea da: Gertaera historikoa dela aurkituko ote dugu jaiotza eta haurtzaroko arriskuak gainditu dituzten zibilizazioak beti hazten direla «heltzaroraino»? Beste era batera esanda, beti iristen ote dira bere garaian ingurunearen eta bizimoduaren kontrola lortzera, horiek liburu honen bigarren kapituluaren bildutako zerrendan sartzeko guri justifikatuz? Erantzuna da batzuk ezetz. Dagoeneko aipatu ditugun bi mota horiez gain, zibilizazio garatuak eta zibilizazio abortatuak, bada hirugarren bat, zibilizazio geraraziak deitu behar duguna. Bizirik iraun duten baina hazi ez diren zibilizazioek behartzen gaituzte hazkunderaren arazoa aztertzerako; eta gure lehen urratsa kategoria honetako zibilizazioen espezimenak bildu eta aztertzea izango da.

Erraz eskura genezake espezimen hauetako dozena-erdi bat. Erronka fisikoei erantzunez jaio diren zibilizazioen artean, polinesiarrak, eskimalak eta nomadak daude, eta giza erronkei erantzunez sortu

diren zibilizazioen artean badira zenbait komunitate berezi: osmanliarrak mundu kristau ortodoxoan eta espartarrak mundu helenikoan, hauek gailenduriko giza erronken tokian tokiko areagotzeak sortarazi izan ditu, erronkak, zirkunstantzia bereziengatik, ezohiko gogortasun-mailara iritsi direnean. Hauek guztiak zibilizazio gerarazien adibideak dira, eta berehala ikusiko dugu izaera orokor bereko koadroa ageri dutela guztiek.

Zibilizazio gerarazi hauek guztiak mugiezinda geratu dira *tour de force* bat egin dutelako. Garapen handiagorako estimulua ematen duen mailaren eta hondamena eragiten duen mailaren artean mugamugan dagoen gogortasun-mailako erronkei emandako erantzunak dira. Igokariaren alegiako iruditerian (ikus 90. or.), zibilizazio hauek esekita gelditu direnak bezala dira, ez atzera eta ez aurrera egin ezinik. Berauen postura mugiezintasun arriskutsuarena da tentsio altuan; eta erantsi genezake aipaturiko bost horietatik lauk azkenean porrota onartu behar izan zutela. Horietatik batek bakarrik, eskimalen kulturak, jarraitzen du oraindik bizirik.

Polinesiarrek, adibidez, ozeano-bidaia ausarten *tour de force*-ra arriskatu ziren. Haien trebetasuna bidaia ikaragarri hauek kanoa ireki hauskorretan egitea izan zen. Haien nekea, zehazki ez dakigun baina zalantzarik gabe luzea izan zen denboraldian, Ozeano Barearekin oreka-orekan egotea izan zen —haren espazio huts zabalak zeharkatzeko gai, baina sekula ez segurtasun edo erosotasun-marjinaz zeharkatzeko gai— tentsio jasangaitzak bere arinbidea aurkitu zuen arte ahulduz; ondorioa, minostarren eta bikingoen antzinako parekide hauek lotojaleen eta egizunahiduzuna-tarren haragitze bihurtu direla, ozeanoaren kontrola galdu eta hodartuta geratu beharraz etsita, nor bere uharteko paradisuari, Mendebaldeko marinelak beraiengana iritsi arte. Ez daukagu hemen aztertu beharrik polinesiarren azken amaiera, Bazko uhartea zela eta, dagoeneko ukitu baitugu gai hori (ikus 127. or.).

Eskimalei dagokienez, haien kultura Ipar Amerikako indiarren bizimoduaren garapena izan zen, Ozeano Artikoaren kostetako bizibaldintzetara bereziki egokitua. Eskimalen *tour de force* neguan izotz barruan edo gainean egotea izan zen eta itsas txakurrak harrapatzea. Zernahi izanda ere eragingarri historikoa, garbi dago, beraien historiako punturen batean, eskimalen arbasoak ausarki borrokatu zirela

Artikoko ingurunearen aurka eta beren bizitza trebetasun handiz ego-
kitu zutela haren eskakizunetara. Baieztapen hau frogatzeko, aski da
eskimalek egin edo asmatu-riko lanabesen katalogoa erakustea:
«kayak, umiak (emakumeen ontzia), arpoia eta hegazti-gezia bere
jaurtitzeko taularekin, hiru hortzeko lantza izokinetarako, uztai kon-
posatua nerbiozko errefortzuz sendotua, zakur-lera, elurretako oineta-
koak, neguko etxea eta elur-etxea balen olio-*a* erretzeko kriseiluekin,
eta plataforma, udako kanpadenda eta, azkenik, larruzko jantziak»⁶¹.

Hauek dira buruargitasun eta borondatearen balentria harriga-
rri baten kanpoko seinale ikusgarriak; eta hala ere,

*«zenbait puntutan, gizarte-antolamenduari dagokionez adibi-
dez, eskimalak garapen apalxeagoa agertzen du. Baina eztabaidaga-
rria da ea gizarte-diferentziazio apalago hau primitibotasunari zor
zaion ala ez ote den aspaldidanik eskimalek bizi izan dituzten natur
baldintzen ondorio. Ez da kultura eskimalaren ezagutza sakonik behar
ikusteko kultura horrek bizigaiak irabazteko baliabideak garatzera
zuzendu behar izan duela bere indarraren zati oso handia»*⁶².

Ingurune artikoarekin borrokatzeko ausardiagatik eskimalek
ordaindu behar izan zuten zigorra beren bizitza klima artikoaren urte-
ko ziklora zurrun moldatu beharra izan da. Tribunal ogibidea ateratzen
duten guztiak beharturik daude lan desberdinak egitera urte-sasoi des-
berdinetan, eta Artikoko naturaren tiraniak hango ehiztariari ezartzen
dion ordutegia «kudeaketa zientifikoaren» giza tiraniak edozein fabri-
ka-langileri ezartzen diona bezain zorrotza da ia. Egia esan, geure
buruari galde geniezaioke ea eskimalak Artikoko naturaren nagusi
diren ala esklabo. Antzerako galderarekin topo egingo dugu eta eran-
tzuteko zailtasun bertsuarekin, espartarren eta osmanliarren bizitza
aztertzeari ekiten diogunean. Baina lehenik beste zibilizazio gerarazi
baten patua hartu behar dugu kontuan, hau ere, eskimalena bezala,
erronka fisikoak eragina.

Eskimalak izotzarekin eta polinesiar-*ra*k ozeanoarekin borro-
katu ziren bitartean, nomadak, esteparen erronka onartu duenak,
aurrekoak bezain elementu tratagaitzarekin borrokatzeko ausardia
izan du; eta egia esan, gizakiarekiko harremanetan, estepak, belar eta
harkoskozko azaleran, benetan antz handiagoa du «uzta bildu gabeko
itsasoarekin» (Homerok sarri deitzen duen bezala) aitzurtu eta golda
daitekeen *terra firma*-rekin baino. Esteparen gainazalak eta uraren

gainazalak haxe dute amankomunean, erromes eta bidaiari den neurrian bakarrik erabil ditzakeela gizakiak. Ez batak eta ez besteak beren azalera zabalean inon ez diote gizakiari eskaintzen, uharte eta oasiez gain, ezarri eta bizimodu sedentarioa egiteko lekurik. Bidaiatu eta garraiatzeko biek eskaintzen dituzte askoz erraztasun handiagoak, giza komunitateek Lurrean beren egoitza iraunkorrak ezartzeko erabiltzen dituzten azalerek baino; hala ere, biek ezartzen dute, beraietan sartzeagatik zigortzat, etengabe mugituz ibili beharra, edota bestela beraien gainazalek erabat alde egin beharra inguruko *terra firma*-ren kostetara. Honela, benetako antzekotasuna dago urtero udako eta neguko larretokien orbita berari jarraitzen dion horda nomadaren eta urte-sasoiaren arabera sardaz sarda ibiltzen diren arrantzontzien artean; aurrez aurre dauden itsasertzetako produktuak trukatzten dituzten merkatari-konboien eta estepan aurrez aurre dauden ertzak lotzen dituzten gamelu-karabanen artean; uretako piratarren eta basamortuko bidelapuraren artean; eta minostarrak edo Europako iparraldekoak ontzia hartu eta Europa edo Levanteko kostetara itsas uhinak bezala oldartzera bultzatzen dituzten biztanleri mugimendu ez tandagarrien eta arabiar nomadak edo eszitiarrak edo turkiarrak edo mongolak urteroko orbitetatik irtenarazi eta antzerako bortxa eta bat-batekotasunez Egipto edo Irak edo Errusia edo India edo Txinako lurralde jendeztatueta bultzatzen dituzten mugimenduen artean.

Ikusiko da izaera fisikozko erronkari nomadek emandako erantzuna, polinesiarren eta eskimalena bezala, *tour de force* bat dela, eta kasu honetan, beste kasuetan ez bezala, eragingarri historikoa ez dela batere ustezko gauza. Badugu oinarririk ondorioztatzeko nomadismoa, Zibilizazio Egipziakoa eta Sumerikoa eta Minoikoa sortu eta Dinka eta Shilluk-en arbasoak ekuatore aldera eramane zituen erronka berberak eragin zuela: lehorketak, alegia. Nomadismoaren jatorriari buruz orain arte dugun argibiderik garbiena Pumpelly espedizioaren ikerketak emandakoa da, Kaspiar itsasoaz bestaldeko Anau oasian.

Hemen lehorketaren erronka aurkitzen dugu, bere lehen eragitan, aurrez ehizaz bizi izan diren zenbait komunitate bizibidea baldintza txarragoetan ateratzera estimulatzat garatu gabeko nekazaritza-forma baten bidez. Datuek erakusten dute nekazaritzaren fase hau nomadismoaren aurrekoa izan zela argi eta garbi.

Nekazaritzak izan zuen beste ondorio bat ere —zeharkakoa baina ez garrantzi txikiagokoa— *ci-devant* ehiztari hauen gizarte-historian; aukera berria eman zien erabat harreman berrietan hasteko basa animaliekin. Zeren eta basa animaliak etxekotzeko arteak —ehiztariak, bere egitekoaren izaeragatik, muga estu-estuez harantzago nekez egin dezakeena— askoz ere aukera handiagoak baititu nekazariarentzat. Ehiztariak ziur aski etxekotu lezake otsoa edo txakala —berauekin eztabaidatzen edo banatzen duelarik harrapakina— basa-piztia lagunkide bihurtuz, baina ia pentsaezina da ehiza etxekotu leza-keenik, bere harrobia delarik. Ez ehiztariak ehiz txakurrarekin, baizik eta nekazariak atari-txakurrarekin izango du hurrengo eraldaketa zertzeko ahalmena: honek artzaina eta ardi-txakurra emango dituelarik. Nekazariak ditu jaki-hornizioak idia edo ardia bezalako hausnarkarientzat erakargarriak, eta hauek ez lituzke ehiztariaren haragiak erakkariko, txakurrak bezala.

Arnauko froga arkeologikoez erakusten dute aurrerapauso hau gizarte-bilakaeran naturak lehorketaren torlojuari bigarren bira eman zionerako gauzatua zela Kaspiar itsasoaz bestaldean. Hausnarkariak etxekotzea lortzean, eurasiar gizakiak berreskuratu egin zuen potentzialki aurreko metamorfosian ehiztari izatetik laborari izatera igarotzean galdutako mugikortasuna, eta erronka zaharraren eragin berriari erantzunez mugikortasun aurkitu berriaz bi era oso desberdinetan baliatu zen. Kaspiar itsasoaz bestaldeko oasietako laborari batzuek pixkanaka migratzeko erabili zuten beren mugikortasuna —lehorke-tarako joera klimatikoa gogorrago bihurtu zenean are urrutirago joanez—, beti prest egon ahal izateko beren bizimodua egiteko moduko ingurune fisikoan. Habitata aldatu zuten beren azturak ez aldatzeko. Baina beste batzuk aldendu egin ziren haiengandik, erronka berari modu ausartagoan erantzun ahal izateko. Beste eurasiar hauek ere orain alferrikakoak ziren oasiak bertan behera utzi eta beren familia, abereak eta artaldeak harturik estepa babesgabera irten ziren. Beste hauek, ordea, ez ziren iheslari bezala urrutiragoko kostaren bila abiatu. Aurreko nekazari-lana bertan behera utzi zuten, arbasoek ehiza utzi zuten bezala, eta azkenaldian lorturiko artean arriskatu zuten bizimodua, abelazkuntzan alegia. Estepara igaro ziren, ez haren mugaz gaindi joateko, beren egoitza bertan egiteko baizik. Nomada bilakatu ziren.

Nekazaritza utzi duen eta estepan gelditu den nomadaren zibilizazioa, beren habitata aldatuz nekazaritza-ondarea gorde duten neba-arreben zibilizazioekin konparatzen dugunean, ohartuko gara nomadismoa nagusi agertzen dela hainbat eratan. Lehenik, animalien etxekotzea landareen etxekotzea baino arte bikainagoa da noski, giza argitasun eta borondatearen garaipena baita hain tratagarria ez den materialaren gain. Artzaina laboraria baino birtuoso handiagoa da, eta egia hau mitologia siriakoaren pasarte ospetsu batean adierazi da:

«Gizonak bere emazte Ebarekin harremanak izan zituen. Haurdun gelditu zen Eva, eta Kain —hau da, «Eskuratua»— izan zuen. Orduan, esan zuen: «Gizon bat eskuratu dut Jaunari esker». Gero, haren anaia Abel izan zuen. Abel artzain bilakatu zen; Kain, berriz, nekazari. Handik aldi batera, Kainek lurreko fruituen eskaintza egin zion Jaunari. Abelek ere ekarri zituen artaldeko lehen bildotsak eta ardi-gantza. Jaunak abegi on egin zien Abeli eta honen emaitzari; ez, ordea, Kaini eta honen emaitzari. Kain biziki haserretu zen, eta kopetilun zebilen»⁶³.

Nomadaren bizitza giza trebetasunaren garaipena da benetan. Berak jan ezin dituen belar zakarrez bizitzea lortzen du etxekotu dituen abereen esne eta haragi bihurtuz, eta urte-sasoia denean eta ez denean bere ganaduarentzat bizigaiak estepa soil eta lasaiko berezko landaretzatik ateratzeko, bere bizitza eta mugimenduak urte-sasoen ordutegira egokitu behar izaten ditu zehaztasun zorrotzez. Egia esan, nomadismoaren *tour de force*-k izaera eta portaera-maila oso handia eskatzen ditu, eta nomadak ordaindu behar duen zigorra funtsean eskimalarena bera da. Arrakastaz konkistatu duen ingurune izugarriak esklabo bihurtu du maltzurki. Nomadak, eskimalak bezala, klima eta landaretzaren urteroko zikloaren preso bilakatu dira; estepan ekimena eskuratzean, munduan oro har galdu egin dute ekimena. Hala ere, zibilizazioen historiaren agertokitik ez dira igaro beren arrastoa utzi gabe. Tarteka-marteka beren eremuetatik irten eta auzoko zibilizazio sedentarioen eremuetan sartu izan dira, eta okasio hauetako batzuetan dena aurrean eraman izan dute memento; baina oldarraldi hauek ez dira inoiz berezkoak izan. Nomada estepatik irten eta laborariaren baratzera sartu denean, ez du bere ohiko ziklotik aldentzeko berariazko asmoz egin izan. Bere kontroletik kanpo dauden indarrei erantzun die mekanikoki.

Horrelako bi kanpo-indarren —bultza egiten duen indar baten eta erakartzen duen beste baten— mende dago bera. Batzuetan estepatik kanpora bultza egiten dio lehorketa areagotzeak, honek aurreko habitata bere irauteko gaitasunetik kanpo jartzen diolarik; eta beste batzuetan estepatik kanpora erakartzen du alboko gizarte sendentarioen baten eremuan sorturiko gizarte-hutsaren zurgapenak —zibilizazio sedentario baten kolapsoa eta ondorengo Völkerwanderung-a bezalako prozesu historikoen eragiketaz sorturiko gizarte-hutsaren zurgapenak, alegia—, kausa hauek oso arrotzak zaizkiolarik nomadaren beraren esperientziari. Nomadek gizarte sedentarioen historian egindako eskuhartze historiko handien azterketak erakusten du esku-hartze horiek guztiak kausa hauetako bati edo besteari egotzi dakizkiokeela⁶⁴.

Honela, gertaera historikoen eremuan aldizka egindako sarraldiok gorabehera, nomadismoa historiarik gabeko gizartea da funtsean. Behin bere urteko orbitari ekin ondoren, horda nomada bertan mugitzen da gero, eta beti jarraituko luke horrela mugitzen, kanpo-indar batek —zeinen aurka babesgabea baita nomadismoa— azkenean ez balu hordaren mugimendua geldiaraziko eta haren bizitza bukaraziko. Indar hau bere inguruko zibilizazio sedentarioen presioa da; zeren eta Jaunak begirunez begiratu arren Abeli eta bere opariari, eta ez Kaini eta bereari, ez dago ahalmenik Abel Kainen heriotzatik libratuko duenik.

«Meteorologi ikerketa berriek txandakatze erritmikoa dagoela adierazten dute, mundu-mailakoa ziur aski, nolabaiteko lehorraldi eta hezealdien artean, honek laborarien eta nomaden txandakako sarraldiak eragiten dituelarik elkarren eremuetan. Nomadak pilatu duen ganadutzarentzat behar adina larre estepak eman ezin duen puntura iristen denean lehorketa, abeltzainak desbideratu egiten dira urteroko migrazioaren bidetik eta inguruko lurralde landuetara sartzen dira animalientzako eta berentzako janari bila. Bestalde, pendulu klimatikoak atzera egiten duenean eta hurrengo hezealdia iristen denean estepa sustrai eta zereal kultibatuak emateko gai den puntura, laborariak kontraerasoa egiten du nomadaren larreen gain. Beraien eraso-metodoak oso desberdinak dira. Nomadaren oldarraldia zalduneriaren eraso bezain bat-batekoa izaten da. Laborariarena, infanteriaren aurreakada bezalakoa. Urrats bakoitzean pikatxoiaz edo lurren-goldaz finkatzen du bere burua, eta errepideak edo trenbideak eginez ziurtatzen ditu komunikabideak. Piztualdi nomadaz gorde diren adibiderik harri-

garrienak turkiar eta mongolen sarraldiak dira, ziur aski azkenaurreko lehorraldiaren garaian gertatuak. Laborariaren inguraketaren adibide itzeletako bat ondoren Errusiak ekialdera egindako hedapena da. Bi mugimendu-motak dira anormalak, eta bakoitza ikaragarri desatsegina da bere kontura egitea jasan behar duen aldearentzat. Baina biak berdinak dira, kausa fisiko kontrolaezin bakar bati zor zaizkio eta.

«Laborariaren presio gupidagabea haren biktima izatea gertatzen zaionarentzat epe luzera mingarriagoa da ziur aski, nomadaren oldarraldi basatia baino. Mongolen sarraldiak bi edo hiru belaunalditan bukatu ziren; baina errusiar kolonizazioak, haiengatiko errepresalia izan zenak, laurehun urte baino gehiago iraun du: lehenik, kosakoen lerroen atzean, iparraldetik bazkalekuak inguratu eta estutu zituztelarik, eta gero Kaspiar itsasoaz bestaldeko trenbidean zehar, honek bere garroak hegoaldeko mugaren inguruan luzatu zituelarik. Nomadaren ikuspegitik, Errusia bezalako laborari-potentzia bat, Mendebaldeko industrialismoak burdinurtua bere nahierara transformatzeko erabiltzen dituen makina biribilkatzaile eta kolpatzaile horien antzekoa da. Nomadari heltzen dionean, edo bizia kentzen dio edo molde sedentarioan eusten dio, eta sartze-prozesua ez da beti baketsua izaten. Kaspiar itsasoaz bestaldeko trenbideak ireki zuen pasabidea turkomanen sarraskia eginez Göktepé-n. Baina nekez entzuten da nomadaren heriotza-deiadarra. Europako Gerraren garaian, 600.000 armeniarren hilketa arrazoitzeko Ingalaterran jendea turkiar otomandarren jatorri nomada argitara ateratzen ari zen bitartean, Kazak-en konfederazio kirgizean Erdialdeko Asiako 500.000 turkieradun nomada garbitzen ari zen —goiko aginduz han ere— «gizadiko zuzenena», errusiar muzhik-a»⁶⁵.

Nomadismoa Eurasian hamazazpigarren mendetik egon zen galdua, bi inperio sedentariok, Moskoviakoak eta Mantxuriakoak, kontrako eskualdeetatik beren garroak eurasiar esteparantz luzatu zituztenetik. Gaur egun gure Mendebaldeko Zibilizazioa, bere garroak lurbera osoaren gain zabaldu dituen, nomadismoaren erauzketa osatzen ari da antzina zituen beste eremu guztietan. Kenyan masaien larretokiak moztu eta txikitu egin dituzte Europako nekazariei bidea uzteko. Saharan Imoshagh-ak orain arte inor sartzan ez zitzaizen basamortuko gotorlekuan aeroplanoak eta beldar-ibilgailuak sartzan zaizkiela ari dira ikusten. Arabian ere, afrasiar nomadismoaren egonleku klasikoan,

badu-ak fellah bihurtzen ari dira derrigortuta, eta hau ez potentzia atzeritarren bidez, arabiarren arteko arabiar baten berariazko politikaz baidzik, Abd-al-Aziz Al-Saud, Najd eta Hijaz-eko (Saudi Arabiako) errege, eta musulman zelote puritanoen komunitate wehabitako aldi baterako buruaren politikaz, alegia. Handiki wehabita bat Arabiaren bihoitzean bere agintea automobil blindatuen bidez sendotzen eta ekonomi arazoak petrolio-hornigailuz eta putzu artesiaren bidez eta amerikarren petrolio-interesei egindako kontzesio bidez konpontzen ari denean, garbi dago iritsi dela nomadismoaren azken ordua.

Honela Abel Kainek garbitu du, eta ea Kainen madarikazioa bere hiltzailearen gainera behar bezala eroriko den jakitea geratzen zaigu.

«Horregatik, madarikatu egiten hau hik isuritako odola edan duen lurrak. Lurra landuko duk, baina ez dik fruiturik emango; nora-ezean ibiliko haiz munduan»⁶⁶.

Kainen madarikazioaren lehen klausulak garbi erakutsi du ez dela eraginkorra; zeren eta, oasiko laboraria estepa-lur lehortuetan uztak sortzeko gai ez sentitu arren, klima-baldintzak mesedegarri gertatu zaizkion eskualdeetara eraman dute migrazioek; eta gero, bere atzean industrialismoaren indar izugarriarekin, Abelen belardiak bereak bailiran erreklamatzera itzuli da. Ikuskizun geratzen da berak sorturiko industrialismoaren nagusi ala biktima izango den Kain. 1933. urtean, munduko ekonomi ordena berria kolapsatu eta desegiteko mehatxupean zegoenean, ez zirudien ezinezkoa azkenean Abel mendekatua izatea; eta baliteke *Homo Nomas* hura, *in articulo mortis*, oraindik ere berandutzea bere hiltzailea, *Homo Faber*, eroturik, Sheol-era jaisten ikusteko⁶⁷.

2.

Osmanliarrak

Hona artekoak erronka fisikoren bati erantzunez *tour de force* baten zigortzat geldiketa jasan duten zibilizazioak. Pasa gaitezen orain erronka izugarria ez fisikoa, baizik eta gizatiarra izan den kasuetara.

Erronka izugarria, zeini erantzunez sortu baitzen otomandar sistema, komunitate nomada baten transferentzia geografikoa izan zen, estepan jaio zeneko ingurunetik ingurune berri batera, hemen gizakien komunitate arrotzen gain bere agintea zertzeko arazo berriaren aurrean aurkitu zelarik. Dagoeneko ikusi dugu⁶⁸ nomada abaroak, estepan zituzten ganadu-eremuetatik deserriaratu aurkitu zirenean eta *in partibus agricularum* hondartu zirenean, konkistatu zuten jende sedentarioa giza abere-taldea bailitzan tratatzen saiatu zirela, eta artzain izan ordez gizaki-zain izaten. Etxekoturiko animaliek egindako eraldatzearen bitartez estepako basa landaretzaz bizi ordez, abarok (gauza bera egin duten beste horda nomada askok bezala) labore-lurretako uztaz bizitzeko asmoa hartu zuten, ez animali digestioak baizik eta giza lanak egindako eraldatzearen bitartez. Analogiak aplikatzeko tentazioa ematen du eta praktikan balio du puntu bateraino; baina azterketa enpirikoak ia saihestezina den akats bat aurkitzen du bertan.

Estepan nomadek eta gizaki ez ziren abere-taldeek osaturiko gizarte konposatua asma daitekeen tresnarik egokiena da halako ingurune fisikoan moldatzeko; eta nomada ez da, zehatz hitz eginda, giza-ki ez diren bere lagunkideen bizkar bizi. Arrazoizko onura-trukea dago han: abereek esnea ez ezik haragia ere eman behar badiete nomadei, nomadek lehen-lehenik bizibidea ziurtatu behar diete abereei. Inork ezingo luke estepan bizirik iraun kopuru handi samarretan elkarren laguntzarik gabe. Bestalde, landa eta hiri-ingurunean, nomada deserriaratuak eta bertako «giza ganaduak» osaturiko gizarte konposatua ekonomikoki gaixoa da, «gizaki-zainak» beti baitira ekonomikoki —baina ez beti politikoki— ez beharrezkoak eta, beraz, bizkarroiak. Ekonomiaren ikuspuntutik beren abere-taldeen zaintzaile izateari utzi eta erle maratzak esplotatzeko erlamando bihurtu dira. Emankortasunik gabeko agintari-klase bilakatu dira, biztanleria emankorraren lanari esker mantentzen dena, hau ekonomikoki hobeto egongo litza-tekeelarik haiek existituko ez balira.

Arrazoi honengatik, konkistatzaile nomadek ezarritako inperioek normalean beherakada bizkorra eta desagertze goiztiarra jasan dute. Ibn Khaldun (K.o. 1332-1406) Magrebeko historialari handiak inperio nomadak zituen buruan, inperioen batez besteko iraupena hiru belaunaldi edo ehun eta hogeitaz baina gehiagokoa ez zela

esaten zuenean. Behin konkista egin ondoren, konkistatzaile nomada gain behera etortzen da, bere elementutik kanpo irtenda dagoelako eta ekonomikoki beharrezkoa ez delako; bitartean, haren giza ganadua oneratu egiten da bere lurraldean jarraitzen duelako eta ez diolako utzi ekonomikoki emankor izateari. «Giza ganaduak» berretsi egiten du bere gizatasuna, nagusi zaintzaileak kanporatuz edota asimilatuz. Abaroen aginteak eslaviarren gain ziur aski berrogeita hamar urte baino gutxiago iraun zuen, eta eslaviarren arrakastaren eta abaroen galbidearen eragile gertatu zen. Mendebaldeko hunoen inperioak ez zuen iraun gizabanako baten —Atilaren— bizialdia baino gehiago. Il-Khan mongolen inperioak Iranen eta Iraken laurogei urte baino gutxiago iraun zuen, eta ez gehiago Khan Handien inperioak hegoaldeko Txinan. Hiksoen (Errege Artzainen) inperioak Egipton mende bat eskas iraun zuen. Mongolek eta haien aurreaurrekoek, Kin-tarrek, Ipar Txinan etengabe agindu zuten bi mende baino gehiagoko denboraldia (*circa* K.o. 1142-1368) eta partiarrek Iran eta Iraken jabe izan ziren hiru mende eta erdi baino gehiagoko denboraldi luzeagoa (*circa* K.a. 140-K.o. 226/232) salbuespen bereziak izan ziren.

Konparazio-irizpide hauen arabera, Otomandar Inperioak mundu kristau ortodoxoan izan zuen iraupena apartekoa izan zen. Bere ezarpena K.o. 1372an izandako Mazedoniaren konkistan datatzen badugu eta bere bukaeraren hasiera 1774ko Küchük Qaynarjy-eko itun erruso-turkiarrean, lau mendeko denboraldia ari gatzazkio ematen, aurretik, altxatzeko eta, ondoren, erortzeko behar izan zuen denbora kontatu gabe. Zein da iraunkortasun erlatibo horren azalpena? Azalpen partziala, zalantzarik gabe, honetan aurki daiteke: osmanliarrek, ekonomikoki zama astuna izan arren, xede politiko positibo baterako balio izan zuten, mundu kristau ortodoxoa bere kabuz lortzeko gai ez zen estatu unibertsal batez hornitu baitzuten. Baina askoz urrutirago ere eraman genezake gure azalpena.

Ikusi dugu abaroak eta antzekoak, basamortutik ereindako lurretara igaro zirenean, egoera berriari aurre egiteko «gizaki-zain» izaten saiatu zirela, eta porrot egin zutela. Haien porrota ez da hain harrigarria kontuan hartzen badugu *in partibus agricularum* nomada inperiogile arrakastagabe haiek ez zirela ahalegindu inolako giza baliokide sedentariorik aurkitzen estepako gizarte konposatuan fun-

tsezko lagunkide izandako batentzat. Zeren eta estepako gizarte hau ez baitute gizaki-zainak eta bere abere-taldeak soilik osatzen. Produktuetatik bizitzeko dauzkan abereez gain, nomadak baditu beste animalia batzuk —txakurra, gamelua, zaldia— bere lanean laguntzeko funtzioa dutenak. Animalia laguntzaile hauek dira Zibilizazio Nomadaren *chef-d'oeuvre* eta bere arrakastaren giltza. Ardia eta behia etxekotu baino ez dira egin behar, nahiz eta aski zaila izan, gizakiaren zerbitzura egon daitezen. Txakurrak, gameluak eta zaldiak ezin dituzte beren zerbitzu sofistikatuagoak eman, etxekotuak ez ezik, ongi trebatuak ere egon arte. Gizaki ez diren laguntzaile hauen trebakuntza nomadaren lorpen gorena da; eta goi-mailako arte nomada hau egoterra sedentaria egokitzea da Otomandar Inperioa Abaroen Inperiotik bereizten duena eta bere iraunkortasun askoz handiagoaren eragilea. Otomandar padishek giza laguntzaile gisa esklaboak trebatuz eutsi zioten beren inperioari, «giza ganaduaren» artean ordena ezartzen lagun ziezaiten.

Esklaboak soldadu eta administratzaile bihurtzeko erakunde aipagarri hau —jeinu nomadarekin hain bateragarria eta guretzat hain arrotza dena— ez zen otomandarren asmakuntza izan. Herri sedentarioen gain eraikitako beste inperio nomada batzuetan ere aurkitzen dugu, eta iraupenik luzeena izan duten haietan, hain zuzen.

Esklabotasun militarren aztarnak Partiar Inperioan aurkitzen ditugu, zeren eta Alexandro Handiaren mailara iristeko Marko Antoniok zuen handinahia zapuztu zuen armadetako batek 400 gizon aske bakarrik omen zituen 50.000ren artean. Era berean eta oinarri berean mila urte geroago abbastar kalifek estepatik turkiar esklaboak erosiz eta soldadu eta administratzaile izateko trebatuz eutsi zioten beren aginteari. Kordobako omeiatar kalifek esklaboz osaturiko bizkarzainak zituzten, auzoko frankoek beraientzat erreklutatuak. Frankoek beren aginterrien mugetatik harantzago esklabo-harrapaldiak eginez hornitzen zuten Kordobako esklabo-merkatua. Honela harrapaturiko barbaroak eslaviarrak izatea suertatu zen; eta hauxe da «slave» (esklabo) hitzaren jatorria ingeles hizkuntzan.

Fenomeno beraren adibiderik ospetsuena, hala ere, mamelukoen erregimena izan zen Egipton. «Mamluk» (mameluko) hitzak arabieraz jabetzan daukazu zerbait esan nahi du, eta mamelukoak jatorriz Saladinok sorturiko dinastiaren —aiubtarren— gerrari eskla-

boak ziren. K.o. 1250ean, hala ere, esklabo hauek beren nagusien-gandik askatu ziren, eta beren kontu hartu zuten aiubtarren esklabo-sistema, beren gorputzak erreklutatuz ez ugalketa bidez baizik eta kanpotik esklabo-multzoak erosiz. Kalifatza txotxongilo baten fatxadaren atzean, burujabe zen esklabo-etxe honek Egipto eta Siria gobernatu zituen, eta mongol beldurgarriei atzera eutsi zien Eufratesen parean, K.o. 1250etik 1517ra bitartean, eurak baino askoz kontrario gogorragoa aurkitu zutenean osmanliarren esklabo-etxean. Baina hau ere ez zen izan haien bukaera, zeren eta Egiptoko otomandar erregimenaren mende ere lehen bezala jarraitzen utzi baitziztaien, trebatze-metodo berarekin eta erreklutamendu-bide berekin. Otomandar potentziak behera egin zuenean, mamelukoen potentzia sendotu egin zen, eta hemezortzigarren mendean Egiptoko pasha otomandarra ia mamelukoen estatu-presoa bilakatu zen, turkiarren konkista baino lehen Kairoko abbastar kalifak izan ziren bezala. Kristau-aroko hemezortzigarren mendetik hemeretzigarrenera igarotzean, argitu gabeko galdera zen ea Egiptoko otomandar ondarea mamelukoengana itzuliko zen ala Europako potentziaren batek hartuko zuen, Napoleonen Frantziak edo Ingalaterrak. Egia esateko, bi aukera hauek baztertuta utzi zituen Albaniako abenturari musulmana zen Mehemet Ali-ren jeinuak, baina zailago gertatu zitzaion mamelukoekin moldatzea britainiar eta frantziarrei atzera eustea baino. Bere iaotasun eta zakarkeria guztia behar izan zituen auto-betikotzen zen esklabo-gorputz hau suntsitzeko, Egiptoko lurralde atzerri-tarrean, eurasiar eta kaukasiar giza indarra etengabe erreklutatuz, bostehun urte baino gehiago bizirik iraun ondoren, bere buruari irau-narazten baitzion.

Diziplina eta antolaketan, hala ere, mamelukoen esklabo-etxea baino askoz gehiago izan zen otomandar dinastiak bere agintea mundu kristau ortodoxoan ezarri eta mantentzeko sortu zuen esklabo-etxe gaztexeagoa. Zibilizazio atzerritar baten gizarte-gorputz osoan agintea zertzea konkistatzaile nomadak bere buruari ezar diezaiokeen zereginik gogorrana da, noski, eta ekintza ausart honek Osman eta ondorengoei Suleiman Bikainarenganaino (K.o. 1520-66) nomaden gizarte-gaitasunez ahalik eta gehien baliatzea eskatu zien.

Otomandar esklabo-etxearen izaera orokorra, ikerlari amerikar baten azterlan bikainetik hartutako pasarte honetan agertzen da⁶⁹:

«Gobernatzen zuen otomandar erakundean sultana eta bere familia sartzen ziren, bere etxeko funtzionarioak, gobernuko funtzionario exekutiboak, zaldieria eta infanteriako armada iraunkorra eta gazte-multzo handia, armada iraunkor, gorte eta gobernuan lan egiteko prestatzen ari zena. Gizon hauek ezpata, luma eta zetroa erabiltzen zituzten. Gobernu osoa gidatzen zuten, salbu justizia egitea Lege Sakratuak kontrolaturiko gaietan, eta funtzio mugatu batzuk, musulman ez ziren mendeko eta atzerritar-taldeek esku uzten zirenak. Erakunde honen ezaugarri nagusi eta bereizgarriena zera zen: lehenik, bere pertsonala, salbuespen gutxiarekin, guraso kristauengandik jaiotakoak edo hauen semeak zirela; eta, bigarren, erakundeko ia kide guztiak sultanaren esklabo gisa sartu zirela bertan, eta sultanaren esklabo izaten jarraitu zutela bizitza osoan, edozelakoa izanik ere haiek lorturiko aberastasun, botere eta handitasun maila...

«Errege-familia... zuzentasunez sar daiteke esklabo-familian (zeren eta) sultanaren seme-alaben amak esklaboak baitziren: sultana bera ere esklabo baten semea zen... Suleimanen garaia baino askoz lehenago, sultanek ia ez zuten emaztegairik errege-eremutik hartzen, ezta beren seme-alaben amei emazte-titulurik ematen ere... Otomandar sistemak berariaz hartu zituen esklaboak eta estatu-ministro egin. Mutikoak ardi artetik eta golda atzetik hartu eta gortesau eta printzesen senar egin zituen; gazteak, zeinen arbasoek mendeetan zehar kristau-izenak eramane baitzituzten, hartu eta gobernari egin zituen estatu mahomatar handiaren, baita soldadu eta jeneral ere armada menderaezinetan, haien pozik handiena Gurutzea bota eta Ilgora goratzea zelarik... Biziki mespretxatuz «giza izaera» deituriko funtsezko ohituren egitura hori eta bizia bera bezain sakontzat jotzen diren erlijio- eta gizarte-aurreiritzi horiek, otomandar sistemak haurrak betiko hartu zituen gurasoengandik, bere kideen artean ez zuen batere bultzatu famili zainketa urterik aktiboenetan, ez zien onartu inolako jabetza-mailarik, ez zien promesa zehatzik egin seme-alabek beraien arrakasta eta sakrifizioaren onurarik izango zutenik, arbasoen edo aurretiko bikaintasunaren begirunerik gabe goratu eta behertu zituzten, lege, etika eta erlijio arrotza irakatsi zien eta buru gainean zintzilika zuten ezpataz beti jabeturik eduki zituen, giza loriazko bide paregabearen ibilketa distiratsua edozein unetan bukarazi zezaketen ezpataz, alegia».

Aske jaiotako otomandar aristokrazia gobernutik kanpo uztea, guri sistemaren parterik arraroena iruditzen zaiguna, emaitzek justifikatuta zegoen; zeren eta musulman askeek azkenean indarrez etxe hartan sartzea lortu zutenean, Suleimanen erregealdiaren azken urteetan, sistema apurtzen hasi zen eta Otomandar Inperioa gain behera.

Sistemak aldatu gabe iraun zuen bitartean, fedegabeen hainbat hornidura-iturritatik lortu ziren erreklutak: mugaz bestaldean gerran harrapaturiko, esklabo-merkatuan erositako edo beren borondatez zerrendaturikoetatik; Inperioaren barruan aldizka haur-erreklutatzeak eginez konskripzioz. Gero hezkuntza-sistema konplikatua izaten zuten erreklutek, aukeraketa eta espezializazioarekin etapa bakoitzean. Diziiplina zorrotza zen eta zigorrak basatiak, baina, bestalde, berriaz eta etengabe dei egiten zitzairen handinahiko izatera. Otomandar padisharen esklabo-etxean sartzen zen mutiko orok bazekien bisir handi izateko gai zela eta bere aukera trebakuntzan erakutsitako iaio-tasunaren araberakoa zela.

Hezkuntza-sistema hau bere gorenaldian zegoeneko deskribapen bizi eta zehatza daukagu lehen mailako behatzaile batek egina, Flandriako jakitun eta diplomazialari izan zen Ogier Ghiselin de Busbecq-ek, alegia; hau Habsburgoko Gortearen enbaxadore izan zen Suleiman Bikainaren aurrean, eta haren konklusioak osmanliarrentzat lausengariak bezain kontraakoak dira garaiko Mendebaldeko Kristandadearen metodoentzat.

«Nik turkiarren inbidia izan dut sistema honengatik», esaten du. «Turkiarren jokaera da beti, ezohiko dohain bikainak dituen pertsona bat daukatenean, poztu eta erabat alai jartzea, balio handiko perla bat aurkitu balute bezala. Eta, harengan dagoen guztia kanpora ateraz, ez dute uzten egin gabe lanak eta pentsamenduak egin dezakeen ezer, batez ere gaitasun militarra aurkitzen dutenean. Gure Mendebaldeko jarrera oso bestelakoa da! Mendebaldean, txakur, belatz edo zaldi on baten jabe bihurtzen bagara, pozik jartzen gara eta ez dugu ahaleginik aurretzen izaki hori bere espezieak lor dezakeen perfekziorik handienera eramateko. Gizakiaren kasuan, hala ere — dohain seinalatuak dituenen bat aurkitu dugula suposatuz — ez dugu inola ere horrelako nekerik hartzen, eta ez zaigu iruditzen bere heziketa gure eginkizun berezia denik. Beraz, guk mendebaldarrok, plazer eta zerbitzu-mota asko lortzen dugu ongi hezitako zaldi, txakur edo

belatzagandik, eta turkiarrek heziketa bidez landutako izaera duen pertsonagandik lortzen dute askoz ere irabazi handiagoa, giza izaerak gainerako animali erreinuaren gain duen nagusitasun eta gailentasun handiak ematen duena»⁷⁰.

Azkenean sistemak lur jo zuen mundu guztiak presio egin zuelako pribilegioetan parte hartzeko. Kristau-aroko hamaseigarren mendearen bukaera aldera, musulman aske guztiei —beltzei izan ezik— ireki zitzaizen janizari gorputzean sartzeko aukera. Kopurua gehitu egin zen; diziiplina eta eraginkortasuna gutxitu. Hamazazpigarren mendearen erdirako giza atari-txakurrok «naturara itzuliak» ziren eta otso bihurtuak, padisharen giza ganadua jazartzen zutelarik, haiek zaindu eta ordenan eduki ordez. Mendeko jende kristau ortodoxoa engainaturik sentitzen zen orain *Pax Ottomanica*-rekin, hasieran otomandarren uztarria jasateko adorea eman zionarekin. Otomandar Inperioaren eta Mendebaldeko Kristandadeko potentzien artean 1682-99an izandako gerra handian —gero 1922ra arte luzatu zen otomandar lurraldearen galera-sail baten lehenengoarekin bukatu zen gerran— diziiplina eta eraginkortasun mailako nagusitasuna otomandarren eremutik Mendebaldekoa igaro zen behin betiko.

Otomandar esklabo-etxearen beherakada honen ondorenak haren zorigaiztoko akatsa zen zurruntasun gaindiezina atera zuen argitara. Behin desmuntatu ondoren, ezin izan zen ez konpondu ez birmoldatu. Sistema zama astuna izatera iritsita zegoen, eta turkiar gobernari berriagoak Mendebaldeko arerioen metodoak imitatzera mugaturik zeuden, uzkurutasunez eta eraginkortasunik gabe luzaroan aplikaturiko politika, baina azkenean erabateko osotasunean Mustafa Kemalek gure egunotan zertua. Metamorfosi hau bere erara, lehenengo estatu-politikari otomandarrek esklabo-etxea sortzea bezain *tour de force* zoragarria da. Hala ere, bi egintza hauen emaitzen konparazioak bigarrenaren hutsalkeria erlatiboa erakusten du. Otomandar esklabo-etxearen egileek tresna bat landu zuten, nomada-talde txiki bat —bere sorleku izandako estepatik kanporatua— gaitu zuena mundu ezezagun batean bereari tinko eusteko eta gainera desintegrazioan sarturiko kristau-gizarte handi batean bakea eta ordena ezartzeko eta kristau-gizarte handiago baten bizitza mehatxatzeko, honek ordudunik bere itzala gizadi osoaren gain proiektatu duelarik. Gaur egungo estatu-politikari turkiarrek bete baino ez dute egin Otomandar

Inperio zaharraren egitura paregabearen desagertzeak Ekialde Hurbilean utzitako hutsunearen parte bat, eta toki suntsitu hartan Mendebaldeko eredu estandarren araberrako eraikin prefabrikatua egin dute nazio-estatu turkiarraren forman. Egoitza-etxe arrunt hone-tan Otomandar Zibilizazio geraraziaren oinordeko turkiarrak —Zibilizazio Siriako fosilduaren oinordeko sionistak ondoko atean bezala eta Mendebalde Urruneko Zibilizazio abortatuaren oinordeko irlandarrak ondoko kalean bezala— pozik daude gaur egun aurreran-tzean hutsalkeria erosoan bizi izateaz, jadanik jasangarri ez den «herri berezi» izatearen estatusetik ihes egite atsegina bailitzan.

Esklabo-etxeari berari dagokionez, Mahmud II.ak gupidagabe «eraitsi» zuen —oker jokatu eta ardiei gogait eragiten hasia zen atari-txakurraren patu egokia— K.o. 1826an gerra greziar-turkiarraren erdian, eta hau Mahmuden mendeko nominala —batzuetan aliatua, beste batzuetan arerioa— zen Egiptoko Mehemet Alik mamelukoen erakunde analogoa suntsitu eta hamabost urte geroago gertatu zen.

3.

Espartarrak

Otomandar erakundea beste ezer baino hurbilago egon zen bizitza errealean Platonen Errepublikaren goiburua gauzatzetik, baina egia zera da: Platonek berak, bere Utopia asmatu zuenean, Espartako benetako erakundeak zituela gogoan; eta operazio otomandar eta espartarren arteko eskala-desberdintasuna gorabehera, antzekotasun estua dago herri hauetako bakoitzak bere *tour de force* zertzeko erabi-li zituen «erakunde berezien» artean.

Azterlan honetan aipaturiko lehen-lehen adibidean (ikus 39. or.) esan bezala, espartarrek erantzun berezia eman zioten K.a. zortzi-garren mendean estatu heleniko guztiei aurkeztu zitzairen erronka komunari, Helaseko biztanleria bere bizibideen gainetik hazten ari zenean. Arazo komun honi aurkitu zitzaion irtenbide normala koloni-zazioa izan zen: esku helenikoetan zegoen eremua hedatzea, itsasoz bestaldean lur berriak aurkituz eta haien konkista eta kolonizazioa

tokiko «barbaroen» bizkar eginez. Hau nahiko lan erraza gertatu zen barbaroen erresistentziaren eraginkortasun ezagatik. Espartarrek, hala ere, garrantzi pixka bateko komunitate greziarren artean itsasoari begira bizi ez ziren ia bakarrek, auzoko greziarrak konkistatzea erabaki zuten, meseniarrek alegia. Ekintza honek ezohiko gogortasunezko erronkaren aurrean jarri zituen. Lehen gerra espartar-meseniarra (*circa* K.a. 736-720) haur-jolasa izan zen bigarrenaren aldean (*circa* K.a. 650-620), zeinetan meseniarrek, ezbeharrean tenplatuak, armak hartu baitzituzten nagusien aurka. Nahiz eta huts egin beren askatasuna lortzen, meseniarrek arrakasta izan zuten garapen espartarraren norabide osoa desbideratzen. Meseniarren matxinada hain esperientzia beldurgarria izan zenez, espartar gizartea «lazeria eta burdin artean preso» utzi zuen. Aurrerantzean espartarrak sekula ez ziren lasaitzeko gai izan, ezta gerraosteko erreakziotik beren buruak askatzeko ere. Beraien konkistak gatibu hartu zituen konkistatzaileak, eskimalak ingurune artikoaren konkistak esklabo bihurtu dituen bezalaxe. Eskimalak bizibidea ateratzeko urteko zikloaren gogortasunari kateaturik dauden bezala, horrelaxe geratu ziren espartarrak meseniar ilotak mendean edukitzeko zereginari kateatuak.

Osmanliarrek erabilitako metodo berbera hartu zuten espartarrek beren *tour de force* zertzeko, aurretiko erakundeak premia berriak asetzeko egokituz. Baina osmanliarrak nomadismoaren gizarte-ondare aberatsaz baliatu ahal izan ziren bitartean, espartarren erakundeak doriar barbaroen gizarte-sistema oso primitiboaren egokitza-penak izan ziren, barbaro haiek Grezia inbaditu zutelarik Völkerwanderung postminoikoan. Tradizio helenikoak Likurgori egotzen dio lorpen hau. Baina Likurgo ez zen gizakia: jainkoa bakarrik; eta benetako autoreak ziur aski zenbait estatu-politikari izango ziren, K.a. seigarren mendean bizi izan zirenak.

Espartar sisteman, otomandarrean bezalaxe, ezaugarri nabarmenena —bere eraginkortasunaren nahiz zoritxarreko zurruntasun eta azken kolapsoaren eragilea— giza izaerarekiko mespretxu handia izan zen. *Agôgê* espartarra ez zen otomandarren esklabo-etxea bezain urruti joan jaiotza eta herentziazko errebindikazioen mespretxuan; eta Espartako lurdun hiritar askeak zehazki kontrako egoeran zeuden Otomandar Inperioko aristokrazia lurdun txiki musulman askearen aldean. Meseniaren gain espartarren nagusitasunari eusteko eginkizu-

na ia beraien gain gelditu zen osorik. Aldi berean, Espartako hiritar-gorputzaren beraren barruan, zurrun sendotu zen berdintasunaren printzipioa. Espartar orok hartzen zuen Estatutik tamaina bereko edo emankortasun bereko lursail bat, eta lursail hauetako bakoitza, moseniar jopuek (ilotek) landua, aski zen espartarra eta haren familia mantentzeko, eta honela gai egiten zuen bere energia guztia gerragintzara bideratzeko. Espartako haur bakoitza, ahultzat jota «indultatu» eta abandonatuta hiltzen ez bazen, zazpi urtetik aurrera bideraturik zegoen heziketa militarren espartar programa bizitzera. Ez zegoen salbuespenik, eta neskak mutikoak bezalaxe entrenatzen zituzten atletismoan. Neskak, mutilak bezalaxe, biluzik lehiatzen ziren ikusle gizasemeen aurrean, eta badirudi honelako gaietan espartarrek sexu-autokontrola edo axolagabezia lortua zutela, japoniar modernoaren antzera. Espartar haurgintza kontrolatua zegoen eugenesia zorrotzean oinarrituz, eta senar ahula bera baino gizaseme hobea bilatzera bultzatzen zuten bere familiako haurrak sortzeko. Plutarkoren arabera, espartarrek

«arrunkeria eta harrokeria baizik ez zuten ikusi gainerako gizadiaren sexu-konbentzioetan; izan ere, beren txakurreme eta behorrrak, erosi edo alokatu dezaketen arrik onenarekin estaltzeaz ardurtzen dira, eta hala ere beren emakumeak giltzapean itxi eta guardia eta zaintzapean edukitzen dituzte ziur egoteko beren senarrengandik bakarrik izango dituztela haurrak... hau senarraren eskubide sakratua balitz bezala, nahiz eta zentzugabea, zahartua edo gaixoa izan»⁷¹.

Irakurlea konturatuko da paralelismo bitxia dagoela Plutarkok espartarren sistemaz egiten dituen oharren eta osmanliarren esklabotxeaz dagoeneko aipatu ditugun Busbecq-en komentarioen artean.

Espartar sistemaren ezaugarri nagusiak eta otomandarrarenak berdinak ziren —gainikuskatzea, aukeratzea, espezializazioa eta espiritu lehiakorra— eta bi kasuetan ezaugarri hauek ez ziren heziketa-mailara mugatzen. Espartarrak berrogeita hamahiru urte ematen zituen banderapean. Zenbait puntutan eskatzen zitzaiona jenizarietara eskatzen zitzaiona baino zorrotzagoa zen. Jenizariak ez ezkontzeko konbentzitzen zituzten, baina ezkontzen baziren ezkonduen auzotegietan bizitzen uzten zitzairen; espartarrari, ezkontzen uzten bazitzaion ere, debekatu egiten zitzaion famili bizitza egitea. Ezkondata gero ere, kuarteletan jaten eta lo egiten jarraitzen zuen. Eraitza herri-espíritu ia

sinesgaitza eta benetan erabatekoa zen, ingelesari gerraren presiopean ere oso neketsu eta higuingarria gertatzen zaion espiritua eta beste garai batzuetan erabat jasangaitza, eta horrela «espartar» hitza eredu bihurtu da ordudanik. Espiritu horren alde bat Termopiletako Hirurehunenean pasadizoak argitzen du, edo mutilaren eta azeriaren istorioak. Bestalde, gogoan izan behar dugu espartar mutilaren heziketan azken bi urteak zerbitzu sekretuan ematen zirela normalean, eta hori hiltzaile-talde ofizial bat besterik ez zela, gauez matxinada-arrastoren bat edo edozein forma eta eratako izaera edo ekintza desegokiren bat erakusten zuen ilota suntsitzeko helburuaz eskualdea patruilatzen zuena.

Espartar sistemaren «bide bakarreko» izaera gaur egun Espartako museoa bisitatzen duen edonori bistaratzen zaio; zeren eta museo hau erabat desberdina baita artelan helenikoen beste edozein bildumatatik. Bilduma hauetan bisitariaren begiak Aro Klasikoko maisulanak bilatu, aurkitu eta miresten ditu, gutxi gorabehera K.a. bosgarren eta laugarren mendeekin bat datorrelarik garai hori. Espartako museoan, ordea, arte klasikoa bere ausentziagatik nabari da. Ikusgai pre-klasikoak ohargarriak dira agintzen dutenagatik, baina horien jarraipena bilatuz gero, alferrik bilatzen da. Erabateko hutsunea dago sekuentzian, eta hari jarraitzen dion guztia garai helenistiko eta erromatarreko lan-multzo bat da, estandarizatua eta inspirazio gabea. Hasierako espartar artea gutxi gorabehera Txilon-en ikuskaritzaaren garaian eteten da, K.a. seigarren mendearen erdian, eta arrazoi honengatik uste izaten da sarri estatu-politikari hau izan zela sistemaren autoreetako bat. Arte-ekoizpenari ia eten bezain bat-batean ekin zitzaion berriro beheraldiaren aroan K.a. 189-188 baino geroago, atzerriko konkistatzaile batek sistema indarrez suntsitu zuenean. Sistemaren zurruntasunaren argibide bitxia da, bere *raison d'être* desagertu ondoren bi mendez iraun izana, Mesenia erremediorik gabe galdu ondoren. Data hau baino lehen Espartari buruzko epitafla Aristotelek idatzi zuen proposamen orokor baten forman:

«Herriak ez dira entrenatu behar gerragintzan, menderatuak izatea merezi ez duten auzokoak (hots, greziar herrikideak, edo «lege gabeko arraza kaskarragoak», greziarrek barbaro deituak) menderatzeko helburuaz... Gizarte-sistema ororen helburu nagusia erakunde militarrek, beste erakunde guztiak bezala, bakealdiko zirkunstantzietara begira antolatzea da, soldadua zerbitzutik kanpo dagoenean»⁷².

4.

Ezaugarri orokorrak

Gizarte gerarazi hauek guztiek amankomunean dituzten bi ezaugarri nabarmen ageri dira: kasta eta espezializazioa; eta bi fenomeno hauek formula bakar batean sar daitezke: gizarte hauetako bakoitzean dauden izaki bizi banakoak ez dira guztiak mota berekoak, baizik eta biziki desberdinak diren bizpahiru kategoriatan banatzen dira. Eskimalen Gizartean bi kasta daude: gizaki-ehiztariak eta haien txakur-laguntzaileak. Gizarte Nomadan hiru daude: gizaki-artzainak, haien animalia laguntzaileak eta ganadua. Otomandar Gizartean Gizarte Nomadikoetako hiru kasten baliokideak aurkitzen ditugu, gizakien ordeztu animaliak daudelarik. Nomadismoaren gizarte-gorputz polimorfikoa gizakiak eta animaliak gizarte bakar batean elkartzeak sortzen duen bitartean —batzuek eta besteek elkarren beharra baitute estepan bizirik irauteko—, otomandarren gizarte-gorputz polimorfikoa kontrako prozesuak eratzen du: berez homogeneous den gizadia giza kastetan desberdintzeak, animalia espezie desberdinak balira bezala tratatuz; baina guk orain dugun xederako baztertu daiteke diferentzia hau. Eskimalaren txakurra eta nomadaren zaldia eta gamelua erdi gizatiartuak daude gizakiarekin duten laguntasunagatik; menderaturiko otomandar biztanleria, aldiz, *raiyyah*-a («abere-taldea» esan nahi du), eta lakoniar ilotak erdi deshumanizaturik daude, ganadua bezala tratatzeagatik. Elkarre hauek beste giza partaide batzuk «munstro» bezala daude espezializatuta. Espartar betegina martiztarra da, jenizari betegina monjea, nomada betegina zentauroa, eskimal betegina uhandrea. Periklesek, bere hileta-otoitzean, Atenas eta honen arerioaren artean ezartzen duen kontrastearen puntu nagusia zera da: atenastarra gizakia dela, Jainkoaren irudira egina; espartarra, berriz, gerra-robot. Eskimalei eta nomadei dagokienez, behatzaileek egingako deskribapenak guztiak bat datoz esaterakoan espezialista hauek beren trebetasuna hain gora eraman dutenez gizaki-ontziak kasu batean eta gizaki-zaldiak bestean batasun organikoa bailiran maniobratzen dutela.

Honela eskimalek, nomadek, osmanliarrek eta espartarrek lorzen dutena giza izaeraren barietate mugagabea ahalik eta gehien baz-

tertuz lortzen dute, eta horren ordeztu animalia izaera zurruna berengatuz. Honekin atzerabidean jarri dituzte oinak. Biologoek esaten digute oso espezializaturiko inguruneetara egokiegira moldatu diren animalia espezieak irtenbiderik gabe daudela eta ez dutela etorkizunik eboluzio-prozesuan. Hauxe da zehazki zibilizazio gerarazien patua.

Horrelako patuarekiko paralelismoak Utopiak deituriko alegiazko gizarteek eta intsektu sozialek zerturiko benetako sozietateek ematen dizkigute. Konparaziotan sartzen bagara inurritegian eta erlauntzan aurkituko ditugu, Platonen *Errepublika*-n edo Aldous Huxleyren *Brave New World* (Bai Mundu Berria) delakoan bezainbat, zibilizazio gerarazi guztietan ezagutzen ikasi dugun ezaugarri nabarmen berberak: kasta eta espezializazioa.

Intsektu sozialak egungo gailur sozialetara iritsi ziren, eta goimaila horietan gelditu ziren iraunkorki, *Homo Sapiens*-a ornodunordenaren masaren maila ertainetik irteten hasi baino hainbat milioi urte lehenago. Utopiei dagokienez, estatikoak dira *ex hypothesi*. Zeren eta lan hauek ekintza-programak izaten dira beti, irudizko soziologia deskribatzailearen disfrazaz maskaratuak; eta eragin nahi duten ekintza ia beti gizarte erreala baten «egonkortzea» izaten da maila jakin batean, gizarte hori erorikoan amaituko den beharaldian hasia delarik, beharazko mugimendu hori ez bada artifizialki gerarazten. Gehienez beharazko mugimendua geraraztea lortu nahi izaten dute Utopia gehienek, zeren eta hauek nekez hasten baitira idatzia izaten edozein gizartetan, bere kideek aurrerapen handiagoak egiteko itzaropena galdu arte. Horregatik, ia Utopia guztietan —literatur jenero osoari bere izena eman dion jeinu ingelesaren obraren salbuespen ohargarriarekin— garaitezinezko oreka egonkor bat helburu baita eta haren aurrean makurtu eta, behar izanez gero, sakrifikatu behar dute gainerrako gizarte-xede guztiek.

Hau egia da Peloponesoko gerraren hondamendi ostean Atenasen berehala sorturiko filosofi eskoletan asmatu ziren Utopia helenikoen kasuan. Lan hauen inspirazio negatiboa Atenasko demokraziaren aurkako etsaitasun sakona da. Zeren eta, Periklesen heriotzaren ondoren, demokraziak desegin egin baitzuen Atenasko kulturarekin zuen elkartzeko bikaina; militarismo eroa garatu zuen, Atenasko kultura lorarazi zuen mundura hondamena ekarri zuena; eta gerra irabazten izandako porrota Sokratesen hilketa judizialarekin burutu zuen.

Gerra osteko Atenasko filosofoen lehen kezka aurreko bi mendeetan Atenas politikoki handi egin zuen guztia arbuiatzea izan zen. Helas, hala zioten, Atenasko filosofiaren eta Espartako gizarte-sistemaren arteko elkartasunaz bakarrik salba zitekeen. Espartar sistema beren ideietara egokitzean, bi bidetatik hobetzen saiatu ziren: lehenik, bere mutur logikoetaraino eramanez, eta bigarren, Atenasko filosofoen euren antzera, kasta intelektual subirano bat (Platonen «guardiak») ezarriz Espartako kasta militarren gain, honi utopiar orkestran bigarren bibolinen papera jokatzen irakatsi behar zitzaizlarik.

Beren kasta-barkatzean, espezializaziorako zuten *penchant* hartan eta edozein preziotan oreka ezartzeko zuten irrikan, K.a. laugarren mendeko atenastar filosofoek seigarreneko espartar estatu-politikarien ikasle zintzo zirela erakutsi zuten. Kastaren gaian Platonen eta Aristotelesen pentsamendua arrazismoz betea dago, azken garaiotan geure Mendebaldeko Gizarteak gainean eduki duen bekatuetako batez. Platonek asmatu zuen «gezur noblearena» tresna fina da gizaki baten eta beste baten artean bi animali espezieren arteko bereizketa bezalakoa egiteko bezain desberdintasun sakonak egon daitezkeela iradokitzeke. Aristotelesek esklabotasunaz egindako defentsa bide beretik doa. Esaten du gizaki batzuk «izatez» esklabo izateko jaioak direla, nahiz eta onartzen duen errealitatean libre egon beharko luketen asko esklabo daudela eta esklabo egon beharko luketen asko, libre.

Platonen Utopietan eta berdin Aristotelesenean (Platonen *Errepublika* eta *Legeak*, eta Aristotelesen *Politika*-ko azken bi libururak), helburua ez da gizabanakoaren zorientasuna, komunitatearen egonkortasuna baizik. Platonek poeten gain botatako madarikazioa espartar ikuskatzaileraren baten ahotik irtena izan zitekeen; eta «pentsaera arriskutsuen» gaineke zentsura orokorraren alde agertzen da, azkenaldi honetan paralelismoak izan dituen zerbait Errusia komunista, Alemania nazional-sozialista, Italia faszista eta Japonia sintoistako erregulazioetan.

Programa utopikoa Helas salbatzeko eginkizun etsigarria gertatu zen, eta bere antzutasuna esperimentalki frogatu zen historia heleenikoak bere ibilbidea egin baino lehen, artifizialki manufakturatutako komunitateak saldoan produzituz, non behar bezala eramaten baitziren praktikara agindu utopiko nagusiak. Kretako eremu soileko zati

batean ezarritako komunitate bakuna, Platonen *Legeak* obran aldarrikatua, errealitatean milaka aldiz ugaritu zen ondorengo lau mendeetan Alexandrok eta seleukotarrek *in partibus Orientalium* eta erromatarrek *in partibus Barbarorum* sorturiko hiri-estatuetan. «Bizitza errealeko utopia» hauetan, kolonizatzailerik gisa onartuak izateko zoriona izan zuten greziar eta italiarren taldetxoak aske gelditu ziren helenismoaren argia kanpoko iluntasunean ikusarazteko zeregin kulturaletik, «bertoko» eskulan ugaria eman zitzaielarik lan zikina egiteko. Erromatar kolonia bat Galian tribu barbaro baten lurralde eta jende guztiaz hornitua izan zitekeen.

Kristo ondorengo bigarren mendean, mundu helenikoa udaldira bazez geroztan ari zenean —garaikideek, baita ondorengoek ere, luzaroan urte-errotzat oker hartu zutena—, bazirudien Platonen itxaropenik ausartenak ere bete eta gairatu egin zirela. K.o. 96tik 180ra errege filosofo sail bat eseri zen tronuan mundu heleniko osoa menderatuz, eta mila hiri-estatu bizi izan ziren elkarren ondoan bakean eta adostasunean babes filosofiko-inperial honen mende. Hala ere, gaitzen etena pausaldi bat besterik ez zen izan, dena ez baitzegoen ongi azalaren azpian. Zentsura ukiezina, gizarte-ingurunearen giroak *fiat* imperialak inoiz ezar zezakeen baino eraginkorkiago iradokia, bizitasun artistiko eta intelektuala ezabatzen ari zen mendekuz, Platon txundituta utziko zukeena bere agindu bitxiak hain hitzez hitz zertuta ikusteko itzuli ahal izan balitz. Eta bigarren mendeko inspirazio gabeko oparotasun errespetagarriaren ondoren hirugarreneko miseria sutsu kaotikoa etorri zen, fellah-ek beren nagusiak eraitsi eta suntsitu zituztenean. Laugarren menderako zoria erabat aldaturik zegoen; zeren eta garai batean pribilegiatu izandako Erromako udalerrietako klase gobernaria, bizirik irauten zuenean ere, katepean baitzegoen alde guztietan. Beren txakurtegietara kateatuak eta isatsa hanka artean zutela, *in extremis* zegoen Erromatar Inperioko udalerrietako zinegotzi erreklutatuak nekez har zitezkeen Platonen «giza atari-txakur» bikainen ondorengo ideologikotzat.

Bukatzeko, ugari diren Utopia modernoetako batzuei begiratzeko badiogu, ezaugarri platoniko berberak aurkituko ditugu. Aldous Huxley-ren *Brave New World* (Bai Mundu Berria), era satirikoan idatzia, erakartzeko baino uxatzeko areago, suposizio batetik abiatzen da, alegia, industrialismo modernoa kasta «naturalen» banaketa zorrotzez

bakarrik egin daitekeela jasangarri. Hau biologi zientziaren garapen izugarrien bidez lortzen da, psikologi teknikekin osatuta. Emaiza gizarte estratifikatua da alpha, beta, gamma, delta eta epsilonez osatua; hau Platonen asmakuntza besterik ez da, edo osmanliarren jokiera muturrera eramana, desberdintasun batekin: Huxleyren kasta alfabetikoak baldintzaturik daude benetan beste horrenbeste «animali» espezie desberdin bihurtzeko, Gizarte Nomadikoan lankidetzan diharduten giza, txakur- eta graminiboro-espezieak bezalakoak. Epsilonek, lan zikina egiten dutenek, benetan atsegin dute hori eta ez dute beste ezer nahi. Horrelakoak egin dituzte ugaltze-laborategian. Well's-en *The First Men in the Moon* liburuak erretratatzan duen gizartean «hiritar bakoitzak ezagutzen du bere postua. Postu horretarako jaioa da, eta jasaten dituen trebakuntza diziplinatuak, heziketak eta kirurgiak azkenean hain erabat moldatzen dutenez horretarako, ez du ez ideiarik ez organorik bestelako helburuetarako».

Tipikoa eta interesgarria da ikuspegi desberdinxego batetik Samuel Butler-en *Erewhon*. Narratzailearen bisita baino laurehun urte lehenago ulertu zuten erewhoniarrek beren asmakuntza mekanikoen esklabo bihurtzen ari zirela. Gizakia-makina konbinazioa entitate subhumano bihurtzen ari zen, eskimalen gizakia-ontzia eta nomaden gizakia-zaldia bezala. Honela, makinak baztertu eta Industri Aroa hasi aurretik lortua zuten mailan utzi zuten beren gizartea.

OHARRA. ITSASOA ETA ESTEPA HIZKUNTZ EROALE.

Nomadismoari buruzko gure azterketaren hasieran esan dugu estepak, «uzta bildu gabeko itsasoa» den aldetik, gizadi sedentarioari atsedeen-lekurik ematen ez badio ere, bidaiatu eta garraiatzeko erraztasun handiagoak ematen dizkiola lur landuek baino. Itsasoaren eta esteparen arteko antzekotasun hau hizkuntz eroale gisa duten funtzioak argitzen du. Ongi jakina da herri nabigatzailea gai dela bere hizkuntza zabaltzeko bizileku izan duen edozein itsaso edo ozeanotako kostetan. Antzinako marinel greziarrek grekoa jarri zuten zirkulazioan Mediterraneo inguru guztian. Malaysiarren nautikaren maisutasunak malaysieraren familiako hizkuntzak alde batetik Madagaskarerraino eta bestetik Filipinetaraino zabaldu ditu. Ozeano Barean polinesiera oraindik uniformitate harrigarritz hitz egiten da Fijitik Bazko uharteraino eta Zeelanda Berritik Hawaiiraino, nahiz eta belaunaldi asko igaro diren uharte hauek banatzen dituzten tarte zabalak poline-

siar kanoek erregulariki zeharkatu zituztenetik. Aldi berean, «Uhinak Britainia Handiak gobernatzen dituelako» bihurtu da ingelesa mundu osoan erabiltzen den hizkuntza.

Estepako kostala landuen inguruan, estepako marinel nomaden trafikoagatik, antzeko hizkuntz barreiaketa erakusten du lau hizkuntza edo hizkuntz familia biziren —berbere, arabiera, turkiera eta indoeuroparraren— banaketa geografikoak.

Hizkuntza berbereak gaur egun Saharako nomadek hitz egiten dituzte, baita Sahararen iparralde eta hegoaldeko kostetako herri sedentarioek ere. Normala da pentsatzea hizkuntz familia honen iparraldeko eta hegoaldeko adarrak basamortutik ereindako lurretara, bi norabideetan, igaro zirela iraganean eta berbere hizkuntzako nomadek zabaldu zituztela.

Arabiera, halaber, ez da gaur egun Arabiako estepako iparraldeko kostetan bakarrik hitz egiten, Sirian eta Iraken, baita hegoaldeko kostetan ere, Hadramaut eta Yemen-en eta mendebaldeko kostetan, Nilo ibarrean. Halaber, Nilo ibarretik berriro mendebalderago eramana izan zen berbereen eremuetara, eta gaur egun Ipar Afrikako kostak atlantikoan eta Txad aintziraren iparraldeko ertzean bezain urrutira hitz egiten da.

Turkiera eurasiar estepako hainbat kostetara zabaldu da eta gaur egun, dialekto batean edo bestean, Erdialdeko Asiako lurraldean bloke trinko batean zehar hitz egiten da, Kaspiar itsasoaren ekialdeko kostetik Lob Nor-eraino eta iraniar goi-ordokiaren iparraldeko malkarretetik Altai mendien mendebaldeko isurialderaino.

Turkiar hizkuntz familiaren egungo banaketak indoeuropar familiaren egungo banaketaren giltza ematen du, eta (izenak adierazten duen bezala) orain bi multzo geografiko bakartutan arraro banaturik dago, bata Europan kokatua eta bestea Iranen eta Indian. Egungo hizkuntz mapa indoeuroparra ulergarri bihurtzen da asumitzen badugu familia honetako hizkuntzak eurasiar estepan zeuden nomadek zabaldu zituztela hasieran, turkiar hizkuntzen zabaltzaileak han kokatu baino lehen. Europak eta Iranek biek dituzte «itsasertzak» eurasiar estepan, eta urik gabeko ozeano handi hau da haien arteko komunikazio-bide naturala. Kasu honen eta aurrez aipaturiko hiru kasuen arteko diferentzia bakarra zera da: kasu honetan hiz-

kuntz taldeak galdu egin duela bere agintea garai batean barreiatu zen tarteko estepa-aldean.

X. ZIBILIZAZIOEN HAZKUNDEEN IZAERA

1.

Bi arrasto faltsu

Behaketaz aurkitu dugu erronkarik estimulagarriena maila ertainekoa dela gehiegizko eta gutxiegiako gogortasunaren artean, gutxiegiako erronkak huts egin baitezake erabat erronka-hartzailea estimulatzen, eta gehiegizko erronkak hautsi egin dezake haren espiritua. Baina zer esan justu-justu moldatzeko moduko erronkari buruz? Lehen begiratuan hau da imajina daitekeen erronkarik estimulagarriena; eta polinesiarren, eskimalen, nomaden, osmanliarren eta espartarren kasu zehatzetan, ikusi dugu horrelako erronkak direla egokiak *tour de force* delakoak eragiteko. Baita ere ikusi dugu, ordea, istorioaren hurrengo atalean *tour de force* hauek zoritxarreko isuna ezartzen dietela zertu dituztenei: garapenean geraraztea. Beraz, urrutirago begiratzuz, esan behar dugu berehalako erantzunik handiena eragitea ez dela proba erabakigarriena erronka konkretu bat onena den ala ez jakiteko, orokorrean eta azkenean erantzunik handiena eragiteko ikuspuntutik. Erronkarik onena benetan, erronka-hartzailea erantzun arrakastatsu bakarra ematera estimulatzeaz gain, aurrerago joateko indar hartzera estimulatzen duena da: lortutakotik beste borroka batera, arazo baten konponbidetik beste baten aurkezpenera, Yin-etik Yang-era berriro ere. Nahasmendutik orekaren berrezarpenerako mugimendu mugatu bakarra ez da aski sorrerari hazkundeak jarraitu behar badio. Eta mugimendua erritmo errepikakor bihurtzeko, *élan vital*-a behar da (Bergsonen hitza erabiltzeko), erronka-hartzailea, orekan

zehir, desorekarantz eraman eta erronka berri baten aurrean jarriko duena; honela inspiratuko du beste oreka baten forman erantzun berri bat emateko, beste gehiegikeria batean bukatuko dena, eta horrela etengabe potentzialki mugagabea den progresioan.

Elan hau, desoreka-serie baten bidez diharduena, Zibilizazio Helenikoaren ibilbidean ikusten da, bere sorreratik K.a. bosgarren mendean izan zuen goren mailaraino.

Zibilizazio Heleniko jaio berriari aurkezturiko lehen erronka kaosaren eta antzinako gauaren erronka izan zen. Haren ahaide zen Gizarte Minoikoaren desintegrazioak gizarte-hondakinen meta bat utzi zuen: minostarrak abandonatuta eta akeoak eta dorioak hondoa jota. Geratuko ote zen zibilizazio zahar baten aztarnarik barbarotasunaren uholde berriak berekin ekarritako geruzaren azpian? Akeoen paisaia bakanak ziren behe-lurrak, mendean hartuko ote zituen inguru guztiko goi-lurretako basamortuak? Lautadetako laborari bake-suak, mendietako artzain eta bidelapurren mende geldituko ote ziren?

Lehen erronka honi arrakastaz erantzun zioten; erabakita zegoen Helasen hiriak izango zirela eta ez herrixkak, nekazaritza eta ez larretokiak, ordena eta ez anarkia. Hala ere, lehen erronka honi emandako erantzunaren arrakastak berak bigarrenaren aurrean jarri zituen garaileak. Zeren eta, behe-lurretan nekazaritzaren jarraipen baketsua ziurtatu zuen garaipenak indar eman baitzion biztanleriaren hazkunderari, eta indar hau ez zen geratu nekazaritzak gizarte helenikoan jasan zezakeen gehieneko dentsitateira iritsi zenean biztanleria. Honela, lehen erronkari emandako erantzunaren arrakastak berak jarri zuen Gizarte Heleniko haurtxoa bigarrenaren aurrean, eta kaosaren erronkari bezain arrakastatsu erantzun zion erronka malthusiar honi ere.

Gainpopulazioaren erronkari emandako erantzun helenikoak txandakako esperimentuen forma hartu zuen. Lehenik biderik errazena eta nabariena hartu zen, eta gero eta etekin txikiagoak ematen hasi arte aplikatu zen. Berehala, zailagoa eta hain nabaria ez zen bidea hartu eta lehenengoaren ordezkari aplikatu zen, oraingoan arazoa konpontzea lortu zen arte.

Lehen metodoa zera erabiltzea izan zen: Helasko behe-lurterrek sorturiko teknika eta erakundeak, etxean goi-lurretako auzokoei beren nahia ezartzeko prozesuan asmatu zituztenak, itsasoz bestalde-

an helenismoarentzat eremu berriak konkistatzeko helburuaz. Falange hoplitaren tresna militarraz eta hiri-estatuaren tresna politikoaz, aitzindari heleniko pila batek Magna Grezia bat ezarri zuen Italiako oin puntan italo eta txono barbaroen bizkar, Peloponeso berri bat Sizilian sikulo barbaroen bizkar, pentapolis heleniko berri bat Zirenaikan libiar barbaroen bizkar, eta Kaltzidize bat Egeoaren iparraldeko kostan traziar barbaroen bizkar. Halaz guztiz, berriro ere, erantzunaren arrakastak berak erronka berria ekarri zien garaileei. Zeren eta, hauek egin zutena berez erronka bat baitzen Mediterraneoko beste herrientzat; eta azkenean helenikoak ez ziren herriak estimulatu zituen Helasen hedapena geraraztera: neurri batean maileguan harturiko arte eta arma helenikoez eraso helenikoari aurre eginez, eta neurri batean beren indarrak koordinatuz heleniarrek berek lor zezaketen baino eskala handiagoan. Honela, hedapen helenikoa, K.a. zortzigarren mendean hasia, gerarazi egin zuten seigarrenean zehar. Baina artean ere Gizarte Helenikoa gainpopulazioaren erronkari aurre egin beharrean zegoen.

Historia helenikoan izandako krisi berri honetan Atenasek egin zuen beharrezko aurkikuntza, eta «Helasen hezibide» bihurtu zen ikasiz, eta irakatsiz, nola transmutatu Gizarte Helenikoaren hedapena prozesu estentsibotik intentsibora, transmutazio esanguratsua, geroago ere kapitulu honetan sakonduko duguna. Atenastarren erantzun hau dagoeneko deskribatu dugu (ikus 39. or.) eta ez da beharrezkoa deskribapena errepikatzea.

Hazkunde-erritmo hau Walt Whitman-ek ulertu zuen ondorengoia idatzi zuenean: «Gauzen funtsean dago arrakasta-gozamen orotatik, zernahi dela ere, zerbait sortuko dela borroka handiagoa beharrezko egiteko»; eta jite ezezkorragoaz, haren garaikide viktoriar izan zen William Morris-ek zera idatzi zuen: «Hausnartu dut... gizonak nola borrokatzen eta galtzen duten gudua, eta, beren porrota gorabehera, borrokara eragiten dien hori etorri egiten da, eta etortzen denean gertatzen da ez dela haiek nahi zutena, eta beste gizon batzuek egin behar dute borroka haiek nahi zutenaren alde beste izen baten pean».

Badirudi zibilizazioak *élan* baten bidez hazten direla, erronkatik, erantzunaren bidez, beste erronka batera eramaten dituelarik, eta hazkunde honek barne- eta kanpo-alderdiak ditu. Makrokosmosean hazkundera kanpo-ingurunearen gain mailakako nagusitzea bezala

agertzen da; mikrokosmosean, mailakako autodeterminazio edo auto-artikulazio bezala. Adierazpen hauetako edozeinetan *élan*-en beraren aurrerapenaren irizpide posible bat daukagu. Azter dezagun adierazpen bakoitza ikuspegi honetatik.

Lehenik kanpo-ingurunearen mailakako konkista aztertuz, kanpo-ingurunea bitan zatitzea komeni dela aurkituko dugu: giza ingurunea, edozein gizarterentzat berarekin harremanak dituzten beste gizarteek osatzen dutena, eta ingurune fisikoa, gizatiarra ez den naturak osatua. Giza ingurunearen mailakako konkista gizarte horren hedapen geografikoaren forman adieraziko den bitartean, gizatiarra ez den ingurunearen mailakako konkista normalean teknika-hobekuntzen forman adieraziko da. Has gaitezen lehenengoarekin, hedapen geografikoarekin alegia, eta ikus dezagun zein puntutaraino merezi duen zibilizazio baten benetako hazkundearen irizpide egokitzen hartzea.

Gure irakurleak nekez liskartuko dira gurekin esaten badugu, lan gehiago gabe eta froga handiago eta eztabaida ezinagoak biltzeko ardurarik gabe, hedapen geografikoa, edo «mapa gorritz pintatzea», ez dela inolako irizpidea zibilizazio baten benetako hazkunderako. Batzuetan aurkitzen dugu hedapen geografikoaren denbora dataz bat datorrela aurrerapen koalitatiboarekin, eta honen adierazpen partzial bat dela, beste zerbaiti lotuta aipatu berri dugun lehenengo hedapen helenikoaren kasuan bezala. Sarriagotan hedapen geografikoa eta benetako beheraldia aldi berekoak izaten dira eta «arazoaldi» edo estatu unibertsalarekin batera gertatzen da, beherakada eta desintegrazio-garaiak biak ere. Arrazoa ez da oso urruti bilatu behar. Arazoaldiek militarismoa eragiten dute, giza espirituaren okertzea elkar suntsitzeko bidera, eta militaristarik arrakastatsuena, arau bezala, estatu unibertsal baten sortzaile izatera iristen da. Hedapen geografikoa militarismo honen azpiproduktua da, adorezko gizon ahaltsuek beren gizarte barneko kontrarioei erasotzeari utzi eta inguruko gizartei erasotzen hasten direneko interludioetan.

Militarismoa, Azterlan honetan geroago ikusiko dugun bezala, orain arteko hogeit bat kolapsoren lekuko izan diren azken lau edo bost milurteko hauetan zibilizazioen kolapsoaren kausarik arruntena izan da askogatik. Militarismoak zibilizazio baten kolapsoa eragiten du, gizartea osatzen duten toki-estatuak elkarren artean liskartzen baitira

anaiarteko gatazka suntsigarrietan. Prozesu suizida honetan gizarte-egitura osoa erregai bihurtzen da Molok-en brontzezko altzoan sugar suntsigarria elikatzeko. Gerra-arte bakar honek hainbat bake-arteren bizkar egiten du aurrera; eta, erritual hilgarri honek jarraitzaile guztien suntsipena burutu aurretik, hauek sarraskietarako hain trebeak bilaka daitezke beren tresnen erabileran, ezen, elkarren suntsipen-orgian pausalditxo bat egin eta aldi batez beren armak atzerritarren bularretara zuzentzea gertatuz gero, gai baitira guztiak garbitzeko.

Egia esan, historia helenikoaren azterketak errefusatu dugun ondorioaren guztiz kontrakoa iradoki lezake. Dagoeneko esan dugu, bere historiako fase batean, Gizarte Helenikoak gainpopulazioaren erronkari aurre egin ziola hedapen geografikoaren bidez, eta mendepare baten ondoren (*circa* K.a. 750-550), hedapen hau helenikoak ez ziren inguruko potentziek geldiarazi zutela. Gero, Gizarte Helenikoa defentsiban egon zen, ekialdetik pertsiarrek erasotua bere sorlekuetan eta mendebaldetik kartagoarrek, berrikiago eskuraturiko eremuetan. Denboraldi honetan, Tuzididesek ikusi zuen bezala, «Helas alde guztietatik zapalduta egon zen denboraldi luzean», eta, Herodotok ikusi bezala, «aurreko hogeitelaunaldietan baino arazo gehiagoren mende egon zen»⁷³. Irakurle modernoari nekeza gertatzen zaio ulertzea esaldi malenkoniatsu hauetan Greziako historialari handienetako bik deskribatzen duten garaia, ondorengo begietara, Zibilizazio Helenikoaren gailurtzat agertzen den garaia dela: gizarte-bizitzako arlo guztietan, jeinu helenikoak sorkuntza-egintza handiak —helenismoa hilezkor bihurtu dutenak— egin zituen garaia da, alegia. Herodotok eta Tuzididesek pentsatu bezala pentsatu zuten garai sortzaile honetaz, beronetan, aurrekoan ez bezala, Helasen hedapen geografikoari atzera eutsi zitzaiolako. Hala ere, ezin da zalantzan jarri, mende honetan, Zibilizazio Helenikoaren hazkundearen *élan*-a aurretik edo ondoren inoiz izandakoa baino handiagoa izan zela. Eta historialari hauek, giza-gaineko bizitza-luzera ondorengoa ikusi ahal izateko adinakoa eduki ahal izan balute, harrituta geratuko ziren ikustean atenastar-peloponesiar gerrak markaturiko kolapsoaren ondoren hedaldi geografiko berria etorri zela —helenismoaren hedapena lehorrean, Alexandrok hasia—, Helasen lehenengo itsas hedapena baino askoz ere handiagoa eskala materialean. Alexandrok Helesponto igaro ondorengo bi mendeetan, helenismoa Asiara eta Nilo ibarrera zabaldu zen, aurkitu zituen beste

zibilizazio guztien bizkar: Siriakoa, Egipziakoa, Babilonikoa eta Indikoa. Ondorengo mende-pare batean hedatuz jarraitu zuen, erromatarren itzalpean, Europaren eta Ipar-mendebaldeko Afrikaren barrualde barbaroetan. Hala ere, mende hauetan egon zen Zibilizazio Helenikoa argi eta garbi desintegrazio-prozesuan.

Ia zibilizazio guztien historiak ematen ditu hedapen geografikoaren adibideak, nolakotasunezko hondatzearekin batera. Bi bakarririk aukeratuko ditugu.

Kultura Minoikoak bere irradiazio-mailarik zabalena gure arkeologo modernoek «Berant minoikoa III» izendatu duten fasean lortu zuen, eta fase hau ez zen hasi Knosos-en arpilatze osterarte *circa* K.a. 1425ean, hots, ez estatu unibertsal minoikoak, «Minosko Talasokraziak», beheko jo eta Gizarte Minoikoa likidazioan jarri zeneko interregnoa etorrarazi zuen hondamendi osterarte. Beheraldiaren marka kultura minoikoaren produktu material guztietan dago estantpatua, Berant minoikoa periodoaren hirugarren fase honetatik datatuta, banaketa geografikoari dagokionez produktu hauek aurreko produktu minoiko guztiei gain hartzen dien bezain argi. Badirudi eskulangintzaren kalitate-galera zela ekoizpenaren hedapenagatik ordaindu beharreko prezioa.

Egungo Ekialde Urruneko Gizartearen aurrekoa izan zen Gizarte Sinikoaren historian ia gauza bera gertatzen da. Hazkundealdian Zibilizazio Sinikoaren agintea ez da Ibai Horiaren arroaz harantzago hedatzen. Arazoaldi sinikoaren garaian —«Estatu Lehiakideen aldia», txinatarrek deitzen duten bezala—, bereganatu zuen mundu sinikoak Yangzi-ren arroa hegoaldean eta Peiho-z bestaldeko lautadak kontrako aldean. Tsin Shi Huang-tik, estatu unibertsal sinikoaren sortzaileak muga politikoak oraindik Harresi Handiak mugaturiko lerro-raino eramaten ditu; Han dinastiak, Tsin enperadorearen lanetan sartzen denak, are hegoalderago eramaten ditu. Honela, historia sinikoan, hedapen geografikoaren eta gizarte-desintegrazioaren denboraldiak garai berekoak dira.

Azkenik, geure Mendebaldeko Zibilizazioaren historia bukatu gabera itzultzen bagara eta aztertzen baditugu Mendebalde Urruneko eta Eskandinaviar zibilizazio abortatuen kontura egindako lehenengo hedapenak —Rhinetik Vistularainoko hedapena Ipar Europako barbarotasunaren kontura eta Alpeetatik Karpatoetaraino eurasiar nomadis-

moaren abangoardia hungariarraren kontura egindakoa, eta ondoren Mediterraneo arroko bazter guztietara Gibraltarreko itsasartetik Niloren eta Donen ahoetaraino konkista eta merkataritza-mugimendu zabal baino iragankorrean egindako itsas hedapena («Gurut zadak» izanik honentzako titulu labur egokiena)—, ados egon gaitezke hauek guztiak, Helasen lehenengo itsas hedapena bezala, zabalkuntza geografikoaren adibideak direla, beraiekin batera edo ondoren ez zelarik inolako geldialdirik izan hedatzen ari zen zibilizazioaren benetako hazkundean. Baina azken mendeotan berriro hasitako hedapena (eta oraingoan mundu-mailakoa) aztertzen dugunean, gelditu eta miretsi baino ezin dugu egin. Hemen dagoen arazoari, guri hain hurbiletik dagokigunari, gizaki zuhurrak erantzun ziur-ziurrik ezin diezaioke eman gure belaunaldian.

Gure gaiaren hurrengo zatiketara igaroko gara orain eta aztertuko dugu ea teknika-hobekuntzaren bidez ingurune fisikoaren konkista mailakatuak irizpide egokia ematen digun zibilizazio baten benetako hazkundeaz. Ba al da korrelazio positiboaren frogarik teknika-hobekuntzaren eta gizarte-hazkundean izandako aurrerapenaren artean?

Korrelazio hau ziurtzat ematen da arkeologo modernoek asmatu-riko sailkapenean; beronetan teknika materialaren ustezko hobekuntza-sail bat zibilizazioaren aurrerapenean ere pareko atal-segida baten adierazgarritzat hartzen da. Pentsamendu-eskema honetan, giza aurrerapena «aro»-sail bat bezala agertzen da, etiketa teknologikoz bereiz-ia: aro paleolitikoa, aro neolitikoa, aro kalkolitikoa, kobrearen aroa, brontzearen aroa, burdinaren aroa, eta honi makinaren aroa erants dakioke, bertan bizitzeko pribilegioa daukagularik. Sailkapen hau oso erabilia izan arren, ongi etorriko da kritikoki aztertzea zibilizazioen aurrerapenean etapak adierazteko duen nahia; zeren eta, azterketa enpirikoa bazter utzi gabe, aipa baitezakegu zenbait arrazoi *a priori* ere susmagarri bihurtzen digutenak.

Susmagarria da, lehenik, bere ospeagatik beragatik, bere arrakasta tekniko berriek liluratu duten gizarte baten aurrekontzeptuetara jotzen baitu. Bere ospea gertaera ukaezin baten adibide da —Azterlan honen lehen kapitulu- an abiapuntutzat hartua—, alegia, belaunaldi bakoitzak iraganaren historia bere pentsamendu-eskema iragankor- raren arabera aztertze-ko joera duela.

Gizarte-aurrerapenaren sailkapen teknologikoa susmoz hartze-ko bigarren arrazoa zera da: ikasleak, zoriak azterketarako bere esku jarri dizkion material partikularren esklabo bihurtzeko duen joeraren adibide nabaria izatea. Zientziaren ikuspuntutik, halabehar hutsa da «historiaurreko» gizakiak beretzat egindako tresna materialek iraun duten bitartean, haren sorkuntza psikikoak, erakunde eta ideiak desagertu izana. Egia esateko, aparatu mental hau erabiltzen den bitartean, askoz ere paper garrantzitsuagoa jokatzten du beste edozein aparatu materialek giza bizitzan inoiz joka dezakeena baino; hala ere, bazterturiko aparatu material batek detritu ukigarria uzten duelako, eta bazterturiko aparatu psikikoak uzten ez duelako, eta arkeologoaren zeregina giza detrituak aztertzea delako bertatik giza historiaren ezagutza ateratzeko, arkeologoaren buruak *Homo Sapiens* bere mendeko paperean —*Homo Faber*-aren paperean— bakarrik deskribatzeko joera izaten du. Datuetara itzultzen bagara, zibilizazioak gelditu geratu edo beherantz doazen bitartean teknika hobetzen deneko kasuak aurkituko ditugu, baita kontrako egoeraren adibideak ere, alegia, teknika geldirik geratzen denekoak zibilizazioak mugitzen ari diren bitartean, aurrerantz edo atzerantz kasu bakoitzaren arabera.

Adibidez, zibilizazio gerarazi bakoitzak goi-mailako teknika garatu du. Polinesiarrek nabigatzaile gisa nabarmendu dira, eskimalak arrantzale gisa, espartarrak soldadu gisa, nomadak zaldi-hezitzaile gisa, osmanliarrak gizon-hezitzaile gisa. Kasu hauetan guztietan zibilizazioak geldirik egon dira teknika hobetu den bitartean.

Zibilizazioa beherantz doala teknika hobetu den kasu bat Goi Paleolitoaren aroa Europan Behe Neolitoarekin konparatzeak ematen du, hau izanik haren berehalako ondorengoa teknologi seriean. Goi Paleolitoko Gizartea eskulangintza zabar samarreko tresnekin konformatu zen, baina zentzu estetiko fina garatu zuen eta zenbait baliabide xume ere asmatu zuen pintura-adierazpidea emateko. Ikatzeg egindako animalia marrazki trebe eta biziak, gizaki paleolitikoaren haitzulo-egoitzetako paretetan irauten dutenak, gure mirespena sortzen dute. Behe Neolitoko Gizarteak neke handia hartu zuen fin landuriko tresnaz bere burua hornitzen, eta ziur aski tresna hauek erabiliko zituen gizaki paleolitikoarekin existitzeko borrokan, non *Homo Pictor* delakoak behe jo eta *Homo Faber* nagusitu baitzen alorraz. Edozein kasutan ere, aldaketa hau aurrerapen harrigarriaren hasiera da teknika

mailan, baina atzerakada nabarmena da zibilizazio mailan, Goi Paleolitoko gizakiaren artea berarekin hil baitzen.

Bestalde, Maien Zibilizazioak sekula ez zuen teknologikoki aurrera egin Harri Aroaz harantzago; Mexiko eta Yucatango zibilizazio filialek, berriz, aurrerapen nabariak egin zituzten hainbat metalen lanketan espainiarren konkistaren aurreko bostehun urteetan. Hala ere, ezin da zalantzan jarri Maien Gizarteak askoz zibilizazio finagoa lortu zuela haren ondorengo eta oso bigarren mailako izan ziren bi gizarteak baino.

Prokopio Zesareakoak, historialari heleniko handietako azkenak, Justiniano enperadorearen gerrei buruzko historiaren hitzaurrean —gerra haiek Gizarte Helenikoaren hil-kanpaiak bezala izan ziren— uste du bere gaia aurrekoek aukeraturikoak baino interesgarriagoa dela, bere garaikideen teknika militarra aurreko edozein gerratan erabilitakoa baino hobea zelako. Egia esan, gerra-teknikaren historia historia helenikoaren beste gaietatik bakartu behar bagenu, aurrerapen etengabea aurkituko genuke hasieratik azkeneraino zibilizazio horren hazkundealdian zehar, baita bere beheraldian ere; eta, halaber, aurkituko genuke teknika honen aurrerapenean urrats bakoitza zibilizazio-arentzat zorigaiztokoak ziren gertaerek estimulatu zutela.

Hasteko, Espartako falangearen asmakuntza, hobekuntza militar helenikoaren lehen seinalea, bigarren espartar-meseniarraren gerraren emaitza izan zen, Zibilizazio Helenikoa garaia baino lehenago gerarazi zuena Espartan. Hurrengo hobekuntza-seinalea infanteria helenikoa bi muturretan bereiztea izan zen: mazedoniar falangista eta atenastar peltasta. Mazedoniar falangea, esku bateko lantza laburraren ordez bi eskuetako pika luzez armatua, bere aurreko espartarra baino ikaragarriagoa zen bere talkan, baina, behin formazioa galduz gero, astunagoa eta erasotzen errazagoa ere bazen. Ezin zen seguru borrokan hasi bere alboak peltastek zainduta ez bazituen: hauek mota berriko infanteria arina ziren, lerroetatik atera eta tiratzaile izateko trebatuak. Bigarren hobekuntza hau ikaragarritzko gerratean igarotako mende baten emaitza zen, atenastar-peloponesiar gerra hasi zenetik mazedoniarrek tebastar eta atenastarren gain Keronean lorturiko garaipenera arteko (K.a. 431-338) mendearen emaitza, Zibilizazio Helenikoaren lehen kolapsoa ikusi zuena. Hurrengo hobekuntza-seinalea erromatarrek eman zuten, legionarioaren taktika eta ekipamenduetan peltasten

eta falangisten abantailak elkartzea eta akatsak saihestea lortu zutenean. Legionarioa bi lantza jaurtigarriz eta ezpata labur batez armatua zegoen, eta ordena irekian bi boladatan sartzen zen borrokan, hirugarrena, falange zaharraren estilora armatua eta eratua, erreserban zegoelarik. Hirugarren hobekuntza hau ikaragarritzko gerrate baten agerrialdi berri baten emaitza izan zen, Bigarren Gerra Punikoa K.a. 220an hasi zenetik hirugarren erromatar-mazedoniar gerra K.a. 168an bukatu zen arte. Laugarren eta azken hobekuntza legioaren perfektzioa izan zen; prozesu hau, Mariok hasi eta Zesarrek burutua, Erroman mende batez izandako iraultza eta gerra zibilien emaitza izan zen eta Erromatar Inperioa estatu unibertsal heleniko bezala ezarri zenean bukatu zen. Justinianoren katafraktoak —armaduradun zaldizkoa armaduradun montan, Prokopiok bere irakurleei teknika militar helenikoaren *chef-d'oeuvre* bailitzan aurkezten dienak— ez du aurrerapausorik adierazten garapenbide heleniko indigena honetan. Katafraktoa auzoko eta kontrario iraniar garaikideen tresna militarren egokitzapena zen, Gizarte Helenikoko azken belaunaldi dekadenteek egina, lehenengo Erroma ohartarazi zutelarik beren balentriez Kraso K.a. 55ean Karras-en garaitu zutenean.

Gerraren artea ez da bere aurrerapena gizarte-gorputzaren aurrerapen orokorrarekiko alderantzizko proportzioan egin ditzakeen teknika-mota bakarra. Har dezagun orain teknika bat gerragintzatik oso urruti dagoena: nekazaritzaren teknika, *par excellence* bakearen arte nagusitzat hartzen dena normalean. Historia helenikora itzultzen bagara, arte honen teknikaren hobekuntza zibilizazio baten beheraldiaren lagun izan dela aurkituko dugu.

Hasieran badirudi istorio desberdin batean sartzen garela. Gerragintza helenikoan lehen hobekuntza, asmatu zuen komunitate partikularren hazkundean geldialdi baten ordainetan lortu zen bitartean, lehen hobekuntza konparagarriak nekazaritza helenikoan ondoren zoriontsuagoa izan zuen. Atikak, Solonen ekimenez, nekazaritza mistoaren sistematik esportaziorako nekezaritza espezializatuaren sistamarako bidea ireki zuenean, aurrerapen tekniko honen ondoren energi eta hazkunde-eztanda gertatu zen Atikako bizitzan arlo guztietan. Hala ere, istorioaren hurrengo atalak bestelako eta zorigaiztoko norabidea hartzen du. Aurrerapen teknikoaren hurrengo etapa gehikuntza izan zen eragiketa-eskalan, esklaboek eskulanean oinarrituta

ekoizpen masiboa antolatuz. Badirudi pauso hau Siziliako komunitate kolonial helenikoetan eman zela, eta lehenik Agrigenton agian; zeren eta Siziliako greziarrek merkatu hedakorra aurkitu baitzuten beren ardo eta olioarentzat auzoko barbaroen artean. Hemen aurrerapen teknikoa gizarte-hutsegite larriak konpentsatu zuen, plantazioetako esklabotasun berria askoz ere gizarte-gaitz larriagoa baitzen etxeko esklabotasun zaharra baino. Okerragoa zen bai moralki eta bai estatistikoki. Inpertsonala eta ankerra zen, eta eskala handian gainera. Azkenean Siziliako greziar komunitateetatik Hego Italiako eremu handira zabaldu zen, Bigarren Gerra Punikoak abandonaturik eta hondatuta utzia zuena. Ezarri zen alde guztietan nabarmen gehitu zituen lurraren emankortasuna eta kapitalistaren irabaziak, baina gizarte-antzasunera murriztu zuen landa; zeren eta esklabo bidezko plantazioek, zabaldu ziren alde guztietan, ordezkatu eta pobretu egin baitzuten lurdu zen nekazaria, txanpon txarrak ona bazterreratzen duen bezain zorrotz. Gizarte-ondorioa landaren despopulazioa izan zen eta hirietan, eta Erroman bertan zehazkiago, hiri-proletalgo bizkarroia sortzea. Erromako erreformatzaile-belaunaldien ahalegin guztiek ere, grakotarrengandik aurrera, ezin izan zuten erromatar mundua atera, nekazaritza-teknikaren azken aurrerapenak ekarri zien gizarte-izurri honetatik. Plantazio-esklabo sistemak iraun egin zuen bere kabuz kolapsatu zen arte diru-ekonomiak behea jo zuelako, honen mende baitzegoen bere irabazietarako. Finantza-kolapso hau Kristoren ondorengo hirugarren mendeko gizarte-*débâcle* orokorraren parte izan zen; eta *débâcle*-a, zalantzarik gabe, aurreko lau mendeetan Erromako gizarte-gorputzaren ehunak jaten aritutako gaitz landatarraren emaitza izan zen neurri batean. Honela, gizarte-kantzer hau azkenean bere kabuz desagertu zen harrapatua zuen gizartearen heriotza eraginez.

Amerikar Batasuneko kotoi-estatuetan plantazioetako esklabotasunaren garapena, Ingalaterran kotoizko produktuak manufaktura-tzeko teknikan izandako hobekuntzen ondorioz, maila bereko beste adibide bat da, oso ezaguna. Amerikako gerra zibilak moztu zuen kantzerra esklabotasunaren egitate hutsari zegokionez, baina inola ere ez zituen kendu liberto beltzen arraza gizarte amerikarraren erdian — europar jatorrikoa gainera — egoteak zekartzan gizarte-gaitzak.

Teknika-aurrerapenaren eta zibilizazio-aurrerapenaren arteko korrelazio falta nabaria da kasu hauetan guztietan, teknikak hobetu

diren bitartean zibilizazioek geldirik egon edo atzeraldiak izan baitituzte. Gauza bera nabari da ondoren aztertu behar ditugun kasuetan ere: hauetan teknikak geldirik egon dira zibilizazioak aurrera edo atzera mugitu diren bitartean.

Adibidez, giza aurrerapenean ikaragarritzko pausoa eman zen European Behe eta Goi Paleolito aroen artean.

«Goi Paleolitoko kultura laugarren glaziazioaldiaren bukaera-rekin elkartzen da. Neanderthal gizakiaren hondakinen ordeztasunak aurkitzen ditugu eta hauetako inork ez du kide-tasunik Neanderthal gizakiarekin. Aitzitik, guztiak hurbiltzen dira gehiago edo gutxiago gizaki modernoagana. European dauden garai honetako hondakin fosilei begiratzen badiegu, ohartuko gara salto batean igaro garela aldi modernora giza gorputzaren formari dagokionez»⁷⁴.

Paleolito-aroaren erdian gertaturiko giza tipoaren antzaldatze hau da agian giza historian inoiz izan den gertakaririk erabakigarriena; zeren eta une horretan azpigizakiak arrakasta izan baitzuen gizaki bihurtzen, baina gizakiak, azpigizakiaren portaerak gizakia gizatiartu zuenetik igaro den denbora guztian, sekula ez du arrakastarik izan gizagaineko maila lortzen. Konparazio honek *Homo Neanderthalensis* gainditu eta *Homo Sapiens* sortu zenean lorturiko aurrerakada psikikoaren neurria ematen digu. Hala ere, iraultza psikiko ikaragarri honekin batera ez zen teknikan iraultzarik eman; beraz, sailkapen teknologikoan, Goi Paleolitoko haitzulo-egoitzetan oraindik ere miresten ditugun marrazkiak egin zituzten artista sentiberak «kate maila galduarekin» nahastu behar dira, baina, errealtatean —bere jakinduriaren eta berdin altueraren, eta gizatasunaren bereizgarri den ezaugarri guztien arabera neurtuta— *Homo Palaeolithicus Superior* eta *Homo Palaeolithicus Inferior*-en arteko leizea, haren eta gure egungo *Homo Mechanicus*-en artekoa bezain handia da.

Kasu honek, gizarteak aurrera egin duen bitartean teknika geldirik egon denekoak, baditu alderantzizkoak, hau da, gizarteek behe-ra egin duten bitartean teknikak geldirik egon direneko kasuak. Adibidez, burdin lanketaren teknika —hasieran gizarte-kolapso handiaren mementoan Gizarte Minoikoa desegitera zihoanean Egeo-munduan sartua— geldirik geratu zen —ez hobetuz, ez txartuz— hurrengo gizarte-kolapso handiaren garaian, Zibilizazio Helenikoak bere

aurreko Minoikoaren bideari jarraitu zionean. Gure Mendebaldeko munduak burdin lanketaren teknika erromatar mundutik heredatu zuen aldaketarik gabe, baita latinezko alfabetoaren eta matematika greziarren teknikak ere. Sozialki hondamendi bat gertatua zen. Zibilizazio Helenikoa zatikaturik zegoen eta haren ondoren interregno bat sortu zen, bertatik Mendebaldeko Gizarte berria sortu zelarik azkenean. Baina antzeko hausturarik ez zen izan hiru teknika hauen jarraipenean.

2.

Aurrerapena autodeterminaziorantz

Teknikaren garapenaren historiak, hedapen geografikoaren historiak bezala, huts egin digu zibilizazioen hazkundearen irizpide bat ematen, baina aurrerapen teknikoaren gobernatzen duen printzipio bat azaltzen digu: sinplifikazio mailakatuaren legea bezala deskriba daitekeena. Bere «bide iraunkor» elaboratua zuen lurrun-makina astun eta handiaren ordez barne-errekuntzako makina garbi eta erabilgarria hartzen da, errepideetan trenaren abiadura eta ia oinezko baten ekin-tza-askatasun guztiaz ibil daitekeena. Haridun telegrafoaren ordez hari gabeko telegrafoa ezartzen da. Gizarte siniko eta egipziakoko idazkera oso konplikatuaren ordez latinezko alfabeto argi eta erabilgarria hartzen da. Hizkuntzak berak ere sinplifikatzeko joera adierazten du deklinazioak baztertuz hitz laguntzaileen mesedetan: hau erakusten du indo-europar familiako hizkuntzen historien ikuspegi konparatuak. Sanskritoak, familia honetan bizirik iraundako kasu zaharrenak, deklinazio-aberastasun ikaragarria erakusten du, partikula-pobrezia harrigarriaren ondoan. Eskalaren beste muturrean, ingeles modernoak ia deklinazio guztiez gabatu da, baina ordainetan preposizioak eta aditz laguntzaileak hartu ditu. Greziera klasikoa erdibidean dago bi mutur hauen artean. Mendebaldeko mundu modernoan Elizabeth-en garaiko janzkeraren konplexutasun barbarotik egungo moda xumeetara sinplifikatu da jantzia. Kopernikoren astronomiak, sistema ptolemaikoa ordezkatu zuenak, termino geometriko askoz ere sinpleago-

tan, zeruko gorputzen mugimendu-aukera askoz ere zabalagoaren azalpena ematen du koherentzia berdintsuaz.

Sinplifikazio hitza ez da agian erabat zehatza, edo behintzat ez erabat egokia, aldaketa hauek deskribatzeko. Sinplifikazioa hitz negatiboa da eta ez-egiteak eta ezabatzeak adierazten ditu, baina kasu hauetako bakoitzean gertatu dena ez da gutxikuntza, eraginkortasun praktikoaren edo satisfakzio estetikoaren edo atzemaite intelektualaren gehikuntza baizik. Emaizta ez da galera, irabazia baizik; eta irabazi hau sinplifikazio-prozesu baten emaitza da, prozesuak ingurune materialago batean preso egondako indarrak askatzen baititu, eta, beraz, libre uzten ditu ingurune etereoagoan potentzia handiagoaz lan egiteko. Ez du aparatuaren sinplifikazioa soilik inplikatzeko, baita ondorengo energi transferentzia ere, edo enfasi-aldaketa, izate- edo ekintza-esparru apalagotik goragokora. Agian era argiagoan deskribatuko dugu prozesua, ez sinplifikazioa baizik eta eterealizazioa deitzen badugu.

Natura fisikoaren gaineko giza kontrolaren esparruan, garapen hau ukitu irudimentsu finez deskribatu du antropologo moderno batek:

«Lurzorua bertan behera uzten ari gara, kontaktua galtzen ari gara, gure aztarnak geroz eta ahulagoak dira. Sukarriak betiko irauten du, kobreak zibilizazio bat, burdinak belaunaldiak, altzairuak bizialdi bat. Nor izango da gai Londres-Pekin arteko aire-espresoaren bidea maparatzeko mugimenduaren aroa igaro ondoren, edo gaur egun esateko zein den eterrean zehar irratiz bidali eta hartzen diren mezuen bidea? Baina izenioen erresuma txiki eta desagertuaren mugak defentsiboki hedatzen dira oraindik East Angliako hegoaldeko mugan zehar, zingira lehortuetatik oihan erraustuetara»⁷⁵.

Gure adibideek iradokitzen dute bila gailtzen hazkundearen irizpidea eta kanpo-ingurunearen —gizatiar edo fisikoaren— konkistatzen aurkitu ez duguna, enfasiaren aldaketa progresiboan datzala, baita ekintzen agertokia eremu honetatik beste batera aldatzean, non erronka-eta-erantzunaren ekintzak jokaleku alternatiboa aurki baitezake. Beste eremu honetan erronkak ez dira kanpotik sartzen, baizik eta barrutik sortzen dira, eta garaipenezko erantzunek ez dute kanpo-oztopoak gainditzearen edo kanpoko arerio bat menderatzearen forma hartzen, baizik eta barneko autoantolaketa edo autodeterminazioan

adierazten dira. Gizabanako bat edo banako gizarte bat erronka-segida bati erantzun-segida bat ematen ikusten dugunean, eta ea serie partikular hau hazkunde-adierazpentzat hartu behar ote den galdetzen diogunean geure buruari, gure galderari erantzuna aurkitzeko ondorengoari erreparatu behar diogu: ea, seriea garatzen denean, ekintzak joerarik duen ala ez aipaturiko bi eremu horietako lehenengotik bigarrenera aldatzeko.

Egia hau argi eta garbi agertzen da histori aurkezpen batzuetan: hazkunde-prozesuak kanpo-eremuen terminoetan soilik deskribatzeko ahalegina egiten denean hasieratik bukaeraraino. Har ditzagun adibidetzat era honetako bi aurkezpen nabarmen, bakoitza jeinu baten lana izanik: M. Edmond Demolinsen *Comment la Route crée le Type Social* eta H.G. Wellsen *The Outline of History* liburua.

Ingurunearen tesia Demolinsek ezartzen du bere hitzaurrean erabateko laburtasunez:

«Lurbira osoan herrien aniztasun mugagabea dago; zerk eragin du aniztasun hau?... Arraza-aniztasunaren lehen kausa eta erabakigarria herriek jarraitu duten bidea da, arraza eta gizarte-tipoa sortzen dituen».

Adierazpen zirikatzaile honek bere helburua betetzen duenean gu autorearen tesia dakarren liburua irakurtzera bultzatuz, oso ongi moldatzen dela ohartzen gara, bere adibideak gizarte primitiboen bizitzatik ateratzen dituen neurrian. Horrelako kasuetan kanpoingurunetik bakarrik iritsitako erronkei emandako erantzun modura esplikatu daiteke (gutxi gorabeherako osotasunez) gizartearen izaera; baina hau, noski, ez da hazkundearen azalpena, gizarte hauek orain geldirik baitaude. Demolins arrakastatsua da, halaber, gizarte gerazien egoera esplikatzen. Baina autoreak bere formula herrixketako komunitate patriarkalei aplikatzen dienean, irakurlea ezeroso sentitzen hasten da. Kartago eta Veneziari buruzko kapituluetan, zerbait kanpoan utzi duela sentitzen duzu seguru, omisioa zertan datzan esateko erabat gai izan gabe. Pitagorasen filosofia azaltzen saiatzen denean Italiako oin-puntan zehar garraio-merkataritza bailitzan, irribarre egiteko tentazioari eutsi behar zaio. Baina «*La Route des Plateaux—Les Types Albanais et Hellènes*» izenburuko kapituluak harritu egiten du. Albaniar barbarotasuna eta zibilizazio helenikoa elkarrekin jartzea ere, haren adierazleak aspaldi batean beraien hel-

muga geografikoetara terreno bereko bidetik iritsi direlako bakarrik! Eta helenismotzat ezagutzen dugun giza abentura handia Balkanetako goi-ordokiaren nolabaiteko azpiproduktu epifenomenal batera murriztea ere! Zorigaitzeko kapitulu honetan liburuaren argumentuak bere burua gezurtatzen du *reductio ad absurdum* bidez. Zibilizazio bat Zibilizazio Helenikoa bezain urruti joaten denean, benetan barregarria gertatzen da haren hazkundera kanpo-ingurunetik iritsitako erronkei emandako erantzun modura bakarrik esplikatzeko ahalegina.

Halaber, badirudi Wellsek ziurtasuna galtzen duela zerbait primitiboaren ordez zerbait heldua aztertzen duenean. Bere elementuan dago geologi garaiko aspaldiko eoiren batean gertaera dramatikoren bat berregiteko irudimen-ahalmenak erabiltzen dituenean. Narrasti tzar itzelak desagertu zirenean «teriomorfo txiki hauek, oso aspaldiko ugaztun hauek» nola bizirik iraun zuteneko istorioa, David eta Goliaten saga biblikoarekin parekatzeko modukoa da ia. Teriomorfo txikiak Paleolitoko ehiztari edo eurasiar nomada bihurtu zirenean, Wells, Demolins bezala, espero dugunaren mailan dago oraindik. Baina erabat egiten du porrot gure Mendebaldeko Gizartearen analektan William Ewart Gladstone bereziki eterializaturiko teriomorfo hura neurtu behar duenean. Huts egiten du hemen, bere kontaketak aurrera egin ahala, bere altxor espirituala makrokosmosetik mikrokosmosera eramaten huts egin duelako; eta porrot honek *The Outline of History* delakoaren lorpen intelektual bikainaren mugak erakusten ditu.

Wellsen porrota, arazo bera konpontzen Shakespearek izandako arrakastarekin neur daiteke. Shakespeareren galeria handiko pertsonaiarik nabarmenenak gorantzako eterealizazio-ordenan antolatzen baditugu, eta antzerkigilearen teknika pertsonaia horiek jendea jardunean erakutsiz adieraztea dela kontuan izaten badugu, ohartuko gara Shakespearek, gure pertsonai eskalan beheko mailetatik goragokoetara mugitzen den neurrian, etengabe aldatzen duela ekintza-eremua, non jokarazten baitio bere papera drama bakoitzeko heroiori, agertokiaren gero eta zati handiagoa ematen diolarik mikrokosmosari eta gero eta gehiago bultzatuz makrokosmosa eszenaren atzera. Enrike Vetik hasi eta Macbethengandik igaroz Hamletenganaino seriea jarraitzen badugu, egiaztatuko dugu egitate hori. Enrike Varen pertsonaia primitibo samarra ia osorik ematen da ezagutzera bere ondo-

ko giza ingurunearen erronkei emandako erantzunetan: parranda-lagunekin eta aitarekin dituen harremanetan, Agincourteko goizean bere adore izugarria arma-lagunei transmititzen dienean eta Kate printzesari egiten dion gorteiatze sutsuan. Macbethengana pasatzen garenean, ekintzen antzeztokia aldatuta aurkitzen dugu; zeren eta Macbethen harremanak Malcolm edo Macduff-ekiko, edo baita lady Macbethetik ere, heroiak bere buruarekin dituen erlazioekin berdinduta daude garrantzi aldetik. Azkenik, Hamletengana iristean, makrokosmosari ia desagertzen uzten diola ikusten dugu, harik eta heroiak bere aitaren hiltzaileekin, maite izandako Ofeliarekin eta adinarekin galdutako Horazio zaintzailearekin dituen harremanak (heroia-aren) beraren ariman prestatzen ari den barne-gatazkan zurrupatuta geratzen diren arte. Hamleten ekintza-eremua ia erabat aldatu da makrokosmosetik mikrokosmosera; eta Shakespearearen artearen maisulan honetan, Eskiloren *Prometeo*-n edo Browning-en monologo dramatikoetan bezala, azkenean aktore bakar batek monopolizatzen du agertokia, ekintza-pantaila handiagoa uzteko pertsonalitate honek bere baitan dituen espiritu-indar harrotuei.

Ekintza-eremuaren transferentzia hau, Shakespearek bere heroiez egiten duen aurkezpenean ikusten duguna espiritu-hazkundearen gorantzako ordenan antolatzen ditugunean, zibilizazioen historian ere ikus daiteke. Hemen ere, erronkei emandako erantzun-sail bat hazkundera metatzen denean, hazkunde honek aurrera egin ahala ekintza-eremua kanpo-ingurunetik gizartearen gorputz sozialaren beraren barrura etengabe aldatzen dela aurkituko dugu.

Adibidez, dagoeneko ohartu gara, Mendebaldeko gure arbasoek eskandinaviar oldarraldiari kontra egitea lortu zutenean, beren giza ingurunearen gain garaipen hau lortzeko erabili zuten bitartekoetako bat sistema feudalararen tresna militar eta sozial ahaltsua asmatzea izan zela. Baina Mendebaldeko historiaren hurrengo etapan feudalismoak ezarri zuen klaseen bereizketa sozial, ekonomiko eta politikoak zenbait presio eta tirabira sortarazi zuen, eta hauek, beren aldetik, hazten ari zen gizarteak aurrean izan zuen hurrengo erronka sortu zuten. Mendebaldeko Kristandadeak bikingoei atzera eusteko lanean atseden hartu orduko, bere hurrengo zereginarekin topo egin zuen: klaseen arteko erlazio-sistema feudala, estatu subiranoen eta beren hiritar banakoen arteko erlazio-sistema berriaz ordezte. Elkarren segidako

bi erronken kasu honetan, argi eta garbi ageri da ekintzen antzeztokiaren aldaketa kanpo-eremutik barrukora.

Joera bera ikusten dugu historiaren beste pasarte batzuetan ere, dagoeneko aztertu ditugunak hainbat testuingurutan. Historia helenikoan, adibidez, ikusi dugu lehen erronka guztiak kanpo-inguruetik sortzen zirela: goi-lurretako barbarotasunaren erronka Helasen bertan eta malthusiar erronka; honi itsasoz bestaldera hedatuz aurre egin zitzaion eta ondorioztat barbaro indigena eta zibilizazio lehiakideen erronkak eragin zituen; azken hauen erronkak Kartago eta Pertsiairen aldibereko kontraerasoekin burutu ziren K.a. bosgarren mendearen lehen laurdenean. Gero, ordea, giza ingurunearen erronka izugarri hau arrakastaz gainditu zen Alexandrok Helesponto igarotzearekin hasi eta Erromaren garaipenekin jarraitzen duten lau mendeetan. Garaipen hauei esker, Gizarte Helenikoak bost edo sei mendeko tregoa izan zuen, eta tarte honetan ez zitzaion agertu erronka seriorik kanpo-inguruetik. Baina honek ez du esan nahi mende horietan Gizarte Helenikoa batere erronkarik gabe egon zenik. Aitzitik, dagoeneko esan dugun bezala, mende hauek beheraldikoak izan ziren; hots, garai honetan helenismoak huts egin zuen agertu zitzaizkion erronkei arrakastaz erantzuten. Ikusi dugu zein ziren erronka hauek eta, berriro begiratzen badiegu orain, ikusiko dugu barne-erronkak zirela guztiak, aurreko kanpo-erronkari emandako garaipenezko erantzunaren ondoriozko barne-erronkak, feudalismoak gure Mendebaldeko Gizarteari aurkezturiko erronka feudalismoaren aurreko garapenetik sortu zen bezalaxe, bikingoen kanpo-presioari erantzuteko baliabide gisa.

Adibidez, pertsiar eta kartagotarren presio militarrek Gizarte Helenikoa estimulatu zuen autodefentsarako bi tresna sozial eta militar ahaltsu asmatzera: atenastar itsas armada eta sirakusar tirania. Hauek, hurrengo belaunaldian, barne-tirabira eta presioak sortarazi zituzten gizarte-gorputz helenikoan; honen emaitza atenastar-peloponesoar gerra izan zen eta Sirakusaren aurkako erreakzioa bere mendeko barbaroen eta aliatu greziarren aldetik; eta asaldaketa hauek Gizarte Helenikoaren lehen kolapsoa eragin zuten.

Historia helenikoaren ondorengo ataletan armak, Alexandroren eta eszipiondarren konkistetan kanpora zuzenduak, barrurantz jiratu ziren laster mazedoniar diadoko lehiakideen eta erromatar diktadore

lehiakideen gerra zibiletan. Era bertsuan, Mendebaldeko Mediterraneoaz nagusitzeko gizarte Heleniko eta Siriakoen arteko lehia ekonomikoa berriro agertu zen Gizarte Helenikoaren altzoan, lehiakide siriakoak behea jo ondoren, are suntsigarriagoa izan zen borrokan ekialdeko plantazioetako esklaboen eta haien siziliar edo erromatar nagusien artean. Helenismoaren eta ekialdeko zibilizazioen —Siriako eta Egiptziako eta Babiloniko eta Indikoaren— arteko kultur gatazka berriro agertu zen Gizarte Helenikoaren baitan barne-krisi bezala arima heleniko edo helenizatueta: krisi hau Isisen gurtza eta astrologia eta mitraismoa eta kristautasuna eta beste erlijio sinkretiko asko sortzean hasi zen.

*Etengabe borrokatzen dira, Ekialde eta Mendebaldea, nire bihotzeko muga-mugetan*⁷⁶.

Geure mendebaldeko historian, orain arte igaro den honetan, antzeko joera antzeman genezake. Lehen garaietan aurkitu zituen erronkarik garrantzitsuenak giza inguruneak aurkeztu zizkion: hasi Espainian arabiarren erronkekin eta eskandinaviarrenekin, eta osmanliarren erronkarekin bukatuz. Ordudanik gure Mendebaldearen hedapen moderno mundu-mailakoa izan da hitzez hitz; eta, edonola ere, oraingoz hedapen honek erabat askatu gaitu gizarte atzerriarrendan-diko erronkei buruz antzina genuen kezkatik⁷⁷.

Viena hartzeko osmanliarrek izandako bigarren porrotaz geroztik gure gizarteak izan duen kanpo-erronka eraginkor baten itxura bakarra boltxebismoaren erronka izan da; honi egin behar izan dio aurre Mendebaldeko munduak Lenin eta bere lagunak Errusiar Inperioaren jabe bihurtu zirenetik 1917an. Hala ere, boltxebismoak ez du oraindik gure Mendebaldeko Zibilizazioaren eragina mehatxatu S.E.S.B.ko mugetatik askoz harantzago; eta egunen batean hedakuntza komunistak errusiar komunisten itxaropenak gauzatuko balitu ere lurbira osoan hedatuz, komunismoak mundu-mailan kapitalismoari gain hartzeak ez luke esan nahiko kultura atzerriar baten garaipena, komunismoa, Islama ez bezala, Mendebaldeko iturburutik sortua baita, borrokatzen duen Mendebaldeko kapitalismoaren aurkako erre-akzioa eta kritika izanik. Mendebaldeko doktrina exotiko hau XX. mendeko Errusiaren kredo iraultzailetzat hartzeak, Mendebaldeko Zibilizazioa arriskuan dagoenik inola ere adierazi gabe, bere eragina zein indartsua izatera iritsi den erakusten du benetan.

Anbiguotasun sakona dago boltxebismoaren izaeran, Leninen ibilketan azaltzen dena. Pedro Handiaren lana osatzera ala suntsitzera etorri zen hau? Errusiako hiriburua Pedroren gotorleku eszentrikotik barrualdeko posizio zentral batera aldatzean berriro, Leninek ematen du Avakum artzapezaren eta Sinesle Zaharren eta eslavofiloen ondorengotzat ari dela bere burua aldarrikatzen. Hemen dugu, pentsa genezake, Errusia Santuaren profeta, Mendebaldeko Zibilizazioaren aurka errusiar arimaren erreakzioa gorpuzten duena. Hala ere, Leninek kredo bat bilatzen duenean, mendebaldar bihurturiko judu germaniar batengana jotzen du, Karl Marxengana. Egia da kredo marxista hurbilago dagoela Mendebaldeko gizarte-ordena erabat gaitzestetik hogeigarren mendeko errusiar profeta batek har zezakeen Mendebaldeko jatorriko beste edozein kredo baino. Kredo marxistaren elementu negatiboek, eta ez positiboek, egin zuten onargarri errusiar espiritu iraultzailearekin; eta honek azaltzen du zergatik gain hartu zion 1917an artean exotikoa zen Mendebaldeko kapitalismoaren aparatuari era berean exotikoa zen Mendebaldeko doktrina antikapitalistak. Azalpen hau, filosofia marxista errusiar giroan jasaten ari den itxuraldaketak berresten du: marxismoa kristautasun ortodoxoaren ordezkio emozional eta intelektual bihurtzen ari dela ikusten baitugu, Marx haren Moises eta Lenin haren Mesias bailiran, eta haien lanen bilduma eliza ateo militante berri honen idazteunak. Baina fenomenoak bestelako itxura hartzen du gure arreta fedetik egintzetara zuzendu eta Leninek eta ondorengoek errusiar herriari benetan zer egin dioten aztertzen dugunean.

Geure buruari galdetzen diogunean zer esan nahi duen Stalinen Bosturteko Planak, zera bakarrik erantzun dezakegu: nekazaritza eta industria eta garraioa mekanizatzeko ahalegina izan zela, nekazari-nazio bat mekanikari-nazio bihurtzeko, eta Errusia zaharra Amerika berri bihurtzeko. Beste era batera esanda, mendebaldar bihurtzeko ahalegin moderno bat izan zen, hain handinahiko, erabateko eta gupidagabea, ezen itzalean utzi baitzuen Pedro Handiaren lana. Errusiako egungo gobernariak deabruzko energiaz ari dira lanean, munduan oro har salatzen ari diren zibilizazio horren berorren arrakasta ziurtatzeko Errusian. Zalantzarik gabe, gizarte berri bat sortzea amesten dute, ekipamenduz amerikarra baina arimaz errusiarra izango dena, nahiz eta hau amets bitxia izan historiaren interpretazio materialista fedeko arti-

kulutzat daukaten estatu-politikariek amesteko! Printzipio marxisten arabera, errusiar nekazariari amerikar mekanikaria bezala bizitzen erakusten bazaio, espero behar dugu mekanikariak bezala pentsatzen ikasiko duela, honek bezala sentitzen eta honek desiraten duena desiratzeko. Errusian Leninen goiburuen eta Forden metodoen artean ikusten ari garen borrokan, paradoxikoki berretsia ikus genezake Mendebaldeko Zibilizazioaren eragina Errusiar Zibilizazioaren gain.

Anbigutasun bera agertzen da Gandhiren ibilketan ere, zeinek mendebaldar bihurtzeko nonahiko prozesu berari nahigabe ematen dion laguntza are ironikoagoa baita. Hindu-profeta prest dago India Mendebaldeko munduaren sareetan harrapatu duten kotoi-hariak mozteko. «Harilkatu eta ehundu gure Indiako kotoia zuen indiar eskuekin» predikatzen du. «Ez zaitezte jantzi Mendebaldeko ehundegietan ekoizturikoaz; eta, nik dei egiten dizuet, ez saiatu produktu arrotz hauek baztertzen Indiako lurraldean indiar ehundegi mekaniko berriak, Mendebaldeko ereduak, ezarri». Mezu hau, Gandhiren benetako mezua, ez dute onartzen haren herrikideek. Santutzat gurtzen dute, baina etsi eta mendebaldar bihurtzeko bidetik gidatzeko prest dagoen neurrian bakarrik onartzen dute haren gidaritza. Eta honela ikusten dugu Gandhi gaur egun mugimendu politiko bat suspertzen Mendebaldeko programarekin —India estatu parlamentario independente subirano bihurtzea— eta Mendebaldeko aparatu politiko osoarekin: hitzaldiak, botoak, plataformak, aldizkariak eta publizitateak. Kanpaina honetan profetaren jarraitzailerik eraginkorrenak —nahiz eta ez izan erabakigarrienak— industriari indiarrek dira, profetaren benetako eginkizunari porrot eragiten gehien saiatuak, industrialismoaren teknika Indiar bertara girotu duten gizonak⁷⁸.

Mendebaldeko Zibilizazioak bere ingurune materiala garaitu ondoren bilakatu dira kanpo-erronkak barne-erronka. Industri Iraultza delakoak teknika-mailan izandako garaipenek nabarmen sortu zuten arazo-sorta bat ekonomi eta gizarte-mailetan, baina gai hau hain konplikatu eta hain ezaguna izanik ez daukagu hemen horretaz jardun beharrik. Ekar dezagun gogora orain azkar desagertzen ari den bide premekanikoaren irudia. Antzinako bide hau mota guztietako gurpildun ibilgailu zaharrez betea dago: eskorgaz, gizonak tiratutako kotxetxo, idi-gurdiz, bi gurpileko kotxez, dilijentzia bat izanik trakzio muskularraren *chef-d'oeuvre* eta hankaz mugituriko bizikleta han-

-hemenka etorriko diren gauzen seinale. Jadanik bidea oso betea dagoenez, zenbait talka gertatzen da; baina inori ez zaio axola, gutxi direlako zaurituak eta trafikoa nekez geratzen da etenda. Zeren eta, egia esan, tupusteko hauek ez dira larriak. Ezin dira larriak izan trafikoa oso geldoa delako eta indar bultzagarria oso ahula. Bide honetako «trafiko-arazoa» ez da tupustekoak saihestea bidaia erabat burutzea baizik, bideak antzina ziren bezalakoak izanik. Beraz, ez dago inolako trafiko-arauketarik: ez polizia-zerbitzuan, ez seinaletarako argirik.

Eta orain begira diezaiogun gaur egungo bideari, non burrunbaka eta orroka baitabil trafiko mekanikoa. Bide honetan abiadura-eta garraio-arazoak konponduta daude, hori erakusten du kamioiak bere akoplatu-katearekin astun mugitzen delarik erasoan datorren elefanteak baino oldar handiagoz, baita kirol-autoek ere, ziztu bizian pasatzen direlarik erle edo balaren arintasunez. Baina, arrazoi beragatik, talken arazoa trafiko-arazo *par excellence* bihurtu da. Hemen, bide moderno honetan, arazoa ez da teknologikoa psikologikoa baizik. Distantzia fisikoaren erronka zaharra gidarien arteko giza harremanen erronka berri bihurtu da; gidariek espazioa nola deuseztatu ikasi ondoren, elkar deuseztatzeko arrisku etengabe jarri dituzte beren buruak.

Trafiko-arazoaren izaeran gertaturiko aldaketa honek badu, noski, esanahi sinbolikoa literalaz gain. Gure Mendebaldeko gizarte-bizitza modernoaren eremu osoan gertatu den aldaketa orokorra adierazten du aro honetako bi gizarte-indar nagusiak sortu zirenetik: industrialismoa eta demokrazia. Natura fisikoaren energiak kontrolatzen eta milioika gizakiren ekintza bateratuak antolatzen gure asmatzaile modernoek egin duten aparteko aurrerapenari esker, gure gizartean orain egiten den guztia, onerako edo txarrerako, ikaragarritzko «bultzadaz» egiten da; eta honengatik, ekintzen ondorio materialak eta agenteen erantzukizun moralak orain arte inoiz izan diren baino larriagoak dira. Gerta daiteke gizarte guztien aro guztietan arazo moralen bat izatea gizartearen etorkizunerako erronka erabakigarria; baina, hala eta guztiz ere, ez dago zalantzarik erronka moralak dela eta ez erronka fisikoa gure gizarteak gaur egun aurrean duena.

«Aurrerapen mekanikoa deritzonari buruz egungo pentsalariak duten jarreraren, aldatu den espirituaz ohartzen gara. Miresmena kriti-

*kak moderatzen du; atseginak zalantzari utzi dio lekua; zalantza alar-
ma ari da bihurtzen. Harridura eta frustrazio-zentzua dago, bide luzea
egin ondoren norabide okerra hartu duela ohartzen denaren kasuan
bezala. Atzera egitea ezinezkoa da; nola egin aurrera? Non aurkituko
ote da bide bat edo bestea hartzen badu? Mekanika aplikatuaren
ordezkari zaharrari barka dakioke desilusioa azaltzea, orain bera
alde batera egonik, garai batean atsegin mugagabea sortzen zioten
aurkikuntza eta asmakuntzen igarotze guztiz azkarra ikusten duenean.
Ezinezkoa da ez galdetzea: Norantz doa ikaragarritzko prozesio hau?
Zein du, azken finean, bere helburua? Zer eragin izan ote dezake giza
arrazaren etorkizunean?».*

Hitz hunkigarri hauek gure bihotz guztietan adierazpidea aur-
kitzen ahalegindu den arazo bat planteatzen dute; eta autoritatez esan-
dako hitzak dira, Zientzi Aurrerapenerako Britainiar Elkarteko lehen-
dakariak esan baitzituen gorputz historiko honen ehun eta batgarren
urteroko batzarraren sarrerako ekitaldian⁷⁹. Industrialismoaren eta
demokraziaren gizarte-bultzada berria erabili behar al da mendebaldar
bihurturiko mundua gizarte ekumeniko bezala antolatzeko eginkizun
konstruktibo handian, edo geure suntsipenerako erabiliko ote dugu
geure ahalmen berria?

Modu sinpleagoan agian, dilema berbera agertu zitzaien
Antzinako Egiptoko gobernariei. Aitzindari egipziakoek lehen erron-
ka fisikoari arrakastaz erantzun ziotenean, Behe Niloren ibarreko ura,
lurzorua eta landaretza gizakiaren borondatearen mende jarri zituzte-
nean, beste arazo hau planteatu zen: Egipto eta egiptoarren jaun eta
jabeak nola erabiliko ote zuen giza antolamendu miresgarria, bere
esku eta bere borondateari erantzuteko prest zeukana. Erronka mora-
la zen. Bere agindupean zeukan botere materiala eta giza boterea,
mendekoen zoria hobetzeko erabiliko ote zituen? Gorantz eta aurre-
rantz gidatuko ote zituen, erregeak berak eta haren pareetako gutxi
batzuek dagoeneko lortua zuten ongizate-mailara? Eskiloren dramen
Prometeoren paper eskuzabala jokatu ote zuen ala Zeusen paper
tiranoa? Badakigu erantzuna. Piramideak eraiki zituen; eta piramide-
ek hilezkortu dituzte autokrata haiek, ez betirauten duten jainkotzat,
behartsuaren aurpegi-birrintzailatzat baizik. Haien izen txarra folklo-
re egipziakoan transmititu zen Herodotoren orrialde hilezkorretan
bere bidea aurkitu zuen arte. Okerbidetik egindako aukeraren nemesia

bezala, heriok bere esku izoztua ipini zuen hazten ari zen zibilizazio haren biziaren gainean, bere hazkundearen estimulu zen erronka kanpo-eremutik barrukora transferitua zen mementoan. Gaur egungo geure munduan nolabait ere antzekoa den egoeran, industrialismoaren erronka teknikaren eremutik moralaren eremura transferitzen ari denean, emaitza oraindik ez da ezagutzen, egoera berriaren aurrean gure erreakzioa oraindik erabaki gabe baitago.

Hala ere, iritsi gara kapitulu honen arrazoibidearen bukaerara. Bukatzeko, esan dezagun, hainbat erronkari emandako arrakastazko erantzun-serie bat hazkundearen adierazgarritzat interpretatu behar dela, serie hori zertzen den bitartean, ekintzak kanpo-ingurune —fisiko edo gizatiar— baten eremutik hazten ari den pertsonalitate edo zibilizazioaren *for intérieur*-era aldatzeko joera baldin badu. Hau hazten den eta hazten jarraitzen duen bitartean, gero eta gutxiago izango ditu kanpo-indarrek aurkezturiko eta kanpoko gudu-zelaietan erantzunak eskatzen dituzten erronkak, eta gero eta gehiago berak berari barne-agertokian aurkezturiko erronkak. Hazkundeak esan nahi du hazten ari den pertsonalitateak edo zibilizazioak bere ingurune eta bere erronkari eta bere ekintza-eremu bihurtzeko joera izaten duela. Beste hitz batzuekin, hazkunde-irizpidea autodeterminaziorantz aurrera egitea da; eta autodeterminaziorantz aurrera egitea formula prosaiko bat da Bizia bere Erresuman sartzen duen miraria deskribatzeko.

XI. HAZKUNDEAREN ANALISIA

1.

Gizartea eta gizabanakoa

Pentsatzera eramán gaituzten bezala, autodeterminazioa baldin bada hazkundearen irizpide, eta autodeterminazioak antolaketa esan nahi badu, hazten diren zibilizazioak benetan zer prozesuren bidez hazten diren aztertuko dugu, beren buruak pixkanaka zein eratan antolatzen dituzten ikertzen badugu. Orokorrean, garbi dago zibilizazio-prozesuan dagoen gizarte bat «bereak dituen» edo «bere jabe diren» gizabanakoen bidez antolatzen dela. Gizartearen eta gizabanakoaren arteko erlazioa bi formula hauetako edozeinekin adieraz dezakegu berdin, nahiz eta kontraesankorrak izan; eta badirudi bi formulak desegokiak direla erakusten duela anbiguotasun honek eta, geure ikerketa berriari ekin aurretik, gizarteak eta gizabanakoak elkarren artean zein erlaziotan dauden aztertu beharko dugula.

Hau, noski, soziologiaren funtsezko arazoetako bat da, eta funtsezko bi erantzun daude horrentzat. Bata da gizabanakoa erre- alitate bat dela, existitzeko eta bere kabuz atzemana izateko gai dena, eta gizartea gizabanako bereizien metaketa baino ez dela. Bestea da erre- alitatea gizartea dela; gizartea osotasun betegin eta ulergarria dela, eta gizabanakoa osotasun horren zati bat besterik ez, existitu edo imajinatu ezin daitekeena beste edozein forma edo posiziotan existituz. Ohartuko gara ikuspegi hauek ez dutela azter- ketarik jasaten.

Irudizko gizabanako bereizi baten koadro klasikoa ziklopeen deskribapen homerikoa da, Platonek aipatua guk orain aipatzerakoan dugun helburu berarekin:

*Ez dute herritarren biltzarrik ezta legerik ere.
Mendi goien tontorretan bizi dira, haitzulo sakonetan.
Nork bere legea ezartzen die emazte eta hurrei,
parekideez batere arduratu gabe⁸⁰.*

Esanguratsua da bizimodu bereizi hau ez zaiela ohiko gizakiei adskribatzen, eta egia esan sekula ez da gizakirik ziklopeen erara bizi izan, zeren eta gizakia funtsean animalia soziala baita, gizarte-bizitza azpigizakia gizaki bihurtzeko beharrezko baldintza den neurrian, eta hori gabe ez dago imajinatzerik eboluzio hori zertu zitekeenik. Zer gertatzen da, bada, gizakia gizarte-osotasunaren zatitza hartzen duen erantzun alternatiboarekin?

«Komunitate batzuetan, erle eta inurrietan adibidez, kideen artean substantzi jarraipenik ez izan arren, hala ere guztiek osotasu-narentzat lan egiten dute eta ez berentzat, eta bakoitza hil egiten da gainerakoen elkartetik banatzen bada.

«Kolonia batzuetan, koralen edo polipo hidroidenetan adibi-dez, animali kopuru bat —bakoitza bere aldetik banakotzat hartuko litzateke, zalantzarik gabe— organikoki konektaturik dago eta, horre-la, baten substantzia bizia gainerako guztien jarraipena da... Zein da banakoa orain?

«Histologiak ipuina jasotzen du eta erakusten du animalia gehienak —gizakia barne, banakotasunaren gure jatorrizko tipoa—, unitate-kopuru batez osatuak daudela, zelula deituak. Hauetako batzuek independentzia garrantzitsua dute; eta laster gaude aitortu beharrean hauek masa osoarekiko polipo koralen —edo hobe sifonoforen— kolonia bateko banakoak kolonia osoarekiko dauden erlazio orokor bereborean daudela. Ondorio hau sendotuta geratzen da libre bizi den animali kopuru handia dagoela ohartzen garenean, protozo-oak, ezagutzen diren formarik sinpleenak barne, funtsezko gauza guztietan, beren existentzia banatu eta independentean izan ezik, giza-kiaren gorputza osatzen duten unitateekin bat datozenak...

«Zentzu batean... mundu organiko osoak banako bakar handi bat osatzen du, zehaztugabea eta gaizki koordinatua, egia da, baina

hala ere jarraipena duen osotasuna elkarren mendeko zatiekin: istripuren batek landare berde guztiak edo bakteria guztiak suntsituko balitu, gainerako bizitza ezingo litzateke existitu»⁸¹.

Natura organikoari buruzko ohar hauek, aplikatu ote dakizkioke gizadiari? Gizabanakoa, ziklopear independentzia izatetik urruti, ez al da benetan zelula bat baino gehiago gizarte-gorputzean, edo ikuspegi zabalagoaz, zelula bat «mundu organiko osoak» osatzen duen «banako bakar handi baten» gorputz zabalagoan? Hobbesen *Leviathan*-en jatorrizko frontispizio ongi ezagunak giza gorputz soziala Anaxagorasen *homoeomeriae* multzo batek osaturiko organismo bezala pintatzen du, hauek gizabanakoak direlarik, gizarte-kontratuak ziklopea zelula batera murrizteko eragin magikoa izango balu bezala. Herbert Spencerrek hemeretzigarren mendean eta Oswald Spenglerrek hogeigarrenean gizartei buruz idatzi dute seriotasun handiz organismo sozial balira bezala. Hona hemen azkenekoaren aipu bat:

«Zibilizazio bat (Kultur), beti haurra bezalakoa den gizadi (gordinaren) baldintza psikiko primitiboetatik arima indartsu bat esnatzen eta garatzen denean jaiotzen da: forma bat formarik gabekotik, existentzia mugatu eta iragankorra mugagabe eta iraunkorretik. Arima hau muga zehatzak dituen herrialde bateko lurreen loratzen da, muga horiei atxikia dagoelarik landarea bezala. Alderantziz, zibilizazio bat hil egiten da behin arima honek bere aukera guztiak zertu dituenen herri, hizkuntza, kredo, arte, estatu eta zientzien forman, eta gero bere sorburu izan zuen psike primitibora itzultzen da»⁸².

Pasarte honetako tesiaren kritika eraginkorra ingeles idazle baten lanean aurkitzen da, Spengler-en liburua agertu zen urte berean agertua.

«Behin eta berriro gizarte-teorizatzaileak, beren gaiari egokituriko metodo eta terminologia aurkitu eta etengabe erabili ordez, gizarteko gertaerak eta baloreak beste teoria edo zientziaren baten terminoekin adierazten saiatzen dira. Zientzia fisikoen analogiaz gizartea mekanismo bat bezala aztertzen eta esplikatzen ahalegindu dira, biologiaren analogiaz organismo bezala aztertu dute, buru-zientzia edo filosofiaren analogiaz pertsona bezala erabili izan dute, batzuetan erlijio-analogiaz ia Jainkoarekin nahastera iritsi dira»⁸³.

Analogia biologiko eta psikologikoak agian ez dira hain kaltegarri eta desbideratzaileak gizarte primitiboek edo zibilizazio geraraziei aplikatzen zaizkienean, baina nabarmenki desegokiak dira hazten ari diren zibilizazioek beren banako kideekin duten erlazioa adierazteko. Horrelako analogiak sartzeko joera, dagoeneko aipatu dugun buru historikoen mitogintza edo fikzio-gaixotasunaren adibide bat besterik ez da: talde edo erakundeak nortu eta etiketatzeke —«Britainia Handia», «Frantzia», «Eliza», «Prensa», «Turf-a» eta abar— eta abstrakzio hauek pertsona bezala tratatzeko joera. Askari nabaria da gizarte bat pertsonalitate edo organismo bezala erakusteak ez digula egoki adierazten gizarteak banako kideekin duen erlazioa.

Zein da orduan gizartearen eta banakoen arteko erlazioa deskribatzeko bide egokia? Dirudienez egia zera da, gizartea, bere baitan, gizakien arteko erlazio-sistema bat dela, gizakiak banakoak ez ezik animalia sozialak ere badirelarik, ezin baitira inola ere existitu elkarren arteko erlazio hau gabe. Gizartea banakoen arteko erlazioen produktua dela esan dezakegu, eta erlazio hauek beraien banako ekintza-eremuak bat etortzetik sortzen dira. Kointzidentzia honek banako arloak esparru komun batean konbinatzen ditu, eta esparru komun hau da guk gizarte deitzen duguna.

Definizio hau onartzen bada, garrantzizkoa baina nabaria den korolario bat sortzen da hortik. Gizartea «ekintza-eremu» da, baina ekintza ororen *sorburua* gizartea osatzen duten banakoengan datza. Egia hau indartsu adierazi du Bergsonek:

«Guk ez dugu sinesten (faktore) 'inkontzientean' historian: 'ezkutuko pentsamendu-korronte handiak', zeinetaz hainbeste hitz egin den, gizaki-masak beraien arteko batek edo gehiagok garraiatu dituztelako bakarrik sortzen dira... Alferrikakoa da esatea (gizarte-aurrerapena) bere kabuz gertatzen dela, pixkana-pixkana, gizarteak bere historiako periodo jakin batean duen izaera espiritualaren indarrez. Benetan aurrerasaltoa da, gizarteak esperimendu bat egitea erabakitzen duenean bakarrik zertzen dena; honek esan nahi du gizarteak konbentzi dezaten onartu behar izan duela, edo nolabait ere astindu dezaten onartu; eta astindua norbaitek ematen du beti»⁸⁴.

Beraiei «dagozkien» gizarteetan hazkunde-prozesua abiarazten duten gizabanako hauek gizaki hutsak baino gehiago dira. Gizakiei

mirariak iruditzen zaizkien gauzak egin ditzakete, gizagainekoak direlako zentzu literalean eta ez metaforikoan soilik.

«Animalia sozial izateko eskatzen zuen osaera morala ematean gizakiari, naturak ziur aski egin zezakeen guztia egin du giza espeziearen alde. Baina giza adimenaren mugei atzera bultza egiteko jeinugizonak aurkitu diren bezalaxe,... horrela sortu dira arima pribilegiatuak arima guztiekin erlazionatuak sentitu direnak, eta beren taldeko mugen barruan geratu eta naturak ezarritako elkertasun (murritzura) mugatu ordez, oro har gizadiarengana zuzendu dira maitasunezko élan batean. Arima hauetako bakoitzaren agerpena banako bakar batez osaturiko espezie berri bat sortzea bezalakoa izan da»⁸⁵.

Giza bizitza sozial primitiboaren gurpil zoroa apurtu eta krea-zio-lanari berrekiten dioten arima bakan eta gizagaineko hauen izaera berezi berria nortasun bezala deskriba daiteke. Gizabanakoak nortasunaren barne-garapenaren bidez izaten dira gai ekintzaren kanpo-eremuan gizartearen hazkundera eragiten duten egintza sortzaile horiek zertzeko. Bergsonentzat mistikoak dira gizagaineko sortzaileak *par excellence*, eta esperientzia mistikoaren une gorenean aurkitzen du berak egintza sortzailearen funtsa. Haren azterketa bere hitzekin jarraituz:

«Mistiko handiaren arima ez da gelditzen estasi (mistikoan) bidaiaren helmuga balitz bezala. Egia esan, estasiari zuzen deitu dakioke pausaldia, baina lurrunaren presiopean geltokian dagoen locomotorearen pausaldia da, eta bere mugimendurekin jarraitzen du bibrazio estazionarioa bailitzan, aurrerasalto berri bat egiteko unearen zain dagoen bitartean... Mistiko handiak egia sentitu du sorburutik bere barrura joaten ekinean ari den indar bat bezala... Bere nahia, Jainkoaren laguntzarekin, giza espeziearen sorkuntza osatzea da... Mistikoaren norabidea bizi-élan-aren norabide berbera da. Elan hau berau da bere osotasunean gizaki pribilegiatuei komunikatua, hauen nahia gero horren marka gizadi osoaren gain jartzea eta —jabetzen diren kontraesan batengatik— espezie bat, funtsean gauza sortua dena, ahalegin sortzaile bihurtzea delarik; definizioz geldialdia den zerbait mugimendu bihurtzea»⁸⁶.

Kontraesan hau mistikoki inspiraturiko pertsonalitateen sorreragatik gizakien artean sortzen den gizarte-erlazio dinamikoaren gakoa da. Pertsonalitate sortzaileak bere lagun gizakiak lagun sortzaile antzaldatu nahi izaten ditu bere irudira birsortuz. Mistikoaren

mikrokosmosean zertu den mutazio sortzaileak egokitzapen-aldaketa eskatzen du makrokosmosean erabatekoa edo ziurra izatera iritsi ahal izan aurretik; baina *ex hypothesi* pertsonalitate antzaldatuaren makrokosmosa bere lagun hurko antzaldatu gabeen makrokosmosa ere bada, eta beregan zerturiko aldaketaren arabera makrokosmosa eraldatzeko ahaleginari haien inertziak egingo dio kontra, inertzia honek makrokosmosari beraien aldatugabeko nortasunarekin harmonian eustera joko duelarik, den bezalakoxea gordez.

Gizarte-egoera honek dilema bat aurkezten du. Jeinu sortzaileak beregan zertu duen mutazioa bere ingurunean eragiten huts egiten badu, bere sormena hondagarri gertatuko zaio. Bere burua bere ekintza-eremutik kanpo utziko du; eta ekintza-ahalmena galtzean bizitzeko gogoia ere galduko du, nahiz eta lagun ohiek ez presatu heriotzara, animalia edo intsektu taldekoiak bizitza sozial estatikoan erlakume edo erlauntza edo abere-saldo edo animali taldetxoko kide anormalak masak heriotzara eramaten dituen bezala. Bestalde, gure jeinuak bere lagun ohien inertzia edo aurkakotasun aktiboa gainditzea lortzen badu eta gizarte-ingurunea bere nortasun antzaldatuarekin harmonian ordena berri batera arrakastaz eraldatzen badu, horrekin bizitza jasangaitz bihurtzen du buztin arrunteko gizon-emakumeentzat, behintzat hauek ere arrakasta izaten ez badute beren nortasunak, jeinuaren borondate maisuki sortzaileak ezarri dien gizarte-ingurune berrira egokitzen.

Hau da Ebanjelioetan Jesusi egotzitako hitzen esanahia:

«Ez pentsa munduari bakea ekartzera etorria naizenik; bakea ez, baina banaketa ekartzera etorria naiz. Bai, semea aitarengandik, alaba amarengandik eta erraina amaginarrebagandik banatzera etorri naiz. Eta nork bere etxeokak izango ditu etsai»⁸⁷.

Nola berreskura daiteke gizarte-oreka, jeinuaren bultzada asaldagarria sentitu ondoren?

Soluziorik errazena gizarteko kide bakoitzak eta guztiek independenteki bultzada uniformeak egitea litzateke —uniformeak kementez eta norabidez—. Kasu honetan hazkundea presio eta tentsio-arrastorik gabe egingo litzateke. Baina, ez dago esan beharrik, jeinu sortzailearen deiari horrelako ehuneko ehuneko erantzunak ematea ez da benetan gertatzen. Historia, zalantzarik gabe, honelako adibidez betea dago: ideia bat —erlijioso edo zientifikoa—, guk diogun

bezala, «airean» dagoenean, hainbat pertsona inspiraturen buruetan gauzatzen da independenteki eta ia aldi berean. Baina kasu horietako harrigarrienean ere, independenteki eta aldi berean inspiraturiko buruen aniztasuna banaka zenbatu beharrekoa da deiari erantzuten ez dioten milaka edo milioika horien aurrean. Dirudienez, egia zera da, edozein sorkuntza-egintzaren berezko bakartasun eta banakotasunari neurri txiki-txikian baizik ez diola inoiz kontra egiten uniformetasunerantzako joerak, joera hau gizabanako bakoitza sortzaile potentzial izatetik eta gizabanako hauek guztiak giro berean bizitzetik sortzen delarik; beraz, sortzaileak, sortzen denean, beti aurkitzen du askoz gehiago direla sortzaile ez den masa geldoan, bere antzeko espiritu gutxi batzuen laguntzarekin gozatzeko zori ona badu ere. Gizarte-sorkuntzazko egintza guztiak edo banako sortzaileen egintza dira edo, gehienetan, gutxiengo sortzaileena; eta aurrerapen bakoitzean, gizarteko kide gehien-gehienak atzera geratzen dira. Gaur egun munduan diren erlijio-erakunde handiei —kristau, islamiko eta hinduari— begiratu bat ematen badiegu, ohartuko gara horien jarraitzaile nominalen gune nagusia, ahoz aitortzen dituzten kredoak goretsi arren, oraindik bizi duten giro mentala, erlijioari dagokionez, ez dagoela paganismo hutsetik oso urruti. Gauza bera gertatzen da gure zibilizazio materialak egin berri dituen lorpenekin. Gure Mendebaldeko zientzi jakintza eta hori gauzatzeko dugun teknika arriskugarriro esoterikoa da. Demokrazia eta industrialismoaren gizarte-indar berri handiak gutxiengo sortzaile txiki batek sortu ditu, eta gizadiaren masa handiak oraindik gizarte-indar titaniko berriak sortzen hasi aurretik zegoen maila intelektual eta moral berean jarraitzen du funtsean. Egia esanda, munduan Mendebaldeko ustezko gatz hau gaur egun zaporea galtzeko arriskuan egotearen arrazoi nagusia zera da, Mendebaldeko gizarte-gorputzaren masa handia gazitu gabe geratu dela.

Zibilizazioen hazkundeak eurak ere banako sortzaileen edo gutxiengo sortzaileen lana izateak sortzaile ez den gehiengoa atzera uztea dakar, behintzat aitzindariak zerbait asmatzen ez badute atzegoardia nagi hau berekin eramateko beren aurrerakada irrikatsuan. Eta kontsiderazio honek orain arte erabili dugun zibilizazio eta gizarte primitiboen arteko desberdintasunaren definizioa zehaztea eskatzen digu. Azterlan honen aurreragoko zati batean aurkitu dugu gizarte pri-

mitiboak, ezagutzen ditugun bezala, geldirik dauden bitartean, zibilizazioak —zibilizazio geraraziak izan ezik— mugimendu dinamikoan daudela. Orain hobeto esan genezake hazten ari diren zibilizazioak beren gizarte-gorputzetan duten banako pertsonalitate sortzaileen mugimendu dinamikoagatik desberdintzen direla gizarte primitiboengandik; eta erantsi behar dugu pertsonalitate sortzaile hauek, kopuruz indarrrik handiena dutenean ere, sekula ez direla gutxiengo txiki bat baino izaten. Hazten ari den edozein zibilizaziotan, partaide gehien-gehienak gizarte primitibo estatikoko kideen egoera gelditu berean egoten dira. Are gehiago, hazten ari den zibilizazioko partaide gehien-gehienek, gainezarritako heziketa-geruza hori aparte, gizadi primitiboaren grina berberak dituzte. Hemen aurkitzen dugu giza izaera inoiz aldatzen ez delako esateran dagoen egi zatia. Pertsonalitate bikainagoak, jeinuak, mistikoak edo supergizakiak —deitu nahi bezala— legamia baino ez dira gizadi arruntaren orean.

Orain aztertu behar dugu pertsonalitate dinamiko hauek, Bagehot-ek «usadioaren moldea» deiturikoa beren *for intérieur*-ean apurtzea lortzen dutenak, benetan nola diren gai beren banako garai-pena sendotzeko eta gizarte-porrot bihurtzetik salbatzeko, «usadioaren moldea» beren gizarte-ingurunean apurtzeari ekinez. Arazo hau konpontzeko:

«ahalegin bikoitza eskatzen da: ahalegina jende batzuen aldetik asmakuntza berri bat egiteko eta ahalegina gainerako guztien aldetik asmakuntza hori berenganatu eta horretara moldatzeko. Gizarte bati zibilizazio dei dakioke ekimen-egintza hauek eta otzantasan-jarrera hau biak batera aurkitzen direnean. Normala den legez, zailagoa da bigarren baldintza ziurtatzea lehenengoa baino. Zibilizatu gabeko gizartearen esku egon ez den faktore ezinbestekoa ez da, probabilitate osoz, pertsonalitate bikainena (ez dirudi arrazoirik dagoenik zorioneko bitxikeria hauetako batzuk garai eta leku guztietan naturak ez sortarazteko). Litekeenagoa da falta den faktorea zera izatea: izaera honetako gizabanakoek beren nagusitasuna erakusteko aukera izatea eta gainerako banakoen prestutasuna haien gidaritzari jarraitzeko»⁸⁸.

Dirudienez, sortzaile ez den gehiengoak gutxiengo sortzailearen gidaritzari jarraitzea lortzeko arazoak bi konponbide ditu: bata praktikoa, bestea ideala.

«Bata trebakuntzaren bidez da (dressage)..., bestea mistizismo-aren bidez... Lehen metodoak aztura inpertsonalez osaturiko moralta-suna irakasten du; bigarrenak beste pertsonalitate bat imitatzen bul-tzatzen du, baita batasun espiritualera, gehiago edo gutxiago erabate-ko identifikaziora»⁸⁹.

Arimatik arimara energia sortzailea zuzenean pizte hau da zalantzarik gabe ideala, baina honen gain bakarrik oinarritzea perfek-zio-aholkua da. Sortzaile ez den masa aitzindari sortzaileen parean jartzeko arazoa praktikan ezin da konpondu, gizarte-eskalan, beneta-ko mimesiaren ahalmena jokoan jarri gabe: giza izaeraren ahalmene-tan gutxien goretsitako bat, bere baitan inspiraziotik baino trebetasu-netik gehiago daukana.

Mimesia jokoan jartzea ezinbestekoa da eskuartean dugun hel-bururako, zeren eta mimesia, edozein kasutan ere, gizaki primitiboa-ren ahalmen arruntetako bat baita. Dagoeneko aipatu dugu⁹⁰ mimesia gizarte-bizitzaren ezaugarri generikoa dela, bai gizarte primitiboetan bai zibilizazioetan, baina era desberdinetan diharduela bi gizarte-mota hauetan. Gizarte primitibo estatikoetan, kide bizien belaunaldi zaha-rrenerantz eta hildakoengana zuzentzen da mimesia, hauengan dago-elarik haragitua «usadioaren molde»;⁹¹ zibilizazio-prozesuan dauden gizarteetan, berriz, ahalmen bera sail berriak landu dituzten pertsona-litate sortzaileengana zuzentzen da. Ahalmena bera da, baina aurkako norabidean zuzendua.

Gizarte-trebakuntza primitiboaren bertsio berrikusi honek, axolagabeki eta ia automatikoki egindako «eskuineratze edo ezkerre-ratze» honek, balio ote dezake benetan «adimen-elkartasun neketsua-ren eta elkartruke pertsonal estuaren» ordezeko eraginkor izateko, Platonen arabera hau zelarik filosofia gizabanako batengandik beste batengana transmititzeko bide bakarra? Zera bakarrik erantzun daite-ke, gizadiaren inertzia masan inoiz ez duela errealitatean metodo pla-tonikoaren erabilera eskusiboak menderatu; eta, gehiago inerteza gutxiengo aktiboaren arrastotik ibilarazteko, zuzeneko inspirazio indibidualaren metodo ideala gizarte-trebakuntza orokorraren meto-do praktikoak indartu behar izan duela beti: gizadi primitiboaren ohiko ariketa, gizarte-aurrerapenaren kausaren zerbitzura jar daiteke-ena gidari berriek agintea hartu eta martxa-agindu berriak ematen dituztenean.

Mimesiak gizarte-«ondasunak» —jarrera edo emozio edo ideiak— eskuratzea eraman lezake, eskuratzailerik sortu ez dituztenak eta sekula edukiko ez zituzketenak, zeuzkatenekin topo egin eta imitatu izan ez balituzte. Egia esan, bide-zidorra da; eta Azterlan honetan geroago zera aurkituko dugu: bide-zidor hori, beharrezko helburu baterantz ezinbesteko bidea izanik ere, zalantza baliabidea ere badela, hazten ari den zibilizazio bat kolapso arriskuan jartzen duena ezinbestean. Hala ere, goizegi da hemen arrisku hori aztertzeko.

2.

Erretiroa eta itzulera: gizabanakoak

Pertsonalitate sortzaileek, bide mistikoa —beraien maila espiritual gorena— hartzen ari direnean, jarraituriko bidea aztertu dugu azken sekzioan. Lehenik ekintzatik estasira eta, gero, maila berri eta goragoko batean, estastik ekintzara igarotzen direla ikusi dugu. Hizkera hau erabiltzean, mugimendu sortzailea pertsonalitate horren esperientzia psikikoaren terminoetan deskribatzen dugu. Berari dagokion gizartearekiko kanpo-harremanei buruz, mugimendu-bikoiztasun bera deskribatuko dugu erretiroa eta itzulera deitzen baditugu. Erretiroak bere baitan ahalmenak gauzatzea ahalbidetzen dio pertsonalitateari, lozorroan gera zitezkeen ahalmenak, memento bere gizarte-lan eta oztopoetatik libre egon ez balitz. Horrelako erretiroa borondatezko ekintza izan daiteke bere aldetik, edo bere kontrolpetik kanpoko zirkunstantziek behartutakoa ere izan daiteke; edozein kasutan erretiroa aukera bat da, eta agian beharrezko baldintza, anakoretaren antzaldaketarako; «anakoreta»k, jatorrizko grekoan, «aparte dabilena» esan nahi du hitzez hitz; baina bakardadean antzaldatzeak ezin du helbururik izan, ezta esanahirik ere agian, pertsonalitate antzaldatua bere jatorrizko gizarte-ingurunera itzultzearen atarikoak ez bada: jaiotzako ingurunea, zeinetatik giza animalia soziala ezin baita iraunkorki kanpo geratu bere gizatasuna zapuztu gabe eta, Aristotelesen esanetan, «piztia edo jainko» bilakatu gabe. Itzulera mugimendu osoaren funtsa da, baita bere azken kausa ere.

Hau Sinai mendira Moisesek egin zuen igoera bakartiaren mito siriakoan ageri da. Moises Jahverekin komunikatzeko igotzen da mendira Jahvek deituta; eta deia Moisesi bakarrik egiten zaio, gainerako israeldarrei urrutira gelditzeko agintzen zaien bitartean. Hala ere, Jahveren helburu guztia Moisesi deitzean berriro behera bidaltzea da lege berri bat eramanez, eta lege hau herriaren gainerakoari jakinarazi behar dio Moisesek, jende hori ez baita gai bere kabuz gora joan eta zuzenean jakinarazpena hartzeko.

«Moises mendira igo zen Jainkoarengana. Jaunak menditik dei egin eta esan zion: «Mintza zakizkie Jakoben ondorengoei, israeldarrei, eta adierazi hau» ...Jaunak, Sinai mendian Moisesekin hitz egi ten amaitu zuenean, legearen bi harlosak eman zizkion, Jainkoaren behatzez idatziak»⁹¹.

Hor bezain indartsu azpimarratzen da itzulera, kristau-aroko hamalaugarren mendean Ibn Khaldun arabiar filosofoak idatzitako esperientzia eta misio profetikoaren kontaketa:

«Giza arimak berezko joera du giza izaeraz gabetzeko bere burua aingeruen izaeraz jantzi eta benetan aingeru bihurtzeko unetxo batez, betazalaren itxi-ireki bat bezain arin etorri eta joaten den unetxoa. Gero, arimak bere giza izaera berreskuratzen du, bere giza espezieari ekarri behar dion mezu bat hartu ondoren aingeruen munduan»⁹².

Profeziari buruzko doktrina islamikoaren interpretazio filosofiko honetan filosofia helenikoaren pasarte ospetsu baten —Platonen Kobazuloaren alegoriaren— oihartzuna har genezake. Pasarte honetan Platonek gizadiaren ohiko zoria kobazuloko presoekin alderatzen du: bizkarrez argitara daude, beren atzean mugitzen ari diren errealtateek horman proiektaturiko itzalei begira. Presoek jakintzat ematen dute kobazuloaren atzeko horman ikusten dituzten itzalak azken errealtateak direla, hauek baitira beti ikusi ahal izan dituzten gauza bakarrak. Orduan Platonek preso bat irudikatzen du, bat-batean aske utzia, jiratu, argiari begiratu eta kanpora irtetera behartua. Ikuspegiaren berrorientatze honen lehen emaitza aske utzitako presoa itsuturik eta nahastuta geratzea da. Baina ez luzaroan; ikusteko ahalmena berarengan baitago eta begiek benetako munduaren izaeraren berri ematen diote pixkanaka. Orduan bere kobazulora itzularazten dute berriro; eta lehen eguzki-argiaz bezain itsuturik eta nahasturik dago orain argitza-

laz. Lehen eguzki-argitara aldatzeaz kexu zen bezala, orain berriro argitzaletara itzultzeaz kexatzen da, eta arrazoi handiagoarekin; zeren eta inoiz eguzki-argirik ikusi ez duten kobako lagun zaharregana itzultzean, harrera txarra egiteko arriskupean jartzen baita.

«Ziur aski barre egingo dute haren lepotik, eta ihesaldiaren emaitza bakarra ikusmena hondatuta itzuli izana dela esango dute. Moraleja: zentzugabeen jokoa da bakarrik irteten ahalegintzea ere; «eta askapen eta goragoko eremuetarako aldaketa honetara bideratzen den sudurluzeari dagokionez, inoiz izaten badugu bera harrapatu eta hiltzeko aukera, aprobetxatu egingo dugu benetan».

Puntu honetan Robert Browningen poesiaren irakurleek Lazarori buruzko fantasia gogora dezakete. Lazaro, hil eta lau egunera piztua izan zena, «kobazulotik» irten aurretikoaren aldean oso bestelako bihurtuta itzuliko zela imajinatzen du, eta Betaniako Lazaro honen beronen deskribapena egiten du, zahartzaroan, bere aparteko esperientziatik berrogei urtera, Karshish delakoaren *Epistola* bat-ean; arabiar mediku bidaiaari honek aldizka txostenak idazten ditu bere enpresaburuaren informaziorako. Karshish-en arabera, Betaniako herritarrek ezer gutxi egin dezakete Lazaro gizajoaren alde; herriko inozoaren aldagai kaltegabekoa izatera iritsi da. Baina Karshishek entzuna du Lazaroren istorioa, eta ez dago hain ziur.

Browningen Lazarok huts egin zuen bere «itzulerari» forma eranginkorra ematen; ez zen ez profeta ez martir bilakatu, baizik eta filosofo platonikoaren itzulera pairatu zuen, toleratua baina baztertua izateko patu alternatibo arinagoa. Platonek berak hain erakarpen gutxiko kolorez pintatu du itzuleraren proba, ezen ia harrigarria gertatzen baita ikustea berak aladurarik gabe ezartzen diela bere filosofo hautatuei. Baina sistema platonikoan funtsezkoa bada hautatuak filosofia lortzea, hori bezain funtsezkoa da ez irautea filosofo bakarrik izanez. Beraien hezkuntzaren helburua eta esanahia errege filosofo izatera iristea da. Platonek aurrean jartzen dien bidea kristau-mistikoek egindako bide berbera da argi eta garbi.

Hala ere, bidea berbera izan arren, arima helenikoak eta kristauak ez dute espiritu berberarekin egiten bide hori. Platonek jakintzat ematen du filosofo liberatu eta ilustratuaren interes pertsonalak, baita desira pertsonalak ere, bere lagun hurkoen masaren interesaren aurka egon behar duela, eta hauek oraindik «ilunberik beltzenezan zeutzan,

burdinaz eta miseriaz loturik»⁹³. Edozelakoak izanik ere presoen interesak, filosofoak, Platonek erakusten duenez, ezin ditu asebate giza-diaren beharrak bere zorientasuna eta perfekzioa sakrifikatu gabe. Zeren eta, behin bere ilustrazioa lortu ondoren, gauzarik onena filosofoarentzat berarentzat argitan geratzea da, kobazulotik kanpo, eta hantxe zorientsu bizitzea betiko. Egia esan, filosofia helenikoaren funtsezko printzipioa zen bizitzako egoerarik onena kontenplazio-egoera dela: hori adierazteko grekozko hitza gure «teoria» hitz bilakatu da, normalean «praktika»ren aurkako bezala erabiltzen duguna. Pitagorasek ekintza-bizitzaren gainetik jartzen du kontenplazio-bizitza, eta doktrina hau tradizio filosofiko heleniko osoan zehar igarotzen da neoplatonikoenganaino, hauek Gizarte Helenikoaren deuseztapenaren azkenaldian bizi izan zirelarik. Platonek sinesten duen itxura egiten du bere filosofoek onartuko dutela munduko lanean esku hartzea eginbeharraren zentzu hutsez, baina, egia esan, ez zuten hori egin; eta ukapen horrek argitu dezake neurri batean arazo hau: alegia, ea Zibilizazio Helenikoa zergatik ez zen inoiz suspertu Platonen aurreko belaunaldian jasan zuen kolapsotik. Filosofo helenikoek «ukapen handia» egiteko izan zuten arrazoa ere garbi dago. Haien mugapen morala sineste-akats baten ondorio da. Sartuak zireneko odisea espiritualaren izate guztia eta bukaera guztia estasia zela —eta ez itzulera— sinesten zutelarik, eginbeharraren aldareko sakrifizioa baino ez zuten ikusi estasitik itzulerara igarotze mingarrian, benetan itzulera izanik sarturik zeudeneko mugimenduaren helburua eta burutzapena. Haien esperientzia mistikoari maitasunaren ardatz-bertute kristaua falta zitzaion, kristau-mistikoa elkartasunaren gailurretatik eguneroko mundu berrerosi gabeko auzo moral eta materialki pobre-etara zuzenean pasazten duena.

Erretiro-eta-itzulerako mugimendu hau ez da giza bizitzaren berezitasun bat, gizakiek beren lagunekin dituzten harremanetan bakarrik ikusten dena. Bizitzaren ezaugarria da, oro har, eta landareen bizitzan ere agertzen zaio gizakiari, nekazaritzari ekitean landare-bizitza hau bere arduragai bihurtu bezain laster, fenomeno honek eraman duelarik giza irudimena giza itxaropen eta beldurak nekazaritza-terminotan adieraztera. Gariaren urteroko erretiro eta itzulera termino antropomorfitikotara itzuli da erritual eta mitologian, Kore edo Pertsefone-ren bahiketa eta berreskurapenak erakusten duen bezala,

edo baita Dionisio, Adonis, Osiris edo gari-espíritu edo urte-jainko unibertsalak toki bakoitzean hartzen duen beste edozein izenen heriotza eta piztuerak ere; hauen erritual eta mitoa, izen desberdinekin drama tragiko berbera jokatzen duten errepertorioko pertsonaia berberekin, nekazaritzaren praktika bera bezain zabaldua dago.

Antzeratsu, giza irudimenak giza bizitzaren alegoria aurkitu du landare-bizitzan agertzen diren erretiro eta itzulerearen fenomenoetan, eta alegoria honen arabera borrokatu da heriotzaren arazoarekin, hazten ari diren zibilizazioetan goi-pertsonalitateak gizadiaren masatik bereizten hasten diren mementotik giza gogoak atsekabetzen dituen arazoarekin.

«Norbaitek galde dezake: Eta hilak nola pizten dira? Nolako gorputzez itzuliko dira bizira? Zoro hori, zuk ereindakoa ez da erne-tzen aurrez hiltzen ez bada. Eta ereiten duzuna ez da gero haziko den landarea, hazi hutsa baizik, gari-hazia nahiz beste edozein hazi izan. Jainkoak ematen dio haziari berak nahi bezalako forma, bakoitzari dagokiona»...

«Hildakoen piztuerarekin gauza bera gertatuko da: ereiten dena ustelkorra da, pizten dena ustelezina; ereiten dena mespretxagarria, pizten dena ospetsua; ereiten dena ahula, pizten dena indartsua; haragizko gorputza ereiten da eta espirituazkoa pizten;... Honela dio, hain zuzen, Liburu Santuak: lehenengo gizakia, Adam, izaki bizidun bilakatu zen; azkeneko Adam, berriaz, Espiritu biziemaile»...

«Lehenbiziko gizakia lurreko hautsetik hartua izan zen; bigarrena, berriaz, zerutik dator»⁹⁴.

Paulok Korintoarrei idatzitako Lehen Gutuneko pasarte hone-tan lau ideia agertzen dira segidan, *crescendo*-a ere badelarik. Lehen ideia da piztuera baten lekuko garela udazkenean garia erretiratu ondoren udaberrian bere itzulera ikusten dugunean. Bigarren ideia da gariaren piztuera hildako gizakien piztueraren seinale dela: askoz lehenago misterio helenikoetan irakatsitako doktrinaren baieztapena. Hirugarren ideia da gizakien piztuera ahalgarri eta gertagarri dela, haien izaerak heriotzaren eta bizitzara itzuli bitarteko itxaronaldian Jainkoaren egintzaz jasaten duten nolabaiteko antzaldatzearen ondorioz. Hildako gizakien antzaldatze honen seinalea haziak lore eta fruitu bihurtzean izaten duten antzaldatze nabaria da. Giza izaeraren alda-

keta hau iraunkortasun, edertasun, botere eta espiritualtasun handiagorako aldaketa izango da. Pasartean dagoen laugarren ideia azkena eta bikainena da. Lehenbiziko eta bigarren gizakiaren kontzeptuan ahaztu egiten da heriotzaren arazoa eta gizabanakoaren piztuerarekiko ardura mementoiz gäinditua gertatzen da. «Zerutiko Jauna den Bigarren Gizakiaren» etorreran, Paulok gizabanako bakar batez osaturiko espezie berri baten sorrera aldarrikatzen du, *Adjutor Dei* delakoa, eta honen zeregina gizadiaren gainerakoa gizagaineko mailara jasotzea izango da Jainkoagandiko bere inspirazioarekin lagun hurkoak inspiratuz.

Honela, erretiroaren eta gero ospez eta indarrez itzultzeko antzaldaketaren *motif* bera mistizismoaren esperientzia espiritualean ikus daiteke, baita landare-munduaren bizitza fisikoa eta heriotzari eta hilezkortasunari buruzko giza espekulazioetan eta espezie apalagotik goragoko espezie baten sorreran ere. Hau kosmos-mailako gaia da, noski; eta mitologiako irudi funtsezkoetako bat eman du, egia unibertsalak atzemateko eta adierazteko intuiziozko forma bat, alegia.

Motif horren aldagai mitikoetako bat haur abandonatuaren istorioa da. Errege-leinuan jaiotako ume bat bota egiten dute etxetik haurtzaroan: batzuetan (Ediporen eta Pertseoren istorioetan bezala) bere aita edo aitona berak, amets edo orakulu batek ohartarazi ondoren haur hura bere ordezkotz izango dela; beste batzuetan (Romuloren istorioan bezala) usurpatzailea, jaioberriaren aitaren lekua hartu duelarik, beldur da haurrak, hazten denean, bere aita mendekatuko ote duen; eta beste batzuetan (Jason, Orestes, Zeus, Horus, Moises eta Zioren istorioetan, adibidez) esku lagunek botatzen dute, bilauaren asmo gaiztotatik haurra onik ateratzeaz arduratzen baitira. Istorioaren hurrengo etapan, abandonaturiko haurra bizirik ateratzen da mirariz, eta hirugarren eta azken atalean patuaren haurra, orain gizon egina eta jasan behar izan dituen gogortasunengatik heroi-tenperamentuz hornitua, ahalmen eta aintzaz bete itzultzen da bere erresuman sartzeko.

Jesuren istorioan erretiroaren-eta-itzuleraren *motif*-a etengabe errepikatzen da. Jesus errege-leinu batean jaiotako haurra da — Daviden ondorengo edo Jainkoaren beraren semea — haurtzaroan kanporatua. Zerutik etorria da Lurrean jaiotzeko; Daviden hirian bertan jaiotzen da, Belenen; hala ere, ez dago lekuri ostatuan eta aska batean egon behar du, Moises otarrean edo Pertseo kutxan bezala.

Ukuiluan abere adiskidetsuek zaintzen dute, Romulo otsemeak eta Ziro ehiza-txakurrak bezala; artzainen zainketak ere hartzen ditu, eta jatorri apaleko aitatzaokoak hazten du, Romulo eta Ziro eta Edipo bezalaxe. Gero, Herodesen hilketa-asmotik onik ateratzen dute ezkutan Egiptora eramanez, Moises ere Faraoiaren asmo kriminaletatik atera zuten bezalaxe ihi artean ezkutatuta, eta Jason, Pelias erregearen irispidetik kanpo jarri zuten bezala Pelion mendiko gotorlekuan ezkutatzuz. Eta gero istorioaren bukaeran Jesus itzuli egiten da, beste heroiak itzultzen diren bezala, bere erreinuan sartzeko, Judako erreinuan sartzen da astotxoaren gainean Jerusalemara etorri eta jendetzak Daviden Semetzat goratzen duenean. Igokundekoan zeruko erreinuan sartzen da.

Honetan guztian Jesusen istorioa haurtxo abandonatuaren ipuinaren ohiko eredura egokitzen da, baina Ebanjelioetan azpian datzan erretiro-eta-itzuleraren *motif* hori beste era batzuetara ere agertzen da. Jesusen jainkotasuna pixkanaka agertzen duen esperientzia espiritualetako bakoitzean azaltzen da. Jesus bere eginkizunaz jabetzen denean, Joaneke bataiatzen duenean, basamortura erretiratzen da berrogei egunez, eta han izandako tentalditik espirituaren ahalmenez betea itzultzen da. Gero, bere eginkizunak heriotzara eramango duela ohartzen denean Jesus, berriro erretiratzen da «aparteko mendi altura» eta han gertatzen da bere Antzaldaketaren eszena, eta esperientzia hartatik etsita eta heriotza onartuta itzultzen da. Gero, bere garaian gizaki hilkorraren heriotza jasaten duenean Gurutziltzaketan, hilobira jaisten da Pizkundean hilezkor altxatzeko. Azken-azkenik, Igokundean, lurretik zerura erretiratzen da «berriro aintzaz betea etortzeko biziak eta hilak epaitzera, eta haren erreinaldiak ez du bukaerarik izango».

Jesusen istorioko erretiro-eta-itzuleraren *motif*-aren errepikapen garrantzitsu hauek ere badituzte paraleloak beste batzuetan. Basamortura erretiratzeak Moisesek Madianera egindako ihesa berregiten du; «aparteko mendi altu» batean Antzaldatzeak Moisesek Sinai mendian izandako antzaldaketa berregiten du; jainkozko izaki baten heriotza eta pizkundea aurreratua dago misterio helenikoetan; eszenan agertu eta nagusituko den figura erraldoia, munduaren egungo ordena bukaraziko duen hondamendian, zoroastroar mitologian dago aurreratua Salbatzailearen figuran, eta judu-mitologian Mesiasen eta

«Gizonaren Semearen» figuretan. Bada, ordea, ezaugarri bat kristau-mitologian, aurrekaririk gabea dirudiena; eta hori Salbatzaile edo Mesiasen etorkizuneko etorreraren interpretazioa da, hau da, jadanik gizaki bezala lurrean bizi izan den figura historiko bat etorkizunean lurrera itzultzea. Intuiziozko argialdi honetan, haur abandonatuaren mitoaren iraganaldi denboragabea eta nekazaritzako erritualaren orainaldi denboragabea, gizadiak giza ahaleginen helburua lortzeko egiten duen esfortzu historikoan zertzen da. Bigarren Etorreraren kontzeptuan erretiro-eta-itzuleraren *motif*-ak bere esanahi espiritual sakonena lortzen du.

Bigarren Etorreraren kristau-kontzeptua asmatzeko intuizio-argialdi horrek denbora- eta leku-erronka berezi bati emandako erantzuna izan behar zuen derrigorrez, eta gauzetan berorien jatorrian aurkitzen dena baino ezer gehiago ez dagoela uste izateko hutsegitea egiten duen kritikariak gutxietsi egingo du kristau-doktrina hau desilusio batetik sortu zela argudiatuz: kristau-komunitate primitiboaren desilusiotik, ohartu zenean Maisua etorria eta joana zela espero zen emaitzarik gabe. Hura heriotzara kondenatua izan zen, eta, ikus zitekeen neurrian, haren heriotzak inolako itxaropenik gabe utzi zituen jarraitzaileak. Maisuaren eginkizunari jarraitzeko adorea behar baldin bazuten, atera egin behar zuten Maisuaren ibilketan izandako porrotaren arantza, ibilketa hori iraganalдитik etorkizunera proiektatuz; berriro ahalmen eta aintzaz betea etorriko zela predikatu behar zuten.

Egia da, benetan, Bigarren Etorreraren doktrina hau desilusio edo etsipenezko gogo-egoera berean egon diren beste komunitate batzuek ere hartu dutela ordudanik. Arturoren Bigarren Etorreraren mitoan, adibidez, barbaro ingeles inbaditzaileen azken garaipena eragozten Arturo historikoak izandako porrotagatik kontsolatu ziren britoi menderatuak. Federiko Bizargorri (K.o. 1152-1190) enperadorearen Bigarren Etorreraren mitoan Berant Erdi Aroko germaniarrak Mendebaldeko Kristandadearen gain beren nagusitasunari eusten izandako porrotagatik kontsolatu ziren.

«Salzburgoko harkaitza inguratzen duen lautada berdeaz hegomendebaldera, Untersberg-eko masa erraldoia altxatzen da bide gainean, haizpitarte luze batetik Berchtesgaden-eko sakonune eta aintzirara daramana. Han, buztinezko harkaitz artean oso goian, giza oina

nekez irits daitekeen lekuan, haraneko nekazariak kobazulo baten aho beltza erakusten diote bidaiariari eta esaten diote han barruan datzala Bizargorri bere zaldunen artean xarmaturiko loaldian; beleak gailurrean inguru-minguruka ibiltzeari uzteko eta haranean fruta-arbolak loratzeko zain omen dago bere gurutzatuekin jaitsi eta Alemaniari bake, indar eta batasunezko urre-aroa itzultzeko»⁹⁵.

Era berean mundu musulmanean komunitate xiitak, gudua galdu eta sekta jazarria bihurtu zenean, hamabigarren Imana (Aliren hamabigarren ondorengo lineala, Profetaren suhia) ez zela hil baizik eta kobazulora desagertu zela asmatu zuen, eta handik bere herriari gidaritza espiritual eta mundutarra ematen jarraitzen zuela, eta egunen batean berriro agertuko zela Mahdi agindua bailitzan, eta tiraniazko erreinaldi luzea bukaraziko zuela.

Baina gure arreta berriro Bigarren Etorreraren doktrinan bere kristau-azalpen klasikoan jartzen badugu, ikusiko dugu itzulera espiritualaz, iruditeria fisikoaren bidez, etorkizunera egindako proiektzio mitologikoa dela benetan, non apostoluen Maisu menderatuak bere presentzia berretsi baitzuen apostoluen bihotzetan, hauek, Maisuak fisikoki alde egin arren, Hark eman zien eginkizun ausarta betetzea erabaki zutelarik adore handiz. Apostoluen adorearen eta fedearen indarberritze sortzaile hau, desilusio eta etsipenezko une baten ondoren, Apostoluen Eginak liburuan kontaktzen da —berriro ere hizkera mitologikoz— Mendekoste-egunean Espiritu Santua jaitsi zeneko irudiaren bidez.

Erretiro-eta-itzulerak benetan esan nahi duena ulertzeko ahaleginaren ondoren, egoera hobean gaude giza historian izandako pape-raren azterketa enpirikoa egiteko, pertsonalitate sortzaile eta gutxiengo sortzaileek beren lagun hurkoekin izandako elkarreaginaren bidez, alegia. Bizitzako arlo askotan daude mugimendu honen adibide historiko ospetsuak. Mistiko eta santu eta estatu-politikari eta soldadu eta historialari eta filosofo eta poeten bizitzetan aurkituko dugu, baita nazio eta estatu eta elizen bizitzan ere. Ezarri nahian gailtzen egia hau honela adierazi zuen Walter Bagehot-ek zera idatzi zuenean: «Nazio handi guztiak ezkutuan eta isilean prestatu dira. Distrazio orotatik urruti eratu dira»⁹⁶.

Arin-arin hainbat kasu berrikusiko dugu orain, gizabanako sortzaileengandik hasita.

San Paulo

Paulo Tarsokoa, helenismoaren eragina Gizarte Siriakoan saihestezinezko erronka planteatzen ari zen belaunaldi batean jaio zen judaismora. Bere ibilketaren lehen fasean Jesusen jarraitzaile juduak jazarri zituen, haiek zirelarik, judu-zeloteen ikuspegian, judu-komunitatearen baitan zatiketa sortzearen errundunak. Ibilketaren azken zatian guztiz bestelako norabidean erabili zuen bere energia, egitasmo berri bat predikatuz —«Harentzat ez dago ez greziarrik eta ez judurik, ez erdaindurik eta ez erdaingaberik, ez kultura handiagoko nahiz txikiagokorik, ez esklaborik eta ez librerik»⁹⁷—, eta adiskidetze hau lehenago berak jazarritiko sektaren izenean predikatuz. Azken atal hau izan zen Pauloren ibilketan atal sortzailea; lehen atala hasiera faltsua izan zen; eta bi atalen artean leize handi bat geratu zen. Damaskoko bidean izan zuen bat-bateko argialdiaren ondoren, Paulok «ez zion hezur-mamizko inori aholkurik eskatu», baizik eta Arabiako basamortura joan zen. Hiru urte geroagora arte ez zuen Jerusalem bisitatu eta han hasierako apostoluekin egon zen jarduera praktikoari berrekiteko asmoz⁹⁸.

San Benedikto

Benedikto Nursiakoaren bizitza (*circa* K.o. 480-543) Gizarte Helenikoaren heriotza-minen garai berekoa izan zen. Umetan Unbriako bere etxetik Erromara bidali zuten goi-klaseak humanitate-etan hartzen zuen ohiko heziketa hartzeko, baina hiriburuko bizitzaren aurka altxatu zen eta basamortura erretiratu zen gazterik. Hiru urtez erabateko bakardadean bizi izan zen; baina haren ibilketan puntu erabakigarria, heltzarora iristean, gizarte-bizitzara itzultzea izan zen, komunitate monastiko baten buru izatea onartu zuenean: lehenik Subiakoko haranean eta gero Montecassinon. Ibilketako azken atal honetan santuak heziketa berria asmatu zuen, berak umetan baztertu zuen sistema zaharkituaren ordezkotako izango zena, eta Montecassinoko benediktarren komunitatea monasterio askoren ama izatera iritsi zen, ugaltu eta biderkatu egin zirelarik benediktarren erregela Mendebaldeko bazterrik urrutienetara zabaltu zuten arte. Egia esan, erregela hau, azkenean antzinako ordena helenikoaren hondakinetatik Mendebaldeko Kristandadean eraiki zen gizarte-egitura berriaren oinarri nagusietako bat izan zen.

Benediktarren erregelaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat eskulanaren agindua izan zen; zeren eta honek esan nahi izan baitzuen, lehenik eta batez ere, nekazaritza-lana soroetan. Ekonomi mailan, benediktarren mugimendua nekazaritzaren suspertzea izan zen: Italiako nekazaritzaren lehen suspertze arrakastatsua, hango nekazari-ekonomiak Bigarren Gerra Punikoan jasandako suntsipenaren ondoren. Grakotarren nekazaritza-legeek edo *alimenta* inperialek inoiz lortu gabekoa lortu zuen benediktarren erregelak, ez goitik behera, estatu-ekintzak bezala, baizik eta behetik gora funtzionatu zuelako, gizabanakoaren ekimena sortaraziz bere erlijio-garra piztean. *Elan* espiritual honen indarrez, Benediktarren Ordenak ez zuen ekonomi bizitzaren korrontea Italian bakarrik jirarazi; Erdi Aroan Alpeez bestaldeko European oihanak eraisteko aitzindari-lan neketsua ere egin zuen, zingirak lehortu eta soro eta belardiak sortu ere bai, Ipar Amerikan urrutiko basoetan ezarri ziren frantses eta britainiarrek egin zutena.

San Gregorio Handia

Benedikto hil eta hogeita hamarren bat urte geroago, Gregorio, Erroman *Praefectus Urbi* kargua zuelarik, ezinezko zeregin baten aurrean aurkitu zen. Erromako hiria K.o. 573an Vienako hiria 1920an bezain egoera larrian zegoen. Hiri handi bat, hainbat mendez inperio handi baten hiriburu izateagatik orduan zuen mailara iritsia, orain batabatean bere lehenagoko probintzietatik banatua aurkitu zen, bere funtzio historikorik gabe eta bere baliabideen mende bakarrik. Gregorioren prefekturaren urtean, *Ager Romanus* delakoa bederatzi-ren bat mende lehenago, erromatarrek Italiaren jabetzagatik samnitenkin borrokan hasi baino lehen, izandako esparrura mugatua zegoen gutxi gorabehera, baina merkatu-hiri txiki bat matentzeko izan zuten lurraldea zeukaten orain hiriburu bizkarroi handi bat mantentzeko. Ordena zaharrak arazoen egoera berriarekin moldatzeko zuen ezintasuna ziur aski kontuan izan beharko zuen garai hartan *Praefectura Urbis* kargua zeukan erromatar handiki batek, eta esperientzia mingarri honek erabat esplikatu lezake Gregorio mundu sekularretik gurtziz erretiratzea bi urte geroago.

Haren erretiroa, Paulorena bezala, hiru urtekoa izan zen, eta denboraldi haren buruan, ingeles paganoen konbertsiorako gero delegazioz zertu zuen eginkizuna pertsonalki zertzeko planak egiten ari

zen, aita santuak Erromara dei egin zionean. Hemen, zenbait eliz kargutan eta azkenean aita santuaren tronuan bertan (K.o. 590-604), hiru zeregin handi bete zituen. Erromako Elizak Italian eta itsasoz bestaldean zeuzkan ondasunen administrazioa berrantolatu zuen; akordioa negoziatu zuen Italiako agintari inperialen eta inbaditzaile lonbardiarren artean; eta Erromarentzat inperio berri baten oinarriak ezarri zituen orduan hondakinetan zegoen inperio zaharraren ordeztasunaz: Erromatar Inperio berria, misiolarienugarrez ezarria eta ez militarren indarrez, azkenean mundu berriak konkistatuko zituena, hango lurra legioek inoiz zapaldu gabeak eta baziren ere Esiption eta Zesarrek sekula susmatu gabeak.

Buda

Siddharta Gautama Buda mundu indikoan jaio zen hango arazoaldian. Jaio zeneko hiri-estatua, Kapilavastu, arpilatua eta sakyar herrikideak sarraskituak ikusi zituen. Lehengo mundu indikoan zeuden errepublika aristokratiko txikiak, haietako bat zen sakyar komunitatea, behea jotzen ageri dira Gautamaren belaunaldian eta eskala handiagoan eraikitako monarkia autokratikoak ari dira sortzen. Gautama sakyar aristokraziaren baitan jaio zen, aristokrazi ordena gizarte-indar berrien erronka jasaten ari zen garaian. Erronka honen aurrean Gautamaren erreakzio pertsonala, haren lehengo erakotratentzat abegikorra ez zen munduari uko egitea izan zen. Zazpi urtez argitasuna bilatu zuen geroztasun eta aszetismo handiaren bidetik. Baraua utzi eta mundura itzultzeko lehen urratsa eman zuen arte ez ziztaion iritsi argia. Gero, beretzat argia lortu ondoren, argi hori bere lagun hurkoei ematen igaro zuen bizitzaren gainerakoa. Eraginkorki transmititzeko, dizipulu-talde bat bere inguruan biltzea onartu zuen, eta honela anaidi baten ardatz eta buru bilakatu zen.

Mahoma

Mahoma Erromatar Inperioaren kanpo-proletalgo arabiarrean jaio zen Inperioaren eta Arabiaren arteko harremanak krisira hurbiltzen ari ziren garaian. Kristau-aro seigarren mendetik zazpigarrenera igarotzeko unean Arabiaren inpregnazioa saturazio-puntura iritsia zen Inperioko kultur eraginen aldetik. Arabiaren erreakzioaren bat, energiaren kontra-deskarga modura, espero izatekoa zen; Mahomaren ibilketak (bere bizialdia *circa* K.a. 570-632 artekoa izan zen) erabaki

zuen erreakzio horrek hartuko zuen forma; eta erretiro-eta-itzulera-mugimendu bat izan zen Mahomaren bizitzan ardatz izandako bi intera erabakigarri berrietako bakoitzaren atarikoa.

Mahomaren garaian Erromatar Inperioaren gizarte-bizitzan baziren bi ezaugarri zirrara sakona eragin zezaketenak arabiar behatzaile baten gogoan, Arabian ez egoteagatik nabarmentzen zirelako biak ere. Ezaugarri hauetako lehena monoteismoa zen erlijioan. Bigarrena legea eta ordena gobernuan. Mahomaren bizitzako lana Rum-eko gizarte-egiturako elementu hauetako bakoitza arabiar herriko bertsiora aldatzea izan zen, eta bere monoteismo arabiartua eta bere gobernu arabiartua maisu-erakunde bakar batean —dena barne hartzen zuen Islamaren erakundean— sartzea; eta honetan arrakasta lortzeko hain indar oldarkor titanikoa erabili zuenez, jainko-egitismo berriak, autoreak Arabiako barbaroen premiak asetzeko pentsatuak, penintsulako mugak gainditu zituen eta mundu siriako osoa bereganatu zuen Atlantikoaren ertzetatik eurasiar esteparen ertzetaraino.

Bizitzako lan hau, eta badirudi Mahomak berrogei urte inguru zituela sartu zela honetan (*circa* K.o. 609), bi etapatan zertu zuen. Etapa hauetako lehenengoan Mahoma bere erlijio-eginkizunaz soilik arduratu zen; bigarren etapan erlijio-eginkizuna gainditu, eta ia ito egin zuen eginkizun politikoak. Mahomaren hasierako sarrera erlijio hutsezko zeregin batean Arabiako bertako bizitzara egin zuen itzuleraren ondorio izan zen, eta hau hamabosten bat urtez karabana-merkatarien bizimodura partzialki erretiratu ondoren, arabiar oasien eta Erromatar Inperioko siriar basamortu-portuen artean ibili zelarik Ipar Arabiako esteparen ertzetan. Mahomaren ibilketan bigarren etapa, edo politiko-erlijiosoa, profetaren erretiro edo Hegira (*Hijrah*) delakoak hasi zuen, jaio zen Mekako oasitik etsai zuen Yathrib oasira egina, hau aurrerantzean Medina *par excellence* bihurtu zelarik: (Profetaren) «hiria». *Hijrah* delakoan, musulmanek gertaera erabakigarritzat aitortua eta aro islamikoaren hasiera-datatzat onartua, Mahomak iheslari jazarria bailitzan utzi zuen Meka. Zazpi urteko ausentziaren ondoren (K.o. 622-9) Mekara itzuli zen, ez erbesteratu amnistiaturik bezala, baizik eta Arabia erdiaren jaun eta jabe bezala.

Makiavelo

Makiavelo (K.o. 1469-1527) Florentziako hiritar zen, Frantziako Karlos VIII.ak Alpeak zeharkatu eta 1494an frantziar armada batekin Italia konkistatu zuenean hogeita bost urte zituen. Honela, «inbasio barbaroen» eraginpean ez zegoen garaian Italia nola-koa zen ezagutzeko behar hainbateko adina zuen belaunaldikoa zen; eta behar hainbat denbora bizi izan zen penintsula Alpeez edo itsasoz bestaldeko hainbat potentziaren arteko indar-proben nazioarteko jokaleku bihurtuta ikusteko, potentzia horiek beren txandakako garaipenen saria eta ikurra honetan aurkitu zutelarik: garai batean independente izandako italiar hiri-estatu gain zuten nagusitasun zapaltzailea bata besteari kentzean, alegia. Italian italiar ez ziren potentzien eragina izan zen Makiaveloren belaunaldiak aurrean izan zuen erronka eta bizi behar izan zuen esperientzia; eta esperientzia are zailagoa izan zen belaunaldi honetako italiarrentzat, ez baitzuten halakorik dastatu ez eurek ez arbasoek bi mende eta erdiko denboraldi gehienez.

Makiavelo gaitasun politiko gorenaz hornitu zuen naturak; irrika asegaitza zuen bere gaitasunak erabiltzeko: Halabeharrak Florentziako hiritar egin zuen, penintsulako hiri-estatu gidarietako bat, eta meritua gobernuko idazkari-postua irabazarazi zion hogeita bederatzita urte zituen. Kargu garrantzitsu honetarako 1498an izendatua, lehen frantziar inbasiotik lau urtera, potentzia «barbaro» berriei buruzko lehen eskuko ezagutza lortu zuen bere eginkizun ofizialetan. Esperientzia honetatik hamalau urte geroago, agian beste edozein italiar bizidun baino gaituago zegoen Italiari bere salbazio politikoan laguntzeko premiazko zereginetan esku hartzeko, baina Florentziako barne-politikaren gorpilak emandako birak bere jarduera praktikoko eremutik bidali zuen bat-batean. 1512an estatu-idazkaritza kendu zioten eta ondorengo urtean presondegia eta tortura jasan zituen; eta bizi-rik ateratzeko aski zorte izan zuen arren, presondegitik irteteko ordaindu behar izan zuen prezioa Florentziako landan zuen etxaldean betiko geratzea izan zen. Haren ibilketan erabateko etena gertatu zen; hala ere, ikaragarritzko erronka pertsonal honen probaren aurrean, zoriak ez zuen Makiavelo erantzun eraginkorra emateko ahalmenik gabe aurkitu.

Bere landa-bizitza hasi eta laster adiskide eta lagun ohi bati idatzitako gutunean xehetasunez eta halako umorezko urruntasun batez deskribatzen du bere buruari jarria zion bizimodua. Eguzkiare-

kin jaiki, eta egun-argitako orduak derrigorrez ezarrita zeukan bizi-modurako egoki ziren gizarte- eta kirol-ekintza gogaikarrietan ematen zituen. Baina honela ez zen bukatzen haren eguna.

«*Arratsa iristean, etxera itzuli eta langelara sartzen naiz; atean landako arropak eranzten ditut, guztiak lokatzaz eta buztinez beteak, eta gorteko jantzia janzen dut; eta honela berriro txukun jantzita nagoenean antzinako gizonen egoitza zaharretan sartzen naiz. Eta haietan abegitasun osoz hartzen naute anfitrioiak, eta nire benetakako elikadura diren jakiez bakarrik janaritzen naiz, horietarako jaioa naizelarik*».

Ikerlan eta gogoeta-ordu hauetan asmatu eta idatzi zuen *Printzea*; eta tratatu ospetsuaren azken kapituluak, «Italia barbaroengandik askatzeko erregua» delakoak, idazteko luma hartu zuenean Makiaveloren buruan zegoen asmoa adierazten du. Garai hartako italiar politikan erabakigarria zen arazo batera ari zen berriro zuzentzen, itxaropena baitzuen, agian orduan ere, lagun zezakeela arazoa konpontzen irteera praktikorik gabe utzitako energiak pentsamendu sortzaile bihurtuz.

Jakina, *Printzea* girotzen zuen itxaropen politikoak huts egin zuen erabat. Liburuak ez zuen lortu egilearen berehalako helburua; baina honek ez du esan nahi *Printzea* porrota izan zenik, zeren eta literatur bitartekoez politika praktiko bat lortzea ez baitzen Makiavelok konpondu nahi zuen arazoaren muina, gauero-gauero bere urrutiko landetxean, iraganeko gizonen egoitzetan sartzen zenean. Bere idazkien bidez Makiavelo gai izan zen maila etereoago batean mundura itzultzeko, maila horretan munduan zerturiko eragina askoz ere handiagoa izan baitzen Florentziako estatu-idazkari batek politika praktikokoaren xehetasunetan murgilduta zertu zezakeen lorpenik gorena baino. *Katarsi*-ordu magiko haietan bere espiritu-laidoa gainditu zuenean Makiavelok arrakasta izan zuen bere energia praktikoa zenbait adimen-lan ahaltsutara bideratzen —*Printzea*, *Tito Liviori buruzko Diskurtsoak*, *Gerraren Arteak* eta *Florentziako Historia*—, gure Mendebaldeko filosofia politiko modernoaren hazi izan direnak.

Dante

Berrehun urte lehenago hiri beraren historiak adibide paralelo bitxia eman zuen. Zeren eta Dantek ez baitzuen bere bizitzako lana

bete jaiotiritik erretiratzera behartu zuten arte. Florentzian Dante Beatrizekin maitemindu zen, bere aurrean hiltzen ikusteko bakarrik, artean beste gizon baten emazte zela. Florentzian sartu zen politikan, erbesteratze-zigorra hartzeko bakarrik, eta erbestetik ez zen inoiz itzuli. Hala ere, Florentzian jaiotza-eskubideak galdu zituenean, Dantek munduko hiritartasuna irabaziko zuen; zeren eta erbestean, maitasunean porrot egin ondoren politikan ere porrot egin zuen jeinuak bere bizitzako lana aurkitu baitzuen *Jainkotiar Komedia* sortuz.

3.

Erretiroa eta itzulera: gutxiengo sortzaileak

Atenas Gizarte Helenikoaren hazkundearen bigarren atalean

Erretiro-eta-itzuleraren adibide nabarmen bat, beste zerbaiti loturik ezagutu ahal izan duguna, K.a. zortzigarren mendean malthusiar erronka agertu zenean Gizarte Helenikoak jasan zuen krisialdian atenastarrek izandako portaera da.

Gehiegizko biztanleriaren arazo honen aurrean Atenasen lehen erreakzioa nabarmenki negatiboa izan zela ikusi dugu. Ez zuen erre-akzionatu, auzoko askok bezala, itsasoz bestaldean koloniak ezarriz, eta ez zuen erre-akzionatu, espartarrak bezala, ondoko hiri-estatu gre-ziarren lurraldea hartuz eta haietako biztanleak jopu bihurtuz. Aro honetan, auzokoak bera bakarrik uztearekin konformatu ziren bitarte-an, Atenasek paper pasiboa jokatzen jarraitu zuen itxuraz. Haren ezkutuko deabru-indarraren lehen arrastoa Espartako errege Kleomenes I.ak hura lazedemoniar hegemoniaren mende jartzeko egindako ahaleginaren kontra izan zuen bortxazko erreakzioan ikusi ahal izan zen. Lazedemoniarren aurkako erreakzio kementsuaz, kolo-nizazio-mugimendutik abstenitu ondoren, Atenas gutxi-asko berariaz apartatu zen mundu helenikoaren gaineraketik bi mende baino gehia-goiz. Hala ere, bi mende hauek ez ziren izan Atenasentzat jarduerarik gabeko garaia. Aitzitik, bakarraldi luze honetaz baliatu zen bere ener-giak arazo heleniko orokorra konpontzera bideratzeko konponbide

orijinal batez: atenastarren konponbidea, kolonizazioaren konponbidea eta espartar konponbidea gero eta etekin txikiagoak ematen ari zirenean funtzionatzen jarraituz bere nagusitasuna erakutsi zuena. Bere garai onean bakarrik, bizimodu berrira egokitzeko ohiko erakundeak birmoldatu zituenean, itzuli zen Atenas borroka-lekura. Baina, itzuli zenean, historia helenikoan ordu arte ikusi gabeko indarrez egin zuen.

Atenasek Pertsiar Inperioari desafio egiteko keinu harrigarriaz aldarrikatu zuen bere itzulera. Espartak atzera egin zuenean, Atenasek erantzun zion Asiako greziar matxinatuen deia K.a. 499an, eta egun hartatik aurrera Atenas nabarmendu zen Helasen eta estatu unibertsal siriakoaren arteko Berrogeita Hamar Urteko gerran protagonista bezala. Bi mende baino gehiagoz, K.a. bosgarren mendearen hasieratik aurrera, Atenasen papera historia helenikoan aurrez denboraldi berdinean jokatu izan zuen paperaren erabateko antitesia izan zen. Bigarren denboraldi honetan estatuarteko politika helenikoaren *mêlée*-aren muinean egon zen beti, eta Alexandroren ekialdeko abenturatik sortutako titan berriek etsigarriro gainditu zutenean bakarrik uko egin zien gogo txarrez potentzia heleniko handi baten estatus eta kargei. K.a. 262an Mazedoniak behin betiko menderatu ondoren erretiratzea ere ez zen izan haren partaidetza aktiboaren bukaera historia helenikoan. Zeren eta, lasterketa militar eta politikoan atzera gelditu baino askoz lehenago, bera bihurtua baitzen «Helasen hezibide» beste arlo guztietan. Marka atiko iraunkorra ezarria zion kultura helenikoari, oraindik badaukana ondorengoen begietara.

Italia Mendebaldeko Gizartearen hazkundearen bigarren atalean

Dagoeneko aipatu dugu, Makiaveloz jardun dugunean, Italiak bi mende baino gehiagoz —hamahirugarren mendearen erdian hohenstaufentarren suntsipenetik hamabosgarren mendearen bukaeran frantziarren inbasiora arte— lortu zuela Alpeez bestaldeko Europako erdibarbarotasun feudal iskanbilatsutik erretiratuta egotea. Immunitatezko bi mende eta erdi horietan italiar jeinuaren lorpenik handienak ez ziren estentsiboak izan intentsiboak baizik, ez materialak espiritualak baizik. Arkitekturan, eskulturan, pinturan, literaturan eta estetika eta kultura orokorraren eremuko beste arlo gehientsuenean sorkuntza-lanak egin zituzten italiarrek, greziarrek denboraldi ber-

dinean K.a. bosgarren eta laugarren mendeetan sortutakoekin pareka daitezkeenak. Izan ere, italiarrek antzinako greziar jeinu hartan bilatu zuten inspirazioa desagertutako kultura helenikoaren espirituari dei eginez, eta greziarrek eginari zerbait absolutu, estandar eta klasikoa bailitzan begiratzuz, imitatu bai baina gainditu behar ez dena; eta guk, haien urratsei jarraituz, heziketa «klasikoko» sistema ezarri dugu, oraintsu bakarrik atzera egin duena teknologia modernoaren helburuen aurrean. Azken finean, atzerritarren nagusitasunaren aurrean kostata irabazitako immunitatea erabili zuten italiarrek, eskas babes-tutako beren penintsulan, italiar mundu bat sortzeko, eta bertan Mendebaldeko Zibilizazioaren maila hain gora iritsi zenez oso goiz, gradu-desberdintasuna mota-desberdintasunaren pareko izatera iritsi zen. Hamabosgarren mendea bukatzerako beste mendebaldarren parean hain nagusi sentitu zirenez —erdia harrotasunez eta erdia serio— «barbaroak» hitza berpiztu zuten Alpeez bestaldeko eta Tirreno itsasoaz bestaldeko herriak deskribatzeko. Eta gero, «barbaro» moderno hauek zegokien bezala jokatzeko hasi ziren, politikoki eta militarki zuhurrago agertu zirelarik argiaren italiar seme-alabak baino.

Italiar kultura berria penintsulatik norabide guztietan zabaldu zenean, bizkortu egin zuen bere inguruko herrien kultur hazkundera, eta kulturaren elementurik handienetan bizkortu zuen lehenik —antolamendu politikoan eta teknika militarrean adibidez—, beti horietan sentiarazten delarik azkarren irradiazioaren eragina; eta «barbaroek» italiar arte hauek menderatu zituztenean, gai izan ziren Italiako hiri-estatuen eskalan baino askoz eskala handiagoan aplikatzeko.

Italiarren ahalmenak gainditzeko zituen antolamendu-eskala lortzen «barbaroek» izandako arrakastaren azalpena honetan datza: «barbaroak» italiarrengandik ikasitako irakaspenak ari ziren aplikatzen italiarrei suertaturikoak baino askoz ere zirkunstantzia errazagoetan. Italiar politika oztopatua zegoen eta «barbaroen» politika erraztua «Botere Oreka» arautzen duen legeetako baten eraginez.

Botere Oreka dinamika politikoaren sistema bat da, gizarte batek elkarrekiko independente diren hainbat toki-estatutan bere burua antolatzen duenean jokoan sartzen dena; eta Mendebaldeko Kristandadearen gainerakotik desberdindu zen Italiar Gizarteak aldi berean era horretantxe antolatu zuen bere burua. Italia Erromatar Inperio Santutik banatzeko mugimendua hiri-estatu askotan zegoen

zabaldua eta hauek, bakoitzak bere aldetik, tokian tokiko autodeterminazio-eskubidea ziurtatu nahi zuten; honela, italiar mundu bat aparte sortzea eta mundu hau estatu-ugaritasunean antolatzea gertaera garaikideak izan ziren. Honelako munduan Botere Orekak modu orokor batean jokatzeko du estatuen batez besteko neurriari apal eusteko botere politikoa neurtzeko irizpide orotan: lurraldean, biztanlerian eta aberastasunean. Zeren eta nagusi den batez bestekoaren gainetik bere gaitasuna gehitzeko mehatxua egiten duen estatu oro, ia automatikoki, irispidean dauden beste estatu guztien presiopean jartzen da; eta Botere Orekaren legeetako bat da presio hau inplikaturiko estatu-mulzoaren erdian izaten dela handiena eta periferian ahulena.

Erdian, edozein estatuk bera handitzeko egiten duen edozein mugimendu jelosiaz zaintzen dute eta iaioki kontra egiten diote auzoko guztiek, eta milia karratu gutxi batzuei buruzko subiranotasuna eztabaida-gairik setatiena bihurtzen da. Periferian, ordea, lehia lasaitu egiten da eta ahalegin txikiek emaitza handiak ematen dituzte. Estatu Batuak Atlantikotik Ozeano Barera oztoporik gabe zabal daitezkeen bitartean, baita Errusia Baltikotik Ozeano Barera ere, Frantzia edo Alemaniaren ahalegin guztiak ez dira aski izango Alsazia edo Posenen jabetza eztabaidarik gabe lortzeko.

Errusiak eta Estatu Batuek gaur egungo Mendebaldeko Europako nazio-estatu zahar eta estu metatuentzat suposatzen dutena, duela laurehun urte gauza bera suposatu zuten komunitate hauek berek —Luis XI.ak politikoki italiarturiko Frantziak, Fernando Aragoakoak politikoki italiarturiko Espainiak eta lehengo tudortarrek politikoki italiarturiko Ingalaterrak— garai hartako italiar hiri-estautentzat, Florentzia, Venezia eta Milanentzat, adibidez.

Begiratu konparatibo batean ikusten dugu Atenasek K.a. zortzigarren, zazpigarren eta seigarren mendeetan egindako erretiroak eta Italiak kristau-aroko hamahirugarren, hamalauugarren eta hamabosgarren mendeetan egindako erretiroak elkarren antz handia dutela. Bi kasuetan, politika-mailan erretiroa erabatekoa eta iraunkorra izan zen. Bi kasuetan gutxiengo autobereizleak gizarte osoak zeukan arazoari konponbideren bat aurkitzeko eginkizunera bideratu zituen bere indarrak. Eta bi kasuetan gutxiengo sortzailea behar-beharrezko garaian itzuli zen, bere sorkuntza-lana gauzatu zuenean, aldi baterako utzia zuen gizartera, eta gizarte-gorputz osoaren gain utzi zuen bere

marka. Gainera, Atenasek eta Italiak beren erretiroan konpondu zituzten benetako arazoak oso antzekoak ziren. Atika Helasen bezala, Lombardia eta Toskana gizarte-laboratorio bereziak izan ziren Mendebaldeko Kristandadean, non lokalki buruaski zen nekazari-gizartea nazioartean elkarren mendeko zen gizarte industrial eta komertzial bihurtzeko esperimientua arrakastaz zertu baitzen. Eta Italiako nahiz Atenasko kasuan ohiko erakundeen erabateko birmoldaketa egin zen, bizimodu berriarekin bat etor zitezen. Atenas komertzializatu eta industrializatuak, politika-mailan, jaiotzan oinarrituriko eraketa aristokratikoa jabetzan oinarrituriko eraketa burges bihurtu zuen. Milan edo Bolonia edo Florentzia edo Siena komertzializatu eta industrializatuak Mendebaldeko Kristandadean nagusi zen feudalismotik hiritar banakoen eta subirano ziren gobernuen —hauen subiranotasuna hiritarren beraiengan zetzan— arteko zuzeneko harreman-sistema berri batera aldatu ziren. Asmakuntza ekonomiko eta politiko konkretu hauek, baita italiar jeinuaren sorkuntza ukiezin eta zehaztezinak ere, Alpeez bestaldeko Europari komunikatu zizkion Italiak hamabosgarren mendearen bukaeratik aurrera.

Etaparen honetan, ordea, Mendebaldeko historiaren eta helenikoren bideak banatu egiten dira, desberdintasun-puntu nagusi bat baitago Italiako hiri-estatuak Mendebaldeko Kristandadean zuten posizioaren eta Atenasek Helasen zuen posizioaren artean. Atenas hiri-estatuaren mundura itzuli zen hiri-estatu bat zen; baina hiri-estatu ereduaren zeinetan antolatu baitzen mundu-barneko-mundu-italiarra Erdi Aroan, ez zen gizarte-antolamenduaren jatorrizko oinarria Mendebaldeko Kristandadean. Bere jatorrizko oinarria feudalismoa zen, eta Mendebaldeko Kristandadearen zatirik handiena hamabosgarren mendearen bukaeran oraindik oinarri feudalen gain zegoen antolatua, Mendebaldeko Gizarteak Italiako hiri-estatuak berriro hartu zituen bere gorputz nagusian.

Egoera honek arazo bat zeukan, teorikoki bi eratara konpon zitekeena. Italiak eskaini behar zituen gizarte-asmakuntza berriak hartzeko egoeran jartzeko, Alpeez bestaldeko Europak edo bere iragan feudalariekin apurtu eta hiri-estatuaren oinarrituz erabat berrantola zezakeen bere burua; edo Italiako asmakuntzak alda zitzakeen, oinarri feudalen gainean eta zegokien erresuma-estatuaren eskalan funtziona zezaten. Nahiz eta hiri-estatuaren sistemak arrakasta-neurri handi sama-

rra lortua izan Suitzan, Suabian, Frankonian, Herbeheretan eta Ipar Alemaniako lautadan, non lehorreko eta itsasoko ubideak kontrolatzen zituzten puntu erabakigarriak Liga Hanseatikoko hiriak baitziren, Alpeez bestaldean normalean onartu zen konponbidea ez zen izan hiri-estatuena. Eta honek Mendebaldeko historiaren beste atal batera garamatza eta aurrekoa bezain ohargarri eta emankor den beste erretiro-eta-itzulera batera.

Ingalaterra Mendebaldeko Gizartearen hazkundearen hirugarren atalean

Mendebaldeko Gizarteak orduan aurrean zeukan arazoa zera zen, nekazaritzan eta aristokrazian oinarrituriko bizimodutik nola aldatu industrian eta demokrazian oinarritutakora hiri-estatu sistema hartu gabe. Erronka honi Suitzak, Holandak eta Ingalaterrak erantzun zioten, eta azkenean konponbide ingelesa izan zuen. Hiru herrialde hauei ingurune geografikoak eman zien nolabaiteko laguntza-maila Europako bizimodu orokorretik erretiratzeko: Suitzari mendiek, Holandari dikeek eta Ingalaterrari Kanalak. Suitzarrek arrakastaz gainditu zuten Berant Erdi Aroko hiri-estatuaren kosmosaren krisia federazio-era bat ezarritz, eta independentziari eutsi zioten, lehenik habsburgotarren eta gero borgoinar potentziaren aurka. Holandarrek Espainiaren aurka lortu zuten independentzia eta zazpi Probintzia Batu bezala federatu ziren. Ingeleseiei Ehun Urteko gerran izandako azken porrotak sendatu zien lurralde kontinentalak konkistatzeko irrika eta, holandarrek bezala, Espainia katolikoaren erasoari aurre egin zioten Isabelen agindupean. Garai hartatik aurrera 1914-18ko gerrara arte gehiagoko eztabaidarik gabe onartu zen iskanbila kontinentalak saihestea zela Britainia Handiaren atzerri-politikaren funtsezko eta betiko helburuetako bat.

Baina hiru gutxiengo lokal hauek ez zeuden egoera berean beren erretiro-politika komuna gauzatzeko. Suitzako mendiak eta Holandako dikeak ez ziren Ingalaterrako Kanala bezain hesi eraginkorrak. Holandarrak sekula ez ziren guztiz suspertu Luis XIV.aren aurka izandako gerretatik, eta holandarrak nahiz suitzarrak biak irentsi zituen aldi batez Napoleonen inperioak. Gainera, suitzar eta holandarrek beste era bateko oztopoak ere izan zituzten dagoeneko deskribatu dugun arazoaren konponbidea aurkitu ahal izateko. Beraiek ez ziren erabat zentralizaturiko nazio-estatuak, lasaiki federaturiko kan-

toi- eta hiri-konbinazioak baizik. Horrela egokitu zitzaion Ingalaterrari eta, 1707ko batasunaren ondoren, Britainia Handiko Erresuma Batu anglo-eskoziarrari Mendebaldeko Kristandadearen historiako hirugarren atalean Italiak bigarrenean jokatu zuen papera jokatzeara.

Azpmarratu behar da Italia bera hasia zela hiri-estatu unitate-aren mugak gainditzeko bidearen bila, zeren eta, haren erretiro-garaia-aren bukaerarako, hirurogeita hamar edo laurogei hiri-estatu independente zortzi edo hamar konbinazio handiagotara murriztuak baitzituzten konkista bidez. Baina emaitza desagokia izan zen bi aldetatik. Batetik, Italiako unitate politiko berri hauek, nahiz eta handiak izan aurrekoen aldean, oraindik txikiegiak ziren «barbaroen» aurka beren burua babesteko inbasioen aldia hasi zenean. Bestalde, unitate berri handiago hauetan zerturiko gobernu-era tirania izan zen beti, eta hiri-estatu sistemaren bertute politikoa galdu egin zen prozesuan. Italiako azken sistema despotiko hau izan zen, Alpeak zeharkatuz, bestaldeko unitate politiko handiagoetara berehala egokitu zena: habsburgotarrek egin zuten Espainian, Valoisko etxekoek eta borboiek Frantzian, Austrian ere habsburgotarrek, eta azkenik hohenzollerntarrek Prusian. Baina aurrerabidea zirudien hau irteerarik gabea gertatu zen; zeren eta, nolabaiteko demokrazia politikoa lortu gabe, Alpeez bestaldeko herrialdeentzat zaila baitzen Italiaren aurreko ekonomi erdiespena berdintzea, nekazaritzatik merkataritzara eta industriara igarotzea alegia, Italian hiri-estatuaren administrazioarekin lortu zena.

Ingalaterran, Frantzia eta Espainian ez bezala, monarkia autokratikoaren hazkundera erantzun eraginkorra sortarazi zuen erronka izan zen, eta ingelesaren erantzuna Alpeez bestaldeko gorputz politikoaren ohiko eraketari bizi berria ematea eta funtzio berriak sartzea izan zen, gorputz hori Ingalaterraren nahiz Frantzia eta Espainiaren ondare zelarik, Mendebaldeko Kristandadean izandako iraganaldi komunekoa. Alpeez bestaldeko ohiko erakundeetako bat Koroaren eta Erresumako estatuen arteko parlamentu edo konferentziaren aldizkako bilera zen, helburu bikoitza zuena: irainak garbitzea eta Koroarentzat estatuengandik hornidura-botoa lortzea, ongi oinarrituriko irainak garbituko zirelako konpromiso ohoretsu baten *quid pro quo* bezala. Erakunde honen pixkanakako bilakaeran Alpeez bestaldeko erresumek beren eskala materialeko eskualde-arazoa —erabili ezinezko

kopuruen eta distantzia ibilgaitzen arazoa— nola konpondu aurkitu zuten «ordezkaritzaren» legezko fikzioa asmatuz edo berraurkituz. Parlamentuak egindakoa ardura zaion pertsona orok prozeduretan esku-hartze pertsonala izateko duen obligazio edo eskubidea —nabaria hiri-estatuetan—, erresuma feudal astun hauetan delegazioz ordezkaturik izateko eskubidera mugatu zen, eta delegatuaren aldetik parlamentua bilduko zen lekuraino bidai gastuak ordaintzeko obligaziora.

Aldizkako ordezkapen- eta kontsulta-batzarraren erakunde feudal hau oso egokia zen jatorrizko helbururako Koroaren eta mende-koen artean lokarri izateko. Bestalde, jatorriz ez zen batere egokia Ingalaterran hamazazpigarren mendean arrakastaz ezarri zitzaion zereginerako: Koroaren beraren funtzioak hartu eta pixkanaka, aginte politikoaren sorburu nagusi bezala, hura ordezteko.

Zergatik onartu zuten eta arrakastaz aurre egin ingelesek erronka horri, Alpeez bestaldean garai hartako beste erresumarik horretarako gai ez bazen izan? Galdera honen erantzuna zera da, Ingalaterrak, erresuma feudal kontinentalak baino txikiagoa izanik eta hobeto zehazturiko mugak zituenek, auzokoak baino askoz lehenago lortu zuela benetako nazio-izatea, izate feudalarrekiko desberdina. Ez da paradoxa hutsa esatea Mendebaldeko Kristandadearen historiako bigarren, edo Erdi Aroko, atalean monarkia ingelesaren indarrak ahalbidetu zuela hirugarren atalean gobernu parlamentarioak ordezteak. Bigarren atalean beste herrialdeek ez zuten jasan Gilermo Konkistatzaileak, lehen eta bigarren Enrikeek eta lehen eta hirugarren Eduardoek zertu zuten bezalako larderia eta diziplinazko kontrola. Gobernari indartsu hauen mende Ingalaterran nazio-batasuna egin zen, horrelako zerbait Frantzian, Espainian edo Alemanian lortu baino askoz lehenago. Eraitza bera eragin zuen beste faktore bat Londresen nagusitasuna izan zen. Mendebaldeko Alpeez bestaldeko beste erresumetan inon ez zituen hiri bakar batek besteak hain txiki bihurtu. Hamazazpigarren mendearen bukaeran, Ingalaterrako biztanleria artean ezdeus zenean Frantzia edo Alemaniakoaren aldean eta Espainia edo Italiakoa baino ere txikiagoa, jadanik Londres bazen probabilitate guztiekin Europako hiririk handiena. Izan ere, esan daiteke Ingalaterrak arrakasta izan zuela Italiako hiri-estatuen sistema nazio-eskalan bizitza publikora egokitzen, zeren eta, Alpeez bestaldeko beste edozein nazio baino gehiago, ordurako lortua baitzuen —bere

tamaina txiki, muga tinko, errege indartsu eta bere hiri handi bakarren nagusitasunagatik— eskala handiko hiri-estatuen trinkotasun eta autokontzientziaren zerbait.

Hala ere, aldeko baldintza hauek erabat kontuan izanda ere, ingelesen lorpena —Errenazimentuko italiar administrazio-eraginkortasunaren ardo berria Erdi Aroko Alpeez bestaldeko parlamentarismoaren zahagi zaharretan botatzea, zahagi hauek lehertu gabe— *tour de force* harrigarritzat bakarrik har daitekeen garaipen konstituzionala da. Eta ingelesen *tour de force* konstituzional hau —gobernuaren kritika bere portaeratik banatzen duen leizean zehar parlamentua eramatekoa— Mendebaldeko Gizartearentzat gutxiengo sortzaile ingelesak zertu zuen, iskanbila kontinentaletatik egin zuen erretiroaren lehen aldian, Isabelen aroa eta hamazazpigarren mendearen zatirik handiena hartzen duen aldian. Luis XIV.agandiko erronkari erantzunez, Marlborough-en gidaritza bikainaren pean, ingelesak partzialki eta aldi baterako esparru kontinentalera itzuli zirenean, kontinenteko herriak orduan hasi ziren ohartzen uharteetakoak zertan jardunak ziren. *Anglomanie*-ren aroa, frantziarrek batzuetan deitu zuten bezala, hasi zen. Montesquieuk goretsi —eta gaizki ulertu— zuen ingelesen lorpena. *Anglomanie*, monarkia konstituzionalaren gurtza zen aldetik, Frantziako Iraultza piztu zuen bolbora-lorrazetako bat izan zen, eta guztiek jakina da, hemeretzigarren mendetik hogeigarrenera igarotzean, Lurreko herri guztiei sortu zitzaiera irrika bizia beren biluztasun politikoa piku-hosto parlamentarioz estaltzeko. Mendebaldeko historiaren hirugarren atalaren azkenaldian Ingalaterrako erakunde politikoan gurtza hedatu hau bat dator argi eta garbi bigarren faseko azkenaldian, hamabosgarren mendetik hamaseigarrenera igarotzean, italiar kulturari emandako gurtzarekin; eta italiar gurtza honen adibiderik argiena ingelesentzat zera da, Shakespeareren fikziozko antzerkitalan hiru laurden baino gehiago italiar ipuinetan oinarriturik daudela. Izan ere, Shakespearek *Rikardo II.*ean bere istorio-aukeratzeak argitzen duen *italomanie* aipatzen du, eta horretaz iseka egiten. Yorkeko duke zahar itzaltsuari esanarazten zaio errege gazte txorua desbideratzen dutela

*Italia harroan modan dauden istorioek,
eta hango manerei darraie zabar imitatuz
tximino-antzeko gure nazio berantak*⁹⁹.

Dramagileak, bere ohiko era anakronikoan, Chaucerren aroari egozten dio bere aroaren bereizgarriago dena, nahiz eta, egia esan, Chaucerrekin eta bere garaia ere ikusi zuten haren hasiera.

Gobernu parlamentarioaren asmakuntza politikoa ingelesak gizarte-ingurune egokia sortu zuen industrialismoaren ondorengo asmakuntza ingelesa egiteko. Gure aroko bi erakunde nagusiak hauek dira: «Demokrazia», gobernu-sistema honetan exekutiboak herriaren ordezkari den parlamentuaren aurrean erantzun behar du, eta «industrialismoa», lantegietan bildutako «eskuen» makina-produkzio sistema, alegia. Hauek nagusitzera iritsi badira, Italiako hiri-estatu kulturaren lorpen politikoa eta ekonomikoa hiri-estatuaren eskalatik erresumaren eskalara aldatzeko arazoari gure Mendebaldeko Gizarteak aurkitu ahal izan dizkion konponbiderik onenak eskaintzen dituztelako izan da; eta bi konponbide hauek Ingalaterran aurkitu dira, bere estatu-politikari modernoetako batek «bakarraldi zoragarria» deituriko aroan.

Zein izango da Errusiaren papera gure Mendebaldeko Historian?

Gizarte Handiaren gaur egungo historian —eta Gizarte horretara hedatu da Gure Mendebaldeko Kristandadea—, bereiz al ditzakegu berriro garai batek hurrengora iraultzeko joeraren sintomak, eta gizarte oso baten zati batek berak bakarrik bakartuta etorkizunaren arazoa konpontzeko joerarenak, gainerakoa oraindik iraganaren implikazioak aurkitzen ari den bitartean, honek guztiak hazkunde-prozesuak oraindik aurrera darraiela esan nahi duelarik? Orain, aurreko arazoan italiar konponbideek guri planteaturiko arazoei bere ingeles konponbideak hartu dituztenean, ingeles konponbide hauek beren aldetik arazo berriak ari ote dira sortarazten? Guk, geure belaunaldian, dagoeneko bi erronka bizi izan ditugu, demokraziaren eta industrialismoaren arrakastaren eraginez. Partikulariki, industrialismoaren ekonomi sistemak, mundu-mailako merkaturako ekoizpen trebe eta garestian tokian tokiko espezializazioa esan nahi duelarik, nolabaiteko mundu-ordena ezartzea eskatzen du, marko bezala. Eta, oro har, industrialismoak nahiz demokraziak giza animalia soziala zertzeko gai izan den baino banakoaren autokontrol, elkarrenganako tolerantzia eta espiritu publikoaren lankidetzak handiagoa eskatzen dizkio giza izaerari, erakunde berri hauek aurrez ez bezalako bultzada indartsua

eman baitie giza ekintza sozial guztiei. Adibidez, orokorki onartua dago guk orain ditugun gizarte- eta teknologi zirkunstantzietan, gure zibilizazioaren existentzia iraunkorra gerra —gure desberdintasunak konpontzeko metodo bezala— desagertarazteari lotua dagoela. Hemen ardura zaigun gauza bakarra da ea erronka hauek sortarazi ote duten erretiro- eta ondorengo itzulera-kasu berririk.

Goizegi da baieztapen ziurrik egin ahal izateko orain argi eta garbi hasierako etapetan dagoen histori atal bati buruz, baina ausar gaitezke espekulatzeraz ez ote daukagun hemen Errusiako Kristandade Ortodoxoaren egungo jarreraren azalpen bat. Errusiako mugimendu komunistan dagoeneko sumatu dugu, mendebaldar maskaradaren atzean, bi mende lehenago Pedro Handiak Errusiari ezarri zion mendebaldartzearekin apurtzeko ahalegin «sutsua»; eta adi berean maskarada hori, gogo onez edo txarrez, benetako bihurtzen ikusi dugu. Ondorioztatu dugu Mendebaldeko mugimendu iraultzaile bat, gogoz kontra mendebaldar bihurturiko Errusiak Mendebaldearen aurkako keinu bezala hartua, mendebaldar bihurtzeko eragile ahaltsuago bilakatu dela Errusian, Mendebaldeko gizarte-kredoaren edozein aplikazio konbentzional baino; eta Errusiaren eta Mendebaldearen arteko gizarte-trukearen azken emaitza formula honetan adierazten saiatu gara: garai batean bi gizarte banaturen arteko kanpo-harremana izan zena, Gizarte Handiaren —non sartua baitago orain Errusia— barne-esperientzia bihurtu dela. Joan ote gaitezke aurrerago eta esan Errusia, orain Gizarte Handian sartua dagoelarik, aldi berean bere bizitza komunetik erretiratzen aritu dela, Gizarte Handiaren egungo arazotarako irtenbideren bat aurkitzen saiatuko den gutxiengo sortzailearen papera jokatu ahal izateko? Gutxienez imajina daiteke hau, eta Errusiaren egungo esperimentuaren miresle askok uste du Errusiak paper sortzaile honetan egingo duela bere itzulera Gizarte Handira.

XII. DIFERENTZIAZIOA HAZKUNDEAREN BIDEZ

Osatu dugu orain zibilizazioek hazteko zertzen duten prozesuaren ikerketa, eta aztertu ditugun kasuetan, prozesuak bakarra eta berbera dirudi. Hazkundera gizabanako edo gutxiengo edo gizarte oso batek erronka bati erantzuten dionean zertzen da, erronka horri erantzuteaz gain, erantzulea beste erronka baten aurrean jartzen baitu, honek beste erantzun bat eskatzen diolarik. Baina hazkunde-prozesua uniformea izan badaiteke ere, erronka jasaten duten aldean esperientzia ez da berdina izaten. Erronka komunaren serie bati aurre egiterakoan esperientziaren aniztasuna nabari da, gizarte bakar batean eraturiko hainbat komunitate desberdinen esperientziak alderatzen baditugu. Batzuek porrot egiten duten bitartean, beste batzuek erantzun arrakastatsua ematen dute erretiro-eta-itzulerako mugimendu sortzailearen bidez, eta beste batzuek ez porrotik ez arrakastarik ez dute izaten, baina bizirik irauteko moldatzen dira arrakasta izan duenak bide berria erakusten dien arte, bide honetan zehar otzan-otzan jarraituz aitzindarien urratsei. Honela, erronka arrakastatsua bakoitzak diferentziazioa eragiten du gizartearen barruan, eta zenbat eta luzeagoa izan erronka-saila, orduan eta biziagoa izango da desberdintze hau. Gainera, hazkunde-prozesuak honela diferentziazioa eragiten badu hazten ari den gizarte bakar baten barruan, non erronkak berdinak baitira guztientzat, orduan, *a fortiori*, prozesu berak desberdindu behar du hazten ari den gizarte bat beste batengandik, non erronkak eurak ere desberdinak baitira izaeraz.

Adibide deigarri bat artearen esparruan agertzen zaigu, normalean onarturik baitago zibilizazio orok bere estilo artistikoa sortzen duela; eta zibilizazio partikular batek espazioan edo denboran izandako mugak aurkitzen saiatzen ari bagara, ohartuko gara test estetikoa dela ziurrena, baita sutilena ere. Adibidez, Egipton nagusi izan diren estilo artistikoen azterketak erakusten digu dinastiaurreko aroko artea bereziki egipziakoa ez den bitartean, arte koptoak baztertu egin dituela bereziki egipziakoak diren ezaugarriak; eta datu hauen gainean Zibilizazio Egipziakoaren bizialdia ezar genezake. Test beraren bidez ezar genezake zein datatan sortu zen Zibilizazio Helenikoa Gizarte Minoikoaren azalpetik, eta noiz desintegratu zen Gizarte Kristau Ortodoxoari bidea libre uzteko. Bestalde, Minosko gailuen estiloak gai egiten gaitu Zibilizazio Minoikoak bere historiako hainbat etapatan espazioan izan zuen hedapena mugatzeko.

Beraz, onartzen bada zibilizazio orok duela bere estiloa artearen esparruan, guk ikertu behar dugu ea nolakotasunezko bakartasuna, estiloaren muina dena, esparru bakar honetan ager ote daitekeen, zibilizazio banatu bakoitzaren zati eta organo eta erakunde eta jardueraren guztietara zabaldu gabe. Norabide honetan askonahiko ikerketetan sartu gabe, ongi ezaguna den hau baieztatu genezake: zibilizazio desberdinek enfasi-gradu desberdinak jartzen dituztela jardueraren bidez partikularretan. Zibilizazio Helenikoak, adibidez, joera nabaria du bizitzari —osotasunean hartuta— batez ere ikuspegi estetikoaren begiratze-ko; honen argibide da grekoen adjektiboa, berez estetikoki ederra dena esan nahi duen arren, gainera, eta bereizketarik gabe, moralki ona dena adierazteko ere erabilia izatea. Bestalde, Zibilizazio Indikoak, baita bere filial Hindu Zibilizazioak ere, joera nabaria erakusten du batez ere erlijiozkoa den ikuspegiarantz.

Gure Mendebaldeko Zibilizazioari dagokionez ez dugu zailtasunik aurkitzen geure joera edo zaletasunak detektatzeko. Makineriarako joera da, noski: interes, ahalegin eta gaitasunaren kontzentrazioa natur zientziaren aurkikuntzak helburu materialetara aplikatzeko, mekanismo material eta sozialen eraikuntza jeinutsuen bidez: mekanismo materialak automobil, eskumuturreko erloju eta ponpak bezalakoak, eta mekanismo sozialak konstituzio parlamentarioak, Estatuaren aseguru-sistemak eta mobilizazio militarren ordu-tegiak. Eta hau izan da gure joera normalean uste izaten den

baino luzaroagoan. Mendebaldeko gizakia bereziki materialistatzat jo izan du beste zibilizazio batzuetako elite eskolatuak «Makinaren Aroa» deiturikoa baino askoz lehenago ere. Anna Comnenak, bizantziar printzesa historialari bihurtuak, honen argitan ikusten ditu hamaikagarren mendeko gure arbasoak: hori erakusten du gurutzatuen balezten jeinutasun mekanikoaren aurrean haren erreakzioan zegoen ikara eta mespretxuzko nahasketak; haren garaiko Mendebaldearen berritasun bat zen, asmakuntza hilgarrien ezaugarri den goiztiartasunaz, erloju-mekanismoaren asmakuntza baino zenbait mende lehenago zertua, hau izan zelarik Erdi Aroko Mendebaldeko gizakiaren *chef-d'oeuvre* bere joera mekanikoa lilura gutxiagoko bake-arteetara aplikatzean.

Mendebaldeko azken idazleetako batzuek, eta Spenglerrek bereziki, zibilizazio desberdinen «izaeren» gai hau diagnostiko neurritsutik fantasia arbitraria igarotzen den punturaino eraman dute. Guk agian nahikoa esan dugu nolabaiteko diferentziazioak gertatzen direla ezarrita uzteko, baina gure proportzio-zentzua galtzeko arriskuan egongo ginateke hori bezain egiazkoa eta are esanguratsuagoa den zerbait bistatik galduko bagenu: giza bizitza eta erakundeetan azaldutako aniztasuna azaleko fenomeno dela, azpian datzan batasuna estaltzen duena, hondatu gabe.

Gure zibilizazioak harkaitz-igokariekin konparatu ditugu, eta konparazio honen argitan, igokariak, benetan gizabanako apartekoak diren arren, guztiak eginkizun berean konprometituta daude. Labar beraren aurpegia igotzeko ahaleginetan ari dira guztiak, beheko ertz bateko abiapuntu beretik goiko ertz bateko helmuga bereraino. Hemen nabarmen dago azpian datzan batasuna; eta berriro agertzen da, gure konparazioa aldatu eta zibilizazio-hazkundeak ereilearen parabolaren arabera planteatzen baditugu. Ereindako haziak hazi banatuak dira, eta hazi bakoitzak bere patua du. Hala ere, hazi guztiak mota berekoak dira; eta guztiak ereile bakar batek ereinak uzta lortzeko itxaropenez.

IV. ZIBILIZAZIOEN KOLAPSOAK

XIII. ARAZOAREN IZAERA

Zibilizazioen kolapsoaren arazoa hazkundearen arazoa baino nabariagoa da. Egia esateko, beraien sorreraren arazoa bezain nabaria da ia. Zibilizazioen sorrerak azalpen bat eskatzen du kontuan izanda espezie hau sortu egin dela eta gai garela beronen hogeita sei ordezkari zenbatzeko, kopuru honetan bost zibilizazio geraraziak sartuta, baina zibilizazio abortatuak bazter utzita. Aurrera jarrai genezake orain eta ohartu, hogeita sei horietatik, gutxienez hamasei hilda eta lurperatuta daudela. Bizirik dirauten hamarrak hauek dira: geure Mendebaldeko Gizartea, Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusia Ekialde Hurbilean, horren kimua Errusian, Gizarte Islamikoa, Hindu Gizartea, Ekialde Urruneko Gizartearen gorputz nagusia Txinan, horren kimua Japonian, eta polinesiarren, eskimalen eta nomaden hiru gizarte geraraziak. Bizirik dirauten hamar hauei zehatzago begiratuz gero, Gizarte Polinesiarra eta Nomada hilzorian daudela ohartuko gara eta beste zortzietako zazpi, maila batean edo bestean, zortzigarrenak —hau da, Mendebaldeko geure zibilizazioak— deuseztatzeko edo bereganatzeko arriskuan daudela guztiak. Are gehiago, zazpi horietako seik behintzat (salbuespena eskimalen zibilizazioa da, honen hazkundea haurtzaroan geratu baitzen) badituzte kolapsatu eta desintegratzen ari diren arrastoak.

Desintegrazioaren seinalerik argienetako bat, dagoeneko aipatu dugun bezala, beheraldi eta erorikoaren azkenaurreko etapako fenome-

no bat da: desintegratzen ari den zibilizazioak arnasaldi bat hartzen du estatu unibertsalean batasun politiko indartsu baten mende jarrita. Mendebaldeko aztertzailearentzat adibide klasikoa Erromatar Inperioarena da, non geratu baitzen Gizarte Helenikoa indarrez bilduta bere historiaren azkenaurreko atalean. Zibilizazio bizietako bakoitzari, geureari izan ezik, begiratzen badiogu orain, ohartuko gara Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusia dagoeneko igaro dela estatu unibertsaletik Otomandar Inperioaren forman; Kristandade Ortodoxoaren Errusiako kimua hamabosgarren mendearen bukaera aldera sartu zela estatu unibertsal batean, Moskovia eta Novgoroden bat-egite politikoa-
ren ondoren; eta Hindu Zibilizazioak bere estatu unibertsala Mogolen Inperioan eta honen ondorengo Britainiar Inperioan izan duela; Ekialde Urruneko Zibilizazioaren gorputz nagusiak, Mongolen Inperioan eta honek mantxuen eskuetan izandako pizkundean; eta Ekialde Urruneko Zibilizazioaren japoniar kimuak, Tokugawa shogungoaren forman. Gizarte Islamikoari dagokionez, estatu unibertsalaren iragarpen ideologikoa Mugimendu Panislamikoan sumatu genezake agian.

Estatu unibertsalaren fenomeno hau beheraldiaren ezaugarritzat onartzen badugu, ondorioztatuko dugu Mendebaldekoak ez diren eta egun bizirik dauden sei zibilizazioek beren barruan izan dutela kolapsoa Mendebaldeko Zibilizazioaren kanpotiko eraginak apurtu baino lehen. Azterlan honetan, geroago, aurkituko dugu arrazoirik pentsatzeko erasoaldi arrakastatsu baten biktima izan den zibilizazioa jadanik kolapsaturik zegoela bere barruan eta ez zegoela jada hazkundean. Orain dugun xederako aski da ohartzea zibilizazio bizietatik guztiak, geurea izan ezik, dagoeneko kolapsaturik eta desegiteko prozesuan daudela.

Eta geure Mendebaldeko Zibilizazioaz, zer? Garbi dago oraindik ez dela iritsi estatu unibertsalaren etapa. Baina aurreragoko kapitulu batean aurkitu dugu estatu unibertsala ez dela desintegrazioaren lehen etapa, azkenekoa ere ez den bezalaxe. Horren ondoren «interregnoa» deitu duguna etortzen da, eta aurretik, «arazoaldia» deitu duguna, normalean hainbat mende hartzen dituen; eta gure belaunaldian utziko balitzaigu gure aroaz geure sentimenduen irizpide subjektibo hutsez epaitzen, ziur aski epailerik onenek aitortuko lukete gure «arazoaldia» jaitsia dela gure gain, zalantzarik gabe. Baina oraingoz utz dezagun arazo hau erabaki gabe.

Dagoeneko zehaztu dugu zibilizazio-kolapso horien izaera. Gizatasun primitiboaren mailatik gizagaineko nolabaiteko bizimodu baten altuerara iristeko ahalegin ausartean izandako hutsegiteak dira, eta eginkizun handi horretan izandako galerak ere deskribatu ditugu hainbat konparazio erabiliz. Adibidez, «igoera» bukatu eta goiko irtenunean atsedeen-leku berri batera iritsi baino lehen, abiapuntu izan duten irtenunean bertan hilda edota bizirik baina heriotza-egoera lotsagarrian erortzen diren igokariekin konparatu ditugu. Materialak ez diren terminoetan ere deskribatu dugu kolapso horien izaera, giza-banako edo gutxiengo sortzaileen arimetan izandako sormen-galera gisa alegia, sortzaile ez diren masen arimetan eragiteko ahalmen magikoaz gabetzen dituen galera. Sorkuntzarik ez dagoen lekuan ez dago mimesirik. Bere azerikeria galdu duen gaita-jotzaileak ezin ditu jada jendetzaren oinak dantzarako mugiarazi; eta, amorruz eta ikaraz, bera instrukzio-sarjentu edo esklabo-tratulari bihurtu eta bere antzina-ko xarma magnetikoaz jada gidatu ezin duen herria bortxa fisikoaren bidez derrigortzen saiatzen bada, orduan seguruago eta arinago suntsituko du bere asmoa; zeren eta musika zerutarra isiltzean ahuldu eta pausoa galdua zuten jarraitzaileak zartailuaren ukituak matxinada aktibora akuilatuko baititu.

Hain zuzen ere, ikusi dugu, edozein gizarteren historian gutxiengo sortzaile bat gutxiengo menderatzaile bihurtu eta jada merezi ez duen posizio bati indarrez eusten saiatzen denean, gobernu-elementuaren izaeran aldaketa honek, beste aldean, proletalgoaren banakuntza eragiten duela, jada ez baititu bere gobernariak miresten eta imitatzen, eta bere morrontzaren aurka altxatzen da. Ikusi dugu, halaber, proletalgo hau, bere burua finkatzean, bi zati desberdinetan banaturik dagoela hasieratik: barne-proletalgoa, ahuldua eta setatia, eta kanpo-proletalgoa mugaz harantzago, orain bat-egiteari bortxaz aurre egiten diona.

Honek erakusten duenez, zibilizazioen kolapsoen izaera hiru puntutan laburbil daiteke: sortzeko ahalmenaren galera gutxiengoa-gan, erantzun gisa mimesiaren erretiratzea gehiengoaren aldetik, eta ondorioz batasun sozialaren galera gizartean, osotasunean hartuta. Kolapsoen izaeraren koadro honekin buruan, berorien kausa ikertze-ari ekin diezaiokegu orain: ikerketa honek hartuko du gure Azterlanaren zati honen gainerako guztia.

XIV. ERANTZUN DETERMINISTAK

Zerk eragiten ditu, bada, zibilizazioen kolapsoak? Geure metodoa aplikatu aurretik —historiako gertaera zehatz garrantzitsuak ordenatzea inplikatzan du horrek—, hobe arazoaren zenbait erantzun errepasatzea, beren froga bila gorago jotzen dutenak eta beren frogetarako demostraekin diren dogmetan edota giza historiaren eremutik kanpoko gauzetan oinarritzen direnak.

Gizakien gaitz iraunkorretako bat beren porrota beren kontrolpetik guztiz kanpo dauden indarrei egotzea da. Maniobra mental hau bereziki erakargarria da buru sentiberentzat beheraldi eta erorialdie-tan; eta Zibilizazio Helenikoaren beheraldi eta erorikoan hainbat filosofo-eskolaren topikoa zen deitoratzen baina geratu ezin zuten gizarte-gainbehera «zahartasun kosmiko» atake orohartzaile baten ondorio osagarri eta saihestezin bezala esplikatzea. Hau zen Lukrezioaren filosofia (cf. *De Rerum Natura*, II. Lib., 1144-74. berts.) arazoaldi helenikoaren azken belaunaldian, eta gai bera agertzen da berriro Mendebaldeko Elizako Gurasoetako batek, San Ziprianok, idatzitako eztabaida-lan batean, hirurehun urte geroago estatu unibertsal helenikoa apurtzen hasia zenean. Honela zioen:

«Jabetu behar duzue aroa zahartzaroan dagoela orain. Ez dauka orain tente eutsi ohi zion indarrik, ezta ere indartsu bihurtu ohi zuen kemen eta sendotasunik... Lurrean haziak elikatzen dituzten negu-euriak urritu egin dira, baita uztak helarazten dituzten udako

beroaldiak ere... Hau da Munduaren gain eman den epaia; hau da Jainkoaren legea; izan denak hil egin behar duela, eta hazi denak, zahartu».

Zientzia fisiko modernoak suntsitu egin du teoria honen muina, orain bizirik dagoen edozein zibilizaziori buruz, behintzat. Egia da fisikari modernoek, pentsaezina den etorkizun urrunean, unibertsoaren «erlojua gelditzea» aurreikusten dutela materia ezinbestean erradiazio bihurtzearen ondorio gisa, baina etorkizun hori, esan dugun bezala, pentsaezinezko urruntasunean dago. Honela idatzi du sir James Jeans-ek:

«Giza arrazaren etorkizunaz oso ikuspegi iluna hartuta, demagun beste bi mila milioi urtez bakarrik bizi daitekeela, Lurraren iragan adinaren antzerako denboraldia. Orduan, zazpi hamarreko urte bizi behar duen izakitzat hartuta, gizadiak berak, hirurogeita hamar urte bakarrik dituen etxean jaioa izan arren, hiru egun besterik ez ditu... Oso esperientzia gutxiko izaki bezala, zibilizazioaren egunsentiko lehen oskorrian gaude gu... Denborarekin goizaren distira desgertu egingo da egun betearen argitan, eta honek, urrutiko garairen batean, ilunabarrari utziko dio lekua, azken gau betierekoa iragarritz. Baina guk, egunsentiaren seme-alabok, ez daukagu asko kezkatu beharrik urrutiko ilunabarraz»¹⁰⁰.

Hala ere, zibilizazioen kolapsoen esplikazio predestinatu edo deterministaren mendebaldar aldezkari modernoak ez dira saiatzen giza erakunde hauen patuak unibertso fisikoaren —osotasun bezala hartuta— patuarekin lotzen. Horren orde, zahartasun eta heriotzaren legera jotzen dute uhin-luzera motzagoaz, eta lege horrentzako eskumena eskatzen dute planeta honetako bizi-eremu osoaren gain. Spenglerrek —zeinen metodoa metafora bat, behaturiko fenomenoe-tan oinarrituriko lege bat bailitzan, ezarri eta gero metafora horretatik argudiatzea baita— esaten du zibilizazio guztiek gizakiaren aro-segi-da berbera igarotzen dutela; baina haren hitz-jarioak gai honetan ez du inon froga izateko balio, eta dagoeneko adierazi dugu gizarteak ez direla inola ere organismo biziak. Termino subjektibotan, gizarteak azterketa historikoaren eremu ulergarriak dira. Termino objektibotan, hainbat gizabanakoren jarduera-arloen arteko eremu komun dira, eta hauek bai, organismo biziak dira, baina ezin diote beren irudiko erraldoi bati dei egin beren itzalak gurutzatuz, eta gero substantzia gabeko

gorputz honi beren biziaren arnasa sartu. Gizarte bateko «kide» deitzen ditugun gizaki guztien energia indibidualak beren jardunaz gizarte horren historia, bizialdia barne, zertzen duten bizi-indarrak dira. Gizarte orok bizialdi predestinatua duela dogmatikoki aldarrikatzea, antzerki-lan orok ekitaldi-kopuru jakin bat izan behar duela adieraztea bezain zentzugabea da.

Bazter genezake zibilizazio bakoitza bere bizialdi biologikoaren bukaerara hurbiltzen denean kolapsoak orduan gertatzen diren teoria, zibilizazioak biologiaren legeen mende ez dagoen entitate-mota batekoak baitira; baina bada beste teoria bat, esplikatu gabeko arrazoren batengatik, gizabanakoen nolakotasun biologikoa —eta gizabanakoen elkarrekiko erlazioek osatzen dute zibilizazio bat—, belaunaldi-kopuru jakin edo ezjakin baten ondoren, misterioski gain behera etortzen dela adierazten duena; egia esateko, zibilizazio-esperimentzia luzarora funtsean eta erremedio gabe endekatzaila izaten dela.

*Aetas parentum, peior avis, tulit
Nos nequiores, mox daturos
Progeniem vitiosiore*¹⁰¹.

Hau gurdia zaldiaren aurretik jartzea da, eta gizarte-beheraldiaren efektua bere kausarekin nahastea. Zeren eta, gizarte-hazkundealdiko arbasoen altuera handientsuaren eta jarduera paregabearen aldean, gainbehera sozialeko garaietan behera doan gizarteko kideak pigmeo bihurtzen edo elbarri bezala uzkuratzen direla eman arren, gaitxotasuna endekapenari egozte diagnostiko okerra da. Epigonoen herentzia biologikoa aitzindariena bezalakoxea da, eta aitzindarien ahalegin eta lorpen guztiak ondorengoan irispidean daude potentzialki. Gainbeheraren seme-alabak inhibitzen dituen gaitza ez da berezko ahalmenen elbarritasuna, baizik eta gizarte-herentziaren kolapsoa, kaltetu gabe dituzten ahalmenak gizarte-ekintza eraginkor eta sortzaileran ipintzeko esparrua aurkitzea eragozten diena.

Arraza-endekapena gizarte-kolapsoaren kausa delako hipotesi onartezin hau behaketa honetan oinarritzen da batzuetan: gainbeherako gizarte baten azken deuseztapenaren eta berarekin filiazioz ahaideturiko gizarte jaio berri baten sorreraren artean gertatzen den interregnoan *Völkerwanderung* bat izaten da sarri, eta orduan ondoz

ondoko bi gizarteen etxe bereko biztanleriari «odol berria» sartzen zaio. *Post hoc propter hoc* delakoaren logikaz, uste izaten da sortzeko ahalmen berria, zibilizazio jaio berriak bere hazkundealdian erakusten duena, «arraza barbaro primitibo» baten «sorburu garbi»-tiko «odol berri» horren oparia dela; eta orduan ondorioztatzen da, alderantziz, sortzeko ahalmenaren galera aurreko zibilizazioaren bizitzan nolabaiteko arraza-anemia edo piohemiaren batek eragina izango zela, odol osasuntsuzko transfusio berri batek bakarrik senda zezakeena.

Ikuspegi honen alde Italiako historiaren ustezko kasu bat aipatzen da. Esaten da Italiako biztanleek sortzeko ahalmen bikaina agertu zutela K.a. azken lau mendeetan, baita berriro ere sei bat mendeko denboraldian kristau-aroko hamaikagarren mendetik hamaseigarrenera, eta bi denboraldi hauen artean beheraldi, makalaldi eta susperraldiko milurteko bat dagoela, ematen duelarik denbora horretan bertutea erabat desagertu zela italiarrengandik. Arrazistek diotenez, Italiako historian gorabehera harrigarri hauek erabat esplikaezinak lirateke, italiar lorpenen bi aro handi horien artean godo eta lonbardiarrak inbaditzaileek italiar zainetara egin zuten odol berriaren transfusioa-gatik ez balitz. Bizi-elixir honek bere garaian, eta inkubazio-mende batzuen ondoren, Italiako birjaiotze edo Errenazimentua eragin zuen. Italia, Erromatar Errepublikaren egunetan izan zuen deabruzko energi ekoizpenaren ondoren, odol berriaren faltaz ahuldu eta joan zen behera Erromatar Inperioaren garaian. Eta Errepublikaren goraldiarekin martxan jarritako energia hori Zibilizazio Helenikoa jaio aurretik izan zen *Völkerwanderung*-ean barbaroen odol berriaz egindako transfusioaren emaitza izan zen, zalantzarik gabe.

Kristau-aroko hamaseigarren mendera arte Italiako historiaren arraza-esplikazio honek badu azaleko onargarritasun bat, denboraren puntu honetan gelditzearekin konformatzen bagara. Baina pentsamenduari hamaseigarren mendetik gaur egunera arte bidaiatzen uzten badiogu, aurkituko dugu, hamazazpi eta hemezortzigarren mendeetan beheraldia izan ondoren, hemeretzigarren mendean Italia beste pizkunde baten gertaleku izan zela, eta hain dramatikoa, ezen haren izena (*Risorgimento*) soil-soilik Erdi Aroko italiar esperientzia baten erreplikapen moderno honi aplikatzen baitzaio orain, kalifikaziorik gabe. Eta italiar energiaren azken eztanda honen aurretik, odol barbaro berriaren zer transfusio izan zen? Noski, «batere ez» da erantzuna. Hemeretzi-

garren mendeko italiar Risorgimento-aren berehalako kausa nagusia —badirudi historialariak bat datozela— zera izan zen: Frantzia iraultzaile eta napoleonikoak konkistatu eta aldi batez gobernatu izanaren esperientziak Italiari eman zion astindu eta erronka orokorra.

Ez da zailagoa arrazazkoak ez diren esplikazioak aurkitzea lehenago kristau-aroko bigarren milurtekoaren hasieran Italiak izandako goraldia eta, are lehenago, K.a. azken bi mendeetan agertu zuen beheraldia azaltzeko. Azkena aipaturiko beheraldi hori erromatar militarismoaren nemesia izan zen, noski, Bigarren Gerra Punikoaren atzetik etorri ziren gizarte-gaitzen sail beldurgarria Italiara eraman zuena. Italiako gizarte-susperraldiaren hasiera, interregno posthelenikoan, ia ziurtasun berdinez egotz dakioke italiar arraza zaharreko pertsonalitate sortzaileen lanari, eta zehazkiago San Benediktore eta Gregorio Handia aita santuari; hauek dira ez bakarrik Erdi Aroko Italia gaztetuaren gurasoak, baita Mendebaldeko Zibilizazio berriaren ere, zeinetan partaide baitziren Erdi Aroko italiarrak. Aitzitik, «odol garbiko» lonbardiarrak gobernatu zituzten Italiako eskualdeak aztertzen baditugu, ohartuko gara zerrendatik kanpo daudela Venezia eta Romagna eta Italiako Errenazimentuan horiena bezain paper ospetsua jokatu zuten beste eskualde batzuk eta lonbardiarrak aginpidearen gune izan zirelako ezagun diren hiriek jokaturikoak baino askoz ospetsuagoak: Pavia, Benevento eta Spoleto. Italiako historiari arraza-esplikazioa kendu nahi izango bagenu, erraz frogatu ahal izango genuke lonbardiarraren odola kutsagarria izan zela elixirra baino gehiago.

Italiako historian geratzen zaien gotorleku bakarretik erraz kanpora genitzake arrazistak Erromatar Errepublikaren goraldirako arrazazkoa ez den esplikazioa emanez. Greziarren eta etruskoen kolonizazioaren erronkari emandako erantzuna bailitzan esplikatu daiteke. Italiako penintsulako bertako herriek etsi egin behar ote zuten sarraski, menderakuntza edo asimilazioaren arteko aukeraren aurrean, greziarrek Siziliako lehengusuei eta etruskoek Unbria bertakoei ezarri zieten aukera haren aurrean? Ala berenari eutsiko ote zioten kanpotarren aurka Zibilizazio Helenikoa onartuz beren erabakiz eta beren erara (Japoniak Mendebaldeko Europakoa onartu duen bezala), eta, beraz, greziarren eta etruskoen eraginkortasun-mailara igoz? Erromatarrek azken erantzun hau ematea erabaki zuten, eta erabaki hau hartzean ondorengo handitasunaren autore bihurtu ziren.

Bukatu dugu zibilizazioen kolapsoaren hiru esplikazio deterministen azalpena: Unibertsoa «erloju gelditzearen» edo Lurraren zahartzaroaren ondorio direlako teoria; zibilizazioak, organismo bizi bezala, bere naturako biologi legeek mugaturiko bizialdi bat duelako teoria; eta kolapsoak, zibilizazioan parte hartzen duten gizabanakoen nolakotasunaren narriadurak eragindakoak direlako teoria, beraien pedigree-ek arbaso «zibilizatu» historia bat luzaroegi metatu izanaren ondorio. Oraindik beste hipotesi bat aztertu behar dugu, normalean historiaren teoria ziklikoa deritzana.

Gizadiaren historiako zikloen teoria honen asmakuntza astronomi aurkikuntza harrigarri baten berezko ondorioa izan zen; dirudieenez, Gizarte Babilonikoan egin zuten noizbait K.a. zortzigarren eta seigarren mendeen artean, eta aurkikuntza izan zen hiru ziklo nabarmen eta ezagunak —gaua eta eguna, ilargi-hilabetea eta eguzkiurtea— ez zirela gorputz zerutarren mugimenduan aldizka errepikatzen ziren adibide bakarrak; bazela izar-mugimenduen koordinazio handiago bat ere planeta guztiak hartzen zituen, Lurra, Ilargia eta Eguzkia bezalaxe; eta abesbatz zerutar honen harmoniak sortzen zuen «esferen musikak» zirkulu osoa egiten zuela, akordez akorde, eguzkiurtea huskeria bihurtuta uzten zuen ziklo handi batean. Ondorioa zera izan zen, landaretzaren urteroko jaiotza eta heriotzak, argi eta garbi eguzki-zikloaren araupean zeudenak, bere baliokidea zeukala gauza guztien jaiotza eta heriotza errepikarian ziklo kosmikoaren denbora-eskalan.

Giza historia zikloen termino hauetan interpretatzeak nabarmen liluratu zuen Platon (*Timeo*, 21 E-23 C, eta *Politikaria*, 269 C-273 E), eta doktrina bera agertzen da berriro Virgilioren pasarterik ospetsuenetako batean, laugarren eglogan:

*Ultima Cumaei venit iam carminis aetas;
Magnus ab integro saeculorum nascitur ordo.
Iam redit et virgo, redeunt Saturnia regna,
Iam nova progenies caelo demittitur alto. ...
Alter erit tum Tiphys et altera quae vehat Argo
Delectos heroas; erunt etiam altera bella
Atque iterum ad Troiam magnus mittetur Achilles*¹⁰².

Virgiliok zikloen teoria erabiltzen du Augustok mundu helenikoan eginiko baketxean inspiraturiko baikortasunezko himno bat

apaintzeko. Baina pozteko zioa al da «gerra zaharrak berriro borrokatzea»? Bizitza arrakastatsu eta zoriontsu samarrak izan dituzten giza-banako askok aitortu dute uste sendoz ez litzaiekeela gerra horiek berriro bizitzea gustatuko, eta historiak luzera mereziago al du «bis» bat batez besteko biografiak baino? Virgiliok planteatzen ez duen galdera honi Shelleyk erantzuten dio bere *Helas-en* azken koruan, virgiliar oroitzapen bezala hasi eta erabat Shelleyrena den ohar batez bukatzen delarik:

*Munduaren aro handia hasten da berriro,
urrezko urteak itzultzen dira,
Lurrak, sugeak bezala, berritzen ditu
bere neguko dolu-jantzi higituak:
Zerua irribarrez, fedeak eta inperioak distiraz
deseginez doan ametsaren hondarrak bezala...
Argos harroago batek zeharkatzen du itsas zabala
harrapakin berri batekin zamatua;
beste Orfeo batek abesten du berriro,
eta maitatu, negar egin eta hiltzen;
Ulises berri batek uzten du berriro
Kalipso bere sorlekuko itsasertzagatik.
Oi, ez gehiago idatzi Troiako istorioa
Heriok Lurra bildu behar badu;
ezta nahastu ere Laioarena bezalako amorruz
gizaki askeen gain jaiotzen den poza,
nahiz eta esfinge burutsuago batek berritu
Tebasek inoiz ezagutu gabeko heriotza-enigmak...
Oi, laga! Zergatik gorrotoa eta heriotza itzuli?
Laga! Zergatik behar dute gizakiek hilarazi eta hil?
Laga! Ez hondarrerraino hustu
profezia garratzaren urna!
Mundua nekaturik dago iraganaz;
oi, ahal baleza hil edo azkenean atsedean har!*

Unibertsoaren legea *Plus ça change plus c'est la même chose* sardonikoa baldin bada benetan, ez da harritzekoa poetak, budisten erara, existentziaren gurpiletik aska dezaten oihukatzea, agian gauza ederra baita izarrak beren bidean gidatzen dituen bitartean, baina erro-tarri jasangaitza da gure giza oinentzat.

Behartzen al gaitu arrazoiak giza historiaren mugimendu ziklikoan sinestera, izarretan izan lezakeen ustezko eraginaz erabat aparte? Azterlan honetan, ez al dugu guk geuk bultzatu horrelako ustea? Zer gertatzen da argitu ditugun mugimenduekin: Yin eta Yang, Erronka eta Erantzuna, Erretiroa eta Itzulera, Gurasotasuna eta Filiazioa mugimenduekin? Ez al dira hauek «historia errepikatu egiten delako» gai ezagunaren aldaerak? Egia esateko, giza historiaren amarauna ehuntzen duten indar hauen guztien mugimenduan bada errepikapen-elementu nabari bat. Hala ere, denboraren ehundegian etengabeko joan-etorrian atzera eta aurrera dabilen anezkak denbora honetan guztian tapiza sortzen du, eta tapiz honetan garbi azaltzen da garatuz doan zirriborro bat eta ez eredu beraren errepikapen mugagabea bakarrik. Hau ere behin eta berriro ikusi dugu. Gurpilaren metaforak aurrerapenarekin bat datorren errepikapenaren adibidea eskaintzen du. Gurpilaren mugimendua egia da errepikaria dela bere ardatzari buruz, baina gurpila egin eta bere ardatzari egokitu bazaio ibilgailu bat mugiarazteko da eta gurpila ibilgailuaren zati bat besterik ez da, eta ibilgailua, gurpilaren *raison d'être* izanik, gurpilak bere ardatzaren inguruan duen mugimendu zirkularrari esker bakarrik mugitzeak ez du behartzen ibilgailua bera zaldiko-maldikoa bezala jira-biraka mugitzera.

Bi mugimendu desberdinen harmonia hau —mugimendu itzulezin handiagoa mugimendu errepikakor txikiago baten hegoetan eramana— da agian erritmoa esatean ulertzen dugunaren funtsa; eta indar-joko hau ibilgailuen trakzioan eta makineria modernoan ez ezik, bizitzaren erritmo organikoan ere bereizten dugu. Aroen urteroko segidak, berekin landaretzaren urteroko erretiro eta itzulera ekartzen duenak, ahalbidetu du landare-erreinuaren hainbat mendetako bilakera. Jaiotza, ugaltze eta heriotzaren ziklo goibelak ahalbidetu du animalia nagusi guztien bilakaera Gizakiaganaino. Zango-pare baten txandakatzeak «distantziak egiteko» gai bihurtzen du ibiltaria; biriken eta bihotzaren punpatze-lanak bizitzeko gai egiten du animalia; musikaren konpasek eta poesiaren metro eta ahapaldiek gai egiten dituzte musikagilea eta poeta beren gaiak azaltzeko. «Urte Handi» planetarioa bera, agian ziklo-filosofia osoaren jatorria dena, ezin da jada izar-kosmosaren mugimendu azken eta oro-hartzailearekin nahastu, kosmos horretan gure eguzki-sistema lokala, Mendebaldeko astronomia

modernoareen lente handigarri ahaltsuen azpian jarrita, hauts-izpi baten huskeriara murriztua gelditu delarik. «Esferen musika» errepikakorra lagungarri huts bihurtzen da, «Albertiren baxu»¹⁰³ moduko bat, hedatzen ari den izar-multzoen unibertsoan, ziztu bizian urruntzen direlarik elkarrengandik; eta espazio-denbora esparruaren erlatibotasunak astro-formazio zabalaren segidako posizio bakoitzari egoe-
ra dramatiko baten banakotasun historiko atzeraezina ematen dio antzerkiren batean, non aktoreak pertsonaia biziak baitira.

Honela, zibilizazio-prozesuaren gure azterketan aldizkako mugimendu errepikakorrak antzemateak ez du esan nahi prozesua bera haien ordena zikliko berekoa izatea. Aitzitik, mugimendu txikiago hauen aldizkakotasunetik ondoriorik zuzen atera badaiteke, zera ondoriozta dezakegu: haiek aurrera daramaten mugimendu nagusia ez dela errepikaria, progresiboa baizik. Gizadia ez da bere gupilari betiko lotutako Ixion, ezta bere harriari beti mendi beraren gailurrera bultzaka ari den Sisifo ere, ezinbestean erortzen ikusteko.

Hau adorezko mezua da guretzat, gaur egun bakarrik eta nora-ezean aurkitzen garen Mendebaldeko Zibilizazioaren seme-alabontzat, geure inguruan zibilizazio kolpatuak baino ez ditugularik. Gerta liteke Heriotzak, Nibelatzaileak, bere esku izoztua gure zibilizazioaren gain ezartzea ere. Baina ez gaude inolako *Saeva Necessitas*-en aurrean. Hildako zibilizazioak ez daude hilda patuagatik, edo «naturaren martxan», eta, beraz, gure zibilizazio bizia ez dago aurrez ezinbestean behartuta bere espezieko «gehienekin bat egitera». Nahiz eta, dakigunez, hamasei zibilizazio desagertu diren dagoeneko, eta orain beste bederatzi hilzorian egon litezkeen arren, gu —hogeita seigarrena— ez gaude behartuta geure patuaren enigma estatistiken erabaki itsuaren mende jartzera. Sortzeko ahalmenaren jainkozko txinparta oraindik bizirik dago guregan, eta,ugar bihurtzeko grazia izaten badugu, orduan izarrek ezingo dituzte beren ibilbidean giza ahalegi-naren helburua lortzeko gure esfortzuak menderatu.

XV. INGURUNEAREN GAINEKO AGINTEA GALTZEA

1.

Ingurune fisikoa

Gogobetetzeko moduan frogatu badugu zibilizazioen kolapsoak ez dituela eragiten giza kontrolaz kanpoko indar kosmikoen ekin-tzak, oraindik aurkitu beharrean gaude hondamendi hauen benetako kausa; eta, lehenengo, aztertuko dugu ea gizartearen ingurunearen gain nolabaiteko aginte-galtzeak eragiten ote dituen kolapso hauek. Arazo hau argitzeko ahaleaginean, bi ingurune-motaren artean dagoeneko egin dugun bereizketaz baliatuko gara: giza ingurunea eta fisikoa.

Kolapsatzen ote dira zibilizazioak beren ingurune fisikoaren gain agintea galtzeagatik? Gizarte batek bere ingurune fisikoaren gain duen aginte-maila bere teknikaren arabera neur daiteke, dagoeneko adierazi dugun bezala; eta dagoeneko egiaztatu dugu, «hazkundearen» arazoa aztertzerakoan, bi kurba-sorta marrazteari ekiten badiogu — sorta bat zibilizazioen gorabeherak eta bestea teknikaren gorabeherak irudikatzeko—, bi kurba-orta horiek, bat ez etortzeaz gain, desberdintasun handiak erakusten dituztela. Zibilizazioak gelditu dauden edo gain behera doazen bitartean, teknika hobetuz doaneko kasuak aurkitu ditugu, eta beste kasu batzuk zibilizazioak, kasuaren arabera¹⁰⁴ aurrerantz nahiz atzerantz, mugitzen ari diren bitartean, teknika gelditu dagoenekoak. Beraz, ingurune fisikoaren gain agintea galtzea ez dela zibilizazioen kolapso-irizpidea frogatzeko bidean dezente aurreratu dugu. Gure froga osatzeko, hala ere, zera erakutsi behar dugu: zibilizazio baten kolapsoa teknikaren beheraldiarekin bat datorren kasuetan, azken hau ez dela izan lehenengoaren kausa. Egia esan, teknikaren beheraldia ez da kausa baizik eta ondorio edo sintoma izan dela aurkituko dugu.

Zibilizazio bat beheraldian dagoenean, batzuetan gertatzen da teknika partikular bat, hazkundealdian egingarri eta onuragarri izan dena, orain gizarte-eragozpenak aurkitzen eta gero eta ekonomi etekin txikiagoak ematen hasten dela; nabarmen iristen bada sari-emaile ez izatera, gerta daiteke bertan behera uztea berariaz. Honelako kasu batean, kausa eta efektuaren benetako ordenaren erabateko alderantzizkatzea izango litzateke, noski, zirkunstantzia horietan teknika abandonatzea praktikatzeko ezintasun teknikoaren ondorio izan zela eta ezintasun tekniko hau zibilizazioaren kolapsoaren kausa izan zela iradokitzea.

Puntu honetan kasu nabarmen bat erromatarren bideen abandonua da Mendebaldeko Europan, Erromatar Inperioaren kolapsoaren ondorio, noski, eta ez kausa. Bide hauek bertan behera gelditu ziren, ez trebetasun teknikoak huts egin izanagatik, baizik eta bide horiek behar izan zituen gizartea eta bere helburu militar eta komertzialetarako egin zituena desegin zelako. Zibilizazio Helenikoaren beheraldia eta erorikoa ere ezin dakizkioke teknikaren beheraldiari egotzi, gure ikuspegia bidegintzaren teknika bakarretik ekonomi bizitzaren aparatu tekniko osoa hartzera hedatuz.

«Antzinako munduaren gainbeheraren esplikazio ekonomikoa erabat baztertu behar da... Antzinako bizitzaren sinplifikazio ekonomikoa ez zen izan guk antzinako munduaren beheraldia deitzen dugunaren kausa, fenomeno orokorragoaren alderdietako bat baizik»¹⁰⁵.

Fenomeno orokorrago hau «administrazioaren porrota eta klase ertainaren hondamendia» izan zen.

Erromatarren bideen abandonuak garai bertsuan paralelismo bat izan zuen Tigris-Eufrates arroko alubioi-deltan askoz zaharragoa zen ureztapen-sistemaren abandonu partzialean. Kristau-aroko zazpigarren mendean hidro-ingeniartzako obra hauen berregokitzapena bertan behera gelditu zen Iraken hego-mendebaldeko zati handi batean, obrak erabiltezin utzi baitzituen uholde batek, nahiz eta ziur aski ez zituen eragingo lau mila urtetan gertaturiko uholde askok baino kalte larriagoak. Gero, hamahirugarren mendean, Irakeko ureztapen-sistema osoari utzi zitzaion hondatzen. Okasio hauetan, Irakeko biztanleek zergatik abandonatu zuten aurrekoek milaka urtetan hutsik gabe arrakastaz eduki zuten sistemaren kontserbazioa, sistema horren mende egonik nekazaritzaren emankortasuna eta herrialdeko biztanle

ugarien mantenua? Eroriko hau teknika-arloan ez zen izan biztanleria eta oparotasunean izandako beheraldiaren kausa, ondorioa baizik, eta beheraldi hau gizarte-kausek eragin zuten. Kristau-aroko zazpigarren mendean eta gero hamahirugarrenean Zibilizazio Siriakoa hain maila apalean zegoenez Iraken, eta segurtasun-gabeziazko egoera orokorra izugarritzkoa zenez, inork ez zeukan ez kapitala inbertitzeko baliabiderik, ez ibaiaren kontserbazioan eta ureztapen-lanetan bere kementa erabiltzeko ziorik ere. Zazpigarren mendean, porrot teknikoaren benetakako kausak K.o. 603-28ko erromatar-pertsiar gerra handia eta ondoren arabiar musulman primitiboek Iraken egindako inbasioa izan ziren; hamahirugarren mendean, mongolen K.o. 1258ko inbasioa, Gizarte Siriakoari *coup de grâce* eman ziona.

Antzeko ondoriora iristen gara Zeilanen behaketa enpirikozko aurkikuntza ohargarri batek iradokitako ikerketa-bideari jarraitzen badiogu¹⁰⁶. Gaur egun Zeilanen Zibilizazio Indikoaren monumentu hondatuak dauzkan eskualdea bat dator, ez bakarrik lehortekak etengabe zigortutako eskualdearekin, baita egun malariak kutsaturikoarekin ere. Ur-horniduraren azkenaldiko okerkeria hau, uztak sortzeko erabat desagokia baina anofeles eltxoarentzako aski dena, lehen begiratuan kokaleku arraroa da desagerturiko zibilizazio batentzat, eta nekez izango zen malaria nagusi Gizarte Indikoaren aitzindariak Zeilanen beren ureztapen-sistema harrigarria eraiki zutenean. Egia esan, froga daiteke malaria ureztapen-sistema hondatzearen ondorioa dela eta, beraz, hura eraiki ondorengoa. Zeilango zati hau malariak kutsatzea, ureztapen-sistemaren kolapsoak ubide artifizialak ur geldiko putzu bihurtu zituelako gertatu zen, eta ubideetan bizi ziren arrainak desagertarazi zituelako, hauek eltxo-larbarik gabe edukitzen baitzituzten ubideak.

Baina zergatik abandonatu zuten ureztapen-sistema indikoa? Etengabeko gerra suntsigarri batean geratu ziren dike haiek hautsita eta kanal haiek butxatuta. Inbaditzaileek berariaz sabotageatu zituzten lan haiek beren helburu militarreko bidea laburtzearren; eta gerrak nekaturiko herriak adorerik ez zuen hainbestetan egin zioten, eta ia ziur berriro ere egingo zioten, kaltea konpontzeari ekiteko. Honela, kasu honetan ere, faktore teknikoa gizarte-kausa eta efektuen katean bigarren mailako eta mendeko kate-maila baino ez da, oraindik bere gizarte-jatorrietara igorri beharrekoa.

Zibilizazio Indikoak Zeilanen duen historiaren atal honek paralelotasun estua du Zibilizazio Helenikoan. Hemen ere aurkitzen dugu orain desagerturiko zibilizazio honek bizitzarik distiratsuen izan eta energiarik bizienak garatu zitueneko eskualdeetako batzuk malariaren aintzira izan zirela ordudanik, guk gogoan dugun denboran berreskuratuak. Kopais-eko zingirak, gutxienez bi mila urtez aintzira izurritsu izan ostean britainiar enpresa batek 1887tik drenatuak, garai batean Orkomeno Oparoko hiritarrak elikatu zituzten landak izan ziren; eta Pontinako zingirek, hondamenaldi luzearen ondoren Mussoliniren erregimenean drenatu eta berriro jendeztatuak, garai batean bolskoen hiri eta kolonia latindar-pila bat izan zuten. Kolapso helenikoaren bihotzean egon zen «kemen-galtzea» (esaldia Gilbert Murray irakaslearena da) sorleku helenikoetan malaria sartzeak eragin zuela iradoki izan da benetan. Baina bada arrazoirik sinesteko eskualde hauetako bakoitzean, Zeilanen bezalaxe, malariaren erreinua ez zela hasi bertan erreinatzen zuen zibilizazioaren zenita igaro arte. Gaia aztertu duen aditu moderno batek¹⁰⁷ ondorioztatu du Grezian malaria ez zela endemiko bihurtu Peloponesoko gerra bukatu arte; eta Lazion ez dirudi gaitza Bigarren Gerra Punikoa igaro arte nagusitu zenik. Jakina, zentzugabea izango litzateke aditzera ematea Alexandro-osteko aroko greziarrak eta Eszipion eta Zesarren aroko erromatarrek eraginkortasun-falta teknikoren batengatik inhibituta gelditu zirela Kopais eta Pontinako zingiretako ur-arazoak konpontzeko, teknikoki hain trebeak ez ziren arbasoek konpondu zituzten arazoak. Kontraste hauen esplikazioa ez da teknika-mailan aurkitu behar, gizarte-mailan baizik. Bigarren Gerra Punikoa eta ondorengo bi mendeetan izan ziren erromatarren harrapaketa-gerra eta gerra zibilek eragin desintegratzaile sakona izan zuten Italiako gizarte-bizitzan. Nekazarien kultura eta ekonomia lehenengo hondatu egin zituen eta gero erabat ezabatu zenbait indar etsairen eragin metatuak: Hanibalen suntsipenak; nekazarien etengabeko mobilizazioak soldadutzarako; nekazaritza-iraultzak, beren burua hornitzen zuten nekazarien txikizkako nekazaritzaren ordezkilaboen lanaz handizka egindako nekazaritza ezarri zuenak; eta multzo handien migrazioak landatik hiri bizkarroietara. Gizarte-gaitzen konbinazio honek neurri handian esplikatzen du Italian gizakia erretiratu eta eltxoak sartzea Hanibalen belaunaldiaren eta San Benediktoren belaunaldiaren arteko zazpi mendeetan.

Greziari dagokionez, gaitzen antzeko elkarketak, Peloponesoko gerratik hasita, Polibioren garairako (K.a. 206-128) despopulatze handiagoa eragin zuen gero Italiak jasan zuena baino. Pasarte ospetsu batean Polibiok abortu edo haur-hiltze bidez familien tamaina murrizteko praktika seinalatzen du bere garaiko Greziaren gainbeheraren gizarte- eta politika-kausa nagusi gisa. Garbi dago, hortaz, ez dagoela ingeniari- eta porrotetara jo beharrik esplikatze zergatik utzi zitzaion Kopaiseko ordokiari, Pontinari bezala, aletegi iza-
nik eltxo-habia bihurtzen.

Antzeko ondorioetara iritsiko gara ingeniari- eta teknika praktikotik arkitektura, eskultura, pintura, kaligrafia eta literaturako teknika artistikoetara igarotzen bagara. Adibidez, arkitekturako estilo heleenikoa zergatik desagertu zen kristau- aroko laugarren eta zazpigarren mendeen artean? Zergatik otomandar turkiarrek abandonatu zuten arabiar alfabetoa 1928an? Munduan Mendebaldekoak ez diren gizarte gehientsuenak, zergatik ari dira orain beren estilo tradizionala baztertzen janzkeran edo arteetan? Eta, hasteko, geure etxera ere ekar genezake arazoa eta galdetu ea gure belaunaldiaren zati handi bat zergatik ari den geure tradiziozko manierak bazter uzten musika, dantza, pintura eta eskulturan.

Gure kasuan, teknika artistikoaren galera ote da esplikazioa? Ahaztu egin al ditugu erritmo, kontrapuntu, perspektiba eta proportzioaren arauak, italiarrek eta beste gutxiengo sortzaile batzuek gure historiaren bigarren eta hirugarren ataletan asmatuak? Garbi dago ezetz. Gure arte-tradizioak abandonatzeko nagusitzen ari den joera ez da ezgaitasun teknikoaren emaitza; estilo bat berariaz abandonatzea da, sortzen ari den belaunaldiarentzat erakarpina galduz doan estiloa, belaunaldi hau ez delako ari bere sentiberatasun estetikoaren Mendebaldeko tradizio-bideetatik lantzen. Nahita kanporatu ditugu geure arimetatik arbasoen espiritu ezagunak izandako maisu nagusiak; eta, sortu dugun espiritu-hutsunearen autoatseginezko mirespenaz inguraturik gauden bitartean, Afrikako espiritu tropikalak musika, dantza eta estatuagintzan itun beldurgarria egin du sasi-bizantziar espirituarekin pinturan eta baxuerliebean, eta garbi eta altzaritua aurkitu duen etxe batean bizitzera sartu da. Beheraldia jatorriz ez da tekniko, espirituala baizik. Mendebaldeko geure arte-tradizioa zapuztean eta, horrela, gure ahalmenak ahuleri eta

antzutasun-egoerara murriztean, egoera honetan Dahomey eta Beningo arte exotiko eta primitiboa basamortuko mana bailitzan hartzen dutelarik, geure herentzia espirituala abandonatu dugula ari gara aitortzen gizaki guztien aurrean. Gure arte-teknika tradizionalaren abandonua, argi dago Mendebaldeko Zibilizazioan gertaturiko nolabaiteko espiritu-kolapsoaren ondorio dela; eta kolapso honen kausa ezin da, noski, bere emaitzetako bat den fenomenoan aurkitu.

Latindar alfabetoaren mesedetan turkiarrek duela gutxi arabiar alfabetoa uztea ildo beretik esplikatu behar da. Mustafa Kemal Atatürk eta haren jarraitzaileak erabateko mendebaldartzaileak izan dira beren mundu islamikoaren barruan. Fedea galdu dute beren zibilizazioko tradizioetan, eta ondorioz baztertu egin dute horren transmisio-bide izandako literatur bitartekoa. Antzeko azalpena eman daiteke hiltorian zeuden lehenagoko beste zibilizazio batzuek tradiziozko beste idazkera batzuk baztertu izateko: adibidez, idazkera hieroglifikoa Egipton eta kuneiformea Babilonian. Idazkera sinikoa deuseztearen aldeko mugimendua antzematen da gaur egun Txinan eta Japonian.

Teknika batek beste bat ordeztearen adibide interesgarria arkitektura-estilo helenikoa abandonatzea izan zen bizantziar estilo berriaren mesedetan. Kasu honetan hil-hurren zegoen gizarte bateko arkitektoek zutabe gaineko arkitrabe-eskema simple samarra baztertu zuten, gurutze-formako eraikuntza kupula zirkularraz koroatzeko arazo izugarri zailarekin saiakuntzak egiteko; hortaz, ezin hemen aurkitu gaitasun teknikoaren hutsegiterik. Sinesgarria ote da Santa Sofia elizaren eraikuntza-arazoak Justiniano enperadorearentzat arrakastaz konpondu zituzten joniar arkitektoek tenplu greko klasiko bat ezin eraikitzea, hau izanez gero autokrataren borondatea, eta beraiena? Justinianok eta haren arkitektoek estilo berri bat hartu zuten estilo zaharra gustu txarreko bihurtu zitzaielako, iraganaldi hil eta ustelduaren hondarrekin lotzen zuten eta.

Badirudi gure ikerketaren azken emaitzak adierazten duela tradiziozko arte-estilo bat abandonatzea estilo horri atxikiriko zibilizazioa aspaldi kolapsatu eta orain desegiten ari den seinale dela. Ezarritako teknika bat erabiltzeari uztea bezalaxe, kolapsoaren ondorioa da, ez kausa.

2.

Giza ingurunea

Lehenago gai hau zibilizazioen hazkundeari lotuta aztertu dugunean, aurkitu dugu gizarte batek bere historiako edozein etapatan giza ingurunearen gain izandako aginte-maila geografi hedapenaren arabera neur daitekeela gutxi gorabehera; eta halaber aurkitu dugu, adibideak aztertuz, geografi hedapenarekin batera gizarte-desintegrazioa ematen dela sarri. Hau honela bada, oso nekeza dirudi kolapso eta desintegrazio honen beronen kausa justu aurkako joeran aurkitzea, hots, giza ingurunearen gaineko kontrola gutxitzeko joeran, atzerriko giza indarren erasoaldi arrakastatsuz neurtua. Hala ere, asko zabaldu den ikuspegia da zibilizazioek, gizarte primitiboek bezala, kanpo-indarren aldetik jasaten dituzten eraso arrakastatsuen ondorioz galtzen dutela bizia; eta ikuspegi honen azalpen klasikoa Edward Gibbon-ek ematen du *The History of the Decline and Fall of the Roman Empire* delakoan. Atzera begiratuta bere kontaketa laburbiltzen duen esaldi bakarrean agertzen da gaia: «Barbarotasunaren eta Erljioaren garai-pena deskribatu dut». Gizarte Helenikoa, Antoninoen aroan bere goren puntuan zegoen Erromatar Inperioan gorpuztua, atzerriko bi etsaik bi frontetan aldi berean egindako erasoak menderatua agertzen da: etsai horietako bata Ipar Europako barbaroak dira, Danubio eta Rhin baino harantzagoetik inorena ez zen lurraldetik irtenak, eta bestea Kristau Eliza, menderatutako baina inoiz asimilatu gabeko ekialdeko probintzietatik irtena.

Inoiz ez zitzaion Gibboni bururatu Antoninoen aroa ez zela historia helenikoaren uda, sanmartinetako uda txikia baizik. Haren aluzinazio-maila bere lan handiaren izenburuak berak salatzen du. Erromatar Inperioaren beheraldia eta erorikoa! Izen hori daraman eta kristau-aroko bigarren mendean hasten den historiaren egileak benetakako prozesuaren bukaera oso hurbil duen punturen batean hasi du ziur aski bere kontaketa. Zeren eta Gibbonen arduragai den «histori azterketaren eremu ulergarria» ez da Erromatar Inperioa, Zibilizazio Helenikoa baizik, eta honen desintegrazio aurreratuaren sintoma monumentala zen Erromatar Inperioa bera. Kontuan istorio osoa hartzen denean, Antoninoen aroaren ondoren Inperioaren beheraldi biz-

korra ez da batere harrigarria gertatzen. Aitzitik, Erromatar Inperioak irautea izango zen harrigarria; zeren eta Inperio hau jada heriotzara kondenatua baitzegoen ezarri aurretik¹⁰⁸. Kondenatua zegoen estatu unibertsal honen ezarpena suspertze bat baino ez zelako, Gizarte Helenikoaren hondamendi konponezina atzera zezakeena baina ez betiko geldiarazi.

Gibbonek ekin balio istorio luzeago hau bere hasieratik kontatzeari, ohartuko zen «Barbarotasunaren eta Erljioaren garaipena» ez zela obraren argumentua, epilogo bat baino, ez kolapsoaren kausa, baizik eta desintegrazio-prozesu luzearen bukaerako deuseztapenarekin batera ezinbestean gertatu beharrekoa. Are gehiago, ohartuko zen Eliza eta barbaro garaileak ez zirela, azken batean, kanpoko indarrak, etxe helenikoko seme-alabak baizik, Periklesen kolapsoaren eta Augustoren susperraldiaren bitarteko arazoaldian gutxiengo menderatzailetik moralki apartatuak. Egia esan, Gibbonek bere ikerketa tragediaren benetako hasierara eramán izan balu, bestelako epai bat eman beharko zukeen. Esan beharko zukeen Gizarte Helenikoa suizida bat zela, bere biziaz jada etsita zegoenean, bere buruaren aurkako erasoaren zoritxarreko ondorioak saihestu nahi izan zituen, eta azkenean gaizki gidatu eta desbideraturiko bere seme-alabengandik *coup de grâce* jaso zuena, Augustoren susperraldiak hirugarren mendean jada beste eroriko bati bide egin eta gaixoa bere buruari eragindako zauri zaharren ondorioengatik nabarmen hiltzen ari zen garaian.

Egoera honetan, historialari eta epaileak ez luke bere arreta epilogora zuzenduko, baizik eta suizidak esku bortitzak bere buruaren gainean lehenengoz noiz eta nola jarri zituen zehazki finkatzen saiatuko litzateke. Data baten bila, ziur aski Peloponesoko gerra K.a. 431n hasi zen garaia seinalatuko luke: gizarte-hondamendia, Tuzididesek, bere drama tragikoko pertsonaietako baten ahoz hitz eginez, garai hartan «Helasentzako gaitz handien hasieratzat» salatu zuena. Gizarte Helenikoko kideek beren burua suntsitzeko krimena nola zertu zuten adierazterakoan, ziur aski indar berdinez azpimarratuko lituzke gaitz bikiak: estatuen arteko gerra eta klaseen arteko gerra. Tuzididesen urratsei jarraituz, gaitz horietako bakoitzaren adibide nabarmen-nabarmenez, bi hauek bereiziko lituzke agian: atenastarrek Miloko konkistatuei ezarritako zigor beldurgarria eta Korzirako talde-borroka beldurgarriak. Edozein kasutan, esango luke kolpe hilgarria Gibbonek

uste zuena baino seiehun urte lehenago eman zela, eta kolpea eman zuen eskua biktimaarena berarena izan zela.

Orain gure ikerketa kasu honetatik beste zibilizazio batzuen kasuetara hedatzen badugu —hots, dudarik gabe hilda edota hiltzorian daudela ematen dutenen kasuetara—, epai berbera eman behar dela konturatuko gara.

Adibidez, Gizarte Sumerikoaren beheraldi eta erorikoan, «Hamurabiren Urrezko Aroak» (*Cambridge Ancient History* delakoan deitu bezala) adierazten duen uda txikia, Antoninoen aroan agertzen dena baino ere geroagokoa da; zeren eta Hamurabi gehiago baita historia sumerikoko Diokleziano Trajano baino. Horren arabera, Zibilizazio Sumerikoaren hiltzaileak ez ditugu identifikatuko mugaz bestaldeko barbaroekin, K.a. hemezortzigarren mendean «Lau Eskualdeko Erresumaren» gainera etorri zirenekin. Bederatzehun bat urte lehenago gertatu ziren jazoeretan detektatuko ditugu zorigaiztoko kolpeak: Lagash-eko Urukagina-ren eta bertako apaizen arteko klase-gerra, eta Urukagina suntsitu zuen Lugalzaggisi-ren militarismoa; zeren eta askoz lehenago gertaturiko hondamendi hauek izan baitziren arazoaldi sumerikoaren benetako hasiera.

Gizarte Sinikoaren beheraldi eta erorikoan «Barbarotasunaren eta Erljioaren garaipena» estatu unibertsal sinikoaren ondorengo estatu eurasiar nomaden fundazioak adierazten du Ibai Horiaren arroan K.o. 300. urte inguruan, baita aldi berean budismoaren mahayaniar formak mundu sinikoan egin zuen sarraldiak ere, hau barne-proletalgo sinikoaren erlijioetako bat zelarik ipar-mendebaldeko probintzietan. Baina garaipen hauek, «Barbarotasunak eta Erljioak» Erromatar Inperioan izan zituztenak bezalaxe, hiltzorian zegoen gizarte bateko kanpo- eta barne-proletalgoen garaipenak baino ez ziren izan, eta prozesu osoaren azken atala baizik ez dira. Estatu unibertsal sinikoa bera gizarte-susperraldia izan zen arazoaldi baten ondoren, non gizartegorputz sinikoa zatikatuta gelditu baitzen hainbat parroki estaturen anaiarteko gerraz, lehenago estatu horietan antolatu zuelarik Gizarte Sinikoak bere burua. Zorigaiztoko data, tradizio sinikoan K.a. 431 helenikoari dagokiona, K.a. 479 da, tradizioak «Estatu borrokalarien aldia» deiturikoaren abiapuntu konbentzionala. Hala ere, ziur aski, data konbentzional hau berrehun eta berrogeita hamarren bat urte geroagokoa da benetako gertaera baino, eta arazoaldi sinikoaren

hasieratzat hartua izan da, Konfuzioren heriotzaren data tradizionala ere badelako, besterik gabe.

Gizarte Siriakoari dagokionez —honek bere udalditxoa Bagdadeko Abbastar Kalifaldiaren mendean izan zuen eta «Barbarotasunaren eta Erlijioaren garaipena» turkiar nomaden inbasioetan eta hauek bertako erlijioa zen Islamera izandako konbertsioan ikusi zuen—, Azterlan honetan askoz lehenago ezarritako puntu bat gogoratu behar dugu: alegia, beheraldi eta erorikoaren prozesu siriakoa etenda utzi zuela mila urtez erasoaldi heleniko batek, eta Abbastar Kalifaldiak hartu besterik ez zuela egin historia siriakoaren haria, Akemenestar Inperioa K.a. laugarren mendean uztera behartu zuten puntu berean¹⁰⁹. Beraz, gure ikerketak atzera eraman behar ditugu, Zirok inauguraturiko *Pax Achaemenia*-ren aurretiko arazoaldi siriakora.

Zerk eragin zuen aurreko hazkundealdi laburrean monoteismoaren, alfabetoaren eta Atlantikoaren hiru aurkikuntza sekulakoetan bere jeinua frogatu eta bizitasuna erakutsi zuen zibilizazio baten kolapsoa? Lehen begiratuan, badirudi hemen, azkenean, kanpoko giza indar baten eraginez eraitsitako zibilizazio baten benetako kasuarekin topo egin dugula. Ez al zen Zibilizazio Siriakoa behera etorri asiriarr militarismoak K.a. bederatzigarren, zortzigarren eta zazpigarren mendeetan emandako kolpe-zaparradaren mende? Horrela irudi lezake; baina behaketa zehatzagoak erakusten du, «asiriarra otsoa artaldera bezala etorri zenean», mundu siriakoa ez zela jadanik artalde bat artzain batekin. Israeldar hegemoniaren mende hebrear, feniziar, aramear eta hititen kantonamendu-taldea —mundu babilonikoaren eta egipziakoaren arteko pasabidean dagoena— politikoki batzeko hamargarren mendeko ahaleginak huts egin zuen, eta ondorioz sortu zen anaiarteko gerra siriakoak beren aukera eskaini zien asiriarrrei. Zibilizazio Siriakoaren kolapsoa ez da Asurbanipalek K.a. 876an lehenengoz Eufrates zeharkatu zuenetik datatu behar, baizik eta Salomonen inperioa desegin zenetik, fundatzailea K.a. 937an hil ondoren.

Bestalde, sarri esan izan da Zibilizazio Kristau Ortodoxoa bere «bizantziar» gorputze politikoan —«Ekialdeko Erromatar Inperioa» alegia, beronen atsekabealdi bukaezinak direlarik Gibbonen epilogo itzelaren gaia— otomandar turkiarrek suntsitu zutela. Normalean erantsi beharko litzateke turkiar musulmanek *coup de grâce*-a baka-

rrik eman ziotela Mendebaldeko kristau-inbasioak jadanik oso gogor zauritua zuen gizarte bati; Laugarren Gurutzadaren izenpean maltzurki maskaraturiko inbasioa izan zen eta Bizantzio mende-erdi baino gehiago (K.o. 1204-61) bizantziar enperadorerik gabe utzi zuen. Baina eraso latindar hau, ondorengo turkiarra bezala, bere biktima zen gizartearentzat atzerritar zen sorburutik etorri zen; eta, gure azterketa hemen uztearekin konformatuko bagina, orain arte beti suizidiotzat diagnostikatu ditugun heriotzen zerrendan benetako «hilketa»-epai bat eman beharko genuke. Hala ere, guk dakusagun bezala, historia kristau ortodoxoan zorigaiztoko puntu erabakigarria ez zen izan turkiarren eraso hamalaugarren eta hamabosgarren mendeetan, ezta eraso latindarra ere hamahirugarren mendean, edo ezta turkiar inbaditzaileen lehenagoko samalda batek (seljuktarrek) Anatoliaren bihotza konkistatzea ere, baizik eta etxe barnekoa soilik zen gertae-ra bat, beste horien guztien aurretikoa: K.o. 977-1019ko erromatar-bulgarier gerra handia. Garai hartako mundu kristau ortodoxoko bi potentzia handi horien anaiarteko gatazka ez zen bukatu bietako bat existentzia politikorik gabe gelditu zen arte, eta besteak zauriak jasan zituen, eta bada arrazoi onik esateko zauri haietatik ez zela inoiz oneratu.

Mehmet II.a otomandar padishak K.o. 1453an Konstantinopla hartu zuenean, Zibilizazio Kristau Ortodoxoa ez zen bukaerara iritsi. Paradoxa bitxi batez, konkistatzaile atzerritarrek hornitu zuen konkistaturiko gizartea bere estatu unibertsalaz. Nahiz eta Santa Sofiako kristau-eliza meskita musulman bilakatu, Zibilizazio Kristau Ortodoxoak bere bizialdia bizitzen jarraitu zuen, Hindu Zibilizazioak ere mende bat geroago Akbar mogolak sorturiko turkiar jatorriko beste estatu unibertsal baten mende bizirik iraun zuen bezalaxe, eta bizirik irauten du hura bezain atzerritarra den Britainiar Inperioaren mende. Baina bere garaian, desegitearen lehen mugimenduak eta Völkerwanderung baten hastapenak sentitu ziren Otomandar Turkiar Inperioaren zati batean, Gizarte Kristau Ortodoxoaren eremuarekin bat zetorren zatian. Greziar, serbiar eta albaniarrak mugimenduan zeuden argi eta garbi hemezortzigarren mendea bukatu baino lehen. Zergatik ez zuten mugimendu hauek «Barbarotasunaren eta Erlijioaren garaipena» ekarri, Gizarte Helenikoaren, Sinikoaren eta beste batzuen azkenaldian dagoeneko aurkitu dugun bezala?

Erantzuna da geraezinik hedatzen ari zen Mendebaldeko Zibilizazio bat bere martxa indartsuan Gizarte Kristau Ortodoxoaren oinordeko barbaro hutsegin hauen orpoz orpo zebilela. Otomandar Inperioaren kolapsoak mendebaldar bihurtzearen garaipenari lagundu zion benetan, eta ez Barbarotasunaren eta Erljioaren garaipenari. «Heroi Aroko» estiloan printzerri barbaroen berezko forma hartu ordez, Otomandar Inperioaren ondorengo estatuak Mendebaldearen presioak modelatu zituen sortu orduko, justu garai hartan nazionalismoan oinarrituta berrantolatzen ari zen Mendebaldeko estatuen elkarreko kide ziren nazio-estaturen imitaziora. Kasu batzuetan ondorengo estatu barbaro hasiberri bat bihurtu zen zuzenean nazio-estatu moderno horietako bat Mendebaldeko ereduaren arabera: Serbia, adibidez, eta Grezia. Bestalde, Mendebaldeko irradiazioaz artean oso gutxi ukiturik zeuden barbaroek eta beren jarduerak Mendebaldeko bide nazionalistatik zuzentzeko gai ez zirenek «trena galtzeko» zigorra ordaindu zuten. Albaniarrek hemeretzigarren mendean greziar, serbiar eta bulgariarrei utzi behar izan zieten herentzia, hemezortzigarren mendean beraiena baino distiratsuagoa zirudiena, eta hogeigarren mendean ozta-ozta lortu zuten Mendebaldeko nazio-elkartean sartzeari ondare kaskarrarekin.

Honela, Gizarte Kristau Ortodoxoaren historian azken ekintza ez da «Barbarotasunaren eta Erljioaren garaipena» izan, baizik eta zibilizazio atzeritar baten arrakasta, hilzorian zegoen gizarte osoa irensten eta haren egitura bere gizarte-ehunetara ekartzen jardun duena.

Bide alternatibo batekin topo egin dugu hemen, non zibilizazio batek bere nortasuna gal baitezake. «Barbarotasunaren eta Erljioaren garaipenak» esan nahi du hilzoriko gizartea txatar-metara bota dutela bere kanpo- eta barne-proletalgoen aldetiko errebolta ikonoklastaren bidez, indar matxinatu hauetakoren batek edo besteak eremu librearen bat konkistatu ahal izan dezan gizarte berri bat sortarazteko. Kasu honetan gizarte zaharrena hil egiten da, eta, hala ere, zentzu batean bizi egiten da eskuordetuta zibilizazio gazteagoaren bizitzan, «gurasotasun eta filiazio» deitzen ikasi dugun harremanaren bidez. Kasu alternatiboan, zibilizazio zaharra txatar-metara botatzen ez dutenean bere kimuari bidea uzteko, baizik eta bere garaikideetako batek irentsi eta bereganatu egiten duenean, nortasun-galera

nabarmen da osoagoa zentzu batean, baina txikiagoa beste batean. Hilzoriko gizartearen antolamendua osatzen duten komunitateek ez dauzkate zertan jasan gizarte-desegitearen agonia ikaragarriak; beren gizarte-gorputz zaharretik berrira jarraipen historikoa erabat hautsi gabe igaro daitezke, adibidez, Greziako herri modernoa mendebaldar bihurturiko munduko nazioetako bat izateko birmoldatu den bezala, lau mendez otomandar *millet* baten bizitza bizi izan ondoren. Beste ikuspuntu batetik, ordea, identitate-galera erabatekoagoa izango da eta ez txikiagoa; zeren eta beste batean txertatu delako hiltzen den gizarteak gordetzen baitu nolabaiteko jarraikortasuna bere egitura materialean, baina prezio honekin: hurrengo belaunaldian ordezkari lezakeen gizarte filial bat sortzeko aukera erabat baztertzea, gure gizartea ere, bene-benetako zentzuan, Gizarte Helenikoaren ordezkari den bezala, Hindua Gizarte Indikoarena edo Ekialde Urruneko Gizarte Sinikoarena.

Asimilazio bidezko desagertze-prozesu honen kasu bat, guk ezagutu duguna, Gizarte Kristau Ortodoxoaren gorputz nagusia geure Mendebaldeko Gizartearen gorputz sozialean sartzea izan da. Baina berehala ikusten dugu existitzen diren gainerako zibilizazio guztiak ere bide beretik ibiltzekotan daudela. Hau da Errusiako Kristandade Ortodoxoaren kimuaren egungo historia; Gizarte Islamiko eta Hinduarena; eta Ekialde Urruneko Gizartearen bi adarrena. Hau egia da dauden hiru gizarte geraraziei —Eskimal, Nomada eta Polinesiarrari— buruz ere, guztiak baitaude erakarriak izateko prozesuan Mendebaldeko Zibilizazioaren gizarte-irradiazioak besterik gabe suntsitzen ez dituen neurrian. Halaber, ikusten dugu orain desagertuta dauden hainbat gizartek era berean galdu zutela beren nortasuna. Mendebaldar bihurtzeko prozesua, Kristandade Ortodoxoan hamazazpigarren mendearen bukaeran nagusitzen hasi zena, ia bi mende lehenago hasi zen Mundu Berriko Mexikar eta Andetar Gizarteetan eragiten, eta bi kasu hauek prozesua ia osatu dela ematen du orain. Gizarte Babilonikoa K.a. azken mendean sartu zen Gizarte Siriakoan, eta Gizarte Egipziakoa gizarte-gorputz siriako berak bereganatu zuen mende gutxi batzuk geroago. Gizarte Egipziakoaren —inoiz ikusi den bizialdi luzeeneko eta irmokien trinkotu eta baturiko zibilizazioaren— asimilazio siriakoa da, agian, orain arte ezagutu den gizarte-asimilaziorik gogoangarriena.

Begiratu bat egiten badiogu geure Mendebaldeko Zibilizazioaren aldetik asimilatzekeo prozesuan dauden zibilizazio bizien taldeari, aurkituko dugu prozesua abiada desberdinean ari dela zertzen maila desberdinetan.

Ekonomi mailan gizarte horietako bakoitza Mendebaldeko industrialismo modernoak mundu bizigarri osoan zabaldu duen harreman-sarean harrapatuta dago.

*Haien orojakileek argi elektrikoa
ikusi Mendebaldean, eta gurtu egin dute.*¹¹⁰

Politika-mailan ere, itxuraz hiltzearen dauden zibilizazio hauen guztien seme-alabak hainbat atetatik saiatu dira Mendebaldeko estatu-elkarteko kide izateko onarpena lortzen. Kultur mailan, ordea, ez dago pareko joera uniformerik. Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusian Otomandar Inperioko *raiya* (giza abere-talde) izandakoek — greziar, serbiar, errumaniar eta bulgariarrek — badirudi pozik hartu dutela kultur, politika- eta ekonomi mailan mendebaldar bihurtzeko aukera; eta lehengo jaun eta jabeen egungo buruzagiek, turkiarrek, haien jarraibideari segitu diote. Baina badirudi kasu hauek salbuespenak direla. Arabiar, pertsiar, hindu, txinatar eta japoniarrak ere erreparo mental eta moral kontzienteekin ari dira gure Mendebaldeko kultura onartzen, batere onartzen ari badira, behintzat. Errusiarrei dagokienez, Mendebaldetiko erronkari haiek emandako erantzunaren izaera ekibokoa lehenagoko orrialde batean eta beste zerbaiti lotua aztertu da (ikus 302. or.).

Honek erakusten duenez, Mendebaldeko esparruan ekonomia-aren, politikaren eta kulturaren mailan munduak batzeko gaur egun duen joera, gerta liteke ez egotea lehen begiratuan ematen duen bezain aurreratua, ezta bere azken arrakasta hain ziurtatua ere. Bestalde, Gizarte Mexikar, Andetar, Babiloniko eta Egipziakoaren lau kasuak nahikoa dira erakusteko asimilazioaren bidezko nortasun-galera desgite-prozesu alternatiboan bezain erabatekoa izan daitekeela, honela aurkitu zutelarik bukaera Gizarte Helenikoak, Indikoak, Sinikoak, Sumerikoak eta Minoikoak. Orain, beraz, gure arreta kapitulu honen xedera zuzendu behar dugu, eta aztertu behar dugu ea gizarte hauek pairatu zituzten edo orain pairatzen ari diren patuak —hau da, auzoko gizarte batek bereganatzea eta asimilatzea— izan ote ziren berorien

kolapsoaren benetako kausak, ala kolapsoak inkorporazio eta asimilazio-prozesuak hasi baino lehen gertatu ote ziren benetan —dagoe-neko aztertu dugun beste taldearekin gertatzen dela ikusi dugun bezala—. Azken ondorio honetara iristen bagara, burutua izango dugu ikerketa hau, eta esateko moduan egongo gara gizarte baten ingurunearen —giza ingurune nahiz fisikoaren— gain agintea galtzea ez dela bila ari garen kolapso-kausa nagusia.

Adibidez, ikusi dugu Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusiak ez zuela bere nortasuna galdu beste batek bereganatuta bere estatu unibertsala interregnoan sartu arte, eta benetako kolapsoa erromatar-bulgariar gerra batekin hasi zela, mendebaldar bihurtzeko seinaleak agertu baino zortziehun urte lehenago gertatua. Gizarte Egiptiakoaren kolapsoaren eta zurgapenaren arteko denbora askoz luzeagoa da, zeren eta aurkitu baitugu arrazoirik kolapso hori jada Bosgarren dinastiatik Seigarrenerako trantsizioan bertan kokatzeko, *circa* K.a. 2424an, piramidegileen bekatuak haien ondorengoengan zigortu zirenean eta «Erresuma Zaharraren» buru astuneko egitura politikoa apurtu zenean. Ekialde Urruneko Gizartearen kasuan kolapsoaren eta inkorporazio-prozesuaren hastapenaren arteko denbora ez da historia egiptiakoan bezain luzea, baina bai Kristandade Ortodoxoaren historiakoa baino askoz luzeagoa, zeren eta Ekialde Urruneko Gizartearen kolapsoa Tang dinastiak kristau-aroko bederatzigarren mendeko azken laurdenean izandako erorikoarekin pareka baitaiteke, eta ondorengo arazoaldiaren hasierarekin, jarraian estatu unibertsala hainbat aldiz gorpuztu zelarik barbaroek sorturiko inperioetan. Gorpuzte hauetako lehenak, Kublai Khanek ezarritako *Pax Mongolica* delakoak, zorte gutxiago izan zuen bere irteeran, Hindu Gizarteari Akbar-ek eta Gizarte Kristau Ortodoxoari Mehmet Konkistatzaileak emaniko bake nomadaren bertsio konparagarriek baino. Txinatarrek, *timeo Danaos et dona ferentes* («greziarren beldur naiz, onurak dakartzatenean ere») printzipioaren arabera jokatz, mongolak bota zituzten, egiptoarrek hiksoak bota zituzten bezala. Mantxuek etorri eta joan egin beharko zuten oraindik, mendebaldar bihurtzeko ekitaldirako agertokia prest egon baino lehen.

Errusian eta Japonian Mendebaldeko Zibilizazioaren inpaktua, orain mendebaldar bihurturiko bi potentzia handi haiek ordezkaturiko zibilizazioen beheraldian askoz lehenagoko etapan gertatu zen; baina bi

kasuetan beheraldia hasia zen jada, zeren eta Romanov tsarren agintea eta Tokugawa shogungoa —hauek Mendebaldeko nazio-elkarteko kide izateko nazio-estatu bihurtzeari ekin zioten Pedro Handiak eta «Meiji Berrezarkuntza»ren japoniar autoreek, hurrenez hurren— estatu uni-bertsalak baitziren biak, berrehun urte baino gehiagoko bizia zeukana Errusiaren kasuan eta hirurehun baino gehiagokoa Japoniaren kasuan. Kasu hauetan inork gutxik esango du Pedro Handiaren eta haren mai-lakide japoniarren jarduerak kolapsotzat hartu beharko liratekeela. Aitzitik, lorpen horiek itxura guztien arabera hain arrakastatsuak izan zirenez, behatzaile askok pentsa dezake itxuraldaketa sakon hau beren buruari berariaz jasanarazi eta bertatik —orduan, behintzat— ezbeha-rrik gabe igarotzen ziren gizarteek bete-beteko hazkunde-*élan*-ean egon beharko zutela oraindik. Errusiar eta japoniarren erantzunak, edo-nola ere, kontraste zorrotza agertzen du osmanliar, hindu, txinatar, azte-ka eta inkek erronka berberari aurre egiten erakutsitako eraginkortasu-nik ezarekin. Mendebaldeko auzotarren —poloniar, suediar, germaniar edo amerikarren— eskuetan mendebaldar bihurtzeko nahitaezko pro-zesua jasan ordeztu, errusiar eta japoniarrek beren gizarte-metamorfosia beren eskuz zertu zuten, eta honela gai izan ziren Mendebaldeko nazio-elkartean potentzia handien pareko gisa sartzeko, eta ez dependentzia kolonial edo «ahaide behartsu» bezala.

Ohargarria da hamazazpigarren mendeko lehen urteetan, Pedro Handia baino ia ehun urte lehenago eta «Meiji Berrezarkuntza» baino bi mende eta erdi lehenago, Errusiak eta Japoniak biek esperimentatu eta errefusatu zutela Mendebaldeak bereganatzeko ahalegina beste alde batzuetan ezagun zen eran. Errusiaren kasuan erasoaldi militar erregu-larraren forma zakarra izan zuen inpaktuak eta aldi batez Mosku hartu zuten Errusiaren mendebaldeko auzotarraren —Polonia-Lituanian Erresuma Batuko— indarrek, Errusiako erregegai bati, «Demetrio fal-tsuari» alegia, laguntzeko aitzakiaz. Japoniaren kasuan, inpaktuak forma etereoagoa hartu zuen eta ehundaka mila japoniar arima katoli-zismora konbertitu zituzten espainiar eta portugaldar misiolariak, eta oso gertagarria zen bere garaian kristau-gutxiengo kartsu honek Japoniaz jabetzeko asmoa izatea basea Filipinetan zuten espainiar armaden laguntzaz. Baina errusiarrek kanporatu egin zituzten polonia-rrak, eta japoniarrek han bizi ziren Mendebaldeko misiolari eta merka-tari guztiak kanporatuz uxatu zuten «arrisku zuria», eta aurrerantzean

mendebalдарrei —baldintza lotsagarrietan baimenduriko holandar merkatarí gutxi batzuei izan ezik— Japoniako lurretan hanka jartzea debekatuz eta Japoniako elkarte katolikoa jazarpen errukigabearen bidez suntsituz. Honela konpondu zutelarik beren «Mendebaldeko arazoa», errusiarrek eta japoniarrek pentsatu zuten beren baitan itxi eta «betiko zoriontsu bizitzea» besterik ez zutela egin behar. Denborak bere joanean hori ez zela horrela erakutsi zienean, dagoeneko deskribatu ditugun erantzun orijinal eta positiboak ematen hasi ziren.

Hala ere, badira seinale argi eta garbiak, Portugaleko lehen ontzia Nagasakira edo Ingalaterrako lehen ontzia Arkangelera (Mendebaldearen aitzindaria Moskun, poloniar inbaditzailea baino lehenagokoa) iritsi baino lehen, jada kolapsatuta zeudela Ekialde Urruneko Zibilizazioa Japonian eta Zibilizazio Kristau Ortodoxoa Errusian.

Errusiako historian benetako «arazoaldia», termino hau Azterlan honetan erabiltzen den zentzuan, ez da hamazazpigarren mendeko lehen urteetan jasandako anarkialdia, hasieran hartarakoxe sortu zutelarik terminoa errusiarrek berek. Hura interludio hutsa izan zen errusiar estatu unibertsalaren lehen eta bigarren faseen artean, mundu helenikoan hirugarren mendean Antoninoen aroaren eta Dioklezianoren igoeraren artean izaniko anarkialdiaren parekoa. Errusiako historiaren atala Peloponesoko gerraren eta *Pax Augusta*-ren arteko historia helenikoaren atalari dagokiona, eta, beraz, gure zentzuan Errusiako arazoaldia adierazten duena, Moskovia eta Novgorod batzearen bidez K.o. 1478an Errusiako estatu unibertsala sortu aurreko ezbeharraldia da. Ikuspegi honetatik bertatik, anarkia feudalezko Kamakura eta Ashikaga aldiak dira Japoniako historiako arazoaldiak, Nobunagak, Hideyoshik eta Ieyasuk zertutako diziplinazko bateratze eta baketzearen aurreko aldiak; eta bi denboraldi hauen tarte konbinatua, data konbentzionalen arabera, K.o. 1184tik 1597ra bitartekoa da.

Hauek baldin badira Errusia eta Japoniako benetako arazoaldiak, egintza suizidaren batek ala kanpoko areriores baten ekintzak azkartu ote zituen aztertu behar dugu bi kasuetan. Errusiaren kasuan, Mendebaldeko Erdi Aroarekin batera gertaturiko kolapso ezagunaren ohiko azalpena zera da, eurasiar estepatiko nomada mongolen erasoak eragin zuela. Baina dagoeneko aurkitu eta baztertu dugu beste kasu batzuetan —Gizarte Kristau Ortodoxoaren adarrik zaharrenaren

kasuan, adibidez— alegazio hau, alegia, eurasiar nomadak zirela beren papera jokatu zuten zenbait antzerki-lanetako bilauak. Ezinezkoa ote da Errusian, era berean, Gizarte Kristau Ortodoxoak jada bere kolapsoa gauzatua izatea bere egintzaz, K.o. mongolek 1238an Volga zeharkatu baino lehen? Galdera honentzako baiezko erantzuna iradokitzen du Kiev-eko errusiar printzerri primitiboa ondorengo hainbat estatu kontrariotan desegin izanak kristau-aroko hamabigarren mendean.

Japonian kasua askoz garbiagoa da. Hemen kolapsoa ezin zaio mongolen erasoari egotzi konbentzitzeko eran, japoniarrek beren itsa-sertzetatik arrakastaz errefusatu baitzuten K.o. 1281ean; eta garaipen maratoniko honen kausa ikertzen badugu zera aurkitzen dugu: neurri batean zalantzarik gabe uharte-egoerak eragina bazen ere, are gehiago zor zitzaiola eraginkortasun militarri, arazoaldi bateko fakzio-borroketan garatuari, ordurako ehun urte baino gehiago zeramatzate-larik borroka haiek praktikatzen.

Gizarte Hindu, Babiloniko eta Andetarraren historietan atzerriko gizarte batek bereganatzeko prozesua, Errusia eta Japoniako kasuetan bezala, gainbeherako gizarteak beren estatu unibertsalean zeudenean gertatu zen. Beste hiru kasuotan, hala ere, norabide honda-garriagoa hartu zuen prozesuak, eta gainbeherako gizarte hauek atzerriarren konkista militarra jasan zuten. Hindu-historian britainiarren konkistaren aurretik turkiar musulmanen konkista izan zen, «Mogol Handien» aroa baino askoz atzerago, K.o. 1191-1204ko inbasioen garaian gertatua, eta atzerriarren lehen konkista hau, ondorengoak —mogola eta britainiarra— bezalaxe, nabarmen eragin zuen Hindu Gizartea ordurako anarkia kronikoko egoeran egoteak.

Gizarte Babilonikoa Siriakoak bereganatu zuen, haren estatu unibertsala, Nabukodonosorren Inperioa, Ziro Pertsiarrek konkistatu ondoren. Garai hartatik aurrera kultura babilonikoak pixkanaka atzera egin zuen siriakoaren aurrean, zeinen Akemenestar Inperioa izan baitzen lehen estatu unibertsala; baina kolapso babilonikoaren kausa asiriar militarismoaren aurretiko gehiegikerietan aurkitu behar da.

Andetar Gizarteari dagokionez, egia nabarmena da, noski, Inka Inperioa espainiar konkistatzaileen inpaktuak suntsitu zuela, eta bali-teke, Mendebaldeko munduko herriek beren bidea Atlantikoan zehar inoiz aurkitu ez balute, Inka Inperioak beste mende batzuk gehiago

irautea. Baina Inka Inperioaren suntsipena eta Andetar Zibilizazioaren kolapsoa ez dira gauza bera, eta orain aski badakigu andetar historiaren kolapsoa askoz lehenago gertatu zela jakiteko eta, espainiar konkistaren aurretiko mendean, inkek izandako gorakada militar eta politikoa ez zela inola ere Andetar Zibilizazioaren kultur gorakadaren berdina izan, baizik eta benetan azken gertaera bat haren beheraldian.

Mexikar Zibilizazioa lehenagoko etapa batean erori zen konkistatzaileen aurrean, Azteken Inperioak, ordurako nabarmen zuzendua egon arren bere gizarteko estatu unibertsal izatera, artean erabat burutu gabe zituenean bere konkistak. Desberdintasun hau adierazteko esan dezakegu Andetar Gizartea bere Antoninoren aroan konkistatu zutela eta Mexikar Gizartea bere Eszipioien aroan; baina «Eszipioien aroa» arazoaldiko fase bat da eta honela, definizioz, aurretiko kolapso baten ondorioa da.

Mundu islamikoan, bestalde, mendebaldartzea estatu unibertsal islamikorik bistan izan baino lehen nagusitu zen, eta bertako kide diren estatuak —Pertsia, Irak, Saudi Arabia, Egipto, Siria, Libano eta gainerakoak— ahalik eta ongien ari dira egiten lan txar samarra «ahai-de behartsu» bezala Mendebaldeko nazio-elkartean. Mugimendu panislamikoak hutsegina dirudi.

Beste zenbait zibilizazio, heldutasunera iritsitako batzuk barne, baita zibilizazio geraraziak eta abortatuak ere, berrius daitezke. Baina zibilizazio helduetako batzuek —Minoikoak, Hititak eta Maienak, adibidez— ikertzaile modernoek hain osagabeki argituriko historiak dituztenez, lasterregi ibiltzea litzateke horietatik ondorioak ateratzea; zibilizazio geraraziek ez lukete emaitzarik emango azterketa honetarako, definizioz, sorrera bai, baina ondorengo hazkunderik izan ez duten zibilizazioak baitira; eta zibilizazio abortatuak argiezinak lirateke *a fortiori*.

3.

Epai negatiboa

Aurreko ikerketatik arrazoiz ondoriozta dezakegu zibilizazioen kolapsoaren kausa ez dela aurkitu behar giza inguruneari buruzko

aginte-galeran, bere kolapsoa ikergai dugun edozein gizarteren bizitzan atzerriko giza indarrak sartzearen arabera neurtua. Aztertutako kasu guztietan, atzerriko arerioak gehien lortu duena azken arnasatan zegoen suizidari *coup de grâce* ematea izan da. Sarraldiak eraso bortitzaren forma hartzen duen lekuan, zibilizazio baten historiako edozein etapatan —azken-azkenekoan, *in articulo mortis* dagoenean, izan ezik— eragin normala erasotutako alderdiaren gain ez dirudi suntsigarria denik, positiboki suspergarria baizik. Gizarte Helenikoa pertsiar erasoak suspertu zuen, K.a. bosgarren mendearen hasieran, bere jeinuaren adierazpen gorenetaraino. Mendebaldeko Gizarte kristau-aroa bederatzigarren mendeko eskandinaviar eta magiar erasoek akuilatu zuten adore eta trebetasun politikozko balentriak egitera, ondorioz Ingalaterra eta Frantziako erresumak sortu eta Erromatar Inperio Santua berreraiki zutelarik saxoniarrek. Ipar Italiako Erdi Aroko hiri-estatuak hohenstaufentarren erasoaldiek suspertu zituzten; ingeles eta holandar modernoak, Espainiaren erasoek; eta Hindu Gizarte jaio berria, arabiar musulmanen oldarraldi primitiboak kristau-aroa zortzigarren mendean.

Aurreko kasu guztietan erasotutako alderdia hazkundealdian zegoen oraindik; baina gutxienez beste horrenbeste kasu aipa genitzake, non atzerriar erasoak aldi baterako suspergarria eman dion gizarte-ari, honek bere burua gaizki erabiltzeagatik jada kolapsoa izan ondoren. Adibide klasikoa Gizarte Egipziakoak suspergarri horren aurrean izandako erreakzio errepikatua da; zeren eta erreakzio egipziako hori eragina eta berriro eragina izan baitzen bi mila urteko denboraldian; eta historia egipziakoaren epilogo luze hau Gizarte Egipziakoa bere estatu unibertsaletik irtena eta jada interregnoan sartua zenean hasi zen, deuseztapen bizkorren atarikoak izatea espero zitekeen interregnoan, alegia. Azken etapa honetan, Gizarte Egipziakoa hikso inbaditzaileak kanporatzeko izan zen akuilatua, eta askoz geroago hainbat kemenalditan itsas kortsarioak, asiriarrak eta akemenestarrak kanporatzeko eta, azken-azkenik, Ptolomeoek Egipton ezarri zuten helenizazio-prozesuari erresistentzia setati eta arrakastatsua eskaintzeko.

Txinan Ekialde Urruneko Zibilizazioaren historian kanpokolpe eta presioen aurrean antzeko erreakzio-saila izan da. Ming dinastiak egin zuen mongolen kanporaketak «Inperio Berriaren»

Tebasko fundatzaileek egindako hiksoen kanporaketa gogorarazten du, eta Gizarte Egipziakoak helenizazioari jarritako erresistentziak Mendebaldearen aurkako txinatar mugimenduan dauka bere analogia; mugimendu hau boxerren altxamenduan zertu zen K.o. 1900ean, eta 1925-7 bitartean ere borroka galduari azken muturreraino jarraitzen saiatu zen Errusiako komunismoari armak eskatuta.

Adibide hauek, erraz gehitu litezkeenak, aski dira agian gure tesia oinarritzeko, alegia, kanpotiko kolpe eta presioen ondorio normala suspergarria dela eta ez suntsigarria; eta, tesi hau onartzen bada, gure ondorioa baieztatzen du: giza ingurunearen gain agintea galtzea ez dela zibilizazioen kolapsoaren kausa.

LABURTZAILEAREN OHARRA.

Irakurleren batzuei irudituko zaie agian, aurreko kapituluan, autoreak behin baino gehiagotan, hartu duen argudiobidearen ondorioz, bere «kolapsoen» data arrazoizkoa ez den garaietaraino atzeratu duela zibilizazio batzuen historian. Irudipen hau, sentitu bada, «kolapso» terminoaren esanahian anbiguotasunak eragindako gaizki-ulertzearen ondorio izan daiteke. Gizaki batek bere osasunean kolapsoa izan duela esaten dugunean, zera iradokitzen dugu: ondorengo susperraldian kolapsoa gainditzen ez bada, haren bizitza aktiboa bukatu dela. Egia esan, Toynbeek «desintegrazioa» idaztean esan nahi duen gauza bera esateko erabiltzen dugu «kolapsoa» hizkera arruntean. Baina «kolapsoak» Azterlan honetan ez du zehazki hori esan nahi; hazkunderaldia bukaera esan nahi du. Bizitza organikoko analogiak beti arriskutsuak izaten dira gizarteei buruz hitz egiterakoan, baina irakurleak gogoratu behar du hazkundera azkar samar bukatzen dela organismo bizi baten bizitzan. Organismo bizi baten eta gizarte baten arteko desberdintasuna, autorea orain bukatu den kapitulu honetan erakusten saiatu den bezala, hauxe da: organismo biziak bere bizialdia mugatua du bere izaeragatik beragatik —«gure urteen egunak hiru hogeiko urte eta erdi dira»—, baina historiak ez dio mugarik ezartzen gizarte baten bizialdi posibleari. Beste hitz batzuetan esanda, gizarte bat sekula ez da hiltzen «berezko kausaz», baizik eta suizidioz edo hilketaz hiltzen da beti, eta ia beti lehenengoagatik, kapitulu honek erakutsi duen bezala. Antzeratsu hazkunderaldia bukaera, organismo bizi baten historian ere gertaera naturala dena, gertaera «antinaturala» da gizartean, krimen edo burugabekeriaz egina; eta Toynbeek krimen edo burugabekeria

honi aplikatu dio «kolapso» terminoa Azterlan honen xederako. Terminoa zentzu honetan erabiltzen denean zibilizazio baten historian lorpen eta produkzio emankor, argigarri eta ospetsuenetako batzuk kolapsoaren ondoren eta, benetan, beraren ondorioz etortzen direla ikusiko da.

XVI. AUTODETERMINAZIOAREN PORROTA

1.

Mimesiaren mekanikotasuna

Zibilizazioen kolapsoaren kausaz egin dugun ikerketak hainbat ezezko ondoriotara eramán gaitu orain arte. Aurkitu dugu kolapso horiek ez direla Jainkoaren egintza, esaldi honi legelariék ematen dioten zentzuan, behintzat; ez dira naturaren lege zentzugabeen alferrikako errepikapenak ere. Halaber, aurkitu dugu ezin dizkiogula egotzi ingurunearen —giza nahiz fisikoaren— gain agintea galtzeari; ez dira industri edo arte-tekniken porrotak edo atzerriko etsaien eraso homizidek eraginak ere. Azalpen defendaezin horiek elkarren segidan errefusatzean ez gara iritsi geure ikerketaren helburura; baina aipatu berri dugun falazietako azkenak bide batez arrasto bat eman digu. Kolapsoa izan duten zibilizazioek beren heriotza ez dutela hiltzaile baten eskutik hartu frogatzean, ez dugu arrazoirik aurkitu indarkeriaren biktima izan direlako alegazioa eztabaidatzeko, eta ia kasu guztietan eramán gaituzte, logikazko agortze-prozesuaren bidez, suizidio-epaia ematera. Gure ikerketan aurrerapen positiboren bat egiteko itxaropenik handiena arrasto horri jarraitzea da; eta gure epaian bada ezaugarri itxaropentsu bat, berehala ikus dezakeguna. Ez dago ezer orijinalik horretan.

Ikerketa neketsu samar baten ondoren guk atera dugun ondorioa Mendebaldeko poeta moderno batek sumatu du intuizio seguruz:

*Bizitza tragikoan, Jainkoak daki,
Ez dago bilau beharrik! Grinek iruten dute mataza:
Barruko faltsukeriak traizionatzen gaitu.*

Intuizio-garraldi hau (Meredith-en *Love's Grave*-tik hartua) ez zen aurkikuntza berria izan. Lehenago eta aditu handiagoengan ere aurkitzen dugu. Shakespeareren *King John*-en azken lerroetan agertzen da:

*Ingalaterra hau sekula ez da egon, ezta egongo ere,
konkistatzailearen oin harroetara makurtua,
lehenengo bere burua zauritzen lagundu zuenean salbu.
...Ezerk ez digu deitoraraziko
Ingalaterrak berekiko bakarrik leial irauten badu.*

Jesusen hitzetan ere agertzen da (Mateo 15,17-20):

«Ez al duzue ikusten ahotik sartzen den guztia sabelera joaten dela eta handik komunzulora? Ahotik ateratzen dena, berriz, bihotz barrutik dator, eta horrek bai egiten duela gizakia zikin! Izan ere, bihotzetik ateratzen dira asmo txarrak, hilketak, adulterioak, lizunkeria, lapurretak, gezurrezko testigantzak, irainak. Horiek dira gizakia kutsatzen dutenak».

Zein da hazten ari den zibilizazio bat estropezu egin eta lasterketaren erdian erori eta bere *élan* prometearra galtzeko arriskuan jartzen duen ahuldadea? Ahuldadeak erabatekoa izan behar; zeren eta, kolapsoaren hondamena arrisku bat den arren eta ez gauza ziurra, garbi baitago arriskua handia dela. Datu baten aurrean gaude, bizirik jaio eta garatzera iritsitako hogeita bat zibilizazioetatik hamahiru hilda eta lurperatuta daudela; geratzen diren zortzietatik zazpi itxuraz beheraldian daudela; eta zortzigarrena, gurea, beronetaz dakigun guztiaren arabera, balitekeela bere goren puntua igarota egotea. Proba enpiriko batean, hazten ari den zibilizazioaren lasterketa arriskuz beteak agertuko litzateke; eta, hazkundeaz egin genuen azterketa gogoraturaz gero, ikusiko dugu hazten ari den zibilizazio batek jarraitu behar duen bidearen izaeran bertan datzala arriskua.

Hazkundera pertsonalitate sortzaileen eta gutxiengo sortzaileen lana da; hauek ezin dute aurrera jarraitu, aurrerabide horretan berekin lagunak garraiatzea lortzen ez badute, behintzat; eta gizadiko jende xehe ez-sortzailea, gehiengo handia beti, ezin daiteke *en masse* itxuraldatu eta begien itxi-ireki batean buruzagiaren mailaraino igo. Hau ezinezkoa izango litzateke praktikan; zeren eta bame-grazia espirituala, argitu gabeko ariman santu batekiko elkartasunez pizten dena, santua bera mundura ekarri duen miraria bezain bakana izaten baita ia. Buruzagiaren zeregina lagunak bere jarraitzaile bihurtzea da. Eta giza-dia masan bere buruaz harantzagoko helmuga baterantz mugimenduan jartzeko bide bakarra mimesiaren ahalmen primitibo eta unibertsala lortzea izaten da. Zeren eta mimesi hau nolabaiteko gizarte-trebakun-

tza baita; eta Orfeoren liraren munduz kanpoko musika entzun ezin duten belarri zabarrak oso zorrotzak dira instrukzioko sarjentuaren aginduak jasotzeko. Hamelingo txirulariak Prusiako Federico Gilermo erregearen ahotsa bere egiten duenean, jende xehea, orain arte mugitu gabe egon dena, mugimenduan jartzen da mekanikoki, eta eginarazten dien eboluzioak bere orpora ekartzen ditu; baina laburbideren bat hartuta bakarrik harrapa dezakete, eta formazioan joateko lekua suntsipenera daraman bide zabaletik jota bakarrik aurki dezakete. Suntsipenerako bidea nahitaez korritu behar denean bizitzaren bila, ez da harritzekoa bilaketa hori sarritan hondamendian bukatzea.

Gainera, mimesiaren benetako egikaritzan bada ahuldade bat, ahalmen hori ustiatzeko eratik oso aparte. Zeren eta, mimesia trebakuntza-mota bat delako, hain zuzen, giza bizitza eta mugimenduaren mekanizazio-mota bat baita.

«Mekanismo burutsu» edo «mekanikari trebeaz» hitz egiten dugunean, biziak materiaren gain edo giza trebetasunak oztopo fisikoen gain lortutako garaipena oroitarazten digute hitz horiek. Adibide zehatz batzuek ideia bera ematen dute aditzera, gramofono edo aeroplanotik hasi eta lehen gurgil eta lehen barnehustutako kanoaraino; zeren eta asmakuntza horiek zabaldu egin baitute gizakiaren ahalmena bere ingurunearen gain, gauza bizigabeak manipulatzu giza helburuetarako baliatzeko moduan, instrukzioko sarjentuaren aginduak haren gizaki mekanizatuak betetzen dituzten bezalaxe. Bere konpainia trebatzean sarjentua bera Briareo bihurtzen da, zeinen ehun beso eta zangoek haren nahia obeditzen baitute, organikoki bereak balira bezain bizkor ia. Antzeratsu, teleskopioa giza begiaren hedapena da; tronpetak, giza ahotsarena; zankabea, giza zangoarena; ezpata, giza besoarena.

Naturak zeharbidez zoriondu du gizakia bere argitasunagatik asmakuntza mekanikoen erabileran aurea hartuz. Asmakuntza horien erabilera zabala egin du bere *chef-d'oeuvre* delakoan, giza gorputzean, alegia. Bihotzean eta biriketan bi makina auto-erregulatzailerik egin ditu, bere motakoen artean ereduak. Hauek eta beste organo batzuk automatikoki lan egiteko moduan doitzera, naturak organo hauek zertzen dituzten zeregin errepikakor monotonoetatik libratu du gure energien erreserba, eta energia hauek aske utzi ditu ibiltzeko eta hitz egiteko eta, hitz batean, hogeita bat zibilizazio sortzeko! Esan

dezagun edozein organismoren egitekoetatik laurogeita hamar automatikoki eta ondorioz ahalik eta energiarik gutxiena gastatuta egin daitezen antolatu duela, ahalik eta energi kopururik handiena beste ehuneko hamarrera zuzentzeko, hor bilatzen baitu naturak bere bidea aurrerapen berrietarako. Izan ere, organismo natural bat, gizartea bezalakoa, «kideen» gutxiengo sortzaileak eta gehiengo ez-sortzaileak osatzen dute; eta hazten ari den organismo osasuntsuan, hazten ari den gizarte osasuntsuan bezala, gehiengoa gutxiengoaren gidaritzari mekanikoki jarraitzeko trebatzen da.

Baina, natur eta giza arrakasta mekaniko hauen mirespenez geure buruak liluratu ondoren, txundigarria da gogoratzea beste esaldi batzuetan —«makina» egindako salgaiak», «portaera mekanikoa»— «makina» hitzaren konotazioa guztiz alderantzizkoa dela, eta ez duela materiaren gain biziaren garaipena adierazten, baizik eta materiaren garaipena biziaren gain. Nahiz eta makineria gizakiaren esklabo izateko diseinatua egon, litekeena da gizakia bere makinaren esklabo bihurtzea ere. Ehuneko laurogeita hamar mekanismoa den organismo bizi batek aukera edo gaitasun handiagoa izango du sortuntzarako ehuneko berrogeita hamar mekanismoa den organismoak baino, Sokratesek ere unibertsoaren sekretua aurkitzeko asti eta aukera gehiago izango duen bezalaxe bere otorduak prestatu behar ez badi-tu, baina ehuneko ehun mekanismoa den organismoa robota da.

Honela hondamendi-arriskua berez datxekio mimesi-ahalmenaren erabilerari, hau izanik mekanizazioa zertzen duena gizakien gizarte-harremanetan; eta garbi dago arrisku hau handiagoa izango dela mimesiak bere papera mugimendu dinamikoan dagoen gizarte batean jokatu behar duenean atsedeen-egoeran dagoen gizarte batean jokatu behar duenean baino. Mimesiaren ahuldadea kanpotiko sugestio bati emandako erantzun mekanikoa izatean datza, horrela zertutako ekintza hori egileak bere ekimenez sekula zertuko ez lukeelarik. Mimesi-ekintza ez da autodeterminatua, eta bera zertzeko bermerik seguruen ahalmena aztura edo usadiotan kristalizatzea da, Yin-egoe-rako gizarte primitiboetan gertatzen den bezala. Baina «usadioaren moldeak» apurtzen denean, mimesi-ahalmena —ordu arte, gizarte-tradizio aldagaitzaren irudikapen bezala, zahar edo arbasoengana atzerantz zuzendua— pertsonalitate sortzaileengana bideratzen da berririo, hauek erabakia dutelarik lagun hurkoak berekin batera agindutako

lurraldera gidatzea. Une horretatik, hazten ari den gizartea beharturik dago arriskuan bizitzera. Are gehiago, arriskua beti hurbil dago, zeren eta, hazkundeari eusteko eskatzen den baldintza etengabeko malgutasun eta bat-batekotasuna den bitartean, mimesi eraginkorrerako —eta hau berau da hazkundearen aurrebaldintza— eskatzen den baldintza makina-erako automatismo-maila handi samarra baita. Eskakizun hauetako bigarrena zen Walter Bagehot-ek buruan zeukana bere era bitxian ingeles irakurleei esan zienean nazio bezala zuten arrakasta handi samarra neurri handi batean beren ergelkeriari zor ziotela. Gidari onak, bai; baina gidari onek ez zuketena jarraitzaile onik izango jarraitzaile horietako gehienek gauza guztiak beren kabuz pentsatzea erabaki izan balute. Eta, hala ere, guztiak «ergelak» izanez gero, non egongo litzateke buruzagitza?

Egia esateko, zibilizazio baten abangoardian mimesi-mekanismoa jo duten pertsonalitate sortzaileak bi mailatan porrot egiteko arriskuan jartzen dira, bata negatiboa eta bestea positiboa.

Porrot negatibo posiblea buruzagiek jarraitzaileengan eragin duten hinoptismoaz beren buruak kutsatzea litzateke. Kasu horretan, masaren otzantasuna prezio tamalgarrian lortuko da, agintariek ekimena galtzearen truke, alegia. Hau gertatu zen zibilizazio gerarazietan, eta beste zibilizazio batzuen historian geldialditzat hartu behar diren garai guztietan. Porrot negatibo hau, ordea, ez da normalean kontuaren bukaera. Buruzagiek gidatzeari uzten diotenean, haien boterea abusu bihurtzen da. Masa matxinatu egiten da; gobernariak ekintza zorrotzen bidez berrezarri nahi izaten dute ordena. Orfeo, bere lira galdua edo nola jotzen den ahaztua duelarik, itsumustuan ari da orain Xerxesen zartailuarekin; eta emaitza pandemonium higuingarria da, formazio militarra hautsi eta anarkia bihurtzen delarik. Hau da porrot positiboa; eta dagoeneko, behin eta berriro, guk beste izen bat erabili dugu honetarako. Kolapsaturiko zibilizazio baten «desintegrazioa» da, «gutxiengo menderatzaile» izateraino endekatu den buruzagi-banda batengandik banatu den «proletalgoaren banakuntzan» agertzen dena.

Gidatua gidariengandik banatze hau gizartearen *ensemble* osoa eratzen duten zatien arteko harmoni galeratzat hartu behar da. Zati osaturiko edozein osotasunetan, zatien arteko harmonia galtzea pareko autodeterminazio-galtzearekin ordaintzen du osotasunak.

Autodeterminazio-galtze hau da kolapsoaren azken irizpidea; eta ondorio honek ez gaitu harritu behar, Azterlan honetan lehenago ateratako ondorio baten beste aldea baita, hots, autodeterminaziorantz aurrera egitea dela hazkunde-irizpidea. Orain, harmoni galtzearen bidezko autodeterminazio-galtze hau erakusten duten formetako batzuk aztertu behar ditugu.

2.

Ardo berria zahagi zaharretan

Egokitzapenak, Iraultzak eta Izugarrikeriak

Gizarte bat osatzen duten erakundeen arteko desarmoniaren sorburu bat gizarte-indar —gaitasun edo emozio edo ideia— berriak sartzea da, existitzen den erakunde-multzoak jatorriz behintzat eraman behar ez zituenak. Gauza berri eta zaharrak ondoan jartze inkongruente honen ondorio suntsitzaileak Jesusi egozten zaizkion hitzik ospetsuenetako batzuetan daude adierazita:

«Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten, adabakiak jantzia behartu eta zarratada handiagoa egingo baiduke. Zahagi zaharretan ere ez da ardo berririk sartzen; bestela, zahagiak lehertu egingo lirateke, eta ardoa isuri eta zahagiak galdu. Ez! Ardo berria zahagi berrietan sartzen da, eta batak eta besteak irauten dute»¹¹¹.

Etxe-ekonomian, nondik baitago aterata konparazio hau, agindua hitzez hitz bete daiteke, noski; baina gizarte-bizitzako ekonomian arazoak plan arrazional batean nahi bezala ordenatzeko gizakien ahalmena estu mugatua dago, gizartea ez baita, larrua edo gakoa bezala, jabe bakar batena, gizaki askoren ekintza-arloen eremu komuna baizik; eta arrazoi horrengatik, agindua, etxe-ekonomian zentzuzkoa eta espirituaren bizitzan jakinduria praktikozkoa dena, perfekzio-aholku bat da gizarte-arazoetan.

Idealki, zalantzarik ez, indar dinamiko berriak sartzearekin batera, aurretiko erakunde-multzo osoaren berreraikuntza eman

beharko litzateke, eta benetan hazten ari den gizarte batean anakronismorik nabarmenenen berregokitze iraunkorra gertatzen da etengabe. Baina *vis inertiae* delakoak beti jotzen du gizarte-egituraren parte gehienei diren bezala eustera, nahiz eta etengabe jokoan sartzen diren gizarte-indar berriekiko kongruentziarik eza gero eta handiagoa izan. Egoera honetan, indar berriek joera dute diametrikoki aurkakoak diren bi eratan jarduteko aldi berean. Batetik, beren sorkuntza-lana berentzat dituzten erakunde berrien bidez egiten dute, edo beren helbururako egokitu dituzten erakunde zaharren bidez; eta harmoniazko kanal hauetara beren buruak isurtzean, gizartearen ongizatea eragiten dute. Aldi berean, eta bereizi gabe, aurrean suertatzen zaien edozein erakundetan sartzen dira, makina-etxe batera indarrez sartu den lurrun-zorrotada indartsua han instalatuta legokeen makina zahar baten pieza artera ere sar litekeen bezalaxe.

Horrelako kasuetan, bi hondamendi hauetako bat gerta daiteke. Lurrun-zorrotada berriaren presioak jo eta zatitu egiten du makina zaharra, edota bestela makina zaharra nolabait moldatu egiten da osorik irauteko eta beste era batera jokatzen hasten da, ziur aski kezka-garri eta suntsigarri gertatuko dena.

Parabola horiek gizarte-bizitzako hitzetara aldatuz, presio berriak jasan ezin dituzten makina zaharren leherketak —edo ardo berriaren hartzidura jasan ezin duten zahagi zaharren eztandak— iraultzak dira, batzuetan erakunde anakronikoak gainditzen dituztenak. Bestalde, sekula pentsatu gabeko funtzionamenduetara bultzatuak izatearen tentsioa jasan duten makina zaharren funtzionamendu kaltegarriak gizarte-izugarrikeriak dira, «nekez hiltzen» den anakronismo instituzionalak batzuetan sortzen dituenak.

Berandututako eta proportzionalki bortxazko mimesi-ekintzat defini daitezke iraultzak. Osagai mimetikoa beraien funtsari dagokio; zeren eta iraultza oro dagoeneko beste nonbait gertatu den zerbaiten erreferentzia baita, eta, iraultza bat bere testuinguru historikoan aztertzen bada, nabarmen ikusten da sekula ez zela bere kabuz gertatuko, ez balu kanpo-indarren aurretiazko jokoak eragin izan. Adibide nabarmena 1789ko Frantziako Iraultza da, bere inspirazioa neurri batean Britainiar Amerikan berriki gertaturiko jazoeretatik atera zuena —gertaera haiek oso era suizidan lagundu zituelarik *Ancien Régimen*-eko frantziar gobernuak— eta beste neurri batean

Inglaterra mende askotako jokaeratik, Frantzian Montesquieu-gandik aurrera bi *philosophe*-belaunaldik zabaldu eta goretsi zutena.

Berandutze-elementua ere iraultzaren funtsean dago, eta ezau-garri nagusia duen bortizkeriaren erantzule da. Iraultzak bortxazkoak izaten dira gizarte-indar berri indartsuen garaipen atzeratuak direlako erakunde zahar setatien gain, hauek bizi-adierazpen berriak murriztu eta oztopatu dituztelarik aldi batez. Zenbat eta gehiago iraun oztopo-ek, orduan eta handiagoa izaten da irteera oztopatua duen indarraren presioa; eta zenbat eta handiagoa izan presioa, orduan eta bortitzagoa preso dagoen indarrak azkenean irteteko eragindako leherketa.

Iraultzen alternatiba diren gizarte-izugarrikeriei dagokienez, gizarte batek ordaindu beharreko zigortzat defini daitezke, mimesi-ekintza —erakunde zaharra gizarte-indar berri batekin harmonian jarri beharko zukeena— berandutu ez ezik, erabat zapuztu ere egiten denean.

Garbi dago, beraz, existitzen den gizarte baten egitura instituzionalari gizarte-indar berri batek erronka jotzen dienez, hiru ondorio alternatibo gerta daitezkeela: egitura harmoniaz egokitzea indar horretara, edo iraultza (beranduko eta harmoniarik gabeko egokitza-pena) edo izugarrikeria bat. Garbi dago, halaber, hiru alternatiba horietako bakoitza eta guztiak gizarte beraren zati desberdinetan gauzatu daitezkeela, nazio-estatu desberdinetan adibidez, era honetara baldin badago antolatua gizarte partikularra. Harmoniazko egokitza-pena nagusitzen bada, gizarteak hazten jarraituko du; iraultzak nagusitzen badira, gizartearen hazkundera gero eta arazotsuagoa izango da; izugarrikeriak nagusitzen badira, kolapsoa diagnostika dezakegu. Zenbait adibidek argituko dituzte aurkeztu berri ditugun formulak.

Industrialismoaren eragina esklabotasunean

Azken bi mendeetan bi gizarte-indar dinamiko berri jarri ziren mugimenduan, industrialismoa eta demokrazia, eta indar hauekin topo egin zuen erakunde zaharretako bat esklabotasuna zen. Erakunde kaltegarri hau, Gizarte Helenikoaren beheraldi eta erorikoan hain eragin handia izandakoa, sekula ez zen irmo oinarritu gure Mendebaldeko Gizartearen sorlekuetan, baina, hamaseigarren mendetik aurrera, Mendebaldeko Kristandadea itsasoz bestaldera hedatu zenean, han bere agindupeko lurralde batzuetan ezarri zen. Hala ere, denbora luzean plantazioetarako esklabo-erreklutatze honen hedapena ez zen

ikaragarria izan. Hemezortzigarren mendearen bukaeran, demokrazia eta industrialismoaren indar berriak Britainia Handitik Mendebaldeko Munduaren gainerakora zabaltzen hasi ziren unean, artean esklabotsuna koloni bazterretara zegoen ia mugatua, eta han ere esparrua murrizten ari zitzaion. Esklabo-jabe ziren estatu-politikariek, Washington eta Jeffersonek adibidez, erakunde hori deitoratu ez ezik, ikuspegi baikor samarra ere izan zuten hurrengo mendean baketsuki desagertzeko itxaropenari buruz.

Aukera hau, ordea, Britainia Handiko Industri Iraultzaren sorrerak zapuztu zuen, ikaragarri suspertu baitzuen plantazioetako esklabo-lanak ekoizten zituen material landugabeen eskaria. Honela, industrialismoaren eraginak bizialdi berria eman zion makaltzen ari zen esklabotasunaren erakunde anakronikoari. Mendebaldeko Gizartea aukera baten aurrean zegoen orain: urrats aktiboak ematea esklabotasuna berehala bukarazteko edo antzinako gizarte-gaitz hau gizartearen bizitzarentzat berarentzat arrisku hilgarri bihurtuta ikustea, industrialismoaren indar bultzatzaile berriagatik.

Egoera honetan esklabotasunaren aurkako mugimendua sortu zen Mendebaldeko munduko hainbat nazio-estatutan eta zenbait arrakasta baketsu lortu zuen; baina eskualde garrantzitsu batean esklabotasunaren aurkako mugimenduak huts egin zuen aurrerabide bakesuan, eta eskualde hau «kotoiaren gerrikoa» izan zen Ipar Amerikako Batasunaren hegoaldeko estatuetan. Han esklabotasunaren aldekoek agintean iraun zuten beste belaunaldi oso batez, eta hogeita hamar urteko tarte labur honetan —1833an esklabotasuna Britainiar Inperioan deuseztu eta 1863an Estatu Batuetan deuseztu zen bitartean— hegoaldeko estatuen «erakunde bereziak», atzean zuen industrialismoaren indar bultzatzailearekin, izugarrizko hazkundera izan zuen. Ondoren, munstroa inguratu eta suntsitu egin zuten; baina esklabotasunaren deserrotze atzeratu hau Estatu Batuetan iraultza suntsigarri baten prezioaz ordaindu zen, haren ondorio hondagarriak oraindik ere nabari direlarik gaur egun. Horrelakoa izan da mimesiaren atzera-pen partikular honen prezioa.

Hala ere, gure Mendebaldeko Gizartea pozik egon daiteke, prezio hau ordainduta ere, esklabotasunaren gizarte-gaitza Mendebaldeko azken gotorlekutik kendu duelako; eta mesede hau demokraziaren indar berriari, Mendebaldeko mundura industrialismoa baino lehentxe-

ago etorriari eskertu behar diogu, zeren eta ez baita kointzidentzia hutsa Lincoln, Mendebaldeko gotorlekutik esklabotasuna kentzearen eragile nagusia, orokorki eta arrazoiz estatu-politikari demokratiko handientzat jotzea. Demokrazia humanitarismoaren adierazpen politikoa denez eta, noski, humanitarismoa eta esklabotasuna elkarren etsai izugarriak direnez, espiritu demokratiko berriak esklabotasunaren aurkako mugimendua bultzatu zuen industrialismo berria esklabotasuna bultzatzen ari zen une berean. Ziur esan daiteke, esklabotasunaren aurkako borrokan, industrialismoaren bultzada neurri handi batean demokraziaren bultzadak ez balu neutralizatu izan, Mendebaldeko mundua ez zela hain erraz libratuko esklabotasunetik.

Demokraziaren eta industrialismoaren eragina gerraren gain

Topiko bihurtu da esatea industrialismoaren eraginak areagotu egin dituela gerraren izugarrikeriak, esklabotasunaren izugarrikeriak areagotu zituen bezalaxe. Gerra beste erakunde zahar eta anakroniko bat da, ia esklabotasuna bezain zabal gaitzetsia arrazoi moralengatik. Arrazoi intelektual hutsengatik ere bada pentsamendu-eskola zabal bat esaten duena gerrak, esklabotasunak bezalaxe, «ez diela etekinik ematen» ezta berataz aprobetxatzen direla uste dutenei ere. Amerikako gerra zibilaren bezperan, H.R. Helper hegoaldetarrak *The Impending Crisis of the South* izenburuko liburua idatzi zuen zera frogatzeko, esklabotasunak ez ziela etekinik ematen esklabo-jabeei, eta, bitxia den baina erraz azal daitekeen pentsamendu-nahasteagatik, lagundu nahi zuen klasearen beraren gaitzespena izan zuen, klase hari bere benetako interesei buruzko argibideak emanez lagundu nahi ziolarik; era berean, 1914-18ko gerra orokorraren bezperan, Norman Angell-ek *Europe's Optical Illusion* izenburuko liburua idatzi zuen gerrak garaileei, menderatuei bezalaxe, sekulako galera ekartzen ziela frogatzeko, eta autore heretikoak berak bezain irrikatsu bakeari eutsi nahi zion publikoaren zati handi batek gaitzetsi egin zuen. Orduan, gure gizarteak, zergatik izan du askoz arrakasta txikiagoa gerratik libratzen esklabotasunetik libratzen baino? Erantzuna garbi dago. Kasu honetan, bestean ez bezala, demokraziaren eta industrialismoaren bi indar bultzatzaileek beren aldi bereko inpaktuak norabide berean egin dituztelako.

Industrialismoa eta demokrazia sortzeko bezperan Mendebaldeko munduan zegoen egoerara atzeratzen baditugu geure gogoak,

ohartuko gara garai hartan, hemezortzigarren mendearen erdian, esklabotasunaren egoera berean zegoela gerra: urritzen ari zen argi eta garbi, ez hainbeste gerren maiztasuna txikiagoa zelako —nahiz eta agian hau berau ere frogagarria izango litzatekeen estatistikoki¹¹²—, baizik eta neurritasun handiagoz zuzenduak zeudelako. Hemezortzigarren mendeko gure arrazionalistek desatseginez begiratzten zuten atzerantz iragan berri zen garai batera, han intentsitate beldurgarritz bizitu baitzen gerra erlijio-fanatismoaren bultzadaren eraginez. Hamazazpigarren mendearen azken zatian, hala ere, demonio hau kanporatu egin zuten, eta haren berehalako eragina gerraren gaitza minimora murriztea izan zen, gure Mendebaldeko historiaren beste edozein ataletan aurrez edo gero inoiz hurbildu ere egin gabe ko minimora. «Gerra zibilizatu» samarren garai hau hemezortzigarren mendearen bukaeran amaitu zen, gerra berriro hasi baitzen indartzen demokrasiaren eta industrialismoaren eraginez. Galdetzen badiogu geure buruari azken ehun eta berrogeita hamar urteotan bi indar horietatik zeinek jokatu duen paper handiagoa gerra areagotzen, ziur aski paper garrantzitsuena industrialismoari egozte a izango da gure lehen joera. Baina oker ibiliko ginateke. Gerra modernoetako lehena, zentzu honetan, Frantziako Iraultzak hasitako gerra-zikloa izango litzateke, eta gerra haietan industrialismoaren eragina ez zen kontuan hartzekoa izan, baina demokrasiaren —Frantziako demokrazia iraultzailearen— eragina guztiz garrantzitsua. Napoleonen jeinu militarrek baino gehiago Frantziako armada berrien sugar iraultzaileak ebaki zuen, aitzakia gurina bezala, iraultzarik gabeko potentzia kontinentalen hemezortzigarren mendeko defentsa zaharkitua eta berak eraman zituen Frantziako armadak Europa osoan zehar. Baieztapen honek frogarik behar badu egitate honetan aurki daiteke: frantziar errekluta hasiberriek eginak zituzten Napoleon agertokian azaldu aurretik Luis XIV.aren armada profesionalarentzat gogorre-
giak ziren balentriak. Eta gogora dezakegu erromatarrek eta asiriarrek eta beste garai batzuetako potentzia militarista haizatu batzuek industri aparatuen laguntzarik gabe suntsitu zituztela zibilizazioak, hamaseigarren mendeko mosketariari oso garatu gabeak irudituko zitzaizkiokeen armez, egia esanda.

Gerra hemezortzigarren mendean aurrez edo ondoren bezain ankerra ez izateko arrazoi nagusia zera da, utzia ziola erlijio-fanatis-

moaren arma izateari eta artean bihurtu gabea zela fanatismo nazionalistaren tresna. Bitarte honetan «erregeen kirol» izan zen soilik. Moralki, helburu hutsal honetarako gerra erabiltzea guztiz higuinagarrria gerta daiteke, baina ukaezina da gerraren izugarrikeria materialak arintzeko izan zuen eragina. Errege-jokalariek oso ongi zekiten noraino joaten utziko zieten mendekoei, eta muga horien barruan zertzen zituzten beren ekintzak. Haien armadak ez ziren konskripzioz erreklutatzen; ez ziren bizi konkistaturiko herrialdeen bizkar, erlijio-gerretako armadak bezala, eta ez zituzten bake-garaiko egintzak ere suntsitzen, hogeigarren mendeko armadei bezala. Beren joko militarren arauak bete zituzten, helburu neurritsuak jarri zizkieten beren buruei eta ez zizkieten baldintza itogarriak ezarri aurkari menderatuei. Arau horiek hautsi ziren okasio urrietan, Luis XIV.ak 1674an eta 1689an Palatinatua erraustu zuenean bezala, halako astakeriek gaitzespen biribila izan zuten, biktimen aldetik ez ezik, baita iritzi publiko neutralaren aldetik ere.

Arazoen egoeraren deskripzio klasikoa Edward Gibbonek egin zuen:

«Gerran europar indarrak borroka moderatu eta erabaki ezin-etan ari dira. Botere-orekak fluktuatzen jarraituko du, eta geure edota auzoko erresumen oparotasunak gora edo behera egin dezake txandaka; baina gertaera partzial hauek ezin dute funtsean zauritu gure zoriontasun-egoera orokorra, ezta arte eta lege eta maneren sistema ere, gizadiaren gainerakoaren gainetik europarrak eta hauen koloniak hain abantaila handiz bereizten dituen»¹¹³.

Hain pasarte atsegingarri honen autorea nahikoa luze bizi izan zen gerra-ziklo berri baten hasierak bihotzondoa astintzeko, eta haren epaia zaharkituta gelditu zen.

Industrialismoaren eraginez esklabotasuna areagotzeak esklabotasunaren aurkako mugimendua abiarazi zuen bezalaxe, demokraziaren eraginez —eta gero industrialismoaren eraginez ere bai, noski— gerra areagotzeak gerraren aurkako mugimendura eraman zuen gizartea. 1914-18ko gerra orokorra bukatu ondoren, Nazioen Ligan izandako lehen gorpuzteak huts egin zuen 1939-45eko gerra orokorretik mundua libratzen. Atsekabe berri honen prezioan, aukera berria eskuratu dugu orain mundu-gobernuaren sistema kooperatiboren bidez gerra desagertarazteko eginkizun neketsuan saiatzeko, eta

ez gerra-zikloari bere bidea egiten uzteko azkenean —okerregi eta beranduegi— bizirik geratutako potentzia bakarren batek estatu uni-bertsal bat nahitaez ezarrita amaitu arte. Beste zibilizazioek orain arte inoiz lortu ez dutena lortzen guk geure munduan arrakasta izango dugun ala ez, jainkoek bakarrik dakiten gauza da.

Demokraziaren eta industrialismoaren eragina parroki subiranotasunean

Demokraziak, bere miresleek sarri aldarrikatu dutelarik kris-tau-erlijioaren korolariora dela eta esklabotasunarekiko jarrean erre-bindikazio bikain hori merezi zuela erakutsi ondoren, zergatik izan du eragin astungarria bestea bezain nabaria den gerraren gaitzean? Erantzuna honetan aurkitu behar da: gerraren erakundearekin topo egin aurretik, demokraziak parroki (edo tokian tokiko) subiranotasu-naren erakundearekin topo egin zuen; eta demokraziaren eta indus-trialismoaren indar bultzatzaile berriak parroki Estatuaren makina zaharrean sartzeak nazionalismo politikoaren eta ekonomikoaren izu-garrikeria bikiak sortarazi ditu. Orijinaltasun gutxiko forma zabar honetan, zeinetan atera baita demokraziaren espiritu etereoak ingurune arrotz batetik igaro ondoren, eman dio demokraziak bere bultzada gerrari aurka lan egin beharrean.

Hemen ere, gure Mendebaldeko Gizartea egoera zoriontsuago-an zegoen hemezortzigarren mendeko nazionalismoaurreko aroan. Salbuespen ohargarri bat edo birekin Mendebaldeko munduko parroki estatu subiranoak ez ziren hiritarren borondate orokorraren tresna, bai-zik eta dinastien estatu pribatuak ziren ia. Errege-gerrak eta errege-ekontzak ziren estatu haiek, edo beraien zatiak, dinastia batengandik besteagana eskualdatzeko bi prozedurak, eta bi metodo hauetatik biga-rrena zen, noski, gogokoena. Hemendik sortu zen Habsburgoko Etxearen atzerri-politika goraipatzeko esaldia: *Bella gerant alii; tu, felix Austria, nube* («Besteek egin ditzatela gerrak; zuk, Austria zorion-tsu horrek, egin ezkontzak»). Hemezortzigarren mendearen lehen erdi-ko hiru gerra nagusien izenek berek, Espainia, Polonia eta Austriako ondorengotza-gerrek, adierazten dute ezkontzeko planak korapilo askaezin bihurtutakoan bakarrik gertatzen zirela gerrak.

Dударик gabe, bazen zerbait zeken eta zikina ezkontza-diplo-mazia haren inguruan. Dinasti konponketa baten bidez probintzia bat eta bertako biztanleak jabe batengandik beste batengana eskual-

datzea, etxaldeak aziendarekin bezala, gure demokrazi aroko senti-beratasunari higuigarri gertatzen zaio. Baina hemezortzigarren mendeko sistemak bere konpentsazioak zituen. Abertzaletasunaren distira kendu zuen, baina distirarekin kiratsa ere kendu zion. Sterne-ren *Sentimental Journey* liburuko pasarte oso ezagun batek kontatzen du autoreak nola joan zen Frantziara, guztiz ahaztuta Britainia Handia eta Frantzia Zazpi Urteko gerran ari zirela. Frantziako poliziarekin arazotxo bat izan ondoren, inoiz ikusi gabe-ko aitonen seme frantziar baten zerbitzuei esker, gai izan zen beste eragozpenik gabe bidaiari jarraitzeko. Berrogei urte geroago, Amiens-eko ituna haustean, Napoleonek agindu zuenean une hartan Frantzian zeuden hemezortzi eta hirurogei urte bitarteko britainiar zibil guztiak atxilotzeko, haren ekintza kortsikar basakeriaren adi-bidetzat jo zen eta ondoren Wellingtonek esandako «ez zela zaldun bat» esaldiaren argigarritzat, eta egia esateko Napoleon desenkusa-tu egin zen bere jokaeragatik; hala ere, hark egina gaur egungo gobernu gizatiar eta liberalenak gauza normal eta zentzuzkotzat egiten duena besterik ez zen. Gerra «erabateko gerra» bilakatu da orain, eta parroki estatuak demokrazia nazionalista bihurtu direla-ko gertatzen da horrela.

Erabateko gerrarekin esan nahi dugu gerrariak ez direla baka-rrik «xake-pieza» hautatuak, soldadu eta marinela deituak, baizik eta inplikaturiko herrialdeetako biztanleria osoa. Non aurkituko ditugu ikuspegi berri honen hastapenak? Agian iraultza-gerraren bukaeran britainiar-amerikar kolono garaileek aberriaren alboan geratu ziren beretarrei eman zieten tratuan. Inperio Batuari leial izan zitzaizkionak —gizon, emakume eta haur— beren gauza guztiekin etxetik bota zituzten gerra bukatu ondoren. Hartu zuten tratua oso bestelakoa da hogei urte lehenago Britainia Handiak franko-kanadiar konkistatuei eman zienaren aldean, haiek beren etxeak ez ezik lege-sistema eta erli-jio-erakundeak ere gorde ahal izan baitzituzten. «Totalitarismoaren» lehen adibide hau esanguratsua da, amerikar kolonizatzaile garaileak gure Mendebaldeko Gizarteko lehen nazio demokratizatua izan bai-tziren¹¹⁴.

Nazionalismo ekonomikoa, gure nazionalismo politikoa bezain gaitz handia bihurtu dena, industrialismoaren okertzeak sortarazi du parroki Estatuaren muga hertsatzaile berberekin jardunda.

Noski, ekonomi irrika eta norgehiagokak ez ziren ezezagunak industriaurre-aroko nazioarteko politikan; izan ere, nazionalismo ekonomikoak hemezortzigarren mendeko «merkantilismoan» izan zuen bere adierazpide klasikoa, eta hemezortzigarren mendeko gerren sarietan merkatuak eta monopolioak sartzen ziren, Britainia Handiari hispanoamerikar kolonietako esklabo-merkataritzaren monopolioa esleitzen zion Utrecht-eko itunaren atal ospetsuak erakusten duen bezala. Baina hemezortzigarren mendeko ekonomi gatazkak klase txiki eta interes murriztuei zegozkien. Batez ere nekazaritza-arobatean, herrialde bakoitzak ez ezik, herri xkak komunitate bakoitzak ere bizitzeko behar zuen ia guztia ekoizten zuenean, merkatuengatik ingeles gerrak «merkatarien kirol» dei zitezkeen, probintziengatik gerra kontinentalak «erregeen kirol» deitu izan diren bezain zuzen.

Oso eskala txikiko eta behe-tentsioko ekonomi orekaren egoera orokor hau bortizki asalatu zuen industrialismoaren etorrerak; zeren eta industrialismoa, demokrazia bezala, berez kosmopolita baita bere jardunean. Demokraziaren benetako mamia —Frantziako Iraultzak amets eginez aldarrikatu zuen bezala— anaitasun-espirtua bada, industrialismoaren funtsezko eskakizuna, bere gaitasun guztian gauzatuko bada, mundu-mailako lankidetzat da. Industrialismoak eskatzen duen gizarte-ordena teknika berriaren hemezortzigarren mendeko aitzindariak aldarrikatu zuten benetan: «Laissez faire! Laissez passer!» kontsigna ospetsuan, manufakturatze askatasuna, trukatzeko askatasuna. Mundua ekonomi unitate txikitant zatituta aurkitzean, industrialismoak, duela ehun eta berrogeita hamar urte, munduko ekonomi egitura bi eratara eraberritzeari ekin zion, biak mundu-batasunerantz bideratuak. Ekonomi unitateak gutxiago eta handiagoak egiten saiatu zen, baita beraien arteko hesiak beheartzeko ere.

Ahalegin hauen historiari begiratzen badiogu, azken mendeko hirurogei eta hirurogeita hamarreko urteen inguruan norabide-aldaketa egon zela ohartuko gara. Ordu arte demokraziak lagundu zion industrialismoari honek ekonomi unitateen kopurua gutxitzeko eta beraien arteko hesiak beheartzeko egin zituen ahaleginetan. Harrezkero biek, industrialismoak zein demokraziak, beren politikak alderantzikatu eta kontrako norabidean lan egin zuten.

Lehenik ekonomi unitateen tamaina aztertzen badugu, ohartuko gara, hemezortzigarren mendearen bukaeran, Britainia Handia zela

librekanbioko zonarik handiena Mendebaldeko munduan, egitate honek neurri handi batean azaltzen duelarik zergatik hasi zen Britainia Handian, eta ez beste inon, Industri Iraultza. Baina 1788an Ipar Amerikan lehenengo britainiar kolonia izandakoe, Filadelfiako Konstituzioa onartzean, estatuen arteko mekataritza-hesi guztiak deuseztu zituzten atzera ezin egiteko moduan eta, berezko zabalkundez, librekanbioko zonarik handiena bilakatuko zena sortu zuten, eta, horren zuzeneko ondorio gisa, egungo munduko elkarte industrializatuturik ahaltsuena. Urte batzuk geroago Frantziako Iraultzak probintzi tarifen muga guztiak deuseztu zituen, ordu arte Frantziako ekonomi batasuna apurtu izan zutenak. Hemeretzigarren mendearen bigarren laurdenean alemanek ekonomi *Zollverein* bat egin zuten, batasun politikoaren aitzindari gertatu zena. Hirugarren laurdenean italiarrek, batasun politikoa lortzean, aldi berean batasun ekonomikoa ziurtatu zuten. Programaren beste erdia hartzen badugu —tarifak eta beste parroki hesi batzuk beheratzea nazioarteko merkataritzaren bidean—, ohartzen gara Pitt-ek, bere burua Adam Smithen jarraitzailetzat aldarrikatu zuenak, inportazio libreen aldeko mugimendua abiarazi zuela, Peel, Cobden eta Gladstonek hemeretzigarren mendearen erdiko urteetan burutu zutena; baita ere Estatu Batuak, tarifa altuekin esperimentatu ondoren, sendo mugitu zirela librekanbioaren norabidean 1832tik 1860ra bitartean, eta bai Luis Felipekin eta Napoleon III.aren Frantziak, bai Bismarck-en aurreko Alemaniak, bide berari jarraitu ziotela.

Gero aldatu egin zen korrontea. Nazionalismo demokratikoak, Alemanian eta Italian estatu asko batu zituenak, orain Habsburgotar, Otomandar eta Errusiar Inperio multinazionalak desintegratzeari ekin zion. 1914-18ko gerra orokorra bukatu ondoren, danubiar monarkia-
ren librekanbioko unitate zaharra hainbat ondorengo estatutan banatu zen, eta bakoitza ekonomi autarkiaren (buruaskitasunaren) aldeko borroka etsian hasi zen, bitartean estatu berrien beste multzo bat —eta ondorioz ekonomi konpartimentu berriak— sartu zelarik oso bipilduriko Alemaniaren eta oso bipilduriko Errusiaren artean. Bitartean, gutxi gorabehera belaunaldi bat lehenago, librekanbioranzko mugimendua alderantzikatzen hasi zen lehenengo herrialde batean eta gero bestean, azkenean, 1931n, itzultzen ari zen «merkantilismoaren» korrontea Britainia Handira ere iritsi zen arte.

Librekanbioa baztertze honen kausak erraz bereiz daitezke. Librekanbioa egokia izan zen Britainia Handiarentzat «Munduko Fabrika» izan zenean; egokia izan zen kotoia esportatzen zuten estatuentzat, neurri handi batean kontrolatu zutelarik Estatu Batuetako gobernuak 1832 eta 1860 bitartean. Hainbat arrazoiengatik bazirudien Frantzia eta Alemaniarentzat egokia izan zela denboraldi berean. Baina nazioak banan-banan industrializatu zirenean, haien parroki interesentzat eta epe laburrera, auzoko guztiekin industri lehian hastea komeni zen nork nori lepoa moztuko, eta nagusi zen parroki estatuen subiranotasunaren sistemapean, nork esan haiei ezetz?

Cobdenek eta haren jarraitzaileek izugarri kalkulu okerra egin zuten. Munduko herriak eta estatuak gizarte-batasunera eramanak ikustea desiratu zuten irrikaz, eta hori industrialismoaren indar gazteak, britainiar erdigunetik, itsu-itsuan ehuntzen ari ziren mundu-mailako ekonomi harremanen sare berri eta inoiz baino estuagoaren bidez. Cobden-zaleekiko bidegabea litzateke viktoriar-garaiko britainiar librekanbioaren mugimendua berekoikeria ilustratuaren maisulan soiltzat hartu eta baztertzea. Mugimendua ideia moral eta nazioarteko politika konstruktibo baten adierazpena ere izan zen; beraren adierazlerik baliotsuenek Britainia Handia munduko merkatuaren jabe bihurtzea baino zerbaite gehiago nahi zuten. Munduko ordena politiko baten pixkanakako bilakaera sustatzea ere espero zuten, bertan munduko ordena ekonomiko berriak aurrera egin ahal izateko; eta giro politikoa sortzea, bertan salgai eta zerbitzuen mundu-mailako trukea bakean eta segurtasunean egin ahal izateko, betiere segurtasuna areagotuz eta horrekin etapa bakoitzean gizadi osoaren bizi-maila hobetuz.

Cobdenen kalkulu okerra honetan datza: huts egin zuela demokraziak eta industrialismoak parroki estatuen lehian izango zuten eragina aurreikusten. Uste izan zuen erraldoi hauek gelditu egongo zirela hemeretzigarren mendean hemezortzigarrenean egon ziren bezala, orduan mundu-mailako industri sarea ehuntzen ari ziren giza armiar-mek beren amaraunetan haiek guztiak harrapatzeko astia izan arte. Ondorio bateratzaile eta baketzailletan jarri zuen bere uste ona, demokraziaren eta industrialismoaren izaieran zegoelarik ondorio horiek beren berezko eta mugarik gabeko adierazpenetan sortzea, non demokraziak anaitasunaren alde egingo baitzuen eta industrialismoak lankidetzaren alde. Ez zuen kontuan hartu indar horiek beren «lurrun-

zorrotada» berriak parroki estatuen makina zaharretan sartzean, desantolamendua eta mundu-anarkia sortzeko aukera zegoela. Ez zen oroitu Frantziako Iraultzako hizlariak predikaturiko anaitasunaren berri onak nazionalismoaren gerra moderno handietako lehenengoa eragin zuela; edota hau lehena ez ezik bere motako azkena ere izango zela pentsatu zuen. Ez zen ohartu, hemezortzigarren mendeko merkataritza-oligarkia estuak beren garaiko nazioarteko merkataritza osatzen zuten garrantzi txiki samarreko luxu-industriak sustatzearen gerrak abiarazteko gai izan baziren, *a fortiori* nazio demokratikoak *à outrance* borrokatuko zirela elkarren artean helburu ekonomikoengatik, Industri Iraultzak nazioarteko merkataritza luxuzko salgaien truketik bizitzeko beharrezko gaien trukera aldatu zuen garaian.

Azken batean, Manchesterreko Eskolak gaizki ulertu zuen giza izaera. Ez zuten ulertu mundu-ordena ekonomikoa ere ezin dela ekonomi oinarrien gain soilik eraiki. Beraien benetako idealismoa gorabehera, ez ziren ohartu «gizakia ez dela ogiz bakarrik bizi». Zorigaiztoko hutsegite hau ez zuten egin Gregorio Handiak eta Mendebaldeko Kristandadearen beste sortzaileek, horiengandik ondorioztatu zelarik azken batean viktoriar Ingalaterrako idealismoa. Gizon hauek, bihotz-bihotzez munduz gairik kausa batera emanak, ez ziren ohartuki saiatu mundu-ordena bat sortzen. Hondoratutako gizartean bizirik gelditutakoei iraunarazteko gurari material apalagora mugatu zen haien mundu-helburua. Gregoriok eta haren pareek, beharrian neketsu eta esker txarreko gisa, jaso zuten ekonomi eraikina behin-behineko konponketa izan zen argi eta garbi; hala ere, hura jasotzean, erlijiozko harikaitzean eraikitzeaz arduratu ziren, eta ez ekonomi hondarren gainean; eta haien lanari esker, Mendebaldeko Gizartearen egitura erlijiozko oinarri sendoaren gain kokatu zen eta, hamalau mende baino gutxiagoan, bazter bateko hastapen apaletatik gaur egungo Gizarte Handi nonahikoa izateraino hazi da. Gregorioren handinahirik gabeko ekonomi eraikuntzak erlijiozko oinarri sendoa eskatzen bazuen, honen argitan nekez sinets daiteke mundu-ordenaren egitura zabalagoa —gure zeregina da gaur egun eraikitzea— seguru jar daitekeenik interes ekonomiko hutsen betegarritzko oinarrien gainean.

Industrialismoaren eragina jabetza pribatuaren gain

Jabetza pribatua familia edo etxe bakuna ekonomi jardueraren unitate normala den gizarteetan ezartzeko joera duen erakundea da,

eta horrelako gizarte batean ziur aski sistemarik egokiena da aberas-
tasun materialaren banaketa gobernatzeko. Baina orain ekonomi jar-
dueraren berezko unitatea ez da jadanik familia bakuna, herrixka
bakuna edo nazio-estatu bakuna, gizadiko belaunaldi bizi osoa baizik.
Industrialismoaren etorreratik gure Mendebaldeko ekonomia moder-
noak gainditu egin du *de facto* famili unitatea eta, beraz, logikoki
gainditu egin du jabetza pribatuaren famili erakundea. Hala ere, era-
kunde zaharrak indarrean jarraitu du praktikan; eta egoera honetan
industrialismoak «bultzada» ikaragarria eman dio jabetza pribatuari
jabetzadun gizakiaren gizarte-boterea areagotuz beraren gizarte-eran-
tzukizuna gutxitzen duen bitartean, baina industriaurreko aroan onu-
ragarri izan zitekeen erakundeak gizarte-gaitz baten ezaugarrietako
asko bereganatu ditu azkenerako.

Egoera honetan jabetza pribatuaren erakunde zaharra indus-
trialismoaren indar berriarekin harmoniazko harremanetara egokitze-
ko zereginaren aurrean dago gaur egun gure gizartea. Egokitzena
bakean egiteko metodoa industrialismoak ezinbestean eragiten duen
jabetza pribatuaren banaketa txarrari aurre egitea da, eta hori jabetza
pribatuaren kontrol berariazko, arrazional eta zuzena eginez eta jabe-
tza hori Estatuaren bidez berriro banatuz. Industri erabakigarriak kon-
trolatuz, Estatuak eutsi egin diezaioke industria horien jabetza prib-
tuak beste pertsona batzuen bizitzaren gain ematen duen gehiegizko
ahalmenari, eta pobrezia-ondorio gaiztoak arin ditzake aberastasu-
nari zerga handiak jarri eta gizarte-zerbitzuak emanaz. Metodo honek
badu gizarte-abantaila gehigarri bat: Estatuak, gerra egiteko makina
izan ordez —hauze izan du iraganean bere zereginik nabariena—,
gizarte-ongizateko agentzia bihurtzera jotzen du.

Bakezko politika hau desegokia gertatzen bada, egon gaitzeko
ziur iraultza-alternatibak hartuko digula gain nolabaiteko komunis-
moaren eran, jabetza pribatua desagertzeraino. Honek dirudi egoki-
tzapenaren alternatiba praktiko bakarra, zeren eta jabetza pribatuaren
banaketa txarra industrialismoaren eraginez izugarrikeria jasangaitza
izango bailitzateke gizarte-zerbitzuek eta zerga altuek eraginkorki
arinduko ez balute. Hala ere, Errusiako esperimentuak erakusten due-
nez, erremedio iraultzailea gerta liteke ia-ia gaitza bezain hilgarria;
zeren eta, jabetza pribatuaren erakundea industriaurreko gizarte-onda-
rean dagoen onenari hain estu lotua dagoenez, erabat deusezteak ia

ziur haustura beldurgarri bat eragingo bailuke gure Mendebaldeko Gizartearen tradizio sozialean.

Demokraziaren eragina hezkuntzan

Demokraziaren etorrerak ekarri duen gizarte-aldaketa handienetako bat hezkuntza zabaltzea izan da. Herrialde aurrerakoietan nahi-taezko eta dohaineko instrukzio-sistema unibertsalak haur guztien berezko eskubide bihurtu du hezkuntza; oso bestelakoa zen hezkuntzaren papera demokraziaurreko aroan, gutxiengo pribilegiatu baten monopolio baitzen orduan. Hezkuntza-sistema berri hau nazioen mundu-elkarte modernoan postu ohoragarri bat izan nahi duen estatu ororen gizarte-ideal nagusietakoa izan da.

Hezkuntza unibertsala, lehen aldiz ezarri zenean, garaiko iritziz liberalak justiziaren eta ilustrazioaren garaipentzat agurtu zuen, eta espero zitekeen zorientasun eta ongizate-aro berri bat hasiko zuela gizadiarentzat. Baina orain ikusten da itxaropen haiek ez zituztela kontuan hartu urrezko arorako bide zabalean zegoen hainbat behaztopa-harri, eta gai honetan, sarri gertatzen den bezala, aurreikusi gabe-ko faktoreak gertatu dira garrantzitsuenak.

Behaztopa-harri bat hezkuntza-emaitzen ezinbesteko pobretzea izan da, bere ohiko kultur sustraietatik banatzeari esker prozesua «masentzat» eskuragarri bihurtzen denean. Demokraziaren asmo onek ez dute ahalmen magikorik ogien eta arrainen miraria egiteko. Masan ekoiztutako gure buru-elikadurak ez du zaporerik eta bitaminarik. Bigarren behaztopa-harria: hezkuntzaren fruituak espiritu utilitaristaz erabiltzeko joera sortzen da mundu guztiaren irispidean jartzeko direnean. Hezkuntza, horretarako eskubidea gizarte-pribilegio gisa heredatu dutenengana edo beren aparteko lan-gaitasun eta adimen-dohainengatik eskubide hori badagokiela frogatu dutenengana mugaturik dagoen gizarte-sistema batean, hezkuntza edo txerrien aurrera botatako perla bihurtzen da, edo balio handiko perla, aurkitzen duenak daukan guztiaren truke erosten duena. Ez kasu batean eta ez bestean ez da helburu baterako bitartekoa: handigura mundutar edo dibertsio hutsalerako tresna. Hezkuntza masen dibertsio-baliabide — eta dibertsioa ematen duten enpresa-jendearentzat probetxuzko — bihurtzeko aukera, oinarrizko hezkuntza unibertsala sartzean bakarrik sortu da; eta aukera berri honek hirugarren oztopo bat agertarazi du,

guztietan handiena. Hezkuntza unibertsalaren ogia uretara bota orduko, marrazo-talde bat sortu da ur sakonetatik eta haurren ogia irentsi du hezitzailearen beraren begien aurrean. Ingalaterrako hezkuntza-historian datak beren kabuz mintzo dira. Oinarrizko hezkuntza unibertsalaren eraikina, gutxi gorabehera hitz eginez, Forster-en Legeak burutu zuen 1870ean; eta prentsa horia hogeit bat urte geroago asmatu zen —eskola nazionaletako lehen haur-belaunaldiak behar hainbat erosmen lortu orduko, alegia—, eta arduragabeko jeinu-kolpe batek asmatu ere, filantropoaren maitasunezko heziketa-lana prentsa-jaunen bati irabazi bikainak emateko ere erabil zitekeela igarri zuelarik.

Demokraziak hezkuntzan izandako eraginaren aurrean erreakzio txundigarri hauek totalitario izan nahi duten nazio-estatu modernoek gobernariaren arreta erakarri dute. Prentsa-jaunek milioiak egin bazitzaketen erdi hezitakoei dibertimendu hutsala emanaz, estatu-politikari serioek, ez dirua agian, baizik eta boterea atera ahal izango zuten iturburu beretik. Diktadore modernoek kendu egin dituzte prentsa-jaunak eta entretenimendu pribatu gordin eta endekatua den sistema jarri dute. Erdi hezitako buruen masa-esklabotasunerako makineria konplexu eta jeinutsua, *laissez faire*-aren erregimen britainiar eta amerikarraren mende probetxu pribaturako asmatua, estatu-gobernariak berenganatu besterik ez dute egin, eta adimen-tresna hauek, zinema eta irratiarekin indartuta, beren helburu maltzurretarako erabili dituzte. Northcliffe-ren ondoren, Hitlerrek, nahiz eta Hitler ez zen izan bide horretan lehena.

Honela, hezkuntza demokratikoa sartu den herrialdeetan, ustiakuntza pribatuak edo herri-agintaritzak antolatutako tirania intelektualaren mende jausteko arriskuan dago jendea. Onik atera behar badira jendearen arimak, masa-hezkuntzaren maila igotzea da bide bakarra, ustiakuntza- eta propaganda-era zabarrenekiko immune bihurtzeko mailaraino, behintzat; eta ez dago esan beharrik hau ez dela lan erraza. Zorionez, badira hezkuntza-erakunde desinteresatu eta eraginkorrak hori konpondu nahian ari direnak gaur egungo Mendebaldeko munduan, adibidez, *Workers' Educational Association* (Langileen Hezkuntza Elkarte) eta *BBC-British Broadcasting Corporation* Britainia Handian, eta unibertsitateen kanpo-ekintzak herrialde askotan.

Italiar eraginkortasunaren eragina Alpeez bestaldeko gobernuengan

Orain arteko adibide guztiak gure Mendebaldeko historiaren azken alditik atera ditugu. Gogoratu besterik ez irakurleari, historia bereko aurreragoko atal batean indar berri baten eraginak erakunde zahar batean planteaturiko arazoa, dagoeneko aztertu baitugu adibide hau beste zerbaiti lotuta. Hona hemen planteaturiko arazoa: nola ziurtatu Alpeez bestaldeko monarkia feudalaren harmoniazko egokitzapena, Errenazimentuko italiar hiri-estatuetan sorturiko eraginkortasun politikoaren inpaktuaren aurrean? Egokitzapen-era erraz eta kaskarrena monarkiak eurak tirania edo despotismo izateraino bultzatzea zen, Italiako estatu askok jadanik gainean zituzten despotismo haien eredura. Bide zailagoa baina hobea, Alpeez bestaldeko erresumetako estatuen Erdi Aroko batzarrak ordezkaritzaazko gobernuaren organo bihurtzea zen: italiar despotismo modernoak bezain eraginkorrak eta, aldi berean, Italiako hiri-estatuetan beren burua gobernatzen zuten erakundeek beren garairik onenetan —politikoki bederen— izan zutena bezain autogobernu-neurri zabala emango zutenak, nazio-eskalan.

Beste nonbait gogoratu ditugun arrazoiengatik, egokitzapen hauek Ingalaterran egin ziren harmoniarik handienaz, eta beraz, Mendebaldeko historiaren hurrengo atalean, Ingalaterra bihurtu zen aitzindari, edo gutxiengo sortzaile, aurrekoan Italia izan zen bezala. Trebeak ziren eta, nazonalki arduraturiko tudortarren mende, monarkia despotismo bihurtzen hasi zen, baina patu gaiztoko estuardotarren mende Parlamentua Koroaren mailan jarri zen eta azkenean gainetik. Hala ere, egokitzapena ez zen bi iraultza gabe egin, nahiz eta hauek, iraultzarik gehienek aldean, neurritasunez eta mugaturik zertu ziren. Frantzia joera despotikoa askoz luzeagoa izan zen eta askoz urrutirago joan zen, eta askoz iraultza bortitzagoa izan zen emaitza; horrek ezegonkortasun politikoko garaia iragarri zuen, oraindik ez zaiolarik bukaera ikusten. Espainian eta Alemanian despotismorantzko joerak gaur arte jarraitu du eta honela luzeegi atzeraturiko kontramugimendu demokratikoak kapitulu honen aurreko sekzioetan zirriboratu diren konplikazio guztietan sartuta aurkitu dira.

Solonen iraultzaren eragina hiri-estatu helenikoetan

Mendebaldeko historiaren bigarren ataletik hirugarrenerako trantsizioan Italiako eraginkortasun politikoak Mendebaldeko mun-

duan Alpeez bestealdeko herrialdeetan izan zuen eraginak historia helenikoa izan zuen baliokidea, hots, mundu helenikoko zenbait estatutan K.a. zazpigarren eta seigarren mendeetan, malthusiar arazoaren presiopean, lortu zen ekonomi eraginkortasunean. Zeren eta ekonomi eraginkortasun berri hau ez baitzen mugatu Atenasera eta sortarazi zuten beste estatuetara, baizik eta, kanporantz zabalduz, eragina izan zuen hiri-estatu helenikoen kosmos osoko barne eta nazioarteko politikan.

Dagoeneko deskribatu dugu ekonomiaren norabide berri hau, Solonen iraultza deitzen dena. Funtsean, mantenurako nekazaritza nekazaritza komertzialerako aldaketa izan zen, aldi berean merkataritza eta industria ere garatu zirelarik. Arazo ekonomiko baten —biztanleriak lurralde baten gain egindako presioaren— konponbide honek bi arazo politiko berri sortarazi zituen. Alde batetik, ekonomi iraultzak gizarte-klase berriak sortu zituen: merkataritza eta industria-ko hiri-langileak, eskulangile eta marinelak, hauentzat lekua aurkitu beharra zegoelarik egitura politikoan. Beste aldetik, hiri-estatu arteko bakartze zaharraren ordez elkarrekiko mendetasuna sortu zen ekonomi mailan, eta, hainbat hiri-estatu ekonomikoki elkarren mendeko bilakatu zirenez, aurrerantzean ezinezkoa zen, hondamendirik gabe, hasierako bakartasun-egoeran jarraitzea maila politikoan. Arazo haue-
tako lehenak, Ingalaterra viktoriarrek parlamentua erreformatzeko zenbait legeren bidez konpondu zuenaren antza du; bigarrenak, berriz, librekanbioko mugimenduaren bidez konpontzea espero zuenaren antza du. Arazo hauek banaka aztertuko ditugu eta lehen aipaturiko ordenan.

Hiri-estatu helenikoen barne-bizitza politikoan, klase berrien emantzipazioak erabateko aldaketa ekarri zuen elkartze politikoaren oinarria. Ahaidetasunaren ohiko oinarriaren ordez, jabetzan oinarrituriko boto-eskubide berria ezarri behar zen. Atenasen aldaketa hau eraginkortasunez gauzatu zen, eta zatirik handienez ez zuten, Solonen aroaren eta Periklesen aroaren bitartean eginiko konstituzio-garapenen bidez. Trantsizioak konparazioz izandako ezintasun eta eraginkortasuna *tyrannis*-ak Atenasko historian jokatu zuen paper ñimiñoak frogatzen du; zeren eta hiri-estatu hauen historia konstituzionalean arau orokorra baitzen, komunitate aitzindarien oinatzetara jarraitzeko prozesua bidegabeki atzeratzen zenean, *stasis* (klase-gerra iraultzaile)

egoera gertatzen zela, «tirano» edo, Erromatik hartutako gure jerga modernoan, diktadore baten sorrerak bakarrik konpon zezakeen egoera. Atenasen, beste alde batzuetan bezala, diktadura ezinbesteko etapa zen egokitzapen-prozesuan, baina hemen Pisistrato eta haren semeen tirania interludio labur bat izan zen Solonen eta Klistenesen erreformaren artean.

Greziako beste hiri-estatu batzuek askoz harmonia gutxiagorekin egin zituzten beren egokitzapenak. Korintok diktadura luzea jasan zuen, eta Sirakusak diktadura errepikatua. Korzirako *stasis*-aren izugarrikeria Tuzididesen orrialdeetan geratu da hilezkortua.

Azkenik, Erromaren kasua har dezakegu, greziarra ez zen komunitatea, Zibilizazio Helenikoak K.a. 725-525 denboraldian izan zuen geografi hedapenaren ondorioz mundu helenikora erakarria. Kultur konbertsio honen ondoren bakarrik sartu zen Erroma garapen ekonomiko eta politikoaren bidean, hiri-estatu heleniko edo helenizatu baten ibilketa normalean, eta ondorioz, atal honetan Erroma etapa guztietatik igaro zen, ehun eta berrogeita hamar urte inguruko atzerapenaz Atenasko historian pareko dataren aldean. Atzerapen honengatik Erromak zigorra ordaindu zuen, jaiotza-eskubidez boterea monopolizatzen zuten patrizioen eta aberastasun- eta kopuru-eskubidez boterea erreklamatzeko zuten plebeioen artean sortutako sekulako *stasis* garratzean. Erromatarren *stasis* hau, K.a. bosgarren mendetik hirugarrenera iraun zuena, hainbeste luzatu zenez, plebeioak, hainbat alditan, *populus*-agandik banatu egin ziren benetako geografi erretiroan, eta aldi berean plebeioen anti-Estatua —bere erakunde, batzar eta funtzionarioez osatua— ezarri zuen iraunkorki legezko komunitatearen barruan. Kanpo-presioari esker bakarrik lortu zuen Erromako politikak, K.a. 287an, izugarrikeria konstituzional hau konpontzea, Estatua eta anti-Estatua batasun politiko eraginkorrera ekarriz; eta, ondorengo inperialismo garaileak mende eta erdi igaro ondoren, bizkor geratu zen agerian K.a. 287ko konponketa behin-behinekoa zela. Patrizioen eta plebeioen erakundeen nahastura gogortu gabea, erromatarrek beren konstituzio korrokoiltzat onartu zutena, gizarte-egokitzapen berriak lortzeko hain tresna politiko ezgaia suertatu zenez, grakotarren ibilketa bortitz eta hutseginek bigarren *stasis*-txanda ireki zuten (K.a. 131-31), lehenengoa baino okerragoa. Oraingoan, mende batez beren burua zauritu ondoren, erromatar gorputz politikoa diktadura

iraunkorraren mende jarri zen; eta garai hartarako, erromatarren armek mundu helenikoaren konkista osatua zutenez, Augustoren eta haren ondorengo erromatar *tyrannis*-ak bide batez bere estatu unibertsalaz hornitu zuen Gizarte Helenikoa.

Barne-arazoak konpontzeko erromatarren ezgaitasun iraunkorra erabat kontrajarria dago atzerrian konkistak egin, haiei eutsi eta antolatzeko izan zuten trebetasun paregabearekin; eta ohartzekoa da atenastarrek, barne-politikatik *stasis*-a uxatzeko arrakastan paregabeak, nabarmen porrot egin zutela K.a. bosgarren mendean jadanik presa handiz behar zen nazioarteko ordena sortzen, laurehun urte geroago neurri bateraino erromatarrek arrakastaz ezarri zuten ordena.

Nazioarteko zeregin hau, zeinetan huts egin baitzuen Atenasek, Solonen iraultzak planteaturiko bi egokitzapen-arazoetako bigarrena zen. Nazioarteko merkataritza helenikoak eskatzen zuen nazioarteko segurtasun politikoa sortzeko bidean hiri-estatuaren subiranotasunaren erakunde politiko heredatua izan zen oztopoa. K.a. bosgarren mendearen hasieratik historia politiko helenikoaren gainerako guztia hiri-estatuaren subiranotasuna gainditzeko ahalegina eta ahalegin honek sortarazitako erresistentzia izan zela esan daiteke. Bosgarren mendea bukatu baino lehen, ahalegin honekiko erresistentziaren setakeriak kolapsora eramana zuen Zibilizazio Helenikoa, eta, neurri bateraino Erromak arazoa konpondu baldin bazuen ere, ez zen Gizarte Helenikoaren desintegrazioa azken kolapsoraino joatea eragozteko behar hainbat garaiz konpondu. Arazoaren konponketa ideala hiri-estatuak beren artean borondatezko adostasunez hiri-estatuaren subiranotasuna iraunkorki mugatzea izango zen. Zoritzarrez, ahalegin horietako nabariena, Delosko Liga, Atenasek eta haren Egeoko aliatuek Pertsiaaren aurkako kontraeraso garailean zertua, *hegemoniaren* tradizio heleniko zaharra sartzeagatik biziatura zegoen: kide gidariak beharturiko itunaren ustiapena. Delosko Liga Atenastar Inperioa izatera iritsi zen eta Atenastar Inperioak Peloponesoko gerra eragin zuen. Lau mende geroago Erromak arrakasta izan zuen Atenasek huts egin dako hartan; baina atenastarren inperialismoak bere mundu txikian zartailuaz emandako zigorra ez zen ezer izan erromatarren inperialismoak gizarte heleniko eta helenizatu askoz zabalagoari eskorpioien bidez eman zionaren aldean, hau Bigarren Gerra Punikoaren ondorengo eta Augustoren bakea ezarri aurreko bi mendeetan gertatu zelarik.

Gizarte Helenikoa bere lokalismo tradizionala garaiz gaindizten porrot egin zuelako kolapsatu zen bitartean, gure Mendebaldeko Gizarteak porrot egin zuen —ondorioak oraindik ikuskizun daude etorkizunean— gizarte-elkartasunari eusten, hauxe izanik agian bere jatorrizko dohainaren zatirik baliotsuena. Gure Mendebaldeko historian Erdi Aroko ataletik atal modernorako trantsizio-garaian, garaiko gizarte-aldaketaren adierazpenik esanguratsuenetako bat lokalismoaren areagotzea izan zen. Geure belaunaldian ez zaigu erraza gertatzen, garai honetan geure gain ekarri dituen gaitz handiak kontuan izanda, aldaketa horri grinarik gabe begiratzea, bizirik irauten duen anakronismo bihurtu delarik. Hala ere, ikusten dugu asko esan zitekeela Erdi Aroko gure ekumenismoa duela bost mende abandonatzearen alde. Zeren eta haren handitasun moral guztia iraganeko itzala baitzen, Gizarte Helenikoaren estatu unibertsalak utzitako ondarea, eta beti egon zen itxuragabeko desadostasuna ideia ekumenikoaren nagusitasun teorikoaren eta Erdi Aroko praktikaren benetako anarkiaren artean. Lokalismo berriak lortu zuen neurri batean gutizia txikieneko gurarien mailan egotea. Nolanahi dela ere, indar berriak irabazi zuen. Politikan anitz estatu burujabetan garatu zen; letretan, herri-literatura berrietan; eta erlijioaren arloan Erdi Aroko Mendebaldeko Elizarekin talka egin zuen.

Azken talka honen bortizkeria Eliza, aita santuaren hierokraziapean zehazki antolatua, Erdi Aroko ordenaren erakunde nagusi izateak eragin zuen. Ziur aski arazoa irekita zegoen egokitzapenetara, aitasantutzak bere boterearen gailurrean zegoela jada ikertu zituen bideetatik. Adibidez, liturgi xedeetarako latinaren ordeztu herri-hizkuntzak erabiltzeko tokian tokiko indarrarekin topo egitean, Erromako Elizak liturgia beren hizkuntzara itzultzeko baimena eman zien kroaziarrei, ziur aski muga-barruti honetan Erroma bere lehiakide zen Ekialdeko Eliza Ortodoxoarekin lehian aurkitu zelako, eta azken honek greziar ez ziren konbertituei ez zien liturgi hizkuntzatzat grekoa onartzea eskatzen, baizik eta eskuzabaltasun politikoa erakutsi zuen bere liturgia hizkuntza askotara itzultzean. Bestalde, gobernu burujabe modernoek Erdi Aroko aurrekoekin tratatzean, aita santuak —erromatar enperadore santuen errebindikazio ekumenikoen aurka hil ala biziko borrokan sartuta zeuden bezala egonik— askoz molda-

korrago agertu ziren Ingalaterra, Frantzia, Gaztela eta beste toki-estatu batzuetako erregeek beren mugen barruko eliz antolamendua kontrolatzeko planteatu zituzten parroki errebindikazioen aurrean.

Honela, Aulki Santua ez zen batere ezjakina Zesarri Zesarrenak ematen, neozesarismo lokalista helduak bere burua finkatu zuen garairako, eta Erreforma delakoaren aurreko mendean aitasantutza nahikoa urruti joan zen errege sekularrekin konkordatuak negoziatzen, hauek Erromaren eta tokian tokiko gobernarien artean banatu zutelarik eliz hierarkiaren gaineko kontrola. Konkordatu-sistema hau hamabosgarren mendearen lehen erdian Konstantzan (K.o. 1414-18) eta Basilean (1431-49) eginiko kontzilio ekumeniko hutseginen nahigabeko emaitza izan zen.

Kontzilio-mugimendua ahalegin konstruktiboa izan zen bere burua Kristoren bikario izendatua zuenaren arduragabeko, eta sarritan abusu nabarmeneko, agintea neutralizatzeko, eta hau eliz parlamentarismoko sistema eskala ekumenikoan ezarriz lortu nahi izan zen, parroki eskalan eta garai feudalean jadanik bere erabilgarritasuna frogatua zuen Erdi Aroko erregeen ekintzak kontrolatzeko baliabide bezala. Baina kontzilio-mugimenduekin topo egin zuten aita santuek bihotzak gogortu zituzten; eta aita santuen setakeria arrakastatsua suertatu zen zoritxarrez. Kontzilio-mugimendua hondatzea lortu zuen eta, honela, egokitzapenerako azken aukera baztertuz, Mendebaldeko Kristandadea antzinako herentzia ekumenikoaren eta bere parroki joera berrien arteko barne-konponezin bortitz batez zatituta geratzera kondenatu zuen.

Emaitza iraultzen eta izugarrikerien uzta malenkonikoa izan zen. Lehenengoen artean aski dugu Elizaren bortxazko haustura aipatzea, hainbat eliza lehiakide sortu zelarik, batak bestea Antikristoren taldetzat salatuz eta gerra eta jazarpen-ziklo oso bat abiaraziz. Azkenekoen artean, ustez aitasantutzari zegokion «jainkozko eskubideaz» errege-erregina sekularrek egindako usurpazioa jar daiteke, nazio-estatu subiranoen gurtza paganoaren forma beldurgarrian Mendebaldeko munduan oraindik hondamena egiten ari den «jainkozko eskubidea». Abertzaletasunak, Johnson doktoreak modu ezohiko samarrean «zitalen azken babeslekutzat» deskribatu zuenak eta Cavell erizainak zorroztasun handiagoz «ez zela nahikoa» aitortu zuenak, oso aurea hartu dio kristautasunari Mendebaldeko munduaren

erlijio gisa. Edozein kasutan ere, nekez imajina daiteke kristautasunaren —baita historiako beste erlijio nagusi guztien— funtsezko irakaspenaren kontraesan zorrotzagorik lokalismoak Mendebaldeko Kristau Elizan izandako eraginaren emaitza beldurgarri honetan gorpuzturikoa baino.

Batasun-zentzuak erlijioan izandako eragina

Gizadi osoarentzako eginkizuna duten «erlijio nagusiak» iritsi berri samarrak dira giza historiaren gertalekura. Ez dira ezezagunak gizarte primitiboetan bakarrik; zibilizazio-prozesuan dauden gizarteen artean ere, ez dira garatu hainbat zibilizazio kolapsatu eta desintegrazio-bidean oso urrutira joan diren arte. Zibilizazioen desintegrazioak aurkezturiko erronkari erantzunez agertu dira erlijio nagusi hauek. Filiaziorik gabeko zibilizazioen erlijio-erakundeak, gizarte primitiboetakoak bezalaxe, gizarte haietako erakunde sekularrei loturik daude eta ez dute urrutirago begiratzen. Goragoko ikuspegi espiritualetik erlijio horiek desegokiak dira argi eta garbi, baina badute garrantziko meritu negatibo bat: erlijioen artean «bizi eta utzi bizitzen» espiritua bultzatzen dute. Horrelako baldintzetan jainko eta erlijio-aniztasuna munduan segurutzat jotzen da, estatu eta zibilizazio-aniztasunaren parekotasun natural gisa.

Gizarte-egoera honetan giza arimak itsu daude Jainkoaren nonahikotasuna eta guztiahalduntasuna ikusteko, baina hainbat forma eta deiturapean Jainkoa gurtzen duten beste gizaki batzuekiko harremanetan intolerantziaren bekatuan jausteko tentazioak ez du beraiegen eraginik. Giza historiaren ironietako bat Jainkoaren batasunaren eta gizadiaren senidetatasunaren pertzepzioa erlijiora ekarri duen argitzapenak aldi berean tolerantziarik eza eta jazarpena sustatu izana da. Jakina, azalpena honetan datza: batasunaren ideiak, erlijioari aplikatuta, bera erabat garrantzitsua dela konbentzitzen ditu bera onartzen duten aitzindari espiritualak, eta hauek prest egoten dira ideia hori errealitatean gauzatzea bizkortuko duen edozein lasterbidetatik abiatzeko. Intolerantziaren eta jazarpenaren izugarrikeria honek erlijio nagusi bat predikatu den garai eta leku guztietan erakutsi du bere aurpegi higuingarria, ia hutsik egin gabe. Tenperamentu fanatiko hau Akenaton enperadoreak K.a. hamalagarren mendean monoteismoaren bere ikuspegia mundu egipziakoari ezartzeko ahalegin hutsegine-

an sutu zen. Hura bezain fanatismo sutsuak bere argitasun ubela botatzen du judaismoaren sorrera eta garapenaren gain. Komunitate siria-ko ahaidetuen kultuetan edozein parte-hartzeren salaketa basatia, Jahveren toki-gurtza erlijio monoteista batean eterealizatzearen beste aurpegia da, hauxe zelarik hebrear profeten lorpen espiritual positibo eta bikaina. Kristautasunaren historian, bai bere barne-zismetan bai atzerriko fedeei topo-egiteetan, espiritu berbera ikusten dugu behin eta berririo agertzen.

Honek erakusten duenez, batasun-zentzuak erlijioan duen eraginak izugarrikeria espirituala sortzeko joera izaten du, eta tolerantziaren bertutearen praktika da komeni den egokitzapen moralala. Tolerantziarako motibo zuzena hau da, erlijio guztiak helburu espiritual komun baten bila egindako ikerketak direla aitortzea eta, ikerketa hauetako batzuk besteak baino aurreratuagoak izan eta bide zuzenagotik joan daitezkeen arren, erlijio «oker» baten jazarpena erlijio *soi-disant* «zuzen» baten aldetik bere izaeran bertan kontraesana dela terminoetan, zeren eta, jazarpenari ekitean, erlijio «zuzena» oker bihurtzen baita bere kredentzialei uko eginez.

Kasu ohargarri batean gutxienez, tolerantzia hori profeta batek bere jarraitzaileei ezarri zien arrazoi bikain honengatik. Mahomak erlijio-tolerantzia agindu zuen politikoki Islamaren beso sekularren mende jarritako judu eta kristauenganako, eta erregela hau musulman ez ziren bi erlijio-komunitate hauek, musulmanak bezalaxe, «Liburuaren herriak» izatean oinarritu zuen espresuki. Hasierako Islamak izan zuen tolerantzi espirituaren adierazgarri da, profetak berak espresuki berretsi gabe, antzerako tolerantzia hedatu zelarik gero praktikan musulmanen gobernupean geratu ziren zoroastroarregana.

Mendebaldeko Kristandadeak hamazazpigarren mendearen bigarren erdian hasi zuen erlijiozko tolerantzialdiak askoz apeltaldi zinikoagoan izan zuen jatorria. Erlijioen tolerantzia zen zentzuan bakarrik dei dakioke «erlijiozko tolerantzia»; haren zioei begiratzen badiegu, erlijio gabeko tolerantzia esan beharko genuke hobeto. Mende-erdi honetan katoliko eta protestanteen fakzioek bat-batean bertan behera utzi zituzten borrokak, ez intolerantziaren bekatuaz konbentzitzera iritsi zirelako, baizik eta alderdi bakoitza ohartu zelako ezin zela askoz urrutirago joan bestearen aurka. Aldi berean, dirudienez, jabetu ziren jada ez zirela nahikoa arduratzen eztabaidagai

zituzten arazo teologikoez, berorien izenean sakrifizio gehiago egiten jarraitzeko. Gaitzetsi egin zuten «gogo-berotasunaren» ohiko bertutea (deribazioz Jainkoaren espirituz betea egotea esan nahi duena) eta biziotzat hartu zuten aurrerantzean. Giro honetan hemezortzigarren mendeko apezpiku ingeles batek «gogo-bero miserabletzat» jo zuen mende bereko misiolari ingeles bat.

Halaz guztiz, zeinahi motiborengatik sortzen dela ere, tolerantzia sekulako antidotoa da batasun-zentzuaren eraginak erlijioan sortzeko joera duen fanatismoarentzat. Bere ausentziaren nemesia jazarpenaren izugarrikeriaren edo erlijioaren beraren aurkako higuin iraultzailearen arteko aukera da. Horrelako higuina Lukrezioren bertsorik ospetsuenean agertzen da: *Tantum religio potuit suadere malorum* («Hain gaitz izugarria eragiteko gai izan da erlijioa»); baita Voltaireren «*Ecrasez l'infame*» eta Gambetta-ren «*Le cléricalisme, voilà l'ennemi*» delakoetan ere.

Erljioaren eragina kastetan

Lukrezioren eta Voltaireren ikuspegia —erlijioa bere baitan gaitz bat dela, eta agian oinarrizko gaitza giza bizitzan— berretsi liteke adieraziz, historia indiko eta hinduaren analetatik aterata, erlijioak, argi eta garbi, eragin maltzurra izan duela zibilizazio hauen bizitzan kasta-erakundearen gain.

Erakunde hau —geografikoki elkarrekin nahasturik dauden gizaki-talde bi edo gehiagoren gizarte-banaketa, alegia— komunitate batek beste bati gain hartu eta mendeko komunitatea suntsitu edo bere gizarte-gorputzean sartu ezin duen edo nahi ez duen leku eta garai guztietan ezarri ohi da. Adibidez, kasta-zatiketa sortu zen Estatu Batuetan gehiengo zuri menderatzailearen eta gutxiengo beltzaren artean, eta Hego Afrikan gutxiengo zuri menderatzailearen eta gehiengo beltzaren artean. Indiako azpikontinentean, badirudi kasta-erakundea Eurasiako nomada arioek Indus kultura delakoaren aurreko eremuan egindako sarralditik sortu zela, K.a. bigarren milurtekoaren lehen erdian.

Ikusten denez, kasta-erakunde honek ez du funtsezko loturarik erlijioarekin. Estatu Batuetan eta Hego Afrikan, non beltzek arbasoen erlijioak baztertu eta europar menderatzaileen kristautasuna hartu baitute, elizen arteko zatiketak zeharretara ebakitzen ditu arrazen arteko

zaticetak, nahiz eta eliza bakoitzeko beltzak eta zuriak elkarrengandik banatuta egon erlijio-gurtzan beste gizarte-jarduera batzuetan bezalaxe. Indiako kasuan, bestalde, susma daiteke kastak hasieratik zeudela beren artean bereizita erlijio-praktiken desberdintasunagatik. Garbi dago, hala ere, erlijio-desberdintasun hau areagotu egingo zela Zibilizazio Indikoak ondorengoari utzi zion joera biziki erlijiosoa garatu zuenean. Nabaria da gainera erlijiotasunak kasta-erakundean izandako eragin honek asko larriagotu behar izan zuela erakundearen kaltegarritasuna. Kasta beti dago gizarte-izugarrikeria izateko zorian, baina, interpretazio erlijiosoa eta onespen erlijiosoa hartuta haizatzen denean, seguru egon bere izugarrikeria ikaragarritzko proportzioan haziko dela.

Benetan Indian erlijioak kastetan izan duen eraginak parekorik ez duen «ukiezintasunaren» gizarte-abusua sortarazi du —eta sekula ez da mugimendu eraginkorrik izan «ukiezintasuna» deusezteko edota arintzeko— brahmanen aldetik, hauek osatzen dutelarik sistema osoko zeremonien maisu bihurtu den kasta hieratikoa. Izugarrikeria honek bizirik irauten du, iraultzak eraso egin dion neurrian izan ezik.

Kasten aurkako lehen errebolta ezagunak jainismoaren sortzaila izan zen Mahavira-rena eta Budarena dira, biak K.a. 500 inguruan. Budismoak zein jainismoak lortu izan balute mundu indikoa berengantzea, kasten bukaera izan zitekeen. Hala ere, eliza unibertsalaren papera beheraldi eta eroriko indikoaren azken atalean hinduismoak jokatzea gertatu zen, gauza zahar eta berrien sinkretismo arkaiko etorri berriak; eta hinduismoak indarberritu zuen gauza zaharretako bat kastak izan ziren. Abusu zahar honi eustea aski ez balu bezala, garatu egin zuen, eta Hindu Zibilizazioa bere hasieratik oztopatu izan du haren aurrekoak inoiz gainean izan zuen baino kasta-zama askoz astunagoak.

Hindu Zibilizazioaren historian kasten aurkako erreboltak atzerriko erlijio-sistemaren batek erakarrita hinduismotik bereiziz adierazi izan dira. Bereizketa hauetako batzuk hindu-erreformatzaileek gidatu dituzte, eliza berriak sortu dituztelarik hinduismoaren bertsio garbituak osagai arrotzekin nahastuz. Adibidez, Nanak-ek (K.o. 1469-1538), sikhismoaren sortzaileak, Islametik hartu zituen elementu batzuk, eta Ram Mohan Roy-k (K.o. 1772-1833) Brahmo Samaj delakoa sortu zuen hinduismoa eta kristautasuna nahastuz. Bi sistema

hauetan kasta baztertu egiten da. Beste kasu batzuetan sezesionistek hinduismoaren hautsa erabat astindu dute beren oinetatik eta kongregazio islamiko edo kristauan sartu dira; eta honelako konbertsioak behe-kasta eta klase zanpatuetako kideen proportziorik handienak dituzten eskualdeetan eman dira eskalarik handienez.

Hau da erantzun iraultzailea «ukiezintasunaren» izugarrikeriari, erlijioak kastetan izandako eraginak sortaraziari; eta mendebaldar bihurtzearen hartzigarri ekonomiko, intelektual eta moralak Indiako masak pixkanaka mugiarazten dituen neurrian, baliteke parien arteko konbertsioen tantaka hori uholde bihurtzea, behintzat Banya Mahatma Gandhiren ideal erlijioso eta politikoak ohoratzen dituzten Hindu Gizarteko kideek ez badute lortzen erlijio- eta gizarte-sistemaren harmoniazko egokitzapena, brahmanen aurkakotasuna gorabehera.

Zibilizazioaren eragina lanaren zatiketan

Dagoeneko esan dugu lanaren zatiketa ez dela erabat ezezaguna gizarte primitiboetan, eta hori errementari, bardo, apaiz, sendagile eta abarren espezializazioak erakusten du. Baina zibilizazioaren eraginak lanaren zatiketan orokorrean areagotu egiten du zatiketa hori, ez bakarrik gizarte-etekin gero eta txikiagoak sortzeraino, baita bere jardunean benetan antisozial bihurtzeraino ere; eta ondorio hau gertatzen da bai gutxiengo sortzailearen bizitzan, baita sortzaile ez den gehien-goarenean ere. Sortzaileak esoterismora bultzatuak gertatzen dira eta masa desorekarantz.

Esoterismoa porrotaren sintoma da gizabanako sortzaileen karreretan, eta erretiro-eta-itzuleraren erritmoan aurretiko mugimenduaren areagotzea dela esan daiteke, porrot eginez prozesua osatzeari dagokionean. Honela porrot egin zutenak greziarrek gaitzesi egiten zituzten ἰδιώτης hitza aplikatuz. ἰδιώτης delakoa, bosgarren mendeko greziarren erabileran, goi-mailako pertsonalitatea zen, bere dohainak guztien ongiaren zerbitzura jarri ordez, berez eta beretzat bizitzeko gizarte-iraina egiten zuena; eta horrelako portaera Periklesen Atenasen nola ikusten zuten datu honek argitzen du, alegia, gure herri-hizkuntza modernoetan, hitz greko honetatik eratorriak (idiota) ergel adierazten du. Baina gure Mendebaldeko Gizarte modernoko benetako ἰδιώται ez dira babesetxeetan aurkitu behar. Horietako talde batek, *homo sapiens* espezializatuak eta *homo econo-*

micus bihurtzeraino endekatuak, Dickensen satirako Gradgridn eta Bounderby-ak ematen ditu. Beste talde batek beste muturrean dagoe-la uste du eta argiaren seme-alaben artekoa dela, baina, egia esateko, kondena berberaren mende dago; hauek *snob* eta pedante intelektual eta estetikoak dira, beren artea «arteagatik» dela uste dutenak, Gilberten satirako Bunthorne-ak. Agian Dickens eta Gilberten arteko data-desberdintasunak esplikatzen du lehen taldea nabarmenagoa izatea hasierako viktoriar Ingalaterran eta bigarren taldea geroagoko viktoriar aroan. Kontrako muturretan daude, baina gure planetako ipar eta hego-poleoz esan izan da, oso urruti egon arren, klima-akats berberak dituztela.

Desoreka deitu duguna geratzen da aztertzeke, zibilizazioaren eraginak lan-zatiketan duen ondorioa sortzaile ez den gehiengoaren bizitzan.

Sortzaileak bere erretirotik itzuli eta bere lagun hurkoen masarekin elkartasun berrian sartzean izaten duen gizarte-arazoa hau da: giza arima arrunten kopuru baten batez besteko maila sortzaileak berak lortua duen goragoko mailara altxatzea; eta zeregin honi ekin orduko ohartzen da masaren gehiengoa ez dela gai goragoko maila honetan bizitzeko bere bihotz, borondate, arima eta indar guztiarekin. Egoera honetan, lasterbideren bat hartzeko eta, nortasun osoaz arduratu gabe, ahalmen bakar bat goragoko mailara jasotzeko prozeduraz baliatzeko tentazioa izan dezake. Honek esan nahi du, *ex hypothesi*, gizakia garapen desorekatura behartzea. Horrelako emaitzak errazago lortzen dira teknika mekanikoaren mailan, zeren eta, kultura bateko elementu guztietatik, gaitasun mekanikoak baitira bakartzen eta komunikatzen errazenak. Ez da zaila mekanikari eraginkor bat ateratzea gainerako sail guztietan arima primitibo eta barbaroa duen pertsonarengandik. Baina beste ahalmen batzuk era berean espezializa eta hipertrofia daitezke. Matthew Arnold-ek *Culture and Anarchy* (1869) liburuan «hebrear urloan» zegoen klase ertaineko ingeles filistear ez-konformista jainkozaleari egin zion kritika hauxe zen: bere uste okerrean kristau-erlijiotzat zeukan horretan espezializatu zela, ongi orekaturiko nortasuna zertzen laguntzen duten beste baloreez — helenikoez — arduratu gabe.

Jada aurkitu dugu desoreka hau gutxiengo zigortuek zigorraren erronkari emandako erantzuna aztertu dugunean. Esan dugu gutxien-

go hauek erabateko hiritartasunetik tiranikoki baztertzeak libre utzi zaizkien jardueretan aurrera egin eta gailentzera akuilatu dituela; eta txundituta eta liluratuta gelditu gara *tours de force* delako galeria oso baten aurrean, non gutxiengo hauek giza izaeraren menderaezintasunaren adierazpen gisa nabarmentzen baitira. Aldi berean ezin dugu ukatu gutxiengo hauetako batzuek —levantetarrek eta fanariotek eta armeniarrek eta juduek— «beste batzuk ez bezalakoak» izatearen ospea dutela, onerako nahiz txarrerako. Juduen eta jentilen arteko zoritxarreko harremanetan, kasu klasikoa, bere lagun *goyim* antisemiten portaeraz atsekabetua eta lotsatua dagoen jentila nahastuta gertatzen da judu-erasotzaileak bere basakeria zuritzeko marrazten duen karikaturan badela egi elementuren bat onartu behar izaten duenean. Tragediaren muina honetan datza: gutxiengo zigortua erantzun heroiakoa ematera akuilatzen duen zigorra gai dela bere giza izaera itxuragabetzeko ere. Eta sozialki zigorturiko gutxiengo hauetaz egia dena, era berean egia da teknologikoki espezializaturiko gehiengoez ere, hauek ari garelarik aztertzen orain. Hau gogoan hartu behar den kontua da ikusten dugunean teknologi ikasgaiak gero eta gehiago ari direla sartzen hezkuntza-curriculumean, praktikotasun gutxikoa agian baina liberala izan ohi zen curriculumean.

Bosgarren mendeko greziarrek hitz bat zuten desoreka honentzat: βανανυσία. βάνανυσος delakoa jarduera espezializatua zuen pertsona zen, teknika bereziren batean kontzentratua, gizarte-animalia gisa zegokion garapen osoaren kaltetan. Hitz hori erabiltzean normalean jendearen buruan zegoen teknika-mota eskuzko lanbide edo lanbide mekanikoren bat zen, nork bere probetxurako zertua. Baina βανανυσία-ren mespretxu helenikoa hori baino urrutirago joan zen, eta buru helenikoetan mota guztietako profesionalismoaren mespretxua ezarri zuen. Espartarren kontzentrazioa teknika militarrean, adibidez, βανανυσία-ren adierazpena zen. Estatu-politikari handi eta bere herriaren salbatzaileak ere ezin zion agirakari ihes egin bizitzako artearen pertzepzio osorik ez bazuen.

«Jendarte fin eta kultuan heziketa liberala deritzana zuen jendeak iseka egiten zion Temistoklesi (bere dohainik ezagatik) eta defentsa merke samarra egitera eramán ohi zuten, alegia, bera ez zela musikatresna batez ezer egiteko gai, baina bere eskuetan herrialde txiki eta ilun bat utziz gero, bazekiela nola bihurtu herrialde handi eta ospetsu»¹¹⁵.

βανανυσία-ren adibide, agian suabe samar, honen kontra, Haydn, Mozart eta Beethovenen urre-aroko Vienaren irudia jar genezake agian, non agertzen baita enperadore habsburgotar batek eta haren kantzelerariak, atsedeen-orduetan, hari-koartetoak jotzen parte hartzen zutela.

βανανυσία-ren arriskuekiko sentiberatasun heleniko hau beste gizarte batzuetako erakundeetan ere azaldu izan da. Adibidez, judu-zapatuaren eta kristau-igandearen gizarte-funtzioa ondorengoa da: espezializazio profesionalak sorgortu eta itsutu duenak, horrela sei egunez bere bizibidea irabaziz, zazpi egunetatik batean behintzat bere Egileaz oroitzeko eta giza arima integral baten bizitza bizitzeko aukera izatea. Bestalde, ez da kasualitatea, Ingalaterran, joko antolatuak eta beste kirol batzuk gero eta praktikatuagoak izatea industrialismoaren gorakadarekin; zeren eta horrelako kirola ahalegin kontzientea baita industrialismoaren mendean lan-zatiketak dakarren espezializazio arima-suntsitzaileari aurre egiteko ere.

Zoritzarrez, kirolaren bidez bizitza industrialismora egokitze-ko ahalegin hau neurri batean menderatua gertatu da, industrialismoaren espiritua eta erritmoa kirolean bertan ere sartu eta kutsatu egin baitute. Gaur egun Mendebaldeko munduan atleta profesionalak, edozein industri teknikari baino estuago espezializatu eta nabarmenago ordainduak, goren mailako βανανυσία-ren adibide beldurgarriak eskaintzen dituzte. Azterlan honen egileak bi futbol-zelai gogoratzen ditu, Estatu Batuetako bi unibertsitatetako campusetan ikusiak. Haietako bat erabat argiztatua zegoen gauez, egunez bezalaxe, futbolariak manufakturatua ahal izateko etengabeko txandetan. Bestea, berriz, sabaiduna zen, zernahi eguraldi izanda ere praktikatzen jarraitu ahal izateko. Esaten zuten sabaidun zabalerarik handiena zela munduan, eta ikaragarritzko dirutza kostatu zela hura egitea. Inguruan oheak zeuden ilaratan, nekaturiko edo zaurituriko gerrariak hartzeko. Ipar Amerikako bi kirol-zelaiotan, jokalariek ikasle guztien arteko zati infinitesimala baino ez zirela ohartu nintzen; eta esan zidaten, anaia zaharragoek 1918an lubakietara joan zirenean sentitu zuten beldur bertsuaz espero izaten zutela mutil haiek partidu bat jokatzeko proba. Egia esateko, futbol anglosaxoniarrak hura ez zen inola ere jolasa.

Horren antzeko garapena aurkitzen da mundu helenikoaren historian; han, Pindaroren Odetan goresitako garaipen atletikoak

lortu zituzten amateur aristokratikoen ordeztar profesionari-taldeak jarri zituzten; eta Alexandro-osteko aroan, Partiatik Espainiaraino Διονύσου Τεχνῖται («Artista Batuak Mgt.») direlakoek eskaintzen zituzten erakustaldiak oso desberdinak ziren Dionisosen beraren Atenasko teatroan eskainitako ekitaldien aldean, music-hall errebista Erdi Aroko misterio-antzezpenaren aldean bezain desberdinak.

Ez da harritzekoa, gizarte-izugarrikeriek egokitzapenak era txundigarri honetan desafiatzeko dituztenean, filosofoek plan iraultzaileak amestea izugarrikeriak garbitzeko. Platonek, kolapso helenikoaren ondorengo lehen belaunaldian idazten zuelarik, βανανυσία-ren sustraiak moztu nahi ditu bere utopia barne-eskualde batean ezarritik, itsas merkataritzarako erraztasunik gabeko eta edozein ekonomi jardueratarako, mantenu-nekazaritzarako izan ezik, laguntza gutxiko leku batean. Thomas Jeffersonek, zoritxarrez galdu den idealismo iparramerikar baten iturburu nagusiak, amets bera du hemeretzigarren mendearen hasieran. «Nik neure teoriari amore emango banio», idazten du, «Estatu Batuek merkataritzarik edo nabigaziorik ez egitea nahiko nuke, baizik eta Txinaren posizio berean egotea Europari buruz»¹¹⁶ (Txinak itxita izan zituen portuak europar merkataritzaren-tzat, harik eta britainiar armek 1840an zabaltzera behartu zuten arte). Bestalde, Samuel Butler-ek bere erewhoniarrak berariaz eta sistematikoki makinak suntsitzen imajinatzen ditu, hauen esklabotasunari ihes egiteko bide bakartzat.

Zibilizazioaren eragina mimesian

Mimesi ahalmena zaharrengandik aitzindariengana berbideratzea gizarte primitibo bat zibilizazio bihurtzearekin batera ahalmen horren norabidean zertzen den aldaketa da, ikusi dugun bezala; eta sortzaile ez den masa aitzindariak lorturiko maila berrira jasotzea da bistan dagoen helburua. Baina mimesira jotze hau lasterbidea denez, benetakoaren «ordezko merkea», engainagarria gerta daiteke helburuaren lorpena. Masa ez da benetan «santuen elkartasunean» sartzeko gai. Sarriegi gizaki primitibo naturala, *homo integer antiquae virtutis*, «kaleko gizaki» kaskar, *homo vulgaris Northcliffii* edo *homo demoticus Cleonis* bihurtzeraino eraldatzen da. Zibilizazioak mimesian duen eraginak, kasu honetan, jendetza hiritar sasisofistikatuaren izugarrikeria sortzen du, alde askotatik arbaso primitiboak baino kaskarragoa argi eta garbi. Aristofanes Kleonen aurka barregarri geratzearen armaz

borrokatu zen agertoki atikoan, baina agertokitik kanpo Kleonek irabazi zuen. «Kaleko gizaki» kleoniarrek, zeinen agerpena historia heleenikoaren agertokian K.a. bosgarren mendea bukatu baino lehen gizarte-beheraldiaren sintoma ukaezinetako bat baita, azkenean berrerosi egin zuen bere arima nabarmen gaitzetsiz bere gose espirituala asetzen huts egindako kultura, sabela bahekinez betetzea bakarrik lortu baitzuen. Proletalgo disidente bateko ume espirituali itzarri gisa, azkenean bere salbazioa zertu zuen erlijio nagusi baten aurkikuntzaz.

Agian adibide hauek aski dira erakunde zaharrek zibilizazioen kolapsoan jokaturiko papera argitzeko, gizarte-indar berriekin harremanetarako zuten zailtasunagatik edota, bibli hizkeran esanda, ardo berriaren edukiontzi izateko zahagi zaharren desegokitasunagatik.

3.

Sormenaren nemesia: nortasun iragankor baten idolatria

Paperak alderantzikatzea

Orain arte autodeterminazioaren porrotaren bi alderdiren zenbait azterketa egin dugu, dirudienez porrot horri zor zaizkiolarik zibilizazioen kolapsoak. Mimesiaren mekanikotasuna eta erakundeen trantzaiztasuna aztertu ditugu. Gure ikerketaren zati hau bukatzeko sormenaren itxurazko nemesiaren azterketa egingo dugu.

Badirudi zibilizazio baten historian ez litzatekeela oso ohikoa segidako bi erronka edo gehiagori emandako erantzun sortzaileak gutxiengo bakar eta berberak ematea. Izan ere, erronka bati aurre egiten nabarmendu den aldeak argi eta garbi huts egiteko joera izaten du hurrengoari aurre egiten. Giza zoriaren aldakortasun txundigarri hau —eta hala ere, dirudienez, normala— drama atikoan *motif* nagusieta-koa da eta Aristotelesek bere *Poetikan* aztertzen du περιπέτεια edo «paperak alderantzikatze» izenpean. Itun Berriko gai nagusietako bat ere bada.

Itun Berriko dramen Kristo, zeinen epifania Lurrean juduen itxaropen mesianikoaren benetako betekuntza baita, hala ere errefu-

satu egiten du eskriba eta fariseuen eskolak, nahiz eta hauek belau-naldi batzuk lehenago aurre-aurrean egon ziren helenizazioaren aurrerapen arrakastatsuen aurkako juduen errebolta heroikoa gida-tzen. Aurreko krisialdi hartan eskriba eta fariseuek erakutsitako zorroztasun eta zuzentasunak huts egin zien oraingoan garrantzi han-diagoko krisian, eta erantzuten duten juduak «publikanoak eta ema-galduak» dira. Mesias bera «Jentilen Galileatik» etorri zen, eta haren ordeinu-betearazle handiena Tarsoko —Lurralde Aginduaren ohiko mugaz harantzago zegoen hiri helenizatu paganoko— judu bat izan zen. Dramari ikuspegi desberdin samar batetik eta jokaleku zabalago-an begiratzen bazaio, fariseuen papera, Laugarren Ebanjelioan beza-la, judu guztiei aplikatu dakieke, eta publikano eta emagalduen papera jentilei, hauek San Pauloren irakaspena onartzen dutelarik juduek errefusatzeko dutenean.

«Paperak alderantzikatzearen» *motif* bera parabola eta bigarren mailako gorabeheren gaia da Ebanjelioen istorioan. Aberatsaren eta Lazaroren parabolako gaia da, baita fariseu eta publikanoarena ere, samariar onarena apaizaren eta lebitaren aurrean eta seme galduarena bere anaia zahar errespetagarriaren aurrean; eta gai bera agertzen da Jesusen erromatar ehuntariarekin eta sirofeniziar emakumearekin izandako topaketetan. Itun Zahar eta Berria sinopsi bakar batean har-tzen baditugu, Itun Zaharreko Esaturen drama aurkitzen dugu, bere oinordetza-eskubideak Jakoben esku utzita, eta honek Itun Berrian «paperen alderantzikatzean» du erantzuna, Jakoben ondorengoek beren oinordetza-eskubidea uzten baitute Kristo errefusatu. *Motif* hau etengabe agertzen da Jesusen esanetan: «Bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak»; «Lehenengoak azkenengo izan-go dira eta azkenengoak lehenengo»; «Jainkoaren erreinua haur batek bezala onartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko». Eta irakas-pen hori bere eginkizunari aplikatzen dio 118. salmoko txatal bat aipa-tuz: «Etxegileek bazterturiko harria giltzarri gertatu da».

Idea bera dabil literatura helenikoaren obra handi guztietan, eta ὁβρις-ἄτη formulari agertzen da laburtuta: «Harrotasuna izaten da erorikoaren aurretik». Herodotok Xerxes eta Kreso eta Polikratesen bizitzetan azpimarratzen du ikasgaia. Izan ere, haren Historiaren gai osoa Akemenestar Inperioaren harrotasun eta erorikoa dira; eta Tuzididesek, belau-naldi bat geroago idazten duelarik eta itxuraz espi-

ritu objektiboago eta «zientifikoagoaz», askoz zirrargarriago deskribatzen du Atenasen harrotasun eta erorikoa, baztertu egiten baitu «Historiaren aitaren» alderdikeria nabarmena. Apenas den beharrezkoa tragedia atikoaren gai gogokoenak aipatzea, Eskiloren *Agamemnon*-en, Sofoklesen *Edipo* eta *Ajax*-en, edo Euripidesen *Penteo*-n adieraziak. Gainbehera eta eroriko sinikoaren poeta batek ideia bera adierazten du:

*Hanka-puntetan dagoena ez dago irmo;
urratsik luzeenak egiten dituen ez da bizkorren ibiltzen. ...
Egingo duenaz harrotzen denak ez du ezertan arrakastarik
izango;
bere lanaz harrotzen denak ez du ezer iraunkorrik egiten*¹¹⁷.

Horrelakoa da sormenaren nemesia; eta tragedia honen bilbea sarri gertatzen dena bada —eta egia bada atal batean arrakasta izan duen sortzaileari arrakasta hori berori oztopo latz bihurtzen zaiola hurrengo atalean bere sortzaile-papera hartzeko, eta ondorioz zortea «faboritoaren» kontra eta «ezezagunaren» alde dagoela beti—, orduan argi dago hemen zibilizazioen kolapsoen kausa indartsu bat aurkitu dugula azkenean. Ikusten dugu nemesi honek bi eratara eragingo lituzkeela gizarte-kolapsoak. Alde batetik, gerta litekeen edozein erronkaren aurrean sortzaile-papera jokatzeko hautagai posibleen kopurua gutxituko luke, azken erronkari arrakastaz erantzun diotenak kanpo utziko bailituzke. Bestalde, aurreko belaunaldian sortzaile-papera jokatu dutenen deskalifikazio horrek erronka berriari arrakastazko erantzuna eman liezaiokeen edozeinen aurkako oposizioan buru-buruan jarriko lituzke sortzaile ohi horiek beroriek; eta sortzaile ohi horiek, lehenago izan zuten sormenagatik beragatik, orain botere-eta eragin-posizio erabakigarriak hartuta izango dituzte beraiena eta era berean sortzaile berri izan litezkeenena den gizartean. Posizio hauetan jada ez diote gizarteari aurrera egiten lagunduko; «lokartu egingo dira beren arrakastan».

«Arrakastan lokartzearen» jarrera sormenaren nemesiari amore emateko era pasibotzat deskriba daitekeen bitartean, jarrera mental horren negatibotasunak ez du ziurtatzen erru moralik ez dagoenik. Orainari buruzko pasibotasun inozoa iraganarekiko harropuzkeriatik sortzen da, eta harropuzkeria hau idolatriaren bekatua da. Zeren eta idolatria, intelektualki eta moralki itsututa, Sortzailearen ordezt

sorkaria gurtzea dela esan daiteke. Idolatraren beraren pertsonalitatea edo gizartea idolatratzearen forma har dezake erronkaren eta geroa-goko erronkei emandako erantzunaren bidez inoiz gelditzen ez den mugimenduko fase iragankorren batean, hauxe izanik bizirik egotearen mamia; edota erakunde edo teknika partikularren baten idolatriaren forma mugatua har dezake, garai batean idolatrarentzat onuragarria izan zena. Idolatriaren forma desberdin hauek banatuta aztertzea komeni da, eta nortasunaren idolatriatik hasiko gara, honek eskainiko baititu orain aztertu nahi dugun bekatuaren adibiderik argienak. Benetan egia bada

*Gizakiak altxa daitezkeela harmailetan
beren nortasun hildakoetatik goragoko gauzetara,*¹¹⁸

orduan bere nortasun hila ez harmailatzat baizik eta idulkitzat hartzeko okerra egiten duen idolatra bizitzatik urruntzen arituko da, jainko-zale Estilita zutabe bakartiaren gainean bere lagun hurkoen bizitzatik urruntzen den bezain nabarmen.

Agian bidea nahikoa prest dugu orain gai honen argibide historiko batzuk emateko.

Juduak

Nortasun iragankor baten idolatria honen adibide historikorik nabariena Itun berrian azaltzen den juduen errakuntza da. Beraien historiaren aldi batean, Zibilizazio Siriakoaren haurtzaroan hasi eta profeten aroan bukatu zen aldian, Israel eta Judako herriak inguruko herri siriakoen gainetik burua eta sorbaldak altxatu zituen erlijioaren ikuspegi monoteista sortzeagatik. Beren altxor espiritualaz biziki jabeturik eta arrazoiz harrotuta, hazkunde espiritualaren etapa bikain baina iragankor horren idolatrian erori ziren. Benetan parekorik gabeko ulertze espiritualak eman zitzaizkien; baina, absolutua eta betikoa zen egia igarri ondoren, erdiegia erlatibo eta aldi batekoak liluratu zituen. Beren burua konbentzitu zuten Israelek benetako Jainko bakarra aurkitu izanak Israel bera Jainkoaren herri aukeratutzat agertarazi zuela; eta erdiegia honek bultzatuta mementoko goraldi espiritualak, nekez eta lanez lortua, betiraungo zuten hitzarmenez Jainkoak emandako pribilegiotzat hartzeko hutsegite larria egin zuten. Lurpean ezkutatzat maltzurki antzutu zuten talentuaren gainean biraka, Jainkoak Nazaretoko Jesusen etorreran eskaini zuten altxor are handiagoari uko egin zioten.

Israelek amore eman bazion sormenaren nemesiari bere burua «Herri Aukeratutzat» idolatratuz, Atenasek ere nemesi berari eman zion amore bere burua «Helasen hezibidetzat» idolatratuz. Dagoeneko ikusi dugu Atenasek nola irabazi zuen titulu loriatsu horretarako esku-bide iragankorra Solonen garaiazen eta Periklesen garaiazen bitartean zertutako lorpenengatik; baina Atenasek lorturikoaren inperfekzioa titulu hori bere seme bikainak ezarri zion unean bertan nabarmendu zen, edo nabarmendu beharko zen. Periklesek hileta-hitzaldi batean zertu zuen esaldia, Tuzididesen arabera, gerraren lehen urtean hildako atenastarrak goresteko egina, gerra hura zelarik oro har Gizarte Helenikoaren, eta bereziki Atenasen, bizitzan barne-kolapso espiritua-laren kanpo-seinale ikusgarria. Zoritxarreko gerra hura, Solonen eko-nomi iraultzaren arazoetako batek —mundu-ordena heleniko politikoa sortzeko arazoak— bosgarren mendeko atenastarren altuera moralaren mugak gainditzen zituelako sortu zen. K.a. 404an Atenasen porrot militarrek eta bost urte geroago Atenasko demokrazia berrezarriak Sokratesen hilketa judizialaz bere buruari eman zion porrot moral are handiagoak eragin zuten hurrengo belaunaldian Platonek Periklesen Atenas eta ia haren obra guztiak gaitzestea. Hala ere, Platonen kei-nuak, neurri batean harroputza eta beste neurri batean itxurakeria, ez zituen haren herrikideak hunkitu; eta beren hiria «Helasen hezibide» egin zuten atenastar aitzindarien epigonoak hezikaitz agertzeko meto-do maltzuraren bidez galdutako titulua errebindikatzen saiatu ziren, eta sendotasunik gabeko politika hutsalaren bidez hezikaitz zirela era-kusten jarraitu zuten mazedoniar eraginaren garaian Atenasen histo-riaren amaiera garratza arte, Atenas Erromatar Inperioaren probintzi hiri gisa gelditasunezko ilunaldian sartu zelarik orduan.

Gero, mundu helenikoko hiri-estatu libre izandakoetan kultura berria argitu zenean, hazia lur onean ez zen Atenasen erori. Atenastarren eta San Pauloren arteko topaketaz Apostoluen Eginetan emandako kontaktak adierazten du jentilen apostolua ez zela hiriaren giro «akademikoarekiko» sentiberatasunik gabea, bere garaian Oxford helenikoa izana, eta «Marte muinoko» «jakintsuengana» zuzendu zenean ahal zuen guztia egin zuela entzule berezi haiei gustatzeko moduko ikuspegitik gaia planteatzen. Hala ere, narrazioak erakusten du Atenasko predikazioa porrot hutsa izan zela eta, ondoren Greziako

hirietan sorturiko hainbat elizari gutunak bidaltzeko aukera izan zuen arren, sekula, guk dakigunez behintzat, ez zela saiatu bere lumaz konbertitzen ahozko mezuaren aurrean hain itxiak aurkitu zituen atenastar haiek.

Italia

K.a. bosgarren mendeko Atenasek arrazoiz aldarrikatu bazeza-keen «Helasen hezibide» izatea, Mendebaldeko mundu modernoak zuzentasunez saritu ditzake antzeko tituluaz Ipar Italiako hiri-estatuak, Errenazimentuko lorpenetan oinarrituta. Hamabosgarren mendearen azken zatitik hemeretzigarrenaren azken zatira doazen laurehun urteetan gure Mendebaldeko Gizartearen historia aztertzen dugunean, bere eraginkortasun ekonomiko eta politiko modernoa, bere kultura estetiko eta intelektual modernoa bezalaxe, argi eta garbi italiar jatorrikoa dela aurkitzen dugu. Mugimendu moderno hau Mendebaldeko historiaren kontzertuan italiar bulkadak abiarazi zuen, eta bulkada hau Italiak aurreko aroan izandako kulturaren irradiazioa zen. Egia esateko, Mendebaldeko historiaren atal honi ongi dei geniezaioke bere aro «italistikoa», historia helenikoan aro helenistikoa deiturikoaren analogiaz, orduan zabaldu baitzen bosgarren mendeko Atenasen kultura, Alexandroren armaden arrastoari jarraituz, Mediterraneoan kostetatik Akemenestar Inperio murgilduak urruti zuen lehorreko mugaraino¹¹⁹.

Italiaren antzutasun erlatiboa Aro Moderno honetan italiar kulturako Erdi Aroko bihotz eta etxe guztietan nabarmendu zen: Florentzian, Venezian, Milanen, Sienan, Bolognan, Paduan; eta jarraipena, garai moderno honen bukaeran, are ohargarriagoa da agian. Atal honen bukaera aldera Alpeez bestaldeko nazioak gai ziren Erdi Aroko Italiari zor ziotena ordaintzeko. Hemezortzigarren mendetik hemeretzigarrenera igarotzean kultur irradiazio berri baten hasiera ikusi zen Alpeetan zehar, oraingoan kontrako norabidean; eta Alpeez bestaldeko eraginak Italiarantz etortze hau izan zen Italiako *Risorgimento*-aren lehen kausa.

Alpeez bestaldetik Italiak hartu zuen lehen suspergarri politiko indartsua aldi batez Napoleonen Inperioan sartzea izan zen. Lehen suspergarri ekonomiko indartsua merkataritza-bidea berriro irekitzea izan zen Mediterraneoan zehar Indiaraino, Suezeko kanala ireki aurre-

tik gertatua eta Napoleonek Egiptora egindako espedizioak zeharka eragina. Alpeez bestaldeko suspergarri hauek ez zuten, noski, beren eragin osoa zertu italiar eragilei komunikatu zitzaizkien arte; baina *Risorgimento*-ari uzta atera zioten Italiako indar sortzaileak ez ziren erne jada Erdi Aroko italiar kulturaren uzta emana zuen Italiako ezein sorotan.

Ekonomiaren arloan, adibidez, Mendebaldeko itsas merkataritza modernoan bere kabuz partaidetza irabazi zuen Italiako lehen portua ez zen izan Venezia, Genoa edo Pisa, Livorno baizik; eta Livorno Toskanako duke handi batek Errenazimentu ostean sortu zuen, han Espainia eta Portugaleko kriptojuduen kolonia bat ezarria zuelarik. Nahiz eta Livorno Pisatik milia gutxitara kokatua egon, haren aberastasuna Mendebaldeko Mediterraneoaren beste muturreko errefuxiatu menderagaitz haiek egin zuten eta ez Erdi Aroko pisatar nabigatzaileen ondorengo alferrek.

Politikaren arloan Italiaren batasuna jatorriz Alpeez bestaldeko printzerri baten lorpena izan zen, hamaikagarren mendea baino lehen batere ezarri gabe zegoena Alpeen italiar aldean, frantses hizkuntzako Val d'Aostaz harantzago. Saboiako Etxearen agintepeko lurren grabitate-zentroa ez zen Alpeen italiar aldean ezarri Italiako hiri-estatuen askatasuna eta, gero, italiar Errenazimentuaren jeinua hurrenez hurren desagertu ziren arte, eta aro handian lehen mailako garrantzia izandako italiar hiririk ez zen Sardiniako erregearen agintepean jarri — horrela deitzen zitzaion orain Saboiako Etxearen agintepeko lurren gobernariari — Napoleonen gerrak bukatu eta Genoa eskuratu arte. Saboiarren ethosa garai hartan hain zen arrotza hiri-estatuaren tradizioarekiko, ezen genoarrak suminduta egon baitziren Bere Sardinia Maiestatearen gobernupean 1848ra arte, orduan dinastiak jarraitzaileak irabazi zituelarik Italiako penintsularen alde guztietan mugimendu nazionalistaren buru jarrita.

1848an Lonbardian eta Venezian zegoen austriar erregimena Piemonteko inbasio batek mehatxatu zuen eta aldi berean baita Venezian eta Milanen eta austriar probintzien barruko beste italiar hiri batzuetan izandako altxamenduek ere; eta interesgarria da gogoeta egitea Austriaren aurkako bi mugimendu horien garrantzi historikoaren desberdintasunaz, garai berean gertatuak eta ofizialki italiar askapenaren kausa komunean emandako kolpetzat agertzen direnak. Venezia

eta Milango altxamenduak askatasunaren aldeko kolpeak izan ziren, zalantzarik gabe; baina sortarazi zituen askatasunaren ikuspegia Erdi Aroko iraganaren oroitzapena izan zen. Hiri haiek, espirituz, hohens-
taufen-tarren aurkako Erdi Aroko borrokei ekin zieten berriro. Haien porrotekin konparatuta, heroikoak zalantzarik gabe, piemontearrek 1848-9an izandako jarduera militarra ez zen batere goresgarria izan, eta armistizio zuhur bat arduragabeki haustea Novarako porrot lotsa-
garriaz zigortu zitzairen. Baina piemontearren zoritxar hau emankorra-
goa gertatu zen Italiarentzat Venezia eta Milango defentsa loriatsua baino; zeren eta piemontearren armadak bizirik iraun baitzuen hamar urte geroago (Frantziaren laguntza oso garrantzitsuarekin) Magentan bere mendekua ziurtatzeko, eta ingelesen tankerako konstituzio parla-
mentario modernoa, Karlos Alberto erregeak 1848an emana, Italia batuaren konstituzio bihurtu zen 1860an. Bestalde, Milanek eta Veneziak 1848an zertutako balentria loriatsuak ez ziren errepikatu; harrezkero, antzinako hiri horiek pasiboki gelditu ziren berriro ezarri-
tako austriar uztarpean, eta beren azken askapena piemontearren arma eta diplomaziaren esku utzi zuten.

Kontraste hauen azalpena zera izan liteke: Veneziak eta Milanek 1848an zertutako balentriek porrot egin behar zutela nahita-
ez, atzetik bultza egiten zien indar espirituala ez zelako nazionalismo modernoa, Erdi Aroko hiri-estatu bezala beren nortasun hildakoen idolatria baizik. Hemeretzigarren mendeko veneziarrak, 1848an Manin-en deiari erantzun ziotenak, Veneziaren alde bakarrik borroka-
tzen ziren; Veneziako errepublika zaharkitua berriro ezartzeko saia-
tzen ziren, ez Italia batua sortzen laguntzeko. Piemontearrek, bestal-
de, ez zuten nortasun iragankor zaharkitua idolatratzeko tentaziorik, haien iraganak ez baitzuen idolatriagai izateko moduko nortasunik eskaintzen.

Desberdintasuna Manin eta Cavour-en arteko aldean laburbil-
tzen da: Manin veneziar-veneziarra zen, hamalagarren mendean oso gustura sentituko zatekeena. Cavour, ama-hizkuntza frantsesa eta ikus-
pegi viktoriarra zituela, hamalagarren mendeko hiri-estatu italiar batean Alpeez bestaldeko Peel eta Thiers garaikideak bezain kanpo aurkituko zatekeen bere bizi-girotik, baina oso probetxu ona atera zie-
zaiekeen parlamentu-politika eta diplomaziarako zituen dohainei, baita nekazaritza zientifiko eta trenbideen eraikuntzarako zuen interesari

ere, patuak lur-jabe izateko hemeretzigarren mendeko Ingalaterran edo Frantzian aukeratu izan balu eta ez mende bereko Italian.

Honen arabera, Italiako *Risorgimento*-an 1848-9ko altxamen-
duak jokaturiko papera funtsean negatiboa izan zen, eta haren porrota
balio handikoa eta, benetan, ezinbesteko atarikoa izan zen 1859-70eko
arrakastetarako. 1848an Erdi Aroko Milan eta Veneziako idolo zaha-
rrak hain jipoituak eta itxuragabetuak gelditu zirenez, azkenean galdu
egin zuten beren zoritxarreko agintea gurtzaileen arimetan; eta iraga-
naren desagertze berantiar honek bidea garbi utzi zuen Erdi Aroko
oroitzapenak oztopatu gabeko italiar estatu bakarraren buruzagitza
konstruktiborako.

Hego Karolina

Gure azterketa Mundu Zaharretik Berrira zabaltzen badugu,
sormenaren nemesiaren adibide paraleloa aurkituko dugu Estatu
Batuen historian. «Hegoalde Zaharreko» hainbat estaturen —1861-
5eko gerra zibilean Konfederazioko kide ziren eta beronen porrotean
inplikaturikoen— gerraosteko historien azterketa konparatua egiten
badugu, desberdintasun nabarmena aurkituko dugu haien artean, hon-
damendi komunaz geroztik bakoitza zenbateraino suspertu den kon-
tuan hartzen badugu; eta ohartuko gara desberdintasun hau juxtu alde-
rantzizkoa dela gerra zibilaren aurreko garaian estatu haiek beraiek
bereizi zituen beste desberdintasun nabarmen baten aldean.

Hogeigarren mendeko bosgarren hamarkadan atzerriko beha-
tzaile batek Hegoalde Zaharra bisitatuz gero, ziur aski Virginia eta
Hego Karolina aukeratuko zituzkeen suspertzeko seinale edo itxaro-
pen txikiena zuten bi estatu aukeratzekotan; eta harrituta geratuko
zatekeen haiena bezalako gizarte-hondamendi handiaren ondorioak
hain zurrun eta hain denbora luzean irauten ikusita. Estatu haietan
hondamendi haren oroitzapena kolpea atzo hartu balute bezain bizia
da gure belaunaldian; eta «gerrak» gerra zibil hura esan nahi du
Virginia eta Hego Karolinako aho askotan, ordudanik beste bi gerra
beldurgarri gertatu badira ere. Egia esan, hogeigarren mendeko
Virginiak edo Hego Karolinak denbora geldiarazi duen aztikeria baten
mende bizi den herrialdearen inpresio mingarria eragiten du. Inpresio
hau areagotu egingo du haien artean dagoen estatua ikusi eta suma-
tzen den aldeak. Ipar Karolinan bisitariak industriak eguneratuta aur-

kituko ditu, perretxikoak bezala sortzen diren unibertsitateak, eta Iparraldeko «yankee»ekin lotzen ikasi duen espiritu presati eta oldartsuaren arnasa. Halaber, gerraosteko industriari kementsu eta arrakastatsuez gain, Ipar Karolinak hogeigarren mendean Walter Page bezain estatu-politikari handia sortarazi duela ere konturatuko da.

Zerk esplikatzen du Ipar Karolinan udaberrian bezala bizia kimu-berritzen egotea, auzokoen bizitzak oraindik «nahigabearen negu» bukaezinean murgildua dirudien bitartean? Argibide bila iragenera jotzen badugu, gure harridura memento z areagotu egingo da ohartzean, gerra zibilera arte, Ipar Karolina sozialki antzua izan zen bitartean, Virginiak eta Hego Karolinak aparteko bizitasun-aldiak izan zituztela. Amerikako Batasunaren historiako lehen berrogei urteetan Virginia izan zen, konparaziorik gabe, estatu gidaria, lehen bost lehen-dakarietako lau sortarazi zituen, baita John Marshall ere, beste inork baino hobeto «paper-zatiko» anbiguasunak, Filadelfiako Konbentzioak idatziak, Estatu Batuetako bizitzaren errealitatera egokitu zituen. Eta 1825az geroztik, Virginia atzera gelditu bazen, Hego Karolinak, Calhoun-en gidaritzapean, gerra zibilean naufragioa jasan zuten ubidera eraman zituen Hegoaldeko estatuak. Denbora horretan guztian, ezer gutxi entzun zen Ipar Karolinaz. Lurzoru pobrea zuen eta itsas porturik ez. Laborari txiki pobretuak, gehienak Virginian edo Hego Karolinan aurrera atera ezinik joandako kolonoen ondorengoak, ezin ziren konparatu Virginiako lur-jabe handi edo Hego Karolinako kotoi-landatzaileekin.

Ipar Karolinak bere alde bietako auzokoekin konparatuta lehenago izandako porrota erraz esplika daiteke; baina nola esplika daiteke hauen ondorengo porrota eta haren ondorego arrakasta? Azalpena zera da, Ipar Karolina, Piemonte bezalaxe, ez zuela kokildu iraganaldi loriatsuaren idolatriak; konparazioz ez zuen askorik galdu gerra zibileko porrotaren ondorioz, konparazioz ez zeukalako zer galdu askorik ere; eta, altuera txikiagotik erori zenez, askoz errazago gainditu zuen kolpea.

Argi berria arazo zaharren gain

Sormenaren nemesiaren adibide hauek argi berria ematen diote Azterlan honetan lehenago gure arreta bereganatu duen fenomeno bati, guk «lurzoru berriaren estimulua» deitu dugunari; feno-

meno hau agertu baita berriro aurreko adibideetan: galilearrak eta jentilak judeatarrekin konparatuta, Piemonte Milan eta Veneziarekin konparatuta, eta Ipar Karolina ipar eta hegoaldeko auzokoekin konparatuta; eta ikerketa bera egin izan bagenu Atenasen kasuan, erakutsi ahal izango genukeen K.a. hirugarren eta bigarren mendeko greziarrak ez Atikan baizik eta Akaian egon zirela beren hiri-estatuak federatzeko arazo korapilatsua konpontzetik hurbilen, mundu heleniko hedatuaren ertzetan sortu ziren potentzia handien, goranahiko erraldioen, aurka beren independentziari eusteko ahalegin hutseginean. Orain ikusten dugu ezin zaiola beti edo erabat lurzoru berriaren emankortasun handiagoari egotzi lur berria goldatzeko estimulua. Arrazoi negatiboa dago positiboa bezala lurzoru berria emankor izateko, hots, libre dagoela erauztezin eta jada probetxugarri ez diren tradizio eta oroitzapenen zamatik.

Beste gizarte-fenomeno baten arrazoia ere ikus genezake —gutxiengo sortzailearen joera gutxiengo menderatzaile bihurtzeko—, Azterlan honetan lehenago gizarte-kolapso eta desintegrazioaren sintoma nabarmen bailitzan bakartu duguna. Gutxiengo sortzailea ez egon arren predestinatua aldaketa hau okerrenerantz jasateko, sortzaileak aldeztu aurretiko joera du norabide horri jarraitzeko *ex officio creativitat*is. Sormenaren dohaina, hasieran jokoan sarraraztean erronkari erantzun arrakastatsua ematen diona, gero bere aldetik erronka berri eta paregabeki ikaragarria bihurtzen da talentu horretatik probetxurik handiena atera duen hartzailearentzat.

4.

Sormenaren nemesia: erakunde iragankor baten idolatria

Hiri-estatu helenikoa

Gizarte Helenikoaren kolapso eta desintegrazioan erakunde horren idolatriak jokaturiko papera aztertzean —hain distiratsuki arrakastatsua bere mugen barnean, baina aldi berean iragankorra, giza kreazio guztiak bezala— bi egoera desberdin bereizi beharko ditugu,

hauetan idoloa behaztopa-harri izan zelarik gizarte-arazo baten konponbidean.

Bi arazoetako lehena eta larriena dagoeneko beste testuinguru batean aztertu dugu eta, beraz, orain labur jorra dezakegu. Solonen ekonomi iraultza deitu dugunak, bere korolarioetako bat bezala, mundu helenikoaren nolabaiteko federazio politikoa eskatzen zuen. Hau lortzeko Atenasek egindako ahaleginak huts egin zuen, eta Gizarte Helenikoaren kolapso gisa diagnostikatu duguna izan zen emaitza. Garbi dago hiri-estatuaren subiranotasunaren behaztopa-harria gainditzeko inplikaturiko guztien ezintasuna izan zela porrotaren kausa. Baina arazo saihestezin eta nagusi hau konpondu gabe utzi zen bitartean, haren orpoz orpo bigarren mailako arazo bat sortu zen, gutxiengo menderatzaile helenikoak berak eragina, K.a. laugarren mendetik hirugarrenera pasatzean historia helenikoa bigarren ataletik hirugarrenera igaro zenean.

Trantsizio honen kanpo-seinale nagusia bat-bateko hazkundera izan zen bizitza helenikoaren eskala materialean. Ordu arte itsas mundua izana, Mediterraneoko arroaren kostetara mugatua, lehorrez Dardaneloetatik Indiaraino hedatu zen eta Olinpotik eta Apeninoetatik Danubio eta Rhineraino. Bere antolaketa barruko estatuen artean legea eta ordena sortzeko arazo espirituala konpondu gabe neurri hauetaraino hazi zen gizarte batean hiri-estatu subiranoa hain nanotua zegoenez, ez zen jadanik bizitza politikoan unitate erabilgarria. Hau ez zen berez ezbehar bat izan; izan ere, parroki subiranotasunaren tradiziozko forma heleniko honen heriotza zerutik etorritako abagunetzat har zitekeen parroki subiranotasunaren zama gainetik erabat astintzeko. Alexandro bizi izan balitz Zenonekin eta Epikurorekin bat egiteko, pentsa daiteke greziarrek arrakasta izango zuketela hiri-estatutik *Cosmopolis*-era zuzenean salto egiten; eta kasu honetan Gizarte Helenikoak sorkuntza-bizitza berria hasiko zukeen. Baina Alexandroren heriotza goiztiarrak haren ondorengoen mende utzi zuen mundua, eta borrokan ziren Mazedoniako gerra-jaunen lehia orekatuek bizirik eutsi zioten parroki subiranotasunaren erakundeari Alexandrok hasitako aro berrian. Baina bizitza helenikoaren eskala material berrian parroki subiranotasuna baldintza batez bakarrik salba zitekeen. Hiri-estatu burujabeak tamaina handiagoko estatu berriei egin behar zien bide.

Estatu berri hauek arrakastaz garatu ziren, baina, Erromak K.a. 220 eta 168 bitartean lehiakide guztiei emandako kolpe-sail erabaki-garriaren ondorioz, estatu horien kopurua asko izatetik bakarrera murriztu zen bat-batean. Gizarte Helenikoa, borondatezko federazioaren aukera galdua zuena, estatu unibertsal baten lokarrietan harrapatua geratu zen orain. Baina guk orain dugun helbururako punturik interesgarriena zera da: Periklesen Atenas menderatu zuen erronkari erromatarrek emandako erantzuna, eta aurretiaz beste esku batzuek horretarako egindako ekarpen guztiak, Gizarte Helenikoan hiri-estatuaren subiranotasunaren idoloarekin erabat lelotuta ez zeuden kideek egin zituztela.

Erromatar estatuaren egiturazko printzipioa erabat bateraezina zen horrelako idolatriarekin; zeren eta egiturazko printzipio hori «hiritartasun bikoitza» baitzen, hiritarraren atxikimendua bera jaio zen tokiko hiri-estatuaren eta Erromak sorturiko eraketa politiko zabala-goaren artean zatitzen zuena. Konpromiso sortzaile hau, hiri-estatuaren idolatriak hiritarren bihotz-buruetan ahalmen itogarria lortu ez zuen komunitateetan bakarrik zen psikologikoki posible.

Mundu helenikoan izandako parroki subiranotasunaren arazoaren eta gaur egungo geure munduan dagoen pareko arazoaren arteko analogia ez dago azpimarratu beharrik hemen. Baina zera esan behar da. Historia helenikoak erakusten duenez, gaur egun Mendebaldean dugun arazoak bere konponbidea nazio-subiranotasunaren erakundea idolatriazko gurtzagai bihurtu ez den lekuren batean edo batzuetan izango duela espero genezake, inolako konponbiderik izaten badu, behintzat. Ezin dugu espero izan salbazioa Mendebaldeko Europako nazio-estatu historikoetatik etortzen ikustetik, non pentsamendu eta sentimendu politiko guztiak parroki subiranotasunari, iraganaldi loriatsuaren ikur aintzatetsiari, loturik baitaude. Gure gizarteak ezin du espero izan epimetear ingurune psikologiko honetan nazioarteko elkartze-forma berriren baten beharrezko asmakuntza egitea, honek parroki subiranotasuna lege nagusiago baten diziplinapean jarri eta horrela saihestuko diolakoan bestela kolpe erabakigarri batez ezinbestean etorriko litzaiokeen suntsiduraren zorigaitza. Aurkikuntza hori inoiz egiten bada, eta esperimentazio politikoaren laborategiren batean gauzatuta ikustekotan, *British Commonwealth of Nations* bezalako gorputz politikoren batean izan-

go da, honek Europako nazio-estatu zahar baten esperientzia itsasoz bestaldeko hainbat herrialde berriren plastikotasunarekin elkartu baitu; edota Sobietar Batasuna bezalako eraketa politikoren batean izango da, Mendebaldekoak ez diren hainbat herri Mendebaldeko ideia iraultzaile batean oinarrituriko eta guztiz berria den elkarte batean antolatu nahian ari baita. Sobietar Batasunean Seleukotarren Inperioaren analogia aurki genezake, eta Britainiar Inperioan Erromatar Errepublikarena. Gorputz politiko hauek edo antzekoek sortuko ote dute azkenean gure Mendebaldeko kosmos modernoaren ertzetan egitura politikoaren formaren bat, hasitako nazioarteko antolaketari —beranduegi izan baino lehen— mami gehiago emateko egoeran jarriko gaituena, orain bigarren aldiz eraiki nahian ari garelarik gerra arteko gure lehen ahaleginaren —Nazioen Ligaren— orde? Ezin esan; baina egon gaitezke ia ziur, aitzindari hauek huts egiten badute, lan hori sekula ez dutela egingo nazio-subiranotasunaren idoloaren aldeko petrifikatuek.

Ekialdeko Erromatar Inperioa

Gizarteari atsekabea ekarriz erakunde batekiko egindako idolatriaren kasu klasikoa Kristandade Ortodoxoak Erromatar Inperioaren arimarekiko izan zuen lilura kaltegarria da, antzinako erakunde horrek bere zeregin historikoa bete eta bere bizialdi naturala osatua zuelarik bere guraso izandako Gizarte Helenikoaren estatu unibertsal gisa.

Azaletik, Ekialdeko Erromatar Inperioak etengabeko jarraitasunaren itxura agertzen du erakunde bat eta berbera izan balitz bezala Konstantinok Konstantinopla sortu zuenetik otomandar turkiarrek, hamaika mende baino geroago, K.o. 1453an hiri inperiala konkistatu zuten arte, edo edozein kasutan ere 1204an Konstantinopla hartu zuten latindar gurutzatuek Ekialdeko Erromatar Inperioaren gobernua aldi baterako bota zuten arte. Baina errealitatearen arabera goa litzateke bi erakunde desberdin bereiztea, denbora-dimentsioan bata besteagandik tarteko interregno batek banatuta. Jatorrizko Erromatar Inperioa, estatu unibertsal helenikotzat balio izana, zalantzarik gabe bukaerara iritsi zen Mendebaldean Goiz Erdi Aroan: *de facto* laugarren mendetik bosgarrenera igarotzean eta ofizialki K.o. 476an, orduan kendu baitzuen Italiako azken enperadore txotxongiloa gerra-jaun barbaro batek, eta honek aurrerantzean Konstantinoplako enpe-

radorearen izenean zertu zuen aginpidea. Agian ez da hain erraz onartuko patu bera izan zuela jatorrizko Erromatar Inperioak Ekialdean ere, Goiz Erdi Aroa bukatu baino lehen. Haren deuseztapena Justinianoren erregealdi neketsu eta hondagarriak K.o. 565ean izandako amaierarekin pareka daiteke. Ekialdean mende eta erdiko interregnoak jarraitu zion hari, eta honekin ez dugu esan nahi denboraldi horretan ez zenik egon pertsonarik erromatar enperadore tituluekin Konstantinoplatik agindu edo agintzen saiatu ez zenik, baizik eta hau deuseztapen-eta-inkubazio garaia izan zela, hildako gizarte baten hondarrak garbitu eta ondorengoaren oinarriak jarri zirenekoa. Horren ondoren, hala ere, zortzigarren mendearen lehen erdian, hildako Erromatar Inperioaren espiritua ekarri zuen gogora Leon Isauriarraren jeinuak. Historia kristau ortodoxoaren lehen atalaren irakurketa honetan Leon Isauriarra Karlomagno arrakastatsua izan zen zoritxarrez; edota, alderantziz, Karlomagno arrakastarik gabeko Leon Isauriarra izan zen probidentzialki. Karlomagnoaren porrotak aukera eman zuen Mendebaldeko Kristau Eliza eta Mendebaldeko parroki estatuen galaxia bat Erdi Aroan garatzeko, ezagun zaizkigun bideetatik. Leonen arrakastak, berpiztutako estatu unibertsalaren soineko estua ipini zuen gogor gizarte-gorputz kristau ortodoxoaren gainean, gizarte jaio berri honek gorputz-atalak erabiltzen ikasi baino lehen ia. Baina emaitzean dagoen alde honek ez du helburu-desberdintasunik adierazten, zeren eta Karlomagno eta Leon biak baitziren erakunde iragankor eta zakarkitu beraren epimetear gurtzaileak.

Zeri egotzi behar diogu Kristandade Ortodoxoak Mendebaldeari buruz izandako zoritxarreko nagusitasun goiztiarra konstruktibitate politikoa? Faktore garrantzitsu bat, zalantzarik gabe, bi Kristandade hauen gain arabiar musulmanen erasoak aldi berean eginitako presio-mailaren desberdintasuna izan zen. Arabiarrek, urrutiko Mendebaldearen gain egindako erasoan, Ipar Afrikan eta Espainian galduriko agente koloniala Gizarte Siriakoarentzat berreskuratzen jaurti zuten beren gezia. Pirinioak gurutzatu eta Mendebaldeko Gizarte jaio berriaren bihotzari erasotzen hasi zirenerako, jada akitua zen haien ofentsibaren indarra; eta Mediterraneoaren hego eta mendebaldeko ertzean egin zuten lasterketa basatiak Tours-era¹²⁰ hurbildu zituenean austrasiar ezkutu-hesiaren kontrara, haien ezpatakada desbideratu egin zen itu sendoari kalterik egin gabe. Hala ere, erasotzai-

le nekatuaren gaineko garaipen pasibo hau aski izan zen austrasiar dinastiaren zori ona gauzatzeko. K.a. 732an Toursen irabazitako ospesak markatu zuen Austrasia Mendebaldeko Kristandadeko potentzia garatu gabeen artean buruzagi izateko. Arabiar altzairuaren inpaktu ahul samar hau gai izan bazen garralditxo karolinjioa pizteko, ez da harritzekoa Ekialdeko Erromatar Inperioaren egitura sendoa Kristandade Ortodoxoan sortzea, Kristandade honek erasotzaile bera-rengandik jasaten zuen eraso askoz bortitzago eta askoz iraupen luze-agokoari aurre egiteko.

Arrazoi honengatik eta beste batzuegatik¹²¹ Leon Isauriarrak eta haren ondorengoek arrakasta izan zuten helburua lortzen, eta helburu hartara hurbildu ere ez ziren egin Mendebaldean Karlomagno edo Oton I.a edo Enrike III.a aita santuaren onespenezekin ere, ezta *a fortiori* aita santuaren aurkakotasuna izan zuten azken enperadoreak ere. Ekialdeko enperadoreek, beren agindupeko lurretan, Eliza estatu-departamentu bihurtu zuten eta patriarka ekumenikoa eliz arazoetarako idazkariorde modukoa, honela berreskuratuz Elizaren eta Estatuaren arteko harremana, Konstantinok ezarri eta haren ondorengoek Justinianoganaino iraunarazia. Lorpen honen ondorioa bi erataragertu zen, bata orokorra eta bestea partikularra.

Ondorio orokorra bizitza kristau ortodoxoan aniztasun eta moldagarritsunerako, esperimentazio eta sormenerako joerak gerarazi eta antzutzera izan zen; eta egindako kaltea, Mendebaldeko senide-zibilizazioak izandako lorpenik nabarmenenetako batzuei behatuz neur dezakegu gutxi gorabehera, Kristandade Ortodoxoan baliokiderik ez dutenak, alegia. Historia kristau ortodoxoan ez dugu aurkitzen Hildebrandoren aitasantutzaren pareko ezer; gainera, unibertsitate burujabe eta hiri-estatu burujabeak ez sortu eta hedatu izana ere sentitzen dugu.

Ondorio partikularra: estatu «barbaro» burujabeen existentzia jasateko gogo falta setatia gobernu inperial birgorpuztuaren aldetik, beronek ordezkatzan zuen zibilizazioa hedaturiko eremuaren barruan. Intolerantzia politiko honek hamargarren mendeko erromatar-bulgarriar gerrak eragin zituen, eta haietan Ekialdeko Erromatar Inperioak, gaingiroki garaile izan arren, zauri sendaezinak jasan zituen; eta, dagoeneko beste nonbait esan dugun bezala, gerra haiek Gizarte Kristau Ortodoxoaren kolapsoa eragin zuten.

Erregeak, Parlamentuak eta Burokraziak

Mota bateko edo besteko estatuak, hiri-estatuak edo inperioak, ez dira idolatriazko gurtza erakarri duten erakunde politiko bakarrik. Antzeko ohoreak eman zaizkie, antzeko ondorioekin, Estatuko agente subiranoari —«jainkozko» erregeari edo «ahalgutzidun» parlamentuari— edo baita kasta edo klase edo lanbideren bati, estaturen baten bizitza halakoaren trebetasun edo balentrien mende dagoela pentsatu denean.

Gizaki batean gorpuzturiko subiranotasun politikoaren idolatriaren adibide klasiko bat Gizarte Egipziakoak eskaintzen du «Erresuma Zaharraren» garaian. Beste zerbaiti loturik ikusi dugu jadanik Erresuma Batu Egipziakoan subiranoek jainko-ohoreak onartzea, edo ordainaraztea, eginkizun handiago baterako deiari eginiko «uko handiaren» sintoma izan zela, historia egipziakoan izandako bigarren erronkari erantzuten zoritxarreko porrota, eta porrot honek eramane zuela Zibilizazio Egipziakoa gaztaro goiztiarra moztu zion kolapso bizkorrera. Giza idoloen serie honek bizitza egipziakoan ezarri zuen zama zanpagarria oso ongi sinbolizaturik dago piramideetan, mendekoen lan behartuak eraiki zituenak Piramide-eragileak magikoki hilezko bihurtzeko. Gizarte osoaren intereserako ingurune fisikoaren gain kontrola zabaltzera zuzendu beharreko trebetasuna, kapitala eta lana alferrik galdu ziren bide idolatra honetatik.

Gizaki batean gorpuzturiko subiranotasun politikoaren idolatria hau beste alde batzuetan ere adibideak dituen aberrazioa da. Geure Mendebaldeko historia modernoan antzekorik bilatzen badugu, erraz bereizten dugu Ra-ren errege- seme baten bertsio arrunta Frantziako *roi soleil* Luis XIV.aren. Mendebaldeko Eguzki Errege honen jauregiak Versaillesen Gizeh-ko piramideek Egiptoko lurraldean bezainbat pisatu zuen Frantziako lurraldean. «L'Etat, c'est moi» Keops-ek esan zezakeen eta «Après moi le déluge» Pepi II.ak. Baina agian Mendebaldeko mundu modernoak botere subirano baten idolatriari buruz ematen duen adibiderik interesgarriena, oraindik historikoki epai ezin daitekeen bat da.

Westminsterren, «Parlamentuen amaren» apoteosian, idolatriagai ez da gizaki bat, batzorde bat baizik. Batzordeen monotonia sendagaitzak gizarte-tradizio moderno ingelesaren praktikotasun setatiarekin elkartuta Parlamentuaren idolatria honi zentzuzko mugen

barruan eutsi dio; eta ingeles batek munduari 1938an begiratzuz gero, esan zezakeen bere jainko politikoaganako zaletasun neurritsua esku-zabalki saritua ari zela gertatzen. «Parlamentuen amari» bere leialtasuna gorde zion herrialdea, ez al zegoen egoera hobean beste jainko batzuen atzetik prostituitu ziren auzokoak baino? Kontinenteko Hamar Tribu Galduek, aurkitu al zuten lasaitasun edo oparotasunik duce eta führer eta komisario arrotzen lausengu sukartsuan? Hala ere, eta aldi berean, onartu beharko luke gobernu parlamentarioaren antzinako uharte-erakundearen kimu kontinental berriak kume gaixokak suertatu direla, gizadiaren belaunaldi bizian britainiarra ez den gehiengoari salbazio politikoa ekartzeko ezgauza, eta diktaduren izurri gerra-sortzailearen aurka tinko eusteko gaitasungabeak.

Agian egia zera da, Westminsterreko Parlamentuaren ezaugarriak, ingelesaren begirunea eta atxikimendua bereganatzeko sekretuak, beste horrenbeste behaztopa-harri direla erakunde ingeles benegarri hori munduarentzako panazea politiko bihurtzeko bidean. Agian, dagoeneko aipatu dugun legearen arabera —hots, erronka bati arrakastaz erantzuten diotenak ez daudela ongi kokatuta hurrengoari arrakastaz erantzuteko—, Westminsterreko Parlamentuak Erdi Aroa baino luzeago irauten izandako arrakasta paregabeak, orain bukatutiriko Aro «Modernoaren» (edo Garai batean Modernoaren) eskakizuntara moldatuz, zailago bihurtuko du beste eraldaketa sortzaile bat lortzea guk orain gainean dugun Aro Postmodernoaren erronkari erantzuteko.

Parlamentuaren egitura aztertzen badugu, funtsean toki-barrutien ordezkarien biltzarra dela ohartuko gara. Hauxe da, hain zuzen, bere jatorriaren data eta lekutik esperoko genukeena; zeren eta Erdi Aroko mendebaldar munduko erresuma bakoitza baserri-komunitateen multzo bat baitzen, hiri txikiak tartekatuta. Horrelako eraketa politikoan, gizarte- eta ekonomi xedeetarako talde esanguratsua auzoa zen; eta honela eraturiko gizartean talde geografikoa zen antolaketa politikoaren berezko unitatea ere. Baina ordezkaritza parlamentarioaren Erdi Aroko oinarri hauek industrialismoaren eraginak hondatu egin ditu. Gaur egun lokaltasunaren loturak bere esanahia galdu du xede politikoetarako, baita beste gehienetarako ere; eta gure belaunaldiko boto-emaile ingelesari galdetzen badiogu zein duen bere auzokoa, ziur aski erantzungo du «trenbideko lankidea edo meategiko lan-

kidea, nonahi bizi delarik Land's End-etik John o'Groats-era bitartean¹²²». Benetako hautes-barrutiak tokizkoa izateari utzi dio eta lanbi-deari buruzkoa bihurtu da. Baina ordezkaritza-ren lanbide-oinarria *terra incognita* konstituzionala da, «Parlamentuen amak» bere zahartzaro erosoan ikertzeko asmorik ez duena.

Honi guztiari, zalantzarik gabe, Parlamentuaren hogeigarren mendeko miresle ingelesak *solvitur ambulando* batez erantzun diezaioke zuzenki. Abstraktuan onartuko du hamahirugarren mendeko ordezkaritza-sistema ez dela egokia hogeigarren mendeko komunitatearentzat, baina desagokitasun teoriko horrek dirudienez aski ongi funtzionatzen duela adieraziko du. «Guk, ingelesok», esango du, «eratu ditugun erakundeekin hain eroso sentitzen garenez, geure herrialdean eta geure artean, edozein egoeratan funtzionaraz diezaiekegu. Atzerritar hauek, noski...» eta bizkarra jasoko du.

Gerta liteke bere ondare politikoan duen uste onak hori justifikatzen jarraitzea, «legerik gabeko arraza kaskarragoen» harriduraz, horiek garai batean ustez beren panazea politikoa zena irrikaz irentsi eta gero bortizki errefusatu zutelarik indigestio latza pairatu ondoren. Baina, arrazoi beragatik, badirudi Ingalaterrak ez duela gaindituko hamazazpigarren mendeko balentria, aro berriak eskatzen dituen erakunde politiko berrien sortzaile bigarren aldiz bihurtuz. Gauza berri bat aurkitu behar denean, bi bide bakarrik daude aurkitzeko, hots, sortuntza edo mimesia; eta mimesia ezin da jokoan sartu norbaitek ekingiza sortzaileraren bat zertu arte, lagunak imita dezaten. Gure Mendebaldeko historiaren laugarren atalean, gure garaian hasi den honetan, nor izango da sortzaile politiko berria? Une honetan ez dugu sari hau jasotzeko hautagai partikular baten aldeko seinalerik ikusten; baina iragarri dezakegu konfiantza pixka batez sortzaile politiko berria ez dela izango «Parlamentuen amaren» gurtzaileetako inor.

Idolo instituzionalen azterketa hau kasta eta klase eta lanbide- en idolatriazko gurtzari begiratu bat emanez buka genezake; eta hemen badugu zerbait aipatzeko modukoa. Zibilizazio geraraziak aztertzerakoan bi zibilizazioekin —espartarrekin eta osmanliarrekin— topo egin dugu, zeinetan arkuaren giltzarria kasta bat baitzen, ia idolo korporatibo edo Leviatan jainkotua zena. Kasta bat idolatratzeko aberrazioa zibilizazioaren hazkundera gerarazteko gai bada, bere kolapsoa eragiteko ere gai izango da; eta gako honekin eskuan Gizarte

Egipziakoaren kolapsoa aztertzen badugu berriro, ohartuko gara «jainko» erregea ez zela izan «Erresuma Zaharreko» egiptoar nekazarien bizkarrean pisatu zuen idolatriazko zama bakarra. Letratuen burokraziaren zama ere jasan behar izan zuten.

Egia esateko, errege jainkotuak idazkari eskolatuak eskatzen ditu. Euskarri hau gabe, nekez euts liezaioke bere estatua-poseari idulkian. Honela, letratu egipziakoak ziren tronuaren atzeko boterea eta, benetan, denborari zegokionean haren aurretik ere baziren. Ezinbestekoak ziren eta bazekiten; eta hori jakiteaz baliatu ziren «eraman beharreko zama eta atsekabe astunak sortzeko eta gizakien sordaldan ipintzeko», eskriba egipziakoek eurek zama horiek «atzamar bakar batez ere» mugitzen ez zituzten bitartean. Letratuak lanaren seme-alaben patu komunetik pribilegioz salbuestea da Egiptoko burokraziak bere ordenaz egiten duen gorespenaren gaia historia egipziakoaren aro guztietan. Nota hau ozenki entzuten da *Duauf-en irakaspenera* delakoan: lan hau, arazoaldi egipziakoan konposatua, mila urte geroago idazketa-ariketa gisa «Inperio Berriko» eskola-umeek egingdako kopietan iritsi zaigu. «Irakaspen hau Khety-ren seme Duauf izeneko gizon batek Pepi izeneko bere semearentzat egin zuen Egoitzara bidaiatu zuenean bere semea Liburu Eskolan sartzeko, magistratuen semeen artean», eta elkarrengandik banatzerakoan handinahiko aitak honela zentzutzen du magistratugai den semea:

«Ikusi dut zigorkatzen dutena, ikusi dut zigorkatua: zuk liburuetan jarri behar duzu zeure bihotza. Ikusi dut lan behartuetatik libre dagoena: begira, ezerk ez ditu liburuak gainditzen... Xixela erabiltzen duen edozein eskulangile aitzurrean egiten duena baino gehiago nekatzen da... Harginak edozelako harri gogorrean bilatzen du lana. Bukatzen duenean besoak apurtuta geratzen zaizkio, eta aumatuta dago... Laborariari atsekabeak betiko irauten dio...; hura ere esan daitekeena baino nekatuago egoten da... Ehuleak bere lantegian edozein emakumek baino okerrago pasatzen du. Izterrak sabel gainean ditu eta ez du airerik arnasten... Are gehiago, uztazu kontatzen zer gertatzen zaion arrantzaleari. Ez al du bere lana ibaian, krokodiloekin batera?... Begira, ez dago lanbiderik bere zuzendaririk gabe, eskribauarena izan ezik, hau bera baita zuzendaria...».

Ekialde Urruneko munduan bada «letraturrazia» egipziakoaren analogia ezagun bat, mandarin-aren zama, Gizarte horrek bere

aurrekoaren azken arotik heredatu zuena. Konfuziar letratuak milioika lanpeturen zama arintzeko hatz bat altxatzeari emandako uko bihozgabea harro erakusten zuen atzazalak luze-luze hazten utzita, horrela eskuaren erabilera oro baztertzen zuen eskribau-pintzelaren manipulazioa izan ezik, eta Ekialde Urruneko historian izandako aldaketa eta gorabehera guztietan lankide egipziakoaren nekaezintasuna berdindu izan du bere postu zapaltzaileari eusten. Mendebaldeko kulturaren eraginak ere ez dio postua kendu. Nahiz eta orain ez den konfuziar klasikoei buruzko azterketa-probarik egiten, letratuak beti bezain eraginkorki jartzen da nekazariaren gainetik Chicagoko Unibertsitatearen edo Ekonomia eta Zientzia Politikoen Londresko Eskolaren diploma haren aurrean astinduz.

Historia egipziakoan zehar, botere subiranoa pixkanaka bigunduz, luze sufrituriko herriak —beranduegi bada ere— lortutako arindura klase-zapalkuntza behin eta berriro areagotuz konpentsatu zen. Burokrazia jasan beharraren zama aski izan ez balitz bezala, «Inperio Berrian» apaizteriaren zama gaineratu zitzairen; apaizteria hau korporazio panegipziako ahaltsu modura antolatu zuen Tutmes III.a enperadoreak (*circa* K.a. 1480-1450), Tebasen zegoen Amon-Ra-ren apaiz nagusiaren lehendakaritzapean. Ordudanik mandarin egipziakoak zaldiketa-laguna izan zuen brahman egipziakoaren forman; eta ondoren, gainkargaturiko zirko-zaldi egipziakoa betiko lasterketan jarraitzera behartu zuten zaldiketari-parea hiruko bilakatu zen arte, eskriba eta fariseuaren atzetik *miles gloriosus* bat igo baitzen zaldi gainera.

Gizarte Egipziakoa, bere bizialdi naturalean Gizarte Kristau Ortodoxoa bere hazkundealdian bezain libre egon zena militarismotik, hikoekin izandako topaketak akuilatu zuen lasterketa militaristak egitera, Ekialdeko Erromatar Inperioa Bulgariarekin izandako topaketak ezproiatu zuen bezala. Hiksoak mundu egipziakoaren mugetatik kanpo bidaltzearekin konformatu gabe, Hemezortzigarren Dinastiako enperadoreak autodefentsatik erasora pasatzeko tentazioan erori ziren eta Egiptoar Inperioa eraiki zuten Asian. Abentura arriskutsu honetan sartzea errazagoa izan zen bertatik erretiratzea baino; eta marea aurka jarri zitzaientean Hemeretzigarren Dinastiako enperadoreak behartuta aurkitu ziren gizarte-gorputz egipziakoan ia galduriko indarra mobilizatzen Egiptoren beraren segurtasunari eusteko. Hogeigarren Dinastiapen egitura zaharkitu eta atsekabetua elbarri geratu zen,

Völkerwanderung postminoikoaren oldarrak beraren kontra botatako europar, afrikar eta asiar barbaro-aldra konbinatuak errefusatzeari egindako azken *tour de force*-aren prezioztat. Gorputz eroria azkenean lurrean gelditu zenean, bertoko letratu eta apaizei, erorikoagatik hezurrik hautsi gabe artean zelan ongi zut eserita zeudelarik, libiar inbaditzailearen biloba elkartu zitzairen; hau abenturari gisa itzuli zen orain mundu egipziakora, hango mugetatik aitonari atzera eragin zio-larik bertako arma egipziakoen azken balentriak. Kasta militarra, hamaikagarren mendeko libiar mertzenario hauek sortarazia, Gizarte Egipziakoaren gainean mila urtez zangalatraba jarraitu zuena, ez zen agian bere aurkakoentzat janizariak edo espartarrak bezain beldurgarria izango gudu-zelaian, baina zalantzarik gabe bere etxean haiek bezain astuna gertatu zen hankapean zituen nekazariantzat.

5.

Sormenaren nemesia: teknika iragankor baten idolatria

Arrainak, narrastiak eta ugaztunak

Tekniken idolatria aztertzeari ekiten badiogu orain, dagoeneko ezagutzen ditugun adibide batzuk gogoratuz has gaitezke, zeinetan zigorrik handiena ordaindu baitzen. Otomandar eta espartarren gizarte-sistemetan giza abereen zaintzaile edo giza ehiziaren ehiztari izateko giltza-teknika jarduera horiek ahalbidetzen zituzten erakundee-kin batera idolatratu zen. Eta giza erronkek eragindako zibilizazio gerarazietatik izaera fisikoko erronkek eragindakoetara igarotzen garenean, haien tragedia osoa teknika baten idolatriazko gurtzak hartzen duela ohartzen gara. Nomadak eta eskimalak beren ahalmen guztiak abeltzaintza eta ehizaren tekniketara gehiegi kontzentratzeak gerarazi zituen. Beraien errail bakarreko bizitzak giza aldakortasunaren ukapena den animalismorantz atzera egitera behartu ditu; eta orain planeta honetako biziaren historian gizakiaren aurreko atalei begiratu bat ematen badiegu, lege beraren beste adibide batzuen aurrean aurkituko gara.

Mendebaldeko jakintsu moderno batek honela enuntziatu du lege hori, azterketa konparatiboa egin duelarik giza eremuan eta giza-tiarra ez den eremuan duen eraginaz:

«Bizitza itsasoan hasten da. Han aparteko eraginkortasuna lortzen du. Arrainek hain tipo arrakastatsuak (marrazoak, adibidez) sortzen dituzte, ezen aldatu gabe iraun baitute gaur arte. Gorantzako eboluzioaren bidea ez zegoen, ordea, norabide honetan. Eboluzioan ziur aski beti zuzena da Inge dk.aren aforismoa: 'Ezerk ez du arrakastak bezala porrot egiten'. Bere ingurunera erabat egokitzea iritsi den izakia, bere gaitasun eta bizi-indar osoa hemen eta orain arrakasta izateko bildu eta erabili duen animaliak ez du ezer soberan uzten, funtsezko edozein aldaketari erantzuteko. Aroz aro bete-betean gero eta ekonomikoago bihurtzen da bere baliabideek bere aukera arrunt eta ohikoei zehazki erantzuten dieten eran. Azkenean, bizirik irauteko beharrezko den guztia egin dezake ahalegin kontziente edo mugimendu desegokirik gabe. Beraz, lehiakide guztiak mendera ditzake eremu berezian; baina, bestalde, eremu hori aldatzen bada, desagertu egingo da. Badirudi eraginkortasunaren arrakasta hau dela espezie-kopuru handi baten desagertzearen arduraduna. Klima-baldintzak aldatu egiten dira. Espezie horiek bizi-energiaren baliabide guztiak erabiliak zituzten beren buruak gauzetara ziren bezala egokitzeko. Neskatxa zentzugabeek bezala, ez zuten oliorik utzi geroagoko egokitzapenetarako. Konfiantza zuten, ezin izan ziren berregokitu, eta horrela desagertu ziren»¹²³.

Arrainek lehorreko historiaren itsas oberturan bizitzako ingurune fisikora egokitzen izandako arrakasta teknikoak, erabatekoak zori-tzarrez, ikertzaile berak honela zabaltzen du testuinguru berean:

«Bizitza itsasora mugatua zegoen eta arrainak garatzen ari ziren garaian, bizkarrezurra eratu zuten espezimenak sortu zituzten haiek, eta honela ordu arte gehien eboluzionaturiko ornodunen ordezkari izan ziren. Bizkar-hezurretik alde banatara, buruari laguntzeko, garro-mordoa sortu zen, haiengan aurreko hegal bihurtu zirenak. Marrazoaren kasuan —eta ia arrain guztietan— garro horiek espezializatu egin ziren eta, ez jadanik garro, baizik eta arraun bihurtu ziren: hegal harrigarriro eraginkorrak, animalia zuzen-zuzenean harrapakinera eramateko. Bizkor erreakzionatzea zen guztia, pazientziazko negoziazorik ez; eta hegal haiek probatzaileak, ikertzaileak,

aztertzaileak izateari uzteaz gain, gero eta eraginkorrago bihurtu ziren uretan mugitzeko, eta ez beste ezertarako. Badirudi ornodunak sortu aurreko arrantza-aurreko bizitza ur epeleko potxingoetan zertuko zela eta agian lurzorua ukituz egongo zela beti, gaur egun arraingorria bere garroekin lurzoru solidoa ukituz egoten den bezala. Baina pentsatu gabeko mugimendu bizkorra dena izatera iritsi zenean, espezializazioak ur barrura eraman zituen arrainak eta han hondoa eta gauza gotorrak ukitzeari utzi zioten... Ura... haien elementu bakar bilakatu zen. Honek esan nahi du haien gaitasuna zirkunstantzia berrien estimulua jasotzeko oso mugatua gelditu zela...

«Beraz, animalien hurrengo ordena aurreratuagoa sortarazi zuen arrain-tipo hura hegalean erabateko espezializazioa bereganatu gabeko animalia bat izango zen. Zeren eta, lehenik, zorua ukituz egondako animalia izan behar baitzuen, honela estimulu anitzagoak izan zituelarik ingurune solidoarekin ukipena galdu zuten arrainek baino. Eta, bigarren, arrazoi beragatik, azaleko urekin kontaktuan egondako animalia izan behar, eta kontaktu hori besaurreen bidez egingo zuen, igeriketarako hegal bezala erabat espezializatu ezin zirenez, 'eraginkortasun gutxiko' izaera ikertzaile eta haztatzaile orokortuagoa gorde zutelarik. Horrelako animalia eskeletoa aurkitu da: ia esan liteke bere besaurreak esku zabarrak gehiago direla benetako hegala baino; eta badirudi gorputz-atal hauekin potxingotik itsasertz urpeturako trantsizioa lortu zela, itsaso sakona atzera gelditu zela, lehorra sartu eta anfibioak agertu zirela»¹²⁴.

Arrain trebe eta erabakigarriekin lehian anfibio narratsen arrakasta honetan, drama baten antzeppen goiztiarraren lekuko gara, ordu-danik askotan antzeztu dena aldaketa desberdin askorekin paper-banaketan. Gure arreta eskatzen duen hurrengo antzezpenean, arrainen papera anfibioen leinu itzelak, narrastien tribuak, jokatzen duela aurkituko dugu, eta aurreko antzezpenean anfibioek eurek izandako papera animalia ugaztun batzuen arbasoei dagokie, animalia horien gan gorpuztu delarik duela gutxi gizakiaren espiritua. Hasierako ugaztunak izaki ahul eta kaskarrak ziren, ustekabeen Lurra heredatu zutenak, herentzia bertan behera utzi zutelako narrasti bikainek, kreazioaren aurreko jaunak; eta Mesozoikoko narrastiak —eskimal eta nomadak bezala— konkistatzaileak izan ziren, superespezializazioaren bide itsura desbideratzeagatik beren konkistak galdu zituztenak.

«Narrastiek itxuraz bat-batean izan zuten bukaera da, zalantza guztien gaineratik, iraultzarik harrigarriena Lurraren historia osoan gizadia sortu aurretik. Ziur aski epeltasun-baldintza berdineko denboraldi luze baten bukaerari lotua dago, eta aro latzago baten hasierari, neguak gogorragoak eta udak labur baina beroak zirelarik. Mesozoikoko bizitza, berdin animalien nahiz landareen bizitza, epeltasun-baldintzetara egokitua zegoen eta hotzari aurre egiteko gaitasun txikia zuen. Bestalde, bizitza berria, tenperatura-aldaketa handiei aurre egiteko gai zen, gauza guztien gaineratik,...

«Gutxiago egokituriko narrastiekin lehiatu eta kanpora botatzen dituzten ugaztunei dagokienez... ez dago honelako zuzeneko lehiaketaren froga txikienik ere... Mesozoiko beranteko hainbat matraila-hezur txiki aurkitu da, erabat ugaztunen izaerakoak. Baina ez dago arrastorik, ezta hezur bat ere, han ugaztun mesozoikoren bat, dinosaurusu bati aurpegira begira ziezaiokeena, bizi zela iradokitzen duenik... Badirudi arratoi eta saguen tamainako piztitxo ilunak izan zirela guztiak»¹²⁵.

Badirudi orokorki onartuta daudela Wells-en proposamenak puntu honetaraino. Ugaztunek ordeztu zituzten narrastiak, munstro astun hauek galdua zutelako baldintza berrietara egokitzeko gaitasuna. Baina, narrastiek amore eman zuten proba hartan, zehazki zerk gaitu zituen ugaztunak bizirik irauteko? Ezin interesgarriagoa den puntu honetan orain arte aipaturiko bi idazleak ez datoz bat. Wellsen arabera, zetorren hotzaren kontra babesteko ilea zeukatelako iraun zuten bizirik garatu gabeko ugaztunek. Hau besterik ezin bada esan, zenbait egoeratan larrua ezkatak baino armadura hobe delako besterik ez dugu ikasten. Heard-ek, ordea, ugaztunen bizia salbatu zuen armadura ez zela fisikoa izan, baizik eta psikikoa izan zela adierazten du, eta defentsa psikiko honen indarra babesgabetasun espiritualean datzala; egia esanda, eterealizazioa deitu dugun hazkunde-printzipioaren gizaki-aurreko adibide bat daukagu hemen.

«Narrasti erraldoiak beheraldi etsian zeuden ugaztunak sortu aurretik... Animalia txiki, mugikor eta bizi bezala hasi ziren. Gero, hainbeste hazi ziren, ezen lehorreko akorazatu haiek ozta-ozta mugitzen baitziren... Burmuinik ia batere gabe geratu ziren... Haien buruak periskopioak, arnas-hodiak eta matxardak baino ez ziren.

«Bitartean, pixkanaka handituz eta gogortuz zihozelarik beren hondamenerantz... orduan biziari jarritako mugak eta mugapenak saltatu eta energi eta kontzientzi etapa berri bat hasi behar zuen izakia eratzen ari zen jada. Eta ezerk ezin hobeto argitu, biziak sentiberatasun eta kontzientziaz eboluzionatzen duelako printzipioa; arriskupean egoteagatik eta ez babestuta; biluztasunagatik eta ez indarra-gatik; txikitasunagatik eta ez tamainagatik. Ugaztunen aitzindariak... arratoien antzeko izaki ñimiñoak dira. Munstroek menderaturiko munduan, bere denbora besteei erreparatuz eta besteei bide emanez pasa behar duen izaki bati ematen zaio etorkizuna. Babesgabe dago, larrua duelako ezkatzen ordez. Espezializatu gabe dago aurreko gorputz-atal sentikor horiengatik eta, zalantzarik gabe, antena —aurpegi eta buruko ile luze— horiengatik, estimulazio narritagarrria ematen diotelarik denbora guztian. Begiak eta belarriak oso garatuak ditu. Odol beroko bihurtzen da, eta horrela beti kontziente egon daiteke hotzaren bidez, narrastia koma anestesikoan sartzen denean. (...) Horrela lehertzen eta garatzen da haren kontzientzia. Estimulatzailerik anitz eta etengabeen aurrean askotariko erantzunaz erreakzionatzen du, zeren eta izaki hau, aurrekaririk gabea, gai baita ez erantzun bat baizik eta asko emateko, batek ere ezin duelarik arazoa bere kabuz konpondu»¹²⁶.

Hau gure arbasoaren egiazko argazkia bada, onar dezakegu hartaz harro egon gaitezkeela eta beti ez garela haren duin agertzen.

Nemesia Industrialian

Duela ehun urte Britainia Handiak «Munduko Fabrika» zela uste zuen, baina benetan izan ere bazen. Gaur egun, munduan lehian ari diren hainbat fabrikatako bat da, eta negozioetan dagokion partea aspalditxoan gero eta txikiagoa da. «Bukatu da Britainia Handia?» tesiak luma asko mugiarazi du eta erantzun asko hartu ditu. Agian, faktore guztiak kontuan hartuta, oro har espero zitekeena baino hobeto aritu gara azken hirurogeita hamar urteotan, nahiz eta gaiak, noski, aukera zabala eskaintzen duen Samuel Butler-en aipu alderantzikatu bikainenetako batean deskribatzen den profeta-mota ezkor eta gaitzesleentzat¹²⁷. Hala ere, hutsunerik handiena izan dugun puntua apartatu behar balitz, gure industri kapitainen kontserbadurismoa aipatuko litzateke, beren aitonen aberastasuna eragin zuten teknika zaharkituak idolatratu baitituzte.

Agian adibide argigarriago bat, ez dagoelako hain jeneralizatua, Estatu Batuetan aurki daiteke. Ez da ukatuko, hemeretzigarren mendearen erdialdeko urteetan, iparramerikarrek gainerako beste herri guztiak gainditu zituztela beren industri asmakuntzen aniztasun eta azkartasunean eta asmakuntza horiek xede praktikoetarako ustiatzeko zereginen. Josteko makina, idazteko makina, oinetakogintzan erabilitako makineria eta McCormick-en segagailua dira burura etortzen diren «yankee nozio» horietako lehenak. Baina asmakuntza baten ustiapenean iparramerikarrak argi eta garbi atzerago ibili dira britainiarren aldean, eta beraien atzerapena puntu honetan oso harrigarria da, zeren eta iparramerikarrek kontuan hartu gabeko asmakuntza hau eurek mendearen hasiera-hasieran asmatuiko makina baten hobekuntza izan baitzen: bapora-ontzia, alegia. Amerikarren gurpildun baporea garrantzi handiko gehigarria gertatu zen bizkor hedatzen ari zen Errepublikaren komunikabideetarako, Ipar Amerikak hain ugari dituen barne-ubide nabigagarrien milaka miliatan zehar. Zalantzarik gabe, arrakasta honen zuzeneko emaitza izan zen iparramerikarrak britainiarrak baino askoz geldoagoak izatea, geroagoko helizearen asmakuntza hobea ozeano-itsasketaren xedeetarako erabiltzen. Gai honetan teknika iragankor bat idolatratzeko tentazio biziagoa izan zuten.

Nemesia gerragintzan

Larru goxoko ugaztun txikiaren eta narrasti tzar akorazatuaren arteko lehia biologikoaren analogia historia militarrean David eta Goliaten arteko dueluaren saga da.

Israelgo armadei erronka botatzen dien zoritxarreko eguna baino lehen, Goliateg garaipen arrakastatsua irabazi ditu bere lantzez; honen kirtena ehulearen ardatza bezalakoa da eta buruak seiehun burdin siklo pisatzen ditu, eta bere kasko eta bularreko eta ezkutu eta zango-babeskien panoplían arma etsaien aurka hain babes-tuta sentitu denez, ezin du armamentu alternatiborik imajinatu; eta armamentu horrekin garaitezina dela uste du. Ziur dago bere erronka onartzeko ausarkeria egiten duen edozein israeldar ere *cap-à-pie* armaturiko lantzagizona izango dela, eta horrelako edozein lehiakide bere panoplían bera baino gutxiago izango dela nahitaez. Bi ideia hauek Goliaten buruan hain gogor sartuta daudenez, soinean armadurarik gabe eta eskuan makilaz gain beste ezer gabe David korrika

datorkiola ikusten duenean, Goliat mindu egiten da kezkatu ordez eta oihu egiten dio: «Zakurra ote nauk ni, makila harturik niregana etortzeko?». Goliateg ez du susmatzen gaztearen lotsagabekeria hau kontuz prestatuturiko maniobra dela; ez daki bera bezain ongi ohartu dela David, Goliaten ekipoarekin ezin duela haren parekide izatea espero izan eta, horregatik, errefusatu egin duela Saulek jarri nahi zion panoplia. Halaber, Goliat ez da ohartu habailaz, eta ez dio bere buruari galdetu zer kalte egon daitekeen gordeta artzainaren zorroan. Eta honela zorigabeko trizeratops filistear hau arranditsu doa bere heriotzarantz.

Baina gertaera historiko bezala, Völkerwanderung postminoi-koko banako hoplita —Goliat Gathekoa edo Hektor Troiakoa— ez da erortzen Daviden habailagatik edo Filoktetesen uztaiagatik, mirmidioen falanjeagatik baizik, Leviatan bat non hoplita-pila bat bizkarrez bizkar eta ezkutuz ezkutu jarri baitziren¹²⁸. Falangista bakoitza Hektor edo Goliaten erreplika zen bitartean bere ekipoarekin, hura hoplita homerikoaren antitesia zen bere espirituan; zeren eta falangearen muina diziplina militarrean baitzegoen, banako gerrarien jendaila formazio militar bihurtu zuena, honen eboluzio ordenatuek hamar aldiz gehiago egin zezaketelarik kopuru bereko eta haiek bezain ongi armaturiko banako garaileen ahalegin koordinatu gabeek baino.

Teknika militar berri hau, eta *Iliada*-n dugu beronen aurretiazko ikuspegi bat, historiaren etapan espartar falangearen forman sartu zen zalantzarik gabe, Tirteoren bertsoen erritmoan joan zelarik gizarte-ikuspegitik negargarria izan zen garaipenera bigarren espartar-meseniar gerran. Baina garaipen hura ez zen izan kontuaren amaiera. Kontrario guztiak zelaitik uxatu ondoren, espartar falangea «bere garaipenean lokartu zen», eta K.a. laugarren mendean menderatu egin zuten lotsagarriro: lehenik, peltasten atenastar multzo ugariak —David pila bat, espartar Goliaten falangea ez zelarik gai izan haiekin moldatzeko— eta gero tebastar kolumnaren berrikuntza taktikoak. Bestalde, atenastar eta tebastar teknikak kolpean zaharkiturik eta gaindituta utzi zituen K.a. 338an mazedoniar formazioak, bertan oso bereizitako gerrilari eta falangista trebetasun handiz integratu zutelarik zaldieria astuneko soldaduekin borroka-indar bakarrean.

Alexandrok Akemenestar Inperioa konkistatzeak mazedoniar guda-ordenaren sortzetiko eraginkortasuna frogatzen du, eta falangearen mazedoniar bertsioak teknika militarrean azken hitza izaten jarraitu zuen ehun eta hirurogeita hamar urtez: Keroneako gudutik, Greziako hiri-estatuetakoko hiri-milizien nagusitasuna bukarazi zutenetik, Pidnako gudura, mazedoniar falangea erromatar legioaren aurrean erori zen arte. Mazedoniarren zori militarrean izandako περιπέτεια harrigarri honen kausa teknika iragankor baten zahartzaroko lausengatzea izan zen. Mazedoniarrek, mundu heleniko osoaren —salbu mendebaldeko ertzen— jabe ukagabe gisa, beren garaipenean lokartuta zeuden bitartean, erromatarrek gerragintza irauli zuten Hanibalekin izandako borroka ikaragarrian beren sufri-menduen bidez irabazitako esperientziaren argitan.

Erromatar legioak infanteria arineko soldaduaren eta falangistaren integrazioa askoz urrutirago eraman zuelako garaitu zuen mazedoniar falangea. Erromatarrek, egia esateko, formazio-mota berria eta armamentu-mota berria asmatu zituzten, eta hauek infante arinaren edo hoplitarren papera jokatzeko aukera eman zioten edozein soldaduri eta edozein unitateri, baita une batean arerioaren aurrean taktika-mota batetik bestera aldatzeko ere.

Erromatar eraginkortasun honek, Pidnako gudua garaian, ez zeraman indarrean belaunaldi bat baino gehiago; zeren eta mundu helenikoko italiar erditzal honetan, mazedoniar-aurreko motako falange bat ikusia baitzen gudu-zelaian Kannasko gudua (K.a. 214) bezain berriki: orduan erromatar infanteria astuna, espartar falangearen antzinako formazioaren arabera borroka-ordenara itzulia, atzetik inguratu zuen Hanibalen espainiar eta galiar zaldieria astunak eta gero alde banatatik ganadua bezala lepo egin zuen haren afrikar infanteria astunak. Hondamendi honek ustekabean harrapatu zuen erromatarren goi-agintea, aurrez Trasimeno aintziran izandako hondamendiaren zirrara pean erabakia baitzuen esperientziak baztertu eta (oker uste izan zuen bezala) ziur jokatzeko. Kannasko porrot nagusiaren eskola gogorrean, erromatarrek azkenean bihotz-bihotzez berenganatu zuten hobekuntza infanteri teknikan, eta honek erromatar armada mundu helenikoko borroka-indar eraginkorrena bihurtu zuen kolpean. Ondoren Zama, Zinoszefalos eta Pidnako garaipenak etorri ziren, eta gero gerra-sorta bat erromatarrek barba-

roen aurka eta erromatarrek erromatarren aurka eginak; gerra horietan, Mariogandik Zesarrenganaino zenbait kapitain handiren mende, su-armak asmatu aurretik infanteriak lor zezakeen eraginkortasunik handiena lortu zuen legioak. Une hartan bertan, hala ere, legionarioa bere erara hobezin izatera iritsi zenean, porrot-sail luze baten lehenengo hartu zuen oso teknika desberdinak zeuzkan zaldizko gerrari-pare batengandik, azkenean legionarioa gudu-zelaitik kanpora eramango zutelarik. Zaldizko arkulariak legionarioaren gain Karrasen izandako garaipena, K.a. 53an, bost urte aurreratu zen legionarioak legionarioaren aurka Farsalian egingo zuen borroka klasikoarekiko, gudu honetan ziur aski bere goren mailan egon zelarik erromatar infanteriaren teknika. Karraseko iragarpena Adrianopolisen berretsi zen lau mende baino geroago, K.o. 378an, katafraktoak —lantzaz armaturiko sare-kotadun zaldizkoak— *coup de grâce*-a eman zionean legionarioari. Gudu hartan garai bereko erromatar historialari batek —ofizial militar ere bazen Amiano Martzelinok, alegia— aitortzen du erromatarren hildakoak borrokan jardundako armaden bi heren izan zirela, eta adierazten du bere iritziz erromatar armek ez zutela izan tamaina hartako hondamendi militarrik Kannaskoaz geroztik.

Bi gudu horien arteko sei mendeetako azken lauretan gutxienez erromatarrak beren garaipenetan lokartuta egon ziren, eta hori nahiz eta Karrasen abisua eman zieten eta Valerianok K.o. 260an eta Julianok K.o. 363an izandako porrotetan abisu hori errepikatu egin zieten katafrakto gotikoen pertsiar prototipoek, hauek K.o. 378an Valens eta haren legionarioen heriotza eragin baitzuten.

Adrianopoliseko hondamendiaren ostean, Teodosio enperadoreak zaldizko barbaroak saritu zituen erromatarren infanteria deuseztu zutelako, beraiek erromatar lerroetan eragindako hutsune sakona betetzeko alokatu zituelarik; eta gobernu inperialak ikuspegi laburreko politika horrengatik ezinbesteko prezioa ordaindu zuenean ere, eta barbaroen tropa mertzenario horiek bere mendebaldeko probintziak «ondorengo estatu» barbaroetan zatitzen ikusi zituenean ere, bertoko armada berria, ekialdeko probintziak azken-azken mementoan bide beretik joan ez zitezen salbatu zituena, barbaroen ereduaren arabera armatu eta eratu zen. Astun armaturiko lantzari honen nagusitasunak mila urte baino gehiago iraun zuen eta are ohargarriagoa da agian

haren leku-banaketa. Identitate nahastezina du, bere erretratua Krimeako hilobiren batean kristau-aroko lehen mendeko freskoren batean agertu; edo errege sasandarren batek hirugarren, laugarren, bosgarren edo seigarren mendean Fars-eko haitzen batean zizelkaturiko baxu-erliebean agertu; edo Ekialde Urrunean Tang dinastiaren (K.o. 618-907) borroka-indar ziren gerrariak irudiztatzen dituzten buztinezko iruditxoetan agertu; edo hamaikagarren mendean, garai hartako infanteria ingeles zaharkituari Gilermo Konkistatzailearen normandiar zaldunek eragindako porrota adierazten duen Bayeux-eko tapizean agertu.

Katafraktoaren bizitza-luze eta nonahikotasun hau harrigarriak badira, ohargarria da halaber forma endekatu batean bakarrik izatea nonahiko. Nahasmendu honen istorioa bere begiz ikusitako batek konstatzen du:

«Idazkariordearen armadan nengoen ni, H.ko 656 (K.o. 1258) urteko erabateko hondamendia zela eta, Bake Hiria (Bagdad) mendebaldera joan zenean tatariarrekin elkartzera. Nahr Bashir-en elkartu ginen, Dujayl-en dependenzietako batean; eta han irtengo zen geure artetik, banako borroka eskaintzeko, erabat ekipaturiko zaldun bat zaldi arabiar baten gainean, eta ematen zuen bera eta zaldia mendi handiren bat (bezain sendoa) zirela. Gero harekin elkartzeko eta mongolen artetik zaldun bat irtengo zen, astoa bezalako zaldi baten gainean, eskuan ardatza bezalako lantza zuelarik, ez jantzirik eta ez armadurarik gabe, eta ikusi zuten guztiei barre eragin zien. Halaz guztiz, eguna bukatu baino lehen garaipena haiena izan zen, eta haiek porrot handia eragin ziguten guri, Gaitzaren Giltza izan zena; eta gero gertatu zitzaiguna gertatu zitzaigun»¹²⁹.

Honela, historia siriakoaren egunsentian Goliat eta Daviden artean izandako topaketa ospetsua ilunabarrean errepikatzen da, hogeita hiru mende geroago agian; eta, oraingoan erraldoia eta pigmeoa zaldi gainean egon arren, emaitza berdina da.

Tatariek kazakh garaitezina, irakiar katafraktoa menderatu eta Bagdad arpilatu eta abbastar kalifa gosez akabatu zuena, zaldizko arkulari arin bat zen, irauten zuen nomada-tipokoa, lehen aldiz K.a. zortzigarren mendetik zazpigarrenera igarotzean zimeriar eta eszitiar erasoaldien bidez Hego-mendebaldeko Asian bere burua ezagutarazi eta beldurra sartu zuena. Baina zaldi gaineko Davidek behar

bezala desegin bazuen zaldi gaineko Goliat eurasiar estepatik tatariarrek indarrez egindako erasoaldiaren hasieran, beraien topaketaren ondorengo gertaerak ere istorioaren errepikapen honetan jatorrizkoan bezalakoxeak izan ziren. Ikusi dugu sare-kotadun oinezko garailea, Daviden habailak eraitsi zuena, harrezkero atzera utzi zuela, ez Davidek berak, baizik eta Goliat bezalakoen falange diziplinatuak. Hulagu Khan-en zaldi mongol arina, Bagdadeko harresi-pean abbastar kalifaren zaldunak menderatu zituen, gero behin eta berriro menderatu zuten Egiptoren jabe ziren mamelukoe. Beren ekipoiari dagokionez, mamelukoak ez zeuden ez hobeto ez okerrago ekipatuta Bagdadetik botatako zaldun musulman lagunak baino; hala ere, beren taktiketan diziplina bati jarraitu zioten, mongol tiratzaile trebeen eta gurutzatu frankoen gain nagusitasuna eman zien diziplina. San Luisen zaldunek Mansurah-n aurkitu zuten porrota, mongolek maisu beragandik lehen irakaspena hartu baino hamar urte lehenago.

Hamahirugarren mendearen bukaeran mamelukoak, frantziar eta mongolen gain beren nagusitasuna ezarri ondoren, eztabaidatu gabeko nagusitasun militarreko egoeran zeuden beren mugen barruan, Pidnaokoaren ondoren erromatar legionarioak egondako egoera berean. Egoera bikain baina ahulgarri hartan mamelukoak, legionarioa bezala, lokartu egin zen; eta kointzidentzia bitxia da zehazki denboraldi bertsuan utzi ziola lokartuta egoteari teknika berri batez armaturiko etsai zahar batek oharkabea harrapatu zuen arte. Pidna eta Adrianopolisen artean 546 urteko tartea dago; mamelukoe San Luisen gain izandako garaipenaren eta haren ondorengo Napoleonen eskuz mamelukoe jasandako porrotaren artean, 548 urteko tartea. Bost mende eta erdi honetan infanteria bere onera itzulia zen berriro. Mende hauetako lehena bukatu baino lehen, ingeles arku luzeak gaitua zuen David-tarren oinezko armada Goliat-tarren zaldizko armada menderatzeko Crecy-n, eta emaitza hori azpimarratu eta berretsi egin zuen su-armen asmakuntzak eta janizariengandik hartutako diziplina-sistemak.

Mamelukoek azken bukaerari dagokionez, Napoleonen erasotik eta, hamahiru urte geroago, gorputz hari Mehmet Alik egindako azken suntsipenetik bizirik geratu zirenak Goi Nilora erretiratu ziren eta beren armamentua eta teknika Sudango Mahdi baten kalifaren

zerbitzura zeuden sare-kotadun zaldizkoei utzi zieten, 1898an Omdurman-en britainiar infanteriaren erasopean erori zirelarik.

Mamelukoak menderatu zituen frantziar armada jadanik zer-bait desberdina zen janizarien Mendebaldeko imitazioaren lehenengo bertsioaren aldean. Frantziako *levée en masse* delakoaren produktu sortu berria zen: honek arrakasta izan zuen, arrakastaz diluituz, Mendebaldeko armada-eredu berria —txikia baino izugarri ongi tre-batua— ordeztan, Federiko Handiak perfekziora eramana. Baina Napoleonen armada berriak Prusiako armada zaharra Jenan mende-ratzeak militar eta politikari jeinutsuen prusiar pleiade bat akuilatu zuen geroago kopuru berriak diziplina zaharrarekin konbinatzeko *tour de force*-an frantziarrak gainditzera. Eraitza 1813an iragarri zen eta 1870ean agertu zen. Baina hurrengo txandan Prusiako gerra-makinak Alemania eta aliatuak porrotera eraman zituen, erantzun aurreikusigabea eragiteagatik setio baten eran inoiz eman gabeko eskalan. 1870eko metodoek porrot egin zuten 1918an lubaki-gerra eta ekonomi blokeoaren metodo berrien aurrean; eta 1945erako fro-gatua zegoen 1914-18ko gerra irabazi zuen teknika ez zela azken maila beti luzatzen ari zen kate honetan. Katemaila bakoitza asma-kuntza, garaipen, letargia eta hondamendi-ziklo bat izan da; eta, his-toria militarrek hiru mila urtetan —Goliat eta Daviden arteko topa-ketatik katafrakto mekanikoen eta zaldi hegaldunen gainean doazen arkularien punteria zorrotzaren bidez Maginot Linea eta Mendebaldeko Harresia zulatu arte— honela ezarritako aurrekarien arabera, gure gaian iraunkortasun monotonoz adibide berriak sortzea espero behar dugu, gizadia gerragintzan jarraitzeko bezain maltzurra den bitartean.

6.

Militarismoaren suizidio-joera

Κόρος, ὕβρις, ὄττη

«Garaipenean lokartzeaz» egin dugun azterketa bukaturik — eta hau zen sormenaren nemesiari amore emateko era pasiboa—, κόρος, ὕβρις, ὄττη hiru hitz grekoetan deskribatzen den aberrazio

aktiboa aztertu behar dugu orain. Hitz hauek konnotazio subjektiboa dute, baita objektiboa ere. Objektiboki κόρος-ek «betekada» esan nahi du, ὕβρις-ek «jokabide iraingarria» eta ἄτη-k «hondamendia»¹³⁰. Subjektiboki κόρος-ek arrakastak alferrik galduta uzteko egoera psikologikoa adierazten du; ὕβρις-ek ondorengo galera mental eta morala adierazten du; eta ἄτη-k bulkada gobernaezin itsu eta setatia, arima orekagabea ezinezkoa lortzera bultzatzen duena. Hondamendi psikologiko aktibo hau, hiru ekitalditan emana, gairik ohikoena izan zen bosgarren mendeko atenastar drama tragikoan, iraun duten maisulanen multzotxoaren arabera juzgatzen badugu, behintzat. Agamenonen istorioa da izen bereko Eskiloren antzerki-lanean eta Xerxes-ena haren *Pertsiarrek* lanean; Ajax-en istorioa izen bereko Sofokles-en antzerki-lanean, Ediporena haren *Edipo Tiranoa*-n eta Kreonte-rena haren *Antigona*-n; eta Penteoren istorioa da Euripidesen *Bakanteak* obran. Hizkera platonikoan,

«Norbaitek bekatu egiten badu proportzioaren legeen aurka eta zerbait txikiegia zerbait handiegia ematen badio eramateko — bela handiegia ongtzi txikiegia, jatordu handiegia gorputz txikiegia, ahalmen handiegia arima txikiegia — emaitza erabateko nahasmena izan behar. ὕβρις-en leherraldian gehiegi elikaturiko gorputza gaixotu egingo da, funtzionario lotsagabea ὕβρις-ek beti sortzen duen bidegabekeria eroriko den bitartean»¹³¹.

Suntsipena eragiteko metodo pasibo eta aktiboen arteko desberdintasuna ezartzeko, has dezagun κόρος-ὕβρις-ἄτη-ren azterketa arlo militarrean, arlo honetantxe itxi baitugu bukatu berri dugun «garaipenean lokartzearen» ikerketa.

Bi moduak Goliaten portaeran daude argituta. Alde batetik, ikusi dugu nola eragiten duen bere bukaera banako hoplita garailearen teknika behinola garaitezinean lasai biziz, bere aurka Davidek dakarren teknika berri eta hobia aurreikusi eta berari aurea hartu gabe. Aldi berean ikusten dugu Daviden eskuz jasaten duen suntsipena eragotz zitekeela teknika-mailako ekimen faltarekin batera ethosaren pasibotasuna ere gertatu izan balitz. Zoritzarrez Goliatentzat, ordea, *miles gloriosus* honen kontserbadorismo teknologikoa ez zen konpentzatu inolako taktika-moderazioz; horren ordeztan, bere bidetik irten zen erronka planteatzean arazoak bilatuz; militarismo erasokor eta aldi berean desegoki prestatuaren ikurra da. Horrelako militaristak hain

konfiantza handia izaten du bere gaitasunean eztabaida guztiak ezpataz konpontzen diren gizarte —edo gizartearen aurkako— sisteman bere burua zaintzeko, ezen bota egiten baitu bere ezpata balantzara. Honen pisuak balantza bere aldera makurtzen du, eta bere garaipena aurkeztzen du ezpata ahalguztidun dela erakusteko azken proba gisa. Istorioaren hurrengo atalean, ordea, gertatzen da huts egin duela bere *ad hominem* tesia frogatzen berari bakarrik interesatzen zaion kasu partikularrean; zeren eta hurrengo gertaera bere porrota baita, bera baino indartsuagoa den militarista baten mende. Bururatu ez zaion tesi bat frogatu du: «Ezpata hartzen dutenak ezpataz hilko dira».

Sarrera honekin pasa gaitezke saga siriakoaren kondairazko duelutik historiak eskaintako adibideetako banaka batzuetara.

Asiria

Asiriarrak botere militarren bukaera ekarri zuen K.a. 614-610eko hondamendia historian ezagutzen diren erabatekoenetakoa izan zen. Asiriarren gerra-makinaren suntsipena ez ezik, asiriarrak estatua desagertzea eta asiriarrak herria suntsitzea ere ekarri zuen. Bi mila urte baino gehiagoz existituriko komunitate bat eta bi mende eta erdi gutxi gorabehera Hego-mendebaldeko Asian gero eta paper nagusia goa jokatu zuena, ia erabat ezabatuta gelditu zen. Berrehun eta hamar urte geroago, Ziro Gaztearen hamar mila mertzenario greziarrak Kunaxako gudu-zelaitik Itsaso Beltzeko kostara Tigris ibarrean zehar erretiratzen ari zirenean, Kalah eta Niniveko kokalekueetatik igaro ziren eta txundituta gelditu ziren, ez hainbeste gotorlekuen ikaragarritasunagatik eta haiek hartzen zuten eremuaren zabaleragatik, baizik eta egundoko giza lan haietan inor ez zela bizi ikusteagatik. Maskor huts haien mamu-itxura, desagerturiko bizitzaren kemena adierazten zutelarik beren iraunkortasun bizigabeaz, greziarren espedizio-indarreko kide baten literatur arteak adierazten du bizi-bizi, bere esperientziak kontatu baititu. Hala ere, Xenofonen kontaketa irakurle modernoarentzat harrigarriena —arkeologo modernoek aurkitutako bidez ezaguna zaiolarik Asiriaren zoria— zera da, Xenofon ez zela gai izan abandonaturiko hiri gotorleku hauen benetako historiaren daturik oinarritzkoenak ere jakiteko. Hego-mendebaldeko Asia osoa, Jerusalemdik Ararateraino eta Elametik Lydiaraino, hiri haien nagusiek menderatu eta izu-ikaratu zuten arren Xenofon handik igaro

baino bi mende baino lehentxoago, haietaz eman dezakeen informazio-rik onenak ez du erlaziorik haien benetako historiarekin, eta Asiriaren izena bera ere ez du ezagutzen.

Lehen begiratuan Asiriaren patuak ulergaitza dirudi; zeren eta bere militaristei ezin baitzaie leporatu —mazedoniar, erromatar eta mamelukoei bezala— «garaipenean lokartu» izana. Beste gerra-makina hauek beren zoritxarreko ezbeharrak izan zituztenean, bakoitza erremediorik gabe zaharkitua zegoen eta inolako konponbiderik gabe. Asiriarr gerra-makina, ordea, etengabe berrikusi, berritzua eta indartu zuten bere suntsipen-egunera bertara arte. Jeinu militarren fondoa —Kristo aurreko hamalagarren mendean, Hego-mendebaldeko Asiaz nagusitzeko Asiriak egin zuen lehen ahaleginaren bezperan, hoplitarren enbrioi eta, Kristo aurreko zazpigarren mendean, Asiriaren beraren deuseztapenaren bezperan, katafraktadun zaldizko arkulariaren enbrioi sortu zituena— emankorra izan zen bitarteko zazpi mendeetan ere. Asmamen indartsua eta hobetzeko irrika atergabea, azkenaldiko asiriarr ethosaren ezaugarriak gerragintzari egingako aplikazioan, oso ongi adierazita daude, errege-jauregietan *in situ* aurkitutako baxu-erliebeetan, non asiriarr ekipamendu eta teknika militarren ondoz ondoko faseak asiriarr historiako azken hiru mendeetan pikturikoki jasota dauden zehaztasun handiz eta xehetasun guztiekin. Hemen aurkitzen dugu erregistratuta etengabeko esperimentu eta hobekuntza gorputz-armaduran, gerra-gurdien diseinuan, erasorako tramankuluetan eta xede berezietarako tropa espezializatuen bereizketan. Zein izan zen orduan Asiriaren suntsipenaren kausa?

Lehenik, etengabeko ofentsibaren politikak eta politika hura gauzatzeko tresna ahaltsu bat edukitzeak bultzatu zituen asiriarr gerra-jaunak, beren militarismoaren laugarren eta azken erasoaldian, beren eginkizun eta konpromisoak arbasoek gordetako mugetatik askoz urrutirago eramatera. Asiriak aurrez beti erabili behar izan zituen baliabide militarrek bere zeregina betetzeko, hots, mundu babilonikoaren markak zaintzeko, batetik menditar barbaroen aurka Zagros eta Taurus-en, eta bestetik Zibilizazio Siriakoaren aramear aitzindarien aurka. Bere militarismoaren lehen hiru erasoetan, bi fronte horietan defentsibatik ofentsibara igarota konformatu zen Asiria, ofentsiba hau *à outrance* eraman gabe eta bere indarrak beste norabide batzuetan

sakanabatu gabe. Hala ere, hirugarren erasoak, K.a. bederatzigarren mendearen erdiko bi laurdenak hartu zituenak, siriar estatuen aldi baterako koalizioa sortarazi zuen, eta honek asiriarren aurrerakada geldiarazi zuen Qarqar-en K.a. 853an, eta Armenian Urartuko erresumaren fundazioaren *riposte* ikaragarriagoarekin topo egin zuen. Ohartarazpen hauek gorabehera Teglathalasar III.ak (K.a. 746-727), asiriar erasoaldietako azken eta handiena hasi zuenean, xede politiko handiak izan eta helburu militarrek planteatu nahi izan zituen, Asiria hiru etsai berriren —Babilonia, Elam eta Egiptoren— aurka jarri zutenak, horietako bakoitza Asiria bera bezain botere militar handia izan zitekeelarik.

Teglathalasarrek, Siriako estatu txikiak erabat menderatzeari ekin zionean, Egiptorekiko gatazka utzi zien ondorengoei; zeren eta Egipto ezin baitzen axolagabe gelditu Asiriar Inperioa bere mugaraino hedatuta, eta asiriar inperiogileen lana zapuztu edo desegiteko egoeran zegoen, hauek ez bazuten behintzat beren lana biribiltzea erabakitzen, Egipto bera menderatzeko zeregin are ikaragarriagoari ekinez. Teglathalasarrek K.a. 734an egin zuen Filistiaren okupazio arriskutsua maisu-kolpe estrategikoa izan zitekeen, 733an Samaria aldi baterako menderatzearekin eta 732an Damasko erortzearekin saritua. Baina Sargon egiptoarrek liskartzera eraman zuen 720an eta Senakerib 700ean, eta burutu gabeko tupusteko horiek gero Asarhadon eraman zuten Egipto konkistatu eta hartzera 675, 674 eta 671ko kanpainetan. Harrezkero garbi gelditu zen asiriar armadak, egiptoar armadak menderatu eta Egiptoko lurraldea hartzeko eta balentria errepikatzeko nahikoa indartsu baziren ere, ez zirela behar hainbat indartsu Egipto mendean edukitzeko. Asarhadon bera berriro ere Egiptorantz zihoan heriotzak harrapatu zuenean 669an; eta Asurbanipalek, egiptoar matxinada 667an ito zuen arren, berriro konkistatu behar izan zuen Egipto 663an. Garai hartarako asiriar gobernua oharturik izango zen Psike-ren zereginean sartuta zegoela Egipton, eta Psametikor 658-651n asiriar soldadu-taldeak oztoporik gabe bota zituenean, Asurbanipalek ez ikusiarena egin zuen gertatzen ari zenaren aurrean. Honela bere egiptoar galerak moztean Asiriako erregea zuhurra izan zen, zalantzarik gabe; baina gertaeraren ondorengo zuhurtzia hori Egiptoko bost kanpainetan erabilitako indarra alferrik galtzea izan zela aitortzea zen. Are gehiago, Egipto

galtzea hurrengo belaunaldian gertatuko zen Siria galtzearen atarikoia izan zen.

Teglatfalarrek Babilonian egindako esku-hartzearen azken ondorioak askoz larriagoak izan ziren Sirian zertu zuen politika aurre-ratuarenak baino, zeren eta, kausa eta efektuen zuzeneko katean, K.a. 614-610eko hondamendira eraman baitzuten.

Babiloniaren aurkako asiriar eraso militarren lehen etapetan bada nolabaiteko moderazio politikoaren frogarik. Botere konkistatzaileak nahiago izan zuen bertoko jatorria zuten printze txotxongiloen mende protektoratuak ezartzea erabat beretu edo anexionatzea baino. 694-689ko kaldear matxinada handiaren ondoren bakarrik bukarazi zuen Senakeribek Babiloniaren independentzia, bere seme eta ondorengo izendatua, Asarhadon, ezarri zuelarik Asiriako erregeorde. Baina moderazio-politika horrek porrot egin zuen kaldearrak adiskidetzen, eta adoretu baino ez zituen egin asiriarren erronka militarri gero eta indar handiagoz erantzuteko. Asiriar militarismoaren kolpe gogorren mende, kaldearrak ordenan jarri zuten etxeko anarkia eta ituna ziurtatu zuten beren auzoko Elamgo erresumarekin. Eta, hurrengo etapan, moderazio politikoaren politika baztertzeak eta 689an Babilonia arpilatzeak nahi zenaren kontrako irakaspena eman zuten. Asiriar izugarrikeriazko egintza honek antzinako hiri-biztanleen eta kaldear nomada sarkinen artean sorturiko gorrotoaren goritasunean, hiritarrak eta tribu-jendea elkarrenganako ikusiezina ahaztu eta babiloniar nazio berrian bat egitera iritsi ziren, honek ezin zuelarik ez ahaztu, ez barkatu, ezta inoiz atsedetik hartu ere bere zapaltzailea behera eraitsi arte.

Hala ere, mende baten zatirik handiengan ezinbesteko ὄτῃ-aren kolpea atzeratu egin zuen asiriar makina militarren gero eta eraginkortasun handiagoak. Elamek, adibidez, 639an hain kolpe suntsigarria hartu zuen, ezen haren lurralde abandonatua ekialdeko mugako pertsiar menditarren agindupean geratu baitzen, eta tranpolin bihurtu zen, handik mende bat geroago akemenestarrak Hego-mendebaldeko Asia osoaz jabetzeko. Hala ere, 626an Asurbanipal hil eta berehala, Babilonia matxinatu egin zen berriro Nabopolasarren buruzagitzapean, honek Mediako erresuma berrian Elam baino aliatu indartsuagoa aurkitu zuelarik; eta hamasei urteren buruan Asiria mapatik desagertu egin zen.

Gero eta gerra bortitzagoak izan zituen mende eta erdiari — Teglathalasarrekin K.a. 745ean hasi eta babiloniar Nabukodonosorrek Necho faraoiaren gain Carchemish-en 605ean izandako garaipenarekin itxi zenari— atzera begiratzeko badiogu, lehen begiratuan ikusten diren mugarri historikoak komunitate osoak suntsitzeko Asiriak emandako *knock out* kolpeak dira, hiriak jo eta erraustuz eta herri osoak gatibu eramanez: Damasko 732an, Samaria 722an, Musasir 714an, Babilonia 689an, Sidon 677an, Menphis 671n, Tebas 663an, Susa *circa* 639an. Asiriaren besoaren irispidean zeuden estatu guztien hiriburu guztietatik, Tiro eta Jerusalem bakarrik geratu ziren ukitu gabe Ninive bera 612an arpilatu zutenean. Asiriak auzokoei ezarri zizkien galera eta miseria ez dago kalkulatzetik; hala ere, eskola-maisu hipokritak jipoitzen duen mutikoari esan izan diona —«zuk baino min handiagoa hartzen dut neuk»— asiriaren ekintza militarren kritika ego-kiagoa litzateke asiriaren gerra-jaunek beren balentrien berri emateko erabili dituzten narrazioak baino, lotsagabeki beldurrezkoak eta beren buruarentzat lañoki atsegingarriak. Paragrafo honetan aipaturiko Asiriaren biktima guztiak borrokatu ziren berriro bizitzeko, eta batzuek etorkizun bikaina ere izan zuten aurrean. Ninive bakarrik geratu zen hilik eta sekula ez zen berriro altxatu.

Patuen aurkakotasun honen arrazoa ez da aurkitzen zaila. Bere garaipen militarren atzean, Asiria suizidio geldorantz zihoan. Aztergai dugun denboraldian haren barne-historiaz dakigun guztiak argi eta garbi erakusten ditu ezegonkortasun politikoa, hondamendi ekonomikoa, gainbeherako kultura eta despopulatze zabala. Asiriaren bizitzako azken mende eta erdian asiriaren sorlekuan bertoko akadieraren bizkar arameraren aurrerapen ongi egiaztatuak erakusten du asiriaren jendearen ordeztasun asiriaren arku eta geziaren gatibuak ari zirela era baketsuan sartzen asiriaren aginte militarra bere maila gorenean zegoenean. Niniven 612an aurre-aurrean egon zen gerrari menderagaitza «armadura barruko gorpua» zen, eta bere ekipo militarren sendotasunagatik bakarrik irautea zuen zutik, *felo de se* hau ekipo hartan ito zelarik heriotzaraino. Mediar eta babiloniar talde iskanbilatsua irudi zurrun eta mehatxagarriagana iritsi zenean eta abarrotsez eta burrunbatsu harresi hondatuan behera hobira bota zutenean, ez zuten susmatu beren arerio beldurgarria ez zela jada gizaki bizia kolpe ausart eta itxuraz erabakigarria eman zioten unean.

Asiriaren hondamendia bere motako tipikoa da. «Armadura barruko gorpuaren» koadroak espartar falangearen ikuskizuna iradokitzen du Leuktrako gudu-zelaian K.a. 371n, eta janizariena Viena aurreko lubakietan K.o. 1683an. Auzokoen aurka deuseztapen-gerrak zertzen hain neurrigabea izanik nahigabe bere burua suntsitzen duen militaristaren patu ironikoak karolinjioek edo timurtarrek beren buruari emandako heriotza gogorarazten du; hauek beren saxoniarrak edo pertsiar biktimen agoniaren gainean inperio handiak eraiki zituzten, eskandinaviar edo uzbek abenturariei hondarrak uzteko bakarrik, hauek bizi izan baitziren aukera ikusi eta aprobetxatzeko, inperiogileek bizialdi bakar baten denboran ezintasunean hondoratuz beren inperialismoa ordaindu zutenean. Beste suizidio-era bat, asiriarrak kasuak burura ekartzen duena, beste militarista batzuen —barbaro nahiz kultura handiagoko herrien— autosuntsipena da, indarrez sartu eta bere babespeko herri eta lurraldeei bakealditxo bat ematen zien estatu unibertsalen bat edota beste inperio handiren bat suntsitzen dutelarik. Konkistatzaileek ankerki urratzen dute estalki inperiala, eta babespean izan dituen milioiak iluntasuneko izuen eta herio-itzalaren mende jartzen ditu, baina itzal honek ezinbestean harrapatzen ditu kriminalak biktimak bezalaxe. Harrapakinaren hantitasunagatik desmoralizatuta, bortxaturiko mundu baten jabe berri hauek gai dira, Kilkenny-ren katuak bezala, elkarri «adiskidetsu mesedeak» egiteko, taldean bandidorik gelditzen ez den arte harrapakinaz festa egiteko.

Ikus dezakegu mazedoniarrek, Akemenestar Inperioa menderatu eta haren urrutieneko mugez harantzago Indiaraino presionatu zutenean, gero basakeria berberaz erabili zituztela armak elkarren aurka K.a. 323an Alexandroren heriotzaren eta 281ean Korupedion-en Lisimakok jasandako porrotaren arteko berrogeita bi urteetan. Egintza ilun hura mila urte geroago errepikatu zen arabiar musulman primitiboek berdindu —eta gero desegin— zutenean mazedoniarren lana, hamabi urtez inbaditu baitzituzten Hego-mendebaldeko Asian erromatar eta sasandarren aginterriak, hamaika urtetan Alexandrok konkistaturikoa bezain lurralde zabala ia. Arabiarren bidelapurreriazko egintza honetan konkistaren hamabi urteen ondoren anaiarteko gerraren hogeita lau urteak etorri ziren. Berrirori ere konkistatzaileek elkarren aurka jardun zuten, eta estatu unibertsal siriako bat berrera-

kitzearen loria eta probetxua omeiatar usurpatzaile eta abbastar sarkinentzat izan zen, eta ez Profetaren lagun eta ondorengoeztzat, hauen konkista bizkorrek prestatu bazuten ere bidea. Militarismoaren suizidio-joera asiriarrak berbera erakutsi zuten barbaroek gain behera zihoan Erromatar Inperioko probintzia abandonatuak konkistatu zituztenean, dagoeneko Azterlan honetan lehenagoko orrialdeetan erakutsi dugun bezala.

Aberrazio militaristak badu beste aldaera bat, eta horren prototipoa ere asiriarrak militarismoan aurkituko dugu, Asiria bere kokaleku propioan Gizarte Babilonikoa deitu dugun gizarte-gorputz handiagorekin parte bailitza aztertzen dugunean. Gizarte horretan Asiria marka bat zen, eta haren egiteko berezia bere burua ez ezik, bera parte zen munduaren gainerakoa ere defenditzea zen, menditar harrapariengandik ipar eta ekialdean eta Gizarte Siriakoko *aitzindari* oldarkorrengeandik hego eta mendebaldean. Honelako marka bat aurrez desberdindu gabeko gizarte-egiturarekin antolatzean, gizarteak kide guztiei ekartzen die onura; zeren eta, marka —kanpoko presioei aurre egiteko bere erronkari arrakastaz erantzuten dion neurrian estimatua gertatzen den bitartean— barrualdea presiotik libre gelditzen baita eta aske beste erronka batzuei aurre egiteko eta beste zeregin batzuk betetzeko. Lanaren banaketa hau apurte egiten da mugazainek kanpotararen aurka erabiltzen ikasitako armak beren gutziak lortzeko baliabide bihurtzen dituztenean gizarte barruko kideen bizkar. Ondoren gerra zibila etortzen da funtsean, eta honek esplikatzen du Teglafalasarrek K.a. 745ean zerturiko ekintzatik azkenean sortu ziren ondorioen larritasuna, asiriarrak Babiloniaren aurka jarri zituztenean. Barrualdearen aurka jartzen den markaren aberrazioa, bere izaeragatik, hondagarria da gizartearentzat bere osotasunean, baina markan bizi denarentzat berarentzat suizida da. Haren ekintza beso armatu batena bezalakoa da, astintzen duen ezpata bere gorputzean sartzen duelarik; edota bera eserita dagoeneko adarra zerratzen duen egurginarena bezalakoa, horrela behera erortzen delarik mozturiko zuhaitzaren enborrak zutik dirauen bitartean.

Karlomagno

Aurreko paragrafoan aztertutako energien okerbidearen intuitiozko susmoak eraman zituen agian austrasiar frankoak, K. o. 754an, hain sutsu protestatzera Esteban aita santuak senide lonbar-

diarren aurka armak hartzera egindako deiari beraien gerra-jaun Pipinok erantzuteko hartu zuen erabakiaren kontra. Aitasantutza Alpeez bestaldeko potentzia honi begira zegoen, eta Pipinoren handinahia suspertu zuen 749an errege koroatu zuenean, ondorioz haren aginpidea *de facto* legitimatuz, Pipinoren belaunaldian bi frontetan marka bezala emandako zerbitzuengatik nabarmendu zelako Austrasia: saxoniar paganoen aurka Rhinez harantzago, eta Iberiar penintsularen arabiar konkistatzaile musulmanen aurka, hauek Pirinioetan zehar ari zirelarik presionatzen. 754an austrasiarrak beren benetako zeregina aurkitzen ari ziren arloetatik beren energiak desbideratzera gonbidatu zituzten lonbardiarrak suntsitzeko helburuaz, hauek aitasantutzaren gutizia politikoak oztopatzen ari baitziren. Eginkizun honekiko austrasiar masen errezeloak praktikan justifikatuagoak zirela frogatu zen beraien buruzagiaren irrika baino; zeren eta jarraitzaileen eragozpenak gaintitzean, Pipinok konpromiso militar eta politikoen katean lehen maila forjatu baitzuen, Austrasia are estuago lotuz Italiari. Haren 755-6ko italiar kanpainak gero Karlomagnoren 773-4koa ekarri zuen, hasi berria zuen Saxoniaren konkista hondagarriro eten zuen kanpaina. Geroztik, ondorengo hogeita hamar urteetan, haren operazio neketsuak Saxonian berriro eten ziren lau aldiz gutxienez Italiako krisiak tartekatzean, hauek han bertan egotea eskatzen baitzioten denboraldi aldakorretan. Haren gutizia kontraesankorreatatik Karlomagnoren mendekoei ezarritako zamak astundu egin ziren, pisu hari eusten zion austrasiar bizkarralde hausteraino.

Timur Lang

Era berean Timur Langek bere Transoxaniaren bizkarralde hautsi zuen Iran eta Irak eta India eta Anatolia eta Siriara egindako amaigabeko espedizioetan transoxaniar indarren erreserba urria alferrik galduz, eurasiar nomadei bere bakea ezartzeko zegokion eginkizunean saiatu ordez. Transoxania zen Gizarte Iraniko sedentarioaren marka eurasiar nomaden aurka, eta haren erreinaldiko lehen hemeretzi urteetan (K.o. 1362-80) Timurrek arretaz hartu zuen markazain gisa zegokion benetako eginkizuna. Lehenik aurre egin zien chagatay nomadei eta gero beraien aurkako ofentsibari ekin zion, eta bere agindupeko lurak osatu zituen Behe Oxus-en Khwarezm-eko oasiak Jujiren ondareko nomadengandik askatuz. K.o. 1380an zeregin handi

hori osatzean Timur Langek harrapakin handiagoa izan zuen irispidean: Gengis Khanen eurasiar inperio handiaren ondorengotza bera; zeren eta Timur Langen belaunaldian nomadak erretiradan baitzeuden basamortuaren eta ereindako lurraren arteko muga luzeko sektore guztietan, eta Eurasiaren historian hurrengo atala Gengis Khanen ondarearen harrapakina lortzeko inguruan suspertzen ari ziren herri sedentarioen arteko lasterketa izango zen. Lehia honetan moldaviar eta lituaniarrak urrutiegi zeuden lasterketan sartzeko; moskoviarrak beren oihanetan harrapatuta zeuden eta txinatarrek beren landetan; lehiakide kosakoek eta transoxaniarrek bakarrik izan zuten arrakasta estepan etxean bezala sentitzen beren bizimoduaren oinarri sedentarioak erauzi gabe, eta bi horietatik bazirudien transoxaniar lehiakideak zuela aukera handiena. Berez indartsuagoa izan eta esteparen bihotzetik hurbilago egoteaz gain, lehena zen landan ere, eta Sunna-ren aldezkari zen aldetik, bazituen jarraitzaile izan zitezkeenak esteparen beste aldeko kostetan Islamaren aitzindari-taldeak ziren komunitate musulman sedentarioen artean.

Instant batez bazirudien Timur Langek bere aukera baloratu eta ausardiaz heldu ziola, baina hasierako mugimendu ausart eta distiratsu gutxi batzuen ondoren, erabateko bira eman eta bere armak mundu iranikoaren barrualdera zuzendu zituen eta bizitzako azken hogeita lau urteak ia osorik eskualde horretan eman zituen hainbat kanpaina antzu eta suntsigarritan. Haren garaipenen garrantzia haren emaitzak suizida bezain txundigarria izan zen.

Timur Langek bere burua sorgortu zuen eta hori militarismoaren suizidio-joeraren adibide gorena da. Haren inperioak ez zuen iraun bera hil ostean, eta gainera ondorengo eragin positiborik batere gabe gelditu zen. Aurkitzen den eragin bakarra erabat negatiboa da. Zuzen-zuzenean bere suntsipenera joateko bidean aurkitu zuen guztia ezabatzean, Timurren inperialismoak hutsune sozial eta politikoa bakarrik sortu zuen Hego-mendebaldeko Asian; eta hutsune honek osmanliarrak eta safauiak elkarren aurka talka egitera eraman zituen azkenean, Gizarte Iraniko zaurituari heriotza-kolpea eman ziolarik.

Gizarte Iranikoak mundu nomadaren ondarea galtzea erlijioaren mailan ikusi zen lehenik. Timurren belaunaldian bukatu ziren lau mendeetan, Islama pixkanaka bere agintea ezarriz joan zen eurasiar esteparen kostak inguratzen zituzten herri sedentarioetan eta nomadak

eurak ere liluratzen zituen basamortutik lur landura igarotzen zirenean. Hamalagarren mendean bazirudien ezerk ezin ziola Islamari eragotzi Eurasia osoko erlijio bihurtzea. Baina Timurren ibilketak bere bidea egin ondoren, Islamaren aurrerapena Eurasian gelditu egin zen, eta bi mende geroago mongolak eta kalmukak mahayaniar budismoaren forma lamaistara konbertitu ziren. Aspaldi desagerturiko Zibilizazio Indikoaren erlijio-bizitzaren erlikia fosildu baten garaipen harrigarri horrek Timur Langen garaitik igarotako bi mendeetan Islamaren ospea eurasiar nomaden estimuan noraino erori zen erakusten du.

Politika-mailan Timur Langek lehenengo babestu eta gero traizionatu zuen kultura iranikoak ere lur jo zuen. Azkenean eurasiar nomadismoa politikoki otzantzeko balentria zertu zuten gizarte sedentarioak errusiarrak eta txinatarrak izan ziren. Historia nomadan behin eta berriro errepikaturiko dramaren azken ondorio hau aurreikusgarri bihurtu zen, kristau-aroko hamazazpigarren mendearen erdian Moskoviako zerbitzari kosakoez eta Txinako ugazaba mantxuek beren bidearen bila kontrako norabideetan zebiltzala esteparen iparraldeko ertzean elkarren aurka jo zutenean eta Gengis Khanen antzinako larretokien inguruan Amur ibaiaren goi-arroan Eurasiatz jabetzeko lehen borroka egin zutenean. Eurasiaren banaketa bi lehiakide horien artean mende bat geroago osatu zen.

Gogoeta bitxia da, Timur Langek ez bazion bizkarra eman Eurasiari eta armak ez bazituen Iranen aurka itzuli K.o. 1381ean, Transoxania eta Errusiaren arteko egungo harremanak alderantzizkoak izan zitezkeela gaurkoen aldean. Zirkunstantzia hipotetiko haue- tan egungo Errusia egungo Sobiet Batasunaren zabalera bereko inperio batean sartuta egon zitekeen, baina grabitate-zentro oso desberdinarekin: Inperio Iraniko bat, Samarkandak gobernatuko zukeelarik Mosku, honek Samarkanda gobernatu ordez. Irudikaturiko koadro hau oso arraroa gerta daiteke gertaeren benetako martxa oso bestelakoa izan delako bost mende eta erdiz, baina gutxienez hori bezain koadro bitxia agertuko da Mendebaldeko historiarentzat bide alternatiboa imajinatzen badugu, hots, Karlomagnoaren energia militarren desbiderapen ez hain bortitz eta zoritxarrekoa Mendebaldeko Zibilizazioarentzat Timurrena Iranikoarentzat bezain hondagarria gertatu zela uste izaten badugu. Analogia honetan Austrasia magia-

rrek eta Neustria bikingoek hamargarren mendearen iluntasunean murgilarazia imajinatu beharko dugu, eta gero Karolinjioen Inperioaren bihotza aginte barbaro horren mende irauten, hamalau-garren mendean osmanliarrak agertu ziren arte Mendebaldeko Kristandadeko marka abandonatu hauetan atzerriko agintearen gaitz txikiagoa ezartzeko.

Baina Timur Langen suntsipen-egintza guztietako handiena bere buruaren aurka egin zuena izan zen. Hilezkor egin zuen bere izena ondorengo burutik bere balentrien oroitzapen oro ezabatze-aren ordainetan, balentria horiengatik betiko gogoratua izan ziteke-elarik. Kristandadean edo Dar-al-Islam-en Timur Langen izenak, zenbat jenderi sortzen dio barbarotasunaren aurkako zibilizazio-aldezkariaren irudia, independentziaren alde hemeretzi urteko borrokaren ondoren gogor irabazitako garaipenera bere herrialdeko kleroa eta jendea eraman zuenaren ideia? Timur Lang edo Tamerlan-en izenak, zerbait adierazten badu, azken bost errege asi-riarrek ehun eta hogeitaz ardatan adina izugarrikeria hogeita lautan egin zituen militarista gogorazten die gehienei. K.o. 1381ean Isfarain guztiz eraitsi zuen munstroaz oroitzen gara; 2.000 preso bizirekin tumulua egin eta gero adreiluz estali zituen Sabzawar-en 1383an; urte berean 5.000 giza buru metatuz minareteak egin zituen Zirih-n; luri presoak amildegietara bota zituen bizirik 1386an; 70.000 pertsona sarraskitu zituen eta haien buruak minarete-forman metatu zituen 1387an Ispahanen; 100.000 preso sarraskitu zituen Delhin 1398an; Sivasko goarnizioko 4.000 soldadu kristau bizirik lurperatu zituen 1400ean kapitulatu ondoren; eta buru-hezurrez hogeitaz dorre eraiki zituen Sirian 1400 eta 1401ean. Horrelako balen-triengatik soilik ezagutzen dutenen buruan, estepako ogroekin — Gengis eta Atila eta horrelakoekin— nahastuta geratzea lortu du Timur Langek, haien aurka borrokan eman zuelarik bere bizitzako lehen erdia eta onena gerra santua egiten. Ero homizida honen megalomania burugabea, zeinen ideia gizadiaren irudimenari zirra-ra eragitea baitzen abusu higuingarrien bidez bere indar militarra sentiaraziz, bikain adierazia dago Marlowe poeta ingelesak bere Tamerlanen ahoan jarritako hiperboleetan:

*Gerraren Jainkoak bere eremua uzten dit,
munduko jeneral egin nahi nauelarik;*

*Jupiter, nire armak ikustean, zurbil eta kolorge gelditzen da,
 beldur baita nire ahalmenak tronutik botako ote duen.
 Ni iristen naizen lekuan ahizpa zorigabeak izerditan jartzen dira,
 Herio beldurgarria harat-honat lasterka hasten da
 omenaldi etengabea egiteko ene ezpatari...
 Milioika arima dago Styx-en ertzetan,
 Karonteren ontzia noiz itzuliko zain,
 infernua eta Eliseoa giza arimaz beterik daude,
 nik guda-zelai askotatik bidaliak,
 nire ospea infernuan zehar zeruraino zabaltzeko¹³².*

Margravea bandido bihurtu da

Timur Lang eta Karlomagno eta azken asiriarrak erregeen ibilerak aztertzean fenomeno berbera aurkitu dugu hiru kasuetan. Gizarte batek bere burua kanpoko etsaien aurka defendatzeko mugazainen artean garatzen duen gaitasun militarrek eraldaketa beldurgarria jasaten du militarismoaren gaitz moralean, «inorena ez den lurraldean» mugez harantzago dagokion eremutik desbideratu eta barrualdean mugazainen neba-arreben aurka erabiltzen denean. Gizarte-gaitz horren beste adibide batzuk berehala etorriko zaizkigu burura.

Gogoan izango dugu Mertzia, Erromatar Inperioak Britainia Handian izan zituen ondorengo beste estatu ingelesen aurka erabili baitzituen bere jatorrizko zeregina —Galesen kontra ingeles marka izatea— betetzen zorrozturiko armak; edo Ingalaterrako Plantagenet erresuma, Ehun Urteko gerran senide zuen Frantziako erresuma konkistatzen ahalegindu baitzen bere arazo propioaz arduratu gabe, hots, bien amaren —Kristandade Latindarraren— mugak zabaltzea Zerrenda Zeltikoaren kontura; baita Siziliako Roger normandiar erregea ere, Italian bere agindupeko lurak zabaltzeko erabili baitzituen energia militarrek eta ez arbasoen lanari jarraitzeko, hots, Mendebaldeko Kristandadearen mugak Mediterraneoan zabaltzea Kristandade Ortodoxoaren eta Dar-al-Islam-en kontura. Era berean, Zibilizazio Minoikoak Europako kontinentean zituen aitzindari-talde mizenastarrek barbaro kontinentalen aurka irmo eusten lorturiko trebetasuna gaizki erabili zuten, beren ama Kreta eraitsi eta zauritzeko.

Mundu egipziakoan, hegoaldeko marka klasikoa Nilo ibarren eskualdean, lehen ur-jauzitik behera berehala dagoena, armatan trebatu zen ibaia goiko nubiar barbaroei atzera eusteko eginbeharra betetzen, eta hori barrualdeko komunitateen aurka jarri eta Bi Koroen Erresuma Batua bortxa hutsez ezartzeko izan zen. Militarismo-egintza hori bere egileak deskribatu du, autoatsegina-
ren zintzotasun guztiarekin, Zibilizazio Egipziakoaz orain arte aurkitu den lehenengo idazkietako batean. Narmer-en paletak Goi Egiptoko gerra-jaunak Behe Egipto konkistatu ondoren egin zuen garaipenezko itzulera pintatzen du. Gizagaineko altuerara hazia, errege-konkistatzailea estandarte-eramaileen ilara harro baten atzetik doa burua mozturiko etsaien bi gorpu-ilaratarantz, eta behean, zezenaren irudian, eroritako kontrario bat zapaltzen du eta hiri gotor baten harresiak eraisten ditu. Ondoko idazkiak 120.000 giza gatibu, 400.000 idi eta 1.422.000 ardi eta ahuntzeko harrapakina zerrendatzen duela uste da.

Arte egipziako arkaikoaren obra beldurgarri horretan militarismoaren tragedia osoa daukagu, Narmerren garaitik behin eta berriro antzeztu den bezala. Tragedia horren emanaldi guztietatik mingarriena Atenas errudun izan zenekoa da agian, «Helasen askatzaile» izatetik «hiri tirano» izatera igaro baitzen. Atenastar aberrazio honek sekula gainditu ez zen Peloponesoko gerraren hondamena ekarri zuen Helas osoaren gainera, baita Atenasen beraren gainera ere. Arlo militarra, kapitulu honetan aztertu duguna, argigarria da κόρος-ύβρις-ἄτη zoritxarreko katea aztertzeke, zeren eta trebetasun eta adore militarra tresna zorrotzak baitira, gaizki erabiltzen dituztenei zauri hilgarriak eragiteko modukoak. Baina ekintza militarraz argi eta garbi egia dena, egia da halaber beste giza ekintza batzuei buruz ere arrisku gutxiagoko arloetan, non κόρος-etik ύβρις-en zehar ἄτη-ra doan bolboralorratza ez baita hain lehergarria. Edozein izanda ere giza ahalmena edo berorren jarduera-eremua, ahalmen batek bere arlo propioan zeregin mugatu bat zertzeko gai dela erakutsi duelako bestelako egoeratan ere neurribako ondorioren bat eragiteko berataz balia gaitezkeela uste izatea aberrazio intelektual eta morala baino ez da, eta beti hondamendi ziurrera eramaten du. Orain kausa eta efektuaren sekuentzia horren berorren funtzionamenduaren kasu bat aurkeztuko dugu militarra ez den arlo batean.

7.

Garaipenaren hordikeria

Aulki Santua

Κόπος-ύβρις-ἄτη-ren tragedia aurkezteko era orokorrenetako bat garaipenaren hordikeria da, zoritxarreko sari hori ematen duen borroka arma bidezko gerra nahiz indar espiritualen gatazka izan. Drama honen bi aldaeren adibideak Erromako historian daude: garai-pen militarren hordikeria K.a. bigarren mendean Errepublikak izandako kolapsoagatik, eta garaipen espiritualaren hordikeria kristauaroko hamahirugarren mendean aitasantutzaren kolapsoagatik. Baina Erromatar Errepublikaren kolapsoaz beste punturen batean dagoeneko jardun dugunez, orain bigarren gaia jorratuko dugu hemen. Mendebaldeko erakunde guztietan handiena den Erromatar Aulkiaren historiako atala, guri hemen dagokiguna, K.o. 1046ko abenduaren 20an hasi zen, Enrike III.a enperadoreak Sutriko sinodoa ireki zuenean, eta Viktor Manuel erregearen soldaduek 1870eko irailaren 20an Erroma hartu zutenean bukatu zen.

Aita santuaren *Respublica Christiana* bakarra da giza erakundeen artean. Bere izaera beste gizarte batzuetan garatutako erakundekiko analogiaz ezartzeko ahaleginek hain desberdintasun funtsezkoak erakusten dituztenez, alferrikakoak gertatzen dira ustezko analogia horiek. Ongien deskribatzeko, termino negatiboen bidez, erregimen zesaropapistaren alderantzizkatze zehatza izan zela esan daiteke, berorren aurkako gizarte-erreakzio eta protesta espirituala izan baitzen; eta deskribapen honek beste ezerk baino hobeto ematen du Hildebrandoren lorpenaren neurria.

Toskanako Hildebrandok bere egoitza Erroman ezarri zuenean hamaikagarren mendeko bigarren laurdenean, Ekialdeko Erromatar Inperioaren aitzindari-postu abandonatu batean aurkitu zen, Bizantziar Gizartearen kimu endekatu batek hartua. Azken erromatar hauek militarki mespretxagarriak ziren, sozialki iskanbilatsuak, finantza eta espiritu aldetik porrot eginak. Ez ziren gai auzoko lonbardiarrei aurre egiteko; galduak zituzten aita santuaren jabego guztiak etxe-

an nahiz itsasoz bestaldean; eta monasterioetako bizitza-maila igo behar izan zenean Clunyra jo behar izan zuten gidaritza bila, Alpeez harantzago. Aitasantutza onera ekartzeko lehen ahaleginetan erromatarrak baztertu eta Alpeez bestaldekoak izendatu ziren. Erroma mespretxatu eta atzerritar honetan, Hildebrandok eta haren ondorengoek arrakasta izan zuten Mendebaldeko Kristandadearen erakunde nagusia sortzen. Aita santuaren Erromarentzat konkistatu zuten inperioak aginte handiagoa izan zuen giza bihotzean Antoninoen Inperioak baino, eta maila material hutsean Mendebaldeko Europako zabalera handiak hartu zituen Rhin eta Danubioz harantzago, Augustoren eta Marko Aurelioren legioek inoiz hanka jarri gabeko lekuetan.

Aita santuaren konkista hauek Kristau Errepublikaren eraketa-ri zor zitzaizkion neurri batean, beronen mugak ari zirelarik zabaltzen aita santuak; izan ere, eraketa horrek konfiantza sortzen zuen eta ez etsaitasuna. Eliz zentralismo eta uniformetasuna aniztasun eta autonomia politikoarekin konbinatua zegoen; eta haren eraketa-doktrinan botere espiritual mundutarraren gainetik egotea puntu nagusia zenez, konbinazio horrek batasun-nota gailenarazi zuen Mendebaldeko Gizarte gaztetxoari askatasun eta malgutasunaren osagaiak kendu gabe, nahitaezko baldintzak baitira hazteko. Erdialdeko Italiako lurraldeetan ere, zeinen gaineko aginte sekular nahiz eklesiastikoa erreklamatzeko baitzuen aitasantutzak, hamabigarren mendeko aita santuek hiri-estatuaren autonomiarantzko mugimendua bultzatu zuten. Hamabigarren mendetik hamahirugarrenera igarotzean, mugimendu hiritar hori Italian bete-betean zegoenean eta aita santuaren aginpidea Mendebaldeko Kristandadean maila gorenean zegoenean, Galesko poeta batek zera adierazten zuen: «... oso arraroa zela aita santuaren zentsurak, Erroman ezer mugitu ezin zuenak, beste edonon erregeen zetroei dar-dar eragitea»¹³³. Giraldu Cambrensis-ek pentsatu zuen satiragai izan zitekeen paradoxa ari zela hemen azaltzen. Baina Mendebaldeko Kristandadeko printze eta hiri-estatu gehienak garai hartan aita santuaren nagusitasuna hain eragozpen txikiz onartzeko benetako arrazoia zera zen, ez zutela susmatzen aita santua aginte mundutarraren eremuan sartzen ahaleginduko zenik.

Mundu- eta lurralde-gutizietatik urruntze hau, politikoki iaioa, aita santuaren Erromarentzat bizantziar legatua zen administrazio-dohainaren erabilera kementsu eta saiatuarekin elkartu zen, maila

gorenean zegoen aita santuaren hierokrazian. Kristandade Ortodoxoan dohain hau zoritxarrez Erromatar Inperioaren arima berpiztuari substantzia emateko eta horrela Gizarte Kristau Ortodoxo gaztetxoa berak jasateko astunegia zen erakunde baten zamapean zantpatzeko *tour de force*-ari aplikatu zitzaion bitartean, *Respublica Christiana*-ren erromatar arkitektoek hobeto erabili zituzten beren administrazio-baliabideak eta, plan berri baten arabera, egitura arinagoa eraiki zuten oinarri zabalagoen gainean. Aita santuaren amaraunaren harizpi fin-finek, hasieran ehundua izan zen bezala, Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadea bildu zuten batasun behartu gabeen, onuragarria bai zatientzat eta bai osotasunarentzat. Geroago bakarrik, gatazkaren tentsioan oihala zabartu eta gogortu zenean, zetazko hariak burdinazko xerrenda bihurtu ziren eta hain pisu astuna bilakatu ziren bertako printze eta herrien gainean, ezen hauek azkenean indar handiz hautsi baitzituzten kateak, asko arduratu gabe, beren buruak askatzean, aitasantutzak ezarri eta gordea zuen batasun eku-menikoa suntzitzen ari zirela.

Aita santuaren sorkuntza-lan hartan, jakina, sortzeko bizi-indarra ez zen ez administraziorako gaitasuna, ezta lurralde-gutiziak ekiditea ere; aitasantutza gai zen sortzaile izateko, zalantza edo erreserbarik gabe saiatu zelako gizarte adoleszente batean bizitza hobea eta hazkunde handiagoa izateko itzarritako desirei gidaritza eta adierazpide eta antolaketa ematen. Forma eta ospea eman zizkien desira horiei, eta horrela eraldatu egin zituen gutxiengo sakabanatu edo gizabanakoen ametsak izatetik kausa komun izatera pasatuz eta horien alde borrokatzea izugarri baliotsua zen ustea sortuz, eta jendea zutitu egin zen aita santuak kausa horien alde predikatzen entzutean, horien gatik Aulki Santuaren zoria jokoan jartzen zutelarik. Kristau Errepublikaren garaipena aita santuen kanpainek irabazi zuten: kleroa bi izurrite moraletatik —sexu-kontinentziarik ezetik eta finantza-ustelkeriatik— garbitzeko, Elizaren bizitza mundu-aginteen interfe-rentziatik askatzeko, eta ekialdeko kristauak eta Leku Santuak Islamaren aldezkari turkiarren atzaparretatik berreskuratzeko kanpainek, alegia. Baina hau ez zen izan hildebrandotar aitasantutzaren lan guztia; zeren eta, tentsiorik handieneko uneetan ere, aita santu handiek, zeinen gidaritzapean egin ziren «gerra santu» hauek, izan baitzuten pentsamendu eta borondate-marjinarik bake-egintzetan erabil-

tzeko, hauetan erakutsi zuelarik Elizak bere nortasunik finena eta zertu ere jarduerarik sortzaileena: unibertsitate sortu berriak, monasterio-bizitzaren forma berriak eta eskeko ordenak.

Hildebrandotar Elizaren erortzea bere gorakada bezain ikuskitun harrigarria izan zen; zeren eta gailurrera eraman zuten bertute guztiak, bere nadirrean murgildu zenean, antitesi zehatz bihurtu zirela baitzirudien. Indar materialaren aurka askatasun espiritualaren aldeko borroka egin eta irabazi zuen jainkozko erakundea, berak kanporatu nahi izan zuen gaitzak kutsatu zuen orduan. Simoniaren aurkako borroka gidatu zuen Aulki Santuak berak eskatu zion orduan kleroari ohiko zerga ordaintzeko Erromari eliz izendapenengatik, Erromak berak debekatua zuelarik edozein toki-botere sekularrengandik lortzea. Aurrerapen moral eta intelektualaren buru izandako Erromako Kuria kontserbadorismo espiritualaren gotorleku bihurtu zen orduan. Eliz aginte gorenak bere toki-mendeko sekularren —parroki estatu sortu berrietako printzeen— aldetik finantza- eta administrazio-tresnen emaitzaren zatirik handienaz gabetzea pairatu zuen orduan, tresna horiek aitasantutzak bere aginpidea eraginkor bihurtzeko asmatuak zirelarik. Azkenik, aita santuaren printzerri bateko toki-printze bezala, pontifize gorenak konformatu egin behar izan zuen bere inperio galduaren «ondorengo estatu» txiki baten gaineko subiranotasunaren kontsolamendu-sari kaskarrarekin. Inoiz eman al die erakunde batek Jaunaren etsaiei blasfematzeko hau bezain okasio handirik? Hau da ziur aski sormenaren nemesiaren adibiderik izugarritzkoena, gure Azterlan honetan orain arte aurkitua. Nola gertatu zen eta zergatik?

Nola gertatuko zen iragarrita dago Hildebrandoren ibilera publikoaz gorde diren lehen aktetan.

Hamaikagarren mendean Kristau Errepublika ezarritik gure Mendebaldeko Gizartea anarkia feudaletik askatzeari ekin zioten Erromatar Elizako espiritu sortzaileak, haien oinordeko espiritualen —gaur egun nazioarteko anarkiaren ordeztatu mundu-ordena ezarri nahi dutenen— dilema beraren aurrean aurkitu ziren. Haien xedearen muina indar fisikoaren ordeztatu aginpide espiritualaren jartzea zen eta ezpata espiritualaren armatzat zutela irabazi zituzten garaipen nagusiak. Baina okasio batzuetan bazirudien indar fisikoaren erregimen ezarria ezpata espiritualari aurre egiteko egoeran zegoela inolako zigorrik gabe; eta egoera horietan izan zuen Erromatar Eliza Militanteak

Esfingearen enigmari erantzuna emateko erronka. Jainkoaren soldaduak arma espiritualak ez ziren guztiak ukatu behar al zizkion bere buruari, aurrerabidean geldiarazita geratzeko arriskuarekin? Ala arerioaren beraren armez egin behar ote zuen Jainkoaren borroka Deabruaren aurka? Azken bidea aukeratu zuen Hildebrandok, Gregorio VI.ak aita santuaren altxortegiaren jagole izendatu eta, bide-lapurrek etengabe erasotzen ziotela ikusita, indar armatua antolatu eta lapurrak *manu militari* menderatu zituenean.

Hildebrandok ekintza hau zertu zuen garaian, zaila zen asma-tzea haren egintzaren barne-izaera morala. Haren azken orduan, berrogei urte geroago, enigmaren erantzuna jada ez zen hain iluna; zeren eta 1085ean, bera aita santu deserriratuia izanik Salernon hiltzen ari zenean, Erroma bera ere lur jota baitzegoen izugarritzko zorigaitzaren zamapean, bere apezpikuaren politikak urtebete lehenago baka-rrik ekarri ziolarik gainera zorigaitz hura. 1085ean Erroma arpilatu eta erre berria zuten normandiarrek, haiei aita santuak dei egin zia-larik San Pedroko aldarearen harmailetan —aita santuaren altxorte-gian— hasi eta Mendebaldeko Kristandade osoa hartzeraino zabaldu zen borroka militarrean lagun ziezaioten. Hildebrandoren eta Enrike IV.a enperadorearen arteko gatazka fisikoaren gailurra borrokaldi hil-garriago eta suntsigarriago baten aurrerapena izan zen: borrokaldi hau *à outrance* borrokatuko zen, mende eta erdi baino geroago, Inozentzio IV.aren eta Federiko II.aren artean; eta Inozentzio IV.aren —militaris-ta bihurturiko legelariaren— aitasantutzaldira iristen garenerako gure zalantzak bukatuta izango dira. Hildebrandok berak jarria zuen hilde-brandotar eliza bere arerioen —Munduaren, Haragiaren eta Deabruaren— garaipenean amaituko zen bidean, berak Lurrera ekarri nahi zuen Jainko Hiriaren aurkako garaipenean, alegia.

*Politikak ez du ametitzen, ezta inoiz ametitu ere,
irakaslea aliatutzat; eta Elizak ere
—hierarkiak konklabean San Pedro Zesarren aulkian
jartzea pentsatu zuenean, honela gizakientzat agintzariak
irabazteko, horiengatik maitatu eta gurtu zutelarik Kristo—
ez zuen lasaitu Horren kode zerutarra bere aginte mundutarra
hedatzeko*¹³⁴.

Arrakasta izan badugu esplikatzeko aitasantutza nola beregana-tu zuen berak exortizatu nahi zuen indarkeria fisikoaren deabruak,

orduan aurkitu dugu aita santuaren bertuteak kontrako bizio nola bihurtu ziren ulertzeko esplikazioa ere; zeren eta ezpata espiritualaren orde ezpata materiala hartzea baita funtsezko aldaketa, eta horren korolario gainerako guztiak. Adibidez, nola liteke Aulki Santua, hamaikagarren mendean kleroaren finantzekiko kezka nagusia simonia kentzea izan bazuen, gero hamahirugarren mendean hain sakon inplikatzeko elizaren diru-sarrera batzuk bere izendatuen onurarako banatzen eta hamalagarren mendean bere onurarako kobratzen, kontuan izanda garai batean berak kendu zituela diru-sarrera horiek botere sekularrekiko prostituzioaren eskandalutik, elizan mailaz igotzeko erabiltzetik, alegia? Erantzuna erraza da, aitasantutza militarista bihurtua zen, eta gerra dirua kostatzen da.

Hamahirugarren mendeko aita santuen eta Hohenstaufen-tarren arteko gerra handiaren emaitza azken-azkeneraino borrokaturiko gerra guztien ohiko emaitza da. Izenezko garaileak arrakasta izan zuen biktimari heriotza-kolpea ematen, baina zoritxarreko zauriak egin zizkion bere buruari ere; eta bi gerra-egileen gain benetako garaileak *tertii gaudentes* neutralak izan ziren. Federiko II.aren heriotzatik mende-erdira, Bonifazio VIII.a aita santuak Frantziako erregearen aurka bota zuenean enperadorea suntsitua zuen tximista pontifikala, ondorioek erakutsi zuten aitasantutza, 1227-68ko borroka hilgarriaren emaitza gisa, berak inperioa eraman zuen ahultasun-mailaraino jaitsia zela, eta Frantziako erresuma, berriz, aitasantutza edo inperioa elkar suntsitu arte ziren bezain indartsu izatera iritsia zela. Felipe Ederra erregeak Notre-Dame aurean erre zuen bula bere kleroaren eta bere herriaren onespén orokorrarekin, aita santuaren bahiketa antolatu zuen eta, biktima hil ondoren, aita santuaren administrazioaren egoitza Erromatik Avignonera aldatzea lortu zuen. Gero etorri ziren «Gatibualdia» (1305-78) eta Zisma (1379-1415).

Garbi geratu zen orduan tokian tokiko printze sekularrek heredaduko zutela, lehentxeago edo geroxeago, beren lurraldeen barruan, aitasantutzak pixkanaka beretzat eraikitako administrazio- eta finantza-antolaketa eta botere guztia. Eskualdatze hau denbora-kontua baino ez zen. Bideko mugarritzat har ditzakegu Hornitzaileen (K.o. 1351) eta Praemunire (1353) dekretu ingelesak; mende bat geroago Frantzia eta Alemaniako agintari sekularrei Kuriak egin behar izan zizkien amore emateak Basileako Kontzilioari laguntza kentzeagatik

saritzat; Frantzia eta aita santuaren arteko 1516ko Konkordatua, eta 1534an onarturiko Nagusitasun Akta ingelesa. Aitasantutzaren prerrogatibak gobernu sekularren eskuetara aldatzea Erreforma baino berrehun urte lehenago hasi zen, eta katoliko izaten jarraitu zuten estatuetan nahiz protestante bihurtu zirenetan aplikatu zen. Hamaseigarren mendeak prozesua osatuta ikusi zuen; eta, jakina, ez da kasualitatea mende berean jartzea oinarriak, zeinen gainean eraiki baitira gero Mendebaldeko mundu modernoko estatu «totalitarioak». Prozesu honetan faktore bakun esanguratsuena —dagoeneko aipatu ditugu bere kanpo-mugarriak— debozioa Eliza ekumenikotik parroki estatu sekular horietara aldatzea izan zen.

Giza bihotzetako eragin hau, ondorengo estatu horiek arpilatu-tako erakunde handi eta bikainagotik hartu duten harrapakin balio-tsuen da, leialtasuna eskatuz gehiago iraun baitute bizirik zergak eta armadak ezarritik baino. Arrazoi beragatik, hildebrandotar elizaren ondare espiritual honek lehen kaltegabea eta onuragarria zen parroki estatuaren erakundea gaur egun argi eta garbi zibilizazioarentzat mehatxu bihurtu du. Zeren eta debozio-espiritua, *Civitas Dei* baten bideetatik Jainkoagana beragana zuzentzen zenean sortzeko ahalmen ongilea zena, indar suntsizaille bihurtu baita, bere jatorrizko xedetik desbideratu eta giza eskuek egindako idolei eskaintzean. Parroki estatuak, Erdi Aroko gure arbasoek bazekiten bezala, gizakiak egingako erakundeak dira, onuragarri eta beharrezkoak izanik, gugandik portaera arduratsua —baina gogo-berotasunik gabea— merezi dutenak, gaur egun udalbatza eta probintzi kontseiluei ematen dizkiegun gizarte-betebehar txikien mailakoa. Gizarte-mekanismoaren pieza horiek idolatratzea hondamendirantz joatea da.

Agian aurkitu dugu orain erantzunen bat ulertzeko aitasantutza nola iritsi zen bere περιπέτεια harrigarria pairatzera; baina prozesua deskribatuz ez dugu kausa esplikatatu. Erdi Aroko aitasantutza zergatik bihurtu zen bere erreminten esklabo eta zergatik traizionatu zuen bere burua, baliabide materialak erabiliz, baliabide horiek aplikatu nahi izan zizkien helburu espiritualetatik desbideratuz? Badirudi azalpena hasierako garaipenaren zoritxarreko efektuetan datzala. Indarra indarraz borrokatzeko joko arriskutsuak, intuizioz asma daitezkeen baina agian definitu ezin diren mugetan justifikatua dagoenak, zoritxarreko emaitzak izan zituen, lehen etapan arrakasta bikainegia izan zuelako.

Erromatar Inperio Santuarekiko borrokaren lehen etapetan beren maniobra arriskatuak eman zizkien arrakastez mozkortuta, Gregorio VII.ak (Hildebrandok) eta haren ondorengoek indarra erabiltzen jarraitu zuten, espirituala ez den maila honetan garaipena berezko helburu bihurtu zen arte. Honela, Gregorio VII.a Inperioaren aurka borrokatu zen Elizaren erreformarako oztopo inperial bat kentzeko, eta Inozentzio IV.a Inperioaren aurka borrokatu zen Inperioaren bera-
ren aginte sekularra suntsitzeko.

Identifika ote dezakegu hildebrandotar politika zein puntu partikularretan «irten zen errailetatik» edo, tradizio zaharragoko hizkeran esanda, non aldendu zen bide zuzen eta estutik? Saia gaitezen aurkitzen non desbideratu ote zen oker.

1075. urterako kleroaren sexu- eta finantza-ustelkeriaren aurkako gurutzada arrakastatsu abiatua zen Mendebaldeko munduan, eta garaipen nabarmena irabazi zen Erromako Aulkiaren balentria moralaz, berorren lasaieria izan zelarik Elizaren eskandalu guztietako handiena mende-erdi lehenago bakarrik. Garaipen hori Hildebrandoren lan pertsonala izan zen. Horren alde borrokatu zen Alpeez bestaldean eta aita santuaren tronuaren atzean, azkenean borrokak, berak hautsetatik altzarazitako postura eraman zuen arte; eta berak eskura izan zituen arma guztiekin, espiritual eta materialekin, egin zuen borroka. Garaipenaren unean, Gregorio VII.a izenaz aita santu bilakatura erreinatzen zeraman hirugarren urtean, egin zuen Hildebrandok urrats bat, haren aldekoek, onargarriro, ia ezinbestekotzat aurkeztuko dutena, eta haren kritikoek, berriz, aurrekoek bezain onargarriro, ia ezinbestean oso txartzat. Urte hartan Hildebrandok konkubinato eta simoniaren gai segurutik inbestiduraren gai eztabaidagarria hedatu zuen gudu-zelaia.

Logikoki, inbestidurari buruzko gatazka konkubinato eta simoniari buruzko gatazken ezinbesteko ondorioztat justifika zitekeen agian, hiru borroka horiek Elizaren askapenerako borroka bakarraren ikuspegitik hartzen baziren. Hildebrandori, bere ibilaldiaren puntu kritiko horretan, lan galdua irudi zekiokeen Eliza Venus eta Mammon-en morrontzapetik askatu izana, aldi berean botere sekularraren mendetasun politikoan kateatuta uztekotan. Hirugarren girgilu honek tinko eusten zion bitartean, ez al zitzaion ezinezkoa gertatuko gizadia onera ekartzeko Jainkoak emandako lana egitea? Baina argu-

dio horrek erabakitza ematen du arazo bat, Hildebrandoren kritika-
riek eskubide osoz planteatzen zuten, nahiz eta beraiek ezin duten,
gauza hauen izaeragatik, argi eta garbi batera edo bestera erantzun.
1075ean bizi zen egoeragatik, aita santuaren tronuan ikusmen argiz
eta adimen sendoz zegoenak nahitaez onartu behar ote zuen ez zego-
ela lankidetzaz zintzo eta emankorrerako inolako aukerarik Elizako
alderdi erreformistaren —Erromako Kuriak ordezkatuaren— eta kris-
tau-elkarteko aginte sekularren —Erromatar Inperio Santuak ordez-
katuaren— artean? Arazo honetan probaren zama hildebrandotarren
gainean dago, bi arrazoiengatik gutxienez.

Lehenik, ez Hildebrandori ez haren aldekoek —inbestidura
sekularra debekatzen zuen 1075eko dekretuaren aurretik edo ondo-
ren— sekula ez zitzaizkion bururatu ukatzea Elizako klero-postuak auke-
ratzeko prozeduran aita santuagandik beragandik behera agintari
sekularrek bidezko paper bat zutenik jokatzeke. Bigarren, 1075ean
bukatzaren diren hogeita hamar urteetan Erromako Aulkiak esku
lan egin zuen Erromatar Inperio Santuarekin konkubinato eta simo-
nia-gaiei buruzko gatazka zaharragoan. Onartu beharra dago
Inperioaren lankidetzak zeregin hauetan zalantzak izan eta porrot egin
zuela Enrike III.a hil eta laster, eta haren semea adin txikikoa izan
bitartean, eta Enrike IV.a adin nagusira iristean, 1069an, haren porta-
era ez zela gogobetegarria izan. Egoera honetan ekin zion aitasantu-
tzak agintari sekularrei eliz izendapenetan esku hartzea mugatu edo
galarazteko politikari. Hau justifikagarria izan zitekeen, baina onartu
behar da urrats hau ia iraultzailea zela; eta, probokazio guztiak gora-
behera, Hildebrandok eutsi balio bere buruari erronka bota gabe
1075ean, pentsa liteke harreman onak ezarriko zirela berriro. Nekez
bazter daiteke Hildebrandok bere burua ὁβρις-aren ezaugarrietako
bat den pazientzia gutxiko ekintzara bultzatu zuen ustea, eta haren
ziorik bikainenak botere inperialaren aurkako mendeku-nahiarekin
nahastuta zeudela, botere horrek aitasantutza endekatuari Sutriko
Sinodoan 1046an egin zion irainagatik. Azken inpresio hau indartu
egiten du datu batek: Hildebrandok, aita santuaren tiara bereganatze-
an, Gregorio izena hartu zuen, okasio hartan kargutik kendua izan zen
aita santuak aurrez eramandako izena.

Inbestiduraren gai berria Inperioaren eta aitasantutzaaren arteko
etena sortzeko moduko militantziaz planteatzea are arriskutsuagoa

zen, kontuan izanda hirugarren gai hau ez zela bestea bezain argia, haietan bi agintaritzak guztiz bat etorri zirelarik oso gutxi arte.

Anbiguotasun-sorburu bat izan zen, Hildebrandoren garaian, apezpiku-mailako klero-postu baten izendapenak hainbat alde desberdinen adostasuna eskatzen zuela ezartzea. Eliz diziplinaren hasierako arauetakoa zen apezpikua bere hiriko kleroak eta herriak aukeratu behar zutela eta bere probintziako apezpikuen quorum batek sagaratu. Eta botere sekularra sekula ez zen saiatu —Konstantinoren konbertsioak gaia planteatu zuenetik— apezpikuen erritozko prerrogatibak bereganatzen edo kleroaren eta herriaren hautes-eskubideak desafiatzan, teoriarik behintzat. Aginte sekularrak *de facto* jokatu zuen papera —*de jure* egoera nolakoa izan zitekeen aurrez epaitu gabe— hautagaiak izendatzea eta hauteskundeetan beto-eskubidea erabiltzea izan zen. Hildebrandok berak behin baino gehiagotan onartu zuen eskubide hau argi eta garbi.

Are gehiago, hamaikagarren menderako klero-izendapenei buruz nolabaiteko kontrol sekularra zertzearen aldeko jarrera tradizionala indartua zegoen arrazoi praktikoengatik. Izan ere, kleroak luzaroan eta gero eta gehiago eginbehar sekularrak betetzen zituen, eliz arlokoekin batera. 1075. urterako Mendebaldeko Kristandadeko administrazio zibilaren zati handi-handi bat elizgizonen esku zegoen eta aginte sekular hori edukitze feudalagatik zeukaten; horrela, kleroa inbestidura sekularretik kanpo uzteak aginte sekularren jurisdikzioa indargabetzea ekarriko zuen bere alorreko sail handietan, baita Elizaren eraldaketa ere, *imperium in imperio* zibil eta eklesiastiko bihurtuz. Alferrikakoa da iradokitzea eginbehar zibil hauek administratzaile sekularrengana ere eskualda zitezkeela. Gatazkan zeuden bi aldeak ongi jabetzen ziren ez zegoela pertsonal sekularrik eginbehar horiek bere gain hartzeko gai zenik.

Hildebrandok 1075ean zerturiko ekintzaren larritasuna haren ondorio izan zen hondamendiaren tamainak adierazten du. Inbestiduraren gai honetan, Hildebrandok aurreko hogeita hamar urteetan aitasantutzarentzat irabazitako ospe moral guztia arriskatu zuen; eta *Plebs Christiana*-ren kontzientzietan lortu zuen agintea Alpeez bestaldeko Enrike IV.aren aginterrietan aski indartsua izan zen, saxoniarrak indarrarekin elkartuta, enperadorea Canossa-ra ekartzeko. Hala ere, Canossak duintasun inperialari eman zion kolpetik hau seku-

la oneratu ez bazen ere, emaitzak ez zuen borrokaren bukaera ekarri, hari berriro ekitea baizik. Berrogeita hamar urteko gatazkak zulo sakon eta zabalegia egin zuen aitasantutzaren eta Inperioaren artean, gatazka sorrarazi zuen gai partikularri buruzko ezein konpromiso politikok itxi ahal izateko. Inbestidurei buruzko eztabaida desegin zitekeen hilobian 1122ko Konkordatoaren ondoren, baina hark sortutako etsaitasunak iraun egin zuen, giza bihotzen gogortasunean eta horien handinahien maltzurkerian beti gai berriak aurkituz.

Luze samar aztertu dugu Hildebrandok 1075ean hartutako erabakia, ondorengo guztia baldintzatu zuen funtsezko erabakia izan zela uste dugu eta. Garaipenaren hordikerian Hildebrandok bide okerrera eramane zuen berak desohorearen sakontasunetik handitasunaren gailurrera ateratako erakundea, eta haren ondorengoetako inor ez zen gai izan bide zuzenera itzularazteko. Ez daukagu istorio hau zehazkiago aztertu beharrik. Inozentzio III.aren aitasantutzaldia (1198-1216) antoninotarren aroa edo hildebrandotar aitasantutzaren udaldi txikia da, baina aita santu horrek ustekabeko zirkunstanziei —Hohenstaufen lineako gutxiengo luzeari, adibidez— zor die bere nagusitasun-egoera, eta administratzaile zoragarria estatu-politikari miope samarra izan daitekeela erakusten du haren ibilerak. Gero han aitasantutzaren *à outrance* gerra etorri zen Federiko II.aren eta haren ondorengoaren aurka; Anagni-ko tragedia, beso sekularren *riposte* arrunta Canossari; Gatibualdia eta Zisma; kontzilio-mugimenduaren parlamentarismo hutsegina; Vatikanoren paganizazioa Italiako Errenazimentuan; Eliza Katolikoaren haustura Erreformaren bidez; Kontrarreformak hasitako borroka ez-erabakigarria baina bai basatia; aitasantutzaren ezgaitasun espiritual hemezortzigarren mendean eta haren antiliberalismo aktiboa hemeretzigarrenean.

Baina aparteko erakunde honek bizirik iraun du¹³⁵; eta orain bizi dugun erabaki-ordu honetan gauza on eta zuzena da, «agintzariaren arabera oinordeko gisa Kristorengan bataiatuak izan diren» Mendebaldeko gizon-emakume guztiok, eta gurekin batera, gure Mendebaldeko bizimodua berenganatuz, «agintzariaren partaide» eta «gorputz bereko oinordeko kide» bilakatu diren jentil guztiek, Kristoren bikarioa bere izugarrizko titulua justifikatzera bultzatzea. Ez al zion Pedroren Maisuak Pedrori berari esan «asko ematen zaionari asko eskatuko zaio, eta gizakiek asko eman diotenari eskatu ere

gehiago eskatuko diote»? Erromako apostoluaren esku gure arbasoek Mendebaldeko Kristandadearen zoria utzi zuten, beren altxor guztia; eta «Jaunaren borondatea ezagutzen zuen zerbitzari hark» «ez zuenean ez bere burua prestatu ez haren nahiaren arabera jokatu», eta bidezko ordainetan «kolpe askorekin» zigortu zutenean, kolpe haiek pisu berdinez erori ziren «morroi eta neskameen» gorputz gainera, haien arimak *Servus Servorum Dei*-ren zaintzapean jarrita zeudelarik. Zerbitzariaren ὕβρις-agatiko zigorra gure gain erori da; eta berak ekarri gaituenez bidegurutze honetara berari dagokio hemendik ateratzea ere, nornahi garela gu: katoliko edo protestante, sinesle edo sinesgabe. Une erabakigarri honetan bigarren Hildebrando bat sortuko balitz, oraingoan, sufrimendutik sortzen den jakinduriarekin, prestatua etorriko ote litzateke gure askatzailea, Gregorio VII.a aita santuaren lan handia hondatu zuen garaipenaren zoritxarreko hordikeriaren aurka?

V. ZIBILIZAZIOEN DESINTEGRAZIOAK

XVII. DESINTEGRAZIOAREN IZAERA

1.

Azterketa orokorra

Zibilizazioen kolapsotik beren desintegrazioa igarotzean, zibilizazioen sorreratik beren hazkundera igarotzean aztertu dugun bezalako arazo bati egin behar diogu aurre. Desintegrazioa arazo berri bat ote da bere horretan ala kolapsoaren berezko eta ezinbesteko ondorioztat hartu behar ote dugu? Lehenengo arazoa aztertu genuenean, ea hazkundera arazo berri bat ote zen, sorreraren arazoaz bestelakoa, baiezkotik erantzuna eman genion galderari, eta aurkitu genuen bazela zenbait zibilizazio «gerarazi» sorreraren arazoa konpondu zuena baina hazkunderaren arazoa konpontzen porrot egin zuena. Eta orain berriro, gure Azterlanean beranduagoko etapa honetan, antzerako galderari baiezkotik erantzun berbera eman diezaiokegu esanez zenbait zibilizaziok, kolapsoaren ondoren, antzeko geraldia pairatu dutela eta petrifikazio-aldi luzean sartu direla.

Zibilizazio petrifikatuaren adibide klasikoa Gizarte Egiptiakoaren historian, dagoeneko aztertu ahal izan dugun fase batek erakusten du. Piramide-eraikitzaileek ezarri zioten zama jasanezinaren mende Gizarte Egiptiakoak beheko ondoren, eta gero lehen eta bigarren faseetatik desintegrazioaren hiru faseetako —«arazoaldia», estatu unibertsal eta interregnoa— hirugarrenera igaro zenean, itxuraz hilzorian zegoen gizarte hau ustekabea eta bat-batean, bere bizialdia osatzen ari zela ematen zuen mementoan, aldena egin zen behin-behinean eredu normaltzat jo dugun horretatik, behintzat geure arautzat

jarraibide helenikoa hartzen badugu, hemen ezagutu baikenituen lehen aldiz hiru fase horiek. Puntu honetan Gizarte Egipziakoak uko egin zion desagertzeari eta bere bizialdia bikoiztu egin zuen. Gizarte Egipziakoaren denbora-neurria —K.a. hamaseigarren mendearen lehen laurdenean hikso inbaditzaileen aurka izandako erreakzio galvanikotik kristau-aroko bosgarren mendean kultura egipziakoaren azken arrastotak desagertu artekoa— hartzen badugu, bi mila urteko aldi hau Gizarte Egipziakoaren jaiotza, hazkunde, kolapso eta ia erabateko desintegrazioaren aldi konbinatua bezain luzea dela ohartuko gara, atzeraka kalkulatzan badugu Kristo aurreko hamaseigarren mendean egin zuen bere buruaren berrespen sutsu hartatik K.a. laugarren milurtekoan data ezezagunen batean maila primitiboaren gainera egin zuen lehen interndiraino, alegia. Baina Gizarte Egipziakoaren bizitza bere existentziaren bigarren erdian bizirik hilda egotea bezalako zerbait izan zen. Bi milurteko supernumerario hauetan, bere aurreko ibilaldia mugimenduz eta esanahiz hain betea izan zuen zibilizazioa bizigabe eta gerarazita gelditu zen. Egia esan, petrifikatu zelako iraun zuen bizirik.

Ez da hau adibide bakarra. Ekialde Urruneko Gizarteak Txinan zuen gorputz nagusiaren historiara itzultzen bagara, non kolapsoaren unea Tang Inperioaren zatiketan kristau-aroko bederatzigarren mendeko azken laurdenean jar baitaiteke, ondorengo desintegrazio-prozesua «arazoaldian» zehar estatu unibertsaleraino bere ibilbide normalari jarraitzen ikusiko dugu, eta etapa honetan hikso inbaditzaileen aurkako erreakzio egipziakoa bezalako erreakzio bat-bateko eta sutsuak geldiaraziko du bakarrik. Hego Txinan izandako erreboltak —Ekialde Urrunean mongol barbaroek ezarritako estatu unibertsalaren aurka Ming dinastia sortu zuen Hung Wu-ren gidaritzapean zertuak— biziki gogorarazten du Tebasen izandako errebolta —estatu unibertsal egipziako zenduaren («Inperio Ertaina» delakoaren) eremu abandonatuaren zati batean hikso barbaroek eraiki zuten «ondorengo estatuaren» aurka hemezortzigarren dinastia sortu zuen Amosis-en gidaritzapean zertua—. Eta ondorioetan ere pareko antzekotasuna izan da. Zeren eta Ekialde Urruneko Gizarteak era petrifikatuan luzatu baitu bere existentzia, desintegraziotik deuseztatpenera arin eta bizkor igaro ordez estatu unibertsalaren bidez interregnoan bukatzeko.

Bi adibide hauei, guk ezagutu ahal izan ditugun beste zibilizazio desagertu batzuen zenbait zati fosildu erantsi geniezazkieke: jai-

nak Indian, hinayaniar budistak Zeilan, Birmania, Tailandia eta Kanbodian, eta budista mahayaniar lamaistak Tibet eta Mongolian, guztiak Zibilizazio Indikoaren zati fosilduak; eta juduak, parsiak, nes-
toriotarrak eta monofisitak, Zibilizazio Siriakoaren zati fosilduak.

Gure zerrenda aurrerago ezin badugu luzatu ere, gutxienez esan dezakegu, Macaulay-ren iritziz, Zibilizazio Helenikoa antzeko esperientziatik oso hurbil egon zela kristau-aroko hirugarren eta lau-
garren mendeetan.

*«Antzinateko bi nazio ospetsuenen espiritua bereziki eskusiboa izan zen... Dirudienez greziarrek beren burua bakarrik miretsi zuten eta erromatarrek beren burua eta greziarrak soilik miretsi zituzten... Horren ondorioa pentsamendu-estutasun eta berdintasuna izan zen. Haien adimenak, horrela esan badezakegu, odol berekoak ziren eta, beraz, antzutasun eta endekapenaren madarikazioa jasan zuten... Zesarren despotismo zabalak, pixkanaka nazio-bereztasun guztiak eza-
batuz eta Inperioko probintziarik urrutikoenak elkarren artean berdin-
duz, areagotu egin zuen gaitza. Kristo ondorengo hirugarren mendea bukatzean gizadiaren (sic) etorkizuna izugarri iluna zen... Komunitate handi hura nazioek jasan dezaketen edozein gaitz bizkor, hanturazko eta suntsigarri baino askoz ere beldurgarriagoa zen hondamendia paira-
tzeko arriskuan zegoen: bizitza-luzera zalantza, txotxatu eta elbarria, Struldbrug-en hilezkortasuna, zibilizazio txinatar bat. Erraza litzateke antzekotasun-puntu asko adieraztea Dioklezianoren mendekoen eta Inperio Zerutiar hartako jendearen artean, non mende askotan zehar ezer ez den irakatsi edo desirakatsi; non gobernua, hezkuntza, bizitza-
-sistema osoa zeremonia den; non jakintzak ahaztu egiten duen areago-
tu eta gehitzea eta, lurpean sartutako talentuak edo galtzerdian bildu-
tako diruak bezala, ez duen ez murrizketarik, ez gehikuntzarik, izaten. Lozorro hura bi iraultza handik apurtu zuten: bata morala, bestea poli-
tikoa, bata barrukoa, bestea kanpukoa»¹³⁶.*

Mesedezko askapen hau, Macaulayk erakusten duenez, garai inperialeko Gizarte Helenikoak Elizari eta barbaroei zor ziena, buka-
era zoriontsu samarra da, ziurtzat jo ezin dena. Bizitzak irauten duen bitartean beti gerta daiteke, Klotoren guraize mesedegarri baina gupi-
dagabeek zorrotz ebaki ordez, oharkabea eta poliki-poliki bizirik hilda geratzeko elbarritasunera iristea; eta gure Mendebaldeko Gizartearen patua haxe izan daitekeela pentsatzeak belaunaldi hone-

tako historialari ospetsu baten burua gutxienez obsesionatu du.

*«Ez dut uste aurrean dugun arriskua anarkia denik, despotismoa baizik, espiritu-askatasuna galtzea, mundu-mailako estatu uni-
bertsal totalitarioa agian. Nazio edo klaseen arteko borrokaren ondorioz, tokian tokiko eta aldi bateko anarkia etor daiteke, fase igarokor bat. Anarkia ahula da funtsean, eta mundu anarkiko batean sendo antolaturiko edozein taldek, antolaketa arrazionalaz eta jakintza zientifikoaz, besteen gain zabal dezake bere agintea. Eta, anarkiaren alternatibatzat, munduak ongi hartuko luke estatu despotikoa. Gero, mundua espirituzko «petrifikazio»-aldi batean sar liteke, giza espirituaren ekintza gorenetarako heriotza izango litzatekeen ordena beldurgarrian. Erromatar Inperioaren eta Txinaren petrifikazioak ez litzazkiguke hain zurrinak irudituko, (gure kasuan) gobernari-taldekak botere-baliabide zientifiko askoz handiagoak izango lituzke eta. (Ezagutzen duzu Macaulayren saiakera ‘Historiaz’? Barbaroen inbasioak luzarora bedekinkazio bat izan zirela argudiatzen du, petrifikazioa apurtu zutelako. ‘Barbarotasunezko mila urte kostatu zitzaion Europari Txinaren patuari ihes egitea’. Ez litzateke arraza barbarorik izango etorkizuneko mundu-estatu totalitario bat apurtzeko).*

«Posible iruditzen zait horrelako estatu totalitarioan, filosofia eta poesia ahuldu bitartean, zientzi ikerketak etengabeko aurkikuntza berriekin aurrera jarraitzea. Greziako zientziari erresuma ptolemaikoa ez zitzaion ingurune desegokia gertatu, eta uste dut, oro har hitz eginez, zientzia naturala loratu daitekeela despotismoaren mende. Gobernatzen duen taldeari interesatzen zaio bere botere-baliabideak areagotu ditzakeena bultzatzea. Hau da niretzat, eta ez anarkia, aurrean dugun amesgaiztoa, anaiarteko egungo borroka bukatzeko bidea aurkitzen ez badugu. Baina hor dago Kristau Eliza, kontuan hartu beharreko faktorea. Agian martirioa jasan beharko du etorkizuneko mundu-estatuan, baina, Erromako mundu-estatu formalki gutxienez Kristoren mende jartzera behartu zuen bezala, berriro ere martirioaren bidez, etorkizuneko mundu-estatu zientifiko arrazionalista konkista lezake»¹³⁷.

Gogoeta hauek erakusten dute zibilizazioen desintegrazioek gure azterketa eskatzen duen arazo bat planteatzen dutela.

Zibilizazioen hazkundera aztertzerakoan, erronka-eta-erantzun dramaren jokaldi-segida bezala azter daitekeela aurkitu genuen, eta

jokaldi baten ondoren beste bat etortzearen arrazoia zera zela: erantzunetako bakoitzak, bera eragin zuen erronka partikularrari erantzuten arrakastatsua izateaz gain, erronka berri bat eragiten ere laguntzen zuela, erantzun arrakastatsuak sortutako egoera berritik aldi bakoitzean irteten zen erronka. Honela, zibilizazioen hazkundearen funtsa *élan* bat gertatu zen, erronka-jasalea, erantzun arrakastatsuen orekaren bidez, erronka berri baten aurkezpenean agertzen zen gehiegikeriara eramaten zuen *élan*-a, alegia. Erronkaren errepikakortasun hau inplikaturik dago, halaber, desintegrazioaren kontzeptuan, baina kasu honetan erantzunek huts egiten dute. Ondorioz, erronka-sail baten ordez —bakoitza, arrakastaz aurre egin eta iragan historiara pasarazi den aurrekoagandik desberdina izaeraz—, behin eta berriro agertzen den erronka berbera daukagu. Adibidez, mundu helenikoaren nazioarteko politikaren historian, Solonen ekonomi iraultzak Gizarte Helenikoa lehenengoz mundu-ordena politikoa ezartzeko zereginaren aurrean jarri zuen garaitik, ikusten dugu problema Delosko Ligaren bidez konpontzeko atenastar ahaleginaren porrotak Korintoar Ligaren bidez konpontzen saiatzera eraman zuela Filipo Mazedoniakoa, eta Filiporen porrotak *Pax Romana*-ren bidez konpontzeko Augustok egin zuen saiora, printzerri baten laguntzaz. Erronka beraren errepikapen hau egoeraren beraren izaeran datza. Topaketa bakoitzaren emaitza ez garaipena baizik eta porrota denean, erantzun gabeko erronka inoiz ezin da desagertarazi, eta behin eta berriro agertuko da erantzun berant eta osagaberen bat hartu arte edota eraginkorki erantzuteko ezgai dela aspalditik erakutsi duen gizartearen suntsipena ekarri arte.

Esan al dezakegu, orduan, petrifikazioaren alternatiba erabat eta guztiz desagertzea dela? Baiezko erantzuna eman aurretik, gogora dezagun gurasotasun-eta-filiazio prozesua, Azterlan honen lehenagoko etapa batean aztertu duguna: Solonen *Respice finem* delakoa eta iritzia eman gabe uztea izan daiteke oraingoz gure jarrerarik zuhurrena.

Zibilizazioen hazkunde-prozesuaren azterketan, hazkundearen irizpide baten bila hasi gara prozesua aztertzen saiatu aurretik, eta plan berari jarraituko diogu desintegrazioen azterlanean. Argudio-bidean, ordea, pauso bat aurreztu genezake. Hazkunde-irizpideak giza ingurune edo ingurune fisikoaren kontrol gero eta handiagoan ezin zirela aurkitu erabaki ondoren, bidezkoa da uste izatea kontrol horren galtzea ere ez dagoela desintegrazio-kausen artean. Egia esateko, fro-

gek, dauzkagun neurrian, iradokitzen dute inguruneen kontrol gero eta handiagoa desintegrazioarekin batera gertatzen dela, hazkundearekin baino gehiago. Militarismoa, kolapsoaren eta desintegrazioaren ezaugarri orokorra, sarri eraginkorra izaten da gizartearen kontrola gehitzen, bai beste gizarte bizi batzuen gain, baita naturako indar bizigabeen gain ere. Zibilizazio kolapsatuaren beheraldian, izan daiteke egia Joniako Heraklito filosofoak esaten zuena, hots, «gerra dela gauza guztien aita», eta, giza oparotasunaren balioespen arrunta bote-re eta aberastasunaren arabera egiten denez, sarri gertatzen da gizarte baten beheraldi tragikoaren hasierako atalak herriak ongi hartzea hazkunde bikainaren atal gorenak bailiran. Hala ere, lehenago edo geroago, desilusia etorriko da atzetik; zeren eta ia gauza ziurra baita gizarte batek, bere buruaren aurka erremediorik gabe zatitu denean, gerraren «negoziora zuzenduko duela berriro», negozio horrek berorrek bide batez bere esku jarri dizkion baliabide gehigarrien, gizatiar eta materialen, zati handiena. Adibidez, Alexandroren konkisten bidez irabazitako diru-boterea eta gizaki-boterea Alejandroren ondorengoen gerra zibiletarako erabili zirela ikusten dugu, eta K.a. bigarren mendeko erromatar konkisten bidez irabazitako diru-boterea eta gizaki-boterea K.a. azken mendeko gerra zibiletarako erabili zirela.

Desintegrazio-prozesurako gure irizpidea beste nonbait bilatu behar da; eta arrastoa, bere ingurunearen kontrola areagotu duela sarri-sarri erakusten duen gizarte baten baitako zatiketa eta desadostasunaren ikuskizunak ematen digu. Hau espero behar genukeena bakarrik da; zeren eta, dagoeneko aurkitu baitugu desintegrazioen aurreko kolapsoen azken irizpidea eta funtsezko kausa barne-desadostasunak piztea izaten dela, hauen bidez galtzen dutelarik gizarteek autodeterminazio-ahalmena.

Desadostasun hau partzialki agertzen duen gizarte-zismak aldi berean bi dimentsio desberdinetan urratzen du gizarte kolapsatua. Badira zisma bertikalak geografikoki banaturiko komunitateen artean eta zisma horizontalak geografikoki nahasturik baina gizarte-mailan banaturik dauden klaseen artean.

Mota bertikaleko zismari dagokionez, dagoeneko ikusi dugu nola sarri askotan estatuarteko gerraren krimenean zuhurtzigabeki atsegin hartzea izan dela jarduera suizidaren ildo nagusia. Baina zisma bertikal hau ez da zibilizazioen kolapsoa eragiten duen desadostasu-

naren adierazpenik bereizgarriena; zeren eta gizarte bat parroki komunitateetan antolatzea baita, azken batean, gizarteen —zibilizatu eta zibilizatu gabeen— genero osoaren ezaugarri komuna, eta estatuarteko gerra autosuntsipenerako tresna potentzial baten abusua besterik ez da, edozein garaitan edozein gizarteren irispidean dagoena. Bestalde, gizarte baten zisma horizontala klase-lerroen arabera ez da zibilizazioen bereizgarria bakarrik, beraien kolapsoen unean agertzen den fenomeno ere bada, eta kolapso eta desintegrazio-aldien ezaugarria ere bada, sorrera eta hazkundealdietan agertzen ez dena.

Dagoeneko topo egin dugu mota horizontaleko zisma honekin. Geure Mendebaldeko Gizarteak denbora-dimentsioan atzerantz zuen hedadura aztertzen ari ginenean aurkitu genuen. Kristau Eliza eta Mendebaldeko Europan Erromatar Inperioaren iparraldeko mugetan Elizarekin talka egindako barbaroen gerra-taldeak ikusi genituen; eta bi erakunde hauetako bakoitza, gerra-taldeak eta Eliza, gizarte-talde batek sortu zuela ikusi genuen, berez gure Mendebaldeko gizarte-gorputzaren eraketa ez zena eta beste gizarte baten —gurearen aurreko baten— arabera bakarrik deskriba zitekeena: Zibilizazio Helenikoa. Kristau Elizaren sortzaileak Gizarte Heleniko honen barne-proletalgoa balira bezala deskribatu genituen, eta gerra-talde barbaroak kanpo-proletalgoa bezala.

Gure ikerketa aurrerago eramanez, aurkitu genuen bi proletalgo hauek Gizarte Helenikotik banakuntza-egintzen bidez sortu zirela «arazoaldi» batean, Gizarte Helenikoa argi eta garbi jada sortzaile ez zen baizik eta beheraldian zegoen garaian; eta, gure ikerketa beste etapa bat atzerago eramanez, banakuntza hauek gizarte-gorputz helenikoko buruzagitzaren izaeran aurrez izandako aldaketa batek eragin zituela aurkitu genuen. «Gutxiengo sortzaileak», beste garai batean, sormenaren pribilegioa den xarmatzeko dohainari esker, masa ez-sortzailearen borondatezko atxikimendua sortarazia zuenak, orain «gutxiengo menderatzaileari» utzia zion lekua, xarmarik gabea sortzaile ez zelako. Gutxiengo menderatzaile honek indarrez eutsi zion bere pribilegiozko egoerari, eta azkenean gerra-taldeak eta Kristau Eliza sorrarazi zituzten banakuntzak tirania horrekiko erreakzioak izan ziren. Hala ere, bere asmoen porrot hau —metodo maltzurrez batuta eduki nahi zuen gizartea apurtzeagatik— ez da jakin ahal izan dugun gutxiengo menderatzailearen lorpen bakarra. Bere buruaren

monumentu bat ere utzi zuen Erromatar Inperioaren forman; eta Inperioa ez zen Eliza edo gerra-taldeak baino lehen eratu bakarrik; bere presentzia ahaltsua erakunde proletario hauek hazi ziren munduan baztertu ezin den faktorea da bien hazkundera. Estatu unibertsal hau, non itxi baitzen gutxiengo menderatzaile helenikoa, dortoka erraldoi baten oskola bezala izan zen; eta, Eliza haren gerizpean hazi zen bitartean, barbaroek dortoka-oskolaren kanpoaldean atzaparrak zorrotzuz trebatu zituzten beren gerra-taldeak.

Azkenik, Azterlan honen geroagoko puntu batean, gutxiengo gidariak sortzeko ahalmena galtzearen eta gehiengo, ez indarrez, baizik eta xarmaz erakartzeko ahalmena galtzearen artean kausa eta efektuaren lotura argiago ikusten saiatu ginen. Eta hemen gutxiengo sortzailearen gizarte-trebakuntzaren baliabidea —gizarte ez-sortzailea kontrolpean jartzeko lasterbide bezala— seinالاتu genuen, jadanik horretan aurkitua genuelarik gutxiengo eta gehiengoaren arteko erlazioaren ahulgunea hazkunde-etapan. Honen arabera, gutxiengoaren eta gehiengoaren arteko urruntzea, azkenean proletalgoaren banakuntzan burutu zena, lotura baten apurketaren ondorio da, hazkundealdian ere ongi trebaturiko mimesi-ahalmenez baliatuz bakarrik gorde zen loturaren apurketaren ondorio; eta ez da harrigarria ohartzea mimesiak gidarien sormena agortzen denean huts egiten duela, kontuan izanik, hazkundealdian ere, mimesi-lotura hau beti behin-behinekoa izan dela dualtasun traidore batengatik —gogoz kontrako esklaboaren mendekua—, edozein gailu mekanikoren izaeraren parte dena.

Hauek dira zisma-mota horizontalari buruzko ikerketa-hariak, dagoeneko gure esku daudenak; eta agian geure ikerketa aurrerago eramateko biderik itxaropentsuena hari hauek biltzea eta gero geure harizuntza egitea izango da.

Gure lehen urratsa hiru zatien —gutxiengo menderatzailearen eta barne- eta kanpo-proletalgoen— azterketa zehatz eta zabalagoa egitea izango da; adibide helenikoaren arabera, baita Azterlan honetan lehenago ikusitako beste adibide batzuen arabera ere, zati horietan zatitzen da kolapsaturiko gizartea, zisma horizontal batek haren ehundura urratzen duenean. Horren ondoren, hazkundera azterketan egin genuen bezala, makrokosmosetik mikrokosmosera itzuliko gara, eta han desintegrazioaren alderdi osagarri bat aurkituko dugu arimaren nahasmendu gero eta handiagoan. Bi ikerketa-bide hauek lehen begi-

ratuan paradoxikoa den aurkikuntzara eramango gaituzte, hots, desintegrazio-prozesuak, neurri batean behintzat, bere izaerarekin logikoki bateraezina den emaitza ematen duela: nolabait esateko, «jaiotzaren errepikapena» edo «palingenesia» ematen du.

Geure azterketa osatu ondoren, desintegrazioak berekin dakarren aldaketa koalitatiboa izaeraz hazkundearen emaitzaren kontrakontrakoa dela aurkituko dugu. Ikusi dugu, hazkunde-prozesuan, hazten ari diren zibilizazioak gero eta desberdinagoak direla elkarren artean. Orain, alderantziz, desintegrazioaren ondorio koalitatiboa estandarizazioa dela aurkituko dugu.

Estandarizaziorantzako joera hau are azpimarragarriagoa da gainditu behar duen dibertsitatearen hedadura kontuan hartzen badugu. Kolapsaturiko zibilizazioek, desintegrazioan sartzen direnean, berekin eramaten dituzte hazkundealdian bakoitzak bere aldetik lortu dituen gaitasun oso desberdinak, arterako edo makineriarako edo beste edozertarako joerak. Eta are gehiago desberdintzen ditu beren artean kolapsoak oso adin desberdinetan harrapatu izanak. Zibilizazio Siriakoa, adibidez, Salomon hil ondoren, *circa* K.a. 937an, kolapsatu zen, interregno postminoikotik zibilizazio hau lehenengoz irten zenetik berrehun urte igaro baino lehen, ziur aski. Bestalde, haren senide zen Zibilizazio Helenikoak, garaikideki interregno beretik sortu zenak, ez zuen kolapsorik izan bostehun urte geroago, Peloponesoko gerra arte. Bestalde, Zibilizazio Kristau Ortodoxoak erromatar-bulgarriar gerra handia piztean izan zuen kolapsoa K.o. 977an; bitartean, haren senide zen zibilizazioak, geureak alegia, eztabaidarik gabe hazten jarraitu zuen beste hainbat mendez eta —guk dakigun guztiagatik— baliteke oraindik kolapsorik izan gabe egotea. Zibilizazio senidetuek hazkunde-espazioan hain luzera ezberdinak egin baditzakete, garbi dago zibilizazioen hazkundeak ez daudela predestinatuta iraupen uniformeak izateko; eta, egia esan, ezin izan dugua *priori* arrazoirik aurkitu zibilizazio batek, behin etapa horretan sartuta, mugarik gabe hazten ez jarraitu ahal izateko. Hausnarketa hauek garbi uzten dute hazten ari diren zibilizazioen arteko desberdintasunak zabalak eta sakonak direla. Hala ere, desintegrazio-prozesuak kasu guztietan eredu estandar batera egokitzeko joera duela aurkituko dugu, hauxe izanik ereduak: zisma horizontala, gizartea jada aipatu ditugun hiru zatietan banatzen duena, eta hiru zati hauetako bakoitzaren aldetik

erakunde berezi bat sortzea: estatu unibertsala, eliza unibertsala eta gerra-talde barbaroak.

Erakunde hauek kontuan hartu beharko ditugu, baita dagozkien sortzaileak ere, zibilizazioen desintegrazioari buruzko gure azterlana osoa izatea nahi badugu. Baina, ahal den neurrian behintzat, komenigarria irudituko zaigu erakundeak beren kasa aztertzea liburuko zati banatuetan; zeren eta hiru erakunde hauek desintegrazio-prozesuaren emaitzak baino zerbaite gehiago baitira. Paper bat ere joka dezakete zibilizazio baten eta beste baten arteko harremanetan; eta eliza unibertsalak aztertzen ditugunean zera galdetu beharrean aurkituko gara, ea elizak uler ote daitezkeen beren osotasunean zibilizazioen historia-ren egitura barruan, non egiten baitituzte beren agerpen historikoak, ala beste gizarte-espezie baten ordezkartzat hartu behar ote ditugun, gutxienez «zibilizazioak» espeziearekiko azken hauek gizarte primitiboekiko bezain desberdinak direlarik.

Baliteke hau izatea historiaren azterketak iradokitzen digun galderarik garrantzitsuenetakoa, baina oraintxe zirriborratu dugun ikerketaren azken amaieratik gertu dago.

2.

Zisma eta palingenesia

Karl Marx judu alemanak (1818-83), erlijiozko tradizio arbuia-tu baten ikuspen apokaliptikoetatik harturiko kolorez, proletalgoaren banakuntzaren eta ondorengo klase-borroka-aren ikuskizun beldurgarria margotu du. Apokalipsi materialista marxistak milioika gogotan eragin duen zirrara ikaragarria diagrama marxistaren militantzia politikoari zor zaio neurri batean; zeren eta, «proiektu» hau historiaren filosofia orokor baten muina baldin bada, armatarako dei iraultzailea ere bada. Klase-gerraren formula marxista honen asmakuntza eta gaurkotasuna gure Mendebaldeko Gizarteak oinak desintegrazioaren bidean jarri dituen seinaleztat hartu behar ote diren azterketa honetan geroago landuko dugun gaia da, gure Mendebaldeko Zibilizazio honen etorkizuna aztertzeari ekiten diogunean. Puntu honetan beste

arrazoi batzuegatik aipatu dugu Marx: lehenik, bera delako klase-borrokaren adierazgarri klasikoa gure munduan eta gure garaian; eta bigarren, haren formula zoroastroar eta judu- eta kristau-eredu apokaliptiko tradizionalera egokitzen delako, bortxazko klimax-az harantzago bukaera gozo baten ikuspegia azaltzean.

Ezagun zitzaion espirituairen —materialismo historiko edo determinismoaren— operazioei buruz profeta komunistak izan zuen intuizioaren arabera, klase-borrokaren emaitza iraultza proletario garailea izango da; baina borrokaren burutze odoltsu hau bere bukaera ere izango da; zeren eta proletalgoaren garaipena erabakigarria eta behin betikoa izango baita eta «Proletalgoaren Diktadura», zeinen bidez uztatuko baitira garaipenaren emaitzak iraultza ostean, ez baita erakunde iraunkorra izango. Garai bat iritsiko da, sorreratik klase gabea izandako gizarte berri bat behar hainbat zahar eta indartsua izango dena diktaduraren beharrik ez izateko. Izan ere, ongizatearen azken gailur iraunkorren, urrezko aro marxistako gizarte berria gai izango da proletalgoaren diktadura ez ezik, beste edozein erakundemakulu ere baztertzeko, Estatua bera barne.

Gure egungo ikerketarako eskatologia marxistaren interesa egitate harrigarri honetan datza: erlijio-sineskizun desagertu baten itzal politiko luze honek zorrotz adierazten duela klase-borrokak edo zisma horizontalak gizarte kolapsatuan jarraitu ohi duen benetako bidea errealitate historikoari dagokionez. Historiak egoki azaltzen digu desintegrazioaren fenomenoan gerraren bidez bakera doan mugimendua; Yang bidez Yinera; eta gauza baliotsuen suntsipen itxuraz neurrigabe eta basatiaren bidez sortze-lan berrietara, hauek beren nolokotasun berezia forjatu direneko garraren su irenslari zor diotelarik, antza.

Zisma bera bi mugimendu negatiboren emaitza da, grina txar batek sortarazia bakoitza. Lehena, merezitzeari utzi dion pribilegiozko posizioa gorde nahi du indarrez gutxiengo menderatzaileak. Gero proletalgoak bidegabekeria hori arranguraz ordaintzen du, beldurra gorrotoz, indarkeria indarkeriaz. Hala ere, mugimendu guztia sorkuntza-egintza positibotan bukatzen da: estatu unibertsala, eliza unibertsala eta barbaroen gerra-taldeak.

Honela, gizarte-zisma ez da zisma hutsa eta besterik ez. Mugimendua osotasun bezala hartzen dugunean, zisma-eta-palinge-

nesia bezala deskribatu behar dugula aurkitzen dugu. Eta kontuan izanik banakuntza erretiro-era berezi bat dela argi eta garbi, zisma-eta-palingenesiaren mugimendu bikoitza «erretiro-eta-itzulera» izenburuean ikuspegi orokorrago batetik dagoeneko aztertu dugun fenomenoaren kasu bat bezala sailkatu dezakegu.

Alde batetik, erretiro-eta-itzuleraren aldaera berri hau aurrez aztertu ditugun adibideen aldean desberdina dela irudi lezake lehen begiratuan. Ez al ziren haiek gutxiengo edo gizabanako sortzaileen lorpenak izan, eta proletalgo sezesionista ez al da gehiengo bat, gutxiengo menderatzaileari kontrajarria? Une bateko pentsamenduak, ordea, iradokitzen du —eta hau da garbi benetako koadroa—, banakuntza gehiengo baten lana izan arren, eliza unibertsal bat ezartzeko egingiza sortzailea gehiengo proletarioaren barruan dauden gizabanako edo talde sortzaileen gutxiengo baten lana dela. Kasu horretan gehiengo ez sortzailea gutxiengo menderatzaileak eta proletalgoaren gainerakoak osatzen dute. Halaber, gogoratu beste hau ere aurkitu dugula: hazkunde-etapan gutxiengo sortzailea deitu dugun horren lorpen sortzaileak inoiz ez zirela *en masse* gutxiengo osoaren lana, baizik eta bere baitako talde batena edo bestearena beti. Bi kasuen arteko desberdintasuna hau da: hazkundealdian gehiengo ez sortzailea mimesiz gidarien bideari jarraitzen dion masa hunkibera bat izaten den bitartean, desintegrazioaldian sortzaile ez den gehiengoa zati batean masa hunkibera izaten da (proletalgoaren gainerakoa) eta beste zati batean gutxiengo menderatzailea, gizabanako aberranteen erantzunak gora-behera, setati eta harro bakarrik irauten duena.

XVIII. ZISMA GIZARTE-GORPUTZEAN

1.

Gutxiengo menderatzaileak

Nahiz eta nolabaiteko ethosaren finkotasun eta uniformetasun bat izan bere ezaugarria, ezinbestekoa da bariedade-elementu bat ego-
tea gutxiengo menderatzailearen barruan ere. Nahiz eta honek antzu-
tasun-mirariak zertu bere *esprit de corps* antzura erreklutak konberti-
tuz —behin eta berriro autosarraskituriko bere lerroetara etengabe
erakartzen dituen erreklutak—, hala ere ez du lortuko estatu uniber-
tsal baten, ezta ere filosofi eskola baten, sorkuntzan azaltzen diren
ahalmen sortzaileen adierazpena eragozte. Ondorioz, ikusten dugu
gai dela bere korporazio itxiko tipo bereziengandik oso nabarmen
urruntzen diren kideen kopuru bat bere baitan hartzeko.

Tipo berezi hauek militarista eta haren arrastoari jarraitzen
dion zapaltzaile doilorragoa dira. Apenas aipatu beharrik dagoen his-
toria helenikoko adibiderik. Militarista bere onenean Alexandroren-
gan ikusten dugu eta zapaltzailea bere okerrenean Verres-engan,
honen gobernu txarra Sizilian Zizeronen otoitz, edo panpleto, luzee-
tan agertzen delarik. Baina erromatar estatu unibertsalak bere iraupen
luzea honi zor dio: bere militarista eta ustiatzaileen ondoren,
Augustoren ezarpenaren ostean, soldadu eta funtzionario ugari eta
gehienbat anonimoak etorri izanari, hauek ordaindu zituztelarik neu-
rri batean beren aurreko harrapatzaileen okerkeriak, horrela hilzorian
zegoen gizarteari «sanmartinetako uda txikiko» eguzki indargeaz
belaunaldi askotan berotzeko aukera emanez.

Gainera, Erromako herri-funtzionarioa ez da gutxiengo menderatzaile helenikoaren epifania bakarra, ezta lehena ere, paper altruistan. Severotarren garaian, Marko Aurelio enperadore estoikoaren erreinaldia Erromako historian egitate burutua zenean, eta legelari estoikoen eskola bat ethos estoikoa erromatar legearen terminoetara itzultzen ari zenean, nabarmen geratu zen erromatar otsoa atari-txakur platoniko bihurtzeko miraria greziar filosofiaren lana izan zela. Erromatar administratzailea gutxiengo menderatzaile helenikoaren gaitasun praktikoaren agente altruista baldin bazen, greziar filosofoa haren buru-gaitasunaren adierazgarri bikainagoa zen oraindik ere; eta greziar filosofo sortzaileen urrezko katea, Erromako herri-administrazioaren kolapsoa ikusteko bizi izan zen belaunaldian Plotinorekin bukatzen dena (*circa* K.o. 203-62), Sokratesekin hasia zen (*circa* K.a. 470-399) Zibilizazio Helenikoa kolapsatu zenean jada hazia zegoen belaunaldian. Kolapso haren ondorio tragikoa erremediatzea, edo gutxienez arintzea, izan zen greziar filosofoaren, baita erromatar administratzailearen, bizitzako lana: eta filosofoaren lanek administratzailearenek baino emaitza baliotsuago eta iraunkorrago sortu zuten, hain zuzen ere desintegratzen ari zen gizartearen bizitzako egitura materialean hain estu josita ez zeudelako. Erromatar administratzaileek estatu unibertsal helenikoa eraiki zuten bitartean, filosofoek κτῆμα εἰς αἶψα bat eman zieten ondorengoei Akademian eta Peripatoan, Stoa eta Baratzean, bide eta palaxuetako zinikoen askatasunean eta neoplatonikoen munduz kanpoko Bihotz Desiraren Lurraldean.

Gure azterketa beste zibilizazio kolapsatuen historietara hedatzen badugu, altruismoaren arrasto bikain berberak aurkituko ditugu militarista eta zapaltzaileen aztarna ilun eta zikinen ondo-ondoan. Adibidez, konfuziar letratuak, Han dinastiaren mende (K.a. 202-K.o. 221) estatu unibertsal sinikoa administratu zutenak, lortu zuten zerbitzu-mailagatik eta *esprit de corps*-agatik, erromatar funtzionarioen maila moral berean daude, beraien garaikideak zirelarik munduaren beste aldean beren jardunaldiaren azken erdian. Errusian Pedro Handiaren erreinalditik aurrera bi mendez estatu unibertsal kristau ortodoxoa administratu zuten chinovnik-ak —etxean nahiz Mendebaldean gaitasunik ezaren eta ustelkeriaren prototipo izan zirenak— ez ziren moldatu sarri uste izaten den bezain lotsagarri beren

zeregin erraldoi bikoitzean: Inperio Moskovitari jardunean eustea eta aldi berean mendebaldar ereduko komunitate politiko berri bihurtzea. Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusian, otomandar padisharen esklabo-etxea, hau ere *raiya*-aren zapalkuntzaren prototipo bilakatu, iritsiko da agian Gizarte Ortodoxoari zerbitzu handi bat gutxienez egin zion erakunde gisa gogoratua izatera: *Pax Ottomanica* delakoa ezarri zion, autoatsekabeturiko munduari atsedenalditxo bat eman ziona bi anarkialdi nekagarriren artean. Ekialde Urruneko Gizartean Japonian, daimyo feudalek eta haien jarraitzaile samuraiek, elkar bipiltzean gizartea bipildu zutenak, Tokugawa shogungoa ezarri aurreko lau mendeetan, bizirik iraun zuten anarkia feudala ordena feudal bihurtzeko Ieyasu-ren lan konstruktiboan esku hartuz beren iraganetik libratzeko; eta japoniar historiaren hurrengo atala hastean ia ezin altuagoa den mailaraino beren burua ukatzera goratu ziren, beren borondatez pribilegioak utzi baitzituzten, konbentziturik zeudelako sakrifizio hau eskatzen zitzaiera mendebaldar bihurturiko munduaren ingurunean Japoniak tinko iraungo bazuen, jada ezin zuelarik aparte iraun.

Japoniar samuraiagan azaltzen den noblezi joera hau etsaiek ere beste bi gutxiengo gobernariri egozten dieten bertutea da, Andeetako estatu unibertsaleko inkei eta pertsiar handikiei, hauek estatu unibertsal siriako bat gobernatu zutelarik erregeen errege akenen baten gerenteorde gisa. Espainiar konkistatzaileak inken bertuteen lekuko dira. Pertsiarrei buruzko greziar erretratuan pertsiar mutilen hezkuntzaz Herodotok egin zuen laburpen ospetsua —«bost urtetik hogeitaz urtera hiru gauza egiteko prestatzen dituzte, eta hiru gauza bakarrik: zaldiz ibili, disparatu eta egia esateko»— ez du gezurtatzen pertsiar berebeei buruz heltzaroan aurkezten zaigun deskribapen paraleloak. Hor da Herodotoren kontaketa Xerxesen segizioari buruz itsas ekaitza gertatzean, beren nagusi inperialari obeditu eta itsasora salto egiten baitute ontziaren zama arintzeko. Baina pertsiarren bertuteei buruzko greziar lekukotasunik zirrargarriena Alexandro Handiarena da, ekintza serioekin erakutsi baitzuen, eta ez hitz errazekin bakarrik, zein iritzi jaso zuen pertsiarrei buruz hauek ezagutu ondoren. Hondamendi ikaragarri baten aurreko erreakzioaren proba erabakigarrian pertsiar hauek ezagutu orduko, erabaki bat hartu zuen, bere mazedoniarrentzat iraingarria ez ezik, haien sentimenduak

mintzeko topa zezakeen biderik ziurrena ere bazena, berariaz helburu horixe izan balu. Inperioaren gobernuan pertsiarrei partaidetza ematea erabaki zuen, bere mazedoniarren balentriak kendu berria zielarik inperioa; eta politika hau bere zehaztasun bereziarekin gauzatu zuen. Pertsiar handiki baten alaba hartu zuen emaztetzat; bere mazedoniar ofizialak erosi edo beldurtu zituen bere bideari jarrai ziezaioten; eta pertsiar erreklutak erakarri zituen bere mazedoniar erregimentuetara. Beren betiko etsaien buruzagiagandik —erabateko porrotaren biharamunean, hain zuzen— aparteko tributu hau bereganatzen duen herriak «gobernari-arrazaren» bertute klasikoez ezin garbiago hornitua egon behar du.

Gutxiengo menderatzaileek gobernari-klase miresgarria sortzeko duten gaitasunari buruz froga-kopuru handi samarra izatera iritsi gara, eta gutxiengo horiek sortu dituzten estatu unibertsalen kopuruak berresten ditu frogak. Kolapsoa izan duten hogeitazibilizazioetatik, hamabost gutxienez igaro dira etapa honetatik deuseztapenerako bidean. Estatu unibertsal helenikoa identifikatzen dugu Erromatar Inperioan; Andetako Inken Inperioan; sinikoa Tsin eta Han dinastien Inperioan; minoikoa «Minosko talasokrazian»; sumerikoa Sumer eta Akadeko Inperioan; babilonikoa Nabukodonosorren Neobabiloniar Inperioan; maiena maien «Inperio Zaharrean»; egipziakoa hamaikagarren eta hamabigarren dinastien «Inperio Ertainean»; siriakoa Akemenestar Inperioan; indikoa Maurien Inperioan; hindua Mogol Handien Inperioan; errusiar ortodoxoa Inperio Moskovitan; Kristandade Ortodoxoko gorputz nagusiaren estatu unibertsal bat Otomandar Inperioan; eta Ekialde Urruneko munduan, Mongolen Inperioa Txinan eta Tokugawa shogungoa Japonian.

Eta gaitasun politiko hau ez da sortzeko ahalmenaren mota bakarra, gutxiengo menderatzaileen ezaugarri komuna dena. Dagoeneko ikusi dugu gutxiengo menderatzaile helenikoak erromatar administrazioa ez ezik, greziar filosofia ere sortu zuela, eta beste hiru kasu gutxienez aurkitu ditzakegu, non gutxiengo menderatzaileak filosofia bat pentsatu duen.

Gizarte Babilonikoaren historian, adibidez, K.a. zortzigarren mende beldurgarriak, Babilonia eta Asiria arteko Ehun Urteko gerraren hasiera ikusi zuenak, badirudi bat-bateko aurrerapen handia ere

ikusi zuela astronomi jakintzan. Aro honetan, errepikapen ziklikoaren erritmoa, antzina-antzinatik egun eta gauaren, ilgora eta ilbeheraren, eta urteko eguzki-zikloaren txandakatzean nabaria zena, eskala handiagoan ere planeten mugimenduan bereizgarri zela aurkitu zuten zientzialari babilonikoek. Izar hauek, itxuraz noraezean ibiltzeagatik tradizionalki «izar uxoa» deituak, eguzkia eta ilargia eta zero goiko izar «finkoak» bezain diziplina zorrotzaren mende zeudela frogatu zen *magnus annus* delakoaren ziklo kosmikoan; eta aurkikuntza babiloniko kilikagarri honek gure Mendebaldean egin berri diren aurkikuntza zientifikoek aurkitzaileek unibertsoari buruz zuten ikuskeran izandako efektu berbera izan zuen.

Honela aurkitutakoaren arabera, izarretako kosmosaren mugimendu ezagun guztietan nagusi omen zen ordena inoiz apurtu gabeak eta aldaezinak unibertsoa bere osotasunean —materiala eta espirituala, bizigabea eta biziduna— gobernatzen zuela uste izan zen. Eguzkiaren eklipse bat edo Venusen igarotzea une jakin batean datatu bazitezkeen ehundaka urtetan iraganean atzera eginda, edo etorkizun urrutian une zehatz batean gertatuko zirela auresan bazitekeen ziurtasun berberaz, ez al zen orduan zentzuzkoa pentsatzea giza arazoak ere besteak bezain zurrin finkatuak eta haiek bezain zehatz kalkulatzeko modukoak zirela? Eta diziplina kosmikoak unibertsoko kide hauek guztiak, halako perfekzioz batera mugitzen zirenak, elkarren artean «sinpatian» —*en rapport*— zeudela inplikatzan zuenez, zentzugabea ote zen suposatzea izarren mugimenduen eredu agertu berria giza patuen enigma giltza zela, eta klabe astronomiko hau bere esku zeukan behatzailea gai izango zela bere auzokoaren destinoak iragartzeko beraren jaiotza-data eta unea ezagutuz gero? Zentzuzkoak ala ez, suposizio hauek gogotsu egin ziren; eta honela, aurkikuntza zientifiko paregabeak determinismoaren filosofia iruzurtia sortarazi zuen, bata bestearen atzetik gizartearen irudimena liluratu duena eta, ia 2700 urte igaro ondoren, oraindik erabat ospea galduta ez dagoena.

Astrologiaren erakargarritasuna honetan datza: *machina mundi* osoa esplikatzan duen teoria, derby-aren irabazlea hemen eta orain asmatzeko Tom, Dick eta Harry gai egiten dituen praktikarekin konbinatu nahia. Erakarpin bikoitz honi esker, filosofia babilonikoa gai izan zen Kristo aurreko azken mendean Gizarte Babilonikoa desagertzean bizirik irauteko; eta lur jotako Gizarte Helenikoari ezarri zion

kaldear *mathematicus*-a atzo arte Gorteko Astrologoak ordezkutzen zuen Pekinen eta Munejjim Bashy-k Istanbulen.

Determinismoaren filosofia babiloniko honetan luzatu gara edozein filosofia helenikok baino kidetasun handiagoa duelako geure Mendebaldeko munduan egungo cartesiar aroan dauden espekulazio filosofikoekin, oraindik heldutasun gutxi samarrekoak agian. Bestalde, pentsamendu-eskola heleniko ia guztien parekideak daude mundu indiko eta sinikoetako filosofietan. Desintegratzen ari zen Zibilizazio Indikoko gutxiengo menderatzaileak Mahaviraren jarraitzaileen jainismoa sortarazi zuen, Sidarta Gautamaren lehenengo jarraitzaileen hasierako budismoa, mahayanaren budismo antzaldatua (bere jatorrizkotzat aitorturikotik neoplatonismoa K.a. laugarren mendeko sokratikoen filosofiatik bezain sakon desberdintzen da gutxienez) eta hainbat filosofia budista, hinduismo postbudistaren buru-aparatuaren parte direnak. Desintegratzen ari zen Zibilizazio Sinikoko gutxiengo menderatzaileak Konfuzioren erritualismo moralizatua eta moraltasun erritualizatua sortu zituen, eta Tao-aren jakinduria paradoxiakoa, Lao-tseren jeinu ospetsuari atxiki ohi zaiona.

2.

Barne-proletalgoak

Prototipo helenikoa

Gutxiengo menderatzaileetatik proletalgoetara pasatzen garenean, azterketa zehatzagoak hemen ere berretsi egiten du gure lehen inpresioa, alegia, desintegratzen ari den gizartearen zatiki hauetako bakoitzean tipo-aniztasuna dagoela. Halaber, aniztasun espiritual honen eremuan, barne- eta kanpo-proletalgoa aurkako poloak direla aurkituko dugu. Kanpo-proletalgoek gutxiengo menderatzaileena baino gama estuagoa duten bitartean, barne-proletalgoen gama askoz zabalagoa da. Azter dezagun lehenik arlorik zabalena.

Barne-proletalgo helenikoaren sorrera jarraitu nahi badugu enbrioi-etaparen hasieratik, ezin dugu gauza hoberik egin Tuzididesen pasarte bat aipatzea baino, non Gizarte Helenikoaren kolapsoaren historialariak ondorengo gizarte-zisma deskribatzen baitu bere faserik goiztiarrean, lehenengo Kerkyran agertu zen bezala.

«Halakoxea izan zen klase-borrokaren (stasis) basakeria Kerkyran garatu zenean, eta are zirrara handiagoa eragin zuen bere motako lehenengoa zelako, nahiz eta azkenean altxamendua ia mundu heleniko osora zabaldu zen. Eskualde guztietan izan ziren borrokak proletalgoaren buruzagien eta erreakzionarioen artean, haiek atenas-tarren eta hauek lazedemoniarren esku-hartzea lortzeko ahaleginetan. Bake-garaian ez zuketan ez aukerarik ez gogorik izango atzeritarrari dei egiteko; baina orain gerra-garaia zen; eta edozein arlotako espiritu iraultzaileentzat erraza zen kontrarioen nahasmendua eta bere fakzioaren sendotzea ekarriko zuen ituna egitea. Klase-borrokaren piztualdi honek ezbeharraren gain ekarri zuen Helasko eskualdeetara, gertatzen diren eta gertatzen jarraituko duten ezbehar-rak giza izaerak den bezalakoa izaten segitzen duen bitartean, nahiz eta ondoz ondoko egoera-aldaketek larritu, arindu edo aldatu egin ditzaketen. Bake-garaiko baldintza mesedegarrien mende, eskualdeek nahiz gizabanakoek zentzuzkotasun gozoagoa erakusten dute, beraien eskuak ez dituelako behartzen gertaeren logikak; baina gerrak irentsi egiten ditu ohiko bizitzaren marjinak, eta izaera gehienetan, tenperamentua ingurune berrira egokitzen du trebakuntza basatiaren bidez. Honela, klase-borrokak kutsatu zituen Helasko eskualdeak, eta gero-ko piztualdi bakoitzak eragindako sentsazioak metatze-efektua izan zuen hurrengoan»¹³⁸.

Gauzen egoera honen lehen gizarte-ondorioa «estaturik gabe-ko» erbesteratuen jendetza flotagarri handi eta gero eta handiagoa sortzea izan zen. Historia helenikoaren hazkundealdian halako estualdia ez zen batere arrunta izan eta anormaltasun ikaragarritzat jotzen zen. Gaitza ez zuen garaitu mementoan hiri-estatu bakoitzean erreinatzen zuen fakzioak kontrario kanporatuei etxera bakean itzultzen uzteko Alexandrok bihotz-bihotzez egindako ahaleginak; eta suak erregai berria sortu zuen beretzat; zeren eta erbesteratuek aurkitu zuten zeregin bakarra soldadu mertzenario sartzeari izan baitzen; eta giza indar militarren ekarpen honek bultzada berria eman zien gerrei, eta

horrela erbesteratu berriak —eta ondorioz mertzenario gehiago— sortu zen.

Gerra-espirituaren zuzeneko hondamen moral hauen eragina Helasen beretarrak deserrotzean, ikaragarri indartu zuen gerrek askatzen dituzten ekonomi indar kaltegarrien jardunak. Adibidez, Alexandroren eta ondorengo gerrek Hego-mendebaldeko Asian enplegu militarra eman zioten etxegabeko greziar-multzo handi bati beste multzo handi bat deserrotzearen ordainetan. Zeren eta mertzenarioei akemenestarren altxortegietan bi mendez metaturiko urrea zirkulazioan jarritz ordaintzen baitzitzairen; eta diru-zirkulazioaren bolumenean bat-bateko gehikuntza hau erabat hondagarria gertatu zen nekazari eta eskulangileentzat. Prezioak igo egin ziren, eta finantza-iraultzak pobrezian utzi zuen gizarte-gorputzeko osagai bat, ordu arte nolabaiteko segurtasuna izan zuena. Pobretze berdina eragin zuten berriro, ehun urte geroago, Bigarren Gerra Punikoaren ondorio ekonomikoek, nekazariak Italiako lurretik deserrotu zituztenean, lehenengo Hanibalen soldaduek eragindako zuzeneko suntsiduragatik eta ondoren erromatar soldadutza gero eta epe luzeagoengatik. Atsekabe honen mende, bere borondatearen aurka deserroturiko italiar nekazarien ondorengo pobretuek ez zuten beste irteerarik izan karrera militarra lanbide bihurtzea baino, haien arbasoei *corvée* bezala ezarri zitzaiena.

«Sustragabetzeko» prozesu-anker honetan ez dago dudarik barne-proletalgo helenikoaren sorrera ari garela ikusten, eta hori, nahiz eta neurri batean aurreko belaunaldietan prozesuaren biktimak *ci-devant* aristokratak izan, ez ziren bezain sarri. Zeren eta proletarismoa sentimendu-egoera baita kanpo-zirkunstantzia baino gehiago. Lehenengo aldiz «proletalgo» hitza erabili genuenean, honela definitu genuen geure xederako: gizarte-osagai edo talde bat, nolabait ere gizarte jakin *batean* dagoena baina gizarte *horretakoa* ez dena, berorren historiako une zehatz batean; eta definizio honetan sartzen dira bai Espartako Klearko erbesteratua eta Ziro Gaztearen greziar indar mertzenarioko beste kapitain aristokratak, indar honen aurrekariak Xenofontek zirriboratu dizkigularik, eta bai laborari langabe apalenak ere, mertzenario gisa Ptolomeo edo Marioren banderapean sartuak. Proletarioaren benetako ezaugarria ez da ez pobrezia ez jaiotza apala, baizik eta gizartean antzinatik zuen lekua kendu dioten kontzientzia, eta kontzientzia honek sortzen duen arrangura.

Honela, barne-proletalgo helenikoa, desintegratzen ari ziren gorputz politiko helenikoetako hiritar askeen artetik erreklutatu zen lehen-lehenik, baita aristokraten artetik ere; eta lehenengo errekluta hauek desoinordetuak izan ziren, lehenik jaiotzatiko eskubide espiritual batez gabetuak izatean; baina, noski, haien pobretze espiritualarekin batera, eta ondoren ia beti, maila materialean pobretzea etorri zen, eta laster indartu zituzten beste klase batzuetatik erreklutatuek, hasieratik proletario material nahiz espiritualak zirenak. Barne-proletalgo helenikoko kideak neurri handi batean mazedoniar konkista-gerrek irentsi zituzten, hots, Gizarte Siriako, Egipziako eta Babilonikoa osorik gutxiengo menderatzaile helenikoaren sarean sarrarazi zituzten gerrek; erromatarren geroagoko konkistek, berriz, Europa eta Ipar Afrikako barbaroen erdiak sarrarazi zituzten.

Barne-proletalgo helenikoaren nahigabeko errefortzu atzeritar hauek hasieran alde batetik zori hobea izan zuten agian jatorriz Greziakoak bertakoak ziren lagun proletarioek baino. Moralki desoinordetuta eta materialki bipilduta zeuden arren, artean ez zeuden fisikoki deserrotuak. Baina esklabo-merkataritza etorri zen konkistatzailearen arrastoan, eta K.a. azken bi mendeetan Mediterraneoako kostaren inguruko herri guztiak —bai Mendebaldeko barbaroak eta bai Ekialdeko eskolatuak— zergapean jarri zituzten Italiako esklabolararen merkatu asegaizak eskatzen zuenaz hornitzeko.

Gizarte Helenikoko barne-proletalgoan hiru osagai zeudela ikusten dugu orain: gizartearen gorputz sozialeko bertako kide desoinordetuak eta deserrotuak; konkistatuak eta errotik erauzi gabe ustiatuak izan ziren atzerriko zibilizazio eta gizarte primitiboetako kideak, partzialki desoinordetuak; eta mendeko herri hauetan bi bider desoinordeturikoak, deserrotuak ez ezik, esklabo hartuak eta deserrituak urrutiko plantazioetan hil arte lan egin zezaten. Hiru biktima-multzo hauen sufrimenduak beren jatorriak desberdinak bezain anitzak ziren, baina desberdintasun hauek haiek beren gizarte-herentziaz gabetuak eta paria ustiatuak bihurtzearen esperientzia komun zanpagarriak gainditzen zituen.

Bidegabekeriaren biktima hauek beren patuaren aurrean nola erreakzionatu zuten aztertzen dugunean, ez gaitu harritu behar aurkitzeak haien erreakzioetako bat basakeriaren piztualdia izan zela, bor-

tizkeriari dagokionez haien zapaltzaile eta ustiatzaileen odol hotzeko ankerkeria gainditu zuena. Grina-nota uniforme bat entzuten da proletario etsien istiluen pandemonium-ean. Nota hau ptolomeotarren erre-gimen zapaltzailearen aurkako matxinada egipziakoetan entzuten dugu; seleukotarren eta erromatarren helenizazio-politikaren aurkako judu-matxinadetan, Judas Makabeok K.a. 166an egin zuen altxamen-dutik Bar Kokabaren gidaritzapean K.o. 132-5ean zertutako azken ekintza etsigarriaraino; Mendebaldeko Asia Txikiko natibo erdi-heleni-zatu eta oso sofistikatuak erromatarren mendekuaren arriskupean bi aldiz jartzera mugitu zituen amorru beldurgabeen: Aristoniko atalota-rraren mende K.a. 132an eta Mitradato Pontoko erregearen mendean K.a. 88an. Esklaboen altxamendu-sail bat bada Sizilian eta Hego Italian ere, Traziako gladiadore iheslariaren —Espartakoren— balen-tria etsigarrian burutu zena, Italiar penintsulan goitik beheraino ibili zelarik, erromatar otsoari erronka egiten bere gordelekuan bertan K.a. 73tik 71ra bitartean.

Baina amorrualdi hauek ez ziren proletalgoko atzeritar ele-mentuetara mugatu. Erromako hiritargoak-proletalgoak gerra zibile-tan, eta K.a. 91-82ko paroxismoan batez ere, erromatar plutokraziari eraso egin eta suntsitzeko erabili zuen basakeria Judas Makabeoren edo Espartakoren basakeria bezalakoxea zen; eta sutan zegoen mundu baten argitasunean zilueta beldurgarrian nabarmentzen diren irudi beltz guztien arteko satanikoenak erromatar buruzagi iraultzaileak dira: Sertorio, Sexto Ponpeio, Mario eta Katilina, zoriaren gurpilak ezohiko bortxaz emandako biraren batengatik *Ordo Senatorius* berta-tik buruz aurrera jaurtiak.

Baina indarkeria suizida ez zen barne-proletalgo helenikoak emandako erantzun bakarra. Izan zen beste mota bateko erantzunik ere, adierazpide gorena kristau-erlijioan aurkitu zuena. Erantzun otzan edo ez bortxazkoa, banatzeko borondatearen adierazpen gisa, bor-txazko erantzuna bezain benetakoa da; zeren eta Makabeoen Bigarren Liburuan omentzen diren martiri otzanak —Eleazar eskribau zaharra eta zazpi anaiak eta beraien ama— fariseuen guraso espiritualak bai-tira, eta fariseuak «banatzen direnak» dira; beren buruari emandako titulu hau, «sezesionistak» itzuliko litzateke erromatar eratorpeneko hizkuntzan. Mundu helenikoko ekialdeko barne-proletalgoaren histo-rian, K.a. bigarren mendetik aurrera, indarkeria eta otzantasuna ikus-

ten ditugu arimez nagusitzeko lehian, indarkeriak bere burua suntsitu eta esparruan otzantasuna bakarrik uzten duen arte.

Arazoa hasieratik planteatu zen; zeren eta K.a. 167ko proto-martiriek hartu zuten otzantasun-bidea azkar abandonatu baitzuen Judas oldartsuak; eta «gizon armatu indartsu» proletario honen bere-halako arrakasta materialak —nahasia eta iragankorra izan arren— hainbestearino liluratu zituen ondorengoak, ezen Jesusen lagunik minenak ere eskandalizatu egin baitziren Maisuak bere patuaz egingdako iragarpenekin, eta lur jota gelditu ziren iragarpen haiek egia bihurtu zirenean. Hala ere, gurutziltzatu eta hilabete gutxitara Gamaliel jada gogoan hartzen ari zen hildako buruzagiaren ikasleak, miragarriro berrantolatuak, Jainkoa beren alde izan zezaketen pertsonak zirela; eta urte batzuk geroago, Gamalielen ikaslea bera, Paulo, Kristo gurutziltzatua predikatzen ari zen.

Indarkeriaren bidetik otzantasunaren biderako lehen kristaubelaunaldiaren konbertsio hau haien itxaropen materialei kolpe suntsigarria ematearen ordainetan lortu behar izan zen; eta Jesusen jarraitzaileentzat gurutziltzatzeak egin zuena judu ortodoxoentzat Jerusalem suntsitzeak egin zuen K.o. 70ean. Judaismoaren eskola berria sortu zen ideia honi uko eginez: «Jainkoaren Erresuma, gauzen kanpo-egoera bat zela, agertzeko zorian zegoena»¹³⁹. Danielen Liburuaren salbuespen ohargarri baina bakarrarekin, juduen indarkeri bideari adierazpen literarioa eman zioten idazki apokaliptikoak kanporatu egin zituzten orduan Legearen eta Profeten kanonetik; eta kontrako printzipioa, Jainkoaren borondatea mundu honetan giza eskuen lanaz betearazteko batere ahaleginik ez egitekoa, hain sartuta geratu zen juduen tradizioan, ezen gaur egungo *Agudath Israel* ortodoxo-ortodoxoak susmo txarrez begiratu baitzion mugimendu sionistari eta zurrun gelditu baitzen hogeigarren mendeko Palestinan juduen «egoitza nazionala» eraikitzeo lanetatik aparte.

Judu ortodoxoen bihotz-aldaketa honek gai egin baditu fosil gisa bizirik irauteko, pareko bihotz-aldaketak Jesusen lagunengan garaipen handiagoetarako bidea zabaldu dio Kristau Elizari. Jazarpenaren erronkari Eleazar eta zazpi anaien modu otzanean erantzun zion Kristau Elizak, eta honen saria gutxiengo menderatzaile helenikoaren konbertsioa izan zen, eta gero kanpo-proletalgoko gerratalde barbaroena.

Kristautasunaren kontrario zuzena bere hazkundeko lehen mendeetan Gizarte Helenikoaren tribu-erlijio primitiboa izan zen bere azken forman: estatu unibertsal helenikoaren idolatriazko gurtza Divus Caesar baten pertsonan. Elizak otzan baina tinko bere kideek idolatria hau, ezta formalki eta azaletik ere, praktika zezaten onartzeari uko egiteak jazarpen ofizialak ekarri zizkion, eta azkenean botere espiritualaren aurrean kapitulatzera behartu zuen erromatar gobernu inperiala, honek huts egin zuelarik botere espiritual hori gurtzara behartzen. Baina Inperioaren Estatu-erlijio primitibo honek, gobernuaren eskuineko besoaren indar guztiaz mantendu eta ezarri zen arren, eragin txikia izan zuen giza bihotzetan. Begirune konbentzionala, erromatar magistratuak kristauari errito-egintza bat eginez erakusteko eskatu ziona, Estatu-erlijio honen hasiera eta bukaera izan zen. Hauxe besterik ez zegoen han eskatzen zitzaiena gauza normaltzat egiten zuten ez-kristautentzat, eta hauek ez zuten ulertzen zergatik zuen kristauak nahiago bere bizia sakrifikatu ohi-tura hutsal hau bete baino. Kristautasunaren lehiakideak, berez ahaltsuak —derrigortze politikoaren laguntzarik behar ez zuen erakarmen natiboaren bidez—, ez ziren izan ez Estatu-gurtza hau, ezta erlijio primitiboaren beste formaren bat ere, baizik eta zenbait «erlijio nagusi», kristautasuna bera bezala, barne-proletalgo helenikotik sortuak.

«Erlijio nagusi» lehiakide hauek gogora ekartzeko aski dugu barne-proletalgo helenikoko ekialdeko kontingentearen hainbat sorburuz oroitzea. Kristau-erlijioa aurrekari siriakoak zituen herri batetik etorri zen. Mundu siriakoaren iraniar erdiak mitraismoa ekarri zuen. Isisen gurtza mundu egipziakoaren murgildutako iparralde-erditik etorri zen. Anatoliar Ama Zibeles Handiaren gurtza Gizarte Hitita baten ekarpentzat har daiteke agian, ordurako gizarte-jardueraren maila guztietan erlijiosoan izan ezik luzaroan desagertuta egona, nahiz eta Ama Handiaren azken jatorriaren bila hasten bagara, hasieran bere sorlekuan mundu sumerikoan aurkituko dugun Ishtar izenaz, inoiz ezarri baino lehen Zibeles bezala Anatoliako Pesinon edo Dea Syra bezala Hierapolisen edo hizkuntza teutonikoa zuten urrutiko gurtzaileen Ama lur bezala Ipar itsasoko edo Baltikoko Uharte Santu bateko bere basotxoan.

Desintegrazio bidean zeuden beste gizarte batzuetako barne-proletalgoen historiak ikertzen baditugu, batzuetan datuak urriak edo hutsaren hurrengo direla aitortu behar dugu. Adibidez, ezer ez dakigu Maien Gizarteko barne-proletalgoaz. Gizarte Minoikoaren kasuan dagoeneko arreta bereganatu digu aukera tentagarri batek: eliza uni-bertsal minoikoa deitu litekeen zerbaiten aztarnak gordetzen ote diren Eliza Orfiko historikoaren osagai heterogeneoen artean, Eliza hau Kristo aurreko seigarren mendetik aurrera agertzen delarik historia helenikoan. Hala ere, ezin dugu ziur esan orfismoaren praktika eta sineskizunetako batzuk erlijio minoiko batetik datozenik. Zibilizazio Hititaren barne-proletalgoaz ere ia ezer ez dakigu, oso adin goiztiarrean galdu zelarik. Gizarte Hititaren hondarrak pixkanaka eta neurri batean Gizarte Helenikoak eta beste neurri batean Gizarte Siriakoak asimilatu zituztela bakarrik esan dezakegu, eta beraz bi gizarte atzeritar hauen historiak ikertu beharko genituzke gizarte-gorputz hititaren aztarna bila.

Gizarte Hitita da desintegratzen ari zen hainbat gizartetako bat, desintegrazio-prozesua osatu baino lehen auzoko batek irentsia. Honelako kasuetan normala da barne-proletalgoak axolagabeziaz edo baita pozik ere ikustea bere gutxiengo menderatzaileari gaineratzen ari zaion patua. Hori frogatzen duen kasu bat Andeetako estatu uni-bertsaleko barne-proletalgoaren portaera da, bat-batean espainiar konkistatzaileak han sartu zirenean. Agian *orejones* direlakoak izan ziren desintegratzen ari den gizarte batek inoiz sorturiko gutxiengo menderatzaile onberena, baina beren onberatasunak ez zien ezertarako balio izan epai-egunean. Kontuz zaindutako beraien giza azienda eta abere-taldeek *Pax Incaica* onartzerakoan erakutsi zuten otzantasun pasibo berberaz onartu zuten espainiar konkista ere.

Barne-proletalgoak bere gutxiengo menderatzailearen konkistatzailea gogo beraz onartu dueneko kasu batzuk ere seinala ditzakegu. Hor dago «Deuterioisaias»en apostrofeetan egindako ongietorri adierazgarria Neobabiloniar Inperioaren pertsiar konkistatzaileari, juduak gatibu eraman zituenari. Berrehun urte geroago babiloniarrek eurek egin zioten ongietorria Alexandro helenikoari akemenestarren uztarpetik askatzen zituelako.

Barne-proletalgo japoniar baten banakuntzaren ezaugarri garbiak ikus daitezke Ekialde Urruneko Gizarteak Japonian izandako historian, bere arazoaldia igaro eta estatu unibertsalean sartuta zegoena Mendebaldeko Gizarteak irentsi baino lehen. Adibidez, hiri-estatu helenikoetan K.a. 431n hasi ziren gerra eta iraultza-sailak deserrotu eta soldadu mertzenario gisa ihesbide negargarria aurkitu zuten hiritar haien ordezkioak bilatzen baditugu, paralelotasun zehatza aurkituko dugu *ronin* direlakoengan, edo ugazabarik gabeko gerrari langabeengan, anarkia feudalaren ondorioz japoniar arazoaldian sortuak. Bestalde, gaur egungo Japoniar Gizartean baztertuta bizirik irauten duten *eta* edo pariak Honshu uharteko aino barbaroen gerakin asimilatu gabetzat har daitezke, barne-proletalgo japoniarrean behartuta sartuak, erromatar armek Europa eta Ipar Afrikako barbaroak barne-proletalgo helenikoan sarrarazi zituzten bezala. Hirugarren lekuan, «erlijio nagusien» japoniar baliokidea aurkitzen dugu, zeinetan barne-proletalgo helenikoak erantzunik eraginkorra bilatu eta aurkitu baitzien jasan behar izan zituen atsekabeei.

Erlijio hauek Jodo, Jodo Shinshu, Hokke eta Zen-a izan ziren, guztiak ere K.o. 1175. urtearen ondorengo mendean sortuak. Erlijio hauek beren baliokide helenikoen antzekoak dira, guztiak ere atzerriar inspiraziokoak baitira, laurak mahayanaren gaiaren bariazioak, alegia. Lau hauetako hiru kristautasunaren antzekoak dira sexuen berdintasun espirituala erakusten duten neurrian. Sofistikatu gabeko publikoari zuzentzean, erlijio hauen apostoluek txinera klasikoa baztertu zuten eta, idatzi zutenean, japoniar herri-hizkuntza erabili zuten idazkera erraz samarrez. Haien ahuldade nagusia erlijio-sortzaile gisa zera izan zen, ahalik eta publikorik zabalenari salbazioa ekarri nahian, maila apalegian jarri zituztela beren eskariak. Batzuek erritozko formulen errexitazio hutsak agindu zituzten, eta beste batzuek eskari moral gutxi edo batere ez zieten egin beren ikasleei. Baina gogoan izan behar da kristau-doktrinaren ardatzetako bat den bekatuen barkamena garai eta leku askotan hain gaizki erabili eta ulertu dutenez *soi-disant* kristau-buruzagiek, kargu horietako baten edo bien aurrean jar daitezkeela. Luterok, adibidez, bere garaiko Erromatar Elizak praktikatzen zuen indulgentzi salmentari eraso egin zion, erritozko formen

maskarapean, kristau-damuaren salerosketa komertzialaren ordezkotzeko zelako, aldi berean, fede bidezko justifikazio paulinoaren interpretazioarekin eta bere *pecca fortiter* delakoarekin, moraltasuna axola ez duen gauzatzen hartzeaz akusatua izateko moduan jarri zelarik.

Barne-proletalgoak atzerriko estatu unibertsalen mende

Ikuskizun bitxia eskaintzen du desintegratzen ari den zibilizazio-talde batek, non, gutxiengo menderatzaile indigenak deuseztua edo menderatua izan ondoren, kanpo-gertakarien martxak oraindik normal jarraitu duen aurrera ohiko bideetatik. Hiru gizartek — Hinduak, Ekialde Urrunekoak Txinan eta Kristau Ortodoxoak Ekialde Hurbilean —, kolapsotik deuseztapenerako bidean estatu unibertsal batetik behar bezala igaroak guztiak, estatu unibertsal hau atzeritar eskuen dohain edo ezarpenzat hartu dute, beren kabuz eraiki ordeztu. Esku iranikoek estatu unibertsal bat Kristandade Ortodoxoko gorputz nagusiari eman diote Otomandar Inperioaren forman eta beste bat hindu-munduari Timur (Mogol) Inperioaren forman. Britainiar eskuek gero berreraiki egin dute oinarrietatik gaizki eraikitako Mogolen Inperio hori. Txinan mongolek jokatu dute otomandar edo mogolen papera, eta oinarri sendagoaren gaineko berreraikitze-lana, britainiarrek Indian abiarazia, Txinan mantxuek zertu dute.

Desintegratzen ari den gizarte bat honela behartuta dagoenean bere estatu unibertsalaz hornitzeko atzerriko arkitektoen bat onartzerara, bere gutxiengo menderatzaile indigena erabat ezgai eta antzu bihurtu dela aitortzen ari da; eta zaharrerri goiztiar honengatik ezinbesteko zigorra eskubide-galtze iraingarria da. Gutxiengo menderatzailearen lana egitera datorren atzeritarrek, oso normala den bezala, gutxiengo menderatzailearen pribilegioak bereganatzen ditu; eta atzeritarrek eraikitako estatu unibertsalean, gutxiengo menderatzaile indigena osoa barne-proletalgoaren mailara degradatua gertatzen da honela. Khan handi mongol edo mantxuari eta otomandar padishari eta Indiako enperadore mogul edo britainiarrari oraindik komenigarri gerta dakieke txinatar letratuaren edo greziar fanariotaren edo hindu-brahmanaren zerbitzuak erabiltzea, kasuaren arabera; baina honek ez die ezkututzen agente hauei beren arimak galdu dituztela beren estatusak bezalaxe. Garbi dago horrelako egoeran —beheratze komunean *ci-devant* gutxiengo menderatzaileak bat egin duenean barne-proletalgoarekin, zeini beste garai batean destainaz begiratu baitzion— ziur

aski ez dugula aurkituko desintegrazio-prozesua bide normaletatik aurrera egiten.

Hindu Gizartearen barne-proletalgoan geure belaunaldian indarkeriazko eta otzantasunezko erreakzio proletario bikoitza bereizten dugu, bengalar iraultzaileen eskola militanteak egindako hilketen eta Gujerati Mahatma Gandhik predikaturiko indarkeriarik ezaren arteko aldean; eta hartzidura proletarioaren iragan historia luzeagoa ere ondoriozta genezake kontrako bi joera horiek berdin ordezkatuak dituzten hainbat mugimendu erlijiosoren presentziatik. Sikhismoan hinduismo eta islamismoaren sinkretismo proletario gerrazalea ikusten dugu; Brahmo-Samaj-en, hinduismoaren eta kristautasun protestante liberalaren sinkretismo indarkeriarik gabea.

Ekialde Urruneko Gizarteak Txinan mantxu-erregimenaren pean zuen barne-proletalgoan bere lan bat ikus genezake kristau-aroko hemeretzigarren mendearen erdiko gizarte-agertokian nagusi izan zen Taiping mugimenduan, Brahmo-Samajen antzekoa kristautasun protestanteari zor dionagatik, baina sikhismoaren antzekoa bere militantziagatik.

Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusiko barne-proletalgoan, kristau-aroko hamalagarren mendeko bosgarren hamarkadan Salonikan izandako iraultza «zeloteak» indarkeriazko erreakzio proletario baten begiztalditxo bat ematen digu arazoaldi kristau ortodoxoaren ordurik beltzenean: Gizarte Kristau Ortodoxoa otomandar konkistatzailearen diziiplina zorrotzak estatu unibertsal bihurtu aurreko azken belaunaldian. Hari zegokion erreakzio otzana ez zen oso aurrera joan, baina, hemezortzigarren mendetik hemeretzigarreneira igarotzean mendebaldar bihurtzeko prozesua Otomandar Inperioaren zati-ketaren ondoren hain berehalakoa ez balitz izan, gaur egunerako bek-tashi mugimenduak Ekialde Hurbil osoan irabazi ahal izango zuela susma genezake, Albanian arrakastaz lortu duen posizioa.

Barne-proletalgo babilonikoa eta siriakoa

Orain mundu babilonikora pasatzen bagara, zera aurkituko dugu: gogor probaturiko barne-proletalgoaren arimetan erlijio-espe-rientzia eta aurkikuntzaren hartzigarria, Hego-mendebaldeko Asian Kristo aurreko zortzigarren eta zazpigarren mendeetako asiri-ir izuaren mendean, Mediterraneoko itsasertz helenizatueta sei

mende geroago erromatar izuaren mende izandakoa bezain aktiboa izan zela.

Desintegratzen ari zen Gizarte Babilonikoa geografikoki bi norabidetan hedatu zen asiriar armen ekintza bidez, desintegratzen ari zen Gizarte Helenikoa mazedoniarrek eta erromatarrek egindako konkisten bidez hedatu zen bezala. Ekialderantz, Zagros baino harantzago, Iranen, asiriarrek erromatarrek Europan Apeninoez harantzago egindako balentriei hartu zieten aurea gizarte primitibo-pila bat menderatuz; mendebalderantz, Eufrates baino harantzago, Dardaneloen asiar aldean mazedoniarrek egindako balentriei hartu zieten aurea bi zibilizazio atzerritar menderatuz; eta zibilizazio hauek, Siriakoa eta Egipziakoa, gero Alexandroren kanpainen ostean barne-proletalgo helenikora sartu zituzten lauretako biren berdin-berdinak ziren. Militarismo babilonikoaren biktima atzerritar hauek ez zituzten konkistatu deserrotu gabe. Populazio konkistatu bat deserritzearen adibide klasikoak bi hauek dira: Sargon asiriar gerra-jaunak egindako israeldarren —Hamar Tribu Galduen— leku-aldaketa, eta neobabiloniar Nabukodonosor gerra-jaunak mundu babilonikoaren bihotzera Babilonian bertan egin zuen juduen leku-aldaketa.

Populazioen nahitaezko aldaketa inperialismo babilonikoaren baliabide subiranoa izan zen herri konkistatuaren espiritua apurtzeko, eta basakeria hau ez zitzairen atzerritar eta barbaroei soilik jasanarazi. Beren anaiarteko gerran mundu babilonikoko botere menderatzaileek eskrupulurik gabe ezarri zioten elkarri tratamendu bera, eta samaritar komunitatea —hauen ordezkarietako ehundaka batzuk oraindik ikus daitezke Gerizim mendiaren gerizpean bizitzen— Babiloniako hainbat hiritatik, hiriburutik ere bai, deserritu eta asiriar eskuek Siriara egindako leku-aldaketaoren oroitarria da.

Furor assyriacus delakoa barne-proletalgo babilonikoa sortarazi baino lehen ez zela ahitu ikusiko da, eta proletalgo honek barne-proletalgo helenikoaren antz handia izan zuen bere jatorrian, osieran eta esperientzian; eta bi arbolek antzeko fruituak eman zituzten. Gizarte Siriakoa gero barne-proletalgo helenikoan sartzeak judaismotik kristautasunaren fruitua eman zuen bitartean, Gizarte Siriako bera lehenago barne-proletalgo babilonikoan sartzearen fruitua judaismoa bera sortzea izan zen, Gizarte Siriakoa osatzen zuten parroki komunitateetako baten erlijio primitibotik abiatuz.

Ikusiko da, judaismoak eta kristautasunak «filosofikoki garaikide eta baliokide» diruditen bitartean, bi atzerritar gizarteren historietan antzeko etapen emaitza gisa har daitezkeelarik, badela beste ikuspegi bat, honen arabera espirituzko argitzapenaren prozesu bakar batean ondoz ondoko etapatzat agertzen direlarik. Azken koadro honetan, kristautasuna ez dago judaismoaren ondoan, haren bizkar gainean baizik, biak Israelgo erlijio primitiboaren gainean altxatzen direlarik. Kristo aurreko zortzigarren mendean eta gero ere, Israel eta Judako profeten argitzapena ez da tarteko etapa bakarra, kristautasunaren eta Jahveren gurtza primitiboaren arteko bitartekronologiko eta espiritualean ezagutzen edo susmatzen duguna. Profetak baino lehenago eta beherago tradizio biblikoak Moisesen figura agertzen du, eta haren figura baino lehen Abrahamen figura. Figura zirriborotsu hauen benetakotasun historikoari buruz zeinahi ikuspegi izanda ere, esan behar da tradizioak Profeten eta Kristoren testuinguru historiko berean kokatzen dituela biak, Abraham eta Moises. Zeren eta Moisesen agerpena Egiptoko «Inperio Berriaren» gainbeherarekin sinkronizaturik baitago, eta Abrahamen agerpena estatu unibertsal sumerikoaren azken egunekin, Hamurabiren berreraikuntza laburraren ondoren. Honela, lau etapa hauek —Abrahamek, Moisesek, Profetek eta Jesusek ordezkatuak— zibilizazioen desintegrazioaren eta erlijio-ekimen berrien arteko erlazioa argitzen dute.

Judaismoaren erlijio nagusiaren sorrerak parerik gabeko erregistro osoa eta argia utzi du bere buruaz Israel eta Judako erbestealdi aurreko Profeten liburuetan; eta lan espiritual handiko erregistro bizi hauetan beste alde batzuetan aurkitu dugun arazo gorria ikusten dugu planteatuta: probari aurre egiteko indarkeriazko eta otzantasunezko bideen arteko aukera. Gainera, kasu honetan ere, pixkanaka otzantasuna nagusitu zitzaion indarkeriari; zeren eta arazoaldiak, bere puntu gorenera iritsi eta gaingitu zuenean, mailukada batzuk eman zituen, indarkeriari era berean erantzutearen hutsalkeria erakutsi ziena Judako gogorrenei ere. «Erljio nagusi» berria —zortzigarren mendeko Sirian, beren sorlekuko larrainean asiriarr idaurrez birrinduriko komunitate siriakoetan, sortua— seigarren eta bosgarren mendeetako Babilonian iritsi zen heldutasunera herri jipoitu hauetako baten ondorengo deserrotu eta deserrituen artean.

Erromatar Italiara deserritutako Ekialdeko esklaboak bezala, Nabukodonosorren Babiloniako erbesteratu juduak konkistatzaileen ethosera erraz moldatzearen aurka agertu ziren:

*«Zutaz ahaztu banendi, Jerusalem, geldi bekit eskua elbarri.
Geldi bekit mihia ahosabaian itsatsirik, beti gogoan ez bazaitut»¹⁴⁰.*

Hala ere, erbesteratu hauek atzerrian zuten etxemina ez zen marka negatiboa soilik izan: irudimenezko sorkuntza inspiratuaren egintza positiboa izan zen. Munduz kanpoko argitan, malkoen laino artetik ikusitako ikuskari honetan, gotorleku eroria hiri santu izatera antzaldatu zen, harkaitz gainean eraikia, haren kontra ezin zutelarik ezer egin infernuko ateen. Eta gatibuak, Siongo kantuetako bat abes- teko bahitzaileen gurrietara makurtzeari uko egin eta Eufrates ibaia- ren ondoko sahatsetatik burugogor harpak zintzilikatu zituztenak, une hartan bertan melodia berri entzunezina ari ziren konposatzen beren bihotzeko tresna ikustezinaz:

«Babiloniako ibai-bazterretan eseriak geunden negarrez, oi Sion, zutaz oroituz»¹⁴¹ ;

eta negar hartan gauzatu zen juduen argitzapena.

Garbi dago barne-proletalgo atzerritarraren lerroetako errekluta siriakoen ondoz ondoko erreakzio erlijiosoetan historia babiloniko eta helenikoaren arteko paralelotasuna estua dela; baina erronka babilonikoak sortarazitako erantzuna ez zen atzerriko zibilizazio baten kide ziren biktimengandik bakarrik etorri, baita biktima barbaroengandik ere. Europa eta Ipar Afrikako barbaroek, erromatar armaz konkistatuek, beren aurkikuntza erlijioso propiorik ez zuten egin, baizik eta jatorria ekialdean zuten lagun proletarioek beraien artean ereindako hazia onartu zuten; asiriarren arearen azpitik pasatako iraniar barbaroek beren profeta bat sortu zuten, Zaratustra, zoroastrismoaren sortzailea, alegia. Zaratustraren data eztabaida-gai da eta ziur ezin dugu esan haren erlijio-aurkikuntza erantzun burujabea izan zen asiriar erronkaren aurrean ala haren ahotsa «mediarren hirietan» abandonaturiko israeldar profeta ahaztuen garrasiaren oihartzun hutsa izan zen. Garbi dago, ordea, edonolakoak izanda ere bi «erlijio nagusi» hauen arteko jatorrizko harremanak, zoroastrismoa eta judaismoa baldintza berdinetan aurkitu zirela beren heltzaroan.

Edonola ere, arazoaldi babilonikoa bukatu zenean Asiriaren porrotagatik, eta mundu babilonikoa estatu unibertsal bihurtu zenean Neobabiloniar Inperioaren forman, ematen zuen egitura politiko honen barruan eliza unibertsal bat ezartzeko pribilegioagatik lehiatuko zirela judaismoa eta zoroastrismoa, kristautasuna eta mitraismoa pribilegio beragatik lehiatu ziren bezala Erromatar Inperioaren egituraren barruan.

Ez zen, ordea, horrelakorik gertatu, arrazoi nagusi batengatik: neobabiloniar estatu unibertsala iragankorra gertatu zen erromatar baliokidearekin konparatuz. Nabukodonosorren —babiloniar Augustoren— ondoren, hainbat mendetako tartean, ez zen etorri Trajano, Sebero edo Konstantinorik. Haren berehalako ondorengoak, Nabonides eta Baltasar, konparagarriagoak dira Juliano eta Valens-ekin. Mende bat baino lehen Neobabiloniar Inperioa «mediar eta pertsiarrei eman zitzaien» eta Akemenestar Inperio hau politikoki iraniar eta kulturalki siriakoa izan zen izaeraz. Honela gutxiengo menderatzailearen eta barne-proletalgoaren paperak alderantzikatu egin ziren.

Zirkunstantzia hauetan judaismoaren eta zoroastrismoaren garaipena ziurragoa eta bizkorragoa izatea espero zitekeen; baina berrehun urte geroago zoriak berriro esku hartu zuen eta ustekabeko biraketa eman zien gertaeren bideari. Orduan mazedoniar konkistatzaile baten esku utzi zuen mediator eta pertsiarren erresuma. Gizarte Helenikoak mundu siriakoan egindako erasoaldi bortitz batek zatituta utzi zuen estatu unibertsal siriakoa bere papera jokatu baino askoz lehenago; eta honela, bi erlijio nagusiak, (urri samarrak diren gure probek aditzera ematen dutenez) akemenestarren babespean baketsu hedatu zirenak, aberrazio negargarri batera eraman zituzten, beren funtzio erlijiosoaren ordezkari politikoa hartuz, alegia. Bakoitza bere eremuan, Zibilizazio Siriakoaren aldeko bihurtu ziren helenismo arrotzaren aurkako borrokan. Judaismoak, mendebaldeko bere posizio aurreratuan Mediterraneoaren bistan, itxaropenik gabeko zereginari ekin zion ezinbestean, eta bere garaian Erromaren indar materialaren aurka birrindu zen K.o. 66-70, 115-17 eta 132-5eko erromatar eta juduen arteko gerretan. Zoroastrismoak, Zagrosen ekialdeko gotorlekuan, kristau-aroko hirugarren mendean ekin zion borrokari hain etsigarriro desberdinak ez ziren baldintzetan. Sasandar monarkian arma

indartsuagoa aurkitu zuen judaismoak gurutzada antihelenikoa egiteko Makabeoen printzerri txikiarekin forjatu ahal izan zuena baino; eta pixkanaka sasandarrek Erromatar Inperioaren indarra higatu zuten lauhun urteko borrokan, K.o. 572-91 eta 603-28ko erromatar eta pertsiarren arteko gerra suntsigarrietan burutu zen borrokan. Hala ere, sasandar boterea ez zen Asiatik eta Afrikatik helenismoa botatzeko eginkizuna burutzeko gai izan; zoroastrismoak, berriz, azkenean juduek bezain garesti ordaindu behar izan zuen eginkizun politikorako prest egoteagatik. Gaur egun parsiek, juduek bezala, «diaspora» huts gisan irauten dute; eta erlijio petrifikatuek, bi komunitateetako kideak hain sendo elkartuta dauzkatenean, galdua dute gizadiarentzako mezua, eta Gizarte Siriako desagertuaren fosil bihurtzeraino gogortu dira.

Atzerriko kultur indar baten eraginak «erlijio nagusi» hauek politikaren bideetara desbideratu ez ezik, zati-zati ere egin zituen. Judaismoa eta zoroastrismoa oposizio politikoaren tresna bihurtu ondoren, erronka helenikoaren aurrean ez indarkeriaz baizik eta otzantasunez erreakzionatzen ari ziren populazio siriakoko elementuen artean babestu zen erlijio-jeinu siriakoa; eta barne-proletalgo helenikoaren erditze espiritualera ekarpen gisa kristautasuna eta mitraismoa sorraztean, erlijio siriakoak adierazpide berriak aurkitu zituen judaismoak eta zoroastrismoak gaitzetsiriko espiritu eta ikuspegiarentzat. Kristautasuna, bestalde, otzantasunaren ahalmenaz mundu siriakoaren konkistatzaile helenikoak liluratu ondoren, hiru elkartetan apurtu zen: Eliza Katolikoa, helenismoarekin ituna egin zuena, eta bi herexia antitetikoak, nestorianismoa eta monofisismoa, zoroastrismoaren eta judaismoaren paper politiko militanteak berenganatu zituztenak, helenismoa eremu siriakotik kanpora botatzen inolako arrakasta biribilagorik lortu gabe.

Hala ere, ondoz ondoko bi porrotek ez zituzten helenismoaren aurkako militante siriakoak apatia eta etsipenera eramanez. Hirugarren ahalegina egin eta arrakastaz burutu zuten; eta Gizarte Siriakoak helenismoaren gain izan zuen azken garaipen politiko hau jatorri siriakoa zuen beste erlijio baten bidez lortu zen. Luzarora Islamak menderatu zuen Erromatar Inperioa Hego-mendebaldeko Asian eta Ipar Afrikan eta estatu unibertsal siriako berreraikiari —Abbastar Kalifatzari— eliza unibertsal bat eman zion.

Barne-proletalgo indikoa eta sinikoa

Gizarte Indikoari, Siriakoari bezala, bere desintegrazioaren martxa bortizki eten zion erasoaldi helenikoak; eta interesgarria da ikustea, kasu honetan, antzeko erronka batek zenbateraino sortarazi zuen antzeko erantzuna.

Gizarte Indikoak eta Helenikoak beren lehen harremana — Alexandrok Indus ibarrean egindako erasoaldiaren ondorioa— zertu zuten garaian, Gizarte Indikoa bere estatu unibertsalean sartzeko zorian zegoen, eta haren gutxiengo menderatzaileak aspalditxo erre-akzionatu zuen desintegrazioaren probaren aurrean jainismoaren eta budismoaren bi eskola filosofikoak sortuz; baina ez dago frogarik bere barne-proletalgoak «erlijio nagusiren» bat sortu zuela esateko. Asoka filosofo-errege budistak, estatu unibertsal indikoaren tronuan K.a. 273tik 232ra egon zenak, auzoko helenikoak bere filosofiara konbertitu nahi izan zituen, arrakastarik gabe. Beranduago gertatu zen budismoak kanpoaldekoa —baina zabal eta garrantzitsua— zen probintzia erasoz hartzea, Alexandro-osteko mundu helenikoko probintzia, Baktriako greziar erresumak hartua zeukana.

Baina budismoak ez zuen kontra-konkista espiritual garaile hau metamorfosi izugarria jasan arte egin, beronen bidez Sidarta Gautamaren¹⁴² lehenengo jarraitzaileen filosofia zaharra mahayana-ren erlijio berri bihurtu zelarik.

«Mahayana benetan erlijio berria da, hain erabat desberdina hasierako budismotik, ezen bere aurrekoarekin adina harreman-puntu baititu brahmandar erlijioekin... Sekula ez da erabat ulertu zelako iraultza sakonak eraldatu zuen Eliza Budista espiritu berria —bertan, hala ere, luzaroan ezkutuan egona— erabateko loraldira iritsi zenean K.o. lehen mendeetan. Ikusten dugunean filosofi irakaspen ateoak, arima-ukatzailleak, azken askapen pertsonalerako bidea, bizitzaren erabateko desagertzea eta bere giza fundatzailearen oroimenaren gurtza hutsa dena, erakusten; ikusten dugunean irakaspen hori ordeztu egin duela panteoi ugari eta santu-aldra batek inguraturiko Jainko Goren bat duen Goi Eliza paregabeak —oso erlijio deboziozkoa, oso zeremoniatsua eta klerikala, izaki bizidun guztien salbazio unibertsalaren goiburuarekin, (Buda eta Bodhisattven jainko-graziaren bidezko salbazioa, salbazioa ez deuseztatenean, betiko bizitzan baizik)—, justifikazio osoa daukagu pentsatzeko erlijioen historiak nekez ikusi

duela berriaren eta zaharraren arteko horrelako apurketarik, erlijio-fundatzaile berarengandiko ondorengotza komuna dela errebindikatzen jarraitzen duen eremuaren barruan»¹⁴³.

Budismo eraldatu hau, mundu heleniko hedatuaren ipar-ekialdean loratu zena, «erlijio nagusi» indiko bat izan zen, garai berean Gizarte Helenikoaren bihotza inbaditzen ari ziren beste erlijioekin konparagarria. Zein zen erlijio pertsonal honen jatorria, mahayanaren ezaugarria eta aldi berean bere arrakastaren sekretua zena? Legamia berri hau, budismoaren espiritua hain sakon aldatu zuena, filosofia indikoaren berezko ezpalarentzat helenikoarenarentzat bezain arrotza zen. Barne-proletalgo indikoaren esperientziaren emaitza izan al zen alaugar siriakotik hartutako txinparta bat, jadanik zoroastrismoa eta judaismoa piztuak zituena? Ikuspegi baten nahiz bestearen aldeko frogak aipa daitezke, baina ez gaude bien artean aukeratzeko egoeran. Aski da esatea, «erlijio nagusi» budista hau agertokira etortzearekin, Gizarte Indikoaren erlijio-historia dagoeneko aztertu dugun Gizarte Siriakoarenak hartu zuen bide bera hartzen hasten dela.

Sortu zeneko gizartearen altzotik mundu helenizatu bat ebanjelizatzeke irteerako «erlijio nagusi» bezala, mahayana kristautasunaren eta mitraismoaren ordezkari indikoa da argi eta garbi; eta giltza hau eskuetan dugula erraz identifikatu dezakegu beste izpi haien kontrapartida indikoa, izpi horietan errefraktatu zelarik erlijio siriakoaren argia, prisma helenikoa tartejarritz. Gizarte Siriakoko estatu prehelenikoko «fosil» haien —judu eta parsiengan bizirik iraun dutenen— baliokide indikoa bilatzen badugu, bila ari garena Zeilan eta Birmania eta Tailandia eta Kanbodian azkenaldiko hinayaniar budismoan aurkituko dugu, premahayaniar filosofia budistaren erlikia dena; eta Gizarte Siriakoak helenismoa kanpora botatzeko tresna eraginkor zen erlijio bati eskua ezartzeko Islama sortu arte itxaron behar izan zuen bezala, aurkitzen dugu espiritu heleniko sarkinaren erabateko eta azken kanporatzea gizarte-gorputz indikotik ez zela mahayanaren bidez egin, hinduismo postbudistaren erlijio-mugimendu erabat indiko eta guztiz ezhelenikoaren bidez baizik.

Mahayanaren historia, orain arte aztertu dugun neurrian, kristautasun katolikoarenarekin bat dator honetan: biek aurkitu zuten beren ekintza-eremua mundu helenikoan, bakoitzaren sorleku izan zen gizarte ezhelenikoa konbertitu orde. Baina mahayanaren histo-

rian bada geroagoko atal bat, Kristau Elizaren historian paralelorik ez duena. Zeren eta kristautasuna, hiltzorian zegoen Gizarte Helenikoaren eremuan bere bizilekua finkatu zuelarik, han geratu zen eta bizirik iraun zuen azkenean bi zibilizazio berriak —geurea eta Kristandade Ortodoxoarena, Helenikoaren filialak, alegia— elizaz hornitzeko. Mahayana, bestalde, baktiar erresuma heleniko iragankorretik Erdialdeko Asiako goi-lautadetan zehar hiltzorian zegoen mundu sinikora igaro zen, eta, bere sorterritik leku-aldaketa bikoitza eginez, barne-proletalgo sinikoaren eliza unibertsal bilakatu zen.

Barne-proletalgo sumerikoaren ondarea

Bi gizarte, Babilonikoa eta Hitita, Gizarte Sumerikoaren filial izan dira, baina kasu honetan ezin dugu aurkitu barne-proletalgo sumerikoaren altzoan sortu eta zibilizazio filialei oinordetzan utzitako eliza unibertsalik. Badirudi Gizarte Babilonikoak gutxiengo menderatzaile sumerikoaren erlijioa bereganatu zuela, eta erlijio hititak neurri batean sorburu bera izan zuela ematen du. Baina oso gutxi dakigu mundu sumerikoaren erlijio-historiaz. Zera bakarrik esan dezakegu: Tammuz eta Ishtar-en gurtza barne-proletalgo sumerikoaren esperientziaren monumentua bada benetan, sorkuntza-saio honek huts egin zuela Gizarte Sumerikoan bertan, eta beste nonbait bakarrik iritsi zela fruitua ematera.

Jainko sumeriko hauek, ar eta emeak, ibilaldi eta bidaia luzeak zeuzkaten aurrean, eta beraien ondorengo historia honen ezaugarri interesgarrietako bat beraien garrantzi erlatiboan izandako desberdintasuna da. Jainko-pare honen gurtzaren bertsio hititan jainkosaren inu-diak murriztua eta itzalpetua zeukan jainkoarena, honek harekiko seme eta maitalearen, babestu eta biktimaren paper desberdinak eta benetan kontraesankorrak jokatzen zituelarik. Zibeles-Ishtarren alboan Atis-Tammuz huskeria bat da; eta urrutiko ipar-mendebaldeko uharte santutegian, ozeanoko lasterrak inguratua, Nerthus-Ishtar handitasun bakartian ageri da lagun arrik gabe. Baina bikoteak Siria eta Egiptora egiten duen hego-mendebaldeko bidaian, Tammuz hazi egiten da garrantzian eta Ishtar txikitu. Atargatis, zeinen gurtza Banbyketik Askalonera hedatzen baita, bere izenagatik pentsa daiteke Ishtar bat izan zela, haren gurtzaren errebindikazioa Atisen laguna izatean oinarritua zegoelarik. Fenizian Adonis-Tammuz bat izan zen

«Jauna», haren urteroko heriotza deitoratzen zuelarik Astarte-Ishtar batek; eta mundu egipziakoan Osiris-Tammuz batek Isis arreba-emaztea itzalpetu zuen, Isisek bere aldetik Osiris itzalpetu zuen bezain seguru, Isisek barne-proletalgo helenikoaren bihotzetan beretzat inperio bat irabazi zuenean. Fede sumerikoaren bertsio hau, non gurtzaileen debozioa hiltzen zen jainkoarengana zuzentzen baitzen eta ez jainkosa negartia gana, badirudi Eskandinaviako urrutiko barbaroenganaino hedatu zela, han Balder-Tammuz bati «Jauna» deitzen baitzitzaion, haren emazte kolore Nannak artean eusten ziolarik ama-jainkosa sumerikoaren izen pertsonalari.

3.

Mendebaldeko munduaren barne-proletalgoa

Barne-proletalgoei buruzko azterketa osatzeko geuregandik hurbilen dagoena aztertu behar dugu. Fenomeno bereizgarriak, agertzen ote dira berriro Mendebaldeko historian? Mendebaldeko barne-proletalgoaren existentziaren froga bila hastean *embarras de richesses* batek gain hartuta gera gaitezke.

Dagoeneko ikusi dugu barne-proletalgoa biltzeko ohiko iturrietako bat eskala ikaragarrian ustiatu duela gure Mendebaldeko Gizarteak. Azken lauhun urteotan desintegratzen ari ziren hamar zibilizaziotako eskulana gutxienez ekarri da Mendebaldeko gizarte-gorputzera; eta gure Mendebaldeko barne-proletalgoaren kidetasun-maila arruntean, zeinetara izan baitira murriztuak, estandarizazio-prozesu bat gauzatu da eta honek lausotu —eta kasu batzuetan erabat ezabatu— egin ditu masa heterogeneo horiek lehen elkarren artean bereizten zituzten ezaugarriak. Gure gizartea ez da konformatu bere espezie «zibilizatua» harrapakin bihurtzearekin. Bizirik dirauten gizarte primitibo gehienak ere inguratu ditu; eta hauetako batzuk, tasmaniarak eta Ipar Amerikako indiarren tribu gehienak, shock-aren eraginez hil egin diren bitartean, beste batzuek, Afrika Tropikaleko beltzek adibidez, bizirik irautea lortu dute eta Niger Hudsonera joatea lortu dute eta Kongo Mississippira, Mendebaldeko munstro beraren

beste ekintza batzuek Yangzi Malakako itsasartera joatea lortu duten bezalaxe¹⁴⁴. Itsasontziz Amerikara eramandako esklabo beltzak eta Ozeano Indikoaren ekuatore edo antipodetako kostetara eramandako tamilak edo txinatar coolie-ak, Kristo aurreko azken bi mendeetan Mediterraneoko kosta guztietatik erromatar Italiako etxalde eta plantazioetara bidalitako esklaboen kontrapartida dira.

Gure Mendebaldeko barne-proletalgoan bada atzerritar erreklutatuen beste talde bat, arbasoen bizilekutik fisikoki kanporatuak izan gabe, deserrotuak eta espiritualki desbideratuak izan direnak. Bere bizitza atzerriko zibilizazio baten erritmora egokitzeke arazoa konpondu nahian ari den edozein komunitatetan gizarte-klase berezi bat behar da, korronte elektrikoa tentsio batetik bestera aldatzen duen «transformadorearen» giza kontrapartida izateko; eta eskari honi erantzuteko sortzen den klasea —sarri oso bat-batean eta artifizialki—, bere errusiar izen bereziarekin, *intelligentsia* bezala ezagutu izan da generikoki. Intelligentsia zibilizazio sarkinaren funtzionamenduen trikimailuak ikasi dituzten loturako ofizialen klasea da, beharrezkoak diren neurrian beren komunitatea gaitu eta, beraien bitartekaritzaz, gizarte-ingurune batean berenari eusteko, non bizitza gero eta gutxiago bizi baita bertako tradizioen arabera eta gero eta gehiago zibilizazio sarkinak bere mende dituen atzerritarrei ezartzen dien estiloaren arabera.

Intelligentsia honetako lehen erreklutak ofizial militar eta nabalak dira, gizarte menderatzailearen gerragintzatik behar den guztia ikasia dutenak Pedro Handiaren Errusia Mendebaldeko Suediaren konkistatik libratzeko, edota geroagoko Turkia eta Japonia Errusiaren konkistatik libratzeko, hau garai honetarako behar adina mendebaldar bihurtua zegoelarik erasoaren bidetik bere kontura abiatzeko. Gero diplomazialaria dator, eta honek Mendebaldeko gobernuekin negoziazioak nola zertu ikasten du, bere komunitateari ezarri zaizkion negoziazioak, gerran bere burua babesten porrot egin duelako. Diplomazian honetarako beren *raiyyah*-a erabiltzen ikusi ditugu osmanliarrak, geroago beste torloju-bira batek osmanliarrak behartu zituen arte zeregin desatsegin hau berez menderatzera. Ondoren merkatariak datoz: Hong merkatariak Kantonen eta levantetar, greziar eta armeniar merkatariak otomandar padisharen agindupeko lurretan. Eta azkenik, okzidentalismoaren legamia edo birusa iragazkortua eta asimilatua izateko

prozesuan dagoen gizarteko bizitza sozialean sakonago sartzen denean, intelligentsiak bere tiporik berezienak garatzen ditu: eskola-maisua, Mendebaldeko gaiak irakasteko amarrua ikasi duena; funtzionarioa, herri-administrazioa Mendebaldeko formen arabera gidatzeko praktika hartu duena; legelaria, *Code Napoléon*-en bertsioa Frantziako prozedura judizialaren arabera aplikatzeko abilezia lortu duena.

Intelligentsia aurkitzen dugun edozein lekutan ondoriozta dezakegu, ez bakarrik bi zibilizazio harremanetan izan direla, baita bietako bat bestearen barne-proletalgoan irentsia izateko prozesuan dagoela ere. Beste gertaera bat ere ikus dezakegu intelligentsiaren bizitzan, aurpegian letra larriz idatzirik daukana guztiek irakurtzeko: intelligentsia zoritxarreko izateko jaioa da.

Loturako klase honek hibridoaren sortzetiko zoritxarra pairatzen du, bera sortzeko elkartu diren bi familietatik kanpo baitago. Intelligentsia bere herriak gorrotatu eta mespretxatu egiten du, honen izatea bera haren gaitzespena baita. Bere presentzia herriaren erdian atzerriko zibilizazio gorrotatu baina ezinbestekoaren oroigarri bizia da, atzera eduki ezin dena eta beraz pozik eduki behar dena. Fariseua hone-taz gogoratzen da publikanoarekin topo egiten duen bakoitzean, eta zelotea herodetarrarekin topo egiten duen bakoitzean. Eta honela intelligentsiak etxean maitasunik aurkitzen ez duen bitartean, neke handiz eta buru-argitasunez menderatu dituen manera eta trikimailuen herrialdean ere ez zaio ohorerik ematen¹⁴⁵. India eta Ingalaterraren arteko elkarte historikoaren lehen egunetan, Britainiar Inperioak bere administrazio-komenientziagatik sustaturiko hindu-intelligentsia, ingelesan ohiko isekagarri izan zen. Zenbat eta errazago menderatu «babu»ak hizkuntza ingelesa, orduan eta maltzurkiago barre egingo zuen «sahib»ak ezinbestean egingo ziren errakuntzen inkongruentzia sotilat-gatik; eta barre hura mingarria zen, borondate onekoa izanda ere. Honela intelligentsiak bi aldiz betetzen du proletalgoaren definizioa: bi «gizartetan» egotea, eta ez batean bakarrik, «bietakoa» izan gabe; eta bere historiaren lehenengo atalean bere burua kontsola badezake ere bi gizarte-gorputz horien ezinbesteko organoa dela sentituz, kontsolamendu hau ere galdu egiten du denborak aurrera egin ahala. Zeren eta hornikuntza eskariari doitzea ia gizakiaren argitasunaren gainetik baitago eskulana bera denean eskatzen den produktua, eta bere garaian gehie-gizko produkzioa eta langabezia pairatzera iristen da intelligentsia.

Pedro Handiak hainbeste errusiar chinovnik nahi ditu edo Ekialdeko Indiako Konpainiak hainbeste enplegatu edo Mehmet Alik hainbeste egiptoar obrero eta itsasontzi-arotz. Neurrigabeki, giza buztinez lan egiten duten eltzegile hauek produzitzeari ekiten diote, baina intelligentsia bat manufakturatzekeo prozesua hastea baino zailagoa da gelditzea; zeren eta, loturako klase honi bere zerbitzuaz aprobetxatzen direnek edukitzen dioten mespretxua bertan sartzeko hautagai direnen begietara duen ospeak orekatzen baitu. Enplegatzekeo aukerarekin inolako proportziorik gabe hazten dira hautagaiak, eta intelligentsia enplegatuaren hasierako gunea irentsi egiten du zereginik gabe, babes gabe eta baztertuta dagoen proletalgo intelektualak. Chinovnik taldetxoa «nihilista»-talde handi batek sendotzen du, eskribau *babu*-en taldetxoa «batxilergo frakasatuen» talde handi batek; eta intelligentsiaren garraztasuna askoz ere handiagoa da azken egoeran hasierakoan baino. Egia esan, ia gizarte-«lege» bat formula genezake: intelligentsiaren sortze-tiko zoritxarra proportzio geometrikoan hazten dela denboraren aurre-rapen aritmetikoarekin. Errusiar intelligentsiak, kristau-aroko hama-zazpigarren mendearen bukaerakoak, dagoeneko deskargatu du meta-turiko arrangura 1917ko Boltxebikeen Iraultza apurtzailean. Bengalar intelligentsia, hemezortzigarren mendearen azken aldekoa, gaur egun bortxa iraultzailearen ezpala ari da erakusten, britainiar Indiako beste alde batzuetan oraindik ikusten ez dena, non toki-intelligentsia ez bai-tzen sortu berrogeita hamar edo ehun urte geroago arte.

Gizarteko belar txar honen hazkunde joria ez da mugatzen bere sorlekura. Azkenaldian Mendebaldeko munduaren bihotzean agertu da, baita erdimendebaldarturiko ertzetan ere. Beheko klase ertaina — bigarren mailako hezkuntza hartua zuena, baita unibertsitate-maila-koa ere, baina ez lortutako gaitasunari zegokion irteerarik — hogeiga-rren mendeko alderdi faszistaren bizkarrezurra izan zen Italian eta alderdi nazional-sozialistarena Alemanian. Mussolini eta Hitler agintera eraman zituen deabruzko indar bultzatzailea proletalgo inte-lektual honen etsipenetik sortu zen, konturatu zenean bere burua hobetzeko ahalegin mingarriak ez zirela bere horretan aski kapital antolatuaren eta lan antolatuaren goiko eta beheko errotarrien artean birrinduta geratzetik libratzeko.

Egia esan, ez daukagu mende honetara arte itxaron beharrik gure Mendebaldeko barne-proletalgoa Mendebaldeko gizarte-gorpu-

tzeko berezko egituretatik erreklutatzen dela ikusteko; zeren eta Mendebaldeko munduan nahiz helenikoan ez baita atzerriko populazio menderatua bakarrik izan sustraitik erauzia. Hamaseigarren eta hamazazpigarren mendeetako erlijio-gerrek katolikoen zigor edo kanporatzea ekarri zuten fakzio protestanteak agintea hartu zuen herrialde guztietan, eta protestanteen zigor edo kanporatzea fakzio katolikoen agintea hartu zuen herrialde guztietan, eta honela Frantziako higanoten ondorengoak sakabanaturik daude Prusiatik Hego Afrikaraino eta Irlandako katolikoen ondorengoak Austriatik Txileraino. Eta izurria ez zen geratu erlijio-gerren bukaerako lasaikeria eta zinismozko bakearekin ere. Frantziako Iraultzatik aurrera *stasis* politikoa *odium hactenus theologicum* delakoak inspiratu zuen, eta erbesteratu-pila berriak deserrotu ziren: Frantziako 1789ko *émigré* aristokratak, Europako 1848ko *émigré* liberalak, Errusiako 1917ko *émigré* «zuriak», Italia eta Alemaniako 1922 eta 1933ko *émigré* demokratikoak, Austriako 1938ko *émigré* katoliko eta juduak, eta 1939-45eko gerraren eta haren ondorioen milioika biktima.

Ikusi dugu, halaber, Sizilia eta Italian arazoaldi helenikoan jende librea landa-ingurunetik deserrotu eta hirietara joatera behartu zuela nekazaritzaren kudeaketan izandako ekonomi iraultzak: eskala txikiko mantenu-nekazaritza mistoaren ordeztu nekazaritza-produktu espezializatuen produkzio masiboa ezarri zen plantazioetako esklaboen bidez. Gure Mendebaldeko historia modernoan gizarte-hondamendi honen errepikapen ia zehatza daukagu nekazaritzako iraultza ekonomiko honetan: esklabo beltzek landuriko kotoi-plantazioek zuri askeen nekazaritza mistoa ordeztu zutenean Amerikar Batasuneko «kotoiaren gerrikoan». Honela proletalgoaren mailara degradatu zen «zabor zuria» erromatar Italiako «zabor aske» desjabetu eta pobretuaren kalitatekoa zen, eta Ipar Amerikako nekazaritzaren iraultza ekonomiko hau —bere kantzer-gune bikoitzarekin: beltzen esklabotasunarekin eta zurien pobreziaarekin— Ingalaterrako historian hiru mende izandako antzeko nekazaritza-iraultza ekonomiko baten aplikazio bizkor eta gupidagabea baino ez zen izan. Ingelesak ez zuen esklabolaria erabili, baina erromatarra imitatu zuen eta amerikar plantazio-jabe eta abeltzainei aurrea hartu zien nekazari libreak deserrotuz oligarkiaren probetxu ekonomikorako, lur goldagarriak belardi bihurtu eta herri-lurrak hesituz. Mendebaldeko nekazaritza-iraultza ekonomi-

ko moderno hau ez zen, hala ere, gure munduko landa-jendea hirieta-
ra joateko kausa nagusia izan. Atzean dagoen indar mugiarazle nagu-
sia ez da izan nekazarien lur-zatiak latifundioez ordeztu zituen iraul-
tzaren bultzada, eskulangintza lurrin-makinaz ordeztuz hiri-iraultza
industrialak izandako tirakada baizik.

Mendebaldeko industri iraultza hau lehen aldiz Ingalaterran
duela ehun eta berrogeita hamar urte inguru sortu zenean, haren pro-
fitagarritasunak hain handia zirudienez, aldaketa ongi hartu eta
bedeinkatu egin zuten aurrerapenaren aldeko sutsuek. Nahiz eta dei-
toratu fabrika-langileen lehen belaunaldiak, emakumeak eta haurrak
barne, egin beharreko lan-ordu luzeak, baita haien lantegi nahiz etxe-
ko bizimodu berriaren egoera kaskarra ere, Industri Iraultzaren pane-
giristek uste zuten gaitz hauek iragankorrak zirela, kendu zitezkeenak
eta kenduko zirenak. Ondorio ironikoa da profezia arrosa hau neurri
handi batean egia bihurtu dela, baina lurreko paradisuaren bedeinka-
zioak, hain uste sendoz iragarriak, neutralizatuak ari direla gertatzen
madarikazio batengatik, duela mende bat ezkutuan zegoena baikor
nahiz ezezkorrentzat ¹⁴⁶. Alde batetik, haurren lana deuseztu egin da,
emakumeen lana berauen indarrera moldatu da, lan-orduak gutxitu
egin dira, bizi eta lan-baldintzak etxean eta lantegian ezagutzerik ez
dagoen moduan hobetu dira. Baina industri makina magikoak sorturi-
ko aberastasunez asebetetako mundua aldi berean langabeziaren
mamuak iluntzen du. Hiri-proletalgoari, bere «langabezi saria» har-
tzen duen bakoitzean, «gizartean» dagoela baina ez dela «gizartekoa»
gogorarazten zaio.

Nahikoa esan da gure Mendebaldeko Gizarte modernoan barne-
-proletalgoa biltzeko erabili diren sorburu ugarietako batzuk seinala-
tzeko. Orain galdetu behar dugu ea gure Mendebaldeko barne-prole-
talgoak bere probaren aurrean izandako erreakzioan agertzen ote diren
berriro, beste alde batzuetan bezala, indarkeria eta otzantasunaren bi
jarrerak; eta, bi izaerak agertzen badira, bietatik zein den nagusi.

Izaera borrokalariaen adierazpenak berehala nabari dira gure
Mendebaldeko behe-gizartean. Ez dago katalogatu beharrik azken
ehun eta berrogeita hamar urteetako iraultza odoltsuak; baina kontra-
ko otzantasun-espíritu konstruktiboaren frogak bilatzeari ekitean,
zoritxarrez aztarnak ez dira erraz aurkitzen. Egia da kapitulu honen
lehen paragrafoetan aipaturiko bidegabekeriak pairatu dituztenetako

asko —jazarpen erlijioso edo politikoen biktima erbesteratuak, Afrikako esklabo deserrituak, gaizkile garraiatuak, nekazari deserrotuak— ongi moldatu direla, lehenengoan ez bada, bigarren edo hirugarren belaunaldian, ezarri zaien egoera berrian. Honek gure zibilizazioak suspertzeko duen gaitasuna argitu dezake, baina ez da gure ikerketarentzako saria. Proletalgoaren arazoaren konponbide hauek erantzun bortitz eta otzanaren artean aukeratu beharrari ihes egiten diote, bizi-egoera proletariotik bertatik ihes eginez. Erantzun otzanaren Mendebaldeko adierazgarri modernoek bilaketan, aurkikuntza bakarrak Ingalaterrako kuakeroak, Alemaniako anabaptistak —Moravian errefuxiatuak— eta Holandako menonitak izango dira; eta espezipen bakan hauek ere ihes egingo digute esku artetik, proletalgoko kide izateari utzi diotela aurkituko baitugu.

Adiskideen Elkarte Ingelesaren bizitzako lehen belaunaldian indarkeriazko joerak —ihesbidea profezia gordinetan eta elizkizunei zor zaien begirunearen asaldaketa zaratatsuetan aurkitu zuenak— zigor basatia erakarri zuen kideen gainera bai Ingalaterran eta bai Massachusettsen. Indarkeria hau, ordea, berehala eta iraunkorki menderatu zuen kuakeroen bizimodu bereizgarri bihurtu zen otzantasunak; eta aldi batez bazirudien Adiskideen Elkartek Mendebaldeko munduan Kristau Eliza primitiboaren paper klasikoa jokatu zuela, haren espirituan eta praktikan —Apostoluen Eginetan azalduta bezala— moldatu zituztelarik debozio handiz beren bizitzak. Baina, Adiskideak otzantasunaren arautik sekula desbideratu ez diren bitartean, aspalditxo irten ziren proletalgoaren bidetik eta beren bertuteen biktima izan dira zentzu batean. Oparotasun materiala gogoz kontra lortu dutela ere esan daiteke; zeren eta negozioetan izan duten arrakasta neurri handi batean izugarritzko erabaki batzuen ondorio baita, ez probetxu bila, baizik eta kontzientziaren aginduz hartutako erabakien ondorio. Oparotasun materialaren aldarera asmorik gabe egindako erromesaldiaren lehen urratsa, erabat oharkabea, landatik hirietara joan zirenean eman zuten, ez hiri-mozkinen erakarpenak tentatuta, baizik eta honek zirudielako biderik normalena Eliza Episkopalianoari hamarrenak ordaintzeko kontzientzi eragozpena eta era berean hamarren-biltzaileari indarrez aurre egiteko kontzientzi eragozpena adiskidetzeko. Gero, garagardogile kuakeroek hordigarriak gaitzesten zituztelako kakao-edaria egiteari ekin ziotenean, eta txikizkako saltzaile kuakeroek prezioa «merkatuko

tratuaren» arabera aldatzeko eskrupuloak zituztelako beren salgaiak prezio finkoz markatzea erabaki zutenean, beren aberastasuna berariaz arriskatzen ari ziren beren fedeagatik. Baina honekin «zintzotasuna dela politikarik onena» dioen esaeraren eta «bihotz gozokoak Jainkoak hitz emandako lurraz jabetuko direla» dioen zoriontasunaren egia argitu besterik ez zuten egin; eta arrazoi beragatik erlijio proletarioen zerrendatik kendu zuten beren fede. Beraien eredu ziren apostoluak ez bezala, kuakeroak inoiz ez ziren misiolari kartsuak izan. Aparteko taldea izaten jarraitu zuten, eta kuakeroa beretarren artetik kanpo ezkontzen bazen Elkarteko kide izateari uzten zion arauagatik, haien kopurua urria izan zen eta kalitatea goi-mailakoa.

Bi anabaptista-taldeen historia, ikuspuntu askotatik kuakeroenaren aldean oso desberdina izanik, berdina da guri hemen axola zaigun puntuan. Hasiera bortitzen ondoren, otzantasunaren araua bereganatu zutenean, laster utzi zioten proletario izateari.

Gure Mendebaldeko barne-proletalgoaren esperientzia islatuko lukeen erlijio berri baten bilaketan irtenbiderik gabeko puntura iritsita, gogora dezakegu barne-proletalgo sinikoak mahayanen aurkitu zuela erlijioa, aurreko filosofia budistaren eraldakuntza, ia ezagutzetik ez zegoen moduan. Komunismo marxistan daukagu geure artean bizialdi batean erlijio proletario bilakatu den Mendebaldeko filosofia moderno baten adibide nabarmena, indarkeriaren bidea hartu eta bere Jerusalem berria Errusiako lautadetan ezpatatz zizelkatzen ari dena.

Viktoriar *ensor morum* batek Karl Marxi erronka bota balio bere izen eta helbide espirituala emateko, bere burua Hegel filosofoaren jarraitzaileztat azalduko zukeen, Hegelen dialektika bere garaiko fenomeno ekonomiko eta politikoetara aplikatuz. Baina komunismoa indar lehergarri bihurtu duten elementuak ez dira Hegelen sorkuntza; gainean daramate jatorri-agiria, Mendebaldeko antzinako erlijio-fedearen oinarritua: Descartesen erronka filosofikotik hirurehun urte geroago ere, Mendebaldeko haur orok amaren esnearekin batera edoskitzen zuten eta Mendebaldeko gizon eta emakume orok arnasturiko airearekin irensten zuten kristautasunean, alegia. Eta kristautasunari egotzi ezin zaizkion elementuak judaismoari egotzi dakizkioke, kristautasunaren guraso «fosilduari», judu-diasporak gorde eta ghettoak irekitzearekin eta Mendebaldeko juduen emantzipazioarekin Marxen aitona-amonen belaunaldian desagertuari. Marxek «Halabehar Historikoa»

hartu du jainkosatzat Jahveren ordezeko jainko gisa, eta Mendebaldeko munduaren barne-proletalgoa herri aukeratutzat juduen ordezkari, eta haren erreinu mesianikoa Proletalgoaren Diktadura bezala planteatzen da; baina judu-apokalipsiaren ezaugarri nagusiak nabari dira mozerro-jantzi higatu honen azpian.

Hala ere, badirudi fase erlijiosoa komunismoaren bilakaeran iragankorra izan daitekeela. Stalinen nazio-komunismo kontserbadoreak badirudi erabat menderatu duela Trotskyren komunismo ekumeniko iraultzailea Errusiako eremuan. Sobietar Batasuna jada ez da legez kanpoko gizartea, munduaren gainerako guztiarekiko elkartzunetik kanpo dagoena. Berririo bihurtu da Pedro edo Nikolasen mende Errusiar Inperioa zen bezalako: botere handi bat bere aliatuak eta arerioak nazio-oinarrien gainean eta iritzi ideologikoak kontuan hartu gabe aukeratzen dituen. Eta Errusia «eskuinera» mugitu bada, auzokoak «ezkerrera» mugitu dira. Ez bakarrik Alemaniako nazional-sozialismoaren eta Italiako faszismoaren oinaztargiak, baita herrialde demokratikoetan lehen arautu gabe zeuden ekonomietan ezinbestekoa dirudien plangintzaren sartzeak ere, aditzera ematen dute herrialde guztietako gizarte-egitura bai nazionala eta bai sozialista izango dela etorkizun hurbilean. Dirudienek, ez da bakarrik erregimen kapitalistak eta komunistak elkarren ondoan jarraituko dutela; gainera, gerta daiteke kapitalismoa eta komunismoa —Talleyranden esaera sardonikoren arabera, esku-hartzea eta ez esku-hartzea bezala— izen desberdinak izatea gauza berdin-berdinarentzat. Hau honela bada, erabaki behar dugu komunismoak aukera galdu duela erlijio proletario iraultzaile bezala: lehenik, gizadi osoarentzako panazea iraultzaile izatetik nazionalismoaren toki-aldaera huts izatera degradatu delako, eta, bigarren, komunismoa esklabo hartu duen estatu partikularren egungo munduko beste estatuekin parekatu dela ikusten delako, azken tipo estandarrera hurbilduz.

Gure ikerketa honen emaitza badirudi zera dela, barne-proletalgoaren erreklutamenduaren frogak gure Mendebaldeko munduaren historia igaro berrian gutxienez beste edozein zibilizazioren historian bezain ugariak diren bitartean, gure Mendebaldeko historian frogak gutxi dagoela bereziki eliza unibertsal proletario baten oinarriak jaritzeari dagokionez edota proletariorik sorturiko goi-mailako «erlijio nagusien» sorrerari buruz. Nola interpretatu behar da egitate hau?

Paralelotasun asko atera dugu geure gizartearen eta Helenikoaren artean, baina bada funtsezko desberdintasun bat. Gizarte Helenikoak ez zuen eliza unibertsalik hartu bere aurreko Minoikoarengandik. Parroki paganismoaren egoeran izan zuen kolapsoa K.a. bosgarren mendean, eta egoera horretan jaioa zen. Baina parroki paganismoa ez zen inola ere gure zibilizazioaren lehen egoera, nahiz eta egungo egoera izan ia, garai batean bere burua Mendebaldeko Kristandadetzat jotzeko eskubidea bazuelarik. Gainera, azkenean arrakasta izan badugu geure kristau-ondarea gainetik kentzen, apostasi prozesua geldoa eta neketsua izan da, eta munduko borondaterik onenaz ere baliteke nahi genukeen betetasunaz ez gauzatzea; zeren eta, azken batean, ez baita hain erraza tradizio batek libratzea, gu eta gure arbasoak tradizio horretan jaio eta hazi bagara duela mila eta berrehun urte baino lehenagotik, gure Mendebaldeko Kristandadea —haurtxo ahul bat bezala— Elizaren umetokitik jaio zen garaitik. Descartes eta Voltaire eta Marx eta Makiavelo eta Hobbes eta Mussolini eta Hitlerrek ahal duten guztia egin ondoren gure Mendebaldeko bizitza deskristautzeko, oraindik ere pentsa genezake beraien garbiketa eta fumigaketak partzialki bakarrik izan direla eraginkorrak. Kristau-birus edo elixirra gure Mendebaldeko odolean daukagu —benetan beste izenik ez badago ezinbesteko jariakin honentzat— eta nekez pentsa genezake Mendebaldeko Gizartearen eraketa espirituala purutasun helenikoko paganismo bihurtzeraino errefina daitekeenik inoiz.

Gainera, kristau-elementua gure sisteman ez da nonahikoa bakarrik: aldakorra da; eta bere trikimailurik gogokoenetakoa erauzketari ihes egitea da, antzutzeko hain indartsu aplikatu dizkioten desinfektagarrietan bere esentziako tindu bizia sarraraziz. Dagoeneko ikusi dugu kristau-osagaia komunismoan, honek Mendebaldeko filosofia modernoaren aplikazio antikristaua izan nahi badu ere. Mendebaldearen aurkako otzantasunaren profeta modernoek, Tolstoy eta Gandhik, sekula ez dute beren kristau-inspirazioa ezkutatu nahi izan.

Mendebaldeko barne-proletalgoan erreklutatzearen proba jasan duten gizon eta emakume behartsuen hainbat kontingente desberdinen artean, guztietarik gehien sufritu dutenak Afrikako beltz primitiboak izan dira, esklabo gisa Amerikara garraiatuak. Beraengan, Kristo aurreko azken bi mendeetan Mediterraneoko beste kosta guz-

tietatik erromatar Italiara eramandako esklabo-etorkinen Mendebaldeko analogia aurkitu dugu, eta ikusi dugu ameriko-afrikar plantazio-esklaboek, italo-ekialdekoek bezala, erantzun erlijiosoaz aurre egin ziotela izugarritzko gizarte-erronkari. Azterlan honetan lehenagoko etapa batean biak konparatzean, beraien antzekotasunaz jardun dugu, baina bada desberdintasun esanguratsua ere. Egiptoar, siriar eta anatoliar esklabo-etorkinek berekin eramandako erlijioetan aurkitu zuten kontsolamendua; afrikarrek beren nagusien herentziazko erlijioan bilatu zuten kontsolamendua.

Zer dela-eta desberdintasun hau? Neurri batean, zalantzarik gabe, bi esklabo-sailen gizarte-aurrekariaren desberdintasunagatik. Erromatar Italiako plantazio-esklaboak neurri handi batean antzinakoa eta oso kultua zen ekialdeko populazio batetik atera zituzten, eta haien haurrek beren kultur ondareari heltzea espero zitekeen, baina Afrikako esklabo beltzen antzinako erlijioa ez zen haien kulturaren beste edozein elementu baino egokiagoa ugazaba zurien zibilizazio askoz ere indartsuagoaren aurka berenari eusteko. Hau ondorioan izandako desberdintasunaren azalpen partziala da; baina, erabat esplikatzeko, bi ugazaba-sailen arteko kultur desberdintasuna ere kontuan hartu behar da.

Erromatar Italian Ekialdeko esklaboek ez zeukaten nora begiratu erlijio-kontsolamenduaren bila, beren sorterriko erlijio-ondarera izan ezik, erromatar ugazabak hustasun espiritualean bizi baitziren. Haien kasuan balio handiko perla esklaboen ondarean bilatu behar zen eta ez ugazabenean, baina Mendebaldeko gure kasuan altxor espiritual, baita munduko aberastasun eta botere guztia ere, esklabo-tratulari zen gutxiengo menderatzailearen eskuetan zegoen.

Hala ere, gauza bat da altxor espiritualak edukitzea eta oso bestelakoa partekatzea; eta zenbat eta gehiago pentsatu horretaz, are harrigarriagoa irudituko zaigu esklabo-jabe kristau hauen eskuak beren biktimak pagano primitiboek ogi espiritualak emateko gai izatea, lagun hurkoak esklabo bihurtzeko egintza sakrilegoaz ogi hori profanatzeko ahal zuten guztia egin ondoren. Esklabo-tratulari ebanjelistak, nola ukitu zezakeen esklaboaren bihotza, berak hain bidegabekeria larria zertzean moraliki alienatua? Kristau-erlijioak benetan indar espiritual garaitezina behar du izan, baldintza horietan konbertitutuak bereganatu ahal izateko. Eta, erlijio batek Lurrean egoitzarik ez duenez

giza arimetan izan ezik, hortik ondorioztatzen da oraindik badirela kanpoan kristau-gizon eta emakumeak gure mundu neopaganoan. «Beharbada, berrogeita hamar errugabe izango dira herri horretan»¹⁴⁷; eta begiratu bat eginez gero Ipar Amerikako esklabo-misiolaritzari kristau iraunkor hauetako batzuk ikusiko ditugu lanean, zeren eta kristautasunera konbertituriko amerikar beltzak ez baitio, noski, bere konbertsioa plantazioetako talde-begiralearen ministerioari zor, esku batean Biblia eta bestean zigorra zuenari. Konbertsioa John G. Fee eta Peter Claver bezalakoei zor die.

Esklaboak ugazaben erlijiora konbertitzeko mirari honetan barne-proletalgoaren eta gutxiengo menderatzailearen arteko zisma ezaguna sendatuta ikusten dugu Mendebaldeko gizarte-gorputzean, eta hori gure gutxiengo menderatzaileak gaitzetsi nahi izan duen kristautasunaren bidez; eta amerikar beltzaren konbertsioa azkenaldiko kristau-misiolaritzaren garaipen ugarietako bat baino ez da. Gerrak zigorturiko geure belaunaldian, non gutxiengo menderatzaile neopaganoak duela gutxi zituen perspektiba distiratsuak bizkor ilundu baitira, bizi-izerdia berriro ari da nabarmen isurtzen gure Mendebaldeko Kristandadeko adar guztietan; eta ikuskizun honek aditzera ematen du, azken finean, gure Mendebaldeko historiaren hurrengo atala agian ez dela joango historia helenikoaren azken atalaren bidetik. Kolapsatu eta desintegrazioa jo duen zibilizazio baten albazea eta oinordeko orokor izateko barne-proletalgoaren lur goldatuan eliza berriren bat sortzen ikusi ordez, oraindik bizi gaitezke ikusteko bakarrik irauten saiatu eta huts egin duen zibilizazio bat nola eroriko hilgarri batetik bere gogoz kontra onik ateratzen den antzinako eliza baten besoetara jaustean, hura alfer-alferrik saiatu dena uxatzen eta urruntzen. Kasu honetan, kolokan dagoen zibilizazio bat, natura fisikoaren gaineko garaipen ikusgarri baten hordikerian lotsagarri erori dena, eta Jainkoarekiko eskuzabal izan gabe beretzat altxorrak pilatzeko hondakinak erabili dituen, libra daiteke κόρος-ὑβρις-ᾠή)-ren bide tragikotik joateko bere gain bota duen epaitik; edo hizkera heleniko hau kristau-irudietara aldatzeko, Mendebaldeko Kristandade apostatari eman dakioke grazia *Respublica Christiana* bezala berriro jaiotzeko, berak zertu beharko zukeenaren lehenagoko ideal hobia zena.

Gertagarria al da horrelako birjaiotze espiritual? Nikodemoren galdera egiten badugu —gizakia «sar ote daiteke amaren sabe-

lean eta berriro jaio?»—, haren irakaslearen erantzuna eman dezakegu: «Bene-benetan diotsut: Ezingo da inor Jainkoaren erreinuan sartu, uretik eta Espiritutik jaiotzen ez bada»¹⁴⁸.

4.

Kanpo-proletalgoak

Kanpo-proletalgoa, barnekoa bezala, kolapsoa izan duen zibilizazio baten gutxiengo menderatzaileagandik banakuntza-egintzaren bidez jaiotzen da, eta banakuntzak eragiten duen zisma bistakoa da kasu honetan; zeren eta, barne-proletalgoak geografikoki gutxiengo menderatzailearekin nahastuta jarraitzen duen bitartean, nahiz eta leize moral batek banatzen duen berorregandik, kanpo-proletalgoa moralki urrunduta ez ezik, fisikoki ere banatuta dago gutxiengo menderatzaileagandik, mapan marraztu daitekeen muga batez.

Muga horren kristalizazioa da benetan banakuntza gertatu den seinale ziurra; zeren eta, zibilizazio bat hazten ari den bitartean, ez baitu muga finko eta gotorrik izaten, bere espezieko beste zibilizazio batekin talka egin duen fronteetan izan ezik. Bi zibilizazio edo gehiagoren arteko talka horiek Azterlan honetan geroago aztertu ahal izango dugun fenomeno bat sortzen dute, baina oraingoz ez dugu gertakizun hau kontuan hartuko, eta gure arreta beste egoera batera zuzenduko dugu: zibilizazio batek bere auzoko, ez beste zibilizazio bat, baizik eta espezie primitiboko gizarteak dituen egoerara. Zirkunstantzia hauetan, zibilizazio bat hazten ari den bitartean, mugak zehaztu gabe izaten dituela aurkituko dugu. Hazten ari den zibilizazio baten hazkunde-fokoan kokatzen bagara eta kanporantz bidaiatzen badugu, lehentxeago edo geroxeago dudarik gabe eta erabat primitiboa den ingurune batean aurkitu arte, ez gara gai izango bidaialdi horretan puntu batean marra bat egin eta esateko: «Hementxe zibilizazioa bukatu eta mundu primitiboan sartzen gara».

Egia esateko, hazten ari den zibilizazio baten bizitzan gutxiengo sortzaile batek bere papera arrakastaz jokatzeko duenean, eta piztu duen txinpartak «etxean dauden guztiei argi egiten dienean», argia,

kanporantz irradiatzean, ez dute etxeko hormek gerarazten, zeren eta, egia esateko, ez baitago hormarik, eta argia ez zaie ezkutuan geratzen kanpoko auzokoei. Argiak argi egiten du, gauzen izaeragatik egin dezakeen bezain urruti, desagertze-puntura iritsi arte. Gradazioak infinitesimalak dira, eta ezinezkoa da marra bat jartzea, ilunabarraren azken argi-izpia bukatu eta iluntasunaren bihotza jabe bakar geratzen den puntuan. Egia esateko, hazten ari diren zibilizazioen irradiazioaren indar eramailea hain da handia, ezen, zibilizazioak erlatiboki giza-diaren lorpen oso berriak izan arren, aspaldi lortu baitute sartzea, gutxienez maila bateraino, bizirik dirauten gizarte primitiboen bilduma osoan. Ezinezkoa litzateke inon aurkitzea gizarte primitibo bat, zibilizazio baten edo besteren eraginari erabat ihes egin diona. 1935ean, adibidez, aurrez erabat ezezaguna zen gizarte bat aurkitu zen Papuako barrualdean¹⁴⁹, eta gizarte honek nekazaritza intentsiboko teknika zeukan, noiz ez dakigun garairen batean identifikatu gabe-ko zibilizazioen batengandik hartuko zuena.

Mundu primitibotik gelditzen den horretan zibilizazioen eraginaren sartze orokor honek biziki harritzen gaitu fenomenoari gizarte primitiboen ikuspegitik begiratzen badiogu. Beste aldetik, zibilizazioaren ikuspuntutik begiratzen badiogu, ez gaitu gutxiago harrituko ikusteak zabaldutako eraginaren indarra ahuldu egiten dela distantzia gehitu ahala. Kristo aurreko azken mendean Britainian landutako txanpon batean edo kristau-aroko lehen mendean Afganistanen zizelaturiko sarkofago batean arte helenikoaren eragina aurkitzeak sorturiko harridura gainditu orduko, ohartzen gara britainiar txanponak mazedoniar jatorrizkoaren karikatura ematen duela eta afganiar sarkofagoa «merkataritza-artearen» produktu zabarra dela. Aldaketa honetan mimesia parodia bihurtu da.

Mimesia xarmak sorrarazten du; eta orain ikus dezakegu, zibilizazio baten hazkundealdian, gutxiengo sortzaileen segida batek zerturiko xarmak etxea babesten duela, ez bakarrik bere baitan zatitzetik, baita auzokoek erasotzetik ere, auzoko hauek gizarte primitiboak diren neurrian, behintzat. Hazten ari den zibilizazio bat gizarte primitiboekin harremanetan dagoen guztietan, haren gutxiengo sortzaileak hauen mimesia erakartzen du, bere baitako gehiengo ez-sortzailearen mimesia bezainbat. Baina hau baldin bada harreman normala zibilizazio baten eta inguruko gizarte primitiboen artean zibilizazio hori haz-

kundean dagoen bitartean, aldaketa sakona gertatzen da zibilizazioak kolapsoa izan eta desintegratzen hasten denean. Gutxiengo sortzaileak, beren sormenak zertzen duen xarmagatik borondatezko atxikimendua irabazi dutenak, gutxiengo menderatzaileak ordeztu ditu eta hau, xarmarik ez duenez, indarrean oinarritzen da. Inguruko herri primitiboak jada ez dituzte xarmatzen, uxatzen baizik; orduan, hazten ari den zibilizazioaren dizipulu apal hauek uko egiten diote beren dizipulutzari eta guk kanpo-proletalgo deitu duguna bihurtzen dira. Nahiz eta, orain, kolapsaturiko «zibilizazioan»¹⁵⁰ egon, jada ez dira «zibilizaziokoak».

Edozein zibilizazioren irradiazioa hiru elementutan —ekonomikoan, politikoan eta kulturalen— azter daiteke eta, gizartea hazkunde-egoeran dagoen bitartean, badirudi hiru elementu hauek indar berdinez irradiatzen direla, edo, giza hitzak erabiliz fisikoak baino gehiago, xarma berdina zertzen dutela. Baina, zibilizazioak hazteari utzi orduko, bere kulturaren xarma desagertu egiten da. Bere irradiazio ekonomiko eta politikorako ahalmenak eragin diezaioke, eta ziur aski eragingo dio, inoiz baino lasterrago haztea, zeren eta Mammon eta Marte eta Moloch-en sasierlijioen lantze arrakastatsua kolapsoan dauden zibilizazioen ezaugarri baita nabarmen. Baina kultur elementua denez zibilizazio baten muina, eta elementu ekonomiko eta politikoak bere baitako bizitzaren adierazgarri hutsal samarrak direnez, hortik ondorioztatzen da irradiazio ekonomiko eta politikoaren garaienik ikusgarrienak osagabeak eta badaezpadaoak izatea.

Aldaketari herri primitiboen ikuspuntutik begiratzen badiogu, egia bera adieraziko dugu esanez zibilizazio kolapsatuaren bakezko arteen mimesia bukatu egiten zaiela, baina zibilizazio horren hobekuntzak —horren gailu teknikoak— imitatzen jarraitzen dutela industria, gerra eta politikaren arteetan, ez horrekin bat egiteko —beraiek nahi zutena, xarmatuta zeuzkan bitartean—, baizik eta beren burua eraginkorkiago babestu ahal izateko indarkeriaren aurka, hauxe izanik orain zibilizazio haren ezaugarri nabarmenena.

Barne-proletalgoen esperientzia eta erreakzioen gure aurreko azterketan ikusi dugu nola liluratu dituen indarkeriaren bideak, baita, tentazio honi amore eman dioten neurrian, hondamendia bakarrik ekarri dutela beren gainera. Theodas eta Judasak ezpataz hiltzen dira ezinbestean; barne-proletalgoak otzantasunaren profeta bati jarraitzen dio-

nean bakarrik dauka bere konkistatzaileak gatibu hartzeko aukera. Kanpo-proletalgoak, indarkeriaz erreakzionatzea aukeratzen badu (ia ziur egingo duen gauza), ez du horrelako desabantailarik. Barne-proletalgo osoa, *ex hypothesi*, gutxiengo menderatzailearen irispidean dagoen bitartean, kanpo-proletalgoaren zati bat behintzat, gutxiengo menderatzailearen ekintza militarren irispide eraginkorretik harantzago dago ziur aski. Ondoren datorren borrokan zibilizazio kolapsatuak indarra irradiatzen du, mimesi erakargarriaren ordeztu. Zirkunstantzia hauetan kanpo-proletalgoaren kiderik hurbilenak ziur aski konkistatu eta barne-proletalgoari erantsiko zaizkio, baina puntu bat lortuko da non gutxiengo menderatzaileak botere militarrean duen nagusitasun koalitatiboa bere komunikazioen luzerak orekatu egingo duen.

Etaparen honetara iristean, zibilizazioaren eta bere auzoko barbaroen arteko harremanen izaeran aldaketa burutzen da. Zibilizazioa hazten ari den bitartean, bere sorlekua, non nagusi baita indar osoz, basakeria menderagaitzaren eraginetik babestuta dago, ikusi dugun bezala, atalase zabal edo amortiguazio-zonaren bidez, honetan zehar zibilizazioa degradatu egiten delarik basakeriarantz graduazio finen sail luze batean. Bestalde, zibilizazioak kolapsoa izan eta zisma jasan duenean eta ondorengo liskarrak gutxiengo menderatzailearen eta kanpo-proletalgoaren artean mugimenduzko borroka izateari utzi eta lubaki-borroka bihurtzen direnean, amortiguazio-zona desagertu egiten dela ohartzen gara. Trantsizio geografikoa zibilizaziotik barbarotasunerara ez da jadanik mailakatua, bat-batekoa baizik. Latinezko hitz egokiak erabiliz, aldi berean bi harreman-moten arteko kidetasuna eta kontrastea azpimarratzen dituztenak, *limen* edo atalasea, zona bat zena, *limes* edo muga militarrek ordeztu du, zabalerarik gabe luzera daukan lerroa. Lerro honetan gutxiengo menderatzaile etsia eta kanpo-proletalgo konkistatu gabea elkarren aurrean daude armapean; eta fronte militar hau gizarte-irradiazio ororen aurkako hesia da, teknika militarrena izan ezik, hartu eta ematen dutenen artean gerra —eta ez bakea— bultzatzen duen gizarte-trukeko artikulua.

Limes-ean zehar gerra hau egonkor bihurtzen denean gertatzen den gizarte-fenomenoari geroago eskainiko diogu geure arreta. Askia da hemen egitate nagusi bat aipatzea: indar-oreka hau, aldi baterakoa eta badaezpadakoa, barbaroen aldera makurtzen dela denbora igarotzean.

Kasu heleniko bat

Historia helenikoaren hazkunde-fasea aberatsa da *limen* edo amortiguazio-zonako kasuetan, osasuntsu hazten ari den zibilizazioaren sorlekuak bere burua horrelakoz inguratze joera izaten duelarik. Europa kontinentalaren aldera Helasen muina itzali egiten zen: Termopilen iparraldera, Tesalia erdihelenikoan, eta Delfosen mendebaldera, Etolia erdihelenikoan; eta hauek, berriz, Trazia eta Iliriaren barbarotasun diluitu gabetik Mazedonia eta Epiroren erdihelenismoak babesten zituen. Asia Txikirantz, bestalde, kosta asiaticokoan greziar hirien hinterland-etan gero eta helenismo txikiagoko zonen ordezkari dira Karia, Lidia eta Frigia. Muga asiatico honetan helenismoa bere konkistatzaile barbaroak liluratzen ikusten dugu lehen aldiz historia-ren argitasun betean. Xarma hain zen indartsua, ezen, K.a. seigarren mendearen bigarren laurdenean, filhelenoen eta helenofoben arteko gatazka lehen mailakoa izan baitzen lidar politikan; eta lidar errege-gai filheleniko bat, Pantaleon, bere erdianaia Kresok menderatu zue-nean ere, alderdi antihelenikoaren protagonista hain ezgai agertu zen korrante prohelenikoaren kontra igerian egiteko, ezen ospetsu bihurtu baitzen aldare helenikoen patroiz eskuzabal izateagatik eta aldi berean orakulu helenikoen kontsultagile sinesbera.

Itsasoz bestaldeko hinterland-etan ere badirudi harreman bake-tsuak eta trantsizio mailakatuak izan direla arau. Helenismoa bizkor zabaldu zen italiar Magna Greziaren hinterland-eant, eta existitzen den literaturan Erromaren lehen aipamena Platonen ikasle zen Heraklides Pontikoaren lan galdu batetik geratu den zatian egiten da eta bertan latindar komunitatea «hiri heleniko bat» bezala azaltzen da (πόλις Ἑλληνίδα Ρώμην).

Honela, hazkundealdiko mundu helenikoaren bazter guztietan Orfeoren irudi atsegingarria ikusten dugula iruditzen zaigu inguruko barbaroen gain bere xarma zertzen, baita hauek inspiratzen ere, beren tresna zabarrez haren musika magikoa errepika ziezaieten urrutia-goko hinterland batean are primitiboagoak ziren herriei. Koadro idiliko hau lipar batean desagertzen da, ordea, Zibilizazio Helenikoak kolap-soa izatean. Harmonia desadostasun bihurtzen denean, liluraturiko entzuleak kolpean itzartzen direla ematen du; eta beren berezko basa-keriara itzuliz, profeta otzanaren kaparen atzetik irten den gerrari bel-durgarriaren aurka oldartzen dira.

Zibilizazio Helenikoa kolapsatzean kanpo-proletalgoak Magna Grezian izan zuen erreakzio borrokalari bortitz eta eraginkorrena, non brutiarrak eta lukaniarrak presionatzen hasi baitziren greziar hirien gain eta hauek hartzen bata bestearen atzetik. K.a. 431n, «Helasentzat gaitz handien hasiera» izan zen gerra hasi zenetik ehun urtera, Magna Grezian lehen komunitate oparo izandakoetatik geratzen ziren apurrak ama lurreko condottieri-ei deika ari ziren itsasora jaurtiak izatetik salba zitzaten. Eta errefortzu erratiko hauek hain gutxi balio izan zuten oskoen korronteari eusteko, ezen uholdean etorritako barbaroek gurutzatua baitzuten Mesinako itsasartea, oskoen ahaide ziren erromatar helenizatuen esku-hartzeak mugimendu guztia bat-batean geldiarazi baino lehen. Erromatarren politikagintzak eta armek ez zuten helenismoarentzat Magna Grezia bakarrik salbatu, Italiako penintsula osoa baizik, oskoak atzegoardiatik harrapatu eta italiar barbaroei eta greziar italiotei erromatar bake komuna ezarriz.

Honela, helenismoaren eta barbarotasunaren arteko Hego Italiako frontea ezabatuta geratu zen, eta gero erromatar armen balentria-sail batek gutxiengo menderatzaile helenikoaren agintea zabaldu zuen Europa kontinentalean eta Ipar-mendebaldeko Afrikan, Alexandro Mazedoniakoak dagoeneko Asian egina zuen bezain urruti ia. Baina hedapen militar honen eragina ez zen izan barbaroen aurkako fronteak kentzea, berauen luzera eta boterearen muintetik distantzia gehitzea baizik. Hainbat mendez egonkortuta gelditu ziren; baina gizartearen desintegrazioak bere bideari jarraitu zion azkenean barbaroak sartu ziren arte.

Orain galdetu behar dugu ea gutxiengo menderatzaile helenikoaren presioaren aurrean kanpo-proletalgoak izandako erreakzioan sumatzen ote dugun erantzun otzanaren inolako sintomarik, bortitzarenaz gain; eta ea egotzi geniezaiokeen kanpo-proletalgoari inolako jarduera sortzailerik.

Lehen begiratuan badirudi, kasu helenikoan behintzat, bi galderen erantzunak ezezkoa izan behar duela. Gure barbaro antihelenikoa hainbat jarrera eta posiziotan ikusten dugu: Ariovisto bezala Zesarrek ateratzen du kanpotik; Arminiok bezala bereari eusten dio Augustoren aurka; Odoakrok bezala mendekua hartzen du Romulo Augustuloren aurka. Baina gerra orotan hiru alternatiba daude: porrota, berdinketa eta garaipena, eta alternatiba bakoitzean berdin, indar-

keriak gobernatzen du monotonoki eta sormena beherapenetan egoten da. Anima gaitezke, ordea, urrutirago begiratzera barne-proletalgoak ere bere lehen erreakzioetan bortizkeria berdina eta antzutasun berdina erakus ditzakeela gogoratu, azkenean sorkuntza-lan ahaltsuetan —«erlijio nagusia» eta eliza unibertsala bezalakoetan— azaltzen duen otzantasunak denbora eta lana eskatzen dituelarik bere nagusitasuna lortzeko.

Otzantasunari dagokionez, adibidez, edozein kasutan ere suma genezake nolabaiteko gradu-desberdintasuna hainbat gerra-talde barbaroen bortizkerian. Alariko erdihelenizatu bisigodoak K.o. 410ean egin zuen Erromaren arpilaketa ez zen izan ondoren bandalo eta bereberek 455ean hiri berean egin zutena edo 406an Radagaisogandik Erromak jasan zuena bezain errukigabea. Alarikoren otzantasun erlatiboa honela ematen du San Agustinek:

«Barbaroen ustezko basakeria beldurgarria hain ezia gertatu da praktikan, ezen konkistatzaileak babesleku izendatu baitzituen elizak leku zabalarekin eta aginduak eman zituen santutegi hauetan inor ezpataz ez zauritzeko eta inor gatibu ez hartzeko. Egia esan, etsai bihozberak preso asko ekarri zituzten eliza hauetara askatasuna emateko, eta etsai gupidagabeek inor ez zuten horietatik atera esklabo bihurtzeko»¹⁵¹.

Eta bada aitorpen bitxi bat ere Alarikoren ezkonanaia eta ondorengo Ataulfori buruz, Agustinen dizipulu Orosiok emana, «Teodosio enperadorearen mende karrera militar bikaina egin zuen Narbonako jaun baten» aginpidean oinarritua:

«Jaun honek esan zigun Narbonan Ataulforekin harreman estua izatera iritsi zela, eta sarri kontatu izan ziola —eta hau testigantza ematen ari den lekuko baten seriotasun osoz— bere bizitza, espiritualtasun, bizitasun eta jeinu oparoko barbaro haren ahoan sarri zegoen gaia. Ataulforen beraren kontaketa arabera, Erromaren izenaren oroitzapen oro ezabatzeke irrika biziz hasi zuen bizitza, eta erromatarren agindupeko eremu osoa inperio bihurtzeko asmoz, Godoen Inperioa izango zena, eta horrela ezagutuko zena. Denborarekin, ordea, esperientziak konbentzitu zuen, alde batetik, godoak kontrolik gabeko basakeriagatik oso deskalifikatuta zeudela legepean bizitzeko, eta bestalde krimena litzatekeela legearen gobernua Estatuaren bizitzatik kentzea, Estatuak Estatu izateari uzten bai-

tio legeak han erreinatzeari uzten dionean. Ataulfok egia hau sumatu zuenean zera erabaki zuen: nolabait ere Erromaren izena antzinako handitasun osoan —eta agian osoan baino ere gehiago— berreskuratzeke godoen bizitasuna erabiltzearen loria, bere irispidetan zegoena, lortuko zuela»¹⁵².

Pasarte hau *locus classicus* bat da, kanpo-proletalgo helenikoren ethosean indarkeriatik otzantasunerako aldaketa frogatzen duena, eta berorren argitan sormen espiritualaren, edo nolabaiteko orijinaltasunaren, zenbait sintoma lagungarri ezagut ditzakegu partzialki mantoturiko arima barbaroetan.

Ataulfo bera, adibidez, bere ezkonanaia Alariko bezala, kristaua zen. Baina haren kristautasuna ez zen San Agustinen eta Eliza Katolikoaren kristautasuna. Europako frontean belaunaldi hartako inbaditzaile barbaroak, artean paganoak ez ziren neurrian, ariotarrak ziren, eta hasieran arianismora —eta ez katolizismora— konbertitzea kasualitate hutsa izan zen arren, gero, heresia horrek mundu heleniko kristautuan bere ospea galdu ondoren, arianismoarekiko izan zuten leialtasuna nahitako zaletasunaren ondorioa izan zen. Haien arianismoa konkistaturiko jendeagandik sozialki bereizten zituen ikurra izan zen aurrerantzean, nahita eramana eta batzuetan lotsagabeki erakutsia. Erromatar Inperioaren ondorengo estatu teutoniko gehienen arianismo honek interregno-aldi gehienez iraun zuen, K.o. 375-675 bitartean. Gregorio Handia aita santuak (K.o. 590-604) —hutsetik sorturiko Mendebaldeko Kristandadearen zibilizazio berriaren sortzailetzat beste edozein baino gehiago har daitekeenak— bere papera jokatu zuen barbaroen historiako ariotar atal hau bukarazten, Teodelinda lonbardiaren erregina katolizismora konbertituz. Frankoak inoiz ez ziren ariotar izan, baina, Klovis konbertitu eta Reimsen bataiatu zenean (K.o. 496), paganismitik katolizismora pasatu ziren zuzenean, eta aukera honek asko lagundu zien interregnoan bizirik irauten eta Estatu bat eraikitzen, zibilizazio berriaren oinarri politiko bilakatu zena.

Honela arianismoa, barbaro konbertituek aurkitu bezala hartua zutena, azkenean barbaro-talde berezi hauen ikur bereizgarri bihurtu zen bitartean, Inperioko beste muga batzuetan baziren beste barbaro batzuk beren erlijio-bizitzan nolabaiteko orijinaltasuna erakutsi zutenak, kasta-harrotasuna baino zerbait positiboagoak eragina. Britainiar

uharteen mugetan «zerrenda zeltikoko» barbaroek, ez ariotar kristautasunera baizik eta katolizismora konbertituek, birmoldatu egin zuten hau beren ondare barbarora egokitzeke; eta afasiar estepako arabiar zatiaren aurreko mugan are maila handiagoan erakutsi zuten orijinaltasuna mugaz bestaldeko barbaroek. Mahomaren arima sortzailean judaismoaren eta kristautasunaren irradiazioa indar espiritual bihurtu zen, Islamaren «erlijio nagusi» berrian deskargatu zena.

Gure ikerketak etapa bat atzerago eramaten baditugu, aurkituko dugu erreakzio erlijioso aipatu berri hauek ez zirela izan Zibilizazio Helenikoaren irradiazioak herri primitibo hauengandik sortarazitako lehenengoak. Benetan eta erabat primitiboa den erlijio oro, era batera edo bestera, ugalkortasunaren kultua da. Komunitate primitibo batek bere ugaltzeko ahalmena gurtzen du batez ere, seme-alaben sorketan eta elikagaien ekoizpenean agertzen den bezala, eta ahalmen suntsitzaileen gurtzarik edo ez dago edota mendeko zerbait da. Baina gizaki primitiboaren erlijioa beti bere gizarte-egoeraren isla zuzena denez, itxia eta aldi berean etsaia den atzerriko gizarte-gorputz batekin harremanetan jarri delako haren gizarte-bizitza bortizki asaldatzen denean erlijioan iraultza gerta daiteke. Eta noiz gertatzen da hau? Hazten aritu den zibilizazio baten eragin onuragarriak pixkana-ka eta bakean bereganatzen aritu den komunitate primitibo batek Orfeoren irudi atsegingarria bere lira xarmangarriaz tragikoki bistatik galtzen duenean eta bat-batean, horren ordeztu, kolapsatu den zibilizazio baten gutxiengo menderatzailearen aurpegi itsusi eta mehatxagarriaren aurrean aurkitzen denean.

Kasu honetan, komunitate primitiboa kanpo-proletalgoaren zati bihurtzen da, eta egoera honetan komunitate barbaroaren bizitzan ekin-tza sortzaile eta suntsitzaileen garrantzia erlatiboaren alderantzizkatze iraultzailea dago. Gerra bilakatzen da orain komunitatea erabat hartzen duen zeregina, eta, honela, gerra ogia lortzeko eginkizun hutsal eta zeregin arrunta baino onuragarriago bihurtzen denean, baita kilikagarrriago ere, nola espero dezake Demeterrek edo Afrodita ere Aresen —jainkotasunaren adierazpen gorenaren— kontra bereari eustea? Jainkoa birmoldatu egiten da jainkozko gerra-talde baten buruzagi izateko. Arraza barbaro honetako jainkoekin topo egin dugu olinpiar panteoian, talasokrazia minoikoko kanpo-proletalgo akeoak gurtzen zuen panteoian; eta Olinpoko bidelapur jainkotu hauek beren baliokidea

Asgard-eko bizilagunengan dutela ikusi dugu, Karolinjioen Inperioko kanpo-proletalgo eskandinaviarrak gurtzen zituenak. Mota bereko beste panteoi bat Erromatar Inperioko europar mugez harantzago barbaro teutonikoek gurtzen zuten arianismo edo katolizismora konbertitu aurretik; eta aitortu behar da jainko harrapatzaile hauek beren gurtzaile militarizatuen irudira sortaraztea, mundu helenikoko kanpo-proletalgo teutonikoari egotzi beharreko sorkuntza-lana dela.

Jarduera sortzailearen arrasto hauek bildu ditugularik erlijioaren arloan, gehitu ote genezake gure uzta urria berriro ere analogietera joz? Barne-proletalgoen aurkikuntza loriatsu diren «erlijio nagusiak» nabarmen lotuta daude arte-arloko sorkuntza-ekintzen sorta batekin. Kanpo-proletalgoaren «erlijio apalagoek» ba ote dute pareko arte-lanik erakusteko?

Erantzuna baiezkoa da benetan; zeren eta, olinpiar jainkoak bisualizatzen saiatu orduko, epika homerikoan erretraturik dauden bezala ikusten ditugu. Poesia hau erlijio hari lotua dago, kantu lau gregorianoa eta arkitektura gotikoa Erdi Aroko Mendebaldeko kristautasun katolikoari lotuak dauden bezain era bereiztezinean. Eta Joniako greziar poesia epikoak Ingalaterrako poesia epiko teutonikoan eta Islandiako eskandinaviar sagan du bere kontrapartida. Eskandinaviar saga Asgardekin dago erlazionatua, eta epika ingelesa —*Beowulf* da iraun duen maisulan nagusia— Odin eta bere jainkozko *comitatus*-ekin, epika homerikoa Olinporekin erlazionatua dagoen bezala. Izan ere, poesia epikoa da kanpo-proletalgoen erreakzioen emaitzarik bereizgarriena, haien ordaliek gizadiari utzi dioten *κτῆμα εἰς ἄελ* bakarra. Zibilizazio baten emaitza den poesiak inoiz ez du berdinduko, ezta berdindu ahal izango ere, Homeroren «distira iraungiezina eta patetismo gupidagabea»¹⁵³.

Poesia epikoaren hiru adibide aipatu ditugu, eta erraza litzateke zerrenda hau luzatzea eta adibide bakoitza gatazkan dagoen zibilizazioarekiko kanpo-proletalgoaren erreakzio dela erakustea. Adibidez, *Chanson de Roland* estatu unibertsal siriakoko kanpo-proletalgoaren europar adarraren sorkuntza da. Frantziako gurutzatu erdi-barbaroek, kristau-aroko hamaikagarren mendean Andaluziako Omeiatar Kaliferriko pirinear frontean sartu zirenek, arte-lan bat inspiratu dute, ordudunik Mendebaldeko munduan edozein herri-hizkuntzatan idatzi den poesiaren ama dena. *Chanson de Roland*-ek gainditu

egiten du *Beowulf* garrantzi historikoari dagokionez, literatur meritu-
tuan gaintitzen duen bezain nabarmen¹⁵⁴.

5.

Mendebaldeko munduaren kanpo-proletalgoak

Geure Mendebaldeko munduaren eta honek topatu dituen gizarte primitiboen arteko harremanen historiara iristen garenean, lehenengo etapa bat bereizten dugu, helenismoak bere hazkundera-
dian bezala, Mendebaldeko Kristandadeak bere xarmaren erakarpe-
naz konbertituak irabazi zituenekoa. Lehenengo konbertitu hauetako ospetsuenak Eskandinaviar Zibilizazio abortatuko kideak izan ziren, azkenean —beren sorlekuetan iparralde urrutian eta urruneko ezarle-
ku edo establezimenduetan Islandian, baita kristau-lurraldeetako kan-
pamenduetan Danelaw eta Normadian ere— amore eman zutelarik eurek armen indarrez eraso egindako zibilizazioaren nagusitasun espi-
ritualaren aurrean. Magiar nomaden eta basoetan bizi ziren polonia-
rren garai bereko konbertsioa ere berezkoa izan zen, eta hala ere Mendebaldearen hedapenaren lehen etapa hau eraso bortitzez marka-
tua dago, lehenengo helenoen markagailuan jar daitezkeen auzoko primitiboen noizean behingo menderatze eta kanporatzeak baino askoz okerragoak. Guk Karlomagnoren gurutzadak dauzkagu saxo-
niarren aurka eta, bi mende geroago, saxoniarren gurutzadak Elba eta Oder arteko eslaviarren aurka; eta izugarrikeria hauek hamahiruga-
rren eta hamalagarren mendeetan burutu ziren Zaldun Teutonikoek Vistulaz harantzagoko prusiarrak suntsitu zituztenean.

Kristandadearen ipar-mendebaldeko muga istorio bera errepi-
katu zen. Lehen atala ingelesez konbertsio baketsua da erromatar misiolari-talde baten bidez, baina honen atzetik Mendebalde Urruneko kristauak hertsatzea etorri zen torlojuari zenbait buelta eman zitzaiolarik, hasi K.o. 664an Whitbyko sinodoaren erabakiare-
kin eta Ingalaterrako Enrike II.ak, aita santuaren onespenezekin, 1171n egin zuen Irlandaren inbasio armatuan burutu arte. Hau ez da, ordea, prozesuaren bukaera. «Izugarrikeriazko» azturak, Eskoziako

Highlands eta Irlandako aintziretan zerrenda zeltikoko gerakinen aurkako erasoaldi luzean ingelesek berenganatuak, Atlantikoan zehar eraman ziren eta Ipar Amerikako indiarren bizkar praktikatu.

Gure Mendebaldeko Zibilizazioak azken mendeetan lurbira osoan izandako hedakuntzan, hedatzen ari zen gorputzaren oldarra hain indartsua eta beraren eta aurkako primitiboen arteko baliabide-desberdintasuna hain handia izan da, ezen mugimendua oztoporik gabe egin baita, ez *limes* ezegonkorrera, baizik eta muga naturalaren forman *terminus* batera iritsi den arte. Mendebaldeak gizarte primitiboen atzegoardiaren aurka mundu-mailan zerturiko eraso honetan, suntsitzea edo kanporatzea edo menderatzea izan da araua eta konbertsioa salbuespena. Izan ere, esku bateko atzamarrez zenbatu genitzake gure Mendebaldeko Gizarte modernoak bere partaide bihurtu dituen gizarte primitiboak: Eskoziako *highlander*-ak, Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadeak Mendebaldeko mundu modernoari utzitako barbaro menderagaitzen enklabe bakan horietako bat; Zeelanda Berriko maoriak, eta Andeetako estatu unibertsaleko txiletar probintziako hinterland barbaroan dauden araukaniarrak, hauekin tratatu behar izan dutelarik espainiarrek Inka Inperioa konkistatu zutenetik.

Eredua ezartzen duena Eskoziako *highlander*-en inkorporazioaren historia da, 1745eko altxamendu jakobitan barbaro zuri hauek akuilukaden kontra emandako azken ostikoaren porrotaren ondoren; zeren eta Johnson dk.aren edo Horace Walpole-ren eta Charlie printzea Derbyra eraman zuten gerra-taldeen arteko gizarte-leizea ez baitzen, ziur aski, askoz gaindigaitzagoa Zeelanda Berri edo Txileko europar kolonizatzaileen eta maori edo araukaniarren artekoa baino. Gaur egun, Charlie printzearen gerrari iletsuen herenilobak eta duela berrehun urte eskas bukatu zen borrokaren azken round-ean garaile izan ziren *lowlander* eta ingeles ileordedun eta hautseztatuen ondorengoak gizarte-substantzia estandarizatu berekoak dira, zalantzarik gabe; hainbestearino, ezen borrokaren izaera bera aldatu egin baitu herri-mitologiak, ia ezagutzerik ez dagoen punturaino. Eskoziarrek ia konbentzitu dituzte ingelesak, beren burua ez badute konbentzitu, Highlands-etako zirrikitona —Edinburgoko hiritarrek K.o. 1700ean Bostoneko hiritarrek buruzagi indiarraren lumadun burukoa bezalaxe hartzen zutena— Eskoziako jantzi nazionala dela; eta Lowlands-etako

gozogileek orain zirrikitonez estalitako kartoizko kaxetan saltzen dituzte «Edinburgoko gozokiak».

Gaur egun mendebaldar bihurturiko munduan aurkitzen diren *muga* barbaroak Mendebaldekoak ez ziren zibilizazioen —Mendebaldeko gizarte-gorputzak oraindik erabat bereganatu gabeko— ondareak dira. Hauen artean, Indiaren ipar-mendebaldeko muga interes eta garrantzi nabarmenekoa da, desintegratzen ari den Hindu Zibilizazioa estatu unibertsalaz hornitzeko zeregina bere gain hartu duen Mendebaldeko parroki estatu bereziko hiritarrentzat, behintzat.

Hindu-arazoaldian (*circa* K.o. 1175-1575) muga hau behin eta berriro apurtu zuten gerra-talde harrapatzaileen turkiar eta iraniar gidariek. Aldi batez itxita egon zen, hindu-munduan estatu unibertsal bat, Mogolen Inperioak ordezkaturia, ezarri zenean. *Pax Mogulica* kristau-aroko hemezortzigarren mendearen hasieran garaiz lehen desegin zenean, han sartu ziren barbaroak —atzerriko estatu unibertsal baten aurkako hindu-erreakzio militante baten Maratha protagonistekin eskeletoaren edukitzaz borrokatzeko— ekialdeko iraniar rohilla eta afganiarrak izan ziren; eta Akbar-en lana berriro jokatu zutenean atzerriko beste esku batzuek eta hindu-estatu unibertsala berriro ezarri zenean Britainiar Inperioaren forman, ipar-mendebaldeko mugaren defentsa britainiar inperiogileek Indian beren gain hartu zituzten muga-eginkizunetako astunena gertatu zen. Hainbat muga-politika probatu izan dira, eta bakar bat ere ez da erabat gogobetegarria gertatu.

Britainiar inperiogileek probatu zuten lehen alternatiba hindu-munduko ekialdeko iraniar atalase osoa konkistatu eta zuzenean berenganatzea izan zen, eta hori Mogolen Inperioak, bere goraldian, Oxus-Jaxartes arroan bere ondorengo estatu uzbekekin eta Mendebaldeko Iranen Safawi Inperioarekin muga egin zuen lerroan zehar. 1831tik aurrera Alexander Burnes-ek zertutako miaketa ausarten ondoren, are urrats ausartagoa eman zen eta indar militar britainiar-indiarra bidali zen 1838an Afganistanera; baina ipar-mendebaldeko mugako arazoaren konponbide «totalitario» baten ahalegin anbiotsu honek bukaera negargarria izan zuen. Zeren eta, India osoaren —Indus arroaren hego-ekialdearen— konkista arrakastatsuen lehen unean, 1799 eta 1818 bitartean, britainiar inperiogileek gehiegi balioetsi zuten beren indarra, eta aldi berean gutxietsi menderatu nahi

zituzten barbaro menderagaitzen artean beraien erasoak eragingo zuen erresistentziaren kemena eta eraginkortasuna. Izan ere, operazioa 1841-2an bukatu zen, Abisiniako goi-lurretan 1896an italiarrek izan zutena baino askoz ere hondamendi handiagoarekin.

Porrot entzutetsu honetaz geroztik, goi-lurrak iraunkorki konkistatzeko britainiarren guraria ez da inoiz berpiztu ahalegin modura baino, eta 1849an Punjab konkistatu zutenetik muga-politikaren aldaketak taktikoak gehiago izan dira estrategikoak baino. Hemen, egia esan, kristau-aroko lehenengo mendeetan Erromatar Inperioak zuen Rhin-Danubio mugaren maila politiko bereko *limes* bat daukagu. Britainiar-indiar gutxiengo menderatzailea, barne-proletalgo hinduaren uste sendoei amore eman eta gero eta esker txarrekoago lanen jokalekutik irteten bada, interesgarria izango da ikustea barne-proletalgo emantzipatu hau, bere etxean jaun eta jabe denean, zer egiteko gai den ipar-mendebaldeko mugaren arazoarekin.

Orain galdetzen badiogu geure buruari ea geure Mendebaldeko Gizarteak bere historiako zenbait etapatan eta munduko hainbat aldetan sortarazitako kanpo-proletalgoak probek estimatu ote dituzten sorkuntza-ekintzetara poesia eta erlijioaren eremuetan, berehala gogoratu dugu zerrenda zeltikoko eta Eskandinaviako atzegoardia barbaroen sorkuntza-lan bikaina, beren kontura zibilizazioak sortzeko haien ahaleginek huts egin zutelarik Mendebaldeko Kristandadearen zibilizazio jaio berriarekiko borrokan izan zuten porrotagatik. Topaketa hauek dagoeneko aztertu dira lan honetan beste zerbaiti loturik, eta pasa gaitezke berehala hedatzen ari zen Mendebaldeko munduak Aro Modernoan sorturiko kanpo-proletalgoak aztertzerara. Paisaia zabal honi behatzerakoan, sorkuntza barbaroaren adibide bakar batekin konformatuko gara, bilatzen ikasi dugun bi esferetako bakoitzean.

Poesiaren arloan poesia «heroikoa» har dezakegu kontuan, kristau-aroko hamaseigarren eta hamazazpigarren mendeetan bosniar barbaroek landu zutena habsburgotarren monarkia danubiarraren hego-ekialdeko mugaz harantzago. Adibide hau interesgarria da, lehen begiratuan ondorengo arauaren salbuespena ematen baitu, hots, desintegratzen ari den zibilizazio bateko kanpo-proletalgoa ezin dela estimatu poesia «heroikoa» sor dezan, harik eta zibilizazio hori bere estatu unibertsaletik igaro eta Völkerwanderung barbaro baterako aukera ematen duen interregnoan sartu arte. Baina habsburgotarren

monarkia danubiarrek, Londres edo Parisen ikuspuntutik, politikoki zatituriko Mendebaldean hainbat parroki botereen arteko beste bat bakarrik zenak, Mendebaldeko estatu unibertsal baten itxura eta ezaguarri guztiak izan zituen bere mendekoen begietarako, baita mendebaldarrak ez ziren auzoko eta kontrarioen begietarako ere, eta horien kontra «oskol» edo ezkututzat baliagarri izan zen Mendebaldeko Kristau Gizarteko gorputz sozial osoarentzat, nahiz eta honen kide babestuek monarkiaren eginkizun ekumenikoaren onuradun eskerga-beak izaten jarraitu.

Bosniarrak Europako barbaro kontinentalen atzegoardia izan ziren, hauek aurrez bi zibilizazio erasokorren —Mendebaldeko Kristandadearen eta Kristandade Ortodoxoaren— suen artean egoteko ezohiko esperientzia —ohi ez bezala mingarria— jasan behar izan zutelarik. Zibilizazio Kristau Ortodoxoaren irradiazioa, bosniarrak lehenengo harrapatu zituena, errefusatu egin zuten bere forma ortodoxoan, eta bogomilismoaren mozturro zismatikoan bakarrik adierazi ahal izan zen. Heresia horrek bi kristau-zibilizazioen artea etsaia ekarri zuen haien gain, eta egoera honetan ongi hartu zuten osmanliar musulmanen etorrera, bogomilismoa bertan behera utzi eta «turkiar-rarengana bihurtu» ziren erlijioari dagokionez. Harrezkero, otomandarren babespean, Islamera konbertitutako jugoslaviar hauek, otomandar-habsburgotar mugaren otomandar aldean, otomandar agindupean eroritako lurraldeetatik ihes egindako kristau jugoslaviarrek hatsburgotar aldean jokatu zuten paper bera hasi ziren jokatzeko. Jugoslaviarren bi multzo kontrarioek zeregin berdina aurkitu zuten erasoaldiak egiten, alde batetik Otomandar Inperioan eta beste aldetik hatsburgotarren monarkian; eta muga-gerraren lur emankor berean poesia «heroikoaren» bi eskola bereizi, biek serbo-kroaziera erabiltzen zutenak, hazi eta loratu ziren elkarren ondoan, itxuraz inolako eraginik zertu gabe bata bestearengan.

Erljioaren arloan kanpo-proletalgoaren sormenaren kasua oso bestelako leku batekoa da, hots, hemeretzigarren mendean Estatu Batuek Indiar Gorrien kontra zuten mugakoa.

Ohargarria da europar erasoaren erronkari erlijio-erantzun sortzailea emateko gai izatea Ipar Amerikako indiarrek, kontuan izanik horiek ia etengabe «lasterka ihesi» ibili zirela lehen kolonizatzaile ingelesak iritsi ziren unetik, berrehun eta lauogei urte geroago arte,

1890eko Sioux gerran erresistentzia armatua egiteko indiarren azken ahalegina zanpatu zuten arte, eta are ohargarriagoa da oraindik indiarren erantzun hau otzantasunezkoa izatea. Lehenago espero beharko genukeen indiarren gerra-taldeek beren gustuko erlijio pagano bat sortzea —Olinpo edo Asgard irokesa— edo erasotzaileen protestantismo kalbinistaren osagairik militanteenak berenganatzea. Hala ere, hainbat profetak, K.o. 1762ko Delaware profeta anonimoagandik 1885 inguruan Nevadan sortu zen Wovoka-renganaino, oso bestelako ebanjelioa predikatu zuten. Bakea predikatu zuten eta etsai zuriengandik lorturiko «hobekuntza» material tekniko guztien erabilerari uko egiteko eskatu zieten beren jarraitzaileei¹⁵⁵, su-armen erabileratik hasita. Aldarrikatu zuten, beraiek irakatsiari jarraituz gero, indiarrek zorientasunezko bizitza izango zutela «lurreko paradisuan», non arbasoen arimak biziakin elkartuko baitziren, eta Indiar Gorrien erreinu mesianiko hau ez zela tomahawk bidez konkistatuko eta are gutxiago balaz. Irakaspen hori onartzeak zer emaitza ekarriko zukeen ezin dugu esan; gogorregia eta goregia gertatu zen hartzaile izan behar zuten gerrari barbaroentzat, baina zeru-ertz ilun eta goibelean argi-izpi otzan hauetan *anima naturaliter Christiana*-ren ikustalditxo deigarria daukagu gizaki primitiboaren altzoan.

Une honetan badirudi mapan geratzen diren antzinako komunitate barbaro bakanentzat abotrita eta lituaniarren taktika hartzea dela bizirik irauteko aukera bakarra; hauek gure Mendebaldearen hedapenaren historian Erdi Aroko atalean, nahitaezko konbertsioari aurrea hartu eta borondatezko konbertsioa egin zuten zibilizazio erasokor baten kulturara, hau indartsuegia gertatzen baitzitzairen erresistentzarako. Antzinako mundu barbaroaren gure egungo gerakinean oraindik zutik daude barbarotasunaren bi gotorleku, estu inguratuak, eta bakoitzean gerra-jaun barbaro ekintzaile batek ahalegin jakin batean jardun du agian oraindik erabat etsia ez den egoera salbatzeko, kultur ofentsiba-defentsiba indartsua abiaraziz.

Ipar-ekialdeko Iranen azkenean konpon daitekeela dirudi Indiako ipar-mendebaldeko muga-arazoa, ez indo-afganiar mugaren indiar aldean barbaro menderagaitzen aurka ekintza drastikoak zertuz, baizik eta Afganistan bera bere borondatez mendebaldar bihurtzearen bidez. Zeren eta afganiar ahalegin honek arrakasta izango balu, bere ondorioetako bat India aldeko gerra-taldeak bi erasoren

artean jartzea izango bailitzateke eta, beraz, haien posizioa azkenean eustezin bihurtzea. Afganistan mendebaldar bihurtzeko mugimendua Aman Alah Khan erregeak (K.o. 1919-29) abiarazi zuen gehiegizko grina erradikalez eta tronua galdu zuen errege-iraultzaileak; baina Aman Alah Khanen desilusio pertsonala garrantzi txikiagokoa da hondamendi hau mugimenduarentzat erabakigarria ez gertatzea baino. 1929rako mendebaldar bihurtzeko prozesua urrutiegi joana zen Afganistango herriarentzat Bacha-i-Sakka bandido-errebelderearen erreakzio barbaro eztitu gabea jasan ahal izateko; eta Nadir erregearen eta haren ondorengoaren erregimenaren pean berriro abiatu zen prozesua oztoporik gabe.

Baina gotorleku barbaro inguratu baten mendebaldartzaile nabarmenena Abd-al-Aziz Al Saud da, Nejd eta Hijaz-eko erregea: soldadu eta estatu-politikaria, 1901etik aurrera jaio zeneko erbestaldi politikotik gora egin zuena, Rub-al-Khali-z mendebaldeko eta Sana yemeniar erresumaz iparraldeko Arabia osoaren jabe bihurtu zen arte. Gerra-jaun barbaroa zen aldetik, Ibn Saud jakinduriari dagokionean Ataulfo bisigodoarekin konpara daiteke. Mendebaldeko teknika zientifiko modernoaren ahalmena antzeman du eta Erdialdeko arabiar estepan bereziki eraginkorrak diren aplikazioak —putzu artesiarrak, automobil eta aeroplanoak— bereizteko begi zorrotza erakutsi du. Baina guztiaren gainetik Mendebaldeko bizimoduarentzat ezinbesteko oinarria legea eta ordena direla ikusi du.

Mendebaldar bihurturiko kultur mapatik azken enklabe setatia, era batera edo bestera, kendu ondoren, poztu ote gaitezke barbarotasunaren beraren azkena ikusi izanaz? Kanpo-proletalgoaren barbarotasuna erabat ezabatzeak neurrizko poza baino ez luke baimenduko, konbentzitu baikara (inolako bertuterik badu Azterlan honek) iraganean hainbat zibilizaziori etorri zaion suntsipena ez dela inoiz kanpo-eragilearen lana izan, baizik eta suizidio-egintzaren izaera izan duela beti.

«Barruko faltsukeriak traizionatzen gaitu»¹⁵⁶. Baliteke antzinako erako barbaro ezagunak erabat desagertu izatea geratzen zen azken «inorena ez zen lurra» desagertzean, barbaroen aurkako mugez harantzago, zeinek munduko fronte bakoitzean natura fisikoak jarritako mugetaraino eramana izan diren orain. Baina aurrekaririk gabeko garaipen honek ez digu ezertarako balio izango barbaroek, mugez harantzago desagertzeko orduan, gure marka igaro badute gure artean

berriro agertuz. Eta gaur egun ez al ditugu hemen aurkitzen borrokan geure barbaroak? «Inportaturiko barbaroek suntsitu zituzten antzinako zibilizazioak; guk geureak hazten ditugu»¹⁵⁷. Ez al dugu, geure belau-naldian, gerra-talde neobarbaroen pila bat geure begien aurrean erreklutatzen ikusi herrialde batean eta bestean, eta hau orain arte Kristandadea izandakoaren bihotzean eta ez aldirietan? Zer ziren, bada, espirituan barbaroak baizik, *Fascii di Combattimento* eta *Sturmabteilungen* haietako borrokalariak? Ez al zitzaien irakatsi beraiei sorleku izandako gizar-tearen semeordekoak zirela eta, kitatu beharreko kontu batez irainduta-ko alderdi bezala, moralki eskubidea zutela berentzat «eguzkipean leku bat» konkistatzeko indarra gupidagabe erabiliz? Eta ez al da hau, hain zuzen, kanpo-proletalgoko gerra-jaunek —Genseriko eta Atila bezalakoek— beren gerrariei beti aldarrikatu dieten doktrina munduren bat —bere hutsegitez bere burua babesteko ahalmena galdu duen munduren bat— arpilatzera gidatu dituztenean? Alkandora beltzak, eta ez larru beltzak, izan ziren ziur aski barbarotasunaren ikurrak 1935-6ko italo-abisiniar gerran, eta alkandora beltzeko barbaroa izukari beldurgarriagoa da bere harrapakin bihurtu duen larru beltzekoa baino. Alkandora beltzekoa izukaria zen nahita bekatu egiten zuelako heredaturiko argien kontra, eta mehatxu bat zen, bere bekatua egiteko, heredaturiko teknika bat zuelako bere esku, aske zelarik Jainkoaren zerbitzutik Deabruaren era desbideratzeko. Baina ondorio honetara iritsita, oraindik ez gara heldu arazoaren sustraira, oraindik ez baitugu galdetu zein izan daitekeen italiar neobarbarotasun honen sorburua.

Mussolinik behin aitortu zuen berak «Britainiar Inperioa egin duten ingelesen Ingalaterrarentzat pentsatu duten bezala, frantziar kolonizatzaile handiek Frantziarentzat pentsatu duten bezala» pentsatzen zuela Italiarentzat¹⁵⁸. Geure arbasoen balentrien karikatura italiar hau mespretxuz baztertu baino lehen, pentsatu behar dugu karikatura erretratu argigarria izan daitekeela. Zibilizazioaren bidearen apostata italiar neobarbaroaren aurpegi higuin garrian, behartuta egon gaitezke aitortzera oso miretsitako ingeles eredu batzuen —Clive, Drake eta Hawkins bezalakoen— bereizgarriak ezagutzen ditugula.

Baina ez al dugu geure galdera gogaikarria urrutirago eraman behar? Ez al dugu gogoratu behar, kapitulu honetan aurkezturiko frogen arabera, gutxiengo menderatzaileak direla lehenengo erasotzaileak gutxiengo menderatzaileen eta kanpo-proletalgoen arteko gerran?

Gogoan izan behar dugu «zibilizazio» eta «barbarotasunaren» arteko gerra honen historia ia soil-soilik arlo «zibilizatuko» eskribauk idatziz izan dutela. Kaltegabeko zibilizazioaren baten zuzenbidezko eremura bereugar eta sarraski barbaroa eramaten duen kanpo-proletalgoaren koadro klasikoa baliteke egiaaren aurkezpen objektiboa ez izatea, alde «zibilizatuaren» arranguraren adierazpena baizik, bera bihurtzean berak sortarazitako kontraerasoaren jomuga. Barbaroaren aurkako keak, haren erabateko etsaiak idatzi bezala, ez du agian hau baino askoz gehiago esan nahi:

Cet animal est très méchant:

*Quand on l'attaque, il se défend!*¹⁵⁹

6.

Inspirazio atzerritar eta indigenak

Horizonteak zabalagotzea

Azterlan honen hasiera-hasieran, historia ingelesean oinarrituz, nazio-estatu baten historia bere baitan eta bere motako gainerakoen egitateetatik aparte hartuta ez dela ulergarria argudiatu ondoren, uste izan genuen komunitate ahaidetuen taldeak, gizarte deitu genituenak —eta zibilizazio gisa ezaguturiko espezie berezi bateko gizarteak zirela aurkituak—, «azterketa-eremu ulergarriak» izango zirela. Beste hitz batzuetan, zibilizazio baten bizitzako ibilia autodeterminatua zela uste izan genuen, eta bere baitan eta berez aztertu eta ulertu zitekeela, etengabe kontuan hartu beharrik gabe gizarte-indar atzerritarren jokoak. Uste hau zibilizazioen eta berauen hazkundeaz egin dugun azterketak baieztatu egin du, eta orain arte kolapso eta desintegrazioaz egin dugun azterketak ez du ezeztatu. Zeren eta, desintegratzen ari den gizarte bat zatitu egin daitekeen arren, zati hauetako bakoitza enbor zaharreko ezpala izaten baita. Kanpo-proletalgoa ere desintegratzen ari den gizartearen irradiazio-eremuko elementuetatik erreklutatzen da. Aldi berean, ordea, desintegratzen ari diren gizarte hainbat zatikiren ikerketak —eta hau egia da ez kanpo-proletalgoei buruz bakarrik, baita barne-

-proletalgo eta gutxiengo menderatzaileei buruz ere— sarri eskatu digu atzerriko eragileak indigenak bezalaxe kontuan hartzea.

Egia esateko, garbi geratu da, gizartea «azterketa-eremu ulergarritzat» definitzea ia eragozpenik gabe onar badaiteke oraindik hazten ari den bitartean, definizio horri kontuz bakarrik euts dakiokela desintegrazio-aldira iristen garenean. Egia bada ere zibilizazioen kolapsoak autodeterminazioaren barne-galerei zor zaizkiela eta ez kanpotiko kolpeei, ez da egia desintegrazio-prozesua ere —zeinetatik igaro behar baitu kolapsaturiko zibilizazioak deuseztatpenerako bidean— ulergarria dela kanpo-eragile eta jardueren erreferentziarik gabe. Desintegrazio-etapan dagoen zibilizazio baten bizitzaren azterketan, «eremu ulergarria» nabariki zabalagoa gertatu da behaketapean dagoen gizarte bakarraren eremua baino. Honek esan nahi du, desintegrazio-prozesuan, gizarte-gorputzaren substantziak ez duela aztertu berri ditugun hiru osagaietan zatitzera bakarrik jotzen, baita atzerriko gorputzetatik datozen elementuekin konbinazio berrietan sartzeko askatasuna berreskuratzen ere. Honela, Azterlan honen hasieran abiapuntu izandako lurzorua, orain arte irmo iraun duena, orain hanka azpian desagertzen ari zaigula ohartzen gara. Hasieran zibilizazioak aukeratu genituen gure Azterlanaren xedetzat, hain zuzen ere «eremu ulergarriak» izateko itxura zeukatelako, bakoitza bakarka hartuta oso egoki aztertze modukoa. Orain ikuspuntu honetatik urruntzen ari gara bestelako baterantz, zibilizazioen elkarren arteko harremanak aztertzen ditugunean hartu beharko dugun ikuspunturantz.

Bitartean, komenigarria litzateke puntu honetan inspirazio atzerritar eta indigenen ondorioak bereizi eta alderatzea, desintegrazten ari den gizarte baten gorputz sozialaren banaketako hainbat zatiren jardueran aurki daitekeena. Gutxiengo menderatzailearen eta kanpo-proletalgoaren lanetan, atzerriko inspirazioak desadostasuna eta suntsipena eragitera jotzen du, barne-proletalgoaren lanetan kontra-kontrako ondorioak eragitera jotzen duen bitartean, harmonia eta sorkuntza, alegia.

Gutxiengo menderatzaileak eta kanpo-proletalgoak

Estatu unibertsalak normalean gutxiengo menderatzaileek ematen dituztela ikusi dugu, zerbitzu despotiko honen hartzaile bihurtzen duten gizartean bertan sorturiko gutxiengoei. Inperiogile indige-

na hauek munduaren kanpo-ertzeko muga-gizonak izan daitezke, horri bakearen bedeinkazioa ematen diotelarik batasun politikoa ezarriz; baina jatorri honek ez du berez frogatzen beren kulturen inolako kutsu atzerritarrik dutenik. Hala ere, aurkitu ditugu kasuak, zeinetan, gutxiengo menderatzailearen *débâcle* moralak hain bizkorra izan denez, desintegratzen ari zen gizartea estatu unibertsalean sartzeko helduta zegoen garairako ez baita jada inperiogintzaren bertuterik zeukan gutxiengo menderatzailearen ezer geratu. Honelako kasuetan, estatu unibertsalaz hornitzeko zeregina ez da normalean zertu gabe geratzea onartzen. Atzerriko inperiogileren bat zirrikitutik sartzen da eta gaixo dagoen gizartearentzat bertoko eskuek egin beharko zuketena lana zertzen du.

Estatu unibertsal guztiak, atzerritarrak nahiz indigenak, esker onez eta etsipenez onartu ohi dira, gogo berorik ez bada; edonola ere, zentzu materialean, hobekuntza dira aurretik izandako arazoaldiaren parean. Baina denbora pasatzean «errege berri» bat sortzen da, «Jose ezagutu ez zuena»; hizkera argian esanda, arazoaldia eta haren izugarrikerien oroitzapena iraganaldi ahaztura itzultzen dira, eta orainaldia —zeinetan estatu unibertsala gizarte-paisaia osoaren gain hedatzen den— bere baitan epaitua gertatzen da, testuinguru historikoarekiko loturarik gabe. Etapa honetan banatu egiten dira estatu unibertsal indigena eta atzeritarren zoriak. Estatu unibertsal indigenak, zeinahi izanik ere bere benetako merituak, bere mendekoentzat gero eta onargarriagoa izatera jotzen du, eta gero eta gehiago hartzen dute beren bizitzarako gizarte-egitura posible bakartzat. Estatu unibertsal atzeritarrak, bestalde, gero eta onarpen txikiagoa izaten du. Mendekoentzat gero eta mingarriagoak dira estatu horren atzeritar nolakotasunak eta gero eta estuago ixten dituzte begiak eman dien eta agian oraindik ere ematen ari zaien zerbitzu onuragarriaren aurrean.

Kontraste hau argitzeko, estatu unibertsal-pare nabarmena da Erromatar Inperioa —mundu helenikoari estatu unibertsal indigena bat eman ziona— eta Britainiar Inperioa —Hindu Zibilizazioari bi estatu unibertsal atzeritarretako bigarrena eman diona—. Aipu asko bil daiteke Erromatar Inperioaren azken mendekoek erakunde honekiko zuten maitasuna eta begirunea argitzeko, baita bere lana eragin-kortasun onargarritz egiteari utzi eta nabarmen desegiten ari zenean ere. Agian, ordain hauetako aipagarriena *De Consulatu Stilichonis*

poemako pasarte bat da, latinezko hexametroetan Klaudio Alexandriakoak idatzia K.o. 400ean:

*Berak —beste konkistatzaile batzuek zekiten baino harroago—
eztiki bere altzora ekarri zituen bere gatibuak;
ama, ez etxeoandrea, esklaboa bere ahaide egin zuen
eta bere hegaldura deitu zituen nazio guztiak.
Nork dauzka gaur, haren guraso-eraginari zor izan gabe,
bere eskubide zibikoak lurralderik urrutietan?*¹⁶⁰

Erraza litzateke frogatzea Britainiar Inperioa zentzu askotan erakunde onberagoa izan dela, eta agian baita ongileagoa ere, Erromatar Inperioa baino, baina zaila litzateke Klaudio bezalako bat Hindustaneko edozein Alexandriatan aurkitzea.

Atzerriko beste estatu unibertsal batzuen historiari begiratzen badiogu, Britainiar Indian aurkitzen dugun sentimendu etsai gero eta handiago bera ikusiko dugu haien mendekoen artean ere. Zirok Gizarte Babilonikoari ezarri zion atzerriar estatu unibertsal siriakoa hain sutsu gorrotatzen zuten haren bizitzako bigarren mendearen bukaera alderako, ezen K.a. 331n babiloniar apaizak prest baitzeuden ongi etorri sutsua egiteko era berean atzerriar konkistatzaile zen Alexandro Mazedoniakoari, gaur egun muturreko zenbait nazionalista Indian prest egon daitekeen bezala Japoniatiko Clive bezalako bati ongi etorria egiteko. Kristandade Ortodoxoan atzerriarren *Pax Ottomanica*, kristau-aroko hamalagarren mendearen lehen laurdenean Marmara itsasoko asiari ertzetan otomandar komunitatearen fundatzailearen greziar jarraitzaileen aldetik ongi etorria izan zena, gorrotagarri bihurtua zen K.o. 1821eko greziar nazionalistentzat. Bost menderen igarotzeak sentimendu-aldaketa eragin zuen greziarren artean, Galian Veringetorixen erromatar-fobiatik Sidonio Apolinarren erromatar-filiara izandako aldaketaren erabat alderantzizkoa.

Atzerriar kulturako inperiogileek sortarazitako gorrotoaren beste adibide nabarmen bat konkistatzaile mongolenganako txinatarren aurkakotasuna da, mongol hauek Ekialde Urruneko mundu asaldatuari behar-beharrezkoa zuen estatu unibertsal bat eman ziotelarik, eta irudi lezake aurkakotasun hau kontraste bitxian dagoela gizarte berak geroago bi mende eta erdiz mantxu-menderakuntza onartu zuen tolerantziarekin. Azalpena honetan aurkitu behar da: mantxuak Ekialde Urruneko baso-jendea ziren, inolako atzerriar kulturaz kutsa-

tu gabeak; mongolen barbarotasuna, berriz, arinki bada ere, nestoriotar kristau aitzindariengandiko kultura siriakoaren kutsuaz gozatua zegoen, baita, nonahiko jatorria izanik ere, gizaki gaitu eta esperientziadunen zerbitzuak hartzeko prest zegoen buru-irekitasunaz ere. Mongolen erregimenak Txinan izandako onarpen-ezaren benetako azalpena haxe dela argi uzten dute Marko Poloren narrazioek, txinatar mendekoen eta khan handi mongolaren soldadu kristau ortodoxo eta administratzaile musulmanen arteko harreman lehergarrien narrazioek, alegia.

Agian kultura sumerikoaren tindua izan zen hiksoak jasangaitz bihurtu zituen mendeko egipziakoentzat, eta erabat barbaroak ziren libiarren ondorengo erasoaldia, berriz, arrangurarik gabe onartu zuten. Egia esan, ausar gaitezke gizarte-lege orokor bat bezalako zer-bait formulatzera zentzu honetan, hots, edozein kultur kutsu atzerritarretatik libre agertzen diren inbaditzaile barbaroek beren fortuna egin ohi dute; beren Völkerwanderung-a baino lehen, kutsu atzerritar edo heretikoa hartu dutenek, berriz, beren bidetik irten behar dute kutsu hori galtzeko, bestela ezinbestekoa den kanporaketa edo suntsipenari ihes egin nahi badiote, behintzat.

Lehenik diluitu gabeko barbaroak hartuko ditugu: arioek eta hititek eta akeoek, bakoitzak bere panteoi barbaroa asmatu zuen zibilizazio baten atalasean egindako egonaldian, eta gurtza barbaro honetan jarraitu zuten beren bidea ireki eta beren konkistak egin ondoren, eta, «ezjakintasun garaitezin» hau gorabehera, bakoitzak arrakasta izan zuen zibilizazio berriak sortzen: Indikoa, Hitita eta Helenikoa. Gainera, frankoak eta ingelesak eta eskandinaviarrak eta poloniarrek eta magiarrak, bertako paganisмотik Mendebaldeko kristautasun katolikora konbertituak, Mendebaldeko Kristandadearen eraikuntzan paper beteak, baita gidari-paperak ere, jokatzeko aukeraz baliatu ziren. Bestalde, Set-en gurtzaile hiksoak kanporatu egin zituzten mundu egipziakotik, eta mongolak Txinatik.

Gure arauaren salbuespen bat arabiar musulman primitiboena dela dirudi. Barbaro-talde bat izan zen hura, Gizarte Helenikoaren kanpo-proletalgokoa, gizarte hura desegin ondorengo Völkerwanderung-ean arrakasta-maila handia lortu zuena, nahiz eta gogor heldu zioten erlijio siriakoaren parodia barbaroari, Erromatar Inperioari kendutako probintzietan mendekoen kristautasun monofisita berega-

natu ordez. Baina arabiar musulman primitiboen paper historikoa erabat salbuespenezkoa izan zen. Erromatar Inperioaren ekialdeko probintzien kontra egindako eraso garailean Sasandar Inperio osoa ustekabeen konkistatuz, Erromatar Inperioaren ondorengo estatu barbaroa, arabiarrek siriar lurraldean sortu zutena, estatu unibertsal siria-koaren berrezarkuntza bilakatu zen, estatu hura garaiz lehen suntsitu zelarik, mila urte lehenago, Alexandrok akemenestarrak menderatu zituenean; eta honela, ia ustekabeen, arabiar musulmanei eman zitzaien eginkizun politiko berri zabalak etorkizun berria zabaldu zion Islamari berari.

Irudi luke, beraz, Islamaren historia kasu berezia dela, gure ikerketaren emaitza orokorrak baliogabetzen ez dituen. Oro har, badugu arrazoirik ondorioztatzeko, bai kanpo-proletalgoentzat eta berdin gutxiengo menderatzaileentzat, atzerritar inspirazioa oztopo dela, tirabira eta frustrazio asko sortzen baitizkie haiei, desintegratzen ari den gizartearen banaketako beste bi zatiekiko tratuan.

Barne-proletalgoak

Gutxiengo menderatzaile eta kanpo-proletalgoei buruzko aurkikuntza hauekiko kontrasteen, aurkituko dugu barne-proletalgoentzat atzerritar inspirazioa ez dela madarikazioa, bedeinkazioa baizik, hartzen dutenei itxuraz gizagaineko ahalmena ematen diena beren konkistatzaileak gatibu hartzeko eta beren jaiotzaren helburua lortzeko. Tesi hau barne-proletalgoaren egintza bereizgarriak diren «erlijio nagusi» eta eliza unibertsalen azterketa bidez egiazta daiteke. Horietaz egin dugun ikerketak erakutsi du berorien ahalmena espirituan duten atzerritar bizitasun-txinpartaren arabera dela, eta indarraren arabera aldatzen dela.

Adibidez, Osirisen gurtza, proletalgo egipziakoaren «erlijio nagusi» zena, ikusi dugun bezala, behin-behinean, atzerritar jatorriari egotz dakioke Tammuzen gurtza sumerikoan; eta barne-proletalgo helenikoaren «erlijio nagusi» anitz eta lehiakideak ziur egotz dakizkioke hainbat atzerritar jatorriari. Isisen gurtzan atzerritar txinparta egipziakoa da; Zibelesen gurtzan, hitita; kristautasunean eta mitraismoan, siriakoa; mahayanan, indikoa. «Erljio nagusi» hauetako lehen lauak populazio egipziako, hitita eta siriakoek sortu zituzten, barne-proletalgo helenikoan Alexandroren konkista bidez erreklutatuak, eta

bosgarrena populazio indikoak sortu zuen, era berean erreklutatua, K.a. bigarren mendean, Baktrianako greziar printze eutidemikoek mundu indikoan egindako konkista bidez. Nahiz eta desberdintasun sakonak izan elkarren artean beren barne-muin espiritualean, gutxienez bostek dute azaleko ezaugarri komun bat, jatorriz atzerritarrak izatea, alegia.

Gure ondorioa ez du ezeztatuko zenbait kasu aintzakotzat hartzeak, zeinetan erlijio nagusi batek gizarte bat konkistatzeko ahalegina egin duen arrakastarik gabe. Hor dago, adibidez, Islamaren sekta xiitaren ahalegin huts egina Kristandade Ortodoxoaren eliza unibertsal bihurtzeko otomandar erregimenaren pean, eta kristautasun katolikoaren ahalegin huts egina Ekialde Urruneko Gizartearen eliza unibertsal bihurtzeko —Txinan Ming dinastiaren azken mendean eta Mantxu dinastiaren lehen mendean, eta Japonian arazoalditik Tokugawa shogungorako trantsizioan. Xiismoari Otomandar Inperioan eta katolizismoari Japonian iruzur egin zitzaizen biei egin asmo zituzten konkista espiritualetan, ustiatu egin baitzituzten —edo, behintzat, ustiatu zituzten susmoa zegoen— helburu politiko bidegabeetarako. Katolizismoak Txinan izandako porrota aitasantutzaren ezezekoak eragin zuen, misiolari jesuitei ez zielako utzi atzerriko erlijio katolikoaren hizkuntza Ekialde Urruneko filosofia eta erritualaren ohiko hizkuntzara itzultzeko lanetan jarraitzen.

Ondoriozta dezakegu atzerritar txinparta lagungarri dela eta ez oztupo «erlijio nagusi» batek konbertituak irabaz ditzan; eta honen arrazoiak ez da urruti bilatu behar. Barne-proletalgoa, kolapsaturiko gizartetik banatua eta beronengandiko banakuntza-prozesuan dagoe-larik, errebelazio berri baten bila ari da, eta haxe da atzerritar txinpartak ematen diona; honen berritasunak bihurtzen du erakargarri. Baina, erakargarri bihurtu aurretik, egia berria ulergarri egin behar da; eta beharrezko erakusketa-lan hau egin arte, egia berriak ezingo du bere erakarpen potentziala zertu. Kristau Elizak Erromatar Inperioan izandako garaipena gera zitekeen irabazi gabe Elizako Gurasoek, San Paulorengandik aurrera, ez balute kristau-doktrina filosofia helenikoaren arabera itzuli kristau-aroko lehen lau edo bost mendeetan, edo Kristau Elizaren hierarkia Erromako herri-administrazioaren eredura eraiki, edo kristau-erritualak Misterioen moldean modelatu, edota jaialdi paganoak kristautu eta heroien kultu paganoen ordeztuen kris-

tau-kultuak hartu. Vatikanoko aginduek honelako eginkizuna moztu zieten lore-pipilean Txinan zeuden misiolari jesuitei; eta mundu helenikoaren konbertsioa halabeharrez bertan behera geratuko zen kristau-misiolariek jentilen alorrean egindako lehen ibilaldien ondoren, baldin eta San Pauloren aurkako kristau judaizanteak garaile irten balira Apostoluen Eginetan eta Pauloren lehen gutunetan kontaturiko batzar eta gatazketan.

Inspirazio indigena izan bide duten «erlijio nagusien» gure bilduman judaismoa eta zoroastrismoa eta Islama sartuko dira —hiru erlijio hauek mundu siriakoan aurkitu dute beren arloa eta leku bereetik atera dute beren inspirazioa—, baita hinduismoa ere, argi eta garbi indikoa, bai bere inspirazioan eta bai bere ekintza-alorrean ere. Hinduismoa eta Islama gure «legearen» salbuespentzat hartu behar dira, baina judaismoa eta zoroastrismoa azkenean berorren adibide gertatuko dira, azterketa egin ondoren. Zeren eta populazio siriakoak, non jaio baitziren judaismoa eta zoroastrismoa Kristo aurreko zortzigarren eta seigarren mendeen artean, herri hautsiak baitziren, gutxiengo menderatzaile babilonikoaren asiriarrak armadek indarrez erreklutatutak Gizarte Babilonikoaren barne-proletalgoan sartzeko. Eraso babiloniko honek eragin zituen judu- eta zoroastroar erantzun erlijiosoek proba jasan behar izan zuten arima siriakoetan. Honen argitan, garbi dago judaismoa eta zoroastrismoa Gizarte Babilonikoaren barne-proletalgoan erreklutatu siriakoek sarturiko erlijiotzat sailkatu beharko genituzkeela. Judaismoak bere forma «Babiloniako uren ondoan» hartu zuen benetan, Kristau Elizak bere forma mundu helenikoan paulari eliz elkartetan hartu zuen bezala.

Zibilizazio Babilonikoaren desintegrazioa Zibilizazio Helenikoarena bezain luzea izan balitz eta etapa berberetatik igaro balitz, orduan judaismoaren eta zoroastrismoaren jaiotza eta hazkundera, ikuspegi historikoan, prozesu babiloniko baten gertaera bezala agertuko ziren, kristautasunaren eta mitraismoaren jaiotza eta hazkundera historia helenikoaren gertaeratzat agertzen diren bezala. Gure perspektiba historia babilonikoa garaiz lehen bukatu izanak desegin du. Estatu unibertsal babilonikoa sortzeko kaldear ahaleginak kolapsoa izan zuen; eta haren barne-proletalgoa erreklutatu siriakoak gai izan ziren ez bakarrik beren kateak apurtzeko, baita konkistatzaileekiko egoera aldatzeko ere, hauek gorputz nahiz espirituz gatibu hartuz.

Iraniarrak kultura siriakora konbertitu ziren eta ez babilonikora, eta Zirok sorturiko Akemenestar Inperioa estatu unibertsal siriako baten papera jokatzera iritsi zen. Judaismoak eta zoroastrismoak ikuspegi honetatik hartzen dute inspirazio indigenarekin erlijio siriakoak diren egungo itxura. Orain ikus dezakegu, jatorrian, barne-proletalgo babilonikoaren erlijioak zirela, honentzat atzerritarra zelarik haien inspirazio siriakoa.

«Erlijio nagusi» batek atzerritar inspirazioa badu —eta aurkitu dugu arau honek bi salbuespen aipagarri bakarrik dituela—, orduan garbi dago erlijio horren izaera ezin dela ulertu gutxienez bi zibilizazioen harremanak kontuan hartu gabe: batetik erlijio berria sortzen deneko barne-proletalgoari dagokion zibilizazioa, eta bestetik bere atzerritar inspirazioa (edo inspirazioak) ateratzen d(it)ueneko zibilizazioa (edo zibilizazioak). Egitate honek erabat abiapuntu berria hartzea eskatzen digu, Azterlan hau orain arte eraikitzeko izan dugun oinarriari uko egitea eskatzen baitu. Orain arte zibilizazio-terminotan hitz egin dugu; eta uste izan dugu zibilizazio bakun orok «azterketa-eremu» praktikagarria eskainiko dutela gizarte-osotasun bat diren neurrian, gizarte partikular honen leku- eta denbora-mugetatik kanpo ager litekeen edozein gizarte-fenomenotatik urrunduta ere ulergarria. Baina orain sare berean harrapatuta gaude, hasierako orrialdeetan, historia nazional bakartu batek zentzua izan zezakeela uste zuten historialari haiek hain konfiantza handiz nahastu ditugun bezalakoxe sarean. Aurrerantzean gainditu egin beharko ditugu muga batzuk, orain arte berauen barruan lan egin ahal izan badugu ere.

XIX. ZISMA ARIMAN

1.

Jokaera, sentiera eta biziera alternatiboak

Zisma gizarte-gorputzean, orain arte aztertu duguna, esperientzia kolektiboa da eta, beraz, azalekoa. Bere esanahia barne-pitzadura espiritualaren kanpo-seinale ikusgarria izatean datza. Gizartearen gainazalean agertzen diren zisma guztien azpian gizakien arimako zisma dagoela aurkituko da, gizartea izanik giza aktore hauen ekintza-arloen eremu komuna; eta barne-zisma honek har ditzakeen hainbat formatara zuzendu behar dugu orain geure arreta.

Desintegratzen ari den gizarte bateko kideen arimetako zismak forma-aniztasuna agertzen du, zibilizazioen sorrera eta hazkundean beren papera jokatzeko duten gizakien ekintzaren ezaugarritzat jo ditugun hainbat jokaera, sentiera eta bizieratako bakoitzean sortzen baita. Desintegrazio-fasean ekintza-bide bakartu hauetako bakoitzak elkarrekiko antitetiko edo antipatetiko diren aldaera edo ordezkopare batean zatitzera jotzen du, non erronka bati emandako erantzuna bi alternatibatan polarizatzen baita: bata pasiboa eta bestea aktiboa, baina bietatik bat ere ez sortzailea. Aukera aktibo eta pasiboaren artean hautatzea da, gizarte-desintegrazioaren tragedian papera jokatu beharragatik jarduera sortzailerako aukera (baina ez, noski, gaitasuna) galdu duen arimari uzten zaion askatasun bakarra. Desintegrazio-prozesua aurrera doan neurrian, aukera alternatiboek beren mugapenetan zurrungoak izatera jotzen dute, muturrekoagoak dibergentzian eta

garrantzitsuagoak ondorioetan. Hau da, arimako zismaren esperientzia espiritual mugimendu dinamikoa da, ez egoera estatikoa.

Hasteko, jokaera pertsonalean bi era daude, sortzeko ahalmena erabiltzearen ordezeko alternatiboak direnak. Autoadierazpenerako ahaleginak dira biak. Ahalegin pasiboa *abandonu* bat da (ἀκρότεια), non arimak «joaten uzten baitio bere buruari», uste izanik, bere berezko gurari eta higuinak aske uzten baditu, «naturaren arabera biziko dela» eta automatikoki jainkosa misteriotsu horrengandik sormenaren opari baliotsua hartuko duela berriro, jabetu baita galdua duela. Alternatiba aktiboa autokontrolerako ahalegina da (ἐγκράτεια), non arimak «bere buruaren ardura hartu» eta bere «berezko grinak» diziplinatzea bilatzen baitu kontrako ustea duelarik, hots, natura sormenaren hondamena dela eta ez bere sorburua, eta «naturaren gain nagusitasuna lortzea» dela sortzeko ahalmen galdua berreskuratzeko bide bakarra.

Gero badira bi gizarte-jokaera, pertsona sortzaileen mimesiaren ordezeko alternatiboak, gizarte-hazkundearen bidean arriskutsua baina beharrezko lasterbidea dela aurkitu dugun mimesiarena. Mimesiaren bi ordezeko hauek, falange baten lerroetatik irteteko ahaleginak dira, jada ez baitu funtzionatzen bere «gizarte-trebakuntzak». Gizarte-blokeo hau apurtzeko ahalegin pasiboak desertzioaren forma hartzen du. Soldadua etsipenez ohartzen da erregimentuak galdu egin duela orain arte bere *morala* sendotzen zuen diziplina, eta egoera honetan bere eginbehar militarretik libre dagoela pentsatzen hasten da. Batere onerako ez den gogo-aldarte honetan desertoreak atzera egiten du lerroetatik, lagunak bakarrik utzita bere larrua onik aterako duen itxaropen hutsalarekin. Bada, ordea, proba berari aurre egiteko era alternatibo bat, martirioa dei daitekeena. Funtsean, martiria bere kabuz lerroetatik alde egin duen soldadua da aurrerako norabidean, bere eginbeharrak eskatzen dionaz harantzago joateko. Zirkunstantzia normaletan eginbeharrak eskatzen badu soldaduak bere bizia arriskatzea ofizial nagusien ordenak betetzeko beharrezko den neurririk txikienean, martiriak goiburu bat errebindikatzeagatik bilatzen du heriotza.

Jokaeraren mailatik sentieraren mailara igarotzean, bi sentiera pertsonal ikusten ditugu lehenik, *élan*-eko mugimendu haren —hazkundearen izaerak bere burua agertzen duen mugimenduaren— alde-ranzketaren erreakzio alternatiboak. Bi sentimendu hauek gaizkiaren

indarretatik «ihesi joatearen» kontzientzia mingarria islatzen dute, indar horiek erasora jo eta beren nagusitasuna ezarri dutelarik. Porrot moral iraunkor eta progresiboaren kontzientzia honen adierazpide pasiboa noraezaren zentzua da. Arima menderatua lur jota geratzen da ingurunea kontrolatzen huts egin duen pertzepzioagatik; unibertsoa, arima bera barne, irrazionala bezain garaitezina den botere baten mende dagoela sinestera iristen da: aurpegi bikoitzeko jainkosa maltzurra, Zoriaren (τύχη) izenpean baretzen dena, edo Halabeharraren (ἀνάγκη) izenpean jasaten dena: jainko-pare honi literatur gorputza eman zaie Thomas Hardyren *Dynasts*-eko koruetan. Alternatiboki, arima menderatua atsekabetzen duen porrot morala arimaren nortasuna bera nagusitzen eta kontrolatzen izandako hutsegite bezala senti daiteke. Kasu horretan, noraezaren zentzuaren ordezkatuaren zentzua daukagu.

Bi gizarte-sentierari ere erreparatu behar diegu, estilo-zentzuaren ordezkotzat alternatiboak direnak: zibilizazioek beren hazkundearen bidez duten diferentziazioaren prozesu objektiboaren kontrapartida subjektiboa delarik estiloaren zentzua. Bi sentimendu hauek formarekiko sentiberatasun honen beronen galera adierazten dute, nahiz eta erronka honi erantzuteko eran kontra-kontrako muturretan egon biak. Erantzun pasiboa promiskuitate-zentzua da, non arima arragoan erortzen baita. Hizkuntzaren eta literaturaren eta artearen ingurunean promiskuitate-zentzu hau *lingua franca* (κοινή) delakoaren zirkulazioan agertzen da eta antzeratsu estandarizatu eta konposaturiko literatur, pintura, eskultura eta arkitektura-estiloan; filosofia eta erlijioaren erreinuan sinkretismoak sortzen ditu. Erantzun aktiboak tokian toki-koa eta iragankorra izan den bizi-estilo baten galera, unibertsal eta betierekoan partaide izango den beste estilo bat hartzeko aukera eta deitatzat hartzen du: *quod ubique, quod semper, quod ab omnibus*. Erantzun aktibo hau batasun-zentzura iratzartzea da, ikuspegia giza-diaren batasunetik, kosmosaren batasunean zehar, Jainkoaren batasuna hartzeraino hedatzen den bezala zabaltzen eta sakontzen den zentzura, alegia.

Hirugarren lekuan, bizitzaren mailara igarotzen bagara, berrirori ere erreakzio alternatiboen bi pare aurkituko ditugu hemen, baina maila honetan koadroa desberdina da aurreko ereduarekiko hiru puntutan. Batetik, hemen hazkundealdiaren ezaugarri den mugimendu

bakarra ordezen duten alternatibak mugimendu horren aldaerak dira ordezekoak baino gehiago. Bigarren, bi alternatiba-pareak mugimendu bakar beraren aldaerak dira: makrokosmosetik mikrokosmosera ekin-tza-eremuaren transferentzia bezala deskribatu dugun mugimenduare-nak. Hirugarren, bi pareak elkarren artean desberdintzen dituen aski desberdintasun sakona da bikoizketa justifikatzeko. Pare batean erre-akzioen aldartea bortitza da; beste parean, otzana. Pare bortitzean erre-akzio pasiboa arkaismotzat deskriba daiteke eta aktiboa futuris-motzat; pare otzanean pasiboa desatxikimendutzat deskriba daiteke eta aktiboa antzaldaketatzat.

Arkaismoa eta futurismoa denbora-dimentsioko transferentzia hutsa maila espiritual batetik beste batera ekintza-eremuaren transfe-rentziaz —hazkundearen mugimendu bereizgarriaz— ordezeko aha-legin alternatiboak dira. Bietan, makrokosmosean bizi ordezkro-kosmosean bizitzeko ahalegina abandonatu egiten da utopia bat lor-tzearren, utopia hau —«bizitza errealean» benetan aurki daitekeela suposatuz— klima espiritualaren aldaketa neketsuari aurre egiteko inolako erronkarik gabe lortuko litzatekeelarik. Kanpo-utopia honek «beste mundu bat» bezala funtzionatu nahi du; baina azaleko eta gogobetegarri ez den zentzu batean bakarrik da «beste mundu bat», hots, makrokosmosaren ukapena da bere egungo egoeran, hemen eta orain. Arimak berari eskatzen zaiona honela zertu nahi du: gizarte-aren egungo desintegrazio-egoeratik helburu bateraino mugituz, helbu-ru hau gizarte bera delarik, iraganean noizbait izan zitekeen edo etor-kizunean noizbait izan daitekeen bezala.

Egia esan, arkaismoa pertsona sortzaile garaikideen mimesi-tik tribuko arbasoen mimesira itzultze gisa defini daiteke: hau da, zibilizazioaren mugimendu dinamikotik orain gizadi primitiboa ikusten den egoera estatikora erortzea. Bestalde, honela ere defini daiteke: aldaketa indarrez geldiarazteko ahaleginetako bat, arrakasta izanez gero, gizarte-«izugarrikeriak» sortzen dituztenetakoa. Hirugarren, kolapsaturik eta desintegrazioan dagoen gizarte bat «ziriztatze» ahaleginaren adibidetzat har daiteke, beste testuingu-ru batean utopien autoreen helburu komuna dela ikusi dugun zerbait. Antzeratsu, futurismoa edozeinen mimesiaren gaitzespen bezala definitu dezakegu, baita indarrez aldaketa gauzatzeko ahaleginetako bat ere, arrakasta izanez gero gizarte-iraultzak sortzen dituzten

horietakoa, beren helburua hondatzen dutelarik erreakzioarekin behaztopa eginez.

Ekintza-eremua makrokosmosetik mikrokosmosera aldatzearen ustezko ordezkio horietako edozeinetan beren konfiantza jartzen dutenentzat patu ironiko komun bat dago zain. Aukera alternatibo «errazak» bilatzean, etsikor hauek nahitaez gain hartuko dien bukaera bortitzera eramaten dituzte beren buruak, naturaren ordenaren aurkakoa den zerbait ari baitira saiatzen. Barne-bizitzaren bilaketa, gogorra izan daitekeelarik ere, ez da ezinezkoa; baina berez ezinezkoa zaio arimari kanpoko bizitzan bizi den artean, «beti darion ur-lasterrean» orain duen lekutik irtetea, jauzi hegalaria bat eginez bai atzerantz lasterrean gora iraganera, edo lasterrean behera etorkizunera. Utopia arkaiko eta futuristak utopiak dira era berean zentzu literalean: «lekurik gabeak» dira. Bi *alibi* liluragarri hauek lortu ezinak dira *ex hypothesi*; eta bietako batera salto egitearen ondorio bakar eta ziurra ur arreak sortzea da, osasunbiderik ez dakarren bortizkeriaz.

Bere klimax tragikoan futurismoa satanismo bezala agertzen da.

«Sineskizunaren muina zera, da munduko ordena gaiztoa eta gezurra dela; ontasuna eta egia jazarritako errebeldeak dira... Sineskizun hau kristau-santu eta martiri askok izan dute, eta Apokalipsiaren autoreak, batez ere. Baina filosofo moral handi gehientsuenek irakatsitakoaren beste muturrean dagoela esan behar dugu. Platon, Aristoteles eta estoikoek, San Agustin eta Santo Tomas Akinokoak, Kant eta J.S. Mill eta Comte eta T.H. Green-ek, guztiek argudiatzen dute edo uste dute badela nolabaiteko kosmos edo jainko-ordena bat; ona dena ordena horrekin harmonian dagoela eta txarra dena berorrekin desakordioan. Eskola gnostikoetako batek, Hipolito Elizako Gurasoarengan, Satan 'botere kosmikoen aurka borrokatzen den espiritu' bezala definitzen duela ohartzen naiz: osotasunaren borondatearen kontra jotzen duen erreboltari edo protestantea, eta bere komunitatea zapuzten saiatzen dena»¹⁶¹.

Iraultzaren espirituaren ezinbesteko emaitza hau iraultzaile ez diren gizon eta emakume guztiek onarturiko topikoa da, eta ez da zaila lege espiritual honen funtzionamenduaren adibide historiko batzuk seinalatzea.

Adibidez, Gizarte Siriakoan, futurismoaren forma mesianikoak otzantasunaren bideari jarraitzeko ahalegin positibo bezala egin zuen bere lehen agerpena. Asiriarr militarismoaren erasoen aurka bere independentzia politikoari, hemen eta orain, eusteko ahalegin negargarrian iraun ordez, israeldarrak bere garaiko uztarri politikoaren azpian jarri zuen lepoa, eta etsipenezko egintza mingarri hau onartu zuen bere altxor politiko osoa salbatzaile-errege baten itxaropenean jarritz, honek etorkizunean data ezjakinen batean sortu eta berrezarriko zuelarik nazio-erresuma eroria. Judu-komunitatean itxaropen mesianiko honen historiari jarraitzen badiogu, laurehun urte baino gehiagoz otzantasunaren alde ari izan zela aurkitzen dugu: K.a. 586tik, Nabukodonosorrek juduak Babiloniako gatibualdira eramane zituenetik, K.a. 168ra bitartean, Antioko Epifanesen jazarpen helenizatzaileraren jasan zuten arte. Hala ere, uste osoz espero zuten etorkizun mundutarraren eta ikaragarri mingarria zen orainaldi mundutarraren arteko desadostasunak azkenean bortizkeria ekarri zuen. Eleazar eta zazpi anaien martiritik bi urtera Judas Makabeoren altxamendu armatua etorri zen, eta Makabeoek are militante fanatikoagoak ziren judu-zeloteen lerroa —zenbatu ezin adina Theodas eta Judas Galileakoena— hasi zuten, haien bortizkeriak K.o. 66-70 eta 115-17 eta 132-5eko judu-errebolta satanikoetan lortu zuelarik gailur beldurgarria.

Judu-kasu klasiko honek argituriko futurismoaren nemesia ez da ezezaguna; baina are harrigarriagoa da agian arkaismoa, itxuraz kontrakoa duen bidearen bukaeran, nemesi horrek berorrek menderatuta aurkitzea; zeren eta, topikoa izatetik oso urruti, zerbait paradoxiakoa irudi bailezake mugimendu atzerakoi honen ezinbesteko ondorioa ere bortizkeriazko pandemonium bat dela adieraztea. Hala ere, historiari datuek horrela dela erakusten dute.

Gizarte Helenikoaren desintegrazio politikoaren historian bide arkaikoa hartu zuen lehen estatu-politikaria Agis IV.a erregea izan zen Espartan, eta Tiberio Grako tribunoa Erroman. Biak ziren ezohiko sentiberatasun eta otzantasunezko gizonak, eta biek ekin zioten gizarte-okerrak bat zuzentzeko eta horrela gizarte-hondamendia eragozteko lanari, eta hori beraiei ustez beren estatuek antzina —jada erdi konkairazkoa zen «urre-arroan», kolapsoaren aurretik— izan zuten eraketara itzuliz lortu nahi zuten. Haien helburua adostasuna berreskuratu

tzea zen; hala ere, haien politika arkaikoa gizarte-bizitzaren joera alderantzikatzeko ahalegina izan zenez, bortizkeriara eraman zituen ezinbestean; eta haien espiritu-otzantasunak —beraien bortizkeria uzkurak eragindako kontrabortizkeria borrokatzeko muturretara jo baino lehen beren biziak sakrifikatzerara eraman zituenak— ez zuen balio izan nahigabe abiarazi zuten bortizkeri oldea geldiarazteko. Haien auto-sakrifizioak ondorengo bat bultzatu baino ez zuen egin beraien lanari heldu eta arrakastaz gauzatzen saiatzera bortizkeria gupidagabe erabiliz, hartarako uzkur agertu izan zelarik martiria. Agis IV.a errege otzanaren ondoren Kleomenes III.a errege bortitza etorri zen, eta Tiberio Grako tribuno otzanaren ondoren haren anaia Kaio bortitza. Hau ere ez zen izan, ordea, kontuaren bukaera bi kasuetan. Bi arkaista otzanek bortizkeri uholdeari jaregin zioten, salbatu nahi izan zituzten komunitateen egitura osoa aurrean eraman zuen arte desagertu ez zen uholdea.

Baina orain gure adibide heleniko eta siriakoari jarraitzen badiegu dagokien historiaren ondorengo ataletan, zera aurkituko dugu: bortizkeri pandemonium-a, kasu batean arkaismoak eta bestean futurismoak eragina, altxatu zen bortizkeri uholdeak azpian hartu eta murgilarazi zuen otzantasun-espíritu haren beraren berpizte harrigarriak baretu zuela azkenean. Gutxiengo menderatzaile helenikoaren historian K.a. azken bi mendeetako gangsterren ondoren, dagoeneko esan bezala, herri-funtzionarioen hazaldia etorri zen estatu unibertsal bat antolatu eta mantentzeko kontzientzia eta gaitasunarekin; eta aldi berean esku bortitzeko eraberritzaile arkaizanteen ondorengoak filosofo aristokratikoen eskola bihurtu ziren —Arria, Zezina Peto, Thrasea Peto, Seneka, Helvidio Presko—, eta horiek ez zuten gogobetetasunik aurkitu beren herentziazko nagusitasuna zertzen, ezta herri-interesagatik ere, eta beren buru-ukapena enperadore tirano baten aginduz otzanki beren buruaz beste egiteraino eraman zuten. Antzeratsu, mundu helenikoko barne-proletalgoaren adar siriakoan, Makabeoek armen indarrez mundu honetan erreinu mesianikoa ezartzeko egin zuten ahaleginaren porrotaren ondoren, juduen erregearen garaipena etorri zen, bere erreinua ez zelarik mundu honetakoa; hurrengo belaunaldian, ikuspegi espiritualaren eremu estuagoan, judu-zelote militanteen itxaropen etsi basatiki heroikoa, suntsipenaren orduan, Johanan ben Zakkai rabbiren ez-erresistentzia bikainki heroi-

koak konpentsatu zuen, hau judu-zeloteengandik apartatu zelarik bere irakaspenarekin lasai-lasai jarraitu ahal izateko guduaren zalapartatik kanpo. Ezinbesteko hondamendiaren albisteak eraman zizkiotenean, eta eraman zizkion dizipuluak, estu eta larri, «Ai, erruki gutaz, Israelgo bekatuengatik pekamena egiten den lekua suntsiturik baitago» oihu egin zuenean, maisuak erantzun zion: «Ene seme, ez atseka-betu horregatik; guk badugu oraindik horren pareko pekamena, eta zer da errukia ematea baizik? Idatzita dagoen bezala: 'Errukia nahiago dut sakrifizioa baino'».

Nola gertatu zen bi kasu hauetan bortizkeri uholde bat, bere bidean hesi guztiak suntsitu zituela ematen zuena, honela gerarazi eta itzularaztea? Bi kasuetan itzultze miragarria bizimoduan izandako aldaketari egotzi dakioke. Gutxiengo menderatzaile helenikoko erromatar zatiaren arimetan arkaismoaren ideala desatxikimenduaren idealak ordeztu zuen; barne-proletalgo helenikoko judu-zatiaren arimetan futurismoaren idealaren lekua antzaldaketaren idealak hartu zuen.

Agian, bi bizimodu otzan hauen nolakotasunak berorien sorrera historikoekin batera atzeman ahal izango ditugu, horietako bakoitzera konbertitu ospetsu baten nortasun eta bizi-historiaren bitartez hurbiltzen bagara: adibidez, Katon Txikiaren, filosofo estoiko bihurtu zen erromatar arkaistaren, eta Simon Bar-Jonas, Pedro —Jesusen dizipulu— bihurtu zen judu-futuristaren bitartez. Bi gizon handi haiengan bazen halako itsutasun espiritual bat, beraien handitasuna ilundu zuena, beren energia okerbideratuz hasieran zerbitzatu nahi izan zituzten utopien atzetik ibili bitartean. Eta haietako bakoitzarengan luzarotan nahasturik eta zurtuta egondako arima gai izan zen azkenean, bizimodu berri batera konbertituz, bere ahalmenik bikainenak gauzatzeko.

Erromantikoki asmaturiko, eta «benetako bizitzan» iraganean inoiz izan gabeko, erromatar πάτριος πολιτεία baten aldezkari kixotesko bezala, ia barregarria izan zen Katon. Aurkitu zuen bezala onartu nahi izan ez zuen belaunaldi baten politikan, beti itzala harra-patu nahian ibili zen eta funtsezkoan huts egiten; eta azkenean, gerra zibilean gidari-papera jokatzeari suertatu zitzaionean —gerra pizten aitortu gabeko erantzukizun handia izan zuelarik—, haren itxura-egite politikoak desilusio etsigarria pairatu beharko zuen emaitza edozelakoa izanda ere, beretarren garaipenetik sortuko zatekeen erregimena azkenean Zesarren diktadura garailea bezain higuigarria izango bai-

tzen, gutxienez Katonen ideal arkaizantearentzat. Dilema honetan kixote-politikaria filosofo estoikoak atera zuen gaitasun-gabeziatik. Arkaista bezala alferrik bizi izan zen gizonak orain estoiko bezala ondorio bikainarekin aurre egin zion heriotzari, azken finean Zesarri —eta Zesarren ondorengoei mende bat baino luzaroagoan— arazo gehiago sortu baitzion alderdi errepublikarraren gainerako guztiak batera baino. Katonen azken orduen kontaketak zirrara eragin zuen garaikideengan, gaur egun Plutarkoren narratibaren edozein irakurlek berriro bizi dezakeena. Jeinuaren senaz, Zesarrek ongi ulertu zuen antagonista haren —politikari bizidun bezala inoiz oso serio hartu beharrik izan ez zuenaren— heriotza estoikoak bere kausari emandako kolpearen larritasuna; eta mundu bat berreraikitzeke zeregin titaniakoaren erdian, gerra zibilaren ilintiak itzaltzen ari zen bitartean, militarki garaile zen diktadoreak astirik izan zuen Katonen ezpatari Zesarren lumaz erantzuteko, luma baitzen, jeinu aldakor hark ongi zekien bezala, ezpata bere bularraren kontra jartzeko Katonen keinu harrigarriak maila militarretik filosofikora eraman zuen erasotik babesteko balio zuen arma bakarra. Hala ere, Zesar ez zen gai izan azken kolpe hau eman zion kontrarioa menderatzeko; zeren eta Katonen heriotzak zesarismoaren aurkako eskola filosofikoa sortarazi baitzuen, fundatzailearen jarraibideak inspiratuta tirania berria laguntzarik gabe uzteko, onartzen ez zuten eta konpondu ezin zuten egoeratik beren burua beren eskuz baztertuz.

Arkaismotik desatxikimendurako aldaketa biziki argitzen du Marko Brutoren istorioak ere, Plutarkok kontatu eta Shakespearek birkontatu bezala. Bruto Katonen alabarekin ezkondata zegoen, eta bortizkeria arkaizante hutsala izan zen egintza ohargarri hartan —Julio Zesarren hilketan— ere parte izan zuen. Halaz guztiz, aditzera ematen zaigu, hilketa baino lehen ere, zalantzan zegoela bide zuzenetik ote zebilen, eta ondorioak ikusi eta gero are zalantza handiagoak izan zituela. Filipos-eko gudua ondoren, Shakespearek ahoan jartzen dizkion azken hitzetan, onartu egiten du Katonen irtenbidea, formalki gaitzetsia zuena. Bere buruaz beste egitean, esaten du:

*Zesar, lasai zaitez orain:
ez zintudan hil neure burua hiltzeko gogoaren erdiarekin.*

Pedrori dagokionez, hasieran haren futurismoak Katonen arkaismoak bezain zentzugaitza zirudien. Jesus Mesiasatzat onartu

zuten dizipuluetako lehena lehenengoa izan zen Maisutzat aitortuak gero errebelaturikoaren aurka protestatzen ere, hots, bere erreinu mesianikoa ez zela Zioren mundu-inperio iraniarraren judu-bertsioa izango; eta honela, bere fede oldartsuagatik sari gisa bedeinkazio berezia irabazi zuelarik, berehala erakarri zuen bere gainera errieta zanpagarria bere setakeriaitsu eta erasokorragatik, hots, Maisuak bere erreinuaz behar zuen ikuspegia dizipuluaren *idée fixe*-aren arabera behar zuelako izan:

«Alde nire ondotik, Satanas! Oztopo haiz niretzat, hire asmoak ez baitituk Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».

Maisuaren errieta beldurgarriak Pedrori bere okerra begi aurrean jarri zionean ere, irakaspenak hain eragin txikia izan zuen, ezen huts egin baitzuen hurrengo proban. Antzaldaketaren hiru lekukoetako bat izateko aukeratua izan zenean ere, Moises eta Elias bere Maisuaren ondoan ikustea *Befreiungskrieg*¹⁶² bat hasteko seinaleztat hartu zuen berehala, eta begitazio haren esanahiaren gaizki-ulertze prosaikoa han bertan kanpamendu baten gunea («hiru tabernakulu» edo denda) eraikitzea proposatuz salatu zuen, Theodas eta Judas Galileakoak beraien ekintzen berri izan eta erromatar agintariak sakanatzeko armada bizkorrak bidali bitarteko grazialdi laburrean basamortuan ezarri ohi zituztenak bezalakoak. Harmoniarik gabeko nota honen soinutan begitazioa desagertu egin zen Mesiasen bideari buruz Mesiasen beraren errebelazioa onartzeko ohartarazpenaren oihartzunean. Halaz guztiz, bigarren irakaspen hau ere ez zen nahikoa izan Pedroren begiak zabaltzeko. Maisua bere eginkizunaren gailurrean zegoenean —Hark iragarritako guztia nabarmeki egia bihurtzen ari zenean— ere, futurista zentzagaitzak borrokarako ezpata atera zuen Getsemaniko ortuan; eta baliteke gau berean geroago bere Maisuari egindako «traizioa» azkenean bere fede futurista galdu eta oraindik alternatibarik ziur ez daukanaren buru-nahastearen emaitza izatea.

Bere bizitzako esperientzia goren honen ondoren ere, Gurutziltzaketak, Pizkundeak eta Igokundeak azkenean irakatsia ziotenean Kristoren Erreinua ez zela mundu honetakoa, artean Pedro prest zegoen sinesteko erreinu antzaldatu honetan ere eskubide zibikoek juduentzat bakarrik izan behar zutela, futuristen utopia mesianikoan gertatuko zatekeen bezalaxe —zeruan Jainkoa bere erregetzat hartzen zuen gizarte bat Jainkoaren lurrean mugatua egon ahal izango

balitz bezala, muga baten bidez bertatik Jainkoaren giza izaki eta seme-alaben tribu guztiak kanporatuz, bat izan ezik. Apostoluen Eginetan Pedro agertzen zaigun azken agerraldietako batean, modu berezi batean protestatzen ikusten dugu zerutik jaitsitako maindirearen begitazioarekin zetorren agindu garbiaren kontra. Hala ere, istorio honetan Pedrok ez dio protagonista bezala lekua Paulori uzten, azkenean narrazioak jasotzen duen arte Pedrok ulertu duela egia, esperientzia espiritual ikaragarri bakar baten bidez Paulo fariseuak lipar batean atzemandako egia. Pedroren argitze-lan luzea teiltuan izandako begitazioaren ondoren Kornelioren mezulariak atera etorri zirenean osatu zen. Eta bere fede-aitortzan Kornelioren etxean, eta Jerusalemera itzulita hango jardueraren defentsa egiten duenean elkarte judu-kristauaren aurrean, Kristoren errietaryk mereziko ez zuketzen hitzekin predikatu zuen Pedrok Jainkoaren Erreinua.

Zein dira hain ondorio espiritual handiak zertu zituzten bi bizi-modu hauek, bata Katonek arkaismoaren ordeztu eta bestea Pedrok futurismoaren ordeztu hartu zituztenean? Has gaitzen batetik desatxikimendu eta antzaldaketaren eta bestetik arkaismoaren eta futurismoaren artean dauden desberdintasun komunak aipatzen, eta gero pasa gaitzen desatxikimenduaren eta antzaldaketaren arteko desberdintasunetara.

Antzaldaketa eta desatxikimendua honetan bereizten dira futurismotik eta arkaismotik: giro espiritualean benetako aldaketarekin, eta ez denbora-dimentsioan transferentzia hutsarekin, ordeztu dutela zibilizazio-hazkundearen irizpide dela aurkitu dugun makrokosmose-tik mikrokosmoserako ekintza-eremuaren transferentzi forma partikularra. Beraien helburu diren erreinuak «beste mundu batekoak» dira biak, alegia, ez dira existentzia mundutarra duten iragan edo etorkizuneko estatu irudikatuak. Hala ere, «beste mundu batekoak» izate hau da antzekotasun-puntu bakarra; gainerako alde guztietatik, desberdina-k dira beren artean.

«Desatxikimendua» deitu dugun bizimoduak hainbat izen hartu du bere jarraitzaile-eskolen aldetik. Estoikoak erretiratu egin ziren desintegratzen ari zen mundu helenikotik «zauritu ezintasunera» (ἀήθεια) eta epikureoak «ikaragaiztasunera» (ἀταραξία), Horazio poetak nolabait ere auto-kontzientziaz egindako aldarrikapen epikureoak adierazten duen bezala, «hondaturiko mundu baten

zatiek jotzen naute ikaragaitz» (*impavidum*) esaten digunean. Desintegratzen ari zen mundu indikotik budistak «baretasunera» (nirvana) erretiratu ziren. Mundu honetatik kanpora daraman bidea da; helmuga babeslekua da; eta babesleku hori erakargarri bihurtzen duen ezaugarria mundu hau kanpo uztea da. Bidaiari filosofikoa bide horretatik daraman bulkada nazkaren bultzada da, eta ez desiraren tirakada. Suntsiduraren Hiriko hautsa ari da bere oinetatik astintzen, baina ez du «Argi Distiratsu haren» begitazorik. «Mundutarrak dio: ‘Oi Zekropsen hiri maitea’; eta zuk ez al duzu esango: ‘Oi Zeusen hiri maitea’»?¹⁶³. Baina Markoren «Zeusen hiria» ez da Agustinen *Civitas Dei* bera, hau «Jainko Biziaren hiria» baita; eta bidaiari plan baten araberrako erretiratzea da fedea eragindako erromesaldia baino gehiago. Filosofoarentzat mundu honetatik arrakastaz ihes egitea helburu da berez, eta benetan ez zaio axola filosofoak zer egiten duen bere buruarekin bere babes-hiriko atalasea igaro ondoren. Filosofo helenikoek jakintsu liberatuaren egoera kontenplazio zoriontsuarena (θεωρία) zela esanez marraztu zuten, eta Budak (bere doktrina zuzen agertzen bada hinayanaren idazkietan) zintzo aitortzen du, itzultzeko aukera behin betiko baztertu den bitartean, *tathagata*-k atsedenean duen egoera alternatiboaren izaera garrantzirik gabeko gauza dela.

Nirvana edo «Zeusen hiri» ezagutezin eta neutral hori, desatxikimenduaren helburu dena, Zeruetako Erreinuaren antitesia hutsa da, antzaldaketaren erlijio-esperientziaren bidez sartzen delarik bertara. «Beste mundu» filosofikoa funtsean gurea bakarrik den mundu bat izanik Lurrean, jainkoen «beste munduak» traszenditu egiten du, gizakiaren bizitza lurterra bere barne harteari utzi gabe.

«Jainkoaren erregetza noiz iritsiko zen galdetu zioten fari-seuek; Jesusek erantzun zien: ‘Jainkoaren erregetza ez da nabarmen etorriko. Ezin esango da ‘Hona hemen’ edo ‘Hara han’, zeren Jainkoaren erregetza zuen artean baitago jadanik’»¹⁶⁴.

Jainkoaren erregetza bere izaeran positiboa dela ikusiko da «Zeusen Hiria» negatiboa den bezala, eta, desatxikimenduaren bidea erretiratze-mugimendu hutsa den bitartean, antzaldaketaren bidea dagoeneko aipatu dugun «erretiro-eta-itzulera»ko mugimendua dela.

Orain, laburtuta, jokaera, sentiera eta biziera alternatiboen sei pare azaldu ditugu, desintegratzen ari diren gizarteetan zoria erabaki-

ta duten gizakien arimek agertzen zaizkienak. Parez pare, xehetasun handiagoz aztertzeari ekin aurretik, pausa gaitezen une batez arimaren historiaren eta gizartearen historiaren arteko loturei beha orientatzeko.

Esperientzia espiritual orok gizabanakoren batena izan behar duela uste izanik, berrikusi ditugun esperientzia horien arteko zenbait, desintegratzen ari den gizarte baten zenbait zatitako kideen berezitasun direla aurkituko ote dugu? Lau jokaera eta sentiera pertsonalak —*abandonu* pasiboa eta autokontrol aktiboa, noraezaren zentzu pasiboa eta bekatuaren zentzu aktiboa— gutxiengo menderatzailearen eta proletalgoaren kideen artean berdina aurkitzen direla ohartuko gara. Bestalde, jokatu eta sentitzeko gizarte-erak aztertzerakoan, orain dugun helbururako, pare pasiboaren eta aktiboaren artean bereizi beharko dugu. Bi gizarte-fenomeno pasiboak —desertzioan erortzea eta promiskuitate-zentzuari amore ematea— lehenik proletalgoaren lerroetan agertu ohi dira eta gero hortik gutxiengo menderatzailearen lerroetara zabaltzen dira, hau normalean «proletarizazioaren» gaixotasunak mendeantzen hartzen duelarik. Alderantziz, bi gizarte-fenomeno aktiboak —martirioa bilatzea eta batasun-zentzura iratzartzea— lehenik gutxiengo menderatzailearen lerroetan agertzen dira eta gero hortik proletalgora zabaltzen. Azkenik, geure lau biziera alternatiboak aztertzen baditugu, zera aurkituko dugu: alderantziz, pare pasiboa, arkaismoa eta desatxikimendua, lehenik gutxiengo menderatzailearekin elkartu ohi direla, eta pare aktiboa, futurismoa eta antzaldaketa, proletalgoarekin.

2.

«Abandonua» eta autokontrola

Abandonu eta autokontrolaren agerpen bereziak, desintegratzen ari diren gizartearen ezaugarriak, agian zail samarrak dira identifikatzeko, hain zuzen ere bi jokaera pertsonal hauek edozein gizarte-egoeratan erakutsi ohi dituztelako gizakiek. Gizarte primitiboen bizitzan ere aldi orgiastikoa eta aszetikoa sumatzen ditugu, baita aldarte hauen urteko txandakatze ziklikoa ere, urtaroaren arabera, tribuko

kideen emozioen zeremoni adierazpen korporatiboetan. Baina *abandonu*-arekin, desintegratzen ari diren zibilizazioen bizitzetan sormenaren alternatiba bezala, sentimendu-jario primitibo hau baino zerbait zehatzagoa adierazi nahi dugu. Gogo-aldarte bat adierazi nahi dugu, non antinomianismoa sormenaren ordezkotzat onartzen baita, kontzienteki edo inkontzienteki, teorian edo praktikan. *Abandonu*-kasuak zentzu honetan ziurtasun handiagoz identifika daitezke, ikuspegi sinoptiko bakarrean hartzen saiatzen bagara autokontrol-kasuen ondoran, autokontrol hau izanik sormenaren ordezeko alternatiboa.

Arazoaldi helenikoan, adibidez, kolapsoaren ondorengo lehen belaunaldian, *abandonu* eta autokontrolaren nortze-pare bat agertzen da Alzibiades eta Sokratesi buruz Platonek *Oturuntza*-n eta Trasimako eta Sokratesi buruz *Errepublika*-n egindako erretratuetan: Alzibiadesek, grinaren esklaboak, praktikan adierazten du *abandonua*, eta Trasimakok, «indarra da zuzena» delakoaren aldekoak, teorian adierazten du jarrera bera.

Historia helenikoaren hurrengo atalean sorkuntzaren ordezeko autoadierazpenaren ahalegin hauetako bakoitzaren adierazgarriak beren jokabideen autoritatezko berrespenaren bila aurkitzen ditugu, «naturaren araberako bizimoduak» direla errebindikatuz. Meritu hau egotzi zioten *abandonuari* hedonista arrunt batzuek, Epikuroren izena alferrik erabili eta zikindu zutenek, irain honengatik Lukrezio epikurrear poeta zorrotzaren errieta jasan zutenlarik. Bestalde, «naturaltasunaren» berrespena bizitza aszetikoarentzat zinikoek errebindikatzen dutela ikusten dugu, hauen eredia Diogenes delarik bere upelean, eta gordintasun txikiagoz, estoikoek ere errebindikatzen dute.

Mundu helenikotik siriakora bere arazoaldian igarotzen bagara, *abandonu* eta autokontrolaren arteko aurkakotasun elkartezin berbera Eklesiastes liburuko teoria eszeptiko barearen eta eseniarren komunitate monastikoaren praktika aszetiko jainkozalearen arteko aldean agertzen dela aurkituko dugu.

Bada beste zibilizazio-talde bat —Indikoa, Babilonikoa, Hitita eta Maiena—, desintegratzen direnean, gizaki primitiboaren ethosera itzultzen ari direla ematen dutenak, beren erlijioaren sexualismo abandonatuaren eta beren filosofiaren gehiegizko aszetismoaren artean dagoen leizearen zabalera izugarriarekiko sentiberatasunik ezean. Kasu indikoan gurtza falikoaren eta yogaren artean bada kontraesan

bat, lehen begiratuan konponezina dirudiena; eta antzeratsu txunditzen gaituzte desintegratzen ari den Gizarte Babilonikoan tenpluko prostituzioaren eta filosofia astralaren arteko aldeek, Maien giza sakrifizioen eta penitentziazko automortifikazioen artekoek, eta Zibeles eta Atisen gurtza hititaren alderdi orgiastikoen eta aszetikoen artekoek. Beharbada bitxikeria sadikoaren aldarte komunak, haien abandonu eta autokontrolleko praktiketan berdin sartu zenak, eutsi zion, desintegratzen ari ziren lau zibilizazio hauetako kideen arimetan, praktika batzuen arteko harmonia emozionalari, praktika haiek bakean elkartzea ezinezkoa iruditu arren atzerritar ikuslearen begi analitiko hotzaz begiratuta.

Bi portaera gatazkatsu hauek berriro ari ote dira orain beren paperak jokatzeko gure Mendebaldeko Gizartearen jokaleku zabalagoan berorren historiako atal modernoan? Ez dago *abandonuari* buruzko frogararik; teori mailan Jean-Jacques Rousseauengan aurkitu du bere profeta, «naturara itzultzeko» gonbidapen erakargarriarekin, eta, gaur egun *abandonua* praktikatzeko, *si monumentum requiris, circumspice*. Bestalde, alferrik bilatuko dugu aszetismoaren kontra-piztuerarik, eta agian behin-behinean datu honetatik beste ondorio ziniko hau ateratzeko, hots, gure Mendebaldeko Zibilizazioak benetan kolapsoa izan badu, bere desintegrazioa ezin dela oraindik oso aurreratua egon.

3.

Desertzioa eta martirioa

Desertzioa eta martirioa, bi terminoen zentzu espezializatu gabe, koldarkeriaren bizioaren eta ausardiaren bertutearen produktua hutsak dira, eta alde honetatik giza jokabidearen fenomeno arruntak dira garai guztietan eta era guztietako gizarteetan. Hala ere, orain aztertzen ari garen desertzioa eta martirioa forma bereziak dira, bizi-tzarekiko jarrera berezi batek sortaraziak. Koldakeria soilagatik desertzioa eta ausardia hutsagatik martirioa ez dira gure kezka. Bila gabiltzan arima desertoreari benetako sentimendu batek eragiten dio desertzioa, alegia, berak zerbitzatzen duen kausak ez duela benetan merezi horrek eskatzen dion zerbitzua. Antzeratsu, bila gabiltzan

arima martiria ez da martiritzara joaten kausa horren aurrerapenari zerbitzu praktikoa egiteko soilik edo batez ere, baizik eta arimaren beraren gurari bizi bat asetzeko, libratu egin nahi baitu

*mundu ulergaitz honen guztiaren
zama astun eta gogaikarritik*¹⁶⁵.

Horrelako martiria, bikaina izan arren, psikologikoki suizidaren hurrengoa da. Jerga modernoan, iheslaria da, gure desertorea ere iheslaria den bezalaxe, jakina, baina aldaera doilorragokoa. Erromatar arkaistak, desatxikimenduaren filosofiara konbertituak, martiriak izan ziren zentzu honetan. Beren egintza gorenarekin ez zuten hainbeste bizitzaz gabetzen zirenik sentitzen, bizitzatik askatzen baizik; eta desertzio-kasu bat bilatu behar bagenu klase berekoa eta historialdi berekoa, Marko Antonio aipa liteke, Erromatik eta erromatarren *gravitas* idealetatik desertatu zuena erdiekialdetarturiko Kleopatren besoetan.

Bi mende geroago, kristau-aroko bigarren mendeko azken hamarkadetako gero eta iluntasun handiagoan, Marko Aureliorengan martiri-koroa bereganatzeko titulua baliogabeturik ez daukan printze bat ikusten dugu, baizik eta, aitzitik, berretsia daukana Heriok uko egin diolako martiri-proba laburtzeari *coup de grâce* baten bidez; Markoren seme eta ondorengoa izan zen Komodorengan desertore inperial baten ikuskizunaren aurrean gaude, bere herentziaren zama eramateko gutxi ahalegintzen dena, azkenean jiratu eta ihesaldi moral bizkorrean proletarizazioaren errautsezko bide zikinetik abiatzen delarik. Enperadore izateko jaioa, nahiago du gladiadore amateur gisa dibertitu.

Bere hiltzorian basati bihurturiko gutxiengo menderatzaile heleenikoaren azken erasoen jomuga nagusia Kristau Eliza izan zen; hiltzen ari zen gobernari-klase pagano honek uko egin zion egia erdiragarri bat onartzeari, hots, bera zela bere eroriko eta suntsipenaren egilea. *In articulo mortis* ere autobegirunearen azken hondar bat salbatzen saiatu zen, bere burua konbentzitzuz proletalgoaren aldetiko eraso koldar baten biktima bezala ari zela desagertzen; eta kanpo-proletalgoa orain egundoko gerra-taldetan antolatua zegoenez, eta hauek beren erasoaldi amorragarriak menderatzeko gobernu inperialaren ahaleginak desafiatu edo baztertzeke gai zirenez, eraso Kristau Elizaren gainera erori zen, barne-proletalgoaren erakunde nagusia zelarik. Proba honen pean, kristau-artaldeko ardiak argi eta garbi banatu zituen ahuntzetatik aukera beldugarri bat egin beharraren erronkak: fedeari uko egin ala

bizia sakrifikatzeak. Fede-ukatzailleak ikaragarri izan ziren —egia esateko, hainbeste izan zirenez, beraiekin nola jokatu eliz politikaren arazo gorria bilakatu zen jazarpenak bukatu orduko— baina martirien taldetxoa espiritualki ahaltsua zen, beraien kopuru-indarrarekin proportziorik gabea. Heroi hauen balentriari esker, bizia galdu arren une kritikoan kristau-lerroetatik aurrera irten baitziren testigantza ematera, Eliza garaile atera zen; eta gizon-emakumeen multzo txiki baina zintzo hark zor zaion ospe-saria baino ez du hartu historiak «martiri» *par excellence* bezala gogoratzen dituenean, Inperioko agintari paganoek eskatzean Elizaren idazteunak edo ontzi sakratuak entregatu zituzten «traidoreekiko» (*traditores*) antitesian.

Baina esan daiteke hemen koldarkeria bakarrik dagoela alde batean eta ausardia hutsa bestean, eta adibide honek ez duela balio orain dugun helbururako. Desertoreei dagokienez, ez dugu materialik eragozpen honi erantzuteko; haien zioak ahaztura lotsagarrian daude lurperatuta; baina martirien zioei buruz datu ugari dago frogatzeko ausardia desinteresatu hutsa baino zerbait gehiago —ego gutxiago, irakurleak nahiago badu— izan zela haien inspirazioaren iturburu nagusia. Gizon eta emakumeek sutsu bilatu zuten martirioa sakramentu gisa, «bigarren bataioa», bekatuak barkatzeko era eta zerurako sarbide ziurra. Ignazio Antiokiakoak, bigarren mendeko kristau-martiri aipagarrietako batek, bere buruaz «Jainkoaren gariatz» bezala hitz egiten du eta desiratzen dago noiz iritsiko ote den «basapiztien haginnek Jesu kristoren ogi aratz bihurtuko duten» eguna.

Gure Mendebaldeko mundu modernoan, sumatzen ote dugu bi gizarte-jokaera antitetiko hauen arrastorik? Ziur aski Mendebaldeko desertzio-egintza moderno ikaragarri bat, «*la trahison des clercs*» delakoa seinala dezakegu; eta traizio honen erroak sakonetik sortzen dira, agian esaldia asmatu zuen frantziar burutsuak zalantzak izango lituzke-
larik bertaraino joateko¹⁶⁶, nahiz eta ia aitortu duen zein sakon errotua dagoen gaitza Erdi Aroko eliz deitura aukeratzean gure «intelektual» modernoak seinalatu eta gaitzesteko. Beraien traizioa ez zen hasi belau-naldi honetan egindako traiziozko egintza-parearekin: fede-galtze zini-koa berriki ezarritako liberalismoaren printzipioetan, eta beronek berriki egindako irabazien entrega kemengabea. Bere azken erakustaldi hau egin duen desertzioa hainbat mende lehenago hasi zen, «clerk» direla-koek beren jatorri klerikala gaitzetsi eta gure Mendebaldeko Kristau

Zibilizazioaren eraikina erlijiozko oinarritik oinarri sekularrera aldatzen saiatu zirenean. Hau izan zen ὅτι delakoaren jatorrizko egintza, gaur egun ordaintzen ari garena, hainbat mendetan interes konposatuz meta-turiko ὑβρις bidez.

Laurehun bat urte atzerago begiratzen badugu, Ingalaterra izenaz ezagutzen den Mendebaldeko Kristandadeko zatira, Thomas Wolsey-rengan —bere zoritxar politikoaren orduan, Jainkoa bere erregea bezain ongi ez zerbitzatu izanaren errudun aitortu zen *clerk* goiztiar modernoarengan— ikusiko dugu desertore bat, bere desertzioa belztasun osoan agertu zelarik haren bukaera lotsagarritik bost urte igaro baino lehen, San Juan Fisher eta Santo Tomas Moro garaikideen martirioagatik.

4.

Noraezaren zentzua eta bekatuaren zentzua

Noraezaren zentzua, hazkundearen *élan*-a galtzeko era pasiboa, gizarte-desintegrazioko garai batean bizi behar duten gizon eta emakumeen arimak nahigabetzen dituen atsekabeen artean mingarri-netakoa da; eta min hau Sortzailearen ordezkariak gurtzean egingako idolatriazko bekatuarengatik zigorra da agian; zeren eta bekatu honetan aurkitu baitugu dagoeneko zibilizazioen desintegrazioa eragiten duten kolapsoen kausetako bat.

Zoria eta Halabeharra dira, noraezaren zentzuak atsekabeturikoen irudikoz, mundua gobernatzen duen boterearen forma alternatiboak; eta, lehen begiratuan bi nozioak elkarrekin kontraesanean daudela iruditzen arren, aztertzen badira, irudipen berberaren alderdi desberdinak bakarrik direla gertatzen da.

Zoriaren nozioa arazoaldi egipziakoko literaturan eltzegilearen gurgipilaren biraketa bizkorren similitudinekin adierazten da, eta arazoaldi helenikoaren literaturan piloturik gabe, haize eta uhinen mende, abandonatu duten itsasontziaren similitudinekin¹⁶⁷. Greziarren antropomorfismoak Zoria jainkosa bihurtu zuen, «Gure Ama Automatismoa». Timoleon-ek, Sirakusaren askatzaileak, kapera eraiki zion eta bertan opariak egin, eta Horaziok oda bat eskaini zion¹⁶⁸.

Geure bihotzean begiratzen dugunean jainkosa heleniko hau antzeratsu tronuratua aurkitzen dugu, H.A.L. Fisher-en *History of Europe* liburuaren atarikoan dagoen fede-aitormenak erakusten duen bezala:

«Kitzikapen intelektual bat... ukatu didate. Ni baino zuhur eta jakitsuagoek bilbe, erritmo, eredu predeterminatu bat aurkitu dute Historian. Harmonia horiek ezkutuan daude niretzat. Nik krisialdiak bakarrik ikus ditzaket elkarren segidan, uhinak bezala; egitate handi bat bakarrik, bakarra denez, orokortu ezin dena; historialariarentzat lege ziur bakar bat: giza destinoen bilakaeran kontingentearen eta aurreikusigabearen joko aitortu beharra».

Mendebaldean, Zoriaren ahalguztiduntasunean zegoen sineski-zun moderno honek, hemeretzigarren mendean, Mendebaldeko giza-kiari artean gauzak ongi zihoazkiola zirudienean, *laissez-faire* politika sortarazi zuen: bizitza praktikoaren filosofia hau autointeresaren argitzapen miraritsuan zeukaten fedean oinarritzen zen. Behin-behinean atsegingarria zen esperientziaren argitan, hemeretzigarren mendeko gure aiton-amonek ziotenez, bazekiten Zoria jainkosa «maite dutenen onerako dihardutela gauza guztiek» elkarrekin. Eta hogeigarren mendean ere, jainkosa hortzak erakusten hasi zenean, britainiarren atzerri-politikaren orakulua zen artean. 1931ko udazkenean hasi ziren urte erabakigarrietan Erresuma Batuko jendearen artean, baita gobernuan ere, nagusi zen ikuspegia egoki adierazita dago Ingalaterrako egunkari liberal handi baten editorialaren esaldi honetan:

«Bake-urte gutxi batzuk beti dira inabazitako urte gutxi batzuk, eta urte gutxi batzuk barru hastekoa den gerra gerta liteke inoiz ez hastea»¹⁶⁹.

Laissez-faire doktrina ezin da esan Mendebaldeak giza jakinduriaren ondarrera egindako ekarpen orijinala denik, erabilera arruntekoa baitzen orain dela bi mila urteko mundu sinikoan. Zoriaren gurtza sinikoak, ordea, gurearen aldean ez du hain jatorri iluna. Hemezortzigarren mendeko burgesia frantziarra *laissez-faire laissez-passer* horretan sinesten hasi bazen, bere «lagunkide» ingelesaren oparotasunaz ohartu, inbidia sentitu eta aztertu zuelako eta ondorio honetara iritsi zelako hasi zen: burgesiak Frantzian ere aurrera egin zezakeela Ingalaterran bezalaxe, Luis erregea Jorge erregearen bidea-

ri segitzera bultzatuz gero, alegia, burgesiari onartzea honek nahi zuena manufakturatzea, murrizketarik gabe, eta salgaiak edozein merkatutara bidaltzea, zergarik gabe. Bestalde, erresistentziarik txikieneko lerroa, handik joan zelarik noraezean mundu siniko nekatua Kristo aurreko bigarren mendeko lehen hamarkadetan, ez zegoen pentsatua errota kurrinkaritik azoka builatsuraino zaldi-bide izateko, baizik eta egia eta bizia zen bide izateko: *tao*-ak «‘Unibertsoak funtzionatzen duen era’ esan nahi du, eta azkenean Jainkoaren antzeko zerbait, termino honen zentzurik abstraktuen eta filosofikoenean»¹⁷⁰.

*Tao handia noraezean doan ontzia bezala da:
har dezake bide hau, har dezake beste hori*¹⁷¹.

Baina *laissez-faire* horren jainkosak badu beste aurpegi bat, eta hor ez da Zoria bezala gurtzen, baizik eta Halabeharra bezala. Halabeharraren eta Zoriaren bi nozioak gauza berari begiratzeko era desberdinak baino ez dira. Adibidez, lemarik gabeko ontziaren mugimendu desordenatua, Platonen begietara Jainkoak abandonaturiko unibertsoaren kaosa adierazten duena, dinamikaren eta fisikaren beharrezko jakintza duen buruak haize eta uraren erdian uhin eta lasterren jokabide ordenatuaren adibide ezin hobetzat har dezake. Noraezean dabilen giza arimak ulertzen duenean kontra egiten dion indarra ez dela arimaren borondatearen ukapena soilik, baita berezko zerbait ere, orduan jainkosa ikustezinaren aurpegia aldatu egiten da alderdi subjektibo edo negatibotik —zeinetan Zoria bezala ezagutzen baita— alderdi objektibo edo positibora —zeinetan Halabeharra bezala ezagutzen baita—, baina hau jainkosaren funtsezko izaeran edo bere biktimen egoeran pareko aldaketarik gabe.

Halabeharraren ahalguztiduntasunaren dogma existentziaren maila fisikoa, badirudi Demokritok sartu zuela pentsamendu helenikoan; filosofo honen bizitza luzeak (*circa* K.a. 460-360) astia eman zion Zibilizazio Helenikoaren kolapsoaren ikusle bihurtu aurretik gizonarora iristeko, eta geroztik desintegrazio-prozesua hirurogeita hamar urtez ikusteko; baina badirudi ez zituela kontuan izan determinismoaren agintea eremu fisikotik moralera hedatzean inplikaturiko arazoak. Determinismo fisikoa zen, halaber, mundu babilonikoko gutxiengo menderatzailearen filosofia astralaren oinarria, eta kaldearrak ez ziren uzurtu printzipio bera gizakien bizitza eta zorieta hedatzerakoan. Oso litekeena da Zenonek, filosofia estoikoaren sor-

tzaileak, ez Demokritogandik baizik eta iturburu babilonikoetatik ateratzea bere eskola kutsatu zuen erabateko fatalismoa, Zenonen dizipuluetako ospetsuena izan zen Marko Aurelio enperadorearen *Gogoetak* obran edonon agertzen dena.

Mendebaldeko mundu modernoak, dirudienez, lur landu gabea goldatu du Halabeharraren agintea ekonomiaren arlora hedatzean; egia esan, gizarte-bizitzako eremu hau aintzat ez dute hartu edo baztertu egin dute beste gizarte batzuetako pentsamenduak zuzendu dituzten buru gehientsuenek. Determinismo ekonomikoaren azalpen klasikoa Karl Marxen filosofia —edo erlijioa— da, noski; baina gaur egungo Mendebaldeko munduan, ohartuki edo oharkabean beren egintza bidez determinismo ekonomikoan sinesten dutela aitortzen dutenen kopurua marxistatzat agertzen direnen kopurua baino askoz handiagoa da, eta artxikapitalisten falange bat ere izango luke barruan.

Halabeharraren subiranotasuna eremu fisikoan, Mendebaldeko psikologo modernoek gure eskola sortu berriko fakzio batek ere gutxienez aldarrikatu izan du, arimaren existentzia —nortasun edo osotasun autodeterminatzaile bezala— ukatzeko tentazioa izan duela-rik, arimaren jokabide psikikoaren prozesuak aztertzeko lanetan hasieran izan bide zuen arrakastak asaldatuta. Eta psikoanalisiaren zientzia gaztea izan arren, arima-gaiaren ingurunean Halabeharraren gurtzak bere konbertitutzat errebendika dezake, bere garaipen laburra- ren orduan, garaiko politikaririk ospetsuena.

«Nik sonanbuloaren ziurtasunaz darraiot neure bideari, Probidentziak bidali didan bideari».

Hitz hauek Adolf Hitlerrek Munichen 1936ko martxoaren 14an emandako hitzaldi batekoak dira; eta hotzikara eragin zuten Hirugarren Reich-aren mugaz kanpoko (eta agian baita barruko) milioika gizon eta emakume europarrengan, hauen nerbioek ez baitzuten astirik izan zazpi egun lehenago Renaniaren berrokupazio mili- tar alemanak eragindako shock-etik oneratzeko.

Bada determinismo psikikoaren kredoaren beste bertsio bat, giza bizitza bakar baten Lurreko denboraldi laburraren mugak apur- tzen dituen eta kausa-efektu katea denboran atzera eta aurrera erama- ten duena: atzera, lurreko etapa honetan gizakiaren lehen agerpenerai- no, eta aurrera, bertatik azkenean irteteraino. Doktrinak bi aldaera ditu, dirudienez elkarren mendetasunik gabe sortuak. Aldaera bat jatorrizko

bekatuaren kristau-ideia da; bestea *Karma*-ren ideia indikoa, budismoaren filosofian eta hinduismoaren erlijioan sartua. Doktrina bakar baten bi bertsio hauek bat datoz funtsezko puntu batean: kausa eta efektuaren kate espiritualak lurreko bizitzatik beste batera etengabe pasaraztean, alegia. Kristau-ikuspegian nahiz indikoan bietan esaten da gaur egun bizi den gizaki baten izaera eta portaera iraganean bizi izandako beste bizialdi batzuetan —edo bakar batean— zertutako ekintzek kausalki baldintzatuta daudela. Neurri honetaraino bat datoz ideia kristaua eta indikoa, baina puntu honetatik aurrera ez datoz bat.

Jatorrizko bekatuaren kristau-doktrinak dioenez, giza arrazaren gurasoaren bekatu pertsonal partikularrak bere ondorengotza guztiari gaixotasun espiritualaren ondarea utzi dio, honetatik libre izango zelarik Adamek ez balu grazia galdu; eta Adamen ondorengo orok haren akats hau heredatu beharko dute, arima bakoitzaren bakartasun eta banakotasun psikikoa gorabehera, kristau-erlijioaren funtsezko printzipioa den zerbait. Doktrina honen arabera, lorturiko ezaugarri espiritual bat bere ondorengo fisikoei transmititzeko gaitasuna Adamek izan zuen, baina hark bakarrik, berak sorturiko arrazan.

Jatorrizko bekatuaren doktrinaren azken ezaugarri hau ez da aurkitzen *Karma*-ren ideian. Doktrina indiko honen arabera, edozein gizabanakok bere egintzen bidez lortzen dituen ezaugarri espiritualak guztiak transmititzen dira, lehenengotik azkenekoraino, onerako nahiz txarrerako, salbuespenik gabe; eta ondare espiritual metatu honen eramailea ez da zuhaitz genealogikoa, nortasun banatuen segida bat irudikatzen duena, baizik eta jarraitasun espiritual bat da, berraragizatze-serie batean zentzumenen munduan agertu eta berragertzen dena. Filosofia budistaren arabera, *Karma*-ren jarraitasuna da «arimen transmigrazio» edo metempsikosi honen kausa, pentsamendu budistaren axiometako bat, alegia.

Azkenik, determinismoaren forma teistari erreparatu behar diogu, agian forma guztietan arraro eta maltzurrena, determinismo teista honetan idolo bat gurtzen baita benetako Jainkoaren antzera. Estalitako idolatria honen jarraitzaileek oraindik teorikoki jainkozko nortasunaren ezaugarri guztiak egozten dizkiote beren gurtzagaiari, eta aldi berean transzendentziaren ezaugarri bakarra azpimarratzen dute, hain proportziorik gabe, ezen haien Jainkoa *Saeva Necessitas* bera bezain adieraztezin, errukigabe eta inpertsonal bihurtzen baita. Gizarte

Siriakoaren barne-proletalgotik sortutako «erlijio nagusien» arlo espi-
tualetan du teismo transzendentalaren perbertsio idolatra honek sartze-
ko joera handiena. Horren bi adibide klasikoak *Qismet*-en nozio islami-
koa eta predestinazioaren doktrina dira, azken hau Kalbinok Genevako
protestantismo militantearen sortzaile eta antolatzaileak formulatua.

Kalbinismoaren aipamenak buru askorentzat buruhausgarri bat
izan den arazoa sortzen du, eta horri irtenbideren bat aurkitzen saiatu
behar dugu. Aditzera eman dugunez, kredo determinista gizarte-
-desintegrazioaren sintoma psikologikoetako bat den noraezaren adie-
razpena da, baina gauza ukaezina da determinista aitortu izan den jende
asko benetan nabarmendu dela, banaka nahiz taldean, bere ezohiko
energia, jarduera eta gaitasunagatik, baita ezohiko ziurtasunagatik ere.

*«Etika erlijiosoaren paradoxa zentralak —hots, zentzu nagu-
sian, botere batek mundua onenerako prestatu duela eta eurak botere
horren tresna apalak direla konbentziturik daudenek bakarrik izaten
dutela mundua azpikoz gora jartzeko adorea— ereduak adierazpide
berezia aurkitzen du (kalbinismoan)»¹⁷².*

Kalbinismoa, hala ere, kredo fatalistaren hainbat adibide
nabarmenetako bat bakarra da, itxuraz kontraesanean dagoena bere
jarraitzaileen portaerarekin. Kalbinistek (genevarrek, higanotek,
holandarrek, eskoziarrek, ingelesek eta iparramerikarrek) erakutsita-
ko izaera beste predestinaziozale teista batzuek ere erakutsi izan dute:
adibidez, judu-zeloteek, arabiar musulman primitiboek eta beste garai
eta arraza batzuetako musulmanek: adibidez, Otomandar Inperioko
janizariak eta Sudango mahdistek. Eta hemeretzigarren mendean
Mendebaldeko aurrerapenaren jarraitzaile liberalengan eta hogeiga-
rren mendean Errusiako komunista marxistengan pentsaera ateoko bi
sekta predestinaziozale ikusten ditugu, hauen ethosak kidetasun han-
dia duelarik Halabeharraren idoloa gurtzen duten lagun teistenenare-
kin. Komunisten eta kalbinisten arteko paralelotasuna gorago aipatu
dugun historialari ingelesaren luma bikainak deskribatu du:

*«Ez da apeta hutsa esatea, jokaleku estuagoan baina ez arma
kaskarragoekin, Marxek hemeretzigarren mendeko proletalgoaren
alde egin zuena egin zuela Kalbinok hamaseigarrengo burgesiaren
alde, edo predestinazioaren doktrinak asetu zuen segurtasun-gosea —
unibertsoko indarrak aukeratuaren alde daudelakoa— eta beste garai
batean materialismo historikoaren teoriak asebate zuena berdina»*

zirela. Hark... Herri Aukeratu zirela sentitzen irakatsi zien, *Probidentziaren planean zuten eginkizun handiaren kontzientzia eman zien eta hori zertzeko erabakia*»¹⁷³.

Hamaseigarren mendeko kalbinismoaren eta hogeigarren mendeko komunismoaren lokarri historikoa hemeretzigarren mendeko liberalismoa da.

«*Determinismoa oso modan zegoen garai honetarako, baina zergatik izan behar zuen determinismoak kredo etsigarria? Inola ere baztertu ezin dugun legea Aurrerapenaren Lege bedeinkatua da: 'estatistikaz neur daitekeen hobekuntza-mota hori'. Geure izarrei eskertu baino ez genien egin behar horrelako ingurunean kokaturik egoteagatik eta kementsu jarraitu naturak agindu digun garapen-bideari; kontra egitea fedegabekeria eta alferrikakoa litzateke aldi berean. Honela, aurrerapenaren superstizioa irmo ezarria zegoen. Superstizioak, herri-erlijio bilakatzeko, filosofia bat esklabo hartzea besterik ez du behar. Aurrerapenaren superstizioak gutxienez hiru filosofia esklabo hartzeko zori on berezia izan zuen: Hegel, Comte eta Darwinenak. Arraroena da filosofia hauetako bat ere ez dela benetan ustez euskarritzen zuten sineskizunaren aldeko*»¹⁷⁴.

Filosofia determinista bat onartze hutsa berez ekintza konfiatu eta arrakastaturako akuilu dela ondorioztatu behar ote dugu? Inola ere ez; zeren eta predestinazio-kredoen jarraitzaileek, zeinengan fedeak eragin indargarri eta estimulagarri hau izan baitu, badirudi guztiek egin dutela suposizio ausart hau: beren borondatea bat zetorrela Jainkoaren borondatearekin edo Naturaren legearekin edo Halabe-harraren dekretuekin, eta beraz, *a priori*, gailentzera zuzendua zegoela. Kalbinisten Jehova bere hautatuaren alde egiten duen Jainko bat da; marxisten Halabehar historikoa indar inbertsonal bat da, proletalgoaren diktadura dakarrena. Honelako uste batek garaipenean konfiantza sortzen du, eta hau, gerraren historiak erakusten duenez, *moralaren* iturburuetako bat da, eta, beraz, bere burua justifikatzera jotzen du, aurrez suposatutzat eman den emaitza lortuz. '*Possunt quia posse videntur*'¹⁷⁵ (badezakete, badezaketela uste dutelako) zen Virgilioren estropadan azkenean garai-le izan zen eskifaiaren arrakastaren sekretua. Labur esanda, Halabeharra aliatu indartsua izan daiteke badela suposatzen denean; baina, jakina, suposizioa ὕψις-egintza bat da —eta gorena, gainera—, bere azken gezurtapenera gonbidatzen duena gertaeren ezinbesteko logikagatik.

Garaipenaren konfiantza Goliaten hondamendia gertatu zen azkenean, Davidekin izandako topaketak haren borrokaldi arrakastatsuen serie luzea eten eta bukarazi zuenean. Marxistak ia ehun urtez bizi izan dira beren ustean oinarrituta, eta kalbinistak lau bat mendez, oraindik ez zaielarik globoa hustu; baina musulmanek, duela hamahiru bat mende sineskizun harro baina frogatu gabeko horrekin konprometitu zirenek, eta horren indarrari esker beren aurreko historian balentria ondo indartuak egin zituztenek, astirik izan dute egun txarrak ezagutzeko; eta azkenaldiko atsekabeen aurrean izan duten erreakzioaren ahultasunak adierazten du determinismoak ezbehar-garaian *moral*a hondatzera jotzen duela, estimulatzen jotzen duen bezainbat, topaturiko erronkak erantzun eraginkor baten irispidean dauden bitartean. Predestinaziozale desilusionatuak, esperientzia gogorren bidez, azken finean, bere Jainkoa ez dagoela bere alde ikasi duelarik, ondorio ikaragarri honetara iritsi behar du nahitaez, hots, bera eta bere homunkulo-kideak zera direla:

*Pieza baliogabeak Beraren jokoan
gau eta egunen xake-ohol honetan,
han-hemenka mugitu, eraso eta mate,
eta banan-banan kutxan utziak berriro*¹⁷⁶.

Noraezaren zentzua sentimendu pasiboa den bitartean, bere kontrapartida eta antitesi aktiboa bekatuaren zentzuan du, hau erreakzio alternatiboa delarik porrot moralaren kontzientzia berdin-berdinarekiko. Funtsean eta espirituan bekatuaren zentzuak eta noraezaren zentzuak elkarrekiko kontrasterik zorrotzena agertzen dute; zeren eta, noraezaren zentzuak opioaren eragina baitu ariman gaitzarekiko onarpen maltzurra sartzean, gaitz hori biktimaren kontrolaz haragoko kanpo-zirkunstantzietan dagoela uste izaten delarik; bekatuaren zentzuak, berriz, estimuluaren eragina du, bekatariari esaten diolako azken finean gaitza ez dela kanpokoa, baizik eta bere barruan dagoela eta, beraz, bere borondatearen mende, aski delarik berak Jainkoaren asmoa bete nahi izatea eta Jainkoaren onginalhiaren irispidean jartzea. Honetantxe datza Kristau¹⁷⁷, aldi batez, iraulkatu zen Etsipenaren Aintziraren eta «ataka hartara» joanarazi zuen hasierako bulkadaren arteko alde guztia.

Hala ere, bada «inorena ez den lurralde» moduko bat, non gainjartzen diren bi aldarteak, *Karma*-ren ikusmolde indikoan zeharbidez onartuta dagoen bezala; zeren eta, alde batetik, *Karma*, «jatorrizko bekatura» bezala, arima zamatzen duen eta zapuzteko aukerarik uzten

ez duen ondare espiritualtzat hartzen den arren, *Karma*-ren zamaren metaketa, une jakin batean dagoen bezala, gehitu edo gutxitu egin daiteke gizabanakoaren berariazko eta borondatezko ekintzaren bidez, banakoagan baitago arima gorpuztua une jakin batean. Patu konkistagaitzetik Bekatu konkistagarriako igarotze berdina egin daiteke kristau-bizimoduan zehar; zeren eta, kristau-arimari Adamengandiko herentzia den jatorrizko bekatuaren orbana arazteko aukera eskaintzen baitzaio Jainkoaren grazia bilatu eta aurkituz, giza ahaleginari Jainkoak emandako erantzun bezala bakarrik irabazten dena.

Bekatuaren zentzura iratzartze bat detektatzen da hil ondorengo bizitzaren ikusmolde egipziakoaren garapenean, arazoaldi egipziakoan zehar, baina kasu klasikoa Israel eta Judako profeten esperientzia espiritual da arazoaldi siriakoan. Profeta hauek beren egiak aurkitzen eta mezua ematen ari zirenean, gizartea —zeinen altzotik sortuak baitziren eta bertako kideengana ari baitziren zuzentzen— jada erremediorik gabeko miserian zegoen asiriar tigrearen atzaparretan. Beren gizartegorputza egoera beldurgarri horretan zeukaten arimentzat balentria espiritual heroikoa izan zen beren miseriaren azalpen nabaria —kanpo-ko indar material eutsiezineko baten lana zela— errefusatzea, eta, azaleko itxurak gorabehera, beren atsekabeen eragilea beren bekatua zela asmatzea eta, beraz, beren esku zegoela benetako askapena irabaztea.

Egia salbatzaile hau, Gizarte Siriakoak bere kolapso eta desintegrazioaren proban aurkitu zuena, Israelgo profetengandik heredatua zen eta mundu helenikoko barne-proletalgoaren adar siriakoak kristau-itxuraz barreiatua. Erabat ez-helenikoa zen ikuspegiz arima siriakoek jada atzemaña zuten printzipio batean, atzerritar sorburuko heziketa hau gabe, Gizarte Helenikoak sekula ez zukeen lortuko bere ethosarekiko hain desberdina zen ikasgaia ikastea. Aldi berean, greziarrentzat izan zena baino ere zailagoa izan zitekeen aurkikuntza siriako hau serio hartzea, beraiek ere, beren mugimenduz, norabide berean mugitu izan ez balira.

Berezko iratzartze hau bekatuaren zentzura, erreka helenikoa korronte siriakoarekin kristautasunaren ibaian nahastu baino hainbat mende lehenago aurki daiteke helenismoaren historia espiritualean.

Orfismoaren jatorri, izaera eta asmoaren interpretazioan zuzen ibili bagara, bada frogarik, Zibilizazio Helenikoak kolapsoa izan baino lehenago ere, arima heleniko gutxi batzuek behintzat, beren berezko kultur ondarean zegoen hustasun espiritualaren hain kon-

tzientzia mingarria izatera iritsi zirenez, Zibilizazio Minoiko sortzai-leak ezin eman izan zien «erlijio nagusia» artifizialki asmatzeko *tour de force*-ra jo zutela esateko. Edonola ere, egia da, K.a. 431ko kolapsoaren ondorengo lehen-lehen belaunaldian, orfismoaren aparatuz baliatu —eta abusatu— egiten zela jadanik bekatu-konbiktuak ziren eta, itsumustuan bada ere, bekatutik askatu nahian zebiltzan arimei pekamena emateko. Honetarako Platonen pasarte baten lekukotasuna dugu, ia Luteroren lumatik irten zitekeena.

«Badira berritsuak eta asmatzaileak beren salgaiak aberatsei atez ate saltzen dizkietenak, eta kinkilari hauek sinestarazten diete ahalmenak dituztela, sakrifizio eta xarmadura bidez jainkoengandik eskuratuak, beraiek edota arbasoek eginiko edozein bekatu dibertsio eta jaialdi bidez sendatzeko... (Musa eta Orfeoen) liburu hauei jarraitzen diete beren trikimailuetan; eta, jende pribatua bezalaxe, gobernuak ere konbentzitzen dituzte bekatuarekiko askapen eta garbikuntza sakrifizio eta ume-jolas atseginen bitartez lor daitezkeela. Gainera, esaten dute 'erri-to' hauek (honela deitzen dituzte gai honi lotuta) bizientzat bezain eraginkorrak direla hildakoentzat. 'Erritoek' libratzen gaituzte hilobiaz harantzagoko munduko atsekabeetatik, baina patu beldurgarria dauka-gu zain hemen eta orain sakrifizioak egiteari uzten badiogu»¹⁷⁸.

Gutxiengo menderatzaile helenikoaren arimetan bekatuaren berezko zentzuaren lehen ikuspenak itxaropen gutxi sortzen du, eta bai nazka. Hala ere, lau mende geroago bekatuaren berezko zentzu helenikoa aurkitzen dugu, sufrimenduaren sutan araztua ia ezagutzerik ez dagoen eran; zeren eta, ia kristau-nota bat baitago Augustoren aroko gutxiengo menderatzaile helenikoaren ahotsean, Virgilioren poesian entzunarazten den bezala. Lehen Georgikoaren bukaerako pasarte eza-guna noraezaren zentzu torturatzailetik askatzeko otoitza da, eta bekatuaren aitortza-forma hartzen du. Are gehiago, bekatua, zeinetatik askatzeko eskatzen baitio poetak zeruari, izenez «jatorrizko bekatu» bat izan arren, Troiako arbaso ospetsuren batengandik heredatua, pasartearen indar guztiak hori alegoria dela ulertzera bultzatzen du irakurlea eta Virgilioren garaian erromatarrek benetan ordaintzen ari diren bekatua, beraiek Bigarren Gerra Punikoan murgildu zirenetik igarotako bi mendeetan aurrerabide hondagarrian etengabe egindako bekatua zela.

Virgilioren poema idatzi zenetik mende batera, pasarte hauetan arnasten den espiritua nagusitzera iritsia zen oraindik kristautasunaren

irradiazioaren irispidean nekez jarria zen Gizarte Helenikoaren maila batean. Atzera begiratuta, argi dago Seneka eta Plutarko eta Epikteto eta Marko Aurelioren belaunaldiak oharkabean bihotzak prestatzen ari zirela iturburu proletario batetik hurbiltzen ari zen argitzapenerako, intelektual heleniko sofistikatu hauek sekula ez zutelarik pentsatuko sorburu horretatik ezer onik aterako zenik. Bihotzaren oharkabeko prestakuntza eta, aukeraturiko kasu partikularrean, argitzapen proletarioaren eskaintzaren errefusapen sofistikatua zorroztasun eta zoriontasun ohargarritz daude erretratatuta Robert Browning-en *Kleon* pertsonai azterketan. Kleon, kristau-aroko lehen mendeko gutxiengo menderatzaile helenikoko filosofo irudikatu bat, «adoregabezia sakontzat» deskribatzen duen gogo-aldartera eraman du bere histori azterketak. Hala ere, aditzera ematen zaionean berak konpondu ezin dituen arazoak «Paulo delako bati» planteatzeko, haren *amour-propre* sutu egiten da.

*Ezin duzu pentsatu judu barbaro huts batek,
Paulo bezalako erdaindu batek,
guri gordetako sekretuaren berri izango duenik*¹⁷⁹.

Gizarte Heleniko eta Siriakoa ez dira, ziur aski, gizarte-egitura zahar bat hondatuta erortzen ikusteak eragindako shock-agatik bekatuaren zentzura iratzarri diren zibilizazio bakarrak. Gizarte horien zerrenda bat egiten saiatu gabe, galde genezake, ondorio gisa, ea geure gizartea ere ez ote geniokeen zerrenda horri erantsi behar.

Bekatuaren zentzua gure Mendebaldeko homunkulu modernoari oso ezagun zaion sentimendua da, zalantzarik gabe. Ia nahitaez ezarri zaio nolabaiteko etxekotasuna berarekin; zeren eta, bekatuaren zentzua heredatu dugun «erlijio nagusiaren» funtsezko ezaugarrietakoa baita. Kasu honetan, hala ere, badirudi etxekotasunak mespretxua baino gehiago higuin positiboa sortarazi duela azkenaldian; eta Mendebaldeko mundu modernoaren jite honen eta mundu helenikoak K.a. seigarren mendean izan zuen kontrako jitearen arteko aldeak gaiztakeri joera erakusten du giza izaeran. Gizarte Helenikoak, interesgarri eta gogobetegarri ez zen panteoi barbaro baten erlijio-ondarearekin hasi zuen bizitza, eta badirudi bere pobrezia espiritualaz ohartu eta hutsune hori bete-tzeari ekin ziola, honetarako orfismoan asmatu zuelarik «erlijio nagusi» bat, beste zibilizazio batzuek aurrekoengandik heredatutakoen motakoa; eta erritual eta doktrina orfikoaren izaerak garbi uzten du bekatuaren zentzua izan zela erlijio-sentimendu zapaldua, zeini seigarren men-

deko greziarrek irrikaz, eta guztiaren gainetik, irteera normal bat aurkitu nahi baitzioten. Gizarte Helenikoarekiko kontrastean, gure Mendebaldeko Gizarteak da eskuzabalkien hornituriko zibilizazioetako bat, «erlijio nagusi» baten itzalpean eta eliza unibertsal baten krisalidaren barruan hazi dena; eta Mendebaldeko gizakiak, bere berezko kristau-eskubidea ziurtzat jotzeko gai izan delako beti, agian horregatik mespretxatu du hain sarri eta arbuiatzeraino iritsi da ia. Izan ere, helenismoaren kultura —gure Mendebaldeko kultura sekularrean Italiar Errenazimentuaz geroztik hain osagai indartsua eta era askotara hain emankorra izan dena— neurri batean sustatu eta horri bizirik eutsi diona helenismoaren ikuspegi konbentzionala izan da eta bizimodu honek bikain konbinatzen du gure Mendebaldeko bertute eta konkista moderno guztiarekin berezko eta esfortzurik gabeko askatasun bat, orain Mendebaldeko gizakia bere kristau-herentzia espiritualetik lan handiz garbitzen ari den bekatu-zentzuarekiko askatasuna. Ez da kasualitatea protestantismoaren aldaerarik modernoek, Zeruaren kontzeptua gordetzen duten bitartean, Infernuaren kontzeptua erabat baztertu izana, eta Deabruaren kontzeptua gure satira-idazle eta komedianteei eman izana.

Gaur egun zientzia fisikoaren kultura zokoratzen ari da helenismoaren kultura, baina bekatuaren zentzua berreskuratzeko itxaropenak ez dira horregatik hobetu. Gure gizarte-erreformatzaile eta filantropoak oso prest daude behartsuaren bekatuak kanpo-zirkunstantziek eragindako ezbehartzat hartzeko: «Zer espero dezakezu auzo pobre horietako batean jaio denarengandik?». Eta era berean gure psikoanalistak prest daude beren pazienteen bekatuak barne-zirkunstantzia, konplexu eta neurosiekin eragindako ezbehartzat hartzeko: egia esan, bekata esplikatu eta desenkusatu egiten dute, gaitz bat bailitzan. Pentsamendu-bide honetan Samuel Butler-en *Erewhon*-eko filosofoak izan zituzten aurretik, non, irakurleak gogora dezakeenez, Mr. Nosnibor gizajoak famili ‘zuzentzailea’ (*sc.* medikua) ekarrarazi baitzuen desfalku-atake bat jasaten ari zelako.

Mendebaldeko gizaki modernoak damutuko, eta apartatuko, ote da bere ὕβρις-etik bere nemesia ἄτη-n aurkitu baino lehen? Erantzuna ezin daiteke aurreikusi, baina geure garaiko bizitza espiritualaren paisaia araka genezake irrikaz, ea, antzutzeko ahal dugun guztia egin ondoren, ahalmen espiritualak berriro erabiltzen ari garen esperantza izateko sintomarik aurkitzen ote dugun.

5.

Promiskuitate-zentzua

a) Arruntasuna eta barbarotasuna maneretan

Promiskuitate-zentzua zibilizazioaren hazkundearekin *pari passu* garatzen den estilo-zentzuaren ordezkoko pasiboa da. Espiritu-egoera honek eragin praktikoa nork bere burua arragoara entregatze-ko egintzan izaten du; eta gizarte-desintegrazioaren prozesuan aldarte berdin-berdina agertzen da gizarte-bizitzako eremu guztietan: erlijioan, literaturan, hizkuntzan eta artean, baita «manera eta ohituren» eremu zabalago eta zehazgabeagoan ere. Operazioak azken arlo honetan hastea komeniko da.

Gure proba-bilaketan puntu honetan itxaropenik handienaz gure begiak barne-proletalgoarengana zuzenduko ditugu agian, dagoeneko ikusi baitugu barne-proletalgoen atsekabe komun eta bereizgarria erroetatik erauzia izatearen tortura dela; eta espero liteke gizarte-deserrotzearen esperientzia beldurgarri honek, beste esperientzia guztien gainetik, promiskuitate-zentzua sortzea hori jasatera behartuta daudenen arimetan. *A priori*-zko itxaropen hau ez dute, ordea, datuek berresten; zeren eta, oso sarri, barne-proletalgoak jasan behar izaten duen probak gogortasun-maila hobezina eragiten baitu estimulagarri bihurtuz, eta honela barne-proletalgoa osatzen duen jende deserrotu, erbesteratu eta esklabo bihurtua, bere gizarte-ondarearen hondakinei tinko eusten ez ezik, gutxiengo menderatzaileari ematen ere ikusten dugu, nahiz eta, *a priori*, gutxiengo horrek bere sarean harrapatu eta uztarpean jarri duen jendaila babesgabeari bere kultur eredua ezartzea espero beharko genukeen.

Are harrigarriagoa da gutxiengo menderatzailea abegitsu ikus-tea —ikusten dugun bezala— kanpo-proletalgoaren kultur eraginaren aurrean, kontuan izaten badugu gerra-talde ikaragarri hauek muga militar batek bakartzen dituela gutxiengo menderatzailetik eta beraien gizarte-ondare barbaroa xarma eta ospe faltan egon zitekeela, zibilizazio helduen zarpailek ere oraindik atxikita dituzten xarma eta ospea, zibilizazio horien oinordeko delarik barne-proletalgoa, bere nahigabe-ko errekluta batzuei dagokienez, behintzat.

Hala ere, praktikan aurkitzen dugu, desintegratzen ari den gizarte bat banatu ohi den hiru zatikietatik, gutxiengo menderatzailea dela bizkorren amore ematen diona promiskuitate-zentzuari, eta gutxiengo menderatzailearen proletarizazio honen azken emaitza gizarte-gorputzeko zisma desagertzea dela, gizarte-kolapsoaren adierazgarri eta zigorra den zisma. Gutxiengo menderatzaileak azkenean bere bekatuak pekatzen ditu bere egintza izan zen zirriztua itxiz eta bere proletalgoekin bat eginez.

Proletarizazio-prozesu honen bideari bere bi lerro paraleloetan —bulgarizazioan barne-proletalgoarekiko harremanagatik eta barbarizazioan kanpo-proletalgoarekiko harremanagatik— segitzen ahalegindu aurretik, komenigarria izan daiteke inperiogileen harmenaren frogetako batzuei begiratu bat ematea, aurretiko joera honek neurri bateraino ondorengoa esplikatu baitezake.

Estatu unibertsalak, zeinen arkitektoak baitira inperiogile hauek, konkista militarren produktu dira gehienbat eta, beraz, teknika militarren eremuan bilatu behar ditugu harmenaren adibideak. Erromatarrek, adibidez, Polibioren arabera, baztertu egin zuten beren zaldieri ekipamendua eta konkistatzen ari ziren greziarren hartu zuten. Egiptoko «Inperio Berriaren» fundatzaile tebastarrek beren kontrario menderatuengandik, nomada izandako hiksoengandik, hartu zituzten zaldia eta gurdia gerra-armatzat. Osmanliar garaileek ere Mendebaldetik hartu zuten su-armen asmakuntza eta, borroka partikular honetan joera aldatu zenean, Mendebaldeko munduak osmanliarrengandik hartu zuen infanteria profesional diziplinatu, trebatu eta uniformatuaren arma izugarri ahaltsua.

Baina mailegu horiek ez dira mugatzen arte militarra. Herodotok dioenez, pertsiarrek, auzoko guztiak baino hobeak zirela aldarrikatu arren, jantzi zibila mediarrengandik hartu zuten, baita kanpotarren hainbat gehiegikeria ere, greziarrengandik naturaren kontrako bizio bat barne; eta «oligarka zaharrak», bosgarren mendeko Atenasen aurkako kritika zorrotzetan, esaten du bere herrikideak, itsasoaren kontrolaren bidez, atzerriko ohiturengatik hondamen handiagoa jasateko arriskuan egon zirela, hain ekimen handikoak ez ziren greziar komunitateetako hirietan ikus zitekeena baino. Guri dagokigunez, gure tabako-erretzeak Ipar Amerikako aborigen larrugorrien suntsipena oroitarazten du, gure kafe-hartzeak eta te-edateak eta polo-

-jokoak eta pijama-erabiltzeak eta turkiar bainuek negoziolari frankoa otomandar Rum enperadorearen eta Indiako enperadore mogolaren egoitzetan sartzea oroitarazten du, eta gure jazzak afrikar beltza esklabo hartu eta Atlantikoan zehar amerikar lurreko plantazioetan —desagertutako indiar gorrien ehiza-lurretan zeudenetan— lan egitera garraiatu genueneko oroitarazten du.

Desintegratzen ari den gizarte batean gutxiengo menderatzailearen harmenaren frogarik nabarienetako batzuen atariko kontaketa honen ondoren, ekin diezaiogun orain geure ikerketari, lehenengo gutxiengo menderatzailearen bulgarizazioarenari, fisikoki bere mende duen barne-proletalgoarekin izandako truke baketsuaren bidez, eta gero haren barbarizazioarenari, uztarpetik ihes egiten dion kanpo-proletalgoarekiko gerrazko trukearen bidez.

Gutxiengo menderatzailearen trukea barne-proletalgoarekin baketsua den bitartean, jada proletarioak konkistatuak izan diren aldetik, sarri gertatzen da bi aldeen arteko lehen harremanek, gobernari eta mendeko bezala, errekluta proletarioak inperiogileen goarnizio iraunkor eta armada egonkorretan sartzearen forma hartzen dutela. Erromatar Inperioko armada egonkorren historia, adibidez, pixkanakako desagitearen kontua da, erromatar armada amateur eta *ad hoc* erreklutaturiko indar izatetik Augustoren egintzaz boluntarioen indar iraunkor eta profesional izatera aldatu eta bihamunean bertan hasi zen desagitearena. Mende gutxi batzuetan, hasieran ia erabat gutxiengo menderatzailearen artetik erreklutatzen zen armada ia erabat barne-proletalgotik erreklutatzen igaro zen eta, azken fasean, baita kanpo-proletalgotik ere, neurri handi batean. Erromatar armadaren historia, xehetasunezko desberdintasunekin, Ekialde Urrunean inperiogile mantxuek kristau-aroko hamazazpigarren mendean berreraiki zuten estatu unibertsalaren armadaren historian errepikatzen da, baita Omeiatar eta Abastar kalifaldietako arabiar armada iraunkorraren historian ere.

Gutxiengo menderatzailearen eta barne-proletalgoaren arteko hesia behar izan duen armadako adiskidetasunak jokatu duen paperaren garrantzia balioesten saiatzen bagara, aurkituko dugu, espero bezala, faktore hau garrantzirik handienekoa izan dela gutxiengo menderatzailearen ordezkari izan diren inperiogileak, ez muga-gizonak soilik, baizik eta mugaren alde txarreko gizonak izan direnean, jatorri barba-

roko inperiogileak, alegia. Zeren eta, ziur aski, konkistatzaile barbaroa marka-gizona baino abegitsuagoa baita menderatu dituen herrien artean aurkitzen dituen bizi-atsegingarriekiko. Hori izan zen, behintzat, mantxuen eta Mantxuriako txinatar mendekoen arteko arma-adiskidetasunaren ondorioa. Mantxuak erabat berdindu ziren txinatarrekin, eta joera bera —*de jure* banaketa baztertzekoa eta *de facto* sinbiosiaren aldekoa— aurki daiteke Hego-mendebaldeko Asiako arabiar konkistatzaile musulman primitiboen historian: hauek oharkabeen estatu unibertsal siriakoa ari ziren berrezartzen, garaiz lehen eraitsitako Akemenestarren Inperioan lehen aldiz eratu zena.

Desintegratzen ari den gizartearen mugen barrutik sortutako gutxiengo menderatzaileen historietara itzultzen garenean —eta normalean horrela sortzen dira gutxiengo menderatzaileak—, ezingo dugu kontuan hartu gabe utzi faktore militarra, baina ohartuko gara arma-adiskidetasunak joera duela negozio-lankidetzak ordezkatzeko. «Oligarka zaharra» ohartu zen Atenas talasokratikoan jatorriz atzerri-tar ziren esklaboak hiritarren behe-klasetik bereiztezin bilakatu zirela kalean. Erromatar Errepublikaren azken egunetan erromatar aristokraten etxeak kudeatzea, bertako langile ugari eta antolaketa landua-rekin, nagusi nominalaren gaitasun handieneko libertoen sari bilakatu zen; eta Zesarren etxea senatuarekin eta herriarekin lankidetzan hasi zenean erromatar estatu unibertsalaren kudeaketan, Zesarren libertoak gobernuko ministro bihurtu ziren. Lehen Erromatar Inperioko liberto inperialek botere betea izan zuten, otomandar sultanaren esklabo-etxean bisir handiaren postu ahaltsua —eta era berean behin-behinekoa— lortu zuten kideenaren parekoa.

Gutxiengo menderatzailearen eta barne-proletalgoaren arteko sinbiosi-kasu guztietan bi aldeei eragiten die, eta bakoitzarengan duen eragina beste klasearekin berdintzera daraman lasterketan mugiaraztea da. «Maneren» azaleko mailan barne-proletalgoa askapenerantz mugitzen da eta gutxiengo menderatzailea bulgarizaziorantz. Bi mugimenduak osagarriak dira eta denbora guztian gertatzen dira biak; baina lehen faseetan proletalgoaren askapena nabariagoa den bitartean, azken ataletan gutxiengo menderatzailearen bulgarizazioak bereganatzen du gure arreta. Adibide klasikoa erromatar gobernari-klasearen bulgarizazioa da «zilarrezko aroan»: tragedia zikina, ezin hobeto jasoa —edo karikaturizatua— latinezko literaturan, honek beste edo-

zein *genre*-tan bere azken inspirazio-hatsa galdu ondoren artean joera satirikoan gordetzen zuelarik bere jeinua. Pixkanakako erromatar endekatze hau hogarth-ar margolanen sail batean jarrai daiteke, bakoitzean irudi zentrala, ez aristokrata bat soilik, baizik eta enperadore bat izanik: Kaligula, Neron, Komodo eta Karakala.

Azken honetaz zera irakurtzen dugu Gibbonen obran:

«Karakalaren portaera burgoi eta harroputza zen; baina tropekin bere mailaren duintasuna bera ere ahaztu zuen, haien lagunarte lotsagabea bultzatu zuen eta, jeneral baten funtsezko betebeharrak ahaztuta, soldadu arruntaren janzkera eta manerak imitatzeke plantak egin zituen».

Karakalaren «proletario» bihurtzeko modua ez zen izan Neron music-hall-eko artistarena edo Komodo gladiadorearena bezain sentazionala, ez patologikoa, baina bai agian esangura handiagokoa sintoma soziologiko bezala. Bere gizarte-ondarea arbuiatzen azken eta-para iritsia zen gutxiengo menderatzaile helenikoa egoki ordezkatzen zuen enperadorearen figurak, zeinek Akademiako eta Stoako askatasunetik —jasangaitza, bazekielako jaiotzaz zegokion eskubidea zela— kuarteleko askatasun proletarioan aurkitu baitzuen babesa. Izan ere, data honetarako, Gizarte Helenikoak Augustoren susperraldiaren tre-goaren ostean izan zuen hurrengo erorikoaren bezperan, gutxiengo menderatzailetik eta barne-proletalgotik hurrenez hurren jariatzen ziren elkarren kontrako bi eragin-korronteen bolumen, memento eta lastertasun erlatiboak, hainbestearainoxe aldatuta zeuden korronte proletarioaren alde, ezen behatzaile modernoak galdetuko baitu agian, azken batean, ez ote den korronte bakar baten mugimenduari beha egon, orain, une jakin batean, norabidez aldatu delarik soilik.

Orain gure begiak Ekialde Urruneko mundura itzultzen baditugu, erromatar gobernari-klasearen proletarizazioaren geure istorioaren lehen atala gaur egun berregiten ari dela ikusiko dugu. Hori Mendebaldeko ikertzaile bizidun baten lumak ondoren egindako azalpenean argi ikusten da: mantxuriartutako aita txinatarra bere seme proletarizatuagandik banatzen duen belaunaldi bakarrean proletarizaziorako joerari amore emanez askapena lortzeko borroka erakusten digu:

«Posible... zen, Mantxurian, Txinako txinatar batentzat bere bizialdian erabateko 'mantxu' bilakatzea. Fenomeno honen adibide

bat nik neuk bizi ahal izan nuen txinatar ofizial militar bat eta haren aita zaharra ezagutu nituenean. Aita, Honan-en jaioa, Mantxuriara gaztetan joana zen, hiru probientzietako bazterrik urrutienetan ibilia eta azkenik Tsitsihar-en ezarria. Egun batean esan nion gazteari: 'Zergatik zuk, Tsitsihar-en jaioak, Mantxuriako txinatar gehienek bezalaxe hitz egiten duzu, eta zure aitak, berriz, Honanen jaioa izanik, ez hizkera bakarrik, baita manierak eta keinuak ere, Mantxuriako mantxu zaharkituenak ditu?'. Barre egin eta esan zidan: 'Aita gaztea zenean, min-jen ('bandera' gabeko txinatar, 'zibil, herriko') batentzat zaila zen aurrera egitea iparraldeko eskualdeetan. Mantxuek dena menderatzen zuten... Baina ni hazi ahala jada ez zen onuragarri 'banderadun' izatea, eta ondorioz nire belaunaldiko beste gazte guztiak bezalako bilakatu nintzen'. Istorio honek oraingo prozesuak bezalaxe iraganekoak ere argitzen ditu; zeren eta Mantxuriako gazte mantxuak bizkor ari baitira Mantxurian jaiotako txinatarrengandik bereiztezin bihurtzen»¹⁸⁰.

Baina 1946an ingelesak ez zeukan Gibbon irakurri edo transiberiar espresoa litera gorde beharrik proletarizazioaren prozesua aztertzeko; etxean azter zezakeen. Zineman klase guztietako jendea ikusiko zuen atsegin berbera hartzen gehiengo proletarioaren gustua asetzeko diseinaturiko filmekin, eta klubean eskusibotasunak ez zuela prentsa horia baztertzen aurkituko zuen. Egia esateko, gure Juvenal modernoak famili gizona izanez gero, etxean gera zitekeen eta, hala ere, bere alea aurkitu. Aski zuen belarriak zabaltzea (ixtea baino errazagoa, agian) seme-alabak irratigailuei ateratzen ari ziren jazz edo 'barietateak' entzuteko. Eta gero, oporrak bukatzean, semeak eskola publikora —erakunde honen gizarte-esklusibotasuna nardagarria zen demokratentzat— joaten ikustean, ahaztu gabe eskatu behar zien nasan bildutako ikaskideen artean «lakrikunak» seinaltatzeko. Ikuskizun honetan, gure paterfamilias isekatiak zuhurtzia handiz Komodo gazte dotorea-ren neurria hartzean, angelu proletario zabarra ikusiko zuen kapela malguan eta ohartuko zen *apache* tapaukia, arduragabetasun-itxura konbentzigarriaz, benetan kontu handiz atondua izan zela nahitaezko lepoko gogorra ezkutatzeko. Hemen zegoen froga positiboa estilo proletarioa *à la mode* zegoela ikusteko. Eta lastoak haizeak zein aldetatik jotzen duen adierazten duen bezala, satira-idazlearen arinkeriak historialariaren errota astunagorako aleak izan daitezke.

Barne-proletalgoarekiko truke baketsuaren bidez gutxiengo menderatzailearen bulgarizaziotik, mugez harantzagoko kanpo-proletalgoarekiko gerrazko trukearen bidez haien barbarizazio-prozesu paraleloa aztertzeraz pasatzen garenean, bi antzerki-lanen argumentua bere egitura orokorrean berbera dela aurkitzen dugu. Bigarrenetan, *mise-en-scène* delakoa muga militar artifizia da —estatu unibertsal baten *limes*-a—, berorretan zehar, oihala altxatzen denean, gutxiengo menderatzailea eta kanpo-proletalgoa elkarren aurka jartzen direlarik, bi aldeetan bakartasun eta aurkakotasunezkoa den jarreraren. Antzerki-lanak aurrera jarraitu ahala, bakartasuna intimitate bihurtzen da, baina, hala ere, ez du bakea ekartzen; eta gerrak aurrera egin ahala, denborak pixkanaka barbaroaren alde jotzen du, azkenean *limes*-ean zehar sartzea eta ordu arte gutxiengo menderatzailearen goarnizioak babestu duen eremua menderatzea lortzen duelarik.

Lehen ekitaldian barbaroa gutxiengo menderatzailearen munduan sartzen da, lehenik bahituaren eta ondoren mertzenarioaren paperean, eta gehiago edo gutxiago aprendiz otzan agertzen da bi egoeratan. Bigarren ekitaldian inbaditzaile bihurtzen da, gonbidatu eta desiratu gabea, azkenean kolonizatzaile edo konkistatzaile bihurtzen dena. Honela, lehen eta bigarren ekitaldiaren artean, nagusitasun militarra barbaroen eskuetara aldatu da, eta gutxiengo menderatzailearen banderetatik barbaroenetara erregetzaren, ospe eta indarraren eskualdatze harrigarri honek eragin sakona du gutxiengo menderatzailearen ikuspegian. Gutxiengo hori orain bizkor hondatzen ari zaion egoera militar eta politikoa lehengoratzten saiatzen da, barbaroaren liburuari banan-banan orriak kenduz; eta imitazioa da ziur aski zurikeriaren formarik zintzoena.

Honela zirriboratu ondoren antzerkiaren argumentua, itzul gaitezen orain hasierara eta barbaroak lehen agerpena taulagainean gutxiengo menderatzailearen aprendiz gisa egiten duela ikusi; gutxiengo menderatzailea «bertakotzen» hasi dela ikusi; bi kontrarioek une iheskor batean, elkarri maileguan hartutako moztorro lehiakideetan, grifoak kimerarekin duen antzekotasun orokor groteskoa bereganatzen dutela ikusi; eta azkenik, *ci-devant* gutxiengo menderatzailea forma orijinalaren azken ezaugarriak galtzen ikusi, hondoratu eta barbaro garailearekin barbarotasun sakonaren maila komunean topo egiteko.

Botere «zibilizatu» baten eskuetan bahitu gisa debuta egin zuten gerra-jaun barbaroen gure zerrendak izen ospetsu batzuk ere baditu. Teodorikok bere ikaskuntza bahitu gisa Konstantinoplako erromatar gortean egin zuen, eta Scanderbeg-ek Adrianopoliseko otomandar gortean egin zuen berea. Filipo Mazedoniakoak gerra eta bakearen arteak Epaminondasko Tebasen ikasi zituen, eta Abd el-Krim marokoar buruzagiak, Annualen 1921ean espedizio-indar espainiarra suntsitu eta, lau urte geroago, frantziar boterea Marokon bere oinarrietatik astindu zuenak, hamaika hilabeteko ikaskuntza egin zuen espainiar presondegi batean Melillan.

Beren buruak konkistatzaile gisa ezarri aurretik, mertzenario gisa «etorri» eta «ikusi» duten barbaroen zerrenda luzea da. Kristau-aroako bosgarren eta zazpigarren mendeetan erromatar probintzien konkistatzaile barbaro teutoniko eta arabiarrek beren zerbitzu militarra erromatar indarretan egindako teutoi eta arabiarren belaunaldi askoren ondorengoak ziren. Kristau-aroako bederatzigarren mendeko abastar kalifen bizkarzain turkiarrek, kaliferria hamaikagarren mendeko ondorego estatuetan banatu zuten bukanero turkiarrentzat prestatu zuten bidea. Beste adibide batzuk ere aipatu ahal izango lirатеke, eta are luzeagoa izango litzateke gure zerrenda zibilizazioen azken agonien erregistro historikoak izan ohi diren bezain zatikakoak ez balira. Baina gutxienez susma genezake talasokrazia minoikoaren ertzetan zokomiran ibili ziren eta Knossos *circa* K.a. 1400ean arpilatu zuten barbaro itsaslapurrek beren ikaskuntza Minosko mertzenario gisa egin zutela hura ordezteko asmoa hartu aurretik, eta tradizioak dio Vortigern-ek, Kent-eko errege britainiarrak, saxoniar mertzenarioak erabili zituela Hengist eta Horsa kuskusero egiaztaezin haiek behe-
ra bota baino lehen.

Beste zenbait kasu ere espia genezake, zeinetan mertzenario barbaroek huts egin baitiote beren «destino nabariari». Adibidez, Ekialdeko Erromatar Inperioa varangiar guardiaren harrapakin izan zitekeen, normandiar eta seljuktarrek ez balute bortxatu izan, frantziar eta veneziarrek ez balute zatitu eta azkenik osmanliarrek ez balute erabat berenganatu. Eta Otomandar Inperioa, bere aldetik, ziur aski banatu egingo zuten bosniar eta albaniar mertzenarioen artean, beren nagusitasuna bizkor ari baitziren baiesten pasha probintzialen gain, baita Zerurako Atearen beraren gain ere, kristau-aroako hemezortziga-

rren mendetik hemeretzigarrenera igarotzean, negozio-gizon frankoak ez balira albaniar arma-gizonen orpoz orpo etorri otomandar historia-ren azken atalari ustekabeko norabidea ematera, Levantea Mendebaldeko ideia politikoz eta Manchesterreko salgaiez blai egin ez. Mertzenario oskoek ere, beren zerbitzuentzako merkatua Kanpania eta Magna Grezia eta Siziliako hiri-estatu greziarretan aurkitu zutenek, beren greziar ugazabak kanporatu edo suntsitu egin ohi zituzten aukera zuten guztietan, eta ez dago zalantzarik joko honekin jarraituko zutela greziar komunitate bakar bat Otrantoko itsasartearen mendebaldean gelditu bitartean, baldin eta erromatarrek, une erabakigarrian, oskoen sorlekuak ez balituzte atzegordiatik hartu izan.

Adibide hauek egungo egoera bat iradoki diezagukete, non oraindik ezin den aurreikusi ea mertzenarioak kuskusero bihurtuko diren eta, bihurtzen badira, beraien enpresak, osko eta albaniarrenak bezala, loretan moztuko dituzten ala, teutoi eta turkiarrenak bezala, fruitu ematera iritsiko diren. Gaur egungo indiar batek barbaro haiek —Indiako Gobernuaren administrazioaren mugez harantzago beren gotorlekuetan independentzia gerrazalean lubakituek— Indiar destinoetan etorkizunean izango duten paperaz espekula dezake, beraien artetik erreklutatu zelarik 1930ean Indiako armada erregularraren zazpiren bat gutxienez. Garai hartako gurka mertzenarioak eta pathan bidelapurrak, Hindustango zabaldietan Britainiar Inperioaren ondorengo estatuak sortu behar zituzten barbaro konkistatzaileen guraso eta aiton-amonatzat gogoratuko ote dira historian?

Adibide honetan ez dugu ezagutzen antzerkiaren bigarren ekitaldia. Fase honetan dramaren garapena ikusi nahi bada, Erromatar Inperioaren iparraldeko *limes*-az harantzago estatu unibertsal helenikoaren eta europar barbaroen arteko harremanen istoriora itzuli behar dugu. Etapa historiko honetan hasieratik bukaerara jarrai ditzakegu prozesu paraleloak, zeinetan gutxiengo menderatzaile bat barbarotasunean murgiltzen baita, barbaroak beren fortuna haren kontura egiten ari diren bitartean.

Antzerkia norberekeria ilustratuzko giro liberalean hasten da.

«Inperioa ez zen barbaroen gorrotoaren helburu izan. Egia esan, sarri gogotsu egoten ziren haren zerbitzura jartzeko, eta haien buruzagietako askok, Alariko edo Ataulfok (Atawulf) bezala, ez zuten gurari handiagorik goi-aginte militarreko izendatuak izatea baino.

Bestalde, erromatarren aldean, bazen pareko jarrera bat gerran indar barbaroak erabiltzeko»¹⁸¹.

Badirudi, kristau-aroko laugarren mendearen erdialdera, erromatarren zerbitzura zeuden germaniarrek beren jatorrizko izenak gordetzeko praktika berria hasi zutela; eta etiketa-aldaketa honek, dirudenez bat-batekoa izan zenak, pertsonal barbaroaren arimetan beren buruekiko konfiantza eta segurtasunezko bat-bateko bolada sortu zela adierazten du, aurrez erreparorik gabe «erromatar bihurtzeko» pozik egon bazen ere. Beren kultur banakotasuna azpimarratze berri honek ez zuen eragin erromatarren aldetik barbaroen aurkako eskusibotasunaren inolako adierazpenik. Oso bestela, erromatarren zerbitzuko barbaroak, garai hartan bertan, kontsul-izendapenak hartzen hasi ziren, enperadoreak eman zezakeen ohorerik handiena.

Honela, barbaroak erromatarren gizarte-eskalaren maila gorenetan beren oinak jartzen ari ziren bitartean, erromatarrek eurak kontrako norabidean ari ziren mugitzen. Adibidez, Graziano enperadorea (K.o. 375-383) alderantzizko esnobismoaren forma berri baten mende erori zen, ez arruntasunaren baizik eta barbarotasunaren maniaren mende, janzkera barbaroak bereganatzera eta barbaroen kirolak egitera bultzatu zuena. Mende bat geroago erromatarrek aurkitzen ditugu buruzagi independente barbaroen gerra-taldeetan sartuta. Adibidez, Vouillé-n K.o. 507an, bisigodoak eta frankoak Galiar jabetzeko borrokan ari zirenean, bisigodoen aldean hildakoetako bat Sidonio Apollinar-en bilobetako bat izan zen, bere belaunaldian artean letragizon klasiko kultuaren bizimodua egin ahal izan zuena. Ez dago frogarik esateko kristau-aroko seigarren mendearen hasieran erromatar probintzietako ondoengoei irrika gutxiago agertu zutela gerra-bidean *Führer* bati jarraitzeko barbaroen ondorengo garaikideek baino, hauentzat gerraren jokoa bizi-arnasa izan zelarik hainbat mende. Garai hartarako bi aldeek kultur parekotasuna zuten barbarotasun komunean. Dagoeneko ikusi dugu, laugarren mendean, erromatar zerbitzura zeuden ofizial barbaroak beren izen barbaroei eusten hasi zirela. Hurrengo mendean, Galian, alderantzizko mugimenduaren lehen kasuak ikusi ziren, benetan erromatar jaiotako aldetik germaniar izenak hartzeko, eta zortzigarren mendearen bukaerarako praktika hori unibertzala zen. Karlomagnoren garairako Galiako biztanle guztiek, zeinahi izanik beren arbasoak, germaniar izena zeukaten.

Erromatar Inperioaren beheraldi eta erorikoaren historia honen ondoan mundu sinikoaren barbarizazioaren prozesu paraleloa jartzen badugu —honen erorikoaren datu nagusiak bi mende inguru lehenago-koak dira—, desberdintasun esanguratsua aurkituko dugu azken puntu honi buruz. Estatu unibertsal sinikoaren ondorengo estatu barbaroen sortzaileak beren biluztasun barbaroa estaltzen arretatsuak izan ziren zuzen eraturiko izen sinikoak berenganatuz, eta agian ez da erabat apertatsua hutsala dirudien puntu bateko praktika-desberdintasun honen eta azkenean estatu unibertsal sinikoak izandako piztualdiaren artean lotura ikustea, hau askoz eraginkorragoa izan zelarik Erromatar Inperioaren arimari Karlomagno egin zion dei paraleloa baino.

Gutxiengo menderatzaileen barbarizazioaren gure ikerketa itxi aurretik, gelditu eta galde diezaiokegu geure buruari ea gizarte-fenomeno honen sintometako batzuk bereiz ote daitezkeen gure Mendebaldeko mundu modernoan. Lehen gogoetetan, gure galderak behin betiko erantzuna jaso duela pentsatzera joko dugu agian, hots, gure gizarteak mundu osoa hartu duela bere garroen artean eta ez dagoela jada tamaina handi samarreko kanpo-proletalgorik gu barbaro bihurtzeko. Baina txundigarri samarra den zerbait gogoratu behar dugu: geure Mendebaldeko Gizartearen Ipar Amerikako «Mundu Berriaren» bihotzean gaur egun bada Ingalaterran eta Eskoziako Lowlands-etan jatorria duen jendetza handi eta barreiatu bat, Mendebaldeko gizarte-ondare kristau protestantea duena, zalantzarik gabe eta sakon barbarizatua izan dena Appalacheetako baso urrutietan abandonatua izateagatik, aurrez Europako «zerrenda zeltikoan» erbestealdi bat bete ondoren.

Amerikar mugaren eragin barbarizatzailea gai honetan aditua den amerikar historialari batek deskribatu du:

«Amerikaren kolonizazioan ikusi behar dugu nola sartu zen kontinentean europar bizimodua eta Amerikak nola aldatu eta garatu zuen bizimodu hura eta nola erreakzionatu zuen Europaren aurrean. Gure lehenengo historia amerikar ingurunean garatzen diren europar hazien azterketa da... Muga da amerikanizazio-bide bizkorren eta eraginkorrena. Basamortuak mendeen hartzen du kolonizatzailea. Hori europar aurkitzen du janzkera, industri, lanabes, bidai eta pentsamendu-moduetan. Trenbideko bagoitik hartu eta urkizko kanoan jartzen du. Zibilizazioaren soinekoak erantzi eta ehizarako alkandora eta

mokasinak janzten dizkio. Txerokee eta irokes-en enborrezko etxole-tan ipintzen du, indiarren egurresiz inguratua. Luzarora gabe india-rren artoa landatzeari ekiten dio eta makila zorrotz batez goldatzea-ri; gerra-oihua bota eta buru-azala indiarren era ortodoxoan kentzen du. Labur esanda, muga ingurunea gizakiarentzat gogorregia da hasieran... Poliki-poliki eraldatu egiten du basamortua; baina emai-tza ez da Europa zaharra... Kontua da hemen produktu berri bat dago-ela, amerikarra dena»¹⁸².

Tesi hau zuzena bada, aitortu beharrean gaude, Ipar Ameri-kan, gutxienez, indar handiko gizarte-tirakada eman diola gure gutxiengo menderatzailearen zati bati bere kanpo-proletalgoaren zati batek. Amerikar seinale honen argitan arinegia litzateke uste izatea barbarizazioaren gaitz espirituala gure Mendebaldeko gutxiengo menderatzaileak kontuan hartu ezin duen seinalea dela. Badirudi kanpo-proletalgo konkistatu eta suntsituek ere har dezaketela beren mendekua.

b) Arruntasuna eta barbarotasuna artean

Manera eta ohituren alor orokorretik artearen alor berezira pasatzen bagara, hemen berriro bere burua salatuz aurkituko dugu promiskuitate-zentzua arruntasunaren eta barbarotasunaren txandaka-ko formetan. Forma hauetako batean edo bestean, desintegratzen ari den zibilizazioaren arteak bere ezohiko hedatze zabal eta bizkorra nolakotasun finaren ezaugarri den estilo-bereizgarritasuna abandona-tuz ordaintzen du.

Arruntasunaren bi adibide klasiko, desintegratzen ari ziren Zibilizazio Minoikoak eta Siriakoak, batak bestearen ondoren, Mediterraneoan beren eragin estetikoa irradiatzeko moduak dira. Talasokrazia minoikoaren porrotaren ondorengo interregnoa (*circa* K.a. 1425-1125) «Berant Minoikoa III» etiketaturiko moda arruntarekin markatua dago, zabalkunde aldetik aurreko eta finago-ak ziren estilo minoiko guztiak gaingitu zituen; eta antzeratsu, Zibilizazio Siriakoaren kolapsoaren ondorengo arazoaldia (*circa* K.a. 925-525) feniziar artean era berean arrunt eta era berean zabal-dua zen *motif*-konbinazio mekanikoak markaturik dago. Arte heleni-koaren historian arkitektura-ordena korintoarrarekin modan jarri zen dekorazio aberatsegian aurkitu zuen adierazpidea pareko arruntasu-

nak: nabarmenkeria hau jeinu helenikoaren bereizgarriaren antitesi hutsa da; eta Erromatar Inperioan gailurrera iritsi zen moda honen adibide nabarmenen bila hasten bagara, ez ditugu aurkituko mundu helenikoaren bihotzean, baizik eta Balbak-en helenikoa ez den jainko baten tenploaren hondakinetan, edota monumentu-igeltsero helenikoek iraniar goi-lautadaren ekialdeko mutur-muturrean gerra-jaun barbaro filhelenoen gorpuzkinak jasotzeko egin zituzten sarkofagoetan.

Gizarte Helenikoaren desintegrazioaren dokumentu arkeologikoetatik literarioetara jotzen badugu, ohartzen gara K.a. 431ko kolapsoaren ondorengo lehen belaunaldi bakanetako «intelektualek» musika helenikoaren bulgarizazioa deitoratzen zutela; eta dagoeneko aipatu dugu beste testuinguru batean drama atikoaren bulgarizazioa Διονύσου Τεχνῖται («Artista Batuak, Mgt.») direlakoan eskuetan. Mendebalde modernoaren munduan ikus genezake gure Mendebaldeko barroko eta rokokoaren moda helenizatzaileak ez zituela inspiratu arte helenikoaren estilo loretsuki dekadenteak, zorrozki klasikoak baizik; eta gure merkataritza-arte viktoriarren «txokolate-kaxa» delako estiloan «Berant Minoikoa III»aren analogia bereiz genezake, ematen duelarik lurbira osoa konkistatuko duela merkatariairen salgaiak bisualki iragartzeko teknikaren, bereziki Mendebaldekoa den teknikaren, zerbitzura.

«Txokolate-kaxa» estiloaren hutsaltasuna hain da hondagarria, ezen erremedio etsiak bilatzera bultzatu baitu gure belaunaldia. Arruntasunetik bizantinismo prerrafaelistara egindako ihesaldi arkai-zantea geroko kapitulu batean aztertuko da, baina hemen arruntasunetik barbarotasunerako ihesaldi garaikide eta alternatiboari erreparatu behar diogu. Beren buruari begirunea dioten Mendebaldeko egungo eskultoreek, Bizantzion babes atsegina aurkitu ez dutenek, Benin-era jiratu dituzte begiak; eta ez da artearen gliptika-adarrean bakarrik ibili Mendebaldeko mundua, sormenaren baliabideak agortuta, inspirazio berriaren bila Mendebaldeko Afrikako barbaroen artean. Mendebaldeko Afrikako musika eta dantza, baita eskultura ere, Europaren bihotzera ekarri dira, Amerikan barrena.

Ezjakinaren begietara, Beninera ihes egiteak eta Bizantziora ihes egiteak, biek ere ez dirudite egokiak Mendebaldeko artista modernoak bere arima galdua berreskuratzen eramateko. Eta, halaz

guztiz, bere burua ezin salbatu izanda ere, gerta liteke bera salbabide izatea beste batzuentzat. Bergsonek dio

«Erdipurdiko irakasle batek, jeinuek sorturiko jakintza batean instrukzio mekanikoa emanez, beregan sekula sentitu ez duen boka-zioa iratzar dezake bere ikasleetako batzuengan»;

eta desintegratzen ari zen mundu helenikoaren «arte komertzialak» mahayaniar budismoaren arte ezin sortzaileagoa eragiteko balentria harrigarria zertu bazuen, eta hori lurralde indikoan desintegratzen ari zen beste mundu baten erlijio-esperientziarekin izandako topaketaren bidez egin bazuen, ezin dugu esan *a priori* Mendebaldeko «txokolate-kaxaren» estilo modernoak ez dela gai antzeko mirariak sortzeko lurbira osoan iragarleen panel eta aire-seinaleetan zabaldu ahala.

c) Lingue Franche

Mintzairaren arloan promiskuitate-zentzua hizkuntzen toki-berezitasunetik nahasmendu orokorrerako aldaketan agertzen da.

Mintzairaren erakundea gizakien artean komunikazio-bide izateko xedeaz dagoen arren, orain arte gizadiaren historian bere benetako gizarte-eragina, oro har, giza arraza banatzea izan da eta ez batzea; zeren eta, mintzairek hainbeste forma desberdin hartu dituztenez, zirkulaziorik zabaleneak ere sekula ez baitira izan komunak gizadiaren zati batean baino, eta hizkeraren ulertezintasuna da «atzerritararren» marka.

Beren beheraldian aurreratuta aurkitzen diren desintegrazioko zibilizazioetan mintzairak —ama-hizkuntzatzat hitz egiten dituzten herrien zoriari jarraituz— beren artean etengabeko gerran ikusi ohi ditugu, eta, garaile direnean, eremu zabalak konkistatzen dituzte menderaturiko lehiakideen bizkar; eta Xinear lurraldean, eraiki berria zen Babeleko hirian, bukatu gabeko zigurrat baten oinean gertaturiko hizkuntz nahastearen kondairan gertaera historiko baten arrastorik baldin badago, istorioak agian Babiloniara eramango gaitu estatu unibertsal siriakoa kolapsatzen ari zen garai batean; zeren eta, historia sumerikoaren azken atal katastrofikoan sumeriera mintzaira hila bilakatu baitzen, kultura sumerikoaren jatorrizko hizkuntz adierazpide gisa paper historikoa jokatu ondoren; bitartean akadierak ere, asko ez zela harekin etorri berriaren parekotasuna lortua zuenak, orain kanpo-pro-

letalgoaren bertako hizkuntz mordo batekin borrokatu behar zuen, abandonaturiko eremura gerra-talde barbaroek ekarritako hizkuntze-kin, alegia. Hizkuntz nahastearen kondairak bizitza egiazki islatzen du elkarrekiko ulertezintasun-egoera honi egozten dionean gizarte-krisi berri eta aurrekaririk gabeko baten aurrean gizarte-ekintza adosturako eragozpen gaindiezina izatea; eta hizkuntz aniztasunaren eta gizarte-elbarritasunaren arteko lotura hau historiaren argitasun betean nabar-men ageri diren adibideekin esplika daiteke.

Gure belaunaldiko Mendebaldeko munduan horixe izan zen 1914-18ko gerra orokorrean desagertu zen habsburgotarren danubiar monarkiaren zoritxarreko ahuldadeetako bat; eta otomandar padisha-ren esklabo-etxe ankerki eraginkorrean ere, bere heltzaroan, K.o. 1651n, Babelen madarikazioa ikusten dugu *ich-oghlands*-en gain eror-tzen harenaren esparru barruan eta ezintasunean uzten jauregi-iraultza baten une erabakigarrian. Beren beroaldian mutilek artifizialki lortu-riko osmanliar hizkuntza ahaztu zuten, eta ikusleen belarri txundituak zauritu zituen «kalapitaren hotsak... ahots eta mintzaira desberdine-kin, zeren eta batzuek georgieraz oihu egiten baitzuten, beste batzuek albanieraz, bosnieraz, mingrelieraz, turkieraz eta italieraz»¹⁸³. Otomandar historiako gertaera hutsal honen zertzeladak, hala ere, alderantzikatuta daude Espiritu Santuaren etorrerako gertaera eraba-kigarrian, Apostoluen Eginetako bigarren kapituluari jasotakoaren arabera. Gertaldi hartan hitz egindako hizkuntzak arrotzak zaizkie hizlarien ezpainei: eskolatu gabeko galilearrak ziren hizlariak, ordu arte, bertako aramera izan ezik, beste mintzairarik inoiz hitz egin ez eta gutxitan entzundakoak. Bat-batean haiek beste hizkuntza batzue-tan hastea Jainkoagandiko mirarizko dohaintzat hartzen da.

Pasarte enigmatiko hau era askotara interpretatu izan da, baina ez da eztabaidarik izango hemen guri axola zaigun puntuaz. Garbi dago, Eginen idazlearen ikuspegitik, hizkuntz dohaina izan zela apos-toluen berezko ahalmenen lehenengo areagotzea, errebelatu berria zen «erlijio nagusira» gizadi osoa konbertitzeko zeregin ikaragarria-ren ardura hartua zutenentzat beharrezkoa. Hala ere, apostoluak jaio zireneko gizartea askoz hobeto hornitua zegoen *lingue franche*-z gure mundua gaur egun dagoena baino. Galilearren ama-hizkuntza arame-rak bere edozein hitzun eramaten zuen iparraldera Amanuseraino, ekialdera Zagroseraino, mendebaldera Niloraino; bitartean grezierak

—hizkuntza honetan idatzita zeuden Eginak— kristau-misiolariak itsasoz gaindi Erromaraino eta harantzago ere eramaten zituen.

Tokian tokiko ama-hizkuntzak *lingue franche* ekumeniko bihurtzearen kausak eta ondorioak aztertzen baditugu orain, bere lehiakideen gain honelako garaipena irabazten duen mintzaira batek bere arrakasta gizarte-abantaila honi zor diola aurkituko dugu: gizarte-desintegrazioko garaian, gerran edota merkataritzan indartsua izan den komunitateren baten tresna gisa balio izanari, alegia. Halaber, aurkituko dugu mintzairak, gizakiak bezala, ez direla gai garaipenak irabazteko, preziorik ordaindu gabe; eta mintzaira batek *lingua franca* bihurtzeagatik ordaintzen duen prezioa bere jatorrizko ñabarduren sakrifizioa da; zeren eta, haurtzaroan ikasi dutenen ezpainetan bakarrik hitz egiten baita edozein mintzaira naturaren dohain eta artearen etsipen den perfekzioarekin. Iritzi hau datuak aztertuz egiazta daiteke.

Gizarte Helenikoaren desintegrazioaren historian bi hizkuntza, bata bestearen ondoren —lehenengo greziera atikoa eta gero latina—, bi barruti txikitako —Atika eta Latium-eko— ama-hizkuntza izaten hasi eta gero kanpora zabaltzen direla ikusten dugu, harik eta, kristau-aroaren bezperan, greziera atikoa Jelum ibaiaren ertzean kantzelaritza batean erabiltzen dela aurkitzen dugun arte, eta latina Rhinen ertzetako kanpamenduetan. Greziera atikoaren eremuaren hedapena atenastar talasokrazia baten lehen ezarpenarekin hasi zen K.a. bosgarren mendearen, eta gero izugarri zabaltzen zen Filipo Mazedoniakoak dialekto atikoa hartu zuelako bere kantzelaritzako hizkuntza ofizialtzat. Latinari dagokionez, erromatar legio garaileen banderari jarraitu zion. Hala ere, hizkuntza hauen hedapena miretsi ondoren, garai berean izan zuten garapena hizkuntzalaritza eta literaturako adituaren ikuspegitik aztertzen badugu, berdin hunkituko gaitu horien bulgarizazioak. Sofokles eta Platonen bertako atiko dotorea endekatu egiten da Septuagintako eta Polibioren eta Itun Berriko κοινή arrunteraino; bitartean Zizeron eta Virgilioren literatur baliabidea azkenean «latin makarroniko» bihurtu zen, Mendebaldeko Kristau Gizarte filialean nazioarteko harreman-era serio guztietarako erabili zena hemezortzigarren mendearen hasiera arte. Milton, adibidez, Cromwellen gobernuko «latin-idazkaria» izan zen. Hungariako parlamentuan, «latin makarronikoak» jarraitu zuen arazoan izapideetarako bitarteko izaten 1840

arte, eta hori baztertzea izan zen nazionalitate nahastuen artean 1848an piztu zen anaiarteko borrokaren eragileetako bat.

Zibilizazio Babiloniko eta Siriakoaren desintegrazioan, aldi berean kolapsatzen ari ziren bi gizarteen hondakinak elkarren artean nahastu ziren, zenbat eta lodiago barreiatuta egon beren *Trümmerfeld*¹⁸⁴ komunean, orduan eta modu bereiztezinagoan. Hondakin promiskuo hauen gainazal apurtuan zabaldu zen aramera belar txarraren joritasunaz, nahiz eta, grezierak eta latinak ez bezala, aramerak gutxi edo ezer ez zor izan konkistatzaile arrakastatsuen babesari. Hala ere, arameraren zirkulazioak, bere garaian ohargarriak, bizitza labur eta zabalera estukoa dirudi aramear alfabeto eta idazkerarenaren aldean. Idazkera honen aldaeretakoa bat Indiara iritsi zen, non Asoka enperadore budistak erabili baitzuen bere testu praktitoak finkatzeko ezagun zaizkigun haren hamalau inskripzioetako bitan. Beste aldaera bat, Sogdianarra delakoa, ipar-ekialdera zabaldu zen Jaxartes-etik Amur-eraino, eta K.o. 1599rako alfabetoa emana zien mantxuei. Aramear alfabetoaren hirugarren aldaera bat arabieraren hedabide bihurtu zen.

Ondoren, gune nagusia Ipar Italian duen eta «Erdi» Aro delakoan Mendebaldeko Kristandadean sortua zen hiri-estatuen kosmos hutseginera jotzen badugu, Italiako dialekto toskanoa ikusiko dugu bere lehiakideei itzal egiten, atikoak greziera zaharraren dialekto lehiakideak itzalpetu zituen bezala, eta aldi berean Mediterraneoko itsasertz guztietan zabaltzen ikusiko dugu Venezia eta Genoako merkataria inperiogileen eskutik; eta Toskanako italieraren zirkulazio panmediterranearen honek gehiago iraun zuen Italiako hiri-estatuen oparotasunak eta burujabetasunak berak baino ere. Hamaseigarren mendean italiera zen italiarrak levantetar uretatik bidaltzen ari zen otomandar itsas armadaren zerbitzu-mintzaira; eta hemeretzigarren mendean, berriro, italiera bera zen habsburgotarren itsas armadaren zerbitzu-mintzaira, haren nagusi inperialek arrakasta izan zutelarik 1814tik 1859ra italiar nazio-gurariak zapuzten. Levanteko italiar *lingua franca* hau, hainbat eranskin atzerritarren zamapean bere italiar oinarria ia lurperatua zuelarik, berak ordezkatzeko duen generoaren hain adibide miresgarria denez, bere izen historikoa esanahi generikoa izatera iritsi da.

Azkenaldian, ordea, toskanera bulgarizatu hau frantses bulgarizatuak ordezkatu du zegozkion levantetar gordelekuetan ere.

Frantsesak bere zori ona ondorengoari zor dio: Italia, Alemania eta Flandriako hiri-estatuak kosmos kolapsatuaren arazoaldian —azpigi-zarte honen desintegrazioaren historian hamalagarren mendearen bukaera aldera hasi eta hemezortzigarrenaren bukaera arte iraun zuen aldian— artean hedatzen ari zen gizarte honen periferiako botere handiek gain behera zihoan erdigunea kontrolatzeko egindako borrokan Frantziak garaipena bereganatu izanari, alegia. Luis XIV.aren garaitik aurrera frantziar kulturak zerturiko erakarpena frantziar armekin batera ibili zen; eta Napoleonek luzarora bere aurreko borboien guraria —hiri-estatuak zati apurtu guztiak, Europa osoaren gainean frantziar nazioaren atean Adriatikotik Ipar Itsaso eta Baltikoraino sakabana-tuak, frantziar diseinuko mosaikoan biltzea— lortu zuenean, Inperio Napoleonikoak erakutsi zuen bera kultur indar bat zela sistema mili-tar bat adina.

Eta, egia esan, bere kultur eginkizuna izan zen Inperio Napoleonikoa desegin zuena; zeren eta garraiatzen zituen ideiak (zen-tzu klinikoan) artean hazten ari zen Mendebaldeko kultura moderno baten adierazpide baitziren. Napoleonen eginkizuna estatu «azpiuni-bertsala» ematea zen Mendebaldeko Kristandadearen bihotzean zego-en hiri-estatuak kosmoseko azpizarteak. Baina estatu unibertsal baten funtzioa atsedean ematea da arazoaldiak luzaroan nahasturiko gizarteak. Ideia dinamiko eta iraultzaileetan inspiraturiko estatu uni-bertsal bat kontraesana da bere horretan, tronboiaz jotako lo-kanta. «Frantziako Iraultzaren ideiak» ez zeuden kalkulatuak ideia hauek sar-tzen ari ziren frantziar inperiogileen uztarriarekin italiar, flandriar, renaniar eta hanseatikoak adiskidetu zitzaizkeen lasaigarri izateko. Oso bestela, Frantzia napoleonikoaren eragin iraultzaileak astindu estimu-lagarria eman zien geldi zeuden herri hauei, lozorrotik iratzarri eta altxarazi eta Frantziar Inperioa eraistera bultzatu zituen, Mendebaldeko mundu modernoan nazio jaio berri gisa beren lekua hartzeko lehen urrats gisa. Honela, Inperio Napoleonikoak bere baitan zeramatzen ezinbesteko porrotaren prometeak haziak gain behera zihoan mundu baten estatu unibertsal izateko epimeteak paperean, mundu honek behinola, aspaldi-aspaldiko goraldian, Florentzia, Venezia, Brujas eta Lübeck-en distira sortu zuenarik.

Inperio Napoleonikoak nahi gabe zertu zuen benetako eginki-zuna Erdi Aroko itsas armada abandonatuaren galeoi hondoa joak

Mendebaldeko bizitzaren ur-laster bizkorrera garraiatzea izan zen, eta aldi berean axola gabeko eskifaiak akuilatzea beren itsasontziak nabigarazteko; eta frantziarren benetako jardun hau eginkizun labur eta eskergabea izango zen kasuaren izaeragatik, Napoleonek ez balu nazio-estatuaren —Britainia Handi, Errusia eta Espainiaren— aurkakotasun konkistagaitza sortarazi hiri-estatuaren kosmosaren mugez harantzago, hau izanik, guk azaldutakoaren arabera, hari zegokion ekintza-eremua. Hala ere, gaur egungo gizarte handian Frantziak berrehun urtez, bere goren-une napoleoniko laburrarekin, hiri-estatuaren kosmosaren azken aldian jokaturako paperaren funtsezko herentzia dago. Frantzes mintzairak arrakasta izan du gure Mendebaldeko munduaren erdialdeko zatian *lingua franca* bezala ezartzen, eta bere agintea Espainiar eta Otomandar Inperio izandakoen urrutiko muturretara ere hedatu du. Frantsesa jakiteak bidaiaria Belgika, Suitza, Iberiar penintsula, Latinoamerika, Errumania, Grezia, Siria, Turkia eta Egipton zehar eramango du oraindik. Britainiarrek Egipto okupatu zuten bitartean, frantsesak inoiz ez zion utzi komunikazio ofizialeko mintzaira izateari egiptoar gobernuko ordezkarien eta britainiar aholkularien artean, eta britainiar komisario nagusiak, lord Allenby-k, Sirdar-aren hilketak eragindako ultimatumaren berri emanez, 1924ko azaroaren 23an Egiptoko lehen ministroari bi mezu ingelesez irakurri zizkionean, mintzairaren aukera ezohikoa atsekabearen seinale izateko egina zen. Hala ere, britainiar mezu haien kopia idatziak aldi berean frantsesez eman zituzten. Ikuspegi honetatik, Erdi Aroko italiar nabigatzaileen uharan Napoleonen egiptoar espedizioak, normalean europar konkistatzaile baten ibilketan garrantzirik gabeko dibagazio hutsaltzat hartuak, urrutikoa bezain hartzailea zen lurrian frantziar kulturaren haziak ereiteko ahalegin emankorraren itxura du.

Frantziako *lingua franca* Erdi Aroko azpizgizarte baten beheraldi eta erorikoaren oroigarria bada Mendebaldeko gizarte-gorputzean, Ingalaterrako *lingua franca*-ren kasuan *pammixia*-prozesu erraldoiaren emaitza ikus genezake, gure Mendebaldeko mundu modernoan mundu-mailako «Gizarte Handian» zabaldu eta diluitu duena. Ingelesaren arrakasta hau Britainia Handiak berak itsasoz bestaldean, ekialde nahiz mendebaldean, mundu berri batez nagusitzeko borroka militar, politiko eta komertzialean izandako arrakastaren ondorio da. Ingelesa bihurtu da Ipar Amerikan bertoko hizkuntza eta Indiar azpi-

kontinentean *lingua franca* nagusia. Txinan eta Japonian ere zirkulazio zabala du. Dagoeneko aurkitu dugu italiera zela zerbitzu-mintzaira italiar estatuen aurkako itsas armadetan; eta era bertsuan, 1923ko Txinan, Borodin errusiar agente komunistak ingelesa erabiltzen zuen Kuomintang alderdiko txinatar ordezkariarekin komunikatzeko, britainiarrak ituneko portuetatik kanporatzeko diseinaturiko operazio politikoetan. Halaber, ingelesa erabiltzen da komunikazio-bidetzat hainbat dialekto txinatar erabiltzen diren probintzietatik datozen txinatar eskolatuen artean, eta toskanera klasikoaren eta atiko klasikoaren bulgarizazioak, atzerritarren ezpainetan, Indiako *babu* ingelesean eta Txinako *pidgin* ingelesean du bere kontrapartida.

Afrikan arabiar *lingua franca* baten aurrerapena jarrai genezake, bere bidea mendebalderantz Indiako Ozeanoaren mendebaldeko kostatik Aintziretarantz egin duelarik, eta hegoalderantz Sahararen hego-kostatik Sudanera, arabiar edo erdiarabiarturiko ganaduzale, esklabo-tratulari eta merkatarien ondoz ondoko taldeei jarraituz. Eta mugimendu honen hizkuntz ondorioak gaur egungo bizitzan ere azter daitezke oraindik; zeren eta, arabiar kanpotarren inpaktu fisikoa europar esku-hartzeak geldiarazi duen bitartean, arabierak bertako jatorrizko hizkuntzetan izandako inpaktuak bultzada berria hartu baitu Afrikaren «irekitzetik», azkenaldian arabiar eskuetatik kendua. Mendebaldeko erregimenaren ezarpena adierazten duten europar banderen pean, arabierak sekula baino erraztasun handiagoak ditu aurrera egiteko. Agian europar gobernu kolonialek arabierari eman dioten onurarik handiena hainbat kultur kostetan, arabieraren aurrerapen lasterra bertoko mangle-aintziretan zehar ibili den lekuetan, sortu diren mintzaira mistoei —beren administrazio-premiari erantzuteko— eman dioten adore ofiziala izan da. Goi Niger-en frantziar inperialismoak, Behe Niger-en britainiar inperialismoak eta Zanzibarko Eki Afrikako hinterland-en britainiar eta germaniar inperialismoak eragin dute hurrenez hurren Fulani, Hausa eta Swahili-ren oparotasuna; eta mintzaira hauek guztiak hizkuntz nahasturak dira —afrikar oinarriarekin eta arabiar infusioarekin—, arabiar alfabetoaz idaztera behartu dituztenak.

d) Sinkretismoa erlijioan

Erljioaren alorrean, errito, kulto eta fede-sinkretismo edo amalgama gizarte-desintegrazioaren garaian arimako zismatik sortzen

den promiskuitatearen barne-zentzuaren kanpo-adierazpena da. Fenomeno hau, nolabaiteko ziurtasunez, gizarte-desintegrazioaren sintomatzat har daiteke, hazkundealdiko zibilizazioen historietan erlijio-sinkretismoaren adibide diruditenak engainagarriak gertatzen baitira. Adibidez, hiri-estatu askotako parroki mitologiak Hesiodo eta beste poeta arkaiko batzuen lanen bidez sistema panheleniko bakar batean koordinatu eta harmonizatuta ikusten ditugunean, izen-malabarismo hutsa ari gara ikusten, aldi berean ez baita ematen errito desberdinen bat-egiterik edo hainbat erlijio-emozioren konbinaziorik. Bestalde, latindar *numina*-k olinpiar jainkoekin —Jupiter Zeusekin edo Juno Herarekin— identifikatuta ikusten ditugunean, benetan latindar animismo primitiboaren orde zarrira greziar panteoi antropomorfikoa ari gara ikusten.

Bada identifikazio-mota desberdin bat jainko-izenen artean, non hitzezko ekuazio hauek desintegrazio-garaian gertatzen baitira eta promiskuitate-zentzuaren lekuko ere badira, baina, hala ere, aztertuz gero, aurkitzen da ez direla benetako erlijio-fenomenoak, baizik eta politikoak erlijiozko maskarapean. Horrelakoak dira tokian tokiko jainko desberdinen izenen artean egindako identifikazioak, desintegratzen ari den gizartea politika-mailan indarrez batzen dutenean gizartea aurrez bere hazkundealdian eratuta egon zen parroki estatuen arteko konkista-gerren bidez. Adibidez, historia sumerikoaren azken ataletan, Nippur-eko Enlil Jauna (Bel) Babiloniako Marduk bihurtu zenean, eta Babiloniako Marduk-Bel Kharbe-ren izenpean aldi batez oharkabea pasatu zenean, honela ospaturiko *pammixia* huts-hutsik politikoa zen. Lehen aldaketak, babiloniar dinastiaren balentriaren bidez, estatu unibertsal sumerikoaren birgaikuntza jasotzen du, eta bigarrenak estatu unibertsalaren konkista, gerra-jaun kasitek egina.

Parroki jainkoek —desintegratzen ari den gizartean, bertako estatuen bat-egitearen ondorioz edo bat-egindako inperio horien gaineko aginpide politikoa gerra-jaunen talde batetik bestera eskualdatzearen ondorioz elkarren artean identifikatzera iristen direnek— aurretiaz nolabaiteko kidetasuna izan ohi dute beren artean, kasurik gehienetan gutxiengo menderatzaile bakar eta beraren sekzio desberdinen oso aspaldiko jainkoak izateagatik, alegia. Arrazoi honengatik, *raison d'état* delakoak eskaturiko jainkoen nahaspila, arau bezala, ez doa serioski erlijio-aztura eta sentimenduaren muinaren aurka. *Raison*

d'état baino sakonago doan eta praktika eta sinesmen erlijiosoaren haragi bizia ukitzen duen erlijiozko sinkretismoaren adibideak aurkitzeko, gutxiengo menderatzaileak iraganaldi zoriontsuagotik heredatzen duen erlijiotik arazoaldiko erronkei erantzuteko bere kabuz sortzen den filosofiara ekarri behar dugu geure arreta, eta filosofi eskola lehiakideak talkaka eta nahasten ikusi behar ditugu, ez elkarren artean bakarrik, baita barne-proletalgoek sorturiko erlijio nagusi berrieekin ere. Erlijio nagusi hauek, filosofiekin talka egiteaz gain, beren artean ere talka egiten dutenez, komeniko da lehenik erlijio nagusien *inter se* eta filosofien *inter se* arteko harremanei begiratzea beren jatorrizko gizarte-eremu banatuetan, aurrera jarraitu eta emaitza espiritual dinamikoagoak —alde bateko filosofiak beste aldeko erlijio nagusiekin harremanetan jartzean sortzen direnak— hausnartu aurretik.

Gizarte Helenikoaren desintegrazioan Posidonioaren belaunaldiak (*circa* K.a. 135-51) aro baten hasiera markatzen duela dirudi, non hainbat filosofi eskolak, ordu arte eztabaida bizi eta garratzetan atsegin hartuek, orain ados jarrita, epikurearren salbuespen bakarraz, elkarrengandik banatzen zituzten puntuak baino gehiago elkarrenganatzen zituztenak erakutsi eta azpimarratzera jo baitzuten, Erromatar Inperioaren lehen eta bigarren mendeetan garai bat iritsi zen arte, mundu helenikoan epikurear ez ziren filosofo guztiak, edonola deitzen zutela ere beren burua, printzipio-sail eklektiko berari atxiki zitzaizkionekoa. Antzeko promiskuitate-joera agertzen da filosofian Gizarte Sinikoaren desintegrazioaren historian dagokion etapan. K.a. bigarren mendean, Han Inperioaren lehen mendean, eklektizismoa izan zen hasieran gorte inperialaren konfiantza zuen taoismoaren eta hura ordeztu zuen konfuzianismoaren ezaugarri.

Filosofia lehiakideen arteko sinkretismo honek erlijio nagusi lehiakideen arteko harremanetan du paralelotasuna. Adibidez, mundu siriakoan, Salomonen belaunalditik aurrera *rapprochement*-erako joera indartsua aurkitzen dugu Jahveren israeldar gurtzaren eta auzoko komunitate siriakoen bertako Baalim-en gurtzen artean; eta data esanguratsua da, ikusi dugunez bai baitago arrazoirik Salomonen heriotzak Gizarte Siriakoaren kolapsoa iragarri zuela pentsatzeko. Ez dago zalantzarik garai hartan Israelgo erlijio-historiaren berezitasun ohargarri eta garrantzitsuena profeten arrakasta paregabea izan zela, promiskuitate-zentzuaren aurka borrokatzen eta

israeldar erlijio-garapenaren ur-lastera sinkretismoaren ubide errazetik Israeli bereziki zegokion bide berri eta neketsuago batera desbideratzen izandako arrakasta, alegia. Hala ere, elkarrekiko erlijio-eraginen kontu siriakoan hartzekoaren aldeari begiratzen badiogu eta ez zorraren aldeari, gogoratuko dugu arazoaldi siriakoak ikusia izan zezakeela Jahveren gurtza Mendebaldeko Irango herrien kontzientzia erlijiosoan eragiten, haien erdian egon baitzen israeldar erbesteratuen «diaspora» bat, asiriar militaristek ezarria; eta, edonola ere, egia da iranianren kontra-eragin indartsua egon zela juduen kontzientzia erlijiosoan Akemenestar Inperioaren garaian eta gero. K.a. bigarren menderako judaismoaren eta zoroastrismoaren arteko barneratzea hain urrutira zen joana, ezen gure Mendebaldeko iker-tzaile modernoek izugarri zail gertatzen baitzaie bi iturburu hauetako bakoitzak egindako ekarpena zehaztea eta bereiztea beren ur bat-eginek sortutako ur-lasterrean.

Antzeratsu, mundu indikoko barne-proletalgoaren erlijio nagusien garapenean, bat-egitea ikusten dugu, izen-ekuazio hutsa baino askoz sakonerago doana, Krishnaren gurtzaren eta Vishnuren gurtzaren artean.

Desintegrazio-aldietan bi erlijioen edo bi filosofiaren arteko hesietako arraila horiek filosofia eta erlijioen arteko *rapprochements*-etarako bidea zabaltzen dute; eta sinkretismo filosofiko-erlijioso hauetan erakarpenean elkarrenganakoa dela eta mugimendua bi aldeetatik egiten dela aurkituko dugu. Estatu unibertsal baten muga militarretan zangalatraba, goarnizio inperialetako soldaduak eta gerra-talde barbaroetako gerrariak beren bizimoduetan pixkanaka elkarrengana hurbiltzen ikusi ditugun bezala, azkenean bi gizarte-tipoak bereizgarri izateari utzi arte, horrelaxe, estatu unibertsal baten barruan, pareko bateratze-mugimendua ikus genezake eskola filosofikoen jarraitzaileen eta herri-erlijioen zaleen artean. Eta paraleloa egiazkoa da; zeren eta kasu honetan, beste hartan bezala, zera aurkitzen baitugu: proletalgoaren ordezkariak puntu bateraino etortzen badira gutxiengo menderatzailearen ordezkariekin topo egiteko, azken hauek askoz urrutirago joaten direla proletarizazio-bidean, eta azken bat-egitea ia erabat eremu proletarioan gertatzen dela. Bi aldeetatiko *rapprochement* hori azttertzerakoan komeniko da, beraz, alderdi proletarioaren bidaia espiritual laburragoa azter-

tzea, gutxiengo menderatzailearen bidaia espiritual luzeagoari jarraitzen saiatu aurretik.

Barne-proletalgoaren erlijio nagusiak gutxiengo menderatzaillearekin aurrez aurre aurkitzen direnean, egokitzen-bidean egindako aurrerapena atariko urratsean gera daiteke batzuetan, gutxiengo menderatzailearen arte-estiloaren kanpo-itxurak bereganatuz bere burua gutxiengo menderatzaileari ezagutarazteko urratsean, alegia. Honela, mundu helenikoaren desintegrazioan, kristautasunaren kontrario arrakastarik gabeak beren misiolari-enpresen arrakasta bultzatzen saiatu ziren lurralde helenikoan, beren jainkoen ikus-irudikapenei begi helenikoentzat atsegin izan zitezkeen formak emanez. Baina inork ez zuen mugimendu garrantzitsurik egin hurrengo urratsa emateko: barru nahiz kanpotik helenizatzea. Kristautasunak bakarrik erabaki zuen bere kredoa filosofia helenikoaren hizkeran ematea.

Kristautasunaren historian erlijio baten helenizazio intelektual, zeinen muin sortzaileak jatorri siriakoa baitzuen, κοινή atikoaren, eta ez aramearraren, erabileran iragarri zen, Itun Berriaren hizkuntz hedabide izateko; zeren eta hizkuntza sofistikatu honen hiztegiak berak inplikazio filosofiko handiak ekarri baitzituen berekin.

«Ebanjelio sinoptikoetan Jainkoaren Semetzat hartzen da Jesus, eta sineskizun honi jarraipena eman eta sakondu egiten da laugarren ebanjelioaren gorputzean. Baina laugarren ebanjelioaren hitzaurrean ere munduaren salbatzailea Jainkoaren Logos Sortzailea delako ideia botatzen da. Baieztapena esplizituki egiten ez bada ere, zeharbidez, bada, Jainkoaren Semea eta Jainkoaren Logosa gauza bat eta bera dira: Semeak, Logosa bezala, Jainkoaren jakinduria eta egitasmo sortzailearekin bat egiten du, Logosa Semea bezala pertsona batengan hipostasiatzen da, Aitaren pertsonaren ondoan. Kolpean Logosaren filosofia erlijio bihurtu da»¹⁸⁵.

Erlijioa filosofiaren hizkuntzan predikatzeak jokabide hau kristautasunak judaismotik heredatu zuen ondareetako bat da. Filon, Alexandriako judu-filosofoa, (circa K.a. 30 - K.o. 45) izan zen hazia erein zuena, bi mende geroago Filonen kristau-herrikideek, Klemente eta Origenesek, uzta ondo bikaina jaso zutelarik; eta agian leku bereetik lortu zuen laugarren ebanjelioaren autoreak Jainkozko Logosaren ikuspegia, horrekin identifikatzen duelarik bere Jainko Haragitua.

Zalantzarik gabe, alexandriar Kristau Gurasoen aitzindari izandako alexandriar judu hau grezieraren atetik irten zen filosofia helenikoaren bidera; ziur aski ez baitzen kasualitatea izan Filon bizi eta filosofo izatea κοινῇ atikoa tokiko judu-komunitate baten herri-mintzaira bilakatua zen hiri batean; komunitate horrek erabat galdua zuen hebreera, baita aramera ere, menderatzeko gaitasuna, eta bere Idazteunak profanatzeraino iritsia zen mintzaira jentil batera itzuliz. Hala ere, judaismoaren beraren historian kristau-filosofiaren judu-aita hau figura bakartua da; eta filosofia platonikoa Moisesen legetik ateratzeko egin zuen ahalegin burutsuak ondoriorik gabeko *tour de force* bat izaten jarraitu zuen judaismoarentzat.

Kristautasunetik mitraismora igarotzen garenean, bigarrena lehenengoaren aurkaria mundu helenikoaren konkista espiritualerako lehian, bere iraniar sorlekutik mendebalderantzako bidaian Mitraren ontziak astro-filosofia babilonikotik zama astuna hartu zuela ohartzen gara. Era bertsuan hinduismoaren erlijio nagusi indikoak filosofia budista zahartua bipildu zuen, mundu indikoan zuten sorleku konunetik kanpora lehiakide filosofikoa botatzeko behar zituen armak bereganatzeko. Eta egiptologo moderno ospetsu baten iritzia da gutxienez Osirisen gurtza proletarioak gutxiengo menderatzaile egipziakoaren herentziazko panteoiaren gotorlekuan bide egin bazuen, zuzentasuna errebelatzen eta errebindikatzen duen jainko baten paper etikoa —hasieran oso arrotza osiriar fedearantzat— Ra-ri usurpatuz egin zuela. Baina «egiptoarren bipiltze» hau garesti kostatu zitzaion erlijio proletarioari; zeren eta osiriar erlijioak, berak maileguan hartutako lumak, utzi behar izan zizkion alderdiaren eskuetan bere burua ipiniz ordaindu behar izan baitzituen. Apaizteria egipziako zahararren maisu-kolpea hazten ari zen erlijio-mugimendu baten esanetara —eta horrela baita beraren buru ere— jartzea izan zen, mugimendu hau ez baitzen gai hura ezabatu edo hari atzera eusteko, eta horrela aurrez inoiz lortu ez zuen aginte-gailurrera igotzeko.

Panteoi egipziako zaharreko apaizek egin zuten osiriar erlijioaren harrapaketak brahmanek egindako hinduismoaren harrapaketan eta magoek egindako zoroastrismoaren harrapaketan ditu bere paraleloak. Baina bada beste bide bat are maltzurragoa erlijio proletario bat gutxiengo menderatzailearen eskuetan erortzeko; zeren eta eliza proletario baten kontrola lortzen duen eta gero gutxiengo menderatzaile-

aren espiritu eta interesean gobernatzeko kontrol horretaz abusatzen duen apaizteriak ez dauka apaizteria zaharra, jatorriz gutxiengo menderatzailearen parte, izan beharrik; eliza proletario bereko gidari argienean artetik ere errekluta daiteke.

Erromatar Errepublikaren historia politikoaren atal goiztiar batean plebeioen eta patrizioen arteko *stasis*-ari «tratu» batek eman zion bukaera, non patrizioek plebeioen gidariak hartu baitzituzten bazkide, aipatu gabe ulertuz pribilegiarik gabeko klasearen gidari hauek klase horretakoen konfiantzari traizio egin eta atzera utziko zutela masa. Antzeratsu, erlijio-mailan, juduen masa traizionatu eta abandonatu egin zuten, Kristoren aroa baino lehen, haien buruzagi izandakoek, eskriba eta fariseuek. Judu «separatista» hauek eurek aukeratutako izena merezitzeko bizi izan ziren, baina hartu zuten garaian haiek izandako asmoaren kontra-kontrako zentzuan. Jatorrizko fariseuak judu puritanoak ziren, judu helenizatuengandik apartatu zirenak, fede-ukatzaile haiek atzerriko gutxiengo menderatzaile baten alorrera igarotzen ari zirenean; baina fariseuen bereizgarria Kristoren garaian judu-komunitateko kide leial eta fede handikoen masatik banatzea izan zen, komunitate hari artean ere jarraibide ona eskaintzen ziotela aitortu arren hipokrisiaz. Hauxe da ebanjelioetako orrialdeetan oihartzun egiten duen fariseuen aurkako salaketa garratzen atzealde historikoa. Fariseuak juduen nagusi politiko erromatarren eliz parekide judu bilakatuak ziren. Kristoren pasioko tragedian aktiboki jarri ziren erromatar agintarien alde, lotsagarri utzi zituen beren arrazako profeta baten heriotza lortzeko.

Mugimendu osagarriaren azterketari ekiten badiogu orain, non gutxiengo menderatzailearen filosofiak barne-proletalgoaren erlijioetarantz hurbiltzen baitira, ohartuko gara alde honetan prozesua lehenago hasten dela, urrutirago joateaz gain. Kolapsoaren ondorengo lehen belaunaldian hasten da; eta jakin-minetik debozioan zehar superstiziora igarotzen da.

Erlijiozko tinduaren lehen infusioaren goiztiartasuna, kasu heleniko klasikoan, Platonen *Errepublika*-ren *mise-en-scène*-n agertzen da. Gertaldia Pireon —mundu helenikoan dagoen gizarte-*pam-mixia*-ren arragoarik zaharrenean— kokatzen da, Peloponesoko gerraren zorigaiztoko bukaera baino lehen; elkarriketaren gertalekutat jotzen den etxearen jabea atzerritar egoiliar bat da; eta ustezko narra-

tzailea, Sokrates, hasten zaigu esaten Atenas hiritik portura joan dela «traziar jainkosa Bendis-i begirunea azaltzeko, eta haren ohoretan, oraingoan lehen aldiz, Pireon ospatuko den jaialdia nola egiten duten ikusteko jakin-minez». Honela, erlijioa «airean» dago, filosofia — baita izaera arrotz eta exotikoko erlijio— helenikoaren maisulan honentzako testuinguru bezala. Hau ziur aski sarrera bat da, Mendebaldeko ikertzaile moderno batek ondorengo hitzetan deskribatzen duen ondorenerako prestatzen gaituena:

«Gauzarik harrigarriena... mito berriak (hau da, kristauak) atzeritar sorburua izan arren, greziar Gurasoen teologia eta filosofia funtsezko gaietan hain sakonki platonikoa izatea da, edo, zorrotzago adierazita, hain aldaketa gutxirekin Platonengandik hartu ahal izatea. Bat-egite horrek pentsaraz diezaguke jainkoen ipuin zaharrak ordezkatzeko Platonek erabili zuen mitologia kristautasun-fedearen aurkakoa baino gehiago perfekziorik gabeko kristautasuna izan zela. ... Han-hemenkako aztarna batzuetatik atera liteke Platonek berak izan zuela etorkizun zegoen teofaniaren kontzientzia ilun bat, haren profezia izanik bere alegoriak. Sokratesek Apologia-n ohartarazi zituen atenastarrak arimaren beste lekuko batzuei buruz, bere ondoren agertu eta haren heriotza mendekatuko zutenak; eta beste alde batzuetan onartua zuen, filosofiaren arrazoibide eta irudi bikainak gorabehera, egia osoa ezin zitekeela ezagutu Jainkoaren graziaz giza-kiari errebelatu arte»¹⁸⁶.

Filosofiak erlijio bilakatzeko metamorfosi honen gure erregistro historikoa aski zabala da kasu helenikoan prozesua hurrenez hurrengo etapa guztietan jarraitu ahal izateko.

Jakin-min intelektual hotza, Bendis-en traziar erlijioaren aurrean Sokrates platonikoaren jarrera, haren garaikide historikoa izan zen Herodotok agertzen duen aldartea ere bada bere erlijio-azterketa konparatiboaren zehaztasun osagarrietan. Gai horietan haren interesa zientifikoa da, batez ere. Hala ere, arazo teologikoak nolabait ere ardura praktiko handiagoko gauza bihurtu ziren gutxiengo menderatzailearentzat Alexandro Handiak Akemenestar Inperioa bota eta gero, ondorengo estatuetakoa gobernari helenikoek erritozko horniketaren bat egin behar izaten baitzuten beren biztanleria nahasien erlijio-beharretarako. Aldi berean filosofi eskola estoiko eta epikureoaren fundatzaile eta barreiatzaileek, basamortu espiritualean erabat galdu-

ta aurkitzen ziren banako arimentzat, erosotasun espiritualaren anoa bat ematen zuten. Hala ere, garai honetan filosofia helenikoan nagusi zen joeraren adierazgarritzat Platonen eskolaren tonua eta tenperamentua hartzen baditugu, haren dizipuluak Alexandroren ondorengo bi mendeetan eszeptizismoaren bidean aurrerago bultzatzen aurkituko ditugu.

Joeraren aldaketa erabakigarria siriar-greziar filosofo estoiko Posidonio Apameakoarekin (*circa* K.a. 135-51) iritsi zen, honek zabal ireki baitzituen Stoa-ren ateak herri-sineskizun erlijiosoak hartzeko. Bi mende baino lehen, eskola estoikoaren gidaritza Senekarengana pasata zegoen, hau Galioaren anaia eta San Pauloren garaikidea zelarrik. Senekaren filosofi lanetan badira pasarteak Pauloren gutunetako pasarteak deigarriro gogorarazten dituztenak eta horregatik geroago buru kritiko gutxiagoko kristau-teologo batzuk erromatar filosofoa kristau-misiolariarekin harremanetan zegoela imajinatzen iritsi dira. Horrelako usteak, nekez gertatzekoak izateaz gain, alferrikakoak dira; zeren eta, azken batean, ez baitago ezer harrigarriarik musika espiritualezko bi piezaren arteko tonu-harmonia hauetan, garai berean gizarte-esperientzia beraren inspiraziopean sortuak izanik.

Desintegratzen ari zen zibilizazioaren mugazain militarren eta harantzagoko gerra-jaun barbaroen arteko harremanen azterketan ikusi dugu nola, lehen atalean, bi alderdiak elkarrengana hurbiltzen diren benetan bereiztezintasunaren punturaino; eta nola, bigarren atalean, elkarrekin topo egin eta nahasten diren barbarotasun-maila berean. Gutxiengo menderatzaileko filosofoen eta erlijio proletario bateko zaleen arteko *rapprochement*-aren prozesu paraleloan, Senekaren eta San Pauloren arteko hurbilketak, goi-mailan, lehen atalaren bukaera adierazten du. Bigarren atalean, hain onuragarriak ez ziren erlijio-eraginei amore emanez, filosofia deboziotik superstiziora jaisten da.

Hauxe da gutxiengo menderatzailearen filosofien bukaera kas-
karra, eta hau beren indar guztiz saiatu diren arren erlijio nagusien
hazitegi den lur espiritual proletario gozoago hartaraino bide egiten.
Ezertarako ez die balio izaten filosofia hauei azkenean loratu izanak,
loratze berantiar eta uzkur horrek ona ez den joritasunera endekatuz
mendeku hartzen duenean haien kontra. Zibilizazio baten deuseztape-
naren azken ekitaldian filosofiak hil egiten dira, erlijio nagusiek bizi-
rik jarraitu eta etorkizunerako errebindikazioak planteatzen dituzten

bitartean. Kristautasunak bizirik iraun zuen filosofia neoplatonikoa baztertuz, honek ez baitzuen bizi-elixirrik aurkitu arrazionaltasunaren bazterketan. Izan ere, filosofiek eta erlijioek topo egiten dutenean, erlijioek hazi egin behar dute filosofiek txikiagotu egin behar duten bitartean; eta horien arteko topaketaren azterketatik ezin gara aldendu, filosofien porrot hau ondorio saihestezina zergatik den azertu gabe.

Zein dira, beraz, filosofia porrotera eramaten duten ahuldadeak, erlijioaren lehiakide gisa borrokan sartzen denean? Zoritzarreko eta funtsezko ahuldadea, zeinetatik sortzen baita gainerako guztia, bizitasun espiritualaren gabezia da. *Elan* falta honek bi eratara elbarritzen du filosofia. Erakargarritasuna murrizten dio masentzat eta haren erakarpina sentitzen dutenei adorea kentzen die beraren izenean misiolari-lana egiteko. Izan ere, filosofiak nolabait ere begiko du *élite* intelektuala, «gutxi baina egokiak», poeta harroputzak bere zirkulazioaren txikitasuna bere bertsoen bikaintasunaren frogatzat hartzen duenean bezala. Senekaren aurreko belaunaldian Horaziori ez zitzaion inkongruentea iruditu bere «Erromatar Odak» direlakoan dei filosofiko-patriotikoaren hitzaurrea honela egitea:

Kanpora, abere-talde profano hori!
Isilik! Ez utzi mihi fedegabeari
kanta-errito sakratuak nahasten,
nik, bederatzi musen apaiz nagusiak,
gazte eta neskutsentzat
doinu berri eta goragoko bat
*bakarrik ehuntzen dudan bitartean*¹⁸⁷.

Ondo urruti dago horretatik Jesusen parabola:

«Hoa bidez bide eta bazterrik bazter eta sarrarazi jendea barrura, etxea bete dakidan».

Honela, filosofiak inoiz ezin zuen berdindu erlijioaren indarra bere onenean; imitatu eta parodiatu bakarrik egin zitzakeen haren behe-mailako jarraitzaileen ahuldadeak. Seneka eta Epiktetoren belaunaldian adimen helenikoaren marmol ongi zizelkatua une batez bizitu zuen erlijio-arnasa bizkor zikindu zen, Marko Aurelioren belaunaldiaren ostean, gutxi egurasturiko erlijiotasun bihurtuz, eta tradizio filosofikoaren oinordekoak ez bat eta ez bestea gabe geratu ziren. Adimenera jotzea baztertu zuten bihotzerako biderik aurkitu gabe. Jakitun izateari uztean, ez santu, baizik eta arraro bihurtu ziren.

Juliano enperadorea Sokratesengandik Diogenesengana itzuli zen bere filosofi ereduaren bila, Diogenes ospetsuagana, Kristogandik baino gehiago harengandik datorrelarik San Simeon Estilitaren eta haren aszetika-lagunen «kristau»-aszetismoa. Egia esan, azken ekitaldi tragikomiko honetan, Platon eta Zenonen epigonoek beren maisu eta jarraibide handien ezegokitasuna aitortu zuten, eta barne-proletalgoa imitatzeraz jo zuten, hauxe izanik egiazki *profanum vulgus*-aren lausengurik zintzoena, Horaziok bere entzuleen artetik baztertua. Azken neoplatonikoak, Janbliko eta Proklo, filosofoak baino gehiago irudikaturiko eta existitzen ez den erlijio baten apaizak dira. Julianok, apaizgo eta erritualerako zuen kartsutasunarekin, haien planak gauzatu nahi izan zituen, eta, haren heriotzaren berri izatean, Estatuak bermaturiko eliz sistemaren berehalako kolapsoak psikologia modernoko eskola baten sortzailearen iritziaren egia frogatzen du:

*«Berrikuntza handiak sekula ez dira goitik etortzen; beti behetik etortzen dira... herriko jende isil eta sarritan isekagai bihurtuagandik, aurreiritzi akademikoz pertsona ospetsu handiak egon ohi diren baino gutxiago kutsatuta daudenengandik»*¹⁸⁸.

e) *Cuius regio eius religio?*¹⁸⁹

Esan dugu, aurreko kapituluaren bukaeran, Julianok, enperadore gisa, ez zuela lortu bere mendekoei ezartzea berak, filosofo gisa, jarraitzen zuen sasierlijioa. Arazo orokor bat planteatzen du honek, ea egoera hobeagoetan gutxiengo menderatzaileak gai ote diren beren ahuldade espiritualak konpentsatzeko beren indar fisikoa jokoan jarritz eta filosofia edo erlijio bat bere mendekoei presio politikoaren bidez indarrez ezarritz, bidezkoa ez izateagatik eraginkortasun gutxiagokoa ez litzatekeena; eta arazo hau gure Azterlanaren zati honetan argudio-bide nagusitik kanpo dagoen arren, erantzuna bilatzeari ekingo diogu aurrera jarraitu baino lehen.

Honi buruzko datu historikoak aztertzen baditugu, oro har, epe luzera behintzat, horrelako ahaleginek huts egiten dutela aurkituko dugu: aurkikuntza honek erabat gezurtatzen du arazoaldi helenikoko Ilustrazioaren teoria soziologikoetako bat; zeren eta, teoria honen arabera, erlijio-praktikak goitik behera nahita ezartzea, ezinezko edota ezohiko izateetik oso urruti, erlijiozko erakundeen jatorri normala izan da zibilizazio-prozesuetan dauden gizarteetan. Teoria hau Erromako

erlijio-bizitzari aplikatu zaio Polibioren (circa K.a. 206-131) pasarte ospetsu honetan:

«Erromatar konstituzioak beste guztiak argien gainditzen dituen puntua, nire iritziz, erlijioaren tratamenduan aurkitu behar da. Nire iritziz, erromatarrek beren gizarte-ordenaren lokarri nagusia munduaren gainerakoak gorrotatzen duen zerbaitekin forjatzea lortu dute: superstizioarekin esan nahi dut. Haien superstizioa teatralki dramatizatzean eta bizitza pribatuan nahiz publikoan sartzean, imajina daitekeen muturrik muturrenera joan dira erromatarrek; eta behatzaile askori hau ezohikoa gertatuko zaio. Nire iritziz, hala ere, erromatarrek begi bat masengan dutela egin dute. Posible balitz jakintsuz bakarrik osaturiko hautesleria izatea, amarrukeria hau ez litzateke agian beharrezkoa izango; baina, egia esan, masak ezegonkorrak dira beti eta grina legegabez, temperamentu irrazionaleraz eta amorru bortitzez beteak beti; beraz, ez dago beste biderik «ezezagunaren beldurraz» eta era honetako antzerki-jardunaz menderatzea baino. Pentsatzen dut arrazoi honengatik sartuko zituztela gure arbasoek masen artean tradiziozko bihurtu diren infernuari buruzko sineskizun teologiko eta nozioak; eta halaber pentsatzen dut, honela egitean, gure arbasoek ez zutela ausaz jokatu, baizik eta bazekitela zehazki zertan ari ziren. Agian zuzenagoa litzateke gure garaikideak zentzu faltaz eta arduragabekeriak akusatzea erlijioa ezabatzen saiatzeagatik, benetan ikusten ari garen bezala»¹⁹⁰.

Erljioaren jatorriei buruzko teoria hau estatuen jatorriari buruzko gizarte-kontratuaren teoria bezain urruti dago egiatik. Orain frogak aztertzeari ekiten badiogu zera aurkituko dugu: botere politikoa bizitza espiritualaren gain eragiteko erabat ezgai ez den bitartean, arlo honetan jarduteko bere abilezia zirkunstantzien konbinazio berezien mende dagoela eta, orduan ere, bere ekintza-eremua estu mugatua dagoela. Arrakastak salbuespen dira eta porrotak arau.

Lehenik salbuespenak hartuta, ikusten dugu handiki politikoei batzuetan arrakasta dutela kultu bat ezartzen, kultu hau, ez benetako erlijio-sentimenduren baten, baizik eta sentimendu politikoren baten adierazpide denean, mozturiko erlijiosoz maskaratuta: adibidez, erritual sasierlijioso bat, batasun politikorekin egarria adierazten duena, arazoaldi baten kopa garratza hondarreraino edan duen gizarte batean. Zirkunstantzia hauetan, beren giza salbatzaile gisa jadanik mendeko-

en bihotzak konkistatu dituen gobernari batek arrakasta izan dezake kultu bat ezartzen, kultu honetan bere kargua, pertsona eta dinastia direlarik gurtza-gai.

Tour de force honen adibide klasikoa erromatar enperadoreen jainkoespena da. Hala ere, Zesarren gurtza onaldiko kultua gertatu zen, «arazoaldiko unean behar den laguntzaren» kontrakoa hain zuzen, honelakoa gertatzen delarik benetako erlijioa. Ez zuen bizirik iraun Erromatar Inperioaren lehen kolapsoaren ondoren bigarren mendetik hirugarrenera igarotzean; eta ondorengo susperraldiko enperadore gerrariak naturaz gaingiko berrespenen baten bila hasi ziren beren ospe gabeko Jeinu Inperialaren atzean eta harantzago. Sol Invictus abstraktu eta ekumeniko baten banderapean sartu ziren Aureliano eta Konstantzio Kloro, eta, belaunaldi bat beranduago, Konstantino Handiak (K.o. 306-37) Eguzkia edo Zesar baino ahaltsuagoa zela erakutsi zuen barne-proletalgoaren Jainko harengana aldatu zuen bere atxikimendua.

Mundu helenikotik sumerikora joaten bagara, Zesarren gurtza-ren antzekoa aurkituko dugu bere giza pertsonaren kultuan, ez estatu unibertsal sumerikoaren sortzaile izan zen Ur-Engur-ek ezarria, haren ondorengo Dungi-k baizik (*circa* K.a. 2280-2223); baina badirudi hau ere egoera onetako asmakuntza gertatu zela. Edonola ere, Hamurabi amorritak, historia sumerikoan Konstantinok Erromatar Inperioaren historian izan zuen posizioaren antzekoa daukanak, ez zuen gobernatu jainko haragitua bailitzan, baizik eta Marduk-Bel jainko transzendentalaren zerbitzari gisa.

Beste estatu unibertsal batzuetan —andetar, egipziako eta sinikoan— aurkitzen diren «Zesarren gurtzaren» arrastoen azterketak handiki politikoek goitik behera zabaldutako kultuen berezko ahulda-deari buruzko gure susmoa berretsi egiten du. Kultu horiek funtsean politikoak izan arren, eta formaz bakarrik erlijiosoak, eta benetako herri-sentimenduari dagozkion arren, gaitasun gutxi erakusten dute ekaitzetan bizirik irauteko.

Badira beste mota bateko kasuak: hauetan, ez erakunde politiko hutsa erlijiozko moztorropean, baizik eta benetan erlijio-izaera duen kultua ezartzen saiatzen da handiki politikoa; eta arlo honetan ere aipa genitzake kasuak, non esperimentuak nolabaiteko arrakastamaila izan duen. Hala ere, badirudi, kasu hauetan arrakastaren baldin-

tza era honetan ezarritako erlijioa «funtzionatzen duena» izatea dela —ugazaba politikoaren mendekoen gutxiengo baten arimetan, behintzat— eta, baldintza hau bete eta arrakasta lortzen denean ere, ordaindu behar izaten den prezioa ezinezkoa gertatzen da. Zeren eta erlijio batek, aginpide politikoaren ahaleginez arrakastaz ezartzen denean arima guztien gain —arima hauen gorputzak erlijio hori ezartzen ari den gobernariaren mende daudelarik—, eliza unibertsal bilakatzeko, edo izaten jarraitzeko, inoiz izan duen itxaropen oro bertan behera uztearen ordainetan irabazi ohi baitu munduaren zati hau.

Adibidez, Makabeoak, K.a. bigarren mendea bukatu baino lehen, nahitaezko helenizazioaren aurka judu-erlijioaren defendatzailerik militantek izatetik Seleukotar Inperioaren ondorengo estatu baten sortzaile eta gobernari izatera aldatu zirenean, jazarpenari bortizki aurre egin zioten hauek jazarle bihurtu ziren, eta beraiek konkistaturiko herri ez-juduei judaismoa ezartzeari ekin zioten. Politika honek arrakasta izan zuen judaismoaren agintea Idumeara eta «Jentilen Galileara» eta Jordanez bestaldeko Peraea estu batera zabaltzen. Halaz guztiz, indarraren garaipen hau estu mugatua geratu zen; zeren eta huts egin baitzuen samaritarren partikularismoa gainditzen edo Makabeoen agindupeko lurren bi aldeetan zeuden hiri-estatu helenizatuen bi ilaren —ilara bat Palestinako mediterranearen kostan zehar, eta bestea bere basamortuko ertzean zehar Dekapolisen— harrotasun zibikoa gainditzen. Izan ere, armen indarraren bidezko irabazia ez zen kontuan hartzekoa izan, eta judu-erlijioari bere etorkizun espiritual osoa kostatu zitzaiola gertatu zen. Zeren eta judu-historiaren ironia gorena da Alexandro Janeok (K.a. 102-76) judaismoarentzat harrapatutako lurralde berriak, ehun urte geroago, galilear judu-profeta bat eman zuela, haren mezua aurretiko judu-esperientzia erlijioso guztia-
ren betekuntza izan zelarik, eta judu inspiratu hau, indarrez konbertitutako galilear jentilen ondorengoa, bere garaiko juduen Judeako buruzagiek errefusatu egin zutela. Horrekin, judaismoak, bere iragana baliogabetu ez ezik, etorkizuna ere galdu zuen.

Orain Europa modernoaren mapa erlijiosora itzultzen bagara, prest gaude, noski, ikertzeko katolizismoaren eta protestantismoaren eremuen arteko egungo mugak zenbateraino izan diren Erdi Aroko *Respublica Christiana*-ren ondorengo parroki estatuen armez edo diplomaziaz finkatuak. Zalantzarik gabe, hamaseigarren eta hamazaz-

pigarren mendeetako erlijio-gatazkaren emaitzan kanpo-faktore militar eta politikoen eragina ez litzateke goregi neurtu behar; zeren eta, muturreko bi kasu hartzeko, zaila baita imajinatzea edozein agintari sekularren ekintzak Baltikoetako herrialdeei Eliza Katolikoaren altzozan euts ziezaiekeenik, edota protestanteen arlora ekarri mediterranearen herrialdeak. Aldi berean, bazen bitarteko eskualde eztabaidagarri bat, non indar militar eta politikoen jokoak bazuen benetan eragina; eta zona honetan Alemania, Herbehereak, Frantzia eta Ingalaterra sartzen dira. Bereziki Alemanian asmatu eta ezarri zen *cuius regio eius religio* formula klasikoa; eta uste izan genezake Erdialdeko European, gutxienez, printze sekularrek arrakastaz erabili zutela agintea beren mendekoen buruak makurrarazteko, Mendebaldeko kristautasunaren aldaera lehiakideetako bata nahiz bestea izan tokiko handikiak bultzatu nahi zuena. Halaber, gure Mendebaldeko kristautasunak, katolikoa nahiz protestanteak, ondorioz jasan duen kaltea ere neurtu genezake, honela babes politikoaren mendeko bilakatu eta ondorioz *raison d'état*-en zerbitzari izateagatik zigor gisara.

Ordaindu behar izan zen prezioaren lehen zatietako bat Eliza Katolikoak Japonian zuen misio-eremua galtzea izan zen; zeren eta misiolari jesuitek hamaseigarren mendean han ereindako kristautasun katolikoaren haziak hamazazpigarren mendearen erdialdea baino lehen deserrotu baitzituen fundatu berria zen estatu unibertsal japoniarreko gobernarien nahitako ekintzak, Eliza Katolikoa espainiar koroaren handinahi inperialen tresna zelako ondoriora iritsi baitziren estatu-politikari haiek. Etorkizuna zeukan misio-eremu baten konfiskazio hau, hala ere, garrantzirik gabeko galeratzat hartu behar da *cuius regio eius religio*-ren politikak Mendebaldeko kristautasunari etxean eragin behar zion pobretze espiritualaren aldean. Mendebaldeko kristautasunaren fakzio lehiakide guztiek erlijio-gerren garaian kontrako kredoen jarraitzaileen gain indar politikoa erabiliz beren doktrinak ezartzea toleratuz, edota exijituz ere, garaipenerako lasterbidea bilatzeko zeukaten prestutasuna, arimetan sineskizun ororen oinarriak zulatu zituen ikuskizuna izan zen, arima haien atxikimenduagatik zebiltzalarik lehian eliza kontrarioak. Luis XIV.aren barbarotasun-metodoek protestantismoa erauzi zuten Frantziako lur espiritualetik eta eszeptizismoaren uzta alternatiborako bakarrik garbitu zuen lurzorua. Nantesko ediktuaren baliogabetzetik bederatzi urtera

Voltaire jaio zen. Ingalaterran ere temperamentu eszeptiko berbera ikusten dugu ezartzen iraultza puritanoaren erlijio-militantziarekiko erreakzio bezala. Ilustrazio berri bat sortu zen, gure Azterlanaren kapitulu honen hasieran Polibioren aipuan erakutsitako arima-egoeraren antzekoa, erlijioa bera irri-gaitzat hartu zuen pentsamendu-eskola; honela 1736an Butler apezpikuak zera idazten zuen bere *Analogy of Religion, Natural and Revealed, to the Constitution and Course of Nature* delakoaren hitzaurrean:

«Ez dakit nola, baina jende asko iritsi da pentsatzera kristautasuna ez dela ikerketa-gai, baizik eta fiktizioa dela aurkitu dela orain. Eta horren arabera, gaur egun bereizmena duen jende guztia puntu horretan ados balego bezala tratatzen dute, eta irri eta isekagai nagusi bihurtzea beste zereginik geratuko ez balitz bezala ere bai, munduko atseginak hain luzaroan eten izanagatik errepresalia modura edo».

Espiritu-jarrera honek, fedea iraungitzearen ordainetan fanatismoa antzutu zuenak, hamazazpigarren mendetik hogeigarrenera arte iraun du, eta mendebaldar bihurturiko «Gizarte Handiaren» alde guztietan halako punturaino eramanez, azkenean hasiak gara zer den aitortzen. Esan behar da osasun espiritualerako arriskurik handienekotzat hartzen dela, baita Mendebaldeko gizarte-gorputzaren existentzia materialerako ere: arrisku hilgarriagoa, askoz ere, sutsu ikerturiko eta ozenki iragarritako gure gaitz ekonomiko eta politikoetako edozein baino. Gaitz espiritual hau nabariegia da orain ez ikusiarena egiteko; baina errazagoa da gaitza diagnostikatzea sendabidea ematea baino, fedea ez baita eskatu eta eskura daitekeen erosgai arrunt bat. Benetan zaila izango da gure Mendebaldeko bihotzetan egin den hutsune espirituala —bi mende eta erdi-edo iraun duen erlijio-sinesmenaren pixkanakako gainbeherak eragina— betetzea. Oraindik ere, erlijioak politikarekiko izan zuen mendetasunaren aurka erreakzionatzen ari gara, hau izan zelarik hamaseigarren eta hamazazpigarren mendeetako gure arbasoen krimena.

Mendebaldeko kristautasunean bizirik dirauten hainbat formaren ikuspegi sinoptikoa hartzen badugu bere egungo egoeran, eta beren bizitasun erlatiboari buruz konparatzen baditugu, oharturiko gara bizitasun hau eta sekta hauetako bakoitzak kontrol sekularrarekiko izan duen mendetasun-maila alderantzizko proportzioan daudela. Zalantzarik gabe, katolizismoa da gaur egun bizi-seinale-

rik indartsuena ageri duen Mendebaldeko kristautasunaren forma; eta Eliza Katolikoak —printze katoliko modernoak, zenbait herrialdetan eta zenbait garaitan, beren mugetan Elizaren bizitzaren gain kontrol sekularra ezartzeko oso urrutira joan badira ere— sekula ez du galdu eliz agintari goren bakar baten lehendakaritzapean elkarte bakar batean batuta egotearen abantaila paregabea. Bizitasunari dagokionez, Eliza Katolikoaren ondoan sinesmen protestanteko «eliza libreak» jarriko genituzke ziur aski, gobernu sekularren kontrolpetik irtetea lortu dutenak. Eta zerrendaren bukaeran eliza protestante «ezarriak» jarriko genituzke ziur, parroki estatu moderno baten edo bestearen gorputz politikoari loturik irauten dutenak. Azkenik, Ingalaterrako Eliza bezain zabal adarkatu eta aldakorra den eliza ezarri baten erlijio-pentsamendu eta praktikan dauden ñabarduren artean bizitasun erlatiboari buruzko bereizketak egitera ausartu behar bagenu, zalantzarik gabe, bizitasun handienaren txapela anglikanismoaren aldaera anglo-katolikolari emango genioke, honek, «meza disimulatua» ezabatzeko 1874ko legeaz geroztik, mespretxuzko axolagabetasunez tratatu duelarik lege sekularra.

Konparazio higuigarri honen irakaspenak argia dirudi. Mendebaldeko Kristau Elizaren hainbat zatik garai modernoetan izandako zori-desberdintasun honek irudi luke ondorengo proposizioaren gure frogaosatzen duela: erlijioak, epe luzera, inoiz irabaztea espero dezakeena baino gehiago galtzen du botere zibilaren babesa eskatuz edota beraren mende jarritz. Hala ere, itxurazko erregela honek badu salbuespen nabarmen bat, erregela onargarritzat jo aurretik kontuan hartu beharrekoa; eta salbuespen hau Islamaren kasua da. Zeren eta Islamak arrakasta izan baitzuen desegite-prozesuan zegoen Gizarte Siriakoaren eliza unibertsal bihurtzen aurreko etapa batean politikoki konprometituta egon arren, eta, dirudienez, orain arte aztertu ditugun erlijioetako edozeinen kasuan baino modu erabakigarriagoan egon ere. Egia esateko, Islama politikoki konprometitua bere sortzailearen bizialdian egon zen pertsona bakar baten ekintzagatik, sortzailearen berarenagatik, alegia.

Mahoma profetaren ibilketa publikoa erabat desberdinak eta itxuraz kontraesankorrak diruditen bi ataletan banatzen da. Lehenengoan erlijiozko errebelazioa predikatzen aritu zen ebanjeliza-

zio baketsuaren metodoekin; bigarrenean botere politiko eta militarra eraikitzeari ekin zion eta botere hau erabiltzeari, hain zuzen ere beste kasu batzuetan erabili duen erlijioarentzat negargarria gertatu den era berean erabiltzeari. Medinako atal honetan Mahomak bere ibilketaren aurreko atalean —Mekatik Medinarako erretiratze erabakigarria baino lehen— aurkituriko erlijioaren kanpo-betebeharrekiko adostasuna gutxienez ezartzeko helburuarekin erabili zuen botere material aurkitu berria. Honen arabera *Hijrah* delakoak Islamaren hondamendiaren data adierazi beharko luke eta ez ordudanik bere fundaziokotzat ospetsu bihurtu dena. Nola esplikatuko dugu gertaera gogor hau, alegia, gerra-talde barbaro baten fede militante gisa munduratu zen erlijioak eliza unibertsal bihurtzen arrakasta izatea, nahiz eta, analogia guztien arabera, galarazlea gerta zitekeen eragozpen espiritual baten mende hasi?

Arazoa honela ezarrita, hainbat azalpen partzial aurkituko dugu eta, guztiak batera hartuta, irtenbidea eman dezakete agian.

Lehenik, Islamaren zabalkundean indarraren erabileraren garrantzia gehiegi baloratzeko joera —Kristandadean oso ohikoa— murriztu egin behar dugu. Erlijio berriarekiko atxikimendu-erakuspenna, Profetaren ondorengoez ezarria, oso astunak ez ziren kanpo-egin-beharren kopuru txiki bat betetzera mugatua zegoen, eta hau berau ere ez zen saiatu Islama sortu zeneko «inorena ez zen lurralde» arabiarreko komunitate primitibo paganoen mugez harantzago. Erromatar eta Sasandar inperioen probintzia konkistatueta eskainitako alternatibak ez ziren «Islama ala heriotza», baizik eta «Islama ala super-zerga»: hau bere argitasunagatik tradizionalki goraiaturiko politika izan da, askoz geroago Ingalaterran aplikatu zuenean erlijioz epela zen Isabel erreginak. Bestalde, aukera hau ez zen inbidiagarri gertatu Arabiar Kaliferrian musulman ez ziren mendekoentzat omeiatarren erregimenaren pean, zeren eta omeiatarrek (beren lerroko ordezkari bakar baten salbuespenarekin, eta hiru urtez bakarrik erreinatu zuen) epelak izan baitziren guztiak. Egia esateko, omeiatarrek kriptopaganoak ziren pertsonalki, eta ez zitzairen axola, edota argi eta garbi aurkakoak ziren, fede islamikoa zabaltzea, beronen gidaritzat titularra zeukaten arren.

Baldintza berezi hauetan Islamak erlijio-meritueta oinarritua egin behar izan zuen bide Kaliferrian arabiar ez ziren mendekoen artean. Zabalkundea astiro egin zen, baina ziur; eta izenez musulman ziren

omeiatar nagusien axolagabetasunaren —edota atsekabearen— aurrean erlijio berria hartu zuten kristau ohien eta zoroastroar ohien bihottzetan Islama oso bestelako fede bihurtu zen arabiar gerrarien besoetan izandakoaren aldean, hauek estatus politiko pribilegiatuaren denominazio-ikurtzat eraman baitzuten. Arabiar ez ziren konbertitu berriek beren pentsamoldera moldatu zuten, Profetaren baieztapen gordin eta kasualak kristau-teologiaren eta filosofia helenikoaren termino zorrotz eta koherenteetara aldatuz; eta jantzi honekin Islama gai izan zen mundu siriakoan erlijio bateratzaile bihurtzeko, ordu arte arabiar konkista militarren hedapenez politikaren azaleko mailan bakarrik batua.

Muawiyah aginte politikora iritsi eta ehun urtera, Kaliferrian arabiar ez ziren mendeko musulmanak behar hainbat indartsu bilakatu ziren omeiatar epelak beren aulkitik botatzeko eta haien lekuan beste dinastia bat tronuratzeko, honen debozioak jarraitzaileen erlijio-izaera islatzen zuelarik. K.o. 750ean, arabiar ez ziren musulmanen laguntzak abbastarrei omeiatarren gain garaipena eman zienean, bali-teke honela balantza okerrarazi zuen fakzio erlijiosoaren kopuru-indarra artean txikia izatea Arabiar Inperioko biztanleria osoarekiko proportzioan, kristauen kopurua bezain txikia Erromatar Inperioan Konstantinok Maxentzio menderatu zuenean, N.H. Baynes dk.ak ehuneko hamar inguruan kalkulaturiko kopurua¹⁹¹. Kaliferriko mendekoa saldoan Islamera konbertitzea ziur aski ez zen hasi kristau-aroko bederatzigarren mendea baino lehen, ezta bukaerara iritsi ere hamahirugarren mendean abbastar Inperioa desegin arte, eta misio-eremu islamikoan izandako uzta berant hauetaz uste osoz esan daiteke berezko herri-mugimenduaren, eta ez presio politikoaren, emaitza izan zirela; zeren eta, beren erlijioaren ustezko interesetan botere politikoa xahutu zuten Teodosio eta Justinianoren ordezkio islamikoak gutxi baitira eta oso tarteka-marteka agertzen dira bost mendez luzatzen den abbastar kalifen zerrendan.

Pentsa daiteke egitate hauek nahikoa esplikatzen dutela Islamak *prima facie* gure erregelari aurkezten dion salbuespena, hots, botere sekularrentzat ezinezkoa ez den bitartean bere mendekoei indarrez erlijio bat —jada «martxan dagoen enpresa» bat— ezartzen nolabaiteko arrakasta izatea, laguntza politiko horrengatik ordaindu beharreko prezioak, luzera, erabat deuseztatzen duela honela politikoki babesturiko erlijioak izan dezakeen berehalako abantaila oro.

Badirudi zigor bera jasan beharra dagoela babes politikoak berehalako etekinik batere ziurtatzen ez duenean ere. Kasurik nabarienen artean, zeinetan erlijio batek beso sekularraren laguntza konprometigarria hartu eta neurrigabeko galerak jasan baititu, Justinianok Taurus baino harantzago zeuden mendeko monofisitei bere ortodoxia katolikoa ezartzen izandako porrota aurkitzen dugu; Leon Isauriarrak eta Konstantino V.ak Grezia eta Italiako irudi-gurtzaileei beren ikonoklasia ezartzen izandako porrota; Britainiar Koroak Irlandako mendeko katolikoei protestantismoa ezartzen izandako porrota; eta Aurangzeb enperadore mogulak mendeko hinduei bere Islama ezartzen izandako porrota. Eta hori gertatzen bada ezarri nahi den erlijioak «funtzionatzen duenean», are gertagaitzagoa da beso politikoak arrakasta izatea gutxiengo menderatzailearen filosofia bat ezartzen. Dagoeneko aipatu dugu Juliano enperadorearen porrota, ikerketa honen abiapuntua, hain zuzen. Halaber, erabatekoa izan zen Asoka enperadorearen porrota bere mendeko indikoei hinayaniar budismoa ezartzen, nahiz eta bere garaiko filosofia budista bere gailur intelektual eta moralean egon, eta honela Julianoren neoplatonismoarekin baino gehiago Marko Aurelioren estoizismoarekin konpara daiteke.

Oraindik aztertzeke geratzen dira kasu batzuk: gobernari edo gobernari-klase batek, ez jadanik «martxan dagoen enpresa» den erlijio bat edo gutxiengo menderatzailearen filosofia bat, baizik eta berak asmatutako «fantasiazko erlijio» berri bat ezarri nahi dueneko kasuak. Jadanik bizitasun atxikia zeukan erlijio edo filosofia bat ezartzeko helburuaz izan diren porrotak —dagoeneko erregistratuak— ikusita, frogarik entzun gabe justifikatuta senti gaitezke uste izateko azken enpresa hau ere porrota izango zela saiaturiko garai eta alde guztietan; eta horrela gertatzen da, gertatu ere. Halaz guztiz, «fantasiazko erlijio» hauek historiako bitxikerien artean daude eta, besterengatik ez bada ere, arrazoi honengatik ikus daitezke orain bizkor-bizkor.

Jasota dagoen mota honetako kasurik muturrekoena agian kalifa disidentea zen Al-Hakim (K.o. 996-1020) ismaildar xiita izan zen; zeren eta, kanpo-iturrietatik hartutakoa gorabehera, teologia drusoa delakoaren dogma bereizgarria Al-Hakim beraren jainkoespena baita, Jainkoaren hurrenez hurrengo hamar haragitzeren azkena eta betegenena: jainkozko Mesias hilezkorra, mundura garaile itzuliko dena, bertatik misterioski erretiratua lehen epifania labur baten ondoren.

Fede berri honen misiolarien arrakasta bakarra Darazi apostoluak lortu zuen, K.o. 1016an, Hermon mendiaren oinetan, Uadil-Taym siriar barrutiko komunitate txiki-txiki bat konbertitzean. Hamabost urte geroago mundua fede berrira konbertitzeko zeregina bertan behe-
ra utzi zen esplizituki, eta data hartatik komunitate drusoak ez du ametitu konbertiturik, ezta fede-ukatzailerik jasan ere, baizik eta herentziazko korporazio erlijioso itxiaren gisa iraun du, eta bere kide-
ek, gurtzen duten jainko haragituaren izena eramanez, lehen aldiz Al-Hakim-en ebanjelio arrarora sarrarazi zituen misiolariaren izena eramaten dute. Hermon eta Libanoko goi-lurretan ezkutatuta, eliza unibertsal druso *manquéé* hau «gotorlekuko fosil» baten adibide biri-
bila bihurtu da; eta arrazoi beragatik, Al-Hakim-en «fantasiazko erli-
jioak» huts egin du erabat.

Al-Hakim-en erlijioa «fosil» bezala gutxienez bizi da, baina ez da ezertxo ere geratu aurrekoa bezain handiustekoa zen beste ahalegin batetik: hau Vario Avito Basiano siriar fede-ukatzaileak zertu zuen, Erromatar Inperioko panteoi ofizialean jainko nagusitzat, ez bere per-
tsona, baizik eta bere parroki jainkoa, Emesako Heliogabalo eguzki-
-jainkoa ezarritik, bera honen herentziazko apaiz nagusia zelarik, auke-
ra bidez beronen izena eramaten jarraitu zuena zorialdi batek Erromatar Inperioko tronuan jarri zuenean K.o. 218an. Lau urte gero-
ago haren hilketak bat-batean bukarazi zuen erlijio-esperimentua.

Heliogabalo eta Hakim-ek beren aginpide politikoari erlijio-
-apetaren arabera ministrarazteko ahaleginetan erabateko porrota iza-
tea harritzekoa ez bada ere, kredoak eta erritoak goitik beherako ekin-
tza politikoaren bidez zabaltzeko zailtasuna agian garbiago ulertuko
dugu, beste gobernari batzuek ere erlijio-kausaren bat sustatzeko
beren botere politikoaz baliatu nahi izatean lorturiko arrakasta kaskar
bertsua ikusten dugunean, kausa hauetan interesatzeko apeta pertso-
nala asetzeko gogoia baino zio serioagoak izan dituztelarik. Badira
governariak «fantasiazko erlijioa» zabaltzen saiatu eta porrot egin
dutenak erlijioagabeak izan zitezkeen estatu-arrazoiengatik, baina ez
behintzat goi-mailako politikagintzarentzat lotsagarri edo ezduinak;
eta izan dira beste batzuk «fantasiazko erlijioa» zabaltzen saiatu eta
porrot egin dutenak: hauek debozio handiz sinesten zuten erlijio
horretan, eta horrexegatik, beren esku zituzten baliabide guztiekin,
lagun hurkoei komunikatzeko eskubidearekin sentitzen ziren, baita

behartuta ere, horien iluntasuna argitu eta oinak bake-bidetik gidatu ahal izateko.

Helburu politiko baten zerbitzura erlijio berri bat kalkulatuta fabrikatzearen adibide klasikoa Serapis-en irudi eta kultuaren asma-kuntza izan zen, Ptolomeo Soter-ek, Egiptoko Akemenestar Inperioaren ondorengo estatu helenikoaren fundatzaileak, egina. Haren xedea bere mendeko egipziako eta helenikoen arteko leizean erlijio komun baten bidez zubia egitea zen, eta aditu-talde bat bildu zuen bere planak gauzatzeko. Erlijio sintetiko berriak jarraitzaile dezente bereganatu zuen bi komunitateetan, zeinetarako izan baitzen diseinaturia, baina erabat porrot egin zuen bien arteko leizea gainditzten. Bakoitzak bere bideari jarraitu zion Serapisen gurtzan beste gauza guztietan bezalaxe. Ptolomeotar Inperioko bi komunitateen arteko leize espiritualak azkenean beste erlijio batek gainditu zuen, Coele-Siriako *ci-devant* ptolomeotar probintzian proletalgoaren baitan berez sortu zenak, ptolomeotar boterearen azken itzala desagertu eta belaunaldi oso bat geroago.

Ptolomeo Soterren erreinaldia baino mila urte lehenago, Egiptoko beste gobernari batek, Akenaton faraoiak, ekin zion panteoi egipziako ortodoxoaren ordezkari Jainko etereo eta benetakoa bakarrik ezartzeari, honek Aton edo eguzki-diskoan agertu zela giza erlijio bere jainkotasuna, eta ikus daitekeenez haren ahaleginean ez zegoen inolako ardurarik, Ptolomeo Soterren kasuan bezala, ezta megalomania erdizororik ere, Al-Hakim eta Heliogabaloren enpresen atzean suma genezakeen indar bultzatzailea bezalakorik. Badirudi erlijio-fede asaldatuak inspiratu zuela, Asokaren uste filosofiko sendoak bezala, gero ebanjelio-lanetara aldatu zelarik. Akenaton inspiratu zuen erlijio-zioa desinteresaturia eta azpi-asmorik gabea zen. Arrakasta merezi izan zuela esan daiteke, eta hala ere haren porrota erabatekoa izan zen; eta porrot hau «fantasiazko erlijio» bat goitik behera zabaltzeko handiki politiko baten ahalegina izateari egotzi behar zaio. Bere erresumako gutxiengo menderatzailearen etsaitasun garrantzia bereganatu zuen, proletarioen bihotzetara iristea eta haiek hunkitzea lortu gabe.

Orfismoaren porrota antzeratsu esplika daiteke egia bada, eta badirudi arrazoizkoa dela sinestea, orfismoaren zabalkundeak Pisistratorek Atenastar despotengandik hartu zuela lehen bultzada. Azkenik orfismoak lortu zuen arrakasta apala Zibilizazio

Helenikoaren kolapsoaz geroztikoa da, baita mundu helenikoak atzerriko gizarteen bizkar egindako hedapen materialarekin baterako promiskuitate-zentzua arima helenikoetan sartuz geroztikoa ere.

Zaila da jakitea Ptolomeo Soterren makiavelismoarekin ala Akenatonen idealismoarekin sailkatu behar den Akbar timurtar enperadore mogola (K.o. 1554-1605) inperio barruan bere «fantasiazko erlijioa» —Din Ilahi delakoa— ezartzen saiatzera eraman zuen zio-nahaste ia ulertezina; zeren eta, badirudi aparteko gizon hau estatu-politikari praktiko handia eta aldi berean mistiko traszendentala izan zela. Edonola ere, haren erlijioa sekula ez zen sustraitu eta autorea hil eta berehala desagertu egin zen. Egia esan, autokraten alferrikako amets honetan azken hitza esana zuen jada, ziur aski Akbar bera jakitun zela, Akbarren aurreko eta jarraibide izandakoaren —Ala-ad-Din Kilji sultanaren— kontseilarietako batek, kontseilu pribatuaren bileran Ala-ad-Din-ek hirurehun urte geroago Akbarrek egin zuen zorakeria bera egiteko asmoa azaldu zuenean.

«Erljioak eta legeak eta kredoe», aitortu zuen printzearen kontseilariak okasio honetan, «sekula ez lukete Berorren Maiestatearen aztergai izan behar, hauek profeten arazo baitira, ez erregeen zeregin. Erljioa eta legea zerutiko errebelazioz sortzen dira; sekula ez dira gizakiaren plan eta egitasmoz ezartzen. Adamen garaitik orain arte profeta eta apostoluen eginkizun izan dira, agindu eta gobernatzea erregeen eginbeharra izan den bezalaxe. Zeregin profetikoa inoiz ez da erregeena izan —eta sekula ez da izango munduak irauten duen bitartean— nahiz eta profetaren batzuek bete dituzten erregetzaren funtzioak. Nire aholkua da Berorren Maiestateak sekula ez lukeela gai hauetaz hitz egin behar»¹⁹².

Oraindik ez dugu atera gure Mendebaldeko Gizarte modernoaren historiatiak gobernari politikoei «fantasiazko erlijioak» mendekoei ezartzeko saio huts eginen adibiderik, baina Frantziako Iraultzaren historiak argibide-multzoa eskaintzen du. Hemezortzigarren mendearen bukaerako hamarkada zalapartatsuan frantziar iraultzaileen ondoz ondoko saldoek huts egin zuten beren erlijio-fantasiak aurrera ateratzen, horiekin ordeztu nahi izan zutelarik ustez zaharkitua zegoen Eliza Katolikoa: 1791ko Konstituzio Zibilaren kristau-hierarkia demokratizatu izan edo Robespierrerren *Etre Suprême*-ren kultura 1794an edo Direktorioko kide zen Larevellière-Lépaux-en Teofilantropia.

Diotenez, behin batean Direktorioko kide honek txosten luzea irakurri zien ministerio-lagunei bere erlijio-sistema azaltzeko. Gehienek zorionak eman ondoren, Kanpo Arazoetako ministro zen Talleyrand-ek esan omen zion: «Nire aldetik ohar bat besterik ez dut. Jesu kristo, bere erlijioa sortzeko, gurutziltzatua izan eta berpiztu egin zen. Zuk ere antzeko zerbait egiten saiatu behar zenuen». Teofilantropo inozoaren bizkar egindako trufa ikaragarri honetan, Talleyrandek gordin errepikatu baino ez zuen egin Ala-ad-Din-en kontseilariaren aholkua. Larevellière-Lépaux-ek erlijioa zabaltzen arrakasta izan nahi bazuen, Direktorioa utzi eta ibilketa berriari ekin behar zion profeta proletario bezala.

Lehen kontsul Bonaparteri Frantzia, azken batean, katolikoa zela aurkitzea besterik ez zitzaion geratzen, eta, beraz, sinpleagoa eta politikoagoa izango zela ez Frantziari erlijio berri bat ezartzea, baizik eta haren erlijio zaharra gobernari berriaren ondoan jartzea.

Azken adibide honi utz dakioke *cuius regio eius religio*, oro har, tranpa eta iruzur delako gure frogaketa osatzen, baita kontraposizio baterako bidea erakusten ere, egia-zati handia daukana eta *religio regionis religio regis* formulan adieraz genezakeena. Bere mendekoen zati ugarietak, edo behintzat kementsuenak, bultzaturiko erlijioa onartu duten gobernariak aurrera egin dute oro har, nahiz erlijio-zintotasunez nahiz zinismo politikoz jokatu, Enrike IV.ak bere «Parisek balio du, bai, meza bat» esaldiarekin bezala. Gobernari konformista horien zerrendan kristautasuna onartu zuen Konstantino erromatar enperadorea sartuko litzateke, eta konfuzianismoa onartu zuen Han Wuti enperadore sinikoa; baita ere Klovis, Enrike IV.a eta Napoleon; baina adibiderik ohargarriena britainiar Konstituzioaren xedapen bitxi batean aurkitzen da: horren arabera Erresuma Batuko erregea episkopalianoa da Ingalaterran eta presbiterianoa mugaren eskoziar aldean. 1689 eta 1707 artean lorturiko akordio politiko-eklesiastikotik sortutako Koroaren eliz estatusa benetan Erresuma Batuaren eraketaren babesgarri izan da ordudanik; zeren eta, bi erresumetako eliz erakundeen arteko berdintasun formala legearen aurrean, mugaz bi aldeetako «jendeak ulertzeko» moduko eran sinbolizatu baitzen ikusten den egitate honetan: bi aldeetan berdin, erregeak profesatzen duen erlijioa lurralde horretan ofizialki ezarritako erlijioa da; eta nabarmen ziurtaturiko eliz berdintasunaren zentzu honek, koroen batasunaren eta parlamentuen batasunaren artean igarotako mendean

(1603-1707) hain nabarmen falta izan zenak, bi erresumen artean batasun politiko aske eta berdinerako oinarri psikologikoa eman du, erresuma horiek aurrez etsaitasun-tradizio luzeagatik elkarrengandik urrunduta egonak eta biztanleri eta aberastasun-mailako diferentzia zabalagatik beti desberdin izanak.

6.

Batasun-zentzua

Gizarte-desintegrazioaren probaren aurrean giza arimek erre-akzionatzeko dituzten portaera, sentiera eta biziera alternatiboen arteko erlazioez egin dugun atariko azterketan, ohartu gara promiskuitate-zentzua, bere hainbat adierazpidetan aztertu berri duguna, erantzun psikologiko bat dela, zibilizazio batek, oraindik hazten ari denean, onartzen dituen banako profil zorrotzen nahaste eta lausotzeari emandako erantzuna, alegia; eta, halaber, ohartu gara esperientzia berak alternatiboki beste erantzun bat sortaraz dezakeela —batasun-zentzua itzartzea—, promiskuitate-zentzuarekiko desberdina ez ezik, honen antitesi zehatza ere badena. Forma ezagunen desegite asaldagarri eta mingarriak, espiritu ahulagoei azken errealitatea kaosa besterik ez dela iradokitzen dienak, ikuspegi egonkorrago eta espiritualagoari beste egia bat azal diezaioke: fenomeno-munduaren film dardarakorra irudipena dela, bere atzean dagoen betiko batasuna ilundu ezin duena.

Egia espiritual hau, honelako beste egia batzuk bezala, kanpoko eta ikusteko moduko ikurren baten analogiaz atzeman ohi da lehenik; eta espirituala eta azkena den batasun baten lehen iradokizuna ematen duen seinalea kanpoko munduan zera da: gizartearen bat-egitea estatu unibertsal batean. Egia esan, ez Erromatar Inperioa, ez beste edozein estatu unibertsal ezingo ziren ezarri edo iraun batasun politikoaren desira-korrante batek, arazoaldia bere puntu gorenera hurbildu zenean gainezka egin zuenak, zori onera eraman ez balitu. Historia helenikoan irrika hau —edo, hobeto esanda, bere asebetetze atzeratuagatiko lasaitasun-zentzua— Augustoren garaiko latindar poesian arnasten da; eta gu, Mendebaldeko Gizartearen seme-alabok, egungo

fasean geure esperientziaz jabetzen gara zein ziztagarria izan daitekeen «mundu-ordena» honen irrika, gizadiaren batasuna lortzeko ahalegina alfer-alferrik egiten den garai batean.

Alexandro Handiak *Homonoia* edo konkordiaz zuen ikuspegia sekula ez zen mundu helenikotik desagertu helenismo-aztarnaren batek iraun bitartean, eta, Alexandro hil eta hirurehun urte geroago, Augusto aurkitzen dugu bere erromatar zigilu-eraztunean Alexandroren burua jartzen, horrela *Pax Romana* ezartzeko zeregin neketsurako inspirazioa zein iturburutatik ateratzen zuen aitortuz. Plutarkok Alexandroren esanetako bat dakar: «Jainkoa da gizaki guztien aita komuna, baina hark bereziki bere egiten ditu onenak». «Logion» hau benetakoa bada, beronek dioskunez, gizakien anaitasunak Jainkoaren aitatasuna auresuposatzen duela ohartu zen Alexandro, eta egia honek alderantzizko proposizioa inplikatzeko du, hots, giza familiaren jainkozko aita bazter uzten bada, ez dagoela giza eraketa hutsezko lokarri alternatiborik egiteko aukerarik, gizadiari elkartuta eusteko berez baliagarri izango denik. Gizadi osoa barne-hartzeko gai den sozietate bakarra gizagaineko *Civitas Dei* da; eta gizadi osoa eta gizadia bakarrik hartzen duen gizarte baten ideia kimera akademikoa baino ez da. Epikteto estoikoa Paulo kristau-apostolua bezain ongi jabetzen zen egia goren honetaz, baina Epiktetok egitate hau filosofiaren konklusiotzat planteatzen zuen bitartean, San Paulok Jainkoak Kristoren bizitza eta heriotzaren bidez gizakiari egingdako erreibelazio berri baten ebanjeliotzat predikatu zuen.

Arazoaldi sinikoan ere, batasun-irrika sekula ez zen mugatu mundu-mailara.

«Garai honetako txinatarrentzat Bat hitzak (batasuna, baktertasuna, etab.) konotazio biziki emozionala zuen, teoria politikoan eta metafisika taoistan era berean islatzen zena. Eta, egia esanda, sineskizun-eredu finko baten irrika —edo, zehatzago esanda, premia psikologikoa— sakonagoa, premiazkoagoa eta tematiagoa izan zen gobernu-batasunaren irrika baino. Epe luzera, gizakia ezin da bizi ortodoxiarik gabe, funtsezko sinesmen-eredu finko bat gabe»¹⁹³.

Batasuna bilatzeko era siniko orohartzaile hau arautzat har badaiteke, eta nolanahi bakarturiko gizadiaren gure Mendebaldeko kultu modernoa salbuespentzat —edo patologikotzat ere— bazter badaiteke, orduan gizadiaren bateratze praktikoa eta unibertsoaren

bateratze ideala *pari passu* beteta ikustea espero beharko genuke, aldi berean arlo askotan agertzeagatik bat eta banaezin izateari utziko ez liokeen ahalegin espiritual baten bidez. Egia esan, dagoeneko ohartu gara parroki komunitateak estatu unibertsalean bat-egitearekin batera jainkoak panteoi bakar batean sartzea gertatu ohi dela, non jainko konposatu bat —Tebasko Amon-Ra edo Babiloniako Marduk-Bel— sortzen baita Lurreko erregeen errege eta jaunen jaunaren baliokide espiritual gisa.

Ikusiko da, hala ere, giza arazoen egoera, bere gizagaineko isla honelako panteoi batean aurkitzen duena, estatu unibertsal bat sortu ondorengo berehalako egoera dela eta ez azkenean honelako komunitate politiko baten oinarri gertatzen den eraketa; zeren eta estatu unibertsal baten azken eraketa ez baita hierarkia bat, bere osagaiak ukitu gabe gordetzen dituen, soilik aldaketa hau eginez: estatu subirano gisa lehen zuten berdintasuna gero baten nagusitasun bihurtzea besteen gain. Denbora igaro ahala, inperio unitario bihurtuz solidotzen da. Egia esan, erabat heldutako estatu unibertsal batean badira bi ezaugarri nabarmen, bien artean gizarte-ikuspegi osoa menderatzen dutenak: monarka pertsonal gorena eta lege inpertsonal gorena. Eta plan honen arabera gobernatutako gizakien munduan, baliteke unibertsoa oro har antzeko ereduaren arabera deskribatua gertatzea. Estatu unibertsalaren giza gobernaria jainko haragitu bezala gurtu dezaten mendekoak erraz konbentzitzeko bezain ahaltsu eta eskuzabal baldin bada aldi berean, orduan *a fortiori* harengan zerutar gobernari goren eta ahalguztidun baten erretratu lurtarra ikustera joko dute, Jainkoen Jainko soilik ez den jainkoa, Amon-Ra edo Marduk-Bel bezala, baizik eta bakarrik erreinatzen duena, Benetako Jainko Bakar bezala. Bestalde, giza enperadorearen borondatea ekintzan agertzen duen legea indar ezinbesteko eta nonahikoa da, analogiaz Naturaren Lege inpertsonal baten ideia iradokitzen duena: lege honek ez du bakarrik unibertso materiala gobernatzen, baita ulertezinki misteriotsua den alaitasun eta atsekabearen, ongi eta gaizkiaren, sari eta zigorraren banaketa ere, Zesarren dekretuak agintzeari uzten dion giza bizitzako maila sakonagoetan.

Kontzeptu-pare hau —nonahiko eta ezinbesteko legea eta jainko bakar eta ahalguztiduna— estatu unibertsal baten gizarte-ingurunean giza buruetan inoiz eratu diren unibertsoaren errepresentazio ia guztien bihotzean aurkituko da; baina kosmologia hauek aztertuz

gero, bi mota desberdinetako batera edo bestera hurbiltzera jotzen dutela ikusiko da. Mota batean Legea goratzen da Jainkoaren bizkar, eta bestean Jainkoa goratzen da Legearen bizkar; eta Legea azpimarratzea gutxiengo menderatzailearen filosofien ezaugarri den bitartean, barne-proletalgoaren erlijioek Legearen maiestatea Jainkoaren ahalguztiduntasunaren mende jartzera jotzen dutela ohartuko gara. Hala ere, bereizketa hau enfasi-kontua baino ez da; kosmologia haue-tan guztietan bi kontzeptuak batera eta elkarri lotuta aurkitzen dira, nolanahikoak izanda ere dagozkien proportzioak.

Ezarri nahi dugun bereizketari buruz erreparatu hau azaldu ondoren, orain lehenengo aztertuko ditugun unibertso-batasunaren adierazpideetan Legea Jainkoaren bizkar goratu izan da, eta gero beste adierazpide batzuk aztertuko ditugu, non Jainkoak itzalpetu egiten duen Berak emaniko Legea.

«Legea guztiaren errege»¹⁹⁴ den sistemetan, unibertsoa gobernatzen duen Legea garbiago fokatzen den neurrian Jainkoaren nortasuna ahuldu egiten dela ikusten dugu. Gure Mendebaldeko munduan, adibidez, Atanasioren Kredoko Jainko Hirubakarra etapaka desagertu egin da gero eta mendebaldu buru gehiagotan, zientzia fisikoak bere agente intelektualaren mugak existentziako arlo batetik besteetara hedatu ahala, eta azkenean, gure garaiotan, zientziak unibertso material nahiz espiritual osoa hartzen duela aldarrikatzen duenean, Jainko Matematikaria Jainko Hustasunean desagertzen ikusten dugu. Jainkoa kanporatu eta Legeari lekua uzteko Mendebaldeko prozesu moderno honek izan zuen aurrekaririk K.a. zortzigarren mendean mundu babilonikoan: orduan, izar-kosmosaren mugimenduetan aldizkakotasunak aurkitzeak *mathematici* kaldearrak liluratu zituen, astrologiaren zientzia berriarekiko zuten berotasunean, beren atxikimendua Marduk-Bel-engandik Zazpi Planetetara aldatzeko. Mundu indikoan, bestalde, filosofiaren eskola budistak *Karma*-ren lege psikologikoaren ondorio logikoak muturreko konklusioetara eraman zituenen, veden panteoiko jainkoak izan ziren determinismo espiritual «totalitarioaren» sistema erasokor honen biktimarik nabarmenenak. Gerra-talde barbaro bateko jainko barbaro hauek garesti ordaindu behar izan zituzten orain, erromantizismorik gabeko beren adin ertainean, gaztaro zurrunbilotsuko kirtinkeria gizatiarregi guztiak. Unibertso budistan —non kontzientzia eta desira eta helburu oro egoera psikologiko ato-

mikoen sail batera murriztuta baitzeuden, hauek definizioz ezgai zirelarik nortasun iraunkor edo egonkor baten antzeko zerbaitetan bat egiteko— Jainkoak automatikoki gizakien garaiera espiritualera murriztuta geratu ziren ezereztasunaren maila arruntean. Egia esan, filosofi sistema budistan jainkoen eta gizakien estatusaren artean zegoen diferentzia azkenekoen alde zen guztia; zeren eta, gizaki bat iritsi baitzitekeen gutxienez monje budista izatera proba aszetikoa jasaten bazuen, eta plazer arruntei uko egite honen ordainetan existentziaren gurpiletik askatzea eta nirvanaren ahazturan sartzea eskaintzen zitzaion.

Mundu helenikoan Olinpoko jainkoak merezi baino hobeto zeuden, merezitakoa justizia budistak haien veda-lehengusuei emaniko zigorraren arabera neurtu behar bada; zeren eta, filosofo helenikoak unibertsoa munduz gaindiko dimentsiotako «gizarte handitzat» hartzera iritsi zirenean, bere kideen arteko harremanak Legeak arautuak eta homonoia edo konkordiak inspiratuak zirelarik, Zeus, olinpiar gerra-taldeko gerra-jaun ospe txarreko bezala bizitzen hasia, moralki berreskuratu eta eskuzabalki pentsioz hornitu baitzuten *Cosmopolis*-aren presidentziarako aukeratua izateagatik, «erreinatzen baina gobernatzen ez duen» monarka konstituzional moderno baten —patuaren dekretuak otzan-otzan sinatzen dituen eta bere izena naturaren eragiketei atseginez ematen dien erregearen— antzeko estatusarekin¹⁹⁵.

Gure azterketak erakutsi du Jainkotasuna estaltzen duen Legeak forma asko har ditzakeela. Astrologo babilonikoa eta Mendebaldeko zientzialari modernoa matematika-lege batek bihurtu ditu esklabo; aszeta budista lege psikologiko batek hartu du gatibu; eta filosofo helenikoaren atxikimendua gizarte-lege batek bereganatu du. Mundu sinikoan, non Lege-kontzeptuak ez baitu aldekorik aurkitu, hala ere Jainkotasuna Ordena batek ezkutatua aurkitzen dugu, eta Ordena hau gizakiaren portaeraren eta bere ingurunearen arteko nolabaiteko adostasun edo sinpatia magiko bezala agertzen zaio buru sinikoari. Ingurunearen ekintza gizakiaren gain geomantziaren arte sinikoan onartzen eta manipulatzeko den bitartean, gizakiak ingurunearen gain zertzen duen alderantzizko ekintza erritual eta etiketa bidez kontrolatu eta zuzentzen da, errito hauek ispilatzen eta batzuetan aldatzen duten unibertsoaren egitura bezain elaboratu

eta garrantzitsua (den erritual eta etiketa bidez). Mundua birarazten duen zeremonietako giza maisua estatu unibertsal sinikoko monarka da; eta bere funtzioaren gizagaineko irispideagatik, enperadoreak Zeruaren Seme titulua eramaten du ofizialki; hala ere, zeru hau — eskema sinikoan, aztiburuaren adopziozko aita— Ipar Txinako neguko zeru izoztuak bezain zurbil eta inpertsonala da. Egia esan, txinatarren buruan jainko-nortasunari buruzko ideia ororen erabateko eza-batzeak misiolari jesuitei arazo zaila planteatu zien *Deus* hitza txinerrara itzultzen saiatu zirenean.

Orain unibertsoaren beste errepresentazio batzuk aztertzeari ekingo diogu: hauetan batasuna Jainko ahalguztidun baten lan bezala agertzen da, eta Legea Jainkoaren borondatearen adierazpentzat hartzen da, jainko eta gizakien ekintzak era berean arautzen dituen indar bateratzaile subiranotzat hartu ordez.

Dagoeneko esan dugu Jainkoaren bidez gauza guztien batasunaren kontzeptu hau, baita Legearen bidez gauza guztien batasunaren kontzeptu alternatiboa ere, giza buruek analogiaz zertzen dutela, alegia, estatu unibertsalak pixkanaka kristalizatu ahala bere azken forman hartu ohi duen eraketarekiko analogiaz. Prozesu honetan giza gobernariak, jatorriz erregeen errege denak, garai batean bere pare izandako printze bezeroak baztertzen ditu eta «monarka» bihurtzen da, hitzaren zentzu estuan. Estatu unibertsalak bereganatu dituen herri eta lurraldeetako jainkoei aldi berean zer gertatzen zaien aztertzen badugu orain, aldaketa analogoa aurkituko dugu. Panteoi baten ordez, non jainko goren batek subiranotasuna zertzen duen —garai batean haren parekideak ziren eta independentzia galtzean beren jainkotasuna galdu ez duten— jainkoen elkarte baten gain, Jainko bakar bat sortzen ikusten dugu, bakartasuna duen bere funtsa.

Erlizjiozko iraultza hau jainkoen eta gurtzaileen arteko harremanetan aldaketa batekin hasten da normalean. Estatu unibertsal baten esparruan, jainkoek, orain arte bakoitza toki-komunitate partikularren bati lotzen zuten lokarrietatik askatzera jotzen dute. Tribu edo hiri edo mendi edo ibai partikularren baten patroiz bezala bizitzen hasi zen jainkoa ekintza-eremu zabalagoan sartzen da orain, batetik banakoen arimetara eta bestetik gizadi osoarengana jotzen ikasiz. Azken hau dela eta, behinola toki-jainkoa —orain arte toki-buruza-giaren ordezko zerutarra— zenak toki-komunitatea bere baitan irentsi

duen estatu unibertsaleko gobernariengandik hartzen ditu ezaugarriak. Adibidez, Israelgo Jainkoaren judu-ikuspegian, politikoki Judeari itzal egiten zion akemenestar monarkiaren eragina ikusten dugu. Jahveren ikuspegi berri hau K.a. 166-164rako osatu zen, gutxi gorabehera orduan idatzi zelarik Daniel liburuaren zati apokaliptikoa.

«Begira nengoela, hona hemen zer ikusi nuen: Errege-aulki batzuk jarri zituzten eta gizon zahar bat jezarri zen. Haren jantzia elurra bezain zuri, buruko ileak artilea bezain garbi! Haren aulkia eta gurpilakugarri! Suzko ibai bat ateratzen zen haren aurretik. Jendetza izugarria zuen zerbitzari, milaka eta milaka zeuden haren aurrean zutik. Auzia hasi eta zabaldu ziren liburuak»¹⁹⁶.

Honela, lehen parroki jainko ziren hainbatek berriki ezarritako monarka lurtarraren bereizgarria berenganatzen dute eta gero elkarren artean lehiatzen dira bereizgarri hauek inplikatzten duten aginte bakar eta eksklusiboagatik, azkenean lehiakideetako batek kontrarioak deuseztu eta Egiazko Jainko Bakartzat gurtua izateko eskubidea ezartzen duen arte. Bada, hala ere, puntu erabakigarri bat, non ezin den aplikatu «jainkoen guduaren» arteko eta gainerantzean analogoa den «mundu honetako printzeen» arteko analogia.

Estatu unibertsal baten eraketaren bilakaeran, prozesuaren bukaeran subiranotasun bakartian tronoratu dugun monarka, eraketa-sekuentzia etengabea padisharen, edo printze bezeroen buru nagusiaren, ondorengo zuzena izaten da normalean, honen babespean hasten delarik prozesua. Augustori —bere aginpidea Kapadozian edo Palestinan sentiaraziz konformatu dena, bertako errege edo tetrarken (Indiako Britainiar Inperioan «indiar estatuetakoa» gobernarien parekoen) gain superintendentzia orokorrari eutsiz— bere garaian Hadrianok jarraitzen dionean, printzerri izandako hauek bere zuzeneko gobernupeko probintzia bailiran administratuz, ez dago hausturarik botere menderatzailearen jarraipenean. Baina dagokion erlijio-aldaketan jarraipena ez da inola ere araua, baizik eta teorikoki posible den salbuespena, agian adibide historiko bakar batekin nekez argitu daitekeena. Azterketa honen egileak ezin du gogoratu kasu bakar bat ere, non panteoiko jainko nagusiak inoiz Jainkoaren —jaun bakar eta ahalguztidun eta gauza guztien egilearen— epifaniarako bitarteko izateko balio izan duen. Ez Tebasko Amon-Rak, ez Babiloniako Marduk-Belek, ez Olinpiako Zeusek ez

du inoiz azaldu benetako Jainko bakarraren aurpegia bere maskara aldakorraren atzean. Eta estatu unibertsal siriakoan ere —non dinastia inperialak gurturiko jainkoa ez baitzen mota sintetiko honetako jainkoa, ezta *raison d'état*-en produktua ere—, bere ezaugarrien bidez benetako Jainko bakarraren existentzia eta izaera gizadiari agertarazi zizkion jainkoa ez zen izan zoroastroar Ahura Mazda, akemenestarren jainkoa; Jahve izan zen, akemenestarren mendeko judu ezdeusen jainkoa.

Jainko lehiakideen azken destinoen eta haien jarraitzaileen mementoko zorien arteko aurkakotasun honek garbi erakusten du estatu unibertsal baten itzalpe politikoan jaio eta hazitako belaunaldien erlijiozko bizitza eta esperientzia histori azterketarako eremua dela, *peripeteia* edo «paperen alderantzikatzearen» adibide harrigarriak eskaintzen dituen: Errauskineren erako ipuin folkloriko askoren gaia. Aldi berean, jatorri apal eta ilunak ez dira unibertsaltasuna lortzen duten jainkoen ezaugarri bakarrak.

Itun Zaharrean erretrataturik agertzen den Jahveren izaerari begiratzen badiogu, berehala bistaratzen zaizkigu beste bi ezaugarri. Alde batetik, Jahve jatorriz toki-jainko bat da, *glebae adscriptus* zentzu literalean, behintzat sinesten badugu ipar-mendebaldeko Arabian sumendi batean bizi eta hura animatzen zuen *jinn* bezala eman zitzaie-la lehen aldiz israeldarrei ezagutzero, eta edonola ere, K.a. hamalaugarren mendean Egiptoko «Inperio Berriko» palestinar eremura indarrez sartu ziren gerra-talde barbaroen patroiz gisa Efrain eta Judako eskualde menditsura eramana izan ondoren, herri partikular bateko lurrian eta parroki komunitate partikular baten bihotzetan sustraitu zen jainko bezala. Bestalde, Jahve «jainko jeloskorra» da, eta bere gurtzaileari ematen dion lehen agindua hau da: «ez duzu beste jainkorik izango, ni izan ezik». Noski, ez da harritzekoa probintzialismoaren eta eskusibotasunaren bi ezaugarri hauek aldi berean Jahverengan aurkitzea; bere eremura mugatzen den jainko batengandik espero daiteke handik kanpo edukitzea beste jainkoak. Harrigarria —eta, neurri batean, bai higuigarria ere lehen begiratuan— zera ikustea da: Israel eta Judako erresumak menderatu eta estatu unibertsal siriakoa ezarri ondoren, bi printzerri menditsuetako *ci-devant* jainko honek, mundu zabalagora irten eta, auzokoak bezala, gizadi osoaren gurtza beretzat irabazi nahi duenean, gatazkan lehiakide dituenengana erabateko into-

lerantzia erakusten jarraitzen duela. Historia siriakoaren fase ekumeniko honetan, Jahvek bere parroki iraganaren ondare zen jarrera intolteranteari eustea anakronismoa zen, Jahveren motako *ci-devant* toki-jainkoen multzoan garai hartan nagusi zen jitearekin lekuz kanpo zegoena, zalantzarik gabe. Adiskidetasun gutxiko anakronismo hau izan zen, hala ere, bere garaipen harrigarrian lagundu zion izaeraren elementuetako bat.

Irakasbide izan daiteke probintzialismo eta eskusibotasunaren ezaugarri hauek zehazkiago aztertzea, lehenik probintzialismoa hartuta.

Nonahikoa eta bakarra den Jainko baten epifaniaren adierazpide izateko probintzi jainko bat aukeratzea lehen begiratuan paradoxa ulertezina gerta daiteke; zeren eta, Jainkoaren ikusmolde judu, kristau eta islamikoa, egitate historiko bezala, ez bairik gabe, Jahve tribal batetik etorria den bitartean, era berean eztabaida ez zina baita hiru erlijio hauek komun duten Jainkoaren ideiarekin eduki teologikoa, jatorri historikoaren kontrako bezala, ikaragarri desberdina dela Jahveren ideia primitiboaren aldean eta askoz ere antz handiagoa duela beste zenbait ikusmoldearen, hauekiko, egitate historiko bezala, ikusmolde islamiko-kristau-juduak askoz zor arinagoa edo batere zorrik ez duelarik. Unibertsaltasunari dagokionez, Jainkoaren ikusmolde islamiko-kristau-juduak gutxiago dauka komun Jahveren irudikapen primitiboarekin panteoiko jainko nagusiaren —Amon-Ra edo Marduk-Bel-en— ideiarekin baino, nolabait ere unibertso osoaren gain erreintzen duelarik. Edo bestela, espiritualtasuna hartzen badugu ereduizat, ikusmolde islamiko-kristau-juduak gehiago dauka komun eskola filosofikoen abstrakzioekin: Zeus estoiko edo Helios neoplatonikoa-rekin. Zergatik gertatzen da, orduan, Jainkoa gizakiari errebelatzea argumentutzat daukan misterio-antzerkian, paper nagusia ez ematea Helios etereo edo Amon-Ra inperialari, baizik eta Jahve barbaro eta probintzialari, berebiziko paper hau betetzeko haren eskubidea, erakutsi dugunaren arabera, argi eta garbi askoz kaskarragoa izan arren arakasta gabeko lehiakide batzuen baino?

Erantzuna oraindik aipatu ez dugun ikusmolde judu-kristau-islamikoaren elementu bat gogoratuz aurkitu behar dugu. Nonahikotasunaren eta bakartasunaren tasunak aztertu ditugu. Hala ere, beren bikaintasun guztia gorabehera, Jainko Izaeraren atributu

hauek giza ulermenaren ondorioak bakarrik dira; ez dira giza bihotzaren esperientziak. Gizadiarentzat, masan, Jainkoaren funtsa bera Jainko bizi bat izatean datza, gizaki biziduna berarekin harremanetan jar daitekeelarik, beste gizaki bizidun batzuekin izaten dituen harreman espiritualen antzeko harremanetan. Bizia izate hau da Jainkoaren izaeraren funtsa berarekin elkartasunean sartu nahi duten giza arimentzat; eta pertsona izatearen tasun hau —gaur egun judu eta kristau eta musulmanek gurtzen duten bezala Jainkoaren funtsa dena— Jahveren funtsa ere bada, Itun Zaharrean agertzen den bezala. «Izan ere, ba al da gizasemerik, Jainko bizia guk bezala suaren erditik mintzatzen entzun eta bizirik gelditu denik?»¹⁹⁷ da Jahveren Herri Hautatuaren harrotasuna. Israelen Jainko bizi honek bere aldetik filosofoen hainbat abstrakzioarekin topo egiten duenean, garbi geratzen da, *Odisea*-ko hitzetan, «berak bakarrik duela arnasa eta gainerakoak itzalak direla». Zeren eta Jahveren irudi primitiboak abstrakzio horietatik ezaugarri intelektualak hartuz bilakatu baita Jainkoaren kristauikusmolde, zorra ezagutzeko duintasunik edo izenak ezabatzeko eskrupulurik ere gabe.

Bizia izatearen nolakotasun iraunkor hau Jahveren probintzialismo primitiboaren aurrealdea bada, agian aurkituko dugu eksklusibotasunak ere, Jahveren izaeran ezaugarri iraunkor bezain primitiboak, baduela balioaren bat, jainko-izaera gizadiari errebelatzen Israelgo Jainkoak jokatu duen paper historikorako ezinbestekoa dena.

Balio hori nabarmen geratzen da «jainko jeloskor» honen azken garaipenaren eta bi auzo-gizarteen —bien artean, mundu siria-koaren egitura politikoa zatituta utzi zuten— panteoietako jainko nagusien azken porrotaren arteko aldearen esanahia kontuan hartu orduko. Lurrean errotuta egon eta biziaren izerdi ikusgarri eta ukigarria ugari izateari dagokionez, Amon-Ra eta Marduk-Belek maila berean neurtu zezaketen beren burua Jahveren kontra, nahiz eta bazuten honen gain abantaila bat: beren jaioterri ziren Tebas eta Babiloniak munduan izandako arrakasta izugarriarekin elkartuta zeudela gurtzailleen buruan; Jahveren herria, berriz, apaldua eta gatibu, bertan behe-
ra utzia izan zen ahal zuen bezala konpon zezan jainko tribalaren bertuteak errebindikatzeko arazoa, jainko horrek, nonbait, bere tribukoak abandonatu egin zituelarik haren beharra zuten garaian. Abantaila hau beren alde izan arren, Amon-Ra eta Marduk-Bel azkenean mendera-

tuak izan baziren «jainkoen guduan», nekez saihestu genezake Jahveren jeloskortasunarekiko lañotasunari esleitzea haien porrota. Esklusibotasunaren espiritutik askatzea —onerako edo txarrerako— inplizitua dago jainko sintetiko hauen izenen bi zatiak lotzen dituen marratxoan. Ez da harritzekoa Amon-Ra eta Marduk-Bel lasai ehundutako nortasunen mugez harantzago beren nortasun aldakorren batasunik ezarekiko bezain toleranteak izatea politeismoarekiko. Biak era berean jaio ziren —edo zehatzago esanda, elkartu zituzten—, ez eurak baino jainkotasun gutxiagokoak baina bai ahalmen gutxiagokoak ziren izakien multzo baten gain zuten hasierako subiranotasun-egoezarekin konformatzeko; eta sortzetiko handinahi-falta honek eraman zituen jainkotasunaren monopolioaren lehiatik bazter geratzera, Jahveren jeloskortasun irenselek bera guztien aurrean jarritako lasterketa hau azkeneraino korritzera akuilatuko zuenean bera ziur aski.

Lehiakide orenganako intolerantzia errukigabe bera izan zen argi eta garbi Israelgo Jainkoa, Kristau Elizaren Jainko bilakatu ondoren, Erromatar Inperioaren barruan geroago izan zen «jainkoen guduan» bere lehiakide guztiak berriro menderatzeko gai egin zuen nolakotasunetako bat. Haren lehiakideak —Mitra siriakoa, Isis egipziakoa, Zibeles hitita— prest zeuden adostasunera iristeko beren artean eta banatuki aurkituriko beste edozein kulturekin. Espiritu erraz, moldakor hau hondamena izan zen Tertulianoaren Jainkoaren lehiakideentzat, aurrean topatu zuten kontrarioa «erabateko» garaipenaz bakarrik konforma baitzitekeen, beste edozer gutxiago bere funtsa ukatzea izango baitzen harentzat.

Jahveren ethosaren jeloskortasunaren balioari buruzko lekukotasunik zirrargarriena mundu indikoko froga negatibo batek eskaintzen du agian. Hemen, beste edonon bezala, gizarte-desintegrazioaren prozesuarekin batera batasun-zentzua garatu zen erlijio-mailan. Jainkoaren batasuna atzemateko arima indikoetan gero eta biziagoa zen irrikari erantzunez, barne-proletalgo indikoaren jainko ugariak pixkanaka bat egin eta disolbatu egin ziren Shiva eta Vishnuren bi irudi ahaltsuetako batean edo bestean. Jainkoaren batasunaren ulerkuntzarako bidean azkenaurreko etapa hau gutxienez duela mila eta bostehun urte lortu zuen hinduismoak; eta, hala ere, ordudanik igarodan denbora guztian, hinduismoak sekula ez du eman erlijio siriakoak eman zuen azken urratsa, Jahvek —pare bakar batekiko ere intoleran-

tea— Ahura Mazda erabat bereganatu eta garbitu zuenean. Hinduismoan, Jainko Ahalguztidun baten kontzeptua, batua izan ordez, polarizatu egin da figura elkar osagarri eta antitetiko diren balio bertsuko bi hautagairen inguruan, hauek etengabe uko egin diotelarik elkarri kontuak eskatzeari.

Egoera arraro honen aurrean galdetu beharrean gaude hinduismoak zergatik onartu ote duen, Jainkoaren batasunaren arazoaren konponbidetzat, inola ere konponbidea ez den moldaketa, ezinezkoa baita nonahikoa eta ahalguztiduna den jainko bat imajinatzea — Vishnuk eta Shivak, biek nahi duten bezala— aldi berean bakarra izan gabe. Erantzuna da Vishnu eta Shiva ez direla elkarrekin «jeloskorrak». Elkarrekin partekatzeaz konformatu dira, eta uste izatekoa da zelaian beraien aurka Jahve bezalakorik egon ez delako iraun dutela, mundu helenikoan haien baliokide ziren Mitrasek eta Isisek eta Zibeselek ez bezala. Beraz, Jainkoaren batasunaren egia sakon eta iheskorra tinko harrapatzeko orain arte giza arimek izan duten bide bakarra gurtzaileek eksklusibotasun intolerantearen espirituaz hornituri-ko jainkoa dela ondoriozta dezakegu.

7.

Arkaismoa

Sozialki desintegratzen ari den mundura jaiotako arimek aurkezten zaizkien portaera eta sentiera alternatiboen inbentarioa egin dugularik, pasa gaitezke orain bizitzeko bide alternatiboetara, erronka-egoera berberetan jarrai daitezkeenetara, eta, gure atariko azterketan «arkaismotzat» etiketatu dugunarekin has gaitezke; honela definitu dugu: arazoaldietan zenbat eta atzerago utzi, orduan eta zorrozkiago deitoratzen —eta beharbada deshistorikokiago idealizatzen— diren egoera zoriontsuagoetara itzultzeko ahalegina.

*Oi, zein irrikaz nagoen atzera egin
eta bide zaharretik berriro ibiltzeko!
Berriro ere zabaldu hartara iristeko,
non utzi bainuen lehenengoz nire segizio loriatsua,*

handik ikusten duelarik espiritu argiztatuak
Palmondoen Hiri itzaltsua.

.....

Batzuek aurrera joatea dute maite,
baina ni atzerantz ibiliko nintzateke.

Lerro hauetan hamazazpigarren mendeko Henry Vaughan poeta helduak duen haurtzaro-mina ari da adierazten, beste era batera Bultitudes jaun haiek adierazten dutena, zintzotasun gehiago edo gutxiagorekin, belaunaldi gazteagoari «zuen eskola-egunak bizitzako egunik zorionsuenak dituzue» esaten diotenean. Era berean, lerro horiek arkaistaren emozioak azaltzeko balio lezakete, bere gizartearen bizitzan iragandako aldi bat bereganatu nahian ari delarik.

Arkaismo-adibideen azterketa egiterakoan promiskuitate-zentzua aztertzerakoan bezala zatituko dugu arloa, eta portaera, arte, hizkuntza eta erlijioaren lau arloak hartuko ditugu berriro. Promiskuitate-zentzua, ordea, berezko sentimendua da, inkontzientea; arkaismoa, berriz, bizitzako korrontearen kontra joateko berariazko jarrera auto-kontzientea da, *tour de force* bat, egia esateko; eta horren arabera, portaeraren arloan arkaismoa manera inkontzienteetan baino gehiago erakunde formal eta ideia formulatuetan adierazten dela aurkituko dugu, eta hizkuntzaren arloan estilo eta gai-kontuetan.

Orain gure azterketa erakunde eta ideietan hasten badugu, planik onena arkaismo instituzionala xehetasun-gaietan ematen den adibideekin hastea izango da eta gero espiritu-egoera arkaizantearen hedapenari eremu zabalagoan jarraitzea, arkaismo ideologikora iritsi arte, printzipiozko arkaismoa oro hartzailea baita.

Adibidez, Plutarkoren garaian, estatu unibertsal helenikoaren garai gorenean, espartar mutilak Artemisa Orthia-ren aldarean zigorkatzeko zeremonia —proba hau, Espartaren egunsentian, antzinako ugalkortasun-kultu batetik hartua eta Likurgoren *agôgê*-an sartua— arkaismoaren ezaugarrietako bat den gehiegikeria patologikoaz aplikatzen zen berriro ere. Era bertsuan, K.o. 248an, Erromatar Inperioa bere hondamendira zeraman anarkialdi baten erdian aldi bateko arnasaldiaz gozatzen ari zenean, Augustok ezarritako *Ludi Saeculares*-ak berriro ospatzeko inspirazioa izan zuen Filipo enperadoreak, eta bi urte geroago berriro ezarri zen zentsuraren antzinako kargua. Geure garaian italiar faszistek ezarritako «Estatu korporati-

boak» Italian Erdi Aroko hiri-estatuetan indarrean egondako erregimen politiko eta ekonomikoaren berrezarpena zela aldarrikatzen zuen. Herrialde berean K.a. bigarren mendean grakotarrek plebearen tribuno-kargua zertzen ari zirela aldarrikatzen zuten, berrehun urte lehenago ezarri zen garaian izan zuen jatorrizko forman. Arkaismo konstituzionalaren adibide arrakastatsuagoa Augustok, Erromatar Inperioaren sortzaileak, bere izenezko bazkide baina erromatar agindupeko lurren gobernuan benetan haren aurrekoa izandako Senatuari eman zion tratamendua begirunetsua izan zen. Britainia Handian Parlamentu garaileak Koroari emandako tratuarekin pareka daiteke. Bi kasuetan, agintearen benetako eskualdatzea egon zen, Erromako kasuan oligarkiatik monarkia, britainiar kasuan monarkiatik oligarkia, eta bi kasuetan aldaketa formalitate arkaikoez mozturatu zuten.

Desintegratzen ari zen mundu sinikora jotzen badugu, ikuspegi zabalagoko arkaismo konstituzional baten sortzea aurkituko dugu hemen, bizitza publikotik pribatura hedatzen dena. Arazoaldi sinikoa-ren erronkak hartzigarri espiritualala sortu zuen buru sinikoetan, K.a. bosgarren mendeko konfuziar humanismoan adierazi zena, baita geroagoko eta erradikalagoak ziren «politikarien», «sofisten» eta «legelarien» eskoletan ere; baina jarduera espiritualaren piztaldi hau igarokorra izan zen. Eta ondoren iraganerako joera etorri zen, konfuziar humanismoak izan zuen patuan ikus daitekeelarik modurik argienean. Giza izaeraren azterketatik erritualizaturiko etiketa-sistemara endekatu zen. Administrazio-eremuan tradizio bihurtu zen egintza administratibo orok aurrekari historiko baten berrespena behar izatea.

Printzipiozko arkaismoaren beste adibide bat, beste eremu batean, oso fiktizioa zen teutonismoaren kultura izan zen, Mendebalde modernoaren munduan Erromantizismoan izandako mugimendu arkaizante orokorraren probintzi produktuetako bat. Hemeretzigarren mendeko historialari ingeles batzuei kaltegabeko ordainsaria eman ondoren, eta amerikar etnologo batzuei agian gogaikarriagoa zen arraza-harrokeria sartu ondoren, teutoi primitiboen alegiazko bertuteen kultu honek Alemaniako Reich-ean garatu zituen bere hagin eta atzaparrak mugimendu nazional-sozialistaren ebanjelio modura. Arkaismoaren erakustaldi baten aurrean gaude hemen, patetikoa izango zena hain beldurgarria izan ez balitz. Mendebaldeko nazio moder-

no handi bat Aro Modernoko eritasun espiritualak nazio-kolapso atzerazinetik pauso batera eraman zuen, eta, historiaren bide berriak jarri zion segadari ihes egiteko ahalegin etsian, imajinaturiko iraganaldi historiko baten ustezko barbarotasun loriatsura itzuli zen.

Barbarotasunera itzultze honen beste forma bat eta lehenagokoa Mendebaldean Rousseuren ebanjelioa izan zen: «naturara itzultzea» eta «basati onaren» gorespina. Hemezortzigarren mendeko Mendebaldeko arkaistek ez zuten *Mein Kampf*-en orrialdeetan lotsagabeki agertzen diren egitasmo odoltsuen errurik izan, baina beren errugabetasunak ez zituen kaltegabe bihurtu, Rousseau Frantziako Iraultzaren eta honek sortarazitako gerren «kausa» bat izan zen neurrian.

Arkaismoaren moda artegintzan hain zaio ezagun Mendebalde modernoko gizakiari, ezen normaltzat jotzen baitu; zeren eta arteetan ospetsuena arkitektura baita, eta gure hemeretzigarren mendeko arkitektura «susperraldi gotiko» arkaizanteak hondatuta zeukan: mugimendu hau lurjabeen kapritxo bezala hasi zen, beren parkeetan «erakinen hondakin» simulatuak jarri eta egoitza erraldoiak ustez Erdi Aroko abadien efektua berregiten zuten estiloetan eraiki zituztelarik; laster zabaldu zen elizen eraikuntza eta zaharberritzera, honetan aliatu ahaltsua lortu zuelarik era berean arkaizantea zen Oxfordeko Mugimenduan; eta azkenean adierazpide neurrigabea aurkitu zuen hotel, lantegi, ospitale eta eskoletan. Baina arkitektura-arkaismoa ez da Mendebalde modernoko gizakiaren asmakuntza. Londrestarra Konstantinoplara joaten bada eta Istanbulera muinoen atzean eguzki-sarreraren ikuskizuna ikusten badu, zeru-mugaren kontra, meskiten kupulak eta kupulak ikusiko ditu, otomandar erregimenaren mendean Santa Sofia Handi eta Txikiaren ereduaren araberrako morrontza arkaizante sakonean eraikiak: bi eliza bizantziar hauek, arkitekturan ordena heleniko klasikoaren funtsezko kanonen aurka izan ziren desafio ausartak, harrian aldarrikatu zuten hildako mundu helenikoaren hondamenditik lehen Zibilizazio Kristau Ortodoxoaren jaiotza. Azkenik, Gizarte Helenikoaren udalditxora itzultzen bagara, Hadriano enperadore kultua hiri inguruko bere landetxea periodo arkaikoko — hau da, K.a. zazpigarren eta seigarren mendeetako — eskultura helenikoko maisulanen kopia trebeki landuez hornitzen aurkituko dugu; zeren eta Hadrianoren garaiko adituak «prerrafaelitak» baitziren,

Fidias eta Praxitelesen artearen maisu-heldutasuna baloratzeko errefinatuegiak.

Arkaismoaren espirituari hizkuntza eta literaturaren arloan adieraztera eragiten zaionean, berak zertu dezakeen *tour de force* gorenaren hildako hizkuntza bat berpiztea da, herri-hizkuntza bizi bezala erabilaraziz; eta honelako ahalegina ari dira gaur egun egiten mendealdar bihurturiko munduaren hainbat aldetan. Enpresa maltzur honetarako bulkada berezitasun eta kultur buruaskitasunerako eromen nazionalistatik etorri da. Buruaski omen diren nazioek, berezko hizkuntz baliabiderik gabe aurkitu direnean, arkaismoaren bidea hartu dute guztiek, bila ari diren hizkuntz produktuaz hornitzeko biderik errazena bezala. Une honetan bost nazio badira gutxienez beren nazio-hizkuntza bereizgarria sortu nahian dabiltzanak, eremu guztietan, akademikoan izan ezik, erabilia izateari aspaldi utzi zion hizkuntzaren bat berriro erabilaraziz. Hauek norvegiarrak, irlandarrak, otomandar turkiarrak, greziarrak eta judu sionistak dira; eta ohargarria da horietako inor ez dela Mendebaldeko Kristandadearen jatorrizko enborraren ezpala. Norvegiarrak eta irlandarrak Eskandinaviar Zibilizazio abortatuaren eta Mendebalde Urruneko Kristau Zibilizazio abortatuaren gerakinak dira, hurrenez hurren. Otomandar turkiarrak eta greziarrak Gizarte Iranikoko eta Kristau Ortodoxoko kontingenteak dira, askoz berrikiago mendealdar bihurtuak, eta judu sionistak Gizarte Siriakoaren fosil baten zati dira, jaio aurreko egunetatik Mendebaldeko Kristandadearen gorputzean sartuta egon dena.

Norvegiarrek nazio-hizkuntza bat sortzeko gaur egun sentitzen duten beharra Norvegiako erresumaren gainbehera politikoaren ondorio historikoa da; gainbehera hori K.o. 1397tik —Danimarkarekin batu zenetik— 1905era artekoa da, orduan Suediatik banatuz, azkenean erabateko burujabetasuna lortu eta berriro ere bere erregea izan zuelarik; errege honek bere Mendebaldeko bataio-izen modernoa (Karlos) abandonatu eta Haakon tronu-izen arkaizantea hartu zuen, lau norvegiar erregeek Eskandinaviar Gizarte abortatuan izan zuten izena kristau-aroko hamargarren eta hamahirugarren mendeen artean. Norvegiar gainbeheraren bost mendeetan norvegiar literatura zaharrak Mendebaldeko literatura modernoaren bertsio bati —danieraz idatzitakoari— utzi zion lekua, nahiz eta ebakera bertako norvegiararenaren

arabera aldatu zitzaion. Honela, norvegiarrak, beren herrialdea 1814an Danimarkatik Suediara eskualdatu eta laster, beren nazio-kulturaz hornitzeko prestatu zirenean, batere literatur baliabiderik gabe aurkitu ziren, atzerritar markakoa izan ezik, eta ama-hizkuntzarik gabe, literatur baliabide izateari aspaldi utzi zion *patois* bat izan ezik. Beren nazio-ekipamenduaren hizkuntz atalean zuten hutsune ezeroso honen aurrean, bertako hizkuntza bat sortzen ahalegindu dira, aldi berean nekazariarentzat eta hiritarrarentzat balioko duena, aldi berean indigena eta landua delako.

Irlandar nazionalistek aurrean duten arazoa askoz zailagoa da. Irlandan Britainiar Koroak jokatu du Daniar Koroak Norvegian jokatutako papera, puntu bateraino antzekoak izan diren hizkuntz emaitzeekin. Ingeles hizkuntza bilakatu zen irlandar literaturaren hizkuntza, baina, ingelesaren eta irlandar hizkuntzaren arteko leizea —danieraren eta norvegiaren arteko desberdintasun-ñabardura fin samarren kasuan ez bezala— gaundiezina delako agian, irlandar hizkuntza ia desagertzeri iritsi zen. Hizkuntz arkaismoaren irlandar zaleak saiatzen ari dira, ez bizirik dagoen *patois* bat zibilizatzeko, baizik eta ia desagertuta dagoen hizkuntza birsortzeko, eta haien ahaleginaren emaitzak ulergaitzak omen dira Eireko mendebaldean dauden laborarri-talde sakabanatuentzat, oraindik amaren altzoan ikasita bezala mintzatzen direlarik gaelikoz.

Mustafa Kemal Atatürk lehendakari zenduaren erregimen pean otomandar turkiarrek erabili zuten hizkuntz arkaismoa beste izaera batekoa da. Turkiar modernoek arbasoak, ingeles modernoek arbasoak bezala, barbaroak izan ziren, zibilizazio kolapsatu baten eremu abandonatuan sartu eta ezarri zirenak, eta bi barbaro-sail horien ondorengoek berdin erabili dute hizkuntzaren bidea zibilizazioa lortzeko baliabidetzat. Ingelesak beren hiztegi teutoniko murrizta frantses, latin eta grekotik mailegaturiko hitz eta esamolde askorekin kargatuz aberastu duten bezalaxe, era berean osmanliarrek beren turkiera xumean pertsiera eta arabieratik kontaezin ahala bitxi sartu dute. Turkiarren hizkuntz mugimendu arkaiko nazionalistaren helburua bitxi horiek kanporatzea da, eta, atzerrian sorburua duten turkiar maileguak geureak (ingelesarenak) bezainbat direla ohartzean, nabarmen geratzen da zeregina ez dela erraza. Hala ere, turkiar heroiak bere zeregina betetzeko erabili zuen metodoa lehenago bere biztanlerian

zeuden atzerriar-elementuak sorterritik kanporatzeko erabili zuena bezain zorrotza izan zen. Krisi larriago hartan Kemalek greziar eta armeniar klase ertaina, aspaldi ezarria eta ezinbestekoa zirudiena, bota egin zuen Turkiatik, gizarte-hutsunea gertatu ondoren, turkiarrak premiaren premiak hutsune hura betetzera bultzatuko zituela kalkulatu, ordu arte nagikeriaz beste batzuei utzitako gizarte-zereginak beren gain hartuz. Printzipio berean oinarrituz, geroago Ghazi-ak hitz pertsiar eta arabikoak bota zituen otomandar turkiar hiztegitik, eta neurri zorrotz honen bidez erakutsi zuen zer-nolako estimulu intelektual harrigarria eman dakiekeen mentalki nagi diren herriei, beren aho eta belarriak bizitzako hitz-premiarik sinpleenez gupidagabe gabetuta aurkitzean. Ikaragarritzko estualdi hauetan turkiarrak kumaniar glossarioetan, Orkhan-en inskripzioetan, uigur sutretan eta Txinako dinasti historietan ibili dira azterka, oso ezagun baina zorrotz debekaturiko hitz pertsiar edo arabiko baten edo bestearen benetako turkiar ordezkoa aurkitu —edo aurkitu-itxura egin— ahal izateko.

Ikusle ingelesarentzat lexikografi lan frenetiko hauek ikara sortzen duten ikuskizunak dira; zeren eta ingeles-hiztunentzat ere etorkizunak gorde ditzakeen atsekabeak adierazten baitizkiote, egunen batean gure gizartearen salbatzaile ahaltsuren batek guri «ingeles garbia» eskatzea gertatzen bada. Egia esan, gertaera honetarako prestalan txiki bat dagoeneko egina du agian urrutira ikusten duen amateur batek. Duela hogeita hamarren bat urte C.L.D. izeneko batek *Word-Book of the English Tongue* argitaratu zuen «normandiar uztarria astintzeko» irrikaz zeudenak gidatzeko, gure hizkeraren gain hain astun dagoen uztarria. «Hiztun eta idazle askok», idazten du berak, «gaur egun ere ingelesa deitzen dutena ez da batere ingelesa, erabat frantsesa baizik». C.L.D.ren arabera guk (ingelesok) *perambulator* (haur-kotxetxo) ordez *childwain* esan beharko genuke, eta *omnibus* (autobus) ordez *folkwain*; eta hauek izan litezke, bai, hobekuntzak. Baina askoz antzinagotik gure artean diren atzerriar terminoak kanporatu nahi dituenen ez du hain zori onik. *Disapprove* (ezetsi) ordez *hiss*, *boo* edo *hoot* erabiltzea proposatzen duenean ez dio iltzeari buruan ematen edota gogorregi ematen dio; eta *redecraft*, *backjaw* eta *outganger* konbentzitzen ez gaituzten ordezkioak dira *logic* (logiko), *retort* (erantzun) eta *emigrant* (etorkin) esateko¹⁹⁸.

Greziar kasuak norvegiar eta irlandar kasuen antza du, noski, Otomandar Turkiar Inperioak jokatzeko duelarik beste bi kasuetan Daniar edo Britainiar Koroak jokaturiko papera. Greziarrak, nazionalki beren buruaren kontzientzia lortu zutenean, hizkuntz aldetik, norvegiarrak bezala, nekazarien *patois* bat baino ezer hoberik gabe aurkitu ziren, eta, ehun urte geroago irlandarrak bezalaxe, aurrean zituzten zeregin gogorretarako beren *patois* zarpeatu beharrean aurkitu ziren hizkuntzaren antzinako formak tartekatuz. Baina, esperimendu hori egiterakoan, greziarrek borrokatu behar izan zuten zailtasuna irlandarrek aurrean izan zutenaren antitesia zen; zeren eta, antzinako gaelikoaren materiala gogaikarriro eskasa zen bitartean, greziera klasikoaren materiala gogaikarriro ugaria baitzen. Egia esan, greziar hizkuntz arkaista modernoan bidean jarritako segada nagusia antzinako atikoaren baliabideak gehiegi ustiatzeko tentazioa izan da, eta honela «jende ezjakinaren» erreakzio modernista eragitea. Greziera modernoa «puristen hizkeraren» (ἡ καθαρεύουσα) eta «herri-hizkeraren» (ἡ δημοτική) arteko gudu-zelaia da.

Gure bosgarren adibidea da guztietan ohargarriena: hebreera eguneroko bizitzako herri-hizkuntza bihurtzea Palestinan ezarri diren Diasporako judu sionisten ezpainetan; zeren eta, norvegiera edo greziera edo irlandera *patois* bezala beti hitz egin baziren ere, hebreera hizkuntza hila izan baitzen Palestinan hogeita hiru mendez, Nehemiasen garaia baino lehen aramerak han ordezkatu zuenetik. Denbora honetan guztian, gaur egunera arte, hebreerak Judu Elizaren liturgi hizkuntza eta judu-legeaz arduratzen den jakintzaren hizkuntza bezala bakarrik iraun du bizirik. Eta gero, belaunaldi bakar batean, «hildako hizkuntza» hau sinagogatik atera eta Mendebaldeko kultura modernoa hedatzeko bide bihurtu da: lehenik Ekialdeko Europako «Judu Zona» delakoan egunkari batean eta orain Palestinako judu-komunitatearen eskola eta etxeetan, non jidish-a hitz egiten duten Europako etorkinen eta ingelesa hitz egiten duten Amerikako etorkinen eta arabiera hitz egiten duten Yemengo etorkinen eta pertsiera hitz egiten duten Bukhara-ko etorkinen seme-alabak elkarrekin ari baitira hazten guztiak, beren hizkuntza komuntzat antzinako hizkuntza bat dutelarik, Jesusen belaunaldia baino bost mende lehenago «hila».

Mundu helenikora jotzen badugu orain, aurkituko dugu han hizkuntz arkaismoa ez zela parroki nazionalismoaren alboko hutsa, zerbait zabalduagoa baizik.

Antzinako Grezian kristau-aroko zazpigarren mendea baino lehen idatzi eta gaur arte iraun duten liburuen bilduma osoaz beteriko apal bat aztertuz gero, bi gauzaz ohartuko gara: lehenik, bilduma honetako gehien-gehientsuena greziera atikoz idatzia dagoela, eta bigarren, liburutegi atiko hau kronologikoki antolatzen bada, bi talde-tan banatzen dela. Lehenik, bada jatorrizko literatura atiko bat, Atenasen K.a. bosgarren eta laugarren mendeetan idatzia beren berezko hizkuntzan idazten zuten atenastarrek. Bigarren, bada literatura atiko arkaiko bat, sei edo zazpi mendeko denboraldian —K.a. azken mendetik kristau-aroko seigarren mendera bitartean— Atenasen bizi ez ziren eta beren jatorrizko hizkuntza atikoa ez zutenek sortua. Egia esan, idazle neoatiko hauen esparru geografikoa estatu unibertsal helenikoaren eremua bezain zabala da, zeren eta horien artean baitaude Josefo Jerusalemgoa, Eliano Prenestekoa, Marko Aurelio Erromakoa, Luziano Samosatakoa eta Prokopio Zesareakoa. Hala ere, jatorri-desberdintasun handi hau gorabehera, neoatizistek hiztegi, sintaxi eta estilo-berdintasun izugarria ageri dute, zeren eta bakoitza eta guztiak baitira «garairik oneneko» atikoaren imitatzaile garbi, lotsarik gabe eta morroiak.

Beraien arkaismoak iraupena ziurtatu du; zeren eta Gizarte Helenikoaren azken desagitearen bezperatan, «izan ala ez izan» arazoa antzinako greziar autore bakoitzarentzat bere garaian nagusi zen literatur gustuaren arabera erabakitzen zenean, kopiatzaileentzako test-galdera ez zen «Literatura ona al da?», baizik eta «Atiko garbia al da?». Ondorioz, erdipurdikako material neoatikoz betetako liburuak dauzkagu, K.a. hirugarren eta bigarren mendeetako literatura ez-atiko galduaren zati txiki baten truke pozik aldatuko genituzkeenak.

Literatura helenikoaren aro arkaizantean garaile izan zen atizismoa ez zen izan bere motako literatur ariketa bakarra. Bada poesia neohomerikoa ere, antikuarioren segizio luze batek landua, K.a. bigarren mendean Apolonio Rodaskoagandik hasi eta kristau-aroko bosgarren edo seigarren mendean Nono Panopolis-ekoaganaino. Alexandro-osteko greziar literatura ez-arkaizantetik geratzen zaizkigun espezimenak bi lan-sailetara mugatzen dira funtsean: K.a. hirugarren eta bigarren mendeetako poesia bukolikora, bere doriko balio-tsugatik gordea, eta kristauen eta juduen Idazteunetara.

Greziara atikoaren pizkunde arkaizanteak paralelo zehatza du historia indikoan sanskritoaren pizkundera. Jatorrizko sanskritoa arioen eurasiar horda nomadaren herri-hizkuntza izan zen, arioak estepetatik irten eta Ipar Indiara oldartu zirelarik, baita Hego-mendebaldeko Asiatara eta Ipar Egiptora ere, K.a. bigarren milurtekoan; eta Indian hizkuntza hau Vedetan gorde da, Zibilizazio Indikoaren kultur oinarrietako bat bilakatua zen erlijiozko literatur corpusean. Baina Zibilizazio Indiko hau kolapsoa izan eta desintegrazioaren bidetik abiatu zen garairako, sanskritoa erabilera arruntekoa izateari utzi eta hizkuntza «klasiko» bilakatua zen, bere baitan gordetako literaturaren ospe iraunkorragatik ikasia. Eguneroko bizimoduan komunikazio-bide bezala garai hartarako hainbat herri-hizkuntza erabiltzen ziren haren ordez, guztiak sanskritotik eratorriak, baina nahikoa desberdinak hizkuntza banandutzat jo ahal izateko. Prakrito hauetako bat —Zeilango paliera— hinyaniar budismoaren Idazteunetan erabiltzen zen, eta beste zenbait Asoka enperadoreak (K.a. 273-232) erabili zituen bere ediktuak zabalteko. Hala ere, Asoka hil eta laster —edota aurretik ere bai— sanskritoaren susperraldi artifiziala hasi zen eta bere eremua hedatu zuen, kristau-aroko seigarren mendean, hizkuntza neosanskritoak prakritoen gain erabateko garaipena lortu zuen arte Indiako kontinentean, eta palierak literatur bitxikeria gisa bakarrik iraun zuen Zeilango babes-uhartean. Honela, geratzen zaigun sanskritoaren corpora, greziara atikoaren corpora bezala, bi zatitan banatzen da: bata zaharragoa, orijinala, eta beste bat gazteagoa, imitaziozkoa eta arkaizantea.

Erljioaren arloan, hizkuntzaren eta artearen eta erakundearen arloetan bezala, Mendebaldeko behatzaile modernoak badu aukera arkaismoa bere gizarte-ingurunearen mugen barruan lanean ikusteko. Britainiar mugimendu anglo-katolikoa, adibidez, uste honetan oinarritua dago, hots, hamaseigarren mendeko «Erreforma», baita bere bertsio anglikano egokituan ere, urrutiegi joan zela, eta mugimendu honen xedea Erdi Aroko ideia eta zeremoniak berriro erabilaraztea da, duela laurehun urte abandonatu eta deuseztu zirelarik, begirunerik gabe ikuspegi honetatik.

Historia helenikoan adibide bat aurkitzen dugu Augustoren erlijio-politikan:

«Augustorekin Estatu-erlijioak izandako susperraldia aldi berean gertaerarik ohargarriena izan zen erromatar erlijioaren histo-

rian eta ia bakarra erlijio-historian... Kultu zaharren eraginkortasunean sinestea desagertuta zegoen klase eskolatuen artean... hirietako jende xehe hibridoa aspalditik ohituta zegoen jainko zaharrei iseka egiten, eta... erlijioaren kanpo-praktikari ere gain behera joaten utzi zitzaion. Guri ia ezinezkoa irudituko zaigu agian praktika, eta neurri bateraino sinesmena ere bai, gizabanako bakar baten borondatez berpizteko gai izatea... Zeren eta, ezinezkoa baita pizkunde hau benetako izan zela ukatzea; pax deorum eta ius divinum indar eta esanahidun termino bihurtu zirela... Erlijio zaharrak existitzen jarraitu zuen gutxienez beste hiru mendez bere kanpo-forman, eta neurri bateraino herri-sinesmenean»¹⁹⁹.

Mundu helenikotik Ekialde Urruneko Gizartearen japoniar kimura itzultzen bagara, sintoismoa deituriko paganismo primitiboaren bertako japoniar aldaera berpizteko japoniarren ahalegin modernoan erlijio-arkaismoaren beste saio bat aurkituko dugu, eta puntu batzuk komun baditu Augustoren politikarekin, baita paganismo teutonikoa berpizteko ahalegin aleman modernoarekin ere. Eginkizun honek antz handiagoa du *tour de force* alemanarena erromatarrarena baino, zeren eta Augustok berpiztu zuen erromatar paganismoak oraindik funtzionatzen baitzuen, nahiz eta oso aurreratua egon bere gainbeheran; japoniar paganismoa, berriz, alemana bezala, erlijio nagusi batek ordezkaturia edo zurrupaturia izan zen mila urtez: japoniar kasuan, budismoaren mahayaniar aldaerak. Mugimenduaren lehen aldia akademikoa izan zen; zeren eta sintoismoaren pizkundea Keichu (K.o. 1640-1701) izeneko monje budista batek abiarazi baitzuen, eta hark gaiarekiko zuen interesa batez ere filologikoa zela ematen du. Beste batzuek, ordea, jarraipena eman zioten haren lanari, eta Hirata Atsutané-k (K.o. 1776-1843) mahayaniar eta konfuziar filosofiei bieie eraso zien atzeritik ekarriak zirela eta.

Sintoismoaren susperraldi honi, Augustoren susperraldiari bezala, Japonia bere arazoaldetik estatu unibertsalera igaro eta berehala ekin zitzaiola ikusiko da, eta neosintoismoaren mugimendua bere etapa militanteria iritsi berria zela, erasokor hedatzen ari zen Mendebaldeko Zibilizazioaren eraginak garaiz lehen suntsitu zuenean japoniar estatu unibertsala. 1867-8ko iraultzaren ondoren, Japonia bere politika modernoan —hots, Mendebaldeko nazionalismoaren bidetik modernizatuz, erdimendebaldarturiko «Gizarte Handian»

bereari eusteko politikan— sartu zenean, neosintoismoaren mugimendua agertu zen Japoniak nazioarteko egoera berrietan bere nazio-banakotasuna bermatzeko behar zuen horixe emateko. Gobernu berriak erlijioari buruz emandako lehen urratsa sintoismoa Estatu-erlijiotzat ezartzeko ahalegina izan zen, eta garai batean bazirudien budismoa jazarpenez desagertaraziko zela. Baina, ez lehenengo edo azken aldiz historian, «erlijio nagusi» batek harritu egin zituen arerioak bere bizitasun setatiagatik. Budismoak eta sintoismoak elkar toleztatzea onartu behar izan zuten.

Porrot-giroak edota, porrot positiboa ez bada ere, hutsalkeriak inguratzen ditu aztertu ditugun arkaismo-adibide ia guztiak; eta arrazoia ez da ur ruti bilatu behar. Arkaista kondenaturik dago, bere egin-kizunaren izaeragatik beragatik, iragana eta oraina beti bat egiten saiatzera, eta lehian dauden errebindikazioen bateraezintasuna da arkaismoaren ahuldadea bizimodu gisa. Arkaista dilema baten adarren aurrean aurkitzen da, eta ziur aski harrapatu egingo du zeinahi aldetara jotzen duela ere. Oraina kontuan izan gabe iragana berrezartzen saiatzen bada, orduan beti aurrera egiten duen bizitzaren oldarrak zati-zati eginda utziko du eraikin hauskorra. Bestalde, iragana berpizteko apeta oraina funtzionagarri bihurtzeko zereginaren mende jartzea onartzen badu, bere arkaismoa itxurazkoa baino ez da izango. Bide batetik nahiz bestetik arkaista, bere ahaleginen bukaeran, nahigabe futuristaren jokoari jarraitu diola ohartuko da. Anakronismo bat betikotzen saiatzean, atea zabaldu dio berrikuntza zorrotzen bati, indarrez sartzeko aukera honetxan zain egon denari kanpoan.

8.

Futurismoa

Futurismoa eta arkaismoa biak dira orainaldi gogaikarri batetik irteteko ahaleginak, lurrian mundu-bizitzaren mailatik irten gabe denboraren korrontean beste aldi batera iristeko salto hegalari bat eginez. Eta orainalditik —baina ez denboraren dimentsiotik— ihes egiten saiatzeko bi bide alternatibo hauek elkarren antza badute, biak direla-

ko *tours de force*, proban jarritz gero, inolako itxaropenik gabeak. Elkarren arteko alde bakarra zera da: egungo ezerosotasun-egoeratik zein norabidetan —denboraren lasterrean gorantz ala beherantz— egiten dituzten beren irteerak, biak ere etsiak. Aldi berean, futurismoa gehiago doa giza izaeraren muinaren aurka arkaismoa baino; zeren eta, orainaldi desatseginetik iraganaldi ezagunera erretiratuz babesa bilatzea oso gizatiarra den bitartean, giza izaerak nahiago baitu orainaldi desatseginari heltzea etorkizun ezezagunerantz salto egitea baino. Horregatik, alternatiba arkaizantean baino nabarmen goragoa den mailara eramaten da futurismoan *tour de force* psikologikoa, eta espasmo futuristak izaten dira sarri arkaismoaren bidea probatu eta etsita geratu diren arima inguratuen hurrengo erreakzioa. Futurismoaren inguruan ere ibiltzen da etsipena, *a fortiori*. Futurismoaren porrota, ordea, oso bestelako emaitzaz saritzen da batzuetan; futurismoa batzuetan bere burua gainditu eta antzaldaketa-
ra goratzen da.

Arkaismoaren hondamendia automobilaren talkarekin parekatzen badugu, labaindu eta jiratu ondoren kontrako norabidean bere suntsipenera joaten delarik, futurismoaren esperientzia zoriontsuagoa beste honekin pareka daiteke: motoredun ibilgailuan doan bidaiariak lurreko omnibus batean doala uste du, baina gero eta ikara handiagoaz ikusten du lurzorua, zeinen gainean baita aurrera eramana, gero eta malkartsuagoa dela, eta bat-batean —istripua berehalakoa eta saihestezina dela dirudienean— ibilgailua lurretik altxatu eta harkaitz eta arroila gainetik abiatzen da bere elementuan.

Orainarekin eteteko era futurista, arkaizantea bezala, gizarte-jardueraren hainbat arlotan azter daiteke. Maneren arloan, futuristaren lehen keinua sarritan tradiziozko jantziaren ordezkantopikoa hartzea izaten da; eta nonahi dagoen —oraindik axaletik bakarrik bada ere— mendebaldarturiko egungo munduan, Mendebaldekoak ez diren gizarte-pila ikusten dugu heredaturiko jantzi bereizgarriak baztertzen eta Mendebaldeko moda txepel exotikora moldatzen, nahita edo nahigabe Mendebaldeko barne-proletalgoan sartuta dauden kanpo-ikurra izanik.

Kanpoko mendebaldartzearen prozesu behartu baten adibiderik ospetsuena, eta agian lehenengoa, Pedro Handiak Moskovian agindutako bizar-kentzea eta kaftanen debekua izan zen. Hemeretzigarren

mendeko hirugarren laurdenean, janzkeran izandako moskovitar iraultza hau Japoniak berdindu zuen, eta antzeko zirkunstantziek antzerako tirani egintzak eragin dituzte Mendebaldekoak ez diren hainbat herrialdetan 1914-18ko Gerra Orokorraz geroztik. Adibidez, hor dago 1925eko turkiar legea gizonezko hiritar guztientzat hegaldun kapela eramatea nahitaezko egin zuena, baita 1928an Reza Shah Pahlavi-k Iranen eta Aman Alah erregeak Afganistanen emaniko dekretuak ere.

Kristau-aroko hogeigarren mendean mundu islamikoa ez da, ordea, agertoki bakarra, non hegaldun kapela hartu den futurismo militantearen gudu-gandortzat. K.a. 170-160an mundu siriakoan Josue apaiz nagusia, juduen arteko alderdi helenizatzailerik baten buruzagia, ez zen konformatu bere izena Jason bihurtzeko berbazko keinuaz bere programa iragartzearekin. Makabeoen erreakzioa eragin zuen egintza positiboa apaizik gazteenek feldrozko kapela hegaltzabala onartzea izan zen, Akemenestar Inperioaren ondorengo estatu helenikoetan gutxiengo menderatzaile paganoaren buru-estalki bereizgarria zena. Futurismoan juduek egindako saiakuntza horren azken emaitza ez zen izan Pedro Handiarena bezalako arrakasta, Aman Alah-ena bezalako porrota baizik; zeren eta seleukotar botereak judu-erlijioari aurrez aurre egindako erasoak bortxazko judu-erreakzioa eragin baitzuen, Antioko Epifanesez eta haren ondorengoek ezin menderatu izan zutena. Baina eginkizun futurista partikular honek huts egin izanak ez dio irakaspenik kentzen adibide gisa. Futurismoaren ethosa totalitarioa da funtsean, eta egia hau Jasonek nahiz haren kontrarioek aitortu zuten. Greziar *petasus*-a daraman judua laster izango da greziar *palaestra*-n eta laster hasiko da bere erlijioaren arauak betetzea mespretxagarriro zaharkitua eta ezjakinei dagokiena dela pentsatzen.

Politikaren esparruan, futurismoa adierazten da geografikoki, dauden zedarri eta mugak berariaz kenduta, edo sozialki, dauden korporazio, alderdi edo sektak nahitaez deseginda, edo gizarteko klase osoen «likidazioan». Jarraipen politikoan etena sortzeko helburu garbiaz zedarri eta mugen ezabatze sistematikoaren adibide klasikoa Atikako mapa berriro marraztea izan zen, Klistenes iraultzaile arrakastatsuak K.a. 507 inguruan egin. Klistenesen helburua, lasai ehunduriko eraketa politikoa —non ahaidetasun-tituluek normalean gain hartzen baitzieten komunitate-tituluei— Estatu unitario bihurtzea zen,

bertan hiritartasunaren betebeharrak etorkizunean leialtasun txikiago guztiei gain hartuko zielarik. Haren politika zorrotza bereziki arrakastatsua gertatu zen, eta aurrekari heleniko honi Mende baldeko munduan Frantziako Iraultza egin zutenek jarraitu zioten, edo ohartuki helenismoari zioten gurtzaren ondorio gisa edo baliabide berberak independenteki erabili zituztelako helburu berbera lortzeko. Frantziaren bateratze politikoa nahi zutelarik, Klistenesek Atikaren bateratze politikoa nahi izan zuen bezalaxe, probintzia feudal zaharrak deuseztu eta barruko aduana-hesi zaharrak berdinu zituzten Frantzia zerga-eremu bateratu bihurtzeko, administrazio-komenientziengatik laurogeita hiru departamentutan azpibanatua, hauen uniformetasun monotonoak eta mendetasun estuak tokian tokiko desberdintasun eta leialtasunen oroitzapena ezabatzeko helburua zuelarik. Muga zaharren ezabatzeak Frantziatik kanpo —eta hau frantziar ez ziren lurraldeak, aldi baterako Napoleonen Inperioan sartuak, frantziar ereduaren arabera departamentu bihurtzeko birmoldaketaren bidez egin zen— zalantzarik gabe bidea ireki zuen estatu unitarioak sortzeko Italian eta Alemanian.

Gure egunotan, Stalinek adierazpide berezia eman dio ethos boltxebikeari geografiaren eremuan, Sobietar Batasuneko barne-zatketen berrantolaketa askoz erradikalagoa burutu duelarik; eta hau garbi ikusten da munduko eskualde honen administrazio-mapa berria Errusiar Inperioko administrazio-mapa zaharraren gainean jartzen bada. Helburu bera lortu nahian, ordea, Stalinek oso burutsu jokatu zuen, eta horretan aitzindari da agian. Aurrekoek beren xedea tokian tokiko leialtasunak ahulduz lortu nahi izan zuten bitartean, Stalinek kontrako politika jarraitu zuen, hots, lokalismoaren gurariak asetu eta horiei aurea hartzea, zuhur kalkulatz jangura errazago desagertzen dela asebetez goseak akabatuz baino. Honi dagokionez, merezi du gogoratzea Stalin bera ere georgiarra dela, eta 1919an georgiar mentxebikeen ordezkaritza bat Pariseko Bake Konferentzian agertu zela, errusiar ez zen beste nazionalitate bat bezala onar zezaten eskatuz. Beren errebindikazioa, neurri batean, georgiar hizkuntzaren desberdintasunean oinarritzen zuten eta interpretari bat ekarri zuten berekin, beraien hizkera arrotza frantsesera itzultzea izanik haren ustezko egitekoa. Okasio batean, ordea, kazetari ingeles bat —errusiera bazekiena (georgiar haiek ohartu gabe)— konturatu zen ordezkariak eta inter-

pretariak errusieraz egiten zutela beren artean. Dedukzioa izan zen egungo georgiarrek, zeinahi gurari politiko izanda ere, bere hizketa politikoa bat-batean eta oharkabea errusieraz egingo zuela, errusiera erabili beharra indarrez ezartzen ez zitzaion bitartean.

Kultura sekularraren eremuan, futurismoaren adierazpen klasikoa liburu-erreketa egintza sinbolikoa da. Mundu sinikoan Tsin Shi Huang-ti enperadoreak, estatu unibertsal sinikoaren lehen sortzaile iraultzaileak, arazoaldi sinikoan loratu ziren filosofoen literatur hondakinak konfiskatu eta erre omen zituen, beldur baitzen «pentsamendu arriskutsu» honen transmisioak ez ote zuen hondatuko gizarte-ordena erabat berria hasteko bere asmoa. Gizarte Siriakoan Omar kalifak, erasoaldi helenikoaren mila urteetan ahuldadean egon ondoren estatu unibertsal siriakoa bizkortu zuenak, zera idatzi omen zuen Alexandria hiria errendatzea lortu eta hango liburutegi ospetsuaz zer egin jakiteko argibideak eskatu zizkion jeneral baten galderari erantzunez:

«Greziarren idazki hauek bat baldin badatoz Jainkoaren Liburuarekin, alferrikakoak dira eta ez dago gorde beharrik; bat ez badatoz, kaltegarriak dira eta suntsitu egin behar dira».

Kondaira honen arabera, bederatziehun urte baino luzaroagoan liburutegian metatu zena bainuetxe publikoak berotzeko erregai bezala kontsumitzera kondenatu zen orduan.

Gure garaian Hitlerrek ahal duena egin du liburu-erreketa, nahiz eta inprimategiaren etorrerak askoz zailagoa bihurtu duen «erabateko» emaitzak lortzea gure munduan neurri honetara jo duten tiranoentzat. Hitlerren garaikide zen Mustafa Kemal Atatürk-ek bide burutsuagoa aukeratu zuen. Turkiar diktadorearen xedea bere herrikideen buruak herentziazko kultur testuinguru iranikotik atera eta Mendebaldeko kultur moldean sarraraztea zen; eta liburuak erre orde alfabetoa aldatzearekin konformatu zen. 1929tik aurrera liburu eta aldizkari guztiak inprimatzeko eta legezko balioa zuten dokumentu guztiak idazteko latindar alfabetoa erabili behar izan zen. Lege hau onartu eta aplikatuz turkiar «Ghazi»arentzat ez zen beharrezkoa enperadore sinikoa edo arabiar kalifa imitatzea. Pertsiar, arabiar eta turkiar literaturako klasikoak, sortzen ari zen belaunaldiaren irispidetik kanpo utzita zeuden eraginkorki. Ez zegoen liburuak erretzeko inolako beharrik beraien giltza zen alfabetoa erabiltezin bihur-

tu ondoren. Utz zitezkeen arriskurik gabe apaletan usteltzen, ziur jakinda inork ez zituela mugituko, antigoalekoen merkatarit-talde urri batek izan ezik.

Pentsamendua eta literatura ez dira, noski, kultura sekularraren arlo bakarrak, non orainak iraganetik jasotako herentzia eraso futuris-taren arriskupean dagoen. Futurismoak baditu beste mundu batzuk konkistagai ikusteko eta entzuteko arteetan. Egia esan, ikus-artearen arloan lan egiten dutenek asmatu dute «futurismo» izena beren mai-sulan iraultzaileak deskribatzeko. Baina bada futurismo-forma ospe-tsu bat ikus-artearen arloan, kultura sekularraren eta erlijioaren eremuen arteko zona komunean dagoena, ikonoklasia, alegia. Ikonoklastak pin-tura kubistaren defendatzaile modernoaren antza du tradiziozko arte-estiloaren gaitzespenean, baina berezia da bere aurkakotasun hori erlijioari loturiko artera bideratzen duelako eta aurkakotasun horren zioak ez estetikoak baizik eta teologikoak direlako. Ikonoklasiaren muina Jainkoaren ikus-irudikapena egiteko eragozpena da, edo Jainkoa baino apalagoa den edozein izakirena, irudi hori idolatriazko gurtzagai bihur badaiteke; baina izan dira desberdintasunak printzipio hori aplikatzeko zorroztasunean. Ikonoklasiaren eskolarik ospetsue-netakoa «totalitario» bat da, judaismoak ordezkaturia eta, judaismoare-na imitatuz, Islamak ere bai, eta Moisesen aginduetako bigarrenean dago adierazita:

«Ez egin idolorik, ez irudirik, goian zeruan, behean lurrian nahiz lurpeko uretan dagoenetik»²⁰⁰.

Bestalde, Kristau Elizaren barruan sortu diren mugimendu ikonoklastak kristautasunak bere lehen unetik onartu bide zuen bereizketara egokitu izan dira. Nahiz eta ikonoklastiak zortzigarren mendean Kristandade Ortodoxoan eta hamaseigarren mendean Mendebaldeko Kristandadean izandako pizturaldiak, neurri bateraino, zortzigarren mendeko Islamaren eta hamaseigarren mendeko judais-moaren jarraipideetan inspiratuak egon daitezkeen, ez bata eta ez bestea ez ziren saiatu ikus-arteak erabat debekatzen. Ez zuten beren eraso arlo sekularrera eraman, eta erlijioaren arloan ere ikonoklasta ortodoxoak azkenean konponketa bitxi batera iritsi ziren. Erlijiozko gurtzarako gauzen hiru dimentsioko irudikapenak debekatu egin behar ziren, isil-gordeka onartuz toleratu egingo zirela bi dimentsio-ko irudikapenak.

9.

Futurismoaren autotraszendentzia

Politikaren arloan bide futuristek batzuetan arrakasta izan duten bitartean, futurismoak, bizimodu gisa, berez lortuezina den helburu baten bilaketa antzura bultzatzen ditu berari jarraitu nahi diotenak. Hala ere, bilaketa antzua eta agian tragikoa izan arren, ez dauka baliorik gabea izan beharrik, bake-biderantz gida baitezake bilatzaile etsitua. Futurismoa bere biluztasun primitiboan etsipenaren aholkua da eta, horrela ere, *pis aller* bat da; zeren eta orainaz etsita dagoen baina mundu-mailan bizitzeko gogoia galdu ez duen arima baten lehenengo baliabidea denboraren lasterrean iraganerantz salto hegalaria bat emateko ahalegina izaten baita; eta ihesbide arkaizante hau alferrik probatu edo berez ezinezkoa delako baztertu denean bakarrik animatuko da arima artifizialagoa den futurismoaren bideari jarraitzera.

Futurismo huts —eta arrazoi beragatik huts-hutsik mundutar— honen izaera adibide klasikoetako batzuk aipatuz argitu daiteke ongien.

Mundu helenikoan, adibidez, K.a. bigarren mendean, milaka siriar eta kultura handiko beste ekialdetar batzuk askatasunaz gabetu zituzten, beren etxeetatik deserrotu, familiengandik banatu eta itsasoz Siziliara eta Italiara eramán zituzten, Bigarren Gerra Punikoak hondaturiko eremuetako plantazioetan eta aberetegietan esklabo gisa erabiltzeko. Erbesteratutako esklabo hauentzat, orainalditik ihes egiteko izugarritzko beharra zutelarik, ez zegoen aukerarik iraganera erretirada arkaizanterik egiteko. Ezinezkoa gertatzen zitzaien fisikoki beren sorlekura itzultzea, baina gainera sorlekua beraientzat atsegingarri egin zuen guztia desagertua zen erremediorik gabe. Ezin zuten atzera egin; aurrera bakarrik joan zitezkeen; eta horrela, zapalkuntza jasangaitz bihurtu zitzaientean, errebolta fisikora akuilatuak izan ziren. Esklaboen matxinada handien helburu etsia nolabaiteko erromatar elkarte alderantzikatu bat ezartzea zen, non garaiko esklaboak nagusi eta garaiko nagusiak esklabo izango baitziren.

Historia siriakoaren lehenagoko atal batean juduek era bertsuari erreakzionatu zuten Judako erresuma subirano burujabea suntsitzean. Neobabiloniar eta Akemenestar inperioetan irentsiak eta jentilen artean barreiatuak izan ondoren, ezin zuten sendo espero izan erbestealdiaren aurreko egoerara itzultze arkaizantea egiterik, orduan Judak parroki independentzia bizi izan zuelarik. Konbentzigarria izan behar zuen itxaropena ezin zen oinarritu oroitu ezinezko moduan desagertutako gauzen egoeran; eta adiskidetu ezin ziren orainalditik ihes egiteko itxaropen handirik gabe bizi ezin zirenez, erbestealdi osteko juduek etorkizunean ezarriko zen erresuma davidikoan jarri zuten itxaropena, Judaren iragan politikoa aurrekaririk ez zuen forman, orain inperio handien mundu batean bakarrik imajina daitekeen erako erresuma batean. David berriak judu guztiak bere gobernupean bildu behar bazituen —eta zer beste eginkizun izan zezakeen haxe izan ezik?—, aginte-makila orduan zeukanaren eskuetatik kendu behar zuen eta etorkizuneko Jerusalem orduan Babilonia edo Susa zena egin behar zuen, munduaren erdigunea, alegia. Zergatik ez zuen Zerubbabelek Dariok bezain aukera ona izango mundua menderatzeko, edo Judas Makabeok Antiokok bezain ona, edo Bar Kokabak Hadrianok bezain ona?

Antzeko ametsak liluratu zituen garai batean Errusiako «sinesle zaharren» irudimenak. Raskolniki hauen begietara, Pedro tsarrak ortodoxiaz zuen bertsioa ez zen inola ere ortodoxia, eta aldi berean ezinezkoa zen ahalguztiduna eta satanikoa zen ordena sekular indartsuaren aurrean eliz ordena zaharra bere burua garaile sendotzen imajinatzea. Ondorioz, raskolniki-ak aurrekaririk gabeko zerbait itxarotera bultzatuta sentitu ziren: Tsar-Mesias baten epifania, fede ortodoxoa bere hasierako garbitasunean zaharberritzeko gaitasuna izango zuena eta borondatea ere bai.

Futurismo hutsezko adibide hauen ezaugarri komun esanguratsua zera da, itxaropenak, zeinetan beren babesa bilatu baitute futuristek, ohiko era mundutarrean beren betekuntza praktiko hutsean oinarritu izan direla guztiak; eta ezaugarri hau oso nabaria da juduen futurismoan, beren historiaren dokumentu-froga ugari utzi dutelarik. Haien erresuma Nabukodonosorrek suntsitu ondoren, behin eta berriro judu-estatu berri baten ezarpenean jarri zuten juduek beren itxaropena, politika ekumenikoaren jokoak horretarako aukerarik txikiena

ematen zienean, behintzat. Akemenestar Inperioak bizi izan zuen anarkialdi laburrak, Kanbisesen heriotzaren eta Darioren gorakadaren artekoak, erresuma davidiko bat ezartzeko Zerubbabelen ahalegina ikusi zuen (*circa* K.a. 522). Historiaren geroagoko atal batean, seleukotar boterearen beheraldiaren eta erromatar legioak Levantera iritsi arteko interregno luzeagoa Makabeoen garaipentzat hartu zuten oker juduek; eta palestinar juduen gehiengoa hain zuhurtasun gutxiz desbideratu zuen arrakasta mundutarraren irudikeria honek, ezen irrika bizian egon baitziren —laurehun urte lehenago Deuterioaisaia egon zen bezala— luzaroan ospetsu izandako tradizio bat baztertzeko, hots, estatu berriaren sortzaileak Daviden ondorengoa izan behar zuela.

Seleukotar senilen aurka posible izan zitekeena alde batera utzita, nola espero zezaketen juduek goi-mailan zegoen Erromaren botere ahaltsuaren aurka beren buruak neurtzea? Galdera honen erantzuna eguna bezain argia zen Herodes idumear diktadorearentzat. Inoiz ez zuen ahaztu Erromaren onginahiz zela Palestinako gobernari, eta erreinatu zuen bitartean lortu zuen mendekoak bere eromenaren nemesitik salbatzea. Hala ere, hain irakaspen politiko osasuntsua emateagatik Herodesi esker ona izan ordez, juduek ezin izan zioten barkatu zuzen egotea; eta haren esku trebea desagertu orduko, matxinatu egin ziren eta beren bide futuristan aurrera oldartu ziren ezinbesteko hondamendirantz. Orduan ere ez zen aski izan Erromaren ahalguztiantasunaren erakustaldi bakar bat. K.o. 66-70eko eskarmentu bel-durgarriak ez zien juduei eragotzi beste hondamendi bat bilatu eta berenganatzea 115-17an eta beste bat 132-5ean. Bar Kokaba K.o. 132-5ean helburu beraren atzetik zebilen Zerubbabelek K.a. 522an erabilitako baliabide berberekin. Sei mende baino gehiago behar izan zituzten juduek honelako futurismoak ez zuela funtzionatzen ikasteko.

Hau izango balitz juduen historia osoa ez litzateke interesgarria izango; baina, jakina, historiaren erdia bakarrik da, eta garrantzi txikieneko erdia. Istorio osoa zera da, judu-arima batzuek «ezer ikasi eta ezer ahaztu» ez zuten bitartean, borboiek bezala, beste judu-arima batzuek —edota judu-arima berberetako batzuek bestelako aldartean eta bestelako ahalmen espiritual baten bidez— pixkanaka beren itxaropena beste nonbait jartzen ikasi zutela eskarmentu garratzen bidez. Futurismoaren porrota aurkitzeko prozesuan, geroago Jainkoaren Erreinuaren existentziaren berebiziko aurkikuntza egin zuten juduek;

eta pixkanakako bi errebelazio hauek, bata negatiboa eta bestea positiboa, aldi berean garatuz joan ziren mendez mende. Espero zen juduen mundu-elkarte berriaren sortzailea, zegokion bezala, hezur-haragizko errege bat izango zela pentsatu zen, herentziazko dinastia bat sortuko zuena. Hala ere, inperiogile hau iragartzeko erabili zen titulua, eta paper hori bereganatu nahi izan zuen oro — Zerubbabelengandik Bar Kokabaganaino— aldarrikatzeko erabili zen titulua ez zen *melek* (errege) izan, Mesias (Jaunaren Gantzutua) baizik. Honela, eta atze-atzean bakarrik izanda ere, juduen jainkoa juduen itxaropenari lotu zitzaion hasieratik; eta, mundu-itxaropena halabeharrez desagertu zelarik, jainkozko irudia gero eta handiagoa egin zen horizonte osoa bete zuen arte.

Jakina, jainko bati laguntza eskatzea ez da berez ezohiko prozedura. Ziur aski erlijioa bera bezain praktika zaharra izango da berebiziko eginkizun bati ekiten dion herriak bere jainko zaindariaren babesa eskatzea. Desbiderapen berria ez zegoen herriaren giza defendatzaileak bere atzean jainko baten berrespina izateko nahian, «Mesias» tituluari adierazia; berria, baita oso garrantzitsua ere, jainko zaindariaren izaera, funtzio eta boterearen ikuspegia zen. Zeren eta, zentzu batean Jahve juduen parroki jainko bezala ikusten bazen ere, beste ikuspegi zabalago batetik Jaunaren Gantzutuaren zaindari gisa agertarazi zuten. Azken batean, gatibualdi osteko judu futuristak ez ziren ohiko eginkizun politiko batean sartu. Giza ikuspegitik hitz eginda, ezinezkoa zen zeregin batean jarri zuten bihotza; zeren eta, beren toki-independentsia txikiari eusten ere porrot eginda gero, nola espero zezaketen munduaren jabe bihurtzea? Zeregin honetan arrakasta izateko, jainko-babesle gisa ez zuten parroki jainko bat soilik behar, beren handigura futuristikoen neurrikoa baizik.

Hau ulertu ondoren, drama bat, puntu honetara arte erlijioen historian «forma komuna» izan dena, goragoko dimentsio espirituala-
ra eramaten da. Giza defendatzailea mendeko paper batera jaisten da Jainkoa jokalekuaz nagusitzen den bitartean. Giza Mesias bat ez da nahikoa. Jainkoak berak onartu behar du Salbatzailearen papera jokatzea. Bere herriaren defendatzaileak lurrian Jainkoaren Semeak berak izan behar du.

Honezkero lerro hauek irakurtzen ari den Mendebaldeko edozein psikoanalista modernok bekainak jasoko zituen. «Zuk aurkikun-

tza espiritual bikaintzat aldarrikatu duzun hori», oihu egingo du, «errealitatetik ihes egiteko haurrak duen nahiari —giza psikearen tentazio erasokor horri— amore ematea baino ez da. Zuk azaldu duzu helburu iristezin batera bihotza zentzugabeki bideratu duten pertsona dohakabe batzuk nola saiatzen diren ezinezko zeregin baten ardura izatearen zama jasangaitza beren gainetik hainbat ordezeko desiraturen gainera kentzen. Lehenik, giza defendatzaile hutsa erreklutatzen dute; gero, honek balio ez duenean, giza defendatzaile bat alegiazko jainko-laguntzaz indartua; eta azkenik, zentzugabeek, etsiaren etsiaz, SOS bidaltzen diote jainko-izaki imajinatu bati, beronek bete behar duela-rik zeregina. Psikologi praktikantearentzat iheserako bide hau istorio ezagun eta malenkonikoa gertatzen da».

Kritika honi erantzunez gogotsu onartuko dugu umekeria dela naturaz gaindiko botere bati hots egitea guk geure kabuz aukeratu dugun mundu-zeregin bat betetzeko, geu gai ez garelako hori gauzatzeko. «Egin bedi *nire* borondatea» otoitzak berak aitortzen du bere hutsalkeria. Juduen kasuan judu-futuristen eskola batzuek beren burua konbentzitu zuten Jahvek hartuko zuela bere gain haren gurtzaileek aukeraturiko mundu-zeregina, eta judu-futurista hauek, ikusi dugun bezala, atarramendu txarra izan zuten. Zeloteen suizidio melodramatikoa gertatu zen, itxaropenik gabeko egoera militar bati aurre egin baitzioten Armaden Jauna borroka-egunean beren artean izango zuten irudipenarekin; eta kietistak, berriz, premisa oker berberetatik abiatuz kontra-kontrako baina bestea bezain itxaropen gutxiko ondoriora iritsi ziren, hots, ez zutela beren kabuz ezertxo ere egin behar Jainkoaren arazotzat jotzea erabaki zuten mundu-kausa batean. Baina izan ziren beste erantzun batzuk ere: Johanan ben Zakkai-ren eskolaren eta Kristau Elizaren erantzunak; eta bi erantzun hauek, kietismoaren antza izan arren indarkeriazkoak ez izatearen ezaugarri negatiboan, ez dira kietismoa eta zelotismoa bezalakoak garrantzitsuagoa den puntu positibo batean, hots, beren bihotza futurismoaren mundu-helburu zaharrean jartzeari utzi eta beren itxaropena ez Gizakiarena baizik eta Jainkoarena den helburu batean jartzen zutela, ondorioz arlo espiritualean bakarrik bila daitekeelarik, non Jainkoa ez den aliatu bat, ekintza-zuzendaria baizik.

Puntu honek erabateko garrantzia du, kasu hauetan deseginda uzten baitu gure psikoanalistek zeloteen nahiz kietisten aurka hain

eragin suntsigarriaz zuzendu dezaketen kritika. Jainkoari dei egitea ezin da salatu haurren ihesbidetzat, aldi berean giza aktoreak bere *libido*-a erretiratu egiten badu bere aurretiazko mundu-helburutik. Eta, alderantziz, dei egite horrek hau bezain eragin espiritual handi eta ona sortzen badu ekintza hori zertzen duen giza ariman, irudi luke, *prima facie*, oina ematen duela sinesteko deituriko Botere hori giza irudimenaren asmakuntza hutsa ez dela. Zilegi bekigu uste izatea berrorientatze espiritual hau Egiazko Jainko Bakarraren aurkikuntza bat izan zela, eta mundu honen etorkizunari buruzko giza fikzio batek beste mundu baten jainko-errebelazioari utzi ziola lekua. Itxaropen mundutar baten desilusioaren bidez, beti hor —gizakiak egindako jokaleku estu bateko eszenen atzean— egon den errealtate baten apokalipsira onartu gaituzte. Tenpluko oihala bitan urratu da.

Berrorientatze espiritualaren izugarritzko balentria honen lorpenaren etapa nagusietako batzuk azpimarratzea bakarrik falta zaigu. Funtsean zera da, mundu-antzeztoki bat, garai batean, gizagaineko laguntzaileekin edo gabe, giza aktoreentzako jokalekutzat hartzen zena, orain Jainkoaren Erreinua pixkanaka gauzatzeko esparrutzat hartzen dela. Hasieran, hala ere, espero zitekeen bezala, ideia berria ikuspegi futurista zaharretik datozen irudiez janzten da neurri handi batean. Atzealde honen aurrean Deuteroisaiasek Jainkoaren Erreinuaren ezaugarriak marrazten ditu, honek munduko erreinu baten ideia gainditzen baina bere baitan ere hartzen duelarik: Akemenestar Inperioa, zeinetan Ziro salbatzaile-heroiak Susaren ordeztu Jerusalem hartu duen hiriburutzat eta pertsiarren ordeztu juduak gobernari-arrazatzat, Jahvek errebelatu diolako bera dela (eta ez Ahura Mazda) Ziro gaitu duena mundua konkistatzeko. Amets honetan Deuteroisaias, oso zorrotz gainera, gure psikoanalistaren kritiken arriskupean jartzen da. Profetaren ikuspegi honek puntu batean bakarrik gainditzen du ideia futurista mundutarra: gizakia nahiz natura mirarizko beatifikazioa esperimentatzen bezala agertzen dira. Haren Jainkoaren Erreinua benetan ez da lurreko paradisu baina, Edengo Baratze eguneratua.

Hurrengo etapa lurreko paradisu hau Estatu iragankor bezala bakarrik imajinatzen denean iristen da, agian mila urte iraungo duena²⁰¹, baina, esleituriko denboraldiaren bukaeran, mundu hau berau desagertzen denean seguru desagertuko dena. Mundu honek

desagertu egin behar badu ondoren beste mundu bati lekua uzteko, orduan beste mundu horretan egongo da benetako Jainkoaren Erreinua; zeren eta milurtekoan erreinatu behar duen erregea ez baita oraindik Jainkoa bera, haren ordezeko edo Mesias baizik. Garbi dago, ordea, mundu honetan mirarizko milurteko baten ideia, mundu hau beste batek ordezkatu artekoa, eutsiezinezko ahalegina dela beren artean, desberdinak ez ezik, azken batean bateraezinak ere badiren ideien arteko moldaketa lortzeko. Ideia hauetako lehenena, Deuteroisaiasen ideia, munduko erreinu futurista baten itxaropena da mirarizko «hobekuntzekin». Bigarren ideia Jainkoaren Erreinuarena da, inola ere ez denboran baizik eta bestelako dimentsio espiritual batean dagoena eta, dimentsio-desberdintasun honen indarrez, hain zuzen, gure mundu-bizitzan sartzeko eta antzaldatzeko gai dena. Futurismoaren ameskeriatik antzaldaketaren ikuskarirako igoera espiritual neketsua egiteko, milurtekoaren eskema eskatologikoa ezinbesteko eskailera mentala izan da agian, baina behin goraino iritsi ondoren utz dakioke eskailerari behera erortzen.

«Fariseu-pietistak ikasia zuen jada asmondarren mendean mundu honetatik zerurantz, etorkizunerantz bihurtzen; eta orain, Herodesen mendean, azken belaunaldietan hain indartsu lasterka ibilitako nazio-sentimenduaren korronte osoak hormaitsu bat jo zuen, eta ez zuen irteerarik aurkitu fariseuek irekitako bideetatik izan ezik. Burdinazko premia haren mendean zegoen jendearen artean zabaldu eta barreiatu ziren bizitasun berri batez sineskizun traszendentalak, itxaropen mesianikoak, fariseu-eskoletan elikatuak. Iritsi zaizkigun fariseu-pietatezko liburu bakanek —Enock, Salomonen Salmo, Moisesen Igoera eta beste batzuek— erakusten digute zer-nolako ideiek betetzen zituzten idazleen buruak, baina ezingo ziguten erakutsi gure Ebanjelioetatik ikasten duguna: ordena honetako ideiak nola sartu ziren barru-barruan jendearengan; nola Datorren Erregea, ‘Gantzutua’, ‘Daviden Semea’, nola Pizkundearen edo beste munduaren ideia zehatzak, Jaunaren hitzen zain zegoen jende xehe haren ohiko buru-ekipamenduaren parte ziren... Baina... kristauak gurtzen zuen Kristo ez zen pentsamendu profetikotik sorturiko forma haietako bakar baten haragitzea; Harengan iraganeko itxaropen eta ideal guztiek elkartu eta bat egin zuten»²⁰².

10.

Desatxikimendua eta antzaldaketa

Futurismoaren eta arkaismoaren izaeraz egin ditugun bi ikerketek porrot egiten duten ondorioa eraman gaituzte, biek bilatzen dutelako orainalditik ihes egitea munduko denbora-lasterretik gora igo gabe. Ikusi dugu nola futurismoaren porrotaz ohartzeak antzaldaketa deitu dugun misterioa ulertzera eraman dezakeen, eta adibide historiko goren batean eraman ere egin du. Baina arkaismoaren porrotak ere eman dezake fruitua aurkikuntza espiritual batean. Arkaismoa nahikoa ez delako egia aitortzea erronka bat da eta honek, ikusi dugun bezala, arkaista etsitua kontrako norabidean bidal dezake futurismoaren Gadarene maldan behera, baina alternatiboki abiapuntu espiritual berria hartuta erantzun diezaioke erronkari; eta erresistentzia gutxieneko bere lerroa hondamendira daraman salto hegalaria bat hegaldi bihurtzea da, lurreratzeko arazoari —lurzorua iraunkorki utzita— ihes egingo diona. Hau da desatxikimenduaren filosofia, eta honetaz aztertu dugu jadanik, komentario handirik gabe, judu-kietistek emandako adibide bat.

Mendebaldeko ikertzaile batentzat, filosofia honen azalpenik ezagunenak «Filosofo estoiko baten ohar-liburuko orriak» dira, Epitektok eta Marko Aureliok utzi zizkigutenak. Baina desatxikimenduaren bideari behar hainbat urruti jarraitzen badiogu, lehenago edo geroago gida helenikoagandik indikoagana itzuliko gara, zeren eta, Zenonen dizipuluak urrutira joan badaitezke ere, Gautamaren dizipuluak baitira beren burua suntsitzeko helburu logikoraino desatxikimenduari bide osoan jarraitzeko adorea izan dutenak. Lorpen intelektual gisa, egundokoa da hau; lorpen moral gisa, erabatekoa; baina korolario moral txundigarri bat du, desatxikimendu beteginak errukia ezabatzen baitu, eta ondorioz maitasuna ere bai, grina txar guztiak garbitzen dituen bezain zorrotz.

«Mugimendu guztiak maitasun eta helbururik gabeak dituenari, lanak jakintzaaren suak erretzen dizkionari, 'ikasia' deitzen diote ilustratuek. Eta pertsona ikasia ez da atsekabetzen bizitza ihesi joan zaienengatik, ezta ere bizitza ihesi joan ez zaienengatik»²⁰³.

Jakintsu indikoaren buruan, bihotz-gabetasun hau da filosofia-ren diamantezko muina, eta ondorio bera atera zuten beren aldetik filosofo helenikoek. Epiktetok honela ohartarazten ditu bere dizipulua:

«Zuen seme-alaba bati musu ematen badiozue... sekula ez jarri zuen irudimena erresebarik gabe ekintza horretan eta inoiz ez aske utzi zeuen emozioak... Egia esan, ez da kaltegarria seme-alabari musu ematerakoan zera xuxurlatzea: 'Bihar hil egingo zara'»²⁰⁴.

Eta Senekak ez du zalantzarik aitortzeko:

«Errukia buru-eritasun bat da, beste jende batzuen miseriaren ikuskizunak eragina, edota, bestela, beste batzuen ezbeharretatik espiritu kaskarre harturiko kutsadura gisa defini daiteke, gaixoak uste duenean ezbehar horiek ez direla merezitakoak. Jakintsua ez da erortzen horrelako buru-eritasunen mende»²⁰⁵.

Logikoki ezinbestekoa eta aldi berean moralki jasangaitza den ondorio bateraino bere bideari jarraitzean, desatxikimenduaren filoso-fiak azkenean bere buruari eragiten dio porrot gu erreboltara bultzatuz. Azken batean, ez dio irtenbiderik eskaintzen konpondu nahi duen arazoari, zeren eta, burua bakarrik kontsultatzean eta bihotza baztertzean, banatzen ari baita nolanahi Jainkoak elkartu duena. Desatxikimenduaren filosofia hau estali egin behar du antzaldaketaren misterioak.

Desintegrazioaren bide zabaletik laugarren eta azken desbiderapen hau hartzeko prestalanetan ari garenean, gaitzespen eta isekazko oihu-hotsa iristen zaigu belarrietara; baina ez dugu beldurtu behar, zeren eta filosofo eta futuristengandik —desatxikimenduaren harroputzengandik eta materialismo politiko eta ekonomikoaren zeloteengandik— baitatozkigu, eta dagoeneko aurkitu dugu, nornahik duela ere arrazoia, horiek behintzat oker daudela.

«Aitzitik, munduak zorotzat duena aukeratu du Jainkoak jakintsuak lotsarazteko, eta munduak argaltzat duena indartsuak lotsarazteko»²⁰⁶.

Enpirikoki egiaza daitekeen egia hau intuitiboki ere ezagutzen dugu. Eta horren argitan eta indarrez berdin desafiatu genezake filosofoen eta futuristen gaitzespena, ausarki jarraituz Bar Kokaba edo Gautama ez den gidari baten hanka-arrastoei.

«Juduak mirarizko seinale eske dabilta, eta jentilak jakinduria bila; guk, berri, Kristo gurutziltzatua predikatzen dugu, juduentzat behaztopa-harri eta jentilentzat zentzurik gabea dena»²⁰⁷.

Zergatik da Kristo gurutziltzatua behaztopa-harri futuristen-tzat, sekula ez badute lortu beren mundu-eginkizunetan jainko-laguntzaren seinalerik aurkeztea? Eta zergatik da zentzurik gabea filosofo-entzat, inoiz ez badute aurkitu bila dabiltzan jakinduria?

Kristo gurutziltzatua zentzurik gabea da filosofoarentzat honen goiburua desatxikimendua delako, eta ezin duelako ulertu izaki zentzudun bat, behin ikaragarritzko helburu hori lortu ondoren, nola izan daitekeen hain gogor irabazitakoa berariaz abandonatzeko bezain maltzurra. Zer zentzu du erretiratzek, gero itzultzeko bakarrik bada? Eta *a fortiori* filosofoak nahastuta egon behar du Jainko baten nozioaren aurrean, honek ez baitzeukan zertan erretiratu atsegin ez zuen mundutik, bere jainkotasunagatik hain zuzen erabat aske izanik mundu horretatik; baina, hala ere, mundura sartzen da berariaz, eta bertan Jainkoak edo gizakiak jasan dezakeen agoniarik handienaren mende jartzen da, bere jainko-izaera baino askoz ere kaskarragoa den izaki-arraza baten alde. «Hain maite izan al zuen Jainkoak mundua, non bere Seme bakarra eman baitzion?». Hau da zorakerian azken hitza desatxikimenduaren bila dabilenaren ikuspegitik.

«Azken helburua lasaitasuna bada, zertarako balio lezake jakintsuaren bihotza asalduretatik libratzek kanpoko gauzen mende-ko bihurtzen zuten beldur eta desira kenduz, batek berehala ehundaka bide zabaltzen baditu berauetatik munduko samina eta egonezina bihotzeraino iristeko, bihotz hau inguruko gizakien bihotz kartsuekin lotzen duten zuntz bidez, maitasunak eta errukiak sorturiko zuntzen bidez, alegia? Ehundaka zuntz! Irekidura bat aski litzateke bertatik bihotza erabat betetzeko adina uhin garratz sar dadin. Ireki ezazue zulotxo bat itsasontziaren alboan eta itsasoari sartzen utziko diozue. Estoikoek, nire ustez, egia osoz ikusi zuten maitasun eta errukiari sarrerarik txikiena utziz gero barrura, bere neurria kontrolatu ezin duzun zerbait onartu duzula eta barne-lasaitasunaren ideia bertan behera utzi beharra dagoela berehala... Estoikoak inoiz ezin du kris-tauaren figura ideala onartu bere jakintsu tipikoaren adibide gisa»²⁰⁸.

Gurutziltzatzea behaztopa-harri handia da futurismoaren bidean, gurutzean hiltzek berretsi egiten duelako Jesusek esana, hots, bere erreinua ez dela mundu honetakoa. Futuristak behar duen seinalea erresumaren iragarpena da, munduan arrakastarik izaten ez badu erabat zentzurik gabe geratuko dena. Ikuspegi honetatik Mesiasen

zeregina Deuteroisaiasek Zirori ematen dion zeregina da, eta geroa-goko hainbat judu-futuristak —Zerubbabel edo Simon Makabeo edo Simon bar Kokabak— garaiko Judas edo Theodas-i.

«Honela diotso Jaunak Ziro erregeari, bere gantzutuari: Eskutik heldurik eusten dizut... Neu joango naiz zeure aurretik, gora-guneak berdinduz, brontzezko ateak apurtuz, burdinazko morroiloak txikituz. Zoko ilunetan pilaturiko altxorrak, ongi gorderiko ondasunak emango dizkizut»²⁰⁹.

Nola bat egin Mesiasen benetako ikuspegi futurista hau Pilatori «Errege naiz, zeuk diozun bezalaxe» erantzun zion presoaren hitzekin, Jainkoak eman omen zion errege-eginkizunaren hain kontaketa fantastikoarekin jarraitu zuelarik gero?

«Horretarakoxe jaio eta etorri naiz mundura: egiaren testigantza egitera».

Hitz txundigarri hauek baztertu zitezkeen agian, baina gaizkilearen heriotza ezin zitekeen ez desegin, ezta esplikatu ere; eta Pedroren probak erakusten du zein mingarria zen behaztopa-harri hau.

Jainkoaren Erreinua, non Kristo baita errege, ezin daiteke neurtu akemenestar mundu-konkistatzaile bat judu bihurtu eta etorkizunera proiektatua bezala ulertutako Mesias batek sortu zezakeen edozein erreinurekin. *Civitas Dei* hau, denboraren dimentsioan sartzen den neurrian, ez da etorkizuneko amets bat, orainaldian sartzen den errealtate espirituala baizik. Jainkoaren borondatea zeruan bezala lurrean ere nola egin daitekeen galdetzen badugu, erantzuna, teologiaren hizkera teknikoan emana, zera da: Jainkoaren nonahikotasunak haren inmanentzia inplikatzan duela mundu honetan eta bertako arima bizi ororengan, baita haren existentzia traszendentea ere munduz gaindiko mailetan. Jainkoaren kristau-ideian haren alde (edo «pertsona») traszendentea Jainko Aitarengan azaltzen da eta haren alde inmanentea Jainko Espiritu Santuarengan; baina kristau-fedearen ezaugarri berezi eta erabakigarria zera da, Jainkoa ez dela dualtasun bat, batasunean hirutasuna baizik, eta Jainko Semearen alde horretan beste bi aldeak batuta daudela pertsona batean, hau, misterio honen arabera, giza bihotzarentzat hurbilerraza bezain atzemanezina delarik giza ulermenarentzat. Kristo Jesusen pertsonan —benetako Jainko, baita benetako Gizon ere— jainkozko gizarteak eta mundu-gizarteak kide komu-

na dute, mundu honetan proletalgoaren baitan jaioa eta gaizkilearen heriotza jasaten duena; beste munduan, berriz, Jainkoaren Erreinuko erregea da, Jainkoa bera den errege bat.

Baina nola liteke bi izaera —bata jainko-izaera eta bestea giza izaera— biak batera pertsona bakar batengan egotea? Erantzunak, kredo-eran prestatuak, Kristau Gurasoek eman dituzte filosofo heleenikoen hiztegi teknikoaren arabera; baina ikuspegi metafisiko hau ez da agian guretzat zabalik dagoen bakarra. Abiapuntu alternatibo bat aurkitu genezake postulatu honetan, hots, jainko-izaerak, guretzat hurbilerraza den neurrian, zerbait komun izan behar duela geure izaerarekin; eta, daukagula badakigun eta erabateko konfiantzaz Jainkoari ere egotz diezaiokegun ahalmen espiritual partikular baten bila hasten bagara —Jainkoa espiritualki gizakia baino gutxiago (*quod est absurdum*) izango bailitzateke ahalmen hau Harengan ez balego, eta bai, ordea, guregan—, orduan lehenengo bururatuko zaigun ahalmena, gizakiak eta Jainkoak komun dutena, filosofoek hilduratu nahi duten bat izango da: maitasunaren ahalmena. Harri hau, Zenonek nahiz Gautamak hain setati baztertu dutena, Itun Berriko tenpluaren giltzarri bilakatu da.

11.

Palingenesia

Osatu dugu orain lau biziera esperimentalen ikerketa; beste horrenbeste azterketa-saio dira hazten ari den zibilizazio batean eroso bizi eta mugitzeko ohiko azturaren alternatiba praktikagarria aurkitzeko. Errepide eroso hau gizarte-kolapsoaren hondamendiak gupidagabe itxi duenean, lau bide hauek ingurabide alternatibo posibletzat agertzen dira; eta horietako hiru *culs-de sac* direla aurkituko dugu, eta batek bakarrik, antzaldaketa deitu eta kristautasunaren bidez argitu dugunak, eramaten duela zuzen aurrera. Azterlan honen lehenagoko zati batean erabili dugun kontzeptura itzultzen bagara orain, esan dezakegu antzaldaketa eta desatxikimendua —futurismoaren eta arkaismoaren aldean— biak direla «eterealizazioaren» fenomeno

espiritualean adierazten den makrokosmosetik mikrokosmoserako «ekintza-eremuaren transferentziaren» adibideak. Eterealizazioa eta transferentzia hazkundearen sintomak direla eta giza hazkundearen adibide orok gizarte-alderdia eta banako alderdia dituela pentsatzean zuzen bagabiltza, eta asumitu behar badugu *ex hypothesi* gizartea, bere hazkundearen lekuko direlarik desatxikimenduaren eta antzaldaketaren mugimenduak, ezin dela izan guk zibilizazio deitu ditugun horien motakoa —kontuan izanda desintegratzen ari den horrelako gizarte bat Suntsiduraren Hiria dela, zeinetatik ihes egiteko ahaleginak baitira bi mugimenduak—, orduan zera bakarrik ondoriozta dezakegu: desatxikimendu eta antzaldaketa-mugimenduak beste mota bateko edo batzuetako gizarte baten edo batzuen hazkundearen lekuko direla.

Numero bakuna ala bikuna da zuzena gure bi mugimenduen gertaleku den gizarte-inguruneari buruz erabiltzeko? Galdera hau planteatzeko erarik onena geure buruari beste bat egitea izan liteke: Zein da desatxikimenduaren eta antzaldaketaren arteko aldea gizarte-hazkundeari dagokionez? Argi eta garbi erantzuna zera da, desatxikimendua erabat erretiratzeko mugimendu hutsa den bitartean, antzaldaketa mugimendu konposatua dela: erretiroa eta ondoren itzulera. Mugimendu konposatu hau Jesusen bizitzan agertzen da: basamortura erretiratu zen bere ministerioa Galilean hasi aurretik; baita San Pauloren bizitzan ere, hiru urteko egonaldia egin baitzuen Arabian bere misio-bidaia garrantzitsuen aurretik, hauek bertako hazitegi siriakotik mundu helenikoaren bihotzera eramán zutelarik erlijio berria. Kristau-erlijioaren fundatzaileak eta haren apostolu-misiolariak desatxikimenduaren filosofiaren jarraitzaile izan balira, basamortuan jarraituko zuketén lurreko bizialdi osoan. Desatxikimenduaren filosofiaren mugapena ondorengoa hau ez ikustean datza: bere nirvana ez dela arimaren bidaiaren bukaera, baizik eta geltoki bat besterik ez ibilaldi horretan. Bukaera Jainkoaren Erreinua da; eta nonahiko Erreinu honek bere hiritarrengandik zerbitzua eskatzen du lurrean hemen eta orain.

Azterlan honen hasieratik hurbil erabili ditugun termino sinikoetan, zibilizazio baten desintegrazioa Yin-eta-Yang txandakako erritmoaren zirkulu osoan garatzen da. Erritmoaren lehen taupadan Yang-mugimendu suntsigarria (desintegrazioa) Yin-egoerara (desatxi-

kimendura) aldatzen da, nekearen bakea ere badena; baina erritmoa ez da geratzen loka; Yang-mugimendu sortzailera (antzaldaketara) igarotzen da. Yin-eta-Yang mugimenduaren taupada bikoitz hau erretiro-eta-itzuleraren mugimendu orokorraren forma partikular bat da, desintegrazioaren azterketaren hasiera aldera berarekin topo egin eta orduan zisma-eta-palingenesia deitu genuena.

Grezierazko «palingenesia» berbaren hitzez hitzezko esanahia «jaiotzaren errepikapena» da, eta terminoak anbiguotasun-elementu bat du bere baitan. Aurrez jaiota dagoen zerbait berriro jaiotzea esan nahi al dugu: erremediorik gabe kalteturiko zibilizazio bat espezie bereko beste batek ordezte, adibidez? Hau ezin da izan guk esan nahi duguna, zeren eta hori ez antzaldaketaren helburua, baizik eta denbora-lasterraren barrura mugaturiko mugimendu batena baita: ez arkaismoa ez futurismoa, orain arte termino hauek erabili ditugun zentzuan, baizik eta ordena bereko beste mugimendu bat. Zentzu honetan palingenesia Existentziaren Gorpila izango litzateke, filosofia budistak ziurtzat jotzen duena eta nirvanara erretiratuz apurtu nahi duena. Hala ere, palingenesiak ezin du adierazi nirvana lortzea, negatibotasun-egoera honetara iristeko prozesua ezin baita «jaiotza» bezala ulertu.

Baina palingenesiak ez badu esan nahi nirvana lortzea ere, munduz gaingiko beste egoera bat lortzea bakarrik adieraz dezake: jaiotzaren irudia argigarriro aplika dakioke horri, beste egoera hau bizitza-egoera positiboa baita, mundu honetako bizitza baino dimentsio espiritual goragokoa bada ere. Palingenesia honetaz hitz egiten dio Jesusek Nikodemori:

«Ezin du inork Jainkoaren erreinua ikusi, berriro jaiotzen ez bada»;

eta Jesusek berak aldarrikatzen du beste nonbait bere haragizko jaiotzaren helburutzat:

«Ni, berриз, bizia —eta bizia ugari, gainera— izan dezaten etorri naiz».

Behin, hazten ari zen Zibilizazio Helenikoa loratu berria zen unean, musek Hesiodori, Askraiko artzainari, errexitatu zioten teogoniak aingeruek Belengo artzainei abesturiko beste teogonia batean du bere antifonia, desintegratzen ari zen Gizarte Helenikoa bere arazoaldiko azken agoniak pairatzen eta estatu unibertsal bat koman sartzen

ari zen unean. Aingeruek orduan abestu zuten jaiotza ez zen Helasen birjaiotza, ezta espezie helenikoko beste gizarte batzuen jaiotza berri bat ere. Jainkoaren Erreinuko erregearen haragizko jaiotza zen.

XX. DESINTEGRATZEN ARI DIREN GIZARTEEN ETA GIZABANAKOEN ARTEKO HARREMANA

1.

Jeinu sortzailea salbatzaile gisa

Zibilizazioen eta gizabanakoen arteko erlazioaren arazoak jada bereganatu du gure arreta Azterlan honen beste zati batean, eta guk gizartea deitzen dugun erakundea gizabanako-kopuru baten ekintza-arloen arteko eremu komuna dela ondorioztatu dugu; ekintza-sorburua sekula ez dela gizartea bera, beti gizabanako bat baizik; sorkuntza-egintza bat den ekintza nolabait ere gizagaineko jeinu den arima batek zertzen duela beti; jeinuak, bizidun orok bezala, bere lagun hurkoen gaineko ekintzaz adierazten duela bere burua; edozein gizartetan pertsona sortzaileak gutxiengo txiki bat izaten direla beti; eta jeinua-ren ekintza buztin arruntezko arimetan zuzeneko argitzapenaren metodo hobezinaren bidez zertzen dela batzuetan, baina normalean bigarren biderik onena erabiliz, hots, nolabaiteko gizarte-trebakuntzak mimesi- (edo imitazio-) ahalmena lortzen duela sortzaile ez den jende xehearen arimetan eta horrela gai egiten dituela beren ekimenez zertu ezingo zuketean bilakaera «mekanikoki» zertzeko. Ondorio hauek hazkuntzaz egin dugun azterketan atera ditugu, eta orokorrean argi eta garbi egia izan behar dute gizabanakoen eta gizartearen elkarrekintzari dagokionez gizarte baten historiako etapa guztietan. Nolako xehetasun-desberdintasunak aurki daitezke elkarrekintza hauetan, aztertzen ari garen gizarteak kolapsoa izan duenean eta desintegrazio-prozesuan dagoenean?

Gutxiengo sortzaileak, zeinetatik irten baitira gizabanako sortzaileak hazkunde-etapan, sortzaile izateari utzi dio eta soilik «menderatzaile» izatera jaitsi da, baina proletalgoaren banakuntza, desintegrazioaren funtsezko ezaugarria dena, pertsona sortzaileen gidaritzapean lortu da, hauen jarduerarako orain ez dagoelarik esparrurik, «botere» ez-sortzaileen zamaren aurka oposizioa antolatzea izan ezik. Honela, hazkundetik desintegrazioarako aldaketarekin batera ez da txinparta sortzailearen iraungipena gertatzen. Pertsona sortzaileak agertzen jarraitzen dira eta gidaritza hartzen beren sortzeko ahalmenagatik, baina orain beren lan zaharra beste *locus standi* batetik egin beharrean aurkitzen dira. Hazten ari den zibilizazioan, erronkari garaipenezko erantzunez ihardesten dion konkistatzailearen papera jokatzera dei egiten zaio sortzaileari; desintegratzen ari den zibilizazio batean, salbatzailearen papera jokatzera dei egiten zaio, sortzaile izateari utzi dion gutxiengoa erronkak gainditu duelako erantzuten huts egin duen gizartea erreskatatzera datorren salbatzailearena.

Salbatzaile horiek hainbat motatakoak izango dira, gizarte-gaitzari aplikatu nahi dioten erremedioaren arabera. Izango dira desintegratzen ari den gizarte *baten* ustezko salbatzaileak, orainaldiaz etsi nahiko ez dutenak eta itxaropenik gabeko eginkizunak gidatuko dituztenak porrota aurrerapen berri bat bihurtzeko ahaleginetan. Ustezko salbatzaile hauek gutxiengo menderatzaileko gizonak izango dira, eta salbatzeko azken porrota izango da beraien ezaugarri komuna. Baina izango dira desintegratzen ari den gizarte *batetiko* salbatzaileak ere, dagoeneko aztertu ditugun lau ihesbide alternatibo posible horietako batean edo bestean salbazioa bilatuko dutenak. Beste lau eskola hauetakoak diren salbatzaileak bat etorriko dira oraingo egoera salbatzen ahalegintzeko ideia baztertzean. Salbatzaile arkaista iraganaldi irudikatua berriro eraikitzen saiatuko da; salbatzaile futurista etorkizun irudikatu batera salto egiten. Desatxikimendurako bidea erakusten duen salbatzailea erregaren maskarapean babesten den filosofotzat aurkeztuko da; antzaldaketarako bidea erakusten duen salbatzailea gizaki batengan haragitutako jainkotzat agertuko da.

2.

Ezpatadun salbatzailea

Desintegratzen ari den gizarte *baten* ustezko salbatzailea ezpatadun salbatzailea da nahitaez, baina ezpata aterata edo zorroratuta egon daiteke. Jo eta zauritu egin dezake bere inguruan arma biluztuaz edota eserita egon daiteke handikiro ezpata-orria zorroan ezkutuan duela, «etsai guztiak hankapean jarri dituen» garailea bezala. Herakles edo Zeus izan daiteke, David edo Salomon; eta bere lanean inoiz atse-denik hartu ez eta zerbitzu aktiboan hiltzen den David edo Herakles Salomon bere loria guztian edo Zeus bere maiestate guztian baino irudi erromantikoagoa izan daitekeen arren, Heraklesen lanak eta Daviden gerrak alferrikako ahaleginak izango lirateke Zeusen lasaitasuna eta Salomonen oparotasuna ez balira beraien helburu. Ezpata astintzen bada, hain xede onez erabilita azkenean zeregin gehiago ez izateko itxaropenez astintzen da; baina itxaropen hau ilusio bat da. «Ezpataz ari dena ezpataz hilko da»; eta mundu honetakoa ez den erreinua aldarrikatu zuen Salbatzaile baten epaiak hemeretzigarren mendeko Mendebaldeko estatu-politikarien artean errealistarik zini-koenetako baten baiespen triste hartu zuen, Ebanjelioa bere garaira eta lekura aldatuz, esan zuenean «baionetekin egin ezin duzuen gauza bakarra beraien gainean esertzea da». Indarkeriazko gizona ezin daiteke bere indarkeriaz benetan damutu eta aldi berean etengabe horretaz aprobetxatu.

Ezpatadun salbatzaile klasikoak kapitainak eta printzeak izan dira, estatu unibertsalak fundatzen saiatu, edo fundatzen arrakasta izan, edo birgaitzen arrakasta izan dutenak; eta arazoalditik estatu unibertsalera pasatzeak berehalako lasaitasun ikaragarria ekarri ohi duen arren —estatu horien fundatzaile arrakastatsusak sarri jainkotzat gurtuak izateko adinakoa—, estatu unibertsalak kasurik onenean iragankorrak izaten dira eta, *tour de force* batengatik, setati beren bizialdi normala baino gehiago irauten badute, naturala ez den bizitza-luzera honengatik ordaindu egin behar izaten dute gizarte-izugarrikerietaraino endekatuz, aurretiko arazoaldiak edo zatiketaren ondorengo interregnoak bezain kaltegarri direnak beren erara.

Egia, nonbait, zera da: behin odola edan duen ezpatari ezin zaiola etengabe eragotzi berriro ere odola edatea, behin giza haragia dastatu duen tigreak ere aurrerantzean gizajale izatea eragotzi ezin zaion bezalaxe. Tigre gizajalea, zalantzarik gabe, akabatuta hilko den tigrea da; balari ihes egiten badio, hazteriz hilko da; halaz guztiz, tigreak bere kondena aurreikusi ahal izango balu ere, ziur aski ez litzateke gai izango bere jangura irenslea menderatzeko; eta gauza bera gertatzen da behin ezpataren bidez salbazioa bilatu duen gizartearekin. Buruzagiak damutu daitezke beren harakin-lanaz; etsaiei errukia ere azal diezaiekete, Zesarrek bezala, edo beren armadak desmobilizatu, Augustok bezala; eta, atsekabeturik ezpata zorroratzen dutenean, erabateko fede onez erabaki dezakete sekula ez dutela berriro aterako, mugez barruan oraindik aske dabiltzan kriminalen aurka edo kanpoko iluntasunean oraindik setati dabiltzan barbaroen aurka bakeari eusteko helburu benetan ongile eta, beraz, bidezkoarekin izan ezik; alabaina, eder dirudien *Pax Oecumenica* hau lurperatutako ezpata-orrien oinarri ilunaren gainean ehun edo berrehun urtez egonkor egon badaiteke ere, lehenago edo geroago denborak ezereztu egingo du haien lana.

Estatu unibertsal baten jupitertar gobernariak lortu ote dezake gero eta konkista gehiago egiteko egarri aseezina, Ziorentzat zorigaiztokoa izan zena, hiltzea? Eta *debellare superbos* tentazioa jasan ezin badu, joka ote dezake nolabait ere Virgilioren *parcere subjectis* aholkuaren arabera? Haren jarduerari proba-pare hau aplikatzen diogunean, bere asmo onen arabera luzaroan bizitzea nekez lortzen duela aurkituko dugu.

Lehenengo, estatu unibertsal batek bere mugetatik kanpo dau-den herriekiko harremanetan hedapenaren eta erasorik ezaren politika alternatiboen artean duen gatazka aztertzea erabakitzen badugu, adibide sinikoarekin has gaitezke, ezin baita aurkitu ezpata zorroratzeke erabakiaren adierazpen zirrargarriagorik Tsin Shi Huang-tik eurasiar esteparen muga-lerroan zehar Harresi Handia eraikitzeke hartu zuena baino. Hala ere, eurasiar liztor-zuloa bakean uzteko asmo ona, hura hil eta ehun urte baino lehen baztertu zuen haren Han ondorengoa izan zen Wuti-ren «aurrera egiteko politikak». Estatu unibertsal helenikoren historian Augustok eramandako moderazio-politika Trajanok Partiar Inperioa konkistatzeko egindako ahaleginak hautsi zuen. Eufratesetik Zagrosen oin eta Pertsiar golkoaren bururaino memento

aurrera egitearen prezioa Erromatar Inperioaren baliabideen gain aha-
legin jasanezina ezartzea izan zen, eta Trajanoren ondorengo
Hadrianoren zuhurtzia eta iaioitasun guztia behar izan zen Trajanoren
ezpatak berari utzitako ondare ikaragarria likidatzeko. Hadrianok biz-
kor utzi zituen bere aurrekoaren konkista guztiak; hala ere, *status quo*
ante bellum lurraldeari zegokionez bakarrik berreskuratu ahal izan
zuen, eta ez politikari zegokionez.

Otomandar Inperioaren historian, Mehmet Konkistatzaileak
(K.o. 1451-81) nahita mugatu zuen bere gutizia eginkizun honetara:
bere *Pax Ottomanica* Kristandade Ortodoxoaren eremu historikoare-
kin —Errusiarekin izan ezik— bat egitera; eta alboko Mendebaldeko
Kristandade eta Irango eremuak bereganatzeko tentazio guztiak baz-
tertu zituen. Baina haren ondorengo Selim Ankerrak (K.o. 1512-20)
Asian esku ez hartzeko Mehmeten araua hautsi zuen, eta Selimen
ondorengo Suleimanek (K.o. 1520-66) Europan esku ez hartzeko arau
bera hausteko hutsegite handiago eta hondagarriagoa egin zuen.
Ondorioz, bi frontetan zuen etengabeko gerraren liskar nekagarriak
aunatu zuen Otomandar Boterea: osmanliarrak behin eta berriro men-
deratzen zituen etsaiak gudu-zelaian, baina sekula ez betiko hondatu.
Eta maltzurkeria hau hain sakon sartu zen Zerurako Atearen gobernu-
gintzan, ezen Suleimanen heriotzaren ondorengo kolapsoak ere ez
baitzuen eragin Mehmeten moderazioaren aldera itzultze iraunkorrik.
Otomandar Inperioaren indar alferrik galdua Koprülütarren gobernu-
gintzak suspertu orduko, Kara Mustafak berriro gastatu zuen franko-
en aurkako beste eraso-gerra batean, otomandarren muga Rhineraino
eramatea zuelarik helburu. Helburu hau bistaratzera sekula iritsi ez
bazen ere, Kara Mustafak Suleimanen balentria berdindu zuen Viena
inguratuz. Baina 1682-3an, 1529an bezalaxe, Mendebaldeko
Kristandadeko danubiar oskolaren konkorra intxaur gogorregia gerta-
tu zen otomandar armek kraskatzeko; eta bigarren aukera honetan
osmanliarrek ez zuten Vienaren aurrean zigorrik gabe huts egin.
Otomandarren bigarren setiaketak Mendebaldearen kontraerasoa era-
gin zuen, geldialdi handirik gabe 1683tik 1922ra iraun zuena, ordura-
ko osmanliarrak beren inperio osoaz gabetuta eta berriro ere anatoliar
sorlekuetara mugatuta zeudelarik.

Mendebaldeko Kristandadean liztor-zuloa hain zentzugabeki
astintzean, Kara Mustafa, aurretik Suleiman bezala, Xerxesen hutse-

gite klasikoa ari zen egiten, Darioren ondorengoak Europako Grezia kontinentalaren aurka eraso-gerra bota eta horrela kontraeraso helenikoa eragin zuenekoa, alegia; honek Akemenestar Inperioari Asian bere agindupean zituen lurretatik greziar zerrenda kendu zion eta azkenean Inperioaren beraren suntsipena ekarri ere bai Temistokles atenastarrak hasitako lana Alexandro Mazedoniakoak osatu zuenean. Hindu-munduaren historian, Mogolen Inperioak Aurangzebengan (K.o. 1659-1707) sortu zuen bere Xerxes; honek arrakastarik ez zuen izan armen indarrez Maharashtrei bere aginpidea ezartzen eta Maratha kontraerasoa eragin zuen, azkenean Hindustango zabaldietako probintzia metropolitanoetan Aurangzeben ondorengoen agintea suntsitu zuena.

Ezpata zorrortzeko trebetasunaren gure bi probetako lehenengoan, estatu unibertsalen gobernariak ez dutela oso lan polita egiten ikusten dugu; eta mugaz bestaldeko jendearen aurka erasorik ez egiteko probatik baruko jendearenganako tolerantziaren bigarren proba iragarotzen bagara, gobernari horiek bigarren proba honetan askoz hobeto ez dutela jokatzeko ohartuko gara.

Erromatar gobernu inperialak, adibidez, judaismoa toleratzea erabaki zuen eta erabaki honi eutsi zion juduek behin eta berriro probokazio larriak egin arren; baina haren bihozberatasuna ez zen iritsi balentria moral zailago batera, hots, bere tolerantzia mundu helenikoa konbertitzeari ekin zion judu-heresiara ere zabaltzera. Gobernu inperialarentzat kristautasunean haxe zen jasanezina: kristauak ez zutela onartzen gobernuak eskubidea zuenik mendekoak beren kontzientziaren aurka jokatzera behartzeko. Kristauak ezpataren prerrogatiba ukatzen zuten, eta azkenean kristau-martirien espirituak erromatar gobernariaren ezpata menderatu zuenean, berretsi egin zen Tertulianok botatako garaipenezko arrandia erronkaria, alegia, kristau-odola kristau-hazi zela.

Akemenestar gobernuak, erromatarrak bezala, printzipioz gobernatuen adostasunarekin gobernatzeari ekin zion eta halaber arrakasta partziala baino ez zuen izan politika hau gauzatzen. Arrakasta izan zuen feniziarren eta juduen leialtasuna irabazten, baina luzarora huts egin zuen egiptoarrak edo babiloniarrek adiskidetzen. Osmanliarrek ez zuten arrakasta gehiago izan beren *raiyyah*-ekin adiskidetzen, *millet* sisteman eman zieten autonomia kultural eta zibilaren

zabaltasuna gorabehera. Baina sistemaren liberealtasun teorikoa, aplikatzerakoan izan zen arbitrariotasunak hondatu zuen. Otomandarren zenbait porrotek traiziorako aukera eman orduko, *raiya*-ek era praktikoa arriskutsuan erakutsi zuten beren desleialtasuna eta honek Selim Ankerraren ondorengoei arrazoi bat eman zien zera deitoratzeko: ekintza-gizon errukigabe hau bere Bisir Handiaren eta bere Islam-jekearen ahalegin bateratuek konbentzitu izana (kontatzen dena egia bada) mendekoen gehiengo kristau ortodoxoa suntsitzeko plana gauzatu ez zezan, gutxiengo xii imamiarra benetan suntsitu zuen bezala. Bestalde, Indiako Mogolen Inperioaren historian, Aurangzeb desbideratu egin zen hinduismoarekiko tolerantzia politikatik, Akbarrek bere *arcana imperii*-etako garrantzitsuena bezala ondorengoei utzi zien politikatik, eta desbiderapen hau laster ordaindu zuten Inperioaren erorikoaz.

Adibide hauek aski izan daitezke ezpatadun salbatzaileak salbatzen huts egiten duen ondorioa indartzeko.

3.

Denbora-makinadun salbatzailea

Denbora Makina H.G. Wellsen lehenengo eleberri kuasi-zientifikoetako baten izenburua da. Ordurako ezaguna zen denboraren planteamendua laugarren dimentsio bezala. Wellsen nobelako heroiak nolabaiteko automobil bat —hau ere berritasuna zen garai hartan— asmatzen du; harekin espazio-denboran atzera eta aurrera bidaia deza-ke bere nahierara; munduko historian urrutitako etapalara hainbat bisita egiteko erabiltzen du bere asmakuntza, eta guztietatik, azkenekotik izan ezik, onik eta osorik itzultzen da bere bidaiaren kontaketa egiteko. Wellsen maitagarri-istorio hau salbatzaile arkaista eta futuristen *tour de force* historikoen parabola da, salbatzaile horiek beren gizartearen egungo egoera eta perspektibak konponezintzat jotzen dituztenez, iragan idealizatu batera itzuliz edo etorkizun idealizatu batean murgilduz bilatzen dutelarik salbazioa. Ez daukagu ikuskizun honetan geratu beharrik, zeren eta dagoeneko aztertu eta azaldu baiti-

tugu arkaismoaren eta futurismoaren hutsalkeria eta suntsigarritasuna. Hitz batean, denbora-makina hauek —ez esploratzaile bakartientzako Wellsen autobiltzat hartuta, baizik eta gizarte osoentzako «omni-bus»tzat (herri-erabileran baino zentzu zehatzagoan) hartuta— ez dute funtzionatzen inola ere, eta porrot honek salbatzailegaia bere denbora-makina bazter uztera akuilatzen du, eta ezpata hartzera, eta, ondorioz, bere burua «ezpatadun salbatzaile» mozzorrogabeari dago-kion frustraziora kondenatzen du, dagoeneko aztertu dugularik kasu hau. Idealista bat bortxazale bihurtzen duen eraldaketa tragiko honek salbatzaile arkaista nahiz salbatzaile futurista harrapatzen ditu.

Mendebaldeko munduan kristau aroko hemezortzigarren mendean arkaismoaren funtsezko ebanjelioa Roussearen *Gizarte Kontratua*-ren hasierako esaldi batean zegoen bilduta: «Gizakia aske jaioa da eta alde guztietan katepean dago». Roussearen dizipulurik ospetsuena Robespierre zen, normalean honi egozten zaiolarik Frantzian «Izuaren Erreinua»ren autore nagusi izana K.o. 1793-4an. Kristau-aroko hemeretzigarren mendea arraza «nordiko» primitibo paganoa idealizatzen eman zuten irakasle-maniatiko kaltegabeak ez daude erabat erantzukizunik gabe gure garaiko izugarrikeria naziari dagokionez. Dagoeneko ikusi dugu mugimendu arkaizante baten adierazle baketsuak nola suntsi ditzakeen bere asmoak ondorengo erasokor eta bortitz bati bidea prestatuz, Tiberio Grakok bere anaia Kaioren aitzindari gertatu eta horregatik iraultza-mende bat iragarri zuen bezala.

Arkaismoaren eta futurismoaren arteko aldea «atzo» eta «bihar» artekoa bezain sinplea izatea espero zitekeen, baina sarri zaila gertatzen da mugimendu edo salbatzaile jakin bat zein kategoriatan ipini behar den erabakitzea, arkaismoaren izaeran baitago bere burua garaitzea futurismorantz lerratuz, historian «zuek zineten bezalako» bat egon daitekeen ilusioaren atzetik joanez. Jakina, ezin da horrelako gauzarik egon, zeren eta, joan eta gero itzultzen bazara, itzuli zareneko leku hori —itzuli ahal izanez gero— leku desberdina izango bailit-zateke. Roussearen dizipuluek presatu zezaketen beren iraultza «naturako egoera» idealizatuz, «basati ona» miretsiz eta «arteak eta zientziak» deitoratuz, baina kontzienteki futurista ziren iraultzaileek —Condorcet-ek adibidez, «aurrerapenaren» doktrinatik atera zuelarik bere inspirazioa— ziur aski garbiago ikusten zituzten gauzak. Ustezko

mugimendu arkaista baten emaitza beste abiadura bat izango da beti. Horrelako mugimendu guztietan elementu arkaista funtsean futurista den pilularen gain-geruza hutsa besterik ez da, «desira-pentsatzaileek» lañoki nahiz propaganda-adituek maltzurki aplikatu. Nolanahi ere pilula errazago irensten da gain-geruza baldin badu; zeren eta etorkizun biluziak ezezagunaren izugarrikeria guztiak baititu, eta iragana, berriz, aspaldi galdutako etxe erakargarritzat irudika daiteke, nondik aldendu baita desintegratzen ari den gizartea orainaren basamorturantz. Honela, gerrarteko urteetan, nolabaiteko sozialismoaren britainiar aldekoak Erdi Aroaren idealizatzaile arkaizanteki mentalizatuak bailiran agertu ziren eta sozialismo korporatiboaren izenburupean aurkeztu zuten beren programa, Erdi Aroko korporazio-sistemaren antzeko zerbait suspertu behar zela iradokiz. Hala ere, egon gaitezke ziur, programa gauzatu izan balitz, emaitzek edozein denbora-makinadun bidaiari txundituko zuketela Mendebaldeko Kristandadean hamahirugarren mendea.

Garbi dago salbatzaile arkaista-futuristek ezpatadun salbatzaileek bezain nabarmen huts egiten dutela «helburua betetzen». Ez dago salbazio gehiago munduko iraultza-utopietan estatu unibertsalean baino.

4.

Erregez moxorroturiko filosofoa

Salbazio-bide bat, «denbora-makinaren» edo ezpataren laguntza eskatzen ez duena, arazoaldi helenikoaren lehen belaunaldian proposatu zuen desatxikimendu-artearen jarraitzaile helenikoetako lehenengoak eta bikainenak.

«(Helasko) estatuentzat —eta, nire iritziz, ezta gizadiarentzat ere— ez dago gaitzak bukatuko diren itxaropenik, ez bada behintzat botere politikoaren eta filosofiaren artean batasun pertsonala ematen eta orain bi xede horietako bat baztertuz bestearen atzetik dabiltzan izaera arrunt horien nahitaezko deskalifikazioa ematen ez bada. Batasuna bi era hauetako batean lor daiteke: edo filosofoek errege

izatera iritsi behar dute gure estatuetan edo bestela orain errege eta handiki deituriko jendeak filosofiari ekin behar dio benetan eta erabat»²¹⁰.

Sendabide hau proposatzean, Platon desarmatzen saiatzen da, aurea hartuz, pertsona xumearen kritika. Bere proposamena ziur aski filosofo ez denaren irria eragingo duen paradoxatzat aurkezten du. Halaz guztiz, Platonen errezeta adierazpen gogorra bada ezjakinentzat —errege nahiz jende arrunta izan—, are gogorragoa da filosofoentzat. Filosofiaren benetako helburua, ez al da bizitzarekiko desatxikimendua? Eta banako desatxikimendua eta gizarte-salbazioa bilatzea ez al dira bateraezinak elkar baztertzeko punturaino? Nola ekin diezaioke batek Suntsiduraren Hiri bat salbatzeari, hain zuzen hortik askatzeko borrokan ari bada?

Filosofoen ikuspegitik, autosakrifizioaren haragitzea —Kristo gurutziltzatua— eromenaren nortzea da. Hala ere, filosofo gutxi izan dute uste hau aitortzeko adorea eta are gutxiagok horren arabera jokatzekoa. Zeren eta desatxikimendu-artearen jarraitzaileak giza sentimendu komunekin zamaturiko gizaki bezala hasi behar baitu. Ezin du bere auzokoarengan atsekabea bazter utzi bere bihotzak horren neurria ematen badio, edo ezin du uste izan salbazio-bide batek —bere esperientziak gomendatzen diona izanik— auzokoari ez diola berdin balioko, erakutsita besterik gabe. Gure filosofoak eragozpenak jarri behar al dizkio bere buruari auzokoari laguntzeko eskua emanez? Dilema moral honetan alferrik zaio errukia eta maitasuna bizioak direla dioen doktrina indikoan babestea edo «ekintza kontenplazioaren forma ahuldu bat dela» dioen Plotinoren doktrinan babestea. Edo ezin da konformatu Plutarkok guraso estoikoei kategorikoki aurpegiratzen zizkien hutsaltasun intelektual eta moralen erruduntzat jo dezaten utzita: Plutarkok Krisiporen testuak aipatzen zituen, non esaldi batean aisia akademikoaren bizitza gaitzesten baitu eta beste batean gomendatu egiten baitu tratatu beraren barruan²¹¹. Platonek berak agindu zuen desatxikimenduaren artean nagusitu ziren jarraitzaileei ez uzteko gero eguzki-argiaz betiko gozatzen, hain gogor saiatuta egin zutelarik bide hori. Atsekabe handiz kondenatu zituen bere filosofoak berriro Haitzulora jaistera, artean «miseria eta burdinatan tinko lotuta» zeuden zorigaiztoko lagun hurkoei laguntzearren; eta zirrargarria gertatzen da agindu platoniko hau Epikurok otzan-otzan betetzen duela ikustea.

Filosofo helenikoa, zeinen goiburua ikaragaiztasun barea (ἁπαρξία) baitzen, izan bide zen Jesus Nazaretakoaren aurretik salbatzaile (σωτήρ) titulu greziarra bereganatu zuen gizabanako pribatu bakarra. Ohore hori normalean printzeen monopolio zen eta zerbitzu politiko eta militarrengatikoa saria. Epikurori eman zitzaion aurrekaririk gabeko sari hori buru hotzeko filosofoak bihotzaren dei eutsiezinen aurrean izandako obedientzia alaiaren ondorio bilatu gabea izan zen, eta Lukrezioaren poesian Epikuroren salbazio-lana gorestekodagoen esker on eta mirespenaren berotasunak garbi uzten du, kasu honetan gutxienez, titulua ez zela formalitate hutsa, baizik eta sentimendu bizi eta sakon baten adierazpena, Epikuro bizi zelarik ezagutu eta gurtu zuten garaikideengandik zetorren tradizio-katearen bidez latindar poetari komunikatu behar zitzaiona.

Epikuroren historia paradoxikoak filosofoek beren gain hartu behar duten zamaren larritasuna erakusten du, Platonen errezetari jarraitzea erabaki eta eurak errege bihurtzeko bideari jarraitzen badiote; beraz, ez da harrigarria Platonen beste alternatiba —erregeak filosofo bihurtzea— oso erakargarri gertatzea gizarte-kontzientzia duen filosofo guztientzat, Platonengandik beragandik hasita. Bere bizitzan hiru aldiz gutxienez Platon, gogo txarrez baina bere borondatez, Atikoko erretirotik atera zen eta itsasoa zeharkatu zuen Sirakusaraino, atenastar filosofo batek printzearen eginbeharrez zeukan ideiara siziliar despota bat konbertitzeko itxaropenaz. Emaitzek historia helenikoan atal bitxia baina, zoritxarrez onartu beharrean gaude, batere garrantzirik gabea osatu zuten. Hainbat subirano historikok bere denbora librea, seriotasun handiagoz edo txikiagoz, filosofoei aholku eskatzen eman du; Mendebaldeko histori aztertzailearentzat adibiderik ezagunena hemezortzigarren mendeko «despota ilustratuak» deiturikoak izan ziren Mendebaldeko munduan, hauek Voltairerengandik beherako frantziar *philosophes*-en askotariko konpainiari txandaka mimoak eta errieta eginez dibertitzen baitziren. Baina nekez aurkituko dugu salbatzaile egoki bat Prusiako Federiko II.agan edo Errusiako Katalina II.agan.

Badira ere gobernari ohargarriak zenbait belaunaldi lehenago hildako irakasleengandik bene-benetako filosofia lortu dutenak. Marko Aureliok bere zorra aitortzen die Rustiko eta Sexto tutoreei, baina zalantza gutxi dago eskola-maisu hauek, bestalde

ezezagunak, iraganeko estoiko handien filosofiaren garraiatzaile huts izan zirela, eta, batez ere, Paneziorena, hau K.a. bigarren mendean bizi izan zelarik, Marko baino hirurehun urte lehenago. Asoka enperadore indikoa Budaren dizipulu izan zen, bere tronuratzeari baino berrehun urte lehenago hila. Mundu indikoak Asokaren mende eta mundu helenikoak Markoren mende zuten egoera Platonen iritziaren frogatzat har daitezke, hots, «gobernatu behar dutenak gobernari izatea aukeratuko luketen azkenak direnean munduan, orduan izaten da gizarte-bizitza zoriontsuena eta harmoniatuena». Baina haien lorpenak beraiekin desagertu ziren. Markok berak ezereztu zituen bere filosofi lanak ondorengotzat bere haziko semea aukeratu zuenean, bere aurrekoek —hutsik gabeko arrakastaz— ia mende batez zintzo-zintzo jarraitu zuten adopzio-praktika konstituzionala hautsiz. Asokaren santutasun pertsonalari dagokionez, honek ez zuen Mauriar Inperioa libratu hurrengo belaunaldian Pushyamitra usurpatzaileak emandako ukabildakaz kolapsatzetik.

Honela errege filosofoa ez da gai desintegratzen ari den gizartearen naufragiotik bere lagun hurkoak salbatzeko. Egitateek berez hitz egiten dute; baina oraindik galdetu behar dugu ea beren azalpena ematen duten. Aurreraxeago begiratzen badugu, azalpen hori ematen dutela ohartuko gara.

Azalpena, benetan, *Errepublika*-ko pasarte batean dago inplizitua, non Platonek filosofo jaioa den printzearen figura aurkezten baitu. Bere postulatua aurreratu ondoren —hots, noizbait eta nonbait, horrelako printze filosofo bat biziko dela bere aitaren tronura igotzeko, han bere filosofi printzipioak praktika politikora eramateko zereginari ekingo diolarik—, Platonek irrikaz salto egiten du ondorio honetara, alegia, «horrelako gobernari bakar bat, gobernatuen adostasuna lortu ahal izango balu, aski litzatekeela egungo egoeran erabat zertueztina dirudien programa bete-betea gauzatzeko». Eta argudioaren gidariak bere baikortasunaren oinarria azaltzeari ekiten dio orduan. «Demagun», jarraitzen du, «gobernari bat prest dagoela gure lege idealak emateko eta gure gizarte-konbentzio idealak sartzeko; ziur aski, ez litzateke ahalbidezko mugez harantzago egongo haren mendekoek beren gobernariaren gurarien arabera jokatu behar dutela onartzea»²¹².

Azken proposizio hauek funtsezkoak dira, noski, Platonen eskemaren arrakastarako, baina, mimesiaren ahalmena lortzearen mende ere badaude, noski; eta dagoeneko ikusi dugu nolabaiteko gizarte-trebakuntzara jotze hau lasterbide bat dela, hartzen dutenak, helmugarako bidaia bizkortu ordez, suntsipenera eramán ohi dituená. Beraz, errege filosofoaren gizarte-estrategian behartu edo hertsatzeko edozein elementu —mental edo fisiko— sartzea aski litzateke agian, eskaintzen omen duen salbazioa lortzeko porrotaren kausa izateko berez; eta ikuspuntu honetatik haren estrategia zehazkiago aztertzen badugu, hertsaduraz egiten duen erabilera bereziki zabarra dela aurkituko dugu. Zeren eta, Platon saiatu arren bere errege filosofoaren gobernuari gobernatuaren adostasunaren onura ematen, garbi dago ez lukeela zentzurik izango filosofoaren batasun pertsonal harrigarriak handikiarekin, zeinek monarka absolutu izan behar baitu, baldin eta fisikoki hertsatzeko despotaren ahalmena prest uzten ez bada, behar denean erabiltzeko; eta kasu hau gertatzea oso litekeena da eta aurreikusten erraza.

«Herrien izaera aldakorra da, eta erraza da gauza baterako konbentzitzea, baina zaila konbentzimendu horretan iraunaraztea. Beraz, prest egotea komeni da, beraien sineskizuna desagertzen denean, norbaitek bere esku izan dezan indarrez sinestarazteko ahalmena»²¹³.

Sano zakarrak diren Makiaveloren hitz horietan errege filosofoaren estrategian dagoen ezaugarri beldurgarri bat agertzen da, Platonek zuhurtziaz atzean gordetzen duena. Errege filosofoak bere bidea xarmaren bidez ezin duela egin ohartzen bada, bere filosofia bazter utzi eta ezpata hartuko du. Marko Aureliok ere erabili zuen arma hau kristauen aurka. Berriro ere, ariketa-sarjentu bihurturiko Orfeoren ikuskizun txundigarriaren aurrean gaude. Egia esan, errege filosofoak porrot egin behar du nahitaez pertsona bakar batengan bi izaera kontraesankor elkartu nahian ari delako. Filosofoa lelotu egiten da erregearen hertsatze-arloan sartzean, eta alderantziz erregea lelotu egiten da filosofoaren grinarik gabeko kontenplazioaren arloan sartzean. «Denbora-makinadun» salbatzailea —bere forma garbian idealista politikoa dena— bezala, errege filosofoa ere bere porrota aitortzera eramana da, bera ere maskaraturiko «ezpatadun salbatzaile» dela salatzen duen arma bat ateraz.

5.

Jainkoa gizaki batengan haragitua

Desintegratzen ari den gizarte batean jaioa eta bere ahalmen eta energiak gizarte-desintegrazioaren erronkari erantzutera bideratzen dituen jeinu sortzailearen hiru epifania desberdin aztertu ditugu, eta kasu guztietan ustezko salbazio-bideak, berehala edota azken finean, hondamendira bakarrik eramaten duela aurkitu dugu. Zer ondorio atera behar dugu desilusio-sail honetatik? Ustezko salbatzailea gizaki hutsa baldin bada, desintegratzen ari den gizarte bat salbatzeko ahalegin guztiak eta bakoitza seguru suntsipenean bukatuko direla esan nahi al du? Gogora dezagun orain arte enpirikoki egiaztatu dugun egiaaren adierazpen klasikoaren testuingurua. «Ezpataz ari dena ezpataz hilko da» salbatzaile baten hitzak dira, eta arrazoi hau ematen du bere jarraitzaileetako bati atera eta erabili berri duen ezpata zorrora itzul dezan agintzeko. Nazareteko Jesussek sendatu egiten du lehenengo Pedroren ezpatak egindako zauria eta gero bere borondatez bere burua ematen du iraina eta oinazea azken muturreraino pairatzeko. Are gehiago, ezpata errefusatzeko duen zioa ez da kalkulu praktikoa, hots, egoera partikular horretan bere indarra ez dela etsaien parekoa. Uste du, gero bere epaileari esaten dion bezala, ezpata hartuko balu, «hamabi aingeru-legiorekin», ezpatak eman dezakeen garaipen osoa irabaziko lukeela ziur. Halaz guztiz, hori sinetsita ere, uko egiten dio arma erabiltze-ari. Ezpatarekin konkistatu baino lehen gurutzean hilko da.

Krisialdian aukerabide hau hautatzean, Jesus apartatu egiten da beste ustezko salbatzaileek —aztertu ditugu hauen jokaerak— hartutako ekintza-ildo konbentzionaletik. Zerk inspiratzen du nazaretar salbatzailea itxenbide berri izugarri hau hartzera? Galdera honi erantzuteko, galdegin genezake ea zerk bereizten duen hura ezpata-gizon bihurtuz beren helburuak ukatu dituzten beste salbatzaileengandik. Erantzuna da beste hauek bazekitela gizaki hutsak zirela; Jesus, ordea, bera Jainkoaren Seme zela uste zuen gizaki bat zen. Salmistarekin batera, «salbazioa Jaunak bakarrik daukala» eta, zentzu batean jainkozkoa izan gabe, gizadiaren ustezko salbatzailea bere zeregina betetzeko beti izango dela ezgauza ondorioztatu behar ote dugu? Gizaki huts direla aitortu duten *soi-disant* salbatzaile horiek pisatu eta eskas

aurkitu ditugunez, jo dezagun orain, azken irtenbide gisa, beren burua jainkotzat aurkeztu duten salbatzaileengana.

Omen direna ba ote diren eta egiten omen dutena egiten ote duten balioztatzeko helburuaz jainko salbatzaileen segizioari errebis-ta pasatzea gure azterketa enpirikoaren ohiko metodoaren aurrekaririk gabeko aplikazio harroputza irudi lezake. Hala ere, hau ez da izango gure zailtasuna praktikan. Zeren eta, gure prozesioko irudi guztiek, batek izan ezik, zernahi eskakizun dutela ere jainkotasunerako, giza-tasunerako eskabiderik zalantzatsuenak bakarrik egiten dituztela aur-kituko baitugu. Itzal eta abstrakzio artean mugituko gara, Berkeley-ren irrealitateetan, hauen *esse* bakarra *percipi* delarik, ikerketa moder-noak «Likurgo, Espartako erregeari» buruz eman duen epaia aplikatu behar zaien «pertsonek»: Likurgo Solon Atenaskoa bezain errealtate sendo eta datagarria zela uste zuten gure arbasoek, hots, «ez zela gizon bat, jainko bat bakarrik». Hala ere, jarrai dezagun aurrera. Has gaitezen eskalaren beherenetik *deus ex machina*-rekin eta saia gaite-zen agian gizazpikoa den maila honetatik *deus cruci fixus*-en altuera adieraztezinerraino igotzen. Gurutzean hiltzea baldin bada jainkota-sun-aldarrikapenaren egiaz testigantza emateko gizaki bat irits daite-keen azken muturra, jokalekuan agertzea da agian jainko aintzatetsi batek har dezakeen molestiarik txikiena salbatzaile izateko aldarrika-pena bultzatzeko.

Jokaleku atikoan, Zibilizazio Helenikoaren kolapsoa ikusi zuen mendean, *deus ex machina* benetako jainko-dohaina izan zen antzerki-idazle nahastuentzat, hauek, jada aro ilustratu batean, kon-bentzioak behartuta baitzeuden beren argumentuak mitologia heleni-koaren tradiziozko corpusetik hartzera. Ondorioz, antzerkiaren ekin-tza, berezko bukaera baino lehen, izugarrikeria moral edo inprobabi-litate praktikoen nahaste konponezinen batean harrapatuta gelditu bazen, autorea bere artearen konbentzioetako batean korapilatuta geratu zen saretik konbentzio horietako beste batera joz irten ziteke-en. Jainko bat produzitu zezakeen «makina batean», sabaitik zintzi-likatuta edo gupil gainean taularatuta, amaiera bat lortzeko. Dramaturgo atikoen lanbidearen trikimailu honek eskandalizatu egin ditu ikertzaileak, olinpiar interbentzionista hauek proposaturiko giza arazoen konponbideek ez baitute ez giza adimena konbentzitzen, ezta giza bihotza hunkitzen ere. Euripides arau-urratzaile bereziki

zabarra da puntu honetan eta, Mendebaldeko ikertzaile moderno batek iradoki duenez, Euripidesek sekula ez du *deus ex machina* bat erabiltzen isekarik egin gabe. Verrall-en arabera, Euripides «arrazionalistak» (horrela deitzen du berak) tradiziozko konbentzio hau bere helburuetarako baliagarri izatea lortu du bere ironia eta biraozko ateraldietarako pantaila gisa, horietara nekez ausartuko zelarik eta zigorrik gabe geratu ageri-agerian adierazi izan balitu. Pantaila honek egitura ideala du, poetaren kontrario «ezjakinen» gezi etsaiek ezin baitute igaro, baina aldi berean gardena da eszeptizismoan lagun dituen begi jakitunentzat.

«Ez da gehiegi esatea Euripidesen agertokian jainko batek esaten duen guztia, oro har, sinesgarritasunik gabekotzat hartu behar dela ipso facto. Kasu guztietan eragozpenak ditu autorearen ikuspegitik, eta ia beti gezurra da. ‘Jainkoak errepresentatuz, ez direla existitzen konbentzitu zituen gizakiak’»²¹⁴.

Giza patuaren handitasun eta miseriatik hurbilago, eta askoz miresgarriagoak, giza ama eta gizagaineko guraso batengandik jaiotako erdijainkoak dira: Herakles, Asklepio, Orfeo, greziar adibideak bakarrik aipatzearren. Giza haragia duten erdijainko hauek beren aha-eginaz eta hainbat eratara gizakiaren patua arindu nahi dute eta jainko jeloskorrek ematen dizkieten zigorretan gizakien sufrimenduak partekatzen dituzte, hauen zerbitzura daudelarik. Erdijainkoa —eta hau du bere loria— heriotzaren mende dago, gizakia bezala, eta hiltzen den erdijainkoaren irudiaren atzean benetako jainko baten irudi handiagoa sumatzen da, mundu desberdinetan deitura desberdinekin hiltzen dena: Zagreus mundu minoikoan, Tamuz mundu sumerikoan, Atis mundu hititan, Balder eskandinaviar munduan, Adonis mundu siriakoan, Husayn mundu xiian, Kristo kristau-munduan.

Nor da epifania asko baina pasio bakarra duen jainko hau? Gure mundu-agertokian dozena bat maskara desberdinen azpian agertzen den arren, bere nortasuna aldaketarik gabe azaltzen da tragediaren azken ekitaldian bere sufrimendu eta heriotzaren bidez. Eta antropologoek iragarle-makilatxo hartzen badugu, inoiz aldatzen ez den drama honi bere jatorri historikoetaraino jarrai geniezaioke. «Jaunak nahi izan zuen bere zerbitzaria lur agorrean sustaraiak dituen kimu berria bezala haztea»²¹⁵. Hiltzen ari den Jainkoaren agerpenik zaharrena ἐνιανυτὸς δαίμων-en paperean

dago, landaretzaren espiritua, gizakiarentzat udaberrian jaiotzen dena gizakiarentzat udazkenean hiltzeko. Gizakiak onura ateratzen dio natura-jainkoaren heriotzari eta galdu egingo litzateke bere ongilea ez balitz beragatik hilko betierean²¹⁶. «Baina gure errebel-diengatik zulatu zuten, gure erruengatik birrindu; berak jasan zuen guretzat salbagarri izango zen zigorra: haren zauriek sendatu gintuzten»²¹⁷. Baina kanpo-lorpen batek, egundokoa eta ikaragarri kostakoa izan arren, ezin du azaldu tragediaren bihotzean dagoen misterioa. Sekretua irakurri nahi badugu, giza onuradunaren probetxuaz eta jainko-protagonistaren galeraz harantzago begiratu behar dugu. Jainkoaren heriotza eta gizakiaren irabazia ez dira arazo osoa. Ezin dugu jakin antzerkiaren esanahia protagonistaren egoera eta sentimenduak eta zioak ere jakin gabe. Hiltzen ari den Jainkoa behartuta ala berak aukeratuta hiltzen da? Bihozberatasunez ala garraztuta? Maitasunak ala etsipenak eraginda? Jainko salbatzailearen espirituari buruzko galdera hauen erantzunak lortzen ez ditugun arte, nekez epaitu genezake ea salbazio hau gizakiarentzat bakarrik izango den probetxuzkoa dagokion galera jainkoak jasanetz, ala elkartze espirituala emango den eta hor gizakiak ere bueltan ordainduko duen («gar kulunkari batetik hartutako argia bezala»)²¹⁸ eskuratuz jainko-maitasuna eta errukia, bere buruaren opaltze hutsezko egintzan Jainkoak gizakiari erakutsi dizkionak.

Zein espiritutan doa hiltzen ari den jainkoa bere heriotzarantz? Galdera hau ezpainetan dugula maskara tragikoen desfilea zuzentzen bagara berriro, sakrifizio akasgabea akasdunetik banatzen ikusiko dugu. Orfeoren heriotzagatik Kaliopek egiten duen erosta maitagarrian bada garraztasun-nota desatsegin bat, kristau-belarrian harridura eta atentzioa ematen duena.

«Zergatik guk, gizakiok, geure seme-alaben heriotzak deitortzen ditugu, ikusiz jainkoek ere ez dutela ahalmenik beretarren gainean Heriok eskua jar dezan eragozteko?»²¹⁹.

Hau da hau irakaspena hiltzen ari den Jainkoaren istoriotik ateratzeko! Hortaz, Orfeoren ama zen jainkosak ez zion inoiz Orfeori hiltzen utziko eragotzi ahal izan balu. Eguzkia estaltzen duen hodei bat bezala, poeta helenikoaren onarpenak itzali egiten du Orfeoren heriotzaren argia. Baina Antipater-en poemari beste maisulan handiago batean erantzuten zaio:

«Izan ere, Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duenik inor gal ez dadin, baizik betiko bizia izan dezan».

Ebanjelioak honela erantzuten dionean elegiari, orakulu bat ematen du. «Batak iraun egiten du, anitza aldatu eta pasa egiten da»²²⁰. Eta benetan hau da salbatzaileei buruz gure ikerketaren azken emaitza. Azterketa honi ekin diogunean oste handi baten erdian aurkitu gara mugitzen, baina, aurrera egin ahala, ibiltariak, konpainiaz konpainia, lasterketatik kanpo geratu dira. Huts egiten lehenak ezpata-gizonak izan dira, gero arkaistak eta futuristak, ondoren filosofoak, azkenean jainkoak bakarrik geratu diren arte lasterketan. Heriotzaren azken proban, ustezko jainko salbatzaile hauetatik ere, gutxi ausartu dira beren titulua proban jartzera ibai izoztura salto eginez. Eta orain, gure begiak beste aldeko ibaiertzean finko josita ditugunean, irudi bakarra irteten da uretatik eta berehala zeruertz osoa betetzen du. Bera da Salbatzailea; «eta haren bitartez bere nahia burutuko du Jaunak. Jaunak dio: ‘Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta asea izango’»²²¹.

XXI. DESINTEGRAZIOAREN ERRITMOA

Azken kapituluan paralelo bat —ezinbesteko kontrastea ere inplikatzeko zuena— bilatu, eta hazten ari diren eta desintegratzen ari diren gizarteetan pertsona sortzaileek dituzten paperen artean aurkitu dugu. Antzeko ikerketa-bideari jarraitu behar diogu orain gure gaiaren beste zati batean, eta paralelo bat bilatu behar dugu —ziur aski, berriro ere kontraste bat inplikatu duena— hazkunde-erritmoa eta desintegrazio-erritmoa deitzen ditugun horien artean. Kasu bakoitzean azpian datzan formula dagoeneko oso ezaguna dugu, Azterlan honek guztian lagun izan baitugu; erronka-eta-erantzunaren formula da. Hazten ari den zibilizazio batean erronkak erantzun arrakastatsua lortzen du, honek beste erronka bat eta desberdina eragiten du eta beste erantzun arrakastatsu bat lortzen du. Hazkunde-prozesu honek ez du bukaerarik, ez bada behintzat erronka bat sortzen zibilizazioak erantzun ezinezkoa: gertaera tragikoa, hazkundearen bukaera esan nahi duena eta guk kolapsoa deitu duguna. Hemen hasten da erritmo korrelatiboa. Erronkari ez zaio erantzun, baina hala ere agertzen jarraitzen du. Bigarren ahalegin konbultsibo bat egiten da erronkari erantzuteko, eta, arrakastatsua bada, berriro ekingo zaio hazkundeari, noski. Baina demagun, arrakasta partzial eta aldi batekoaren ostean, erantzun honek ere huts egiten duela. Orduan eroriko berri bat izango da geroago eta agian, tarte baten ondoren, erantzuteko beste ahalegin bat, denborarekin arrakasta aldi bateko eta partziala izango duena oraindik

erronka tinko berbera den horri erantzuten. Berriro ere beste porrot batek jarraituko dio honi, azkenekoa izan daitekeena edo ez eta gizar-tearen deuseztapena ekar dezakeena. Hizkuntza militarrean erritmo hau porrota-indarberritzea-porrota-indarberritzea dela esan daiteke.

Azterlan honetan lehenago asmatu eta etengabe erabili ditugun termino teknikoetara itzultzen bagara, garbi ikusten da berehala kolapsoaren ondorengo arazoaldia porrota dela; estatu unibertsala ezartzea, indarberritzea; eta estatu unibertsalaren zatiketaren ondorengo interregnoa, azken porrota. Baina estatu unibertsal baten — helenikoaren— historian dagoeneko ikusi dugu berriro anarkian erori zirela K.o. 180an Marko Aurelio hil ondoren, eta susperraldia Dioklezianoren mende gertatu zen. Baliteke berrerortze eta susperraldi bat baino gehiago gertatzea estatu unibertsal partikularren baten historian. Egia esan, horrelako berrerortze eta suspertzeen kopurua, gerta liteke azterketapean daukagun gaiari aplikaturiko lenteen ahalmenaren araberkia izatea. Adibidez, izan zen berrerortze labur baina kezkagarri bat K.o. 69an, «lau enperadoreen urtean», baina ezaugarri nabarmenez bakarrik arduratzen gara hemen. Arazoaldiaren erdian suspertze partzial bat ere gerta daiteke. Arazoaldian suspertze garrantzitsu bat bilatu nahi badugu eta berrerortze garrantzitsu bat estatu unibertsalaren bizialdian, horrek honako formula hau emango digu: porrota-indarberritzea-porrota-indarberritzea-porrota-indarberritzea-porrota, gure porrot-indarberritze erritmoan hiru «konpas» eta erditzat har daitekeena. Ez dago bertute berezirik, noski, hiru eta erdiko zenbaki horretan. Desintegrazio-kasu partikular batek bi eta erdi, edo lau eta erdi, edo bost eta erdi izan ditzake, funtsean desintegrazio-prozesuaren erritmo orokorrera egokitzen hutsik egin gabe. Benetan, ordea, badirudi hiru konpas eta erdikoa dela desintegratzen diren hainbat gizarteren historiei dagokien eskema, eta argibide modura horietako batzuk ikusiko ditugu, bizkor bada ere.

Zibilizazio Helenikoaren kolapsoa zehaztasun bereziz data daiteke K.a. 431n, eta haren estatu unibertsala Augustok K.a. 31n ezarri zuen lauhun urte geroago. Bereiz dezakegu inon indarberritze-eta-berrerortze mugimendurik lau mende hauetan? Zalantzarik gabe, bai. Bere sintometako bat homonoia edo konkordiaren gizarte-ebanjelioa da, Timoleonek Sirakusan predikatua eta Alexandro Handiak askoz eremu zabalagoan, K.a. laugarren mendearen biga-

rrren erdian biek ere. Beste sintoma bat kosmopolis edo mundu-elkar-tearen ideia da, Zenon eta Epikuro eta haien dizipuluek ospetsu bihurtua. Hirugarrena, konstituziozko saiakuntzen ugaritasuna — Seleukotar Inperioa, Akeoen eta Etoliako konfederazioak eta Erromatar Errepublika—, guztiak ere hiri-estatuaren ohiko subiranotasuna gainditzeko ahaleginak. Beste sintoma batzuk ere aipa litezke, baina hauek aski dira gure ustezko indarberritzeari mamia eta denboran gutxi gorabeherako kokapena emateko. Porrot egin zuen indarberritzeak, batez ere unitate politiko handitu berriak, banako hiri-estatuaren mugak arrakastaz gainditu arren, elkarren arteko harremanetan, hiri-estatuak eurak bosgarren mendeko Grezian Peloponesoko gerra hasi eta kolapso helenikoa inauguratu zutenean bezain tolerantzia eta lankidetza gutxiokoak gertatu zirelako. Lehen susperraldiaren bigarren berrerortze edo (gauza bera dena) porrot hau Bigarren Gerra Punikoaren hasieran datatu genezake K.a. 218an. Dagoeneko lokalizatu dugu mende bat iraun zuen berrerortze bat eta ondoren susperraldia Erromatar Inperioaren historian, eta honek gure hiru konpas eta erdiak ematen dizkigu.

Ondoren Gizarte Sinikoaren desintegrazioari heltzen badiogu, kolapsoaren mementoa Tsin eta Txu bi botereen artean K.a. 634an izandako talka negargarriarekin bat egin dezakegu, eta *Pax Oecumenica* sinikoaren ezartze-mementoa, K.a. 221ean, Tsin-ek Tsi eraitsi zuen mementoarekin. Hauek baldin badira arazoaldi sinikoaren bi data terminalak, ba al dago indarberritze-eta-berrerortze mugimenduaren arrastorik bitarteko denboraldian? Erantzuna baiezkoa da, badelako hauteman daitekeen indarberritze bat arazoaldi sinikoan Konfuzioren belaunaldiaren inguruan (*circa* K.a. 551-479an), K.a. 546ko desarmatze-konferentziarekin hasia, azkenean huts egin bazuen ere. Are gehiago, estatu unibertsal sinikoaren historiari begiratzen badiogu, berrerortze eta susperraldi nabarmena aurkitzen dugu Aurreko eta Ondorengo Han dinastien arteko interregnoan, kristau-aroa lehen mendeko lehenengo urteetan. Berriro ere gure hiru konpas eta erdiak aurkitzen ditugu, data sinikoak pareko helenikoak baino berrehunen bat urte lehenago agertzen direlarik erregularki.

Historia sumerikoan irakurketa bera egingo dugu; zeren eta arazoaldi sumerikoan garbi hautematen baita indarberritze-eta-porrot konpas bat; estatu unibertsal sumerikoaren bizialdia, berriz, ezohiko

bizitasuna duen porrot-eta-indarberritze kontra-konpas batek markatzen du. Arazoaldiaren hasiera Erech-eko Lugalzaggisi militaristaren ibilketatik (*circa* K.a. 2677-2653) datatzen badugu, eta bukaera Ur-eko Ur-Engur-ek (*circa* K.a. 2298-2281) ezarri zuen estatu unibertsal sumerikoaren ezarpenarekin berdintzen badugu, bitarteko susperraldiaren sintoma bat behintzat aurkitzen dugu Narasim-en garairako (*circa* K.a. 2572-2517) ikus-artearen lorturiko aurrerapen ohargarrian. *Pax Sumerica*-ren bizialdia Ur-Engur-en tronuratzetik Hamurabiren heriotzaraino (*circa* K.a. 1905) hedatzen da, baina bake hau, aztertzen bada, anarki nahaste zabala estaltzen duen geruza mehea gertatzen da. Ur-Engur-en tronuratzetik mende batera, haren «Lau Eskualdeko Inperioa» zati-zati eginda geratu zen, eta zatituta iraun zuen berrehun urte baino gehiago, Hamurabik estatu unibertsal hau bere azken deuseztapenaren bezperan berregin zuen arte.

Orain ezagun zaigun eskema berriro agertzen da Kristandade Ortodoxoaren gorputz nagusiaren desintegrazioaren historian. Dagoeneko identifikatu dugu zibilizazio honen kolapsoa K.o. 977-1019an hasitako erromatar-bulgariar gerra handia piztearekin, eta *Pax Oecumenica*-ren azken berrezarpena Mazedoniaren K.o. 1371-2ko otomandar konkistatik aurrera datatu daiteke. Arazoaldi kristau ortodoxo baten bi muga hauen artean susperraldi bat bereiz genezake, Alexio Komneno (K.o. 1081-1118) ekialdeko erromatar enperadoreak gidatua eta mende bat iraun zuena. Ondorengo *Pax Ottomanica*-k azkenean K.o. 1768-74ko gerra errusiar-turkiarreko porrotaren zirrarapean izan zuen kolapsoa; baina kolapso honek otomandar erregimenaren kolapso erabakigarria markatu zuen bitartean, otomandar analek froga garbia ematen dute lehenagoko berrerortze batena, gero susperraldi batek erremediatua. Berrerortzea padisharen esklabo-etxearen gainbehera bizkorrean ikusten da Suleiman Bikainaren heriotzaren ondoren K.o. 1566an, eta susperraldia ondorengo saiakuntzak iragartzen du: padisharen *raiyyah* kristau ortodoxoa hiritar musulman askeen —orduan agintea beren esku zeukatenen— kide bihurtzea, baina estatu-gobernuan partaide izateko onarpenaren truke jada eskatu gabe *raiyyah*-ari bere fedeari uko egitea. Berrikuntza iraultzaile honek, Koprülü bisiren lana izan zenak, Otomandar Inperioari arnasaldi bat eman zion, oraindik ere osmanliar modernoek «Tulipa Aldia» bezala nostalgiaz gogoratzen dutena.

Hindu Gizartearen desintegrazioaren historian azken konpas-
-erdia oraindik ez da erabat iritsi, oraindik ez baita guztiz burutu
hindu-estatu unibertsalaren bigarren ezarpena, Britainiar Inperioak
emana. Bestalde, porrot-eta-indarberritzeko lehen hiru konpasek
beren arrastoa utzi dute guztiek. Hirugarren porrota Mogolen
Inperioaren kolapsoaren eta ondorengo britainiarra ezarri bitarteko
anarki mendea da. Bigarren konpaseko indarberritzea garbi agertzen
da, halaber, Mogolen Inperioaren ezarpenean Akbarren erreinuan
(K.a. 1566-1602). Aurreko porrotaldia ez dago hain argi, baina, kris-
tau-aroa hamabigarren mendearen azken zatian hindu-estatu parro-
kialen artean anaiarteko gerrak piztean hasi zen hindu-arazoaldiaren
historiara begiratzen badugu, hindu-gobernariak eta inbaditzaile
musulmanek hamabigarren eta hamahirugarren mendeetan eraginda-
ko atsekabeen eta ondorengo inbaditzaile musulmanen multzo ugariak
—Akbarren beraren arbasoak barne— hamabosgarren eta hamaseiga-
rren mendeetan eragindakoen artean, aldi bateko lasaialdiaren seina-
leak sumatuko ditugu hamalaugarren mendean, Ala-ad-Din eta Firuz-
en erreinaldiek markatuak.

Gure beste zibilizazioen desintegrazioak antzeko azterketapean
jar genitzake horrelako azterketa emankorra izateko behar hainbat
froga daukagun kasu guztietan. Kasu batzuetan, «konpasen» sail osoa
falta dela konturatuko ginateke, soil-soilik aztergai dugun zibilizazioa
auzokoetako batek irentsi duelako bizirik berezko heriotzaren babes-
lekuraino bere bidea egin aurretik. Hala ere, desintegrazioaren errit-
moari buruzko nahiko froga aurkeztu dugu erritmo-eskema hau geure
Mendebaldeko Zibilizazioaren historiari aplikatu ahal izateko, hainbat
aldiz egin eta inoiz erantzun ez dugun galdera bati buruz argirik ema-
ten ote duen ikusteko: galdera da ea geure zibilizazioak kolapsorik
izan ote duen eta, izan baldin badu, zein etapalara iritsi den desinte-
grazioan.

Gauza bat dago garbi: oraindik ez dugu esperimentatu estatu
unibertsal baten ezarpena, nahiz eta hori ezartzeko etsi-etsian bi aha-
legin egin dituzten alemanek mende honen lehen erdian, eta beste aha-
legin bat, hura ere etsia, Napoleonen Frantziak ehun urte lehenago.
Beste gauza bat ere garbi dago: gure artean bada aspirazio sakon eta
zintzo bat, ez estatu unibertsal bat, baizik eta mundu-ordenaren for-
maren bat ezartzeko, zenbait estatu-politikari eta filosofo helenikok

arazoaldi helenikoan alferrik predikaturiko homonoia edo konkordiarren antzekoa agian, estatu unibertsal baten bedeinkazioak bermatuko dituen bere madarikazio hilgarririk gabe. Estatu unibertsal baten madarikazioa *knock-out* kolpe arrakastatsu baten emaitza da, lehian ari ziren botere militarren taldean bizirik geratutako kide bakarrak emana. «Ezpata bidezko salbazio» haren emaitza da, ikusi dugunez inola ere salbazio ez dena. Gu bila gabiltzana herri askeen adostasun askea da elkarrekin batasunean bizitzeko eta, hertsadurarik gabe, garrantzi handiko egokitzapen eta amore emateak egiteko, honelakorik gabe ezin baita praktikan gauzatu ideal hau. Ez dago gai honetan luzatu beharrik, gaur egungo milaka aztergaien topikoa baita. 1918ko azaroko armistizioaren aurreko eta ondorengo hilabete labur batzuetan Wilson iparramerikar presidenteak Europan —baina ez bere herrialdean— izan zuen ospe harrigarria gure munduaren gurarien neurria izan zen. Wilson presidenteari batez ere prosaz hitz egin zitzaion; Augustori buruz iritsi zaizkigun lekukotasunik ezagunenak Virgilioren eta Horazioren bertsoetan daude. Baina, hitz lauz edo neurtuz, fede, itxaropen eta esker onaren bi isurpen hauek bultzatzen zituen espiritua bietan bera izan zen nabarmen. Emaitza, ordea, desberdina izan zen. Augustok arrakasta izan zuen munduari estatu unibertsal bat ematen; Wilsonek porrot egin zuen bereari zer bait hobe ematen.

*Gizon txiki hura banan-banan doa batzen;
haren ehunekoa laster da lortzen.
Gizon handi honi, milioia duela helburu,
unitate bat falta zaio*²²².

Gogoeta eta konparazio hauek adierazten dute dagoeneko oso aurreratuta gaudela geure arazoaldian; eta, iraganaldi berrian gure arazorik nabarien eta berariazkoena zein izan den galdetzen badugu, garbi dago erantzuna: gerra nazionalista odoltsuak, demokraziaren eta industrialismoaren indar askatu berriek sorturiko energien «bulkada» konbinatuak indartuta, Azterlan honetan lehenago esan den bezala. Zigor honen eragina Frantziako iraultza-gerrak hemezortzigarren mendearen bukaeran piztu zirenetik datatu genezake. Baina gai hau lehenago aztertu dugunean, datu honen aurrean aurkitu gara: gure Mendebaldeko historiaren atal modernoan, gerraldi bortitz hau ez zela lehenengoa izan, bere motako bigarrena baizik. Lehen aldia erlijio-

-gerrak direlakoena izan zen, hauek Mendebaldeko Kristandadea hamaseigarren mendearen erditik hamazazpigarrenaren erdira suntsitu zutelarik, eta bi gerraldi bortitz hauen artean tarteko mende bat dagoela aurkitu dugu, non gerra konparatiboki gaitz arina izan baitzen, «erregeen kirola», erlijio-setakeriazko fanatismoak edo fanatismo nazional demokratikoak areagotu gabea. Honela, geure historian ere, arazoaldiaren eskema tipikotzat jo duguna aurkitu dugu: kolapsoa, indarberritzea eta bigarren erortzea.

Bereiz genezake geure arazoaldian zehar hemezortzigarren mendeko indarberritzeak zergatik huts egin zuen eta zergatik izan zen iragankorra; «Ilustrazioak» lorturiko tolerantzia ez zelako oinarritu fede, itxaropen eta karitatearen kristau-bertuteetan, baizik eta Mefistofelesen desilusio, beldur eta zinismoaren gaitzetan. Ez zen izan erlijio-suaren lorpen neketsua, haren abailduraren ondorio erraza baizik.

Ezin al dugu batere aurreikusi are bortitzagoa den bigarren gerraldiaren emaitza, zeinetan erori baita gure Mendebaldeko mundua hemezortzigarren mendeko Ilustrazioaren desegokitasun espirituala- ren ondorioz? Geure etorkizunera begiratzen saiatu behar badugu, hasteko gogoratu behar dugu beren historia ezagutzen dugun beste zibilizazio guztiak hilda edota hiltzen egon daitezkeen arren, zibilizazio bat ez dagoela, animalia organismoa bezala, ezinbestean hiltzera zuzendua, aurrez erabakitako bizi-kurba egin ondoren. Orain arte existitu diren beste zibilizazio guztiek bide honi jarraitu diotela gertatuko balitz ere, ez dago determinismo historikoaren lege jakinik salto egitera behartzen gaituenik gure arazoaldiko zartagin jasangaitzetik estatu unibertsal baten su txiki eta egonkorrera, non bere garaian hauts eta errauts bihurtuta geldituko garen. Aldi berean, beste zibilizazio batzuen historietako eta izadiaren bilakaerako aurrekari horiek beldurgarritzat agertu behar gure egungo egoeraren zorigaitzako argitan. Atal hau berau idatzi zen 1939-45eko Gerra Orokorra pizteko bezperan dagoeneko 1914-18ko Gerra Orokorra bizi izan zuten irakurleentzat, eta berrargitaratzeko moldatu zen bizialdi baten barruan gertaturiko bi mundu-gerra hauetako bigarrena bukatu eta biharamunean, eta hori lehegailu bat asmatu eta erabiliz, beronekin gizakiak atomo-energiaren askapen asmatu berria bere bizitzeta eta egintzak suntsitzera bideratu baitu aurrez egin gabeko eskalan. Gertaera hondagarri hauen

segida bizkorrak, kiribilean gora doan aldapan, ezinbestean zalantza handiak sortzen ditu gure etorkizunaz, eta zalantza hauek gure fedea eta itxaropena hondatzeko arriskuan jartzen dute, salbazio-ahalmen espiritual hauen ahalegin handiena eskatzen duen azken-azken une erabakigarri honetan. Saihestu ezin dugun erronka dugu hemen, eta gure erantzunaren mende dago gure patua.

«Amets egin nuen, eta zarpail jantzitako gizon bat ikusi nuen, leku jakin batean zutik, bere etxeari bizkar emanez, eskuan liburua zuela eta zama handia bizkarrean. Begiratu nion, eta liburua zabaldu eta irakurtzen ikusi nuen; eta irakurri ahala, negarrez dar-dar egiten zuen; eta, bere buruari gehiago ezin eutsirik, deiadar tamalgarri bat bota zuen esanez: Zer egingo dut?».

Bunyan-en «Kristau» ez zegoen arrazoirik gabe hain atsekabe handian.

«Jakinarazi didate (dio berak) gure hiri hau zeruko suaz erre-ko dutela... eta suntsipen beldurgarri honetan ni neu, zu —ene emazte— eta zuek —nire haurtxo maiteok— hondamendira goazela zorigaiztoan, hortik libratzeko ihesbideren bat aurkitzen ez badugu behintzat (nik oraindik ikusten ez dudan gauza)».

Zer-nolako erantzuna emango dio Kristauk erronka honi? Lasterka hasiera balihoa bezala bide batera eta bestera begiratu eta, hala ere, bertan geratuko ote da ezin duelako esan zein bidetatik jo behar duen? Ala lasterka eta korrika hasiko da «Bizia! Bizia! Betiko Bizia!» deiadar eginez, begiak argi distiratsu batean finko eta oinak urruti dagoen atakarantz zuzenduta? Galdera honen erantzuna ez balego beste inoren esku Kristauren beraren esku baizik, giza izaeraren uniformetasunaz dakigunak eramango gintuzke iragartzera Kristauren berehalako patua Heriotza izango dela bere Suntsiduraren Hirian. Baina mitoaren bertsio klasikoan esaten zaigu giza protagonista ez zela erabat bere kasa utzia izan memento erabakigarrian. John Bunyanen arabera, Ebanjelarekin izandako topaketak salbatu zuen Kristau. Eta, Jainkoaren izaera gizakiarena baino iraunkortasun gutxiagokoa ez dela uste izan daitekeen neurrian, eska genezake —eta eskatu behar dugu— Jainkoak behin gure gizarteari eman zion barkamena ez ukatzea apaltasunez eta bihotz-damuz berriro eskatzen badiogu.

XXII. ESTANDARIZAZIOA DESINTEGRAZIOAREN BIDEZ

Iritsi gara zibilizazioen desintegrazio-prozesuaren ikerketaren bukaerara, baina gai hau utzi aurretik, bada azertu behar dugun beste puntu bat. Zeharkatu dugun lurralderantz atzera begiratzean, galdetu behar dugu ea bereizten ote dugun joera nagusirik jardunean, eta, egia esan, estandarizazio eta uniformetasunerantzako joera sumatzen dugu argi eta garbi: joera hau diferentziazio eta aniztasunerako joeraren korrelatiboa eta kontrakoa da, hau zibilizazioen hazkunde-etaparen ezaugarri dela aurkitu dugularik. Oraintxe ikusi dugu, azaleko mailan, hiru konpas eta erdiko uniformetasunerantzako joera desintegrazioaren erritmoan. Uniformetasunaren sintoma askoz esanguratsuagoa zera da: desintegratzen ari den gizartearen zisma uniformearen zorrotz banaturiko hiru klasetan eta bakoitzak zerturiko sorkuntza-lan uniformeak. Gutxiengo menderatzaileak uniformeki filosofiak asmatzen eta estatu unibertsalak ekoizten ikusi ditugu; barne-proletalgoak uniformeki «erlijio nagusiak» —beren burua eliza unibertsaletan gorpuztu nahi luketenak— aurkitzen; eta kanpo-proletalgoak uniformeki gerra-taldekak —beren adierazpidea «aro heroikoetan» aurkitzen dutenak— erakusten. Izan ere, erakunde hauen sorreran ematen den uniformetasuna hain da garrantzi handikoa, ezen gai baikara desintegrazio-prozesuaren alde hau taula-forman aurkezteko, bigarren liburu kiaren bukaeran agertzen den bezala. Are ohargarriagoa da oraindik arimako zismaren azterketak erakusten duen portaera, sentiera eta bizieren uniformetasuna.

Hazkundearen aniztasunaren eta desintegrazioaren uniformetasunaren arteko kontraste hau analogia hutsen, Peneloperen sarea-
ren parabola bezalakoen, azterketatik espero genezakeena da. Urrun
den Ulisesen emazte leialak bere jarraitzaile gogaikarriei hitz eman
zienean haietakoren batekin ezkonduko zela Laertes zaharrentza-
ko hil-jantzia josten bukatu orduko, egunez josten aritzen zen ehun-
degian eta gauez azken eguneko lana desegiten zuen. Ehuleak, goi-
zero irazkia prestatu eta bilbea ehuntzen hasten zenean, eredu-auke-
ra mugagabea izaten zuen bere esku eta, berak nahi izanez gero,
eredu desberdin bat ehundu zezakeen egunero. Baina haren gaueko
lana monotonoki uniformea zen, oihala desegiteko garaian berdin
baitzion ereduak. Egunez egindako mugimendu-saila oso konplika-
tua izanda ere, gaueko zeregina harizpiak ateratzeko mugimendu
sinplea besterik ezin izan.

Bere gaueko lanaren ezinbesteko monotoniagatik, zalantzarik
gabe erruki izan behar zaio Peneloperi. Haren asperdurak ez balu
inora eraman, zeregin neketsu hura jasanezina izango zen. Inspiratu
zuen bere arimako kantu bat izan zen: «Berarekin elkartuko naiz». Itxaropenez bizi eta lan egiten zuen; eta bere itxaropenak ez zion huts
egin. Heroia itzuli egin zen eta artean emazte heroikoa berea zuela
ikusi zuen, eta haiek elkartzean bukatzen da Odisea.

Ikus daitekeenez, Penelopek ere ez bazituen harizpiak alferrik
bilbatu, zer esan ehule ahaltsuaz, zeinen lana baitugu aztergai eta zei-
nen kantuak Goetheren bertsoetan baitu giza adierazpena?

*«Bizitzako lasterretan, mugimenduaren enbatetan,
ekintzaren berotasunean, sutan, ekaitzetan,
harat-honat
gora eta behera
nabil noraezean:
Jaiotza eta hilobia,
itsas zabal mugagabea,
non olatu atsedengabea
uhintzen den etengabe,
behera eta gora,
haien gatazka
gora eta behera ehuntzen ari delarik
bizitzako aldaketak.*

*Denboraren ehundegi burrunbatsuan beldurgabe
Jainkoaren soineko bizia lantzen dut nik»²²³.*

Lurraren Espirituaren lana, Denboraren Ehundegian harizpiak irazkitzen eta bilbatzen dituenean, gizakiaren denborazko historia da, hau gizartearen sorrera eta hazkunde eta kolapso eta desintegrazioetan agertzen den bezala; eta bizitzako nahaspila eta ekintza-ekaitz hone-tan oinarritzko erritmo baten konpasa entzun genezake, zeinen baria-zioak erronka-eta-erantzun, erretiro-eta-itzulera, porrot-eta-indarbe-rritze, gurasotasun-eta-filiazio, zisma-eta-palingenesia bezala ezagutu baititugu. Oinarritzko erritmo hau Yin eta Yang-en txandakako konpa-sa da; eta entzutean, estrofari antiestrofaz, garaipenari porrotaz, sor-kuntzari suntsipenaz, jaiotzari heriotzaz erantzun dakioken arren, ohartu gara erritmo honek markatzen duen mugimendua ez dela gudu erabakigabe baten fluktuazioa, ezta noriaren zikloa ere. Gurpil baten jiratze etengabea ez da alferrikako errepikapena, biraketa bakoitzean ibilgailua helmugara gehiago gerturatzen badu; eta palingenesiak zer-bait berriaren jaiotza esan nahi badu eta ez bizi izan eta lehenago hil zen zerbaiten birjaiotza hutsa, orduan Existenziaren Gurpila ez da bakarrik deabruzko makina Ixion kondenatuari oinaze betirauna ema-teko. Honen arabera, Yin eta Yang-en erritmoak markatzen duen musika sorkuntzaren kanta da; eta ez dugu desbideratu behar oker gaudela imajinatuz, arreta jartzean sorkuntzaren nota suntsiduraren notarekin txandakatua entzuten dugulako. Kantua deabruzko engainu bat dela frogatu gabe inola ere, nota-bikoiztasun hau bere benetakota-sunaren bermea da. Ongi entzuten badugu ohartuko gara, bi nota horiek elkarrekin talka egiten dutenean, ez dutela disonantzia sortzen, harmonia baizik. Sorkuntza ez litzateke sortzailea izango ez balitu gauza guztiak bere baitan irentsiko, baita bere kontrakoak ere.

Baina zein da Lurraren Espirituak ehuntzen duen jantzi bizia? Zeruratu egiten ote da ehundu orduko ala guk ere, hemen Lurrean, haren oihal etereoaren txatalak behintzat ikus ote genitzake? Zer pen-tsatu behar dugu ehungailuaren oinean dauden ehun horietaz, ehulea bere desagite-lanean aritu ondoren? Zibilizazio baten desintegrazioan zera aurkitu dugu, agian segizio historikoa substantziarik gabea izan den arren, ez dela desagertzen atzean hondamena utzi gabe. Zibilizazioak desagiten hasten direnean atzean estatu unibertsal eta eliza unibertsal eta gerra-talde barbaroen metaketa uzten dute norma-

lean. Zer egingo dugu hauekin? Hondakin hutsak dira ala hondakin hauek, jasotzen baditugu, ehulearen antzearen maisulan berriak gertatuko ote dira, hark itxuraz bere arreta guztia hartzen zuen ehungailu burrunbatsua baino tresna etereoagoren batean, eskuaren mugimendu oharkabeaz, ehundu dituenak?

Galdera berri honekin buruan, gure gogoetak geure aurreko ikerketen emaitzetara proiektatzen baditugu, aurkituko dugu arrazoirik sinesteko aztergai hauek gizarte-desintegrazioaren ondorioak baino zerbait gehiago direla; izan ere, lehenik gurasotasun-eta-filiazioaren seinale bezala aurkitu ditugu; eta hau zibilizazio baten eta beste baten arteko erlazioa da. Noski, hiru erakunde hauek ezin dira erabat esplikatu zibilizazio bakar baten historiaren arabera; horien existentziak zibilizazio baten eta beste baten arteko erlazioa dakar berekin, eta honengatik, hain zuzen, entitate banandutzat aztertzea eskatzen dute. Baina noraino eramaten ditu beren independentziak? Estatu unibertsalei buruz jardutean, dagoeneko aurkitu dugu beraiek ekartzen duten bakea berebizikoa bezain iragankorra dela; eta gerra-talde barbaroei buruz jardutean berriro aurkitu dugu hildako zibilizazio baten sarraski-har hauek ezin dutela espero izan usteltzen ari den gorpuak bere osagai garbietan desegiteko behar duen denbora baino luzeago bizitzea. Hala ere, gerra-taldeak Akilesen heriotza goiztiarrean kondenatuak egon daitezkeen arren, barbaroaren bizitza laburrak uzten du, behintzat, atzean oihartzun bat aro heroikoa ospatzen duen poesia epikoan. Eta zein da eliza unibertsalaren patua, zeinetan gorpuztu nahi izaten baitu erlijio nagusi orok?

Ikusiko da ez gaudela orain geure galdera berriari besterik gabe erantzuteko egoeran, eta garbi dago bazter utzi ere ezin dugula egin, zeren eta galdera honetan baitago ehulearen lanaren esanahiaren giltza. Gure azterketa oraindik ez da bukatu; baina iritsi gara gure ikerketa-arloetako azkenaren ertzera.

Oharrak

¹ *Völkerwanderung*: herrien migrazioa.

² «Proletalgo» hitza hemen eta aurrerantzean, edozein gizarte-elementu edo talde adierazteko erabiliko da, nolabait ere gizarte jakin batean dagoena baina gizarte horretakoa ez dena berorren historiako une zehatz batean.

³ Hemen *letra etzanez* jarritako hitzak eta esaldiak etengabe erabiliko dira aurrerantzean azterketa honetan termino tekniko gisa.

⁴ Ondorengo «Kairoko Abbastar Kalifaldia» Bagdadeko Kalifaldiaren «itzal» baten ebokazioa izan zen, hots, «Ekialdeko Erromatar Inperioaren» eta «Erromatar Inperio Santuaren» mota bereko fenomeno. Hiru kasuotan, gizarte filial batek bere guraso-gizartearen estatu unibertsalaren «itzal» bat sortu edo gorde zuen.

⁵ John Bunyan ingelesak *Erromesaren Bidaia* alegoria erlijiosoa idatziz zuen 1678-84an, eta hor agertzen dira Christian —Kristau— eta Suntsiduraren Hiria (*Itzultzailearen oharra*).

⁶ Evans, Sir Arthur: *The Earlier Religion of Greece in the Light of Cretan Discoveries*, 37-41. orr.

⁷ Ikus 460. or.

⁸ Whyte, A.F.: *China and Foreign Powers*, 41. or.

⁹ Era berean Frantziako Errepublikari Iraultzailearen sortzaileek, historiako aro berri bat hasten ari zirela-koan eta beraien atzean zetzan guztia «zenbaki atzeratua» zelakoan, I. Urte berria hasi zuten 1792ko irailaren 21ean; Napoleonen zentzuak eta kontserbadurismoak bertan behera utzi zuten eskema hura hamabi urte geroago, baina hamabi urte haietan bizirik iraun zuen bere fructidor eta thermidor-ekin ikaslea gogaitzeko (garai hartako euskaraz *frutillis* eta *berolis*).

¹⁰ Freeman, E.A.: *Comparative Politics*, 31-2. orr.

¹¹ Murphy, J.: *Primitive Man: His Essential Quest*, 8-9. orr.

¹² Tuzidides hartu izan da gertaerei zorrotz atxikitako lehenengo historialari handietakotzat, baina F.M. Cornford-ek bere *Thucydides Mythistoricus* delakoan frogatu du hark gaiak egindako aurkezpen osoa garaiko greziar tragediaren araupean dagoela.

¹³ «Ezin al da beste hizkuntza batean ulertu?» galdetzen du Horaziok.

Bai, badaiteke; hots, «azal zuriko gizakiaren aldagai ilehori, begigris, buruluzea» (*Labur. oh.*).

¹⁴ Bernard Shaw greziarren aldekoa da puntu honetan. *John Bull's Other Island*-en hitzaurrea irakurri dutenek gogoan izango dute destainaz baztertzen duela «arraza zeltikoaren» kontzeptua, eta ingeles eta irlandarren arteko desberdintasun guztiak haien uharteetako klima-desberdintasunari egozten dizkiola.

¹⁵ Hipokrates: *Egurats, ur eta koka-penaren eraginak*, 13. eta 24. kap.ak, Toynbee, A.J.k ingelesera itzulia: *Greek Historical Thought from Homer to the Age of Heraclius*, 167-8. orr.

¹⁶ Jeans, Sir James: *The Mysterious Universe*, 1. eta 2. orr.

¹⁷ Means, P.A.: *Ancient Civilizations of the Andes*, 25-6. orr.

¹⁸ Goetheren *Fausto*, II. 1692-1706 (John Anster-ek ingelesera egindako itzulpenetik euskaratua).

¹⁹ Huntington, Ellsworth: *Civilization and Climate*, 405-6. orr.

²⁰ Myres, J.L.: *Who were the Greeks?* 277-8. orr.

²¹ Childe, V.G.: *The Most Ancient East*, II. kap.

²² Childe, V.G.: *op. cit.*, III. kap.

²³ Garstin, sir William: *Report upon the Basin of the Upper Nile*, 1904, 98-9. orr.

²⁴ Childe, V.G.: *The Most Ancient East*, 10-11. orr.

²⁵ Spinden, H.J.: *Ancient Civilizations of Mexico and Central America*, 65. or.

²⁶ Bazter utzi dugu Toynbee-ren eztabaida, liburuan aurrerago azaldua, ea Indus ibarreko kultura hau zibilizazio apartekoa zen ala Sumerikoaren arlo bat. Puntu hau zehaztu gabe uzten du berak, baina II. kapituluaren Gizarte Sumerikoaren zatitzat hartzen du «Indus ibarreko kultura» (*Labur. oh.*).

²⁷ Toynbeeek Χαλεπὰ τὰ Καλὰ izenburua eman zion kapitulu honi, hots, «Ederra zaila da» edo «Goi-mailako nolakotasuneak lan gogorra eskatzen du» (*Labur. oh.*).

²⁸ Still, John: *The Jungle Tide*, 74-5. orr.

²⁹ Still, John: *op. cit.*, 76-7. orr.

³⁰ Hau geroago aztertuko ditugun «zibilizazio gerarazietako» bat da.

³¹ Toynbee, alegia, berari baitagokio (eta ez laburtzaileari) lehen pertsona liburu honetan agertzen den guztietan.

³² Dagoeneko ez da horrela, Mussoliniren gobernuak monumentu ohoragarri eta iraunkorra utzi baitu ahalegin ikaragarri eta arrakastatsuak eginez eskualde hau gizakiarentzat izan dadin.

³³ Herodoto, IX. lib., 122. kap.

³⁴ Drummond, H.: *Tropical Africa*, 55-6. orr.

³⁵ Herodoto, IV. lib., 144. kap.

³⁶ Polibio, IV. lib., 38. kap.

³⁷ Herodoto, II. lib., 104. kap., eta VII. lib., 89. kap.

³⁸ 1 Erg 3,5-13 (Bibliako pasarte guztiak euskaraz *Elizen arteko bibliatik* hartu dira).

³⁹ Rosebery, Balfour, Campbell-Bannerman eta MacDonald; eta Bonar Law ere erants daiteke, eskoziar-irlandar familiakoa, Kanadan jaioa baina ama eskoziar garbia zuena, eta bere egoitza Glasgow-n ezarri zuen. Honekin bost dira. Zazpi ez dira eskoziarrak izan (*Labur. oh.*).

⁴⁰ Κρήτες αὖ ψεύσται, κακὰ θηρία, γαστέρες ἄργοι: Titori gutuna 1, 12. Aipuaeren autorea Epimenides omen da.

⁴¹ Grönbech, V.: *The Culture of the Teutons*, II. zatia., 306-7. orr.

⁴² Phillpotts, B.S.: *The Elder Edda and Ancient Scandinavian Drama*, 204. or.

⁴³ Phillpotts, B.S.: *The Elder Edda*, 207. or.

⁴⁴ Liburuaren zati hau 1931ko udan idatzi zuen Toynbeek; artean Dr. Brüning zen kantzilerra, baina nazi-mugimenduak jadanik lortuak zituen irabazi handi eta lotsagarriak Reichstag-erako 1930eko irailean egin ziren hauteskundeetan: alderdiaren ordezkaritza igo egin zen 491 aulkietako 12 izatetik 577ren artean 107 izatera. Honela idatzi zuen: «Dagoeneko garbi dago 1918ko armistizioaz geroztik Alemaniari eman zaizkion kolpeek, mende bat lehenago Prusiari 1806-7an emandakoek izan zuten ondorio estimulagarri berbera dutela» (*Labur. oh.*).

⁴⁵ Londresek ere 1666ko sute handiaren ondoren bere garaiko arkitektura-ikuspegia ezartzeko adorea izan zuen eta Wren-en San Paulo eraiki zuen, zaharberritze gotikoa egiten saiatu ordez. Gure belaunaldiko lon-

drestarrek, zer egingo ote zuten alemanen bonbek Westminsterreko abadia edo Wren-en San Paulo suntsitu izan balute? (*Labur. oh.*).

⁴⁶ Egia esan, «kosako» hitzak Turkian duen esanahia Irlandan «tory» hitzak duenaren oso antzekoa da. Baina jatorrizko zentzuan *qazaq*-ek «zulogile» esan nahi duela dirudi, hau da, esteparen ertzean bizi den laborari zergapekoa, berez setatia nomaden jaurgoarekiko. Beste hitz batzuekin esanda, Kain eta Abelen istorioko Kain da *qazaq*, nomaden ikuspuntutik kontaturiko istorio horretan (ikus 223-4. orr.).

⁴⁷ Ausgleich: akordioa, tratua.

⁴⁸ «Marka-lerro garailea mila milia inguru luzatu zen Gibraltarko har-kaitzetik Loiraren zetzetaraino; espazio berdin baten errepikapenak Poloniaren mugetaraino eta Eskoziako Highlands-etaraino eramango zituzkeen sarrazenoak... Agian Koranaren interpretazioa erakutsiko zatekeen orain Oxford-eko eskoletan, eta hango pulpitoetatik Mahomaren errebelazioaren santutasuna eta egia frogatuko zitzaizkiokeen herri erdaindu bati». Gibbon, E.: *The History of the Decline and Fall of the Roman Empire*, LII. kap.

⁴⁹ Horazio: *Odak*, IV, 9 (*Vixere fortes*, etab.). Ingelesetik euskaratua.

⁵⁰ The British Admiralty: *Manual on the Turanians and Pan-Turanism*, 181-4. orr.

⁵¹ Juduen jazarpen naziak istorioaren kapitulu berri eta beldurgarriago bat ireki baino lehen idatzi zuen Toynbeek liburuaren zati hau; kapi-

tulu hori, beraz, ez da sartzen ondo-
rango honetan (*Labur. oh.*).

⁵² Herri-ikastetxetako irakasle gisa,
nik (laburtzaileak) esan dezaket
hainbat aldiz ikusi dudala ikastetxe-
an atleta onak ziren eta honela ikas-
kideen estimarako biderik errazena
zabalik zuten mutil juduek askoz
gutxiago erakusten zutela «ethos
judua» hain zorte ona ez zuten mutil
juduen aldean. Batez besteko mutil
jentilak ez ditu horrelakoak batere
judutzat hartzen, edozelakoa izanik
ere horien fisionomia eta abizenak
(*Labur. oh.*).

⁵³ Disraelik —agian arrazoiz, nahiz
eta bere familiaren historiari buruz-
ko informazioa oso irudimentsua
izan— azken hauetakoren baten
ondorengotzat zeukan bere burua.

⁵⁴ Lebensraum: bizi-espazioa.

⁵⁵ Ikusiko da «Galloway» hitza,
paragrafoaren izenburuan erabili
duguna, ez dela erabat egokia
Ulsterren kolonizatzaileen sorleku-
ingurua deskribatzeko (*Labur. oh.*).

⁵⁶ Hurrengo kapituluan beste talde
desberdin batekin topo egingo dugu:
«zibilizazio geraraziak». Hauek bik-
tima direla ikusiko dugu, ez «haur-
hilkortasunarenak», «haur-elbarri-
tasunarenak» baizik. Jaio egin ziren,
baina hazi gabe geratu ziren, maita-
garrien ipuinetako haur batzuk beza-
la (Peter Pan, adibidez).

⁵⁷ «La Tène-ko kultura», Neuchâ-
teleko aintziraren irteeran dagoen
lekuagatik horrela deitua, han aurkitu
zirelarik lehen aztarna garrantzitsuak.

⁵⁸ Moribus et lingua, quoscumque
venire videbant, Informant propria,
gens efficiatur ut una.

Gilermo Apuliakoa, *De Gestis
Normanorum*, Muratori-n, *Scripto-
res Rerum Italicarum*.

⁵⁹ Gibbon, E.: *The History of the
Decline and Fall of the Roman
Empire*, LV. kap.

⁶⁰ Zauritu ezintasun eta ikaragaizta-
sunaren ideia filosofikoei buruz,
ikus 521-2. orr.

⁶¹ Steensby, H.P.: *An Anthropologi-
cal Study of the Origin of the
Eskimo Culture*, 43. or.

⁶² Steensby: *op. cit.*, 42. or.

⁶³ Hasiera 4, 1-5.

⁶⁴ Ildo hauetatik Toynbeek azterketa
sakona egiten du kapitulu honen
eranskin luze batean, baina hemen
ezin dugu sartu (*Labur. oh.*).

⁶⁵ Toynbee, A.J.: *The Western
Question in Greece and Turkey*, 339-
342. orr.

⁶⁶ Hasiera 4, 11-12.

⁶⁷ Toynbeek hau 1945ean idatzi izan
balu, haren laburtzailea orain ari den
bezala, azaleko aldaketak bakarrik
egin beharko zituzkeen pasarte
honetan (*Labur. oh.*).

⁶⁸ Ikus 204. orr.

⁶⁹ Lybeyer, A.H.: *The Government
of the Ottoman Empire in the Time
of Suleiman The Magnificent*, 36,
45-6, 57-8. orr.

⁷⁰ Busbecq, O.G.: *Exclamatio, sive
de Re Militari contra Turcam insti-
tuenda Consilium* (Leyden, 1633),
439. orr.

⁷¹ Plutarko: *Likurgo*, XV. kap.

⁷² Aristoteles: *Politika*, 1333 B-
1334 A.

- ⁷³ Tuzidides, I. lib., 17. kap.; Herodoto, VI. lib., 98. kap.
- ⁷⁴ Carr-Saunders, A.M.: *The Population Problem*, 116-17. orr.
- ⁷⁵ Heard, Gerald: *The Ascent of Humanity*, 277-8. orr.
- ⁷⁶ Housman, A.E.: *A Shropshire Lad*, XXVIII.
- ⁷⁷ Toynbeek urte batzuk geroxeago idatzi izan balu, agian puntu honetan salbuespen bat egingo zukeen Japoniaren erronkarentzat (*Labur. oh.*).
- ⁷⁸ Churchillek egitate hau azpimarrratu zuen Indiari buruz Komunen Ganbaran 1942ko irailaren 10ean egindako adierazpenean. Hark esandakoei garratz eraso zien Indiako prentsa nazionalistak (*Labur. oh.*).
- ⁷⁹ Sir Alfred Ewing, *The Times*-en agertuaren arabera, 1932ko irailaren 1ean.
- ⁸⁰ *Odisea*, IX. lib., 112-15. berts., Platonek aipatua: *Legeak*, II. lib. 640 B.
- ⁸¹ Huxley, J.S.: *The Individual in the Animal Kingdom*, 36-8. eta 125. orr.
- ⁸² Spengler, O.: *Der Untergang des Abendlandes*, I. bol., 15-22. ed., 153. or.
- ⁸³ Cole, G.D.H.: *Social Theory*, 13. or.
- ⁸⁴ Bergson, H.: *Les Deux Sources de la Morale et de la Religion*, 333. eta 373. orr.
- ⁸⁵ Bergson, H.: *Op. cit.*, 96. or.
- ⁸⁶ Bergson, H.: *Op. cit.*, 246-51. orr. Irakurlea ohartuko zen Bergsonen histori filosofia zein hurbil dagoen Carlyle-renetik (*Labur. oh.*).
- ⁸⁷ Mateo 10,34-6. Cf. Lukas 12,51-3.
- ⁸⁸ Bergson, *op. cit.*, 181. or.
- ⁸⁹ Bergson, *op. cit.*, 98-9. orr.
- ⁹⁰ Ikus 89. or.
- ⁹¹ Irteera 19,3 eta 31,18. Ikus 19. kap., *passim*.
- ⁹² Ibn Khaldun: *Muqaddamat*. M. de Slane baroiak frantsesez emandako itzulpena, II. bol., 437. or.
- ⁹³ Salmoa 107,10.
- ⁹⁴ 1 Korintoarrei 15,35-8, 42-5, 47.
- ⁹⁵ Bryce, James: *The Holy Roman Empire*, XI. kap., *ad fin.*
- ⁹⁶ Bagehot, W.: *Physics and Politics*, 10. ed., 214. or.
- ⁹⁷ Kolosarrei 3,11.
- ⁹⁸ Galaziarrei 1,15-18.
- ⁹⁹ Shakespeare: *Rikardo Bigarrena*, I. ekitaldia, 2. agerraldia, 21-3. orr.
- ¹⁰⁰ Jeans, Sir J.: *Eos: or the Wider Aspects of Cosmogony*, 12-13, 83-4. orr.
- ¹⁰¹ Horazio: *Odak*, III. lib., VI. oda, azken ahapaldia. Honela itzuli da txukun, baina ez oso poetikoki:
Jaun endekatuen hazi endekatua, laster sortuko dugu laugarren klaseko askazia.
- ¹⁰² «Dagoeneko iritsi da kumear profezia iragarritako azken aroa; berriro jaiotzera dator aroen ordena handia. Jadanik itzultzen ari dira Birjina eta Urrezko Aroa; jada arraza berri bat bidaltzen ari dira Zeru Goitik... Beste Tifys bat eta beste Argos bat izango dira heroi-talde hautatu bat gidatzeko. Berriro borrokatuko dira gerra zaharrak eta

berriro bidaliko dute Troiara Akiles handia».

¹⁰³ Musikako terminoa «diddle-diddle» akonpainamenduetarako, arruntak hemezortzigarren mendeko teklatu-musikan. Diddle-diddle honetarako, sir Donald Tovey zena-ren autoritatea daukagu (*Labur. oh.*).

¹⁰⁴ Ikus 245-257. orr.

¹⁰⁵ Rostovtzeff, M.: *The Social and Economic History of the Roman Empire*, 302-5. eta 482-5. orr.

¹⁰⁶ Gai honetaz beste ikuspegi bate-tik egindako azterketarako, ikus 125. or.

¹⁰⁷ Jones, W. H. S.: *Malaria and Greek History*.

¹⁰⁸ Inperio Egipziakoaren kasu bakarra, analogia guztien arabera hil behar zuen baino hainbat mende gehiago iraun zuena, 69-71. or.etan aztertu da.

¹⁰⁹ Ikus 54. or.

¹¹⁰ Bridges, R.: *The Testament of Beauty*, I. lib., 594-5. berts.

¹¹¹ Mateo 9,16-17.

¹¹² P. A. Sorokin-ek, berak aurkeztu-riko estatistika-datueta ikusten duenez, gerraren eragina Mendebaldeko munduan arinagoa izan zen, oro har, hemeretzigarren mendean hemezortzigarrenean baino (*Social and Cultural Dynamics*, III. lib., New York 1937, American Book Co., 342. eta 345-6. orr.).

¹¹³ Gibbon, E.: *The History of the Decline and Fall of the Roman Empire*, XXXVIII. kap., *ad finem*.

¹¹⁴ Egia esateko, bada aurreragoko adibide bat: britainiar agintari-ek frantziar akadiarrak bota zituzten Eskozia Berritik Zazpi Urteko gerraren hasieran; baina hau eskala txikiko arazoa izan zen —nahiz eta ankerra izan hemezortzigarren men-deko neurriaren arabera— eta bazi-ren, edo bazirela uste zen, arrazoi estrategikoak hartarako.

¹¹⁵ Plutarko: *Temistoklesen bizitza*, II. kap.

¹¹⁶ Woodward, W.E.k aipatua: *A New American History*, 260. or.

¹¹⁷ *Tao-te King*-a, 24. kap. (Waley, A.k itzulia, in *The Way and its Power*).

¹¹⁸ Tennyson: *In Memoriam*.

¹¹⁹ Alexandro Handiak Akemenes-tar Inperioa menderatu zuenetik Augustok *Pax Romana* ezarri zuen arteko hiru mendeetarako «atizistiko» izena egokiagoa litzateke ohiko «helenistiko» terminoa baino. Edwyn Bevan-ek esan bezala, «helenistiko» epitetoa ezingo litzai-oke zorrotz eta egoki aplikatu Zibilizazio Helenikoaren ezein atali, baizik eta Gizarte Helenikoaren filial diren bi zibilizazioen izaera osoari, Azterlan honetan erabilitako terminologian Mendebaldeko Kris-tandadea eta Kristandade Ortodoxoa deitzen direnak.

¹²⁰ Tours: Poitiers (*Itzult. oh.*).

¹²¹ Toynbeeren jatorrizko lanean Ekialdeko Erromatar Inperioa aurre-ko edozein adibide historiko baino luzera eta lanketa handiagoz azter-tzen da. Ikus IV. bol., 320-408. orr. (*Labur. oh.*).

¹²² Britainiar uharteen mutur batetik besteraino esan nahi da. Land's End Ingalaterrako hego-mendebaldeko muturra da, eta John o'Groats Eskoziako iparraldeko muturra.

¹²³ Heard, Gerald: *The Source of Civilization*, 66-7. orr.

¹²⁴ Heard, Gerald: *The Source of Civilization*, 67-9. orr.

¹²⁵ Wells, H.G.: *The Outline of History*, 22-4. orr.

¹²⁶ Heard, Gerald: *The Source of Civilization*, 71-2. orr.

¹²⁷ «Ez dago herririk ohorerik gabe bere profetengan izan ezik».

¹²⁸ *Iliada* XVI, 211-17. berts.

¹²⁹ Browne, E.G.: *A Literary History of Persia*, II. bol., 462. or., Falak-ad-Din Muhammad b. Aydimir aipatuz, *Kitab-al-Fakhri* delakoan Ibn-at-Tiqtaqa-k aipatzen duen bezala.

¹³⁰ Betekadaren eta jokabide iraingarriaren erlazio kausala argi adierazi zuen poeta hebrear batek txatal honetan: «Gizendu egin zen Jexurun eta ostikoka hasi» (Dt. 32,15). Ostikoka egin zuen ὄβρις gizendu zelako κόρος eta ondorengo txatalek adierazten dute ἄτη daukala zain. Pasarte honetako Jexurun Israel da, Jeroboan II.aren egun opa-roetan Jahve abandonatu zuenean. «Hamar Leinu» haien suntsipenera eramango zuen Gatibualdia handik mende-erdira besterik ez dago.

¹³¹ Platon, *Legeak*: 691c.

¹³² Marlowe, Christopher: *Tamburlaine the Great*, 2232-8, 2245-9. berts.

¹³³ Mann, the Right Rev. Monsignor H.K.: *The Lives of the Popes in the*

Middle Ages, XI. bol., 72. or.

¹³⁴ Bridges, Robert: *The Testament of Beauty*, IV, 259-64. berts.

¹³⁵ Letra-gizon erromatar katoliko ezagun batek elkarriketa pribatu batean (eta beraz ezin da haren izena eman) esan zuen: «Eliza Katolikoa jainkozkoa dela uste dut nik, eta haxe iruditzen zait bere jainkotasunaren froga: giza izaera hutseko erakunde batek, hain ergelkeria zitalez gidatua, ez zukeen hamabost egun ere iraungo» (*Labur. oh.*).

¹³⁶ Macaulay, Lord: *Essay on «History»*.

¹³⁷ Edwyn Bevan, idazleari bidalitako gutunean.

¹³⁸ Tuzidides, III. lib., 82. kap.

¹³⁹ Burkitt, F.C.: *Jewish and Christian Apocalypses*, 12. or.

¹⁴⁰ Salmoa 137 (136), 5-6.

¹⁴¹ Salmoa 137 (136), 1.

¹⁴² Eztabaida-gai da, eta agian sekula ez zaio behin betiko erantzunik emango, ea filosofia budista —errusiar jakintsu baten lan batetiko ondorengo pasartean deskribatua—, zeinen aurka altxatu baitzen mahayana, Sidarta Gautamaren irakaspen pertsonalaren erreplika edo interpretazio okerra izan zen. Jakintsu batzuek diotenez, hinayaniar idazkietan agertzen zaigun filosofia sistematizatuaren geruzapean datzan Budaren beraren irakaspen pertsonalaz sumatu genezakeenagatik, pentsa dezakegu Budak berak sinesen zuela arimaren errealtatean eta iraunkortasunean, eta haren ariketa espiritualen helburu zen nirvana erabateko desagertzearen egoera zela,

ez bizitzaren beraren desagertzearena, baizik eta grina-zeparena, bizitzari atxikia dagoen neurrian, honi bete-betea bizi izatea eragozten diona.— A.J.T.

¹⁴³ Stcherbatsky, Th.: *The Conception of Buddhist Nirvana*, 36. or.

¹⁴⁴ Juvenal-ek, Ekialdeko siriar erdi-helenizatuak bere garaiko (Kristoren ondorengo bigarren mendearen hasierako) Erroman izandako eragina deskribatuz in *Tiberim defluxit Orontes* idatzi zuen: Orontes Tiberrera doa.

¹⁴⁵ Agian bururatuko zitzaion irakurleari intelligentsia, Toynbeek erabiltzen duen bezala, 1939-45eko Mundu Gerran *quisling* gisa deskribaturiko animalia politikoa gizarte-baliokidea dela (*Labur. oh.*).

¹⁴⁶ Optimismoaren eta pesimismoaren azalpen klasikoa, Southey-ren *Colloquies* (1830) delakoei buruz Macaulayk egindako saiakeran aurkituko da (*Labur. oh.*).

¹⁴⁷ Abrahan Jainkoari erreguka Sodoma salbatzeko: Hasiera 18, 24.

¹⁴⁸ Joan 3, 4-5.

¹⁴⁹ *The Times*, 1936ko abuztuaren 14koa, eta Hides, J.G.: *Papuan Wonderland*.

¹⁵⁰ «Zibilizazioan» esaten dugunean, ez dugu esan nahi geografikoki barruan —zeren eta «kanpokoak» izanik, garbi baitago ez daudela barruan—, baizik eta «zibilizazioan», gogo onez edo behartuta berarekin erlazio aktiboan jarraitzen dutelako.

¹⁵¹ San Agustin: *De Civitate Dei*, I. lib., 7. kap.

¹⁵² Orosio, P.: *Adversum Paganos*, VII. lib., 43. kap.

¹⁵³ Lewis, C.S.: *A preface to Paradise Lost*, 22. or.

¹⁵⁴ Bere azterketan Toynbeek, datu historikoei horretarako aukera ematen dioten neurrian, zibilizazio guztietako kanpo-proletalgoak aztertzen ditu. Nik baztertu egin ditut beste guztiak, eta zuzenean azken sekziora jo dut, geure Mendebaldeko Gizar-tearen kanpo-proletalgoei buruzkora. Ez daukat esan beharrik, ezta barkamenik eskatu beharrik ere, beste puntu batzuetan, hain zorrotz ez bada ere, antzerako planari jarraitu diodala. Adibidez, barne-proletalgoei buruzko kapituluak, Toynbeek guztiak aztertzen ditu. Nik erdiak-edo baztertu egin ditut, eta beste erdiak hartu, nire ustez intereseko ezaugarri gehienak zituztenak (*Labur. oh.*).

¹⁵⁵ Paralelotasun nabaria dago hemen Indiako *swadeshi* mugimendurekin (*Labur. oh.*).

¹⁵⁶ Meredith, G.: *Love's Grave*.

¹⁵⁷ Inge, W.R.: *The Idea of Progress*, 13. or.

¹⁵⁸ Mussolinik de Kerillis frantziar publizistari emandako elkarrizketa, *The Times*-en aipatua, 1935eko abuztuaren lehen.

¹⁵⁹ «Théodore P.K.»: *La Ménagerie*.

¹⁶⁰ R.A. Knox-ek ingelesera egindako itzulpenetik euskaratua (in *The Making of Western Europe*, C.R.L. Fletcher-ek, 3. or.).

¹⁶¹ Murray, Gilbert: «Satanism and the World Order», in *Essays and Addresses*, 203. or.

¹⁶² Befreiungskrieg: askapen-gerra (*Itzul. oh.*).

- ¹⁶³ Marko Aurelio Antonino: *Meditazioak*, IV. lib., 23. kap.
- ¹⁶⁴ Lukas 17, 20-21.
- ¹⁶⁵ Wordsworth, W.: *Tintern Abbey*.
- ¹⁶⁶ Ikus izenburu honekin Julien Brenda-ren liburua.
- ¹⁶⁷ Ikus Platon: *Politikaria*, 272 D 6-273 E 4.
- ¹⁶⁸ Horazio: *Odak*, I. lib., 35. oda. O diva gratum quae regis Antium...
- ¹⁶⁹ *The Manchester Guardian*, 1936ko uztailaren 13koa.
- ¹⁷⁰ Waley, A.: *The Way and its Power*, 30. or.
- ¹⁷¹ *Tao Te King*, 34. kap. (Waley-ren itzulpenetik euskaratua).
- ¹⁷² Tawney, R.H.: *Religion and the Rise of Capitalism*, 129. or.
- ¹⁷³ *Op. cit.*, 112. or.
- ¹⁷⁴ Inge, W.R.: *The Idea of Progress*, 8-9. orr.
- ¹⁷⁵ Virgilio: *Eneida*, V. lib., 231. berts.
- ¹⁷⁶ Fitzgerald, E.: *Rubáiyat of Omar Khayyám* (laugarren edizioa), LXIX.
- ¹⁷⁷ John Bunyan ingelesak XVII. mendean *Erromesaren Bidaia* idatzi zuen, eta eragin handia izan zuen alegoria erlijioso honetako pertsonaia bat da hemen agertzen den Kristau hau (*Itzul. oh.*).
- ¹⁷⁸ Platon: *Errepublik*a, 364 B-365 A.
- ¹⁷⁹ Proto erregeak Kleoni planteatzen dion arazo teologikoa bekatuari buruzkoa ez baizik eta arimaren hilezkortasunari buruzkoa izateak ez du balioagabetzen Brownningen fikziozko Kleon poetaren egokitasuna, aurreko paragrafoko argudioaren argibide bezala.
- ¹⁸⁰ Lattimore, O.: *Manchuria, Cradle of Conflict* (1932), 62-3. orr.
- ¹⁸¹ Dill, S.: *Society in the Last Century of the Western Empire*, 291. or.
- ¹⁸² Turner, F.J.: *The Frontier in American History*, 3-4. orr.
- ¹⁸³ Rycaut, P.: *The Present State of the Ottoman Empire* (1668), 18. or.
- ¹⁸⁴ Trümmerfeld: alemanez «hondakin-alor» (*Itzul. oh.*).
- ¹⁸⁵ More, P.E.: *Christ the World: The Greek Tradition from the Death of Socrates to the Council of Chalcedon*, IV. bol., 298. or.
- ¹⁸⁶ More, P.E.: *Christ the Word*, 6-7. orr.
- ¹⁸⁷ Horazio: *Odak*, III. lib., I. oda, 1-4. berts. (*Odi profanum vulgus, etab.*), Sir Stephen de Vere-k ingelesera egindako itzulpenetik euskaratua.
- ¹⁸⁸ Jung, C.G.: *Modern Man in Search of a Soul*, 243-4. orr.
- ¹⁸⁹ *Cuius regio eius religio* formula (gobernariak erabakitzen du erlijioa) 1555eko Augsburgoko Itunaren xedapen nagusiaren laburpen tradizionala da; horren arabera, Alemaniako toki-estatu bakoitzeko gobernariari eskubidea aitortzen zitzaion kristautasunaren forma katolikoa edo luterotarra aukeratzeko, eta gero, nahi bazuen, berak ezarritako erlijiora bere mendekoak moldatzen ahalegintzeko. Ituna Alemaniako erlijio-gerretan erabakigarria izan ez zen lehen txandaren ondoren etorri zen.

¹⁹⁰ Polibio: *Historiae*, VI. lib., 56. kap.

¹⁹¹ Baynes, N.H.: *Constantine the Great and the Christian Church*, 4. or.

¹⁹² Smith, V.A.: *Akbar, the Great Mogul*, 210. or.

¹⁹³ Waley, A.: *The Way and its Power*, Sarrera, 69-70. orr.

¹⁹⁴ Herodoto, III. lib., 38. kap., Pindaroren aipamena.

¹⁹⁵ Baina benetan han ote zegoen Zeus? Ez ote litzateke gertaeretara gehiago hurbilduko lur joa zegoen olinpiar establezimendua ordezteko filosofoek instalaturiko hartzaile inpersonalek, negozio-helburuekin, enpresa hartan bazkide nagusi izandako zenduaren izena erabili zutela esatea? Edonola ere, Toynbeek bere lanaren beste alde batean Marko Aurelioren pasarte bat aipatu eta komentatzen du: «Deiadar tragiko hauetan badirudi *Cosmopolis*-eko hiritar leial baten ahotsa entzuten dugula, bat-batean esnatu eta Zeusek bere presidentzi postutik ihes egin duela ohartu delarik... Baina Markoren kristau-irakurleek ez lukete Markoren Zeusekin gogorregiak izan behar; zeren eta Zeusek, azken batean, sekula ez baitu errepublika kosmiko bateko presidente aukeratua izatea eskatu; gerra-talde barbaro baten gerra-jaun ospe txarreko izanez hasi zuen bizitza eta hari buruz dakigun guztiaren arabera hauxe zen benetan atsegin zuen bizimodua. Zeus, filosofoek berandu harrapatu eta kaiolaratua, ez bazen gai erreformatorio estoiko batean preso nagusi bezala ezarritako errespetagarritasuna betierean

jasateko, nola ausartuko gara, bada, zentzagaitz izateagatik gizagaixoa errudun jotzera?». Baina agian, Scroogeren lankide Marley-k bezala, Zeusek ere ez du merezi ez gaitzespenik ez begikotasunik, «aspaldi hila baita». (*Labur. oh.*).

¹⁹⁶ Daniel 7, 9-10.

¹⁹⁷ Deuteronomioa 5, 26.

¹⁹⁸ Squire, J.C.: *Books in General*, 246. or.; C.L.D.ren liburuaren aipamena dauka.

¹⁹⁹ Warde-Fowler, W.: *The Religious Experience of the Roman People*, 428-9. orr.

²⁰⁰ Arte islamikoan naturako gauzak kopiaitzeko debeku honek eredu ez-irudikatuak eginda konformatzera eraman zituen artistak. Hortik dator kigu «arabesko» hitza.

²⁰¹ Hemendik dator «millennium» hitzaren herri-erabilera (ingelesez) etorkizuneko «urrezko aroa» adierazteko.

²⁰² Bevan, E.: *Jerusalem under the High Priests*, 158. eta 162. orr.

²⁰³ Baghavadgita, IV, 19, eta II, 11 (Barnett-en itzulpenetik euskara-tua).

²⁰⁴ Epikteto: *Solasaldiak*, III. lib., 24. kap., 85-8. paragr.

²⁰⁵ Seneka: *De clementia*, II. lib., 5. kap., 4-5. paragr.

²⁰⁶ 1 Korintoarrei 1, 27.

²⁰⁷ 1 Korintoarrei 1, 22-23.

²⁰⁸ Bevan, E.R.: *Stoics and Sceptics*, 69-70. orr.

²⁰⁹ Isaías 45, 1-3.

²¹⁰ Platon: *Errepublika*, 473 D.

²¹¹ Plutarko: *De Stoicorum Repugnantiis*, 2. eta 20. kap.

²¹² Platon: *Errepublika*, 502 A-B.

²¹³ Makiavelo: *Printzea*, 6. kap.

²¹⁴ Werrall, A.W. *Euripides the Rationalist*, 138. or. Pasartearen azken esaldiko aipua Aristofanesena da: *Thesmophoriazusae*, 450-1. berts.

²¹⁵ Isaías 53, 2.

²¹⁶ Egia esan, gizakiak ziurtatzen du jainkoa hilko dela, hari bizia kenduz, gizakiak berak bizirik jarraitu ahal izateko. Landaretza paganoaren kultu-espirtua Robert Burns-en

John Barleycorn poeman jasotzen da, literatura ingeleseko beste edozein obratan baino hobeto agian.

²¹⁷ Isaías 53, 5.

²¹⁸ Platonen *Gutunak*, VII, 341 C-D.

²¹⁹ Orfeoren heriotzakoan Antipater Sidongoak egindako elegia (*circa* K.a. 90).

²²⁰ Shelley: *Adonais*, LII.

²²¹ Isaías 53, 10-11.

²²² Browning, R.: *A Grammarian's Funeral*.

²²³ Goethe: *Fausto*, 501-9 (R. Anstell-ek ingelesera egindako itzulpenetik euskaratua).

Aurkibidea

HITZAURREA.....	9
OHARRAK.....	25
TOYNBEE-REN LAN AIPATUAK.....	27
BIBLIOGRAFIA	29
EGILEAREN HITZAURREA.....	31
LABURTZAILEAREN OHARRA.....	33
I. SARRERA	35
I. AZTERKETA HISTORIKOAREN UNITATEA.....	35
II. ZIBILIZAZIOEN KONPARAZIOZKO AZTERKETA.....	48
III. GIZARTEENKONPARAGARRITASUNA	73
1. Zibilizazioak eta gizarte primitiboak	73
2. «Zibilizazio-batasunaren» ideia okerra	74
3. Zibilizazioen konparagarritasunaren alde	81
4. Historia, zientzia eta fikzioa	83
II. ZIBILIZAZIOEN SORRERAK	88
IV. ARAZOA ETA NOLA EZ KONPONDU	88
1. Arazoaren planteamendua	88

2. Arraza.....	92
3. Ingurunea.....	96
V. ERRONKA ETA ERANTZUNA	102
1. Mitologiako arrastoa	102
2. Mitoa arazoari aplikatua	110
VI. ZORITXARRAREN BERTUTEAK	124
VII. INGURUNEAREN ERRONKA.....	133
1. Herrialde gogorren estimulua	133
2. Lurzoru berriaren estimulua	145
3. Kolpeen estimulua	156
4. Presioen estimulua.....	159
5. Zigorren estimulua.....	175
VIII. ERDIBIDE EGOKIA	191
1. Nahikoa eta gehiegi	191
2. Konparazioak hiru terminotan	197
3. Bi zibilizazio abortatu	206
4. Islamaren eragina Kristandadeetan.....	213
III. ZIBILIZAZIOEN HAZKUNDEAK	218
IX. ZIBILIZAZIO GERARAZIAK.....	218
1. Polinesiarrak, eskimalak eta nomadak	218
2. Osmanliarrak.....	226
3. Espartarrak	234
4. Ezaugarri orokorrak.....	238
Oharra. Itsasoa eta estepa hizkuntz eroale.....	242
X. ZIBILIZAZIOEN HAZKUNDEEN IZAERA	245
1. Bi arrasto faltsu	245
2. Aurrerapena autodeterminaziorantz	257
XI. HAZKUNDEAREN ANALISIA	269
1. Gizartea eta gizabanakoa	269
2. Erretiroa eta itzulera: gizabanakoak	278

3. Erretiroa eta itzulera: gutxiengo sortzaileak	293
XII. DIFERENTZIAZIOA HAZKUNDEAREN BIDEZ	304
IV. ZIBILIZAZIOEN KOLAPSOAK	307
XIII. ARAZOAREN IZAERA	307
XIV. ERANTZUN DETERMINISTAK	310
XV. INGURUNEAREN GAINEKO AGINTEA GALTZEA.....	319
1. Ingurune fisikoa	319
2. Giza ingurunea	325
3. Epai negatiboa	337
XVI. AUTODETERMINAZIOAREN PORROTA.....	341
1. Mimesiaren mekanikotasuna	341
2. Ardo berria zahagi zaharretan	346
3. Sormenaren nemesia: nortasun iragankor baten idolatria.....	377
4. Sormenaren nemesia: erakunde iragankor baten idolatria	387
5. Sormenaren nemesia: teknika iragankor baten idolatria.....	398
6. Militarismoaren suizidio-joera	409
7. Garaipenaren hordikeria	424
V. ZIBILIZAZIOEN DESINTEGRAZIOAK	436
XVII.DESINTEGRAZIOAREN IZAERA	436
1. Azterketa orokorra.....	436
2. Zisma eta palingenesia	445
XVIII.ZISMA GIZARTE-GORPUTZEAN	448
1. Gutxiengo menderatzaileak	448
2. Barne-proletalgoak.....	453
3. Mendebaldeko munduaren barne-proletalgoa.....	472
4. Kanpo-proletalgoak	484
5. Mendebaldeko munduaren kanpo-proletalgoak	494
6. Inspirazio atzerritar eta indigenak	502
XIX. ZISMA ARIMAN	511

1. Jokaera, sentiera eta biziera alternatiboak.....	511
2. «Abandonua» eta autokontrola	523
3. Desertzioa eta martirioa	525
4. Noraezaren zentzua eta bekatuaren zentzua	528
5. Promiskuitate-zentzua	540
a) Arruntasuna eta barbarotasuna maneretan	540
b) Arruntasuna eta barbarotasuna artean	551
c) <i>Lingue Franche</i>	553
d) Sinkretismoa erlijioan	559
e) <i>Cuius regio eius religio?</i>	569
6. Batasun-zentzua	583
7. Arkaismoa	594
8. Futurismoa.....	605
9. Futurismoaren autotraszendentzia.....	611
10. Desatxikimendua eta antzaldaketa	618
11. Palingenesia.....	622
XX. DESINTEGRATZEN ARI DIREN GIZARTEEN ETA GIZABANAKOEN ARTEKO HARREMANA	626
1. Jeinu sortzailea salbatzaile gisa	626
2. Ezpatadun salbatzailea	628
3. Denbora-makinadun salbatzailea.....	632
4. Erregez mozorroturiko filosofoa.....	634
5. Jainkoa gizaki batengan haragitua	639
XXI. DESINTEGRAZIOAREN ERRITMOA	644
XXII.ESTANDARIZAZIOA DESINTEGRAZIOAREN BIDEZ.....	652
OHARRAK.....	657
AURKIBIDEA	669